eusk

al kultura gaur

Beatriz, Garazi eta Manex:

liburu honek lapurtu dizkizuen ordu askoren
ordain eskasa bada ere,

Zuentzat

euskal k

© JAKIN

ISBN: 84-922537-0-3

Lege Gordailua: Na-599/97

EUSKAL KULTURA GAUR

LIBURUAREN MUNDUA

Joan Mari Torrealdai

JAKIN

Egilea: JOAN MARI TORREALDAI

Argazkiak: AITOR BAYO,

ondoren adierazten direnak salbu: 164 or. (A. Gillenea-Egunkaria) / 169-1 or. (Olalde-Egunkaria) / 169-2 (A. Gillenea-Egunkaria) / 171 or. (L. Arzuaga-Egunkaria) / 180 or. (Argia) / 270 or. (A Gillenea-Egunkaria) / 299 or. (ETB) / 341 or. (X. Simal-Egunkaria) / 352 or. (Argia) / 394 or. (E. Koch-Egunkaria) / 410 or. / 416 or. (A. Bayo-Argia) / 435 or. (X. Simal-Egunkaria) / 446 or. (J. Lacalle-Egunkaria) / 450 or. (J. Lacalle-Egunkaria) / 477 or. / 478 or. (A. Bayo-Argia) / 487 or. (E. Koch-Egunkaria) / 535 or. / 609 or. (J. Lacalle-Egunkaria) / 644. or. (L. Arzuaga-Argia) / 652. or. (M. Mujika-Argia) / 654 or. (E. Koch-Egunkaria)

Infogramak: JOXEAN APEZTEGIA

Diseinua eta maketa: IMANOL TAPIA

Azalaren diseinua: JOSE FELIX IGARTUA - IMANOL TAPIA

Fotomekanika: IGARA taldea

Inprimaketa: LIZARRA S.L.

Hainbat ilustrazio ondorengo iturri hauetatik hartu ditugu: *Euskara, euskaldunon hizkuntza* / Joseba Intxausti, or. 63, 64, 65, 67, 76, 82, 83, 87, 88, 90, 103-2, 104-2, 105, 123-2, 126, 130; Mikel Leoz, or. 84; Txertoa Argitaletxea: or. 66; *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* / Auñamendi Argitaletxea: or. 99, 100, 101, 103-1, 114, 116, 120, 123-1, 139

AURKEZPENA

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa

Joan Mari Torrealdaik azken hogei urteotako kulturgintzaren historia egiteko gogoa eta proiektua aurkeztu zigunean, animatu egin genuen.

Artean Joseba Jaka bizi zen eta bera izan zen animatzaile sutsuenetako bat.

Liburu honek senide zaharrago bat badu, *Euskal Idazleak Gaur*, hogei urte euskal kulturgintzan dihardugunok ondotxo gogoratzen duguna. Liburu hark begien aurrean bisualizatu egin zigun gure geure errealitatea (garai hartan nahikoa klandestino eta marginala), modu errealean eta sinbolikoan begibistaratu ere. Zaharra eta zaharkitua gelditu zaigu. Zorionez. Harrez gero hazi, azkartu, aberastu egin baita euskal kultura. Interesgarria ezeze beharrezkotzat jotzen genuen kultura garaikidearen historia egitea, euskaldungoak begien aurrean eduki dezan kultura idatziaren mundu konplexua: idazleak, argitaletxeak, liburua produktu eta mezu bezala, honen komertzializazioa eta kontsumoa. Ezin, hortaz, ezetzik eman tankera honetako proiektuari.


Data-koinzidentzia hutsetik hara doa liburuak aztertzen duen aldia eta Bilintx eta Zabaltzen sortu genuenetik gaurdainokoa bat bera izatea. Hogei urte dira, Bilintx eta Zabaltzen martxan jarri genuenetik, eta ondotxo dakigu zer zegoen orduan eta zer dugun orain. *Euskal Idazleak Gaur* kontsultatu besterik ez dago. Hazkunde honetan zerbait lagundu dugulakoan gaude. Eta, zorionez, hazkunde-prozesu honetan ez gaude bakarrik, ezta gutxiago ere. Liburu hauxe da horren lekukorik hoberena. Zilegi izan bekigu, hala ere, gure geure historiaren lerro nagusitxoenak gogoratzea:

Esan bezala, 1976an Bilintx liburudenda sortu genuen Donostian eta banaketa-zerbitzu gisa Zabaltzen. Hurrengo urtean, produkzioa bermatzeko Elkar argitaletxeari eman genion hasiera Hego Euskal Herrian. Argitaletxeari disketxeak ematen dio osapena. Egitura hauen inguruan hasi da gauzatzen gure kulturgintza: euskarazko kultur produktuak sortzeko, banatzeko eta saltzeko enpresa-sarea, alegia. Produkzio eta zabalkunderako egiturak sendotu genituen aurrena, eta ondoren liburu-denden sarea: Xalbador Iruñean, Irunen eta Tolosan Bilintx berriak, Etxepare-Bilintx Bergaran, Urretxindorra Bilbon, eta abar. Euskal Herritik kanpora ere atera gara zerbitzu integrala hobeki eskaintzeko eta hemengo produktuei kanpoan zabalkundea emateko asmoz. Eta hori guzti hori hogei urteotan, *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua* liburuak deskribatzen duen garaian, hain zuzen ere.

Hogei urte horien bizialdia, kulturan, belaunaldi oso bat iruditzen zaigu. Belaunaldi gisa, amestu genituen gailur haietara agian ez gara iritsi, baina kuantitatiboki eta kualitatiboki abiapuntutik oso gora gaude. *Euskal Idazleak Gaur* liburuak gerraosteko belaunaldiaren lana deskribatzen zuen. Oraingo honek gure geure historia propioa esplikatzen du. Komentziturik gaude, eta apustu horretan gaude bete-betean, hogei urte barru egingo den ikerketak orain arteko ahalegin eta lorpenak aise gaindituko dituela. Euskal kultura epealdi berri batean jada sartua da, proiekzio berriekin, eszenario berriekin. Iraganetik ikasiz etorkizuna nola eraiki erakutsi beharko liguke liburu honek.

Hogei urteko epealdi hau erabakiorra da guretzat. Duela hogei urte Bilintx eta Zabaltzen-ekin hasi zena (eta lehenago Ipar Euskal Herrian Elkar eta Zabal-ekin) hogei urteren buruan *Euskalgintza Elkarlanean Fundazio* bilakatu da. Gure praktika kulturalak hasiera-hasieratik izan du orain Fundazioak juridikoki mamitzen duen gogo bera, izpiritu berbera: euskal kulturak hezur eta mamizko gorputza behar duela, hau da, euskal kulturgintzak oinarri ekonomiko eta enpresariala behar duela, eta enpresa-mailan lortzen ditugun etekinak eta irabaziak kulturara itzuli behar ditugula. Esatea gauza bat da, sinestea beste bat eta egitea da zailena. Sinetsi, esan eta egin, hiruak egin ditugu hogei urtetan eta hogei urteren buruan filosofia horri eite juridikoa eman diogu. Etorkizunari aurre-egiteko eta etorkizunean aurrera egiteko, euskal kulturaren koordenatu linguistiko, politiko, ekonomikoetan ez dugu bide hoberik ikusten. *Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa*-ren helburuak eta jardunbideak Sortze-Adierazpen izeneko dokumentu batean bildu ditugu.

Gure asmo, helburu eta jardunbidean egoki kokatzen da liburu hau. Duela urtebete egileak egitasmoa aurkeztu zigunean, garbi ikusi genuen tamaina honetako proiektu baten lekune naturala ez zela argitaletxe komertzial bat. Bai, ordea, sortzear genuen Fundazioa. Joseba Jakaren heriotzak hilabetetako atzerapena ekarri badu ere, azaroan sorrera eman genion Fundazioari. Izenaren aurretik izana bazuen Fundazioak euskalgintza elkarlanean zernola mamitu den erakusten duen liburua nola ez du, bada, sustatuko?



Mari Jose Irizar

Lehendakaria

AURKEZPENA

Caja Laboral - Euskadiko Kutxa

Ilusio handia jarri dugu *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua* lanaren garapen eta argitalpenean. Gure babesa ematearen bidea, orain 20 urte Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak Gaur* liburuaren argitalpenarekin hasi zen eta kultur ekintza ugari bultzatzearen bidez erakutsi dugun konpromisoa berriztu nahi izan dugu.

Dagoeneko belaunaldi oso bat igaro da lehen *Euskal Idazleak Gaur* argitaratu zenetik. Ordutik gauza asko aldatu dira munduan eta baita Euskal Herrian ere.

Gure gizartea irekiagoa, lehiakorragoa, anitzagoa, konplexuagoa eta, agian indibidualistagoa da. Edozein modutan ere, libreagoa.

Baina bada gertakari bat zalantzan jartzerik ez dagoena: Euskarak eta, oro har, euskal kulturak garapen handia izan du, batez ere Hego Euskal Herrian. Gizarte elebiduna, edo eleanitza, lortzeko aukera gero eta bideragarriagoa eta beharrezkoagoa bihurtu da gure gizartean.

Euskara jantzia beste eremu batzuetara ere zabaldu da. Lehen babestu eta lantzen ziren Euskal Herriko eremuetatik orokorragoak eta unibertsalagoak diren beste batzuetara hedatu da, eta hori erakunde Publikoek, Ikastolek, Eskolek, Unibertsitateek eta abarrek egindako lanari zor zaio.

Bilakaera horren lekuko garbiena, Euskal Herri osoan barrena sortzen ari diren liburu, aldizkari, euskal idazle berri, argitaletxe eta abarren produkzioak bizi duen prozesu bizi eta hazkorra dugu, autoreak berak liburuan esaten duenez.

Zalantzarik gabe, gero eta garapen handiagoa eta azkarragoa duen jarduera da eta gainera, orain arte ezagutzen ez zuen fenomeno bat bizi izaten hasi da: itzulpenaren bidez, gure literatur produkzioa jatorrizko euskaratik beste hizkuntza batzuetara pasatzen hasi da.

Egia da, era berean, urte hauetan Euskal Herriko egoera sozio-politiko eta kulturala ere nabarmen aldatu dela. Horregatik, aurkezten dugun liburu hau ez da bestea bezain enblematikoa izango agian. Baina, bere sasoian hari egin zitzaion balorazio sinboliko eta estetikoa konpentsatuta geratuko da, bibliografia aldetik lan berri honek eskaintzen duen aberastasun eta ekarpenagatik nahiz edukin dokumentalagatik.

Ildo horretatik, lan honek duen bertutea euskal literaturaren produkzioaren historia osoa, eta bereziki azken 20 urteotakoa, aztertu eta laburtzean datza. Beraz, lana benetan handia eta entziklopedikoa da; izan ere, kronologikoki ordenaturik eta testuinguruan kokaturik, Euskal Herriak kultur eta arte-ondare unibertsalari literatur produkzioan utzi dionaren berri ematen dio irakurleari.

Epe horretan Euskadiko Kutxak ere aldaketa handia izan du. Kreditu Entitate txiki bat izatetik, dimentsio ertaineko Entitatea izatera heldu da. Euskal Herrian gero eta presentzia eta sustrai handiagoa du eta gero eta lehiakorragoa den merkatuan eraginkortasun- eta errentagarritasun-ratio handiak izateagatik ezagutzen da.


Hala eta guztiz ere, bere jatorrizko helburua ez da aldatu. Atzo bezala gaur ere, Euskadiko Kutxak Euskal Herriko Gizarte Ekonomiaren eta, azken finean, Euskal Gizarte osoaren zerbitzura dagoen tresna izan nahi du, gure aspaldiko Urteko Txosten baten sarreran esaten den bezala "Gure Herriaren Erritmoarekin bat" dabilena.

Atzo bezala gaur ere, Euskadiko Kutxak Euskal Herriaren nortasunaren aldeko konpromisoa berriztu nahi du eta poztu egiten da Euskal Literaturari buruzko argitalpen honetan -beste baten jarraipena denaparte hartzeagatik.

Gizakiarekin lotuta dagoen guztiak ukitzen gaitu. eta are gehiago baldin sormenarekin, gizarte-konpromisoarekin eta edertasunarekin zerikusi badauka.

Beste belaunaldi batzuk etorriko dira eta horiek ere aldarazi egingo gaituzte. Dena den, Euskadiko Kutxa beraiekin egongo da, gure herrikide unibertsalenetako batek utzi zigun "Eman ta zabal zazu" lema garatzen eta gaur aurkezten dugun *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua* liburuaren beste edizio aberatsago bat argitaratzen.

Alde horretatik, pozik ospatuko genuke ahaleginak merezi izango balu eta asko gustatuko litzaiguke etorkizunean ere autore, argitaletxe eta literatur produkzioa kantitatez nahiz kalitatez izugarri aberatsa izatea, literatur garapen berriak eguneratuko dituen hirugarren argitalpenari laguntzeko beste 20 urte itxaron beharrik izan gabe. Herria bizi-bizirik dagoela eta aurrera doala erakutsiko luke horrek Hala bedi.



Juan Jose Arrieta

Zuzendaria

AURKIBIDE NAGUSIA

Aurkezpenak 7

Aurkibide nagusia 11

Atarian: "Maldan gora" (Egileak: Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano) 23

Hitzaurrea 37

1. - LIBURUGINTZA 1545-1995: 450 URTE 50-51

LIBURUA HISTORIAN 59

1545-1699 urtealdia 61

Kultura landuaren kontzientzia 63

Plan baten arabera 63

Agintea eta euskara 64

Sarako eskola 65

Hegoaldearen atzerapena 66

Hasiera desberdinak 67

Liburugintzaz zertzeladak 67

Argitarapenen kokagunea 69

1700-1875 urtealdia 73

Izen propioak 75

Liburugintzaren kokagune-aldaketa 76

Leku-aldaketaren arrazoiak 78

Kokagune-aldaketaz gain 79

Etenak katean 80

Integrazio-prozesua indarrean 81

Eskolan erdara eta eraztuna 82
Produkzio intelektuala erdaraz 85
Argitarapenaren penak eta nekeak 87
Kasu bitxiak 89
Liburugintzaren gorabeherak 90
Kontsumoa produkzioa baino altuagoa 92
Erlijio-liburua nagusi, noski 93
Laburpen gisa 96

1876-1935 urtealdia 97
76ko belaunaldia 100
Abertzaletasunaren gorakada 101
Euskal eskolaren hastapenak 103
Aldizkariak 105
Ipar Euskal Herrian, xuriak eta gorriak 112
Inprimategiak eta argitaraguneak 112
Ekoizpen intelektual euskalduna, gora 114
Garaiko gaiak 116
Literaturgintza 119

1936-1975 irtealdia 121
Zentsura 124
Euskal liburuaren zentsura politikoa 125
Bi eszenatoki 127
1956ko belaunaldia 129
Liburu-politika 137
Argitaraguneak 139
Argitalpen-lana 139
Liburuetako emaitzak 148
Nobedadeak 149
Itzulpena 150
Gai-sailetan literatura da aurrena 151
Literaturan olerkia da aurrena 153

LIBURUA GAUR 155

1976-1996 urtealdia 157
Aldizkako argitalpenak 163
Euskararen normalizazioa 167
Liburugintza zifratan 173
Gaur egun 1.100 titulu 179
Gehiegi ala gutxiegi? 179
Gehiegi omen 179
Gutxiegi omen 180
Gehiegi eta gutxiegi 181
Gainprodukzioa 181
Kantitatetik kalitatera 184
Sabaia eta merkatua 185
Joera espantsionista ala selektiboa? 187
Lehen edizioa eta berrargitalpena 190
Nobedadeak: 10.248 titulu 190
Nobedadeak historian 190
Nobedadeetan gai nagusiak 191
Berrargitalpenak: 2.277 titulu 193
Berrargitaraldiak historian 193
Urtealdi honetan % 18,2 da berrargitalpena 195
Urtez urteko eboluzio-lerroa 196
Berrargitalpena eta gaiak 197
Liburu berrargitaratuenak 198
Nobedadeak jatorriaren arabera 199
Jatorrizko liburua: 6.477 titulu 202
Jatorrizko liburua historian 202
Urtez urteko eboluzio-lerroa 203
Jatorrizko tituluak eta gaiak 204
Itzulitako liburuak: 3.771 titulu 205
Itzulpena historian 205
90eko hamarkadan itzulpena: % 41,3 207
Itzulpenak eta gaiak 211
Urtez urteko eboluzio-lerroa 215
Itzulpenak arrakasta sozial txikiagoa 215

Itzulpenen jatorrizko hizkuntza 216
Itzulpenaren garrantzia eta bertuteak 217
Itzulpen-erakundeak 222
Itzulpen-enpresak 224
Itzulpen-proiektuak 226

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ARGITALPENAK 227
Haur eta gazteentzako liburua historian 229
Hazkunde bizkorra 231
Gehiegi argitaratzen al da? 233
Nobedadeak eta berrargitaraldiak 234
Itzulpena sorkuntzaren gainetik askoz 235
Txikien literatura = literatura txikia? 237
Kalitate-labela 238
Osasun oneko liburugintza 239
Haur eta gazteentzako liburua irakaskuntzan 242
Pedagogismoa 243
Argitalpengintza 245
Kanpotiarren "desenbarkua" 246
Barne-gabeziak 249
Ez al da deskuidatu altxor etnografikoa? 254
Ilustrazioa 254

IRAKASKUNTZ-LIBURUA 255
Liburu-mota honen ezaugarriak 257
Liburu-mota ezberdinak 257
Mundu berezia 257
Ekoizpenaren gorabeherak 259
Hazkunde bizi-bizia 259
Nobedadeak eta berrargitalpenak 261
Nobedadeetan jatorrizkoa eta itzulitako liburua 262
Irakaskuntzaren eta hezkuntzaren azpisailak 264
Balorazio txiki bat, idazleen iritzian 265
Ikasmaterialgintzarako (euskal) enpresak 266

Enpresak eta egitasmoak 266
Baldintza eta produktu ezberdinak 267
Ekoizpen propioa arriskutan 268
Gai sozial eta kulturalen trataera testuliburuetan 269
Lurraldea 270
Hizkuntza eta kultura 270
Historia 271
Eusko Jaurlaritzaren eskuhartzeak 272
Eusko Jaurlaritzaren onespena 272
1992ko aukera galdua 273
Kataluniako dekretuaren eredua 273
Berezko euskal curriculum ofizialik eza 274
Esperantzari leiho bat 275
Ikasmaterialgintzarako diruak 275
Merkatua 278
Fotokopia 278
Tiradak murriztuz doaz 279
Testuliburuen inplantazioa 280

JAKINTZA-LIBURUAK 283
Kontsulta eta erreferentzi liburuak 285
Hiztegigintza 286
Hiztegigintzaren sasoi oparoa 286
UZEIren testu-hiztegiak 287
Mitxelenaren erasoa UZEIri 289
Hiztegigintzaren bide berriak 290
Entziklopedigintza 291
Baina zer da Entziklopedia? 292
LUR Hiztegi Entziklopedikoa, aurrena 293
EUSENOR: entziklopedigintzarako etxea 295
Giza eta gizarte-zientzietako liburuak 296
1.881 liburu 296
Produkzioaren zenbait ezaugarri 298
Gai-mota ugari 298
Zientzia *versus* literatura? 302

Poeta intelektualaren aurretik 302
"Literaturakeria" 304
Zientzia eta teknikazko liburuak 306

LITERATURGINTZA GARAIKIDEA 313

LITERATURGINTZAREN ZIFRAK 315
Ez lehena, bai arrakastatsuena 315
Nobedadeak eta berrargitaraldiak 318
Jatorrizko liburua eta itzulitakoa 319
Eboluzio-lerroa 320
Fikziozko literatura 321
Historian zehar 321
Narratiba 323
Lehena 323
Idazleen iritzia 328
Ipuina, genero autonomoa 329
Olerkia 332
Bigarrena 332
Argitaratzaileen iritzia 333
Ez dira garai onak lirikarako 333
Idazleen iritzia 338
Arazo larriena 338
Antzerkia 339
Argitaratzaileen iritzia 339
Herri-literatura 340

LEHEN ALDIKO BERRIAK... 341
Literaturaren aldeko garrasi bat 341
Autonomiaren belaunaldia 344
Literaturaren krisia 346
Literatura leku bila 348
Literatur plataformak 350
Literatur kritika 353

...ETA AZKENALDIKOAK 357
Literaturaren kalitatea, idazleen iritzira 358
Literatura modernoaren "bertuteak" 359
Literatura modernoaren akatsak 362
Azken 20-25 urteotako 10 euskal obra "hoberenak" 366
Euskal literatura kanporatzea 370
Literatura esportagarria, argitaratzaileen iritziz 371
Idazleen iritziak 372
Ez esportatzeko arrazoi nagusia adinaren arabera 373
Idazleen proposamenak 373
"Eman ta zabal zazu" 377

2. - IDAZLEAK 386

Baina nor da euskal idazle? 389
Sexua 391
Ia denak, gizonezkoak 391
Emakume idazleen zenbait ezaugarri 393
Emakume-literatura 395
Jaioturtea 397
Adin-piramidean belaunaldiak eta labealdiak 397
Karrera berantiarra eta laburra 400
Idazle-hasierak: artikulua liburuaren aurretik 401
Lautik batek hamar liburutik gora 403
Jaioterria 403
Historian 404
Gaur egun 405
Bizilekua 406
Hogei urteren buruan 406
Jaio eta bizi 407
Famili egoera 408
Aitaren lanbidea 411
Ikasketak 412
Lanbidea 413

Euskararen eskolak 415
Atxaga Axular-en aurretik 415
Idazlearen irabaziak 416
Egile-eskubideak 417
Profesionaltasuna 419
Zergatik eta zertarako idatzi? 422
Konpromisoa 426
Elebitasuna 429
Idazle/Argitaratzaile bikotea 436
"Etxeko idazle" gutxi 437
Tratu on samarra 441
Argitaletxeen liburu-politika 445
Liburugintzaren akats eta eskasiak 450
Idazlea laguntzeko bideak 456
Literatur sarien saltsa 456
Idazleen iritziak 457
Idazle "hoberenak" 474
Erakunde publikoen liburu-politikaz 480
Euskal Idazleen Elkartea 487
Euskal liburuaren demak 492
Aukera, desafioa, arriskua? 493
Prestakuntza 497
XXI. mendeko erronkak 505
Euskaltzaindiari eskariak 509
Hizkuntz normalizazioa 518

3. - ARGITALGINTZA 528

NAZIOARTEKO ARGITALGINTZA 531

Nazioarteko edizioaren zenbait ezaugarri 535
Espezializazio-mailaren arabera 535
Argitaratzaile hutsak 535
"Liburu-prentsa"ko talde mistoak 536
Multimedia-taldeak 536

Argitalgintza-motaren arabera 936
Argitaratzaile berezituak 537
Argitaratzaile multiberezituak 537
Nazioartekotasun-mailaren arabera 537
Euro-europearrak 537
Anglo-saxoiak 538
Mundu-mailako taldeak 538
Edizio-talde handien estrategiak 538
Nazio-mailako argitaratzaile hutsak 539
Nazioarteko argitaratzaile berezituak 539
Multiespezialista europearrak 540
Multiespezialista anglosaxoiak 540
Multimedia multinazionalak 541
Etorkizuna 541
Zenbait joera 542
Kontzentrazioaren tamaina egokia 543
Eta euskal argitalgintza guzti honetan? 545
Liburuaren etorkizuna 547
Baina zer da liburua? 548
Liburua eta multimedia 549
Liburua ere aldatu egin da 552

EUSKAL ARGITARATZAILEAK 555

Kromosoma editoriala 559
Lau belaunaldi gerraostean 559
Erraz jaio eta erraz hil 561
Jatorri ezberdinak 562
Sorrera-helburuak 563
% 50 argitaletxe Gipuzkoan 564
Tipologia baten atzetik 565
Tamaina zifratan 568
500 lagun 569
Katalogoa eta ekoizpena 578
Tamaina txikia. Txikiegia? 579
Plusbalioak auzitan 580

Argitaletxeen egitekoa, editoreen iritzira 585
Profesionaltasuna: bide bakarra 585
Editorea: % 60 enpresari? 585
Egile-argitaratzaile formula 586
Editorearen irabaziak 588
Euskal liburua, defizitarioa 588
Kostua eta irabaziak 590
Prezioa eta salmenta 593
Garestia al da euskal liburua? 594
Eskuizkribuen kantitatea eta kalitatea 598
Liburuaren promozioa, azpigaratua 600
Garrantzia eta premia 600
Argitaletxeen ohiturak 601
Proposamenak eta saioak 606
Multimedia, baliatu beharreko aukera 608
Euskal edizioaren arazo larriak 609
Inkestaren emaitzak 610
Merkatuaren baldintza objektiboak 611
1976ko zailtasunak 612
Erakunde publikoen liburu-politika 613
Laguntza-motak 615
Editoreen balorazioa 616
Liburutik argitaletxera 617
Argitaletxe nazionala 618
Euskal Editoreen Elkartea (EEE) 624

4. - LIBURUA MERKATUAN 626

KOMERTZIALIZAZIOA 629

Harpidetzatik liburu-dendara 632

LIBURUAREN BIDEAK GAUR 635
Salmenta zuzena 636
Banaketa 637

Banaketarien egitekoak 639
Banaketaren kostuak eta irabaziak 640
Arazo larriena: itzulketak 641
Banaketariaren garrantzia 643

SALMENTAGUNEAK 647
Liburu-denda ez da bide bakarra 647
Liburu-dendaren etorkizuna 651

IRAKURKETA 657

Irakurlegoaz bi hitz 659
Informaziorik ez 659
Kontzientzia bai 659
Irakurtzaletasunik bai? 661
Topikoak 661
Susmoak 662
Datuak 663


5. - KRONOLOGIA 668


Bibliografia 709

Aurkibide berezituak 711

MALDAN GORA

Cano & Iturbe





Maldan gora abiatu beharra izan dugu honaino iristeko. Hogei urteren zama gure bizkar gainean hartu behar izan bagenu bezala. "Zenbat pisatzen du urte bakoitzak?" galdetu diogu atarian ikusi dugun lehendabizikoari, edonori edozein galdera egiteko eman diguten baimenaz baliatuz. "Ez dute denek zama bera", erantzun digu, "normalean lehendabizikoak arinak izaten dira, gero etortzen dira komeriak".

- Noiz bezala?- guk, jakiteko, galdetu egin behar.

- Zureez gain aurrekoenak ere lepoan hartu eta segi egin beharra dagoela jabetzen zarenean.

Horregatik ibiliko da gizarajoa hain okertuta, konkorra ateratzeko zorian. Pentsamentua irakurri digula dirudi, "ni ez naute, ordea, urteek makurtu" esan baitu segidan.

- Irakurtzen al duzue? -izan da ondoren egin digun galdera. Eta guk erantzun baino lehen bi liburu atera ditu patrika banatatik. -Opari bana honaino etortzeagatik. Ez badituzue irakurri behar hementxe utzi irteterakoan. Ez zait alferrik lan egitea gustatzen.

Eskuko poltsan grabagailua, koaderno bana eta boligrafoa besterik ez daramagunez, hantxe sartu ditugu bi liburuak: poemak dirudite, eta liburuen neurriaren -eta pisuaren- arabera, gizon hark bizitza osoan idatzitako guztien bilduma behar dute.

"Zer adierazirik ez
zertaz adierazi ere ez
nondik adierazterik ez
ezin adierazi
adierazi nahi ere ez
adierazteko halabeharrarekin batera"

Samuel Beckett

Idazten ari da lehendabiziko gelan aurkitu duguna. Makina zaharraren takatekoek eraman gaituzte haruntza. Bost minutuz eduki gaitu berari begira hitzik egin gabe. Ez gara ausartu ezer esatera oso kontzentratuta zirudielako. Orria makinatik atera, beste batzuen gainean txukun-txukun utzi, burua altxa eta "zer nahi duzue?" galdetuz bezala geratu da. Zertan ari den jakin nahi dugula erantzun diogu.

"Zuek gazteak zarete, dena egina eman dizuegu. Dena egina emateko, ordea, dena egin beharra dago, ezta? Ez da erraza dena egitea. Ume zinetenean umeentzat idatzi beharra zegoen, umeentzako ipuinak, umeentzako antzerkia, umeentzako ikasliburuak, eta hartan ari ginela, gaztetxo bihurtu zineten, ezta?, eta orduan, gaztetxoentzat dena egin beharra zegoen, gaztetxoentzako abenturak, gaztetxoentzako ipuinak, gaztetxoentzako poemak, eta gu konturatzerako, heldu egin zarete, eta helduentzako poesia egin beharra zegoen, maitasunari buruzko poesia, ezinari buruzko poesia, herriari buruzko poesia, eta ipuinak, ezta? Ipuin tristeak eta alaiak, luzeak eta laburrak, eta nobelak, ezta? Nobela beltzak, eta nobela historikoak, eta nobela psikologikoak eta... eta antzerkia, zer? antzerkia ere egin beharra zegoen, eta gauza zailak idatzi beharra zegoen, eta gauza errazak, eta ez hain zailak eta ez hain errazak. Erraza irudituko zaizue, ezta? Zuei bai, dena egina eman dizuegu-eta. Den-dena. Egin beharra zegoen. Guk bagenekien ez zigutela eginda emango. Eduki nahi bagenuen egin beharra zegoen. Baita egin ere guk. Eta barkatu, baina egiten jarraitu beharra daukat, oraindik gauza asko dago-eta egin beharra: ez dago beldurrezko nobelarik, adibidez, ezta? Edo norbaitek egin al du? Ez dakit. Akaso bai, baina nik ere egin beharra daukat. Badaezpada. Ez dut ezer egiten beste batek egingo duelakoan zain jarri eta gero hark egiten ez badu. Pentsa gauza guztiekin zain geratu izan banintz! Hainbeste geratuko zen egin gabe! Ez dut pentsatu ere egin nahi. Eginda egoteko egin beharra dago, eta barkatu, baina egiten jarraitu beharra daukat".

Off the record/

Scotten sindrome garbia: Robert Falcon Scott. XX. mende hasieran Antarktikara bi espedizio zuzendu zituen esploratzaile britainiarra. Hego Polora bi espedizio abiatu ziren lehian: berea eta Amundsenena. Haien artekoa borroka latza izan zen, nor lehenbizi helduko, eta Scottek Amundsen norvegiarrak baino egun batzuk gehiago behar izan zituen. Itzuleran gosez eta nekez hil zen Scott.

Scotten gaitzak joak neurotiko samarrak dira baina ez arriskutsuak. Beti besteren atzetik dihoazela iruditzen zaie eta handik eta hemendik direnak eta ez direnak egiten dituzte beren ustez osatu gabe dagoen puzzle hori osatzeko. Baina ez dute gainetik kentzen Amundsen horren erreferentzia. Amundsen nolabait, beren buruetan amarauna egin duen armiarma da. Ez dute sekula harrapatuko. Jakina da armiarmek beti leku berean egiten dutela amarauna eta kentzea alferrik izaten dela. Gauean garbituriko amarauna berreraikia dago berriz ere egunsentian. Ez dira bada setatiak armiarmak gero, alajaina! "Itzalaren sindromea" bezala ere ezaguna da gaitz hau.

Egiten duena egitea gustatzen ote zaion galdetzeko irrikiz geratu gara. Ez digu aukerarik eman. Egin beharra dagoena egin beharra zeukan eta behar horren menpe bizi denarentzat gustuko izateak ala ez izateak ez du inolako garrantziarik.

Eginda dagoenak gero balio ote duen edo norbaitek irakurtzen ote duen galdetzeko gogoa ere geratu zaigu.

- Bukatu al duzu? -galdetuz sartu zaio beste bat.

Egin beharrekoa egiten ari zenak burua makinatik altxa gabe eskuarekin ezezkoa egin dio. Eta gu galdetu duenaren atzetik joan gara hurrengo gelara.

- Hamar minutuko atsedena!- esanez sartu da hamar-hamabi lagunengana.

Kexu agertu dira gehienak, "ez al du oraindik bukatu?" galdetuz. Gu izango gara atzerapenaren errudun. Baina geuretzat gorde dugu susmoa.

- Hizkuntza berriak? -galdetu digu kexatu beharrean ingurukoei begira egon den batek.
- Barkatu?
- Hizkuntza berrietara itzultzeko?
- Zer?
- Ez. Ikusten dut. Bisitariak?
- Bai.

Hizketarako prest zegoen bakarra, arabierarako itzultzailea. Gainontzekoek nahikoa lan bazuten zenbat denbora galtzen ari ziren pentsatu eta esatearekin.

- Ez larritu. Horrela aritu beharrekoak dira.
- Orduan zuek, euskaraz idatzitakoa beste hizkuntzatara itzultzen duzue.
- Bai, hori da gure lana. Idazle bakoitzak bere itzultzaileak ditu eta idazten duen heinean idatzitakoa bakoitzak dagokion hizkuntzara itzultzen du.
- Beraz, euskaraz idatzitakoa eta beste hizkuntzatan idatzitakoa ia une berean irten litezke kalera.

Berak ez dakiela horri buruz ezer, erantzun digu. Bere lana eskuetara iristen zaiona arabierara itzultzea dela eta hortik aurrerakoa ez duela ezagutzen.

- Baina, aukera nork egiten du?
- Ze aukera? -ez du gure galdera ulertu, antza.
- Alegia, idatzitakoak merezi duen ala ez, edo, irtenbiderik baduen ala ez...
- Merezi? Irtenbide? Ez, ez... Idazleak idazten duena guk itzuli egiten dugu. Eta kitto.

Eta orduantxe iritsi da lehen atsedena hartzeko esan diena orri zuri mordoska bat eskutan hartuta. "Hamaseigarren atala!" oihu egin eta fotokopiadora zahar bezain geldo batean kopia bana egiten hasi da irrikiz zain zeuden itzultzaileentzat.

- Ba al dakizue hamasei nola esaten den arabieraz?

Ezetz erantzun diogu baina joan aurretik arabieraz dauden lanak euskarara itzultzen ote dituen ere galdetu diogu.

- Ez. Hori beste batek egiten du, baina etxearen bestaldean. Juxtu bestaldean. Haren bila bazabiltzate atzekoz aurrera hasi duzue bidea.

Ez gabiltza haren bila. Ez gabiltza inoren bila. Gauzak, daudenean, nola dauden ikustera etorri gara.

Ikustera, eta ahal bada, ikastera, hogei urte barru etxe honetarako aldapa hain gogorra izan ez dadin.

"Hori txorakeria da. Hogei urte barru ez da aldaparik izango. Ez gora eta ez behera" -pasilloan barrena hizketan somatu izango gaitu makurtuta bizi den gizonak.- "Nahikoa izango da ordenagailua batetik bestera joan beharrik gabe ikusi eta ikasteko. Denbora alferrik galtzen ari dira denak. Liburuak egin eta egin. Norentzat? Libururik ere ez dugu beharko hemendik hogei urtera. Esan eta esan ari naiz alfer lanean ari

direla. Ez didate jaramonik egiten. Ez didate jaramonik egin nahi. Ez zaie komeni. Eta neurri batean ulertzen ditut: oso gogorra behar du izan bizitza guztia eginkizun batean pasa eta alferrik aritu zarela deskubritzea. Oso gogorra. Baina ez al da gogorra bizitza guztia eginkizun batean aritu eta emaitzarik ez jasotzea bera? Zenbat gela ikusi dituzue orain arte? -Gure erantzuna ez zaio interesatzen.- Asko daude hemen, denak igualtsuak. Denetan lanean ari dira. Jo eta su lanean. Batean idazlea, ondokoan itzultzaileak, haruntzago zuzentzaileak, hurrengora pasatzen bazarete editoreak aurkituko dituzue. Itsututa denak. Berea besterik ez dute ikusten. Eta ba al dakizue zer falta den etxe honetan? Irakurleak. Gezurra dirudi, ezta? Ba, ez dago irakurlerik. Niri bost axola baina hemendik kanpo badirela esan ziguten hona etorri ginenean. Baina nik ez dut sekula bakar bat ere ezagutu. Bat bera ere ez. Ba omen dira, hala diote, baina nik uste horretan ere gezurra besterik ez digutela esan izan, lana egiteagatik, badakizue. Irakurlerik gabe, zertarako aritu idazten? Hori ere esaten diet, niri asko inporta ez zaidan arren, eta orduan ere ez didate jaramonik egiten. Nik esandakoari ez diote inoiz jaramonik egiten. Ea, ezagutzen al duzue zuek irakurleren bat? -Buruarekin baietz esatera goaz baina ez digu begiratzen hizketan jarraitzen duen bitartean.- Bakarrarekin konformatuko nintzateke. Badirela jakitearekin. Beste batzuk hori ere ez. Baina ni bai. Bakarrarekin, eta ez dut ezagutu inoiz. Eskerrak nik ez dudan egun osoko lanik. Baimen berezia daukat. Nik nahi dudanean bakarrik idazten dut. Niretzat, nik nahi dudana, nahi dudanean, nahi dudan bezala. Eta neronek irakurtzen dut gero. Hara hor irakurlea! Gutxienez, egun osoan alferrik aritu naizen inpresiorik ez dut izango inoiz. Norbaitek hori esaten badit, erantzungo diot, nik neuretzat egin izan dudala lana, neroni asetzeko, neroni gustura geratzeko, neure satisfaziorako, eta ez beste horiek bezala, kate motzean lotuta, eguneko ordurik onenak horretan paseaz. Nik, ordurik onenak, pentsatzen egiten ditut. Pentsatzen eta pasiatzen. Eta ez zait inor bukatu ote dudan galdezka etortzen. Ederki bizi naiz. Ez al zaizue iruditzen?

Berak esaten badu, hala izango da. Baina hitzez hori dioen arren, begiek traizionatzen dute. Begietatik tristura dario. Une bakar batez piztu zaio begirada. Berak utzitako liburuak irakurriko ditugula esan diogunean. Espero genuenaren kontra ezetz erantzun digu. Itzultzeko bere liburuak, igual plajiatu egingo dugula-eta. Irakurri nahi badugu, irakurtzeko dagoen guztia ordenagailuz lortzeko modua izaten denean irakurriko dugula. Ordura arte gehiago lanik egiteko asmorik ez duela ere esan digu. "Oso desberdin idatzi beharko baita orduan. Laburrago, biziago, nahi eta nahi ez. Baina ez didate jaramonik egiten. Denbora alferrik galtzen ari dira zerbait inportantea egiten ari direlakoan".

Eta atarian eman dizkigun liburuak poltsiko banatan sartu eta pasilloan barrena joan da.

Grabatzen/rec/

"Irakurleak aspaldi hasi ziren izorratzen. SES birusa hasiera baino ez zen izan. Alegia, Sagardo Egunaren Sindromea. Jendea liburuak erostera joaten zen urtean birritan kalean jarri ohi zituzten postuetara: Liburuaren Egunean eta Durango izeneko hiri jada desagertu batean egiten zen azoka jendetsu batera, abenduan. Jendea liburuak erostera joaten zen herrian sagardo eguna antolatzen denean sagardoa dastatzera joaten denaren jarrerarekin. Lagunekin zerbait hartu, bertan biltzen zen "intelligentsia vasco"arekin mintzatzeko aprobetxatu, liburu aurkezpen aspergarriren bat zainetan barrena ziztatu... eta hori bai, bizilagunak baino liburu gehiago erosteko helburu irmoarekin beti. Liburu haiek guztiek, imajinatuko duzuen bezala, ganbarako zuloan bukatzen zuten arratoien bazka. Bitxia da dena den, nola sagardoaren kontsumoa mantetzeaz gain gorantz joan den azken urteotan liburuenak behea jo duen bitartean".

Azterteka sozilogikoren bat egin beharko litzateke.

Gela batetik bestera ez dago komunikaziorik. Idazlea eta itzultzaileen artean ere ez. Itzultzaile bakarra inguratzen da idazlearengana gero lana beste guztien artean partitzeko. Pasilloan aurrera joanda beste idazle asko ikusi ditugu. Gehienak makinatik bururik altxa gabe. Handik pasa garenik ere ez dira jabetu. Edo akaso bai, eta baimen berezia duenak esaten duen bezala, ez digute guri ere jaramonik egin.

Gela txikiak dira baina idazleek behar duten guztia eskura daukate. Eta kanpotik begiratu dugunean ez bazirudien ere, nahikoa argi dago geletan. Bakoitzak du bere leihoa, etxera inguratzen ari ginenean han inor ez zela bizi zirudien arren.

Idazleak ondo zainduta daudela dirudi. Ez daukate itxura txarrik. Editore batek argitu digunez eskatzen duten guztia ematen zaie: erretzaileari zigarroak, idazteko Cola Cao, behar duenari Cola Cao eta kaferik edo whiskirik gabe bizi ezin duenari, kafea edo whiskia.

Goizeko zortzietan hasten dira lanean. Eguerdian, bazkaria eta siesta, eta bigarren saioa, arratsaldeko seiretatik zortziak arte. Ondoren, afaldu eta lotara. Goizeko turnoa gauekoagatik alda dezake gauez errazago lan egiten duenak baina argia bere kontu. Ondorioz, gehienek eguneko txanda aukeratzen dute. Ez dute jai egunik, "zertarako?" esan digu editoreak, "idazten disfrutatzen dute-eta!". Hilean behin kanpora irteteko baimena ematen diete. Oso gutxik erabiltzen omen dute baimena.

Oso gutxik utzi omen du lana. Hori ere esan digu, "kanpoan baldintzak ez dira hobeak, badakizue...", arrazoituz. "Eta gainera, zer demontre egin behar dute hemendik kanpo idazten beste ezertan ez badakite?".

Gaur egun etxean bertan idaztea erosoago ez ote den esan diogunean ia bere onetik atera zen editorea. "Etxean? Noren etxean hemen baino erosoago?". Frogatuta omen dago, aspaldian, "zuek gazteak zarete oraindik", etxean lan egitea erabakitzen duenak ez duela hemen dagoenaren erdirik ere produzitzen. "Eta gainera, irtenbiderik gabe geratzen da".

- Eta hemen?

- Hemen, idatzitako guztia, orijinala eta itzulpenak, edizio garestiak eta merkeak, arruntak eta bereziak, saltzailearen esku uzten ditugu.

- Bai, baina saltzailea ere hemen bizi bada eta ez badu irteten...

- Hortxe dago ba gakoa! Saltzailea ere bertan bizitzean! Idazleak, mugitu gabe aurkitzen du irtenbidea, ulertzen? Zuek gazteak zarete oraindik, baina egunen batean ulertuko duzue.

Grabatzen/rec/

"Ez da ulertzen zaila. Editorearena justifikatuta dago, kultur sailburuarena ere bai, eta irakurlearena zeresanik ez. Memelo bat zen. Memelo bat. Inguratu eta esan ez zidan ba: "hi, lehengoan hire liburua erosi nian", eta nik esan nion: "a, bai? beraz, hi izan haiz". Izan ere, nik liburu bakarra saldu bainuen ordurarte eta egundoko ilusioa egin ere bai... pentsa, behin salduko liburu bat... Editoreak hots egin zidan egun batzuk lehenago: "zorionak" esan zidan, "hire lehen alea saltzea lortu duk"; eta bazen zerbait, ez pentsa, gaur egun gutxi dira liburu bakar bat saltzea lortzen dutenak. Ez nuen aste osoan lorik egin nork erosi ote zuen imajinatzen... norbait misteriotsua irudikatzen nuen, gustu pixka batez jantziko zena, bidaiari bakarti bat maleta batekin estazio huts batean... pentsa nire desilusioa memelo lerdejario hura izan zela nire eroslea oharteman nuenean, nor eta marradun galtzaz eta koadrodun alkondara zarpailez jantziriko inozo injenuo bat. Zer egingo nuen bada memelo harekin?

Ulertuko duzue ez neukala beste irtenbiderik. Memelo alena. Bertan ito nuen telefono kabina batean, telefonoaren burdinezko hariarekin. Hura memelo bat zen. Memelo bat."

Saltzaileak ezagutzeko asmoz jarraitu dugu etxe handian aurrera baina ustekabean beste gela guztiak halako bi den areto batera iritsi gara, liburuz jositako areto batera. Baina liburuz josita, benetan. Liburuak hormetako apaletan, liburuak areto erdiko mahai gain eta azpietan, liburuak lurrean, liburuak edozein koskatan, kajen gainean, barruan, liburuak non-nahi, eta liburu artetik gizonezko bat. Pauso bat atzera egin dugu biok, ezustean harrapatu gaituelako.

-Etorri behar zenutela jakin izatera txukunduko nituen bazterrak -garbitu nahi izan du bere burua. Begirada bat nahikoa izan dugu hango bazterrak txukunduko dituenik ez dela oraindik jaio jabetzeko.

Hankazpian geratu zaizkion liburuak eskutan hartu eta lehendik ere gainezka zegoen mahai batean utzi ditu.

- Hauek dira berrienak. Zaharrenetik berrienera sailkatzen saiatzen naiz, baina ez da lan erraza, etzazuela uste. Lehenago hasi nintzen beste sailkapen batzuk egiten. Potoloenetik hasita txikienera artekoak hor goiko apal horretan dauzkazue, baina ez da posible. Egunero ekartzen dituzte berriak eta azkenean, zaharrenetik berrienera jartzea erabaki nuen. Eta ikusten duzue. Ez naiz iristen.

- Irakurtzen al dituzu? -galdera inozoa bururatu zaigu.

- Irakurri? Noiz? -galdetu digu berak gure galderarekin harrituta.

- Eta saltzaileak etortzen direnean?

- "Zenbat behar dituzue?", nik. "Hainbeste", erantzuten didate. Eta hainbeste ematen dizkiet.

- Baina zer diren jakin gabe?

- A, noski, zer nahi duzue ba? Batzuetan berriak, beste batzuetan, berrienak eta zaharren bat edo beste, edo denboraz hobetoxeago baldin banabil, han goiko apal haietakoren batetik bakarren bat edo beste jaisten diet. Eta hobe dute zerbait esatea! Bakarrik ezin liteke lan guztia egin. Ez nik behintzat. Urteak ere aurrera doazkit eta ez nago eskilaratan gora eta behera ibiltzeko.

- Zerrendaren bat izango duzu gutxienez...

- Zerrenda? Banuen, baina aspaldian galduta dago. Hemen ibiliko da nonbait baina non zehatzmehatz esateko, ez dakit. Behar baduzue, zeuok aurkitu beharko duzue.

- Eta norbaitek hemen ze liburu dauden jakin nahi balu?

- Oso erraza! Denak daude hemen. Horixe erantzuten diet galdera horrekin etortzen direnei. Denak daude, eta bakarren bat nahi baduzu, zerorrek aurkitu eta hartu! Zer uste duzue? Besteentzat lan egiteko nago ba ni, neurea behar bezala egin ezinik nabilenean!

- Ez al dizute inoiz laguntzailerik jarri?

- Behin eta ez zen hobea izan.

- Bakarrik ezin duzunez...

- Hemen ez bakarrik eta ez inorekin! Liburu guzti hauek saldu egin behar lirateke, hemendik eraman, dena hustu! Eta saltzen ez badira, oparitan eman, edo bota! Nik zer dakit ba! Baina hemendik kendu behintzat, behingoz dena txukuntzeko! Hau ez da kuxidadea. Kontuz hor! Bat zapaltzen ari zara eta! Gero nola saldu zikindu egiten baduzu? Lehen gutxi eta horrela batere ez!

- Noiz etortzen dira saltzaileak?

- Konturatu ere egiten al naiz ni noiz etortzen diren?

- Baina ez al duzu esan lehen...?

- Ba al dakit nik zer esaten dudan? Hemen hizketan jarraitzen badut lana pilatuko zait eta hobe dut isilik egon eta neurean jarraitzea.

Berean jarraitzen utzi diogu pakean. Besterik ezean liburuak tokiz aldatzen.

Off the record/

Liburuek zuten funtzioa lehenik zineak ordezkatu zuen neurri batean. Rock & Rollak ere bai poesiarena hein handi batean. Poema bukatua poema kantatua dateke gaur egun ia beti. Eta nobela eraginkorra nobela bisuala. Paragraforik onena fotogramarik hunkigarriena. Orain zinema ere beherantz doa besterik adierazten duten arren isladura okasionalek: publizitatea eta bideoklipa, laburra, motza, iragankorra, kontsumo azkarrekoa dena gailentzen ari da gero eta gehiago. Etorkizuna ez ote dago graffitiaren eta sloganaren baitan, zizpuru minimalistaren baitan?

Sloganaren kulturan bizi gara. Berdintsu da esatea Maite Zaitut, Euskaraz Bizi edo Just Do It: denak dira sloganak. Hasperen edo zizpuru bakoitzari etekina ateratzeko premiak itorik bizi gara. Beti zizpuruka eta aldi berean beti isilik, beti buzoi batetik besterako bide klandestinoa egiten duten irakurgaiak noiz jasoko zain. Kioskoetan eta kalean euskal produktuak eskatu eta aldarrikatzeko beldurrez oraindik, harpidetzaren klandestinitatera predestinaturik beti. Euskara eta pornografiaren arteko loturak.

Azterketa soziologikoren bat egin beharko litzateke.

Saltzaileen esku dago etxe honen etorkizuna. Hasieratik konturatu gara horretaz baina mutur batetik bestera ibili garen arren ez dugu saltzaileekin topo egin. Etxearen beste muturreko itzultzaileekin bai. Hauek ere liburuak pilatuta dauzkate, ezker-eskuin, eta bat amaitu bezain pronto ondoko gelara pasatzen dituzte, han zuzentzaileek begiratu eta hauek aurreko almazenera eraman ditzaten. Giro lasaiagoa dago alde honetako itzultzaileen artean. Ez daukate idazleek noiz bukatu zain egon beharrik. Erritmo bizian egiten dute lan baina tarteka atseden txiki bat hartu, kontu-kontari aritu edo lan bat hasi eta bukatu baino lehen -edo aspertu egin direlako, edo gustura geratu ez direlako egindakoarekin- utzi eta beste bati ekiten diote.

- Hemen kontrol gutxiago dago -argitu digu bertako batek. -Produzitu beharra dago baina ez da hain presazko lana. Azken finean, hemen dauzkagun liburu gehienen egileak hilda daude, eta igualtsu dio beraien lana gaur edo bihar ateratzea.

- Eta saltzen al dira?

- A! Hori ez da gure ardura -esan digu honek ere. -Gure lana euskara txukunera itzultzea da. Salmenta kontuak saltzaileekin argitu beharko dituzue.

Horixe nahi genuke baina ez dirudi lan erraza saltzaileen arrastorik ez dagoelako.

"Saltzailerik ez dago, aspaldian joan ziren, esan nien baina niri ez didate jaramonik egiten" -baimen berezia duen idazle okertua azaldu zaigu berriro.- Saltzea ez da ezer. Idaztea idaztea da, inork irakurriko ez badu ere. Baina saltzea ezinezkoa da eroslerik gabe, ulertzen? Saltzea ez da ezer erostearekin parez pare jartzen ez baduzu. Nik zuri ezin dizut ezer saldu zuk niri erosten ez badidazu, ulertzen? Erostea ere bakar-

ka ezer ez den bezala. Ezin liteke ezer erosi saltzen ez badizute, ulertzen? Ez didate jaramonik egiten eta horrela goaz, goazen bezala. Eta joatea bada zerbait. Nora da kontua".

Saltzaileez zerbait gehiago jakin nahiko genukeela esan diogu. Nortzuk diren, non dauden, nola lan egiten duten...

"Zuten. Ahal zuten bezala. Nola lan egitea nahi duzue? Hemen zabaldu zenez eskoletan hasi ziren. Eta hasieran ez zeukan itxura txarrik. Erosi egiten zuten, antza. Eta liburu-dendetan ere ibili ziren, eta han ere bai, saldu egiten omen zuten. Eta geroxeago euskaltegietan ere salmenta onak egin zituzten. Baina zer gertatu zen? Gertatu behar zuena, ulertzen? Eskolatan nahikoa liburu bazeuzkatela hurrengo urteetarako, eta gainera, hau zuei esango dizuet, eskolatan irakasleak egoten dira -eta irakasleak ere ez dira ezer, ikaslerik gabe, baina ikasleak ere egoten dira-, eta irakasleek erosi bai, erosiko zuten, baina irakurri? Irakurtzen ote zuten? Ba al dakizue zer nolako lana den erositako guztia irakurtzea? Zuek ez dakizue hori oraindik zer den, eta zer egiten zuten? Lehendabiziko urtetan bai, irakurri, eta behin aukerak egin ondoren, haiexekin geratu hurrengo urteetarako ere. Zertarako liburu berriekin hasi? Total! Ikasleak desberdinak izaten dira urtero, eta haientzat liburu zaharrena ere berri da beti, ulertzen? Eta antzeko zerbait gertatuko zen liburu-dendetan ere. Lehendabizikoek erosiko zituzten, erosi eta erosi, denak pilatu eta etxea liburuz bete arte. Eta gero zer? Ez irakurtzekotan, zertarako erosi? ulertzen? Eta euskaltegietan? Euskaraz ikasi bitartean zerbait, baina behin ikasi eta gero, zertarako irakurri gehiago? Nik aspaldian esan nien. Alferrik ari zirela lanean, baina niri ez didate jaramonik egiten. Hori lehen ere esan dizuet. Eta gero gainera, ordenagailuak jartzen diztuztenean...ulertzen? CD-Rom-az ezer entzun al duzue?"

Baietz esan diogu. Baina ez dugu etsi. Hainbeste lan egiten den tokian egon behar du saltzaileren batek. Bestela alferrik ari dira. Honezkero konturatuta behar zuten.

- Orduan, zure ustez, errua saltzaileena da, ezta?

- Nork esan du hori?

- Zuk esan duzu oraintxe.

- Ez duzue ezertxo ere ulertu! Gazteak baitzarete. Saltzaileak saltzen ez badu noren errua da? Eh? Saltzailearena batetik, baina bestetik eroslearena. Saltzaileak saldu nahi baitu baina ezin, erosleak erosi nahi ez badu, ulertzen?

Ulertu dugu. Baina ez gaude amore emateko prest:

- Saltzaileak saldu egin behar du, beraz, saltzeko diren eta ez diren bideak aurkitzea ere bere lana da.

- Eta nola egiten da hori eroslerik gabe, jakin baliteke? -ez zaio gustatu guk esandakoa.

- Erosleak aurkitu egin beharko ditu, eta erosle ez direnak komentzitu erosle bihur daitezen. Hortxe dago saltzaile onaren sekretua.

- Nola, ordea?

- Imajinazioa erabiliz, adibidez.

- Eta non dago imajinazio-arduraduna?

- Guk ez dakigu hori. Zuk esan beharko diguzu.

- Nik joan beharra daukat.

- Galdera bat joan aurretik: zuk poesia idazten al duzu?

- Nuen, gazte. Esan dizuet orain baimen berezia daukadala. Bosturteko sabatikoa apur bat hausnartu eta bizi dugun egoeraz oldozteko eta uste dut gainera, gauzak dauden bezala egonda, ez dudala gehiago idatziko.

- Irakurle faltagatik...

- Irakurleak? Ez, motel, ezagun da gazteak zaretela. Niri bost irakurleak, adiskide, ez al dizuet esan? Neure buruarentzat idazten dut nik...Iltzeak eta brokak dira kezkatzen nautenak.

- Iltzeak eta brokak?

- Bai, badakizue, Gabrielek, Arestik esaten zuena, poesia mailu bat dela... baina ez dakit, nik uste esaldi hori bere horretan gaur egun ez dela guztiz... guztiz zuzena.

- A ez?

- Ez ba. Begira, gaur egun paper berjuratua CD-Romak ordezkatu duenean, gaurkotu egin beharko litzateke...nire ustez...poesia ez da behar bada mailu bat...Poesia ez al legoke ba gaur egun Black & Decker taladro bat izatetik gertuago? -isilik geratu da une batez, bere hitzek probokatzen duten erreakzioa neurtzeko-. Baina esaten ari nintzena, inork ez ditu brokak aurkitzen. Ez dira inondik inora ageri: norbaitek propio ezkutatu izan balitu bezala...Eta esaidazue zer arraio egingo dugun taladro batekin brokarik ezean...

- Jakina.

Off the record/

Brokarik gabeko taladroan ikusi dugu metaforarik fidelena. Egia esateko, pesimismoa baztertuz konstruktibo izatekotan hauxe da ondorioa: nahikoa lan badugu euskararen aldamioei eusten eta hormak margotzeko astirik ez.

Grabatzen/rec/

"Azken finean, aspalditxoan jendea estetikaz baino ez da elikatzen. Itxuraz arduratzen da beste ezertaz baino gehiago. Garai batean diferentziaren estetika eta ezberdin izan nahiarena zena, egun gehiago da indiferentziaren estetika. Jendearen kultura-ezari ez zioten politikoek gehiegi begiratu hasieran, egia esan. Baina kanpoko agintariak etorri eta hemengo irakurle-kopuruak ikusten zituztenean, nabarmena zen. Ez dakit, gure agintariak apuratu egiten ziren apur bat, estutu. Eta orduan irudi-aholkulari zoliren batek egundoko ideia izan zuen: irakurlearen rola beteko zuten aktoreak kontratatzea Kultur Sailaren aurrekontuak baliatuz. Argia benetan, ezta? Beti kexu izaten ziren lan gutxi zegoela eta hara... ehundaka fitxatu zituzten: haurrak, helduak, adinean sartuak... Denentzat bazen paperik aski. Ez benetan liburuak irakurtzeko noski, hainbeste lan eskatzea gehiegikeria zatekeen... Itxura egitea baizik ez zitzaien galdatzen, badakizue, orrialdea pasa aurretik denbora tarte egokia kalkulatu, begiak denbora guztian horizontalki mugitu... Ez da dirudien bezain erraza, ez pentsa, kontzentrazio dezente eskatzen duen zeregina da. Horregatik jo zuten profesionalengana. Baina, tira, denborarekin... kulturaren deskolonizazioaren, nola esan, globaltze bat eman zen eta inon benetan irakurlerik geratzen ez zenez kanpo itxura hori zaindu beharra alferrikakoa zela ikusi eta diru hori guztia aurreztea erabaki zuten. Egundoko manifestaldi eta protestak antolatu zituzten aktoreek... baina azkenean, aurrejubilazioak zirela eta ez zirela eta multimediako lanpostu berrien eskaintea zela, makurtu egin behar izan zuten gobernuaren proposamenen aurrean".

Etxe honetan ez dago imajinazio-arduradunik, ezta bestelakorik ere. Arduradunik, alegia. Tokiantokian galdera egin dugunean begiak zabal-zabal eginda begiratu izan digute. Hasiera batean ba omen zen baina gero beti bera izateari gaizki iritzita denboraldi bakoitzerako bat aukeratzea erabaki omen zuten. Denborarekin ados jartzen ez eta gabe ere igualtsu zeudela eta horretan utzi omen zuten. "Hemen bakoitzak bere lanarekin nahikoa du" erantsi digu liburu-mordoska bat esku artean hartu eta almazen moduko hartara bidean zihoan batek.

Ezkerretara ate akoltxatu bat: VASCO EZ PRAKTIKANTEAK. Uf. Hara sartzera ez gara ausartu. Ondoan beste ate berdintsu bat zegoela ikusi dugu ordea eta harantz zuzendu ditugu pausoak. Barroteduna zen ate berri hau eta letra handiz idatzirik zera irakur zitekeen ateko txaplatan: ERREHABILITAZIO GELA.

Grabatzen/rec/

"Nik liburu-denda bat neukan. Baina oso gauza bitxiak gertatzen hasi ziren. Behin adibidez, gogoan dut nola etorri zen gizaseme bat sudurra zimurtuz galdezka: ¿"Tienen ustedes libros de mentiras?". Nik bixigu aurpegiaedo jarriko nuen nonbait eta "sí hombre, libros de mentiras" jarraitu zuen berak munduko gauzarik agerikoenaz konturatzeko gai ez banintz bezala. Nire erreflexuak ez dira sekula beste mundukoak izan, are gehiago, makal xamarra ere banaizela esango nuke, eta handik segundu gutxira, txundiduratik ateratzean otu zitzaidan lehenengo gauza honokoa izan zen: zientzia fikziozko liburuak eskatzeko modu bitxia zatekela hura. Best-sellerren apalean zeuden liburuen azal zilarreztatu eta deigarriak seinalatu nizkion hatzaz baina ez zirudien asmatu nuenik. "No, hombre, no, ¡libros de mentira!". Politikari buruzko libururik aspaldi ez nuela jaso esatekotan nengoela, arrapataka argitu zidan gizaseme iharrak zer nahi zuen: libros de mentira, alegia, mamirik gabeko azal ziren liburuak, tapa gogor hutsak, plastikozko liburuordeak, orrialderik gabekoak. Apal handiegiak enkargatu omen zizkion arotzari eta liburu askirik ez nonbait etxean haiek denak betetzeko. Ulertuko duzuen bezala harri eta herri geratu nintzen ni... zer esan horrelako tipo bati? Ulertzekoa zela, itsusi egiten zutela oso apal hutsek egongelan. Kalearen bukaeran dekoratzaile batek denda ireki berria zuela eta galdetzeko han nahi bazuen, liburu-dendan ez neukala halakorik. Horrelako bisita arraroak gero eta ohikoagoak ziren, ez zen erraza liburu-denda bat aurrera ateratzea baldintza haietan eta aldi berean oreka psikologikoa mantentzea. Orduan hasi nintzen pastillak hartzen...

Atzo bertan izan balitz bezala oroitzen dut nola beste behin liburu-dendako instalazio elektrikoa egitera etorri zen filosofo itxurako gazte bat. Oso tipo leitua ematen zuen, argia, ez dakit, orekatua. Eta argiak piztu ondoren apaletan zegoen liburu-mordoa ikustean honela esan zidan nire etsipenerako: "Liburuak, ezta? Bai, nik ere mordoska bat daukat etxean, badakizu, gaixotzen naizenerako". Gaixotzen zenerako zeuzkan liburuak, pentsa, gaixotzen zenerako, alajaina. Ongi dago irakurketa bultzatzea, baina ez Osakidetzaren defizita handitzearen bizkar, ezta?".

Atentzioa eman digun ausentzia parea: emakumeak eta gazteak. Ez daude. Bertako batzuk konturatu ere egin gabe zeudela dirudi, beste batzuk esan digute ez dakitela zergatik, eta batek erantzun digu gaztea badela nonbait, ez dakiela ze gelatan baina bat baietz, seguru, berak ikusi zuela behin.

Atzekaldean dagoen lorategian aurkitu dugu, aulki batean eserita, liburu bat esku artean. Harritu egin da gu ikustean. Gehiago, kazetariak garela esan diogunean.

- Toki ederrera etorri zarete berri bila! Hemengo berriena aspaldian da zaharra!

Berri ala zahar guk hemen dagoenaren erretratoa egin behar dugula argitu diogu. Ez garela azken orduko albistearen bila etorri, alegia. Baina kazetari senari jarraituz albistea nahi bagenu bera izango litzatekeela albiste ere esan diogu, etxe honetan salbuespen den aldetik.

Salbuespena da gaztea delako baina salbuespena da beste alde askotatik begiratuta ere. Ez du idazten, etxe honetara etorri zenean bere helburua hori zen arren. Ikasi egin nahi du lehendabizi eta bere aurrekoak ezagutu. Zer idatzi duten jakin, nola idatzi duten, zertaz...

- Egia esango dizuet -aitortu digu-. Etsita nago. Bizitza guztia hemen eginda ere sekula ez dut lortuko orain arte idatzi duten eta gaur egun idazten duten guztia irakurtzea. Sikiera hizketarako betarik balute... baina hizketarako prest dagoen bakarrak dena beltz ikusten du. Beno, beste batzuk ere hizketarako prest daude baina haien historiak ez entzutea hobe. Idazteko gogoak galarazten dizkizuten horietakoak dira. Oraintxe ez dakit zertan ari naizen hemen.

Idazten hasteko den-dena ezagutu beharrik ez daukala esatera ausartu gara.

- Badakit. Eta idazten dut, noizbehinka. Inork ez dit jaramonik egiten, ordea. Inork ez du minutu bat hartzen nik egin dudana irakurri eta zer iruditzen zaion esateko, bere iritzia emateko. Lehen aipatu dizuedan bakar horrek irakurri zidan behin folio oso bat, eta bukatutakoan, ezetz asmatu zer esan zuen? Berak aspaldian idatzi zuela hori! Animatzeko modu ona! Ez al zaizue iruditzen?

Esatekotan egon gara dena idatzita dagoeneko uste zabaldu horri buruzko zerbait. Dena idatzita dagoeneko aitzakia bota ohi duela askotan idazleak bere historien orijinaltasun eza aurpegiratzen diotenean. Baina hori aitzakia merkea izan ohi dela sarri. Egiptoko piramideetan duela milaka urte faraoiaren eskribau irudimen-urriren batek etsipenez zizelkaturiko hitzez gogoratu garela esan nahi genion: "lastima garai honetan jaio izana, zeinatan dagoeneko istorio guztiak idatzita dauden". Dena ez zegoela orduan idatzita. Eta gaur ere ez dagoela oraindik. Aitzakia hori sobera erabiltzen jarraitzen badugu barre egingo dutela gure kontura etorkizuneko arkeologoek, gaur egungoak faraoiaren eskribau koittaduaz trufatzen diren era berean.

Baina berak bakarrizketan jarraitu du. Ez du gure erantzunik behar izan etxe honetan zer demontre egiten ari den bere buruari hirugarren aldiz galdetu dionean.

Maleta egiten utzi dugu.

Hamabi ordu grabatuta eta bi koadernoak zirriborroz beteta hartu dugu beherako bidea. Ez digute asko balio agindu ziguten txostena egiteko. Ondorio labur bezain zehatz batzuk besterik ezin izan ditugu atera bisitaldi luze honetatik.

Hauexek:

1. Lan asko egiten dute. Denek.
2. Egiten ari direna inportantea dela uste dute.
3. Bakoitzarentzat berea da inportanteena.
4. Aldamenekoa zertan ari den ez dakite (axola ere ez).
5. Itzulpenak eta orijinalak berdin tratatzen dituzte.
6. Ez dago etxea goitik behera edo alderantziz ezagutzen duen inor.
7. Irakurleen berririk ez dute.
8. Saltzaileekin hartu-emanik ere ez.
9. Liburuak pilatzen ari dira, irtenbiderik aurkitu gabe.
10. Egunean egunekoarekin kezkatuta etorkizunean erreparatzeko betarik ez dute hartzen.

Honela daude gauzak.

Etxearekin zer egin erabakitzea ez dago gure esku. Balego ere, erabakia hartu aurretik irtenbideak zeintzuk diren aztertu beharko litzateke. Horretarako beharrezkoa izango da etxe handitik kanpora gertatzen denari buruzko txosten sakon bat egitea. Azterketa soziologikoa ere gomendagarria iruditzen zaigu.

Kuriositatez aldapan behera ikusi ditugun guztiei galdetu diegu atzean utzi dugun etxea zer den ba ote dakiten. Ehuneko 77k ez zekien eta ez du inoiz jakinminik izan, ehuneko 19k aspaldian itxita dagoen

jauregi bat dela uste dute, "oso etxe polita da, dotorea, akaso egunen batean joango naiz", esan digu bakarren batek, "artista zaharrentzako etxea?" galdetu digu batek, galdegileak gu ginela jabetu gabe eta beste batek esan digu ez daukala erantzuteko astirik autobusa galduko duelako baina beste egunen batean ikusten bagaitu kontatuko digula han egin zuen egonaldia. (Datu hauek erabat estatistikoak dira maldan behera topatu ditugun hamabi pertsonekin hitz egin ondoren).

Honetan amaitu da gure lana.

Lan esparru zehatz honetatik kanpo geratu zaigu aguregarekin -aldapapean aurkitu dugun aguregarekin- izandako elkarrizketa. Badaezpada separata modura gehituko dugu norbaitentzat baliagarri izan daitekeelakoan.

Harriturik begiratu digu, bai guri eta bai zorroan generamatzan koaderno eta grabagailuari ere. Irabazi al dugun galdezka etorri da. Bera ez dagoela oso seguru, baietz uste duela, etsaien gudalostea ihesean sumatu uste izan zuela gauaren erdian lotan zegoela, betazalen dardarapean.

Grabatzen/rec/

"Une horretantxe ordea, haize bafada batek begirada lausotzen zidan kea altxarazi eta hauts harrotuaren artetik ikurrin bat ikusi nuen balkoi batetik zintzilik eta kalearen izena ere irakurri ahal izan nuen nire ustea baieztatuz: "Calle Bertsolari Txirrita Kalea". Datu esanguratsua, dudarik ez. Baina azken finean, hura zantzu bat besterik ez zen: datu objektibo gehiago behar nituen seguru egoteko. Leihoetan arropak zabaltzen ari zirenen hitz arrotzak entzun bezain pronto, zalantzaren arra erne zitzaidan barruan. Zorroan neramatzan planoak eta mapak behar bezala aztertu ondoren, nire kokapen zehatzagoaren berri izan nuen: nengoen hura, "Politikoki Korrektoaren Auzoa" baino ez zen eta garaipena aldarera igota hura gurtzen hastea maniki erdibitu bat gurtzen hastearen pareko iruditu zitzaidan. Zuhurragoa izan behar nuen.

Behar bada guda estetikoa irabazi genuen, txaplatetan "Calle Bertsolari Txirrita Kalea" jartzeko gudua, ezer gutxirako balio duena, alegia. Baina apika galdu dugu izarak balkoian zabaltzen dituztenena, autobusetakoa eta kioskoetakoa. Kezkatzen hasita nago. Nork irabazi du discopubetako gudua, aldamioetakoa eta supermerkatuetakoa?

Nire kabutarako nago, iraultza berri baterako konpromezu gradu berri bat behar dela hemengo atmosfera grisean. Militantzia desberdin eta berri baterako garaia da akaso. Adibidez: Euskaldunon Egunkaria hartuta autobus jendetsu batera igo eta gure ondoan eserita dagoen eta erdal egunkari bat irakurtzen ari denaren perfil soziologiko azkar bat egin ondoren, hari gehien interesa dakiokeen orrialdean irekitzen dugu gure euskarazko egunkaria. Eta apur bat okertu gainera, berak egunkariko argazkiak eta goiburuak ikus ditzan. Eta goizean jada goitik behera irakurri dugun arren, berriro ere irakurri eta interes izugarriaz egin gainera, eta irribarrea dibujatu irakurritakoaren ondorioz. Eta hausnartu edo zizpuru luze bati aldegiten utzi ezpainen artetik, irakurtzen ari garenaren eta gure ondokoaren perfilaren nolakotasunaren arabera beti ere. Bestearen arreta bereganatu. Euskal produktu kalitatezkoen ostentazioa dago egin beharra. Guk ez badugu sinisten gure produktuetan ezin espero dezakegu bestek sinets dezaten. Eta guk ez dugu sinisten. Sedukzio lan bat da militantzia berria. Baina lehenbizi geure buruak seduzitu behar ditugu".

Hiru aldiz galdetu digu grabagailua martxan al dagoen. Guk baietz.

"Egidazue kaso. Hor goian bizi direnek ez dakite ke hori zer den. Ikusten? Intzineradora bat da hori. Pabilioietan lekurik geratzen ez den heinean bertan kixkaltzen dituzte liburuak".

Kea eta literatura beti egon dira harreman estuan. Isiltasun luzea mamitu da hiruron artean. Zigarro bat ahoratu eta lagunari beste bat eskaini diot.


Agureak erantsi digu sua. Zigarroa piztutakoan erruduntasun konplexu jasanezin batek erasan nau. Gaizki ari ginen. Urruneko intzineradora hartako tximinietatik kezko ilada baino areago kezko zutabe gizenak ziren haiek zeruratzen ikusi eta zigarroari zerion kearekin erkatu ditudanean, Shakespeareren soneto bat erretzen ari nintzeneko sentipena izan dut.

Lagunari begiratu diodanean aurpegi malenkoniatsua nabaritu dut harengan ere. Ez da gutxiagorako. Bioi ala bioi burura pentsamendu beretsuak zetozkigula susmatu dut. Begietan zeukan espresioaren arabera, uste dut bera Gabriel Arestiren mailuaren poema ari zela erretzen.

Iraila. 1996

HITZAURREA

Joan Mari Torrealdai



Liburu hau *Euskal Idazleak Gaur* haren jarraipena da. Historian da jarraipena eta asmotan bikia. Ez du horrek esan nahi haren berdina denik. Zorionez, euskal kultura asko aldatu da geroztik, kantitatez nahiz kalitatez gora egin du. Horrexegatik ezin zen hau haren eskema berdinez egin. Alor batzuk garatuago daude hemen, eta hango batzuk desagertu egin dira orain, hizkuntzari zegokion guztia bereziki. Hitz batez esanda, kultura idatzian eta liburuan askoz zentratuago dator hau.

Gaitik ez baino garaitik bai, asko aldentzen da lehen partea. Aro garaikidea da liburu honek aurkeztu nahi duen aldia, 1976tik gaurko egunetara datorrena zehazki. Hortik urruti gabiltza liburugintzaren lehen partean. 1545erarte joan gara lehen euskal liburuaren bila, eta gero historiaren eskailaratan behera gaur arte etorri gara urtez urte liburugintza aztertuz. Hau da, gaurko liburugintzari aplikatzen diogun azterketa-modua ezarri diogu alderdi historikoari ere, zer ematen duen ikusteko, eta non gauden nabarmentzeko.

Nik dakidalarik, lehen aldiz aztertzen da euskal liburuaren historia era honetara.

Edukiak zehazten hasi aurretik, bi hitz esan nahi nuke asmoez.

Liburu honek ez du tesirik ez abiapuntuan eta ez abiaburuan. Ez du tesi bat jatorrian, hots, ez da lan akademikoa eta ez du izan nahi zerbait frogatzera datorren "totxoa". Lan soziologikoa da, hori bai, eta beraz azterketa badu azpian. Baina periodistikoki kontatzea bilatu dut, modu deskriptibo eta erraz batean, aparatu kritikorik gabe, espezialistentzat barik gai honetan interesatuak daudenentzat. Lortu dudan ala ez, hori besterik da. Zehaztasuna galdu gabe modu erraz batez errealitatearen berri ematea ez dela samurra aitortu behar dut.

Hogei urteko gorabeherak kontatu nahi izan ditut. Informazio-bila, iritzi-bila protagonistengana jo dut. Bi inkesta egin ditut informazio eta iritzi-bila, editoreei eta idazleei. Eta horretaz gainera, iritzi hauei ikuspegi historikoa emateko, hogei urteotan zabaldu diren iritzietara ere jo dut. Idazle eta editoreengandik zuzenean jaso dugun iritzia, hemeroteka-lanari esker berreskuratu dugunarekin osatu dut. Argazkiak ez bezala zinemak gertakariak jarraitasunean emanik errealitatearen ikuspegi aberatsagoa ematen du. Tankerako zerbait egin nahi izan dugu.

Asmoen asmoaz ari izan garela esango nuke. Mila asmo gehiago ditu liburuak, mila modutakoak. Liburu hau, izan ere, ez baita lineala eta hari bakarrekoa. Liburugintzaren entziklopedia izan nahi luke. Gai eta osagai desberdinez hornitua dator, bakoitza bere lekuan.

Liburuaren atari honetan komeni da argi eta garbi azaltzea etxe-barnea ezagutu nahi duenari zer aurkituko duen bertan. Barru-aldea erakustearekin batera alor bakoitzean gidari izan ditugun irizpideak eta jokamoldeak azaldu nahi ditugu. Goazen atalez atal.

ATARIAN: "MALDAN GORA"

Maldan gora nonbait eta denboran gora ziur joan behar izan dute Arantxa Iturbe eta Harkaitz Canok, etorkizunetik iragana begiratzeko eskatu zitzaien enkargua bete nahian.

Etorkizunetik iragana erreparatzea ez da gauza bera 50 urteko batentzat eta Arantxa eta Harkaitzek bezala etorkizuna iragana baino gehiago daukatenentzat. Arantxa eta Harkaitz ikastolatik pasa dira, gazteak dira. Frankismo-garaian eta 70eko hamarkadan (eta hurrengoan ere) mamitu den kultura belaunaldi zaharragoen historia da hauentzat. Garai hau, historia hau, aztertu egiten dut nik lanean. Baina jakin nahi nuen gazteago batzuk, barnetik ezagutu baina protagonista izan ez diren batzuk, nola ikusten zuten, nola interpretatzen zuten, nola ikusten gintuzten. Hor dugu argazkia, hurrengo belaunaldiak egina.

Arantxa eta Harkaitzek ez dute azterketarik egin. Erreportaia gisako ipuina egin dute. Eta ipuin honetan, eskatu bezala, bere ikuspegia azaldu dute, nola ikusten gaituzten, nola baloratzen duten "autonomiaren belaunaldia"ren kultur lana. Badira aldeak, hauen erreportaiaren eta nire azterketaren artean, baina hori da gutxiena.

LIBURUGINTZA

Arestian aipatu dugunez, liburugintzaren azterketa honek aro garaikidearen muga historikoak jo eta pasa egiten ditu. Bi partetan partitua dator azterketa: liburugintza historikoa aurrena, lehen liburutik hasi eta Franco hil artekoa. Eta bigarrena, aro garaikideari dagokiona, 1976tik honakoa.

Garbi esanda uztea komeni da ikuspegi soziologikotik egindako azterketa dela, eta ez literariotik. Eta gainera, ez dela literaturaren historia, liburuarena baizik.

Azterketaren asmoak

Marko honen barruan liburugintzaren aurkezpen honek bi asmo behintzat baditu:

Lehena, liburugintza bere tamaina naturalean agertzea, ahalik eta informazio gehien emanik: zenbat sortu den, zenbat itzuli den, zenbat berrargitaratu den, zein gai erabili den, etab. Datu soilak dirudite, baina garaiari buruz informazio dezente eskain diezaguketenak, orduko gizarte-motari buruz, euskararen egoerari buruz, euskaldungoaren interesei buruz, besteak beste.

Gustatuko litzaidake liburugintza prozesu bezala ulertuz, kate osoaren berri ematea, hots, produkziotik kontsumora bitarteko liburuaren ibilbidea. Besterik ezean, hurbilpen gisa ulertu behar da hau. Lehen edizioak sortzailetasunaren berri ematen du. Berrargitalpenak neurri batean kontsumoaren berri ematen du. Datu oso gutxi dugu tiradei buruz, eta gutxiago irakurketari buruz.

Ez hori bakarrik. Bitartekarien berri ematea ere interesgarri da. Lehen hiru mendeetako inprimategiena eta geroko argitaletxeena badugu. Kultur industrian horiek izan dira oinarrizkoenak, liburuari dagokionez.

Eta bigarren intentzioa: liburugintza hori bere testuinguruan kokatzea. Literaturaren soziologiaren ikuspegia da nagusi. Ez da hau leku aproposa honetan sakontzeko. Aski garbi azaldu nahi nuke, nire eskasian, zeintzuk diren liburugintza horren gizarte-baldintzak. Gaur eguneko liburugintzari buruz informazio ugari dugu. Gaur xehe-xehe ezagutzen duguna, aspaldi bateko kasuan datu gutxi batzuen arabera ari gara neurtzen.

Marka historikoak

Liburugintzaren historiako 450 urteok alditan banatuta ematea eskatzen du azterketak. Bost alditan zatikaturik ematen dugu historia hori. Ez dakit egokienak diren ala ez. Segun abiapuntuko irizpideak, oso bestelako historialdiak ere atera daitezke, seguru. Lan honen helburuetarako baliagarri eta egokia da bosteko banaketa hau.

Bost urtealditan banatu dut, beraz, liburuaren historia osoa. Alderaketak egin ahal izateko, lehen urtealdietan urte-multzo berdintsuak egiten saiatu naiz. Eta azterketa xeheagoak egiten ditudanean 20-25 urte-kopuruko tarteak eratu ditut, esan bezala erreferentziak konparagarri izan daitezen.

Lehen aldia, 1545-1699. 155 urte. Lehen euskal liburuarekin hasi, eta itxi Ipar Euskal Herriko produkzioak indarra galtzean ixten dut.

Bigarren aldia, 1700-1875. 176 urte. Hemezortzigarren mendean Hegoaldea indartzen da. Eta bide beretik segitzen du gerora. Aldi hori moztu, ordea, foruen galerarekin egiten dut.

Lehen bi aldi hauek Lege Zaharraren garaia osatzen dute.

Hirugarren aldia askoz motzagoa da, 60 urtekoa, 1876tik 1935era. Abiapuntua nahiko garbia da eta ez gutxiago bukaera. Eusko Pizkundearen garaia, neoforalismoak eta abertzaletasunak osatua.

Laugarren aroak frankismo garaia hartzen du, 40 urte, 1936-1975. Hogeina urteko bi alditxo bereizten ditut barruan, 1936-1955 eta 1956-1975.

Eta, azkenik, gaurko aldia, Franco hil ondokoa, 20 urte. Zertan esanik ez da, hona iristean bertan geldituko garela, luze eta zabal, urte hauek aztertzen.

Esan dezadan bide batez, hipotesi gisa ez dela interesik gabea, 20 urteko zikloa. Ez dakit belaunaldien erritmoa den ala ez. Nago 20 urteren buruan belaunaldi batek, edo lan-talde nagusi zenbaitek edo, bere ekarpenaren marka ezartzen duela, eta eten handixeago ala txikixeagoarekin baina berritasun-markarekin beste jende bat plazaratzen dela. Gizarte-baldintzak ere sarritan aldatu ohi dira muga horietan.

Oinarri bibliografikoa

Tituluak, nobedadeak, berrargitaraldiak, jatorrizkoak, itzulitakoak... hitz eta kontzeptu hauek gora eta behera ibiliko gara orrialde askotan. Informazio hori nire datu-basekoa da.

Datu-base horrek iturburu desberdinak ditu. Frankismo-garaikoa eta ostekoa neure eskuz landua dela esan daiteke. Horra artekoaren jatorria batez ere bizpahiru autoreren bibliografi lanetan dago: Jon Bilbao, Julien Vinson, G. Sorarrain, eta beste maila batean Santi Onaindia, Luis Villasante eta Luis Mitxelena. Duela urte batzuk hauen bibliografi lanaren hustuketa egin nuen.

Bilketa-lan horren emaitzak dira oraingo hauek.

Orrialde bete zifra agertuko dira lanean. Bibliografi lanetan dabilenak badaki zifra horien fidagarritasuna ez dela sekula ehuneko ehun. Aurretiaz abisatzea komeni da: zifrak ez dira sakralizatu behar!

Behin-behinekotzat hartu behar dira beti bibliografi lanak. Are gehiago kasu honetan. Hogeigarren mendera bitarteko liburugintzari lehen aldiz heldu diot azterketa-mailan, eta horregatik lehen entrega gisa kontsideratu nahi nuke lan hau. Fintzea, garbitzea falta zaio. Zehatzagoa eta osoagoa da, uste dudanez, hogeigarren mendeko bibliografia. Argitara emana dudan *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (I-II)* liburuan 1900-1994ko liburuak biltzen dira, eta garai hori aurrekoa baino landuagoa dut. Garai horretako zifrek oinarrian katalogoa badute ere, diferentzia dezente dagoela abisatu behar dut, geroztik egin ditudan zuzenketei esker. Irizpide desberdinez jokatu dut han eta hemen, gainera: katalogoko zenbait liburu hemen kanpo utzi ditut, hala nola, zenbait gramatika, hiztegi, artikulu-bilduma eta berrargitaraldi.

Euskal liburuaren definizioa

Euskal liburuaz ari gara. Hau da, euskarazkotzat jo daitekeen argitalpenaz. Goazen puntuz puntu.

Liburu elebidunek euskarazko liburuen artean bere lekua dute. Euskara hutsezkoak zer esanik ez, jatorrizkoak nahiz itzulitakoak. Bibliografietan maiz agertu ohi den beste liburu-mota bat utzi dut bazter: ez dakit nola esan, euskara pasiboa duena edo. Testu korritua erdaraz badago eta euskara aztergai edo osagarri huts bada, liburu hori ez dut kontabilizatu. Zer liburu-mota den esanda errazago ulertuko da: hainbat gramatika eta hiztegi ("euskal" gramatika eta "euskal" hiztegi) erdaraz dago idatzia nahiz eta euskara presente egon. Historia osoan 400 bat titulu apartatu ditut kriterio horrekin. Hauetakoa da Astigarragaren Hiztegi famatua, hainbat eta hainbat berrargitaraldi izan zituena.

Liburuaz ari gara hemen, bestalde.

Zer kontsideratu liburu eta zer ez erabakitzeko ISBNk erabili ohi dituen irizpideak erabiltzen ditugu.

ISBN (*International Standard Book Number*) sistema numeriko internazionala da, tituluak eta argitarapenak identifikatzeko balio duena. Bestela esan, liburu baten identifikazio-txartela.

ISBNren sisteman liburuak eta liburuxkak biltzen dira, eta generikoki "liburu" deitzen zaie guztiei.

Baina zer da liburu eta zer liburuxka?

Herri batetik bestera badira diferentzia txikiak, definizioari buruz. Orrialde-zehaztapenen kontua. Unescok 1964an egindako diferentziazioa hartu dugu, eta zabalduena ere bera da. Horren arabera, 5 orrialdetik 48 bitartean da liburuxka. Eta 49tik aurrera, liburua. Azalak eta estalkiak aparte, noski.

Neurriez gain bada besterik ere liburuaren definizioan. Liburu itxurako publikazio guztiak ez dira liburutzat hartzen. Eta liburuaren taxukera tradizionalarekin zerikusi gutxi duen gero eta gehiago bada barnean, ISBN sistemaren arabera.

Ez dira liburu kontsideratzen gida telefonikoak, komertzialak, egutegiak, agendak, programak, kultur ekintzetarako foiletoak, zinema-gidoiak, multikopiaz egindako lanak, elkarteen estatutu eta memoriak, eranskailuak, etab.

Liburu dira, aldiz, liburu eta foileto inprimatuak, urtekariak, liburuak kasetetan, brailleko argitalpenak, euskarri elektronikoko argitalpenak, multimediakoak, mapa eta produktu kartografikoak, hezkuntza-bideo eta diapositibak.

Eremu guzti hauek nire bibliografiak ez ditu ehuneko ehun hartzen. Almanakeak aintzat hartu ditut, eta kaseteak, bideo edukatiboak eta multimediako produktuak ez.

Horra agerian nire bibliografi irizpideak.

Euskal liburuaren estatistikak

Liburu-produkzioaren estatistikak orain baino lehen ere agertu izan dira.

Bi ditut gogoan. Ibar-ek (*Genio y Lengua*, 1936) argitaratuak eta 30 urte beranduago Ibon Sarasolak agertuak (*Euskal literatura numerotan*, 1975). Hona bienak batera, alderaketa norberak egin dezan:

Mendea	IBAR		SARASOLA	
	1. edizioa	Orotara	1. edizioa	Orotara
XVI	5	12	3	3
XVII	25	52	20	36
XVIII	81	330	60	137
XIX	410	637	111	411
GUZTIRA	**521**	**1.031**	**194**	**587**

Nabarmenak dira aldeak, zertan esanik ez. Abiapuntuko irizpideek markatzen dute aldea. Sarasolak, adibidez, 50 orrialdetik gorako literatur liburuak bakarrik zenbatzen ditu. Baina irizpideez gain bestelako alderik ere egon daiteke tartean.

Paulo Iztuetak ere lur hauek zapalduak ditu. Bestelako urtealdiak hartzen ditu berak eta zaila da konparazioak egiten. Hona Paulo Iztuetaren datuak (*Intelligentsia kimatuaren orbelak*, 1996):

Urtealdiak	1. edizioa	Orotara
851-1551	-	23
1552-1875	329	425
1876-1976	2.407	2.632
1977-1992	7.245	8.873
GUZTIRA	**9.981**	**11.953**

IDAZLEAK

Has gaitezen hasieratik, hau da, lan honetan izan genituen arazoak izan genituen bezala kontatzetik.

Lehenengo eta behin idazleei zuzentzeko asmoz inkesta prestatu genuen eta urtarrilaren bian bidali. Bi helburu nagusi zituen galdeketak. Batetik, informazioa bildu nahi genuen idazlegoaren deskribapen soziologiko bat izateko. Eta bestetik, idazleen iritziak ezagutu nahi genituen: euskal kulturgintzaren protagonista diren aldetik bere jarrerak azaldu zitzatela eskatu diegu.

Nori bidali inkesta, ordea?

Idazlearen definizio jakinik ez dago. Maila teorikoan korapilo asko izkutatzen ditu edozein definiziok. Ur sakon horietan murgiltzeko asmorik gabe inguratu gatzaizkio gu idazlearen definizioari. Definizio funtzional eta pragmatiko baten bila, besterik gabe.

Idazle bizia eta aktiboa behar genuen inkestarako, gainera. Inkesta-garaian bi hil ziren: Jon Gotzon Etxebarria eta Santi Onaindia. Inkestari erantzuna eman eta gero hil da hirugarren bat: Imanol Zaldua. Berrogeita hamar bat dira azken hogei urteotan hildakoak. Bizi bai, baina 1976tik hona obrarik argitaratu ez badu guretzat idazle horrek ere ez du balio.

Muga horien barruan, zein aukeratu, ordea? Definizioarekin egiten dugu topo: zer da idazle izatea? Arazo teorikoak ez ninduen asko kezkatzen. Unibertsoa zehaztu behar, ordea, eta erabaki hori ezin hartu marko teorikorik gabe.

Idazlegoa markatzeko marra desberdinak hartu ohi dira. Ez gara horietan luzatuko, espresuki errepasatzen baititugu idazleei eskainitako sailean. Esan bakarrik irizpide ekonomikoak erabili ohi direla (sarreren %50etik gora egile-eskubideak), edo irizpide profesionalak (idazle-elkartekide izatea), edo liburu-egilea izatea, edo gizarte-onarpena (idazleek, kritikoek, irakurleek idazletzat hartzea bat).

Baldintza guzti hauek beteko dituzte batzuek, gutxienek. Bat edo beste bete ditzakete gehienek, baina isolaturik ba al dute nahikoa indar irizpide horietako batek edo bik?

Kontsiderazio guzti horiek gogoan, honela jokatu dugu, inkestarako idazlegoaren bila.

Lehen baldintza nagusia liburugilea izatea da. Gure kasuan, 1976tik 1994 bitartean libururen bat argitara emana behar du balizko idazleak. Bi liburu idatzi baditu, besterik gabe onartzen da.

Liburuaz ari gara, baina edozein liburuk ez du balio. Literaturakoa behar du izan, zentzu zabalean, hau da, fikziozkoa eta ez-fikziozkoa. Kanpoan uzten ditugu ikerketa akademikoak eta ikasmaterialak.

Bestalde, Euskal Idazleen Elkarteko kideak besterik gabe hartzen dira, obraren bat baldin badute. EIEk berak moldatu zuen "Gaur egungo euskal idazleak" liburuan Elkarteak berak idazletzat joak direnez, horiek ere besterik gabe sartzen dira, obraren bat baldin badute, noski.

Liburu bakarrekoekin zer egin? Kasuistika ugaria dago hemen. Liburugile honek nolabaiteko onarpen soziala edo ospea behar du, hau da, idazletzat nonbaiten kontsideratua izatea. Prentsa-oihartzunak neurri batean balio du eginkizun horretarako, eta batez ere Argiako Urtekariak idazleen zerrendan sartu izana.

Xeheago ere ibili gara kasu bakanetan. Beti ere aldez aurretik jakinda, edozein pauso dela kritikagarri. Ez da hori bakarrik. Nik neurez kanpora gelditu diren batzuk gustura sartuko nituen. Kazetari-talde polita gelditu da kanpoan, ekoizpen idatzi handia dutenak, baina libururik ez. Inkestaren muga bezala baino gehiago hartu beharko litzateke hori idaztearen jardueran zorionez badagoen aniztasun eta aberastasunaren seinaletzat. Bestalde, kazetaria "idazle" bada zergatik ez itzultzailea?

Adierazitako joan-etorri guzti horien ondoren, 298ko unibertso bat atera zitzaigun lehen momentuan. Baina inkesta jasotzearekin batera, idazle-andana batek bera ezabatzeko eskatu zigun, esanez ez zuela bere burua idazletzat, ezta gutxiago ere. Obra-tipoa kontuan edukita hamalau utzi nituen kanpo.

Autoulertzapenaren irizpide hau arretaz hartzekoa da, ez da dudarik. Idazle askok adierazi du halako erreparo bat bere burua Bernardo Atxaga baten eta Anjel Lertxundi baten ondoan. Normala da. Erreparo sozial aski zabaldua da, bestalde. Bi lan behar izan ditu Arantxa Iturbek konplexuak utzita idazle dela aitortzeko. Ramon Saizarbitoriak hogeita hiru urte eta lau obra behar izan ditu bere burua jendaurrean idazletzat hartzeko. Inkestako erantzun askotan nabari da egonezin hori. Baina horrek ez du zerikusirik bere burua idazlegotik kanpo ikusi nahiarekin.

Horrela bada 284koa da, azken batean, gure inkestako unibertsoa. Baina guzti hauei ezin izan diegu inkesta bidali: hamairuren helbideak falta zitzaizkigun. Inkestatuen unibertsoa, horrela, 271 idazlek osatzen dute.

Urtarrilean bidali genuen inkesta posta-bidez. Bigarren gutun bat, otsailean, erantzuna erregutuz eta argazkilaria etxera joango zitzaiola abisatuz.

Inkestak izan duen erantzun-maila benetan altua izan da: 199 erantzun jaso dugu, hots, % 73. Horietatik aztertzen ditugun erantzunak 184 dira. Zer da hau, proportzio ona ala txarra? Oso altua da, oso ona. Egin kontu: inkesta jaso dutenen % 67,9 aztertzen dugu. Eta unibertso osoaren % 64,8 suposatzen du aztertuen kopuruak.

Oso altua da erantzun-maila. Are gehiago: ez iritzi-mailan, baina bai zenbait datu pertsonaletan (adibidez, jaioterria, jaioturtea), informazio askoz ere osoagoarekin jokatu ahal izan dugu.

Inkestako unibertsoak eta argazkietan agertzen diren idazleek ez dute ehuneko ehun kointziditzen. Guztien argazkiak ezin izan ditugu lortu. Hori bateko. Eta besteko, azken orduan berri batzuk sartu ditugu. Inkestako irizpideetan (noizbait itxi behar eta) 1994an itxi zen idazle-kopurua, baina urtebete gehiagorekin orduko baldintzak bete ohi zituzten beste batzuk. Azken orduko hamalau idazle berri sartu ditugu argazki mailan.

Idazleen argazkien ondoan agertzen den fitxa teknikoa ez da osoa, ez du osoa izan nahi. Horretarako dago katalogoa.

Argazkiez ari garenez, ohartxo bat erantsi nahi nuke. Idazleak dira argazkietako pertsonaia guztiak ia-ia. Baina beste kolektibo batzuk ere sartu ditugu, bereziki: editoreak, itzultzaileak, ilustratzaileak, kultur elkarteetako arduradunak.

ARGITALETXEAK

Bi zati ditu argitaletxeen azterketak.

Lehen partean, nazioarteko argitalgintzari begiratu bat ematen diogu. Asmo bikoitza du horrek: edizioa gaur egun nondik nora dabilen ezagutzera ematea. Eta, bigarren asmoa, euskal edizioa, tamaina eta problematika aldetik, bere lekuan jartzea.

Bigarren partean euskal argitalgintza aztertzen da zuzen zuzenean. Argitaletxeei egindako inkesta batean oinarritzen gara horretan.

Otsailaren batean bidali genien inkesta editoreei.

Edizioaren sektorearen giltzarria dira editorialak. Ez dira bitartekariak soilik. Editoreak gero eta handiagoa du zeresana, ez bakarrik ekoizpenean, baizik eta sorkuntzan ere bai.

Baina zer da editorea, zein da, zer egiten du? Eta zer pentsatzen du? Bai, zer pentsatzen du kultur agente honek, indar handia duen sektore honek? Zer pentsatzen du idazleaz, merkatuaz, erakundeez eta hauen jokabideaz, zer pentsatzen du politika editorialaz, besteak beste?

Guzti horietaz interesatu gara, eta guzti horietaz erantzun digute editoreek. Gero esango dugu, baina aurrera dezagun, erantzun-maila handia izan dela oso, nahiz eta erantzun batzuk (edo batzuen erantzunak) nahikoa hutsalak izan diren, urte txarreko intxaurrak bezala.

Idazleekin izan ditugun antzeko arazoei egin behar izan diegu aurre editoreen unibertsoa definitzeko orduan. Zenbaki editoriala edukitzea nahikoa al da, nahiz eta gero apenas libururik atera? Noizbehinka liburu bat edo beste ateratzea aski al da? Ez al da argitalpen-maiztasun bat eskatu behar? Bartzelona edo Madrileko argitaletxe bat dozenerdi bat liburu argitaratuz "euskal" editore kontsideratu behar al da?

Galdera hauen atzetik dagoen arazo-sortarekin egin dugu topo, inkesta zeini zuzendu erabakitzerakoan.

Lehen selekzio bat egin dugu: eremu pribatuko editorialak bakarrik aztertu. Kanpoan uzi ditugu erakunde publikoak, hala nola, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak, Unibertsitateak.

Idazleen kasuan bezala hemen ere editore aktiboak soilki hartu ditugu aztergaitzat. Hau da, gaur egunean lanean dihardutenak, eta ez historikoak edo zenbaki editoriala gorde arren geldi daudenak.

Zeintzuk aukeratu?

Lehenengo eta behin Euskal Editoreen Elkarteko guztiak hartu ditugu: 19 argitaletxe une hartan. Kontuan izanda argitalgintzan badaudela Elkartetik kanpo lan egiten dutenak, elkartekide ez diren seiri ere bidali diegu inkesta.

Hogeita bosteko unibertsoarekin abiatu ginen. Baina behin betirako unibertsoa hogeita bi argitaletxek osatzen dute. Izan ere, Elkarteko hiru kide ezabatu egin nituen, inkestakoan. Arrazoi diferenteengatik: horietako bik une honetan ez dutelako argitaletxe gisa lan egiten (GIE eta Ihardun), eta hirugarrena ere ia kasu berean dagoelako eta parainstituzionala delako, gainera (Kutxa).

Erantzun-maila oso altua izan du galdeketak, % 86,3. Inkestaren azterketan zehar erabili ditugun editorialek unibertso osoaren % 77,2 suposatzen dute.

ARGITALETXETIK IRAKURLEARENGANA

Liburuaren prozesua luzea da. Tartean daude idazlea, (itzultzailea), argitaratzailea, banaketaria, dendaria, eroslea, irakurlea. Eta erakundeen liburu-politika.

Esan dezagun, bidenabar, prozesu hau ez dela arteza edo lineala, izendatu ditugun egile/eragileen ordena era horretara mantentzen duena. Liburuen jatorrian idazlea dago, batzuetan; beste batzuetan, argitaratzailea; eta, diotenez, mundu-mailako argitaratzaileetan komertzializazioak agintzen du.

Nik dakidala, liburuaren komertzializazioa eta salmenta gutxi ikertu dira gurean. Idazleak, idatziaz gainera, argitaletxeetan parte hartzera ere jo izan du. Baina nekezago pasa da idazlea arazo komertzialetara.

Komertzializazioa da agian normalizatzen azken hasia; eta beharbada normalizatuena gaur bera da. Inkestarik ez dugu egin liburuen banaketa eta salmentaz. Elkarrizketa pertsonalak izan ditugu arduradun nagusienekin, bai banaketaz eta bai liburu-salmentaz.

Irakurketarena, hori besterik da. Kezka bai, badago, baina informazio gutxi. Daukaguntxoaren berri ematen saiatu gara. Komentziturik nago datozen urteetan kontsumoaren azterketara gidatuko direla ahaleginak.

KULTURAREN KRONOLOGIA

Liburu honen bokazioetako bat hogei urteko ziklo hau bere osoan azaltzea da. Azken orduko gertakariek sortu ohi duten perspektiba faltsutik ihes egin nahi izan dugu espresuki eta berariaz.

Hogei urteotako historia kulturalak utzi dituen markak seinalatu nahi ditugu kronologia honetan. Kulturaren esparrutik ez gara apenas ateratzen, nahiz eta jakin bestelako gertakariek kulturgintzan duten eragina.

Liburuan bertan erabilera berezia duten gertakariak ez ditugu hemen jasotzen, aurkibide orokorraren bidez izan baitezake sarrera irakurleak.

Iturri asko eta oso desberdinak ditu kronologia honek: nire neureak, *Jakin*-ekoak, baina batez ere bi, "Euskal Herria" libururako (1985) Joseba Intxaustik prestatu eta argitarabako kronologia orokorra eta Argiak urtez urte argitara eman ohi dituen Urtekariak.

Imanol Murua Uriari eskertu behar diot kronologia hau txukundu eta orraztu izana.

OSAGAIAK

Liburuaren edukia ez da azterketa eta deskribapenera mugatzen. Mila informazio gehiago dago liburuan, testu korrituaz gainera.

Informazio gehiago bakarrik ez, gainera: iritziak ere badira, eta ez gutxi: literatur generoez iritziak espresuki bildu ditugu; literaturgintzaz nola pentsa eta jokatu egiten duten editorialetako literatur arduradunek ere *Jakin*-etik jaso dugu.

Hasiera-hasieratik aitortu behar ditut informazio-bilketan ez garela iritsi, iritsi nahi genuen gailurrera. Sinestezina da informazioa inguratzeak ematen duen lana. Jo batera, jo bestera, eta beti falta da zerbait. Iturburuetara jo, eta nekez informazio osorik jaso.

Jaso dugun informazioa, batzuetan erraz, gehienetan nekez lortu dugu. Jaso ez duguna ez da izan gure ahalegin-faltan. Honelakoetan sentitzen du batek bizi-bizi entziklopediaren hutsunea.

Aipa ditzagun material osagarritzat eman ditugun batzuk:

• Literatur sariak, lehiaketak.

1936ko gerraosteko sariak biltzea nahi izan dugu. Guzti-guztiak ez ditugu inguratu zoritxarrez, baina alor honetan datu-base dezentea eratu ahal izan dugu. Fitxa eredua elementu ugariz hornitzen da: sari eta lehiaketaren izena, antolatzailea, urtea, sarituaren izena, lan saritua, generoa.

Sari bakoitzaren diru-kopurua jakiten ere saiatu gara. Partzialki bakarrik eskuratu dugu informazio hau, eta horregatik ez dugu argitaratzen.

Bostehun bat sarituren berri ematen dugu, jasotako informazioaren selekzio bat. Bazter utzi ditugu sariketa edo lehiaketa dezente, hedadura txikikoak direlako, iraupen gutxikoak izan direlako, eta, zertan esanik ez, informazioa osoki biltzerik ez dugulako izan. Sariketa baten barruan adinez edo lurrez mugatzen diren sariak ere kanpo utzi ditugu, adibidez, Tene Mujika lehiaketan Debakoei edo 18 urtez azpikoei eman ohi zaizkienak.

Aintzat hartu ditugun sarien generoak hauek dira: narratiba (eleberria, ipuina), olerkia, haur eta gazteentzako literatura, antzerkia, kazetaritza.

Lehen sariez gain, jaso ditugu, baita ere, bigarren eta hirugarren sariak, akzesitak, aipamenak, finalista izan direnak. Lehen sari ez direnek lan sarituan izartxoa dute seinale bereizgarri gisa.

Hainbat eta hainbat eskertu behar ditugu arlo honetan: Josune Olabarria (Euskaltzaindia), Xabier Aizpurua (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila), Kutxako Irun eta Donostia sarietako arduraduna, Maite Etxaniz (Zarauzko Udala), Begoña Zaldibar (Central Hispano), Iñaki Ugalde (Habe), Patxi Baztarrika (Andoaingo Udala), Baporea Sariaren arduraduna, Raimundo Amutxastegi (Debako Udala), Jokin Ansorena (Tolosako Udala), Zumaiako Udaleko sari-arduraduna, besteak beste.

• Euskal liburuaren diru-laguntzak

Euskal liburugintza modu askotara lagundu liteke: liburua bera, idazlea, editorea, liburutegia, liburudenda, lagunduz, esate baterako.

Modalitate desberdinak praktikatu dira gure artean. Nagusitxoenak biltzea genuen amets. Bildu duguna ez da gutxi, baina ezin gaitezke horrekin ase, falta zaigun guztia ikusita.

Intentzio bikoitza nuen sail honetan: aginte propioa daukagunetik indarrean jarri den laguntza-politika ezagutaraztea eta programa bakoitzaren diru-kopurua zehaztea.

Eusko Jaurlaritzak Kultura eta Hezkuntza Sailetan egin duenaren berri jasoa dugu Xabier Aizpuruari esker. Nafarroako Gobernuarena ere bai, Mikel Arregi euskara teknikariak emanda. Foru Aldundiekin egin dugu topo. Behaztopa gaindiezina gertatu zaizkigu: datu solteak baditugun arren ezin informazio sistematikoa eta osoa eskuratu. Hurrengo baterako utzi ditugu.

• Euskal liburuen esportatzea

Nola deitu bestela euskal liburua beste hizkuntzetara itzultzearen fenomenoa? Kanporatzea? Erdaraketa? Ez dakit.

Esportazioz ari gara, noski. Baina ez da gauza bera mailuak esportatzea eta euskarazko liburua esportatzea. Hura zuzenean doa kanpora eta hau itzulpenetik paseaz.

Fenomeno literariotzat hartzeko moduan lehen aldiz itzultzen da euskal liburua erdaretara.

Kostata bada ere, informazio aski txukuna eta osoa da publikatzen duguna, azken ordukoren batek ihes egin ez badigu.

Juan Luis Zabalari eskertu behar diogu *Egunkaria*-n lehen pausoa eman izana. Hona guk bildu ditugun datuak: jatorrizko liburuaren titulua, urtea, egilea; eta itzulitakoaren titulua, itzultzailea, argitaletxea, urtea, hizkuntza.

Mariasun Landari eta Ramon Irazuri eskertu nahi diet bereziki eskainitako laguntza, Alejandro Zugazarena ahaztu gabe.

• Aldizkariak

Historia osoko euskal aldizkarien berri zehatz bildu dugu zenbait orritan. 1848ko "Escualdun laborarien adiskidea eta conseilaria" da lehena eta 1995eko "Ostiela" izango da azkena. Maiztasunaren aldetik urtekariak dira batzuk eta egunkariak beste zenbait. Aldizkako bokazioz sortu baina behin bakarrik atereak zerrendatik kanpo utzi ditu. Hamar dira.

Hizkuntzaren aldetik euskarazkoak daude noski, baina, baita ere, eleaniztunak: euskara-gaztelania; euskara-frantsea; euskara-gaztelania-frantsesa; euskara-ingelesa; euskara-gaztelania-katalana. Informazioa izan dugunetan, euskararen erabilera % 10 baino gehiago duten aldizkariak bakarrik hartu ditugu elebiduntzat.

Aldizkarien berri bi modutara ematen dugu liburuan zehar.

Aldizkari historikoak, hau da, 1976 aurrekoak, fitxa moduan aurkeztu ditugu: titulua, urteak (jaiotza-heriotza), maiztasuna, gaia, zuzendaria, argitaratzailea eta argitaragunea. 300 aldizkaritik gora dira, horietatik % 42,3 euskara hutsean argitara emanak.

Gaur egungo aldizkarien gorabehera nagusiak, aldiz, kronologian eman ditugu: hor daude gaurko aldizkako argitalpen nagusitxoenak, ez fitxa moduan baizik eta gertakari mailan. Aldizkarien sortze-data da maizenik bildu duguna.

Urtealdika kokatu ditugu aldizkariak: Pizkunde-aurrekoak; Pizkunde-garaikoak; frankismo-garaikoak; eta, esan bezala, aro garaikidekoak kronologian.

Aurreko aldiko bost aldizkariak erraz gainditzen ditu Pizkundeak: ehundik gora aldizkari eman dira argitara urte horietan, 1876tik Frankismo-bitartean. Horietatik % 47,6 euskaraz. Euskarazko aldizkarietan denetik dago: maiztasun bizi eta motelekoak; gaiaren aldetik, informatiboak, kulturalak eta batez ere erlijiosoak. Erdarazko aldizkarietan, gai politikoa da nagusi.

Frankismoaren urtealdian ia berrehun dira aldizkariak: euskarazkoak % 36,9. Gaur indarrean dauden aldizkari batzuk urte hauetan sortu ziren. Frankismoak ezarritako zentsuraren erruz, aldizkari askok (euskarazkoak batik bat) elizaren babesa bilatzen eta aurkitzen dute; beste asko klandestinoak dira, alderdi politikoen organoak, adibidez. Gerraosteko diasporan hainbat eta hainbat aldizkari atera da Europa zein Ameriketan, batez ere EAJren inguruan. Aldizkarigintza politikoan erdara izan da nagusi.

Aldizkarigintza modernoan bi errealitate nabarmendu litezke: *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera 1990ean, eta herri-aldizkarien loraldia.

Aldizkari historikoen fitxa osatu ahal izateko laguntza estimagarria aurkitu dugu Javier Diaz Noci (*Euskarazko Aldizkari, egutegi eta almanaken erroldea, 1834-1959*) eta Adolfo Ruiz de Gauna (*Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*) aztertzaileen lanetan.

• Laburpen balioztatzaileak literaturan

Liburuan zehar hainbat testu aurkituko ditu irakurleak, autore jakin baten izenean datozenak.

Han eta hemen kokatzen dira, segun eta gaiak non eskatzen duen.

Nik neuk eskaintzen dudan informazioaz eta azterketaz gain balorazioa ere ongi letorkeela pentsatuz izen ezagun batzuei eskatu diegu egin zezatela 20 urteotako balantze gisako laburpena, laburpen baloratzailea.

Eskatutakoari jator eta egoki erantzun diete guztiek.

Anjel Lertxundi saiakeraz jardun da; Inazio Mujika, eleberriaz; Xabier Mendiguren gaztea, ipuinaz; Iñaki Aldekoa, olerkiaz; eta Xabier Etxaniz, haur eta gazteentzako literaturaz.

• Kultur fitxak

Hogei bat talde, elkarte eta erakunderen aurkezpentxoa egiten dugu. Zehazki, hauena: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hezkuntza Saila, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Hizkuntz Politika, Euskalduntze eta Alfabetatze-prozesuan AEK eta HABE, Gerediagak antolatu ohi duen Durangoko Liburu eta Diskoaren Azoka, EKB, UEU, UZEI, Elhuyar, EIZIE, Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea, Euskal Editoreen Elkartea, Euskal Idazleen Elkartea, EITB, EKE, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltzaindia, Euskaldunon Egunkaria, Ikastolen Elkartea.

Erakunde edo elkarte bakoitzari buruz oinarri-oinarrizko informazioa eskaintzen dugu, zehatz eta mehatz.

Imanol Murua Uriak moldatu eta landu ditu aurkezpen hauek.

• Literatur arduradunen erantzunak

Euskal argitaratzaileei egin nien inkestaren aurretik, beste bat bidali nien euskal argitaletxeetan literaturaz arduratzen direnei.

Galdeketa honetako erantzunak ez ziren aztertzeko pentsatuak, arduradunek esan bezala argitara emateko baizik. Eta horrelaxe argitaratu ziren *Jakin* aldizkarian (*Literatur argitaratzaileei galdeketa*, 1996).

Galde-zerrendari eman zizkioten erantzun horietako asko liburuan zehar jasotzen dugu, gaiak eskatu ahala. Bigarren erabilkizun hau ere hasieratik zegoen pentsatua.

Literatur arduradun hauen eskuetatik igarotzen da euskal sorkuntzazko literaturaren ehuneko ehuna, esateko. Literaturgintzari pultsua hartzeko, zein egokiagorik?

Etxe hauetako literatur arduradunen erantzunak dira: Alberdania, Elkar, Erein, Ibaizabal, Pamiela, Susa, Txalaparta.

• Argazkiak, infogramak

Argazkiak eta infogramak ez dira, egia esan, elementu osagarriak liburu honetan, baizik eta testuari edo testuinguruari itsasi-itsasiak. Modu desberdinean bata eta bestea, hala ere.

Argazkiek orri bereko testuarekin ez dute zerikusirik, salbu liburu historikoaren azterketan. Infogramak, aldiz, testuari berbertatik lotuta datoz.

Larehundik gora argazki agertzen da liburuan. Gehien-gehienak espresuki liburu honetarako Aitor Bayo zumaiarrak atera ditu.

Baina bada besterik ere. Liburugintzaren azterketa historikoan hainbat material grafiko Joseba Intxaustiren "Euskara, euskaldunon hizkuntza" liburutik jaso dugu, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskuzabaltasunari esker. Auñamendi argitaletxeari ere bihotzez eskertzen diogu hainbat ilustrazio erabiltzeko baimena.

Idazle bizien hainbat argazki, bestalde, Argiatik eta Euskaldunon Egunkariatik eskuratu ditugu, erraztasunik handienaz.

Infogramak Joxean Apeztegiak egin ditu. Joxeanek *Euskaldunon Egunkaria*-n egiten du profesionalki lan. 60tik gora infograma agertzen dira liburuan.

Infogramatan liburuko informazio kuantitatibo gehientxoena modu sintetizatu eta bisualean jartzen saiatu gara.

Argazkietan idazleak agertzen dira gehienbat. Inkestako guztiak ez daude hemen. Arrazoi bat edo bestearengatik 15 bat gelditu dira argazki gabe, horien artean: Iñigo Barandiaran, Luis Berrizbeitia, Iñaki Garmendia, Karlos Gorrindo, Inazio Irizar, Luis Daniel Izpizua, Xabi Kalbo, Gabriel Korta, Sebastian Lejarza, Roberto Mielgo, Jokin Otaegi, Javier Rojo Cobos, Gorka Setien, Aitor Zenarruzabeitia.

• Hildakoak

Euskal Idazleak Gaur idatzi nuenetik idazle, kulturgile, euskaltzale asko eta on ugari hil da. Horietako gehientxoenen izenak bildu ditugu, oroimen eta omenaldi gisa.

• Aurkibideak

Bi aurkibide-tipo daude liburuan.

Lehena, aurkibide orokorra, 11. orrialdean hasten dena. Aurkibide orokor hau sarbide egokia da, kapitulu eta azpikapitulu ugariz antolatua egoteaz gain, edukiak xehe-xehe emanda daudelako. Nahikoa

da irakurle arruntarentzat. Ez, agian, zehaztasun gehiago nahi duenarentzat. Aurkibide berezituak prestatu ditugu honentzat.

Bigarren aurkibide-tipoa, "aurkibide berezituak" izendatu duguna, lautan banatu dugu: 1) onomastikoa, hau da, liburuan zehar agertzen diren pertsona-izen guztien zerrenda alfabetikoa; 2) analitikoa, hots, kontzeptuak eta gaiak zerrendatzen dituena, gehienetan alfabetikoki eta zenbait kasutan kontzeptu orokorrago baten azpian; 3) produkzio-agenteen araberakoa: hemen bildu ditugu argitaletxeak, inprimategiak eta zenbait erakunde eta talde; 4) infograma eta azalpen monografikoen aurkibidean han eta hemen, liburuan zehar, kokatu ditugun informazio osagarriak sailkatu ditugu.

ESKERRONEZ

Eskerren kapitulu hau luzea, oso luzea, litzateke eskertu beharreko guztiak banan banan izendatzen hasiko banintz. Inkestei erantzun dieten idazle eta editoreak aipatu beharko nituzke lehenengo. Gero, gure kontsultei eta informazio-eskeei erantzun dieten dozenaka lagun. Nire esker ona guzti-guztioi izenez aipatu gabe bada ere.

Hurbil-hurbilean laguntzaile eta lankide izan ditudanak eskertu nahi nituzke, denen gainetik.

Izen eta guzti aipatu behar ditut gutxi batzuk, beren laguntza modu berezian eskertzekoa delako. Joxe Azurmendi, proiektua eta testua lantzen eman didan laguntzagatik. Fermin Olaskoaga, idazleei eta argitaratzaileei egindako inkestak informatizatzeagatik. Jabier Agirre, hizkuntz orraztapenagatik. Imanol Murua Uria, zenbait testu osagarritan egindako lanagatik. Arantxa Begiristain, idazkaritza-lanengatik. Imanol Tapia, liburu honetan jarri duen maisutasuna eta maitasunagatik. Andoni Sagarna eta Joxerra Aizpurua, aurkibide berezituetarako eman didaten laguntza informatikoagatik. Aitor Bayo eta Joxean Apeztegia, argazkietan eta infografian egin duten ahalegina eta lortu duten kalitateagatik.

Modurik berezienean eta hizkirik handienaz eskertu eta goraipatu nahi ditut liburu hau burutzea eta tankera dotore honetan irakurlearen eskuetan jartzea posible egin duten bi erakundeak: *Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa* eta *Euskadiko Kutxa*. Dirua bakarrik ez da liburu honi eman diotena. Bihotz-bihotzez eskertzen diet egin didaten konfiantza eta proiektuan jarri duten ilusioa. Milesker.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa eta *Euskadiko Kutxa*-ren babesa dela eta, autore bezala aitortu dudan eskerron bera azaldu nahi dut *Jakinkizunak S.L.*-ren kudeatzaile naizen aldetik ere. *Jakin*-entzat ezina da tamaina honetako obra bat berak bakarrik burutzea. *Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa* eta *Euskadiko Kutxa*-ren lankidetzarik gabe liburu hau ezin zitekeen kalera. Baina, zorionez, elkarlanak berriz ere emaitza oparoa eman du.

1996ko azaroak 10


libu

1.

rugintza

LIBURUGINTZA

1545-1995: 450 urte

Euskal liburugintzaren 450 urteei dagokien informazioa modu grafikoan biltzen dituzte infogramek.

Garaiari eta honen barruan gaiari dagokion lekuan kokatu ohi dira infogramak. Gehien-gehienak horrelaxe doaz liburuan zehar.

Badira testuinguru zehatz eta jakinik ez duten infogramak. Garai osoaren erreferentzian moldatuak, alegia. Historia urratsez urrats kontatzen hasi aurretik ematekoak dira hauek.

Bost dira hasiera honetara apartatu ditugunak.

Hauetako bik ekoizpenaren datu gordinak azaltzen dituzte. "Liburu--produkzioa historian" dator aurrena. Begiratu batez har dezake irakurleak historia osoko liburu-ekoizpenaren berri. Baina ez berri kuantitatibo orokorra bakarrik, baizik eta zehatzagoa ere bai, hots, zenbat lehen argitaraldi eta berrargitarapen, zenbat jatorrizko eta itzulitako, urtealdiz urtealdi.

"Liburuak eta liburuxkak" infograman ikusten da historiako bost urtealdietan zenbat izan diren 50 orrialdetik gora eta beherako argitalpenak.

Ekoizpenari dagozkion infograma hauen ondoan gaien azterketakoak datoz, hiru. "Gaiak historian" izenekoak historia osoko gaiak dakartza bi modutara emanak: lehen argitaraldiak gaien arabera nola banatzen diren da bat; eta bestea, edizio guzti-guztiak batera kontsideratzen dituena.


Beste bi datoz ondoren: historia urtealdika banatu eta urtealdi bakoitzaren barruan liburuak nola banatzen diren gaietan. Bai lehen edizioan eta bai orokorrean.


• Hasieratik gaurdainoko titulu guztien argitalpenak, urtealdika emanik daude lehen grafikoan. Hazkunde progresiboaren tamaina ikus daiteke bertan. Eta batez ere azken 20 urteotan egin dugun jauzia. Guztira egin denaren lautik hiru da gure urteotan egin dena.

• Bigarren grafikoan urtealdi bakoitzaren barruan nobedadeen eta berrargitalpenen proportzioak ageri dira. Bigarren urtealdian (1700-1875) berrargitaraldiak sortutakoak baino ugariago dira.

• Hirugarren grafikoan euskaraz sortu diren tituluak eta euskarara itzuli direnak alderatzen dira urtealdiz urtealdi. Itzulpenaren indarra, handiena azken hogei urteotan da (% 35) eta gero 1700-1875 urtealdian (% 32,6).

Grafiko honetan, eta berdin liburugintza osoko hurrengoetan, jatorrizko *liburua eta itzulitakoa orokorrean* hartu dira, hau da, edizio guztietan. Testu-barruan eta tratamendu zehatzagoetan, testuaren jatorria lehen edizioan aztertu ohi da.






1545etik 1995 bitartean argitara eman diren liburuen gai-sailkapena azaltzen da hemen.

Barru-aldean lehen edizioka banatua dago gai-multzo bakoitza.

Gain-aldean, berriz, ekoizpen oso-osoa biltzen da, argitaraldi guztiak barne. Gai batzuk lehen edizioan dute indarra batez ere. Beste batzuk, erabilienak hain zuzen, hazi egiten dira berrargitarapenean.



Liburuxkak 5-48 orrialde bitartekoak dira.

Liburuak, 49 orrialde eta gehiagokoak.

Lautik bat eta hirutik bat da liburuxka azken aldi luze honetan. Haur-literaturakoa da, batez ere.

Eusko Pizkundean (1876-1935) liburuxkek proportzio handia dute: % 42,5.

Lehen edizioko tituluak edo nobedadeak bakarrik daude hemen kontabilizatuta.

• Lehen urtealdian (1545-1699) erlijio-liburuek % 83,3 hartzen dute.

• Bigarren urtealdian (1700-1875) erlijiozko liburuen gain beste hiru gaimultzo ere ageri dira, bereziki literatura eta giza eta gizarte-zientziak.

• Hirugarren urtealdian (1876-1935) erlijiozko liburua pisua galduz doa, eta indar dezentea hartzen dute bai literaturak eta bai giza eta gizarte-zientzietako liburuek. Aisia-liburuak eta irakaskuntzakoak ere ageri dira, lehen aldiz.


Literaturaren proportzioa da nabarmentzekoa, eta horren barruan antzerkiak duen nagusitasuna.


• Laugarren urtealdian (1936-1975) gai askoz gehiago lantzen dira. Zazpi gai-sail daude hemen. Eta lehen aldiz erlijiozko liburuak lehen postua galdu egin du.

Literatur liburuaren lehen postua da datu ohargarriena, lehen aldiz historian.

Normalkuntzaren seinaletzat hartu behar dira, baita ere, giza eta gizarte-zientziekin batera hezkuntzaren inguruan mamitu diren ikasmaterial, literatura eta zientzi liburuak.

• Bosgarren urtealdia oraingoa da, 1976tik gaur artekoa. Irakaskuntzaren merkaturako egiten diren materialak eta literatur liburuak dira nagusi, eta horien atzetik helduen literatura. Liburu zientifiko, tekniko eta unibertsitarioek ere plaza hartu dute. Ez inportantea baina bai ohargarria da erlijio-liburuaren paraderoa.





Aurreko infogramarekin batera ikus/irakurri behar da hau. Han esandakoek honako ere balio dute, joeraren eta esanguraren aldetik.

Infograma honek liburu-tipoen kontsumoa ere adierazten du. Erlijio-liburua, adibidez, lehen edizioan baino indartsuagoa da berrargitarapenean, salbu lehen urtealdian eta aro garaikidean. Giza eta gizarte-zientzietan alderantziz gertatzen da: produzitu produzitzen da, baina nekez iristen da berrargitarapenera.

LIBURUA HISTORIAN

1545-1699
URTEALDIA


Kultura landuaren kontzientzia

Etxepareren liburuarekin batera ematen diogu hasiera urtealdi honi. Lehen liburua da, eta horren kontzientzia du autoreak, liburuaren titulutik hasita.

(Ustez) ezina, (jada) egina, bide dio Etxeparek. Euskarari status kulturala eman nahi dio euskaraz liburua idatziz: *Bertze jendek uste zuten / ezin skriba zaiteien / orai dute phorogatu engainatu zirela / Heuskara jalgi hadi mundura.* Inprimatzeak ematen dio euskarari kategoria hori: *Heuskara, orai dano egon bahiz / Inprimatu bagerik, / Hengoitik ebileren / mundu guzietarik.*

Aurrena izatearen kontzientzia du Joanes Leizarragak ere. Itzulpenetan batere erabili gabea dela euskara, aitortzen du berak. Agorrenetako eta barreiatuenetakotzat jotzen duen hizkuntzari nola aurre egin, horra "Heuscalduney" sarreran planteatzen duena. Kultur hizkuntzaren eta hizkuntza estandarraren arazoa plazaratzen ari da beste hitz batzuekin.

Eta garai honetako hirugarren autore handiak, Axular-ek, bere "Gero" entseiukarrean bezala egiten du eta ordurarte euskara sartu gabeko itsaso zabalean murgiltzen da lehen entseiu horrekin.


LINGVAE VASCONVM PRIMI-
tiæ per Dominum Bernardum Dechepare
Reflorem ſancti michælis veteris.

Euskaraz idatzitako lehenengo liburua: Bernart Etxepare-ren "Linguae Vasconum Primitiae"

Plan baten arabera

Etxepareri buruz gutxi dakigu. Bere kabuz egindakoa izango da bere *Linguae Vasconum Primitiae.*

Beste biek, ordea, ingurune jakina dute, bakoitzak berea.

Euskaldunen erreforma erlijiosoaren plangintzaren barruan datoz Leizarragaren obrak. Paben ospaturiko sinodo kalbinistak, 1564an, Testamendu Berria itzultzea enkargatu zion Leizarragari. Bost urte lehena-



Joana Albretekoa (1555-1572)

go, 1559an, Joana Albretekoa, Nafarroako Erregina, kalbinista egin zen eta bere sinismen berria zabaltzeko euskaraz nahi zituen obrak.

Agintea alde dutela ateratako obrak, Leizarragarena bezala, urte haietan eta luze geroago ere, salbuespen dira.

Fabore gutxi izan du euskarak agintearen aldetik. Geroxeago arituko gara honetaz.

Axularren *Gero* (1643) ere talde-erabakia da. Ikusten denez, Sarako tertulietara idazle-andana bat biltzen zen, jende ikasia: Axular bera, Sarako Erretorea; Etxeberri, Ziburuko Erretorea; Harizmendi, Sarako apaiza; Argaignaratz, Ziburuko apaiza; Gillentena apaiza; Haranburu frantziskotarra; Matterre, frantziskotar euskaldunberria; Hirigoiti sendagilea, etab.

Agintea eta euskara

Hasteko, euskarak ez du ofizialtasunik izan. Nafarroako Erresuman galdutako aukera lamentatzen du askok: latinetik euskarara pasa ordez erromantzera pasa zen zuzenean, eta kitto geroztik. XVI. mendean Gaztelak Nafarroako Erresuma bereganatu egin zuen. Euskal Herriak ez du izan euskara ezarriko duen aginterik, alderantziz baizik. Jada 1492an, A. Nebrijak bere *Gramática Castellana* idaztean argi eta garbi esana utzi zuen hizkuntza eta agintea lagun minak direla.

Bigarren: Euskal Herriko agintariek sekulako indiferentzia erakutsi dute liburuen kasuan. Historia guztietan agertzen direnak aipatuz: 1609an, Gipuzkoako Batzarrak Martin Yañez de Arrietari ukatu egiten dio 200 dukateko laguntza bere dotrina publikatzeko; 1675ean, Nafarroako Batzarrak laguntza ukatu egiten dio Behenafarroako Domingo Bidegarairi, euskal-frantses-latin-espainol Hiztegi bat, eta latina eta frantsesa ikasteko "Rudimentos" bat argitaratzeko; 1727an Batzarreko Sindikoak Sarako Joanes Etxeberrirentzat laurehun libera eskatu zituen lau hizkuntzetako hiztegi bat argitara emateko, eta ezezkoa jaso zuen.

Euskarazko liburuekin bakarrik ez omen ziren gertatzen honelakoak.

Are okerragoa da Euskal Herriko agintearen hizkuntz politika. Hona adibide batzuk. Erdara gabe ezin da euskal gizarte elebakarra ordezkatu Batzarretan. XVI. mendean Gipuzkoa euskaldunean Juntetako prokuradorerei zera exijitzen zaie: "saber lengua castellana y leer y escribir". Eta XVII. mendean, Bizkaian, hiru aldiz (1613, 1618, 1620) Batzarretan parte hartzeko erromantzez irakurri eta idazten jakin beharra dago. Eta 1624an hamaika herritako ordezkari Korregidoreak ez zituen onartu

gaztelaniarik aski ez zekitela eta. Garai hartako euskal herritarren egoera soziolinguistikoarekin aurrez aurre zeuden erabaki hauek.


IESVS CHRIST
GVRE IAVNAREN
TESTAMENTV
BERRIA.

MATTH. XVII.

Haur da ene Semea maitea, ceinetan neure atsegin ona harrezgen baitut, hunic beha ceçaçaçue.

ROCHELAN
Pierre Haultin, Imprimiçaile
1571

Euskaraz inprimatutako bigarren liburua: Joanes Leizarraga-ren "Testamentu Berria", 1571. urtean argitaratua

Sarako Eskola

Komentatzen ari garen urtealdi honetako fenomenorik harrigarriena Donibane-Ziburu inguruan sortzen den loraldia da. Garai honetan euskaraz egiten den liburuetatik hirutik bat eskola honetakoa da. Arrakastaren termometro gisa berrargitalpena hartzen badugu, berrargitaratu direnen lautik hiru dira hauen obrak.

Tertulietara biltzen den jendea jende jantzia da, Unibertsitatean ikasitakoa. Produktu aldetik ere, erlijiozko gaietan, noski, halako maila bat gordetzen dute. Axular-ek dioenez, "eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere".

Diferentziaz jabetzeko alderatu besterik ez dago hauen produkzioa eta, adibidez, hegoaldetiarren katiximak: gaiaren tratamendua eta euskararen maneiua, bietan dira nabarmenak aldeak.

Harrigarri gertatzen da Axular eta lagunen obra, nekazarien herri pobre eta analfabetoa baitzen gehienbat artean euskal gizartea. Axularek eta kultuagoentzat idazten dute eta aipatu dugunez liburu horiek irakurri egin ohi ziren gainera, berrargitalpenak ere berauenak baitira nagusi.

Sarako eskolaren kokalekua da emankortasun honen gakoa. Gogoratu behar da garai hartan Lapurdi aberatsa dela. Arrantzan du oinarria bertako ekonomiak. Donibane Lohizune eta Ziburu dira Lapurdiko itsasportu nagusiak, Baiona baino ere gehiago, eta euskal arrantzaleek Ternuara egin ohi zituzten bideen lekuko.

Donibanek 12.000 biztanle ditu eta Ziburuk 3.000 eta bien artean osatzen den hiri-bilgunea Euskal Herriko handienen parekoa da. Goral-



Donibane Lohizune grabatu zahar batean


LIBVRVHAUDA
JXASOCO
NABIGACIONECOA.
MARTIN DE HOYARZABALEC
eguiña Francezes.
Eta PIARRES DETCHEVERRY,
edo DORREC escairarat emana,
Ere erbaitz gueliago abançamba.
BAIONAN.
M. DC. LXXVII.

"Ixasoco nabigacionecoa" liburuaren azala, Martin de Hoyarzabal-ek egina eta Piarres Detcheverry-k euskaratua

dian daude gainera eta jende asko erakartzen dute, Hegoaldeko asko horien artean. Hauen arteko komunikazio-hizkuntza ez da frantsesa bakarrik, baizik eta euskara. Ez da beraz harritzekoa euskara batuaren kontzientziak indar hartzea bertan, lehenago Leizarragak nabaritu zuenaren antzera. Judu espainol eta portugesak, nafarrak eta Bordelekoak Ipar Euskal Herrian aurkitzen dute aterbe (1622ko errebolta ondoren 2.000 bat juduk ihes egin behar izan du).

Goraldi eta garapen honen abiadaren tamaina hartzeko, gogora dezagun mende hasieran 721 marinel zeudela Donibanen eta urte gutxitan, 1730ean, 6 aldiz gehiago direla (4.296) eta mendean zehar are gorago egiten duela, harik eta XVIII. mendean beheraldi azkarra izan arte. 700 itsasuntzi ditu eta, gainera, arrainetarako, komertziorako eta gerrarako barkuak egiten dira.

Bizitasun handiko eta erlijio desberdinetako topagune den eskualde honetantxe sortu eta garatzen da idazle-loraldi hau.

Hegoaldearen atzerapena

Mende eta erdi honetan Hegoaldean argitara emandako lanak ez dira dozenara iristen denetara.

Eta ez hori bakarrik. Iparraldean euskal produkzioak hartu zuen maila jasoak ez du mugaz behetik parekorik. Eman dezaketen maila ematen dute katiximek eta ez besterik. Hor ditugu alerik ezagutzen ez den Santxo Elsorena Lizarran edo Iruñean (1561), Juan Pz. Betolazarena Bilbon (1596), Juan Beriainena Iruñean (1626), Martin Otxoa Kapanagarena Bilbon (1656) eta Nikolas Zubiarena Donostian (1691).

Gai erlijiosoetatik aparteko produkzioa erdaraz, gaztelaniaz, lantzen da Hegoaldean. Apologistak ere hor dabiltza gure euskararen antzinatasuna eta garbitasuna frogatu eta frogatu, baina erdaraz. Nahikoa lan du Etxabe zumaiarrak "agur maria" euskaraz idaz daitekeela erdaraz frogatzen.

Arrazoi osoz burlatzen da Klaberia Iparraldetik Garibaiz eta Etxabez. Gero helduko diogu gai honi.

Kristau dotrinetara itzuliz, bizpahiru puntu azpimarra genitzake.

Etxepareren liburuaren argitalpen-urte berean (1545) hasi zen Trentoko Kontzilioaren ondoren heltzen dio euskarari Eliza katolikoak, erakunde gisa. Euskal Herria hiru elizbarrutitan banatua dago: Baiona, Iruñea eta Kalagurri. Azken honetako hiru sinodoetako berri (1602,1621, 1700) eman digu Joseba Intxaustik (*Euskal Herria*, 1985). Predikuak eus-

karaz egin beharra da erabaki bat. Eta bestea, eliz lanetarako baliabide inprimatuak euskaraz sortzea, katiximak bereziki. Baina katixima hauek ez dira euskara hutsean emango, euskaraz eta erromantze batean baizik. Lehentxeago, 1600ean, Pedro Manso gotzainak erabaki bera hartua zuen, bietan ematekoa. Eta honek ere lehenagotik zetorren praktika ofizialdu besterik ez du egiten. Gorago aipatuak ditugun katixima horiek, denak dira elebidunak.

Iparraldean ez da berdin gertatu. Euskaraz bakarrik dira Iparraldeko argitalpenak.

Hasiera desberdinak

Hasieratan gaude, jakina da. Eta badira hor gerora zeresan handia izan duten bide batzuen abiapuntuak. Hona batzuk:

- Lehen liburua euskaraz: Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)
- Hegoaldeko lehen euskal liburua: Santxo Elsoren *Doctrina Christiana* (1561)
- Lehen itzulpen (handia): Joannes Leizarragaren *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571)
- Lehen euskal idazle atzerritar euskaldunberriaren liburua: Estebe Materreren *Doctrina Christiana* (1617)
- Lehen euskal entseiua: Pedro Axular-en *Gero* (1643)
- Laiko baten lehen obra: Allande Oihenart-en *Les proverbes basques...*(1657)
- Zubereraz argitaraturiko lehen liburua: Iuan Tartasen *Onsa hilceko bidia* (1666)
- Kempis-aren lehen itzulpena: Aranbillagaren *Jesu Christoren Imitationea* (1684)



GUEROCO
GUERO,
EDO
GUEROCO LUCAMENDUTAN
ibilteeac, eta arimaren eguitecoac
guerocotz utzteac cembat calte
eguiten duen.
Escritura saindaric, Elicaco Doctor-etaric,
eta liburu devocinozcoetaric AXULAR
Saraco Errotorac vildua, eta argi-
tara emana.
Bigarren Edicionea corrigetua, eta
emendatua.
Ve tardes convertil ad Dominum, & ne differas
de die in diem. Eccles. 5.
BORDELEN,
G. MILANGES Ereguetsen imprimat-
çaillea baithan.

Axular-en "Gero", Donibane-Sarako taldean burutu zen literatur lanik nagusiena

Liburugintzaz zertzeladak

Aldi honi dagozkion 155 urte batean eta osorik hartuta nola baloratu?

52 liburu bildu ditut nire datu-basean. Urtez urte kontsideraturik, horrek esan nahi du ia hiru urtez behin liburu bat atera zela euskaraz. Ez da asko. Baina ez dakigu bere garaian kokatuta zenbat den egiazki. Munduko garaiko produkzioan gaur egun dugun bolumena baino proportzio txarragoa ote? Liburu inprimatuak, XV. mendean 20 milioi ale omen ziren. Eta XVI.ean 200 milioi ale.



Urtealdi honetako 52 liburu jaso dira. Zazpi urte-multzotan banatu dira urtealdi honi dagozkion 154 urteak, 22na urteka alegia. Produkzioaren eboluzioa hobeto adierazi nahi da horrela.

Txikia izanik ere, gorakada, gertatu XVII. mendean gertatzen da, harritzekoa ez dena.

• Baina gorakada hori ez da hainbeste nobedadeen meritua, baizik eta berrargitaraldiena, bigarren grafikoan ageri denez. XVII. mendean hirutik bat berrargitalpena da. Urtealdi osoan hamar liburutik zazpi nobedadeak dira.

• Hirugarren grafikoan ikusten da itzulpenak indar gutxi duela. Jatorrizko liburua da ia-ia guztia (% 88,5).

Lehen edizioa da nagusi garai guzti honetan (% 69,3). Eta lehen argitalpenetan euskaraz sorturikoa % 83 da eta itzulpena % 17.

Berrargitalpena, batez ere Sarako Eskolakoen lana, % 30,7 da. Arrakasta handiena izan duen autorea, berrargitalpenetatik begiratuta, Ziburuko Etxeberri da, Teologian doktorea: "Noelac" liburuak lau argitaraldi izan zituen, "Eliçara erabiltceko liburua"-k hiru, bi "Debocino escuarra"-k. Estebe Materre-ren "Bouqueta" ere lau aldiz segidan argitaratu zen.

Hurrengo urtealditan ikusiko dugu proportzio hauek arras aldatzen direla, gora eta behera. Hori dela eta, lehen aldi honetan, datu soilak emateaz aparte, zaila da deus ganorazkorik gaineratzea.

Konparaketak eta alderatzeak eta, hortaz, balorazioak, gerorako utziko ditugu.

Gaien aldetik erlijiozko liburuen nagusitasuna azpimarratuz gain, zer besterik esan? Produkzio intelektualaren % 83,3 erlijiozko liburuari

dagokio. Baina berriz esan behar dugu hemen ez dagoela konparatzerik, nola gaiaren tratamenduaren aldetik hala euskararen aldetik, Iparraldekoen eta Hegoaldekoen lana, haien mesedetan.

Argitalpenen kokagunea


Produkzio espirituala edo idaztea Euskal Herrian egiten da, bereziki Iparraldean. Baina non argitaratzen dira liburuok, hots, produkzio materiala, fisikoa non egiten da?

Produkzio "espirituala" autorearenari esan ohi zaio. Produkzio materiala, aldiz, editorearen lanari.

Bistan denez, etxe editorialik ez dago garai hartan, ez eta hurrengoan. Dagoena da inprimategia, hau da, liburua fisikoki egiten duena eta ez berau programatu, promozionatu eta salbideratu.


Argitaraguneei arreta eginez, ikusten dena zera da, libururik gehienak, lautik hiru, Euskal Herritik kanpo argitaratzen direla. Gehien-gehienak Frantzian, Bordeleko eskualdean batez ere, eta gero Parisen eta Paben. Euskal Herrian bertan lautik bat ere ez.

Lehen euskal liburua atera zenerako Euskal Herrian bazen inprimategirik. 1489tik dago Brocar Iruñean. Eta XVI. mendean, Iruñean bertan



Euskal Herritik kanpo argitaratzen dira euskal liburu gehien-gehienak. Frantzian atera dira gehienak. Bordeleko eskualdean bertan, Parisen, Paben.

Euskal Herrian bertan lautik bat ere ez.


BORDELEN,
G. MILANGES Erregueren Imprima-
çaillea baithan.
M. DC. XLIII.

PARISEN,
Chez IZAN ROGER, ruë des Amandiers,
à la Verité Royale, deuant les Graſſins.
M. DC. LVI.
AVEC PRIVILEGE DV ROY.

BATONAN.
FAUVET, Imprimerian Carmeſſereco aldean.
M. DC. LXVII

ditugu Anberes, Porralis, Mares; Bilbon, Mares, Cole Ibarra; Donostian Borgoña. Eta XVII. mendean, Iruñean Asiain, Labaiendarrak, Oteiza, Berdun, Martinez, Zabala, Berdala, Micon, Neyra; Bilbon, Azpiroz, Huidobro, Morove, Rico, Elorza, Baraona; Donostian Huartetarrak; Baionan Merlet, Bourdot, Bosc, Fauvet; Iratxen Mares, Fiteroko Monastegikoa, Urantzin Maresen alarguna, Oliten Armendariz, Azkoienen Ximenez, Garesen Berdala, Tafallan Osta, Tolosan Huarte.

Baina hemen kokatutako inprimategiek lan gutxi egin dute euskal liburuarekin, mende eta erdi honetan. Hona lehenak:

- Santxo Elsoren "Doctrina Christiana" Anberesek atera zuen 1561ean, Iruñean
- Betolazaren "Doctrina Christiana" Pedro Cole de Ibarrak atera zuen 1566 ean, Bilbon
- Carlos Labayenek atera zuen 1621ean Juan Beriainen "Tratado de cómo se ha de oir misa...", Iruñean
- Carlos Labayen berak atera zuen 1626an autore beraren "Doctrina Christiana".
- Voltoiren "Tresora"-ren bigarren edizioa Frances Bourdot-en inprimategian atera zen Baionan, 1642an
- Juan Azpirozek Bilbon inprimatu zuen Otxoa Kapanagaren "Exposición de la Doctrina christiana", 1656an
- B. Boschen inprimategian ikusi zuen argia, 1665ean, Argaignaratzen "Devoten Breviarioac" liburuak, Baionan
- Aranbillagaren "Jesu Christoren Imitationea" Antonio Fauveten tailerretan atera zen 1684an, Baionan
- Pedro Huartek Donostian inprimatu zuen 1691an Nikolas Zubiaren "Doctrina Christiana".

Euskal liburuen argitalpen-lanetan lan gehien egin dutenak, esan bezala, kanpokoak izan ziren: Milanges-ek 10 bat liburu atera zituen; Court-ek bospasei; Desbaratz-ek eta Hautin-ek hiruna. Bina liburu ateratako dozenerdi bat inprimategi bada.

Nahi zuenak, nahi zuenean eta nahi zuen lekuan inprimategia jartzerik ez zuen. Hainbat eta hainbat liburutan garbi agertzen da Erregearen edo Gotzainaren babeseko inprimategia dela bera. Kontrolatua izan da inprimategien finkapena eta libre izan denean ere inprimaki bakoitzak zuen kontrola.

Estatu espainiarreko lurretan *pribilegioaz* gain *lizentzia* behar zen, hau da, baimena, Erret Kontseiluari esklusiboki zegokiona.

Beste baldintza bat ere behar zen, onarpena, alegia: obraren azterketa enkargatu zitzaion pertsonaren txostena. Aurretiazko zentsura esango genuke.

Pio V.ak ebatzirik obra erlijiosoek eta/edo elizgizonen lanek "nihil obstat" eta "inprimatur" behar dute.

	Mendea / Tokia / Urtea	XV	XVI										XVII										XVIII			
		1489	10	20	30	40	50	60	70	80	90		10	20	30	40	50	60	70	80	90		10	20	30	40
1	IRUÑEA		Brocar				"Buldak"			Porralis, T/P		Mares	Asiain		Labaien, M			Martinez, C			Micon		Picart			
										Anvers			Labaien, C			Berdun				Zabala, MG			Neyra		Burguete	
														Oteiza							Berdaia			Ezquerro		Castilla
																									Martinez, J.J.	
2	LIZARRA	1546					Egia																			
							Anvers																			
3	TUTERA	1572								Porralis, T																
4	BILBO	1578								Mares		Cole Ibarra			Huidrobo			Morove.		Elorza		Baraona				
													Azpiroz							Rico			Zafra			
5	DONOSTIA	1586									Borgoña									Huarte, M / Alarg.		Huarte, P/B				Riesgp.
6	IRATXE	1607											Mares													
7	FITERO	1607											Monastegia													
8	BAIONA	1608											Merlet			Bourdot			Bosc							
																				Fauvet						
9	URANTZIA	1637													Mares, Alarg.											
10	OLITE	1685																			Armendariz					
11	AZKOIEN	1687																			Ximenez					
12	GARES	1693																			Berdala					
13	TAFALLA	1693																			Osta					
14	TOLOSA	1697																			Huarte, B					
15	BIANA	1716																							Martinez	
16	GASTEIZ	1722																								Riesgo, B

Iturria: Jose Antonio Arana Martija

1700-1875
URTEALDIA

Garai honek XVIII. mende osoa eta XIX.aren hiru laurdenak besarkatzen ditu.

Izen propioak

Ezin da esan propioki Larramendi denik Penintsulan euskara idatziaren aitzindaria. Literatura kateketikoa bazegoen lehendik. Eta Larramendirekin zerikusi gabekoak ere badira. Larramendi da, hori bai, literatur historiagileek aho batez aipatzen eta aupatzen dutena hemengo mugimenduaren abiapuntuan.


Sekulako eragina izan zuela Larramendik (1690-1766), ez da dudarik. Larramendiren eskolaz, honen belaunaldiaz, Larramendiren literatur mugimenduaz mintzatzen dira adituak. Idazle-parrasta jarri zuen lanean. Horien obrak bete-betean sartzen dira gure analisietan. Ez, ordea, Larramendirenak berarenak. Zergatik? Erdaraz idatzi zuelako.

Jarraitzaile asko izan zituen Larramendik. Hurbilenak Agustin Kardaberaz (1703-1770) eta Sebastian Mendiburu (1708-1782) jesuitak, idazle handiak biak. Juan Antonio Ubillos (1707-1789) frantziskotar irakaslea da hirugarren handia.

Juan Antonio Mogel (1745-1804) eta Pedro Antonio Añibarro (1748-1830), larramenditarrak biak, dira bizkaiera literarioaren aitzindariak. Bizkaieraren finkapenean beste batzuk erantsi behar zaizkie hauei, Pedro Astarloa (1751-1821), Frai Bartolome (1768-1835), Juan Mateo Zabala (1777-1840).

XIX. mendean ere Larramendiren eraginak indarrean dihardu. 14 bat idazle puntako seinalatzen ditu Luis Villasantek bere historian.

Iztueta (1767-1845) da elizgizon ez den bakarra. Apaizak dira bi idazle handi: Juan Bautista Agirre (1742-1823) eta Jose Ignacio Gerriko



Aita Manuel Larramendi (1690-1766), Antonio Valverde "Ayalde" pintorearen ikuspegiz



Luis Luciano Bonaparte printzea (1813-1891)

(1740-1824). Garai berekoa da Francisco Ignacio Lardizabal (1806-1855). Honen "Gramática Vascongada" eta testu erlijiosoak hedadura handia izan zuten.

Garai beretsuan nabarmendu zen Nafarroan Joaquín Lizarraga (1748-1835).

Hegoaldeko idazleez ari gara. Baina ez da pentsatu behar Iparraldea landare gabeko basamortua denik. Lanean dihardute Xurio, Haraneder, Larregi, Baratziart, Salvat Monho, Harriet eta gehiagok. Eta denen gainetik Sarako Joanes Etxeberri (1668-1749) dago. Zoritxarrez, honen lanak oso berandu arte ez du argirik ikusi. Bestalde, obraren aldetik iparraldekoa adina hegoaldekoa kontsidera daiteke apika autore hau.

XIX. mendearen bigarren aldian suspertu egiten da atzera Iparraldeko literatur giroa. Antoine D'Abbadie mezenas irlandarrak lehiaketak eta sariketak antolatu eta finantzatzen ditu. Hor ditugu, gainera, olerkian eta prosan, Hiribarren, Daskonaguerre, Arbelbide, Lapeyre, Lapitz, Joannategi, Elizanburu, Adema. Eta Pierre Topet Etxahun (1786-1862).


XIX. mendean, Larramendiren eragina gutxitzean, eta ordena erlijiosoak ezabatzean, gertatzen den itzalaldia argitzera datoi Luis Luciano Bonaparte (1813-1891) printzearen lan eragilea. Euskal dialektologiaren hastapenak eta oinarriak berari zor zaizkio. Idazle-talde bat jarri zuen lanean, Hego eta Iparraldean, euskalkiz euskalki Biblia-zatiak itzultzen. Lankide aipagarrienak: Jean Duvoisin lapurtarra (1810-1881), Intxauspe zuberotarra (1816-1902), Jose Antonio Uriarte bizkaitarra (1812-1869) eta Claudio Otaegi gipuzkoarra (1863-1890).

Lana eragin eta lanak publikatu egin zituen Bonapartek. 1856tik 1875era, 20 urtetan, 25 bat liburu eta liburuxka argitara eman zituen Londresen. Parentesi artean kontsideratu beharko lirateke argitalpen hauek. Zientzi lanaren kontsiderazioa dute eragilearentzat eta horregatik berauen tiradak txikiak dira, oso txikiak. Bi ziento eta erdiko botaldikoak dira erdiak edo horrela, eta gainerakoak are txikiagoak, dozenatik beherakoak ere bai.

Liburugintzaren kokagune-aldaketa

Gure gaiari zuzenki dagokion alorrean nobedade seinalagarriena liburugintzaren leku-aldaketa da. Iparraldetik, Hegoaldera aldatzen dira erdigunea eta mugimendua XVIII. mendean.

Aldaketa horren arrastoa segitzeko seinale bat inprimategien kokagune geografikoa da.



Atzerritik Euskal Herrira igaro da argitaragunca.

Bidasoaren bi aldeetako inprimategiek egiten dute lan. Ia erdia publikatzen da Hegoaldean.

Hegoaldean hamar liburutik sei Gipuzkoan inprimatzen dira. Berebiziko garrantzia du Tolosak.

Atzerriko inprimategien indarra asko jaitsi da. Euskal Herria indartu da, hortaz. Bertako inprimategietan argitaratzen dira ia liburu guztiak.

Hegoaldean eta Iparraldean, bietan, argitaratzen da lehen baino askoz ere gehiago. Eta, gainera, lehenak aurrea hartu dio bigarrenari, Hegoaldean inprimatzen baita ekoizpenaren erdia, justu erdia. Eta Gipuzkoan Hegoaldeko gehien-gehienak (% 60,6).

Inprimategien lehentasun-zerrendan, lehen postuetan, Iparraldekoak eta Hegoaldekoak nahasian datoz. Iparraldean inprimategien azpiegitura Hegoaldean baino urriagoa da, oro har. Iparraldean lehen lauen artean bertako ekoizpen osoaren % 82 inprimatzen dute. Hegoaldean, aldiz, lehen seiek erdia pasatxo bakarrik osatzen dute (% 55).

Hona lehen hamarren lana:

• Cluzeau (Baiona)	79	argitaraldi
• La Lama (Tolosa)	61	"
• Mendizabal (Tolosa)	60	"

• Fauvetarrak (Baiona)	58	"
• Lasserretarrak (Baiona)	44	"
• Lamaignère (Baiona)	31	"
• Gurrutxaga (Tolosa)	23	"
• Delmas (Bilbo)	17	"
• Castilla (Iruñea)	15	"
• Barojatarrak (Donostia)	13	"

Iparraldean Baionan kokatzen da azpiegitura. Sakabanatuago daude inprimategiak Hegoaldean, baina kontzentrazio handia ikusten dugu Tolosan, eta gero Bilbon, Iruñean eta Donostian.

Javier María Munibe e Idiaquez, Peñafloridako Kontea, Antonio Valverde "Ayalde" pintorearen ikuspegiz



Leku-aldaketaren arrazoiak

Lapurdik bereziki behera egiten du. Zergatik kultur beheraldi hori?

Lafittek Lapurdiren atzerapen ekonomikoa iradokitzen du arrazoi gisa, Utrech-eko (1713) Itunaren ondorioz Donibane-Lohitzuneko marinelak Ternua utzi beharrean aurkitu direla alegia.

Aipa daiteke, baita ere, 1789ko Frantziako Iraultza: Iparraldeak foruak galtzen ditu eta Behe Piriniotako parte bihurtzen da. Ez ahaztu, orobat, Iraultzak euskarari eta euskararen munduari egindako erasoa, "patois" deklaratuz. 1794ko Espainiaren eta Frantziaren arteko Konbentzio Gerrak ere ez zuen giroa hobetuko.

Hegoaldean, bereziki Gipuzkoan, kokatzeko eman diren arrazoien artean eite ekonomikokoak aipatzen dira sarritan. Hau da, euskararen aldeko mugimendu hau eta "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" (1728) eta "Sociedad Económica de Amigos del País" (1763) elkarri lotuz jartzen dira. Ez da erraz ikusten testuinguru ekonomiko eta soziokultural honen eta literatur susperraldiaren lotura, hala ere.

Hain zuzen atentzioa ematen duena bi mugimenduen arteko loturarik eza dela esango genuke. "Azkoitiko Zalduntxoak"-eta Ilustrazioaren zabaltzaileak dira, eta ez dute haintzat hartzen euskara. Peñafloridako Konteak euskaraz idatzi izanak deus gutxi adierazten du, zer idatzi zuen kontuan izanda, hots, opera komikoa bi hizkuntzatan. Hau idazten duenean ez da Argien ordezkaria, Azkoitiko semea baizik.

Kokagune-aldaketaz gain


Aldaketa geografikoa baino gehiago ere bada lehendik hona.

Euskarak ez du mantentzen Axular-ek jada emana zion maila. Larramendi bera Unibertsitateko irakaslea zen eta bere jarraitzaileen artean jende ikasia zegoen, baina euskaraz ez dute burgesiarentzat edo gidarientzat idazten, formazio gabeko herritarrentzat baizik.


Leku-aldaketa bai baina ez gutxiago irakurlego-aldaketa hau, horra Iparraldetik Hegoaldera dauden aldeak. Eta ez dira bakarrak. Baina honetan piska bat sakontzea komeni da. Ez da harritzekoa, egia esan, Etxepare, Leizarraga edo Axular Nafarroako Gortearen inguruan edo Lapurdiko hiri-burgesiaren inguruan mugitu dira, eta Larramendi eta larramenditarrak Hegoaldeko nekazari-gizartean kokatzen dira.

Eta nekazari-gizarte hauxe idealizatzen dute. Mugimendu honek ez du lotzen euskararen etorkizuna Bergarako Unibertsitatearekin, merkatari-klasearekin, hiriarekin, baizik eta nekazaritzaren ingurunearekin: "gure baserrietan gende prestuac dirauten artean Euscarac vicia izango du" (Kardaberaz). Gogoratu Mogel, zeinentzat euskara kontutan baserritarrak baitira maisu eta doktore. Hegoaldeko burgesiak, lehen bezala orain, kultur hizkuntza gisa gaztelania hobetsiko du.

Euskarari gagozkiolarik, Ibar-ek (*Genio y Lengua*, 1936) Bidasoaren bi aldeetako joera desberdinen oposaketa azpimarratzen du. Axular-en *Gero*-k ordezkatzen du lehena eta ehun urte geroago kaleraturiko Larramendiren *Diccionario trilingüe*-k bigarrena. Batean eta bestean, fruitua hazian bezala, daude bi aldeetako bertute eta akatsak. Larramendirengan jartzen du berak Hegoaldeko bi hoben nagusitxoenetakoen sorrera: erdaraz euskarari buruz idaztea eta garbizalekeria: "nuestra inquietud euskerista no se tradujo tanto en actividad creadora como en reacción sentimental del amor propio lastimado (...) A diferencia del 'Guero', que enseñó de un modo práctico a concebir y elaborar cualesquiera ideas con mentalidad euskaldun, el 'Diccionario trilingüe' indujo, paradógicamente, a traducir con vocablos impolutos de exotismo ideas previamente concebidas y elaboradas en español. Mientras Axular con su libro dulce y útil ensanchó los horizontes al genio vasco, y valoró a los ojos del euskaldun el euskera ayudándole a servirse de él para los altos fines de la vida; el Padre Larramendi con su laboriosa argumentación dialéctica detuvo nuestra atención e interés en el euskera mismo -y aún en su aspecto más accidental-, y contribuyó a despertar en nuestros espíritus cultivados el vanidoso prurito de la diferenciación a todo trance".



Juan Antonio Mogel-en "Peru Abarka" liburuaren azala



Aita Manuel Larramendi eta "Diccionario Trilingüe" liburuaren azala

Etenak katean

Sekulako garrantzia du Larramendik XVIII. mendeko euskal kulturaren historian. Lider bat izan da, hizkuntzaren defendatzaile sutsua eta eztabaidatzaile kupidagabea. Erdaraz idatzi zuen berak ia dena, baina euskarari prestutasun intelektuala eman zion, kontzientzia piztu zuen, lozorrotik atera zuen euskaltzalea, kultur astindua eman zion inguruneari.

Aldi berri bat hasten omen da Larramendirekin. Luis Villasante (*Historia de la Literatura Vasca*, 1961) hor dabil "renacimiento" edo "naci miento" deitu ez dakiela. Edozein modutan ere, bistan da garai berri bati ematen diola hasiera Larramendik. Eta, tamalez, Iparraldekoarekin uztartu gabe. Larramendik apenas hartzen duen kontuan Iparraldekoen lana. Zera idazten du berak (*Diccionario*, 1745): "Dentro ni fuera no ha avido quien aya impresso algo en Bascuence para utilidad destos Países, exceptuando los pocos Libros de Labort, que aun apenas se encuentran". Zerotik hasten denaren segurtasuna du.

Ordurarte oso gutxi egina zenaren komentzimendua dute garai hartako euskal idazle gehiagok ere. Hegoaldeari buruz Juan Antonio Mogelek dioena lekuko: "Pero es preciso confesarlo con vergüenza. No se ha cultivado hasta ahora en esta parte el idioma bascongado. Lo que es más increíble, no hay una docena de paisanos que sepan leer con sentido y expedición su idioma nativo". (*Versiones Bascongadas de varias arengas...*,1802).

Badirudi etena, haustura, dela euskal kulturgintzaren ezaugarrietako bat. Nekez adieraz genezake, grafiko baten bidez egin nahi izanez gero, euskal kultura etengabeko lerro zuzen baten modura. Zuzena barik hautsia, etena, ebakia, gorabehera handikoa aterako litzaiguke grafikoan lerro hori.

Jarraikitasunik ez dago Leizarragarengandik Sarako eskolara, eta hemendik Larramendirengana. XIX. mendearen erdialdera Bonapartek dakarren joerak ere ez du zerikusirik aurrekoarekin.

Arana Goiriren hizkuntz ideiek ere herri-hizkeraren eta euskara klasikoaren tradizioa errotik ukatzen dute. 1936ko gerrak ez dakit etena edo parentesia dakarren. Gerraosteko belaunaldiak, honek bai, aranismoarekin hautsiz egiten ditu planteamenduak eta, lehen aldiz, tradizio zaharragoarekin lotuz; ez hala ere hurbilxeago zuen "gipuzkera osotuaren" tradizioarekin.

Haustura hauek direla medio, euskal kulturgintzak ez du hazkunde homogeneo, harmoniko eta iraunkorrik izan askotan. Korronte eta joera ezberdinak ez dute dialektikoki elkar osatu, elkar aberastu. Batak bestea

ezagutu gabe batzuetan, elkar ukatuz bestetan, sortu eta hazi dira. Zerotik hasiko bailiran.

Eskola eta talde iraunkortasunik eza dakar honek berarekin. Alegia, autore jenial batek epigonoak baditu, eskola egiten du. Baina autorea bera ez da aurreko euskal autore baten jarraitzaile edo epigono. Tradizio handirik ez da horrela gotortzen, tradiziotxoak, eskolatxoak sortu eta hil egiten dira, luzaroan jarraikitasunik gabe. Joxe Azurmendiren hitzetan "Ikusi besterik ez dago, nola sortu diren korronte literari modernoak, eskolak nola desarroilatzen diren elkarrekin lehian eta nola, kultur mundu guzitan, kreazioa, neurri haundi batetan, komunikazioa eta transformazioa besterik ez den. Euskaraz, ordea, Lizardik edo Arestik zeinen eragintzak izan dituzten, hasten garenean, laster aurkitzen gara erdarazko eragileren batzuekin eta normala da. Hemen, politika eta besteak utzita ere, kultur munduak berak ez du aski koherentziarik eta bizitasunik, elkar eragintzazko dinamika bat sortzeko sektore diferenteen artean. Horixe da, hain zuzen, lehenengo lortu behar duguna: literaturgintzak, gutxienez, koherentzia bat izan dezala bere baitan; gero, kulturgintza guztiak; azkenik, gizarte bizitza osoa organiza dadila, hots, bilaka dadila organismo bat (niregatik, nahi bezain anarkikoa), gorputz bat. Bestela, gertatzen zaigu, industrialpenaren konsekuentziak esate baterako, geure industrialpenak gure literaturan ondorioak berak izan ordez, Paristik bueltan iristen zaizkigula; industrialpenak Parisen edo sortu zituen konsekuentzia literarien bitartez, heltzen direla gure literaturara... Gure «kreazioa» kanpoan dabilenaren itzulpen/imitazio/kopia bilakatzen da".

Luis XVI. Frantziako erregearen heriotza gillotinan, Iraultza frantsesaren garaian



Integrazio-prozesua indarrean

Iparraldea Frantzian eta Hegoaldea Espainian integratzeko saioak areagotu egiten dira urtealdi honetan. Hizkuntzaren statusari eta kulturaren zereginari dagozkion adibide batzuk ekarriko ditugu hona.

XVIII. mendearen bukaera aldera gogor jotzen duen liberalismoaren mendebalak ez dio mesede handirik ekarri gure hizkuntzari. Frantziako Iraultzak, "patois" deklaratu zuen euskara 1790ean, eta euskara fanatismoaren mintzaira zela erabaki zuen Konbentzioan Barère jaunak eta euskara Argien zabalkunderako traba zela. Grégoire-k ere berdin pentsatzen du.

Euskal liburuarentzat ez zen giro.

Jakingarria da Frantziako Iraultza inguruan gertatu zena. 1789ko Iraultzaren lehen unean, testu legalak Frantziako hizkuntza guztietara itzultzea erabakitzen dute, "patois" horietara noski. Eta bai egin ere, ge-

roago ikusiko dugunez. Dugas enkargatu zen horretaz. Parisen bulego bat muntatu zuen, itzulpenak egiteko. 1791 eta 1792 urteak izan zituen emankorrenak.

Ez zen egiteko samurra, hizkuntza horien garapen eskasa kontuan edukita. Baina saioak porrot egin bazuen ez zen horregatik izan.

Barère eta Grégoire-n ideiek nagusitu ziren. Iraultzak hizkuntza frantsesaren bidez bakarrik zabaldu behar zituen bere ideiak. Beste hizkuntzak (barka, "patois" direlakoak) traba besterik ez dira. Premiazkoa du Frantziak hizkuntz batasuna, zeren eta, Grégoire abadearen esanetan, askatasun-kontuan nazioen abangoardia den Frantzia bera hizkuntza-kontuan Babeleko dorre-garaian dago.

Gainera: Barèrentzat "le fanatisme parle le basque" eta Grégoire abadearentzat euskara "est un obstacle à la propagation des lumières".

Hegoaldean hizkuntz asimilazioa adierazbidetzeko aginte politiko desberdinek, urteak etorri urteak joan, hartu izan dituzten neurriak gogoratu beharko genituzke. Hona batzuk:

- 1772an Carlos III.aren Erret Zedulak agintzen du: "que todos los Mercaderes y Comerciantes de por mayor y menor, Naturales y estrangeros, observen la Ley del Reino que se inserta, y previene lleven sus Libros en Idioma Castellano".
- 1801ean Manuel Godoy lehen ministroak Gortetik kanpo zebiltzan antzerki-taldeentzat legea ezartzen du. Arauen barruan zera agertzen da: 'En ningún teatro de España se podrán representar, cantar , ni baylar piezas que no sean en idioma castellano".
- 1862an Notarioen Legearen 25. artikuluak eskritura publikoetan debekatu egiten du euskara: "Los instrumentos se redactarán en lengua castellana y se escribirán en letra clara, sin abreviaturas y sin blancos".

Bistan da: Francok kopiatu egin zuen, asmatu batere ez.


REAL CEDULA
DE SU MAGESTAD
DE 24. DE DICIEMBRE DE 1772.
MANDANDO QUE TODOS LOS
Mercaderes, y Comerciantes de por
mayor y menor, Naturales, y Extran-
geros, observen la Ley del Reyno que
se inserta, y previene lleven sus Li-
bros en Idioma Castellano.

1772. urteko Abenduaren 24an indarrean jarritako Erret Zedula

Eskolan erdara eta eraztuna

Garai honetan Euskal Herria biziki aldatzen da. Mugimendu demografikoa, hirigintza, ekonomia, nekazari-munduaren ondoan sektore merkatari-industriala ari da indartzen, Ilustrazioaren ideien zabalkundea, horra zenbait datu.

Eta mundu berri horri begira eta emigranteak prestatzeko, eskola. Lurralde historikoetako Batzar Nagusiek eta agintariek neurri ugari hartzen dute eskolak ezartzearen aldera.

XVIII. mendean irakaskuntzaren sistema zabaldu eta finkatu egiten da. Erdaraz. Mende honen bukaerarako garbi dago joku-arau diglosikoa: kultura gaztelaniaz eta dotrina euskaraz. Anekdota bat: Antonio Jorge, Granadako Artzapezpikuak, beronen aita Ustarrozen jaio zela eta, 1.000 pesotako fundazio bat egin zuen. Diru horren administraziorako ematen dituen kontseiluen artean hau aurkitzen dugu: "Que la maestra jamás hable en la escuela en idioma bascuence, que es el nativo, para que los niños adquieran más facilidades en leer y entender lo que dicen algunos libros en que dieren sus lecciones. Y sólo la doctrina y oraciones se enseñarán en vascuence porque en este idioma se confiesa toda gente mugeril".


REAL CEDULA
DE SU MAGESTAD,
A CONSULTA
DE LOS SEÑORES DEL CONSEJO,
REDUCIENDO EL ARANCEL
de los derechos procesales á reales de vellon en toda la Corona de Aragon, y para que en todo el Reyno se actue y enseñe en lengua Castellana, con otras cosas que expresa.
Año 1768.
EN MADRID.

1768ko Erret Zedula

Euskarari hezkuntza-sisteman sartzea debekatzeko edo handik ateratzeko eginahalak asmatu dira.


- 1768an Aranjuezeko Erret Zedulak zera agintzen du: "Finalmente mando, que la enseñanza de primeras Letras, Latinidad, y Retórica se haga en lengua Castellana generalmente, donde quiera que no se practique, cuidando de su cumplimiento las Audiencias y Justicias respectivas, recomendándose también por el mi Consejo a los Diocesanos, Universidades, y Superiores Regulares para su exacta observancia, y dilijencia en extender el idioma general de la Nación para su mayor armonía y enlace recíproco".
- 1780an Akademiaren Gramatika irakasteko obligazioa.
- 1857an Moyano Legea deitzen denaren 88. artikuluak dio: "La Gramática y Ortografía de la Academia Española serán texto obligatorio y único para estas materias en la enseñanza pública".

Aginte politiko-administratiboaren erabaki hauek nola hezurmamitu ziren gure eskoletan, hori da bestea. Eraztunak atzo gaberarte iraun du, jakina denez.

Juan Antonio Mogelek 1803an idatzi zuen testigutza luzea bezain interesantea da (*Apología de la lengua bascuence*, 1891): "Llega a tanto la violencia, por no decir la inhumanidad y tiranía, que se presentan los maestros con semblantes fieros, con el azote en la mano, clamando con amenazas, 'cuenta que nadie me hable en bascuence sino en castellano'.

Se ponen fiscales. Se admiten acusaciones, y para prueba del delito, corre un anillo de mano en mano entre los que han tenido la fragilidad de haber hablado un solo vocablo bascongado. Llega el sábado, día cruel de residencia. Toma asiento judicial el maestro, con la palma a un lado, y en el otro, el instrumento de sangre; pregunta, con semblante terrible, '¿quién tiene la sortija o anillo?'. Todos acusan al reo; éste no puede negar el crimen, saca su funesta insignia temblándole las rodillas, y después de una severa reprensión por haber hablado en su idioma patrio, y

no en el extraño, si quiere usar el Maestro de alguna misericordia, tómale las manos, y golpea sus palmas, y se retira el infeliz chiquillo sin atreverse a derramar una sola lágrima para que no le doblen la pena. Pero si quiere seguir el Maestro el rigor judicial, le azota como a un esclavo, imaginando que la castellana letra 'con la sangre entra'. Todos los jóvenes escolares asisten a este sanguinario espectáculo, ven con espanto aquel castigo, y para que la ira del Maestro no recaiga sobre ellos el próximo día del juicio escolar, se cautelan de hablar en vascuence. El que quedó con el anillo, anda de corrillo en corrillo entre los entretenimientos pueriles, observando si alguno se descuida en proferir alguna expresión bascongada. Allí es el conflicto; no saben muchas veces cómo explicarse en castellano; no abren los labios, quieren explicarse con señas, y cuando urge la necesidad de hablar se arriman a una pared; dicen contra ella en bascuence lo que no pueden comunicar al socio en castellano. Sale el fiscal; clama, 'hablado, toma el anillo'. Repone el acusado: 'Yo no ha hablado sino con la *orma*'. Vocea de nuevo el del anillo; 'hablado otra vez, *orma* has dicho por pared'. Entra la lucha; se citan socios para que corten la gran dificultad; se arman pendencias indefinibles, y a veces termina la fiesta con morradas y sangre de narices. El herido forma acusación, ante el Maestro; se abre nuevo juicio; varían los testigos. Tales son los arreglamentos para que aprenda el idioma castellano. Todas las leyes que hasta ahora han discurrido los políticos para introducir idiomas no llegan a ser tan severas. Con todo se conserva el bascuence puro, sin que toda la furiosa tempestad de sangre contra las víctimas inocentes, toda la multitud de libros castellanos y todas las maquinaciones armadas contra este idioma, hayan sido bastantes para que alteren en un solo punto la conjugación, la declinación, colocación, el artículo original, la Gramática bascongada".




Eraztunaren zigorra

Maisuen kontratuetan ere agertzen da jokamolde hau. Herrietako agintariek agindu egiten diete irakasleei, euskara debekatzearekin batera, eraztuna erabiltzea.

Beasaingo herriak maisuari jarritako aginduetan, 1730ean, esaten da "que no se les permita hablar en vascuence sino en castellano, poniendo anillo y castigándoles como merecen".

Aiako eskrituran, 1784an: "Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí vascuence, sino castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá del medio común o sortija, tomando cada sábado razón de su paradero y reprendiendo, apercibiendo y castigando directamente al que se hallare con él".

Elgoibarko kontratuan, 1787an: "Que no se permita a los niños hablen dentro ni fuera de la escuela otro idioma que el castellano y entreguen el anillo para que vaya circulando entre ellos en las faltas en que



Bergarako Erret Mintegia

incurrieren; y al último que llevare el tal anillo a la escuela le aplique la pena de azotes o palmada con suavidad".

Garaiko herri-agintariek, intelektualek eta pedagogoek ez dute erdararen irakaskuntza auzitan jartzen. Arazoa dator metodoetan, gaztelaniaren bidez egin irakaskuntza ala euskararen laguntzarekin. Helburuetan bat etorrita ere metodo pedagogikoetan dator eztabaida.

Elebitasunaren proposamena, hau da, erdarazko alfabetakuntza euskararen bidez egitea, planteatzen dute, adibidez, Iparraldean J.B. Artxu eskola-ikuskatzaileak (*Uscara eta Franzes Gramatika, Uskalherrietaco haurrentzat eguina*, 1852), eta Hegoaldean Luis Astigarraga irakasleak (*Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas,* 1827), Agustin Pascual Iturriaga pedagogoak (*Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, 1842), Juan María Eguren ikuskatzaileak (*Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*, 1867).

Astigarragarena, Iturriagarena, Lardizabalen gramatikarekin batera, Gipuzkoako herri-agintariek eskola guztietan zabaltzeko erabakia hartu dute. Guztietan arrakastarik handiena Astigarragaren liburuak izan du, 1936 bitartean 40 argitaraldi izan baititu, horietatik hamabost ikertzen ari garen urtealdi honetan, eta hogeitabost hurrengoan.

Produkzio intelektuala, erdaraz


Mende hauetan finkatzen da diglosia: kultura erdaraz eta herritarrentzako erlijioa euskaraz.

Euskal Herriko intelligentsia erdaraz hezi da, eta kanpoan. Euskal Herriak ez du Unibertsitate propio iraunkor eta arrakastatsurik izan sekula, Oñatin, Orthezen, Iratxen, Iruñean eta Bergaran saioak egin badira ere.

Unibertsitate arrotzetan ikasitako Euskal Herriko santu, gotzain, teologo, irakasle, historiagile eta apologistek erdaraz idatzi dute, latinez, frantsesez edo gaztelaniaz.

Eta bada makina bat holako: Garibai, Henao, Larramendi, Pablo Pedro Astarloa, Lizarrako Fr. Diego, Antso eta Bartolome Karrantzatarrak, Martin Azpilikueta, etab.

Iparraldeko euskal idazleek urraturiko bideak ez du segidarik, ez han eta gutxiago Hegoaldean. Klaberiak, 1636an, bere garaiko erdal idazleei Teologian doktore zen Ziburuko Etxeberri kontrajarri zien. Berdin balio dute haren bertsoek hurrengoentzat ere:



HAKC BERAC HA
beraribere elandorioz co
coplac.

BVurlatcen naiz Garibai
Bai ha aber Etchabez,
Cenac mintçatu baitire
Erdaraz Eſcaldunez.
Ecen cirenaz gueroſtic,
Eſcaldunac hec biac,
Eſcaraz behar cituzten
Eguin bere hiſtoriac.
Eſcaraz eguin ditutçu
Etcheberri ceure obrac,
Ohoratu nahiz ceure
Ahalaz herritarrac.
Cer errefau eder baita
Hitzcuntça arrotcetan,
Hura aditcera ematen
Daroeçu beretan.
Eſquer bada eta aith
Duçula berecia
Ceren ohoratu duçun
Herritaren mihia.

I. ET

Burlatzen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etxabez,
Zenak mintzatu baitire
Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik,
Eskaldunak hek biak,
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiak.

Eskaraz egin dituzu,
Etxeberri, zeure obrak,
Ohoretu nahiz zeure
Ahalaz herritarrak.

Zer errefrau eder baita
Hizkuntza arrotzetan,
Hura aditzera ematen
Daroezu beretan.

Esker bada eta aithor
Duzula berezia
Zeren ohoratu duzun
Herritarren mihia.


Argitalpenaren penak eta nekeak

Ez da nonbait erraza, ezta batere, euskaraz argitaratzea. Arrazoi ekonomikoak, irakurlegoarenak, merkatuarenak eta hizkuntzarenak aipatzen ditu Aita Prai Bartolomek : "Eurak -ikasikizunak- zerbait alkarri eratsi arren, argitara ateratiak, zer-egina dauka. Asko kastau biar da. Ta menturaz gitxi edo bat bere ez saldu. Ikasikizunak eurak alan-alanguak; ez, urrineti bere, biar leukenak. Euskaran liburu egitia, marketia edo ondo letratutia, asko kostata bere, sarri uts egin. Salduteko merkatari gutxi; Euskal Erritik kanpo laburrak. Euskeria ez dakit zelakua. Ta liburu bakotxa popuertza goria. Aldats oneek guztiok era batera datoz neure burua, neure asmuaren sailari jarraituteko" (*Ikasikizunak*, 1816).

Francisque Michel-ek, Iparraldeaz ari dela, demografia alfabetatu urriaren arrazoiak aipatzen ditu 1857an: "La penuria de obras escritas en su lengua proviene de que los que la hablan son apenas 100.000 habitantes, divididos casi en partes iguales en tres dialectos. Un libro compuesto en uno de estos dialectos no se dirigiría, pues, más que a una población agrícola de unas 30.000 almas, entre las cuales apenas se hallarán cien aficionados a la lectura; y así el escritor perdería su tiempo, su trabajo y los gastos de impresión. Sólo los pequeños libros de devoción pueden cubrir sus gastos, sin aspirar a más" (Luis Villasantek aipatua bere *Historia de la Literatura Vasca*-n, 1961).

Hauek gutxi bailiran, arazo politikoak izan ditu euskarazko liburuak XVIII. mendean zehar. Liburua euskaraz dagoelako debekatzen da, ez erabiltzen duen gaiarengatik.

Kardaberazen "Azpeitiko erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Aita San Ignacioren bicitza laburra" 1901ean publikatzen da. Nafarroako Kontseiluak ukatu egin zion argitara-baimena bere garaian, ez dakit zein urtetan. Eta Conde de Aranda-k, Carlos III.aren lehen ministroak, ontzat eman zituen Iruñeko Tribunalaren erreparoak. Arazoa ez zegoen gaian, ez kasu honetan eta ez bestetan.



1°. Noviembre 1766. Tit.° 24 fuxo V.° 12.
Orden del S.r Conde de Aranda Presidente de Castilla, para que sin especial noticia suya, no se den licencia por este Consejo para imprimir libros en otra lengua que la Castellana; archivandose la obra original de la Vida de S.n Ignacio escrita en Bascuence; y q.e se haga saber esta Probidencia á los Impresores.
Auto acordado del Consejo para su cumplimiento y notificacion á los Impresores.
Está la obra intimada: Censura que se ha sobre ella, y peticion para su impresion dada por su Autor el P. Agustin Cardaberaz de la Compañia de Jesus.

Aranda ministroaren debeku politikoa

Nafarroako Kontseilua orpoz orpo jarraiki zitzaion emandako aginduari. Hona agindua: "En Pamplona, en Consejo, lunes a diez de noviembre de mil setecientos sesenta y seis (1766), los muy ilustres señores (...) y que en este estado se halla el consejo prevenido por carta de primero de este mes del Excmo. Sr. Conde de Aranda, presidente de Castilla, para que no se permitan impresiones en otra lengua que en la castellana, inteligible a toda la nación y que por punto general se nieguen semejantes licencias a este Consejo sin especial noticia suya".

Juan Antonio Mogel-ek ere gorabeherak izan zituen "Confesio eta Comunioco sacramentuen gañean Eracasteac" (1800) liburuaren inpri-

maketarekin. Iruñeko Tribunalak ukatu egin zion baimena honi ere. Baina Mogelek Madrilera jo zuen, Gobernura, bilbotar batengana. Luis de Urquijo Carlos IV.aren ministroa zen, eta honek baimena lortu egin zion. Eta ez hori bakarrik, Mogelek berak dioenez. Nafarroako Erret Kontseiluari harrezkero euskaraz izateagatik obrarik ez debekatzeko agindu omen zion: "Su Majestad ha dirigido una Orden al Consejo Real de Navarra para que no se oponga a la impresión de esta obra ni de otra ninguna por ser bascongada, siempre que no se contenga alguna doctrina opuesta a nuestra santa religión. ¡Qué triunfo para nuestro perseguido idioma!".


CRISTAU DOCTRIÑA GUZTIAREN
ESPLICACIOAREN SAYAQUERA,
Don José Ignacio de Guerrico,
MUTILOACO BESTEAC ERAIDUAC EGUIÑA.
Jose Ignacio Gerriko-ren "Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera"

Jakitekoa litzateke 30 urte horietan zenbat obra galdu den debekuen erruz. "Peru Abarca" bera ere 80 urteko atzerapenaz kaleratu zen, dirudienez, zentsuragatik.

Zentsura ez da atzerapenen kausa bakarra, noski. Hor daude gerrak, diru-eskasia, erlijiosoen egozpenak, esklaustrazioak, etab. baina zentsurak munta handia du, seguru, liburua sortzetik publikatzera igarotzen diren urte luze horietan.

Jose Ignacio Gerrikoren "Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera" liburuaren gorabeherak zehatz-mehatz ezagutzen ditugu. Liburua idatzi eta handik 58 urtera ikusi zuen argia, egilea bera hil eta 34 urte beranduago. Diru-falta, gerra eta, batez ere, zentsura izan dira atzerapenaren zioak. Jarrai dezagun historia pausoz pauso:

1805ean Gipuzkoako Kleroari aurkezten dio lana, honek azter dezan. Batzordeak baietza eman zion eta Kleroak liburuaren argitalpenean interes handia jarri zuen. Baina dirurik ez eta Donostia eta Tolosako inprimatzaileei egin zien eskaintza, nork bere kontura argitara zezan. Ez zuen inork hartu gonbitea. Gerrikoren eskuetara itzuli zen eskuizkribua eta Independentzia gerra etorri zenez beste gestiorik ez zuen egin.

Bakea sinatu eta hiru urtera, 1817an, atzera hasi zen gestiotan. Gipuzkoako Korregidoreari eskatu zion baimena. Honek Erret Kontseilura bidali zuen. Eliz baimenak-eta bazituen ordurako. Sei hilabete beluago eskuizkribua eskatu zion Erret Kontseiluak, berraztertzeko.

Gerriko haserretu, eta Erregeari idatzi zion, Kontseiluak trabak jartzen zizkiola lanari eta zuzenean berari baimena eskatuz. Erregeak Kontseilura pasa zuen arazoa. Eta honek non agintzen dion aztertu ahal izateko gaztelaniara itzultzea. Kleroak ere, bizi-bizi, Erregearengana jotzen du Gerrikoren lanaren alde. Badirudi errekurtso honek ez zuela erantzunik izan.

Autorea hilda gero ere Gipuzkoako Kleroak hiru aldiz, 1847, 1848, 1849 urteetan deliberatu zuen argitara ematea. Baina dirurik ez. Eta, azkenik, andre batek jarritako diruari esker atera zen, esan bezala, 58 urte beranduago.

Kasu bitxiak

Bada garaiari aurrea hartu zion liburu bat. Modernoa da hainbat arlotan, liburuari egiten dion publizitatean eta promozioan bereziki.

Daskonaguerreren "Atheka gaitzeko oihartzunak" (1870) liburuaz ari gara. Frantsesez idatzi zuen autoreak, euskaratik itzulia zela bertan jarririk. Arrakasta izan zuen liburuak. Egunkarietan eta pertsonalki jaso zituen iritziak, denak bildu eta hurrengo edizioetan liburuarekin batera argitaratu zituen. Eta ez hori bakarrik. Bidai gidatxo batzuk ere atera omen zituen eta kostaldeko zenbait herritan liburuaren propaganda eginez zabaldu, argazki eta guzti.


Gaztelaniara ere itzuli nahi zuen. Bermingham bere adiskide donostiarrari agindu zion lana. Honen itzulpena gustatu ez eta bigarren batengana jo zuen, eta hirugarrenerakin gelditu, azkenik. Vicente Manterolaren itzulpenaz atera zen gaztelaniaz, Madrilen, 1872an. Ingelesera eta alemanera ere itzulita omen dago, baina argitaratu gabe.

Euskaratik itzulia dela aitortzen duenez, jatorrizkoaren eske zeukan jendea. Egin egin behar. Larreguy apaizari agindu zion. Honek itzuli ahala inprimatzen zuen Daskonaguerrek. Itzultzailea nekatu eta bertan behera utzi zuen lana. Larresoroko Edmond Guiberti eman zion orduan, hasieratik berriz egiteko, aurrekoa aintzat hartu gabe. Bigarren itzulpen hau ere ez izan kategoria handikoa nonbait eta egilearen konfiantzako lagun batzuen artean zuzendu eta aldatu behar izan zuten lan osoa.

Azkenik, 1870eko ekainean inprimaketa amaitu zen, ondo kostata. 2.100 aleko botaldia egin zuen. Urtebete lehenago promozionatua zuen euskarazkoaren agerpen hau ere Baionako bi komunikabidetan bi artikulu luzeren bidez, eta zenbait pasarte, ondoan, hiru hizkuntzatan (euskara, frantsesa eta gaztelania) erantsiz.

Bigarren liburu aipagarria. Katixima baten kasua ere ezin, bada, aipatu gabe utzi. Zazpi urtez irakatsi zen Jainkoaren legea dotrina horren bidez, 1807tik 1814ra hain zuzen. Honela du titulua: "Francesen Imperadorearen eremuetaco eliça gucietacotz eguina-den catichima". Bi edizio izan zituen lapurteraz eta hirugarren bat zubereraz (1.500 ale).

Zazpigarren ikasgaian zer ez dio eskaintzen kristauak Napoleoni! Eta ez bakarrik Napoleoni: bere familiari ere berdin. Eta ez da horretan agortzen maitasuna, obedientzia eta leialtasuna: kargudun guztiei ere jarrera bera zor die kristauak. Ez luzatzearren lehen galde-erantzunak bakarrik ekarriko ditugu hona: "Cein dire guiristinoen eguinbideaz gobernatcen dituen princen alderat, eta bereciqui gureac Napoleon lehenbicico, gure Imperadorearen alderat? / Çor dute, eta guc bereciqui çor diogu Napole-


ATHEKA-GAITZEKO

OIHARTZUNAK

J.-B. DASCONAGUERRE

Conseillu Yeneraleko membro batez

Bihotz handico gurgonez eztufa bertze eguinbideric beharsen socorritzea baiçic.
AXULAR.

BAYONAN

LAMAIGNÈRE ALHARGUNAREN IMPRIMERIAN


Chegarayco carrican, 39 numeruan

1870

Daskonaguerre-ren "Atheka gaitzeko oihartzunak" (1870) liburua

on lehenbicico, gure Imperadoreari, amudioa, errespetua, obediencia, leyaltasuna, harmetaco cerbitçua, erremuaren, eta tronuaren mantenitceco geldetcen tuen cergac: obligatuac gare oraino kharsuqui othoiz eguiterat haren salbamenduaren, eta estatuaren dohaxutassun ispiritual, eta temporalarençat".

Inperioa erortzearekin batera bukatu zen katixima honen inperioa ere. Loison gotzainak honen aurreko dotrinak berrinprimarazi zituen berriz. Napoleonen katixima onartzera behartua ikusi omen zuen bere burua, aitortu zuen gero. Berandutxo.


IMPERIO FRANCESA

EMPERADORIAREN PROCLAMACIONIA

FRANCESAK,

NAPOLEON.

1870ean, hots, Napoleon III.a agintean zegoen garaian plazaratutako iragarpen elebiduna

Liburugintzaren gorabeherak


Mende eta hiru laurden honetan 671 edizio izan ditu euskal liburuak. Honek esan nahi du ia lau argitaraldi urteko egin dela urtealdi honetan. Baina norbait interesatua egon izan balitz ateratzen ziren liburu berriak oro (lehen edizioak alegia) jasotzeko, aski zukeen bi urtez behin hiru liburu erostea. Esaten ari gara liburuaren kontsumoa produkzioa baino azkarrago doala.

Ez da pentsatu behar urte guzti horietan zehar produkzioaren ebolu-zioa uniformea denik. Edo bai, nahi bada, salbu 1850etik aurrera. Azken 26 urte horietan, batez beste, urteko 10 liburutik gora kaleratzen da eta denak batean aurreko 150 urteko produkzio osoari hurbildu egiten zaio.

Bada 1850. urtea aldi berri baten hasiera jartzen duen aztertzailerik eta, agian, ez zaio arrazoirik falta, liburugintzari soilki so eginik behintzat.

Aldi honetan nobedadeak ez dira iristen publikatzen diren liburuen erdira. Kasu bakarra da historia osoan. Aurreraxeago aztertuko dugu bereziki hau.

Lehen argitaraldiko liburu horietan zenbat den jatorriz euskaraz sortua eta zenbat erdaratik jasoa begiratzen badugu, ikusten duguna da itzulpenetik asko dagoela: heren bat baino gehiago: % 35,2. Deboziozko eta dotrinako liburu itzuli eta birmoldatuen bolumen handiak kargatzen du itzulpena. Itzulpena, erlijio-liburuetan, % 40,7 da, izan ere. Gaspar Asteteren dotrina, kasu nabarmenena berau baita, 10 bat autore ezberdinek itzulia atera da.




Urtealdi honetan 175 urte dira, eta eboluzioa kronologikoki hobeto adieraztearren 25eko urte-multzotan banatua dago.

• Lehen grafikoan ikusten da titulu guztien eboluzioa nola gora joan den urteak pasa ahala.
Azken 25 urteetan dago jauzirik handiena: urtealdiko produkzioaren ia erdira hurbiltzen da.

• Bigarren grafikoan ageri da urtealdi honen berezitasun nabarmenena, alegia, berrargitaraldien kopurua (% 56,8) nobedadeena baino altuagoa dela. Batez ere azken 75 urteetan gertatu da hori.

• Urtealdi honetako lautik bat da itzulitako liburuaren argitalpena. Urtemultzo batzuetan gehiago da eta beste batzuetan gutxiago.



"Exercicio izpirituala", gehien berrargitaratu den euskal liburua

Kontsumoa produkzioa baino altuagoa

Urtealdi honetan bakarrik ematen da historia osoan lehen edizioa baino altuagoa dela berrargitaraldien kopurua. Liburugintza osoaren barruan % 43,2 da lehen argitaraldia eta % 56,8 liburu berrargitaratua. Erlijiozko liburuetan gertatzen denak eragiten du proportzio hau. Baina egin kontu erlijiozko liburuetan proportzioak are handiagoak direla berrargitalpenaren alde: % 62,2. Asteteren adibidearekin jarraituz, 10 itzulpen desberdin horiek ehun bat aldiz berrinprimatu izan dira. Eta beheraxeago ikusiko dugunez, titulu bat bakarrak 76 argitaraldi izan ditu.

Liburu utilitarioaren urre-garaia ematen du. Eskuko liburu erlijioso praktiko hauxe baita ez bakarrik argitaraldi gehien ducna baizik eta aletan ere oparoena. Dauzkagun datu gutxi horiek zerbait esan nahi badute behintzat, milatik gorako tiradak noiznahi egin ohi ziren liburu-mota honetan.

Iparraldean arrakastarik handiena izan duen liburua *Exercicio izpirituala* liburua izan da. Liburugintza osoaren errekorra ere berak du. Aldi honen barruan 76 aldiz inprentaratu da. Nik 98 edizio kontrolatuak ditut, eta egongo da ihes egin didanik. Julio Urkixok dio 1898 arte 80 edizio behintzat bazituela, eta 1901 eta 1907 bitartean 50.000 ale inprimatu zituela zazpi argitaralditan.

Argitaraldietan nagusitu diren lehen hamarrak geografikoki bosna berdinduak daude Iparraldean eta Hegoaldean. Liburu guztiak, hori bai, erlijio-liburuak dira. Denak dira, baita ere, garai berean sortuak, eta ez aurreko mendeetako tradiziokoak.

Iparraldean:		
Exercicio spirituala	76	argitaraldi
Cantica izpiritualac	22	"
Guiristinoen doctrina laburra	19	"
Guiristinoqui bizitceko eta hiltceko moldea	16	"
Jesu-Christoren Imitationea (Kempis/Xurio)	9	"


Hegoaldean:		
Doctrina cristiana (Astete/Irazusta)	36	argitaraldi
Escu liburua (Kardaberaz)	20	"
Christinauben doctrinia (Olaetxea)	16	"
Cristinaubaren jaquinvidia (Astete/Mogel)	13	"
Cristinaubaren doctriniaren esplicacinua (Arzadun)	11	"

Hamar liburu hauek berrargitalpenaren % 62,5 osatzen dute. Esan nahi baita ez direla berrargitaratu hainbeste titulu desberdin, baizik eta titulu batzuk oso maiz errepikatu direla.

Erlijio-liburua nagusi, noski

Kontsumoari barik produkzioari egingo diogu orain arreta, hau da, titulu berriak bakarrik aztertuko ditugu orain, gai-banaketan nola kokatzen diren tituluak ikusi-guran.

Gai-banaketa	Zenb. abs.	%
Erlijioa. Teologia	226	77,9
Giza eta gizarte-zientziak	30	10,4
Hezkuntza. Iraskaskuntza	7	2,4
Literatura	19	6,5
Gainerakoak	8	2,8



Garai honetan lautik hiru baino gehiago da erlijiozko liburua. Haueta-ko gehienak kristau dotrinak eta de-boziozkoak dira.

Giza eta gizarte-gaietako libururik ere bada, ordea: Frantziako iraultza-ren ondoren hauteskunde-kanpaina-tan, liberalismoaren alde eta kontra-ko borroketan, presente egon da euskara.

Erlijio-gaietako liburuak produkzioaren lautik hiru baino gehiago suposatzen du garai osoan. Aurreko urtealdian, liburu gutxiago ziren noski, baina erlijiozko liburuen proportzioa handiagoa askoz. Gai honen barruan moralaren eta pastoralaren dibulgaziozkoak dira asko. Eta gehiago kristau herriari dotrina irakaste-aldera eginak. Bibliaren itzulpenak ere badu bere zatia, egia esan, pittin bat puztua, Bonaparte-ren enkarguz egindako itzulpenen helburua zientziazkoa baitzen eta ale-kopuruz txikia oso.

Giza eta gizarte-zientzietako alorrean batzuk uste baino liburu gehiago dago. Erredukzionismo handiegiz euskal kultur produkzio osoa erlijiora mugatua bailegon uste duenik bada. Hogeita hamar liburutik gora dira gizarte-premia praktiko, politiko eta ideologikoen esparruan kokatzekoak. Frantziako Iraultzaren propagandarako gai izan da euskara, haustekunde-kanpainatan erabili izan da, liberalismoa hedatzen eta borrokatzen beste hainbeste, eta zertan esanik ez laborarien lagun eta kontseilari gisa almanaka eta urtekarietan. Iparraldean gizarte zibilean txertatuago ematen du euskarak. Oharteman behar da, dena den, liburumota hau orrialde-kopurutan txikitxoa dela, liburuttoa.

Irakaskuntza-liburuaren saila gramatika eta hiztegiek osatzen dute gehienbat. Nik hemen kontabilizatuak baino dezente gehiago dira izan, baina erdaraz. Harrietena, Artxurena, Kardaberazena, Jaureguyrena, Fa-

ALDIZKARIAK

IZENA	SORRERA	ITXIERA
Escualdun laborarien adiskidea eta conseilaria, presuna suerte gucientzat on dena. Egunaria edo almanaca	1848	1914
Uscal-Herrico Gaset	1848-06-30	1848-07-25
Egunari berria edo conseillu oneco almanaca	1852	
Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco	1859	1860
Euscaldun necazarien adisquidea eta guiaria persona-clase guztientzat ona dana, au da, ... garren urteraco egunaria edo pronosticoa	1865	1866

1700-1875

MAIZTASUNA	GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Urtekaria		J.B. Etcheberry Martín Landerretche; Etchepare anaiak	J.B. Etcheberry, etab.	Baiona
Astekaria	Politikoa, informatiboa	J.-A. Chaho	Joseph-Augustin Chaho	Baiona
Urtekaria		E. Vignancour		Pabe
Urtekaria		José Gorosabel		Bilbo
Urtekaria		Pedro Gurruchaga		Tolosa

brerena, adibidez, bai, hemen daude baina ez Larramendirenak, Astigarragarena (15 aldiz argitara emana), Iturriagarena, Lardizabalena, edo Juan Mateo Zabalaren aditza. Produkzio mota honetan argi eta garbi somatzen da urte haietako gizarte-premien nondik norakoa.


Literaturaren sailean aski ezagunak dira obrak eta autoreak. Esan bakarrik gailentzen den olerkiaren ondoan prosak ere baduela indarrik, eta alegien zaletasuna ere bizi-bizia dela.


Laburpen gisa

Lege Zaharraren aroko liburugintza (1545-1875)

Foruen aldiko (1545-1875) argitaraldien historia biltzen da hemen.

Konsumitzen denaren erdia baino gehiago berrargitarapena dela, hauxe da seinalagarriena.





Foruen garaiko edo Erregimen zaharreko lehen edizioetako gai nagusien laburpen honetan, garbi ikusten da erlijiozko liburuaren pisua. Giza eta gizarte-alorreko liburuek eta badute bere zatia.

Literatura dator hirugarren, eta aurrerantzean beronek hartuko du protagonismoa.


1876-1935
URTEALDIA

60 urteko aldia da oraingo hau. Beti bezala, esan beharra dago aldiak kalendarioan bai hasi eta buka egiten direla baina gizarte-fenomeno bezala apenas sekula mugatzen diren aipatu mugarrietara.

1876 aurretik zetorren, adibidez, euskal nortasuna entitate politiko-ekonomiko handiagoetan urtu nahia. Ez dira oraingoak euskal foruak ezabatzeko saioak. Frantziako Iraultzak Europara zabaldu zuen "argiak" erregimen zaharreko euskal "ilunpe" guzti horiek argitu behar zituen. Sortzen ari zen merkatu berriaren legeak ezin zituen muga eta traba guzti horiek onartu. Foruak, hortaz, arazo ekonomiko, politiko eta ideologiko ziren, hiruak. Aginte politikoak hartu zituen erabakietan hiruetatik dago, eta gerra karlistetan ere bai.

Epealdia itxi ere ez da justu urte horretan ixten, nahi bada. Hogei bat urte gehixeago aise luza daiteke, edo gehiago.

Mugarriak hor, hortxe, jartzen ditugu guk, hala ere, garai honek aski nortasun baduelako bere horretan kontsideratzeko.



Bilbo. Boluetako ola 1883an

Aldi osoa ere ez da homogeneo, gorabehera handikoa eta astindua baizik. Joku politikoa bizi-bizia da ezkerraren eta eskuinaren artean, zentralismoaren eta autonomiaren artean. Industrializazioa indarrean garatzen da, lehenengo eta batez ere Bizkaian eta gero Gipuzkoan. Mendebaleko haize bortitzak euria bezala dakar honek atzetik inmigrazio basa, kontrolgabea. Komunikabideen aroan sartzen gara, ia denak erdaraz, eta oso politizatuak. Eskolak eta Unibertsitateak mundu berri honetarako prestatu behar dute gaztea. Soldaduskara ere joan egin behar da orain, obligazioz.

Hitz batean: Euskal Herriaren eitea (juridikoa, politikoa, ekonomikoa, soziala, demografikoa, kulturala) arras ari da aldatzen.

Ondorioz, euskal nortasuna, euskal ezaugarriak definitzen eta defendatzen eskubete lan du euskaltzaleak. Krisi garaia da.

Arturo Campion



76ko belaunaldia

Uste dut Bernardo Estornes Lasari irakurri niola honela izendatzen 1876ean euskal foruak abolitzean sortu zen mugimendua.

98ko belaunaldi espainiarrari egiten dio honek erreferentzia, Unamuno, Maeztu, Ortega y Gasset, Madariaga eta konpainiaren belaunaldiari. Espainia handiaren (Inperialaren?) defentsa da hauen lana. Lehendik arriskutan ikusten zuten Estatuaren batasunari, 1898an erantsi behar zaio Espainiak Ekialdeko eta Ameriketako hainbat kolonia galtzen dituela. Sekulako zirrara sortzen du horrek.

1876an eite beretsuko krisia bizi du euskaltzaleak. Honi "betidaniko" helduleku politiko eta kulturalak huts egiten diote foruak abolitzean. Foruzaletasuna ez da hiltzen horratik. Alderantziz, joera foruzalea eta autonomizalea areagotu egiten dira, eta, bide beretik, honi euskarriak eman nahian edo, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratu behar intelektual eta politikoa sentitzen dute.

Langintza honetan nabarmentzen den intelligentsiak ezaugarri bat baino gehiago du: laikoak dira, hiri(buru)etan bizi dira, kulturaz jantziak dira, elkarteak, plataformak eta aldizkariak sortzen dituzte, eta, aspaldiko tradizioari lotuz, erdaraz gehienbat defendatzen dute Euskal Herria eta euskara.

Nafarroa da lehena. 1877an "Asociación Euskara de Pamplona" sortzen dute hiriburuan eta hurrengo urtean beren organoa, "Revista Euskara". Arturo Campion, Hermilio Oloriz, Juan Iturralde eta beste asko biltzen ditu plataforma honek. 1878. urtean, baita ere, Gasteizen sortzen dute "Revista de las Provincias Euskaras" eta hor dihardute, adibidez, J.

Apraiz, Federico Baraibar, Ricardo Becerro de Bengoa eta Fermin Herránek. Bilbon Aristides Artiñano, Juan E. Delmas, Antonio Trueba aurkitzen ditugu.

Donostia, beranduaxeago ibili bazen ere antolakizun lanetan, aurrerantzean bera gertatzen da erdigunea. Donostiak Iruñeko eredua jarraitzen du.

Kultur eragile bat nabamendu behar da Donostian: Jose Manterola (1849-1884). Folklore-bilketa ("Cancionero Vasco") amaitzean sortzen du "Euskal-Erria" (1880-1918) aldizkari elebiduna. Bi urte beranduago Lore Jokoen Batzarrea eratzen du.


Esan dugu Donostiak Iruñeko eredua bereganatu zuela. Zein da eredu hori? Lan intelektuala dago alde batetik, euskal nortasunaren ezaugarri guztiak aztertu eta ikertu egin behar dira, altxor guzti hori jaso eta berreskuratu egin behar da. Baina ez da nahikoa. Herri-mailako jarduera ere behar beharrezkoa da. Altxor hori jasotzeko modu bat gehiago da, bateko, eta besteko, kontzientzia sortzeko eta areagotzeko bide aproposa. Horretarako teknika, lehenago Iparraldean, gero Iruñean eta orain Gipuzkoan, lore-jokoak eta euskal jaiak dira.

Bi bide hauek, bata intelektualagoa eta herri-mailakoa bestea, kontzientzia foruzalearekin eta/edo abertzalearekin, luze iraungo dute.

Bilketa eta azterketa-lanetan segitu dute R.M. Azkuek, Julio Urkijok, Aita Donostiak, J. M. Barandiaranek, Manuel Lekuonak.

Herri-ekimenaren bultzadan eta euskalgintza-lanetan guztien gainetik Aitzol nabarmendu da. Donostian sorturiko euskal teatroaren mugimendua ere marko honetantxe koka daiteke.

Pizkunde garaiko antzerkigintzak kapitulu oso bat merezi du berari eskainia. Literatur produkzioa aztertzean emango dizkiogu lerro batzuk.



"Euskal-Erria", aldizkari elebiduna



Jose Ariztimuño "Aitzol"

Abertzaletasunaren gorakada

Sekulako garrantzia du Sabino Arana Goirik, politikan noski, baina kulturan ere bai. Sabino Arana Goiri (1865-1903) euskaldunberria da; eta euskaraz idatzi du, euskarari buruz eta gramatikaz, oker edo gaizki, teorizatu egin du; eta eragin egin du batez ere. Euskaldunon historia berrinterpretatu egin du, beste askok bezala, baina honek proiektu politiko gisa landu du Euskal Herria. Nazionalismoaren bidez gainditu du neoforalismoa. Geroztik, haren garrantzia euskal nortasunaren alor eta esparru guztietan punta-puntakoa da.

Erreferentzigune alboraezina da Sabino Arana Goiri.

Eusko Ikaskuntza

1918. urtean Oñatin egindako batzarrean sortu zen Eusko Ikaskuntza, Hego Euskal Herriko lau diputazioen babespean. Orduan onartu eta gaur egun indarrean dagoen arautegiak dioenez, «Euskalerria maite duten eta bere nortasuna —behar beharrezkoa den ikaskuntzaren bidez— lortu nahi duten guztiak biltzea da Eusko Ikaskuntzaren xedea. Helburu horri begira, elkarte honek, Euskalerriko gaiak erabiliko ditu bereziki, baina baita gure herrirako egoki diren edonongo kultur gaiak ere».


Sorrera-urtetik 1923 bitartekoa aktibitate handiko epea izan zen Eusko Ikaskuntzarentzat: hiru batzar egin zituen —Oñati (1918), Iruñea (1920) eta Gernika (1922)—, Euskaltzaindiaren sorrera eragin eta euskal unibertsitate baterako oinarriak eztabaidatu ziren, besteak beste. Primo de Riveraren diktadurarekin (1923-30) agintarien babesa galdu eta lana eten egin zuen neurri handi batean, baina laugarren batzarra egin zuen hala ere Gasteizen (1926).

1930ean berriro ekin zion lanari, eta Hego Euskal Herrirako autonomi estatuturako proiektua landu eta bultzatzea erabaki zuen bosgarren Kongresuan (Bergara, 1930). 1931eko maiatzean aurkeztu zuen gerora, aldaketa batzuk gora-behera, Lizarrako eslalulua izenarekin ezagutua izango zen proiektua. Seigarren batzarra Bilbon egin zuen 1934an eta, zazpigarrena Lizarran egitekoa zutelarik, gerra zibilaren pizteak eten egin zuen Eusko Ikaskuntzaren jarduna.

Erakundearen lehenengo epe honetan Anjel Apraiz idazkari nagusia izan zen bultzagile nagusia; Julian Elorza diputatu gipuzkoarra izan zen lehendakaria eta Arturo Campion lehendakari ohorezkoa.

Frankismoarekin beste motelaldi luzea ezagutu zuen Eusko Ikaskuntzak, baina bizirik iraun zuen hala ere, Ipar Euskal Herrian bereziki Joxemiel Barandiaranen eraginez. Bi batzar egin ziren garai honetan: Miarritze (1948) eta Baiona-Uztaritze (1954).

1978tik aurrera, Espainiako erregimen politiko berriarekin batera, berriro eratu eta indarberritu egin zen Eusko Ikaskuntza, Joxemiel Barandiaran lehendakari zuela. Lau batzar egin dira ordu berri honetan: Bilbo (1983), Iruñea (1987), Donostia (1991) eta Gasteiz (1993). Barandiaranen heriotzaren ondoren (1991ko abenduan), Gregorio Monreal aukeratu zuten lehendakari.



Eusko Ikaskuntzaren helburua Euskal Herriaren egitura fisiko, kultural, ekonomiko eta politikoen, tradizional nahiz gaurkoen, azterketa sustatzea eta ezagutza zabaltzea eta alor horietan diharduten aztertzaileen eta zientzilarien arteko koordinazioa eratzea da. Euskal Herri osoan dago zabaldutu eta Hegoaldeko lau diputazioen babesa du. 1981eko apirilean Jaime Ignacio del Burgo Diputazioko lehendakari zela Nafarroako Diputazioak babesa kendu zion, baina 1983ko uztailean berriro lotu ziren lokarriak.

Jakintza sailen arabera dago antolatua eta bazkide bakoitza sail bateko eta batzuetako kide da. Sail bakoitzak jarduera autonomoa du. Sailetako ikerketak eragin eta dirulaguntzaz babesteaz gainera, sailez saileko argitarapenak egiten ditu. RIEV ikerketa- eta zabalkunde-aldizkari berezia argitaratu du 1921tik —1936tik 1981era bitarteko etenaldi luzea tartean—, eta Asmoz eta Jakitez berripapera 1993tik.

XIX. mendearen bukaera aldera Bilboko euskal giroak garrantzi handia hartu du.

Zer esan handia du horretan Sabinoren gogaide ez den R. M. Azkuek (1864-1957) ere. Talde oso batek adina lan egiten du honek berak bakarrik. Idatzi, bildu eta ikertu. Eta eragin: "Euskaltzale" Hegoaldeko lehen kultur astekari informatiboa sortu zuen 23 urterekin 1897an, eta geroago beste bat: "Ibaizabal" (1902).

Berrogei urte barik hil zen Arana Goiriri zor zaio berak egina eta berak sorturiko proiektuari dagokiona.

Sabino hil eta handik 14 urtera bere jarraitzaileak nagusi dira hiru Diputaziotan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. Hurrengo urtean, Gorteetako diputatu-hauteskundeetan zazpi diputatu dira nazionalista, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroak bat eginda.

Une historiko hau inportantea izan da oso. Aginteak euskal kulturaren aldeko zenbait neurri emankor hartzen du. Bizkaitik dator lehen notizia. Ramon de la Sotak, Diputatu Nagusi dela, badu zenbait proiektu. Eta horiek aurrera eramateko sortzen du "Junta de Cultura Vizcaína" eta "Junta de Instrucción Pública". Horren eraginpean, adibidez, auzo-eskolak indarrean jartzen dira Bizkaian. Ingurune horretatik abiatzen da Eusko Ikaskuntzaren ideia, gero Euskaltzaindiarena, etab.

1918an Oñatiko Kongresuan sortzen da Eusko Ikaskuntza, lau Diputazioetako onarpen eta laguntzaz. Euskal kulturaz gain bere betekizun nagusienak bi dira: Autonomi proiektua bultzatzea eta Euskal Unibertsitatea lortzea. Euskal Herria ideologikoki eta politikoki plurala da eta azpimarratzekoa da kolore guztietakoek nola egiten duten bat minimotzat edo maximotzat jotzen den autonomi proiektuan.

Euskaltzaindiak ere marka bera izango du. Euskara ideologien gainetik dago. Gerokoak bide dira patrimonialismoak.



Sabino Arana Goiri

Euskal Eskolaren hastapenak

Lehen aldiz historian euskara tresna eta helburu da irakaskuntzan. Erdara irakasteko eta/edo erdaraz ikasteko gunea izan da eskola tradizionalki Euskal Herrian. Haurren euskal liburu bakarra kristau dotrina izan da.

Euskara eskolan sartzea aldarrikatu dutela ikusi izan dugu arestian. Bai, baina erdararen itsu-makila izateko, hots, erdara traumarik gabe ikasi ahal izateko.



Resurrección María Azkue




Isaak Lopez Mendizabalek idatzi eta argitaratutako testuliburuetako bat, "Txiki"ren marrazki zoragarriz jantzia

XIX. mendearen bukaera-bukaeran sortzen dira lehen euskal eskolak. Baina, nolabait esan, iniziatiba pribatuz. Auzo-eskolak dira Administrazioak sorturiko lehenak. Esperientzia honek gutxi iraun zuen. 1922an, Liga Monarkikoak, sendotzean, eskoletako jokamolde elebiduna aldatu egiten du, eta nazionalistek Bizkaiko Diputazioan nagusigoa galtzean, debekatu egin zituzten auzo-eskolok, testuliburuetako kutsu politikoa zela aitzakia.

Lehen testuliburuak silabarioak dira. Auzo-eskolen aurrekoak. 1896an egin zuen aurrena, "Agakia" Kepa Andoni Ormaetxeak. Hurrengo urtekoa da Sabino Aranaren "Umiaren lenengo aizkidea". Auzo-eskolak sortzean, testulibururik ez eta Luis Eleizalde ikuskatzaile euskaltzaleak testugintzarako lehiaketa bat antolatu zuen. Sarituen lanak argitaratu egin ziren gero: "Euskeraz irakurteko irakaspidea ta lenengo irakurkizunak" (Gastañaga); "Euzko errixen edesti laburra" (Eugenio Urroz; Gabriel Manterola); "Euskal Zenbakistia" (Luis Eleizalde); "Azijerea ta ozazunbidea" (Jemein); "Ume euzkeldunen laguna (lenengo eta bigarren idaztija" (Joseba Altuna).

Liburuxka eta eskuliburu gehien prestatu zituena Isaak Lopez Mendizabal da 1907tik aurrera: "Zenbakistia" (1913), "Umearen laguna" (1920), "Nekazaritza" (1929), "Martin Txilibitu" (1931) eta "Seaska-Abestia" (1932). Arrakastarik handiena 1925ean argitara eman zuen "Xabiertxo"k izan du.

"Romanones" Dekretua, 1902


trucción pública vigente.

Art. 2.° Los Maestros y Maestras de instrucción primaria que enseñasen á sus discípulos la doctrina cristiana ú otra cualquiera materia en un idioma ó dialecto que no sea la lengua castellana, serán castigados por primera vez con amonestación por parte del Inspector provincial de primera enseñanza, quien dará cuenta del hecho al Ministerio del ramo; y si reincidiesen, después de haber sufrido una amonestación, serán separados del Magisterio oficial, perdiendo cuantos derechos les reconoce la ley.

Art. 3.° En las diócesis donde no existiesen catecismos escritos en castellano y aprobados por el Prelado

Aldizkariak

Euskal kazetaritza oraintxe hasten da. Aldizkako argitalpenetan, almanakak dira zaharrenak. Erakarmen handia izan dute Ipar Euskal Herrian urtekariek, laborarien artean.

Orain baino lehen izan dugu astekari bat, Chaoren "Uscal-Herrico Gaset", 1848an, baina hilabete bakarra iraun zuen bizirik.

Euskal kazetagintzaren hasera "Eskualduna" astekariarekin batera jartzen da. 1887an, hortaz. Ez dakit. "Journal Basque-Français Hebdomadaire" izendatzen du berak bere burua, eta % 90 du euskaraz. Astekari "xuria" da hau, elizkoia. Urtebete lehenago argitaratzen hasi zen "Le Réveil Basque", "gorri" edo errepublikazalea. % 50 du euskaraz honek. Aurrez aurre zeuden biak.

Hego Euskal Herriko lehen astekaria, "astean asteango albistaria" R.M. Azkuek kaleratu zuen 1897an, "Euskaltzale". Bi urte iraun zuen honek, eta 1902an beste astekari bat jarri zuen martxan, "Ibaizabal", Kirikiño zuzendari zela.

Baina ez dugu aldizkarien historia egingo hemen. Ezaugarri batzuk seinalatu nahi ditut, eta kitto.


Bat: almanakak, urtekariak, elebidunak eta euskarazkoak, deneak nahasian, 140 bateko kopurua osatzen dute aldizkako argitalpenek 1876tik 1936ra.

Bi: Euskararen presentzia aldakorra da batetik bestera, ehuneko 5etik ehuneko 100era. Elebidunak dira gehienak, eta, zoritxarrez, euskararen presentzia ez da bakarrik urria baizik eskasa.

Hiru: Gaiak era guztietakoak dira, baina gehienbat kulturalak, politikoak, erlijiosoak. Bistan denez, kazetaritza ez da gaur bezala ulertzen, hau da, informazioari bertatik bertara lotua.

Lau: XX. mendearen bigarren hamarraldia da agian kopuru aldetik emankorrena. Iraupena da guzti hauen Akilesen orpoa, frankismoa iritsi zenerako hauetako asko jada desagertua baitzen.

Bost: Aldizkarien sorreran Instituzioren bat egon daiteke, eta badago, ekintza pertsonalak ere badira, baina garai honetan atentzioa ematen duena da zenbat aldizkariren atzetik dauden *ad hoc* sortutako elkarteak, taldeak, asoziazioak. Eta zein aktiboak, ekintzaileak, kultur eragileak, diren talde hauek.



"Eskualduna" aldizkaria

ALDIZKARIAK

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Fedearen propagacioneco urtecaria / Fedearen hedameneko Urtekaria	1877	1936	Bihilabetekaria
Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz) para el año de 1879	1878		Urtekaria
Laurac-bat	1878		Hilabetekaria
Revista Euskara	1878	1883	Urtekaria
Almanaca berria eta egunaria	1879	1882	Urtekaria
Euskal Erria	1880	1918	Hamabostekaria
Bai jauna bai	1883	1883	Astekaria
El Eco de San Sebastián	1883	1889	Egunkaria
Almanaka berria	1884		Urtekaria
Escualdun almanaca edo egunari berria	1884	1887	Urtekaria
Almanaca berria edo escualdun egunaria	1885		Urtekaria
Escualdun Gazeta	1885	1886	Astekaria
1887 garren urteraco egunaria	1886		Urtekaria
Le Réveil Basque	1886	1894	Astekaria
Armanak (edo almanak) uskara edo Ziberouko egunaria	1887	1913	Urtekaria
Escualduna (Eskualduna). 1904.ean Eskualdun ona, 1908.ean Eskualduna izena berriro hartzeko	1887	1944	Astekaria
Almanach berria (Almanak berria)	1888		Urtekaria
Escualdun gazetaren almanaka	1888	1891	Urtekaria
Baserritarra	1893	1897	Astekaria
California-ko Eskual Herria	1893	1898	Astekaria
Bizkaitarra	1893	1895	Hilabet.; bihilabet.
Euskalduna	1896	1909	Astekaria
Egutegi bizkaitarra	1897		Urtekaria
Euskaltzale	1897	1899	Astekaria
El Correo Vasco	1899	1899	Egunkaria
Euzkadi	1901	1915	Hiruhilabet.; Bihilabet.
Ibaizabal	1902	1903	Astekaria
Gipuzkoako Nekazaritza	1903	1907	Hamabostekaria
Bai jauna bai	1904	1904	Hilabetekaria
Baserritarra	1904	1911	Hamabostekaria
Egunaria edo almanaca	1904	1910	Urtekaria
Eskualdun onaren almanaka	1905	1908	
JEL	1907	1908	Hamabostekaria

1875-1936

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Erlijiosoa	Basilio Maisonnave / Joannateguy, Martin Landerretche / Ander Landerreche	Fedearen Propagacioneco Obra	Baiona
	Serafín Baroja	Serafín Baroja	Donostia
Kulturala	Juan Mayora; Daniel Lizarralde	Sociedad Vasco-Española de Buenos Aires	Buenos Aires
Kulturala	Arturo Campión	Asociación Euskara de Navarra	Iruñea
		Lespes Soeurs	Baiona
Kulturala (literarioa)	José Manterola / A. Arzac / Toribio Alzaga, etab.	J. Manterola	Donostia
Literarioa	Serafín Baroja		Iruñea
Informatiboa	Antonio del Pozo		Donostia
Almanaka			Orthes
	J. Duvoisin	Errepublikazale napoleonikoak	Baiona
	Lafitte		D. Lohizune
Informatiboa	Martin V. Biscailuz	Martín V. Biscailuz	Los Angeles
		Serafín Baroja (?)	Donostia
Informatiboa, politikoa	J. Candau	Martial Henri Berdoly	Pabe
	Iribarne	Zalgizekoa	Paris
Informatiboa	Arnaud Pochelou; Jean Hiriart-Urruti; etab.	A. Lamaignère	Baiona
		Le Réveil Basque astekaria	Pabe
	Arnaud Pochelou	Escualduna astekaria	Baiona
Politikoa	Teófilo Guiard Larrauri	Sabino Arana Goiri	Bilbo
Informatiboa	Jean-Pierre Goytino	Jean-Pierre Goytino	Los Angeles
Politikoa	Sabin Arana Goiri	Sabin Arana Goiri	Bilbo
Informatiboa, politikoa		Euskalerria Elkartea	Bilbo
		Sabino Arana Goiri	Bilbo
Kulturala, informatiboa	Resurrección Mª Azkue	Resurrección Mª Azkue	Bilbo
Politikoa, informatiboa	Sabin Arana Goiri	Sabin Arana Goiri	Bilbo
Kulturala	Luis Eleizalde; José Mª Goya	Euzko Alderdi Jeltzalea	Bilbo
Informatiboa, kulturala	Ebaristo Bustintza "Kirikiño"	Resurrección Mª Azkue	Bilbo
Nekazarientzakoa	Ignacio C. Núñez Arizmendi	Gipuzkoako Foru Aldundia	Donostia
Literarioa	Serafín Baroja	Serafín Baroja	Madrid
Nekazarientzakoa	Ignacio Núñez Arizmendi	Nekazarien Elkarte Anaitasuna	Donostia
			Baiona
Urtekaria	Jean Hiriart-Urruty	*Eskualdun ona* astekaria	Baiona
Kulturala, politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalea	Bilbo

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Revista Internacional de los Estudios Vascos / Revue Internationale des Etudes Basques	1907		Seihilabetekaria
Gipuzkoarra	1907	1913	Astekaria
Euzkotarra	1907	1909	Aldakorra
Euskal Esnalea	1908	1931	Hilabet.; Hamabost.
Aberrija	1908-11-25	1908-12-26	Astekaria
Argitzalea	1909	1913	Astekaria
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria	1909		Urtekaria
Bizkaitarra	1909	1913	Astekaria
El Kantabriko	1910		Astekaria
Eskualdunaren almanaka	1910	1920	Urtekaria
Euskal-Esnalearen Esku-egundiya	1910		Urtekaria
Euskalzaleen-Biltzarra	1911	1936	Urtekaria
Napartarra	1911	1918	Astekaria
San Frances Terziaren Hilabetekaria	1911		Hilabetekaria
Euzkel-egutegija	1912		Urtekaria
Jaungoiko-Zale	1912	1932	Hamabostekaria
San Francesen Deia	1912		
Arabarra	1912	1933	Hogei egunean behin; Hamabost.; Astekaria
Irugarrengo Prantzisko'tarra	1913	1932	Hilabetekaria
Euzkadi	1913	1937	Egunkaria
Busturi'ko Kistar Ikastia	1915	1922	
Euskel Egutegi Txikiya	1915]	1915; 1920	Urtekaria
Aberri	1916	1922	Astekaria
Euzko-Deya	1916	1923	Hamabostekaria
Jesus'en Biotzaren Deya	1917	1936	Hilabetekaria
Irugarrengoen Irakaslea	1917	1936	Hilabetekaria
Euskera	1919	1936	Irregularra
Eusko Ikaskuntzaren Deia	1919	1936	Hiruhilabetekaria
Eusko Langille-El Obrero Vasco	1919	1937	Aldakorra
Junior. Revista mensual	1919	1932	Hilabetekaria
Zeruko Argia	1919	1936	Hilabetekaria
Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija	1919-03-	1919 (?)	Hilabetekeria
Getxotarra	1919		
Gipuzkoarra	1920	1936	Astekaria
Umetxuen Adizkidea	1920		
¡¡Jaik!!	1920		
Anuario de Eusko-Folklore	1921	1936	Urtekaria
Aranzazu	1921	1936	Hilabetekaria
Argia	1921	1936	Astekaria
Gure Herria	1921	1936	Hilabetekaria
¡Kendu!	1921	1922	Astekaria
Eleiz-orria	1921 (?)		Hilabetekaria
Kaiku	1921	1922	Astekaria

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Kulturala	Julio Urquijo, etab.	Julio Urquijo; Eusko Ikaskuntza	Paris; Donostia
Politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalea	Donostia
Politikoa	Juan Argote (?)	Euzko Alderdi Jeltzalea	Mexiko; New Orleans
Kulturala	Gregorio Mujika	Euskal-Esnalea Elkargoa	Tolosa; Irun; Donostia
Politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalea	Bilbo
Politikoa	J.B. Mora (Kudeatzaile)	Joseph Garaten talde erradikala	Baiona
	Jean Hiriart-Urruty	Eskualduna astekaria	Baiona
Politikoa, informatiboa	Luis Barrueta (1916.etik)	"Euzkeldun-Batzokija" Elkartea	Bilbo
Kulturala		Juan José Ugalde	Eibar
	Jean Hiriart-Urruty	*Eskualduna* astekaria	Baiona
	Gregorio Mujika	Euskal-Esnalea	Irun
Kulturala	Martin Landerreche	Euskalzaleen-Biltzarra	Paris; Baiona
Politikoa	Salvador Garijo	Napar-Buru-Batzarra	Iruñea
Erlijiosoa		Frantziskotarrak	Baiona
			Tolosa
Erlijiosoa	Zirilo Arzubiaga	Jaungoiko-Zale Bazkuna	Zornotza
Erlijiosoa		Frantziskotarrak	Baiona
	Luis Eleizalde etab.	Araba Buru Batzarra	Gasteiz
Erlijiosoa		Iruñako Kaputxinoak	Iruñea
Informatiboa, politikoa	Pantaleón Ramírez de Olano	Euzko Alderdi Jeltzalea (Euzko Pizkundia)	Bilbo
Erlijiosoa			Bermeo
			Bilbo; Tolosa
Politikoa	Jesús Gaztañaga Olabarri	Euzko Alderdi Jeltzalea	Bilbo
Kulturala	Josu Telletxea / Arsenio Beazkoetxea	Euzkeltzale Bazkuna	Bilbo
Erlijiosoa	Ramon Laskibar	Jesusen Lagundia	Bilbo
Erlijiosoa		Irugarrendarrak	Zarautz; Tolosa
Kulturala	Pierre Lhande eta beste	Euskaltzaindia	Donostia
Kulturala		Eusko Ikaskuntza	Donostia
Sindikala	M. Aurrekoetxea / M. Robles Aranguiz / A. Larrañaga	Euzko Langilleen Alkartasuna	Bilbo
Erlijiosoa		Nueva Editorial	Donostia
Erlijiosoa	Damaso Intza	Iruñako kaputxinoak	Iruñea
Nekazarientzakoa		Bizkaiko Foru Aldundia	Bilbo
Politikoa		EAJ	Getxo
Politikoa		Euzko gaztedia (Gipuzku Buru Batzarra)	Donostia
Erlijiosoa			Busturia
Politikoa		Euzko Gastedi	Eibar
	Joxemiel Barandiaran	Eusko-Folklore Elkartea	Gasteiz; Donostia
		Frantziskotarrak	Arantzazu
	Bitor Garitaonaindia eta beste		Donostia
Kulturala	Louis Dassance		Baiona
Politikoa		Comunión Nacionalista Vasca (Juventud Vasca)	Bilbo
Erlijiosoa		Jaungoiko Zale Bazkuna	Zornotza
Politikoa		Comunión Nacionalista Vasca (Euzko Gaztedia)	Donostia

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Argia'ren egutegia	1922	1936	Urtekaria
Euzkotarra	1922-06-22	1922	Hamabostekaria
Aberri	1923	1923	Egunkaria
Ecos de San Felicísimo	1924	1934	Hilabetekaria
Gure Herria. Almanaka edo urtekaria	1924	1939	Urtekaria
Gure Mixiolaria	1924	1936	Bihilabetekaria
Aberri	1925	1928	
Zeruko Orrichua	1926		
Gure Mutillak	1927	1934	Hilabetekaria
Gymnasium	1927	1932	Bihilabetekaria
Txistu	1928	1928	Hamabostekaria
Euzkerea	1929	1936	Hilabetekaria
El Día	1930	1936	Egunkaria
Gazteen laguna	1930	1936	Hilabetekaria
Kristau Ikasbidea	1930	1931	Hamabost.; hilabet.
Nacionalista	1930	1931	Astekaria
Nekazaritza	1930	1930	Urtekaria
Bizkaitarra	1930	1936	Astekaria
Almanach du Courrier	1931		Urtekaria
Arrati'ko Deya	1931	1931 (?)	Hamabostekaria
Bertsolariya	1931	1932	Hilabetekaria
Euskaltzaleen-Deia	1931		
Karmen'go Argia	1931	1936	Hilabetekaria
Amayur	1931	1936	Astekaria
1933'garren urterako nere egutegia	1932		Urtekaria
Aberri Eguna	1932	1932	Urtekaria
Acción Vasca	1932	1933	Hamabostekaria
Antzerti	1932	1936	Hilabetekaria
Bermeotarra	1932	1932 (?)	Hilabetekaria
Euzko	1932	1934	Astekaria
Ekin	1932	1936	Astekaria
Mendigoxale	1932	1934	Astekaria
Baskonia	1932-10-	1932	Hilabetekaria
Tierra Vasca	1933	1937	Egunkaria
Yakintza	1933	1936	Bihilabetekaria
Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia	1934	1935	Hilabet.; bihilabet.
Cinco	1934-04-	1934-06-	Hamabostekaria
Elgar	1934	1936	Irregularra
Aintzina	1934	1944	Hilabetekaria
Gizarte Ikas Batzak	1934	1935	Hilabetekaria
Igandeko Orria	1935	1936	Astekaria
Poxpolin	1935	1936	

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
	Bitor Garitaonaindia eta Argiako besteak	Argia astekaria	Donostia
Politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalea (GBB)	Zarautz
Politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalea	Bilbo
Erlijiosoa	Raimundo Miguel	Pasiotarrak	Bilbo; Sestao
Kulturala	Louis Dassance	*Gure Herria* hilabetekaria	Baiona
Erlijiosoa		Secretariado Diocesano de Misiones	Gasteiz
Politikoa	Isidro Madariaga	Acción Nacionalista Vasca	New York
Erlijiosoa			
Erlijiosoa		Donostiako Luistarrak	Donostia
Erlijiosoa		Gasteizko Seminarioa	Gasteiz
Komikia		*Argia* astekaria	Donostia
Kulturala		Pizkundia	Bilbo
Informatiboa	Javier Landaburu / José Lecaroz	Ricardo Leizaola	Donostia
Erlijiosoa		Bizkai'ko eliztar mutil bazkuna	Zornotza
	Muñoa	Koru'ko Andre Mariaren Ikastetxea	Donostia
Politikoa		Acción Nacionalista Vasca	
Nekazala			Donostia
Politikoa	Luciano Ozerin	Juventud Vasca de Bilbao	Bilbo
		Le Courrier de Bayonne	Baiona
		EAJ ?	Areatza
Literarioa	Makazaga	Juan José Makazaga	Errenteria
Kulturala		Euskaltzaleak	Donostia
Erlijiosoa		Zornotzako karmeldarrak	Larrea
Politikoa, kulturala	José Aguerre / Julio Ruiz de Oyaga	Euzko Alderdi Jeltzalea (NBB)	Iruñea
		Gipuzkoako Foru Aldundia (Nekazaritza-Batzordea)	Donostia
Politikoa		Euzko Alderdi Jeltzalearen (Idazkaltza-Buruba)	Bilbo
Politikoa		Acción Nacionalista Vasca	Bilbo
	Antonio Mª Labayen	Antonio Mª Labayen	Tolosa
Politikoa		EAJ	Bermeo
Informatiboa, politikoa	José Ituarte / Manuel Ziarsolo	Euzkeltzale Bazkuna (Juventud Vasca)	Bilbo
Erlijiosoa	Gabriel Manterola / Ramón Ertze	Jaungoiko-Zale Bazkuna	Zornotza
Politikoa		Bizkaiko Mendigoxale Batza	Bilbo
Politikoa	S. Doñabeitia		Barcelona
Informatiboa, Politikoa	José Olivares / Tomás Uribe-Echevarría	ANV	Bilbo
Kulturala	Jose Ariztimuño "Aitzol"	Euskaltzaleak	Donostia
	Altzo'ko Olano'tar M.	Editorial Vasca	Bilbo
Kulturala (literarioa)		Tipografía Egaña	Gasteiz
Kultural-politikoa	Paul de Rocca-Serra "Legarralde"	Eskualtzaleen Biltzarra	Paris
Politikoa	Jean Dubosq; Piarres Lafitte	Jean Dubosq	Hiribéhére, Ustaritz
Sindikala, erlijiosoa		AVASC'en Gipuzkoako ordezkaritza	Donostia
Erlijiosoa		Gipuzkoako Jaungoiko Zale Bazkuna	Donostia
Komikia	Isaac López Mendizábal	Isaac López Mendizabal (GBB)	Tolosa

Ipar Euskal Herrian, xuriak eta gorriak

Ipar Euskal Herriak beste era batera bizi du modernizazio-prozesua. Industrigintzak ez du asaldatzen, eta inmigrazioak ere ez.

Borroka politiko-ideologiko-erlijiosoak, aldiz, bete-betean harrapatu du. Frantziarekiko atxikimenduan ez dira asko bereizten, baina gainerako guztian guztian bai errepublikazaleak, *gorriak*, eta monarkikoak, elizkoiak, *xuriak*.



Jean Hiriart-Urruty (1859-1915)

Kolore bakoitzak bere aldizkaria du.


Hegoaldean ez bezala, ezkerrak, liberalak, errepublikarrak, Iparraldean, euskaraz (euskaraz ere) egiten du, eta horren aztarnak liburuetan ageri dira. Iraultza frantseseko dekretu eta argibideak direla, hauteskundeak direla, polemika erlijioso-politikoa dela, alde batekoak eta bestekoak euskara inprimatua ere erabiltzen dute. Luzean eta sakonean ez dutena, aktualitatean eta eguneroko bizitzari txertatua izatean dute.

Kuriositatez, zenbait titulu aipatuko ditugu: "Laphurtar escaldun francesec, Erresumaco Estatu generaletarat egortcen dituzten Deputatuei, emaiten dioten botuen eta instruccionen, Cayera" (11or.); "Decreta nacioneac bilduric emana cinegotcigoen formatceko moldearen gaïnian" (30 or.); "Franciaco Biltçarraren, edo Estatu Generalen Decretac" (27 or.); "Citoyens/Herritarrac" (7 or.); "Conferencia spirituala, çointan ikhusten baita Franciaco Nationeac Eliça guiçonen gainean eguin duen Constitutione Civila, edo Erreglamendua" (29 or.); "Persecucionezco dembora huntan cristau leyalec itchiqui behar duten bici-moldea" (36); "Boz emailearen eginbideac" (23 or.); Catichima laburra hautuen edo electionentzat (8 or.); "Aphezac soldado" (15 or.); "Uskalduner" (23 or.); "Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan" (62 or.); "Framazonak" (200 or.).

1789-1790 urteetakoak dira aurreneko seiak eta, ehun urte geroagokoak, 1889-1890ekoak, besteak. Berriz diot: adibide soil dira hauek, baina egiaztatzen dute euskara gizarte-bizitzan txertatua egon dela, ez erlijio-sailera mugatua.

Inprimategiak eta argitaraguneak

Liburuak, edizio orotan, non inprimatu diren erakutsi nahi dugu hemen.



Pizkunde-garaian Hego Euskal Herriaren garrantzia hazi egin da. Lautik hiru liburu Hegoaldean inprimatu da.

Gipuzkoak jarraitzen du aurren, baina Bizkaiak batez ere egin du gora.

Proportziotan jaitsi egiten dira bai Nafarroa eta bai Araba.

Aurreko urtealditik hona ekoizpenaren kokagune geografikoa nabarmenki aldatu da, Hegoaldearen alde. Iparraldean zenbaki absolututan ere titulu gutxiago inprimatu da. Hegoaldean, ostera, hiru aldiz gehiago pasata. Atzerriaren parte hartzea ere handitu egin da. Ipar Euskal Herria da, hortaz, jaitsi den bakarra.

Hegoaldean ikusi dute argia, bada, lautik hiru liburuk.


Gipuzkoak segitzen du buruan, aurreko urtealdian baino hiru aldiz gehiago produzituz. Bizkaiaren partea ere handiagoa da orain, eta lehendik hona sei bider liburu gehiago argitaratu ditu, aipatu dugunez, abertzaletasunaren etorrerari esker.

Nafarroa eta Araba ez dira mugitu. Portzentaietan behera egin badute ere, zenbaki absolututan lehengoan diraute. Euskalgintza Bizkaian eta Gipuzkoan kontzentratuz doala adierazten du honek eta handituz joango da gero eta gehiago, Araba eta Nafarroaren pentzura zoritxarrez.

Herriz herri banatuz gero Donostia da aurrena (180), gero Bilbo (159), Tolosa hirugarren (135). Produkzio askoz txikiagoarekin datoz atzetik, hurrenez hurren, Baiona, Zornotza, Durango, Iruñea.

Inprimategi aktiboenen zerrendan, aurreko aldian Bidasoaz bi aldeetakoak nahasian zebiltzan lehen postuetan. Pizkundearen garaian ez da holakorik. Lehen hamarren artean Iparraldeko bat bakarra ageri da, Lasserre. Nobedadea da, baita ere, Bizkaikoen indarra, Bilbokoez gain Zornotza eta Durangokoak.

Isaak Lopez Mendizabal



Inprimategien industriak badu inplantaziorik orain. Lehen hamarrek inprimatzen dutena produkzioaren lautik bat da. Alde izugarria dago aurreko alditik hona, orduan % 62,5 baitzen ekoizpenaren gaineko lana lehen hamarren alde. Orain % 25. Azpiegitura asko zabaldu dela esan nahi du honek.


Lopez Mendizabal (Tolosa)	63
Jaungoiko-Zale (Zornotza)	61
Martin y Mena (Donostia)	49
Elosu (Durango)	40
E. Lopez (Tolosa)	39
Verdes Atxirika (Bilbo)	33
Iñaki Deuna (Donostia)	32
Grijelmo (Bilbo)	27
Baroja (Donostia)	26
Lasserre (Baiona)	25

Ekoizpen intelektual euskalduna, gora

Nabarmenki gora, gainera. Aurreko urtealdian, lehen edizioa produkzioaren erdira ere ez zen iristen eta parte on batean itzulia zen. Orain, nobedadeak dira lautik hiru baino titulu gehiago eta huskeria da itzulpenaren pisua horren barruan. Titulu gehiago sortu da, eta euskaraz sortu da.

Sortu bai, baina arrakastarik izan al dute? Hau da, garai horretan lehendabizikoz argitara eman diren liburuak asko saldu al dira? Ez dakigu, tiradaren informazioa falta zaigu eta.

Hurbilketa bat egin genezake, galderari erantzun nahian. Nola? Berrargitaraldiak kontsumoaren neurgailutzat hartuz. Pizkunde garaian



60 urteko urtealdia da hau eta 20na urteko hiru multzotan banatua dago.

• Lehen grafikoan hazkundea zenbaterainokoa den ageri da. Azken hogei urte horietan % 42 produzitu da.

• Bigarren grafikoan ikusten da lehen hogei urteak aurreko mendearen bidetik doazela, berrargitaraldiak nobedadeen ia parean baitaude. XIX. mendearen bukaera aldera ındartzen da lehen edizioa. Urtealdi osoan lautik hiru da lehen edizioa.

• Urtealdi honetan % 16 bakarrik da itzulitako liburuaren pisua argitalpenean. Neoforalismoak eta abertzaletasunak jatorrizko liburua indartu dute lehen edizioan bezala berrargitalpenean.

sorturiko tituluek izan dituzte argitaraldi berriak, nola ez. Baina aski apalak, katixima eta debozio-liburuak salbu. Teatro-liburu pare bat berrargitaratu da, haurrentzako 3 liburu, kantu-bilduma bat edo beste, eta kitto.

Garaiko liburuetan eliz-liburua berrargitaratu dela gehien, esan dugu. Produzitu ere bai, bestalde. Liburu-mota honetatik lauzpabost edi-



Jose Maria Agirre "Xabier Lizardi" eta Nikolas Ormaetxea "Orixe"

zioko dozenerdi bat egongo da. Altuago pare bat. Apal samar gelditzen da kopuru hau, hala ere, tradizio zaharreko zenbait libururen argitaraldien ondoan.

Ondoko zerrendan ikus genezake Pizkunde garaian ere argitaraldi gehien izan dituzten titulu gehientsuenak Erregimen Zaharrekoak direla. Gutxi batzuk aipatuko ditugu, horietatik hurrengoetara asko jaisten baita argitaraldi-maila.

Exercicio izpirituala	22	argitaraldi
Misio Santuetaraco Cantac	16	"
Escu liburua (Kardaberaz)	12	"
Doctrina cristiana (Astete/Irazusta)	12	"
Ceruraco bide zucena eta seguruena (Claret/Antia)	9	"
Cristinaubaren jaquinvidia (Astete/Mogel)	8	"

Dena den, garai honetan argitaraldi gehien izan duena ez da hemen agertzen. Astigarragaren hiztegi famatua da, aurreko urtealdian 15 edizio izan zituena, eta oraingoan 25 gehiago. Gogoratu, kuriositatez, aurrekoei oraingoak erantsita, ia ehun ediziora iritsia dela "Exercicio izpirituala".



Esteban Urkiaga "Lauaxeta"

Garaiko gaiak

Lehenengo eta behin esan behar da Pizkunde garaian gaien esparrua zabaldu egin dela. Eta orekatze-bidean abiatu dela produkzioa.

Garai honetan hasten dela euskal literatura defendatu du batek baino gehiagok. Luis Mitxelenak (1960) XIX. mendearen azken hamarkadan jartzen du aldakuntza nagusia: "Entre nosotros hay que situar en el último decenio del siglo pasado las primeras señales manifiestas de un espíritu nuevo —prefigurado ya en unos cuantos precursores— que había de transformar en muchos aspectos las características de la literatura. Ya no es la poesía el único género cultivado desinteresadamente; desaparece el antiguo predominio de las obras de edificación y formación religiosa, aunque desde luego el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico; se trata con empeño de buscar a la lengua nuevos campos de manifestación, de cultivar los que estaban sin cultivo, y por consiguiente es cada vez mayor el número de traducciones de obras profanas consideradas como modelos. En contraste con el

cerrado utilitarismo anterior, la nueva literatura no deja a veces de ser demasiado desinteresada: no se sabe muy bien, en efecto, a qué público pueden estar destinadas algunas de sus producciones" (HLV, 141-142).

Titulu askoz gehiago dago lehen baino. Ia lau aldiz gehiago lehen edizioan. Urtealdi honetan, batez beste, urtean 24 liburu atera dira, horietatik titulu berriak urteko 18 pasatxo. Bidezkoa da, hortaz, gaiak ere hornituagoak aurkitzea orain, urteko lau liburu egiten zirenean baino.

Bai, baina gai-sail guztiak ez dira berdin hazi.

Aisia-liburuetan kokatu ohi den liburua, lehen aldiz dago presente. Gutxi dira tankera horretako liburuak, baina badira, orain lehendabizikoz.


Erlijiozko liburua bikoiztu egin da kopuruz.

Lehen edizioaz ari gara, egin kontu.

Giza eta gizarte jakintzetan biltzen den liburu-mota bost aldiz pasa produzitu da.

Irakaskuntza-materialak hiru t'erditan egin du gora.

Eta literaturak? Literatur liburua aurrekoan baino hamazazpi (17) aldiz gehiago dago urtealdi honetan.



Aurreko urtealdietan baino gehiago idatzi da garai honetan. Eta batez ere gai eta arazo gehiago erabili dira.

Erlijioaren pisua asko jaitsi da. Literatur liburuak gora egin du nabarmenki. Giza eta gizarteko arazoetan ere badabil liburua, lehen baino gehiago.

Irakaskuntzako eta haurrentzako liburuak ere hasi dira agertzen.

Banan banako gainbegiratua egin diezaiegun gai-sail hauei.


Gai-multzoa	Zenb. abs.	%
Aisia-liburua	38	3,5
Erlijioa. Teologia	463	42,0
Haur/Gazte-literatura	27	2,4
Giza eta Gizarte-gaiak	166	15,0
Hezkuntza. Irakaskuntza	25	2,2
Literatura	321	29, 0
Gainerakoak	65	5,9
Guztira	1.105	100,0

- Aisia-liburuetan batez ere musika eta kantuak sartu ditugu. Hain zuzen urte hauetan folkloreak, doinu tradizionalak tira handia du.

Manterolak, R. M. Azkuek, Aita Donostiak badute alor honetan meriturik.

- Erlijio-gaietako liburua da aldi honetan ere nagusi, azkeneko aldiz. Aurreko urtealditik bikoiztu egin da zenbaki absolututan baina garaiko produkzioarekiko dezente jaitsi: % 78tik ia erdira etorri da, % 41,9ra hain zuzen. Seinale ona, bestelako gaiak ugariago atera direla esan nahi baitu horrek.

  Erlijiozko liburuetan titulu ugari plazaratu da baina maila apala ematen du, oro har. Katixima eta debozio-liburuak dira gehienak, bederatziurrenak, santuen bizitza miragarriak, eliz esku-liburuak. Aurreko urtealditan oraingoen ondoan kategoria handia erakutsi zuen zenbait idazlek. Agirre Asteasukoari konparatzekorik ez da bat ikusten!



Joxemiel Barandiaran


  Erraz zabaldu eta sarri irakurtzen den liburu-motaz ari gara hitz egiten. Informazio zehatzik ez dugu tiradei buruz. Handiak izatea ez harritu. Dakigunez, Jose Antonio Ugarteren "Zeruko Mana gozoa", 1924an aterea, bi urtetan bederatzi mila aletan saldu zen. Bada zerbait.

- Giza eta gizarte-alorreko liburuak bost bider hazi dira, eta seinale ona da hori ere. Normalizazio-bidean urrats bat, kasu honetan nimiñoa da, baina tira. Esanguratsua eta sintomatikoa da garai honetan bigarren hazten den saila berau izatea. Geroz eta alor eta esparru gehiago lantzen ditu euskarak, edo, hobe, euskaldungoak euskaraz. Hemen daude Ipar Euskal Herrian propaganda politikorako erabili den materiala; bizitza praktikorako kontseiluak, geografia eta historiako lanak, sindikalismoaz ere badago zerbait. Egia esan, almanakak, egutegiak eta urtekariak ere sail honetan daudela jakinda asko jaisten da kategoria. Hoberentxoenen artean J. B. Eguskitzaren "Gizarte-Auzia" eta J. M. Barandiaranen "Euskalerriko Leen-gizona" jarriko nituzke.
- Hezkuntza. Irakaskuntza. Haur eta gazteen kontsumoko liburu honi merkatu propioa falta zaio, zoritxarrez. Irakaskuntza gaztelaniaz edo frantsesez da maila guztietan. Lehen saioak hasiberriak dira XIX. mendearen hondarretan eta XX. mendeko auzo-eskoletan. Baina gutxiegi iraun zuten. Testugintza eta material osagarria antolatu orduko debekatu egin zituzten.
- Harrigarria da literaturaren jauzi kuantitatiboa. Sinestekoa al da hamazazpi aldiz titulu gehiago ateratzea garai honetan? Pizkunde-garaia benetan!

Literaturgintza

Lehen edizioan 321 literaturako titulu kontabilizatu dugu guk. Aurreko urtealdiekin konparaturik asko da.

Generoa	zenb. abs.	%
Antzerkia	155	51,0
Olerkia	59	19.5
Narratiba	57	18.7
Generoak nahasian	16	5.2
Herri-literatura	12	4.0
Besterik	22	6,8




Literaturaren barruko emaitzak generoka ikusita antzerkiaren lehentasuna da seinalagarriena. Ondoren, baina oso urruti, aurkitzen dira olerkia eta narratiba, ia parean.

Euskal literaturaren historia osoan hemen bakarrik aurkitzen dugu antzerkiaren nagusitasun hau. Uzta ederra bildu du antzerkigintzak, 155 lan. Literaturan atera diren nobedadeetan erditik gora antzerki-lana izan da. Ukaezina da genero honen arrakasta.

Eusko Pizkundeak besarkatzen duen garai honetan teatroaren arrakasta ez da gurea bakarrik, nonbait. Katalunian, seguru, lehenago hasi zen, hemeretzigarren mendearen bigarren partean-edo, 1867ko erret ordena bat baitago gaztelania ez den beste hizkuntzetan ("diferentes dialectos") antzerki-lanak debekatzen dituena. Ordenan bertan esaten da teatro-lan ugari aurkezten dela zentsurara. Honela dio Gobernazio-Ministroak sinaturiko ordenak: " En vista de la comunicación pasada a este Ministerio por el censor interino de teatros del Reino con fecha del 4 del corriente, en la que se hace notar el gran número de producciones dramáticas que se presentan a la censura escritas en los diferentes dialectos, y considerando que esta novedad ha de influir forzosamente a fomentar el espíritu autóctono de las mismas, destruyendo el medio más eficaz para que se generalice el uso de la lengua nacional, la Reina (q. D. g.) ha tenido a bien disponer que en adelante no se admitirán a la censura obras dramáticas que estén exclusivamente escritas en cualquiera de los dialectos de las provincias de España".

Martzelino Soroaren "Iriyarena" lanarekin hasten da euskal teatro modernoa. Ziburun taularatu zen 1876an eta 1878an Donostiako "Teatro Principal"en. Arrakasta ikusiz idatzi eta idatzi jarraitu zuen. Imitatzaile eta jarraitzaile ugari izan zituen: Jose Artola, E. Gorostidi, Valeriano Mokoroa, Ramon Illarramendi, Juan Ignacio Uranga eta denen gai-



Toribio Altzaga

netik Toribio Altzaga, "Donostiako Euskal Izkera ta Izkunde Ikastola"ko zuzendariak jaso egiten baitu maila.

Antzerkiaren mugimendu honek Gipuzkoako hiriburuan habia bazuen ere herriz herri ibiliak dira hauen teatro-lanak. 1915etik gerra bitartean txalo ugari jaso ditu antzeslanak.

Gerora ere sortzailerik ez da falta izan, hala nola, L. A. Barriola, S. Baroja, Katalina Elizegi, B. Garitaonaindia, Antonio María Labaien, J. Karraskedo, besteak beste.

Antzerkiaren atzetik oso urruti datoz parez pare olerkia eta narratiba, liburu-kopurutan berdinduta.

Olerkigintzan lehen ordukoa Felipe Arrese Beitia da. Emeterio Arrese eta Jautarkol ere aipagarri dira. Eta bereziki hiru handiak: Lauaxeta, Lizardi eta Orixe.

Narratibako izen propioak ugari dira, zorionez. Hona batzuk: Otxolua, Jose Manuel Etxeita, Agustin Anabitarte, Txomin Agirre, Kirikiño, Pablo Zamarripa, Pedro Miguel Urruzuno, Orixe, Jean Barbier, Gregorio Mujika, Jautarkol, Tomas Agirre, Jean Etchepare eta Resurrección María Azkue.

1936-1975
URTEALDIA

Francoren altxamendua atera zen Errepublikako Gobernuaren aurka irabazle. Eusko Jaurlaritza Gobernu legalarekin joan zen, eta galtzaile suertatu. Larrutik ordaindu behar izan du Euskal Herriko zati on batek gertakari hori.


Francok bururatu du, azkenik, aurreko gobernu espainiarrek partzialki bakarrik lortu zutena, asimilazioa, euskal nortasunaren suntsipena. Errotiko nazionalismo espainiarra ezarri zuen.

Nazionalismo hori politiko-ideologikoa da, eta kulturala, eta linguistikoa. Orokorra. Espainiako lurraldeen eta gizonen batasun hori, Espainiako hizkuntzen batasuna ere bada.


Bada Francoren testu bat, lehen ordukoa, 1936ko urrikoa hain zuzen, aztertzaileek oinarrizkotzat ematen dutena: "España se organiza en un amplio concepto totalitario, por medio de instituciones nacionales que aseguren su totalidad, su unidad y continuidad. El carácter de cada región será respetado, pero sin perjuicio para la unidad nacional, que la queremos absoluta, con una sola lengua, el castellano y una sola personalidad, la española".

Gerra bukatuta gero ere gerran segitu zuen frankismoak euskal nortasunaren ezaugarri guztien aurka, legearen bidez, poliziaren bidez, prentsaren bidez. Euskarari agerpen publiko guztiak debekatu zaizkio. Exilioan zirkulazio handia izan zuen esaldi batek zioenez, seaskatik kanposanturaino pertsegitu du euskara frankismoak. Ez zaio arrazoirik falta formulari, euskal izenak debekatu bait zituen eta kanposantuko hilarrietako euskara ere bai. Eta noski, tarteko guztia: administrazioa, kultura, gizarte-bizitza. Katedra, pulpitoa eta kalea kendu nahi izan zizkion.

Zanpaketarekin batera zentsura dator.



Gernika bonbardaketaren ondoren




Obra en poder de esta Alcaldía, atta. comunicación, Nº 2485, del negociado 4º, del Excmo. Gobierno Civil de esta Provincia, fecha 27 del mes de Octubre p.pdo y una de cuyas partes, copiada literalmente, dice:-....se requiera á los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las lozas y sustituidas las citadas inscripciones por otra en castellano.-

Y siendo V. uno de los propietarios de la tumba en la cual aparece inscripta en nombres en vascuence, requiero a V. para que con la debida urgencia sea retirada dicha placa y sustituida por otra en castellano.-

Dios guarde a V. muchos años.

Guernica y Luno 2 de Noviembre 1.949.

EL ALCALDE,



INFORME

¿Ataca al Dogma? Páginas
¿A la moral? Páginas
¿A la Iglesia o a sus Ministros? Páginas
¿Al Régimen y a sus instituciones? Páginas
¿A las personas que colaboran o han colaborado con el Régimen? Páginas
Los pasajes censurables ¿califican el contenido total de la obra?

Informe y otras observaciones:


(C)

POESIA. Escrito en un estilo surrealista y simbólico, todo el libro es canto de rebeldía política e inconformismo de la situación del país vasco. Este se encuentra en terrible opresión y solo encuentra la palabra como arma de rebelión. Recuerda que Navarra, las provincias vascofrancesas son también vascas y deben unirse... Hace referencias despectivas al jefe del Estado y en forma velada, llamándole Franfran y Sanfrancisquito. Hace un uso irreverente de Jesucristo. Elogia al comunismo. No hay una página limpia de toda esta desagogia e irrespetuosidad.

NO PUEDE AUTORIZARSE

Madrid, 21de febrero de 1967
El lector,

Gabriel Arestiren "Euskal Herria" liburuaren zentsura-txostena (1967)



INFORME

¿Ataca al Dogma? Páginas
¿A la moral? Páginas
¿A la Iglesia o a sus Ministros? Páginas
¿Al Régimen y a sus instituciones? Páginas
¿A las personas que colaboran o han colaborado con el Régimen? Páginas
Los pasajes censurables ¿califican el contenido total de la obra?

Informe y otras observaciones:

(C)

OBRA DE PROTESTA contra el orden social establecido a quien considera como un medio para tener a la gente alienada y no puede pensar por sí mismo y como símbolo de este orden social que no es orden, ridiculiza las condecoraciones que se conceden a los que no sufren el peso del trabajo sino por el contrario disfrutan a cuenta de los que trabajan. Asimismo no acepta la PAZ fundada en criterios denuestro sociedad que califica de formales y honrados a quienes aceptan amisamente cuanto se les manda.
Otro punto importante es la crítica que hace de los españoles inmigrados en el país vasco. Da a entender como si hubiere sido una política estudiada por el gobierno central para romper la armonía y crear la enemistad y la división. Los califica de PESTE, y GUSANOS.
Considero como obra que atenta a los principios fundamentales del Reino por lo que NO DEBE ACEPTARSE EL DEPOSITO.-

Madrid, 6 de diciembre de 1973
El lector,

Joxean Artzeren "Eta sasi guztien gainetik" liburuaren zentsura-txostena (1973)

Zentsura

Zentsura aipatzean aurretiazko zentsura datorkigu burura, hau da, argitara eman aurretik idazlanak pasa behar zuen kontrol administratiboa. Tramitazio-aldaketak izan baditu ere, Francok baino luzaroago iraun du sistema honek. Produkzio intelektualean zentsurak izan duen eragina neurtezina da. Kuantitatiboki neur daitezkeen datu batzuk ezagutzen ditugu, baina bere ondoriorik sakonena beste bat da: autozentsura. Garai horretako idazleak zentsuratzailea gogoan duela idatzi du beti, eta horrek ekoizpen intelektualaren mekanismoa bera izorratzen du. Autorea bera da bere buruaren zentsorea, konturatu ere egin gabe. Nola baloratu honen ondorioak?

Autozentsura ez da autorearen kontua bakarrik. Editoreak ere gauza bera egiten du. Administrazioaren aurrean erantzukizuna duenez beronek ere, obra "garbitzera" jotzen du, zigorrak (multak eta kartzela) ebitatze-aldera. Eta, horrela, editorea ere zentsore "malgré lui" bilakatzen da.

Argitaletxea, eta berdin aldizkaria, lepotik harrapatua du frankismoak ezarritako kontrol-sistemak.

Frankismoak edizioaren gain duen kontrol-modu bakarra ez dela zentsura, behin eta berriz esan behar da, oharkabean pasatzen baita bestela. Kontrol zorrotza du edizio-enpresak, eta zentsuraren ardura duen Ministerio bera enkargatzen da horretaz. Argitaletxe gisa lan egiteko enpresa-erregistroa behar da. Baimena lortzea ez da batere samurra, enpresako arduradunen izenak deklaratu behar baitira, eta argi eta garbi azaldu baita ere "plan editorial" deitzen dena. Zer esan nahi du honek?

Segun eta zeinek sortu nahi duen enpresa ez duela erraztasun handirik izango. Sortzailea ezezaguna edo susmagarria denean, "informe político-social" delakoa eskatzen dio Ministerioak poliziari. Eta, noski, txosten poliziakoaren arabera hartzen dira erabakiak.

Lehen behaztopa-harri hori gainditurik ere, argital plangintzaren deklarazioa gelditzen da. Plangintza hau zehaztasun osoz eman behar da, argitaletxearen helburuak eta liburu-motak adieraziz.

Ihesbiderik gabeko egoeran dago editorea. Tranpa saduzeoa da argitalpen-egitaraua. Jakina da ezarritako sistemaren barruan hainbat eta hainbat gai eta pentsaera argitara eman ezinak direla. Aurrez aurre horiek argitaratzeko asmoa agertuz gero, pentsaezina da baimena lortzea. Plan hori mozorrotu edo izkutatu ezkero eta baimena lortu, deklaratutakotik milimetro bat mugitzean, zigorra. Horra euskal argitalgintzaren irteera gabeko kalea.

Berdintsu gertatzen da aldizkariekin. Kultur edo informazio-aldizkari normalizatu bat euskaraz egitea lortezina gertatu da frankismo osoan.


Editorearen antzera aldizkariaren arduradunak ere txosten politiko-sozial horren zulotik pasa behar izan du.

Eta aldizkariak ere aurretiaz deklaratu behar du "gaia" eta "helburua". Editorearen kasu berean aurkitzen da. Harrapatua. Euskaraz ezin izan da lortu, eta ez gogo-faltaz, eremu zabaleko aldizkari bat. Administrazioak euskal aldizkariei espresuki mugatu izan die gaia hiru informazio-eremutara: informazio lokala, erlijiosoa eta kulturala.

Ohartarazi nahi nuke arazoa ez dela bakarrik, kasuan-kasuan, erregimenaren ortodoxiaren arabera produkzio intelektuala epaitzen dela. Hori bai, baina baita ere organo normalizatuak edukitzea, azpiegitura kulturala sendotzea.

Frankismoak kultur produkzioa kontrolatzeko eta bideratzeko daukan sisteman zentsura ez da mekanismo bakarra. Ez dakit ez ote den okerragoa enpresa editorial eta periodistikoei jartzen zaien kontrola.

Zentsurak asko desegin du. Baina askoz gehiago da sortzen utzi ez duena. Kultur ondareari egindako atentatutzat hartzen dute batzuk horregatixe.



INFORME

¿Ataca el Dogma? Páginas
¿A la moral? Páginas
¿A la Iglesia o a sus Ministros? Páginas
¿Al régimen y a sus instituciones? Páginas
¿A las personas que colaboran o han colaborado con el Régimen? Páginas
Los pasajes censurables ¿califican el contenido total de la obra?

Informe y otras observaciones:

(c)

SOCIOLOGICO-POLITICO.-La tesis central del libro es que se realice la unidad de Europa pero respetando las nacionalidades:la Europa de las Patrias.Esto daría lugar a que las siete provincias vascas pudieran unirse dentro de ese contexto,unificando todas sus actividades.C onsidero que NO PUEDE AUTORIZARSE.-

Madrid, 16 de febrero de 197[1]


El Censor,

Jean Louis Davanten
"Nekazari euskalduna" liburuaren zentsura-txostena (1971)

Euskal liburuaren zentsura politikoa

Zentsuran mamitu diren irizpideak aztertzean bereiztu egin behar da: badago liburuaren zentsura bat, errepresio kulturala dena. Euskal liburuan badago beste zentsura bat, euskaraz egoteagatik egiten dena, eta hori euskararen errepresio politikoa da. Horrela bakarrik uler daitezke euskarazko liburuen zentsurak izan dituen ezaugarri batzuk, kristau doktrinak debekatu baitira, ipuin literarioak galerazi baitira. Euskaraz egote hutsagatik. Eta esan behar al da?, ez edukinagatik. 60ko hamarkadaren erdirarte behintzat iraun du egoera honek.

Oro har, euskal liburuaren argitalpena Estatu espainiarrean ez da normalizatu 1975eko Liburuaren Legera arte. Bitarte luze horretan euskarazko liburuak balio erantsi negatiboa izan du Administrazio frankistarentzat, euskaraz idatzita egoteagatik bakar-bakarrik. Are gehiago: liburuak eta liburuak bereizten ditu zentsurak. Ez ditu berdin baloratzen olerkia, eleberria, saioa, ikerketa, eliz liburutxoa. Edozein ortografia edo lexiko ere ez zaio berdin. Bi ortografia bereizten ditu frankismoak: espainiarra eta separatista. Eta bi euskara: tradizionala eta berria.



COPIA DEL INFORME DEL LECTORADO DE LA SECCION DE REGIMEN EDITORIAL SOBRE LA OBRA "HIRU GIZON BAKARKA", de B. GANDIAGA.

El autor del presente libro es el franciscano P. Victoriano Gandiaga, de la Provincia de Cantabria, residente en el Santuario de Aránzazu-Oñate (Guipúzcoa). En el prólogo no tiene reparos en manifestar que escribe sin miedo, rompiendo todos los obstáculos y cadenas de nuestra situación política.

La obra puede dividirse en dos partes: 1º) Una parte poética formalizada como obra teatral, escrita para ser representada. Recuerda la estructura y desarrollo de las tragedias griegas. 2º) Conjunto de poesías, cortadas por el mismo patrón, de ataque al centralismo castellano y a la información de la prensa que no recoge la verdad política del pueblo vasco.

En general quiere resaltarse la condición social y política del pueblo vasco, que lucha entre la vida y la muerte; que quiere ser pueblo y no alcanza a verlo por las trabas que se le ponen. Se rehusan todos los límites razonables de un regionalismo aceptable, convirtiéndose, por el contrario, en un descarado canto político con todos los tintes de separatismo y nacionalismo a ultranza.

Véanse especialmente págs. 9, 11, 18, 19, 21, 25, 27, 37, 43, 44, 65, 66, 71, 78, 79, 94, 98, 115, 133.

Todo lo anterior constituye a nuestro entender figura delictiva por atentarse fundamentalmente contra la integridad del territorio nacional y de la nación española, lo que supone infracción de nuestras Leyes Fundamentales y, consecuentemente, de los artículos 164 bis a) y 165 bis b) del Código Penal, por lo que, de acuerdo con el art. 64 de la vigente Ley de Prensa e Imprenta, el presente depósito no debe ser aceptado, siendo puesto a disposición de la autoridad judicial correspondiente.


18 - 3 - 74

Bitoriano Gandiagaren
"Hiru gizon bakarka" liburuaren zentsura-txostena (1974)

Bi euskara, bai. Bata, tradizionala, jatorra, ahozkoari hurbila, bertsolariena. Ortografia espainolean idazten da hau, betikoan. Halaxe, hitz horiekintxe esaten dute. Bigarren euskara, Sabino Aranak asmatua da, ulertezina, neologismoz betea. Honen ortografia "separatista" da. Kultur hizkuntza eta euskal nazioaren hizkuntza izan nahi omen du honek. Euskara batua "frantsesa" dela ere esaten dute.


Frankismoak ez du inolaz ere onartzen euskararen eta, hortaz, euskal liburuaren egiteko kulturala. Kultur hizkuntzaren monopolioa gaztelaniak du. Ezin hobeto adierazia dago Donostiako "La Voz de España"n (1937): "El peligro para un Imperio es la coexistencia de dos o más idiomas culturales". Euskal argitalpenen funtzio naturala, frankismoarentzat, euskal elebakarrei (hau da, nekazari eta marinel batzuei) zertxobait eskaintzea da, eta kitto.

- Zentsura frankistak urtetan zehar hartu dituen erabakiez fidatuz, onarpen-eskailera bat egin beharko bagenu, honela antolatuko genuke errazenetik zailenera, behetik gora: frankismoaren hizkuntz politikari egokien datorkion euskal liburua erlijio-liburu xumea da, dotrina edo deboziozkoa. Hurrengoa, aurrekoaren ondoan ez urruti, herri-literaturako liburua, bi modutakoa: herri-jakintzaren bilketa, adibidez; eta bertso-liburua.
- Literatura kultoa dator goragoko mailan. Eta honen barruan, olerkia aurretik eta elaberria gero, literatur kreazio tipikoak direla eta. Eta, zailtasun handiagoz, saioa.
- Eskaileraburuan bi liburu-tipo jarriko nituzke, parean beharbada: hiztegiak nahiz gramatikak; eta itzulpenak.
  - Hiztegiak eta gramatikak. Ez ditu maite izan. Pentsatzekoa da zergatik. Liburu-mota honek, izan ere, euskararen eboluzio "naturala", begetatiboa, eragotzi egiten du, hizkuntzaren birproduzioa bilatzen baitu.
  - Eta itzulpenak. Aitortu behar dut ustekabean harrapatu ninduela zentsurak itzulpenekiko erakusten zuen jarrera ezezkorrak. 1962 arte behintzat gogoz kontra onartzen ditu itzulpenak. Jartzen dituzten erreparoak behin eta berriz irakurri-ahala jabetu nintzen arazoaz. Frankismoak euskarari kultur statusa ukatu eta hutsaren pareko kategoria aitortzen baitio, nekez onar dezake itzulpenak hizkuntza minorizatuari eransten dion balio positibo hori. Homologagarritasuna. Bestearen pareko izatea, alegia. Eta, gainera, itzulpenari esker kulturako hizkuntza bezala finkatu ahal izatea. Balio linguistikoa eta status kulturala, biak ukatu dizkio berenez frankismoak euskarari.



Denuntzia gutuna Donostiako Herri Irratiari

Zentsura kontutan luze aritu naiz, badakit. Alferrik ez delakoan nago, garai honetako kultur jarduera balioztatzerakoan ukaezina baita politika administratiboaren baldintza erabakiorra nolabaiteko zehaztasunez ezagutzea. Nonbaiten esanda utzi beharra dago, gero etengabe itzulinguruan ibili beharrik ez izateko.



"Egan" eraberritua, A. Arrue, A. Irigarai eta L. Mitxelenaren zuzendaritzapean

Bi eszenatoki

Gerraostean euskal kultura bitan banatzen da: erbestekoa eta barrukoa.

Barrukoa aipatu dugu arestian. Han esandakoari erants diezaiogun euskaldunak lanak dituela bere herrian bizi ahal izateko. Senperrenak eta bost egiten ditu frankismoak euskara desagertzeko. Aginduz agindu ezabatzen du erregistroetatik, kaleetatik, itsasoetatik, elizetatik, kanposantuetatik. Euskara eta "separatismoa" bat zen.

Galtzaileak, abertzaleak, zertan esanik ez da, aginte-maila guztietatik kanpo daude, aginte politiko, erlijioso, ekonomiko edota kulturaletik.


Frankistek ziren aginte guztiaren jabe. Zerbait egitekotan hauek bakarrik egin zezaketen. Baina itxaron beharra egon da. "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" elkartea hasi zen mugitzen. 1945ean Boletina ateratzen dute, 1948an "Egan" literaturarako eta 1949an "Munibe" natur zientzietarako. Hauek garbi bereizten dute euskara, euskal kultura ("estudios vascos") eta politika ("separatismo").

Euskal erresistentzia, bitartean, lurpean dago, katakunbetan, isil.

Basamortu honetan oasiaren pare izan da 1952an Zarauzko Itxaropena argitaletxeak "Kuliska sorta" liburu-saila martxan jartzea. Itxaropena da urtealdi osoan euskal liburu gehien inprimatu duena, eta zer esanik ez lehen aldian.

Lehen 20 urteetan euskalduna eta, ondorioz, euskara eta euskal kultura, iraupen-fasean dagoela esan daiteke, ekaitza noiz pasako.

Exilioan dago euskal kulturaren beste partea. Martin Ugaldek behin eta berriz azaldu ditu exilioaren datuak. Gerra galtzean 150.000 lagunek, haur eta guzti, ihes egin behar izan zuten. Eta Martin Ugaldek esaten duenez, hauekin batera euskara eta euskal kultura exiliatu ziren. Barruan ez zen giro. Eta desgiroa zen exilioarena. Baina hala eta guztiz ere, etxetik urruti eta baldintza gogorrenetan, ekin zioten lanari. Aldizkariak, inprimategiak eta argitaletxeak sortu zituzten, frankismoak ez zezan lortu asmotan zuena: euskararen eta euskal kulturaren heriotza. Egiten zekitena, egin zuten, alegia, Euskal Herrian egina zutena.



JON ETXAIDE ITARTE (1920)

Jon Etxaide barne esilioan izan da euskaltzale eta idazle. Berak dioenez, "nik, giroa baino desgiroa esango nioke hobeto guk euskal lanari ekin genion denbora tristeari. Euskal giroa formatu beharra zegoen alde guztietan aurkitzen genituen eragozpenak urratuz. Legeak ate guztiak isten zizkigun".

Gerraosteko idazle bikainenetakoa da Jon Etxaide, bai eleberrigile eta bai antzerkigile. Gerraosteko belaunaldiak haren prosarekin gozatu du eta asko ikasi du Euskal Herriaren historia debekatuko gertakari eta pertsonaiez haren eleberri, antzerki eta idazlanei esker.


MARTIN UGALDE ORRADRE (1921)

1936an Francoren altxamentuak sakabanatu zion familia Caracasen osatu ahal izango du 1947an, hamaika urte beranduago. Ameriketako esilioan egiten da Martin Ugalde kazetari eta idazle. Osoki txertatzen da bere bigarren aberrian, euskalduntasunari uko egin gabe.

1969an bere lehen aberrira itzuli da. Etorkizuna prestatzera dator Euskal Herrira, eta ez iraganean bizitzera.

Euskal prentsa Martin Ugalderen presentziaz betea dago. Ehundaka lan idatzi ditu kazetari gisa. Euskal prentsa sortze-lanetan eskuhartu du, Deia-n eta batez ere Euskaldunon Egunkaria-n.


Idazle bezala, idazle venezolarra da eta euskal idazlea, biak bete-betean. Azken urteotan euskal produkzioari emana bizi da. Erdaraz 22 titulu ditu argitaratuak, eta euskaraz 12. Elkarlanean, bestalde, 14 ditu erdaraz eta 6 euskaraz.



1942an, Buenos Airesen, Andrés María Irujo eta Isaak Lopez-Mendizabal Tolosako idazle eta editoreak "Ekin" argitaletxea sortu dute, barruko aurrenari, "Kuliska Sorta"ri, hamar urtetan aurrea hartuz.

Argitaletxe bakarra da hau. Ugari dira, ordea, aldizkariak, bai politikoak eta bai kulturalak. Argitalpenetan arreta berezia merezi dute Joxemiel Barandiaran eta Jokin Zaitegiren lanek.

Exilioa desterrua izan da denentzat. Ipar Euskal Herrian gelditu ziren batzuk izan daitezke salbuespen. Espainiako gerratik ihesi eta handik gutxira mundu-gerra datorkie gainera. III. Reich-a erortzean aliatuen baitan jartzen dute itxaropena, eta zer da eta 1950 inguruan nazioarteko onarpena lortzen du frankismoak. Franco parentesi bat zela uste zutenak konbentzitu ziren orduan beren herrietara itzultzea biharko barik etzirako utzi beharko zutela. Aberri-minez bizi zen abertzale gutxik sinestuko zuen orduan Franco ohean hilko zenik.



Buenos Airesko "Ekin" argitaletxeak kaleratutako Martin Fierro obraren itzulpena

1956ko belaunaldia

Frankismoaren aldi hau bitan banatzen dugu, hogei urte alde batera eta hogei urte bestera.

Hogei urteko ziklo kulturalaren hipotesiarekin nabil bueltaka. Kultur hazaldi bat dirudi. Sortu, talde zein proiektua, eta handik hogei urtera badago sarri halako agortze bat, edo jauzi kualitatibo bat aurrera, edo krisialdian sartzen da, ez dakit. Hogei bat urtetan protagonista gisa eszenategia okupatu ondoren, beste ideia, proiektu edo talde batzuei uzten zaiela lekua ematen du. Eta hurrengo belaunaldia aurrekoaren lehian eta burrukan abiatzen da bere zikloa betetzera.

Esan dezadan pasadan analisi honek determinismo historikotik ez duela ezer. Gizarte-jardueren interpretazio soila da, bestelako pretentsiorik gabe.

Kasu honetan, frankismoaren lehen aldian, gerraurreko jendeak, ideiek, ereduek hartu dute kalea (esateko modu bat da, kalea izan frankistena baita).

1950eko hamarraldian koka daiteke, etena ez bada ere, hausturara eramango duen bidearen abiapuntua. Aldi berriaren zantzuak eta ezaugarrietako batzuk urte horietan irakur daitezke. Sasoi betean agertu, handik 10-15 bat urtera agertuko badira ere. Eta normala da. Uherka zabalean doan ibaiko urak ere gorago, mendi aldean, izan ohi du jaiotza.

1956 urtea bereziki markatzekoa iruditzen zaigu.

1956an, Jose Antonio Agirre lehendakariak deiturik, Parisen bildu zen "Congreso Mundial Vasco" delakoak aldi bat itxi egin nahi du eta berri bat ireki. Itxi nahi duena da kanpotik, exiliotik Espainiako erregimena botatzeko borrokak ordurarte zuen lehentasuna, nazioartean onartua izan baita Franco. Aldi berri baten hasiera ere Pariseko Biltzarrak markatzen du, Euskal Herrian bertan erresistentzia antolatzearena, bertan lan egin beharrarena. Euskalgintza eta kulturgintza estrategikoki bultzatu beharra azpimarratzen da Kongresuan.



Arantzazu



Yakin aldizkaria

Urte berean, Arantzazun, Euskaltzaindiak ospatzen duen gerraosteko lehen Batzarrak ere badu garrantzirik. Euskararen egoeraren diagnostiko beltza egiten da hemen ere. Baina, estrategia diseinatzean, alderdi sozial eta politikoetan barik hizkuntzaren normalizazio linguistiko-kulturalean bilatzen da bidea. Euskara estandar-aren arazoa lexiko-mailan planteatzen da orain, eta hau da euskara batura daraman bidea. Bide nahasia nahi bada, baina Euskaltzaindiaren gidaritza ezin da ahaztu. 1959an euskal hitzei buruz hartu zuen erabakiak bazterrak astindu zituen, bereziki sabindarren haserrea eta Orixerena, bakoitza bere aldetik. Eta gero, 1964an Baionan bildutako idazleek egindako proposamenen arrakastak, 1968an euskara batuaren eredua ofizialki planteatzera eraman zuen Euskaltzaindia, atzera Arantzazun.

Arantzazun baita ere, urte berean eta gainera Euskaltzaindiaren Batzarrerako hain zuzen, "Jakin" aldizkaria sortzen da. "Jakin" da, agian, gerraosteko lehen belaunaldi autonomoaren ibilbidea egokien islatzen duen organoa, 1969 bitartean. Pentsamendu-aldizkaria da, ez literarioa, orduko gehientsuenen antzera; euskara modernizatzean Orixerekin hautsi eta eredu berriak proposatzen ditu; Europako korronteetara begira jartzen da.


Ikastolen Elkartea

Gaur egungo ikastolen mugimenduaren loratzea 1960ko hamarkadan gertatu zen, baina askoz lehenagokoa da lehenengo ikastolen sorrera, 1914. urtean sortu baitzen lehenengoa: Donostiako Koruko Andre Mariaren ikastola. Honen atzetik etorri ziren 1920ko hamarkadan eta 1930ko hamarkadaren hasieran, Tolosa, Errenteria, Soraluze, Bergara, Oñati, Segura, Irun, Arrasate, Andoain, Iruñea eta Lizarrako ikastolak. 1932an Eusko Ikastola Batza sortu zen Bilbon. Gerra zibilaren eta frankismoaren etorrerarekin batera, ordea, itxi egin zuten guztiek.

Hurrengo ikastola Elbira Zipitria irakasleak sortu zuen 1944an, Donostiako bere etxean, eta 1950eko hamarkadan Donostiako beste andereño batzuk Zipitriaren ereduari jarraitu zioten. Hurrengo hamarkadan Hego Euskal Herri osora zabaldu zen ikastolen mugimendua, eta 1970ean legeztapena lortu zuten.

Iparraldeko lehenengo ikastolaren (Baiona) sorrerarekin batera sortu zen, 1969an, Seaska erakundea. Gipuzkoako ikastolek urte berean sortu zuten elkarlan, eta hurrengo urtetan oratu ziren Arabako Ikastolen Elkartea (1974), Nafarroakoa (1976) eta Bizkaikoa (1977). Elkarte hauek guztiak Ikastolen Konfederazioan bildu ziren 1988an.

Elkarte bakoitzak herrialdeko ikastolen aldeko jaia antolatu ohi du urtero: Gipuzkoakoak «Kilometroak» 1977tik aurrera, Bizkaikoak «Ibilaldia» 1978tik, Arabakoak «Araba Euskaraz» 1980tik, Nafarroakoak «Nafarroa Oinez» 1981tik eta Seaskak «Herri Urrats» 1984tik.



Euskal Autonomi Elkarteko ikastolek «eskola publiko ez estatalen» onarpena jaso zuten 1980an. 1983ko abuztuan Eusko Jaurlaritzak, Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza sailburu zela, ikastolentzat sare berezia eratzeko proiektua egin zuen EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) legearekin, baina ez zuen aurrera egin. Madrileko Gobernuak errekurtsoa jarri zion Konstituzioaren aurkakoa zelakoan eta ikastola asko ere proiektuaren aurka agertu ziren —Euskal Eskola Publikoaren alde (EEPA) plataforman bildu ziren aurkakoak—.


1992ko urrian, Fernando Buesa Hezkuntza sailburu zela, ikastolen konfluentzia bideratuko zuten bi lege onartu zituen Eusko Legebiltzarrak: Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Irakaslego Ez Unibertsitarioaren Legea. 1993ko maiatzaren 25a baino lehen sare publikoan integratu edo pribatu gelditu erabaki behar zutela adierazi zitzaien ikastolei.

Eztabaida gogor eta askotan mingarrien ondoren, EAEko 63 ikastola sare pribatuan gelditu ziren, 42 sare publikora pasa ziren eta beste bederatzi erabakia hartzeke zeuden, Ikastolen Elkarteak 1993ko maiatzaren bukaeran emandako datuen arabera. Auzia epaitegietara ere eraman zuten zenbait ikastolek eta gaztaka batzuk ikastola banatuz konpondu dira azkenean: Azpeitiako Izarraizpe eta Leioako Gobela, esate baterako.

Dena den, Ikastolen Elkartean ez da hausturarik gertatu, eta ikastola guztiak, sare batekoak zein bestekoak, bertan biltzen dira. Publifikatutako ikastolek Ikasbatuaz elkartea sortu zuten 1995ko urrian, baina Ikastolen Elkarteko kide izateari eutsiz.

Seaska kultur elkarte gisa aintzakotzat hartua izan zen 1982an, 1989an Iparraldeko ikastolek lehenengo dirulaguntza publikoak jaso zituzten eta 1995an, Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin akordioa sinatu zutenetik, Seaskaren ikastolek ezagutza ofiziala dute eta maila guztietako ikastetxeek jasotzen dute dirulaguntza.

Nafarroako ikastolek ikastetxe pribatu hitzartuaren tratamendua jasotzen dute Nafarroako Gobernuarengandik.



Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"ren "Leturiaren egunkari ezkutua" (1957)

1950eko hamarkada honetan politikan Parisekoa, kulturan eta hizkuntzan Arantzazukoa baino gertakari askoz gehiago ere mamitu dira. Gogora ditzagun, zerrenda agortzeko asmorik gabe, Bilboko hiru greba gogorrak (1947, 1951, 1953), aldizkarietan "Euskera" (1956), "Karmel" (1950) eta "Anaitasuna"-ren (1953) jaiotzak, literaturan "Leturiaren egunkari ezkutua" (1957).

Kuestioa da hamarkada horretan gerora hainbat eta hainbat alorretan protagonismoa eta/edo eragina izango duen belaunaldi berria plazaratzen ari dela. Eta belaunaldi horrek badituela ezaugarri propio batzuk, frankismoaldi osoa besarkatzen dutenak. Gaur egungo begiragunetik ikusita arruntak diruditen hainbat emaitza, lorpenak izan dira belaunaldi harentzat.

Ezaugarri horiek seinalatzea interesatzen zait orain.

- Gazte-jendea da, gerran parte hartu gabea. Ez du gerraren traumarik, baina ezta ere gerraurreko kulturgintzaren informaziorik. Hausturajarrera du, gainera. Autonomo gisa ikusten du bere burua, ez du gerraurreko eredurik maite, ez hizkuntzaren aldetik (aranismoa) eta ezta kulturgintzaren aldetik ere. Lizardi eta gutxi gehiago salbatzen ditu literaturan. Tradizioaren berreskurapena planteatzen denean hizkuntz kezkak dira nagusi, eta historian salto handi bat eginaz Leizarraga edo Axular-enganaino doa, aurreko belaunaldia arbuiatuz. Aranismoa noski, baina baita ere Azkueren "gipuzkera osotua", eta berdin Orixe.

  Oraintsu baretu bide da giroa eta garai guzti hori aztertu eta berreskuratzeko jarrera indartu da, hala nola, Aitzol, Orixe, Lauaxeta, Lizardi.

- Ikasleak dira, lehen orduan Seminarioetakoak eta gero Unibertsitatekoak. Seminarioetan jaio dira kezkak eta gero handik kanpoko ekintzatan edo ikasketa jasoagotan gorputz hartu dute. 1970 inguruan agertu den pentsamendu-liburu gehienen egileak seminarioetatik paseak dira, eta Unibertsitatean estudioak burutu dituztenak.

  Artean unibertsitatea erdalduna zen oso. 1952an sortu zen "Ekin" taldeaz aparte urte inguru horietan ezer gutxi dago. Unibertsitate pribatu edo publikoetako ikasleen talde eta mintegiak 1970etik aurrerakoak dira.

- Militanteak dira. Belaunaldi honen emaitza asko legearekin borrokan sortu dira. Erakunde frankistatan tokirik ez, lege-babesik gabe jarri dira martxan. Elizak aterbea eman die elkarte, talde eta mugimendu askori, eta horri eskerrak egin ahal izan dituzte lehen urratsak, bere kasa funtzionatzen hasi bitartekoak. Kasu horretan daude,

noski, Hego Euskal Herriko aldizkari ia guztiak, adibidez; argitaletxe dezente; eta kasurik nabarmenena, ikastolak aurrenaldian.

Juridikoki eskas, hortaz, eta ekonomikoki eta azpiegitura aldetik beste hainbeste. Abertzale euskaltzale gutxi-gutxi batzuen diru-laguntza kendu, eta beste guztia doan egina izan da eta/edo herritar euskaltzalearen bizkar. Enpresa-munduak, industriak, ekonomiak ez du parte hartu euskal kulturaren garapenean.

Mezenasgoa seriotan hartuta zer den ez du ezagutu belaunaldi honek. Erakundeak euskararen alde jardutea ere oso berandu, Eusko Jaurlaritzarekin.

- Belaunaldi honen kontzeptu orohartzaileak hitz giltzarri bat du: herrigintza. Horren azpian, atal gisa, kabitzen dira politika, gizarte-arazoa, kultura, hezkuntza, hizkuntza, literatura.

Lehen unean, 1950-1960ko hamarralditan, beti ere nahikoa nahasirik egon badira zer esanik ez orduan, jarduera hauek guztiak bat eta bera ematen zuten. Dibertsifikatuz, diferentziatuz, elkarrengandik bereiziz, autonomizatuz joan dira gerora, asko kostata, eta ez denak batera.


Xehetasunetan sartu gabe esan dezagun 1960ko hamarkadaren azken partean eta 1970eko hamarkadaren lehen aldian gauzatzen dela jarduera desberdinen arteko bereizketa, eta bakoitzak bere bide propioari heltzea. Ez da kolpe batean gertatu, noski. Borroka politikoak ETAren inguruan desarroilatzen du bere bidea. Ikastolak federazio gisa elkartzen dira. Hizkuntzaren normalizazioa Euskaltzaindiaren gidaritzapean bideratzen da.

Euskaltzaindiaren babespean gelditzen da, artean, Alfabetatzearen eta Euskalduntzearen alorra, bere oin propioez ibiltzen hasi arte. Eta berdin Bertsolaritzaren antolamendua.

Euskal Unibertsitateak beranduago du sorrera, 1973ko udan, eta geroztik bere bide propioa egin du.


Prozesu honen bukaeran eremuak, jarduerak, jokamoldeak askoz ere argiago eta egituratuago daude hasieran baino, zertan esanik ez da.

Laburbilduz esanda, belaunaldi berriaren betekizun historikoa euskarari maila eta esparru guztiak ematean datza: eskolatik unibertsitatera, literaturatik zientziara, tradiziotik korronte berrienetara. Bere kasa hazi eta hezi den belaunaldia da, bere maisu propioak hautatu dituena, ortodoxia politiko, erlijioso zein ideologikoari aurrez aurre heterodoxia kontrajarri diona, euskal kultura euskaraz definitu duena, arazo nazionala eta soziala teorian eta praktikan uztartu dituena, erakundeetatik aparte-




"Euskera" aldizkariaren 1. alea


LIBURU-PRODUKZIOA 1936-1975



Lehen argitalpenak eta berrargitalpenak



Jatorrizkoa eta itzulpena





75
.733
1956-1975
Liburu-produkzioa 1.455
6 31 44 29 27 35 44 48 52 60 65 69 93 99 98 97 108 102 117 201
56 1957 1958 1959 1960 1961 1962 1963 1964 1965 1966 1967 1968 1969 1970 1971 1972 1973 1974 1975
.626
107
1936-1955
Lehen argitalpena 252
Berrargitalpena 26
6 28 3 40 4 26 3 25 2 35 2 46 0 46 3 50 3 57 4 58 9 65 7 87 6 95 5 91 8 94 3 105 4 102 1 119 6 197 5
56 1957 1958 1959 1960 1961 1962 1963 1964 1965 1966 1967 1968 1969 1970 1971 1972 1973 1974 1975
47
1956-1975
Jatorrizkoa 1.092
Itzulpena 363
8 21 10 34 10 22 7 22 5 33 4 38 8 37 12 39 14 54 7 50 17 59 13 57 36 70 30 78 21 72 25 79 30 88 15 97 28 138 64
56 1957 1958 1959 1960 1961 1962 1963 1964 1965 1966 1967 1968 1969 1970 1971 1972 1973 1974 1975

← aurreko 2 or.

Francoren garaiko 40 urteak banan bana ematen ditugu, bi urte-multzo bereiztuz: 1956 aurrekoa eta ondokoa.
Francok euskal kulturan egin duen sarraskiaren berri lehen hogei edo 30 urteek ematen dute.
Francoren aurreko hogei urteetan 593 liburu atera ziren. Eta Francoren garaiko lehen hogei urteetan 278 liburu, erdia ere ez.
• Lehen grafikoan ikusten da 60ko hamarkadaren azken urteetan indartzen dela pittin bat produkzioa.
• Bigarren grafikoan zera ageri da, lehen edizioaren presentzia ia absolutua. Berrargitarapena % 6 bakarrik da.
• Hirugarren grafikoan jatorrizko eta itzulitako liburuen arteko erlazioa dator. Guztira lautik bat pasatxo da itzulpena. Ikusten da, baita ere, hazkundearen lagungarri izan dela itzulpena 60ko hamarkadaren bukaera aldera.

ko bere organoak sortu dituena, lege-babesik gabe urte luzetan lanean jardun izan dena.

Urte hauetan sortu eta indartu diren proiektuetako emaitzen balantzea positiboa da oso. 1970en bueltan izan dute loraldia. Aipa ditzagun puntakoenak:



Ez dok amairu. Jaialdi baterako kartela

- Bertsolaritza goiztiar mugitu zen, 1960an ospatu baitzuen Euskal Herriko Txapelketa. Presentzia sozial dezentea izan zuen hurrengo urteetan plazaz plaza. Baina 1968tik aurrera jo zuen gailurra "bertsolaritza sozio-politikoa" deitzen denaren bidetik.
- Kantagintzaren hastapenak 1962an jar ditzakegu, Mixel Labegerieren kantuak izan baitziren tonua eman zutenak. 1965ean sortzen da "Ez dok amairu" eta, ondotik, askoz ere talde gehiago. Frankismoaren azken urteetan mitin politikoen gabezia kantagintzak ordezkatu zuen.
- Ikastolen mugimendua 60ko hamarkadan abiatzen da Gipuzkoan eta Bizkaian eta 70eko lehen bosturtealdian Nafarroan eta Araban. Hazkunde miragarria izan dute urte gutxitan: 1960ko 60 ikasleak 53.268 dira 1978-79 ikasturtean. Frankismo garaiko herri-ekimenaren lorpenik arrakastatsuena ikastolek erdietsi dute.
- Alfabetatze eta Euskalduntzea 1966an sortu zuen Euskaltzaindiak, "Jarrai" antzerki-taldearen eskariari erantzunez. Inork ez du zalantzan jartzen, dena den, Rikardo Arregi izan zela lehen faseko gidaria. Krisi, zatiketa eta guzti, aurrera egin du beti mugimendu honek, alfabetatzea *abc* baino gehiago dela erakutsiz.
- Aldizkarien muga legalak aipatu ditugu arestian. Horien barruan bai, baina beti ertzean, zigorrak leporatuz egin dute (gurutz)bidea, besteak beste, informazioan "Anaitasuna" (1953), "Zeruko Argia" (1954) eta "Goiz Argi"-k (1958); kulturan "Jakin" (1956), "Karmel" (1950); literaturan "Egan" (1948) eta "Olerti"-k (1959). Zentsurapetik kanpo jokatu dute "Igela" (1962) eta "Zabal"-ek (1973).
- Argitaletxeen urre-garaia 1970aren jira-biran da. Aurretik tantaka-tantaka sortuz joan dira, euskara hutsean bat bakarra ("Auspoa", 1961); eta bi hizkuntzatan lan eginez "Itxaropena-Kuliska Sorta"

(1952), "Auñamendi" (1962), "La Gran Enciclopedia Vasca" (1967), "Txertoa" (1968).

Beste tankera batekoak dira hurrengo argitaletxeak: euskara hutsean produzitzen dute, euskara eremu berrietan egiaztatzen dute, lantalde baten proiektu dira. Horietakoak dira: "Gordailu" (1969), "Lur" (1969), "Etor" (1970), "Irakur Sail" (1970), "Jakin" (1971), "Iker" (1972), "Gero" (1973), "Elkar" (1973). Hauei zor zaie garai honetako produkzioan nabarmentzen den jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa.



Rikardo Arregi

Liburu-politika

Jakin-ek, 1969ko lehen zenbakian, euskal kulturari buruzko editorial bat ematen du. Euskal kulturgintzako alor gehientxoenei errepasoa jotzen zaie. Editorial horrek kontzeptu giltzarri bat du, planifikazioa.


Eskema bitarikoarekin operatzen du editorialak. Alde batean gaitzak. Eta irtenbideak bestean. Euskal kulturgintzaren gaitzen zerrendan sartzen dira espontaneismoa, amateurismoa, folklorismoa. Horien antidoto gisa aurkezten dira eraldaketa, eraberritzea, iraultza. Nola? Programak, planifikazioa, koordinazio egituratua, profesionalismoa, "kuadroak" dira soluziorako bideak. Zehaztasunetara jaitsiz, proposamen hauek egiten ditu: Euskaltzaindiaren birmoldaketa, idazleen koordinazioa eta profesionaltzea, irakaskuntzaren planifikazio orokorra, argitaletxeetako liburu-politikaren programaketa.

Politika editorialari dagokion kapituluan, euskarazko liburuarekiko hutsunea salatzen du, kultur gai guztietaz liburuak ateratzeko ordua dela aldarrikatzen du. Batasun ortografikoa eta terminologikoa eskatzen du. Plangintza horren xedeetan ikastola, alfabetatzea eta unibertsitatea kokatzen ditu.

Hilabete batzuk beranduago, "Lur" argitaletxearen sorrera-puntuan hain zuzen, Rikardo Arregik editorialgintzari dagokion puntu hau garatzen du hitzaldi batean (*Politikaren atarian*, 1969).

Egoeraren diagnosian gorago aipaturiko akatsak ageri dira: espontaneismoa (euskal liburuaren politikarik eza, pasibokeria, segidismoa), argitaletxearen kultur erakarmenik eza, irakurle berriekiko axolagabekeria, ohizko merkatuaren saturazioa (idazleen aldetik, gaien aldetik eta irakurleen aldetik).

"Espezializazioak gerorako utziz", dio berak, hiru sail proposatzen ditu: "1) Kulturaren dibulgaziozko oinarrizko liburuak (...), zientziaren eta kulturaren gai guztiei buruzko liburu-sorta informe-ekarle bat. 2) Itzulpen eta saiakera laburrak. Tendentzia desberdinetako baina inpor-



"Genio y Lengua" liburua (1936)


tantzia handiko autoreak traduzitu beharko ditugu. 3) Literatur kreazio hutsezko obrak (...). Hierarkiaz hirugarren leku bat okupatuko du sail honek gure programazioetan".

Rikardo Arregiren proposamen-sail honek ongi adierazten du belaunaldi berriaren konpromiso nagusia, hau da, kultura modernoa eta jasoa lantzea. Rikardok Frantziako "¿Que-sais-je?" bilduma zuen gogoan.

Esanguratsu da plangintza horretan literaturgintzari eskaintzen zaion hirugarren lekua.

Nago plangintza hau ez luketela sinatuko ez aurreko belaunaldiak eta ez gerokoak. Literatura da hain zuzen hauen lehentasuna.

Eta aurreko belaunaldiarena? Ez luketela sinatuko esan dut, baina ez dakit. Luis Eleizalde batek baliteke baietza ematea. Baina Aitzolen belaunaldiak ez dut uste. *Ibar* batek seguru ezetz. Honek (*Genio y Lengua*, 1936) bestelako lehentasun-mailaketa bat egiten du liburugintza programatzeko orduan. Hona gehien landu behar diren generoak: erlijiozko literatura; herri-olerkia edo bertsolaritza; antzerkia; eleberri laburra; eta zientzi dibulgazioa.



Aurreko urtealdiko balio berdintsuetan segitzen du inprimaketaren kokapen geografikoak: Hegoaldea nagusi, honen barruan Gipuzkoa. Nafarroa eta Arabaren proportzioak ere lehengo berdintsuak dira.

Atzerriko produkzioak pittin bat gora egin du, diasporari esker.

Literatura dator aurrena bietan, frankismoaren aurretik eta ondotik. Frankismo garaikoan ez.

Argitaraguneak

Aurreko urtealdikoaren nahiko kopia ematen du honek. Euskal liburugintzaren argitaratze-fenomenoa Hegoaldekoa da eta, zehazki, gipuzkoarra. Lautik ia hiru liburu Hegoaldean ateratzen dira eta hauen erdiak baino gehiago Gipuzkoako lurretan.

Xehetasunera joz gero ikusten da Euskal Herritik kanpoko argitaletxeen artean dagoela dagoen aldaketatxoa. Frantziak sekula baino euskal liburu gutxiago atera du oraingoan. XVII. mendean baino gutxiago. Espainiak, aldiz, bikoiztu egin du bolumena frankismo garaian. Esplikazioa ez da frankismoak Estatuan zehar euskarazko liburuaren interesa bultzatu duela, ez. Azken orduko interes komertzialetan dago esplikazioa, alegia, ikastolek irekitako merkatuan sartu direla Espainiako eta Catalunyako editore batzuk.

Atzerriak, Frantzia eta Espainia gabe ulertuta, bikoiztu egin du produkzioa. Zalantzarik gabe, euskal diasporaren emaitzak dira hauek.



Itxaropena argitaletxeak kaleratu zuen "Kuliska sorta" bildumaren ikurra


Argitalpen-lana

Euskal argitaletxe aktiboenen artean ez da gerraurrekorik, salbu bat: Auñamendi. Francoren altxamenduaren aurretik "Beñat Idaztiak" (Zabalkunde bilduma, 1934) zuen izena. Argitaratzaile berriak dira, hortaz.

Berri izateak beste gauza askoren artean esan nahi du ofizioa ez dutela ezagutzen, enpresa-tradizioa, famili tradiziorik ez dagoela.

Bai, tradizio indartsua puskatu du gerrak. Gerraurreko enpresa editoriala bete-betean zegoen garai hartan. Gogora ditzagun: Mendizabal, Martin y Mena, Elosu, Verdes Atxirika, Baroja, besteak beste. Eta etenak eragotzi duena da urtetan pilaturiko jakituria hori, "savoir faire" hori transmititzea, ofizioaren eta merkatuaren ezagumendua transmititzea. Hitz batean, profesionaltasuna.

Gerraosteko euskal editorialgintzan zerotik hasten ari den errealitate baten aztarna guztiak daude begien bistan. Lehen hamar handienen artean sei, erlijiosoen eskuetan daude orain. Lehen ez zen hori gertatzen Mendizabal, Elosu, Baroja eta konpainiarekin. Ahuleziaren beste zeinu bat zera da, alegia, lehen hamar horien artean 1970 inguruan hasiberri diren lau daudela. Editore izatea ez da ofizio bat orain, Itxaropena, Au-



Bernardo Estornes Lasa

ALDIZKARIAK

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Diario Oficial del País Vasco-Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa	1936	1937	Egunkaria
Euzko-Deya	1936	1940	Hiruan behin
Gudari	1936	1937	Astekaria
Ereintza	1936	1937	Hilabet.; hamabost.
Erri	1937	1937	Astekaria
Espetxean	1937	1941	Irregularra
Espetxean	1937	1938	Irregularra
Gudari	1937	1937	Astekaria
Eguna	1937-01-01	1937-06-13	Egunkaria
Anayak	1939-01-	1939-04-	Bihilabetekaria
Euzko-Enda	1939	1940-03-	Hilabetekaria
Gure Almanaka	1940		Urtekaria
Batasuna	1941	1942	Hilabetekaria
Aintzina	1942	1945	Hilabetekaria
Euzkadi	1943	1949	Hilabetekaria
Herria	1944		Astekaria
Anaitasuna (Gipuzkerazkoa)	1945	1975	Hilabetekaria
Azkatasuna	1945	1953	Hamabostekaria
Argia	1946	1948	Hilabetekaria
Etchea	1947	1975	Hilabetekaria
Eusko Folklore	1947	1975	
Eusko Jakintza	1947	1958	Bihilabetekaria
Euzkadi Roja	1947	1955	Irregularra
Gazte	1947	1963	Hilabetekaria
Oiarzuna	1947		Hilabetekaria
Egan	1948		Hiruhilabetekaria
Elgar	1948	1975	Hilabetekaria
Euzko Gaztedi	1948	1974	Hilabetekaria
Gernika	1948-	1953-	Hiruhilabetekaria
Eutsi	1949	1953	Irregularra
Euzko Gogoa	1949	1959	Bihilabetekaria
Egiz	1950	1952	Hilabetekaria
Gure Herria	1950		Bihilabetekaria
Karmel	1950		Bihilabetekaria
Karmen'go Amaren Egutegia	1950		Urtekaria
Pottolo	1950		
Euskera	1953		Irregularra
Anaitasuna (Bizkaia)	1953	1982	Hilabet.; hamabost.
Anuario del Seminario de Filología Vasca J. Urquijo	1954		Urtekaria
Egi-Billa	1954	1961	Hilabetekaria
Euskaltzaleak	1954	1960	Bihilabetekaria

1936-1975

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Ofiziala		Euzko Jaurlaritza	Bilbo
Informatiboa, politikoa	Felipe Urcola	Euzko Jaurlaritza	Paris
Politikoa		Euzko-Gudarostea	Bilbo
Nekazarientzakoa, ofiziala	Bernabe Orbegozo	Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Saila	Bilbo
Politikoa		Euskadiko Alderdi Komunista	Bilbo
Politikoa		Presoak	Bilbo, Burgos
		Larrinagako preso abertzaleak	Bilbo
Politikoa	Estepan Urkiaga "Lauaxeta"	Euzko Gudarostea	Bilbo
Informatiboa	Manu Ziarsolo	Eusko Alderdi Jeltzalea-Eusko Jaurlaritza	Bilbo
Erlijiosoa	Zirilo Arzubiaga (?)	Hego Euskal Herritik erbesteratutako apaizak	Paris
Kulturala, politikoa	L. Bodion (Kudeatzailea)	Erbesteratutako euskaldunak	Angelu
Kulturala	Pierre Laffitte	Herria	Baiona
Politiko-kulturala	Bernardo Estornés Lasa	Estornés Lasa, Bernardo	Santiago de Chile
Kulturala	Marc Legasse / A. Ospital	Imprimerie La Presse	Donibane Lohizune
Politikoa	Simón Ciriano Santamaría	Euzko Alderdi Jeltzalea	Santiago de Chile
Informatiboa, kulturala	Pierre Lafitte		Baiona
Erlijiosoa	Eugenio Agirretxe	Frantziskotarrak	Tolosa
Politikoa	Juan Sarasua	Euzko Gaztedi	Donibane Lohizune
Politikoa	Juan Oñatibia / A. Arozena	EAJ (?)	Caracas, New York
Informatiboa	P. Lahetjuzan	Imprimerie Darracq	Baiona
Kulturala	Joxemiel Barandiaran		Baiona, Donostia
Kulturala	Joxemiel Barandiaran	Gernika Bazkuna	Baiona
Politikoa		Alderdi Komunista	Toulouse
Politikoa	R. Idiéder	Imprimerie Le Courrier, Baiona	Baiona
Informatiboa; erlijiosoa			Baiona
Kulturala	Luis Mitxelena/ Antonio Arrue / Aingeru Irigarai	R.S.B.A.P.	Donostia
Politikoa, kulturala	P. Dargaignaratz	Eskualzaleen Biltzarra	Paris
Politikoa	Arozamena / Ugalde / Leizaola	Euzko Gaztedi	Caracas
Kulturala, politikoa		Gernika Bazkuna	Donibane Lohizune
Politikoa		Euzko Gaztedi	Paris
Kulturala	Jokin Zaitegi	Jokin Zaitegi	Guatemala, Baiona
Erlijiosoa		Euskadiko Apaiz Euskaldunak	Paris
Kulturala	L. Dassance / M. St. Pierre	Gure Herria Elkartea	Baiona
Erlijiosoa		Zornotzako Karmeldarrak	Zornotza
Egutegia	Karmeldarrak	Patxi Unzurrunzaga	Zarautz
Haurrentzakoa	M. Legasse / Pierre Landaburu	Herria astekaria	Baiona
Kulturala	Seber Altube	Euskaltzaindia	Bilbo
Kulturala	Imanol Berriatua, etab.	Frantziskotarrak	Arantzazu; Bilbo
Kulturala	Luis Mitxelena / M. Agud	R.S.B.A.P.	Donostia
Erlijiosoa		Euskadiko Apaizak	Paris
Kulturala	Iñaki Azpiazu	Buenos Aireseko Euskaltzaleak	Buenos Aires

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Luberri	1954	1955	Hilabetekaria
Othoizlari	1954	1988	Hiruhilabetekaria
Sor Lekua	1954	1955	
Zeruko Argia	1954		Hilabetekaria
Artzai-Deia	1955		Hilabetekaria
Elkartasuna	1955		
Irun da Ondarribiko Kaputxinoen Irugarren Ordenako	1955		
Izaskun	1955		
La Voz de la Madre	1955		Hilabetekaria
Nora?	1955	1960	Hilabetekaria
Redención	1955		Hilabetekaria
Anuario de Eusko Folklore	1956	1978	Urtekaria
Baskonia, La	1956	1958	Urtekaria
Ekin	1956	1960	Irregularra
Jakin	1956	1969	Hiruhilabetekaria
Ondarrabi'ko Izparrak	1956	1959	Hilabetekaria
Tierra Vasca-Eusko Lurra	1956	1975	Hilabetekaria
Zeutzat	1956	1959	Hilabetekaria
Euzkadi Obrera	1957	1977	Hilabetekaria
Gure Erria	1957	1984	Hilabetekaria
Ikasi	1957	1958	Hilabetekaria (?)
Goiz Argi	1958		Hilabet., hamabost.
Irrintzi	1958	1962	
Arnas	1959	1967	Irregularra
Euzko Etxea	1959	1960	Hilabetekaria
Laiaketan	1959	1969	Irregularra
Olerti	1959	1969	Hiruhilabetekaria
Sirimiri Zornozano (Irrintzi Zornozano)	1959	1962	Hilabetekaria
Umeen Deia	1959	1965	Irregularra
Enbata	1960		Hilabet.; Astekaria
Erein	1960	1967	Irregularra
Lartaun	1960	1962	Hiruhilabetekaria
Pan-Pin	1960		Hilabetekaria
Nere laguna	1961	1963	
Gudari	1961	1974	
Azkatasuna	1961		
Azkatasuna	1962	1963	Irregularra
Igela	1962		
Bidez	1963	1968	Irregularra
Lan Deya	1963		Hilabetekaria
Ondarroa	1963		
Boletín Informativo del Banco de Vizcaya	1964	1969	Hilabetekaria
Kili-Kili	1964		
Arragoa	1964	1967	Seilabetekaria
Jaunaren Deia	1964		Hiruhilabetekaria
Gazte	1965	1972	Bihilabetekaria
Guerediaga	1965		Hilabet.; bihilabet.
Gogoz	1965-01-	1965-02-	
Indar-Berri	1965		

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Nekazarientzakoa		R.S.B.A.P.	Donostia
Erlijiosoa	Xabier Diharce	Beneditarrak	Belloc
			Baiona
Erlijiosoa	Bonifacio Beizama	Kaputxinoak	Iruñea
Erlijiosoa	Bonabentura Oyeregi	Lekarotzeko kaputxinoak	Lekarotz
Erlijiosoa		Arizkuneko Asociación de la Caridad	Arizkun
Erlijiosoa	Karlos Argala	Hondarribiko Kaputxinoak	Hondarribia
Herrikoa			Tolosa
Erlijiosoa		Donostiako Santa Maria Parrokia	Donostia
Erlijiosoa		Irungo Salletarrak	Irun
Erlijiosoa		Deustuko Pasiotarrak	Deustu
Kulturala	Joxemiel Barandiaran	Aranzadi Elkartea	Euskal Herria
Politikoa			Buenos Aires
Erlijiosoa	Xabier Arzalluz	Jesuitak	Loiola
Kulturala		Arantzazuko Ikasleak	Arantzazu
Herrikoa, erlijiosoa	Joseba Ormazabal	Ormazabal, Joseba	Hondarribia
Politikoa	José Olivares Larrondo	ANV	Buenos Aires
Herrikoa			Mendexa
Politikoa		Alderdi Komunista	Bilbo, París
Herrikoa			Etxebarria-Barinaga
Politiko, kulturala		Euzko Gaztedi	Euskal Herria
Nekazarientzakoa		Frantziskotarrak	Arantzazu
Politikoa	Fdez. Etxebarria	Frente Nacional Vasco	Caracas
Erlijiosoa		Villaroko Sakramentinoak	Areatza
Politikoa		Eusko Jaurlaritza	Santiago de Chile
Erlijiosoa		Urretxuko Pasiotar Gazteak	Urretxu
Kulturala	Santi Onaindia	Zornotzako Karmeldarrak	Zornotza
Erlijiosoa	Arrieta	Zornotzako Juventud Parroquial	Zornotza
Haurrentzakoa	Felipe Murieta	Murieta, Felipe de	Iruñea
Politikoa	Simon Haran	Enbata	Baiona
Gaztedia		Laterandar ikasleak	Oñati
Kulturala	Ignacio Rivera Aguirrezabala	Kultur eta Kirol Elkartea Oiartzun	Errenteria
Umeentzakoa		Zeruko Argia	Hondarribia
Erlijiosoa			Urnieta
Politikoa		EGI	Caracas
Politikoa		EGI	
Politikoa			Caracas
	Jon Mirande / Txomin Peillen	J. Mirande	Paris
Erlijiosoa		Pasiotarrak	Euba
Sindikala		ELA	Biarritz
Parrokiako		Parrokia. Ondarroa	Ondarroa
Ekonomia		Bizkaiko Banketxea	Bilbo
Umeentzakoa		Asociación Euskerazaleak	Bilbo
Politikoa		PCE-Euskadi	
Teologikoa	Markos Amundarain	Beneditarrak	Lazkao
Gaztedia; politikoa		Herri-Gaztedi	Donostia
Kulturala; Herrikoa.	Mª Concepción Astola / Miguel A. Astiz	Gerediaga Elkartea	Durango
Ikasletza		Karmeldarrak	Bilbo
Politikoa		MDB (Mouvement Démocrate Basque)	Baiona

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Euzko Aberri Alkartasuna / Frente Nacional Vasco	1966	1968	
Jarrai	1966		
Príncipe de Viana	1966	1983	Hilabetekaria
Goazen	1966 (?)		
Branka	1966	1971	Seilabet.; Irregularra
La patria, el mundo y nosotros	1966		
Irazkintza	1966	1967	Bihilabetekaria
Baserria (Lugintza)	1967	1969	Hilabet.;Hamabost.
Ikasle	1967	1969-04-	
Kemen	1967		Seihilabetekaria
Zutik Berriak	1967	1969	*Hilabetekaria*
Eman	1967-01-	1967-08-	
Aitziber	1967		
Berri-Bide	1968	1969	
Biga	1968	1979	Hilabet.; Bihilabet.; Hiruhilabetekaria
Euskerazaleak	1968		
Iraultza!	1968		
Lagunt eta Maita	1968		Hiruhilabetekaria
Aurrera	1968		
Kuku	1968		
Gora!	1969	1972	Hilabet.; Irregularra
Komunistak	1969	1972	Hilabetekaria
Sue	1969		
"Etxeko Jaun"en Alkartasuna	1969 (?)		
Anai-Artea	1969 (?)		
B.A.I.	1969-		
Bilatzen	1969-11-		Hilabetekaria
Gudaldi	1969-12-	1970	Hiruhilabetekaria
Berriak	1970	1973-08-	Hilabetekaria
Euskal Elkargoa	1970	1976	
Euzkadi'ko Egiak	1970	1971	
Gurelesa	1970		Hiruhilabetekaria
Ikastolako Aldizkaria	1970	1974	
Zer egin?	1970		Hilabetekaria
Sabindarra	1970	1974	Hilabetekaria
Bertzetan	1970		
Elkarketa-ELA/STV	1970		
Agur	1970	1975	Hilabet.; Hamabost.; Astekaria
Dantzariak	1970		*Urtekaria*
Saioak	1970	1971	Irregularra
Gatazka	1970	1973	
Lan Deya	1971	1973	Hilabet.; Bihilabet.
Zutik	1971		Hiruhilabetekaria
Euzkorria	1971	1972	Irregularra
Guipuzcoa Obrera	1971		
Burruka	1971		Irregularra

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Politikoa	Manuel Fernández Etxebarria	"Aberriakoak"	Caracas
Gaztedia		Irimotar Gaztedia	Zumarraga
Kulturala		Institución Príncipe de Viana	Iruñea
Politikoa		ETA	Caracas
Politikoa			Bélgica. Angelu
Politikoa		EAJ	Mexiko
Irazkintza	Karmel Urtubia		Baiona
Nekazala		Lugintza	Bilbo
Politikoa; Ikasleentzakoa			Baiona
Politikoa		ETA	Euskal Herria
Politikoa		Organo de ETA-V	Euskal Herria
Kulturala	Francisco G. Mardones	Andima Ibiñagabeitia	Caracas
Gazteria		Urdiaingo gaztedia	Urdiain
Politikoa			Donostia
Gaztedia		Association laique des jeunes basques de Paris	Paris
Kulturala		Euskerazaleak	Bilbo
Politikoa		ETA	Bruselas
Kulturala		Amicale des basques de Pau	Pabe
Kulturala		Karmel	Amorebieta
Kulturala		Gernikako Ikastola	Gernika
Politikoa		MC	Euskal Herria
Politikoa		MC	Euskal Herria
Politikoa		EGI	Euskal Herria
Politikoa			Caracas
Politikoa		Anai-Artea Elkartea	Mexiko; D. Lohizune
Politikoa		ANV; Eusko Mendigoixale Batza; ETA	Caracas
Politikoa		JOC Euskalerria	Donostia
Politikoa		ETA	Euskal Herria
Politikoa		ETA	Caracas
Elkarteko Buletina		Euskal Elkargoa	D. Lohizune; Mexiko
Politikoa		ETA	Mexiko
Abeltzantza		Ganaduzaleaen Elkartea	Donostia
Kulturala		Ikastola Elkartea	Lazkao
Politikoa		EMK	Euskal Herria
Politikoa			Caracas
		Herri-Gaztedi	Donostia
Sindikala		ELA	Bilbo
Politikoa; Kulturala		La Gran Enciclopedia Vasca	Bilbo
Folklore	J.Mª Arozamena / J. Aramburu / M. Mª Olaizola / V. Zaragüeta	Dantzarien Elkartea; Federación de Grupos de Danzas Vascas de la RSVAP	Donostia
Politikoa		Organo de Células Rojas	Euskal Herria
Politikoa; kulturala		ETA	Euskal Herria
Sindikala	Bernardino Bilbao / José Abásolo Mendibil	ELA	Caracas
Politikoa		ETA	Euskal Herria
Buletin berri-emailea		Elko-ko euskaldunen Kluba	Elko, Nevada
Sindikala		CCOO	Euskal Herria
Politikoa		Euzkadi-ko Komunist Gaztedia	Euskal Herria

IZENA	SORRERA	ITXIERA	MAIZTASUNA
Erri Esnale (Herri esnatzaile)	1971		Hilabetekaria
Zutik	1971		Irregularra
Unidad Obrera	1971		
El Casco Viejo	1971		Irregularra
Euzkadi	1972		Irregularra
Kardaberaz	1972		Urtekaria
Lan Deya	1972		Hilabetekaria
Zuzen	1972		
Haize garbia	1972		
Idaho Basque Studies Center	1972	1974	Irregularra
Hautsi	1972	1979	Hiruhilabetekaria
Arrasate	1972-10-		
Auzo Egintza	1973		
Euskal Dantzarien Biltzarra	1973		Hiruhilabetekaria
Eusko Albistaria	1973		
Lauro	1973		Irregularra
Pospolin	1973		Hilabetekaria
Mende Berri	1973	1974-10-07	Irregularra
Zabal	1973	1976	Bihilabetekaria
Hemen eta orain. Euskadi. Aquí y ahora	1973		
Comisiones Obreras / Langile Komisioak	1974	1976	Bihilabetekaria
Eroski	1974		Hilabet.; bihilabet.
Indartuaz	1974		
Langile	1974		
Notimes	1974 (?)	1979	
Zubi Zahar	1974		
Batasuna	1974	1975	
Euskaldunak	1974	1981	Hilabetekaria
Elhuyar	1974		Hiruhilabetekaria
Ildo	1974		
Hitz	1974	1976	*Bihilabet.; Irregularra*
Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela	1975		Hilabetekaria
Erdikide. EHAS	1975		
Etorkisuna	1975		
Fedegintza	1975		
Ikastola gaztetxoena	1975	1978	
Unidad y Lucha / Batasuna ta Burruka	1975		Hiruhilabetekaria
Unificación Comunista / Komunisten Batasuna	1975		Irregularra
Hibai-zikin	1975		
Bidasoa inguraztiak	1975		
Ikastolak	1975		Hiruhilabetekaria
Euskarri	1975	1976	Irregularra
Etniker	1975		
Gernika	1975	1980	Hilabetekaria
Altzagako Kazeta	1975		
Iglesia en Vizcaya / Bizkaian Eleiza	1975	1977	Hamabostekaria

GAIA	ZUZENDARIA	ARGITARATZAILEA	HERRIA
Kulturala; Herrikoa		Oiartzungo Kultur Taldea (OKT)	Oiartzun
Politikoa		ETA	Euskal Herria
Sindikala		CCOO	Eibar
Herrikoa	José Luis Salazar	Asoc. de Vecinos y Comerciantes del Casco Viejo	Bilbo
Politikoa		EAJ	Caracas
Kulturala		Kardaberaz Bazkuna	Donostia
Sindikala		ELA	Baiona, Biarritz
Politikoa			Euskal Herria
Kulturala	R. Celaya		Hendaia
Kulturala		Basque Studies Center	Boise, Idaho
Politikoa		ETA-V (p.m.)	Donibane Lohizune
Kulturala		Danok-Euskal Jakintza Taldea	Arrasate
			Donostia
Folklorea		Dantzarien Elkartea	Donostia
			New York
Ikastetxekideentzakoa		Lauro Ikastetxea	Loiu
Erlijiosoa. Umeentzakoa			Lea Artibai
Politikoa; kulturala	G. Oyharzabal	Mende Berri Elkartea	Baiona
Kulturala; politikoa	Beñat Oyharçabal	Zabal Elkartea	Baiona
Politikoa		PC-Euskadi	Bilbo
Sindikala		CONE	
Kontsumitzailearen defentsa		Eroski	Elorrio
Erlijiosoa		San Anton Parrokia	Bilbo
Politikoa		ETA	
Boletina berri-emailea	Iñaki Anasagasti / José Abásolo Mendibil	Euskal Etxea	Caracas
Kulturala. Umeentzakoa			Ondarroa
Politikoa	Mattin Larzabal / Iñaki Goyenetche		Donibane Lohizune, Ustaritz
Politikoa		EHAS	Baiona
Zientziak	Luis Bandrés	Elhuyar Elkartea	Donostia
Politikoa		Iparretarrak	Baiona
Politikoa		Association Hitz	Baiona
Erlijiosoa		Gotzaitegia	Iruñea
Politikoa		EHAS	
Ikastolako Aldizkaria		Algortako Ikastola	Algorta
Erlijiosoa			Baiona
Kulturala; Gaztedia		S. Felicísimo	Bilbo
Politikoa		Komunisten Batasuna	
Politikoa		Komunisten Batasuna	
Medikuntzakoa		Medikuntza Fakultatea. L.E.K.T.	Leioa
			Ustaritz
Kulturala	Claire Noblia / J.P. Seilier		Baiona
Kulturala		Gaueskolen Elkartea	Bilbo; Donostia
Etnografikoa		Institutu Labayru Ikastegia	Derio
Politikoa; gaztedia	E. Duny-Petre		Baiona
Herrikoa; Kulturala		Ikastola Altzaga	Leioa
Erlijiosoa		Gotzaitegia	Bilbo



1969an Lur argitaletxeak kaleratutako edizio antologikoa

ñamendi eta besteren baten salbuespenarekin. Itxaropenak, tradizio zaharraren arabera, inprimatzaile eta editore gisa egiten du lan, bietara.

Tradizioa moztu egin da. Baina ez hori bakarrik. Berreskuratzea ia ezinezkoa da frankismoak ezarritako kontrolaren erruz. Nola gaindi zi tzakeen gerraurrean euskal liburuarekin konprometituriko argitaletxe batek "txosten politiko-sozial" beldurgarri haiek?

Erremediorik gabe pertsona berriek eraiki behar zituzten enpresa editorialak. Enpresa editorialak, diogu. Enpresak ez dira inprobisatzen, are gutxiago baldintza juridiko, politiko eta ekonomiko horietan. Eta are gutxiago euskara hutsezko argitalpenetarako.

1970 aldera sortzen diren argitaletxe berriak, esan beharra dago, ez dira enpresak. Taldeak dira, argitalgintzan ofizio gutxi eta benefizio gutxiago dutenak, batzuk idcia berrici irtenbidea emateko helburuarekin bildu direnak, beste batzuk euskalgintzak eta irakaskuntzak zeuzkaten premia gorriei erantzuna eman nahian elkartuak.

Gaur, 1996, editorialgintza errealitate finkatua da, enpresa gisa funtzionatzen duena, profesionala.

Baina hori bere momentuan aztertuko dugu.

Liburuetako emaitzak

Berrogei urte hauek batean harturik kalkuluak eginda, urteko produkzioaren batez bestekoa hirukoiztu egin da, aurrekoaren konparazioan. Batez beste, urteko 74 liburu ateratzen da.

Ematen du, hortaz, Francok ez duela kalterik egin. Errealitatea besterik da, Francok ezin izan duela herriaren indarra erabat ito.


Gerrak suposatu zuen haustura neurtzeko konparazio batek lagunduko digu. Gerra mugarri hartuz jo dezagun hogeina urte aurrera eta atzera. Bada, gerraurrekoan urteko 30 liburu publikatzen ziren eta gerraosteko lehen hogei urteetan urteko 14 besterik ez, erbestekoak, Iparraldekoak eta barrukoak, zentsurapekoak, zenbatuta. Beste datu jakingarri bat: gerra sortu zenean genuen produkzio-maila berdinera iristeko 20 urte pasa itxaron behar izan dugu.

Ikuspegi kuantitatibo honetatik ikuspegi kualitatiboetara paseaz, ekoizpen-motak eta barrunbeak seinalatuko ditugu segidan.

Frankismoa gorabehera, hazkundea izan du kuantitatiboki euskarazko liburugintzak, 500 titulukoa lehen edizioan eta 300 liburukoa osotara. Datu kuantitatibo hutsa da hau. Kuantitatibo-kualitatiboa da, ordea, hazkunde hori zein eremutan mamitu den ikustea. Hiruzpalau puntu

adierazgarrienak aipatuko ditugu soilki: bat, erlijioa zenbaki absolututan jaitsi egin da; bi, gainerako gai-sail guztiek gora egin dute, puntu bat eta biren artean, salbu bik; hiru: haur eta gazteentzako argitalpena eta irakaskuntzakoa sei (6) aldiz gehiago atera dira orain. Ez bata eta ez bestea datoz oraindik urtealdiko produkzioaren lehen puntan (literatura eta erlijioa dira horiek), baina eboluzioaren geziak zer seinalatzen duen adierazten du hauen goraldiak.

Argitalpena	Zenb. abs.	%
Nobedadeak	1.626	93,8
jatorrizkoak	1.263	77,7
itzulitakoak	363	22,3
Berrargitalpena	107	6,2



Nobedadeek edo titulu berriek % 93,8 hartzen dute, hau da, ia produkzio osoa.

Nobedadeen barruan euskaraz sorturiko tituluak dira gehien-gehienak (% 77,7).

Berrargitaraldi gutxiko garaia da hau: % 6,2 bakarrik.

Nobedadeak

Lehen edizioko liburua da garai honetako liburua. Proportzio handian, izan ere: % 93,8 berrargitaraldien % 6,2ren kontra. Zer esan nahi du honek? Interpretazio desberdinak egon daitezke, baina, nik ez dut uste kausa bat bakarra dagoenik guztia esplikatzeko.

Liburua prozesu bat da, idazlea, editorea, saltzailea, eroslea eta irakurlea daude barruan, eta elkarri oso lotuta egon ere. Etenik gabeko soka da hori. Eta ez du gainera unilateralki funtzionatzen, norabide jakin batean, idazlearengandik irakurlearenganako norabide bakarrean. Elkar elikatu gabe antolatzen den liburugintzak ezin du luze iraun. Horrelako zerbait gertatu zitzaion frankismo-garaiko liburugintzari.


1970 inguruko liburugintzari begira batik bat, egingo ditut ondoko hiruzpalau oharkizun hauek.

- Urte horietako idazle berriak (eta berdin idazleen bilgune den argitaletxeak) kezka ideologikoak, politikoak, kulturalak, linguistikoak ditu buruan eta euskarari status kulturala ematea du helburu nagusietakoa. Liburuaren hurrengo egunaz gutxi kezkatzen da. Hobe esan: biharamonaz barik etziko egunaz kezkatzen da. Behin eta berriz errepikatu ohi zen orduan "biharko irakurlearentzat" idatzi behar dela.

  Egungo irakurlegoan, irakurlego errealean, kezkak, aldiz, ez ziren horren hedatuak, nonbait. Gutxiengo bat zen liburu-eroslea, titulu berri guztien eroslea. Ez zegoen merkatu diferentziaturik, liburu-motaren arabera aukera egin ohi zuenik. Erosle euskaltzale berarengana iristen ziren, hortaz, argitaletxe guztietako liburuak. Hori bateko.

Eta besteko, erosle hau zein neurritan zen irakurle? Jakin badakigu bazirela mezenasen kontzientziarekin liburuak erosten zituztenak, hau da, irakurtzeko asmorik gabe baina laguntzearren.

- Esango nuke, urrunegi joatea ez bada, politika editorial hori gehiago dagoela muntatua kulturaren premiei erantzuteko irakurleen gose-egarriak asetzeko baino. Merkatu errealari begira disfuntzionala dela alegia. Produkzioarekin sintonian dagoen merkatua urria da oso; eta merkatu potentzialak irekitzeko ez da produkturik egiten. Garai horretan milako tiradak egiten dira eta bostehun bat saldu, dirudienez. Tamaina horretakoa da merkatu erreala.
- Garai horretako liburua, gainera, nahiko "klandestinoa" da. Ez duela presentzia sozialik esan nahi dugu. Urte haietan hasi ziren komertzializazio-sareak muntatzen, baina etxez etxeko liburuarekin. Liburu-dendatan euskarazko liburuak ez zuen lekurik. Irakurlearengana iristeko bide ia esklusiboa harpidetzaren sistema zen. Hau da, argitaletxetik irakurlearengana zuzen-zuzenean doa titulu berria, eta hortxe bukatzen da liburuaren bizialdia.




"Margo Ederdun Entziklopedia"ren 2. alea

Laburbilduz esan dezagun euskarazko liburuaren kontsumo eskasaren arrazoiak leku askotan aurkitu behar direla: produkzio-motan, promozio-faltan, irakurlegoaren urritasunean. Korta sundako liburugintza zen hura.

Marraztu dugun paisaia editorial honetatik piska bat aparte gelditzen da liburu erlijiosoa. Produkzioan bigarren lekura jaitsi bada ere, funtzionalena berau bide da. Berrargitaraldi gehien liburu-mota honek ditu behinik behin.

Itzulpena

Itzulitako liburuaren pisua % 22,3 da. Bost liburutik bat itzulia da behinik behin. Ez dakit neurri egokia den ala, positiboki ala negatiboki baloratu behar den. Aurreko urtealdiaren eta hurrengoaren erdibidean dago, hori bai. Baina auskalo zein den neurri egokia. Ezaugarri propiorik ere ez duela esango nuke, gainera. Aurreko urtealdiarekin lotuta dago puntu batean: orduan bezala orain erlijio-liburu itzuliak du pisu gehien. Baina, bestalde, datorren urtealdian gertatuko denaren aitzindari, haur eta gazteentzako argitalpenetan liburu itzulia euskaraz sorturikoa baino ugariago da.



Gehien erabili diren esparruetan literatura da lehena. Protagonismo aldetik zor osanik ez. Erlijio-liburuak ere pisu dezente du.

Aurreko aroan hasiriko zenbait gaisail (giza eta gizarte zientziak, haur-literatura eta irakaskuntza-liburua, adibidez) indartuz doaz.

Gai-sailetan literatura da aurrena

Daturik ohargarriena literatura-liburuaren lehen postua da. Lehen aldiz euskal liburugintzaren historian. Eta azkeneko aldiz, bestalde, gure egunetan helduen literaturaren aurretik baitatoz bai irakaskuntzako liburua eta bai haur eta gazteentzakoa.

Irakurle ohartua konturatua izango da dagoeneko nik garaiko ekarpen propiotzat eman dudan kezka nagusia (kultura landua) eta produkzio-mota hau ez datozela bat. Egia da, ez datoz bat, baina ez dago kontraesanik. Belaunaldi berriaren emaitzak berantiarrak baitira, eta kualitatiboki baloratzekoak gainera.

Balorazio hori batez ere Giza eta Gizarte-saileko liburutan egin behar da.

Hemen ere itxura kuantitatiboak engainura garamatza. Sail honek, titulu-kopuruei begira, ez du hazkunde harrigarririk izan. Baina liburumota da aldatu dena. Lehengo urtekari, almanaka eta propaganda politi-

kako liburuttoen lekuan orain politikan, soziologian, filosofian, geografia eta historian bete-betean kokatzen diren liburuak dauzkagu.

Liburu teoriko, azterketa, ikerketa, gogoeta, saio (espekulatiboa salbu) eta batez ere dibulgaziozko liburuz hornitzen da sail hau. Belaunaldi berriaren ekarpen berezi-bereziena hementxe islatzen dela esango nuke. Ez dira beti lan biribilak eta beteak, ezta gutxiago ere. Lan berde, gordin eta mikatzik badago tartean, baina esfortzuak merezi izan du.

Soziologia eta politikaren eremuetan sailkatu ohi den liburugintza pil-pilean zegoen 1970 inguruko urte haietan. Marxismoa eta sozialismoa indarrean sartu ziren euskal mugimenduetan eta horrek ekarri zuen nazio-arazoa eta arazo soziala birplanteatzea, bai ezkerraren aldetik eta bai abertzaletasunaren aldetik. Egin diren saiorik hoberenen artean aipatu behar dira Joxe Azurmendirenak, Paulo Iztueta, Jokin Apalategi eta Gotzon Garaterenak.

Aro osoan 70 bat soziopolitikazko titulu daude. Liburu-mota oso desberdinak: azterketak, dibulgaziozkoak, moldapenak, laburpen moldatuak, klasiko marxisten itzulpenak, etab.


Historia berreskuratu eta berrinterpretatzen ere izan da lanik. Beste 70 bat liburu. Euskal autoreak, pertsonaiak, ezagutarazi nahi dira: Axular, Mendiburu, Tartas, Iztueta, Mogel, Huarte Donibanekoa, besteak beste. Euskal Herriaren historia berreskuratzeko ahaleginetan dihardute A. Arrinda, Sollube, Federiko Zabala, Jesus Altuna, Jon Etxaide eta bestek.

Etnografia, linguistika eta geografia sailek, hiruren artean, 50 bat liburu osatzen dute. Liburu gutxi da, kontuan hartzen badugu sail horiek gizartean zuten eskaria eta arrakasta. Historia sailari bezala gertatu zaie etnografia eta linguistikari: erdarara jo dutela ikerketarako nahiz dibulgaziorako.

Erlijio-saileko liburuetan gehienak betiko tankerakoak dira. Dotrinen pisua gutxitu bada ere, hor diraute deboziozkoak, mezatarakoak, eta abar. Gutxi batzuk salbu kristau-herri xumeari zuzentzen zaizkio. Maila jasoagoa dute Villasante, Orixe eta G. Ibargutxirenak.

Esan dugu lehentxeago jauzirik handiena haur eta gazteentzako liburuak egin duela. Bi bertsiotan: haur eta gazteentzako liburu gisa eta irakaskuntzarako material gisa. Noski, ikastolen bilakaerarekin dago lotua. Hirurehun liburu dira denetara, erdibana banaturik gutxi gorabehera.

Haur eta gazteentzako literaturak bi iturri ditu. Bata, propioa, etnografian elikatzen dena neurri on batean. Eta kanpotiarra, itzulpen bidezkoa, bestea. Kopuru osoan itzulpenak gaina hartzen dio bertokoari, % 52,8rekin. Horrez gain, zirrikitu honetatik hasten dira hemen sartzen Espainiako zenbait argitaletxe.



Olerkigintza dator aurrena urtealdi honetan. Narratiba da bigarrena, aurrekotik lau puntura. Herri-literatura eta antzerkiak ere aski presentzia dute.

Material didaktikoan, berriz, itzulpenak askoz ere indar gutxiago du, laurdena.

Literaturan olerkia da aurrena

Hona zifrak generoz genero

Aurreko garaiko olerki-liburuen bolumena bikoiztu eta gehiago egin da frankismoan. Lirikarako ez omen dago garai onik, zioen besteak. Hala izango da, baina onenak egonak direla ematen du gaurko talaiatik begiratuta. Gaur (1996) narratibak du lehentasuna. Normala da. Normala den bezala frankismo garaian olerkiaren tira. Krisi garaitan bezala hazkunde-garaien lehen fasetan olerkira jotzea errazagoa da, bestelakoetara baino.

Gurean gertatu da, gainera, Eusko Pizkundearen azken alditik hona indar handiko olerkariak izan ditugula. Gogoan har Lauaxeta bat, Lizardi bat, Orixe, Salbatore Mitxelena; geroago, Gaztelu, Iratzeder, Egieder, Emeterio Arrese, I. Loramendi, Bordari, Jautarkol, Jokin Zaitegi, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Joxe Azurmendi, Jon Mirande, Joan Mari Lekuona, Martin Iturbe, Otsalar, Xabier Azurmendi, Mikel Lasa, Luis Mari Mujika, Xabier Lete, Joxean Artze. Ez da ahaztu behar, orobat, euskal kantagintzak olerkari askoren lana lau airetara zabaldu zuela arrakasta handiz.

Garai honetako bigarren aldi osoan Gabriel Arestiren figura eta olerki-moldea gailendu dira.


Egile gisa ere bai, baina batez ere eragile gisa olerkigintzaren alorrean bi izen aipatu eta aupatu gabe ezin da segi: Santi Onaindia eta Joan San Martin. Baloreak bilatu, animatu, bultzatu eta bideak irekitzen saiatu dira bata eta bestea.

Gerraosteko narratiba erbestean hasi zen Irazusta eta Eizagirrerekin. 50eko hamarkadan hasita lan bikaina egin zuen Jon Etxaidek, bide batez, historia berreskuratzen lagunduz. Txillardegik ekarri zituen aire berriak "Leturiaren egunkari ezkutua" nobelarekin (1957), eta gero gerokoak. Gerokoen artean izen bat nabarmentzen da, Ramon Saizarbitoria eta honen "Egunero hasten delako" (1969).


Antzerkiaren tradizioari jarraitzailerik ez zaio falta izan, lehen ordutik hasita: Telesforo Monzon, Piarres Larzabal, Antonio Maria Labaien, Augustin Zubikarai, Jon Etxaide, Arkotxa, Uxola, Daniel Landart, besteak beste. Hauen lan propioa aparte, itzulpen-lanak ere arrakasta handia izan du antzerkian: bost obratatik bat itzulia da.



70eko hamarkadan arrakasta handia izan zuten gazteentzako bi bilduma: Hordago argitaletxearen "Tximista" saila eta Elkar argitaletxearen "Sor-Itzul" saila



Gabriel Aresti





AUSPOA
LIBURUTEGIA

Hala eta guztiz ere antzerki-lanak behera egin du nabarmen garai honetan. Erdira jaitsi da. Arrazoia ez da urruti bilatu behar. Adierazpen-askatasunaz gain askatasun soziala behar du antzerkiak, arrainak ura bezala. Herriarekin kontaktu zuzena eta arteza. Lujo handitxoa da hori frankismoaren diktadurapean. Zentsura bikoitza zuten antzerki lanek. Traba handiak, eta askotan gaindiezinak, izan dituzte antzerki-taldeek. Eta, jakina da, paperean gelditzen den antzerkia, antzerki hila da.

Herri-literaturaren sailean uzta ederra bildu du 1961ean hasita Antonio Zavalak. Lan eskergaitza egin du, biltzaile, ikertzaile eta argitaratzaile gisa, batez ere bertsolaritzaren alorrean. Berari zor zaio produkziorik gehiena.

LIBURUA GAUR

1976-1996
URTEALDIA

Hogei urteko ziklo berri baten azterketari ekiten diogu orain. Ziklo hauxe da hain zuzen liburu honek deskribatu eta kontatu nahi duena. Propioki ziklo gisa hartzen dut epealdi hau. Urte bat edo beste gorabehera uste dut euskal kulturgintzan aldi bat bukatzear dagoela eta bestelako jarduera batzuk indartuko direla. Ez dakit zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen. Zer-nolakoak izango diren ere ez dakit, hori jakiteko perspektiba falta zaigu eta, baina zantzu batzuk industria kulturalen aldetik eta multimediaren aldetik ikusten ditut.


1976an *Euskal Idazleak gaur* liburua idatzi nuenean, presentea adina gutxienez, iragana kontatzen ari nintzenaren inpresioa izan nuen, eta esanda utzi nuen bertan. Inpresio berdintsua dut orain, eta esanda utzi nahi dut orain ere, profeta izateko bokaziorik gabe, hala ere.

Epealdi hau Francoren heriotzarekin hasten da.

Juan Carlos Borbondarrak hartzen du agintea eta Adolfo Suarez gobernuburu dela erregimen zaharraren birmoldaketa-lanetan murgiltzen da 1976-1977 urteetan. Normalizazio demokratikoaren haritik doaz lehen urratsak: adierazpen- eta bilera-askatasuna arautzea, alderdiak legeztatzea, erreforma politikoko legea, ikurrina legeztatzea, amnistia, besteak beste.

1978an Eusko Kontseilu Nagusia eratzen da, Espainiako Konstituzioa "onartzen" da. Hurrengo urtean Gernikako Estatutua onartzen da, baita ere. Eta 1980an Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Euskal Komunitate Autonomo gisa antolatu eta Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza sortzen dira.

Bi urte pasako dira euskal kulturgintzari zuzenki dagozkion alor batzuk garatzen hasterako. 1982ko urritik aurrera zabaldu zen euskara hezkuntza-sistemara, hiru ereduren arabera. Ordurarte ikastoletan bakarrik irakasten zen euskara, irakaskuntzaren plaza zabalera jalgitzen da orain.



AGIRRE, JOXEAN (Azpeitia, 1949)

- *Longa kapa beltza (1984)*
- *Lehen triptikoa (1986)*
- *Gizon bat biluzik pasiloan barrena (1991)*


Kultura eta Hizkuntz Politika Nafarroako Gobernuan

Nafarroako Gobernuan Hezkuntza eta Kultura sailburu beraren ardura izan dira erakundearen sorreratik eta, 1996ko iraila bitartean, bi zuzendaritza nagusi izan ditu kontseilaritza honek: Hezkuntza eta Vianako Printzea Erakundea (edo Kultura zuzendaritza).

1996ko irailetik aurrera hirugarren zuzendaritza bat du kontseilaritza honek: Hizkuntz Politika. 1989. urtean sortu zenetik Lehendakaritza Sailaren menpeko zuzendaritza izan da hizkuntz politikari buruzkoa baina, Miguel Sanzek Gobernuko lehendakaritza hartzearekin batera, Hezkuntza eta Kultura Sailera pasa da.

Hizkuntz Politikarako hiru zuzendari izan ditu orainarte Nafarroak: Estebe Petrizan (1988-1991), Jose Maria Rodriguez Otxoa (1991-1996) eta Fernando Perez de Viñaspre (1996ko urritik aurrera). Lehenengo bien gain izan diren Lehendakaritza sailburuak —Perez de Viñasprek Hezkuntza eta Kultura sailburua du bere gain— honako hauek izan dira: Aladino Colin (1987-1991), Miguel Sanz (1991-1995) eta Federico Tajadura (1995-1996).

Vianako Printzea Erakundeko edo Kultura Zuzendaritzako arduradun nagusiak hiru izan dira: Jose Maria Romera (1986-1991), Francisco Javier Zubiaur (1991-1995) eta Tomas Yerro (1995tik aurrera). Hauek sailburu izan dituzte Roman Felones (1984-1991), Jesus Javier Markotegi (1991-1995), Pedro Burillo (1995 1996) eta Jesus Javier Markotegi berriro (1996tik aurrera).




Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak arlo ezberdinetan banatzen ditu dirulaguntzak. Zuzendaritza sortu zenetik laguntzen ditu, esate baterako, euskarazko literatur lanak; 2.200.000 eman zituen lehenengo urtean (1989), eta 3.020.207 pezeta orainarteko azkenengoan (1995). Euskarazko komunikabideei (eta euskaraz zerbait argitaratzen duten erdarazko komunikabideei ere bai) dirulaguntzak emateko partida bat du 1992tik: 32 milioi pezeta banatu zituen orduan, eta 39 milioiko partida du banatzeko 1996an. 1993tik aurrera euskarazko antzerkigintza ere laguntzen du urtero Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak (6 milioi pezetako aurrekontua du horretarako) eta egokiak ikusten dituen argitarapenak egiteko 6 milioi t'erdiko partida du.

Kultura eta Hizkuntz Politika Eusko Jaurlaritzan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila 1980ko apirilean sortu zen, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela. Ramon Labaien izan zen aurreneko Kultura sailburua, 1983ko apirila bitartean.

Ordura arte Hezkuntza sailburu izandako Pedro Miguel Etxenikek hartu zuen Kultura Sailaren ardura, Hezkuntza eta Kultura kontseilaritza bakarrean bilduz. Urtebete iraun zuen karguan, 1984ko martxora arte. Kultura eta Hezkuntza bereizi egin ziren berriro, eta Joseba Arregik hartu zuen orduan Kultura Saila; hurrengo urteko urtarrilean utzi zuen.



Jose Antonio Ardanzak Jaurlaritzako lehendakaritza hartu zuelarik, 1985eko urtarrilean Luis Mari Bandres izendatu zuen Kultura sailburu. 1987ko martxora arte izan zuen Bandresek Saileko ardura, eta honen ordez Joseba Arregi etorri zen berriro. 1995ko urtarrilera hasieran utzi zuen kargua, eta ordura arte Hizkuntz Politikarako idazkari nagusi izandako Mari Karmen Garmendia izendatu zuen Ardanzak haren ordez.

Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia 1983an sortu zen eta Pako Garmendia izan zen lehenengo idazkaria, 1985eko uztailera arte. Lehendakaritza Sailaren barruko erakundea zen orduan HPIN. Hau sortu aurretik, Luis Alberto Aranberri *Amatiño* Euskararen Sustapenerako arduradun izan zen, Kultura Sailaren barruan. 1983ko apirilera arte iraun zuen Amatiñok kargu horretan, eta Martin Ugaldek ordezkatu zuen (1985eko irailera arte). Pako Garmendia Hizkuntz Politikarako idazkari nagusi (Lehendakaritza Sailaren menpe) eta Martin Ugalde Euskararen Sustapenerako arduradun (Kultura Sailean) izan ziren, beraz, aldi berean.




Pako Garmendia Mari Karmen Garmendiak ordezkartu zuen HPINen, eta Kultura sailburu izendatu zuten artean izan zuen Jaurlaritzako hizkuntz politikaren ardura. Garmendiak Kultura Saila hartzearekin batera, hizkuntz politikaren arloa Kultura Sailak bere gain hartu eta Hizkuntz Politikarako Sailordetza sortu zuen. Jose Mari Zeberio izan zen lehenengo sailburuordea (1995eko urtarriletik urte bereko abendura arte), eta Josune Arizlondo hurrengoa.

EITB

Euskal Irrati Telebista (EITB) erakundea 1981ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta 1982ko maiatzaren 20an legeztatu zuen Eusko Legebiltzarrak. Urte berean hasi ziren emititzen euskarazko irrati eta telebistak: azaroan Donostiatik emititzen hasi zen Euskadi Irratia eta Euskal Telebistak frogako emisioak egin zituen Iurretatik urtearen bukaeran, Urte Zaharra bitartean.

EITBko lehenengo zuzendari nagusia Josu Zubiaur (1981etik 1982ko abendura) izan zen, eta beste lau zuzendari nagusi izan ditu geroztik: Andoni Areizaga (1982ko abendutik 1985eko irailera), Jose Maria Gorordo (1985eko irailetik 1987ko apirilera), Josu Ortuondo (1987ko apiriletik 1991ko martxora) eta Iñaki Zarraoa (1991ko martxotik aurrera).

1983ko urtarrilaren lehenean hasi zen Euskal Telebista modu normalizatuan emititzen, euskara hutsez, eta urtearen bukaeran gaztelerazko albistegia emititzeari ekin zion. 1986. urtera arte iraun zuen euskaraz nahiz gazteleraz emititzen zuen kateak, urte honetako maiatzaren 31n gaztelerazko katea —ETB 2— sortu eta lehenengo katea euskara hutsezko bilakatu baitzen berriro.



ETBren zentro nagusia Iurretan dago hasieratik eta, 1987ko martxotik, produkzio-zentroa du Donostiako Miramonen. 1992ko urritik *Telebista* aldizkari elebiduna argitaratzen du ETBk.

Lau zuzendari izan ditu Euskal Telebistak: Luis Iriondo (1983ko urtarriletik 1984ko ekainera), Luis Alberto Aranberri *Amatiño* (bi aldiz: 1984ko uztailetik 1985eko azarora eta 1991ko apiriletik 1995eko martxora), Jose Mari Iriondo (1986ko urtarriletik 1987ko uztailera) eta Koldo Anasagasti (1989ko uztailetik 1991ko urtarrilera). Amatiñok 1995an zuzendaritza utzi zuenean ordezkorik ez zen izendatu.

1981eko abenduaren azkenean Radio Vitoria erosi zuen EITBk eta 1983ko apirilean Radio Euskadi hasi zen emititzen Bilbotik. Bi irrati-katea hauek elebidunak izateko jaio ziren, baina gazteleraz emititzen dute gaur egun. Euskadi Irratiak euskara hutsez emititu du beti. 1990eko martxoan Euskadi Gaztea sortu zen: euskaraz emititzen zuen Donostiatik eta gazteleraz Bilbotik. Gaztelerazkoa itxi egin zuten gerora eta euskarazkoak baino ez du iraun.


1996an, beraz, lau irrati-katea ditu EITBk: Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea euskaraz, Radio Vitoria eta Radio Euskadi gazteleraz.

1982ko azarokoa da Elebitasun dekretua. Dekretu honek Autonomi Estatutuko 6.2 atala garatzen du. Estatutuak hain zuzen euskarari status juridiko ofiziala ematen dio. Baina berdenboran, dena esan behar da, gizabanakoari loturik dator eskubidea eta ez lurraldeari.

Eta, azkenik, (besterik ez dagoela esan gabe), 1982ko abenduaren 31n ETBk lehen emanaldia egiten du. Gernikako Autonomi Estatutuan oinarrituz, Eusko Legebiltzarrak urte bereko maiatzean onartua zuen EITB legea, telebista eta irrati-legea, alegia.

Maila politikoan Euskal Herriak izan duen eboluzioa deskribatzea ez da gure egitekoa. Euskal Komunitate Autonomoko zenbait datu emanaz aski dugu. Osatze-aldera erantsi behar dugu, batetik, Nafarroak bere bide propioa egin duela eta 1982 eratu zela Foru-Komunitate gisa Foru-Hobekuntza legearen bidez. Eta bestetik, Ipar Euskal Herriak ez duela urte hauetan aldaketa ohargarririk izan Frantziako Estatuarekiko lotura-kontuan. Gaur oraindik, Estatu frantsesarentzat ez dago Euskal Herririk. Gauzak horrela, Euskal Herria hirutan banatuta dago administratiboki: Euskal Komunitate Autonomoa, Komunitate Forala eta Iparraldea.

Berehalakoan argitalgintzaren itsaso sakonean murgilduko garenez, on da aurretiaz idatziaren munduko alor-pare bati errepasotxoa ematea. Historia egin gabe, aipatu bakarrik egingo ditugu aldizkarien mundua eta euskalgintzarena, gero ez baikara hauetara itzuliko atzera, nola eta adierazpen osagarriren bat behar ez dugun.



AGIRREAZKUENAGA, JOSEBA
(Bilbo, 1953)

- *Gerra eta Bakea Euskal Herrian (1789-1876) (1993)*
- *Iraultza industriala abiatu ezinik (1993)*
- *Euskal Herriaren historiaz (1985)**

Aldizkako argitalpenak

Euskarazko prentsak (*Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Goiz Argi*) "1976, euskal kazetaritzaren urtea" aldarrikatuz hasi zuen epealdi berria. Eta hiruek, bateratsu, "newsmagazine" eitea hartu zuten eta informazio orokorreko gisa aurkeztu zuten bere burua. Ordurarte edo erlijiora, edo kulturara, edo informazio lokalera mugatuak eduki zituen aginteak.


Urte berean, "Punto y Hora de Euskal Herria" Iruñean, "Garaia" eta "Berriak" Donostian hurrenez hurren sortzen dira. Elebidun gisa aurkezten dute bere burua baina euskarak toki urria eta/edo eskasa du. Talde politikoei lotuak datoz azken biak, eta ez dute luze irauten. Astekari hauek estreinatzen dute kazetaritza informatibo-politikoa Euskal Herrian. Hari beretik dator 1979an "Ere" astekari elebiduna, eta honek ere gutxi irauten du.

1977an kaleratzen diren "Egin" eta "Deia" egunkariak ere elebidunak dira. Euskararen egitekoa eta lekua gutxituz joan da bietan. Bi proiektu politikoren organo izateko atera ziren eta halaxe iraun dute.

Euskaldunon Egunkaria

Euskaldunon Egunkaria-k 1990eko abenduaren 6an kaleratu zuen lehenengo zenbakia, lehenengo orrialdean Durangoko Azokaren 25. edizioaren irekieraren berri ematen zuela. Euskarazko egunerokoaren plazaratze hura urtebete lehenago hasitako lanen fruitua zen.

1989ko azaroaren lehenean bildu zen lehenengoz, Donostiako Barandiaran Lizeoan, egun horretatik aurrera Egunkaria Sortzen izenez ezagutuko zen talde eragilea: euskarazko egunkaria kaleratzeko lanean hastea erabaki zen. Hurrengo bilera orokorrean —abenduaren hasieran Durangoko Azokan— sortu nahi zen egunkariaren hamaika ezaugarri nagusiak ezarri ziren: euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, erakunde publikoetatik eta beste medioelulik independentea, ez instituzionala, subentzionatua, profesionala, militantea eta berria. Eta urtarrilean Donostiako Udaletxean egindako bileran egunkarirako enpresa- eta kazetari-proiektuak egiteko batzordeak osatu zituen Egunkaria Sortzen-ek.



Apirilaren 7an egunkarirako enpresa- eta kazetari-proiektuak aurkeztu zituzten Donostian Egunkaria Sortzeneko bozeramaleek, Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe eta Joan Mari Torrealdaik. Hurrengo hilaren 25ean kanpaina zabal bati ekin zion Egunkaria Sortzen-ek, Euskal Herri osoan egunkari-proiektua ezagutarazi eta egunkaria abian jartzeko behar zen dirua biltzen hasteko. Uztailaren 15ean amaitu zen kanpaina, Donostiako Anoeta Belodromoan egindako festa erraldoiarekin eta Euskal Herri osoan zabaldutako *Egunkaria*-ren zenbaki zero bereziarekin.

Abuztuan *Egunkaria*-ren erredakzioa osatzeko lanak hasi ziren *Argia*-ren Donostiako erredakzioan: estilo arauak finkatu, ikastaroak egin, erredakzio-taldea aukeratu eta egituratu, zenbaki zeroak egiten hasi... *Euskaldunon Egunkaria* udazkenean kaleratuko zuela agindua zuen Egunkaria Sortzen-ek.

Urte berean, Egunkaria Sortzen-ek ordurako euskarazko kazetaren proiektua landua zuelarik, Eusko Jaurlaritzak Joxe Ramon Beloki *Deia*-ko kazetariari egunkari publikoaren bideragarritasuna aztertzeko eskatu zion apirilean. Uztailerako burutu zuten txostena Belokik eta bere laidekideek, eta Jaurlaritzak egunkari publikorako proiektutzat onartu zuen. Urrian, Jaurlaritzaren dirulaguntzaz kaleratzen ziren *Hemen* eta *Eguna* astean behineko «egunkariek» argitaratzeari utzi zioten, eta ordura arte hauek laguntzeko erabilitako dirua egunkari publikoaren proiektura bideratuko zela jakinarazi zen.

Euskaldunon Egunkaria-ren sorrera baino bi egun lehenago, abenduaren 4an, *Egunero* izeneko zortzi orrialdeko argitarapena aurkeztu zuten Josu Legarreta Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko euskara-zuzendariak eta Joxe Ramon Belokik, egunkari publikoaren eredua izan zitekeena erakusteko asmoz. Joseba Arregi Kultura sailburuak esana zuen ordurako *Euskaldunon Egunkaria*-k ez zuela Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jasoko; Ajuria Eneko Itunaren barruan kokatu behar zuen, Arregik esandakoaren arabera, Jaurlaritzaren laguntza jasotzekotan.

Abenduaren 6an, Durangoko Azokaren irekierarekin batera, *Euskaldunon Egunkaria*-k lehenengo zenbakia kaleratu zuen. Pello Zubiria zen zuzendaria, Joxemi Zumalabe kontseilari ordezkaria, Joan Mari Torrealdai Editorial Kontseiluko burua eta Martin Ugalde Administrazio Kontseiluko lehendakaria. Lasarten zuen egoitza nagusia.

Egunkaria inolako dirulaguntza publikorik gabe jaio zen, eta halaxe iraun zuen —Nafarroako Gobernuak 1991ko abendutik aurrera *Nafarkaria* gehigarria argitaratzeagatik ematen zion 6 milioi pezetako dirulaguntza salbu— 1992ko ekainera arte: Gipuzkoako Batzar Nagusiek 50 milioi pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuten, oposizioan zeuden HB, EA eta EUE alderdietako batzarkideen botoei esker; Diputazioko Gobernua osatzen zuten EAJ eta PSE-EE kontra zeuden.


Dirulaguntzarik ez jasotzeaz gain, publizitatearen banakelan erakunde publikoek boikota egiten ziotela salatu zuen behin eta berriro *Egunkaria*-ko zuzendaritzak. Usurbilen 1992ko ekainaren 26an egindako Egunkaria Egunean publizitate-diskriminazioaren salaketa izan zen eguneko aldarrikapen nagusia.


Aurreko bi urteetan *Egunkaria*-ko eta Kultura Saileko ordezkarien artean zenbait bilera egin ondoren emaitzarik lortu ez eta harremanak etenda zeudelarik, akordio bat lortzeko helburuz *Egunkaria*-rekin elkarrizketak hasteko eskaera egin zion Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari, EAJ, PSE-EE, EA eta EUEren aldeko botoekin, 1993ko urrian.

1994ko ekainaren 29an «euskaldun guztion Egunkaria bultzatzea» helburu duen elkarlanerako hitzarmena izenpetu zuten Joseba Arregik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren izenean eta Iñaki Uriak *Euskaldunon Egunkaria*-ren izenean. Adosturiko agiriak zioenez, «alde bien borondatea da euskarazko egunkariak pribatu izaten jarrai dezan eta normaltasunean bizi ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak (dirulaguntzak, publizitatea eta abar) jaso ditzan erakundeetatik». Jaurlaritzak 70 milioi pezetako laguntza eman zion *Egunkaria*-ri, eta «urteroko aurrekontuetan bere programen barruan *Egunkaria*-ren beharrizanak kontuan hartuko direla hitz eman» zuen. *Egunkaria*-k bere sorreratik eskaini bezala, Jaurlaritzak ordezkari bat izango zuen *Egunkaria*-ren Administrazio Kontseiluan.

Egunkaria-k hiru zuzendari izan ditu 1996 arte: Pello Zubiria sorreratik 1992ko ekainera arte, Iñaki Uria 1993ko ekainera arte, eta Martxelo Otamendi ordutik aurrera. Joxemi Zumalabe, *Egunkaria*-ren bultzatzaile eta eragile nagusia, kontseilari ordezkari izan zen 1993ko urtarrilaren 12an heriotzak eraman zuen arte; Iñaki Uriak —ordura arte zuzendari— hartu zuen kontseilari-ordezkaritza hurrengo ekainean. Martin Ugalde Administrazio Kontseiluko lehendakari eta Joan Mari Torrealdai Kontseilu Editorialeko zuzendari dira hasieratik. Erredakzio nagusia Lasarten izan zuen lehenengo lau urteetan, baina egoitza nagusia Andoainen du 1994ko udazkenaz geroztik.

OJD (Banaketa Egiaztatzeko Bulegoa) erakundeak 1992. urtetik egiaztatzen du era ofizialean *Egunkaria*-ren tirada zenbatekoa den: OJDren arabera, egunero batez beste 11.143 ale banatu zituen 1992an, 11.212 ale 1993an, 11.560 ale 1994an eta 12.189 ale 1995ean. Urtez urte gora egin du, beraz, *Egunkaria*-ren tiradak.





AGIRREBALTZATEGI, PAULO
(Oñati, 1942)

- *Kultura eta Fedea* (1971)*
- *Fedearen dinamika* (1972)*
- *Filosofia. Hiztegia* (1984)*
- *Erlijioa. Hiztegia* (1987)*

Euskaldun guztiontzat elebiko organo abertzale bat egiteko aukera galdu genuen.

Kultur aldizkarietan, "Jakin", 1969an kantzelatua izan ondoren, 1977an agertzen da atzera. "Zehatz" ere urte berekoa da, "Zabal" Baionakoari segida emateko asmoz Hegoaldean aterea. "Zutabe" 1983koa da eta HABEren eskutik dator. 1974tik datorren "Elhuyar" 1985ean hilabetekari bihurtzen da. Elebidunak dira "Gaiak" (1977) eta "Muga" (1979). 1981ean Eusko Ikaskuntzaren babespean berragertzen den "RIEV" ere elebiduna da.

1990 inguruan aldizkari espezializatuak datoz, euskal kulturgintzaren sendotzearen lekuko: AEKren aldizkari pedagogiko gisa "Ele" (1987), Euskal Herriko Unibertsitatean Hezkuntza-gaietan "Tantak" (1989), Soziolinguistikan EKBren "Bat" (1990) eta urte berean UEUren "Uztaro" (1990).

Gatozen berriz hasierako urteetara. Ikusten denez, aldizkari politiko-informatiboen loraldia pasa-zain egon behar izan dute literatur aldizkariek. Idazle unibertsitario gazteen plataforma gisa datoz batzuk. Urtez urte: "Pott" (1978), "Zurgai" (1979), "Susa" (1979), "Oh! Euzkadi" (1980), "Hegalez-Hegal" (1981), "Maiatz" (1982), "Antzerti" (1982). Urte batzuk pasa ondoren, Euskal Idazleen Elkarteak "Hegats" (1989) sortzen du.

Haurrak ere ez dira gelditzen deus gabe "Kili-Kili"z gain (1966) "Ipurbeltz"en (1977) laguntzarekin. Euskara-ikasleei laguntzeko asmotan ateratzen du HABEk "Habe" (1981) eta AEK-k "Aizu!".

1990 urtearen bueltan aldizkako agerpenen munduan bi fenomeno oso inportante gertatzen dira: herri-prentsaren jaiotza eta "Euskaldunon Egunkaria"rena.

Herri-aldizkariek erro luzeak dituzte historian eta herri batzuetan nahikoa tradizio. Baina orain sortu den fenomenoa ez da gauza bera. Prentsa bezala definitzen dute bere burua eta horixe da nobedadea. "Arrasate Press" (1988) izan da aitzindari eta eredu. Ezaugarri propioak dituzte: informatiboak dira, argazkia sartzen dute, publizitatea da diruiturrietako bat (bestea, erakunde publikoena delarik), doan banatzen dira, kazetari profesionalez osatzen da lan-taldea, eta sarritan euskara-elkarteren bat dago atzetik. Urte gutxitan sekulako goraldia izan dute. Izenez izen 40 bat aipa daitezke, Gipuzkoan gehien-gehienak.

"Euskaldunon Egunkaria"rena kasu berezia eta bakarra da euskal prentsan. Herri-ekimenetik bete-betean sortua, kolore guztietako euskaltzaleen konfiantza (lortu) duena, zailtasun eta traba politiko-administratiboak airoski gaindituz, erakunde publikoekiko elkarlan espiritua bultzatu eta akordioetan urrezko independentzia gordetzen jakin duena.

Eta, ahaztu aurretik esan dezadan, egunero (astelehena salbu) kaleratzen dena. Eta euskaraz. Esan beharrik ba al zegoen 'egunkaria" eta "euskaldunona" izanda?

Euskararen normalizazioa

Euskararen normalkuntzaren eta modernizatzearen prozesua 80ko hamarkadan helduarora iristen dela esan daiteke. Aurreko hamarkadako saioak, hasikinak, maila jasora iristen dira orain.

Ikus ditzagun euskararen normalkuntzak eman dituen urrats batzuk:


Euskararen berreskurapen-prozesuan irakaskuntza formala (haur eta gazteena) eta helduena bereiz ditzakegu.

Lehenari buruz, euskarazko irakaskuntzari buruz, honela bil daitezke laburki eman diren pausoak: didaktikaren mailan testugintza eta pedagogi lanabesen prestaketa; antolakuntza-mailan Ikastolen Konfederakundea (1977) eta Hezkuntza Saila (1978an Eusko Kontseilu Nagusian eta 1980an Eusko Jaurlaritzan); maila instituzionalean 1982an Hezkuntza Sailak ikastetxe guztietara euskararen irakaskuntza hedatzea.

Helduen irakaskuntza batez ere euskalduntzera emana izan da, jatorrizko ideia zen alfabetatzea baztertuik. AEK dago hor nagusi. Herri-erakunde pribatu gisa, berak antolatu eta koordinatu du 1976tik aurrera Euskal Herri osoan alfabetatzea eta euskalduntzea. Geroztik beste eta bestelako euskaltegiak ere sortu dira, pribatu eta publiko. IRALEk (1981), instituzionala bera, adibidez, irakasle-jendea euskalduntzen du. Eta batez ere HABE (1981) izan da AEKren parekoa, Kultura Sailak sortua. AEK eta HABEren arteko liskarrek hamar urte luze gutxienez iraun dute, harik eta 1996 honetan bien arteko bakeak egin arte.

Corpusaren normalkuntzan, modernitateari begira, hor egin dira agian aurrerapenik ikusgarrienak.


Euskaltzaindiak 1979an Bergaran ospatzen duen Biltzarrak hamar urte lehenago Arantzazun harturiko erabakien balantzea egiten du. Bergarako Kongresuak arau haien onarpen soziala egiaztatzen du. 1968an Arantzazun Euskaltzaindiak ofizialki onartu zuen Koldo Mitxelenaren proiektu hura garatuz-garatuz joan da hurrengo urteetan: puntuazio eta ortografi arauak (1971), aditza (1973 eta 1977), hilabeteen izenak (1971), h-rekin idatzi beharreko hitzak (1974), hiztegi orientatiboak (1973, 1974, 1975, 1977, 1978, 1979). Hari beretik, Koldo Mitxelenari lehenengo eta Ibon Sarasolari gero, "Orotariko Euskal Hiztegia" idazteko agindua eman die Euskaltzaindiak.



AGIRRETXE, EUGENIO (Errezil,1920)

- *Arantzazu'ko Ama Birjinaren bederatzi-urrena (1946)*
- *Arantzazu'ra erromes (1956)*
- *Zamalbideko elizaren kondairatxoa (1991)*
- *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan (1995)*

HABE



HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) 1981ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta 1983an lege bidez onartu Legebiltzarrak. Kultura Sailaren menpeko erakundea, Ramon Labaien Kultura sailburu eta Amatiño Euskararen Sustapenerako arduradun zirela sortu zen.

Euskal Autonomi Elkarteko euskaltegientzako laguntzak arautu eta banatzeaz gain, lau euskaltegi izan ditu bere gain HABEk 1994. urtera arte, urte honetako martxoan HABEren euskaltegiak ixtea erabaki baitzuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak.


1995. urteaz geroztik elkarlanerako hitzarmen-marko berriak izenpetu ditu euskalduntze eta alfabetatze arloko erakundeekin: AEK, IKA, Bertan eta beste. 1996. urtean 40 udal euskaltegik, 46 euskaltegi homologatuk eta 74 euskaltegi librek jaso dute HABEren laguntza.

Hiru aldizkari argitaratzen ditu: *HABE* aldizkaria, euskara-ikasleei zuzendua, 1981etik; *Hizpide*, euskara-irakasleei zuzendua, 1996tik (*Zutabe* izenez argitaratu zen 1983tik 1996ra) eta *Unescoren albistaria* 1984tik. *Habeko mik* komiki-aldizkaria ere argitaratu zuen 1983tik 1991ra era erregularrean, eta hurrengo hiru urteetan zenbaki berezi batzuk argitaratu ziren.

HABE erakundeak lau zuzendari izan ditu: Jose Juan Gonzalez Txabarri (1984tik 1988ko abendura arte), Martin Etxeberria (1989ko urtarriletik 1995eko urrira arte), Josune Ariztondo (1995eko urritik 1996ko otsailera) eta Jokin Azkue (1996ko otsailetik aurrera).

AEK

1966. urtean antolatutako Euskal Alfabetizazio Kanpaina izan zen Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundearen (AEK) sorreraren abiapuntua. Rikardo Arregi izan zen alfabetatze-kanpaina haien eta AEKren sorreraren eragile eta gidari nagusi. 1968an Euskaltzaindiaren babesean eratu zen AEK eta 1974tik aurrera erakunde autonomo bilakatu zen. Euskal Herri osoko gau eskola eta euskaltegi ia guztiak koordinatzen zituen AEK-k.



Erramun Osa

AEK-ko Zuzendaritzakoa

HABEren (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) sorrerak (1981) Eusko Jaurlaritzaren eta AEK-ren arteko garai gatazkatsua zabaldu zuen; 1994an lehenengo hitzarmena izenpetu zuten arte iraun du konponezinak. Jaurlaritzak AEK diskriminatu egin duela salatu du Koordinakundeak urteotan.

AEKren aldeko kanpaina zabalago baten barruan lehenengo Korrika antolatu zuen Koordinakundeak 1980ko azaroan, eta bi urtez behin antolatu da geroztik. Korrika ezezik, AEKanpada, AEKanoeta eta bestelako ekitaldi eta kanpaina batzuk antolatu izan ditu AEK-k, erakundea bultzatzeko eta diskriminazioa salatzeko.

1989an AEKtik kanporatutako lau euskaltegi (Nafarroako bi eta Arabako beste bi) Ikas eta Ari (IKA) erakundean bildu ziren.


Juan Mari Larrarte

AEK-ko Zuzendaritzakoa

Euskal Herri osoan hedatuta dagoen euskalduntze-erakunde bakarra da AEK. 1996. urtean 140 euskaltegi, urte osoko bi barnetegi eta udako hamar barnetegi ditu guztira. 1995-96 ikasturtearen hasieran 15.302 ikasle biltzen zituzten AEKren euskaltegi guztien artean.

Aizu! ikasleentzako aldizkaria argitaratzen du hamabostero eta *Ele* didaktika-aldizkaria sei hilero. Euskararen irakaskuntzarako ikasmetodoak ere ateratzen ditu. Euskalduntzearen arazoak eta barruko koordinazioa hobetzeko mintegi nazionalak egin ohi ditu.

1990eko irailean Nafarroako Gobernuarekin akordioa sinatu zuen AEK-k, eta 1994ko martxoan Eusko Jaurlaritzarekin akordiorako agiria adostu zuen. Jaurlaritzarekin hitzarmena 1995eko abenduan izenpetu zuen.

Euskal Kultur Erakundea


Euskal Kultur Erakundea (EKE) 1990eko apirilean sortu zen Baionan egindako bilkura nagusian, bi helburu nagusirekin: batetik. euskara eta euskal kulturaren egitura kudeatzailea izatea, kultur taldeei sustengua emanez, eta bestetik, gogoeta eta kultur trukalzeak bultzatzea.

Ipar Euskal Herriko 141 herriko etxek (158 udal dira guztira Iparralde osoan) eta 70 kultur elkartek osatzen dute Erakundea. Diru iturri nagusia 141 udalek eratua duten Euskal Kultura Suspertzeko Herriarteko Sindikata da: udal bakoitzak biztanleko eta urteko bi libera ematen dizkio Sindikatari, eta honek EKEri. Horretaz gain, Pariseko, Akitaniako eta Pirinio Atlantiarrelako administrazioek ere dirulaguntza ematen diote EKEri. Honek, Iparraldeko kultur taldeek aurkezten dituzten proiektuak diruz laguntzen ditu eta EKEk berak ere bultzatzen ditu hainbat kultur jarduera.

Esate baterako, 1992ko urrian Ondarearen Eguna antolatu zuen Irisarrin lehen aldikotz, eta geroztik bi urtez behin antolatu du. Argitaratzailea ere bada Euskal Kultur Erakundea: besteak beste, *Euskara Agerian* izeneko bi liburuska, Iparraldean buruzko bideoa, *Akapela* euskal kantuen bilduma eta Jean Baptiste Elizanbururen heriotzaren lehenengo mendeurreneko kantaldi bereziaren diskoa argitaratu ditu.

1993an Euskal Sorkuntza Gaztearen lehen lehiaketa antolatu zuen Iparraldeko euskal musika taldeentzat, eta euskal kulturaren inguruko gaiekin erakusketak ere antolatzen ditu.

Xirrista haur aldizkaria EKEk sortu zuen 1992ko martxoan, nahiz eta 1994. urtearen bukaeratik Xirristazaleak elkarteak argitaratzen duen, EKEk diruz lagunduta.




Ramuntxo Camblong izan zen EKEko lehenengo lehendakaria, eta 1994an Erramun Baxok-ek hartu zuen lekukoa.

Euskal Kultur Erakundearen (EKE) sorreraren eragile nagusia Pizkundea elkartea izan zen; erakunde hau izan zen, sorreraren aurreko negoziazioetan, erakunde publikoetako ordezkarien solaskide. Pizkundea 1981an sortu zen, Ipar Euskal Herriko kultur taldeak bildu —30 elkartetik gora bildu ziren bere baitan—, euskal kulturaren garapenerako programa finkatu eta euskararen ofizialtasuna eskatzeko.

1995ean Uztaritzen egindako bileran desagertzea erabaki zuen Pizkundeak, kultur mundua aldatua zela eta. Frantziako estatuarekin aho batez mintzatzeko Euskal Konfederakundea sortzea erabaki zen. Pizkundean sartuta ez zeuden AEK, Seaska eta EHE elkarteei Konfederazioan sartzeko gonbidea egin zitzaien. Ordura arte, Deiadar kolektiboan biltzen ziren Pizkundea, Seaska, AEK eta EHE.

EKB



Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) 1983ko martxoan sortu zen Bergaran egindako bileran, euskal kulturgintzako elkarte eta erakundeak koordinatzeko helburuarekin. Euskararen aldeko kanpainak antolatzen ditu eta euskalgintzan diharduten taldeentzako zerbitzu juridiko, tekniko eta dokumentalak eskaintzen ditu.

1988an euskararen aldeko kanpaina handia antolatu zuen Ikastolen Elkartearekin batera: Bateginik. 80 milioi pezeta (lau milioi libera) bildu ziren Iparraldeko eta Nafarroako ikastolentzat eta euskara hizkuntza nazionaltzat aldarrikatuz 300.000 sinadura bildu ziren.

Urtero euskarazko ereduetan matrikulatzera bultzatzeko kanpaina antolatzen du, eta euskararen edota hizkuntz gutxiagotuen inguruko gaiekin hainbat jardunaldi bultzatu ditu urteotan —Hizkuntza Minorizatuen Nazioarteko Topaketak (1987), Euskalduntze Alfabetatze Jardunaldiak (1990), Publizkuntza (1991)...—. Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkartearekin batera, UEMA (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) mugimenduaren bultzagile izan da EKB.

Euskararen eta euskal kulturaren datu-base informatizatua du eta astero kaleratzen du *Prentsa eta Dokumentazio Zerbitzua* izeneko koadernoa 1988ko urtarriletik, eta horren gehigarritzat, *Dokuteka* aldizkaria. *Bat* soziolinguistika aldizkaria argitaratzen du lau hilabetero 1989ko azarotik. *EKBrriak*. barne buletina eta *Euskararen Nazioarteko Informazio-buletina* ere argitaratzen ditu.

Sorreratik 1995eko abendura arte Paulo Agirrebaltzategi izan zen EKBko lehendakari. Geroztik Juan Mari Mendizabalek egiten du buru.

1996. urtean honako talde, erakunde eta enpresak osatzen dute Euskal Kulturaren Batzarrea: AEK, *Argia*, Arrano Beltza Euskal Tokia, Bagare, Elkar, EHE, *Euskaldunon Egunkaria*, Goierriko Euskal Eskola, IKA (Ikas eta Ari), Ilazki, *Jakin*, Kalegana, Maizpide, Oinarriak, UEU eta Urrats.



AHAMENDABURU, Jakes
(Eiheralarre, 1961)

- Isilka Misilka (1988)
- Gauean ontuts (1990)


Euskararen modernizazio eta prestakuntza akademikoan batez ere UZEIren lana gailentzen da, Elhuyarri eta UEUri ezer kendu gabe. *Jakin* taldearen iniziatibaz sortua 1977an, hasieratik eskuratu zuen kultur talde guztien oniritzia eta irakasle eta espezialisten esku-hartzea. Bere helburua euskararen normalkuntza eta modernizatzea da. Era askotara egin du lan. Batez ere lexikologian egin duen lanari esker da ezaguna. Hogeitik gora hiztegi eleaniztun publikatu ditu 350etik gora espezialista eta profesionali esker. Hori aparte, irakaskuntzarako testuak landu eta idatzi ditu. Azken aldian, 1987tik aurrera, EEBS edo "Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa" darama aurrera, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuen hitzarmenari esker.

LIBURUGINTZA ZIFRATAN: 15.525 titulu

Hiru urtealditan banatu dugu euskal liburugintza osoa. Zifra absolututan elkarrekin alderatzea ezina da, horren desberdinak izaki nola liburu-kopurua hala urte-kopurua.

Urtealdi bakoitzaren barruan liburuaren presentzia estatistikoa jakin nahi dugu, hala ere. Honetarako egin duguna da, urtealdi bakoitzaren barruan urteko zenbat liburu argitaratu ohi den kalkulatu.

Izugarriak dira aldeak. Foru-garaian urtean 2,1 liburu atera zen. Pizkunde eta frankismo-garaian urteko 31,5 liburu. Eta aro garaikidean, urteko 659,2 liburu atera dira. Jakina da mila bat liburutan gabiltzala gaur egun.



Orain arteko liburugintzaren azterketan bezala jokatuko dugu. Urtealdi bakoitzaren barnean produkzioaren balore nagusiak aurkeztuko ditugu.

Baina, hasteko, konparazioa. Euskal liburuaren historia osoko lautik hiru baino gehiago zor zaio aldi honi (% 75,7). Hau da, hirutan biderkatu dugu historia osoko liburu-kopurua.


Beste modu batera ere azaldu dezakegu garai honen garrantziarekin batera beste historialdien ekarpena. Bana dezagun hirutan 450 urtetako historia hau: 1) Erregimen zaharra, 1545-1875; 2) Eusko Pizkundea eta frankismoa, 1876-1975; eta 3) 1976tik aurrerakoa. Lehen aldian atera ziren urteko 2,1 titulutik bigarren aldiko 31,5era dagoen urratsa txiki gelditzen da oraingoarekin.

Aldea handia da, sekulakoa. Are handiagoa litzateke, gainera, azken bost urteetako produkzioa unitate bezala hartuta egin izan bagenu erkaketa, urtero 1.100 bat liburutan gabiltza-eta gaur egun.

Ondorio azkarregien amildegitik ez dadin inor abia, kopuru hauek bere tamainara ekarri beharko lirateke, eta ikusi garaian garaiko produkzioa beste herrialdeetan ere, eta elkarren ondoan jarri ea zer ematen duen; horrekin batera, euskal biztanlegoarekiko ea zer suposatzen duen. Hori bakarrik ez: garai bakoitzeko gizarte-baldintzak eta liburuaren funtzioa ere kontuan hartzekoak dira.

Edonola ere, hazkunde bizkorra behintzat azpimarra genezake, zifra hauek eskutan.


Goraldi hau eragin duten faktoreak bere momentuan aztertu eta baloratuko ditugu. Seinalatuta utzi nahi ditugu batzuk, hala ere. Behetik gora hasita, populazio alfabetatuaren hedapena irakaskuntzari esker; liburutegi, denda eta banaketa-sarearen normalkuntza; autore eta editoreen lana; eta erakunde autonomikoen hizkuntz eta kultur politika, Eusko Jaurlaritzarena bereziki.




AINTZIART, PIARRES (Donibane Lohizune)

- Euskal Herrian bizikletari (1989)


LIBURU-PRODUKZIOA 1976-1994



Lehen argitalpenak eta berrargitalpenak



Jatorrizkoa eta itzulpena



Guztira argitaratu denaren lautik hiru kokatzen da urtealdi honetan.
- Urtez urte gorakada nola gertatu den ageri da lehen grafikoan, lehen argitaraldiak eta gerokoak nahasian.
- Bigarren grafikoak, urte bakoitzeko kopurua lehen edizioak eta gainerakoek nola osatzen duten, erakusten du.
- Hirugarren grafikoak jatorrizko liburua eta itzulitakoa alderatzen ditu.

Jarrai dezagun konparazioekin eta ikus dezagun hazkunde horren barne-sailkapena. Orain, frankismo-garaiarekin alderatuko dugu aro garaikidea.

Bi konparazio-mota egingo ditugu: argitaraketari dagokiona bata eta liburu-motari dagokiona bestea.

Argitalpena	Urtealdiak		Hazkundea
	A (1976-94)	B (1936-75)	A/B
Lehen argitalpena	10.248	1.626	6,3
-jatorrizkoa	6.477	1.263	5,1
-itzulpena	3.771	363	10,4
Berrargitalpena	2.277	107	21,3
Hazkundea osoan	12.525	1.733	7,2

Bai orokorrean eta bai atal bakoitzean ukaezina da hazkundea. Jauzirik handiena berrargitalpenean izan da. Aro garaikidean merkatu egiazko bat egon badagoela esan nahi du horrek. Esan nahi du, baita ere, merkatu horri egoki dagokion liburua egiten dela.

Liburu-tipoen arabera sailkapena eginez gero, aurreko alditik hona zein gaisail garatu den ikusten da garbi. Lehen edizioak konparatzen ditugu beren artean.

Gai-sailak	Urteak A 1976-94	B 1936-75	Hazkundea A/B
Hezkuntza, Irakaskuntza	2.827	145	19.5
Haur eta gazteentzako liburuak	2.370	159	14.9
Zientzia eta teknika liburuak	525	61	8.6
Giza eta Gizarte-zientziak	1.881	233	8.0
Aisia-liburuak	355	73	4.8
Literatura	1.749	544	3.2
Erlijioa. Teologia	353	390	0.9
Gainerakoak	188	21	8.9
Guztira	10.248	1.626	6.3



AIRE, HENRIETTE (Urepel, 1943)

- Egiaren egarriz (1989)

Oro har, frankismoko berrogei urtetan baino sei aldiz titulu berri gehiago argitaratu ditugu (6,3 zehazki) hemeretzi urtetan. Denbora erdian sei aldiz gehiago, bada zerbait.

Baina ez dira seitan biderkatu liburu-tipo guztiak. Hazkundea bi sailetan izan da bereziki handia: irakaskuntzako tituluak ia 20 aldiz gehiago daude aldi honetan (19,5) eta 15 aldiz gehiago haur eta gazteentzako literatura. Era ulerterrezagoan esanda, lehen 300 titulu atera ziren lekuan orain 5.000 titulu argitaratu direla.

Azpimarragarriena, zalantzarik gabe, liburugintzaren eboluzio hau da, irakaskuntzaren inguruan garatzen dena. Hazkundearen erditik gora liburu-mota honi zor zaio.

Beste kultur eremuetan ere badago zer seinalaturik. Guztiek egin dute gora, salbu batek. Erlijio-liburua jaitsi egin da, 40 bat liburu. Eta, ondorioz, orain arte lehen eta bigarren postuetan kokatu izan dena, azken lekuan agertzen zaigu orain.

Gainerakoen igoera-baloreak hauek dira: Liburu zientifikoa 8 bider-edo hazi da; Aisia-liburua, 4,8 aldiz. Eta literatura, 3,2 bider. Literaturari gagozkiolarik, honek ez du esan nahi literatur liburu gutxi idatzi denik, eta ezta ere aurreko gai horiek baino gutxiago egin denik. Gertatzen da aurreko urtealdian literatur liburua zela kopuruz altuena.

Gaur egun 1.100 titulu urteko

Zer diote idazleek? Nahikoa dela? Gehiegi dela? Gutxiegi dela?



ALBERDI, PEDRO (Eibar,1957)

- Handitzen naizenean (1995)

Gehiegi ala gutxiegi?

Zenbat den gehiegi, gutxiegi edo nahikoa jakitea ez da erraza, noski. Idazle inkestatu batzuek ez dute erantzuna emateko bere burua gai ikusi. Batek dio: "meteoritoen kopurua epaitzea bezain zaila zait". Zeren arabera gehiegi, zeren arabera gutxiegi? Erantzun soilarekin ezin gindezkeen geldi, eta horregatik eskatu diegu arrazonatzea: zertan eta zergatik esaten duten gehiegi ala gutxiegi. Idazleen erantzunetan agertzen diren jarrerak eta hauen arrazoiak jasotzen ditugu hemen.

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,3
Gehiegi	24,5
Gutxiegi	34,2
Besterik	25,0

Hirutik bat da uste duena gutxiegi argitaratzen dela eta liburu-kopuruak hazi egin beharko lukeela.


Lautik batentzat, aldiz, puztuegia dago produkzioa.

Jarrera hauek, egia esan, ez dute gehiegi azaltzen, kontsentsurik ez dagoela besterik. Gehiegi ala gutxiegi bai, baina zeren arabera, zergatik, zertan?

Idazle batzuek garbi dute iritzia: gehiegi!; gutxiegi!. Arrazonatzerakoan bi joera daude garbi: irakurlegoaren "de facto"ko errealitatetik abiatzen direnak; eta "behar lukeenetik", euskararen premietan intsistitzen dutenak. Baina badira dezente bakoitzari berea ematen saiatzen direnak, eta kantitatea liburu-sailetan banatzen dutenak: halako sailean gehiegi, halako bestean gutxiegi.

Gehiegi omen

Erantzun guztiak ezin genitzake hemen jaso. Egokientxoenak bakarrik.



ALBISU, MIKEL "MIKEL ANTZA" (Donostia,1961)

- *Suzko gezi bat bezala (1983)*
- *Lehen bilduma 82-84 (1985)*
- *Beteluko balnearioko mirakulua (1985)*
- *Odolaren usaina (1987)*

Gaurko produkzioa, hauentzat, puztua dago, gaindimentsionatua. Gehienek argumentu bat bera dute hori erabakitzeko, erreferentzigune bera: irakurlegoaren hedadura txikia. Hauen iritzira, produkzioa kontsumoari egokitu behar zaio.

- *Benetan irakurtzen denerako gehiegi*
- *Ez dago merkaturik hainbeste libururentzat. Argitaletxe-inflazio nabarmena dago, errealitatea puztu da*
- *Ez dago irakurlegorik. Liburu-publikazioa artifizialki gaindimentsionatua dago*
- *Ez du proportziorik irakurle-kopuruarekin*
- *Ez dakit ez ote den legokigukeena baino gehiago. Argitaletxe asko dago, gehiegi? eta aukeran nahiago nuke gutxiago eta hori hobea izatea*
- *Hobe litzateke gutxiago eta kalitate hobekoa*
- *Irakurle errealarekiko puztua dago*
- *Ekonomian ikasten da: eskuratu eta alde jarri behar dira eskularen ubantailak. Gurean 500 liburutik gora, desabantailak*
- *Errazegi argitaratzen da*
- *Lasto gehiegi ateratzen ote den edo*
- *Kalitatezko irizpiderik gabe egiten delako. Gutxiago edo gai ezberdinetan argitaratu baina idazlan hobeak (gehiago zabaldu)*
- *Puztua dago, gehienak ez dira irakurri ere egiten, testimonialak dira*

Gutxiegi omen

Produkzioa gehitu egin behar dela uste dutenen erreferentziguneak arras bestelakoak dira. Baina iritzi bat da nagusi: euskararen eta euskaldungoaren normalizazioak liburu gehiago behar du, eta bestelakoak gainera. Zergatik liburu gehiago?

- *Alor ugari dago betetzeke. Euskaraz bizi behar dugu urte osoa eta egun osoa.*
- *Batik bat jakintza asko ordeztu gabe daude*
- *Benetako sorkuntza gutxi egiten da*
- *Euskarak aurrera egiteko zenbat eta gehiago produzitu, hobe da*
- *Euskararen egoera ez da normalizatua*
- *Hainbat alorretan oso gutxi edo ia ezer ez dago euskaraz*
- *Oraindik hainbat eta hainbat esparrutan euskara hanka-motz dago*
- *Zientzi alorrean gutxiegi*
- *Alor batzuetan hutsuneak daude: saiakera, poesia, antzerkia, ikerketa-lan serioak*
- *Kantitatetik jalgitzen da kalitatea*

- *Liburu gehiago izatera, irakurle gehiago (nik uste)*
- *Herri normalizatu batek askoz gehiago beharko lituzke*
- *Argitaratutako liburu-kopurua izan al daiteke inoiz gehiegi?*
- *Liburu-kopurua beti izango da txikia*
- *Suomiko suediar gutxiengoaren arabera, adibidez, gutxiegi*
- *Azken urteotan idatzitakoa gehitu bada ere, beste herri batzuekin konparatuz eskasa da*

Gehiegi eta gutxiegi

Badira idazleak espresuki bi aldeak azpimarratu nahi izan dituztenak. Produkzioaren desoreka seinalatzen da gehienetan. Proportzioak zaintzen dituzte hauek.


- *Arlo batzuetan gutxiegi eta bestetan gehiegi*
- *Proportzioan "literatur" liburu gehiegi argitaratzen da, "pentsamendu" liburuen aldean*
- *Gehiegi, dagoen irakurle kopuruarentzat. Gutxiegi, premiei begira*
- *Gehiegi: irakurleen-kopurua kontuan izanik. Gutxiegi: premiei begira*
- *Kantitatez gehiegi. Kalitatez gutxiegi. Kalitatea eta kantitatea ez datoz bat. Behar bezalako kalitate-kontrolik ez*
- *Kanpora begira, zenbat eta gehiago hobeto. Baina barrura begira, ez dut uste produzitzen den guztia kontsumitzen denik*
- *Literatura bestelako gaiez euskaraz liburu gehiago argitaratu behar genuke (eta batez ere haur-literaturaz eta testu-liburuez bestelakoak)*
- *Hezkuntzarako beharrezko testuak alde batera utziz gero gehiegi; testuak barru sartuz, agian, gutxiegi.*

Iritziak iritzi, edozein ekoizpenak, eta euskal liburuarenak noski, dituen arazo larri batzuk seinalatzen dira erantzunetan, hala nola, gainekoizpena, irakurlego urria, gai-esparruen desoreka.

Ohar gisa bada ere, gero luze-zabalean erabiliko ditudala aginduz, puntu hauek aipatu nahi nituzke, aurrerakin moduan.

Gainprodukzioa

Frantzian eta Espainian, azken urteotan, bertako produkzioaz ari direnean, sarri aipatzen da gainprodukzioaren gaia. Liburu-eskaintza handiegiak kalte egiten diola kontsumoari.



ALDAI, XABIER (Azpeitia, 1975)

- Bala zeru urdina (1993)

Titulutan gora omen goaz baina tiradatan ez

ALBERDANIA

Okerragoa litzateke alderantziz, ala?

ELKAR

Hala da (tituluetan ere geldi samar aspaldian). Horrek baditu bere arrazoiak eta azalpenak: mila zulo estali behar ziren egoeran geunden orain dela hamabost-hogei urte, eskaria eskaintza baino handiagoa zen eta harrera ona izaten zuen edozein obra berrik. Orain, berriz, urteotan sortutako fondo guztia daukagu aukeran, obra gehiago ere idazten dugu, eta eskaria ez da proportzio horretan igo. Ondorioz, gutxiago saltzen da titulu bakoitzetik. Honek ondorio latzak izan ditzake gerora: argitaletxe batzuk itxi beharra, liburu-mota batzuk ez ateratzea eta abar (idazlearen dirusarrerak gutxitzeaz gain). Arazoa ez litzateke konponduko titulu gutxiago aterata (gainera, literatura sortuaren atalean bereziki, ez dago halako inflaziorik; bai ordea haur-literatura itzulian, beste arrazoi batzuengatik) eta, hortaz, irakurle berriaren itxaropena gorde beharko dugu.

EREIN

Bi kontsiderazio: tituluen gorakako joera, nahiz eta mantendu, asko jaitsi da, kalitateaz irizpide estuagoak aplikatuz. Guk, behintzat, oraingoz moteldu egin dugu abiadura. Batezbesteko tiradak egia da estabilizatu direla; euskal merkatuak ez du irensten botatzen zaion edozein gauza. Irakurle kritikoagoa daukagu, eta eskaintzaren eztandak saturazio puntu bat sorrarazi du.

Baina esan behar dugu baita ere, hainbat egilerekin, inoiz ez ditugun tiradak egin ditugula azken bi urte hauetan.

Ibaizabal

Ulertzekoa da: orain urte batzuk argiteletxe gutxiago eta tituluak ere gutxiago genituen eta jakina, tiradak handiak izan zitezkeen. Baina gaur egun argitaletxeak asko ugaldu dira eta argitara ematen diren tituluak zer esanik ez. Ondorioz, titulu ugari argitaratzen dira baina zaila da tiradatan gora joatea.

Bestalde, irakurzaletasunaren pobrezia ere badugu, ez baita erraza telebista moduko medioekin konpetitzea. Askoz erosoagoa da butakan eseri eta ikustea irakurtzea baino. Eta gaurko gaztetxoek ere joera hori agertzen dute, eskolatik heldu orduko telebistaren aurrean jartzea atsegin baitute eta liburuak irakurtzea, batez ere, eskoletan egiten duten ekintza da.

Pamiela

Normala.

Susa

Idazleen obra inportanteen plazaratzearekin batera, literatura-argitaletxeen kopuruaren handitzea eta euren jarduera profesionalaren sendotzea izan da azken urteetako berri garrantzitsuena, eta ez liburu-tiraden beheititzea.

Egia da liburu berrien tirada kopuruak jaitsi egin direla. Baina horren aldean, beste fenomeno esanguratsuago bati erreparatu behar diogu: zenbait libururekin gertatu da lehen argitalpena egin eta denbora-epe oso laburrean hainbat eta hainbat berrargitalpen egin behar izan direla. Eta gaur egun liburu asko dago bigarren eta hirugarren edizioan daudenak, eta beste zenbait bost eta zortzi eta hamargarrenean.

Txalaparta

Baieztapen horrek ez du gure dinamika isladatzen. Gu gora goaz titulu-kopuru aldetik baina baita tirada aldetik ere. Joan den urtean erabaki genuen literatura bildumako liburuen gure hasierako tirada handitzea eta lehen egiten genituen 2.000 aleetatik 2.700 egitera pasatu gara. Badira ere salbuespenak, Durangoko Azokarako kaleratu genuen Patxi Zabaletaren *Badena dena da*-ren 3.500eko hasierako tirada egin baikenuen



ALDALUR, ARANTZA
(Azkoitia, 1963)

- Hainbat gau izarrik gabe (1989)

Liburu-dendak ez daude prestatuta eskaintza editorial guzti hori asumitzeko, ez leku aldetik eta ez pertsonalaren aldetik.

Eroslea, irakurlea, gainditua dago sarri, titulu-uholdearen aurrean. Baherik gabe. Selekzioa eginda etortzen zaio, promozioaren bidez. Eta, zertan esanik ez da, liburu minoritarioa minorizatua gelditzen da joku horretan. Promozioak, publizitateak, obra eta autore gutxi batzuk indartzen ditu, eta itzalera pasatzen besteak.

Azken urteotan, Europa osoan, titulu-ugaltzearen joera da nagusi ale-kopuruen pentzura. Tituluak ugalduz, froga gehiago eginez, "best seller" posiblea bilatzen bide dute argitaletxeek, merkatu-arrakasta. Funtzionatzen duen tituluaren gain egiten da inbertsioa promozioan. Funtzionatzen ez duen tituluak, berriz, bizialdi geroz eta laburragoa du. Badirudi joera honekin produkzioa areagotu dela, titulu-kopurua alegia, baina batez besteko tiradak jaitsi egin direla. Irabazlearen alde apustu eginez gehiengo bat protagonismorik gabe gelditzera kondenatzen da.

Euskal Herriaren kasuan, hiruzpalau idazlek aipatu dute gainprodukzioaren gaia. Ez dut uste joera hauek euskal liburugintzan modu berdinean ematen direnik. Neurri batean bakarrik eman daitezke gurean. Demografia irakurzalearen urritasunak asko esan nahi du, jokamoldeak aldatu egiten ditu. Txikia izatea ez da datu estatistiko soila, izateko eta jokatzeko modua ere bada. Joku-arauak arras baldintza ditzake. Adibidez, zenbat milioi inberti litezke euskal liburu baten promozioan, ondoren berreskuratzeko asmotan?

Kantitatetik kalitatera

Zabor asko, lasto asko, obra kaxkar asko publikatzen omen da, argitaratzaileek ez omen dute kalitate-kontrolik. Liburu asko bai, baina onak zenbat? galdetu ohi da holakoetan. Kalitatea indartzea eskatzen duten gehientsuenek produkzioaren murrizketa proposatzen dute, kantitatetik kalitatera igarotzea.

Bernardo Atxagak (1995) esan omen du murriztu egin beharko litzatekeela produkzioa eta gauza hobeak atera. 1993an esana zuen urteko mila liburu gehiegi dela.

Xabier Etxanizek (1995) kalitatearen alde jokatzea proposatzen du: "Urtean mila liburu argitaratu beharrean agian hobe izango litzateke ehun edo berrehun plazaratzea, baina ehun horiek oso zainduak, kalitatezkoak, ondo idatzita eta gainera kanpoko produktuekin lehiatzeko moduan (...) Beharbada hemendik aurrera gutxiago produzitu beharko

dugu (gure merkatuak zenbait arlotan ez du askoz gehiagorako ematen), baina produzitzen dugun hori kalitatezkoa izan dadila".

Xabier Mendiguren gazteak (1995) urteko produkzioaren errepasoa egitean 1.200 liburutik dozena-erdi bat apartatu zituen, sei, "berriz ere irakurriko nituzkeenak, denboraren iragazkia gainditu dutenak, eta inork urte horretako uztari buruz galdetuz gero gomendatuko nizkiokeenak". Bera editore izanik ez dut uste produkzio-murrizketa eskatuko duenik honek.

Paperera ekarri ditudan aipuok azken ordukoak direla eta, norbaitek pentsa lezake gaurko kezka esklusiboa dela. Bada, ez; betidanikoa dela esango nuke. Josu Landari esker (1985) beste garai baten berri dugu: "Gaur egun sortzen den literaturari buruzko iritziak emateko garaian, kantitatea eta kalitatearen arteko berezketa azpimarratzeko joera bizia iger liteke herri honetako honorableen artean. Nonbait, azken aldian kantitate aldetik egon den ukaezinezko ugalketak kalitatean halako korrespondentziarik ekarri ez balu bezala".

Badago inkestako erantzunetan bestelako jarrera hartzen duenik ere, hain zuzen kalitatea sor dadin liburuak ugaldu egin behar direla. Kantitatetik kalitatera pasatzen dela.

Kalitaterik egon badagoen ala ez, hori besterik da. Ez da oraingo gaia.

Sabaia eta merkatua

Merkatuak du azken hitza. Baina merkatua, mugikaitza bada ere, ez da mugiezina.

Merkatu erreala eta merkatu potentziala bereiztu ohi dira. Gaurko irakurlegoa, *de facto*-koa, zenbatekoa da? 300 milakoa diote batzuk, altu samarra badirudi ere. Mailak eta mailak, produktuak eta produktuak bereiztu beharko dira hor ere.

Kuestioa da merkatu potentzial horretatik errealera jauzi handia dagoela, handiegia. Eta ez dela ikusten noiz eta nola hurbil daitezkeen biak. Esperantzek huts egin dute. Komunikabideez ari dela, Martxelo Otamendik (1995) laurogeiko hamarkadan egin ohi ziren hazkunde-iragarkizunen porrota konstatatzen du, alegia, eskolak, Unibertsitateak, alfabetatuak, profesionalak, "euskaldun osoak" ugaritu dituzte, baina ez dela somatzen ondoriorik euskal produktuen salmentan. Arazo larria, euskal kulturgintzak oraintxe bertan duen larrienetakoa.



ALDEKOA, Iñaki (Oñati, 1961)

- *Antzarra eta ispilua (1992)*
- *Zirkuluaren hutsmina (1993)*



ALKAIN, PERIKO
(Hondarribia, 1952)

- *Eguzkitiko energia (1979)*
- *Eguberritako ipuinak (1982)*
- *Ortzadarrerako bideak (1982)*

Kultur kezken lehentasunak aldatzea proposatzen du Kike Amonarrizek (1995), konstatazio beretsuetatik abiatuz. Ekoizpenean baino indar gehiago kontsumitzailearengan jartzea proposatzen du honek: "Ondorio bezala, beraz, esango nuke azken urte hauetan sektore honetako kezka nagusia ekoizpena izan den bezala (eta hau normala da, ekoizten ez bada ezin baita kontsumitu), hurrengo urteetan ekoizpenean baino indar gehiago jarri beharko genukeela kontsumitzailearengan: ekoizpenaren marketing-a hobetuz, irakurtzaletasuna bultzatuz, dauden medio eta ekoizle desberdinen artean sinergiak lortuz eta euskarazko ekoizpen idatziaren inguruan komunikazio-plangintza egokiak bideratuz, besteak beste".

Egon badagoen merkatua (potentziala) egiazko bihurtzean dagoke, egia esan, ekoizpenaren salbabidea. Ez baitut uste ekoizpenak sabaia jo duenik, ez liburutan eta ez bestelako produktuetan. 1.100 titulu urteko (erlatiboki) asko badira ere, inolaz ere ezin ditzakegu berez gehiegitzat jo. Idazleen erantzunetan ez da hori esaten: irakurtzen denerako dela gehiegizkoa kopuru hori. Irakurlegoaren kopurua da aldatu behar dena, hortaz. Merkatu zabalagoak tituluak gehitzea ekarriko du, tiradak handitzea eta, batez ere, produkzioa dibertsifikatzea eta liburuaren funtzioak aberastea.

Txillardegik Cymru-n ospaturiko Nazioarteko Kongresutik bueltan (*Liburugintza, prentsa eta idazlea hizkuntza zapalduetan*, 1985), Islandiaren kasua ekarri zigun gure produkzioaren tamaina naturala erakusteko: "Alderaketa eginez gero, beraz; eta Euskal Herrian 620.000 euskaldun garelarik, Islandian 1,7 aldiz gehiago argitaratzen da hemen baino: Euskal Herriko liburu bakoitzeko, proportzioari eutsiz, ia-ia bost liburu agertzen da han. Islandian, bestela esanda, herriaren nahiak konpentsatzen du demografiaren ahulezia". Gaur eguneko datuekin, bi mila liburu urteko atera beharko genuke haien parean egoteko. Alde horretatik begiratuta behintzat, urruti du oraindik sabaia euskal liburugintzak.

Noraino jarraituko du euskal liburugintzak gora eta gora? Ez dakit ez noraino jarraituko duen, ezta noraino jarrai dezakeen, eta ez noraino jarraitu behar duen. Sabai hori teorikoa dela, alegia.

Dakidana da ziztu bizian joan garela gora, eta ez gaudela bide horretan bakarrik. Gorakada hau konpartitua dugu katalanekin eta gailegoekin. Hauek, gailegoek, eraman dute abiadarik biziena. 1976tik 1994ra 11,6 aldiz biderkatu da beren titulu-kopurua. Gurea izan da bigarren azkarrena, 7,3, baina ondo-ondoan ditugu katalanak; 6,2. Erritmo oso bizia da, ez da dudarik. Mantsotzera jo du azken urtcotan, hala ere; eta maila beretsuan mantenduko den itxura du.

Joera espantsionista ala selektiboa?

Gutxitu barik azkartu egin behar duela liburugintzak esan du idazleen multzo handienak. Hainbat eta hainbat alorretan euskarak dituen defizitak, gabeziak hornitu egin behar direla, eta horretarako liburu gehiago behar dela. Irakurlego errealaren mugetatik at, euskararen eta euskaldungoaren premietan dago gakoa, hauentzat.

Eta egon ere hortxe dago arazo larriena. Liburuaren politikaren estrategiara garamatza honek. Hitz potolo honek adiera asko ditu. *Zenbat* publikatzen den baino gehiago *zer* publikatzen dugun dela garrantzizkoago iruditzen zait.

Urteak joan eta urteak etorri, lelo berdintsua errepikatzen ibilia naiz produkzioa aztertzen dudan bakoitzean. Alegia, esparruen artean desoreka handia dagoela, irakaskuntza-liburua eta literaturazkoa kenduta ezer gutxi gelditzen dela euskal irakurlearentzat. Eta euskara alor batzuetara mugatzeak, "euskaldun osoari" bere kultur alorretan euskal produkturik ez eskaintzeak, kultur kolonia izatera eraman gaitzakeela.

Zilegi bekit duela hamar urte idatzi nuena errepikatzea: "Kulturalki normalizaturiko gizartea lortzeak izan behar du liburugintzaren helburua. Egungo liburu-produkzioa normalizaziorik-ezaren erreinua da. Esan bezala, badira erlatiboki asko erabili ohi diren gaiak, eta, aldamenean, badira hutsean eta hutsaren hurrengo direnak. Hori bateko. Eta besteko, joera utilitarista edo hobe, liburu pedagogiko-linguistikoa nagusitzen da, literaturaren ondoan.

Beste liburu-mota bat azpigaraturik izateak bihurtzen du problematiko egoera hau. Eskasian dagoen liburu-modu hori badakigu zein den: liburu soziopolitikoa, kulturala, saio-liburua, liburu dokumentala, pentsaera-liburua. Liburu linguistiko-pedagogikoan eta literaturan bakarrik oinarriturik, baldin euskaraz pentsamendurik produzitzen ez bada, kultur kolonia bilaka daiteke kultura. Diglosiaren isla litzateke hori, ez besterik. Antidoto bat bakarra du honek: liburu-politika".

1992an Xabier Mendiguren Bereziartuk atipikotzat jotzen zuen gure liburu-sorkuntza: "Euskaraz dugun liburu-sorkuntza oso atipikoa da. Liburu asko sortzen dira kontsulta eta literatura mailan eta oso gutxi beste alorretan. Osasuna duen kultura baten ezaugarria, asko ez bada ere, pixkanaka alor guztietan zerbait egitean datza".

Liburugintzaren gaurko estrategia hori ez dut uste inongo bulegotan diseinatua denik. Merkatuaren gurariak interpretatuz argitaletxeek gauzatu dute, eta kitto.

Urteak pasa ahala, eta eskaintza editoriala bere horretan tinko mantentzen dela ikusita batetik, eta edizioaren nazioarteko joerak ezagututa



ALKORTA, ITZIAR

- *Nekaneren munduan (1983)*
- *Donostiatik ipuinetan (1989)*


Estatu espainiarreko hiru hizkuntza minorizatuetan liburugintzak izan duen eboluzioa bildu da hemen.

Urtez urteko kopuruak elkarrekin alderatzeko balio du.

Bakoitzaren eta hiruen gorakadalerroa ikusteko ere bai. Altuen katalanak dabiltza, noski; gero gu; eta gailegoak gure orpoz orpo. Baina gorakadan abiadarik handiena gailegoek egin dute (11,6), gero guk (7,3) eta ondo-ondoan katalanek (6,2).

Denborak esan beharko du, baina azken aldiko beherakadatxoa esanguratsua izan daiteke.

LIBURUGINTZA EUSKAL HERRIAN, KATALUNIAN ETA GALIZIAN (1976-1994)



Iturria: ISBNren agentzia espainiarra. / Euskarazkoa: Joan Mari Torrealdai

bestetik, galdera bat sortu zaio bati baino gehiagori: euskara heldu al daiteke esparru guztietara? Ez al da ameskeria? Ez ote gaude amets baten amaieran?

Anjel Lertxundik (1995) zera esan omen zuen Donostiako hitzaldian: "ezin gara esparru guztietara heldu; agian hautatu beharra dago; gizarte eleanitz baterantz goaz eta gizarte elebakarraren ametsez diseinatu nahi genituzke estrategiak. Zergatik ez dugu diseinatu behar gizarte eleanitz horretara garamatzan estrategiarik? Zergatik ez ditugu lehentasunak markatzen? Nederlandarrek, esaterako, ez dute ingeleseraz edo alemanieraz dagoen liburu zientifikorik itzultzen. Zertarako, irakaskuntza-sareak ikasle guztiak, nederlanderaz gainera alemaniera eta ingelesera menderatuko dituztela bermatzen baditu?".

Erantzunaren zain zintzilik dagoen arazo hau bene-benetakoa da. Neuk ere, 1980 aldera, beste modu batera arazo bera plazaratzen nuen: "Gauza al da euskara euskal gizonaren eta gizartearen bizimoldea gauzatzeko (kasu!: ez naiz ari euskararen ahalbide linguistikoez, baizik eta sozialez eta kulturalez). Alegia, liburu-politika bat erabakitzean euskararen ondoan erdarari lekurik eman behar ote zaio, eta, ematekotan, zein? Bego hor galdera, erantzunik gabe oraingoz".


Erantzun-mota desberdinak behar ditu galdera honek. Anjel Lertxundik planteatzen duena zientziaren mailako soluzio eleaniztuna da. Proposamenik egon da hor lehen ere. Baina Anjel Lertxundik egina du galdera orokorragoa ere (*Felix qui potuit rerum cognoscere causas*, 1993): "Gure hizkuntza bazter guztietara heda dadin nahi dugu, nahiaren eta ezinaren arteko sokan txerpolari. Ezin gara, ordea, esparru guztietara heldu eta erantzunik ez baldin badaukat ere, ez nuke nahi galdera egin gabe utzi: ez al gara bazter guztietara heldu nahiz, inora iritsi gabe gelditzen ari?".

Labaina da arazoa. Mamutzar handiak izkutatzen dira atzean. Arrazoi "pragmatikoek" errazegi garamatzate desagertzera. Holakoetan beti etortzen zaizkit burura bizpahiru iritzi. Bata Ferrater Morak esana: "Las 'pequeñas lenguas' no pagan el esfuerzo que se gasta en mantenerlas bien lubricadas". Bigarren iritziaren jabea Antoine Meillet da: "De una manera general importa no multiplicar las lenguas de civilización. Cada lengua de cultura que se crea obliga a crear todos los instrumentos de trabajo necesarios en esa misma lengua: todos los manuales escolares, científicos, técnicos, los diccionarios, los libros de referencias. (...) La lengua de cultura que se apoya en una base (humana) demasiado estrecha, no es más que un utensilio mediocre. (...) No es posible pedir a los extranjeros que aprendan todas las lenguas de cultura que a los pequeños grupos les gusta constituir". Eta, azkenik, gure Unamunorena: "El



ALONSO, Jon (Iruñea, 1958)

- *Idiaren eraman handia (1995)*
- *Katebegi galdua (1995)*



ALTUNA, Patxi (Azpeitia, 1927)

- *Euskara ire laguna I (1967)*
- *Euskara, hire laguna! Ariketak (1968)*
- *Euskara, hire laguna! II (1969)*
- *Etxepareren hiztegia (Lexicón Dechepariano) (1979)*

vascuence, en mi opinión, no llegará nunca a ser un instrumento de cultura".

Laburtuz: gauza bat da euskarak esparru guztietara noiz eta nola iritsi behar duen. Hori da estrategiaren lekua. Oso besterik da, ordea, euskara esparru guztietara iritsi daitekeen ala *de facto* ezina ote zaion. Bi jarrera desberdin hauek (eta funtsean kontrajarriak) gurean baino lehenago eta argiago planteatuak izan dira Katalunian. 1978an Antoni M. Güell eta Modest Reixach aztertzaileek hizkuntza gutxiagotuen eta bereziki katalanaren azterketa bat egin zuten: "La producció editorial à les àrees lingüistiques restringides: el cas català". Zera jaulki zuten ondorioetan: "Creiem que la producció del llibre català hauria de planificar-se tenint en compte el suport de la producció en castellà. Els esforços i subvencions en el camp de les publicacions catalanes no poden, ni de llung, cobrir tots el camps.

La producció en català haurà d'esser, doncs, selectiva: comptar amb la presència de la producció castellana".

Kataluniako liburu-produkzioak ez du bide hori segitu. Bibliografia osora jo du. Hau da, katalanaren premia guztiak asebetetzera. Baina orain artekoan ez da iritsi nonbait, eta hortik dator Lluis Bonadak, 1985ean, egiten zuen gogoeta: "Potser el mès greu de la situació actual és que pot representar l'inici de la fi d'un somni, el somni que l'édició en català arribarà un dia a cobrir totes les necessitats del lector català".


Horra arazoa. Planteatuta utzi nahi dut orain.

Lehen edizioa eta berrargitalpena

Nobedadeak: 10.248 titulu

Nobedadeak historian

Urtealdia	Zenb. abs	Lehen argitalpena (%)
1545-1699	36	69,2
1700-1875	290	43,2
1876-1935	1.105	77,7
1936-1975	1.626	93,8
1976-1994	10.248	81,8



Gauza bat da titulu gehiago edo gutxiago argitara ematea urtealdi bakoitzean. Beste gauza bat da, eta hauxe da hemen interesatzen zaigu-na, aldi bakoitzean, kopurua edozein delarik ere, zenbat den lehen edizioa eta zenbat berrargitalpena.

Nobedadeek indar gutxien 1700-1875 urtealdian izan dute. Frankismo-aldian (1936-1975), ostera, lehen edi-ziokoak publikatu dira gehien-gehie-nak.

Gaurko produkzioaren 10.248 titulu horietatik zenbat dagokio urte bakoitzari?

Etengabeko gorakada da hemen azpimarra genezakeen guztia. Eten-gabekoa da, bai, nahiz eta bi urtez behin-edo, halako deskantsu modu-koren bat hartzen duen aldapan gora. Hots, igoera (eta noizean behin saltoa) ez da justu urtez urte gertatzen, baizik eta bizpahiru urtez behin.

Nobedadeetan gai nagusiak


Irakaskuntzako liburua gailendu da erraz garai honetan. Ia 3.000 ti-tulu dira merkatu horretarako atereak (% 27,6). Bostehun liburu gutxia-gorekin jarraitzen dio atzetik haur eta gazteentzako liburuak (% 23,1). Egiaz eta benetan merkatu berera doaz biak, eta horrek esan nahi du aldi honetan argitaratu diren titulu berri guztien erdia dela gazte-jendearen-tzat egina: 5.000 titulutik gora.

Giza eta gizarte-zientzietako liburuak ere 2.000 eskas argitaratu dira, baina egin kontu gai-multzo hau oso-oso zabala dela eta praktikan ber-tan sartzen direla kultura jasoko liburuak oro.


Gorakada, etengabekoa dela esan daiteke baina ez urterokoa. Gehienetan bi urtez behin egiten du gora. Igoera hautsia da.

Eboluzio-lerro bera dute nobedadeek eta produkzio osoak.

Gorakada, hortaz, *nobedadeei zor zaie gehienbat.*



Helduen literaturan 1.700 titulutik gora daude (% 17,1). Sekula baino gehiago noski, nahiz eta ez den berau sailik hornituena. Helduen literaturari gaztetxoen literatura eransten badiogu, hau ere literatura baita, ukaezina da literaturaren loraldia. Bien artean, gazte eta larrien literatura batean, % 40,2 da literaturaren ekoizpen-tamaina.



Aro garaikidea eta frankismo-aldia konparatzen dira arlo desberdinetan.

Gure egunotako produkzioak non izan duen hazkundea, garbi ikusten da hemen. Hazkunde hori bi arlotan mamitu da batez ere, irakaskuntzan eta gaztetxoentzako liburuetan.


Berrargitalpenak: 2.277 titulu

Berrargitaraldiak historian

Aldi honi dagokion alorrean sartu aitzin, laburbiltze-aldera berrargitalpenaren laukia ematen dugu, urtealdi bakoitzaren barnean berrargitaraldien pisua neurtzeko asmoz.


Lehen aldiz argitaratu diren tituluetan irakaskuntz liburua da aurrena; eta bigarrena, haur eta gazte-literaturazkoa. Biak dira adin beretsuentzako eginak, eta publikatu den guztiaren erdia suposatzen dute.

Giza eta gizarte-liburua eta helduen literatura datoz hirugarren eta laugarren lekuetan, nahiko paretsu.



Bigarren urtealdian (1700-1875) erdia pasa egin da berrargitaratu. Katiximak eta deboziozko liburuak dira kontsumo handiena dutenak.

Kontrako muturrean dago frankismo-garaia. Diktadurapean, hedapenetan izan du Akilesen orpoa euskal liburuak. Belaunaldi berriak egiten duen liburua ez dago irakurlego soziologikoari egokitua: minoritarioa da oso.



Urtealdia	Zenb. abs.	Berrargitalpena (%)
1545-1699	16	30,8
1700-1875	381	56,8
1876-1935	317	22,3
1936-1975	107	6,2
1976-1994	2.278	18,2

Aro bakoitzean bertakoa komentatua dugu. Orain denak batean ikusita bigarren aldiko proportzioak ematen du atentzioa. Frantziako edizioan iaz berrargitalpenak izan zuen proportziotik hurbil dago (% 58,7), baina ez du zentzu bera. Berrargitalpenak barik produkzio berriak huts egiten du Erregimen Zaharrean.

Atentzioa ematen du, bestaldeko muturretik, frankismo garaian berrargitalpenak izan duen proportzio txikiak. Egungo irakurle konkretuari begira barik "biharko irakurleari" begira buruturiko liburugintzak hementxe du Akilesen orpoa.


Zeren eta berrargitalpenak arrakasta esan nahi baitu, salmenta, merkatua, irakurlegoa.

Urtealdi honetan % 18,2 da berrargitalpena

Aldi honetako produkzioan argitaraldi guztien masak % 18,2 suposatzen du, berredizio eta berrinprimaketa batean.

Zer da hau, asko ala gutxi?

Gutxi, gutxiegi. Adibide bat: Frantzian, 1995ean, berrinprimaketa % 48,3 izan zen, eta berredizioa % 10,4. Biak batean, % 58,7. Nobedadeen kopuruak, hortaz, % 41,3 osatu zuen. Frantzia baino apalago dabiltza beste batzuk, hala nola Italia, Espainia. Badirudi Espainiako eredua jarraitzen dugula guk. Bestalde, Estatu-mailako hizkuntza minorizatuen artean gureak ematen du proportziorik hoberena. Hona 1994ko datu konparatiboak:




ALVAREZ ENPARANTZA, JOSE LUIS "TXILLARDEGI" (Donostia, 1929)

- *Leturiaren egunkari ezkutua (1957)*
- *Peru Leartza'ko (1960)*
- *Huntaz eta hartaz (1965)*
- *Elsa Schelen (1969)*
- *Sustrai billa. Zenbait euskal koropilo (1970)*
- *Hizkuntza eta pentsakera (1972)*
- *Euskara batua zertan den (1974)*
- *Oinarri bila (1977)*
- *Euskal gramatika (1978)*
- *Euskal herritik erdal herrietara (1978)*
- *Fonologiaren matematikuntza (1979)*
- *Haizeaz bestaldetik (1979)*
- *Euskal fonologia (1980)*
- *Euskal dialektologia (1983)*
- *Elebidun gizarteen azterketa matematikoa (1984)*
- *Euskal azentuaz (1984)*
- *Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981 (1984)*
- *Kosmodromo (Ipuin bilduma) (1984)*
- *Gertakarien lekuko. I (1985)*
- *Exkixu (1988)*
- *Antigua 1900 (1991)*
- *Euskal Herria helburu (1994)*

Urteko produkzioaren barruan berrargitalpena zenbatekoa den agertzen da. Sei kasu alderatzen dira. Alde batetik hizkuntza minorizatuak, euskara, katalana eta gailegoa. Eta bestetik, inguruko hiru hizkuntza handi.

Hizkuntza minorizatuen artean berrargitaraldi-kuota handiena gurean dago: % 21. Gugandik hurbil daude katalanak. Galizian, aldiz, oso gutxi berrargitaratu da: % 7,4.


Hizkuntza handietan Frantziako liburugintzaren kasua nabarmentzen da, erdia eta gehiago baita berrargitarapena.



Urtez urteko eboluzio-lerroa

Urtez urteko grafiko honek eboluzioaren ibilbidea erakusten du. Eboluzio positiboa. Lehen edizioaren eta berrargitalpenaren batez besteko erlazioa % 18,2 bada ere, epealdiaren hasieran baino hobea da gaur. Berrargitalpenaren alderagokoa, esan nahi dut. Bien lerroak bilduago daude azken urteetan hasieran baino. Bestela esan, 1976an berrargitalpenak % 2ko indarra zuen; hamar urte geroago, 1986an, % 20,7; eta 1994an % 21,7.

Euskaldungoaren urritasuna kontuan edukita ez dut uste Frantziako porportzioetara inoiz iritsi gaitezkeenik. Eta ez dakit ona litzatekeenik ere. Badaude beste eredu batzuk.



Berrargitalpenak goranzko joera du, baina nahikoa apala.

Produkzio osoaren euskarritzat eman daiteke, baina ez faktore erabakigarritzat. Oso bestelako lerroa erakusten du lehen edizioak.

Berrargitalpena eta gaiak

Nagusienik bederen, argitaratu eta berrargitaratu liburu-tipo bera egiten da euskaraz. Hau da, nobedade gehien dauden sailetan ematen dira berrargitaraldi gehienak ere.

Giza eta Gizarte-zientzietako liburuaren salbuespen ohargarriarekin. Sail hau gai-zaku bat da. Hemen daude soziologia, filosofia, politika, zuzenbidea, hizkuntzalaritza, historia, geografia, besteak beste; Unibertsitateko gai guztiak ia-ia. Bada, nobedadeetan hirugarren badator ere, berrargitalpena egiteko orduan liburu-mota horrek oso tira eskasa du. Es-



AMEZTOI, KOLDO (Arruta, 1952)

- *Dena dela... Lapurdiko (1988)*
- *Dena dela... Baxenabarreko (1994)*

kasa duen bezala erlijio-liburuak, edo aisia-liburuak, edo zientzia eta teknikakoak.

Arrakasta dutenak hiru eremu dira, eta hiruen artean berrargitalpen osoaren % 92,2 osatzen dute.

Berrargitalpen gehienak irakaskuntza-liburuarenak dira (% 44,3), mila bat liburu. Haur eta gazteentzako liburuetatik 600 bat argitaratu dira berriz (% 27,8). Eta helduen literaturan berriz inprimatu direnak ia 500 liburu dira (% 20,1).

Merkatua non, han dago berrargitalpena. Edo alderantziz: berrargitalpena non, hantxe merkatua.

Liburu berrargitaratuenak

Argitaletxeen fondoa aberastuz doa eta berrargitaraldiak gehituz, bi gertakariak elkarri lotuak daude eta kultura baten osasunaren seinale dira.

Berrargitalpenaren tamaina ezagutzeko biderik egokiena zera da, argitalpenak maiztasunez mailakatzea. Hona 1994ko informazioa:

Bigarren argitaraldia	106	titulu
Hirugarren argitaraldia	40	"
Laugarren argitaraldia	35	"
Bosgarren argitaraldia	16	"
Seigarren argitaraldia	8	"
Zazpigarren argitaraldia	8	"
Zortzigarren argitaraldia	7	"
Bederatzigarren argitaraldia	8	"
Hamargarren argitaraldia	6	"
Hamaikagarren argitaraldia	2	"
Hamabigarren argitaraldia	2	"

Bada zerbait euskararentzat bost botaldi eta gehiagoko 57 liburu izatea. Batez ere azken urteotako tituluak direla denak kontuan izanda. Etorkizuna alde dute eta ikusi egin behar zenbateraino iristen diren. Kostako zaie, dena den, "Exerzizio izpirituala"ren marka haustea, ehun bat aldiz berrinprimatu baitzen.


Berrargitalpenak, maila hauetan, literaturaren esklusiba dirudi. Hori bai, berdin gaztetxoena zein larriena, bietatik baitago argitaratuenen artean. Hona lehenak:


Berrargitarapen--maila	Titulua	Egilea	Argitaletxea	1. argitarald.
12	Pernando Amezketarra	Joxantonio Ormazabal	Elkar	1981
12	Bi letter jaso nituen...	Bernardo Atxaga	Erein	1984
11	110. Street-eko geltokia	Iñaki Zabaleta	Elkar	1986
11	Istanbul-en elkartuko gara	Chrishom, R./Mujika, J.A.	Elkar	1988
10	Obabakoak	Bernardo Atxaga	Erein	1988
10	Behi euskaldun baten memoriak	Bernardo Atxaga	Pamiela	1991
10	Babilonia	Joan Mari Irigoien	Elkar	1989
10	Itsasoak ez du esperantzarik	Luis Haranburu	Lur	1973
10	Desagertutako emakumea	Prowse, Ph./Otermin, Ander	Elkar	1988


Nobedadeak jatorriaren arabera


Jatorrizko liburua eta itzulia elkarren lehian ikusi izan dira askotan. Batak hartzen duena besteari kendua bailitzan.


Guretzat, analisietarako, elkarri lotuta daude, bien artean osatzen baitute lehen edizioa. Lehen edizioaren bi osagarri hauek ikusiko ditugu, bada, banan bana bai, baina elkarrekin konparatuz.



Pernando amezketarra
J. ORMAZABAL
SOR



Bernardo Atxaga
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
auskalo-erein



ISTANBUL-EN ELKARTUKO GARA
Richard Chisholm
ELKAR



110. STREET-EKO GELTOKIA
Iñaki Zabaleta Urkiola
110 Street Station Uptown only
ELKAR


OBABAKO
BERNARDO AT
erein


13 ehi euskaldun baten memoriak
Bernardo Atxaga
Pamiela


BABILONIA
Joan Mari Irigoien
euskal literatura-elaberria
ELKAR



ITSASOAK EZ DU ESPERANTZARIK
LUIS HARANDURU-ALTUNA
KRISELU


DESAGERTUTAKO EMAKUMEA
Philip Prowse
ELKAR

Jatorrizko liburua: 6.477.titulu

Jatorrizko liburua historian

Urtealdi bakoitzean euskaraz sortu den liburuak lehen edizioan izan duen proportzioa da hemen azaltzen dena.



Jatorrizko liburuak pisurik gehien hirugarren urtealdiaren barruan du: Pizkunde-garaian % 86, 7 da euskaraz ateratako liburuaren proportzioa.

Antzekoa da proportzioa lehen urtealdiam ere (% 83,4), nahiz eta produkzioa bera askoz txikiagoa izan.


Frankismoaldia dator hirugarren ekoizpen propioaren proportzioetan.

Urtealdia	Zenb abs.	Jatorrizko liburua (%)
1545-1699	30	83,4
1700-1875	188	64,8
1876-1935	957	86,7
1936-1975	1.263	77,7
1976-1994	6.477	63,2

Itzulpenarekiko erlazioan, ikusten denez, azken garai honetan du mailarik apalena, XVIII-XIX. mendeetan izandakoaren nahiko parekoa, bestalde.

Ez dakit jatorrizko liburuaren kuota hau egokia den ala txikiegia. Handiegia ez du ematen, hori ez. Gauza hauetan beti huts egiten duena erreferentzia edo patroia edo neurgailua izaten denez, ez da erraza ondorioetara pasatzea. Ingurunera begiratzeko ohitura daukat nik horrelakoetan, edo nahiago bada ingurunetik gureari begiratzekoa. 1994ko liburugintzan, frantsesek % 95 dute frantses jatorrikoa, alemanek % 85,4. Beherago dabiltza, horretan, espainiarrak eta italiarrak, % 77,1 eta 73,6 hurrenez hurren. Handien erreferentzia honek ez digula balio, pentsa dezake norbaitek, eta arrazoiz. Bego. Baina gure bidelagunak, katalanak eta gailegoak, ez ditugu parean: % 81,8 katalanen kasuan eta % 85 galiziarrenean. Maila apalena guk daukagula ikusteak zer pentsaturik ematen dit. Ez ote da ahalmen intelektual txikitxoa dugula? Edo errazegi jo izan dugula itzulpenera?

Urtez urteko eboluzio-lerroa




Lehen edizioan jatorrizko liburua da nagusi.

1988 arte jatorrizko liburuek pisu handiagoa zuten harrezkero baino. Dena den orain ere kopuru orokorra jatorrizkoak definitzen du gehien.

Jatorrizko tituluak eta gaiak

	Gai-multzoa zenb. abs.	Jatorrizko lib. %
Aisia-liburua	223	3,4
Erlijioa. Teologia	269	4,1
Giza eta Gizarte-zientziak	1.427	22,0
Haur eta gazteentzako liburua	782	12,0
Hezkuntza. Irakaskuntza	1.920	29,6
Literatura	1.370	21,1
Zientzia. Teknika	345	5,3
Gainerakoak	141	2,2
Guztira	6.477	100,0



Jatorrizko liburugintza non mamitu den ageri da hemen.

Euskaraz sortu den liburua batik bat irakaskuntzara, giza eta gizarte-arlora eta literaturara doa. Hiruen artean % 72,7 osatzen dute.

Taula honetan euskal jatorrizko tituluak gai-multzotan sailkatuta agertzen dira. Xehetasunera etorri aurretik, hiru puntu seinalatu nahi ditut.

Bat: guzti-guztira euskal jatorrizko 6.500 bat titulu atera da hemeretzi urte hauetan, eta horietatik ia 1.700 berrargitaratu. Hau da, sortu diren lau liburuetatik batek ikusi du berriz argia.

Bi: merkatu-irteerarik handiena irakaskuntzako liburuak du, berau baita titulutan aurrena eta aurrena baita ere berrargitalpenetan.


Hiru: gaztetxoen liburua proportzionalki gutxi sortu da euskaraz.

Esan bezala, sailkapenean lehena, produkzio osoan bezala bestalde, irakaskuntzako liburua dator, 1.900 bat titulurekin. Arrakastatsuena ere berau da nonbait, ekoizpen altuaz gain horietako % 45 berrargitaratu egiten baita.

Hurrengoa produkzioan Giza eta Gizarte-gaietako liburua da, 1.400 bat libururekin, baina honek berrargitalpen-maila eskas-eskasa du.

Literatura da hirugarrena, ia 1.400 titulurekin, eta horietan lautik bat baino gehiago berriz inprimatu da.

Eta laugarrena, gazteentzako liburua. Produkzio orokorrean bigarren lekua badu ere, jatorrizkoan laugarrenera jaitsia ikusten dugu haur eta gazteen liburua, 800 bat libururekin; berrargitaratzeko orduan, ostera, bigarrena da, % 38,5arekin.



AMUNDARAIN, DIONISIO
(Itsasondo, 1930)

- *Astez Aste. Alfabetatzeko (1979)*
- *Euskal Aditza. Alfabetatzeko (19820*
- *Ixtorioa moldatu I. Eskolumeak txori bila (1982)*
- *Goiherrin kalea euskaldundu (1994)*
- *Esaldi konposatuak (1987)*
- *Deklinabide ariketak (1988)*
- *Esamoldeak (1989)*

Itzulitako liburuak: 3.771 titulu


Itzulpena historian

Urtealdia	Zenb. abs.	Itzulpena (%)
1545-1699	6	16,6
1700-1875	102	35,2
1876-1935	148	13,3
1936-1975	363	22,3
1976-1994	3.771	36,8

Jatorrizko liburuari dagokion infograman ikusi dugunaren atzeko aldea da oraingo hau.

Itzulpenak indar gehiena aro garaikidean du: % 36,8. Eta proportzio beretsuan ibili zen 1700-1875 urtealdian ere.

Hirutik bat pasatxo izan da itzulitako liburua bi aldi horietan.



Berriz diogu: proportzio horiek urtealdiko produkzioarekikoak dira, hots, urtealdi horretan itzulitako tituluen bolumena zenbaterainokoa izan den. Urtealdi bakoitzaren barruan komentatu dugu liburu itzuliaren edukia eta garrantzia.

Orain aro garaikideari buruzkoa aztertzea dagokigu. Baina aurretik, Xabier Mendiguren Bereziarturen laguntzaz, (*Euskal itzulpenaren historia laburra*, 1995), euskal itzulpengintzaren aroak markatuko ditugu. Hona bere hitzetan:


1) Euskal itzulpen-historiaren hasiera 1571n ezarri behar da Joannes Leizarragaren "Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria"rekin.

2) Bigarren aroa, katolikoek Kontrarreformari ekin eta erlijio-krisia gainditzearen ondorioz sortzen den literatura aszetiko euskaratuak eratzen du.

3) Hirugarren aroa, Larramendiren eraginpean sortzen da Hegoaldean. Iparraldean, berriz, D'Abbadie eta Bonaparte printzearen itzalpean.

4) Laugarren aroa, XIX. mendearen azken aldera eta foruen galeraren eraginpean hasten da joera herritarreko itzultzaileekin.

5) Bosgarren eta azken aroa, 70eko hamarkada eta euskararen batze--prozesuarekin hasten da.



Liburu-arlo bakoitza zein neurritan osatu den euskaraz sortutako liburuz ala itzulitako liburuz agertzen da hemen.

Jatorrizko liburua nagusi da arlo guztietan, salbu haur eta gazteentzako liburuetan.

Euskaraz sortutakoak literaturan du proportziorik altuena.

Itzulitako liburua nagusi da haur eta gazteentzako argitalpenetan, eta ia hirutik bateko proportzioa du irakaskuntzan.

90eko hamarkadan itzulpena: % 41,3

Azken 5 urteotako nobedadeetan mamitu den itzulpenaren batez bestekoa da hori: % 41,3. Aldi osoan liburu itzuliaren pisua txikiagoa da: % 36,8. Azken urteotan, beraz, hazkunde bizkorra izan du itzulpenak. Egun bizi dugun itzulpengintzaren loraldiaz mintzo dena ez dabil oker.

Xabier Mendiguren Bereziartuk (1995) uste du sorkuntzaren parera iritsi behar duela itzulpenak: "Iritsiko gara halako batean sorkuntzazko lanak edo itzuliak pareantsu izatera, orain artean izan ez diren bezala, orain artean sortuak halako pribilegiozko tratua izan baitu. Sormenak ezin du —eta ezin izango du gero ere— dagoen eskaria ase, eta itzulpena behar-beharrezkoa da gure herrian, beste herri askotan den bezalaxe".

Gehiegi itzultzen al dugu?

Asko itzultzen edo euskaratzen dugu. Gehiegi? Nahikoa ona?

ALBERDANIA

Ez zaigu iruditzen «asko» itzultzen dugunik (literaturaren alorrean, beti ere), gure inguruko edozein literaturaren aldean, bederen. Berandu (besteek baino beranduago, alegia) bai, ordea. Itzulpengintzaren kalitateaz, berriz, ez dugu uste arazorik dagoenik, azken 10-15 urteotan behintzat. Eremu horretan asko aurreratu dela iruditzen zaigu. Arrisku bat ikusten dugu, hala ere. Euskaraz idazten duten sortzaileek entzungor egitea fenomeno horri. Gaur egun ezin da idatzi Melville, Stevenson, Conrad eta abar egoki itzulita ez zeuden garaian bezala.

ELKAR

Asko itzultzen da, gehiegi, haurrentzat. Arrazoia? Lehen esan dudan bezala, produkzio aldetik oso erraza eta merkea dela (masa idatzia txikia delako eta beste hizkuntzetako ilustrazioak aprobetxatzen direlako), zenbat eta haur txikiagoentzat izan orduan eta gehiago. Hortaz, kanpoko argitaletxe pila batek jo du horretara eta, nahiz eta etekinak txikiak izan (galerak ere bai batzuetan), inork ez du merkatu-kuotarik galdu nahi.

Helduentzako itzulpena guztiz bestelako da: ez da errentagarri izan ohi eta, hortaz, bi eragile hauetakoren bat behintzat behar du: kultur bokazioa edo administrazioaren laguntza. Literatur itzulpenen zenbatekoan eta kalitatean nabarmen gora egin da, eta beharra ere bazegoen: euskara zurrunegi zen zenbait arlotan malgutzea lortu da, adierazgarritasunean eta zehaztasunean irabaztea. Hala ere, bide luzea dago aurretik: hizkuntza doitu eta trebatzeko borroka ez delako inoiz bukatzen, eta itzultzaileen hobekuntzak ez duelako neurri berean ekarri irakurleen prestatzea, asko baitira oraindik horrelako itzulpenak irakurtzeko beldur, uzkur eta —hona okerrena— ezgauza.

Bestalde, ezin utzi aipatu gabe benetako triskantza eta sarraskiak egin direla euskararekin zenbait itzulpenetan. Espero dezagun horrelako gutxiago izatea aurrerantzean, eta irakurleak antzematea nor den nor eta zertan dabilen bakoitza.

EREIN

Inoiz ez da asko. Ez al dago ia dena ingelesera edo alemanierara itzulia? Zergatik ez beste hainbeste gurean? Dena itzuli beharko litzateke euskarara, baina ba al dago lehentasunik, lehentasun horiek definitu dira? Ba dago kriteriorik?

Ibaizabal

Itzulpengintzak euskaldunon artean oraindik ere badu halako jarrera ezkor bat. Baina zalantzarik gabe, beste literaturak euskaraz jasotzea guztiz komenigarria da euskararen normalizaziorako. Azken urteotan itzulpengintzak pauso garrantzitsuak eman ditu eta horrek euskal narratibari berari ere asko lagundu dio. Aurrerantzean ere, gure ustez, beharrezkoa da itzulpenak egiten jarraitzea literatur zirkuitoak zabaltzeko. Beraz, gu ez gaude itzulpenak baztertzearen alde, baina bai itzulpenen kalitatea zaintzearen alde, sarritan itzulpen kaxkar ugari egiten baitira eta horrek itzulpengintza osoari, eta batipat euskarari kalte handia egiten dio.

Interesgarria litzateke, bestalde, beste hizkuntza gutxituetako lanak geureganatzen joatea, esaterako katalanetik nahiz galizieratik, eta aldi berean euskaraz sorturiko lanak hizkuntza hauetara pasatzea.

Pamiela

Edozein literatura berezko hizkuntzan irakurtzea da ideala, beraz lehentasunezkoa irizten diogu hizkuntza ez hain ezagunetako beste literaturetako testuak euskaratzeari; beraien kulturara hurbiltzeko aukera emango digu, gainera. Egiteko dagoen guztiarekin, ez dirudi Benet, Garcia Marquez edo Quevedo, eta are gutxiago Cela eta horrelako salmenta handikoak, itzultzeko premia dagoenik.

Susa


Bai, prosa asko euskaratzen da —ez poesia ordea, ez saiakera...—, eta ondorio aberatsak eragin ditu sorkuntzazko narratibagintzaren baitan (nahiz eta ez aipatzen diren bezainbat eta hain era erabakiorrean).

Ostera, uste baino dexente gutxiago irakurtzen jarraitzen da beste hizkuntzetako literatura euskaratua, proportzio oso txikian sorkuntzazko euskal literaturarekin alderatuz gero. Liburu horien argitalpenak dirulaguntzei esker mantentzen dira.

Itzultzaileen langintzak zeharbidez derrigortutako ekoizpen handitzea gertatu dela iruditzen zait, baina —Igela argitaletxea salbuespen izanda— literatura-itzultzaileak ez dira literatura-idazleak bezainbat engaiatu liburuaren ekoizpen- eta hedapen-prozesuan. Uste dut idazle asko dagoela literatura-argitaletxeen eguneroko dinamikan edo dinamikatik gertu lan egiten duena, eta oraindik ez dira hainbeste inplikatu eta arriskatu itzultzaileak.

Txalaparta

Zaila da zer den asko neurtzea. Itzultzemaila altuak badu alde ona eta txarra. Batetik, literatura propioaren kaltetan doala esaten duenik badago, herri baten literaturaren egoeraren osasuna sorkuntzaren eta ez itzulpenen aldetik neurtzen ahal dela. Itzultzeak bestetik, atzerriko lan on askoren emaitza ekartzen digu geurera, eta horrek izugarrizko garrantzia du normalizazio-bidean. Aukera eman behar zaio euskal irakurleari atzerriko idazleen euskarazko erreferentzia izateko.



AMURIZA, XABIER
(Etxano, 1941)

- *Hil ala bizi (1973)*
- *Menditik mundura (1976)*
- *Euskara bizia (1978)*
- *Bertsolaritza. 1. Hitzaren kirol-nazionala (1981)*
- *Bertsolaritza. 2. Hiztegi errimatua (1981)*
- *Oinak. "Ikaslegin" izenak argitaratuak. I maila (1981)*
- *Laurehun herri. Mila bertso berri (1982)*
- *Zu ere bertsolari (1982)*
- *Harriak. Ikaslegin izenaz argitaratuak (1983)*
- *Herri eta irri. 1. maila (1983)*
- *Herri eta irri. 2. maila. Euskara bat (1983)*
- *Oromenderrieta (1984)*
- *Emea (1985)*
- *Herri eta irri. 3-4. maila (1985)*
- *Herri eta irri. Alfabetatzen (1985)*
- *Oinarriak (1987)*

Nork daki zein den jatorrizko liburuaren eta itzuliaren arteko proportzio egokia? Nik ez behinik behin. Ez dakit jakin, baina proportzio altu horrek inguruan parekorik ez izateak harritzen nau. Berriz diot: normala izan liteke antzekorik ez aurkitzea kultura handietan, baina beste puntu askotan, liburugintzan bertan, bat gatozen katalan eta gailegoekin ere halako alde handiak harritu egiten nau. Zer izango ote da sorkuntzazko liburuaren parera iristen denean!

Sortzen denari itzultzen dena nagusitzea behintzat oso arriskutsua iruditzen zaio Bernardo Atxagari (1984): "Euskal Herrian gaur gertatzen den fenomeno berria zera da, itzulpen-kopurua ikaragarri puztu dela eta hau, berez, euskaraz sortzen denari nagusitzen baldin bazaio, desoreka izan daiteke, arriskutsua oso. Euskara bera geroz eta opakoagoa bihurtzea".

Herria	Liburu itzuliak (1994) (%)
Euskal Herria	38,2
Katalunia	18,2
Galizia	15,0
Espainia	22,9
Italia	26,4
Alemania	14,6
Frantzia	4,8

Itzulpen-maila honek ez du denen gogoa beteko. Bat baino gehiago da zera ikusten duena hor, gure ahulczia, czina, errazkeria, morrontza, dependentzia.

Zuhurtziaz jokatu behar da, esan ohi da holakoetan. Niri neuri kontsiderazio bat baino gehiago datorkit zifra horren aitzakian.

Proportzio garai horrek norbaiti alarma-argia pizten badio ere, gogoeman behar da, agian, *zenbat* itzultzen den baino *zer* itzultzen den analizatzeak munta handiagoa duela. Morrontzaren konklusiora iritsi aurretik itzulpenaren gaiak aztertu behar dira zehazkiago.


Hain dira handiak euskararen eta euskal kulturaren premiak, itzulpena behar-beharrezkoa baita hainbat eta hainbat maila eta eremutan. Hala ere, uste dut oro har jatorrizkoa lehenetsi behar dela. Hori esanda ez da nahikoa, badakit. Itzulpen-politika bat definitzeak premiazkotasuna du nire ustetan, —berriz diot— ez hainbeste zenbat itzuli behar den erabakitzeko baizik eta zer itzuli behar den, zer eta noiz.

Inpresioa du batek batzuetan itzultzaileen herri bilakatzen ez ote garen ari: hasi administraziotik, segi ETB eta komunikabideetatik, Unibertsitatea eta haurrentzako literatura ez ahaztu, eta nahi den lekuan bukatu.

Ez dakit gaur egun zer pentsatuko lukeen Luis Mitxelenak. Baina 1960an, itzulpenaren pisua dezente arinagoa zenean, abisatu zuen "herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak" eta horrek ez du gaurkotasunik galdu, niretzat (*Asaba zaharren baratza*): "Itzulpen ugari dugu gure artean euskal literatura hasi zenez geroztik. Itzulpen horiek, ordea, biziro zabaldu eta ugaritu dira azken urteotan. Zorretan gaude lan horretan aritu eta ari direnekin, premiazkoak baitziren itzulpenok eta hizkuntza lantzeko bide egokia.

Ez dakit, ordea, horien balioa goregi jasoa ez ote daukagun. Erruz agertzen dira itzulpenak hizkuntza landuetan, baina ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baizik. Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala. Isatsa horratik ez da gorputza: ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe motz daitekeen eranskin luzea edo laburra besterik".

Nik neuk neure buruari galdetzen diot non geundekeen gaur, adibidez, testuliburuetan, behar zen unean euskaraz sortzeko erabakia hartu izan ez balitz hartu zen lekuetan. Galizian bezala geundeke, agian. Galdetzekoa da, baita ere, haur eta gazte-literaturan aski indar egin ote den bertoko materialak sortzearen alde.



ANSOLA, GURUTZ
(Azpeitia, 1924)

- *Euskal Herriko ekonomiaz. 1955-1967 (1971)*
- *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia (1972)*


Itzulpenak eta gaiak

Bai, 3.771 titulu itzuli dira. Gehiegi ala gutxiegi den utz dezagun bazter. Zertaz ari diren liburu horiek interesatzen zaigu orain. Gaien banaketa honek adierazten digu hobekien itzulpenaren nondik norakoa.


Gai-multzoa	Itzulpena	
	Zenb. abs.	%
Aisia-liburua	132	3,5
Erlijioa. Teologia	84	2,2
Giza eta Gizarte-gaiak	454	12,0
Haur eta gazteentzako liburuak	1.588	42,1
Hezkuntza. Irakaskuntza	907	24,0
Literatura	379	10,0
Zientzia. Teknika	180	47,0
Guztira	3.771	100,0

Itzultzaileak


Zenbaiten ustetan, itzulpenaren aurrerakuntza azken urteotan euskal literaturan izan den gertakizunik inportanteena omen da. Aldi berean, itzultzaile kopurua ere ugaritzen joan da. Guztien ordezkari gisa, hona hemen gehien itzuli dutenen bost pertsonen argazkiak.



Xabier Mendiguren Bereziartu




Iñaki Mendiguren Bereziartu



Jose Antonio Sarasola




Joxantonio Ormazabal



Xabier Kintana

Itzulitako liburua non kokatzen den ageri da hemen.


Itzulitako liburu guztien % 42 haur eta gazteentzako liburua da. Irakaskuntzako liburua dator bigarren lekuan. Bien artean % 66 osatzen dute.



Aski garbi gelditzen da hemen liburu itzulia non den indartsu produkzio-aldetik. Haurren literaturan batez ere. Eta gero irakaskuntzan. Gauza bat erantsi nahi nioke irakaskuntza-liburuaren kopuruari. Ziur nago sail horretan hemen daudenak baino liburu gehiago sartu beharko liratekeela. Bai baitira editoreak liburuak itzuli bai baina jatorria aitortu partez mozorrotu egiten dutenak, egokitzapen, moldapen bailiran.

Alarmako argia piztuta daukatenentzat pentsatzen dut ez dela horren larria egoera, kontuan edukita, adibidez, liburu zientifikotan eta literaturan portzentaiek duten tamaina: % 12 eta % 10 hurrenez hurren, bostehun eta laurehun azpitik bata eta bestea.

Urtez urteko eboluzio-lerroa




1988 arte aski apala izan da itzulpenaren ekoizpena.

1988 geroztik eragin handiagoa du itzulpenak eboluzio-lerro orokorrean. 90eko hamarkadan % 41,3 da itzulpenaren pisua.

Itzulpenak arrakasta sozial txikiagoa

Ez bat eta ez bi, asko dira itzulpenari ematen zaion tratamenduaz kexu direnak. Batzuetan erakunde publikoek dute errua, beste batzuetan argitaletxeek, edota irakasleek, eta zenbait kasutan irakurleak berak, ez duelako behar den tamainan estimatzen itzulpena. Adibidetzat balio lezake Gerardo Markuletak (1995) idatziak: "Euskal literaturaren ardura minimorik duen ororen lana beharko luke izan euskarazko literatur itzulpenean zinez gertatzen ari den iraultza ttikiaren berri zabaltzea: euskal irakurleengan hain erroturik direlarik oraindik euskal itzulpenen inguruko aurriritzi gaitzesgarri zenbait (euskarara bihurturikoek dute izen txarra, erdaretara moldatuak erraz irensten ditu euskal irakurleak, itzulpen direnik ere ohartu gabe); euskal irakasleengan hain fosilduta delarik



ANTIGUEDAD, IÑAKI "PRONTXIO" (Bilbo, 1955)

- *Arratia hibaiaren arroko azterketa hidrogeologikoa (1980)*
- *Geologia. 1. Barneko geodinamika (1983)*
- *Geologia. 2. Kanpoko geodinamika (1983)*

oraindik euskal sen guztizkoaren bila itzulitakoen aldean jatorrizkoak hobetsi behar direlako uste saindua, hobe genuke guztiok ere plazer hartu irakurlearen belarrirako itzultzen aritzen direnen lan umoekin, eta plazer horren berri zabaltzen hasi".

Mari Jose Olaziregik (1993), 3.000 ikasleren artean inkesta egin ostean konstatatzen du ikasleek, gaztetxoek, oso gutxitan jotzen dutela euskarazko itzulpenetara. Ikastetxeetan ez omen dago informaziorik, argitaletxeek marketing eskasa egiten omen dute.

Berrargitalpena arrakastaren eta onarpen sozialaren termometrotzat harturik bederen, badirudi jatorrizkoa hobesten duela irakurleak. Ikus dezagun: itzulitako liburuaren % 16 berrargitaratu da (606 titulu) eta jatorrizkoaren % 25,8, hau da, 1.671 titulu. Beraz, itzulpenak berrargitalpen-kuota txikiagoa du oro har; jatorrizko liburuak baino 10 puntu txikiagoa.

Itzulitako liburuetan gehien berrargitaratu dena, alde handiz gainera, haur eta gazteentzako liburua da: itzulitakoen erdia baino gehiago (% 54,7). Bada, hor ere, itzulitakoen berrargitalpen-kuota % 21 da (332 liburu) eta jatorrizkoetan, liburu-masa txikiagoa den arren (301), argitalpen-kuota askoz handiagoa da: % 38,5.

Helduen literaturan beste hainbeste gertatzen da. Euskal jatorrizkoen berrargitalpena % 26,6 (365 liburu) den bitartean, itzulitakoena % 6,8 da (94 liburu). Hogei punturen aldea, izugarria da. Berrargitaratzeko probabilitate askoz handiagoa da idazlearentzat itzultzailearentzat baino.


Irakurleen konportamenduak aski garbi islatzen dira alderaketa hauetan. Ez dago dudarik: jatorrizko liburuak itzulitakoak baino askoz ere presentzia handiagoa du kontsumoan.

Ondorio beretsuetara iristen da Gorka Arrese (1996): "Uste baino dezente gutxiago irakurtzen jarraitzen da beste hizkuntzetako literatura euskaratua, proportzio oso txikian sorkuntzazko euskal literaturarekin alderatuz gero. Liburu horien argitalpenak diru-laguntzei esker mantentzen dira".

Itzulpenen jatorrizko hizkuntza

Euskaraturiko tituluen jatorrizko hizkuntzaren berri ematen dugu hemen. Ukaezina da honen interesa, hain handia izanik itzulitako tituluen kopurua. Erreferentzi mundu oso bat ari gara muntatzen.

Jatorrizko hizkuntzen artean gaztelaniak duen pisua ikusten duenean, Iparraldeko euskaldunari ez zaio arrazoirik faltako gure euskararen



Betiko eztabaida da itzulpena proportzio onean ala txarrean daukagun.

1994. urtea hartu da alderaketak egiteko, lagin gisa.

Alderaketak bi egoera oso desberdinetan dauden kulturekin egiten dira: Frantzia, Alemania, Italia eta Espainia alde batetik eta Galizia, Katalunia eta Euskal Herria bestetik.

Denetan gorena Euskal Herria da.

eta kulturaren "espainiartzea" salatzeko. Ukaezina da gaztelaniarekiko gure morrontza. Itzultzen den guztiaren erdia gaztelaniatik jaso izana, asko da. Ikaragarri da katalanekin alderatuz, hauek % 21,5 itzuli baitute erdara beretik. Normaltzat jo daiteke ingelesaren bigarren lekua. Harrigarri gertatzen zait, azkenik, frantsesa hain gutxi erabiltzea itzulpen-iturri gisa, albo-hizkuntza izanda eta Ipar Euskal Herria haren eraginpean egonda.

Itzulpenaren garrantzia eta bertuteak

90eko hamarkadan itzulpen-masa eta honen kalitatea bakarrik ez dira nobedade. Nobedade da, baita ere, itzulpengintzaren defentsan jartzen den sua. Inoiz edo behin, erresumindura eta guzti, onargarritasun--faltaz edo. "Itzultzaileen auto-bonboa" irizten diote honi batzuk. "Anti-itzulpenitisa" salatzen dute haiek.

Itzulpengintzaren garrantzia nola baloratzen den ezagutzera emateko testigutza pare bat ekarriko dut hona. Honela idazten du *Jakin*-en Xa-


Lau urteko itzulpenak (1991-1994) batean kontabilizatuta ematen dira hemen.

Diferentziak nabarmenak dira itzulitako liburuen jatorrian.

Gaztelaniarekiko dependentziarik handiena gurea da.


Katalanek ingelesetik itzultzen dute gehien.

Frantsesetik katalanek eta gailegoek baino ere gutxiago itzultzen dugu.



bier Mendiguren Bereziartuk (1994): "Ez dugu uste ahoberokeria denik, azken urteotako euskal kulturgintzan protagonista garrantzizkorik izan bada, hori itzultzailea izan dela aitortzea, batez ere azken hamarkadari dagokionez, zeren urteroko tituluen kopurua nabarmenki ugaldu, alde batetik, eta bai komunikabideetan (prentsa, irrati eta telebistan) eta bai administrazioan, luberri garrantzitsuak urratu dira, bestetik.

Ziur gaude, itzulpenak egiteko garrantzitsu bat duela gure gizartean elebitasuna orekatzen; izan ere, sorkuntza propioak, bai testu literarioenak eta bai testu pragmatikoenak, oraingoz ekoizmen mugatua baitu eta baliabide gehiago zuzendu arren, nekez lortuko litzateke emaitza askoz ugariago eta hoberik. Aitzitik, itzulpenak orain arte behar adinako laguntzarik jaso izan ez badu, kulturgintzan duen garrantzia behar beste kontuan hartu ez delako izan da, eta itzultzailearen hizkuntzarekiko harremana zenbaitentzat badaezpadako samarra eta sorkuntzaren etsai gisako zerbait gertatu delako. (...) Uste dugu, ez dagoela lekuz kanpo



Lau urteko informazioa ematen da, urtean-urtean euskarara itzuli diren tituluak nondik itzuli diren ikusteko.

Ohargarria da zein handia den gaztelaniaren pisua: euskarara itzultzen dugunaren erdia gaztelaniatik dakargu.

Ingelesa dator bigarren lekuan, baina oso urruti.

Ez da gutxiago harritzekoa frantsesaren eragin txikia (% 9,2) itzulpengintzan.

hemen gogora ekartzea, nola zibilizazio eta kultura handien azterketa soil bat eginez gero, beti argi eta garbi ikusten dela, itzulpen inplizitu edo esplizitua beti presente egon dela loraldi literario eta zientifiko-filosofiko guztietan giza historiaren egunsentitik hasita".

Azken argumentu hauek dira Gerardo Markuletaren (1995) testuan ere nagusi: "Aspalditxoan esan zuen Andu Lertxundik azken urteotan euskal literaturako gertakizunik inportanteena literatur itzulpenaren aurrerakuntza izan dela. Hizkuntzen historia apurren bat ezagutzea nahiko da jakiteko hizkuntza moderno guztiek itzulgintza izan dutela aberaspide eta hedabide nagusi (ikus bibliaren itzulpenak); literaturen historia pittin bat ezagutzea nahikoa da jakiteko ez dagoela literatura nazional baten literatur hizkera-adierazpideen eboluzioa ulertzerik hizkuntza ho-



AÑORGA, PELLO (Oiartzun, 1956)

- *Hola hala behin (1983)*
- *Pottoko (1984)*
- *Tio Xentimo (1984)*
- *Asto bonberoaren lehenengo abenturak (1985)*
- *Pottokoren izeba Juanita (1985)*
- *Pottokoren usainak (1985)*
- *Lau tuntun eta berrogei jubilatu (1986)*
- *Wanted live or dead. Anttoni Bill Oesteko bandidoa (1987)*
- *O babarruntxo elektriko (1988)*
- *Top Kapitainaren nabiganteak (1988)*
- *Joakina Brandoren inspirazioa (1989)*
- *Errege Federiko Handiaren arrautzak (1990)*
- *Lientxo txuria (1991)*

rretara egindako itzulpenak kontuan hartu gabe (ikus endekasilabo italiarra gaztelaniazko poesian); euskararen normalizazio-prozesuaz kontzientzia pixkat izatea nahikoa, ohartzeko testu itzulien komunikazio-ahalmena hil ala bizikoa dela hizkuntzaren erabilera sinbolikotik erabilera gogobeterako bidean (ikus Txepetx, agur eta ohore)".

Onuragarritasun orokor hauetaz gain, itzulpengintzari bestelako ekarpenak ere aitortzen zaizkio. Hona literaturan bete behar dituen eta bete dituen funtzioak.

Joxe Azurmendik "euskal literaturari flexibilitatea emateko itzulpenetan ahalegindu beharra" aldarrikatu zuen 1980an.

Jose Austin Arrietak (1986) euskal narratibak ez duen tradizioa kanpoko erreferentziez ordezkatu behar dela defendatzen zuen orain hamar urte: "Tradizio-falta honen eragina benetan larria da, kezkagarria. Hizkuntza sendo, indartsu, 'asentatu' batean idazten duen idazleak hortxe dauzka erreferentziak. (...) Guk ez. (...) Erreferentziak, derrigorrez, beste hizkuntzetatik hartu behar, horrek suposatzen duen handicap latzarekin: kreazio-lanari ekiterakoan, beste hizkuntza batean egositako eta oraturiko erreferentzia horiek gure eremutik urrun gelditzen direlako. (...) Horregatik iritsi ohi naiz haserretzeko punturaino zenbait euskaltzaleri honako zera entzuten diedanean: 'bah, zertarako itzuli euskarara literatura unibertsaleko obrak?, horiek erdaraz irakurtzearekin nahikoa diagu, mutil, gure obra berriak sortu, sortu egin behar dizkiagu'. Ezta pentsatu ere! Munduko literaturaren ereduak geure artera geure hizkuntzan egosirik txertatzen ez ditugun bitartean, alfer-alferrik gabiltza, adiskideok. Bestela, urtero hamazazpi sari millonario konbokatuta ere, berdin-berdin jarraituko dugu: nobelarik idatzi gabe, edo nobela kaxkarrak, xinpleak, gidoi telebisiboak diruditen nobelak, edo nobela experimental erdi-liriko erdi linguistikoak, idatziz".

Proposamenek bere ondorioak izan zituzten. Ekarpen horiek neurtu egin ditzakegu gaur, zorionez.

Euskara literarioa finkatzen lagundu duela itzulpenak, dio Ramon Saizarbitoriak (1995): "Orain arte itzulpen lana artisau lan bezala kontsideratu izan da, eta hori gainbegiratu egin behar da. Ziur asko, lehen esan dudan euskara literarioaren finkatzeko gehiago egin dute itzultzaileek idazleek baino. Eztabaidaezina da ziurrenik. Baina sinetsi beharko nuke, eta sinetsi nahi dut, idazleek ere zerbait egin dutela. Baina, dudarik gabe, itzultzaileek lan handia egin dute. Eta ni ez nintzen gazteleraz erraz izan nezakeen liburu bat euskaraz irakurtzearen lagun, baina neu ere eraman naute kanpoko literatura euskaraz gustura irakurtzera".

Hizkuntzaren erabileran inflexio-puntu bat gertatu da itzulpenei esker Jokin Muñozek dioenez (1996): "Gure literaturan inflexio puntu

bat gertatu da itzulpenekin, idazleen estiloa aldatzen joan izan da. Koldo Biguri, Patxi Apalategi, Xabier Olarra ditut maisu; horiei esker, Truman Capote, Cesare Pavese... euskal idazleak dira azken batean, gure literaturara etorri direlako. Itzulpen horiek euskal liburuak dira, eta itzulpen horietatik asko ikas daiteke hizkuntzaren erabilerari dagokionez".


Hizkera literarioa zehaztu eta zabaltzearen merituak damaizkio Anjel Lertxundik (1993): "Itzulpengintzan egin den ahalegina jotzen dut, batere zalantzarik gabe, azken urteotako euskal literaturan gertatu den albiste esanguratsuen. Itzulpengintza ari da hizkera literarioa eraikitzen, itzulpengintza ari da, zehaztasunaren bidetik, jokabide desberdinetarako bideak zabaltzen, zehaztasunean baizik ez baitaiteke oinarri aniztasuna. (...) Inoiz esan dudanez, idazleok itzultzaile mentalak gara (euskara ez beste hizkuntzetan irakurtzen dugu batez ere); inork ez digu, ordea, pentsatzen genuen eta idazten dugunaren arteko lotura eta zehaztasuna eskatzen, inork ez baitu ezagutzen burutik pasa zitzaiguna. Tranpa egin dezakegu; eragozpena saihestu; berez korapilotsu zena, lautu; laua denarekin, alfonbra ehundu; alfonbra gainean ibiliz, dotore plantak egin... Estrategia soziolinguistikoetarako zilegi gerta daitekeen euskara erraza (?) delakoaren atzean ezkutatzen den diskurtsuak luizi espresiboa eta itsusmena ezarri nahi dizkigu literaturaren aldareko meza-emaile".

Osatze-aldera, jatorrizko liburuaren garrantzia azpimarratzen duen iritzi batekin amaitu nahi dugu.

Jesus Mari Lasagabaster irakasleak (1978) jatorrizko liburuaren bertuteak abesten ditu, eta ez hainbeste itzulpenarenak: "La creación literaria no puede suplirse, ni sustituirse con traducciones; aunque lo traducido tenga objetivamente mayores valores, o suponga un manejo o una puesta en circulación importante de la lengua.


Desde esta perspectiva, sólo el libro literario es original irreductible 'intraducible' y resistente, por lo tanto, a cualquier concurrencia.

Ello quiere decir que esa normal y necesaria existencia escrita de una lengua que es la literatura es un espacio que sólo puede ser ocupado, en nuestro caso, por los literatos euskaldunes; la literatura euskérica tiene un lugar original que sólo ella puede debidamente cubrir, y que no se supliría ni con textos euskéricos no literarios, ni con textos literarios no euskéricos".



APALATEGI, JOKIN (Ataun, 1943)

- *Burnitik (1979)*
- *Gatazka eta Bortxa. Euskal Herriaren eredua (1987)*
- *Herria: sistima eta teoriak (1988)*
- *Soziologia orokorra (1989)*



APALATEGI, JOXEMARTIN
(Ataun, 1949)

- *Ahozko Herri Produkzioa (1987)*
- *Antropologoa hirian. Bilbon (1987)*
- *Etnografiazko galdeketa elikapenaz (1988)*
- *Antropologia berria. Ahozko herri Produkzioa. (I-IV) (1988)*
- *Ataungo Herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak (1-4) (1988)*
- *Etnografiazko galdeketa elikapenaz (1988)*
- *Etnografiazko galdeketa elikapenaz (1988)*

Itzulpen-erakundeak

80ko hamarkadaren hasieran itzulpenaren demanda handia sortzen da. Batez ere lau eremutan:

- Administrazioan, euskararen legezko ofizialtasuna dela eta, dokumentuak elebidunak izan behar baitute.
- Irakaskuntzan eta Unibertsitatean, euskararen eta euskarazko ikasketak euskaraz antolatu ahala.
- Komunikabideetan, euskara hutsezko komunikabideek itzulpen-zerbitzua ezinbestekoa baitute.
- Argitaletxeetan, irakurlego geroz eta zabalagoari intermitentziarik gabe liburuak zerbitzatu ahal izateko.

Demanda hau neurri batean balizkoa zenean, eskariak aurreikusiz, hieldu zitzaion arazoari, zorionez. 1979an Juan San Martin Euskaltzaindiko Jagon Sailburuak eskatu zion Xabier Mendiguren Bereziarturi Itzultzaile Eskola bat sortzeko aurretxosten bat prestatzeko. Gerora Eskolaren zuzendari izango zenak 1980ko martxoan entregatu zuen aurreproiektua, eta Euskaltzaindiak urte berean Eskola sortzea erabaki zuen. 1980ko urrian hasi zen lanean gerora "Martuteneko Itzultzaile Eskola" bezala ezaguna izango zena. Hiruzpalau promozio atera zituen. Eskolaren giro horretatik sortu ziren euskal itzulpengitzarentzat hain inportanteak diren "Senez" aldizkaria (1984) eta EIZIE (*Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea*, 1987).

Herri-administrazioetan sortu zen itzulpen-premiei erantzun nahian, 1983an IVAP/HAEE (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) eratzen da. Eta honen baitan, 1986an, ALAIE (Administrazio eta Lege arloko Itzultzaile Eskola) Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta udaletxeetan itzulpengintzan diharduten langileak prestatzeko, batez ere itzulpengintza eta interpretaritzaren eremuetan. 1989koa da IZO (Itzulpen Zerbitzu Ofiziala). Bi jardun-atal ditu honek: itzulpen- eta interpretari-taldeak batean eta bestean terminologi datutegia.

ALAIEk bost ikasturtez iraun zuen, eta hirugarren promozioaren prestakuntza bukatzean itxi zituen ateak 1991n. Eskola honen oinegituran eta Gasteizko Filologia eta Linguistika fakultatean oinarriturik ematen zaio hasiera Euskal Herriko Unibertsitatean Graduondoko Masterrari, 1991n. Urtebete lehenago beste Graduondoko Master bat sortua zuen Deustuko Unibertsitateak.


EIZIE

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea (EIZIE) 1987. urteko abenduan sortu zen, itzultzaileak, zuzentzaileak eta interpretariak koordinatu eta batasuna lortzeko helburuz. Lehenengo biltzar nagusia hurrengo urteko urtarrilean egin zen; 96 bazkide zituen orduan Elkarteak eta Juan Mari Lekuona izendatu zuten lehendakari.

1990eko urtarrilean Iñaki Zubizarretak hartu zuen lehendakaritza, honen lekua Juan Garziak hartu zuen 1992ko otsailean, hurrengo lehendakaria, 1994tik 1996ra, Anjel Lobera izan zen eta honen ordez Joseba Erkizia izendatu zuten 1996ko biltzar nagusian.

Lau sailetan banatuta daude elkarteko bazkideak: literatura, komunikabideak, administrazioa eta interpretariak. Guztira 180 bazkide inguru dira 1996an. Itzultzaileen Nazioarteko Federazioko (FIT) kide da EIZIE 1990ko abuztutik.


Euskal Editoreen Elkartearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, literatura unibertsaleko ehun obra itzultzeko plangintza aurkeztu zuen EIZIEk 1989ko martxoan, eta hurrengo urteko otsailean bere gain hartu zuen proiektua.



Senez aldizkaria argitaratzen du EIZIEk 1989az geroztik (Donostiako Itzultzaile Eskolak sortu zuen aldizkaria 1984ean), baita *Kera* barne buletina ere 1993tik.

Donostiako Itzultzaile Eskola itxi zenean itzulpegintza unibertsitatera eramateko proiektua landu zuen EIZIEk. Unibertsitate-karrera osatzea zen proiektuaren helburua, baina graduatuondoko Masterrak baino ez dira antolatu oraingoz, Gasteizko (EHU) eta Deustuko Filologia Fakultateetan.

Donostiako Martuteneko Eskola 1980an sortu zen Xabier Mendiguren Bereziarturen zuzendaritzapean eta, hamar urtetan laurehun bat ikasle itzulpengintzarako prestatu ondoren, 1989-1990eko ikasturtearen bukaeran Eskolak itxi egin zuen.



ARANA, AITOR (Legazpia, 1963)

- *Azkonarren laguna (1987)*
- *Esperantoa ikasgai (1990)*
- *Loaren bidez (1990)*
- *Afrikako semea (1991)*
- *Ipuin lizunak (1994)*
- *Jainko txikia (1994)*
- *Urtegi misteriotsua (1994)*
- *Ipuin ilunak (1995)*

Itzulpen-enpresak

Euskara-zerbitzuen zerrendatan itzulpen-zerbitzuek leku handia hartzen dute. Ugalduz eta sendotuz joan dira, nahiz eta berrikitan lan-eskasia hauek ere jasan bide duten.

Itzulpena eta bikoizketa zerbitzuekin indarrean hasi ziren batzuk ETBren inguruan. Egitura handiak ziren, handiegiak, eta krisi eta birmoldaketa ugari izan dute geroztik.

Beste maila batekoak dira gehien-gehienak. Plantila aski mugatukoak dira. Zerbitzuen artean, indartsuenek itzulpengintzaz gain bestelakorik ere eskaintzen dute, hala nola, interpretaritza, transkripzioa, testuzuzenketa, etab. Denetara dozena bat enpresa bada itzulpen-lanetara emandakoa.

Itzulpengintzan dabilen langile-kopururik ez badakigu ere, gauza bat da segurua, irakasleen ondoan itzultzaileena izango da euskararekin profesionalki bizi den talde ugariena. Euskal idazle dezenteren bizibidea ere hauxe da.

Hona zenbait talde:

Gipuzkoan:

Belaxe
Bitez
Eskura
Hitzez
Hizkuntz Zerbitzuak
Jaidura
Luma O.E.

Bizkaian:

Bilbo Zaharra
Hori Hori
Kalegana
Labayru Ikastegia

Araban:

Ardatz
Itzulka

Nafarroan:

Itzuliz

Lapurdin:

Euskal Zerbitzuak

"EUSKAL IDAZLE KLASIKOAK" BILDUMA

Proiektuaren diseinua bera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketarako Saileko Euskara Zerbitzuari zor badiogu ere, Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza izan zen martxan jartzeko erabakia hartu zuena.

Helburuak

100 liburuk osatuko duten eta Euskal Editoreen Elkartearen lankidetzarekin argitaratzen den bildumaren helburuak hauexek dira:

1.- XIX mendeko eta XX mende-hasierako euskal idazlerik adierazgarrienak egungo gazteriari ezaguztaraztea.

2.- Aipatu garaiko euskal literaturaren nondik-norakoaren berri jakin nahi duen orori kritikoa izan nahi ez duen bilduma atsegina bezain irakurterreza eskaintzea.

3.- Euskal literatura ikertu edota bertan sakondu nahi dutenei material baliogarria eskutan jartzea.

4.- Euskal literaturaren ikerketa arloan figura berriak bilatu, hazi, gaitu eta sustatzea.

Helburuei tinko eusteko, bildumak hurrengo arduradun edo begiraleak ditu: Blanca Urgell, Ibon Sarasola, Patxi Altuna eta Joseba Lakarra.

Urtez urteko aurrekontua

Urtea	Aurrekontua
1986	8.000.000
1987	7.000.000
1988	5.000.000
1989	5.000.000
1990	5.000.000
1991	4.000.000
1992	8.000.000
1993	8.000.000
1994	8.000.000
1995	5.000.000
	63.000.000

Orain arteko emaitzak (1995)

* Argitaraturiko liburuak: 74.
* Argitaratzeko bidean edo prestakuntza fasean aurkitzen direnak: 16.

"LITERATURA UNIBERTSALA" BILDUMA

PROIEKTUAREN HISTORIA LABURRA

Bilduma honen beharraz askotan mintzatu bazen ere, proiektuak ez zuen itxura edo forma hartu harik eta 1989an **EIZIE** elkarteak (**Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak**), orduan ia-ia jaio berria zenak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari aurkeztu zion arte. Kultura Sailak proiektua aztertu eta horren bideragarritasuna analizatu ondoren, gerora begira euskal itzulpengintza literarioaren panorama bere sustraietatik aldatuko zuen proiektuari berehala ekiteko erabakia hartu zuen.

HELBURUAK

100 liburuk osatuko duten eta EIZIE elkartearen lankidetzarekin argitaratzen den bildumaren helburuak hauexek dira:

1.- atzerriko literaturaren klasikoen gabeziari aurre egitea.

2.- Bertako itzultzaileak profesionalaraztea.

3.- Itzulpena-kalitatea zorrotz-zorrotz bermatzen duen bilduma publiko euskaldunari eskaintzea.

4.- Literatura unibertsalaren historian zehar punta-puntako egileek idatzitako obrarik adierazgarrienak egungo belaunaldi gazteei euskaraz irakurtzeko aukera ematea.

URTEZ URTEKO AURREKONTUA

Urtea	Aurrekontua
1989	5.000.000
1990	7.000.000
1991	11.500.000
1992	9.175.000
1993	13.000.000
1994	14.000.000
1995	14.000.000
	63.675.000

Orain arteko emaitzak (1995)

* Argitaraturiko liburuak: 45
* Argitaratzeko bidean edo itzulpen prozesuan daudenak + adjudikatu berriak: 26.



ARANA MARTIJA, JOSE ANTONIO (Gernika, 1931)

- *Elai Alai. Euskal Herriko lehenengo koreografi taldea (1977)*
- *Resurrección María de Azkue (1983)*
- *Euskal musika (1985)*
- *Santa María de Guernica / Gernikako Andra Maria (1988)*
- *Julio Urkixo (1871-1950) (1993)*
- *Resurrección María Azkue (1864-1951) (1993)*

Itzulpen-proiektuak

Arrazoi du Gorka Arresek (1996) esaten duenean itzultzaileak idazleak baino gutxiago konprometitu direla edizioarekin. Honela dio berak: "Itzultzaileen langintzak zeharbidez derrigortutako ekoizpen handitzea gertatu dela iruditzen zait, baina —Igela argitaletxea salbuespen izanda— literatur itzultzaileak ez dira literatura-idazleak bezainbat engaiatu liburuaren ekoizpen- eta hedapen-prozesuan. Uste dut idazle asko dagoela literatura-argitaletxeen eguneroko dinamikan edo dinamikatik gertu lan egiten duena, eta oraindik ez dira hainbeste inplikatu eta arriskatu itzultzaileak".

Baina, noski, ez da esan nahi hor itzultzaileak euskal ediziotik kanpo daudenik.

Itzultzaileak buru-belarri sartuta dauden bi proiektu nagusi daude gaur egun martxan, literaturazkoa bata eta pentsaerazkoa bestea: "Literatura Unibertsala" eta "Pentsamenduaren Klasikoak".

"Literatura Unibertsala" deitu proiektua 1989an hasi zen mamitzen, EIZIEk Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari egitasmoa aurkeztu eta hitzarmenatu sinatu zutenean. Proiektuaren helburuak honako hauek ziren, X. Mendigurenen hitzetan (*Euskal Itzulpenaren historia laburra*, 1995): atzerriko literatura klasikoko obren gabeziari aurre egitea; euskal itzultzaileak profesionaltzea; itzulpenaren kalitatea bermatua duen bilduma euskal irakurleari eskaintzea; euskara malgutu eta aberastea.

Kultura Sailak eta EIZIEk hitzarmena, 1989an sinaturiko urtero berritzen da: Eusko Jaurlaritzak dirua jartzen du eta EIZIEren kargu doa obren zerrendak hautatzea, lehiaketa publikoaren bitartez hautaturiko obren itzultzaileak izendatu eta Euskal Editoreen Elkarteko partaideren baten bidez argitaratzea. 1990tik 1995era bitartean 45 liburu argitaratu dira bilduma horretan.

"Pentsamenduaren Klasikoak" izenarekin ezagutzen da bigarren proiektua. Historiako eta munduko ehun bat pentsalari garaienen obrak euskaraz ematea da proiektu honen helburua. Eta horrekin lortu nahi da goi-mailako irakaskuntzarako oinegitura bibliografikoa segurtatzea, euskara aberastea prosa zientifiko-filosofikoaren bidez, eta dozenerdi bat hizkuntzatan hogeita hamarren bat itzultzaile trebatzea.


Egitasmoa bideratzeko 1991n Klasikoak S.A. elkartea eratu zen, BBV Fundazioa, EAEko Aurrezki Kutxak (BBK, Kutxa, Vital) eta Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustukoa partaide direlarik.

Hamar urteko epealdian burutzekoa den proiektu hau bide-erdira iristear dago, ukaezinezko emaitzekin.

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ARGITALPENAK

Haur eta gazteentzako liburu eta aldizkarien garrantzia zertan azpimarraturik ez da. Uzta bildu ahal izateko erein egin behar da aurrena. Txikitan irakurtzaletasuna ereitea gero idazleak eta irakurleak biltzea da.


Haur eta gazteentzako liburua historian



Haur eta gazteentzako liburuak, gehienetan edo beti, zerikusi arteza du eskolarekin. Are gehiago gurean, analfabetismoaren erruz.

Eskolarik euskaraz izan ez denean, haurrentzako libururik ere ez. Eskola indartu-ahala, liburu-produkzioa gora.

Hona, nobedadeetan, zer-nolakoa den sail honen indarra urtealdi bakoitzeko liburugintzaren barruan.



ARANALDE, Jose Mari (Gaztelu, 19330

- Xalbador Pertsularia (1996)

Urtealdia	Zenb. abs.	Haur/Gazte-liburua (%)
1876-1935	27	2,4
1936-1975	159	9,8
1976-1994	2.370	23,1

Lehen eta bigarren urtealdietan ez dut hemen libururik kontabilizatu. Bigarrenean badago zer sarturik, egia esan. Urte horietan, esan ere, alegien modak arrakasta izan zuen, eta giro horretan itzuli ziren klasikoaz gain, Iparraldean Lafontaine frantsesarenak eta Hegoaldean Samaniegorenak. Alegien tradizioan aitzindari izandako Bizenta Mogel, Artxu, Iturriaga, Oxobi, besteak beste, hortxe kokatu beharko genituzke.

Baina txikientzako liburuak sistematikoki ateratzeko lehen saioa Eusko Pizkundekoa da. Ordurarte haur euskaldunaren ikasliburu bakarra euskaraz dotrina zen, erdaraz egiten baitzen eskolatzea. Orain, euskal eskolaren lehen urratsak ematen dira. Eskolarako lehen liburuak XIX. mendearen amaierakoak dira eta modu esanguratsuagoan XX. mendearen bigarren hamarkadakoak, auzo-eskolen garaikoak.

Jakina da liburugintza-mota hau nazio-eraikuntzari eta bereziki eskolari hertsiki lotua datorrela beti.

XX. mendearen bigarren hamarkadan, Joseba Altuna, Gabirel Manterola, Larrakoetxea, Jon Gauzekitz, Karmele Errazti, Bittor Garitaonaindia aipa genitzake eta ez dira bakarrak. Eta guzti hauen gainetik Isaak Lopez Mendizabalen izena jarri behar da, autore eta eragile gisa. Eskolarako material asko inprimatu zuen eta sortu ere ez gutxi. Bereak dira: "Zenbakistia" (1913), "Umiaren laguna" (1920), "Xabiertxo" (1925), "Martin Txilibitu" (1931), "Seaska-abestia" (1932). Ezagunena, botaldi gehien izan duena, arrakastatsuena, atzo arte ezagutu genuen "Xabiertxo" da.

Haur-literaturako euskal editoreen aitzindari eta aitaponteko izendatu du Xabier Mendiguren Elizegik (*Haur literaturaren argitalpengintza*, 1994): "Izen-abizenak esanda, Ixaka Lopez de Mendizabal ekarri behar dugu hona, bera baita Euskal Herriko haur-literaturako editoreon aitzindari eta aitaponteko. Zenbait dohain eta kointzidentzia bildu zen harengan eta une hartan: familiatik jaso zuen urte luzeetako tradizioa zuen inprimategia —edo moldiztegia edo irarkola, ez dakit nola esan behar den—, Tolosan euskal liburuak aspaldidanik ateratzen zituena; bestalde bera oso kultura zabaleko gizona zen eta EAJko Gipuzkoako buruzagieta-

koa, beraz, orduantxe ernetzen ari ziren lehen ikastolek zer behar zuten ederki zekiena".

Frankismo garaiko basamortuko ibilaldian ere aurki genezake zerbait, produktu isolatuak eta/edo kanpoko argitaletxeen itzulpen txiki batzuk. Gogoan hartzekoa da txikien argitalpenek bestelako liburuek baino ere zentsura hertsiagoa zutela frankismopean.

70eko hamarkada ingururarte ez da sortzen ordurako abian zihoan ikastola materialez hornitzeko plataforma edo azpiegitura iraunkorrik. Sasoi honetako bi aipatuko nituzke, labur-labur: Gordailu (1968) eta Iker (1972).

Gordailu ikastoletako irakasleek sortu zuten, materialak sortzeko, ikasliburuak nahiz irakurgaiak. Idatzi-mailan utzi duen emaitzik hoberenetakoa "Ikastola liburutegia" bilduma da. Iker 1972koa da, Jabi Zuloaga eta Natxo Arregiren iniziatibaz sortua Bilbon.

Iker-en asmo nagusia, beren hitzetan, "euskal kultura eta hezieraren zerbitzurako profesional ekipo batzu sortzea" zen. Emaitzetan, "Saioka" metodoak lortu zuen arrakastarik handiena.

Orain arte zerrendatu ditugun guzti hauek saio oso interesgarriak izan dira, baina jarraipenik gabekoak, arrazoi bategatik edo besteagatik.

Txikien argitalpengintzak kuantitatibo eta kualitatiboki jauzia Elkar, Erein eta Hordagorekin izan du. Hordago langintza honetatik goiz erretiratu zen, eta beste biek eutsi diote gogotik lanari, eta berauei zor zaie gehienbat gaurko maila.



ARANBARRI, IÑIGO (Azkoitia, 1963)

- *Jonas Poisson (1986)*
- *Dordokak eta elurrak (1989)*
- *Emon biar yako (1994)*


Hazkunde bizkorra

Haur eta gazte-liburuen historian markatxo hauek seinalatu ostean, pasa gaitezen gure garaia sakontzera.

Hiru mila liburu, nobedadeak eta berrargitaldiak kontatuta, argitaratu dira haur eta gazteentzat. Aurreko urtealdian baino ia 18 aldiz gehiago da hori, 2.835 titulu gehiago hain zuzen, eta horrekin hazkundearen inportantzia esanda dago.

Goraldi hau barnetik xeheago aztertzea komeni da, aldaketa hobeki neurtzeko.

Lehendik hona jauzirik handiena berrargitalpenetan egon da: aurreko urtealdian baino 70 aldiz argitaraldi gehiago izan du haur eta gazteentzako liburuak. Orain berrargitalpen-kuota handia izatea bakarrik ez du adierazten zifra horrek. Esan nahi du, baita ere, aurreko urtealdian



Frankismo-garaia eta aro garaikidea elkarrekin konparatuz, ikusten da produkzioak kontzeptu guztietan gora egin duela. Lehen edizioa 14,9 aldiz gehitu da; jatorrizko liburua 10,4 aldiz; itzulpena 18,9 aldiz.

Baina saltorik handiena berrargitalpenean gertatu da: 70,3 aldiz gehiago berrargitaratzen da gaur egun.

Fondoa aberastuz doan seinale.

lehen ediziotik apenas pasa zirela tituluak. Orain 600 titulu pasatxo berrargitaratu dira eta frankismopean 9 bakarrik.

Nobedadeetan 15 aldiz gehitu da txikientzako liburua: 2.200 titulu gehiago esan nahi baita.

Nobedadeen barruan, ordea, liburu itzulia sorkuntzazkoaren ia doble hazi da. Garbi erakusten du honek sail honetan argitaletxeek itzulpenetik jo dutela. Aurreko urtealdian ditu erroak joera honek. Orduan ere itzulpenak gainditu egin zuen jatorrizkoa, baina ez oraingo proportzio izugarri honetan. Hamarretik ia zazpi titulu berri itzulitakoak dira orain.

Gehiegi argitaratzen al da?

Zifra handietan gabiltzan bakoitzean sortzen da galdera hori. Ez ote da gehiegi argitaratzen? Eta erantzuna emateko orduan betiko zioa da erreferentziarena: zerekiko gehiegi?, irakurleria errealarekiko?, balizko irakurleriarekiko?; zertan gehiegi?, haur txikien sailean?, gaztetxoen sailean?; eta are: zertan gehiegi?, sorkuntzazko lanetan?, itzulpenetan?

Ez da erraza erantzuna. Ugari publikatzen dela askok esaten du, baina inor gutxi ausartzen da esatera gehiegi denik. Inpresio hori ateratzen dut behintzat azken urteotako artikuluak irakurtzen ditudanean.

Iritzia ematen duenetako bat, alderdi kualitatiboetara lerratuz bada ere, Xabier Mendiguren Elizegi da (*Haur literaturaren argitalpengintza*, 1994): "Azken urteotan haurrentzat ateratako hiru liburutik bi itzuliak dira. Hau ona da, txarra da? Itzultzailearentzat dudarik gabe ona, lana ematen baitio eta ez da gutxi azkenaldi honetan. Gehiegi ere ez ote den esango nuke, nahiz eta gure asmoa ez izan balorazioak egitea. Zergatik gehiegi? Itzulpen horietako asko txarrak eta akatsez josiak izaten direlako, eta ia beti espainoletik eginak, gure hizkuntz eta kultur kolonizazioa areagotuz. Baina ikusten duzuenez, arazoa ez da funtsean itzulpen horien zenbatekoa, nolakoa baizik".


Editoreei galdetu diegu guk ea zer pentsatzen duten honetaz, eta hona zer erantzun duten:

Haur eta gazteentzako liburu-kopurua zer da, gehiegi, gutxiegi ala nahikoa?

Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	11,1
Gehiegi	50,0
Gutxiegi	5,6
Nahikoa	33,3

Ez da editore guztien erantzuna, noski. Baizik eta inkestari erantzun dioten 18 horiena. Baina adierazten du zerbait. Esan behar da gaurko produkzioa gehiegizkotzat jotzen dutenak neurri handi batean ez direla liburu-mota hori argitaratzen dutenak.

Produkzioa gehiegizkoa dela esaten dutenen ondoan, "nahikoa" dela esaten dutenak datozela ikusita, eta "gutxiegi" apenas inork defen-



ARANBURU, Pello Joxe (Alkiza, 1936)

- *III. Gerriko ikerlan-sariketa Juan Ignazio Iztueta Etxeberria (1767-1845) (1992)*
- *Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1967-1845) (1993)*
- *Klaudio Otaegi (1836-1890) (1994)*
- *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta vere "Cristau Doctriña guztiaren esplicazioaren sayaquera (1858)" (1995)*
- *Juan Bautista Agirre Elola, 1742-1823: gizon eta apaiz eredugarri (1995)*

ditzen duela ohartuta, editoreen ustetan badagoela saturazio-puntu bat esango nuke.

Beste inork baino hobeto daki editoreak eskaintza editorialak populazioaren eskaria gainditzen duenean, horrek dakartzan problemak: etekin gutxiago, tirada jaitsi beharra, itzulpenera jo beharra, besteak beste.

Baina argitalpen-arazoa gero ikusiko dugu.

Nobedadeak eta berrargitaraldiak


1976tik hona, 19 urtetan, 2.370 titulu berri atera dira haur eta gazteentzako. Eskari handia zegoen irakaskuntzaren alorrean batez ere, eta ordurarteko tituluak ez ziren guztira ere asko.

Eskari horri erantzun nahian hasi ziren batzuk, hemengoak nagusiki; eta merkatu-mana gozoaren atzetik etorri dira beste batzuk gero. Horrek guzti horrek puztu egin du ekoizpena.

Gorakada nagusia 1988tik aurrera dator haur eta gazteentzako liburuetan.


Lehen edizioak du hor parterik handiena, honetxek markatzen baitu lerro nagusia.

1988tik aurrera dauden gailurrak, bestalde, berrargitalpenaren ekarpenari dagozkio. Ematen du berrargitaraldiak hiru urtez behin egin ohi direla.



Zifrak begien aurrean eduki arte uste nuen berrargitaraldiak pisu gehiago izango zuela txikien edizioan. Bostetik bat da berrargitaratzen dena. Edizio osoan baino gehiago da, hiru bat puntu. Baina ez da nahikoa. Zer esan nahi du honek? Bietako bat: nobedadeen edizioa abiada bortxatuan doa ala irakurleria ez da berritzen. Bietatik egongo da seguruenik.

Itzulpena sorkuntzaren gainetik askoz



Itzulpenak markatzen du eboluzioa haur eta gazteentzako liburuan.

1988an gehitzen dira itzulitako liburuak.

Euskaraz sorturiko liburuaren gorabeherak txikixeagoak dira.

Euskal jatorrizko liburuak itzulitakoen erdia dira kopuruz.

Euskal jatorrizko tituluak itzulitakoen erdia dira. Titulu berriez ari gara, berriz diogu. Euskal jatorrizkoak 782 dira eta itzulitakoak 1.588. Sail honen hazkundea, hortaz, itzulpenetik joan da.

Jatorrizkoen eta itzulitakoen desoreka hauxe da haur eta gazteen liburugintzan punturik azpimarragarriena.

"Sormen-krisiaz" mintzo da Xabier Etxaniz (1993): "Gero eta gutxiago idazten da euskaraz eta itzulpengintza da nagusi. Aipagarriena hauxe da, sormen-krisia". Urte berean *Jakin*-en itzulpenen morrontza seinalatzen zuen: "Garbi dago euskaraz ezer gutxi egotetik merkatua nahiko osaturik egotera pasa garela urte gutxitan, baina produkzioari begira argi



ARANO, JON MIKEL
(Itsasondo, 1961)

- Bileterik gabe (1985)
- Malezi sorta (1990)

eta garbi ikus daiteke itzulpenen morroi garela (1992an zazpi argitaletxek bakarrik argitaratu zituzten sor-lanak), Baina morrontza hau askoz handiagoa da ilustrazio-liburuetan, irakurtzen ez dakitenentzat edo irakurtzen hasi direnentzako liburugintzan.

Beraz, itzulpengintzaren nagusitasun horretaz gain, euskal haur eta gazte-literaturak duen hutsuneetako bat irakurle hasi berrientzako euskal produktuen eza izango litzateke. Esparru honetan, estatuko argitaletxeak edo bertakoen koedizioak dira nagusi".

Mariasun Landa (1993) ere kezkatuta dago: "Kalitatea, dudarik gabe, asko hobetu da urteotan. Kezkagarria da, ordea, idazle edo sortzaile aldetik ikusten dudan hutsunea. Literaturan, oro har, eta haurren esparruan konkretuki, arazo bera ikusten da, jende gazterik ez dagoela".

Iñaki Zubeldiaren (1986) iritzian, euskarazko haur-literaturaren tradizio motzak jatorri anglosaxoiko materialak erabiltzera eraman gaitu, eta "kolonizazio kulturala" ekarri du ondorio gisa: "Tradizio-falta honek ondorio bat ekarri du gure liburugintzara. "kolonizazio kulturala", bereziki jatorri anglosaxoiko obren aldetik. Anglosaxoiek haurtzaroa gizakion oinarrizko aro bezala hartzen dute, haurrari zor zaion garrantzia eta begirunea eskaintzen diote. Horregatik, haur-literatura, liburu ilustratuak, etab. mimatu egin dituzte aspaldidanik eta tradizio aberatsa dute alor honetan".

Itzulpengintzaren arazo hau itxi aurretik Iñaki Zubeldiaren beraren lumaz aipatu nahi nituzke, aipatu bakarrik, itzulpenaren zenbait abantaila eta desabantaila: "Kanpo obra kontsakratuen itzulpenak egiteko joera honek badu zenbait *abantaila* eta beste zenbait *desabantaila*.

Abantailak:

- ikuspegi zabalagoa lortzea, beste kulturetako ohiturak, folklorea eta bizitzaren ikuspegi ezberdinak ezagutuz;
- munduko literaturan dauden klasiko ospetsuenak ezagutzera ematea: Salgari, Verne, Rodari, Stevenson, Swift, Kipling, Goscinny, Maria Gripe, etab.


Desabantailak:

- gure literatura gutxiago promozionatzeko arriskua;
- kanpoko pertsonaia eta narrazioetara ohitzea eta hemengoak arrotz eta estrainio gertatzea geurontzat ere;
- bertan sortzen dena gutxiestea kanpoko liluraren (egiazko edo ametsezkoaren) aurrean, etab.".

90.eko hamarkadaren lehen urteetan plazaratu da Bilboko "Troka" argitaletxea haur eta gazte literaturgintzan euskal tradizioa txertatzeko asmoz eta gogoz.

Euskal mitologia eta tradizioa aberatsa bezanbat ezezaguna da, zoritxarrez, Maria Jose Zorroza (1993) argitaletxeko arduradunetako baten hitzetan.

Multinazionalek fabrikaturiko pertsonaiak ari zaizkigu sartu eta sartu, bitartean: "Euskal mitologia eta tradizioa izugarri aberatsak dira. Hala ere, gero eta gutxiago ezagutzen da. Multinazionalek fabrikaturiko pertsonaiak, Goku eta guzti horiek, gure jentilak, lamiak eta basajaunak ordezkatzen dituzte. Kontua da multinazionalak medio guztietaz baliatzen direla, telebistaz batez ere, eta orduan ez dago konpetitzerik. Dena den, nahiz eta desabantaila izugarri nabarmena izan, geurearen aldeko lehian sartu behar dugu buru belarri, merezi du eta. Nolabait esateko, amonak falta zaizkigu gure herriko antzineko istorioak umeei kontatzeko. Eta liburuak, beti hezitzaileen laguntzaz noski, hutsune hori nola edo hala betetzen oso lagungarri gerta daitezke". Bederatzi titulu atera ondoren, honela deskribatzen zuen jokabidea: "Ohizko ipuin mitologikoak dira, baina hizkera, diseinua, marrazkiak nahiz narratzeko era balizko irakurlearen adinaren arabera egokitu ditugu".



ARBELBIDE, Xipri (Heleta, 1934)


- *Afrikako "Salbaien" zuhurtzia (1983)*
- *Irri solas (1983)*
- *Gerlako tresna bizidunak (1986)*
- *Piarres Lafitte. Bere bizia (1986)*
- *Garazi (1987)*
- *Lupua eta Mika (1987)*
- *Piarra Topet Etxahun. 1786-1862 (1987)*
- *Iraultza Heletan. Errepublikarentzat hil behorrari (1993)*

Txikien literatura = literatura txikia?

Lanak ditu txikien literaturak maiuskulaz idazten den helduen literaturaren statusa hartzen. Literaturaz jardutean ohizkoa da haur-literatura "ahaztea", bigarren mailakoa bailitzan. "Handicap" hori gainditzen ez du lan makala!

Sintoma gisa emango ditut bi datu, idazleei egindako inkestatik atereak. Bere bizitzan eragin gehien izandako idazleen artean % 0,9k aipatzen dute literatura honekin identifika daitekeen autore bat: Rodari. Haurtzaroa urrutiegi gelditzen zaie idazleei, nonbait. Bigarren datua: idazleek aukeratutako autore "hoberenen" artean, 20. postuan dator Mariasun Landa, % 0,9k aukeratua. Baliteke horixe izatea berari egoki dagokion postua, baina baliteke, baita ere, inplizituki bederen, kategoria jasoagoa aitortzea helduen literaturari, besterik gabe.

Ospe gutxiago bide du haur eta gazte-literaturak. Erakargarritasun gutxiago, nahiz eta gurean nahiko prestigiatua dagoen. Horretara emanak daudenak ematen dioten kalitatea da arrazoi bat. Ukaezina da, orobat, idazle kontsakratu dezente dagoela eremu honetan ere idazten duena.



AREJITA, ADOLFO (Bilbo, 1953)

- *Euskal joskera (1978)*
- *Euskeraren diakroniarako testuak (1984)*

Mariasun Landak, eta ez da bakarra, behin baino gehiagotan errebindikatu du haur-literatura ez dela azpigenero bat, baina berak ere errealitate horixe konstatatzen du (1995): "Orain arte, hala izan da nabarmen, azpisaila deitzen baizitzaion haur-literaturari. Baina gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da, ikusi besterik ez dago euskal literaturgileen artean zenbatek idazten duten haur eta gaztetxoentzako. Jadanik ez da gauza hain nabarmen dagoen aldea haur eta helduen literaturaren artean.

Hala ere, ez duzu inoiz ere aurkituko literaturako manualetan haur-literatura dagoenik. Eta oso kuriosoa da, idazle guztien formakuntzan haur-literatura baita nagusi.

Irakurri izan ez bagenuen esaterako 'Altxorraren Uhartea' gaur ez genuke idatziko. Etorkizunari begira ere, haur eta gazte-literatura da gerora ereitea. Irakurle onak nahi baldin badituzu, haur eta gazte-literatura ona eman behar zaie txikitan. Baina nik ulertzen dut sozialki literatura helduen literatura izatea, eta akademikoki unibertsitatean zer esanik ez".

Kontsiderazio soziala, prestigioa, erakarmena neurtzeko sariek balio izaten dute. Bada, haur eta gazteentzako literaturgintzak sari eta lehiaketa gutxi du, eta batzuetan berantiarrak. Tokian tokiko saritxoak aparte bi dira aipagarrienak: "Xabier Lizardi Saria", Zarauzko Udalak antolatua; eta S.M. argitaletxe madrildarrak antolatzen duen "Baporea". Donostian, izen bereko liburudendak antolatzen zuen "Bilintx" ere bazen, narrazioan, baina jatorrizko lanen faltaz bertan behera utzi behar izan zen.

Kalitate-labela

Helduen literaturaren kontsiderazio bera errebindikatzea ondo dago, baina ematen al du mailarik, kalitaterik?

Haur eta gazte-literaturgintzara hurbiltzen diren askoren lumatan aurki daitezke kritikak. Itzulpenetara zuzenduak gehienetan. Lehen orain baino gehiago eta batez ere kanpoko argitaletxe batzuen liburuxketan euskarak oso tratu txarra hartzen du. Ugari dira maila kaskarreko itzulpenak: jatorrizko testutik ihesi, hizkuntza gordina, hizkuntz erregistro desegokiak, gramatika-akatsak, akats tipografikoak, etab.

Itzulpenari dagokionez hori. Eta ze maila ematen du jatorrizko liburuak?

Maila literarioa ona, txukuna, omen. Arlo honetan egin den aurrerapenaren handia eta gaur egungo maila ona, biak azpimarratzen dira. Xabier Etxanizek (1993) gaztelaniaz argitara ematen denaren maila badagoela hemen ikusten du.

Homologagarritasuna (konplexua adierazten duen hitza batzuentzat), esportagarritasuna edo antzeko kontzeptuak aipatzen dira kalitatea egiaztatzen denerako. Euskal obra bat erdaratzea kalitatearekin soilki bailegon. Arrazoiz gogoratzen du Xabier Mendiguren gazteak Euskal Herritik kanpora jalgi eta geuretik besteetara itzultzea kalitatearen baitan ez baina indarraren arabera neurtzen dela.

Haur eta gazte-literaturgintzako lanak erdaratzeak tradizio motza du. Koedizioak planteatu zirenean, gogoan dut formula magikotzat nola hartua izan zen: kanpoko lanak euskaratu eta euskaldunak erdaratu. Trukaketa. Galeuzcaren testuinguruan, eta hortik landa. Baina denborak erakutsi du itzulpena koedizioetan norabide bakarrekoa izan dela, euskaratzea. Kontrapartidarik gabe.

Inongo argitaletxeetan ez da erdaratzearen politika garbi bat markatu, erakundeek ere bazter utzi dute, eta egin den bakoitzean idazle bakoitzak bere kasa egin du bidea. Haur eta gazte-literaturari dagokion alorrean Mariasun Landaren kasua nabarmendu behar da.

Osasun oneko liburugintza

Hauxe galdetu diegu inkestan idazleei: "Zer-nolakoa da haur-literaturaren 'osasuna'?". Osasunaren kontzeptu hau, jakina denez, ez da zehatza, definigaitza da, baina balio du halako iritzi orokor bat lortzeko.

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	27,2
Oso ona	14,1
Ona	46,2
Erdipurdikoa	9,2
Txarra	1,6
Oso txarra	0,5
Besterik	1,1

Azpimarragarria da iritzi positiboa. Hamarretik seik "osasun" hori ona edo oso ona dela baiezten dute. Are positiboa da iritzi hau gazteena dela jakinda. Ona eta oso onaren aldekoen lautik ia hiru 50 urtetik beherakoak dira; eta lautik batek 35 urte baino gutxiago du.

Adinean gora uzkurtasun gehixeago somatzen da, baina batez ere abstentziora jotzen dute, ez dira ausartzen iritzia ematera.



ARISTI, PAKO (Urrestilla, 1953)

- *Euskal kantagintza berria. 1961-1985 (1985)*
- *Kcappo. Tempo di tremolo (1985)*
- *Martinellok ez du kukurik entzuten (1985)*
- *Martinello eta sei pirata (1986)*
- *Irene. Tempo di adagio (1987)*
- *Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak (1987)*
- *Zazpi pirata balsa batean (1987)*
- *Bezperan entregatu nituenak (1988)*
- *Hamasei paisa eta paralitiko bat (1988)*
- *Iraileko ipuin eta poemak (1989)*
- *Krisalida (1990)*
- *Azken lamiaren bila (1991)*
- *Itsasontzi baten (1991)*
- *Jantoki txinoan (1991)*
- *Keniako tximeleta (1991)*
- *Auto-Stopeko ipuinak (1994)*
- *Euskaldunon Aberia (1994)*

HAUR ETA GAZTE-LITERATURA ERDARAZ

EGILEA	JATORR. IZENBURUA	JAT. ARG.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENB.	ITZUL. ARGIT	URTEA	HIZKUNTZA
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen...	Erein	1984			Giunti	1995	Italiera
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen...	Erein	1984	Garcia Bugarin, Lean.	Duàs letters	Galaxia	1992	Galegoa
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen...	Erein	1984			Ediciones B	1990	Katalana
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen oso...;							
	Sugeak txoriari	Erein	1984	Saban, Arantxa	Dos letters seguido de			
					Cuando una serpiente ...	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Nikolasaren abenturak	Elkar	1979		Las aventuras de Nicolasa	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Ramuntxo detektibea	Elkar	1979		Ramuntxo detective	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Siberiako ipuin eta kantak	Erein			Cuentos y cantos de Siberia	SM	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984			Ediciones B	1990	Katalana
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984			Giunti	1995	Italiera
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984		Cuando la serpiente mira al pájaro	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Xolak badu lehoien berri	Erein	1995	Atxaga, Bernardo	Shola y los leones	SM	1995	Gaztelera
Atxaga, B., eta beste	Bi letter jaso nituen oso...	Erein	1984	Gabastou, André	Un cheveux sur la langue	La Serpent à Plumes	1995	Frantsesa
Iturralde, Joxemari	Londresen nago aitonarekin	Erein	1987	Fontich, Albert	Amb l'avi a Londres	Ediciones B	1989	Katalana
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Pineiro, Anton	O a vo	Galaxia	1988	Galegoa
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Lluch, Josep	La barca de l'avi	La Galera	1988	Katalana
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Landa, Mariasun	La barca de mi abuelo	La Galera	1988	Gaztelera
Landa, Mariasun	Alex	Erein	1990	Etxezaharreta, Lucien	Alex	La Joie de Lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Alex	Erein	1990	Meksi, Mira	Alex	Mira Meksiren eskutik	1994	Albaniera
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Zaitani, Karin	Rusika	Alberliner	(1997)	Alemana
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	White, Linda	The dancing flea	Univ.y of Nevada Press	1996	Ingelesa
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Landa, Mariasun	Rusika	SM	1993	Gaztelera
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Lienas, Gemma	Russica	Cruilla	1992(1º)	
							1993(2º)	Katalana
Landa, Mariasun	Iholdi	Erein	1988	Etxezaharreta, Lucien	Iholdi	La Joie de Lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Iholdi; Izeba txikia; Alex	Erein	1988; 1990	Landa, Mariasun	Cuadernos secretos	Edebé	1994	Gaztelera
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Rodriguez, Carme	Irma	Galaxia	1990	Galegoa
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Lluch, Josep	Irma	La Galera	1990	Katalana
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Landa, Mariasun	Irma	La Galera	1990	Gaztelera
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Senin, Xavier	A estrela verde	Galaxia	1985	Galegoa
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Torre, Albert de la	L'estrella verda	La Galera	1985	Katalana
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Landa, Mariasun	La estrella verde	La Galera	1985	Gaztelera
Landa, Mariasun	Izeba txikia	Erein	1988	Etxezaharreta, Lucien	La petite tante	La joie de lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Meksi, Mira	Dyqani i Pepes	Mira Meksiren eskutik	1993	Albaniera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Emelianoff, Gwenad	Stal Pepa	An Here	1993	Bretoiera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Vrettou, Angeliki	To magasí tes Pepa	Sincroni Epoxi	1990	Grekera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Senin, Xavier	A tenda da Pepa	Galaxia	1984	Galegoa
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Serra, Angel	La botiga de la Pepa	La Galera	1984	Katalana
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Landa, Mariasun	La tienda de Pepa	La Galera	1984	Gaztelera
Landa, Mariasun	*Julieta, Romeo eta saguak*	*SM*	*1994*	*Landa, Mariasun*	*Julieta, Romeo y los ratones*	*SM*	*1994*	Gaztelera

Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Hernandez, Pau Joan	Quaderns secrets	Edebé	1994	Katalana
Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Hernandez, Pau Joan	Una bicicleta en vaga	Grijalbo-Mondadori	1995	Katalana
Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Landa, Mariasun	Una bicicleta en huelga	Grijalbo-Mondadori	1995	Gaztelera
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Meksi, Mira	Maria dhe Çadra	Mira Meksiren eskutik	1993	Albaniera
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Gil Sanchis, Oriol	La Maria i el paraigua	La Galera	1990	Katalana
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Landa, Mariasun	María y el paraguas	La Galera	1990	Gaztelera
Landa, Mariasun	Nire eskua zurean	Erein	1995	Hernández, Teresa	A miña man na túa	Xerais	1996	Galegoa
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	White, Linda	Karmentxu and the little ghost	Univ. of Nevada Press	1996?	Ingelesa
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Meksi, Mira		Mira Meksiren eskutik		Albaniera
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Vrettou, Angeliki	Txan to fantasma	Sincroni Epoxi	1989	Grekera
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Boada, Francesc	Txan el fantasma	La Galera	1984	Katalana
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Landa, Mariasun	Chan el fantasma	La Galera	1984	Gaztelera
Lertxundi, Anjel	Gizon kabalaren piurak	Erein	1982			Alborada	1988	Gaztelera
Lertxundi, Anjel	Tristeak kontsolatzeko makina	Erein	1982			Alborada	1988	Gaztelera
Mendiguren Elizegi, X.	Estitxuk pirata izan nahi du	Elkar	1987	De la Torre, Toni	Maite vol ser pirata	Bromera	1993	Katalana
Mendiguren Elizegi, X.	Harrika	Elkar	1989	De la Torre, Toni	A pedrades	Bromera	1990	Katalana
Santisteban, Karlos	Anika eta bere klera majikoa	Mensajero	1991	Calleja, Seve	Anika y su tira mágica	La Galera	1991	Gaztelera
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Lluch, Josep	La revoltade les joguines	La Galera	1991	Katalana
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Rodríguez, Carme	A rebelion des xoguetes	Galaxia	1991	Galegoa
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Mendiguren Elizegi, X.	La rebelión de los juguetes	La Galera	1991	Gaztelera





ARKOTXA, AURELIA (Baigorri, 1953)

- *Atari ahantziak (1993)*

Haur eta gazteentzako liburua irakaskuntzan

Haur eta gazteentzako literaturgintza irakaskuntzari lotua jaio zen gurean. Eta honela jarraitzen du gaur ere, irakaskuntza-sisteman txertatua.

Ikastolako sisteman literatura irakaskuntzan txertatzea irakasle progresisten eraginez gertatu zen, Freinet-en haritik. Eta orain ikasgelatik sukaldera ekarri behar dela esan ohi da. Kuriosoa. Harritzekoagoa gertatzen da literatura ikastolara sartu zuen belaunaldiak berak handik atera nahi izatea orain.

Irakaskuntzari lotuegia dagoela pentsatzen dute batzuk. Batetik, ikasle gisa bakarrik irakurtzen delako. Eta eskolatik kanpo? Eta bestetik, hizkuntzaren irakaskuntzarako tresna gisa erabili ohi delako. Hizkuntzaren menpe. Diagnosi honen aurrean ludikotasuna, atsegina, literatur gozamena aldarrikatzen du Mariasun Landa batek (1995): "Orain dela hogei bat urte, irakaslerik progresistenen eraginez, haur literatura irakaskuntzan sartzea lortu zen, eta hori aurrerapauso handia izan zen garai hartan. Gaur egun, aldiz, haurrek eskolan baino ez dute irakurtzen. Horregatik, gaur egun, helburua, paradoxikoa bada ere, literatura eskolatik ateratzea da neurri batean, hau da, haurrek eskolatik kanpo gustoz irakur dezaten lortzea. Honekin oso lotuta dago haur literaturak irakaskuntzan izan duen erabilera, beti hizkuntzaren menpe: irakurritakoaren laburpenak cgin, fitxak bete, adjetiboak azpimarratu... Irakurtzearen atsegina eta ludikotasuna errebindikatu behar dela iruditzen zait. Horrek irakaslegoaren prestakuntza eta sentsibilizazio berezia ere eskatuko luke".

Irakaslegoaren sentsibilizazioa eta prestakuntza aipatu ditu Mariasun Landak. Irakasleen prestakuntza-eza, despistea, informaziorik eza, berziklapen-beharra... era honetako salakuntzak noiznahi aurkitzen dira han eta hemen. Adibidez, irakasleek kalitateari ez diotela behar beste erreparatzen, aspaldiko obrak gomendatuz segitzen dutela, produkzio berriaren informaziorik ez dutela transmititzen eta eduki ere ez dutela.

Mari Jose Olaziregik (*Ertaineko gazteen irakurketa gustu-disgustuak*, 1994), azterketaren ondorioetan, ikasleen ezagutza-falta konstatatzen du baina ez die irakasleei errua osorik leporatzen: " Beraz produzitu egiten da, baina ikaslearen eskuetara ez da eskaintza horren oparotasuna iristen.

Gertakari horrek indar gehiago hartzen du, udan irakurtzen dituzten itzulpen urri horiek begiratu ondoren gehienak aspaldian itzulitako lanak direla ikustean.

Hau da, zera eman nahi dugu aditzera, gure inpresio apalean ikasleak ez daukala azkenaldian argitaratutako itzulpenen berri. Eta hau badiogu benetan itzulpen interesgarri eta gustagarriak daudela pentsatzen dugulako da. (...)

Gauzak horrela, gure eritziz, argitaratzen diren liburu berrien informazio zuzenagoa lortzeko bide berriak ireki beharko lirateke. Izan ere, arazo honen aurrean maiz eman ohi den aitzakia (irakasleek ez dizkiete irakurgai berriak agintzen ikasleei) ez bait zaigu baliogarria (edo nahikoa) iruditzen. Errazegia deritzogu irakurketa aukera honen erantzukizuna irakaslegoan soilik dagoela esateari, izan ere, eguneroko lanean (heziketan) ez aspertzeko adinako lana bait dauka irakasleak, eta bestalde, eskolatik ihes egin behar baitu irakurketak.

Hala ere, gauza jakina da gutxiegi irakurtzen dela orokorrean eta irakasleak ez dira maiztasun falta honetatik aske geratzen. Gure eritziz, (eta dudarik gabe oso diskutigarria da) argitaratzen dena ezagutarazteko bide gehiago zabaldu behar dira, eta irakaskuntzaz ari garenez, irakasleari 'eskuragarriagoak' gertatu behar zaizkio argitalpenak".

Pedagogismoa


Lot gakizkion utzitako hariari. Literatura honen eskola-erabilerak kreazioa zein neurritan baldintzatu behar duen ala ez, horra beste arazoa, arazo bizia.

Mezuaren mailan eta hizkuntzaren mailan planteatzen da hemen auzia. Bai Bernardo Atxagak eta bai Anjel Lertxundik aho batez defendatzen dute literatur kreazioaren autonomia.

Bernardo Atxagak (1985) dio: "Haur literatura jenero bat duk eta bere arauak zetik, jenero beltzak edo poliziakoak dituen bezalaxe. (...) Dena den, haur literaturari beti ere halako balio pedagogiko eta zintzotasun bat eskatzen zaio eta ni bederen horren kontra nagoek. Haur ipuiak nork bere sentimenduz idatzi behar ditu eta ateratzen dena poetikoa edo pedagogikoa edo ez dakit zer bada, hori beste kontu bat duk".


Anjel Lertxundi ere (1985) pedagogismoaz kexatzen da: "Euskaraz ere haur literaturarekin etika edo pedagogi modu bat egin duk. Idazle gehienok ikastolan arituak gaituk eta etengabe mundu horretako erreferentziak zetiagu. Nere ustez, hala ere, hobea litzateke erreferentzia hain zuzenik ez izatea".

Pedagogismoaren bigarren lerroak hizkuntzaren erregistroekin du zerikusia. Alegia, zein neurritan egokitu behar zaio euskara irakurleari? Bi aipamen hauek joera desberdinen berri damaigute:



AROZENA, EUGENIO
(Oiartzun, 1940)

- *Antzerkia deusestik izatera (1977)**
- *Altabizkarko kanta (1983)*



ARREGI, MIKEL (Areso, 1948)

- *Hego haizearen konpasean (1975)*
- *Abenduak 20 ekintza (1979)*

Josu Zabaletak (1982) kaltegarritzat jotzen du hizkuntz pedagogismoa: "Ez da idatzi behar haurrek dakiten eta darabiltzen euskaraz, beste era narratiboago batez idatzi beharko dira liburuak. Gaur egun euskara pedagogizatzeko joera nabarmena dago, eta hori luzera begira kaltegarri gertatuko da. Ez gatzik, ez piperrik ez duen euskara hori baztertu beharrekotzat jo behar da".

Iñaki Zubeldiak, aldiz, behin-behineko soluziotzat hartzen du pedagogismoa: "Euskara hizkuntza zapaldua eta marjinatua izatean, ez dugu ezer egiten helburu ideal, garbi bati atxekita egonik. Haur-literatura gozatzeko omen da, literatura omen da, artea; beraz, "pedagogismo"-kutsu guztiak arbuiagarriak omen dira. Bai, baina ez. Beharbada, teorian eta hizkuntza normalizatu, osatu, aberats eta oso erabiliaren kasuan, tesi baliagarria izan daiteke hori, baina gurea bezalako hizkuntza pobre, normalizatu gabe batean, lehenengo helburua hizkuntza bera ongi asimilatzea eta erabiltzea da eta gero hizkuntza horretan bertan haurrei gozaraztea.

Horregatik, zenbait liburutan "pedagogismo" hau nabari da. Baina euskararen egoera ikusita, joera iragankor edo trantsitorio bezala onartu beharra dago; are gehiago, gaur-gaurkoz beharrezkoa dela esango nuke. Bestela zer irakurriko dute B ereduan ari diren haurrek edo euskara elementala eta murriztu bat bakarrik ulertzeko gai direnek?

Hala ere, ezin ukatu hor hutsune handia dagoela oraindik bete gabe, eta gabezia beltza nabari dutela haur euskaldunberriekin lan egiten duten irakasleek".

Pedagogismo eta didaktismo kutsua haur-literaturari eranzteko eta Mariasun Landak aldarrikatzen duen literatur gozamena eta ludikotasuna lortzeko, oso egoki dator EIEk antolatzen duen "Idazleak ikastetxeetara" kanpaina.

1989n jarri zen martxan programa hau. Irakurlearen eta sortzailearen artean harreman zuzena, bizia, atsegina lortzea da honen funtsezko helburua.

Donostian eratu zen lehen bi ikastaroetan (1989-1991), hegoalde osora hedatu zen hurrengo ikastaroan (1992-1993). Laugarren ikastaroan (1993-1994) Iparraldera ere zabaldu egin zen. Bosgarrenean (1994-1995), aldiz, Gipuzkoara mugatu zen berriz.

Denetara ia 200 idazle mugitu dira 800 bat saiotan eta 24.000 bat ikaslerengana hurbildu dira.

Emaitzen baloraziorik egin denik ez dakit, baina, edozein modutan ere, gazteengan literatur zaletasuna bultzatzeko beharbiziko ekintza izan daiteke.

Argitalpengintza

Mila eta bat alderdi baditu haur eta gazteen liburu-argitalpengintzak. Xehetasunetara jaitsi gabe, ze alderdiri aurre egin behar izan dieten argitaletxeek kontatu nahi nuke hemen. Esplikatu nahi nuke, gain-gainetik noski, zer gertatu den 1976an 23 liburu argitaratzetik 1994an 304 liburu ateratzeko, eta hasiera hartako 13 liburu itzulitakoetatik oraingo 164ra pasatzeko.

Historiatxo honen hasieran eskari handia dago, ikastolen inguruan. Euskarazko irakurgaiak behar dituzte haurrek eta gainera euskal historia, euskal tradizioa berreskuratu behar dute. Eskari horri erantzuteko argitaletxe gutxi batzuk daude, eta artean, hasiberritan. Bertako produktuekin, bertako idazleekin hasten dira, baina ezin diete premiei inolaz ere erantzun. Eta itzulpenetara jotzen dute, bakarka nahiz koedizioen bidez. Merkatua zabalduz doa. Baina jatorrizko eskaintzak ezin du abiada horretan korritu, eta ondorioz erdal jatorrizko liburua da geroz eta gehiago indartzen dena.

Bigarren une batean, merkatuaren usainera, erdal argitaletxeak hasten dira haur eta gazteentzako liburuak argitaratzen euskaraz. Beren fondoko liburuak itzultzen dituzte. Herena ere ez da hauen kostua.


Horrela handitzen da bai kopuru orokorra eta bai itzulpenen kopurua. Hazkundeak bere problema bereziak dakartza.

Zer gertatzen da orain, merkatuaren hazkundea geratzean, eta argitaletxeen makineriak funtzionatzen segitu behar duenean? Tartaren banaketan bakoitzak zati txikiagoa izango duela. Lehen murrizketa tiradan etorri da. Tituluko ale gutxiago ateratzen dira orain. Duela hamar bat urte 5.000koa izan zitekeen tirada, gaur agian 2.000rekin konformatu behar da.

Tiradaren murrizketak zera esan nahi du, irabazi gutxiago editorearentzat, eta idazle eta/edo itzultzailearentzat. Eta ez hori bakarrik. Esan nahi du, esate baterako, ilustrazioa eta kolorea sartzea zaildu egiten dela, horrelako liburuetan bost milatik beherako ale-kopuruko edizioak defizitarioak direlako. Erdarazkoetara jo behar, kostuak gutxitzeko


Testuinguru honetan erraz ulertzen dira bertako eta kanpokoen arteko hika-mikak. Hobeto esan, ez dira hika-mikak, sakontasun handiko arazoak baizik, etekin ekonomikoa baino askoz ere gehiago baitago jokoan.

Arazo horretara pasa aurretik, ikus dezagun idazleen inkestan argitaletxeen jokabideak haur-literaturan zer-nolako balorazioa jasotzen duen.



ARREGI DIAZ DE HEREDIA, RIKARDO (Gasteiz, 1958)

- Hari hauskorrak (1993)



ARRIETA, Jesus Mari (Martutene, 1947)

- *Ikas euskara (1970)*
- *Antso Gartzeiz (1974)*
- *Harkaitz, elurra ari zueneko haurra (1976)*
- *Orreagako gudua (1976)*
- *Landetaratuak (1985)*
- *Harkaitz, elurretako haurra (1986)*
- *Gure ezteiak (1988)*

Idazleen iritzian, zein da argitaletxeen jokabidea haur-literaturan?

	% Urteak					
	>35	36-45	46-50	51-60	<61	Guztira
Erantzunik ez	11,4	34,0	35,3	48,6	58,3	37,5
Oso ona	37,1	22,7	20,5	5,7	13,8	20,1
Ona	40,0	29,5	32,3	37,1	16,6	31,0
Erdipurdikoa	8,5	4,5	8,8	5,7	5,5	6,5
Txarra	-	4,5	-	-	-	1,1
Oso txarra	-	-	2,9	2,8	2,7	1,6
Besterik	2,8	4,5	-	-	2,7	2,2
	100	100	100	100	100	100

Lehen begi-kolpean ikusten da onarpen-maila handia duela argitaletxeen lanak, eta gazteen aldetik batez ere. Argitapengintza ontzat edo oso ontzat, batez beste, % 51k ematen du. Eta erdipurdiko edo okerragotzat jo % 9,2k bakarrik jotzen du. Hori da azpimarragarriena. Eta horrekin batera, gazteen iritzi positiboa. Izan ere, erantzunetan gehien konprometitzen direnak beraiek dira; zenbat eta zaharrago eta erantzun gutxiago dago. 35 urtetik beherakoen artean % 77k on edo oso on bezala jotzen du argitaletxeen lana. Hurrengo bi adin-taldeetan jaitsi egiten da onarpen-maila hori, % 52 ingurura, erditik gora hala ere. Berrogeita hamaika urtetik gorakoen artean, hor bai, dagoela jaitsiera, % 36,6ra jaisten baita.

Kanpotiarren "desenbarkua"

Halaxe izendatu zuen Erein-eko Anjel Lertxundik (1988), zinemagintzan, editorialgintzan eta bestetan gertatutako fenomenoa. Horren legitimitatea onartu ondoren, dio: "Euskalgintzan, laguntzak eta subentzioak etorri baino lehenago, denok dakigu zein ari ginen euskararen inguruan. Eta nik badakit, baita ere, frankismoa, diru-laguntzarik eza, egoera beltz batera iritsiko bagina, nortzuk jarraituko genukeen eta zeintzuk ez. Kanpoko argitaletxeak ez baina berdinak geratuko ginateke".

Desenbarkua ala ez, zera seinalatzea interesatzen zait orain eta hemen, kanpoko argitaletxeen sarrera, haur eta gazteen liburugintzatik hasi eta irakaskuntza-liburugintzara zabaldu zela, sua lastategian bezala derrefente, eta horrek ekarri duen arazo nagusi bat planteatzea, alegia, ba al dago lekurik hainbeste argitaletxerentzat? Gertaera honek eskain-

tza editoriala handitu du, baina objektiboki ez ote dituen hemengoak ahuldu galdetu beharko litzateke.

Honela esplikatzen du Elkar-eko arduradun nagusia den Jose Mari Sors-ek (1993) kanpotiarren sarrera, Anjel Lertxundiren hari beretsutik: "Behar izan direnean ez dira egon. Errentagarritasuna ikusi dutenean, orduan etorri dira. Oportunismoaren legera jokatu dute.


Jende guztia haur-literatura egitera pasatu da, errazena delako: itzultzaile bat hartu, irudiak sartu eta kitto! Kanpotarrek diru eta bitarteko gehiago dituzte, eta gerta daiteke konpetentzia honetan (dagoeneko merkatuak ez du gehiago ematen, produkzio gehiegi dago) gu marjinalitatean geratzea. Ez da gure kasua, baina oso zabalduta dagoen ustea da.

Euskal argitaletxeak militantismo giro batetik datoz eta idazle, itzultzaile eta editoreen artean badago konpromezu edo lotura bat. Kanpokoek gauzak gaizki jartzen badira, etorri diren moduan aldegingo dute".

Ezpal berekoa da Xabier Mendiguren (1994) Elkar-eko literatur arduradunaren iritzia: "Garbi esanda, haur-literatura argitaratzen duten etxe gehien-gehienek —bai hemengoak bai ingurumarikoak— eta dudarik gabe indartsuenek, eskolarako testuliburuak ere ateratzen dituzte. Ez hori bakarrik: eskola-material hori ez da eranskin soila, aitzitik, bera da argitaletxeen toki, diru eta garrantzi gehien betetzen duena. Arrazoia bistakoa da: ipuin-liburu polit batek hainbat arrakasta baldin badu, milaka asko salduko du, eta urtez urte eutsi salmenta horri. Hortaz, diru asko dago jokoan. Diru asko, eta dirua baino gehiago.

Une honetan hezkuntza-erreforma delako bat ari da martxan Hegoalde osoan, Espainia osoan bezala. Horren arabera berritu egin behar dira testuliburu guztiak. Oraintsu arte, liburu horiek egitea euskalgintzaren zeregin neketsu zenean, bertakoak aritzen ziren nola edo hala. Orain berriz, kanpokoak ere etorri dira, oldarrean, diruaren usainean. Abantaila ere badute, merkatu askoz zabalagoarentzat ari direnez, inbertsio handiagoak egin ditzakete, lan-talde ugariak eratu, diru-eskaintza ederragoak egin. Eta eskubide oso-osoa dute, berriro diot. Baina nik ere eskubidea dut, ez dela berdin esateko. Izan ere, Euskal Herriaren historia eta geografia irakasteko, ez da gauza bera irizpideak guk finkatu ala kanpokoek ezartzea. Oso gauza oinarrizkoak dira: ea zein den gure herria, zenbat probintzia dituen bertako mapak...

Momentu honetantxe, haur-literaturako euskal argitaletxeentzat hil ala biziko erronka ari da jokatzen. Apustu hau ez irabaztea marjinalitatean erortzea izango baita".



ARRETXE, JON (Basauri, 1963)

- *Hakuna matata (1991)*
- *Txomin Agirre (1864-1920) (1992)*
- *Tubabu (1994)*
- *Hakuna matata (1995)*
- *Urrezko triangelua (1995)*

Lehiakideen iritzia beren hitzetan ezagutzeko, galdera hau luzatu diegu editoreei ("kanpotiarrei" ere bai).

"Kanpoko editorialen esku-hartzeari zer deritzozu?".


Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	5,6
Oso ona	5,6
Ona	33,3
Erdipurdikoa	11,1
Txarra	33,3
Oso txarra	5,6
Besterik	5,6

Begien bistakoa da parekatuak daudela jarrerak: kanpoko argitaletxeak euskal liburugintzan sartzea ontzat ematen dutenak eta txartzat ematen dutenak pare-parean daude. Gertatzen da kasu honetan "erdipurdikoa" esan duenaren iritzia ere negatiboa dela, arrazoietan ikusten denez. Eta horrela, % 50ek iritzi negatiboa emango luke eta % 39k baiezkoa.

Nork bere jarrera indartzeko emandako erantzunak eduki-beteak dira. Bi aldetakoen esanguratsuenak azalduko ditugu.

Kanpoko argitaletxeen jokabidearen aurka daudenak honela argumentatzen dute beren erantzuna:

- *Ez dituzte bertako izaerari dagozkion ezaugarriak errespetatzen. Euskararen kalitatea eskasa da*
- *Hemengo ekintzak zurgatuko dituzte*
- *Eredu espainiarra inportatzen digute. Kolonizazio kulturala egiten dute.*
- *Merkatua hemengoen bizkar egin ondoren bakarrik datozte*
- *Ikuspegi teoriko huts-hutsetik ona izan beharko litzateke, produkzioa emendatzera baitator, baina etxe horien produkzioa onegia ez delarik, zenbait kasutan behintzat, merkatuan eta diru-laguntzetan konpetentzia "desleiala" ekarri dute*
- *Edizioak erdaraz eginda gero, konpetentzi ezberdinean datoz euskarazko edizioak egitera*
- *Merkatu-zabalkunde hutsa da haien jokabidean gidari*



ARRIETA UGARTETXEA, JOXE AUSTIN (Donostia, 1949)

- *Bidaia. Termitosti (1978)*
- *Abuztuaren 15eko bazkalondoa (1979)*
- *Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak (1983)*
- *Bertso-paper printzatuak (1986)*
- *Manu militari (1987)*
- *Mintzoen mintzak (1989)*

Argitaletxe kanpotiarren aldeko argumentuak, beste hauek dira:

- *Euskaraz idatziriko material ezberdinak kalean ikusteko aukera izango da*
- *Konpetentzia sortzen du*
- *Normala iruditzen zaigu*
- *Konpetentziak kalitatea hobetzen du*
- *Kulturak ez dauka fronterarik. "Kanpoko" deitura horren atzean prejuizioak susmatzen ditut*
- *Euskal liburuak saltzen lagundu dezakete*

Barne-gabeziak

Akatsak ugari omen dira eta hutsuneak ez gutxiago. Akatsak aipatutzat ematen ditugu: akats tipografikoak, itzulpen kaskarrak, edizio zaindugabeak, besteak beste.

Hutsuneen artean aniztasun handia dago iritzietan.

Iñaki Zubeldiak, duela hamar urte (*Haur eta gazteen literatura argitaratzailearen ikuspegitik,* 1986) lau hutsune nabari seinalatzen zituen: olerkigintza; antzerkia edo drama; tebeoa eta komikia; eta "hutsunerik handiena, hala ere, gazteen literaturan dago: nobela, abentura, relato, ipuin luze, narrazio, historia nobelizatu, etab.en falta".

Hamar urte beluago Xabier Mendiguren gazteak dio gazte-literaturari oraindik euskal idazle gutxik heltzen diola, kontzeptu editorial berria dela eta gazte-literaturari eskainitako sailak ere berriak direla.

Xabier Etxanizek (1993) haur eta gazteen literaturaren arloa euskal liburugintzako arlo osatu eta aberatsenetzat dauka baina oraindik normalizatu gabekotzat, hutsuneak direla medio. Komikigintza da hauetako bat; eta bestea, 0tik 7-8 urte bitarteko liburugintza, ilustrazio-liburugintzan bertako idazle eta ilustratzaileekin egindako azal gogor, ilustrazio eta koloretako liburua.

Mariasun Landak (1995), bere aldetik, 12-15 urtekoentzako liburuetan eta antzerkigintzan ikusten du herren literaturgintza hau: "Bertako produkzioan kalitatea gora doala iruditzen zait, eta esate baterako, oso pozgarria izan da haurrentzako poema-liburuetan zegoen hutsunea bete duten liburuen agerpena. Baina 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoentzako produkzioan hutsunea ikusten dut, eta antzerkigintzaren arloan ere bai".



ARRIETA, YOLANDA
(Etxebarria, 1963)

- *Badago ala ez dago...? (1992)*
- *Begigorritarren erlojua (1992)*
- *Hegaldiak (1994)*

GORAKADA NABARMENAK

Xabier Etxaniz

Haur eta gazte literatura oso berria da letren munduan, XIX. mendean gazteek irabazitako literatura eta XX. mende honetako hasieran haurrei zuzendutako liburuekin hasten dela esan daiteke. Euskaraz, berriz, 1960ko hamarkadan koka genezake haur eta gazte literaturaren hasiera. Lehendik izan ziren haurrentzat idatzitako liburuak, baina beti ere haurrak hezitzeko edo ideologia baten apologia egiteko eginiko liburuak, edo helduentzat izanik gazteek irabazitakoak (*Abarrak, Pernando Amezketarra*, e.a.).

1963an J. Minaberryk idatzitako *Itchuligo anderea...* ipuin liburuari eta bi urte beranduago argitaratutako *Xoria kantari* poema liburuari esker haurrengan plazerra eta balio estetikoa bilatzen zuen literatura plazaratzen da euskaraz. Lan hauek muga bat markatzen dute euskal haur eta gazte literaturan, aurretik geratzen dira haurrentzat idatzitako hainbat liburu (irakasteko liburuak, erlijiosoak, euskararen aldeko ipuinak,...) eta ondoren, apurka-apurka hasi ziren haurrentzako irakurgai entretenigarriak argitaratzen (*Umeentzako kontuak* 1966an, *Antziñako ipuinak* 1968an, Perraulten ipuinak 1965ean, Andersenenak 1969an...).

Ikastolen ugaritzeak eta haurrentzako liburugintzarekiko kezkak eragin zuzena izan zuten 70eko hamarkada hasieran sortu ziren "Kimu" sailean eta Cinsa argitaletxearen lanean. Pedagogia sortzaileak bultzaturik haurrak protagonista bilakatu ziren beraientzat egindako liburuetan (Tomas Elortzaren "Mikel, Miren eta Txantxangorria" sailelan ikus daitekeen bezala, edo Zarauzko ikastolako neska-mutilek idatzitako *Haurra ipuin denean* -1973-, Elgoibarkoen *Izarren begietan* -1975-, eta abarretan). Eta neska-mutilen parte hartzea bilatzen zuten ere Lurdes Iriondoren antzerki lanek.

Dena dela, euskal haur eta gazte literaturak 80ko hamarkadan izan zuen aldaketarik handiena. Elkar eta Erein argitaletxeen lanari esker, irakaskuntzan euskararen presentziak bultzaturik, E.A.E.an euskara hizkuntz ofizila izatearen ondorioz, gorakada nabarmena izan zuen haur eta gazteen liburugintzak. 60ko hamarkada guztian 40 liburu plazaratu baldin baziren haur eta gazteentzat, 1980an 77 izan ziren eta 1984an 145. Hots, lau urtetan bikoiztu egin zen produkzioa, eta beste lau urtetan berriro bikoiztu (1988an 286 izan baitziren kaleratutako haur eta gazte liburuak). Hala ere, kantitatean emandako ugaritzea garrantzitsua izan bazen ere, nabarmenagoa eta sakonagoa izan zen kalitatean gertatutakoa.

A. Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981), Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), eta M. Landaren *Txan fantasma* (1984) liburuekin haustura bat ematen da. Literatura modernoa, jolas edo entretenimendua baina era berean haurraren arazo eta kezkak ukitzen dituen literatura, hasten da euskaraz. *Txan fantasma* liburuan bakardadeaz, helduekiko harremanen zailtasunaz, ulertezintasunaz hitzegiten da haur baten ikuspegitik. 1982ko Lizardi saria irabazi zuen Mariasun Landaren ipuinak gai berria ekarri zuen euskal letretara. Atxagaren *Chuck Aranberri...* ipuinean beldurra eta fantasia ukitzen dira eta Lertxundik ikuspegi moderno, berritzaile batekin egin zuen ipuin bilduma. Leiho berriak irekitzen dira, beraz, euskal haur eta gazte literaturan, piskanaka-piskanaka ugalduz eta zabalduz joan diren leihoak.

Azken hamar urtetan 300 bat liburu kaleratu dira urtero haur eta gazteentzat euskaraz. Eta literatura arlo honek dituen arrisku zuzentzaile edo bideratzaileak sarritan ematen badira ere, egia da aurrerapasu oso ga-

rrantzitsuak eta handiak eman direla. Betiko tradizio literarioa ahaztu barik, joera eta korronte berriak landu dira; eta lanen ugaritzeak, gainera, kalitatearen igoera ekarri du kasu batzuetan. Abentura eta fantasiarekin batera errelismo kritikoaren baitan koka daitezkeen hainbat eta hainbat lan argitaratu dira urte hauetan. Une atsegina eta entretenigarria eskaintzeaz gain irakurlearengan gogoeta eragin nahi duten liburu horietan bestelako errealitateak, ikuspuntuak eskaintzen dira. Egunerokotasunaren ikuspegi kritikoa azalduz gizakion arazoak ezagutu, gizartearen alde on eta txarrak plazaratu egiten dira errealismo kritiko horren barnean.

Eragin hori, jakina, modu askotan lor daiteke, elementu tradionalak erabiliz *Gutun harrigarri bat* (1992) edo *Zazpi kolore ditu ostadarrak* (1991) liburuetan bezala, edo teknika berrien bidez *Txan fantasma* (1984), *Jaun agurgarria* (1993) edo *Gauez zoo batean* (1993) ipuinetan, adibidez, gertatzen den bezala.

Azken urte hauetako aldaketa, euskal kulturaren baitan eman den handienetarikoa zalantzarik gabe, honako bi zutabe hauetan oinarritzen da: ukitutako gaien aberastasunean (fantasia, abentura, umorea, nobela poliziakoa, barne arazoen mundua, desmilitarizazioa, ekologia, familia, pobrezia, amodioa, askatasuna...) eta lanen kalitatean. Itzulpen nahiko normalizatuaren eragina garrantzitsua izan da, oso, aldaketa horretan. Eta sor lanen kalitateari dagokionez lehendik aipatutako lanez gain, badira oso maila oneko sor lanak: *Bi letter jaso nituen...*(1984), *Txitoen istorioa* (1984), *Zikoinen kabian sartuko naiz* (1986), *Alex* (1990), *Begi-niniaren poemak* (1992), *Katixa eta Kroko* (1992), *Tristuraren teoria* (1993), *Eztia eta ozpina* (1994), *Eddy Merckxen gurpila* (1994), *Julieta, Romeo eta saguak* (1994), eta abar.

Hala eta guztiz, desoreka handiak ematen dira oraindik ere euskal haur eta gazte literaturan. Alde batetik, ia genero bakarra lantzen da, narratiba. Irakaskuntzaren menpekotasunaren eta genero nagusi izatearen ondorioa litzateke hori. Baina, era berean, literaturtasunaren ahuleziaren adierazgarri. Antzerkia ia-ia ez dago eta poesiari dagokionez 1992an Igerabidek argitaratutako *Begi-niniaren poemak* eta 1993ko *Egun osorako poemak* liburuen ondorioz badirudi zerbait mugitzen hasi dela, baina kalitatearen gora-behera handiak ematen direlarik.



Bestalde, haur txikientzako liburuetan itzulpenak besterik ez daude. Gure merkatuaren urritasunak eragozten baitu hemengo ilustratzaile eta idazleen lanak plazaratzea.


Eta azkenik, informazio falta nabaria da. Urtero urtero argitaratzen den liburu kopuru handiaren aurrean ezjakintasuna eta noraezarekin egiten du topo irakurleak. Kalitatea zaindu eta dagoen liburugintzari buruzko informazioa eman behar duen kritika falta zaigu. Ezer gutxi egiten da eta egiten denak oso eragin txikia du irakurlearengan.

Baina hutsuneak eta desorekak kontutan izanik ere, onartu behar dugu azken urte hauetan euskal haur eta gazte literatura ingurukoen parean jarri dela. Behar bada gehiegizko produkzioaren barruan badira haurren heziketari edo ideologiari begira eginiko lanak, baina horien ondoan balore estetikoak primatzen dituzten oso idazlan txukunak aurkitzen ditugu. Kalitate handiko idazlanak, kalitate handiko ilustratzaileekin.


Argi eta garbi dago datozen urteotarako ditugun erronka handienak kalitatea igotzea, gure lanak erdaratzea eta haur txikientzako irudi liburuen sorkuntza direla; horretarako behar ditugun kritika, itzulpengintza politika eta laguntzak garatu beharko ditugularik.

Ilustratzaileak

Liburuetan gehientxoen agertzen den izenez osatu dugu ondoko zerrenda. Gutxi hauez kanpo hainbat eta hainbat ager daitezke: R. Sanchez, I. Andonegi, A. Vadillo, L. Alonso, Fructuoso, L. Astrain, M. Argiñe, G. Muro, D. Redondo, Gentz del Valle, X. Egaña, J. Lucas, J. M. Aleman, J. Resano, K. Etxaniz, J. C. Fernandez, Asun Balzola, Eguillor, M. San Blas, J. Mitxelena, J.B. Iribarne, A. Dominguez, M. Leoz, Belen Lucas, Pili eta Fabiola Beltzunegi, J. Belmonte.




Jesus Lucas



Joxe Mari Telleria



Arrastalu



Yon Zabaleta



Antxon Olariaga



ARRINDA, ANASTASIO
(Lekeitio, 1912)

- *Euskalerri zaarra (Gu Euskaldunok) (1969)*
- *Gurasoentzat. Juantxo-Txiki (1969)*
- *Irripar egizu. Oto ta Pototo (1969)*
- *Semeno de Lazkano. Anai-arteko gorroto (1970)*
- *Euskalerri zaarreko jainko txikiak (1973)*
- *Euskalerria eta eriotza (1974)*
- *Euskalerria eta arrantza / La pesca en Euskalerria (1977)*
- *Poemak (1987)*
- *Amairu kontakizun (1988)*

Ez al da deskuidatu altxor etnografikoa?

Jatorrizko idazleen hutsunearekin batera ez al dago beste bat, euskal gaien gabeziarena?

Herri-proiektu bezala, haur-liburugintzak euskal tradizioa berreskuratzea zuen helburuetako bat. Ahozko literaturaren altxorra baliatzeko moduan geunden, eta gaude, gainera. Hor daude R.M. Azkueren lanak, Joxe Migel Barandiaranenak, Manuel Lekuonarenak, Jose Mari Satrustegirenak, etab.

Baina gurean material guzti horiek material etnografiko huts dira. Ez dira modu literario batez transmititu, ez dira irakaskuntzan sozializatu. Transmisio idatziaren lokarriak mehegia ematen du. Saioak egin dira, gauza politak lortu dira, baina nago itzulpenetara errazegi jo ote dugun. Ez ote dugu egin, geurea bazter utzi eta bere kulturan gauza bera egin zuten Grimm anaien lana itzuli?

Bizenta Mogelek ere kanpoko alegiak itzultzea maiteago zuen bertokoen berri ematea baino.

Ilustrazioa

Geroz eta handiagoa da ilustrazioaren eta kolorearen premia haur-liburugintzan. Haur-jendea komunikazio-ingurumarian koloretara egina dago zeharo. Haurrarentzat substantiboa da kolorea, eta ez apaingarri huts bat.

Azken hamar urtez aho batez aitortu izan da Euskal Herriko ilustratzaileen kalitatea, aniztasuna eta aberastasuna. Ilustratzailearen lana, liburuen munduan, testuliburuetan eta haur-literaturan gauzatu da, eta batez ere bigarren honetan. 25 bat marrazkilari, diseinatzaile eta ilustratzaile on bada gaur euskal liburuen orrietan.

Ilustrazioaren arazoak gaur egun ilustratzailearenak direla esango nuke. Profesionaltzea ez dela erraza, alegia. Euskal argitalpengintzak ez du hainbesterentzat aski lan ematen, hortatik bizi ahal izateko. Ikusi dugu haur eta gazteen literatura zein neurritan den inportatua, testu eta ilustrazio. Gainera, marrazkigintzako teknikak eta tresneria asko aldatu da, eta garestiak dira.

IRAKASKUNTZ LIBURUA

Liburu-mota honen ezaugarriak

Liburu-mota ezberdinak

Hezkuntza eta irakaskuntzako liburuaz ari garenean, zertaz ari gara?


Liburu-mota bat baino gehiago sartzen da kontzeptu honetan.

Testuliburua, noski. Hau da, maila baterako eta gai bati buruz moldatua, aurretiaz erabakitako molde batzuen barruan.

Baina, baita ere, liburu didaktikoa, edo hezkuntza-zientziaren eta pedagogiaren eta metodologiaren alorrak lantzen dituena. ISBN espainiarrean liburu-mota hau giza edo gizarte-zientzietara bidaltzen badute ere, nahiago izan dugu guk hemen sailkatu, eta hori bi arrazoigatik: azpisail gisa han kokatzeko kopuruz txikiegia delako (300 bat titulu) eta zuzenki gai honixe dagokiona delako.

Sail berekoa da liburu osagarria ere, nahiz eta esklusiboki ikasmateriala izan ez. Irakurketa-liburuak izan daitezke, antologiak, ipuinak. Erreferentzi liburuak ere bai, hala nola, hiztegiak, atlasak, estatistika-bildumak. Edo zientzi dibulgaziozko materialak izan daitezke. Eta, noski, kontsulta-liburuak.

Irakaskuntza konbentzionaleko materialez gain, alor honetantxe sartu ditugu guk, esate baterako, euskara ikasteko gramatikak, metodoak, hiztegiak, eta beste.




ARRIOLABENGOA, JULEN
(Aramaio, 1960)

- Julia diñosut (1985)

Mundu berezia

Irakaskuntzarako liburuaren mundua mundu propioa da. Berezi-berezia da arrazoi askogatik. Luze eta zabal ondoko orrietan arakatuko badugu ere aipa ditzagun orain ekoizpen-prozesuari dagozkion ezaugarri nabarmen batzuk.

GAI NAGUSIAK (GAZTELANIA, KATALANA, GAILEGOA, EUSKARA)



Lagin gisako balioa du 1993. urteak. Urte horren barruan hiru produkzio-eremu nagusiek liburugintza bakoitzaren barruan zer suposatzen duten ikusten da garbi.

Euskal liburugintzan erdia da irakaskuntza-inguruko liburua bera bakarrik. Eta hiru gai-alorretan agortzen da produkzio osoaren % 85.

Liburu gailegoan hiru gai-eremuok % 65 hartzen dute. Piska bat gutxiago produkzio katalanean (% 62).

Gaztelanian, berriz, erdira ez da iristen (% 41) literaturan eta irakaskuntza sailetan kokatzen den liburua.


Testuliburuak eta liburu didaktikoak prestatzeko, lan-talde editorialak antolatu behar dira, espezialistekin, gaia eta pedagogia ezagutzen duen jendearekin, alegia. Lan-taldea da gehienetan eta ez autore bakarra. Autore-eskubideak salmentaren ehunekotan barik soldata kontzeptuan ordaintzen dira sarri.

Konposaketa-lanak teknikoki zailagoak dira, letra-tipo desberdinak tarteko edo ilustrazio ugaria duelako (eskemak, kartografia, infografia, argazkiak, etab.). Koloreak, paperaren kalitate onak eta koadernaketa sendoak garestitu egin ohi dute liburu-modu hau.

Zaharkitu egiten da erraz irakaskuntzako liburua. Kaduzidade azkarrekoa da. Aski da irakaskuntza-plangintzaren aldaketa. Pedagogi metodologiak ere azkar doaz. Eta edukien aldetik ere aktualizatua behar du etengabe, zientzien aurreramenduak direla, gizarteko aldaketak direla, informazio estatistikoen berrikuntzak direla eta.

Berezi-bereziak ditu promozio-bideak eta salmenta-bideak. Merkatu eta zirkulazio bereziko liburua da hau. Liburu-dendetara baino areago ikastetxeetara zuzenean jo ohi da, irakasleengana, gurasoengana, eta horretarako saltzaile bereziak behar dira.

Eta testuliburuen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onespen bikoitza behar da: edukien mailan *curriculum*-ari dagokiona eta, bigarren, hizkuntz kalitateari dagokiona.



ARTIAGOITIA, XABIER (Bilbo, 1965)

- Ama (1984)

Ekoizpenaren gorabeherak

Hazkunde bizi-bizia

Zertan esanik ez da liburu-tipo honek gure egunotan duela urre-garaia. Historian zehar —errepikatu dugu behin eta berriz— irakaskuntza-sistematik kanpo egon da gure hizkuntza. Informazio historikoa begiratzea baino hoberik ez dago.


Nobedadeak bakarrik hartzen dira kontuan hemen:

1876-1935	**25**
1936-1975	**145**
1976-1994	**2.827**

Datu hauek berez mintzo dira. Baina zuzen interpretatzeko kontuan izan behar da euskarazko irakaskuntzaz gain euskararen irakaskuntza ere barruan dagoela, eta hor baita ere euskararen hiztegiak. Lehen urtealdietan batez ere ez da ahaztu behar hori.

Pizkunde garaiko abiapuntutxo abortatu horren segidan datoz ikastolak, frankismopean. Baina hamar-hamabi urtean 145 titulu bakarrik produzitzen dira. Konstatatu egin behar da orduko editorialgintza bestelako borroketan zebilela eta kosta egiten zaiola ikastolen liburu-premiei erantzuten hastea.

Gure garaikoa da, izan, produkzio-lerroaren aldaketa. Argitaletxeak horretarako buru-belarri jartzen direnean gertatzen da hori. Ezin ziratekeen jarri, ordea, 1982an Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-sistema osora euskara hedatu izan ez balu. Produkzioaren eboluzio-lerroak garbi erakusten du hori bera. 1982an bikoiztu egiten da irakaskuntza-liburuen kopurua.



ARTZE, JOSE ANTONIO "HARTZABAL" (Usurbil, 1939)

- *Isturitzetik Tolosan barru laino guzien azpitik eta sasi gustien gainetik (1973)*
- *Eta sasi guztien gainetik (1973)*
- *Laino guztien azpitik (1973)*
- *Bide bazterrean hi eta ni kantari (1979)*
- *Ortzia Lorez. Lurra izarrez (1987)*

Frankismo-garaia eta gurea alderatzea interesgarria da liburu-mota honen hazkundea zernolakoa izan den ikusteko. Berau izan da, gainera, gehien hazi den liburua.

Argitalpena	Urtealdiak A (1976-94)	Urtealdiak B (1936-75)	Hazkundea A/B
Lehen argitalpena	2.827	145	19,5
jatorrizkoa	1.920	109	17,6
itzulpena	907	36	25,1
Berrargitalpena	1.009	8	126,1
Guztira	3.836	153	25,0


Hogeita bost bider liburu gehiago kaleratu dira sail honetan, frankismo garaian baino ia hiru mila eta zazpirehun liburu gehiago.

Berrargitalpenean sekulako saltoa ikusten da hor. Eta halaxe da izan, baina ez da ahaztu behar frankismoaren bukaera-aldera egindako produkzioak ez zuela orduan astirik eta gure garaian berrargitaratu direla haietako batzuk.

Edonola ere, handik hona jauzirik handiena, hazkunderik handiena irakaskuntza-liburuarena da. Eta horri esker bera da aldi osoko produkzioan lehentasuna duena, nobedadeetan % 27,6rekin eta ekoizpen osoaren % 30,6rekin. Bai liburu-mota honek eta bai haur eta gazteentzakoak (azken batean merkatu bera, hein handi batean bederen) hirugarren lekura bidali dute literatura, lehen postutik hirugarrenera.

Urte horietan plazaratzen diren tituluez ari gara, nobedade zein berrargitalpen. Titulu-mailan beti ere (ale-kopuruak kontuan hartu gabe oraingoz), ekoizpen-ahalmena gero eta handiagoa da, eta hor zerikusi bete-betea dute merkatu honetara sartu berri direnak, Ibaizabal, Zubia, Giltzak, bereziki. Ekoizpen-kapazidade hori areagotzera behartu ditu, bestalde, 1992ko Erreformak. Erreformaren ildotik, izan ere, lehen baino askoz liburu gehiago behar ditu irakasleak eskuartean, testuak, kontsulta-liburuak, material osagarriak.

Oso une latza igaro zuten hemengo argitaletxeek, Erreforma dela eta ez dela. Euskal Editoreen Elkarteko partaideen estimazio batek zioenez (1991), % 350eko gorakada suposatuko duen inbertsioak egin beharrean aurkitzen dira argitaletxeak Erreformari aurre egiteko. Estimazio honetan, produktuen finantzaketak hartzen du parterik handiena.




1993 arte ia-ia etengabekoa da igoera. Jaitsialdi nabarmena da 1994koa.
Lehen goraldia 1982an gertatzen da, agian EIMAri lotua.
Baina igoerarik nabarmenena azken Erreformari lotua dator, 90eko hamarkadaren hasieran.
Lehen argitaraldiko liburua da gehien-gehiena.

Kontsumo-ahalmenean daturik erabakiorrenek Eusko Jaurlaritzan dute iturburua. 1982an euskarazko irakaskuntza sistema osora hedatzea da bat, eta bigarrena Erreforma bera, hamar urteren buruan. Ez bide da kasualitatea bi urte horietan eboluzio-lerroak erakusten duen gorakada.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Ia lautik hiru nobedade da irakaskuntzako liburuan (% 73,7, zehazki). Lautik bat pasatxo da, hortaz, berrargitalpena. Berriz argitara ematen den liburua neurri handi batean (% 86,3) euskal jatorrizkoa da. Itzulitako liburuak kuota txikia du berrargitalpenetan (% 13,7).



ARZELUS, Xabier (Donostia, 1947)
- Ipuin Beltzak (1984)

Beldur naiz ez ote duen gezur-punttu bat berrargitalpenaren proportzio horrek. Lautik bat baino gehiago berrargitaratzen delakoan nago. Zer gertatzen da? Berrargitalpena ez dela deklaratzen, eta ulertzen da zergatik.

Bi esanahi desberdin eta elkarren kontrakoak ditu berrargitalpenak, segun eta zein den liburu-mota. Literatur liburua prestigiatu egiten du berrargitalpenak. Arrakastaren sinbolo da, hedapena adierazten du, eta irakurtzera (edo gutxienez erostera) bultzatzen du. Hamar aldiz inprimatu den literatur liburuaren aurrean txapela kendu behar dela dirudi.

Hamargarren botaldia dela jartzen duen irakaskuntza-liburuak ez du gauza bera adierazten. Zaharkitu egiten du horrek liburua, edukien desfaseaz eta pedagogi aurrerapenez mesfidantza sortzen dio irakasleari. Nahiago dute berriagoa ikastetxean. Nola aitor, baldintza horietan, edizioaren zenbakia?

Jakin ez dakit baina nago ez ote den jokamolde nahikoa hedatua irakaskuntza-liburuetan berrargitalpena izkutatzea.

Nobedadeetan jatorrizkoa eta itzulitako liburua


Hemen ere datuak ez dira ehuneko ehun fidagarriak. Baina bota ditzadan aurrena datuak eta gero susmoak.

Jatorrizko tituluak % 68 dira eta itzulitako tituluak % 32.

% 32 titulutan 900 dira. Ez dira gutxi, egia esan. Baina egiazkoak gehiago dira, ez dakit zenbat gehiago baina dezente.

Liburu-produkzioaz urtero egin izan ditudan azterketetan hiruzpalau aldiz salatu dut argitaletxe batzuk sistematikoki mozorrotzen dutela liburuaren jatorri erdalduna. Teknika desberdinak daude horretarako. Erdal eta euskal autoreak nahasian jartzea izan daiteke bat; moldapena dela esatea, beste bat; edo "itzultzaile" jarri ordez "egokitzaile" jartzea. Arazoa da, merkatuari begira, ez dela aitortu nahi jatorri erdalduna, arrazoi komertzialengatik. Zergatik, bestela? Horrela jokatzen dute Zubia-Santillanak, Giltza-Edebek eta Ibaizabalek.

Itzulpena neurri batean beti da egokitzapena, badakigu. Baina testu espainiar bateko "olivar"-en partez "sagardia" jarriz euskaratzen duenak ez du egokitzapenik egiten, itzulpen txarra baizik. Eta berrehun orrialdeko testu batean hogeita bosteko koadernillo propio bat erantsi bai eta gainerako guztia berdin-berdin itzultzen denean, horrek ez du itzultzailea autore bihurtzen. Itzulpen egokitutzat edo emango balitz, gaitz erdi.



Nobedadeetan jatorrizko liburuak hartzen du zatirik handiena. Baina ikusten da gorakada batzuk itzulitako liburuari zor zaizkiola. 90ko hamarkadako lehen urteetan itzulitako liburu asko zabaldu da irakaskuntzan.

Are makurragoa da hitzez hitz itzuli eta erdal arduradunak eta euskal arduradunak elkarren jarraian emanez soluzionatzen duenaren kasua.

Hau guztiau kontuan edukita diot egiazko itzulpena aitortutakoaren gainetik dabilela.



ATUTXA EGIRAUN, JUAN MARI
(Dima, 1959)

- *Arrosa zimeldua (1984)*
- *Oilarraren kukurrua (1991)*
- *Hudoak Eguzkiloretzan (1992)*

Hezkuntzaren filosofia. Bilera eta mintegiak	17
Hezkuntza-sistemak. Ikasketa-planak. Pedagogia.	298
Hezkuntza sexuala	8
Eskolaurreko irakaskuntza	627
Oinarrizko Hezkuntza Orokorra	1.670
Batxilergo eta UBIko irakaskuntza	321
Subnormalen hezkuntza	8
Goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntza	109
Irakaskuntza profesionalak	99
Euskararen irakaskuntza. Hiztegiak, metodoak, gramatikak	628
Beste zenbait	51
Guztira	3.836

Zertan azpimarraturik ez dago, ikusten da eta, oinarrizko hezkuntza orokorrean egin dela ahaleginik handiena, hortxe baitago merkatua. Nik dauzkadan datuetatik, tiradarik handienak ere maila horretantxe ematen dira. Aldearen handiak harritu nau: batez beste 3.800eko tirada. Eskolaurrekoa da hurrena tirada-kontuan, 2.600eko batez bestekoarekin. UBIko liburuek 2.000ren bueltan ateratzen bide dira. Eta 1.000ra edo jaisten da irakaskuntza profesionala. Laukian ikusten da ordena beretsuan gertatzen dela titulu-kopuruaren hierarkia ere.

Euskararen irakaskuntzako metodo, gramatika eta gisakoak 600 bat eman dira argitara behin eta berriz. Liburu-mota honetan, hain zuzen, gainerako testuliburuetan ez bezala, berrargitalpenak baloratu egiten du liburua. Berrargitalpen-maiztasun handiko tituluak badira dezente, eta denetan txapeldun "Jalgi hadi" eta "Jo ta ke" datoz.

Ekoizleen aldetik ere bada alderik. Irakaskuntzako material gehienaren ekoizleak enpresa editorialak dira, bertoko eta kanpokoak. Aldiz, euskara ikasteko materialetan oso sakabanatua da ekoizpen-lana: enpresa editorialak, erakunde politiko-administratiboak, irakaskuntza-erakundeak, irakaskuntza-taldeak, elkarteak, lagun-taldeak. Denetik. Irakaskuntza profesionalean Elhuyar-ek leku aparta du, itzuli, moldatu, antolatu edo argitaratuz. Aparta da, berebat, UEUren ekarria. Goi-mailako edo liburu unibertsitarioan etenik gabeko lerro bat mantendu du urtetan


zehar eta dagoeneko altxor polita bildu du. Harrigarriago bihurtzen du honen lana Euskal Herriko Unibertsitate ofizialak eta pribatuek zer (gutxi) egin duten ikusteak.

Balorazio txiki bat, idazleen iritzian

Eskola-liburuaren inguruan bi galdera zuzendu dizkiegu idazleei, bata liburu-tipo honen "osasunaz" eta, bigarrena, argitaletxeen jokabideaz interesaturik.

Zer-nolakoa da eskola-liburuaren "osasuna" galderaren aurrean honela posizionatu dira idazleak:

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	29,3
Oso ona	10,9
Ona	35,3
Erdipurdikoa	17,9
Txarra	3,3
Oso txarra	2,2
Besterik	1,1




ATXAGA, MIKEL (Urnieta, 1932)

- *Gaztetxo. Bizitzako Udaberrian (1963)*
- *Ezkontza bidean (1966)*
- *Deiadarrak (1993)*

Ez dago zer esan handirik hemen, baina balorazio nahiko onarekin ateratzen da eskola-liburua, idazleen iritzira. Ehuneko erdia baino gutxixeago (% 46,2) dira on edo oso onaren diagnosia egiten dutenak. Entusiasmo gutxi erakusten dutenen multzoa ere nahiko indartsua da (% 17,9). Urria da (% 5,5) osasun txarrekotzat daukatenen kopurua.

Bigarren galderak testuarekiko argitaletxeen jokabidea baloratu nahi zuen, baina apenas lortu dugun deus jakiterik. Ia erdiek ez dute erantzunik eman nahi izan. Hirutik bat da ontzat edo oso ontzat ematen duena. Jokabide hori erdipurdikotzat ematen dutenak % 11,5 dira eta ehuneko laura ez dira iristen txarraren aldekoak. Norabidea seinalatzen badu ere, ez da egiazki esanguratsua idazleen posizionamendu hau. Arazoarekiko urrutitasuna da hemen nagusi.



AULESTIA, GORKA (Ondarroa, 1932)

- *English-Basque Dictionary (1990)*
- *Euskara-Ingelesa/Ingelesa-Euskara hiztegia (1992)*

Ikasmaterialgintzarako (euskal) enpresak

Euskal enpresa esatean esan nahi da ez bakarrik Euskal Herrian kokatua baizik eta hezkuntza-*curriculum*-ak Euskal Herria bere osoan aintzat hartzea. Beste arlo askotan bezala, baina areago hezkuntzarenean, jatorriak barik edukiek eta helburuek definitzen dute euskalduntasuna. Alegia, gauza bat da enpresaren beraren jatorria eta beste bat hezkuntza-egitasmoaren jatorria eta moldaera.

Non sortzen dira auziak?

De facto, sarri, gehienetan, loturik datoz jatorri biak, enpresarena eta proiektuarena, *Jakin*-ek egin berri duen ikerketa batek agerian utzi duenez. Enpresa bertakotzea erraza da, ez hainbeste nonbait egitasmoa bertako bihurtzea.

Enpresak eta egitasmoak

Arazoaren larritasunaz jabetzeko, gogoan hartu behar da hezkuntzaren garrantzia zein handia den nazio-eraikuntzan, herri baten balio eta nortasunaren konfigurazio eta transmisioan. Hau ez da tornilloak egitea.

Gaur egun ikasmaterialgintzan dihardute argitaletxe nagusiek egoera juridiko eta hezkuntza-egitasmo desberdinak dituzte. Lehen hezkuntzako merkatuan daukaten inplantazioaren arabera, sei dira nagusiak: Elkar-GIE, Erein, Ibaizabal, Zubia-Santillana, Giltza-Edebé eta Bruño.

Elkar eta Erein bertoko enpresak dira, eta bertako hezkuntza-proiektuen araberako materialak sortzen dituzte.

Ibaizabal ere bertako enpresa da, baina hezkuntza-proiektua Edelvives argitaletxe espainiarrarekin elkarlanean moldatzen du.

Zubia, enpresa gisa hemen sortua du Santillana argitaletxe espainiarrak, eta horren proiektua egokitzen du Euskal Herrirako.

Giltza, Edebé talde editorialekoa da, eta honenak ditu hezkuntza-proiektuaren ardatz nagusiak, honako espezifikoak hemen sortuz.

Bruñok izen bera erabiltzen du Espainia osoan eta Euskal Herrian.

Gero ikusiko dugunez, jatorriak asko markatzen du produktua. Batez ere Euskal Herria historikoki, geografikoki eta instituzionalki nola ulertzen duten. Kanpotik etorriek "bertakotzeko" arazo handiak dituzte nonbait. Espainiatik Espainiarako egindako proiektuak direla modu askotara antzematen zaie: ideologian ez denean, adibideetan da, irudietan, erreferentzietan, marko orokorrean.

Produktuari dagokionez hori.

Baldintza eta produktu ezberdinak

Eta produktua egiteko baldintzez, zer?

Baldintza ekonomiko askoz merkeagoak dituzte Espainiako argitaletxe handi horiek. Eta desabantailak kostuetan eta irabazietan euskal argitaletxeenek dira. Arazoa sortzen da euskal argitaletxeen ahalegin eta ekarpenek inolako konpentsaziorik ez dutenean. Honela planteatzen du Erein-ek (*Jakin*, 1996) arazoa: "Espainiako argitaletxeek argitaratzen dituzten liburuak Espainiako autonomi elkarte guztiei begira eginak dira, autonomia bakoitzarentzat egokitzapen txiki batzuk txertatuz.


Gure liburuak eta haienak paretsuan dabiltza grafismo aldetik, paperaren kalitate aldetik eta beste zenbait ezaugarri teknikoren aldetik; beraz, hasierako produkzio-kostuak berdintsuak dira kasu guztietan. Hala ere, haien tiradak lau, sei edo hamar aldiz handiagoak dira, eta horrek laurdenera edo gutxiagora jaisten du liburu bakoitzaren kostua. Beraz, marketing eta promoziorako erabil ditzaketen baliabideak askozaz ere handiagoak dira, eta promozio erasokorrari esker esparru zabala lortzen dute, hainbat ikastetxetan sarbidea dutelarik.

Bistakoa da, beraz, ez garela ari baldintza ekonomiko berdinetan. Hala ere, hori gure arazoa litzateke, eta ez beste inorena, baldin eta:

- gure Herriaren, bere lurraldetasunaren eta kulturaren trataera lehen aipatu dugun eta guk ematen diogun ikuspuntutik kontenplaturik baleude;
- kanpotik datozen argitaletxeen liburuak Euskal Herriko pedagogi taldeek eginak baleude. Hori horrela balitz, sorkuntza intelektuala bultzatzen arituko lirateke, bertako irakastaldeen prestakuntza hobetuz, materialen esperimentazioa praktikan bultzatuz eta material horiek eraberrituz. Hau guztia egiten dugu, hain zuzen, hemengo argitaletxeek.


Euskal argitaletxeek pedagogi arloan egiten ditugun ekarpen horiei beste bi gehitu behar zaizkie:

- Materialak prestatzen dituzten irakasleek ikastaro ugari ematen dituzte beste irakasle batzuk prestatzeko, eta hori ezinezkoa litzateke —hain neurri zabalean, bederen— argitaletxeek lan-taldeak izango ez bagenitu. Kanpoko argitaletxeek ez dute horrelako ekarpenik egiten.
- Bertako produkzioak ilustratzaile- eta grafista-belaunaldi berri bat sortzeko bidea ematen du. Ondorioz, bertan burututako pedagogi sorkuntza, irakasle-taldeen espezializazioa eta prestakuntza, arte-sorkuntza eta industri garapena eskutik doaz Euskal Herriko argitaletxe-



AURRE-APRAIZ, BALENDIN "AURRAITZ" (Ajangiz, 1912)

- Egunen bidean (1994)



AZKUNE, Iñaki (Zestoa, 1945)

- *Eneko Haritza (1975)*
- *Katalin Erauso (1976)*
- *Zezenak Euskal Herrian (1989)*
- *Charles Darwin. Eboluzioaren profeta (1992)*
- *Fisika oinarrizko kontzeptuak (1992)*
- *Zientzia biografien bidez (1995)*

en planteamenduan, eta hori ez da horrela gertatzen kanpotik datozen argitaletxeekin.

Hau dena kontuan hartu beharko lukete Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak laguntzak emateko unean".

Ekoizpen propioa arriskutan

Indar-erlazio honek gordin dirauen artean, *Jakin*-ek bere editorialean (1996) euskal produkzio propioa ikusten du arriskutan: "Ekonomikoki luzarora bertoko produkzio propioak lanak izango ditu. Zaila da, inolako babesik gabe, kanpoko etxe handi horien aurka konpetitzea. Itzulpen-moldapen sistemaren bidez aise eta dezente merkeago egin ohi dituzte testuak. Bitartean, hemengoek proiektua landu behar dute, eta lantaldeak eratu eta finantzatu egin behar dituzte. Produkzio propio eta bereziak dituen kostuaren zati txiki bat dute besteek. Nola ziurtatu, aurrera begira, ekoizpen propioa, ekonomi baldintza hauetan? Alegia, gure geure ikuspegitik geure historia ezagutzea, geure geografia markatzea, geure herri-nortasunaren identitate-ezaugarriak ziurtatzea? Badirudi kulturan eta hezkuntzan ezin direla planteatu beste alorretan, ekonomian adibidez, egiten diren babes-planteoak, edo baieztapen positiboak".

Inork baino hobeto daki Ikastolen Elkarteak zer dagoen jokoan, zein handia den arriskuen tamaina, eta beraiek jada martxan jarriak dituzte soluzioak: "Beste hainbat eremutan (mass-mediak...) gertatzen den legez, gurea bezalako herri ttipietan, indar ekonomiko erraldoia duten enpresek, beren legea merkatuan ezartzearen mehatxupean bizi gara, hau da, merkatuaren kontrola eta —honekin batera— ideologia hegemonikoa (ez euskalduna, besteak beste) inposatzea. LOGSE martxan jartzeak, hau guztia begi-bistan jarri du, berrikuntza handiak gertatzen diren aldi orotan bezala. Euskal Herrian kanpoko argitaletxeak saiatu dira estrategia berriak urratzen, iragan urteetan izandako porrotaren eskarmentutik ihes egin nahian. Bertako argitaletxeekin tratu eginda, edo bertakoak bailiren berriak sortuta, merkatuan nagusitzen ahalegindu dira, eta oraindik orain horretan dihardute.

Ikastolen Elkarteak, berriz, euskal argitaletxeen arteko proiektu bateratua bultzatu nahi du, gisa honetan bertako produkzioak egiten jarrai dezakegulako, euskal eskolak barneratzen duen kalitatezko hezkuntza- eta kultura-egitasmo nazionala bermatzen dugulako, euskalgintzak behar dituen baliabide autonomoen (enpresen) aldeko apustua egin

nahi dugulako, eta —finean— euskal pedagogia modernoak gero eta ikasmaterial hobeagoak izan ditzala gura dugulako. (...)


Ekonomiaren arloko beste hainbat ataletan, industrian esaterako, egin den bezalaxe Ikastolen Elkarteak proposatu eta gauzatu egin du enpresen arteko batasuna, merkatuan lehiakor izateko, euskal ikasmaterialgintza bermatzeko, eta honen kalitatea gorengo gradutara igotzeko. Euskalgintzan, oro har, eta hezkuntzan bereziki, Euskal Herriak etorkizun propioa duela, eta izango duela, uste dugu, baldin eta bertakook geure sormena, baliabideak eta jarrerak bateratzen baditugu. Osterantzean, geure kulturaren eta heziketaren teknologia kanpotar enpresei erosi beharko diegu, autonomia galduz eta kontsumitzaile hutsak bihurtuz".

Gai sozial eta kulturalen trataera testuliburuetan

Lehen Hezkuntzako euskarazko testuliburuek Euskal Herriari buruzko edukiak zein ikuspegitik lantzen dituzten aztertu ditu Imanol Murua Uriak (*Lehen Hezkuntzako ikasmaterialari gainbegiratua*, 1996). Lehen Hezkuntzako ziklo eta arlo nagusietan euskarazko materiala argitaratu duten sei hezkuntza-proiekturen ikasmaterialak aztertu ditu zehatz eta mehatz: Bruño, Elkar-GIE, Erein, Giltza-Edebé, Ibaizabal eta Zubia-Santillana. 192 liburu arakatu ditu orriz orri, ilustrazioz ilustrazio.


Lehen aipatu dugun bezala, sei proiektuok bi multzo nagusitan banatzen dira. Batetik, osoan bertako produkzioa egiten duten Elkar-GIE eta Erein-ek Euskal Herrian diseinaturiko *curriculum*-a dute eta bertako lan-taldeek mamituriko materiala eskaintzen dute. Beste lauen hezkuntza-proiektuek Estatu osorako diseinatuak daude, eta neurri desberdinetan bertakotzen dituzte, itzulpen-moldapenen bidez nahiz bertako hezkuntza-proiektuen araberako material propioa sortuz. Egokitze-prozesuan alde handiak daude hauen artean, itzulpen hutsetik Ibaizabalen material propioetara dagoena, adibidez. Dena den, gai edo maila batetik bestera ere badira aldeak proiektu bakoitzaren barruan.

Aipatu azterketan, gai sozial eta kulturalen trataeran, gai desberdinen arabera arakatu ditu argitaletxe bakoitzaren ikasmaterialak Imanol Muruak. Zehazki, lurraldea, hizkuntza eta kultura, historia, eta gizarteantolamendua dira aztergidoiak. Azterketa horretatik iritzi-sorta bat edo beste bilduko dugu hemen.



AZURMENDI, JOXE (Zegama, 1941)

- *Hitz berdeak (1971)*
- *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa (1971)*
- *Kultura proletarioaz (1973)*
- *Iraultza sobietarra eta literatura (1975)*
- *Zer dugu Orixeren kontra (1976)*
- *Zer dugu Orixeren alde (1977)*
- *Artea eta gizartea (1978)*
- *Errealismo sozialistaz (1978)*
- *Mirande eta kristautasuna (1978)*
- *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa (1979)*
- *Nazionalismo/Internazionalismo Euskadin (1979)*
- *PSOE eta Euskal Abertzaletasuna (1894-1934) (1979)*
- *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan (1989)*
- *Gizaberearen bakeak eta gerrak (1991)*
- *Espainolak eta euskaldunak (1992)*



AZURMENDI, MIKEL (Donostia, 1942)

- *Hitzak. Gauzaren hitzak (1978)*
- *Kontu kontari Grezian barrena (1985)*
- *Euskal nortasunaren animaliak. Euskal ahozkerako animali-metaforaren inguruan (1987)*

Lurraldea

Sei proiektuetatik bostek, dio Imanol Muruak, eremu zabalagoetara jotzean, aintzat hartzen dute Euskal Herria bere osotasunean; bat da erreferentzia bakartzat Euskal Autonomi Elkartea eta Espainia hartzen dituena, Giltza-Edebé. Euskal Herria aintzat hartzen dutenen artean, hala ere, bada alderik: Euskal Herria dute erreferentzia nagusi bakarra Elkar-GIEk eta Erein-ek, eta Euskal Herria aintzat hartu arren EAE edo Espainia dute batzuetan erreferentzia nagusi besteek. Oinarrian kanpoko proiektuak dituzten materialetan ikasleari ez zaio azaltzen beti argi eta garbi zein den "gure herria".

Elkar-GIEk eta Erein-ek Euskal Herria osotasunean hartuta aztertzen dute ikasmaterial guztietan. Euskal Autonomi Elkartea ez da aztergaia; izatekotan ere, Euskal Herriaren egitura administratiboa zein den azaltzeko aipatzen da EAE. Euskal Herria baino zabalagoak diren lurraldeak, "beste lurraldeak" dira. Ezberdintasun bat, seinalatzen du Imanol Muruak, bi proiektuen artean: Euskal Herritik Europara jotzen du zuzenean Elkar-GIEk, Espainia Europako beste estatuen parean aztertuz, eta Espainia modu berezian aztertzen dute Ereineko testuliburuek.

Lurralde-tratamenduan beste muturrean dago Giltza-Edebé. Honen liburuetan ikasleari ez zaio azaltzen Euskal Herria zer den: EAE eta Espainia baino ez dira ageri lurralde-erreferentzia gisa. Birritan agertzen den Euskal Herriko mapari ere ez zaio Euskal Herria deitzen. Iparraldea ez da Euskal Herria, "arlo frantsesak" (sic) dira.

Euskal Herria bere osotasunean azaltzen dute Bruño, Zubia-Santillana eta Ibaizabalek, baina ez beti. Imanol Muruak erakutsi duenez, Euskal Herria zazpi probintziek osatzen dutela irakur dezakete argitaletxe hauen ikasmateriala darabilten ikasleek, baina sarritan Hego Euskal Herrira edo EAEra mugatuko zaizkie aztergaiak, eta Espainia osora zabalduko beste askotan. Adibidez, "Euskal Kostaldea" atalean, "Frantziarekin" muga egiten duen Hondarribian amaitzen da euskal kostaldea (Zubia-Santillana). Edo Autonomi Elkarteari buruzko ikasgaian "Horrelaxe antolatu dugu Espainia" du izena hasierako atalak, eta Espainiakoak dira "gure autonomi elkarteak" (Ibaizabal).

Hizkuntza eta kultura

Giltza-Edebérena da kasu nabarmenena, kultur agerpenak eta hizkuntza ere Euskal Autonomi Elkartearen ikuspegitik azaltzen baititu. Hona nola deskribatzen duen euskararen eremua:

"Gure elkarteak bere hizkuntza du, euskara. Lehen, euskarak esparru zabalagoa hartzen zuen gaur baino. Gaur egun Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroako zenbait tokitan eta Frantziako hegoaldean hitz egiten da".

Historia

Bruño, Elkar-GIE eta Erein-ek euskal ikuspegitik azaltzen dituzte historiako gertakariak. Euskal Herria da protagonista.

Zubia-Santillanaren eta Ibaizabalen materialetan bi ikuspegitatik azaltzen da historia. Zubia-Santillanak ikuspegi espainiarretik egina du hari nagusia, dio Imanol Muruak, baina euskal ikuspegitik egindako testuekin hornitzen du. Ibaizabalek, aldiz, euskal ikuspegitik kontatzen du historia ikasmaila batzuetan, baina Espainiako historia, "gure historiatzat" aurkezten du seigarren mailan.

Imanol Muruaren hitzetan, ikuspegi berezi samarretik azaltzen dira gertakari historikoak Giltza-Edebén. Euskal Autonomi Elkartearen aurrehistoria "Espainiako Iparraldearen" barruan aztertzen da, eta Nafarroarena "Espainiaren barrualdearen" barne. Antzinaroa eta Erdi Aroa ere batera aztertzen da "Espainiaren barrualdean". Gaztela da protagonista, noski, eta Nafarroa aipatu ere ez da egiten.

Euskal ikuspegitik begiratuta, alarmako argi gorriak pizteko ez da ezer behar, egin ohi diren hainbat eta hainbat eskaintza editorial ikusita: Konstituzioari aitortzen zaio subiranotasun nazionalerako eskubidea eta beste hainbeste euskara eta euskal kulturarako, Euskal Herriak ez du historiarik, Euskara EAEkoa da ia osoki; Euskal Herriak Nafarroarekin egiten du muga ekialdean; inguruaren ezagueran Nafarroa eta Ipar Euskal Herria aipamenik gabe igarotzen dira; euskal mendirik garaiena Aizkorri da eta ez Hiru Errege Mahaia; Nafarroatik Euskal Herrira emigratu egiten da; Ipar Euskal Herria Frantzia da; Euskadiko Iparraldea Bizkaia eta Gipuzkoa dira; "gure" basoak eta ibaiak Espainiakoak dira; "gure" Historia Espainiako Historia da. Etabar luze bat.

Larritasunari ulertezintasuna erantsi behar zaio proposamen guzti horiek Eusko Jaurlaritzaren onespenez balioztaturik datozela jakitean. *Jakin* aldizkariko editorialak honela zioen (1996): "Ulergaitza iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritza batek (gehiengo abertzalekoak, alegia) nola eman diezaiekeen eite horretako testuei bere onespena".



AZURMENDI, XABIER (Zegama, 1935)

- *Izatearen malura (1971)*
- *Jesus (1978)*
- *Santa Kruz apaizaren biografia (1986)*

Eusko Jaurlaritzaren eskuhartzeak

Eusko Jaurlaritzaren onespena



BAKAIKOA, BALEREN (Berastegi, 1945)

- *Euskadiko dependentzia ekonomikoa (1977)*
- *Autonomi ogasunak eta Europako komunitateko aurrekontuak (1992)*

Elkarte autonomoko ikastetxeetan banatu ohi diren ikasmaterialak oro Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onespena behar dute. Hiru alorri egiten dio arreta: teknika, hizkuntza eta edukia. Argitalpenaren egokitasun teknikoa aztertzen da aurrena, hizkuntzaren zuzentasuna gero eta ematen diren edukiak Administrazioak ezarritako irizpideetara egokitzen diren ala ez.

Irizpide hauek EAErako oinarrizko *curriculum*-a ezartzen duen dekretuak (237/1992 dekretua) ematen ditu. Ingurunea arloko gai sozial eta kulturalei buruz hor ematen diren irizpideak ez dira batere zehatzak.

Materialen azterketa eta onespenari buruzko arauak 1993ko ekaineko (143/1993) dekretuak zehazten ditu. 1982az geroztik data honerarte testuliburuz testuliburu eman behar zen onespena. Orain EAEko ikastetxeetan banatuko diren ikasmaterial guztiek behar dute onespena, euskarazkoak zein erdarazkoak, baina testuliburuak banaka aztertu beharrean argitaletxe-proiektuak onesten dira.

Ikusten da, bada, onespen-prozesua arina dela oso. Eta okerrago dena: aipatzen ari garen alor hauetan zehaztu gabeko eta interpretazio zabalerako aukera uzten duten irizpide batzuk direla marko eta helduleku.

Curriculum-a ezartzen duen dekretuan dago gaitza.

Euskal Herritik kanpo diseinatutako proiektuek eta hemen mamiturikoek ez luketela maila bereko onespena behar uste dute Erein-ek eta Elkar-GIEk. Aipatu dugu gorago Erein-en ustez Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak laguntzak emateko unean euskal argitaletxeen ekarpenak bereziki baloratu beharko lituzketela. Are esplizituagoa da Elkar-GIE (1996): "Honez guztiaz gain, jatorri desberdineko hezkuntza-proiektuek maila bereko onespena jasotzen dute Hezkuntza Sailean eta jokabide honek mereziko luke azterketa sakon bat eta, ondorioz, jokabide-aldaketa bat ere bai. Gure iritziz, Euskal Herritik kanpo diseinatu eta euskaratu ondoren hemen salmentan ipintzen diren proiektu arrotzek beste era bateko trataera jaso beharko lukete Hezkuntza Sailaren aldetik. Hezkuntza Sailak sakontasunez aztertu beharko lituzke kanpoko proiektu hauetan azaltzen diren edukiak, ilustrazioak, egiten diren aipamenak, eta abar, eta Euskal Herriaren osotasuneko kontzepzioa kontuan izanez, bertako ezaugarri errealetara moldarazi, hemen funtzionatu behar duen

ikasmateriala dela kontuan hartuz. Baina, zoritxarrez, hemendik oso urrun gaudela uste dugu eta gaur egun berdin-berdin onesten dituela Hezkuntza Sailak hemendik bertatik sortutako proiektuak zein kanpotik datozenak".

1992ko aukera galdua

LOGSEren egokitzapenean aukera paregabea izan zuen Euskal Komunitate Autonomoak bere *curriculum* propioa eratzeko. Baina ez. Ez zen aukeraz baliatu. Ezin da ahaztu Fernando Buesa (PSOE-PSEkoa) zela orduan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua.

Bi akats larri ditu 1992ko Hezkuntzaren Erreformak. Bat, ez duela euskara irakaskuntzako hizkuntza gisa kontsideratzen. Eta bi, euskal nortasunaren ezaugarriak berariaz isildu direla bertan, kulturari ez zaiola izen-abizenik jartzen.

Euskal Herria aipatu aipatzen da dekretuan, baina edukirik zehaztu gabe; eta zehazten duen kasu bakanetan, Euskal Herriko Autonomi Elkartea aipatzen du. Aintzat hartu beharreko eremuez ari denean, 237/1992 dekretuak honela zehazten ditu: "herria, eskualdeak, herrialdeak, Autonomi Elkartea, Estatu espainiarra eta Europako Komunitatea osatzen duten herriak".


Larru bizitan uzten du dekretu honen intentzioa Kataluniako maila bereko dekretuarekin alderaketa egiteak.

Kataluniako dekretuaren eredua

Hasteko, hona zer dioen 75/11992 dekretuak: katalana Kataluniako hizkuntza propioa denez, berau izango dela eskola- eta irakaskuntza-hizkuntza, hots, ikasi eta erabili egin behar dena.

Eta gero, edukiz bete-betea dator dekretua. Hemen, gurean, Euskal Herria, euskal kultura eta euskaldunak dekretutik desagertuak diruditenean, Kataluniako dekretuan zehazki agertzen dira historiako eta egungo sinboloak, monumentuak, pertsonaiak, erakundeak, gertakariak, historia eta geografia, eta hori dena helburu jakin batekin: "progressar en el sentiment de pertinença al pais". Herri hori Katalunia da, noski.

Gurearen ondorioak testuliburuetan hezurmamiturik ikusi ditugu. Testu berak ez du Katalunian balio, ordea. Imanol Murua Uriak Edebé, Santillana (Grup Promotor izenez) eta Edelvives (Baula izenez) argitale-



BALENTZIA, JOAKIN (Iruñea, 1947)

- *Heriotzaren ipurdia (1988)*
- *Espaloian dago munduaren xilkoa (1989)*
- *Amaigabeko zikloa: hasieran izan zen kaosa baina (1994)*



BANDRES, Luis Mari (Pasaia, 1944)

- *Algebra bektoriala (1978)*
- *Elektromagnetika (1979)*
- *Elektromagnetika. II (1980)*
- *Solfeo metodoa (1985)*
- *Euskal Abertzaletasunaren Historia 1936ra arte (1991)*
- *Zientziaren Historiografia I. Aurrehistoriatik Erdi Arorarte (1992)*
- *Zientziaren Historiografia II. Errenazimendutik XIX. mendera arte (1992)*

txeen testuliburu baliokideak aztertu ditu han. Eta hau dio: "Ondorio nagusia garbia da. Argitaletxe hauek jokabide desberdina dute Katalunian: Estatu osorako prestatutako materiala neurri txikiagoan erabiltzen dute, eta gai sozial eta kulturaletan edukiak Kataluniako errealitatera egokituta datoz erabat". Bistan da zergatik: Oinarrizko *curriculum* jator bat badagoelako, eta argitaletxeek, testuliburuak hango ikastetxeetan banatu nahi badituzte, dekretuak ezarritako irizpide zehatzetara egokitu beste erremediorik ez dutelako.

Berezko euskal curriculum ofizialik eza

Titulu horrekintxe epaitzen du Ikastolen Elkarteak 1992ko Hezkuntza-Erreforma. Eta honela justifikatzen du baieztapena: "Gaurko egoerara etorrita, arazoak sakon-sakonean dirauela esan behar da, diseinu curricularretan formak leundu nahi diren arren, 'irekitasuna', 'malgutasuna'... gisako ezaugarri mozorrotuen azpian.

LOGSEren aplikapenaren inguruan, Curriculuma garatzeko Dekretuak, adibidez, derrigorrezkotzat hartzen dituen edukiak aztertuz, zera beha daiteke: euskal errealitatea EAEra mugatzen dela, eta hori bera lantzerakoan beti Espainiarekin itsatsirik behar dela egin. Argi dago Administrazio publikoak Euskal Herriarekiko egina duen ikuspegi politikoa, curriculum bihurtu nahi duela eskolaren bidez, eta euskal gizartean naturala, normala, bezala azaldu, legitimazioa, zilegitasuna irabazteko asmoz.

EAEko Eusko Jaurlaritzak har zitzakeen erabakiei buruz, ez da inongo emaitzarik azaldu curriculum propio baten inguruan. LOGSEk, curriculum-zati bat garatzea Autonomi Elkartearen esku utzi arren, begi-bistakoa izan da ikuspegi ideologiko espainola zuten PSOEko agintarien ondarea (curriculum propioaren diseinurik eza)".

Hezkuntza espainolkerian murgiltzen ari dela salatzen du, bere aldetik, Herri Batasunaren izenean Tasio Erkiziak (1996): "Aspaldidanik konturatzen ari ginen Euskal Herrian joera espainolizatzaile izugarria errotzen ari zela. Hainbat urte dira kezka hori kaleratu nahirik gabiltzala. Baina ikusten denez ez dugu jakin bere sakontasunean azaltzen eta ondorioz gizartea ez da konturatzen zenbateraino sartzen ari zaizkigun kultura 'arrotzak' gure herrian. Askotan aipatu da alderdi politiko estatalistak indartzen ari zaizkigula baina gutxitan hausnartu dugu, nola ari zaizkigun sartzen ikuspuntu espainolak gure Hezkuntza Sisteman".

Esperantzari leiho bat

Jakin aldizkariak (1996) testuliburuen gainean eraturiko azterketaz gain iritzi-bilketa interesgarri bat ere egin du. Azterketa irakurtzera eman eta iritzia eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Honen izenean Xabier Agirre Sailburuordeak erantzuten du.


Esperantzari leiho bat irekitzen dio, bai, izenburuan bertan zera nabarmentzen duenean: "Hezkuntza-sistemaren euskal dimentsioa (nortasuna), legegintzaldi honen erronka". Euskal Autonomi Elkarteko hezkuntza-sistemaren osotasunari beste bultzada bat ematea beharrezkotzat jotzen du gaur egun. Eta honela darrai: "Hezkuntza-sistemaren euskalduntze-prozesuan urrats garrantzitsuak eman dira. Dena den, datozen urteetan beste urratsak eman beharko ditugu, gure Herriko hezkuntza-erreformaren beraren erronka handiari erantzunez. Gure ahalegina ezin da hizkuntzaren alderdian mugatu. Irakaskuntzaren edukietan gehiago sakondu beharko dugu, ezaguerak, gertakariak, ikuspegiak eta baloreak prozedura demokratikoen bidez belaunaldi berrietara zabaltzeko".

Hezkuntza-sistemaren euskal dimentsioa lantzeko helburuen garapenean eskola-programak, ikasmaterialak, irakasleen prestakuntza, besteak beste, hartuko dira kontuan. Asmoen artean dago "haur-hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta DBHren ikasketa-planak 'berrikustea', eduki propioak txertatzeko". Berrikuspena, ikusten denez, ez da asmo hutsa, dagoeneko ekin ekin zaio-eta: "eta horretarako ondoko alderdiak izango dira kontuan, besteak beste: materialek eta testuek islatzen duten ikuspegi 'sinbolikoa', Euskal Herriaren lurraldearen tratamendua eta euskal kultura eta historiari eskainitako edukiak".

Asmoak bete egin direla esango ahal du geroak!

Ikasmaterialgintzarako diruak

Hezkuntza Sailaren lehen ordutik euskarazko ikasmaterialek badute diru-laguntzarik.



BARAIAZARRA, Luis (Meñaka, 1940)

- *Euskalherriaren historia. 1 (1977)*
- *Euskalherriaren historia. 2 (1977)*
- *Hitzezko txirlorak (1985)*


"EIMA" PROGRAMA

"EIMA" PROGRAMAREN HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzak burutik burura ikasmaterialgintza propio bati ekitea aukeratu ordez, euskal ikasmaterialgintzan diharduten argitaletxeak laguntzea erabaki zuen. Espreski adierazten duenez, argitaletxe horiek sendotu eta bizkortzea da bere helburu nagusiena. Horretarako sortu eta egituratu zuen 1982an EIMA programa, hots, Euskal Ikasmaterialgintza.

Lau puntu hauetan laburbil liteke EIMA programa helburuen aldetik:

1. Asignaturak euskaraz ematen diren irakasmaila desberdinetarako beharrezkoak diren ikasmaterialak lehenbaitlehen sortarazi eta/edo argitaratzea.
2. Euskal ikasmaterial horiek ikasle-irakasle euskaldunen eskuetara arrazoizko prezio batean iritsi daitezen saiatzea. ahal dela rik, pareko erdal ikasliburuen prezio beretsuan kalera daitezen lortu nahi da.
3. Ikasmaterial guzti horiek edukinez, hizkuntz erabileraz eta azalpide didaktikoz egokiak izan daitezen zaintzea.
4. Euskal irakasleagoaren artean ikasmaterial horien ezaguera eta erabilpide zuzena bultzatzea, aldian aldian orain arte izan diren eta gerora izango diren ikasmaterialen berri emanez.



Iturria: Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritza)

EIMAk bere hiru bertsioetan 1991n jo du gailurra banaturiko diru-kopuruetan.

Bitxia gertatzen da urte horren ondokoetan ikusten dugun jaitsialdia, Erreforma dela-eta premia handiena zegoen garaian gertatzen baita, hain zuzen ere.

Badirudi azken legegintzaldian produktu bakoitzarekiko laguntzak hobetu egin direla. Hori ematen du aditzera laguntza-kopurua eta lagundutakoen arteko erlazioa agertzen duen beste infogramak.

"EIMA"REN EDUKIAK

Irakasmaila ez unibertsitarietarako euskal liburugintza

1. EIMA I - Ikasmaterialgintza inprimatua


ikasliburua
eskolagiroko literatur gaia
eskola-aldizkaria
irakasmundurako informazio-gaiak
mapa eta horma-irudiak

2. EIMA II - Ikus-entzunezko ikasmaterialgintza

Ikus-entzunezko ikasmaterialgintza
hezkuntz kasete eta zintak
hezkuntz diskoa
hezkuntzarako bideo-kasetea
hezkuntz filmeak
hezkuntz telebistarako emankizunak
transparentziak
diapositibak
diapo-audio-muntaiak

Saiakuntza-gaiak
hezkuntz jostailuak
bildumak eta ereduak
gorputz mugimena eta adierazkortasuna
lantzeko materiala
plastika lantzeko materiala
matematika lantzeko materiala
musika lantzeko materiala

3. EIMA III - Euskarazko hezkuntz softwaregintzarako materiala



1982tik 1995era 3,5 aldiz hazi da diru laguntza. Lagundutakoak, berriz, 2,2 aldiz.

EIMAko hiru programek ez dute izan hazkunde bera.



BARANDIARAN, BIXENTE
(Itsasondo, 1917)

- Lanik gabe ezin bizi (1995)

Merkatua

Xabier Letona kazetariak (1994) galdetzen zion Jose Mari Sors Elkareko arduradunari, umeen gutxitzeak nola eragiten duen sektorean. Produkzio gehiegia azpimarratzen du erantzunak: "Une honetan izugarrizko desoreka dago. Hemen zegoen hutsunea eta hezkuntza-erreformarekin, gaur egun testuliburuen merkatuan tokia guztiok dugu, baina izango dira arazoak. Duela lau urte hasi ginenean 12.000 bat haur zeuden B eta D ereduetan. Orduan 10 argitaletxe aurkeztu ginen, eta liburu bakoitzean 3.000-5.000ko tiradak egin behar dituzunez, horrek esan nahi du merkatuan 60.000 mila liburu izan daitezkeela".

Badira arazoak, bai. Hona batzuk: argitaletxe ugari, populazioaren beherakada, titulu asko, tiraden murrizketa. Eta fotokopia.

Etorkizuna ez du oso baikor ikusten Ibaizabaleko Sabin Gorrotxategik ere (1995): "Euskarazko liburugintza testu-liburuei dagokienez, oraindik ez bada ere, orain hasiko da defizientea izaten, beherantz baitoa, merkatua kili-kolo dago eta haurren jaiotza-tasa gutxitzeak ez dio inolako mesederik egiten horri".

Gaia agortzeko asmorik gabe, aipa ditzadan ikasmaterialen merkatuaren inguruko bizpahiru arazo.

Fotokopia

Irakaskuntzako liburuak duen etsai handienetako bat fotokopia da. Editoreen biltzar internazionaletan eta, liburu unibertsitarioaren eta zientifikoaren argitaratzaileak etsi samar azaldu ohi dira puntu honetan. Fotokopiatzailea ari da liburu mota horren edizioa hiltzen. Fotokopia bat, liburu bat gutxiago da. Salmenta urritzean prezioa goititu egin behar. Prezioa igoz gero... jakina da, fotokopia gehiago. Gurpil zoroa.

Ez da Unibertsitateko gaitza bakarrik. 1990ean Euskal Editoreen Elkartea fotokopiaketaren arazoarekin biziki urduri zegoen. Jose Ramon Recalde Hezkuntza Sailburuarengana jo zuten, zerbait egin zezan eskatuz, ikastola, eskola publiko eta ikastetxe pribatuetan legez kontra eta sistematikoki fotokopiatu egiten zela eta.


Ez dirudi ezer konpondu zenik. Bost urte beranduago, 1995ean, Euskal Editoreen Elkarteko Biltzar Nagusian berriz salatzen da fotokopiaketarena. Honela dio Aktak: "Gogor salatzen da Batzarrean Jaurlaritzaren babesa duten ikastetxeak testuei buruz duten jokaera ilegala. Izan ere fotokopien bitartez ilegalki kopiatzen dituzte gure liburuak, hartarako beren egoitzetan dituzten makinak erabiliz, gainera. Elkartea Luis Beitia

abokatuarekin harremanetan jarriko da legez har daitezkeen ekimenak hartu asmoz. (...) Arazo hau ez da, bestalde, ikastola eta eskolen mundura mugatzen, aitzitik Unibertsitatean ere arazo berdina suertatzen da".

Hilabete batzuk beranduago berriz agertzen da fotokopiaketaren gaia, Argia-n oraingoan. Ibaizabaleko Sabin Gorrotxategik dio ikastetxe askok liburu bat erosi eta fotokopia bidez funtzionatzen dutela. Hori horrela bada, iruzur ekonomiko izugarria da gertatzen ari dena.

Iruzur ekonomikoaz gain iruzur intelektuala salatzen du Ereineko Pello Eltzaburuk: "Ikastetxe batzuetan beraien apunte propioak dituztela esaten dute eta bitartean gure liburuen fotokopiekin dabiltza, eta hori ikastetxeko elaborazio-lan bezala eta jendea autopromozionatzeko erabiltzen da".

Fotokopiaketak euskal edizioaren sektoreari dakarzkion kalteen balorazio ekonomikorik ez dut ezagutzen. Estatu mailakoak ez dira txantxetakoak *Cedro*-ri (Centro de Derechos Reprográficos) sinestekotan (1995): autore-eskubidetan bakarrik 1.500 milioi pezetako galera omen. Kaltea ez da ekonomikoa bakarrik: fotokopien erruz 40 milioi ale gutxiago zabaldu omen zen eta 3.000 titulu berri gutxiago.



BASTERRETXEA MANTONI, JOSE "OSKILLASO" (Gernika, 1911)

- Kurloiak (1962)
- Gabeko atorra (1988)

Tiradak murriztuz doaz

Laukiak begi-bistako bihurtzen du lau urte hauetako tendentzia orokorra jaistearen aldekoa dela. Testuliburuen ale-kopurua, oro har, lau urtetan 29.000 aletik 21.000ra jaitsi da. Zortzi mila ale lau urtetan galtzea asko da.

EUSKARAZKO TESTULIBURUEN BATEZ BESTEKO TIRADAK

Argitaletxea	*1992*	*1993*	*1994*	*1995*
Bruño	5.300	5.100	2.629	2.200
Giltza-Edebé	4.333	3.166	1.766	2.000
Elkar-GIE	5.000	6.000	6.166	6.166
Erein	3.137	3.200	2.600	3.100
Ibaizabal[1]	6.000	6.000	3.900	4.066
Zubia-Santillana	5.600	3.583	3.750	4.250
Guztira	**29.370**	**27.049**	**20.811**	**21.782**

Iturria: EIMA (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila).
1. Ibaizabalek testu berak bizkaieraz eta euskara batuan argitaratzen ditu. Mila bat ale gehiago batuan bizkaieraz baino. Batu egin ditugu bi bertsioen tiradak.



BELMONTE FDEZ. DE LARRINOA, JOXE (Bilbo, 1960)

- *Ez dira ilunak (1990)*

Zehatzago begiratuz, larriagoa da batzuentzat besteentzat baino. Tirada igo duenik ere badago. Elkar bakarrik, egia esan. Mantendu egin da beste bat, Erein, eta gainerako guztiek murriztu egin dituzte tiradak, baina ez denek proportzio berean. Gehien jaitsi dena Bruño da, gero Giltza-Edebé, Zubia-Santillana hurrena eta ondoren Ibaizabal.

Tiradak aldatu egiten dira argitaletxetik argitaletxera, liburu-tipotik liburu-tipora, baina baita ere irakaskuntzako maila batetik bestera. 300 ikasliburuen datuak dauzkat nik, eta hortik atera daitekeena hau da: OHOko liburuaren batez besteko tirada 3.800 ale da; eskolaurrekoarena 2.600 ale; batxilergo eta UBIkoarena 1.900 ale; eta lanbide-heziketakoa, mila bat ale.

Testuliburuen inplantazioa

Xabier Isasi eta Lore Erriondo EHUko irakasleek (*Testuliburuak aukeran, Jakin* 1996) galdesorta bidezko inkesta bat egin dute eredu elebiduneko 941 ikastetxetan. 314 ikastetxek erantzun dute (% 33,36), publiko eta pribatu, publifikaturiko ikastola eta ikastolak. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako Matematika, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Ingurunearen Ezaguera jakintza-arloetan erabiltzen dituzten testuliburuetan zein argitaletxe aukeratzen zituzten jakin nahi zuten.

A, B eta D ereduetan 15 argitaletxetik gora aipatzen zituzten ikastetxeek. Bederatzi garrantzizkoenak ondoko hauek dira, hizkuntz ereduetan banaturik aurkeztuta.


ARGITALETXE AUKERATUENAK HIZKUNTZ EREDU DESBERDINETAN

Eredua	Argitaletxeak								
A	—	—	Edebé	—	—	—	Santillana	S.M.	Vives
B	Anaya	Bruño	Edebé	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	S.M.	—
D	—	—	Edebé	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	—	—


Honela komentatzen dute taula hau bi autoreek: "Ikusten denez, bederatzi argitaletxe dira gehienetan aukeratzen dituztenak. Bederatzi horietatik soilik bi agertzen dira eredu guztietan, Edebé (Giltza proiektua) eta Santillana (Zubia proiektua)".

Baina hori baino gehiago interesatzen zaigu guri ikustea eredu desberdinetan nola kokatzen diren argitaletxeak.


D eredua



B eredua




A eredua



D ereduan Elkar da nagusi, berak hartzen baitu erdia eta gehiago. B ereduan Santillanaren testuliburuak dira sartuenak, eta ondoren Elkarekoak. Erein eta Edebé ere ondo kokatuta daude. Eta A ereduan Santillana da berriz nagusi, indar handiagoz orain. Euskal argitaletxeek jai dute eredu honetan, ikusten denez.

Autoreentzat harrigarri gertatu da testulibururik erabiltzen ez duen ikastetxeen kopurua. Euskalduntasunari eta publikotasunari loturiko fenomenoa da nonbait. "Hau da, irakaskuntza zenbat eta 'euskaldunagoa', eta zenbat eta 'publikoagoa' izan testuliburuak ez erabiltzeko joera areagotu egiten da". Aztertzaileen iritzira, testuliburuen erabilerarekiko proposamen alternatiboari barik 'normalizazio-ezari' dagokio jarrera hori.

Diagrama hauek ikusita, eta EIMAn aitorturiko tiradak gogoan, bururatzen zaidan komentario bakarra da, argitaletxeren batzuk liburu-biltegiak ondo beteak behar dituztela. Ez da harritzeko tiradak errealitateari gero eta gehiago egokitzera joatea, murriztera alegia.



BERASATEGI, PIO (Zegama, 1935)

- *Herbesteratua (1982)*
- *Hiltamuzko lantuak (1982)*
- *Hamabost istorio Aizkorpeko (1984)*
- *Zaharrak berri (1985)*
- *Samur eta gordin (1987)*

JAKINTZA LIBURUAK

Sailkapen hirukoitza egiten dugu liburu-mota honetan.

Lehenean, kontsulta eta erreferentzi liburuez arituko gara; zehazki, hiztegien eta entziklopedien arazoaz.

Bigarrenean, giza eta gizarte-zientzietako liburuak aztertuko ditugu. Hemen kokatzen dira historia, biografia, hizkuntzalaritza eta filologia, soziologia, zientzia politikoak, geografia, zuzenbidea, etnografia, nagusienen artean.


Hirugarren sailean, zientzia eta teknologia alorreko liburuak datoz, hala nola, matematika, natur zientziak, medikuntza-zientziak, injinerutza, etab.

Estatistikaren aldetik begiratuta, bakoitza bere aldetik arakatuko dugu noski, salbu kontsulta eta erreferentziazko liburuak. Erreferentzi liburuak, esaterako testu-hiztegiak eta entziklopediak, giza eta gizarte-alorrekoetan kontabilizatuko dira. Eta hiztegi lexikalak, horiek, irakaskuntza-liburuen sailean jada ikusiak ditugu.

Kontsulta eta erreferentzi liburuak

Hiztegiek eta entziklopediek gauza bat dute batera: etengabeko erabilera praktikoa eta funtzionala, eskuartean behar izatea. Liburu-mota hau, bestalde, titulutan ugaria ez bada ere, kontsumo handikoa da eta handiak izan ohi ditu tiradak.

Ekintza editorial gisa ere, kostu eta etekin handikoa izaten da gehienetan. Kostu aldetik ez da berdin hiztegi edo entziklopedia baten elaborazioa eta eleberri batena. Salmenta aldetik ere ez dira berdinak, zertan esanik ez da. Produkzio-prozesuaren aldetik, hurbilago dago liburu-mota hau ikasmaterialetatik literaturatik baino.



BERNAOLA, Iñaki (Bilbo, 1952)

- *Bonga (1987)*
- *Zugarramurdiko kontesa (1989)*
- *Hamabost urteko naufragoa (1991)*



BIGURI, KOLDO (Gasteiz, 1962)

- Ezpataz hil (1995)

Hiztegigintza

Hogei urte dira aurten "Euskal Hiztegi modernoa" kaleratu zela. Eta hogeigarren urtean bi lan sendo argitaratu dira aldi berean: Bostak bat taldearen "Hiztegia 3000" eta Elhuyar elkartearen "Elhuyar Hiztegia".

Eta, zorionez, ez dira bakarrak. Hogei urte hauetan sekulako garapena izan du hiztegigintzak. Larramendi, Azkue, Bera-Mendizabal edo Plácido Mujika ikusten genituen lekutan, azken bi hamarkadatan beste hauek azaltzen dira: Koldo Mitxelena, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Luis Mari Mujika, UZEI, Elhuyar, Bostak bat, Lino Akesolo, beste inor gutxietsi gabe.

Garapen horretan asko lagundu du teknologiak. Plácido Mugikak zapata-kaxatan gordetzen omen zituen fitxak. Gaur datu-base informatikoak lana erraztu eta hobetu egiten du.

Erabaki indibiduala barik erabaki editoriala da gero eta gehiago hiztegigintza. Autore bakartiaren ekintza izatetik talde-lana izatera etorri da. Ekoizpen-prozesua arras aldatu da, bai filosofikoki eta bai teknologikoki.

Hiztegigintzaren sasoi oparoa

Hiztegigintzaren sasoi oparoa ez da azken urteotakoa bakarrik. Aztertzen ari garen urtealdiaren lehen urteetakoak (1976-1977) dira "Diccionario Retana de Autoridades", Xabier Kintana eta lagunen "Euskal Hiztegi modernoa", Ibon Sarasolaren "Euskal Hiztegi arauemailea", Luis Mari Mujikaren "Hiztegi orokor teknikoa", besteak beste. 1977an sortzen da UZEI, hainbat eta hainbat testu hiztegiren egilea.

Lino Akesolok-eta 15 urtetan burutuko dute "Retana" hiztegia. Xabier Kintanak behin eta berriz berrikusiko du bere hiztegia eta behin eta berriz berrargitaratuko da. Luis Mari Mujikaren hiztegiaren hegaldia motzagoa izan da. Ibon Sarasolak etengabe dihardu hiztegigintzan: hiztegi arauemailearen ondoren, gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegiari helduko dio 1982an; 1985ean hauta-lanerako euskal hiztegia argitaratzen hasten da, eta bi urte beranduago, 1987an, ateratzen den *Orotarikoa*-n Koldo Mitxelenaren segida hartzen du berak.

"Bostak bat" taldea "Sinonimoen hiztegia"rekin plazaratzen da 1983an eta geroztik lanean dihardu bizpahiru urtez behin hiztegi bat gutxienez atereaz. Jadanik argitaratuak ditu "Euskararako hiztegia (1986), "Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna" (1988), "Euskararako

hiztegia. Oinarrizkoa" (1990), "Eskola hiztegia. Irudiduna" (1991), "Eskola Hiztegia. Eskola Berrirako" (1993) eta aurtengo "Hiztegia 3.000".

Elhuyar elkartea beranduago baina indarrean sartu bide da hiztegigintzan. "Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa"ren ondoren (1993), Elkarekin atera zuen "Euskal Hiztegi modernoa" (1994) eta aurten "Elhuyar Hiztegia" kaleratu du.

Aipamen txiki bat bederen egin gabe ez ditut utzi nahi Xabier Gereño eta Gorka Aulestia, bina hiztegiren egile.

UZEIren testu-hiztegiak

Paulo Agirrebaltzategik (1992) dio UZEIren hiztegi tekniko-berezituak entziklopedia sektorialak zirela. Bai hiztegien berezitasun honegatik eta bai egin duen lan erraldoiarengatik leku berezi bat behar du UZEIk hemen. UZEI izan da, gainera, euskararen normalizazioaren aitzindaria ezeze sinboloa.

Luberriak euskarari irabaziz euskara eta euskal kultura normalizatzeko jaio zen UZEI. Ordurarte ukatuak edo erabiligabeak izan zituen jakintza-esparrutan ibiltzen ikasi behar zuen euskarak. Joanes Leizarragarekin esateko *usatu gabea* zegoen euskara hainbat eta hainbat jakintza-alorretan, eta, bestetik, larria zen premia eskoletan, Unibertsitatean, komunikabideetan eta aurreikusten zen administrazio publikoan.

Hiztegigintzari heldu zion lehen orduan, *Jakin*-ek "Natur Zientziak. Hiztegia" (1976) liburuan esperimentatu zuen bidetik. Hau da, lexikoa eta testua konbinatuz. Hitza nola den euskaraz gauza bat da, baina ez nahikoa, edukien eta testuinguruaren froga izan behar du. Horregatik izendatu ditugu UZEIren hiztegiak testu-hiztegiak; alorkako entziklopediak, esango genuke.

UZEIri esker kultur alor nagusi gehienetan, denetan ez esatearren, "usatua" dago euskara. Nahikoa da hiztegien izenburuak zerrendatzea: administrazioa eta zirkulazioa, artea, banaketa eta kontsumoa, biologia, ekonomia, enpresa, erlijioa, filosofia, finantzak, fisika, glotodidaktika, hirigintza, hizkuntzalaritza, informatika, kimika, kirola, matematika, medikuntza, metereologia, musika, politika, psikologia, teknologia mekanikoa, zuzenbidea.



BILBAO, BEGOÑA (Bermeo, 1932)

- Isuritako ura ez da batzen (1991)

UZEI


UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) kultur elkartea 1977ko abuztuan sortu zen, Jakin taldeak bultzatuta, euskara unibertsitate-gaietarako eta hizkuntza tekniko-zientifikorako prestatzeko helburuz. 1978ko abuztuan legez onartua izan zen eta 1979ko abenduan lehenengo hiztegi teknikoa plazaratu zuen: *Fisika Hiztegia*.

Geroztik 38 jakintza- eta lanbide-hiztegi argitaratu ditu (1996ko iraila bitartean), unibertsitaterako nahiz irakaskuntza ertainerako hainbat testuliburuz gain. Gaur egun euskararen corpus-a ikertu eta modernizatzea du helburu eta lexikoaren garapenean lan egiten du.

Bi ikerketa-eremu nagusitan dihardu: teminologi zentru gisa antolatutako datu bankua (Euskalterm), eta XX. mendeko euskal corpusaren ikerketa lexikografikoa (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa).

Euskal terminologia-bankua 1986an abiatu zuten, UZEIren hiztegi berezituak oinarri zituela. 100.000 kontzeptu baino gehiago biltzen ditu, euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesez, eta kanpotik kontsultatzeko zerbitzu telematikoa eskaintzen du.

Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) 1990. urtean abiatu zuen UZEIk. XX. mendeko euskara idatzi guztia prozesatu eta material horrekin datu-bankua osatzea du asmoa.



UZEI elkartea Eusenor (Euskal Entziklopedia Orokorra) enpresaren sortzaileetakoa da, Elhuyar, Elkar argitaletxea eta Ikastolen Elkartearekin batera.

Hiru zuzendari izan ditu UZEIk: Joseba Intxausti (1977-84), Edorta Uria (1984-86) eta Alberto Agirreazaldegi (1986ko otsailetik aurrera).

Mitxelenaren erasoa UZEIri


1981eko abenduan, Koldo Mitxelenak artikulu bat argitara eman zuen *Muga* aldizkarian, eztabaida luze bati hasiera emanez. Artikulu berau barne 118 lan idatzi jaulki ziren polemika horretan, hilabete gutxitan, ia denak Mitxelenaren jarreraren aurka.

"Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" artikuluan UZEI aipatzen da espresuki, baina elkarte hau baino gehiago erasotzen da bertan. Kupidagabe erasotu ere. UZEI adina (izenik gabe bada ere) Elhuyar, UEU, Jakin, eta Joxe Azurmendik artikuluaren logikaren hariari tira eginez erakusten duenez, Euskaltzaindia bera, eta Eusko Jaurlaritza ere bai. Mitxelenari Ibon Sarasolak lagundu zion polemika honetan. Biei erantzuna emanez Joxe Azurmendik *Jakin*-en publikatu zuen artikulu sakonari titulu hau jarri zion: "UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan" (1982). Honela justifikatzen du titulua: "UZEI auzitan edo *normalizazio-bideak* auzitan esan dut. Istilua, itxuraz, UZEIren kontura joan da. Baina 'UZEI' erreala auziperatu dena, edo istiluak harrapatu duena, ez da Esterlines kaleko hori bakarrik: euskararen normalizazio-bila administrazioan, alde batetik, eta bestetik Unibertsitatean edo BBB/UBI mailetako irakaskuntzan dabilen jende gehiena geratu da afektaturik, bide batez itzultzaileak, etab. ere bai. Kritikatu diren adibideak hori erakusten dute (UEU, Elhuyar, Aranzadi, Jakin, Fisikako taldeak, etab. erortzen dira kritika horietan: UZEI baino gehiago horietxek hain zuzen, kritikatu diren gauza konkretuei bagagozkie); jendearen erreakzioak ere halaxe dio. Beraz 'normalizazio teknikoan' ari omen dela esaten dugun mundu guzti hori harrapatu du erasoak. Hots, egon dagoen normalizazio-bide oraingoz ia bakarra, bloke gisa behintzat.

Lehenik, ba, hori utziko dugu finkatua: euskal letretan bloke haundi bat badago (UEU, UZEI, etab.), elkarrekin eta modu berdintsuetan lan egiten duen jendearena, kriterioak elkarrekin eztabaidatzen dituena, ahalik eta bateratuena jokatuz beren artean, euskararen normalizazio eta estandartizapen bila: beti ere Euskaltzaindiaren arauei jarraituz baina zenbait gauzatan erabakiak beraiek hartu beharrean, Euskaltzaindiak erabaki gabeko mila puntutan. Horiek denak dira 'UZEI' polemika honetako adieran".


Zer kritikatzen du, hortaz, Mitxelenak? Funtsean erdalkeria edo dependentzia linguistikoa ondorio gisa, eta metodo gisa bi puntu: aurrena testuak egin behar direla eta gero hiztegiak; eta lehenengo autore zaharretatik eta testu idatzietatik hitzak bildu behar direla.

Kuriosoak gertatzen dira azken bi puntuak. Hain zuzen ere, UZEIko hiztegien ezaugarri bereizgarria horixe baita, artikulu nagusien inguruan



BORDA, ITXARO (Baiona, 1959)

- *Basilika (1984)*
- *Bizitza nola badoan. Poemak. 1974-1984 (1984)*
- *Emakumeak idazle (1984)*
- *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle. Antologia eta ohar zenbat (1984)*
- *Krokodil bat daukat bihotzaren ordez (1986)*
- *Udaran betaurreko beltzekin (1987)*
- *Just Love (1988)*
- *Urtemuga lehorraren kronika (1989)*
- *Bestaldean (1991)*
- *Bakean utzi arte (1993)*
- *Manex Erdozaintzi-Etxart (1934-1984) (1995)*



CANO, HARKAITZ (Lasarte, 1975)

- *Kea behelainopean bezala (1994)*
- *Paulov-en txakurrak (1994)*
- *Radiobiografiak (1995)*

hiztegi guztia artikulatzea, testuak lexikoaren aurretik joan behar horre gatixe. Testu idatzietatik eta zaharretatik elikatu beharra da bestea. Joxe Azurmendik 160 mila fitxatatik gora bildu izanaren kopurua ematen du. Gutxi al da?

Baina bitxiena erdalkeriaren frogatzat ekartzen dituen adibidetan gertatzen da. Hauek dira adibideak: *bide ebakia* (1), *zentzu* (2), *energia* (3), *hegal/hegatx* (4/5), *klitxe* (6), *aparkaleku* (7). Banan bana errepasatu ondoren hona Joxe Azurmendiren ondorioa eta galdera (ordena honetantxe): "Beraz, UZEIren bekatu propio bezala *bide ebakia/camino cortado* bakarrik geratzen zaigula, ematen du: Euskaltzaindiak berak ontzat emana du hori ere ordea. Nire konklusioa: Hau ez da UZEIren kritika bat, Euskaltzaindiaren kritika da, izatekotan. (...) Baina seinalagarria da: zergatik zazpi adibidetatik sei Euskaltzaindiak ontzat emanak, are bost Euskaltzaindiarenak berarenak eta horietatik lau UZEIrik egon baino ere dexente lehenagokoak? Zergatik bat bakarra ez UZEIko berezia?".

Era askotara analiza daiteke eraso hau, baina Joxe Azurmendik seinalatzen dituen elementu batzuk ez dabiltzake egiatik oso urruti. Horien artean, UZEIren arrakasta eta lan-makina bat izatea, Euskaltzaindiaren ahulezia, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika zalantzatia, Mitxelenak berak eta Eusko Jaurlaritzak orokorrean alderdi barruan euskara batuarekin zituzten arazoak; eta, azkenik, Mitxelenak 50. hamarkadan Azkueren hiztegia osatzeko jaso zuen hiztegi mandatuaren atzerapen kezkagarria.

Hiztegigintzaren bide berriak

1981eko abenduaren 21ean agertu zen Mitxelenaren zorioneko artikulua. Eta abenduaren 29an bildu zen Euskaltzaindia Hondarribian. Adierazpen bat egin zuen Euskaltzaindiak eta lehen puntua hiztegigintzazkoa zen. Hizkuntzaren plangintza orokor baten barruan sarturik dagoela hiztegiginntza ere, eta modu egokian erantzun behar diola horri Euskaltzaindiak, esaten zen. Eta ondoren hiru hiztegi-mota berezi eta honela posizionatzen zen: Hiztegi Orokorra, Mitxelenak landu behar zuena alegia, lehenbailehen burutzeko asmoa zuela; "hiztegi hiritartua" martxan jartzeko batzorde bat izendatu behar zela; eta "hiztegi espezializatuak" edo arlokakoak egitea eta banan bana aztertzea ez zela Euskaltzaindiaren zeregina.

Hondarribiako adierazpena ez zela hitz hutsetan geratu komentatzen du Andoni Sagarnak (*Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS)*,1989) eta honela kontatzen ditu hurrengo urratsak: "1982ko martxoaren 26an Euskaltzaindiak zenbait erabaki hartu zituen, bai Hiztegi

Orokorrak lantokia, tresnak eta lan-talde bat izateko bidea jarriz eta bai Hiztegi hiritartuaz arduratuko zen batzordea izendatuz ere. (...)

Hurrengo urrats inportantea 1983ko apirilean emango da Euskaltzaindiak Iker Sailaren barnean Hiztegigintza Batzordea izendatzen duenean, eta 1984. urteak pisu bereziko bi gertakari ekarriko ditu: batetik Hiztegi Orokorra (orain *Orotariko Euskal Hiztegia* deitzen duguna) egiteko laguntza ematea erabakitzen dute Jaurlaritzak eta Diputazioek, eta bestetik garai hartan Hiztegigintza Batzordeko Idazkari zen Mikel Zalbidek prestatutako epe luzerako plana onartzen du Euskaltzaindiak. Lehenengo gertakaria garrantzi handikoa izan zen, maila horretako proiektu batek behar zuen erabaki politikoa, berandu bederen, etorri zelako eta bigarrena berriz urte batzuetan euskal hiztegigintzan Euskaltzaindiak egin edo gidatu beharreko lanak mailakatu eta denboran programatzen zituen erabaki akademikoa hezurmamitzen zuelako".

Hiztegi espezializatuak lantzen jarraitu zuen UZEIk, baina ez ordurarteko onarpen akademiko eta instituzionalekin eta, beraz, babes eta diru-laguntza gutxiagorekin. Hementxe mozten da, nire ustetan, alorrako hiztegiek Entziklopediara eraman behar zuten bidea. EEBSk gaina hartzen die testu-hiztegiei.

1987an kaleratu zen Mitxelenaren "Orotariko Euskal Hiztegia"ren lehen tomoa.

Urte berean, 1987an, sinatu zuen UZEIk Eusko Jaurlaritzarekin EEBS proiektua aurrera eramateko hitzarmena. EEBS siglek "Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa" esan nahi dute. XX. mendeko euskal produkzio idatziaren inbentarioa eta azterketa egiteko konpromisoa hartzen du UZEIk, hiztegi hiritartu arauemaileari begira. Hiztegi baterako lan hori LEF (Lexikologi Erizpideen Finkapena) Batzordearen eskutan jartzen da, honek Euskaltzaindiari proposamena egiten dio, eta Euskaltzaindia da, gero, onespen ofiziala ematen duena. Aurtengo apirilean P letra aztertzen zebilen Batzordea.




CASENAVE, JON (Lehuntze, 1957)

- *Itsu-mandoka. Kontu Xume. Joko Krudel (1981)*
- *Ordu alferren segida (1985)*

Entzikopedigintza

Lehen euskarazko hiztegia baino 15 urte aurretik, UZEI diseinatu zuenean, euskal entziklopedia zuen gogoan *Jakin* taldeak. Ezina zen urtealdi honen hasieran, Entziklopedia batek hizkuntzaren normalkuntza-maila linguistiko eta kultural garaia eskatzen baitu, lan-talde trebatuak, eta merkatu zabala. 90eko hamarkadara arte itxaron behar izan dugu.

1984an idatzi eta hurrengo urtean Senez aldizkarian argitara eman zuen artikulu luze batean (*Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren hiztegigin-*



CASENAVE, JUNES
(Santa Grazi, 1924)

- *Santa Grazi. Pastorala (1976)*
- *Ibañeta pastorala. (Euskara batuan, zuberotarra-española-frantsesa) (1978)*
- *Amikuze (1983)*
- *Egun oroetako irakurgeiak (1986)*
- *Ximun Gimon-Zetegiet (1793-1861) (1991)*
- *Aqota pastorala (1993)*
- *Tomas Zumalakarregi. Gudalburua (1993)*

tza), Paulo Agirrebaltzategik gero Eusenor izango zenaren aurre-diseinua egiten du: "Hiztegi tekniko-berezituak lantzeak, bere parte entziklopediko eta terminologiko eta guzti, benetako entziklopedia globala lantzea eskatzen du, hurrengo urrats gisa.

Euskarazko entziklopediak lortuko ditu, teoriaz behintzat, lehen aipatu ditugun arazoak: a) Euskara izatea erreferentzia 'bakarra'; b) euskarazko lexikoa edukinez mamitzea eta finkatzea; c) euskararen lehentasuna baieztatzea.

Uste dudanez, UZEIren berehalako projektua izan beharko luke euskarazko entziklopediarenak, luzarorako projektua noski, aurretik azterketa teoriko eta lexikografiko asko eskatzen duelako, eta lana bera luzea izango litzatekeelako. Baina gure hiztegigintza tekniko-berezituaren berezko helburua horixe dela uste dut.

Dena dela, horrelako helburuak eta projektuaak UZEI bera edo aurrera eramango duen bestelako erakundea indartzea eskatzen du: antolakuntza mailan, ikerketa teorikoen aldetik lan-lagunen mailan eta finantzapen mailan".

Baina zer da Entziklopedia?

Ezaguerak elkarrekin lotuta azaltzen dituzten kontsulta obrak dira Entziklopediak.

"Euskal Entziklopedia Orokorra"ren proiektua urtetan landu duen Paulo Agirrebaltzategik (*Eusenor: Euskal Entziklopedia Orokorra*, 1992) honela adierazten du entziklopedia kontzeptuaren funtsa: "Entziklopedia (eta entziklopedikoa) kontzeptuen funtsean, gizadiak historian zehar eta kultura guztietan metatu dituen jakintzen 'biltegia' (bankua) dago; ezagutzen (historiaren, zientzien, tekniken, arteen, etab.en) ikuspegi orokorra eta unibertsala nabarmentzen du. Entziklopedia orokor-unibertsalaren ametsa jakintzen arbola zabalaren panorama agertzea edo altxor ugariaren bilduma (bildumena) eskaintzea da —horrelako obrak hainbat liburukitako bildumak izan ohi dira, hain zuzen ere".

Hiztegi orokor-unibertsal honen ondoan badira, baita ere, espiritu eta metodologia berdinez, alorkako hiztegiak eta adin-tarte jakin batzuetara zuzenduak. "Gazteen Entziklopedia" da adibide bat.

Euskal kulturarentzat apostu-tankera hartzen du Entziklopediak, eta gaur egun esan dezakegu apostu hori irabaz daitekeela frogatu dugula. Autore berak honela idazten zuen 1992an: "Badirudi garaia heldu dela —*heldu* hitzaren hiru adiera nagusietan— Euskal Herritik, euskal kulturatik eta euskaratik helburu handi horietara begiratzeko eta bidea ireki-

tzeko, jokatu beharreko apostuak jokatuz: uste eta konfiantza sendoz, horiek irabazteko nahikoa indar badela, eta hauek inguratu eta bateratzeko gaitasunik eta borondaterik ere bai. Funts-funtsean Euskal Kulturaren irekitasunaren eta Euskararen modernutasunaren proba igaro beharko du abiaburutik euskal enziklopedia orokor-unibertsalak; horien adierazgarria izango da, helburua lortzean".


LUR Hiztegi Entziklopedikoa, aurrena

Lur argitaletxea da 90eko hamarkadan bere produktua kalean jarri duen lehena. Berau da, Josu Zabaletaren iritzian, euskarazko lehenengo hiztegi entziklopedikoa ere. Honela zehazten du lehentasuna: "Zinez *LUR Hiztegi Entziklopedikoa* ez da euskaraz egin den lehenengo entziklopedia. Lehendik badira beste zenbait ahalegin, azkeneko hogei urteotan burutuak, itzulpen edo moldapen bidez batez ere: *Mundua jakingai, P8*, etab. Lehendabiziko aldia da ordea, hiztegi trataera duela —alfabetoaren arabera hurrenkeraz— lehentasuna testuak duela, eta itzulpen bidez izan gabe, jatorriz euskaraz bideratzen dela. Horregatik LUR Hiztegi Entziklopedikoa euskarazko lehenengo hiztegi entziklopedikoa dela esatea ez da batere gehiegikeria, aurrez izan diren ahaleginak ez baititu inolaz ere aitzindari, taxuz eta erabileraz guztiz bestelakoak zirenez.

Ia arrazoi berberarekin esan daiteke euskaraz mundu-ezaguera orokor batekin, alorkako ezaguera ez den batekin, modu global batez egiten den lehenengo topaketa dela: euskararen esperientzia global bat, horrela esateak balio badu. Era guztietako gaiak, zaharrak, berriak, gure arteko-



Josu Zabaleta, LUR argitaletxearen hiztegigintzarako arduraduna



CILLERO, JAVI (Bilbo, 1961)

- *Eddy Merckxen gurpila (1994)*
- *Norena da Virginia City? (1995)*

ak, arrotzak, batera edo hizkuntz koherentzia bat galdu gabe azaldu behar izan dira".

"LUR Hiztegi Entziklopedikoa"ren lehen liburukia 1991n argitaratu zen eta hamargarrena 1994an. Tomo bakoitzak 400 orrialde ditu eta guztira 110.000 sarrera. Ibon Sarasolaren "Hauta-lanerako euskal hiztegia" du oinarri euskarazko lexikoak.

Kronologikoki bigarrena, Elhuyar-en "Hiztegi Entziklopedikoa" da, tomo bakarrean ateratzen den euskarazko lehen entziklopedia osoa, ia bi mila orrialde mardulekoa.

Bitartean, 1991n, EUSENOR S.A. enpresa sortu zuten Elkar, UZEI, Elhuyar eta Ikastolen Elkartea erakundeek, datu-banku entziklopedikoa euskaraz eratzeko, eta mota eta maila diferentetako entziklopediak nahiz erreferentzi materialak eskaintzeko, euskarri desberdinetan. Hiztegi entziklopedikoa prestatzen ari zen bitartean, "Gazteen Entziklopedia" kaleratu zuen Eusenor-ek 1993an, zortzi liburukitan, zortzirehun bat unitate didaktikoz hornitua. 1995eko abenduan hasi zen kaleratzen, bestalde, "Euskal Hiztegi Entziklopedikoa", faszikulutan, "Euskaldunon Egunkaria"rekin batera. Zortzi liburukiz osatzen den entziklopedia honek 3.400 orrialde ditu eta 100.000 kontzeptutik gora.

1996ko udazkenean *Entzikloklik* atera du Eusenor-ek. Zer den *Entzikloklik*? Multimediako entziklopedia bat, CD-Rom-en aurkeztua, Windows eta Macintosh sistemetan erabil daitekeena.

1993an Lur argitaletxeak erasoa jo zien Eusenor proiektuari eta Elhuyar-en Hiztegi Entziklopedikoari. Auzitan jartzen zuen erakunde publikoen laguntza politika konpetentzia desleialtzat joz, euskararen eredua eta informatikaren egitekoa entziklopedigintzan. Paulo Agirrebaltzategiren (1994) iritzian, "gauza gehiegi nahasi ziren afera hartan, euskaltzainen dokumentutik hasita: Erakunde publikoen subentzio-politika, euskararen eredua, informatikaren zeregina entziklopedigintzan... Hori guzti hori interes komertzial jakinen zerbitzuan ipintzen baduzu, saltsaren lapikoa jarria duzu sutan. Eta gainera politikariak izendatzen badituzu sukaldari, auskalo zer aterako den lapiko horretatik! Izatez politizatu egin zuten EUSENOR proiektu kulturala alderdi politikoek. Lapiko horretatik ez ateratzera, kiskaltzeko arrisku bizia zuen proiektuak. (...)

Harrigarria da, ordea, benetako polemika —eztabaida, elkarrizketa— kulturalik ez zela bideratu eraso hartatik. Jaulkitako —jaurtitako— salaketek agian ez zuten eztabaidarik suspertzeko asmorik ere; bestelako helburuen bat lortu nahi zuten nonbait; eta hori lortu zutenean, eztabaida kulturalak ez zeukan zertan jarraiturik".

EUSENOR: entziklopedigintzarako etxea

EUSENOR ez da obra jakin bat edo liburu-bilduma bat landu eta argitaratzeko egitasmo soila. Entziklopedigintza da bere egitekoa eta ez produktu bat edo beste. 1988an hasi zen Paulo Agirrebaltzategi proiektu hau diseinatzen.

Hiru ardatz izango ditu entziklopedi lan honek:

Lehen ardatza, *ardatz nagusia*, Euskal Entziklopedia Nagusia (EUSENA) da, 24 tomo, 12.000 orrialde, 25.000 ilustrazio eta 80.000000 karaktere izango dituena, eta, presupostuak lagun, datorren mendearen lehen hamarkadan burutuko omen dena.



Jose Ramon Aizpurua,
EUSENOR elkarteko zuzendaria

Bigarren ardatza, *ardatz lagungarria*, euskal entziklopedi lanak eskatzen dituen hizkuntz zerbitzuek osatuko dute, hala nola, lexikografia, terminologia, onomastika, diseinu-programa informatikoak.

Eta hirugarren ardatza, azkenik, *ardatz osagarria*, Entziklopedia Nagusiaren inguruan landuko diren bestelako obra entziklopediko eta erreferentzialek osatuko dute, esaterako, entziklopedia mailakatuak, entziklopedia sektorialak, euskararen hiztegiak, atlasak, sinopsi historikoak, urtekariak.

Datu-banku entziklopedikoan oinarritzen dira hiru ardatzok. Eta datu-banku hau multimedia da, testua, irudia, soinua eta bideoa integratzen dituena. Horri esker, bertako informazioa paperezko euskarritan emango da bai, baina berdin-berdin landuko ditu produktu elektronikoak eta telematikoak. Hiru modu hauetan egongo da presente merkatuan.



DAVANT, JEAN LOUIS
(Urrustoi-Larrabile, 1935)

- *Aberri eta klase burruka euskal mogimenduan (1977)*
- *Makila gorria (1980)*
- *Denboraren aroak (1982)*
- *Nahi gabe (1985)*
- *Abadia Urrustoi. Pastorala (1986)*
- *Iparraren bila (1986)*
- *Itsasoak iraultzan (1986)*
- *Euskaldunak iraultzan pastorala: Gotaine Irabarne: 1993ko uda (1993)*

"Datu-banku entziklopediko handia lantzeak guztiz gainditzen du hiztegi entziklopediko edo entziklopedia jakin baten edo biren helburua, dio Paulo Agirrebaltzategik (1992); azken batez, Herri hau munduko informazio entziklopedikoaren zirkulazio-sare informatizatuan sartzea dago kontuan: ez bakarrik historiako eta munduko Herri eta kultura ezberdinetako informazioa eskura eta euskaraz edukitzea, eta bai Euskal Herriaren informazio entziklopedikoa munduarentzat eskura ipintzea ere. Apostu hori jokatu beharra daukagu, munduko informazio-autopisten sare horretan zirkulazioan ipiniz geure datu-banku entziklopedikoaren autobusa ere".

Andoni Sagarnarentzat, "(EUSENOR) izen honen atzean, inoiz euskal kulturaren munduan planteatu den asmorik handienetako bat dago".

1994ko ekainaren 16an "Klaudio Harluxet Fundazioa" eratu zuten proiektuan sinesten zuten lagun batzuek. Fundazio honen helburua, paperetan deklaratzen denez, datu-base entziklopediko multimedia bat eratzea, mantentzea eta bertako informazioari zabalkundea ematea da, euskal kulturak horrelako tresna bat ezinbestekoa duelakoan.

Giza eta gizarte-zientzietako liburuak

1.881 titulu

Asko edo gutxi den nork esan? Nik dakidana da frankismo-aldian baino 6 bider gehiago dela. Eta historian zehar ere liburu-tipo hau gutxi atera izan dela euskaraz, berrehun bat titulu frankismo bitartean.

Ez da harritzekoa. Tamalgarria izan daiteke, nahi bada, baina harrigarria ez. Ez da harritzekoa ekoizpenaren kopuru historiko urri hori, zerikusi bete-betea baitu liburu-mota honek hizkuntzaren egoera diglosikoarekin, euskararen erabilera sozial jasoarekin, unibertsitatearekin. Eta ikusia dugu jada euskara nola egon den eskolatik kanpo, kultura landuaren zirkuituetatik aparte. Euskal Herrian eta euskal herritarrek landu dute kultura jasoa, baina erdaraz.

Lehendik hona gertatu den jauzi kuantitatibo honek zentzu kualitatibo handia du, hortaz, aipatu dugun norabide horretan, alegia, euskarak esparru berriak irabaztera jo duela, bide berri horretan sartua dela jada, nahiz eta ez agian modu erabakiorrean. Euskara badago orain administrazioan, komunikabideetan, irakaskuntzan, unibertsitatean. Edukiz hornitu da euskara esparruz esparru.


Liburu-mota honek izan duen gorakadaren zentzua ongi azaltzen du Paulo Iztuetak (*Intelligentsia kimatuaren orbelak*, 1996): "Euskal liburuak, oro har, asko irabazi du edukiaren aldetik eta, maila batean, baita hizkuntzarenetik ere. Azken puntu hau areago zehaztuz, jauzi kualitatibotzat dauzkat, produkzio hertsiki literariotik at, landu den kultura akademikoa. Maila horretan argitaratu diren euskarazko gogoeta- edo iker-liburuak, sorkuntzazkoak nahiz itzuliak, pentsaezinak ziren duela urte batzuk. Lehendik ere, euskara kultur zereginetarako gaitua nahi zuen Zaitegi, Orixe eta horrelako batzuek saio ausart batzuk egin zituzten, baina guzti horiek bakarka eginak izan ziren, hizkuntz arazoak, lexikalak bereziki, norberak bere kontura erabakiz. Egun, hizkuntz eredu desberdinak badaudela aipatzen den arren, jadanik lan kolektibo aski garrantzitsua bideraturik dago eta euskara ari da bilatzen bere lekua normalkuntzaren prozesuan.

Gerrateaurreko belaunaldiko euskaltzaleek sinesten ez zuten mirakulua egia bihurtu da: euskara, landuz gero, berdin-berdin erabil daitekeela irakaskuntzako maila guztietan, komunikabide-mota guztietan, iker-lanetan, administrazioan. Nonahi. Egungo euskal idazle espezialistak elebidun izan beharrik ez dauka bere lanean iharduteko. Puntu honetan sekulako jauzia eman dela ohar gaitezen, aski da gogoratzea Barandiaran, Azkue, Lekuona eta Mitxelenak, —guztiok euskaltzain ospetsuak— emankorragoak izan zirela erdaraz euskaraz baino eta, batez ere, beren espezialitateko gaiak erdaraz mamitu eta argitaratu zituztela".

Bada alderik, beraz, lehendik hona.


Baina guztia ez da urrea hemen ere. Sailkapen honen barruan liburu elebidunak pisu handia du. Produkzio guztiaren erdia, praktikan. Liburu elebiduna, jakina da, erakunde publikoen emaitza da gehien-gehiena, eta horregatixe ezaugarri propioak dituena. Ez da euskararen erabilera alor berrietara zabaltzeko egina, ez da egon badagoen publiko jakin baten gose-egarriari erantzuteko planteaturiko ekintza editoriala, eta gaien aldetik ere ez da gehienetan samurra. Guzti honek ez dio bere alderdi ona kentzen, hala ere.

Euskararen erabilera ez-diglosikoari hemen kendu dioguna beste nonbaiten erantsi behar zaio, bestalde. UZEIko testu-hiztegietan, Entziklopedietan, eta batez ere irakaskuntzako testuetan euskarak airoski erakutsi du bere kultur balio praktikoa. Balio sinbolikoa eta praktikoa bereiztu ohi dira soziolinguistikan. Balio sinbolikotik asko beti izan du euskarak. Baina azken aldiotako ekarpena hain zuzen euskararen maila guztietako erabilera da, kultur hizkuntza bezala bere balioa frogatu izana.



DIHARCE, JEAN-MARIE "IRATZEDER" (Donibane Lohizune, 1920)

- *Zakalar (1940)*
- *Jakes (1945)*
- *Ezkila eta tirola (1951)*
- *Maria eta Kurutzea (1951)*
- *Phiztu zaiku (1951)*
- *Aphez (1951)*
- *Ezkongai (1953)*
- *Mortuan oihu (1953)*
- *Pasionea (1954)*
- *Pindar eta Lanho (1920-1941) (1954)*
- *Amen besta (1956)*
- *Harrapallu (1956)*
- *Zeru-menditik (1941-1946) (1959)*
- *Euskal Herria eta Yainkoaren gizaldia (1967)*
- *Argiz argi. 1947-1957 (1969)*
- *Liturgia berriko leloak (1970)*
- *Uhaineri nausi (1958-1971) (1972)*
- *Fededunen arbasoa (1977)*
- *Biziaren olerkia (1983)*
- *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean (1992)*
- *Beloke-ko abatetxearen historia: ehun urte jainkosemen alde (1875-1975) (1993)*



DIRASSAR, JANBATTIT
(Hazparne, 1937)

- Hegiko bordatik (1995)

Produkzioaren zenbait ezaugarri

- Berrargitalpenik gabeko liburugintza da hau. Lehen edizioa % 96,7 da eta berrargitalpena % 3,3. Ikusten denez, merkatuan du arazo larria liburu-mota honek, eta diglosi egoeraren isla da hori bera.

  Berrargitaratu den gutxi horretan, erdiak euskarari buruzkoak eta biografikoak dira, baina apenas ezer filosofian, soziologian, politikan, zuzenbidean eta, harritzekoa dena, etnologian ere ez.

- Nik dauzkadan datuetan % 24 da itzulpena, hau da, ia-ia lautik bat. Gutxi da, den liburu-tipoa izanda. Egiazko itzulpena askoz handiagoa dela esango nuke. Fitxa bibliografikoak aitortzen ez badu ere, jakin badakigu erakundeetako liburu elebidun asko eta asko erdaraz pentsatu eta idatzi direla eta euskaraz jarri gero. Liburuak berak ez du hori aitortzen, ordea, eta nik ezin jaso. Horregatik diot, errealki itzulitako liburuaren pisua dezente handiagoa litzatekeela, jatorri hori kontuan izanda, baina ezin dugu zehaztu zenbatekoa den.

- Liburu-mota honen ekoizpenak jatorri anitza du: enpresa argitaratzaileak noski, baina, neurri handi batean erakunde politiko-administratiboak, eta gero hezkuntza-erakundeak, finantzia-etxeak, eta modu berezi batez aipatu nahi nituzkeen elkarte eta taldeak.

- Jakintza-alor honetan gaia tratatzeko moduak ugari dira: estatistikoak, objektiboak, subjektiboak, gogoeta-mailakoak, ikerlanak, azterketak, dibulgaziozkoak, bestcak beste. Saiakera gehienak ere eremu honetakoak dira. Bakoitza gaiaren aldetik dagokion sailean kokatu dut nik, saiakerari saiakera gisa sailkapen berezi bat eman gabe.

Gai-mota ugari

Azpimultzoak	Nobedadeak	%
Historia	398	21,1
Hizkuntzalaritza	289	15,3
Soziologia	252	13,4
Geografia	161	8,5
Politika	157	8,3
Zuzenbidea	135	7,1
Etnografia	102	5,4
Arte ederrak	99	5,2
Filosofia	74	3,9
Gainerakoak	214	11,4

Sailkapen honetan metatu ditugun jakintza-alor hauek Unibertsitateko zientzi eremu gehienak besarkatzen dituzte. Horren argitan behintzat, produkzioa ez da Unibertsitate euskaldun batetik espero genezakeenaren tamainakoa. Gaitz erdi, hala ere, liburu guzti horiek unibertsitatemailakoak balira.

Arestian aipatutakora itzuli behar dugu atzera. Liburu hauetako asko erakundeek kaleratuak dira, eta izan informaziozkoak dira, erabaki administratiboak, lege autonomikoak, era guztietako estatistikak, etab.

Ohar orokor honen ondoren liburu-tipo bakoitzari begirada arin bat emango diogu.

- Historiako liburua landu da gehien, bi eremutan batez ere: historia biografikoak, batetik; biografiak, autobiografiak edo oroitzapenak izan daitezke. Eta bestetik, Euskal Herriaren historiak, osoak zein eskualde batekoak edo garai batekoak.
- Hizkuntzaren ardatzean kokatzen ditugu hizkuntz ikerketak, euskararen normalizazio linguistikoa, glotodidaktika, eta hor dira liburu gehienak. Baina baita ere, soziolinguistika, hizkuntzaren normalizazio soziala, euskararen historia soziala, eta hor ere liburu dezente da. Linguistika eta filologia orokorrago hartuta ere bada libururik.
- Soziologia dator hirugarren lekuan, eta harrigarri da. Baina itxura batean bakarrik. Kontu eginda estatistika eta demografia ere sail berean sartzen direla, esplikatua dago dena. Eustat edo Eusko Jaurlaritzako Estatistika-Erakundearen lana da hemen nagusi.
- Zientzia politikoak deitzen den sailari ere berdin gertatzen zaio: ekoizle bera dute ekonomia politiko eta sozialaz, nahiz nazio eta lurraldeaz, nahiz barne-politikaz eta alderdi politikoez ari diren liburu gehienek.
- Zuzenbidearen sailean azpi-sail bakarrean pilatzen dira liburu gehien-gehienak, zuzenbide publiko-konstituzional-politiko-administratiboari dagokionean. Eta horien jatorria ere, egile eta editore gisa, erakunde politiko-administratiboetan dago maizenik.
- Liburu etnografikoan aginte publikoak interbentzio gutxi du, ikusten denez. Ohitura, tradizio eta folkloreari buruzko gaiak nagusitzen dira hemen. Ehun liburu soilki (eta kasu, elebidunak barne) gai hauetaz idatzi izanak bestela ere badakiguna azaltzen digu, hots, liburu etnografikoak erdaraz duela merkatua.
- "Arte ederrak" saila ez da osoki giza eta gizarte-zientzietan kokatzekoa. "Aisia-liburuetan" estudiatu ohi dira azpi-sail batzuk, adibidez, argazkia, zinema, musika, telebista. Kontsideratzen ari garen gaian sartu ohi direnak ere aski ezberdinak dira beren artean: artearen filo-



EGAÑA, ANDONI (Zarautz, 1961)

- *Sokratesen Mendekua (1988)*
- *Sokratikoek ere badute ama (1989)*
- *Aitaren batean (1990)*

MUNDUAZ PENTSATU MUNDUA PENTSATZEKO

Anjel Lertxundi

Aitor dezadan, ez dut inor okerreko bidetik eraman nahi eta, lan honen erraietan dagoen etsipenaren arrazoia: oraintsu hamabost urte, Euskal Unibertsitatea ibiltzen hasi eta Euskal Herriko Institutuetako euskal adarrek arantzez beteriko sasi batena baino esperantza gehiago eskaintzen zigutenean, saiakera indartu eta garatu egingo zela uste izan nuen. Saiakera literarioaz ari naiz, jakina: ez literatura gaitzat hartzen duen lan akademikoaz (gazi-gozorik gabeko zenbat ahalegin, hizkera literarioaren sostengu faltaren- gatik!), gai jakin baten inguruan *literatura* egiten duen saiakeraz baino.

Saiakera literarioaz ulertzen dudana argitu beharko nuke lehendabizi. Hiztegira jo, eta literatur eremua markatzen duen parentesi arteko (*lit*) baten ondoren, saiakera "prosazko idazlana, egileak gai jakin bati buruzko hainbat gogoeta biltzen dituena" dela irakurtzen da bertan. Ez dirudi gauza handirik esaten duenik, baina bada definizio horretan garrantzi beteko hitz bat: *gogoeta.* Ez du *ikerketa,* edo *dibulgazioa,* edo *sintesia* esaten, *gogoeta* baino.

Lan akademikoetan ohikoa den datu-bilketaren ondorengo iruzkina baino harantzago doa gogoeta: datuak elkarren artean josi, haien arteko loturak konstatatu, hutsuneak nabarmendu, eta bataren zein bestearen arrazoiak ausartu behar ditu gogoetagileak. Braque pintoreak esaten zuela uste dut: gizakia lasaitzea du zientziak helburu; gizartea larritzea, ordea, arteak.

Autorearen inplikazio ausarta eskatzen du, bada gogoetak, eta horra hor generoaren lehendabiziko ezaugarria, autorearen parte hartze erabatekoa (beste edozein genero literarioetan bezalaxe) egilea-testua-irakurlea triangeluan. Bi Mitxelenak, Salbatore eta Koldo, esku artean zeuzkaten datu aseptiko usteak baino harantzago ausarturik, inplikatu egiten ziren beren testuetan, eta irakurleok ahots pertsonal horien oihartzuna eskertzen dugu bataren *Pro domo Unamuno eta abedats* zein bestearen irakurtzen hasi orduko. Euskal irakurlegoak inplikazio eskertu dio, besteak beste, Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* saiakerari ere.

Aski al da, ordea, inplikazioa saiakera literario bat osatzeko?

Begibistakoa da ezetz. Zapata oinaren neurriko, saiakerak ere bere hizkera behar du, ez hankaren edergarri soil, hobeto ibil gaitezen baino. Hizkera literarioak *gehitu* egiten du hausnarketa, gogoetak hizkerari esker hartzen du maila literarioa.

Ilargiaren antza du errealitateak: ez dugu sekula osoro ikusten.


Ikusten den ilargiaz gainera, ikusten ez den, baina ilargia ere baden hori ezagutzen saiatu nahi luke literaturak, horretarako bere-bereak dituen trepetak baliatuz: iruditeria, ironia, tonu orokorra, erabilitako hitzen zama denotatzailea (euskal literatura jarraitzen duenak bai baitaki ez dela gauza bera *pro domo* eta *etxe barnerako* ari-

tzea), idarokizuna... Munduaz (gizakiaz, kulturaz...) pentsatzea baino, mundua (gizakia, kultura...) pentsatzea du helburu literaturak.

Klaserako apunte ohikoek, *vademecum*-ek, dibulgazio-lanek edo tesia doktoralek, bakoitzari berea aitorturik ere, ez dute saiakera literario baten lustrerik. Horiek guztiek beren berezko dinamika dute, eta ez natzaie saiakera literarioa eraikitzeko eskatzen ari. Milan Kunderaren hitzak neure eginez, "izaeraren konkista" zabaltzen duten obrak dira literarioak, eta ez ordu arte esandakoa birresan, onetsi, ilustratu edo baiesten dutenak. Beste bat da, beraz, goiko lan akademiko horien egitekoa, eta ez naiz lan horien premia ukatzen ari, horien egitate literarioa baizik.

Ekar dezadan hona, ilustragarria gerta dakigulakoan, teorian behintzat berebiziko interesa duten hainbat tesi doktoralen kasua:

bizitza akademikoko eskailera mailak igotzeko *conditio sine qua non* bihurtu- rik tamala da unibertsitateko arduradunek eta tesiegileek berek garrantzirik ez ematea tesiaren ondoren egin behar litzatekeen lanari (aztertutakoa laburtu eta edertu, estilizatu eta literarioki landu, lehen akademikoki landu zena). Salbuespenak daude, jakina, eta salbuespen horien guztienganako begirunea erakutsi nahi nuke Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa,* Lurdes Otaegiren *Lizardiren poetika,* Iñaki Aldekoaren *Zirkuluaren hutsmina.* Hiru saiakerok elkarren artean desberdintasun nabarmenak izaki ere, saiakeraren eremua ongi markatzen dutelakoan nago.



Denok dakigu eragozpen ekonomiko handiak daudela, gure unibertsitate gazteak bizi duen endemia burokratiko zaharraz gainera, tesia doktoralak argitaratzeko orduan (euskara baino plaza zabalagoaren bila joandako batek baino gehiagok egin du porrot), eta maiz ez dakit zergatik argi- taratu beharko liratekeen ere, ohikoa duten datu-bilketa exhaustiboak ez baitu irakurle normal batentzat interesik. Argitaratzen diren akok berriz, *kolegen* arteko *ego* a puztu eta curriculuma lustratzeko kaleratu (?) direla dirudite. Oso eragin sozial urrikoak, zirkuito itxi eta iniziatiko bati zuzenduak daude unibertsital klase berria eraiki zenetik; zirkuitu pribilejiatu horren bidezidor estu eta laburra egin eta gero, sotoetako ilunbean hartzen dute atseden zabaldu gabe (*zabaldu* hitzaren bi zentzuetan sarri) gelditutako aleek.

Egileen ahalegin pribatuek argitaletxe pribatuen abaroa lortu dutenean kaleratu dira emaitza interesgarrienak. Errealitateari buruzko ikuspegi miopeak (ikusten den ilargia *ilargi osoa* dela uste izateak) bizitza akademikoa hondaturik ote daukan nago ni, eta departamenduko atearen mugak markatzen duelakoan irakasle unibertsitari askoren *goi-arnasa.*

Oker ari nintzen, bada, oraintsu hamabost urte unibertsitatearenganako itxaropenari bazka emanez: ez nintzen ohartzen *munduaz* pentsatzearen ofizioa *mundua* pentsatzearen afizioaren aurkako ziztada bihur daitekeela.

sofia eta kritika, eskultura, margogintza alde batetik, artisautza eta zeramika bestetik, eta baita ere arkitektura, hirigintza, eta beste. Erakunde publiko eta pribatuek badute hemen ere eskurik.

- Filosofian gauza batek sortzen du arreta eta kezka aldi berean. Argitaratu den guztiaren justu erdia itzulitako liburua da. "Pentsamenduaren klasikoak" saileko gehienak sail honetantxe kokatzen baitira.
- Azken mailan jarri dugun saski-naski horretan sartu ditut liburu-klase desberdinak, hala nola, kazetaritzazkoak, omenaldiak, entziklopediak, bibliografiazkoak, emakumearen problematikaz ari direnak. Egile eta argitaratzaile instituzionalek badute hemen ere parte.


Bat izatekotan hauxe da liburu antidiglosikoa, giza eta gizarte-zientzietakoa. Berdin dio nola izendatu, pentsamendu-liburua, liburu akademikoa, zientzi liburua.

Kuestioa da hemen sartzen dela gogoeta, pentsamendua, ikerlana, azterketa, eta hainbat eta hainbat eremutan (luberriak euskararentzat) zabaltzen, lantzen eta gaitzen dela euskara.

Kuestioa da, baita ere, oraindik orain Unibertsitateak ez duela euskara-kontutan tamainarik eman. Gai hauen ekoizle naturala unibertsitatea da izan, baina...

Eta hirugarren kuestioa litzateke liburu-mota honek zailtasun handiak dituela produkziotik kontsumorako katearen maila guztietan: ekoizpen intelektualean (Unibertsitateen jarrera), ekoizpen materialean (argitaratzaileen jarrera), liburuaren promozioan (iritzi-egileen jarrera), eta harrera-unean, noski.

Traba guzti horiek bizi dituen intelektual-andana bat urduri dago une honetan, gurpil zoro hori nonbaitetik hautsi nahian.



EGIGUREN, RAFAEL (Hernani, 1948)

- *Txipiroiren bat edo beste (1981)*
- *Mugarrien garraioan (1986)*
- *Ilargia putzuan ageri (1990)*

Zientzia *versus* literatura?

Liburugintzaren azterketa kualitatiboetan liburu akademikoaren eta literatur liburuaren arteko liskarrak sarri antzeman daitezke. Agerian planteatzen dira inoiz edo behin, eta izkutuan daude egon gehienetan. Zein da bataren eta bestearen egitekoa? Zein da bakoitzaren statusa, gizarte-onarpena? Zeinek du munta gehiago hizkuntzaren normalizazio eta garapenean, edota herri baten bizitzan?

Pittin bat sakonduz gero, iritzi kontrajarriak azaltzen dira gai honetan. Posizionamendu hauek gure artean izan duten esplizitazio-pare bat azaldu nahi nuke hemen, adibide gisa. Modu ezberdinetan formulaturik beste azalpen eta jarrera asko dago, baina zertan denak aipatu?


Idazleen kolektiboan une batean edo bestean indartzen diren iritzi hauek, nire ustetan, zerikusi gehiago dute erabilera sozialarekin produkzioarekin baino. Produkzioaren kopurua honenbestekoa edo horrenbestekoa izan gauza bat da, eta beste bat, hain zuzen auzia sortzen duena, liburu-mota horren gizarte-arrakasta.

Jesus Mari Lasagabaster-en iritzia 1978an kokatzen da, gure epealdiaren hasieran. Literatur liburuaren errebindikazioa egiten du, sutsuki egin ere, berak ikusten zuen egoera etsigarriaren aurrean. Hitz "trantsitiboaren" puztualdia salatzen du, literaturaren kaltetan doala eta. Bi liburumota hauen artean sekulako desnibela dago. Paulo Iztuetaren iritzia oraintsu formulatua da, 1996koa, eta honek ez du su gutxiagoz literaturaren inflazioa salatzen. Pentsamendu-liburuaren kaltetan, kritikak eta intelektualgo jakin batek literatura besterik ez omen du aupatzen gaur egun.

Zer da nagusi bi iritzi hauetan: une historikoa ala ikuspegia? Bietatik dago seguruenik, baina batez ere bigarrenetik. Balorazio-patroia da desberdina, noski, baina une historikoa ere kontuan eduki behar da.

Gogoratzea komeni da 1978 inguru hartan literatura errebindikazioaldian zegoela, bere burua garaiko urgentzia politiko, pedagogiko eta linguistiko guztien biktimatzat ikusten zuelako, lehentasunak beste alor batzuetan jarrita omen zeudelako. Literaturaren lehentasuna eta autonomia aldarrikatuz hasten da epealdi hau hain justu.

Oso bestelakoa da gaurko egoera: sekulako prestigioa du literaturak, eta berak du presentziarik handiena euskal kulturgintzaren plazan. Orain baztertuak sentitzen direnak beste batzuk bide dira, saioa, ikerlana, pentsamendu-liburua, etab. Ikuspegi literarioaren monopolioa edo gehiegikeria salatzen dute batzuek gaur. Hona haserrearen adibidetzat, Joxemartin Apalategik esan omen zuena Asteasun, Juan Bautista Agirreri buruzko liburuaren aurkezpenean (1996): "Agirre ikerlari bezala errebindikatu nahi dut. Bere lanik sendoena 'Eracusaldiac' alegia, literatur lan bezala aztertu da, ikerlan bat besterik ez denean, zeren eta azken finean pastoralgintza eta teologi lan bat baita berea. Gure herri honetan dena literaturtasunaren ikuspegitik aztertu nahi da eta bada ordua ikuspegi horrekin bukatzeko. (...) Euskal pentsamendua da landu behar dena, eta hori ez da literaturatik bakarrik egiten. Euskal literaturakeriapean jarraituko dugu hori kontuan hartzen ez dugun bitartean".




EGUZKITZA, ANDOLIN
(Santurtzi, 1953)

- *Lehen orenean (1979)*
- *Orhiko mendirantz urratsez urrats (1986)*
- *Urkidian zehar (1987)*
- *Mila urte igaro eta, ura bere bidean (1993)*

Poeta intelektualaren aurretik

Hitz trantsitiboa eta intrantsitiboa oposatzen ditu Jesus Mari Lasagabaster-ek. R. Barthes-en hizkeraz baliatuz, bi termino hauen bidez adie-



EIZMENDI, IÑAKI "BASARRI"
(Errezil, 1913)

- *Atano III. Bere edestia bertsotan (1949)*
- *Basarri'ren bertso sorta (1950)*
- *Kantari nator (1960)*
- *Laugarren Txinpartak (1966)*
- *Sortu zaizkidanak (1973)*
- *Kezka-qiroan (1983)*
- *Bertsolaritzari buruz (1984)*
- *Nere bordatxotik (1992)*

razi nahi du Jesus Mari Lasagabaster-ek literaturak (intrantsitiboa) jakintzagaietako liburuarekiko (trantsitiboa) duen morrontza: "La última Feria del Libro Vasco en Donostia ha sido, a mi entender, un dato significativo y desalentador. El alarmante desnivel entre el libro específicamente literario prácticamente inexistente en euskara, y el libro científico, histórico, documental; entre la escritura del 'intelectual' —historiador, cronista, político...— y la del poeta, entre una palabra 'transitiva', ordenada directa e inmediatamente a decir la realidad, e intentar transformarla, y una palabra 'intransitiva', autónoma, sin referente inmediato en lo real, como es la palabra literaria, pero no por ello 'intranscendente'. (...)

Parece como si la palabra cuya operatividad sobre lo real, cuya rentabilidad social o política no es inmediatamente verificable fuera un pasatiempo que a los vascos, abocados con dramática urgencia a retos históricos decisivos para nuestra propia identidad colectiva, no nos estuviera permitido, como si los poetas —los literatos— fueran a trivializar un espacio que sólo pudiera ser seria y eficazmente ocupado por los historiadores, los cronistas de la actualidad, los sociólogos, los políticos.

Creo sinceramente que los literatos —prosistas o poetas, lo mismo da— apenas tienen hoy espacio en nuestras expectativas socio culturales colectivas. Y ello me parece no sólo lamentable, sino también peligroso. El arte, la literatura en este caso, es el hogar del sentido que hace habitable la existencia colectiva, con su memoria y sus utopías, su historia y sus mitos, sus creencias y experiencias.

En esta inflación de la palabra 'transitiva' —sospechosamente transitiva, tantas veces razones de simple ecología cultural hacen necesaria la palabra del literato; para recuperar el sentido de tantas cosas, para no perder de vista la complejidad y profundidad de lo real; para seguir respirando, sencillamente".


"Literaturakeria"

Gaur egun editorialgintzan, eta are gizarte-bizitzan, pentsamendu-liburuak jasaten duen marjinazioak kezkatzen du Paulo Iztueta (1996): "Xedetzat pentsamendua edozein gaitan lantzea duten iker-lanak, saiakerak eta antzeko liburuak argitaratzeko zailtasunak benetan handiak dira eta askotan, interesgarriak izan arren, ilunpetan segitzen dute edota, argitaratzen badira ere, ez dute inolako gizarte-oihartzunik kritikak erabat ahazten dituelako. Areago: errentagarri ez direnez ez dira argitaratzen".

Literatur kritikak pentsamenduzko liburuei ematen dien tratamendua (tratamendu-eza, alegia) beste puntu batean atzera aipatzen du. Kexu da jakintza-alorreko idazlea ez delako idazle kontsideratzen, kritikak literaturgilea bakarrik hartzen duelako idazletzat: "Hori horrela bada, literatur kritikaren aldetik jokabide murritz bezain kiskila izango litzateke euskararen ederra soilki literatur adierazpenera mugatzea, egungo kritika ofizialean gertatuz datorren bezala. Literaturgileak bakarrik dira hizkuntza ederra egiten dutenak eta horien lanak aztertu eta juzkatzen ditu kritikak. Euskaraz sortzen den beste guztiak, gehienak, aipamen soil bat besterik ez du jasotzen euskal prentsan. Gutxienak dira, banaka batzuk, kritika arretatsu baten saria irabazten dutenak aldizkari espezializatuetan eta gehienetan, egia esateko, adiskideren bat konpromezuan sartuz. Baina orduan ere aipamena ia beti gaiaren aldetik doa eta ez hizkuntzarenetik.

Euskal kritika, den pittin horretan ere, dikotomiarik absurduenean jautsia dago: alde batean, filologoak eta literarioak daude —hauek ere bakoitza bere aldetik—, soilki hizkuntzaz arduratzen direnak, ofiziokoak; beste aldean, berriz, hizkuntzarekin zuzenean zerikusirik ez duten sailetakoak aurkitzen dira. Eta bitartean ahazten da hizkuntza baten ederra finkatzen duena erabilera bera dela eta ez produkzio-mota jakin batek xedetzat sorkuntza hertsiki literarioa edota, alderantziz, hertsiki akademikoa izatea. Modu desberdinean bada ere, zalantzarik gabe, bietan ematen da sorkuntza, bietan lantzen da hizkuntza. Diferentzia da, ikerlan edo saiakera batean hari diskurtsiboak zehaztasuna eskatzen duela eta literatur pieza batean, aldiz, adierazpen-askatasunari ezin zaiola mugarik jarri. Bestalde, ez da ebidentzia bat, ez berez bederen eta gutxiago praktikan, literatur sortzaile ona izateak aurresuposatzen duenik erabilera akademikoan ere maila berekoak izatea. Horrelako adibideak mordoka daude euskal kulturan. Axularrek teologia hutsa egin zuen, ez literatura, baina idazle bikaina da. Orixe literaturan eta prosa ez-literarioan aritu zen, eta bietan dabil oso goitik haren luma. Lauaxeta esteta puntakoa genuen, baina alde ederra dago haren poesiak gaztelaniaz ala euskaraz irakurri. Txillardegiren euskara aberatsa da nobelak idaztean, ez pobreagoa edozein saiakeratan. Egun asko dira literaturara emanak, baina ez dakigu nola idazten duten hortik kanpora. Kontrapuntuak metatzen hasiz gero, kontuz zerupea jotzearekin".

Paulo Iztuetaren kezkaren hariaren mutur batean idazle ez-literarioaren (eta beraz, pentsamenduaren) bazterkeria dago eta kontrako muturrean literatoaren eta literaturaren gehiegizko lehentasuna. Literaturak gaizki ulertzen omen du bere burua eta gaizki planteatzen bere egitekoa. Sustrai sakonak ditu, hori bai, literaturaren apologiak: "Gerrate aurrean nahikoa zabaldurik zegoen iritzia genuen, Euskaltzaleak-eko Aitzol eta



ELEXPURU, JUAN MARTIN (Bergara, 1950)

- *Fernando Plaentxiarra (1984)*
- *Lasai, Juan Antonio, lasai (1988)*
- *Pitxirrio zirkus (1988)*
- *Txakur zaunkak atean (1989)*
- *Marea biziak zozomikotetan (1991)*
- *Alpeen itzalpean (1993)*
- *Kuba triste dago (1994)*



ELIAS ODRIOZOLA, IMANOL (Azpeitia, 1936)

- *Gipuzkoako baserria kondairan zear (1983)*
- *Bi ahoko ezpata. Hiru ekitaldiko drama (1985)*
- *Urkiola (1986)*
- *Amuko zubia (1989)*
- *Bat, bi, hiru (ekitaldi bakarreko antzerkia) (1993)*

Lizardi sustatzaileen artean batipat, literaturgintzak, zehazki poesigintzak, lehentasunezko zeregina zuela nazio-proiektu baten garapenean. (...)

Orduko porrotari aski ez iritzirik nonbait, badira oraindik literaturak herri-askapenean egin ditzakeen mirarietan zinez sinesten dutenak edota, aitortugabeko aukera ideologiko jakin baten ondorioz, sinesten dutela diotenak. Baina, jaunak, ez Frederi Mistral-en *Mireio* poemak askatu du Okzitania Frantziaren menpekotasunetik, ez harrezkero indartu da okzitaniera; bestalde, gauza jakinegia ere bada, Finlandiak bere nazioaskatasuna ez zuela lortu Lonrot-ek *Kalevala* poema ospetua idatzi zuelako, I. Mundu-Gerrak koiuntura ezin hobeagoa ekarri ziolako baizik. Literaturgintzari aitortzen zaizkion izangaitasun ahaltsu horiek, izan, Aitzolen ametsak ziren. Ederrak, hori bai, baina oso aingeruak.

Eta badirudi egun beste horrenbeste gertatzen dela. Atxagak euskara internazionalizatu du, historian sekula ez bezala da ohore gorenetan euskal literatura, baina Euskal Herriak bere burugaintasunik ez du ez Europako Elkartean ezta Frantzia eta Espainietan ere. Euskal literatura lorietan dago, baina beldur naiz, globo hanpatuaren antzera, ez ote dagoen puztuaren puztuz, barrutik hutsanago eta gabetuago. Herri-arnasarik gabe, itoa, nonbaiteko pentsamendu hutsalaren mirabe triste.

Mesias uste izandako literaturak huts egin digu. Zer geratzen zaigu orain? Ez da oraingoa, aspaldiko aldarrikapena baizik, nahiz azken epealdi honetan autoritate akademikoz formulatua datorren, literaturak ai torpen autonomia behar duela eta bere errealizazioan ez daukala zergatik egon mezu baten esaneko edota ideologiaren bati atxikia. Beraz, literaturgintza justifikatu, literaturak berak justifikatzen du, ez beste ezein gizarte-konpromezuk. Areago oraindik: ezein konnotazio ideologikorik gabe, bere baitatik ari den testuak ederresten du literatura".

Zientzia eta teknikazko liburuak

Historian zehar zientzi liburuak ez du presentzia handirik izan euskal kulturan. Gaur ere ez du izugarririk baina frankismo garaitik hona 8,6 bider igo da. Igoera azkarra da, nahiz eta guztira 500 bat liburu izan.

Liburu-mota honen aurkezpenean, giza eta gizarte-zientziazkoari buruz egindako iruzkin gehientxoenak errepikatu beharko genituzke. Alegia, zergatik ez den historikoki gehiago garatu eta, batez ere, euskarak zientzia eta teknikaren alorrak irabazi izanak zer miinta duen normalkuntzarako. Ordurarte eremu berriak zirenak gaur ez dute sekreturik euskararentzat. Egiazki eta sinbolikoki urrats garrantzizkotzat eman behar da.

Gogoan ditugu oraindik epealdi honen hasiera-hasierako argazki batzuk. Jose Ramon Etxebarria, EHUko irakaslea, arbelean fisika nuklearra euskaraz irakasten ageri zen argazki haietan. Argazki hauen bidez grafikoki Estatuko lehen ministroa zen Adolfo Suarezi erantzun nahi zitzaion. Honek fisika nuklearra, adibidez, ezina zela euskaraz ematea esan baitzuen, euskararen ustezko mugak begi-bistan jarri nahian. Eta bitartean, Fisikako Departamentua-eta, UZEI, UEU, Elhuyar eta beste hainbat bazihardutenzientzigaiak euskaraz lantzen. Are gehiago: oker ez banago, zientziazko liburu-mota hau izan da goiztiarrena euskara esparru berrietara zabaltzeko unean.

Arestian egin dugun bezala, ohartu behar da, hemen kontabilizatu gabeko liburu asko dagoela zientziaren alor honetan; irakaskuntzaren eremuan hain zuzen ere. Hauetako eta haietako gehienek UEU, Elhuyar eta UZEI dauzkate ekoizpenaren iturburuan.

Lehen edizioan agortzen da liburu honen indarra. Hori da bere ahulezia. Berrargitalpena % 2,4 da, ezdeusa. Irakaskuntzako zirkuitutik at biziraupen laburra duen liburua da, eta egia esan nekez izan daiteke bestela beharbada.

Bestalde, produkzioaren zati aski handia da itzulitako liburuari dagokiona. Hirutik bat itzuli egiten da (% 34,3 zehazki). Bi liburu-tipok eragiten dute itzulpena, administrazioarenak eta liburu dotoreak.

Azpisailen zerrendaren bidez erakutsi nahi dugu orain bakoitzaren tamaina zein den:

Azpimultzoak	Nobedadeak	%
Natur zientziak	217	41,3
Nekazaritza	122	23,2
Medikuntza	75	14,3
Injinerutza	51	9,7
Matematika	19	3,6
Antolakuntza	9	1,7
Gainerakoak	32	6,1
Guztira	525	

- Natur zientzietan kontzentratzen da neurri on batean liburu-tipo hau eta horren baitan alorrik landuenak biologia, zoologia eta botanika dira, fisika eta kimikaren gainetik. Alor honetako liburuan harrigarri altua da itzulpena: % 44,2.



ELORRIAGA, YOLANDA (Bilbo, 1963)

- Andra egin zara (1989)


UEU

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) lehenengo edizioa 1973. urteko abuztuan egin zen Donibane Lohizunen. Aurreko urteetan Baionan antolatutako Kultur Asteetan izan zuen jatorria lehenengo UEUk eta Karlos Santamaria izan zuen bultzatzaile nagusi; talde sortzailean ziren baita ere Manex Goihenetxe, Piarres Xarritton eta Jean Haritschelhar. Goihenetxe izan zen, hain zuzen, UEUren lehenengo idazkaria.

Bi urtez egin zen Donibane Lohizunen, eta hurrengo bi edizioak Uztaritzen antolatu ziren. Uztaritzeko bigarren urtean, 1976ko edizioan, plazaratutako manifestuan aldarrikatu zen UEU «urte osorako sortuko dugun herri-unibertsitatearen hasiera» zela.

1977. urtean Hegoaldean egin ziren lehenengo aldiz ikastaroak, geroztik UEUren jardunaldi nagusien egoitza izango den hirian, Iruñean. Edizio honetako manifestuan, «Euskal Unibertsitateak nazionala, herritarra eta euskalduna» behar zuela aldarrikatu zen, eta euskal unibertsitate-barrutia osatzea eskatu. Urte hartatik 1984a bitartean Hegoaldean baino ez ziren antolatu UEUren ikastaroak, baina 1985tik aurrera Baionan ere egin dira urtero.

UEUk zortzi sail izan zituen 1973. urteko lehen edizioan eta 80 bat lagunek hartun zuten parte. Handik 23 urtera, 1996ko uztailean, zazpirehun bat lagunek hartu zuten parte Iruñeko ikastaroetako 29 sailetan.



Baionako eta Iruñeko ekitaldiez gain, dibulgazio-mailako beste hainbat hitzaldi eta mahainguru ere antolatu ohi ditu UEUk urtean zehar.

Argitaratzaile ere bada UEU. Unibertsitate-gaiei buruzko 192 liburu ditu argitaratuak (1996ko irailera arte), eta *Uztaro* aldizkaria plazaratzen du, urtean hiru zenbaki, 1990. urtetik.

UEUk sei arduradun nagusi izan ditu: Manex Goihenetxe (1973-1976), Martin Orbe (1976-1983), Baleren Bakaikoa (1983-1987), Inaki Irazabalbeitia (1987-1991), Kepa Altonaga (1991-1996) eta Mikel Aizpuru (1996tik aurrera).

Elhuyar

Euskara zientzia eta teknologiaren eremuan garatzeko, sustatzeko eta erabiltzeko helburuz sortu zen Elhuyar Kultur Elkartea 1972. urtean Donostian. Donostiako Injineritza-Eskolako ikasleen eta ikasketak amaitu berriak zituzten injineruen talde batek sortu zuen elkartea.

Lehenengo lanak termino zientifikoak euskaraz lantzea eta Fisikari buruzko testuliburu bat argitaratzea izan ziren. Pixkanaka elkartearen lan-eremua zabaldu egin zen eta gaur egun euskara komunikazio zientifikorako erabiltzearekin zerikusia duten arlo guztietara hedatua dago.


1974. urteko irailean *Elhuyar* aldizkaria argitaratzen hasi zen, zientzi eta teknologiari buruz osoki euskaraz idatzitako lehen aldizkaria. Hasieran hiruhilabetekaria izan zen eta eskolako oinarrizko materiala sortzeko eta irakasleak trebatzeko helburua zuen. Gerora zientzi dibulgazioko artikuluak argitaratzen hasi zen eta 1986an, *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkari berriaren sorrerarekin, *Elhuyar* seihilabetekaria bilakatu zen eta geroztik euskal zientzilarien ikerketa-lanak baino ez ditu argitaratzen.

Elhuyar Zientzia eta Teknologia dibulgazio-aldizkaria 1986ko urtarrilean sortu zen. Bihilabetekaria zen jaio zenean, baina 1989ko urtarriletik aurrera hilabetekari da.

Euskarazko hezkuntza-materiala ere landu eta argitaratzen du Elhuyar elkarteak. *Munduko leku-izenak* (1991), *Munduko pertsona-izenak* (1992), *Hiztegi Entziklopedikoa* (1993) eta *Euskara-gaztelania / castellano-vasco Hiztegia* (1996) eta *Ezagutu Gipuzkoa* CD-ROMa (1994) argitaratu ditu, besteak beste.

Euskara teknikozko ikastaroak, itzulpen teknikoak, zientzietako mintegiak eta zientziaren dibulgazioarekin zerikusia duten beste zenbait ekintza ere egiten ditu. Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko elkarte izendatu zuen 1984an.

Hiru lehendakari izan ditu Elhuyar elkarteak: Luis Mari Bandres (1972-85), Andoni Sagarna (1985-94) eta Inaki Irazabalbeitia (1994tik aurrera).




Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) sortzeko bidean, 1968. urtean Bilboko Unibertsitate Autonomoa sortzea izan zen lehenengo urratsa. Handik bederatzi urtera, 1977an, ordura arte Valladolideko Unibertsitatearen mende zeuden Arabako eta Gipuzkoako fakultate eta unibertsitate-eskolak eta Bilboko Unibertsitate Autonomoak bat egin eta unibertsitate-barruti bakarra osatu zuten. 1980. urtean gaur egun duen izena hartu zuen EAEko unibertsitateak: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).

Gregorio Monreal izan zen lehenengo errektorea (1981-85) eta honen ondorengoak Arantxa Mendizabal (1985-86), Emilio Barbera (1986-91), Juan Jose Goirena (1991-95) eta Pello Salaburu (1995etik aurrera) izan dira.

EHUk hiru campus ditu: Bizkaiko campusean bost fakultate (Zientziak; Arte Ederrak, Ekonomi eta Enpresa-Zientziak; Gizarte eta Informazio-Zientziak; Medikuntza; Odontologia), sei unibertsitate-eskola (Enpresa-Ikasketak; Eritzaintza; OHOrako Irakaslegoa; Gizarte-Graduatua, Industri Injinerutza Teknikoa; Meatz Injinerutza Teknikoa) eta goi-eskola bat (Industri eta Telekomunikazio-Injineruak) daude; Gipuzkoako campusean bost fakultate (Kimika-Zientziak; Zuzenbidea; Informatika; Filosofia eta Hezkuntza-Zientziak; Psikologia), lau unibertsitate-eskola (Enpresa-Ikasketak; Erizaintza; OHOrako Irakaslegoa; Industri Injinerutza Teknikoa) eta goi-eskola bat (Arkitektura); Arabakoan, berriz, bi fakultate (Farmazia; Filologia eta Geografia-Historia) eta bi unibertsitate-eskola (OHOrako Irakaslegoa, Industri Injinerutza Teknikoa).daude. Errektoretza eta zerbitzu nagusiak Bizkaiko campusean daude, Leioan. Aipatutako fakultate eta unibertsitate-eskolez gain, hainbat ikastegi atxiki ere badira hiru probintziatan banatuta. Guztira, 56.000 ikasle inguru aritu ziren EHUn 1994-95 ikasturtean.

EHU elebiduna da. Estatutuen arabera, ikasleek eskubidea dute ikasketak euskaraz egiteko. Baina praktikan, ikasketa guztiak euskaraz eskaintzetik urruti dago EHU. Euskarazko irakaskuntzan bost eredu daude, ikasgai guztiak euskaraz ematekoak direnetik (A eredua), euskaraz ematekoak lehen ikasmailakoak baino ez direneraino (D eredua). 1994-95 ikasturtean EHUko berrogei titulazioetatik 13 ziren A eredukoak, eta zortzi D eredukoak.



Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea

EHUk bizi izan dituen gatazka ugarien artean irakasleria propioaren aldeko mugimenduaren ingurukoa nabarmendu da urteotan. Espainiako hezkuntza-legeriaren arabera indarrean dagoen funtzionaritza-bidearen ordez lan-kontratuen bidez irakasleria propioa eratzearen aldeko mugimenduari ekin zioten funtzionari ez ziren hainbat irakaslek 1987an. Bide luze eta liskartsua egin du gai honek ordutik —irakasle batzuk kaleratu ere egin zituzten 1992an—, baina gatazkak bizirik dirau 1996an.

1995ean elkarlanerako akordioa sinatu zuen EHUk Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP). Etorkizuneko helburuen artean unibertsitate-barruti bakarra osatzea aipatzen zen izenpetutako agirian.


Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987an sortu zen eta 1989an ekin zion lehenengo ikasturteari. Campus bakarra du, Iruñean, eta hamalau titulazio eskaintzen ditu bertan (Industri Injinerutza, Industri Injinerutza Teknikoa, Telekomunikazio-Injinerutza, Erizaintza, Nekazaritza-Injinerutza, Ekonomia, Enpresa-Ikasketak, Enpresa-Ikasketa Teknikoak, Lan-Harremanak, Gizarte-Lana, Magisteritza, Soziologia, Gizarte-Graduatua eta Zuzenbidea). 14.500 ikasle aritu ziren guztira 1994-95 ikasturtean.

- Nekazaritzaren saila da bigarrena liburu-kopurutan. Ekologiak eta ingurugiroaren babesak bereganatzen du interes handiena. Nekazaritza eta Arrantzu Sailaz gain liburu dezente ekoiztu duena Donostiako Aurrezki Kutxa izan zen Zabalegi nekazari-eskola zela eta.
- Medikuntzan osasun eta higiene publikoaz batez ere jatorri sakabanatuko liburua dago, baina batez ere Osakidetzak eragina.
- Injinerutza eta teknologiako liburu gehienak mekanika eta elektronikan pilatzen dira. Elhuyartarrak dira egile edo itzultzaile nagusi.
- Matematikaren arloan esateko dagoen guztia da sail hau biluztua dagoela, baina egon matematika-liburu ugari dagoela euskaraz, lehen esan bezala, irakaskuntzan.


Katalogo bizitzat har dezakegun liburu-kopurura hurbiltzapen gisa aurkezten dira zifra hauek. 1995eko tituluak ez daude barne.
Liburugintza katalan eta gailegoaren informazio-iturri gisa, ISBN espainiarrak argitara ematen dituen fitxa bibliografikoak erabili dira.
Gaiez gai sailkatuta ematen dira hemen.
Zera adierazi nahi du honek, 1995. urtean jendearen eskura egon daitekeen titulu-kopurua eta liburu-tipoa.
Garbi ikus daiteke, bestalde, kultura bakoitzaren lehentasun bibliografikoak zeintzuk diren.

KATALOGO BIZIA, 1995


Euskara



5.492 titulu




Katalana




34.295 titulu

Gailegoa



5.899 titulu

Iturria: ISBN espainiarra / Euskarazkoa: Joan Mari Torrealdai



ENBEITA, JON (Muxika, 1950)

- *Inguruaren arduraz (1980)*

- Antolakuntzan kontzeptu dezente sartzen da, baina nonbait euskara ez. Hor sartzen dira enpresen eta merkatuaren antolakuntza, lanaren arrazionalpena, liburuaren edizio-inprimaketa eta salmenta, kontaduria eta administrazioa, dokumentazioa, publizitatea. Arazo horietatik at dago ia guztiz euskara.

LITERATURGINTZA GARAIKIDEA

Literaturgintzaren zifrak

Aro honi dagozkion zifra orokorretan ikusi dugu ez dela literatura hazkunderik bizkorrena izan duena frankismotik hona. Hirutan biderkatu da, hala ere. Progresio azkarragoa izan dute beste batzuk, baina esplikatzen erraza da hori, abiapuntuko zifra kontuan edukita. Askoz beheragotik hasi dira igotzen beste liburu-mota guztiak.


Literatur liburua ez da lehena epealdi honetan "usatu" diren gaien araberako mailaketan ere. Hori ere ikusia dugu. Laugarren dator, eta aurretik ditu iraskakuntza, haur eta gazte-literatura eta giza eta gizarte-zientzietakoa. Garai honetan idatzi den guztiaren % 17 suposatzen du literaturak. Nobedadeez ari gara hitz egiten beti.

Hori guzti hori horrela da. Eta tituluan jarri dugun bigarren zatia ere horrelaxe da: literaturazkoak du liburu guztietan arrakasta gehien, prestigio gehien, presentzia periodistiko gehien, berak ematen du hizpide gehien.

Literatur kopuru hori gehiegizkoa den, ala ez den tamainara iristen esateko ez naiz gauza, egia esan. Editoreei galdetu diegu eta hona erantzunak:

Ez lehena, bai arrakastatsuena

Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,7
Gehiegi	11,1
Gutxiegi	44,4
Nahikoa	27,8



ENSUNZA, MARTXEL (Loiu, 1952)

- *Alfabetatze zientifikoa. Zenbakiak, unitateak, adierazpenak, eragiketak, esamoldeak, irakurketa (1983)*

Literaturgintzaren arazo nagusiak, mailaz maila: idazlea, editorea, banaketa/salmenta, sustapena, irakurleria

ALBERDANIA

Sortzailearentzat, kritika profesional eta akademiko eza da arazorik larriena. Liburugintzaren alor editorialean eta komertzialean, berriz, gure merkatuaren neurriari lotutakoak dira kezka nagusiak. Irakurleei dagokienez, liburu gutxi erosten dutela esan genezake, baina ez dugu uste hori irakurlearen arazoa denik.

ELKAR

Idazlearen arazo handia bere estatusa hobetzea da. Estatus soziala, onarpena lortzeko gizarte erdaldun honetan; eta ekonomikoa, literaturari behar adina denbora emateko, lasaitasunez. Kalitatea hobetzen ere lagunduko baitu horrek.

Editoreok gure azpiegitura sendotu behar dugu (etorkizuneko erronkei erantzuteko eta desagertzeko arriskurik ez izateko) baina malgutasuna eta proiektu berrietarako ausardia galdu gabe.

Liburudendak nahiko egoera kaxkarrean daude gure interesen ikuspegitik: liburua gero eta itoago beste material batzuen artean, eta liburuen artean euskarazkoak zokoratuen. Aberastasun kulturala ere badenez, laguntza moduren bat asmatu beharko litzateke liburudendek euskal fondo on bat manten dezaten.

Banaketa, bestalde, aski ona da gaur. Beti hobetu liteke, noski, baina desafioa espazio berriak irabaztea da: kioskoak, erostetxe handiak...

Hemen hutsune handia dago baina estaltzen zaila. Promozioak kostu handi bat du, emaitzek estaltzen ez dutena. Euskarazko produktuentzako publizitate merkeagoa posible ote litzateke komunikabide publikoetan bederen?

Hau da koxkaren koxka. Irakurle gehiago behar genuke, eta maizago irakurriko dutenak. Horrek hobetuko lituzke idazle, editore eta saltzaileen egoerak. Nola lortu ordea? Ez dago formula magikorik, baina horren inguruan gabiltza jira-biraka.

EREIN

Idazlea. Idazteko profesionalki bizi ezina (amateurismoa)

Editorea. Merkatuaren eskala txikiak goitik behera baldintzatzen du argitaletxe garen aldetik gure lana.

Banaketa-salmenta. Banaketa sare anitza eta profesionala dugu Hego Euskal Herrian: Bitarte, Zabaltzen... Kezka bat: hiri nagusietatik aparte, liburudenda-sare ahula, eta

euskal liburuen presentzia eskasa «euskal-liburudenda» «labela» dutenetik aparte. Zer esanik ez kioskoetan eta abar.

Sustapena. Komunikabide idatziarekin, oro har pozik. Baina ETBk kale egiten du bete-betean, badakigu izan dituela hainbat proposamen liburuaren inguruan programak egiteko, eta ez dago erantzunik.

Irakurlegoa. Euskal irakurlegoa elebiduna da, eta kopuru handi bat gainera, askoz ere jantziagoa da literarioki erdaraz (alegia, gaztelaniaz). Eta erdal hizkuntza horietatik, gehienbat gazteleratik eta Iparraldean frantsesetik, datorkion proposamenak askoz ere gehiago eta kasu askotan erakargarriagoak dira berarentzat.

Ibaizabal

Lehenengo arazoa: sustapena.

Bigarrena: irakurleria.

Hirugarrena: banaketa-salmenta.

Laugarrena: editorea.

Bosgarrena: idazlea.

Pamiela

Literatura gizarteko inongo babesgunean bizi ez denez, idazlea ez dago gizartearen arazoetatik eta balore klasikoekiko mespretxutik libre.

Liburua, merkatuko legeen menpe, merkantzia bat gehiagotzat hartzea da editoreen arazo nagusia.


Komertzializazioaren mundua (banatzaileak eta liburudendak) liburuaren monopolioetako interesen menpe dago gero eta gehiago, eta hau horrela da ontzat ematen delako aurreko puntua.

Aurreko puntua logikotzat jotzen duten mafia handi eta txikien multzoa da sustapen- eta kritika-kanalen mundua.

Susa

Heldutasun-egoera baten bidean abiatu delarik euskal literatura, idazle berri eta gazteentzat zailagoa jarri da argitaratzearen kontua (eta lehen liburua kaleratu nahi duenak normalean presa pixka bat izaten du gainera). Aipatu ohi da, kontsumitzen den liburu-kopururako, ia nahikoa idazle heldu jeneratu duela gaurko liburugintzak, eta horregatik argitaletxe gehienak nahiko uzkur agertzen dira autore berrien obrak eskuetara iristen zaizkienean.

Erreleboaren zaila izango da hemendik aurrerako erronketarik bat. Idazle talde eta mugimendu berri eta biziek, aldizkariek... ziur aski eurek sortu beharko dute euren alternatiba propioa, egungo argitaletxeen egiturak ausartagoak eta sendoagoak bihurtzen ez badira behintzat.



EPALTZA, AINGERU (Iruñea, 1960)

- *Sasiak ere begiak baditik (1986)*
- *Garretatik erauzitakoak (1989)*
- *Ur uherrak (1993)*
- *Lur zabaletan (1994)*

Ekoizpena gehitzea proposatuko lukete, hartara, editore gehienek. Beraiek direla interesatuenak, pentsa dezake norbaitek. Baina, erantzuna ongi ulertzeko, jakin beharra dago erantzun hori eman dutenen artean badirela literaturara dedikatzen ez direnak.

Bestelako erantzunak ere egon daitezke idazle nahiz irakurleen artean. Ia seguru nago, bestalde, liburugintza orokorraz egindako galdeketari idazleek emandako erantzunek honerako ere balio dutela. Idazleen hirutik bat zen han liburu gutxiegi argitaratzen dela uste zuena. Han azaldu dituzten arrazoiek honako ere balio dezakete: kalitateari zegozkionak, edo merkatuari edo euskararen premiei zegozkienak.

Nobedadeak eta berrargitaraldiak

Bost liburutik bat pasatxo itzultzen da berriz inprimategira, zehazki % 21,8. Gainerako guztiek lehen edizioarekin bukatzen dute beren bizitza. Nobedade izatea ez dute gainditzen eta, jakina denez, "nobedadetasun" hori gero eta motzagoa da denboraren aldetik. Liburua gero eta azkarrago zahartzen dela esaten ari gara, eta berriak liburu-dendako apaletatik biltegira uxarazten duela zaharra (edo hobe esan, gazterik zahartua). Liburuaren bizialdiaz arituko garenean sakonduko dugu arazo hau.

Literatur berrargitalpenak bi ezaugarri nabarmen ditu: bata, narratibazkoa da berrargitaratu ohi den literatur liburu gehien-gehiena (% 87,9).

Bigarren ezaugarriak hizkuntzaren jatorriarekin du zerikusia. Berrargitaratzen den hori proportzio handi batean (pentsa, % 79,3) euskal jatorrikoa da. Itzulitako liburuaren bostetik bat bakarrik agertzen da bigarren aldiz. Eta hori narratibakoa da esklusiboki.

Jatorrizko liburuaren eta itzulitakoaren arrakasta sozial desberdinaz aritu izan gara lehenago. Gauza bera esaten ari gara bietan: berrargitalpen-kuota handiagoa duela jatorrizkoak genion han eta jatorrizkoa askoz gehiago berrargitaratzen dela diogu hemen. Zergatik gertatzen den hori horrela jakiteko elementu gehiegirik ez dudanez, konstatatu egingo dut. Erantsi dezaket, dena den, irakurlearen desira ikusi behar dela hor eta ez editore-mafiaren auskaloko maltzurkeria.

Arrazoi eman beharko diogu Jesus Mari Lasagabasterri (*De Arranondo a Obaba, pasando por Madrid*, 1990): "Yo tengo la impresión de que las traducciones son resultado generalmente del voluntarismo cultural de editoriales, asociaciones de escritores, etc., y no sé hasta qué punto hay una valoración efectiva de las mismas por parte del público —críticos y lectores".


Jatorrizko liburua eta itzulitakoa

Nobedadeetara mugatzen dugu analisia orain. Errealitatea konstatatzeko asmo hutsez.

Indar hagitz handiago du jatorrizkoak (% 77,3). Ehuneko 22,7 da itzulitako liburua, neurri handi batean narratibari esker. Beste generoetan proportzionalki dezente gutxiago itzultzen da.

Itzulpenaren tamaina hau egokitzat joko nuke, nahiz eta ez jakin egokitasun hori justifikatzen. Hortik gora, hartzailearen jarrerak bere horretan dirauen bitartean behintzat, globoa hutsaren truke puztutzea irudituko litzaidake.

Narratibazko nobedadeetan % 32 itzulitako liburuari dagokiona da. Zera suposatzen du horrek zenbaki absolututan, 271 titulu itzuli direla hemeretzi urte hauetan.



Nobedadeak eta jatorrizko tituluak ia gauza bera dira 1984 arte. Urte honetan hasita itzulpenak maila beretsuari eusten dio orain arte.


Produkzio osoan eragina duena, gora eta behera, jatorrizko liburua da.

Guztira % 77,3 da jatorrizkoa eta % 22,7 da itzulitakoa.

Titulu askoz gutxiago itzuli dira antzerkian, baina proportzio handixeagoan (% 34,4). Olerkia, aldiz, euskal jatorritik bizi da proportzio altuan: % 86,7.

Eboluzio-lerroa

Datu ohargarri bezala, grafikoak begi-bistan jartzen duena bestalde, hona bizpahiru puntu: bat, oro har, urtealdian zehar gorako joera erakutsi du produkzioak; bi, 80ko hamarkadaren erdialdeko igoera nabarmentzen da, aro guztiko altuena bera; hiru, jaitsiera dator hurrengo urteetan, baina ez proportzio berean lehen edizioan eta berrargitaraldietan. Eskaintza editoriala praktikan mantendu egiten da, nobedadeetan galtzen dena berrargitalpenetan konpentsatzen baita. Eta dirudienez, azkenaldian berriz ere gorako bidea hartu du eskaintzak, nahiz eta zaila den ja-




Lehen edizioak literatur produkzioaren ibilbide berdintsua egiten du. Literaturgintzak, kopuru aldetik, gora edo behera egiten duenean, nobedadeei esker egiten du bai gora eta bai behera.

1993. urtean garbi ikusten da gertutatsun horren haustura. Aurreko urtetik hasita berrargitarapenak indar handiagoa hartzen du.

kitea joera hori iraunkorra den ala ez. Tendentzia osoan ikusita baloreotan mantendu egin daitekeela pentsa daiteke.

Bi aldi bereizterik balego, 1984-1985 urteetan jarriko nuke mugarri bat. Nobedadeen kopuruak gora egiten du nabarmenki. Eta hori baino garrantzizkoagoa dena, hemeroteka lekuko, literatur fruitu helduagoak ikusten hasten bide da jendea, eta literaturaren loraldian sinesten. Gainera, ematen du literaturak bere leku propioa aurkitu duela. Krisia gora eta krisia behera genbiltzan guztiok aurreko urteetan. Sistema literarioaren krisiaz mintzo direnak ere apalago daude orain.

80ko hamarkadaren erdialdian abiatzen den gorakada hau ezin da izan inprobisatua. Belaunaldi berrian aurkitu behar zaizkio honi esplikazio-iturriak.



ERZIBENGOA, Joxe (Orereta, 1942)

- *Pedagogia gaur (1973)*
- *Erbikumeak (1982)*
- *Izaro (1982)*
- *Otzaurteko ezkilak (1982)*
- *Pontxe (1982)*
- *Sorgintxuloko pikondoa (1982)*
- *Xabier (1982)*
- *Hiru Erregeen Mahaia (1987)*

Fikziozko literatura

Fikziozko literatura bezala kontsideratzen diren generoak aztertuko ditugu.

Honen parean ez-fikziozkoak daude. Sailkapen honen barruan mota asko bereizten dira. Hauetakoak dira, adibidez, saiakerak, ikerketak, kritika-lanak; biografiak, autobiografiak, memoriak, oroitzapenak; dokumentuak, inkestak, erreportajeak; eta "ohizko" deitu ohi direnak: eskola-liburuak, unibertsitatekoak, didaktikoak, praktikoak.

Bistan da guk ez dugula banaketa bitariko hau aukeratu, eta horregatik batzuek ez-fikziozko literatura bezala izendatzen dutena gai-sailetan banatu eta aztertu dugu bere lekuan.

Historian zehar

Hiru aldi konparatu nahi ditugu, aldi bakoitzaren barruan lehentasunak nola mamitu diren ikusiz, elkarren arteko berdintasunak eta diferentziak seinalatzeko. Portzentaia horiek markatzen dutena da hain justu genero bakoitzaren pisua nobedadeetan zenbaterainokoa den.

Nobedadeak urtealdika

Generoa	1876-35	1936-75	1976-94
Narratiba	16,8	23,8	48,5
Olerkia	18,4	27,9	20,2
Herri-literatura	3,7	18,7	9,7
Antzerkia	48,3	15,2	9,1
Historia. Kritika	-----	-----	4,0
Gainerakoak	12,8	14,4	8,5
Guztira	**321**	**544**	**1.749**

Esan dugunez, epealdi bakoitzean liburu-tipo bakoitzaren konportamendua neurtzeko balio du. Eta bide batez garaiko interes nabarmenak islatzeko. Azpimarragarriena zera da, alegia, aldi bakoitzean lehen postuan genero desberdina datorrela.

"Gainerakoak" kontzeptuaren barruan daude literaturaren historia, kritika eta ikerketak, poligrafiak, "opera omnia", etab.


Pizkunde garaian antzerkiak produkzioaren ia erdia pasa berea du; gainera, narrazioa eta olerkia elkarren parean eta distantzia handira datoz.

Frankismo garaian olerkiak du lehentasuna, baina narrazioak nahikoa hurbil segitzen dio; batez beste aski orekatuak daude generoak oro.

Eta, azkenik, gure garai honetan narratibarena da nagusigoa, eta zein neurritan gainera! Narratibaren erdia baino gutxiagorekin dator olerkia, eta zertan aipatu besteak? Urtero-urtero begiratu bat emanez, jakin banekien narratiba beti aurretik zihoala, baina ez nuen uste proportzioak horren handiak zirenik. Nobedadeak barik eskaintza editorial globala kontuan hartuta, hau da, nobedadeak gehi berrargitaraldiak, % 56,5 da narratiba. Beste modu batera esanda: jendearen eskura jarri den hamar literatur titulutik sei narratibakoak dira.


Liburu-kopurutan edo aletan kalkulua eginez gero, baldin nire datuak egiazkoak badira, are handiagoa da bien arteko aldea: 2.250.000 ale 425.000 aleren aurka. Gutxi gorabehera bost bider ale gehiago dago narratiban poesian baino.

Honela da narratibaren eta olerkiaren arteko erlazioa, betiere narratibaren alde: 2,3 bider nobedade gehiago; 3,3 bider liburu gehiago; eta 5,3 bider ale gehiago. Bestela esan, poesian titulu berri gutxiago atera-



Produkzio osoaren ia erdia berarentzat du narratibak. Narratibaren erdira ez da iristen olerkigintza. Eta gainerako literatur mota guztiak % 10etik behera daude.

Narratibaren lehentasuna da literaturgintza garaikidearen ezaugarria, Pizkunde-garaikoa antzerkia zen bezala, eta Frankismoaldikoa olerkia izan zen bezala.



Fikziozko lau generoen eboluzioak bi maila ditu.

Narratiba 48,5 hazi da, eta hazkunde hori 1982tik aurrera etenik gabea da, bi urtez behinekoa bada ere gehienetan.

Olerkiak gorabehera handiak izan ditu eta 1985etik hona beheraka ari da.

Antzerkiak ere 1985ean jo zuen gailurra. Oso behetik ibili da gero, eta azken urteotan pisxka bat errekuperatu dela ematen du.

Herri-literaturak ere ez du historia propio bat gure garaian. Dozena-pare bat eta hutsaren artean dabil beti.

tzeaz gain, berrargitalpenak askoz gutxiago dira eta tiradak dezente txikiagoak.

Narratiba

Lehena

Eboluzioaren lerroak literaturak bere osoan eraman duen ibilbide bera egiten du, igoera handiaren ondoren piska bat jaitsi hemen, piska bat igo han, baina, hala ere, beste generoek baino gutxiago jasan ditu jaitsialditxo horiek.

BIDEA ISPILUZ

Inazio Mujika Iraola

Stendhalek esaten baitzuen nobela ispilu bat dela, bide batean barrena pasatzen dena, eta niri eskatu didatena, hain zuzen, azken urteotako nobelagintzaz jardutea denez, saiatuko naiz, Grenobleko maisuaren teknikari atxekirik, euskal nobelagintzaren azken urteotako bidea ispiluz jarraitzera, nahiz nobelagilea ez naizen —edo horregatik apika—, nire barruko saski-naskitik zerbait probetxuzkorik atera ote daitekeen. Aldez aurretik, ohartarazi nahi dut irakurlea ez dudala ez izenetan ez obretan zeharo jokatzeko batere asmorik; eta, hainbat begi gaizto ikusten baitut dagoeneko xelatan, argitu nahi nuke ez dudala nire idazkideei buruzko balorazio hondoratzailerik ez goraipatzailerik egin nahi; izan ere, ez baita hori nire eginbeharra, eta ez dut neure burua behartuta sentitzen bestek egin beharko luketen lana egitera.

Ispilua bidean barrena pasatu behar badut, lehen lana bidea bera mugatzea izango dut onena. Ez didate muga zehatzik jarri; ni neu saiatuko naiz, hala ere, mugarriak ipintzen. Hogei urteko epea hartzea erabaki dut, eta halabeharrez aurten bukatu behar baitut, 1976a hartuko dut barrutia hesitzeko barren-hesolatzat. Gainera, oker ez banago harako *Euskal idazleak gaur* hark —liburu honen aitaso zuzena—, 1977koa bada ere, 1976a izan zuen goen-hesola. Beste arrazoi batzuk ere badira, frankok uler dezakenak, urte hori hautatzeko: aldaketa politikoak, esate baterako.

Lehen pasada batean, ispiluak erakusten digu hogei urte hauetan nobelak argitaratu dituzten idazleak, gehiengehienak, hogei urte hauen barruan hasi direla nobelak idazten. Salbuespenak badira, jakina; ez gutxi, ez txarrenak: Saizarbitoria, Haranburu Altuna, Lertxundi, G. Garate, J. M. Irigoien, P. Urkizu, Txillardegi, M. Ugalde eta Atxaga —1976ko *Ziutateaz* hura nobelatzat hartzen badugu behintzat—. Aipatzekoa da talde horretan, berezia delako, Martin Ugalderen kasua. Hainbat urtez gaztelaniaz idazten jardun ondoren, euskarara pasatu delako.

Atentzioa emateko modukoa da, bestalde, gure nobelagile beteranoenak Saizarbitoria, Lertxundi, Irigoien, Arrieta e.a. izatea (berrogeita hamar urteak doi-doi beteak edo betetzear dituzten idazleak alegia). Egia da nire zerrenda partikularrean Etxaide, Erkiaga, Krutwig, Guereño eta Txillardegi bezalako idazleak agertzen zaizkidala, baina badirudi, nobelaren arloan, beren onenak emanak zituztela 1976. urteaz aurretik. Hemen ere ezin nabarmendu gabe utzi Ugalderen kasu berezia.

Nabarmentzen hasita, eta nire ispiluan agertzen zaizkidan nobelagileei so arin bat eginda (ez goikoei bakarrik, gazteagoei ere bai), badirudi, hain zuzen ere, ez nobelagile hutsa izatea dela haien ezaugarri nagusi; Saizarbitoria alde batera utzita, beste gainerako guztiak ipuingile edo poetak ere bai baitira. Hala ere, horietako bakoitzaren azken jardunari begiratuta —baita pisu handienekoari ere—, nabarmendu behar ditut Anjel Lertxundi eta Aingeru Epaltza, ipuingintzan goldea sartu badute ere (arrastoa uzteko moduan sartu ere), funtsez nobelagile petotzat jotzen ditudalako.


Jakina da —eta orain baino lehen, hainbat egokieratan esan izan da—, azken urte hauetan gertatu den aldaketarik handiena idazlearen beraren jarreran gertatu dela —ez nobelagintzan bakarrik, baina jenero hori omen denez literatura baten heldutasuna bermatzen duena, on derizkiot lantza-muturtzat jotzeari—. Esan nahi baita, gaur egun euskaraz idazten duen idazleak ez duela bakarrik, ezta arrazoi nagusitzat hori harturik ere, euskararen faboretan idazten, garai batean bezala. Motibazioak, beharrik, aniztu eta konplexuagotu egin dira. Hala ere, ezin dut puntu honetatik aurrera egin nire aspaldiko zalantza bat paperera ekarri gabe. Ez bainago batere ziur gure idazle zaharrenak, Garaziko natura omen zuenak, euskara plazara jalgi zedin bakarrik idatzi ote zuen, edota Lauaxetak aberriaren onerako, bakarrik, aritu ote zen olerkigintzan. Hala esaten dute, eta sinetsi beharko zaie. Guk zalantzan jartzea ere libre izango da. Nolanahi den, gaur egunera itzulita, garbi esan daiteke arrazoi hori ezin baztertuzkoa badu ere, euskal idazleak gero eta sarriago bilatzen dituela literatur motibazioen babesa.

Hori hala bada ere, ezin esan garai zaharrekin lotzen gaituzten bizio guztiak aienatu zaizkigunik. Eta honezkero literatur-kritika aipatu beharko dut hemen, literatura baten osasuna nobelagintzak bermatu bai, baina albotik alda-

mioak behar dituela ezin ukatuzko gauza baita. Seguruena, gure hizkuntzaren egoera hala delako, eta hizkera narratiboa (eta literarioa) umotzen ari delako oraindik gertatuko da, baina arima abarka-soketaraino jaisteko moduko etsipena sentitzen dut askotan, komunikabideetan agertzen diren hainbat kritika-lanetan inoren euskara goratzen edo beheratzen ikusten dudanean. Eta uler bedi inoren euskara maila aipatzeko luma hartzen duena ez dela literatur hizkeraz ari; urliak nor-nori-nork sistima ongi erabili duen edo sandiak metro kuadroko zenbat esaldi jator sartu dituen aztertzen ari dela soil-soilik. Beste bizio bat garai zaharretatik datorkiguna, eta oraindik ere erabat ezabatu ez zaiguna, zuloberdinzalearen gaitz endemikoa da, edo beste hitzez esateko, zer eskas dugun, hura egin behar duenarena. Horrela sortu dira lehen nobela erotikoa, lehen nobela pornografikoa, lehen nobela arroxa, eta nahi diren "lehen" nobela guztiak. Gaitzari gaina hartzeko bidean bagaude ere, ez zait iruditzen euskal nobelagilea bere lanean gehiegi zentratuta dabilenik; ez dagozkion zereginetan amiltzeko arriskutik hurbil ikusten dut.

Beste ikuspuntu bat, nahikoa eztabaidatua izan zena bere garaian: euskal nobelagintzak aztertzen ote du Euskal Herriak bizi duen egoera, bere gatazka eta guzti? Nik ez dakit aztertu behar lukeen ere, baina azken urte hauetan kaleratu diren nobelei errepaso arin bat eginda, begibistan dago ez zaiola arazoari izkintxo egiten. Besterik da, behar adinako sakontasunez, edo guri gustatuko litzaiguken ikuspuntuz egiten den. Hala ere, iruditzen zait gehiegizko joera dagoela irakurleongan edozein nobela (denik urrutien edo denik garai aspaldikoenetan kokatuta badago ere) gaur egungo Euskal Herriaren arazo multzoari lotzekoa. Eta hor bada beste gai bat, euskal nobelen irakurlegoarena alegia, mereziko lukeena, bide batez esanda, orain eskaintzen zaion baina arreta handiagorik. Izan ere, jakin beharko genuke ez bakarrik zeintzuk diren euskal nobelarik irakurrienak, ezpada zergatik diren horren irakurriak. Zergatik *Kutsidazu bidea, Ixabel,* Zergatik *110. streeteko geltokia,* zergatik Gotzon Garate alde batetik, eta zergatik Atxaga bestetik... Izan ere, ez zaizkit inola ere zaku berean sartzekoak iruditzen, elkarren osagarri izan badaitezke ere, asmoz baitira ezberdin.

Horren haritik galderak egiten hasita —ez baitago ispilua pasatzea baino gauza zirikatzaileagorik galderak sortzen hasteko—, beste galdera andana bat sortzen zait. Onartzen badugu literatura baten heldutasuna ezin dela besterik gabe egileen eta obren heldutasunaren arabera juzkatu —irakurlearena ere kontutan hartu behar dela, alegia—, heldutasun nahikoa erakusten ote du euskal irakurlegoak eskaintzen zaizkion nobela «helduak» irensteko? Egileei dagokienez, beste galdera bat. Bada fenomeno bat, lehenagotik ere bai, baina 1990etik aurrera nabarmen ikusten dena. Urtero kaleratzen diren euskarazko nobeletatik erdia baino gehiago itzulpena da. Gure idazleen nobelen ondoan, Faulkner, Stevenson, Melville edo Kafkarenak agertzen dira, besteak beste. Horrek eraginik izan ote du gure nobelagileengan? Idatz ote daiteke, gaur egun, idazle horiek euskaratuta ez zeuden garaian idazten zen bezala? Nola doa literatur hizkeraren osatze prozesua?




Eta azken galdera. Esan daiteke —hemen ispilua pasatzea baino zerbait gehiago egingo dut—, azken hiru urteotan nobela sendo askoak kaleratu direla *(Gizona bere bakardadean, Ur uherrak, Otto Pette, Hamaika pauso,* behintzat bai); idazle berriak sortu dira, lehen obratik bertatik nobelarekin ausartu direnak —Jon Alonsoren kasua datorkit burura—; ipuin-bildumen eta nobelen arteko oreka, orain arte ipuinen aldera makurtuta zegoena, kostata, baina badirudi nobelaren aldera makurtzen ari dela, baita irakurlegoaren eskaerei begiratuta ere; gogoa sumatzen da ipuin-bilduma huts direnak ere, nobelatzat hartzeko *(Obabakoak, Itzalen itzal);* heldutasunaren seinale ote da hori guztia edo irudikeria huts jarraipenik gabeko bat?

1984 arte hurbil-hurbil doaz nobedadeak eta jatorrizko tituluak.

Hortik 1992 bitartean mugimendu bera dute nobedadeek orokorrean eta itzulitako liburuek.


1992an jaitsiera orokorra gertatzen da eta ondoko gorakada jatorrizko tituluek eragin dute, itzulpena behera doan bitartean.



Konputu globalean diferentzia handiz da aurrena, berriz diogu. Aurrena, kontzeptu guztietan, nobedadeetan, berrargitalpenetan eta ale-kopurutan. Aldi honen produkzioaren % 52 bereganatu du narratibak.

Hirutik bat da (zehazki, % 32) berrargitalpena, literaturaren arloan gehiena noski, eta beste edozein liburu-motatan ere punta-puntako proportzioa. Narratibako liburuaren arrakasta adierazten du. Ez da dudarik ipuinak eta eleberriek direla literaturan gehien sortu, publikatu, saldu eta irakurtzen direnak.

Itzulpenetik ere dezente elikatzen da narratiba: hirutik bat gutxi gorabehera, % 32 zehazki. Azken bost urteotan joera hori nabarmenki indartu da. Begira, 90eko hamarkadako lehen bost urteotan % 44,2 da itzulpenaren pisua. Euskal sorkuntzak sabaia jo duela esan nahi al du honek? Ez dakit esanahia hori den ala ekintza editorial hutsa den. Baina edozein modutan, konstatazio mailan esan beharra dago narratibaren hazkundean itzulitako liburuak parte on bat duela.



1992 arte eboluzio orokorra markatu duena lehen edizioa izan da.

Berrargitaraldiak, bitartean, ez dira hainbeste izan, eta gainera 80ko hamarkadan nahikoa berdintsu.

Azken bi urteotan aldatu bide dira kontuak. Berrargitaraldiek gainditu egin dituzte nobedadeak, eta haiei zor zaie gorakada orokorra.

Itzulitako liburuaren egitekoa literaturarako guztiz garrantzizkotzat dauka Anjel Lertxundik (1992): "Nik uste dut euskal idazlegoa, bere urritasunean, ezin dela erregistro guztietara ailegatu, ezin dela giro guztietara heldu, eta ezin dituela, ezta ere, genero guztiak behar bezala landu. Euskal literaturari beti tokatzen zaiola morroi ibiltzea. Esparru guztiak beteko baldin badira, itzulpengintzaren bidez izango da; normalizatuko bada nolabait literatura, itzulpengintzaren bidez normalizatuko da. Eta alor eta altxor orokor horretara iristeko bidea itzulpena baldin bada, ari gara originaltasunaren izenean bide guzti hori ixten; eta bide guzti hori, gainera, erdal literaturari uzten. Orduan, euskal literatura ematen denean, ezagutuko ditugu gure autoreak, baina ez dugu sekula santan izango aukera, adibidez, Melville edo Stendhal euskaraz ezagutzekoa; zeren hori, espainierazko literaturaren esparruan dago: nolabait, literatura unibertsala da literatura española gure institutuetan, eta euskal literatura, berriz, bakar-bakarrik gure autoreena. Euskal literaturan ikasi beharko li-

rateke mugimendu literario unibertsalak, literaturaren historia ez euskal literaturarena bakarrik eta han integratu beharko lirateke gainerako materiale guzti horiek, eta horrela izango genuke frantses literatura edo italiar literatura euskararen bidez ezagutzeko modua. Eta español literaturan, berriz, espainierazkoak: Cervantes, noski, gazteleraz irakurri beharko lukete gure ikasleek. Baina Huxley bat, esate baterako, euskaraz ezagutu beharko genuke".

Hona hemeretzi urtetako emaitzak zifra absolutuetan emanak:

Narratiba		
Nobedadeak		849
jatorrizkoak	578	
itzulitakoak	271	
Berrargitalpenak		400
jatorrizkoak	306	
itzulitakoak	94	
Guztira		1.249
jatorrizkoak	884	
itzulitakoak	365	



ERZILLA, MANU (Bilbo, 1953)

- *Hitzik ainitz idatzi dut (1977)*
- *Ezpondetako pneuma (1989)*

Idazleen iritzia

Zer-nolako osasuna ote du narratibak idazleen ustez? Zer kalifikazio merezi ote du?

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,3
Oso ona	6,5
Ona	53,8
Erdipurdikoa	21,2
Txarra	1,1
Oso txarra	0,5
Besterik	0,5

Arras positibotzat joko nuke taula hau. Osasun onekoa juzgatzen du erdiak eta gehiagok, eta goitik duen laguntza erantsita, oso on eta on bezala ikusten duena % 60,3 da. Idazle asko esan nahi du horrek. Bada talde kritiko bat, erdipurdikotzat daukana, baina, azken batean, horixe da iritzi negatiboena, ez baitago praktikan txarragotzat ematen duen inor.

Are positiboagoa da iritzia adinaren arabera banaturik. Adibidez, 35 urtetik beherakoengan oso-oso positiboa da iritzia. Hauen lautik hiruk uste du gaur egiten den narratiba ona edo oso ona dela. Bestalde, osasun oso ona duela esan dutenen % 66,7 da 45 urtetik beherakoa. Zenbat eta gazteago, hainbat eta alderago.


Ipuina, genero autonomoa

Tradizionalki, nobelaren ataria kontsideratu izan da ipuina. Idazle askoren traiektoriak ere horixe bera erakusten du. Gaur egun esan dezakegu, belaunaldi berriak lortu duela, kantitatea eta kalitatea medio, ipuina genero autonomotzat hartzea. Askotan uste izan denaren kontra, literatura garaikidean, ipuingintza ez da nobelarako urrats bat, ezta eleberriaren anaia txikia.

Nahikoa goiz hasi zen Anjel Lertxundi (1983) ipuinaren errebindikazio literario autonomoa egiten. Urteko produkzioaren azterketan zihardueLa, honela zioen orduan: "Eta jeneroari begiratzen badiogu, berriz, ugariena ipuinena dela aitortu behar. Gure produkziorik emankorrena ipuingintzan gorpuzten da eta gure ustez emankizunik aberatsenak ere alor berean ikus daitezke.

Inork baino gehiagok jotzen du ipuina nobelaren bitarteko ariketa gisa. Nobelaren bezperak bezala jo izan dira zenbaitetan ipuinak. Eta hau oraintsu arte sarritan hala gertatu baldin bada ere, gaur egun garbi ikusten dugu ipuinari bere etekina, bere nortasuna, bere jenerotasuna eman nahi zaiola. Ipuina gaur ez da nobelaren morroin, ipuina bada genero aske eta autonomo. Eta horrela landu nahi izan dute goian aipatu ditugun gazteek. Ipuin bakoitzak mundu oso eta itxi bat dakar, bere erritmo eta hizkera bereziz, bere kontatze modu propio, bere idarokizun mundu apartaz. Ipuinak, zentzu honetan, ez dio ezer zor nobelari. Are gutxiago zor dio lirikari, nahiz lirikak sortarazten duen idarokizun mundura ere inguratzen den ipuina".

Hamaika urte beranduago, edonor konbentzitzeko moduko konparazioz, iritzi bera plazaratzen du Felipe Juaristik (1994): "Tampoco suscribo la idea, tan extendida por otra parte, de que el relato corto es el



ESNAL, PELLO (Zarautz, 1950)

- *Malkos (1990)*
- *Nabukodonosor (1991)*
- *Zazpi kolore ditu ostadarrak (1991)*
- *Txukunago ibiltzen da kostako trena (1992)*
- *Xaxpi (1993)*

ANIZTASUNA ETA KALITATEA

Xabier Mendiguren Elizegi

"Ipuina" hitzak, Azkuek eta Barandiaranek bildutako kontakizunak ekartzen zituen gogora lehen, Andersen eta Perrault-en zerak bestela. Umeentzako zerbait, folkloreari lotua edo. Orain, berriz, literatur genero autonomo eta landua da, helduentzat. Aldaketa hau, ordea, ez da gertatu zaharra gure artean, aztertzen ari garen aldian gauzatu baita. Aurreko salbuespenak, bakanak bezain ohoregarriak ditugu: Martin Ugalde (*Iltzalleak*,1961), Anjel Lertxundi (*Hunik arrats artean*,1971).

Gure aldi honetako ipuingintzaren bilakaerak mendi baten eitea du: ia ezerezetik jaio, tontorra jo, eta beherakada apal bat gero, altura duin bati eutsiz beti ere. Dena dela, azter ditzagun faseak banan-banan.

76-80 bitartean hiru joera bereiz daitezke alor honetan. Ipuin herrikoia, sarritan egiazko pasadizoetan oinarritua eta euskalkiz idatzia; honen adibidetzat har daiteke Augustin Zubikarai. Euskara errazean idatzitako istorioak: X. Gereño batik bat, baina baita ere Maite Lazkano, Euskaltzaindia-Iberdueroren bilduma, Hordagoko Tximista saila... Hirugarrena, guri gehien interesatzen zaiguna, abangoardiako esperimentalismoa litzateke, ipuina beste idazmolde batzuekin zerabilena, generoen arteko mugak hautsiz: 76an kaleratu zuen Atxagak *Ziutateaz* eta urte berean Izagirrek *Zergatik bai;* Ustela sailak jarraitu zuen urte batzuetan joera honekin: Arrietaren *Bidaia-termitosti,* Cazenaveren hainbat gauza, Sarasolaren *Joan eta Ane* ...

1980 aldean hasten dira gauzak aldatzen, baina, liburu bat baino gehiago, giroaren eta baldintzen aldaketa da erabakigarria. Hegoaldean, udal demokratikoak estreinatzeko, perretxikoen moduan sortu ziren ipuin-lehiake-tak: Irun, Donostia, Bilbo, Gasteiz... Ipuin-produkzioa handitu egin zuen honek eta eredu "normalizatuagoa" bultzatu. Bestalde, literatur aldizkariak ere ugaldu egin ziren (*Pott, Susa, Xaguxarra, Maiatz, Korrok, Kandela...*) eta probaleku egoki bihurtu. Azkenik, idazten hasten den belaunaldi berriak ezagutzen eta estimatzen du ipuinaren generoa, eta gainera ondo datorkio motxean trebatzea, bere idazkera zorrozteko.

Lertxundiren *Aise eman zenidan eskua* eta G. Garateren *Lehortean* kaleratu ziren 80an. Libururik gabe ere, egundoko zirrara sortu zuten Atxagaren ipuin berriek ("Camilo Lizardi...", "Post Tenebras...") eta Sarrionandiarenek ("Maggie...", "Enperadore eroa"). Bi egile horiek berealdiko eragina izan zuten eta esan liteke beraiek markatutako arrastoetatik joan dela geroztiko ipuingintza gehiena: ipuinaren kontzepzioan, lexiko-hautaketan, gai eta giroetan...

Nonbait jarri behar eta 83an ipin liteke jauzia, ipuingintzaren aldi klasikoaren hasiera. Iñigo Aranbarrik ere 83a hartzen du poesiarako aldeketa-urtetzat. Sarrionandiaren "*Narrazioak*" atera zen eta beste liburu inportante batzuk ere bai: Hernandez Abaituaren *Panpinen erreinua*, Iturralderen *Dudular*, Urretabizkaiaren *Aspaldian*... e.a. Lehiaketetako ipuin sarituak ere garaitsu horretan hasten dira kaleratzen; eragin handienetakoak Irun, Donostia eta Deba izan litezke. Hurrengo bi urteetan ere egile asko plazaratu zen ipuin-liburuekin, batzuk idazle ezagunak eta beste asko berriak: Joanes Urkixo, Mario Onaindia, Laura Mintegi, Jose Mari Velez, Ander Iturriotz, Joxean Agirre, Jose Antonio Mujika (tamalez, besterik idatzi ez duena), Mayi Pelot, Hasier Etxeberria, Imanol Zurutuza, Mikel Antza, Martin Ugalde eta beste hainbat. 83-85 aldi horretako ipuin-bilduma asko kalitate bikainekoak izan ziren, beste batzuk ez horrenbeste, baina zalantzarik gabe esan liteke ipuina zela garai horreta-

ko literatur bizitzako izar eta protagonista. Lehenbiziko aldiz, baita ere, kanpoko idazleen ipuinak hasi ziren euskaratzen: Rodoreda, Maupassant...

Hurrengo urteetan apaldu egin zen erritmoa, baina izan ziren gauza interesgarriak. Adibidez, belaunaldi berri bat atera zen letren plazara: 63an jaioak dira Juan Luis Zabala, Pako Aristi eta Inazio Mujika Iraola *Azukrea belazeetan* gogoangarriaren egilea, 64koa da X. Mendiguren; Juan Garzia ere, zaharragoa izan arren, orduantxe hasi zen publikatzen baina hasieratik kalitate eta indar handiz (2. liburua bereziki: *Itzalen itzal*); Mikel Antzaren bilduma biribil bat (*Odolaren usaina*) eta Koldo Izagirreren itzulera ere dastatu genituen (*Mendekuak*).

Aldi klasiko hau ere nonbait itxi behar eta 88an egingo dugu, orduantxe kaleratu baitzen *Obabakoak*. Atxagaren ipuinen eragina, hala ere, lehenagotik zetorren, esan dugun bezala. Aldi klasiko hau ixteak ez du esan nahi, inondik ere, liburu gutxiago edo kaxkarragoak egin direnik, baizik eta literatur bizitzako protagonismoa aldatu egin dela, ipuingintzatik eleberrira, gero eta nabarmenago gainera. Honekin loturik, ipuingintzaren gorakadan lagundu zuten faktoreak aldatu egin dira: adibidez, literatur aldizkari gehientsuenak itxi egin dira, sariketek ez dute inongo sinesgarritasunik idazleentzat, eta idazleen belaunaldi berriak ere ez dira lehen bezalako erraztasunarekin sortu.

Nolanahi ere, aldi honetan ipuin-bilduma eta egile interesgarriak kaleratzen segitu dute, eta beste batzuk ia etengabe aritu dira (Sarrionandiaren obra berritzailea aipatu behar). 89an Juan Martin Elexpuru, Andoni Egaña, Jexux Mari Mendizabal eta Aingeru Epaltza estreinatu ziren ipuinetan. 90ean Felipe Juaristiren *Arinagoa duk haizea, Absalon*, E. Jimenezen *Atoiuntzia* eta Pablo Sastreren *Kristalezko bihotzak* izan ziren nobedade esanguratsuetako batzuk. 91n Josu Unzueta, Jon Arretxe eta Karlos Linazasoro ezagutu ahal izan genituen, eta liburu harrigarri bat: *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak*, Izagirreren harribitxia.




Zerrenda hutsa ere ez genuke egin nahi, halere. Balorazio bat egitekotan argi-ilunak ikusten dira. Ilunen artean, garrantzi sozial gutxi duela, irakurleek orohar genero *minor*-tzat daukatelako, narratiba luzerako bidetzat; hori baino ezkorragoa da, idazleentzat, liburu gisako bildumaz kanpo ez dela lortu ipuinaren kontsumorako kanal egokirik (ez liburuxkek ez prentsako ipuinek izan dute arrakastarik). Argien artean aipa daiteke duda izpirik gabe sendotasuna lortu duen generoa dela, eta estilo-aniztasuna ikusten dela kalitatearen barruan. 92an bi ipuingile berri plazaratu ziren, giza harremanen gaia darabiltenak ohiz, nork bere estiloan baina maisutasun handiz: Xabier Montoia (*Emakume biboteduna*) eta Arantxa Iturbe (*Ezer baino lehen*). Gertuago etorriz, 94an sei ipuin-bilduma plazaratu ziren, denak ere aipagarriak baina elkarren artean oso, guztiz desberdinak: Aristiren *Auto-stopeko ipuinak*, Mujikaren *Hautsaren kronika*, Jimenezen *Manhattan*, Zabalaren *Sakoneta*, Lizarralderen *Sargori*, Linazasororen *Zer gerta ere*.

Aniztasuna eta kalitatea badauzkagu. Banaketa-bide berriak asmatzea falta zaigu, irakurleak egile berriak estimatzea (Jokin Muñoz, Patxi Iturregi...), eta jendea konturatzea arteak ez duela luzerarekin zerikusirik. Pintxoen sukaldaritza bindikatzen den bezala edo.

hermano menor de la novela, porque sería lo mismo que afirmar que un perro pequinés cuando crezca será del tamaño de un bulldog. El relato es un género autónomo y limitado en sí que nada tiene que ver con la novela. Y un buen escritor de relatos no tiene que ser necesariamente un buen novelista".

Ez, noski, ez da nahitaezkoa ipuina lantzen duenak gero nobela landu beharra. Baina tentazioa badelakoan nago. Ala ez? Genero bezala diferente dira, bego; baina idazkintzaren aldetik ez dago leizerik bien artean. Martin Ugaldek eman du pausoa, Anjel Lertxundik ere bai, Bernardo Atxagak ere bai. Ez al dute bide bera segituko gazteago batzuk? Hamar mila kilometroko karrera, espezializazio bat da. Marathoia ere bai. Ez da lehena bigarrenaren saialeku. Edozein praktikatzailek esango dizu ez dutela elkarrekin zerikusirik. Baina hamar milako kilometroko korrikalariak, bihotzak, auspoak eta zangoek laguntzen badiote, marathoia korritzea du amets eta desafio. Ez ote dago horrelako ezer ipuingintzaren eta nobelagintzaren artean?



ETXABURU, Jose Mari "Kamiñazpi" (Ondarroa, 1913)

- *Ondarrabiako kondaira (1986)*
- *Neure lau urteko ibillerak (1988)*
- *Neure idazlan bilduma (1991)*
- *Ondarroa'ko kontuak (1995)*

Olerkia

Bigarrena

Eboluzio-lerroak erakusten du olerkia kopuruz narratibaren parean zegoela lehen urteetan cta bien arteko distantzia handituz-handituz joan dela 80ko hamarkadan hasita. Narratibak gora egin duen bitartean, olerkigintza produkzio-aldetik gelditu egin da, eta azken urteotan inkluso jaitsi. Urtealdiko gailurra 1985ean jo zuen.

Bigarrena da, beraz, olerkigintza, narratibarengandik hogeita zortzi puntura. Aldearen handia da hemen nabarmena. Titulutan erdira ere ez da iristen.

Aldea areagotu egiten da, arestian seinalatu bezala, tituluen emaitza osoa aintzat hartuta. Izan ere, olerki-liburuak ia ez du berrargitalpenik: % 6,6. Ezdeusa. Mila alerekin olerki-irakurzaleen gose-egarriak aseta daudela esan nahi du honek. Itzulitako poesi liburu alerik ere ez da berrargitaratu.

Euskal jatorriko liburua da publikatzen dena. Itzulitako poesi liburuak % 13,3 bakarrik suposatzen du; beste guztia, jatorrizkoa.

Hona zifrak dimentsio errealera ekarrita:

Olerkia		
Nobedadeak		354
jatorrizkoa	307	
itzulitakoa	47	
Berrargitalpena		25
Guztira		379

Argitaratzaileen iritzia

Zergatik publikatzen da olerki gutxi, editoreen ustez? Argitaratzaileen eskarmentua kontuan edukita, diagnosia egiteko posizio onean daude. Non dago poesiaren egoeraren gakoa, jatorrian ala merkatuan, idazleengan ala irakurleengan?


Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,7
Sorkuntza eskasa	11,1
Merkatu urria	61,1
Besterik	11,1

Editoreen iritzira, erantzuna emanda dago: ez dago merkaturik. Gehiengo handia da uste duena irakurlegoak jarrera aldatzen ez duen bitartean, jai duela poesiak. Txikiegiak bide dira tiradak argitalpena justifikatzeko. Argitaratzaileen iritziz behintzat.

Ez dira garai onak lirikarako

Olerkigintzaz hasi zen urtealdia, aurretik etorri zetorren korronte nagusiari segida emanez. Poesia berria, ez soziala, baina poesia egin nahi zen.

Urte haietako errealitatea eta espektatibak adierazteko balio du Koldo Izagirreren testu honek (1980): "Orain poesiaren generazio berria zetorrek —kriston hostia jo behar diagu—. Lehenbizi errenteriar batena,



ETXAIDE, JON (Donostia, 1927)

- *Alos-torrea. Elezar berritua (1950)*
- *Amayur (1951)*
- *Purra-Purra (1953)*
- *Joanak joan. Piarres Topet Etxahun Barkotxar Koblariari buruz egin eleberria (1955)*
- *Pernando Plaentxiatarra (1957)*
- *Amasei seme Euskalerri'ko (1958)*
- *Begia begi truk (1962)*
- *Gorrotoa Lege (1964)*
- *Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz (1969)*
- *Eneko Agerroa (1981)*
- *Etxaide Jauna (1987)*

MODERNITATEAREN HARROBIA ETXEAN DUGU

Iñaki Aldekoa

Azken hogei urteetako poesiari buruz hitzegin behar bada, ez dut uste inor zakartuko zaidanik Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) poema liburua abiapuntutzat hartzen badut. 70eko urteetan, berarena gertatu zen, poesiaren esparruan, akuilu eta eragin bortitzena. Ordura arte gaingiroki baizik ukitu gabe zeuden errai izpiritualak barreneraino bortxatu ziren, eta Modernitatearen zinezko esperientzia bital eta poetikoak euskal literaturaren zainetan pausatu ziren. Errebeldiaren eta hausturaren poemario horrek Rimbaud/Piolet binomioa kontsagratu zituen, eta non harrika egin, eta non puskatu ugari aurkitu zuen bidean. Gainetik pasa beharra zegoen "Ars poetica" itxuraskoaren zerraldoa, eta horixe egin zuen *Etiopia*k. Poma-liburu horrek egin zuen erisketa lana osasungarria gertatu zitzaion euskal poesiagintzari. Urteak igaro ahala, ordea, poeta bera ere ohartu zen desegitea eraikitzea baino errazagoa zela. Gerora, nahiz eta *Etiopia*ren ondoren poema askorik ez argitaratu, poemaren eraikuntzaren eta sendotasunaren aldetik begiratuta, argitaratutako gutxi horien artean "Trikua" bezalako poema ederrak daude.

Etiopia poema-liburuko enkabalgamendu bortitz baten haritik etorri zen *Anfetamiña* (1983) deritzan Xabier Montoia poesia liburua. SUSA bildumako estrainaldia egin zuen liburu horrek, eta haren atzetik etorritako liburu gehienek ez zioten muzinik egingo abangoardia surrealistaren imajina ausart eta gogorren erabilerari. Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, Omar Nabarro edo Itxaro Borda ezinbestean aipatu behar genituzkeen izenak dira. K. Izagirreren *Itsaso Ahantzia* bezalako izenburuek izan zuten seguruenik eraginik bildumako zenbait poetarengan. *Balizko erroten erresuma*n (1990) poema liburua da bildumako poema libururik inportanteena. Azken emaitzen artean, berriz, Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari* liburua (1995).

*Etiopia*rekin hasitako ibilbideak Juanjo Olasagarre, Xabier Aldai eta Harkaitz Cano SUSA bildumako gazteenen azken poema liburuen argitarapenera arte iraun du, eta adar guztiak garatu ditu bertan abangoardiak, beste hizkuntzetan ere gertatu ohi den moduan, abangoardiaren baliabide nagusien sintesi moduan. Izan ere, aspaldidanik bihurtu zen abangoardia tradizio.

Pott garaira itzulirik, Joseba Sarrionandiak urratutako ibilbide poetikoa da aipatuko dugun hurrena. *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) poema liburuarekin Europako uharte poetiko ospetsu eta gogoangarrienetara iritsi ondoren, kartzela izan zen nagusi Sarrionandiaren hurrengo poema lerroetan; eta gerokoetan, berriz, Claudio Guillen-ek *Herbesteratuen eguzkia: literatura eta exilioa* liburu ederrean deskribatutako errainu zipristinak antzeman daitezke nonahi, *Huny illa nyha majah yahoo* (1995) poema bilduman batez ere.

Marinel Zaharrak (1987) da Sarrionandiaren poema libururik onena. Haren liburuetatik arrakasta handiena, ordea, *Izuen gordelekuetan barrena*k lortu bide zuen. Horren adibiderik aipagarriena Luis Berrizbeitiaren *Soperna Jenerala* (1987) poema liburua dugu. Beharbada bi arrazoi hauengatik lortu zuen aurreneko liburuak bigarrenak baino arrakasta handiagoa: askorentzat metapoesiako lekzio aberatsa gertatu zen, eta handik aurrera egin zuen bidaian, poesia kontuetan gogaide izatea nahikoa ez zelako. Ez dirudi erraza asmatzen azken poemarioaren atzetik etorriko diren hurrengoen nondik norakoak; izan ere, *Marinel Zaharrak* poema liburuarekin hasitako bideak garatu baititu jada bere aukera guztiak.Ibilbide hori agortuta dago. Datorrena aurrikusi baino egiten ez bada ere, arras bestelako poesia baten izpiak irakur daitezke azken poemarioaren lerro tarteetan.

Pott eta abangoardia igurtzietatik aldenduz, Juan Mari Lekuonak egindako bidea bihurtu da askorentzat eredugarri, *Ilargiaren eskola* (1979) poemarioarekin hasi eta *Mimodramak eta Ikonoak* (1990) azken liburura arte. Hala aitortu dute beren idazkeran eta poetikan, hurrenez hurren, Imanol Irigoienek *Argiaren barne distantziak* (1989) poema liburuarekin edo Amaia Iturbidek *Gelak eta Zelaiak* (1994) izenburukoarekin.

Sentimendua eta pentsamendua baino sakonago iritsi nahi lukete bertsoaren silabak eta erritmoak Lekuonaren poesiagintzan. Ahanzturaren eta iragan luzearen urak zeharkatuz, jatorrizko izakeraren balizko ikono eta mimoak berreskuratu dizkigu poetak azken liburuan, *Ilargiaren eskolan* zaharragoaren mundu zibilizatuaren irudi eta aitormenen albora biltzeko. Munduaren, Estetikaren eta Erlijioaren esperientzia eta gogoeta gizakion mundura erakarriz, poema bihurtu du instantzia horien solaskide nagusi.

Haren ilidotik gehiegi urrundu gabe Joxe Auxtin Arrieta, Juan Ramon Madariaga, Juan Kruz Igerabide, Joxerra Garzia, Pello Zabaleta edo Patziku Perurena bezalako poetak aipatuko nituzke hemen, izan ere, bakoitza bere estilo eta berezitasunen jabe izanik, hizkuntzaren erritmo eta musikaltasunari etekina ateratzeko ahaleginean, edo hizkuntza poetikoa estetizatzeko orduan, badute amankomunik poeta horiek.

Besterik litzateke Felipe Juaristiren nondik norakoaz jardutea. *Denbora, nostalgia* (1985) deritzan poema liburuarekin sinbolismo oparoenaren bideetan umotu zituen Juaristik bere baliabide poetiko ezagunenak. Poema liburu horrek merezitako errespetua bildu zuen poesiazaleen artean; handik hona, berriz, poema narratiboagoak saiatu ditu, bizitzaren zenbait puskatan sakonduz, *Laino artean zelatari* (1993) da horren adibide garbia. Sinbolismoaren irudi eta imajinario zabalaren estalpean aurkitu dute, baita ere, beren ahotsa Teresa Irastorzak, Luigi Anselmik edo Patxi Ezkiagak besteak beste, hirurak ere poeta ugariak eta errejistro poetiko aberatsekoak. Gazteleraren esparruan "Esperientziaren poetika" deritzanaren estiloa geurera ekarriz, Mari Jose Kerejeta, Gerardo Markuleta eta Karlos Linazasororen izenak aipatuko nituzke.


Aparteko atala mereziko lukete Xabier Letek, Bitoriano Gandiagak edo Mikel Lasak, Franco hil orduko jada poeta arrakastatsuak hirurak ere. B. Gandiagak gutxi argitaratu du, eta argitaratu duen horrek ez dio aurreko garaian erakutsitako mailari eusten. Bestelakoa da Lasaren kasua, izan ere, J. Zulaikak berrikitan idatzi duen moduan, *Memory Dump* (1993) liburuaren hibridazio eta marjinaltasun aukeratuak eman baitezake zer pentsatua posmodernismoaren ikuspegitik.



Bide desbideratuak (1980) poema liburua argitaratu ondoren, urte asko egon zen Lete argitaratu gabe, 1992an *Bizitzaren ikurrak* liburua argitaratu zuen arte. 1980ko eszeptizismo existentzialista hura barneragoko ikuspegi esentzialagoarekin oretu da, ideologien eta gertakari hurbilen burrunbotsak esanahi ezdeusa duten begiratu biluztuan: bizi izate soilaren harridura eta esker ona, kontenplazio umila eta otoitza.

Rikardo Arregiren *Hari hauskorrak* (1993), seguruenik, azken urteotan poema-libururik interesgarriena.

Aipatutako azken poetaren kasuan gertatzen den bezala, azken hogei urtetako euskal poesiagintza, poetika eta erreferentzia ugariren topagunea gertatu da. Modernitatearen harrobia etxean dugu, edo bestela esanda, euskal poesiak berak ere Modernitatearen arbola sendoaren adar gehienak garatu ditu. Beraz, ez da nahikoa jada, entzute handiko honako poeta hau edo beste hura bere sonarengatik aipatzea: poeta horiek barne poetika edo zinezko mundu ikuspegi sendo baten adierazle diren aldetik dira aintzat hartzeko.



ETXAMENDI, EÑAUT
(Mithiriña, 1935)

- *Elurra zikindurik (1973)*
- *Azken elurra (1975)*
- *Aurora (1985)*
- *Gilentegiko Gilen (1989)*

oso fina eta azken bolada honetan euskal poesian dabilen surrealismo horretatik aparte, oso austeroa, Gabriel Korta, gero Daniel Garbizu, Jon Casenaveren ipui batzuk. Gero 17 urteko gazte bat. Hori ona zetorrek, ikastolen lehen fruitua duk eta euskara oso ondo menderatzen dik —ikastola baten ibiltzeko harrigarria duk—, bainan bere izena ez dik esan nahi. Eta gero Jose Luis Otamendi, azpeitiarra. Hori generazio berria da, poesia generazio berri bat, eta noizbait pasa beharko diagu poesiatik. Hori duk bestea, ez? Arestik hiru bereizten zizkian, bertsolariak, olerkariak eta poetak, eta poetak Mirande eta bera besterik ez zirela; beste guztiak olerkariak: Lizardi, S. Mitxelena... Gauza apainak egiten zituzten bainan ez ziren poetak. Nere ustez ere. Ta gaur egun poesia egiterakoan, bat duk poesia bilduma bat ateratzea edo corpus bat. Poema liburu bat edo poema publikatzea, nahiz eta poema ezberdinak izan. Horrek ez du esan nahi poesiak bakarka hartuta ez dutela balorerik, baino nik gehiago joko nuke mundu bat bilatzera. J. Zulaikaren kasoa esate baterako, poema bat da, liburuak osotasun bat dauka".

Belaunaldi berriaren eta zaharragoen emaitzen kalitatearen neurria ez dakit bere osoan zer-nolakoa den. Banan bana begiratuz gero, maila handiko lanak ez bat eta ez bi, asko dira. Eta, hala ere, maila orokorrean sortzen bide dira zalantzak.

Gaur egun olerkigintzak maila ona duela uste du Amaia Iturbidek (1995). Juan San Martinek (1995), aldiz, gaurko poesian ez du ikusten maila handirik, aurrekoen mailarik ez behintzat, eta espresuki dioenez, "Joxe Azurmendi, Bitoriano Gandiaga eta Joan Mari Lekuonaren aldean apalago dabiltza oraingo poetak". Eta gero, hor dago azken urteotako poesigintzari egindako Xabier Mendiguren gaztearen (1995) "sakea", bigunkeriaren salaketa adjektibo hauekin hornituz: motela, makala, mengela, maxkala, mixkina, melaxka. Iritziak eta, gainera, sintomak dira.

Hamabost urteren bueltan honela baloratzen du Koldo Izagirrek (1995) olerkiaren egungo egocra: "Kalitate literarioa eta espresio-ahalmena bi gauza dira. Adibidez, Iparragirrek espresio-ahalmen ikaragarria zuen. Literarioki ondo edo gaizki, herri baten nahia ederki espresatu zuen eta hori ukaezina da. Arestik ere bazuen arte hori. Poesian, esate baterako, eta prosan ere bai, botere espresiboa galdu egin da asko, kalitate literarioa ikaragarri hobetu bada ere. Gauza perfekto ezdeusak gero eta gehiago ikusten ditut. Alegia, kafea egiteko balio ez duen kafe-makinak. Balizko errotak poesia eman behar du, bestela ez litzateke balizkoa izango. Balizkoa izan behar du, baina errota ere bai. Zeozer espresatu behar du".


Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea

1985. urtean sortu zen Euskal Herriko Bertsolarien Elkartea (EHBE), ordura arte Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren antolatzaile izandako Euskaltzaindiarekin bertsolariek izandako hausturaren ondorioz. Euskararen akademiarekin izandako hainbat eztabaidaren ondoren, Txapelketa Nagusia bertsolariek beraiek antolatzea erabaki zuten eta horretarako sortu, hain zuzen, Bertsolarien Elkartea.

1987. urtea bitartean behin-behineko egiturarekin aritu zen, urte honetako ekainean egin baitzuen Donostian lehenengo batzar nagusia. Txapelketa Nagusia EHBEk antolatu du geroztik, baina hori baino zabalagoa da bere egitekoa.


Bertsolaritza sustatzea helburu nagusitzat harturik, bertsolaritzaren artxibategi orokorra eratua du Xenpelar Dokumentazio Zentroan, bertsolaritzari buruzko hainbat ikastaro eta jardunaldi antolatu ditu, liburu zenbait (bertso-bildumak, doinu-katalogoak, eskolarako metodologiak...) argitaratu, Bertsolari Eguna antolatu du urtero 1986tik aurrera, Bertsolari Gazteen Eguna ere bai 1990, 1992, 1993 eta 1994 urteetan, Bertsolamintza jardunaldiak 1993 eta 1995 urteetan eta bi ikerketa bultzatu ditu, bertsolariei buruzkoa bata (1987) eta bertsozaletasunari buruzko bestea (1993-94).

Bertsolarien Elkartearen proposamenez eta Elkartearekin elkarlanean ekin zion Euskal Telebistak 1987. urtean *Ahotik Ahora* saioa emititzeari. Hurrengo urtean *Hitzetik Hortzera* programarekin hasi ziren. 1994. urtera arte iraun zuen *Hitzetik Hortzera* saiouk, baina geroztik ez da gehiago emititu bi aldeak ados jarri ez direlako.



1996an egindako batzar nagusian izena aldatu zuen: Euskal Herriko Bertsolarien Elkartea izateari utzi eta Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea izena hartu zuen. Bertsolariak nahiz bertsozaleak dira Elkarteko bazkide; 672 bazkide norbanako, 87 gazte, 11 elkarte eta 8 bazkide ohorezko dira guztira. Arabako Bertsozale Elkartea, Bizkaiko Bertsozale Elkartea, Gipuzkoako Bertsozale Elkartea, Nafarroako Bertsolarien Lagunak eta Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartea biltzen dira Euskal Herriko Bertsozale Elkartean. Imanol Lazkano da lehendakaria sorreratik.

Euskaltzaindiak antolatutako azken bi txapelketan (1980 eta 1982) Xabier Amuriza nagusitu zen, Elkarteak antolatutako aurrenekoan Sebastian Lizaso (1986), eta hurrengoetan Jon Lopategi (1989) eta Andoni Egaña (1993).



ETXANIZ, XABIER (Oñati, 1961)

- *Nire belarriak (1984)*
- *Patxiki (1985)*
- *Haur Folklorearen bilduma (1986)*
- *Igarkizunak (1986)*
- *Ilun (1987)*
- *Gola, katu trapezista (1990)*
- *Zer dela eta zer dela (1993)*

Idazleen iritzia

Zer-nola ikusten dute idazleek olerkiaren momentua? Osasun onekotzat jotzen al dute? Osasuna diagnostikatzeko eskatu diegu.

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	23,9
Oso ona	2,7
Ona	32,6
Erdipurdikoa	26,6
Txarra	10,9
Oso txarra	2,7
Besterik	0,5

Ematen du idazlegoa ez dagoela poesigintzarekin oso konbentzitua. Lautik ia batek erantzunik eman ere ez du ematen, hasteko. Narratiban baino askoz apalagoa da maila ona duela esaten dutenen kopurua, gero. Eta, batez ere, neutralizatua gelditzen da iritzi positibo hori kili-kolo edo gaizki dabilela esaten dutenekin (% 37,5). Hortxe, ona eta txarraren tartean, hortxe bide dago poesia.

Arazo larriena

Kalitatearen kontuak gorabehera, ez dago hor poesiaren gaur egungo arazo larriena. Ez dakit idatzi idazten den ala ez; segurua da ez dela argitara ematen, ez dela saltzen eta ez omen da irakurtzen. Milako tiradak egiten omen dira, eta hirurehun bat ale saldu. Bostehundik gora, *best-seller.*

Zifra hauekin ezin gaitezke oso urrutira joan, edizioaren munduan. Eta kezkagarriena zera da, ez dela euskal edizioaren edo irakurlegoaren kasu espezifiko eta bakarra. Inguruko kulturetan beste horrenbeste gertatzen da. Frantzian, adibidez. Problematika honetaz zuzen-zuzenean ari dela, J. M. Mondelok (*L'auteur multimedia,* 1991) egiten duen analisia Euskal Herrian egin genezakeenaren oso diferentea ez da. Edizio-etxe handiek poesia gutxi ateratzen dute, ezpada klasiko eta balore kontsakratuena. Tamaina erdiko editorialek bat edo beste publika dezakete, errentagarri ez den sailtxo horretan. Denen iritzira, argitaletxe txikitxo-

en, aldizkarien, eta olerki-elkarteen egitekoa da poesia argitaratzea. Tiradak harrigarri txikiak omen: 100 eta 600 ale bitartean, maizenik 300; 1.000 aleko edizioa "best-seller"a. Hemen dago gakoa Frantziako kasuan ere.

Panorama honen aurrean galdetzekoa da olerkiaren argitaratzeko leku naturala ez ote den aldizkaria. Zergatik ez? Frantzian 500 olerki-aldizkari aktibo omen daude. Liburura pasa aurretik aldizkariaren arragoan erakutsi dezala balioa. Ez da balioa erakustea bakarrik, gainera. Leku naturala ere aldizkaria izan liteke, euskal olerkigintzan tradizio luzea duen argitaragunea ere hauxe izan baita.

Antzerkia

Antzerkiak ere aldizkariko paperetan babestu behar ote du? Baina antzerki obra ez da paperean bizitzeko jaio, taularatzeko baizik. Antzokiak huts egiten dio teatroari. Antzerki amateurrak protagonismoa galdu egin bide du, ekintza haundi-maundien etorrerarekin. "Sasoi aberatsak datoz teatro pobrearentzat" titulatu zuen Argiako Urtekariak 1988an antzerkigintzako dosierra. Produkzio aldetik behintzat teatroak ez du burua jasotzen.

Zeinek esango Eusko Pizkundean antzerkia izan zela lehen generoa! Tituluz titulu orduan baino gehiago atera da, baina ez du kalifikatzen gure garaia. Elementu sozialena behar zuenak bokazioz, bera dugu generoetan agian zokoratuena.

Berrargitalpena ez da existitzen, praktikan. Lehen edizioarekin agortzen da antzerkiaren bizialdia, taularatzen ez bada behintzat. Besterik litzateke ETBk, esatera, ateak irekiko balizkio, zeren eta eduki posibilitate apartak ditu antzerkiak genero gisa. Nobedadeetan, lautik hiru da euskal jatorrizkoa eta lautik bat itzulitako liburua.

Argitaratzaileen iritzia

Zenbakiak eskutan, eztabaidaezina da antzerki gutxi argitaratu ohi dela. Baina zergatik? Hori da editoreei galdetu dieguna. Erantzun posible batzuk eskaini dizkiet:



ETXARREN, JEAN-BAPTISTE (Donazaharre, 1928)

- *Huarte, hator etxerat (1975)*
- *Lehen Urbian (1986)*
- *Zubi Madarikatua (1993)*



ETXARRI, JOSEBA (Donostia, 1962)

- Euskaldunen Amerika (1995)

Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,7
Sorkuntza eskasa	27,8
Merkatu urria	44,4
Besterik	11,1

Argitaratzaileek arazo nagusitzat ematen dutena merkatuarena da, alegia, ez dagoela irakurle nahikorik, ez duela tirarik. Baina ez da bazterrean ahaztuta uztekoa bigarren arrazoiaren pisua ere, sorkuntzari dagokiona, zera esan nahi duena, ez dela teatro-lanik (egokirik, editoreen iritzian) idazten.

Herri-literatura

Frankismo garaitik hona ez du izan hazkunde harrigarririk herri-literatura gisa ulertzen den liburu-motak, narratiba, olerkia nahiz bertsoak.

Guztira 182 titulu atera dira. Hamaika ez beste denak nobedadeak dira, lehen ediziokoak. Eta horietatik ia denak, jatorrizkoak (% 95,5).

Liburu honek ere merkatuan du Akilesen orpoa. Kuriosoa da, adibidez, bertso-liburuekin gertatu ohi dena. Bertsolari Txapelketa batek milaka lagun biltzen du. Zer esanik ez ETBtik eman ohi ziren bertso-saioek. Bada, bertso horiek jaso, txukun-txukun idatzi, paperean jarri eta liburu gisa atera... Eta? Porrota. Bertsozalea ez da irakurzalea. Horra liburu-mota honen drama.


Lehen aldiko berriak...

Literaturaren aldeko garrasi bat

"Panpina Ustela" edo literaturaren aldeko garrasi bat titulua eman genion "Anaitasuna" aldizkarian, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirreren manifestua aurrerakin gisa publikatu genuenean, 1975eko otsaileko lehen zenbakian. Honela egin genion sarrera:

> "Udaberri gertu eta loratsu baten zain, lurrean sartzen den landarea da *Panpina Ustela*. Luma literario berri eta gazteak plazara ateratzen direnean, orduan helduko da haren udaberria. Oraingo *Panpina Ustela*ren bi egileok gazte dira, oso gazte, 21 eta 23 urtetakoak. Gaztetasuna eta goi maila eman nahi dio *Panpina Ustela*k euskal literaturari.
>
> Bidea ibiliz egiteko asmoarekin, eta, garai berean, bidea markaturik, literatura onaren aldeko garrasi bat izan nahi luke honek".

Geroztik, aztertzaile ugari da literatur berrikuntzaren eta loraldiaren abiapuntuan manifestu hau jarri ohi duena. Gogoan har Franco eta Aresti bizi zirela artean. Literaturari dagokionez, hortaz, data honetaraxe aurreratu beharko genuke aro garaikidearen hasiera.



ETXEBARRIA, IGONE (Bilbo, 1962)

- *Ebaristo Bustintza Lasuen "Kirikiño" (1866-1929) (1992)*
- *XX. Mendeko olerki-bertsogintza (1990)**

MANIFESTUA

EZ DEZAGULA KONPOSTURARIK GAL, HALARE

Literatura bait da herriaren boza: gizarte-aldaketan lagungarri denez, beste Euskal Herri baten lorketa lagundu behar du euskaldunon literaturak.

Laguntza hau exkasa ta ahula izanen da noski, literaturak, zerbait aldatzekotz sentsibilitatea aldatzen bait du, ta ez besterik.

Bere zeregina betetzearren, lehen lehenik, literaturak plazara dezaten eskatzen du: ezkutu ta isileko poemek poemak izaten diraute, bainan aiderik gabe, arnasarik gabe, panpina ustelak bilakatzen dira.

Bozarik gabeko herriak, hots, beren kutiziak, ametsak, heriotza, amodioa ta hainbat eta hainbat eta hainbat gauza adierazten ez dutenak, aiderik gabe, arnasarik gabe, panpina ustelak bilakatzen dira.

Boza hau isilerazten duten guztien aurka aurka aurka gaude:

- Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriaz idazleak zapuztu ta ito egiten dituztelakotz.

- Non ditugu presentatutako lanak?

- Noraino daude epaimahaikoak jantziak lanak juzgatzearren?

- Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema-bertso-teatro saioak proposatzen ditugu.

- Zenbait erakunderen fama ez da euskal literatoen hauzia, beraiena baino. Geurea, euskal literaturari astinaldi bortitzak ematea da.

- Bainan, halare egungo argitara-etxe, aldizkari ta saioekin ez gatoz bat; hertsiak eta literaturaz kanpoko (extraliterarioak, beraz) xederen morroi direlarik, marrantatu ta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte eztarri berriak.

Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa, berezia. Gure poemagintza Europan egiten direnen parekoa omen da: guk ez dakigu zer esan nahi duen honek, eta oraindik ez digu inork erakutsi (agian geu gara egun-egungo poesia europearra ezagutzen ez dugun bi tonto bakarrak).

Literatura ez da, ez, deporte bat. Ez du klasifikaziorik onartzen. Literatura espresabide da lehen lehenik, eta ondorioz komunikabide.

Nobelagintza urria da, ez bide du girorik.

Ezin liteke teatrorik sor; aberrazio batzuetatik (Alzagaren kaiku ta pellokerietatik) beste batzuetara etorri gara (tesi-teatrora...). Alferrikako lana da teatro-lanak izkribatzea, teatroa taldearen emaitza bait da, ez idazle bakartiarena.

Azkenik, agur dezagun geure gizon jator eta moderno hori: bertsolaria. Bertsolaritzak dukeen garrantziaz ez gara jabetu. Gu hartan sinestaturik gaude, hartan eta bere etorkizunean.

Eta inork besterik badio, gurekin behintzat adio!"

Puntu bati nagusiki erreparatzen diote aztertzaileek, eta horixe da Manifestu honetatik gelditu dena: literaturaren autonomia.

Josu Landak (*Gerraondoko poesiaren historia,* 1983) honela baloratzen du "Panpina Ustela"ren ekarpena: "Bernardo eta Koldoren kolaborazio hutsez egindako 'Panpina Ustela'k erreferentzia berri bat markatuko du euskal literatura modernoaren barnean (eta ondorioz, poesiarenean ere). Aldaketa bat sumatzen da literatur ekintzaren presupostuetan, eta aldaketa hori izango da fetxa horretatik aurrera sortuko den idazlego berria ezaugarri berdinen azpian katalogatuko duen faktorea.

Literaturaren kontzepzioan, orain arte azaldu ez den elemendu bat ageri da: literatura ekintza autonomo bezala defendatzen du poeta-bikote honek, eta biziki garbi adierazten dute ez datozela bat orduko argitaletxe, aldizkari eta saioekin literaturaz kanpoko xederen morroi direlako. Atxagak eta Izagirrek helburu extraliterario horietatik urrundu eta salbatu nahi dute literatura, eta horrek datu berri bat ematen digu kontutan hartzeko".

Josu Landak baino hamar urte beranduago (1993), Xabier Mendiguren Elizegik ere hortxe jartzen du literatura garaikidearen mugarria: "Bi gazte haiek bildu eta *Panpina ustela* izeneko aldizkari antzekoa egin zuten. Ordura artekoekin erabat apurtzen zuena, berria. Poetikaz ez zuen zerikusirik Aresti edo arestitarrekin, ez sinbolistekin, ez formalistekin; surrealismo eta espresionismoaren arteko zerbaitetan zebiltzan. Estetikaz ere, ez euskal bukolismoaren, ez euskal eskolako eskultoreen, ez errealismo sozialaren antzik: hurbilago dira *underground*-etik, sortzeke edo sortzekotan zegoen punketik. Hitz bitan: abangoardia eta transgresioa zituzten ezaugarri, eta batez ere literaturaren autonomiaren ordura arteko aldarrikapen erradikalena, gehi literatur sariketen lehenengo salaketa ozena".

Manifestutik hogei urtera, protagonistetako batek, Koldo Izagirrek, hona nola baloratzen duen momentu hura: "'Panpina Ustela' Jainkoa akabatzeko konplot txikia izan zen. Jainkoa, kasu hartan, Aresti zen. Hobeto esan, Aresti hila zegoen, ez zegoen akabatu beharrik. Postarestismoarekin edo poesia sozialarekin hautsi nahi izan zen, giro literarioki motz harekin. Ez zen erreakzio inkonszientea izan. Gauzak oso ondo pentsatu eta gero kaleratu zen manifestu hura. Garbi genuen ez genuela horrelakorik nahi, beste zerbait behar zela. (...) Literaturaren esparru autonomo bat aldarrikatu genuen eta hori inportantea zen. Errealitatearekin eten gabe, noski, gu ere inguruarekiko pertsona konprometituak baikinen".

Gurean ia beti bat bitan banatzen denez, hirugarren "Ustela"ren ondoren Koldo eta Bernardo banatu egin ziren. Bernardo Bilbora joan zen eta hemen "Pott banda" sortu zuen Joseba Sarrionandia, Jimu Iturralde, Jon Juaristi, Manu Ertzilla, Ruper Ordorika lagunekin batera. Koldo Izagirrek, aldiz, Donostian jarraitzen du eta 1977an, Ramon Saizarbitoriarekin bat eginik "Oh! Euzkadi" sortzen dute, lehenengo Zeruko Argiako orri gisa eta aldizkari-formatuan gero.



ETXEBARRIA, JUAN MANUEL
(Bilbo, 1948)


- *Kismi eta Olentzero (1983)*
- *Lamiñak (1983)*
- *Mari Anboton eta Gorbean (1983)*
- *Samartintxu (1983)*
- *Argi eta Txiko deabruak (1984)*
- *Gorbeako txori gaiztoak (1984)*
- *Perutxu eta Jentila (1984)*
- *Prakagorriak (1984)*
- *Gaueko arimak (1985)*
- *Hodeia eta abadea (1985)*
- *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa (1988)*
- *Euskal sineskerak I (1989)*
- *Bizkaitz (1990)*
- *Euskal sineskerak II (1990)*
- *Euskal sineskerak III (1990)*
- *Gorbeiatarrak (1990)*
- *Bizkaialdeko ipuin-esaundak (1995)*
- *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak (1995)*

Autonomiaren belaunaldia

Epealdi honen hasiera-hasieratik belaunaldi berri bat plazaratzen dela esan genezake. Nola izendatu? Ez dakit. Baina agian ez legoke gaizki "Autonomiaren belaunaldia".

Autonomiaren horrek garaiari egingo lioke keinu, baina batez ere literaturgintza ulertzeko modua da azpimarratu nahi duena.

1984an, Susan, Gunilla Von Bismark izeneko Susako idazle gazte batek bi belaunaldien distantziak, ironia eta guzti, markatzen ditu "Idazle gaztetxoa eta bere eredu pertsonal-literarioak" saioan: "Artikuluxka hau Euskal Herriko politikagintza, euskalgintza, kulturgintza, eta premiazko iraultza hurbilari zegokiokeen ezein herrigintza motatako 'Abangoardia' zineten, 'Bieja Goardia' osatzen duzuen eta -laixter laixter, gauzak ildo eta bide honetatik segitzen badute- 'Erretagoardia' izango zaretan guztioi eskeini nahi nizueke; bihotz bihotzez. Eta aipaturik sentitzen ez denari, ba ezer ez).



ETXEBARRIA, Jose Ramon
(Gernika, 1948)

- *Uraren indarra (1972)*
- *Materia aztertzen (1974)*
- *Materia aztertzen. 2 (1974)*
- *Fisika generala. I. Mekanika (1978)*
- *Ekuazio jaraunskorrak. (I: Erradiazio elektromagnetikoa; II: Osin-muga fraktalak) (1987)*
- *Albert Einstein: Kosmoa pentsagai (1990)*
- *Teoria fisikoen oinarriak (1994)*

Ume moko nintzela, Joan Mari Torrealdayren Liburu Urdina ekarri zuen aitak etxera, eta horrekin batera jakin ahal izan nuen euskal idazleak bazirena. Liburu horretan nahiz euskarazko nahiz erdarazko testu totxorik apenas irakurri nuen -askoz gutxiago euskarazkoak, jakina-. Goitik behera eta behin eta berriro miatu nituenak fotografiak izan ziren, haiexek eta azpiko erreferentzia laburrak. Memoria pixka bat gehixeago izango banu buruz bota niezazueke bat edo beste. Nola miresten zintuztedan! Zuek zineten halako zientzia ilunaren sekretu izkutua ezagutzen zenutenak. Ez nago seguru baina ama eta Errege Magoei haunditzean zuek bezalakoxea izan nahi nuela eskatzeko gertu nengoela uste dut. Gainera bereizkuntza garbi eta bahetzailea egiten nuen: apaiz eta zahar karka eta erdi usteldu haiek ez zitzaizkidan bat ere interesatzen, besteak, gazte progre eta bizardunak baizik.

Denbora aurrera joan da eta, nola ez dakidala, ni ere nolabaiteko euskal idazle bilakatu naiz, noizbehinka eta estropuzka besterik idazten ez duen idazle nimiño eta baldarra. (...)

Gaur egun, Liburu Urdineko argazki txukunetan agertzen ez ziren izkiriatzaile traketsez osatutako belaunaldi berri bat saiatzen ari da errelebua jasotzen. Tamalez, denek ez dute maixu eta gidari izan dituztenekiko behar den begiramena. Zuen jenerazioaren aldean, bueno! konparatzen hasterik ere ez dago. Oraingo mukizuok ez dira iristen -ezta urrik eman be!- zuen jakintza mailara, malgutasun ideologikora, europartasunera eta beste majina bat gauzatara. Askoz kulto, dotore eta gizasemeagoak izateaz gain, baduzue ahalko cachet eta look berezia, kanpoko uni-

bertsitateetan besterik lortzen ez dena eta herri narratx honetatik atera gabekook sekulan gureganatuko ez duguna".


Idazle-tipo berri bat sortu da, hori da kuestioa, izenak gorabehera. Idazle gisa autokonprentsio diferentea du, bestelako kontzientzia. *Euskal Idazleak gaur* liburuan deskribatu nuen idazle-eredutik nahiko urruti dago bai bere autoulerpenean eta bai bere lana planteatzeko moduan. Aurreko belaunalditik bi dira, hasieran, funtsezko desberdintasunak: jatorri intelektuala (seminarioa *versus* unibertsitatea) eta bereziki "militantzia" (herrigintza *versus* literaturgintza). Gainerako diferentzia gehienak (hizkuntzan zein kulturgintzan) literaturarekiko bere konpromisoaren ondorio lirateke. Bestalde, literatura *ere* egitetik literatura *batez ere edo bakarrik,* (hobe esan) egitera ia-ia amildegia dago.

Belaunaldi berriak bi puntutan egin du aurrekoarekin topo, konpromisoan eta euskara batuan.

Idazleak, idazle gisa, nola ulertu behar du bere lana aberriarekiko, herriarekiko, gizartearekiko? Autonomiaren defentsa integrazioaren defentsari kontrajarri izan zaio. Diferentziak ikusteko aski da, kasurako, Txillardegiren eta Bernardo Atxagaren arteko polemikara jotzea. Aparte aztertuko dugu hori gero, idazleen inkestan agertzen diren iritziekin batera.

Hizkuntzaren normalizazioa edo euskara batuarena da, beste konfrontazio-gunea. 56ko belaunaldiak bere-bere gaia du euskara estandar, batu edo modernoaren gaia. Eta buru-belarri langintza horretan sartua segitzen du epealdi honen hasieran. Belaunaldi berriak, aldiz, euskara batuaren oinarriak jarrita aurkitu ditu, eta bidea eginagoa. Bere burua hor inplikatua ez ikusteaz gain, oso kritiko agertzen da prozesu horrekiko. Euskara batua literaturarentzat problema bailitzan hartzen dute: artifiziala omen da, naturaltasunik eta bixitasunik gabea, aseptikoa eta hotza, ez omen du modismorik, etab.

Euskara batua eta euskara literarioa elkarren etsai jarriz asko eta asko idatzi da. Orduan ere esaten zuenik bazen eta geroztik argi geratu da arazoa ez zela euskara batua, euskara bera baizik. Euskarak zituen mugak, eta idazle gazte berriaren euskarak zituenak. Aitzakiak printzipiozko objekzio bilakatu ziren. Gaur egun ez da tonu honetako salaketarik egiten. 1993an, *Euskaldunon Egunkaria*-n "batua eta literatura, harreman estua" titulu gisa irakurri nuenean, egindako bidearen luzeaz konturatu nintzen. Orain edozein idazlek onartzen du normalizazioak egin duen aurrerakuntzari esker (hiztegigintzari esker, adibidez), erreminta landuagoa duela idazleak; euskara estandarra guztiz baliagarria dela literaturarako; idazleak berak hizkuntza hobeki ezagutzen duela eta bere ahalmenak li-




ETXEBARRIA, Jose Maria (Zornotza-Etxano, 1942)

- *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak (1983)*

terarioki baliatzen ikasi egin duela. Eta, bestalde, itsuenak ere ikusten du literaturak batuari egin dion ekarpena, nola aberastu duen.

Liskarren asuntoa alde batera utzi eta hel diezaiogun lehengo hariari, belaunaldi berriaren ekarpena zehazteari.

"Euskal literaturaren etorkizuna, duda gabe, hemendik pasatzen da", aurreratu zuen Joxe Azurmendik (1982) belaunaldi berri honi buruz, eta bai asmatu ere!: "Belaunaldi honek, idazle tipo berri honek alegia, idazletzaren konzepzio berri bat eta bokazio berri bat ezik, literaturgintza berri bat errepresentatu nahi du (eta errepresentatzen du, zer duda), literatura berri bat. Literaturaren askatasuna, emanzipazioa erreklamatzen du. Literatura libre bat esijitzen du: literaturtasunari baizik zor ez zaiona, euskarari laguntzeari edo alfabetatze kanpainetako premiei obligaturik egon gabe. Inolako beste intentzio (extrinseko)-ri obeditzen ez diona, literatura izateko obligazioari bakarrik baizik.



ETXEBERRIA, HASIER
(Elgoibar, 1957)

- *Ipuin ezberdinak eta erregalokoak (1984)*
- *Estatua baten historia (1988)*
- *Mugetan (1989)*
- *Alajaineta (1995)*

Niretzat hau da, euskal literaturaren kanpoan, azken urteotako fenomeno interesgarriena, gerora begira prometagarriena ere eta, zenbait aldetatik mingarri gertatzen ari bazaigu ere, pozgarriena. Euskal literaturaren etorkizuna, duda gabe, hemendik pasatzen da".

Nola hitz egin daiteke literaturaren krisiaz eta dudak egin etorkizunaz belaunaldi berri hau kontuan izanda?, horixe da Joxe Azurmendik segidan planteatzen duena: "Denok ikusten dugu, belaunaldi berri bat heldu dela euskal literaturan, forma berriekin, literaturaren konzepzio berriekin, narratiba berri batekin batez ere. Nik neuk, behintzat, ez dut ikusten literaturaren krisirik: alderantziz, nahiko indar eta gogo berri ikusten dut, eta nahiko imajinazio, nahiko dedikazio, estatistiketan ikusten dugun bipolarketa gabe ere, literaturaren etorkizunaz optimista izateko. Literaturan zebilen asko eta asko kulturgintzan galdu bada, hizkuntzalaritzak iruntsi badu, jende berririk anitz agertu da, halare, literatura egin nahiez eta literatura bakarrik, sekula baino literaturaren konzepzio rigurosoagoz".

Literaturaren krisia

Literaturaren krisiaz inor gutxi mintzo da gaur. Literaturaren heldutasuna, kalitatea, homologagarritasuna, esportazioa eta honelako kontzeptuak idazten dira gaur barra-barra.

Lan piska bat hartu nahi duenak egin dezala froga: 1976-1983 bitarteko egunkari eta aldizkariak begiratu eta ikusiko du etengabe mintzo direla krisiaz idazleak, kritikoak, aztertzaileak.

Jaulki ziren iritzi nagusitxoenen laburpentxo bat egingo dut, jarreren nondik norakoaren berri eman-asmoz.

Produkzioaren krisiaz mintzo dira batzuk, hau da, ez dela literaturarik egiten, idazten, argitaratzen. Kalitate-krisiaz mintzatzera gutxiago ausartzen dira. Literaturaren gizarte-giroa ere aipatzen da: literatura egin egiten da, baina ez du oihartzunik. Argitaletxeek literaturarekiko erakusten duten axolarik eza ere sarri salatzen da. Sistema literarioaren akatsak aipatzen dituzte batzuek, bi norabidetan: bateko, ez dago irakurleria literaturzale jakin bat; eta besteko, egilearen eta irakurlearen artean bitartekariak falta dira, bereziki kritika.


Ikusten da, bada, "krisia" kontzeptuaren pean gauza asko eta diferenteak ulertzen direla. Denetik egon zitekeen egon, salbu produkzioaren krisia, horrekin jaitsiera ulertu nahi bada behintzat. Estatistikak zerbaitetarako daudela frogatzen behin eta berriz saiatu nintzen orduan.

Produkzioaren kalitatean zegokeela gakoa batek baino gehiagok seinalatu arren inork gutxik zehazten zuen akatsik. Xabier Lete eta Joxe Azurmendi, bai, urrats hori ematera ausartzen dira; aurreko belaunaldikoak, biak. Xabier Letek kreazioaren akats hauek izendatzen ditu" "una pobreza referencial enorme por un lado y, por otro, un compromiso autocomplaciente en una literatura que pretendiéndose más auténtica, más humana, más personal, no es sino el exponente de pequeñísimas elucubraciones que difícilmente trascienden un ámbito de empobrecida subjetividad". Alegia, Orixek esango lukeen "arnasa" falta zaiola euskal literaturari.

Joxe Azurmendi "ez dagoen krisia eta badagoenaz" mintzo da "Oh! Euzkadi"n. Zertan datza dagokeen krisi hori? Akats hauek ikusten dizkio lehen orduko literaturgintza berriari: modu zahar eta berriak gastatu izana, narratiba-modu pobre eta sinplea, esperimentalismoa, panfletarismoa, endogamia, marjinalismoa eta autokonmiserazioa.

Mikel Hernandez Abaituak (1981) hiru oinarri aurkitzen dizkio krisi errealari: batetik, autore asko oso goiz jubilatzea; bestetik, kritikarik ez onartzea, edo hobeto esan kritika zientifikoarekiko mesprezua; eta hirugarrenik, irakurlego hain urriarekin idazten jarraitzeko behar den adoreari ezin eutsia.

Bernardo Atxagak (1982) emankortzat jotzen du "krisia", idazle berrien egitekoari berari lotua baitago: "Nik onartzen dut krisiarena, baina ez naiz larritzen. Alde batetik gure krisia sekulatakoa ezezik (ezen, Axularren sasoitik gaurdaino, zenbat marabila sortu dira ba?) sekulakoa da (esana dago, ia gureak egin du). Baina bestetik, oraingo hau krisi emankortzat jotzen dut. Gaur egun apostuak hobeak dira, anbiziosoagoak, desio literarioek ez dute mugarik ezagutzen (desio on bati dagokionez,



ETXEZARRAGA, JESUS (Bilbo, 1953)

- Olerki solteak (1978)

ezta?). Bada Otto eta Fritz-en txiste bat: Otto zerbaiten bila dabil argitan dagoen farolaren azpian. Galdetu dio Fritz-ek:

- zer galdu zaik hemen, Otto?
- hemen ezer ez, han urruti galdu zaidak txanpon bat
- eta zer dela-ta ari haiz hemen bilaka?
- hemen argia dagoelako

Orain arteko literaturagile gehienak Ottorena egin dute: arlo ezagun batera mugatu, han "argia" (zeruko argia, somete!) zegoelako. Baserrira jo dute (baserri, diot, eta ez "mendi"; baserriaren literatura ez da mendiaren literatura, edo mendiarena da bina galbahe ideologiko-folkloregiletik pasea: niri ez zait "Garoa" interesatzen: EHko mendian ezagutu dudan jendea Joanes eta abarren antipodetan dago) ba hori, baserrira jo dutela, txanpona (idem literatura) aurkitu gabe. Oraingo krisia, beste gauzaren artean, argitik urruntzeari zor zaio. Hori da Susa-koen problema, hori Pott-ekoena. Eta motellak! hau duk ilun puska!"



ETXEZARRETA, JESUS Mª "IZAZPI" (Zumarraga, 1940)

- *Zalantzaren aztarnak. Zoritxarraren lorak. Heriotzaren ezteiak (1990)*
- *Hasperen ttanta bihoztiak (1990)*
- *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapel ketak (1993)*

Literatura leku bila

Joseba Sarrionandiak esan omen zuen: "Krisia dagoela esaten dute soziologiaren hetxizeroek. Baina hemen ez dago krisirik, hau basamortua da". "Literaturak diasporan jarraitzen du", idatzi zuen Joxe Azurmendik. Josu Landa (1984) "literaturaren umezurtzaz" mintzo da.

Hortxe dagoke urte haietako literaturaren arazo nagusia, lekune faltan, nolabaiteko marjinazioan. Problema soziala. Inguru guztiarekin mesfida eta haserre ibiltzearen arrazoiak ere hortxe aurkitu beharko dira.

Zer gertatu da?

Gizartea bere osoan, eta euskal kultura partikularzki, berregokitzeetapa batean dago. Politikak, kazetaritzak, euskararen normalizazioak, liburugintzak premiazko eta beharrezkoaren kategoria hartzen dute eta horietara zuzentzen dira indarrak eta pertsonak. Zehazkiago:

- Franco hil ondoren politikak sekulako indarra hartzen du gurean. Lehenago kulturaren inguruan mugitzen zen asko lan politikora lerratzen dira orain. Eta hori bera neurri handiagoan gertatzen da administrazio autonomikoa martxan jartzeko orduan. Dauden talde eta elkarteetatik zurgatzen du administrazioak, horrek jatorrizko lekunean uzten zuen zuloari muzin eginez..
- Euskararen normalizazioa euskararen premiazkotasun handienetakotzat joa dago aspalditik, eta orain antolatu egiten da, gainera. Ordukoak dira UZEI, EUTGko euskal filologi ikasketak, unibertsitatee-

tako EKT eta EKM. Hiztegietara jotzen dute beste batzuek, Xabier Kintana, Luis Mari Mujika, Ibon Sarasola.

- Kazetaritzak ere badu bere partea. 1976 urtea euskal kazetaritzaren urte izendatzen da. *Anaitasuna*, *Zeruko Argia* eta *Goiz Argi* berritualdian sartu dira. *Jakin*, *Zehatz* eta beste ere sortu dira. Eta, ingurunetik idazle-jendea gehiago aldenduz, aldizkari elebidunak agertu dira orain, *Punto y Hora*, *Garaia*, *Berriak*. Eta zurrunbiloa areagotuz, *Deia* eta *Egin*. 1976-1977 urteetan gertatzen da hori guzti hori. Euskal kulturgintza tradizionalak barrutik hustu egin behar duela ematen du. Idazle askok idaztea utzi egiten du eta beste asko kazetari bilakatzen da, eta horietako ez gutxi erdal kazetari.
- Editorialgintza literaturarekin zerikusi gutxi zuten gerratan murgildurik dabil. Eskubete lan du irakasmaterialgintzan. Hori bateko. Eta besteko, erdal liburuak du arrakasta. Zentsura igaro dela eta, liburu historikoek eta soziopolitikoek erakarmen handia lortzen dute eta zarata handiz promozionatzen dira.
- Bitartean, literaturak apenas duen azpiegiturarik, (*Euskal Idazleen Elkartea* ere sortzeke dago), organo eta plataforma bateratzaile iraunkorrik ez du, belaunaldi zaharretik literatur bokazioa zuen banakatxo batek bakarrik irauten du, eta berriak oso gazte dira. Eta bi belaunaldien artean ez da errelebu naturalik egon. Beste literaturatan idazle gisa sasoirik emankorrena den adinean hemen jubilatu egiten direla kritikatu zuen arrazoiz Mikel Hernandez Abaituak 1981ean.


Itsaso zabal eta nahasi horretan zer egin dezake literaturaren txalupatxoak? Ongi islatzen du urte haietako desolazioa *Pott* bandako testu honek: "*Pott* banda desagertzeko harrisku gorrian aurkitzen da. Liburu dendetan ez diote harrera onik egiten, etekin laburra uzten baitu bere merkean, eta euskaraz idatzita egonik ez baitu serbitzen alfabetatze lanetarako ere; eta jakina, horrela ezin daiteke askorik saldu, euskara ez baitaki inork (ikasten, ordea, jende asko ari da). Liburu banatzaileak ere berdin, lana bakarrik ematen duela gure panfloak, lan asko sartzen dugu aleotan, gehiegi, blaga kristona, haurrentzat egokia ez dena eta beste. Politika subnormalitatearen formatzat hartzen dugunez gero, boikota egin digute herri honetako iraultzaileek (eta dakizuenez, herri honetan ia denak dira iraultzaile). Telesforo Monzonen kantak ez zaizkigu zipitzik ere gustatzen, eta etxekoandreak mezpreziatu egiten gaituzte. Gure famelietan ez gaituzte ikusi ere nahi, ez baitugu lan segururik, eta ez baikara behar bezala ezkondu. Andregai bat bagenuen, uxo bat bezala hil zitzaigun gaxua...".

80ko hamarkadaren erdirarte bere ustezko leku propiorik ez du aurkitzen literaturak. Hamar urte urte asko da, eta urak baretu dira, baina,



ETXEZARRETA, RAMON
(Urrestilla, 1954)

- *Hiztegi erotikoa / Diccionario erótiko del euskera clásico y popular / Diccionarie érotique de l'euskera clasique et populaire (1983)*
- *Marino Lejarreta hamalau ahaleginetako poza (1992)**



EZKIAGA, PATXI (Legorreta, 1943)

- *Antxon Eraso. 1 (1982)*
- *Antxon Eraso. 2 (1982)*
- *Karnaba (1982)*
- *Beldur naiz (1985)*
- *Aiodi herriko kantak (1986)*
- *Armaggedon (1986)*
- *Fadura (1987)*
- *Gernika (1987)*
- *Ate debekatua (1988)*
- *Bataioto apaiza (1988)*
- *Borobilinoff eta txakurkan (1988)*
- *Ispiluaren isladaketak / Keiko eta beste... (1988)*
- *Kaito inozoa (1988)*
- *Kinkilariaren ametsa (1988)*
- *Baladak (1990)*
- *Charles Moulay (1990)*
- *Deabruaren eztarria (1990)*
- *Han urrutian (1990)*
- *Terrala (1990)*
- *Bi zisneen hegada (1992)*
- *Komediaren Jainkoa (1993)*

batez ere, literaturak obrekin, ez hitzekin, frogatu du bere balioa. Une horretantxe hasten da aldaketa.

Esan duguna esanda ere ez da pentsatu behar basamortu horretan literatura bera bakarrik zegoenik arriskutan. Are gehiago: arrisku handiena ez zen berea. Literaturaren balizko krisiaren amaieran honela idatzi nuen 1983an (*Euskal liburua gaur*): "Eta amaitzeko, behin eta berriz baieztu dudana errepikatuko nuke: 'literaturaren krisia', baldin badago eta dagoen neurrian, koiunturala da. Esplika nadin. Literatur liburua ez dago beste liburu mota batzuk baino arrisku handiagoan, ez eta hurrik eman ere. Alderantziz esango nuke. Neretzako, zifrak eskutan, kultur liburua dago arriskutan, desager zorion. Eta ez gurean bakarrik. Gainerako kultur minorietan ere joera beretsua nabari da.(...) Euskal literatura bizi-ko da. Osasun bera opa diet beste liburu mota batzuei".

Horixe bera hobeto esplikatzen du Joxe Azurmendik (*Euskal literaturaren orainaz eta geroaz*, 1981): "Krisian, ez dago literatura, beste guztia dago, —kalitate kontuan ez naiz sartzen. Euskarazko produkzioak bi kanpo bakarrik izatera jotzen du: hizkuntzalaritza eta literatura. Hutsunea, geroz haundiagoa, euskarazko liburu kulturalean, 'teknikoan', dago. Eta hori seinalatu beharra dago, aurreko urteotan, hain zuzen kanpo horixe indartu nahiez, eginahalak egiten ibili bait gara. Etorkizunik ez duen kanpo batetan erre ote ditugu indarrak?... Estatistikek erakusten dutenez, Katalunian gauza bera ari da gertatzen: katalana literatura eta hizkuntzalaritza kanpoetan airoso dabil ('hizkuntzalaritza', hemen ulertzen dugun adieran), liburu teknikoaren edo kulturalaren espazioa, ordea, gaztelaniak inbaditzen du. Estatu hizkuntzaren presioak sortzen duen egoera koloniala, hizkuntza —hots, irakurketa— 'util' den eremuetan".

Literatur plataformak


Belaunaldi berriaren eta ondoko idazle-labekaden ezaugarrietakotzat jo genezake literatur aldizkarien protagonismoa. Mikel Antzari (1984) sinestekotan, "azkenaldian euskal letren mundua astintzen duen zuku berria hein haundi batetan literatur aldizkariak diren upeletan egosten ari da. Aldizkariok normalki txikiak dira, eta zoritxarrez iraupen gutxikoak. Badira salbuespenak. Aipa ditzagun batzuk:

- 1975-1976: Panpina Ustela
- 1978-1980: Pott
- 1980-1983: Oh! Euzkadi
- 1980-1994: Susa

- 1980-1981: Xaguxarra
- 1981-...: Idatz & Mintz
- 1982-...: Maiatz
- 1982-1983: Stultifera Navis
- 1983-1984: Kandela
- 1983-...:Pamiela
- 1984-1989: Korrok
- 1984-1985: Ttu-ttua
- 1984-1986: Txistu y Tamboliñ
- 1984-1985: Txortan
- 1984-1990: Porrot
- 1985-...: Entseiucarrean
- 1976-1979: Kezkak
- 1985-1989: Literatur Gazeta
- 1989- ...: Hegats
- 1995-...: Ostiela


Muga guztiekin ere, idazle berriak sortzeko, trebatzeko, ideiak lantzeko eta produktuak esperimentatzeko, gutxienez, lehen mailako funtzioa betetzen dute. Liburu eta editorialen gelaurre dira adiera honetan. Propioki aldizkari gisako desarroiloak asumitzea falta izan zaie agian.

Susa aldizkaria beti egon da interesatua mota honetako esperientzietan eta bere laugarren zenbakian (1982) "belaunaldi berrien aitaponte"kotzat hartzen bide duen Joxe Azurmendi solastatzen du literatur aldizkarion paperaz eta baldintzez. Horretara animatzen ditu Joxek: "Gauza bat hartu behar da kontutan. 1956.an literatura berri bat sortzen da, gerraurrekoarekin erabat puskatzen duena. Azken urte hauetan beste belaunaldi bat iritsi da literaturara, eta probak egiten ari da. Eta nik uste dut beti probak egiteko tokia aldizkaria izan dela. Orduan, bultzada berri hauek, haize berri hauek beti aldizkari batetan egiten dute proba eta gero liburutara. Eta zuen belaunaldi horri gertatzen ari zaiona da probak egiteko ere liburutara jo beharra, liburu txikira, erdi panfletora, ez daukalako organo bat aldizkari batetan probak egiteko nahikoa, eta beraz, esperimento aro baten ondoren liburura iristeko. Orduan urjenteena niretzat, larriena, idatzi nahi duen jende horrentzat mementu honetan aldizkari bat izatea litzateke. (...) Nik uste dut lehenengo kondizioa hauxe litzatekeela: aldizkaria gazte horien eskutan uztea, ez betiko konsakratuen eskutan. Eta gazteek egin ditzatela egin behar diren esperi-



FERNANDEZ, Luis (Eibar, 1966)

- Tetris-Zutabeak eta lerro solteak (1995)



GABILONDO, Joseba (Urretxu, 1963)

- Kaliforniatik bihotzez (1992)

mendu guztiak, zer den hanka sartzea, zer aldizkari bat gaizki ateratzea, zer den mejoratu behar izatea; eta esperientzia hori erabat pasa behar dutela, ez dutela egin behar beste batzuren aldizkarietan beren esperimenduak egin. (...) Problemak asko dira; dudarik gabe, esperimentaleku izan nahi duen —eta hala behar du nire ustez— aldizkari batek problema asko ditu. Aldez aurretik pentsatu behar dugu hamar edo hamabost urtetako bizitza duela. Gero, esperimentaleku hori utzi, eta beste maila batetara pasatzen gara, eta beste jenerazio batek hartu behar du. Baina hark ez dezala gure aldizkaria hartu, berea sortu dezala. Orduan, aldizkari literario baten problema da —eta hau ez bakarrik Euskal Herrikoena— merkatu batetan ia estabilizatzera iristen den ordurako hil egiten dela, kasik per definicione. Orduan, diru aldetik oso problematikoa izango da beti".

Susa bera da agian Joxe Azurmendik proposatutako eredua hobekien bete duena. Taiueraz desberdinak dira beste batzuk, eta ia denek iraupen eskasegian dute Akilesen orpoa.

Susa taldeko Josu Landak 1983an azalera artean igo gabeko indarra ikusten du azpian eta bere kezka da indar hori nola bideratu eta biderkatu. Bi bide proposatzen ditu: aldizkaritxoak eta argitaletxe militanteak: "Badago problema bat, halere, nire eritzirako, eta aurrera begira kezkagarri litekeena. Alegia, nola bidera daitekeen azpian somatzen den dinamika berri eta sasoi handiko hori benetako protagonismoa beregana dezan. Euskal literaturaren asunto horri buelta emateko garai egokienetako batetan bait gaude. Eta horretarako, bi baldintza ikusten ditut derrigorrezko bezala: bata, argitaletxe handietako interes komertzial hutsetatik ihes egin idazlea eta irakurlearen arteko distantziak txikiagotuz, eta bigarrena ondorengo belaunaldiekiko etenik sortzen ez uztea. Horretarako, publikatzeko konpromezu eta exijentzia minimoa izango duten aldizkaritxoak sortu beharra dago, eta bestetik idazleen esku egongo diren argitaletxe militanteak bultzatu".

Idazle-eskolaren funtzioa bete ohi dute aldizkariok. 56ko belaunaldian ere berdintsu zen. Orduan, gerora idazle izango zirenak apaizgaitegietan trebatu ziren, barne-aldizkarietan. Gogoratu Gure Izarra, Arnas, Laiaketan, Erein, besteak beste. Belaunaldi hori beste zereginetara pasa eta literaturaren eszenatokitik erretiratzean, berriz hutsunea gertatu zen. Etorri berriak Unibertsitateko ikasleak ziren, baina deus gutxi eskaintzen zuen erakundeak. Beraiek ireki behar izan zuten bere bide propioa, Susaren kasuan bezala.

Pentsatzekoa da gaur erc cz otc dagocn hutsune berri bat. Literatur aldizkaritxoak falta dira berriz. Aldizkariak badira, inoizkorik ugaricn. Baina denak informatiboak. 90eko belaunaldiak zeregin informatiboeta-

ra jo du. Irrati-telebistak direla, Egunkaria dela, prentsa lokala dela. Literatur belaunaldi galdua ote?

Non dago errelebua orain?

Lubaki Banda aipatu ohi da. Bi urteren buruan lanari utzia dago, talde gisa. Ez omen dago hila, lurperatua baizik. Bizirik lurperatua, Harkaitz Canok dioenez: "Lubaki ez genuen hil, bizirik lurperatu baizik. (...). Lubaki Banda dispertsioaren beste biktima da eta bakoitzak bere aldetik ekin zion. Ez da talde moduan funtzionatzeko asmorik. Dena dela, orain bada argitaletxe batekin mamitzen ari garen proiektu berri bat".

"Fenix" txoriaren zortea opa diot Lubakiri.

Literatur kritika


Literatur kritikaren bizitza oso gorabeheratsua izan da, eztabaidatua. Gaur egun urak mantso datoz, baina memoria pixka bat duenak gogoratuko du 80ko hamarkadan zenbat eta zein garratzak ziren literatur kritikaren inguruko istiluak. Gogora ditzagun batzuk.

1981 urtean "De la irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" idazlan sonatua idatzi zuen Koldo Mitxelenak, eta han kritika garaikidea gogor erasotu zuen. Lehen baino gutxiago egiten zela orain, txarragoa, eta ez zela independentea, zioen.

Joxe Azurmendik (*UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan*, 1982) uste du momentu horretako kritika-munduari Mitxelenak ez diola justiziarik egiten eta kritikari eman dion tratamendua penagarria dela. Joxe Azurmendiren ustetan, alderantziz da guztia: iragan denboretan baino kritika gehiago egiten da eta kalitate-aldetik ez txarragoa.

Josu Landak ere (*Oker zabiltza, Mitxelena, oso oker*, 1982) ukatu egiten du 50-70 urteetan baino kritika gutxiago egiten denik, eta frogak ematen ditu. Kritikarik irakurri gabe mintzo omen da kritikaz Mitxelena.

Urte beretsutan, giro minbera hartan, kritikaren ulerpenak ere txispak ateratzen zituen. Kritika inpresionista deitu ohi dena eta zientifikoa edo akademikoa elkarri buruz buru zeuden. Horren inguruko polemikak *Oh! Euzkadi*-n desarroilatu ziren gehienbat. Kritika gurutzatu hauetan zebiltzan Ramon Etxezarreta kritika zientifikoaren aurka (*Ez du Jon Kortazarrek zure plazerraren sentsazioa neurtuko, Tere,* 1981) eta Mikel Hernandez Abaitua (*Badakigu EUTG ez dela mundu osoa. Inor ez da idiota*, 1981) kritika zientifikoaren alde eta inpresionistaren aurka, Etxezarretarenaren aurka behintzat.



GALARRETA, XABIER
(Donostia, 1961)

- *Argi bila (1988)*
- *Murruaz bestaldean (1990)*
- *Itsasoko istorioak (1994)*
- *Argiak ilunean (1995)*
- *Egunkarietakoak (1995)*
- *Kaletarren istorioak (1995)*

LUBAKI BANDA LEHEN MANIFESTUA

ATZAZALEZ URRATZEN DUGU BIDEA

(...)

Inoiz desiratu ez zenuten gaua gara; iluna eta arrunta, zuek lurperaturiko ilusioak berpiztera datorrena. Lubakietan lurperatu gintuzuen gure ametsekin, eta aspaldi zendu ginelakoan bizi izan zarete geroztik. Behin gehiago ordea, oker zeundeten. Eta itzuli gara: zuen krisi sakona gezur ederrez apainduriko krisia baino ez dela salatzera. Itzuli da hainbat urte lehenago hitz emaniko mendekua. Mendeku kulturala. Eta promesa honen erratzetan hegaka dator LUBAKI banda:

• *Idazle gazteak izan bagarela esateko, gauez lubakietan lan egiten dugunez nabaritzen ez den arren. Asko dira lehiaketetan sarituak, ehundaka zaurituak, milaka haien buruentzat soilik idazten dutenak, lehiaketen atzapar selektiboen urraduretarik babesturik. Zenbat idazle zapuztu ote dituzte sotanek eta ustezko intelektualek? Literaturak, espresabide den heinean, ezin onar dezake klasifikaziorik. Lehiaketen aurrean, liburuak, aldizkariak, fanzineak, poemak, ipuinak eta teatro saioak bultzatzeko premia daukagu.*

"Non dira idazle gazteak?" galdetzen duzuenok, jo edozein instituziotako nahiz banketxetako sotorik ilunenetara. Han aurkituko dituzue gure liburuak, zaindu gabeko edizio zarpail erratz beteak, aire girotuaren hodi izoztuen pean hezetasunak hartzen dituen orri lizunduetan, han topatuko dituzue gure lubakietatiko irteeratan utzitako aztarna mesprezatuak. Non dauden idazle gazteon lanak? Sototan ez ezik, arratoien sabeletan usteltzen dira gure insomnioetan erein liburuak.

"Non dira idazle gazteak?" obsesiboki errepikatzen duzuenok ez bide duzue isiltasunaren meritua ezagutzen. Ez zarete ohartzen gure lana isilpekoa dela, baina ez horregatik garrantzirik gabekoa. Antza denez, asko dira gure honetan isiltasunak ematen duen heldutasuna erdietsi ez dutenak. Isiltasunaren sustraietatik sortzen baita benetako literatura. Eta guk isiltasunaren kobazuloetan etzanik iraun dugu, harik eta gure borondatezko morroilopetik irtetera behartu gaituzuen arte, gure lubakietatik ateraz — denbora baino lehen agian—, zuen gezur ederrak gezurtatzera.

• *Salatzera ezkerra eta eskuina, zentrua eta erradioa, diametroa eta perimetroa. Gure lubakiak ez dira sekula geometrikoak izango. Aspaldian nazkatu ginen zenbaki absurdoen terrorismo psikologikoarekin, eta ez dugu matematikaren esperantza trigonometrikoan sinesten.*

• *Atzazalak zikindu ditugu lubakietako bideak irekiz.*

• *Ez dugu sinesten. Ez gara inor, ezer. Gauak ezaba gaitzake bere lehen aharrausiekin. Ordea, idazten dugu.*

• *Idazten dugu, engoitik existitzen gara.*

• *Ez gara inoiz fidatu poemak akatu eta autopsia egiteko erabiltzen dituzten horiez, indiferentziaren bisturiaz literaturaren erraien konposaketa zehazki adierazten diguten horiez, formolezko ontzietan sailkatutako metaforen esanahia ziurtasun pairaezinez baieztatzen duten horiez. Ez gara inoiz fidatu. Enkabalgamenduak hipodromoetako kontuak zirela uste genuen guk. Sinestesiek, anestesiek adina ikaratzen gaituzte analisiaren kirofanoetan. Euskal kritika zirujauen esku dagoen bitartean jai daukagu. Zenbaitzuk hala nahiago luketen arren, poesia ezingo da sekula ardatz kartesiarren gainean neurtu.*


• *Argitaletxeek baztertu egin gaituzte, udazkeneko parkeen bazterretara iparrak hosto hilak pilatzen dituen eran, ez dugulako izenik, hostoak garelako besterik gabe. Hostoa ni, hostoa hura, hostoak gu. Izanik ez izatea zilegi da nonbait. Ez ordea izenik ez izatea. Eta izan nahian badira ustezko edertasunaren azalkerian mozorrotzen diren izenak. Baina berez ez dira. Eta ez dugu izenik emango.*

• *Norentzat idazten ote dugun lubakietan? Esan genezake geure buruentzat idazten dugula, geure lagunentzat. Esan genezake irakurri nahi gaituenarentzat. Esan genezake, urtean behin eroarena egitea zilegi dela uste dutenentzat. Esan genezake, urtean bi aldiz eroarena egitea haizu dela uste dutenentzat. Esan genezake erotuta daudenentzat. Esan genezake bi hankatan ibiltzen direnentzat edo itzalpean egonik argia maite dutenentzat. Esan genezake anbulategietako aulkiak zenbatuz heriotzari itxaroten diotenentzat, beren burua jasan ezin dutelako jendetzan errefuxiatzen direnentzat, inork entzun ezean hitzek zentzurik ez dutela dakitenentzat. Esan genezake. Baina gezurra esango genuke ia beti. Eta ez ditugu gezurrak maite.*

• *Ez dugu idazten gure odolean dauden hitzen bolumenak gainezka egiten duen arte. Horrela, lan bakoitza oihu bat da, irakurketa bakoitza mozkorraldi bat. Agian ez genuke gehiago irakurri eta idatzi behar, gure osasunak eskertuko liguke. Baina behin eta berriz erortzen gara bizio zikin horretan. Bizitzen edo hiltzen ikasten dugunean utziko dugu ausaz albo batera literatura, seriotu egingo gara, heldu, armagintza trafikora edo politikara dedikatuko gara.*

• *Poesiaren bila ihardun dugun arren ez ditugu arrosak guk asmatu. Eta arrosetan ez ezik poesia aurkitu dugu aldamioetan ere, orubeetan, zentral elektrikoetan, gasaren instalakuntza izorratuetan, berrehun hitz bakarrik esaten dakizkiten ijitoen txaboletan. Berrehun hitz, bizitzeko lain eta gehiegi direla dakitenen txaboletan.*

(...)



GANDIAGA, BITORIANO
(Mendata, 1928)

- *Elorri (1962)*
- *Hiru gizon bakarka (1974)*
- *Uda batez Madrilen (1977)*
- *Denbora galdu alde (1985)*
- *Gabon dut anuntzio (1986)*

Jon Kortazar aipatu du Ramon Etxezarretak. Jon Kortazar eta Jesus Mari Lasagabaster dira Manu Lopezek (*Kritikak eta kritikoak azken euskal literaturan*, 1988) urte haietako profesionaltzat jotzen dituen bi bakarrak. Bada, Jonek *Jakin* aldizkarian lan egiten zuen urte horietan, 1979tik aurrera. Aldizkariak berak esplikatzen du orduko giro erretxin hartan aldizkariaren perspektibatik ze funtzio bete zezakeen kritika-mota horrek bere muga eta guzti (*Jakin: 25 urte euskal kulturan*, 1981).: "Jon Kortazarrena lan eskergarri eskerga baldin bada, leial asko eta zenbakiero-zenbakiero bere kritikak egin egin dituelako da, bai; baina, are gehiago, kritika modu bat desarroilatu duelako, giro minbera eta gaitzikor honetan, hasi eta txispazo batzuk bota ezezik, iraun eta jarraitu egin zezakeen bakarra agian. Aseptikoa. Hotza. Nolabait antzua, nahi bada. Baina gutxienez berriro posible egin du kritika. Oso erraza bait da 'kritikarik ez dago' esatea (eta ez egitea): kritika ere inposible da, ordea, kritikak eramaten ez dakien inguru literario extu, erretxin batetan. Ea nola den posible, bestela, sail bat urteetan eramatea, mundu guztiarekin hasarretu gabe".

Urte batzuk geroago ere eztabaida-giroa da nagusi kritikaren alorrean. Beren bortizkeriagatik azpimarratzekoak direla dio Manu Lopezek beste bi: Mikel Hernandez Abaitua eta Jon Juaristiren artekoa, eta berriz ere Mikel Hernandez Abaitua eta Joxerra Garziaren artekoa, biak *Argia*ren orrialdeetan eta biak 1987an.

1987. urtean ez dakit izarrak nola kokatuta zeuden zeruan eta ez dakit horiek zerikusirik ba ote duten kritikarekin, baina aipaturiko horiek ez dira kritika gogor bakarrak. Gupidagabeko beste bi ere aipatzekoak dira: Joxerra Garziak Laura Mintegiren "Bai, baina ez" liburuari egina eta Pako Aristik Arantxa Urretabizkaiaren "Saturno"ri egina.

Urte guzti horietan literatur kritikaren kritika ugari egin zuen Luis Mari Mujikak Ibon Sarasola, Ramon Etxezarreta, Josu Landa, Jon Kortazar eta beste batzuen aurka, bere ustetan, eta espresuki bere obrari buruz egin ohi ziren kritikak noiz estraliterario, noiz partzial, noiz tendentzioso zirela eta.

Edozelan ere, hain komunitate txikian lanak ditu betiere kritikak.

...Eta azkenaldikoak

Bestelako diskurtso bat hedatu da 90eko hamarkadan gutxienez. Desagertu dira garai bateko teorizazioak, polemikak, eta noski lantuak eta errebindikazio bortitzak. Gaur literaturaz ez da eztabaidatzen.

Literaturaren heldutasuna, kalitatea, sendotasuna, aniztasuna, modernotasuna, homologagarritasuna (komatxoen artean bada ere), horra gaurko gaiak. Osasun ona omen du literaturak.

Ni ez naiz kritikoa, eta ez dakit. Bistan da idazlan helduagoak, biribilagoak, osoagoak maizago atera ohi direla egun. Baina obra batek, hamar obrek, hogei obrek ez dute beraiek bakarrik kalifikatzen literatura baten maila.


Literaturaren kalitateaz, homologagarritasunaz edo dena delakoaz mintzo garenean obraz gain idazlea, ekoizpena, ingurunea, hizkuntza, irakurlea hartu beharko lirateke kontuan. Sistema literarioa, alegia, edo literatura erakunde gisa. Baikortasunaren ardoari ura botatzea ote da hau? Dena den, iritzietan murgildu aurretik esanda utzi nahi nuen, eta kitto. Balio lezake agian zenbait iritzi bere tamaina errealera ekartzeko.

Susmoa dut, gainera, literaturaren kalitatea aupatzen denean, *de facto* narratiba dugula gogoan, narratiba bakarrik.

Esandako guztia esanda ere, beltzegia iruditzen zait Jesus Mari Lasagabaster-en (1990) ikuspegia (inpresioa, dio berak), zeinen arabera euskal literaturaren bizitzak artifizialkeri punttu bat baileukake, estufa edo negutegikoa bailitzateke. "Korta sunda"ko literatura dela gurea, dio.


Prentsan agertutako iritzien erreferentziak dira guzti horiek. Iritzi indibidualak, nolabait esan.

Objetibizatzeko asmotan, idazleen kolektiboari zuzendu gatzaizkio batetik bestera aidean dabiltzan iritzi hauen inguruan bere pentsaera azal dezatela eskatuz. Inkestako iritziak dira, hortaz, aurrerantzean azal-



GARATE, GOTZON (Elgoibar, 1934)

- *Marx-en Marxismoa. Soziologia (1971)*
- *Marx eta Nazioa (I. Bizitza eta teoria). Soziologia (1972)*
- *Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg. Leninen bizitza (1974)*
- *Maoren Marxismoa: Maoismoa (1977)*
- *Esku leuna (1978)*
- *Elizondoko eskutitzak (1979)*
- *Goizuetako ezkongaiak (1979)*
- *Lehortean (1980)*
- *Lenin, eta nazioen autodeterminazio eskubidea (1980)*
- *Muskilak (1980)*
- *Nafarroako Ezkurran (1981)*
- *Aldarte oneko ipuinak (1982)*
- *Izurri berria (1982)*
- *Hades-en erresumarantz (1983)*
- *Leninen Marxismoa: Leninismoa (1983)*
- *Alaba (1984)*
- *Euskal elaberriaren kondaira. I. Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko (1984)*
- *Euskal elaberriaren kondaira. II (1985)*
- *Erdarakadak (1988)*
- *New York, New York (1988)*
- *Euskal Elaberrien kondaira. III (1991)*
- *Zilarrezko Gazteluaren Kronika Urratua (1992)*
- *Euskal atsotitzak (1995)*



GARATE, ROMAN (Elgoibar, 1925)

- *Lanaren antropologia (1973)*
- *Lanaren antropologia. II. (1985)*
- *Etika sarrera. Ez-ta-bai-dan (1990)*
- *Etika eta Askatasuna (1993)*

duko ditugunak. Idazleen iritziak, eta kasuren batean argitaratzaileenak, inkesta banatan jasoak.

Literaturaren kalitatea, idazleen iritzira

Ez dago metrorik literaturaren kalitatea objektiboki neurtuko duenik. Jakina da hori. Jakina ez dakit baina askotan errepikatua behintzat bai bada, ez dagoela taxuzko kritikarik gurean. Eta mihi gaiztoek diotenez, lagun eta etsaien artean partitzen omen dira literaturzaleen kritikak, aipamen hutsak ez direnean bederen.

Zer egin? Ez zaigu biderik txarrena iruditu idazleei beraiei eskatzea literatura baliozta dezaten. Kalifikazioa eman literaturari, eta alde on eta txarrak adieraztea eskatu. Abantailen artean, anonimatuarena ere badu erantzun-sorta honek.

"Zer-nolakoa da euskal literatura modernoaren (azken 20-25 urteko) kalitatea?" galdetu dugu. Hona erantzunak, eskaini diegun aukeren arabera ordenatuak:

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	7,1
Oso ona	3,8
Ona	61,4
Erdipurdikoa	22,3
Txarra	1,6
Oso txarra	0,5
Besterik	1,1

Aukeraren muturretan ez da boto askorik biltzen. Idazle gutxi dira egungo literatura oso maila onean ikusten dutenak. Gutxiago, ordea, maila eskasekotzat jotzen dutenak.

Maila oso ona ez du izango, baina maila ona, itxurazkoa, ganorazkoa, onargarria, bai, maila hori gehienentzat du (% 61,4). Maila honetan pilatzen den iritzi-sorta hori da inportanteena hemen, idazle gehienek hori pentsatzen baitute. Egin kontu maila ona edo oso ona duela pentsatzen dutenak gehiengo handia direla: % 65, 2. Hau da iritzi maioritarioa, ez da dudarik.

Kalitate onaren eta txarraren artean erdipurdikoa dago, bata eta bestea nahasian. Euskal literatura modernoa hor kokatzen duen idazle-multzoak ere badu bere pisua: % 22,3. Gehiengoaren iritzia matizatzeko balio lezake.

Matizazio horiek, egia esan, balorazio-maila guztietan daude. Idazleen iritzietan errealitatea ez da txuri ala beltz. Ezta gutxiago ere. Literaturari maila ona ematen dionak aurkitzen dizkio akatsak, eta erdipurdiko mailan kokatzen duenak alderdi positiboak aitortzen badaki, nola ez.

Boto baloratiboa eta iritzi kritikoa aldi berean bildu ditu inkestak. Kalifikazio orokorraz gain, alde positibo eta negatibo nagusitxoenak aipatzen baitituzte idazleek. Nahiz eta botoa eman duten guzti-guztiek iritzirik eman ez, berrehundik gora erantzun jaso ditugu.

Esan bezala, alderdi positiboak seinalatzera datoz erantzun batzuk. Eta akatsak, puntu beltzak salatzera besteak. Asko edo gutxi, alde zein kontra, ardatz beretan jira-biraka dabiltza iritziak: idazkera literarioa, hizkuntza, tematika, modernotasuna, besteak beste.

Iritzi horiek, den-denak ez bada ere, bere horretan emango ditugu segidan, ordena jakin batean. Inkestan bezala, alderdi on eta negatiboak, bertuteak eta akatsak, bitan sailkaturik datoz. Eta sail bakoitzaren barruan, eman duten balorazioaren arabera multzokatuta aurkezten ditugu iritziak.



GARCIA DE CORTAZAR, MIRARI (Donostia, 1969)

- *Poesiaren magalean (1995)*
- *Itzaleko hitzak (1995)*


Literatura modernoaren "bertuteak"

"Oso ona" erantzuten dutenen iritzia

- *Aniztasuna, "zernahitarako"tasuna*
- *Bide berriak urratu direlako eta hizkuntza aberastu ere*
- *Gai-aniztasuna, hizkuntz garapena*
- *Luzaroagoan dirauten beste hizkuntzetako literaturen adinako maila badu*

"Ona" erantzun dutenen iritzia

- *"Modernoa" izatea, gaztea izatea*
- *"Zerbait" egin nahi izatea*
- *Adorea, kemena, ausartzia*
- *Ahaleginezko fruitua*
- *Azken 20-25 urte hauetan inoiz izan duen kalitaterik hoberena duela iruditzen zait. Bertute nagusia niretzat "literaturizatze"-prozesuak berez ekarri duena da. Alegia, azken urteotan euskal idazleak ez du, jadanik,*



GARMENDIA, JUAN (Tolosa, 1926)

- *Euskal esku-langintza / Artesanía vasca. I-VI (1970-1979)*
- *Album de Artesanía Vasca. Euskal esku-langintz bilduma (1973)*
- *Iñauteria / El carnaval vasco (1973)*
- *Burniarozgintza eta zurlangintza Berastegin / La forja del hierro y el labrado de la madera en Berástegui (1982)*
- *Bidasoaldeko eskulangilleak. Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak (1986)*
- *Historia egiten duten industria tolosarrak (1987)*
- *Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta Orixeren etnologiazko zenbait gai. (1988)*
- *Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa (1991)*
- *Gipuzkoako Aia herria. Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa (1991)*
- *Neguko festak (1993)*
- *Umeen jolasak (1993)*
- *Jentilak, sorginak eta beste (1994)*

euskara salbatzeko idazten. Euskal idazleak literatura egin nahi du. Akats nagusia nire ustez zera da, hainbat idazlek pentsatzen du berarekin hasi dela euskal literatura, eta ez du antzinako idazleengana itzultzeko premiarik sentitzen. Beste batzuek, berriz, pentsatzen dute jarrai daitekeela idazten Melville, Faulkner, Stevenson, Conrad.... e.a. euskaratuta ez zeuden garaian idazten zen bezala. Gure idazkera literarioaren trena martxan da, eta batzuk bidean ari dira gelditzen


- *Barietatea*
- *Barietatea, freskotasuna, bide berrien jorratzea*
- *Bere indarra nagusiki, gaien zabalkuntza, eta nagusiki lore-ontzitik jalgi izana*
- *Berrikuntza bila joatea*
- *Berrikuntza formal eta tematikoa, literatur hizkera finkatzen ari da*
- *Beste literaturekiko homologazio-bidean egindako aurrerapena*
- *Bezeria potentzial txikiarekin irauteko adinako merkatua izatea*
- *Bide berriagoak eta hiziak irekitzeko erakusten duen grina*
- *Bide berriak urratzea*
- *Denbora gutxian, dezente modernizatu da*
- *Dezenteko produkzioa lortu da, genero batzuetan tradizio pixka bat, euskara-eredua finkatu, kalitate handiko obra batzuk*
- *Eleberri eta narratiban gure idazle batzuek goiko maila lortu dute. Poesian ere egingo litzateke gauza onik, laguntzarik balego...*
- *Era eta gai guztietako liburu interesgarriak idazten direlako*
- *Eraberritzea*
- *Erakusleihoetan egotea*
- *Erakutsi duen egokitzapen-ahalmena, 25 urtetan jauzia egin du XIX.etik 2000 urtera*
- *Erdipurdikotik onera egin dugu*
- *Esparru eta gai berri askotara zabaldu izana, hizkuntza gai urbanoetara hurbilduz, kasu*
- *Esparruak asko zabaldu, prejuizioak gainditu, adierazteko trebetasuna aniztu eta ondo*
- *Estetikari indar gehiago eman zaio. Testu atseginak, aberatsak idazten dira*
- *Estilo eta teknika ezberdinak bereganatu eta landu izana*
- *Europako tradizioari begiratu zaio, ez Espaniakoari bakarrik*
- *Euskal mundutik bertatik abiatzea literaturari bere-bereak dituen ñabardurak emateko*
- *Euskara gizarteko esparru guztietara eraman dute. Bagarela aditzera eman dugu munduaren aurrean*
- *Euskaraz aritzea*
- *Euskera aintzat hartzea*

- *Ez daukat iritzi handirik, baina gaiak ongi tratatzea, ugaritasuna, gai interesgarriak*
- *Ez dut ikusten "bertute kolektiborik"; bakoitza -edo autorea- bere bertute bereziekin dator*
- *Gaur egungo bizimoduarekin lotuta. Hizkuntz garapena. Ikuspuntu ezberdinak. Estilo ezberdinak*
- *Gaur egungo gai eta estiloan murgilduta egotea*
- *Gaurkotasuna, aniztasuna, homologagarria inguruko literaturekin*
- *Gaurkotua da, homologatua*
- *Genero gehienak lantzen dira eta nahikoa duintasunez*
- *Gero eta gehiago literatura ona egitea du helburu*
- *Gero eta zabalagoa, bai generotan bai gaietan...*
- *Hizkuntz kalitatean gorantz egin du eta tematika-aldetik oparoa da*
- *Hizkuntza aberatsa eta literatur balioak ikusten dira arrakasta izaten duten obretan*
- *Hizkuntza zahar hilzori bat, gurea, berpiztu izanaren baikortasun sortzailearen plazerra sentitzen dugu, nik uste*
- *Hizkuntzaren erabilera. Gai interesgarriak*
- *Hoberantz doa*
- *Hurbiltasuna, ikuspegi propioa, mundu txiki baten isla*
- *Idazkeraren garapena, gaien egungotasuna*
- *Idazle eta gaien barietatea, orijinaltasuna, euskara aberatsa*
- *Irakurgarritasuna*
- *Irakurle fidelak lortzea*
- *Irizpide literarioak nagusi. Hizkeraren kalitatea (Otto Pette, etab.). Plazer emailea. Kritikoa. Esportablea*
- *Jende asko inplikatu izana.*
- *Konplexuak galtzen ari da eta esparru ugari dauzka oraindik lantzeko*
- *Konprometitua euskal literaturarekin, gaurkotasuna, grazia eta gatza*
- *Kultura eta literaturaren esparru guztietan argitaratzea*
- *Leihoak kanpora ireki izana*
- *Literatura ezagutzen duen idazlearen eskutik datorrela. Teknika, joerak ezagutzen...*
- *Literaturtasuna, idazleen ilusioa, bizitasuna, barietatea*
- *Metaliteratura egitea*
- *Modernizatzen, irekitzen, jarri duen ahalegina*
- *Modernotasuna, hizkuntzarekiko ardura, ahots propio baten garapena, itzulpengintzapen aurrerapausoa*
- *Munduko beste literaturak dituen iturri bertsuak ditu, gaurkotasuna du*
- *Munduko literaturaren ezagutza. Euskaren "modernizatzeko" entsaioa*
- *Nobela-sorta ona egin da. Nobelagileak trebatu dira. Beste lurraldeetako tendentziak geureganatu dira.*



GARMENDIA, TXOMIN
(Berrobi, 1934)

- *Bizitzaren arian (1982)*
- *Denbora pasa (1982)*
- *Bordaberri'ko gozo-mikatzak (1983)*
- *Bertsolari-kurpilla (1984)*
- *Erririk-erri (1984)*
- *Beltzak eta zuriak mendian ardiak (1985)*



GARMENDIA, Xalbador (Zaldibia, 1932)


- *Lurraren kondaira (1970)*
- *Beltza! Beltza! (1990)*

- *Olerkigintzan eta ipuingintzan gaurkotasuna nabaritzen da*
- *Ona denean literaturari berari buruzko erreflexioak, euskarari buruzkoak... piztu egiten dituela*
- *Ongi landutako liburu dezente dago, kalitate bila joandako jendearena*
- *Oraiko euskal literaturak nahi du beste literaturen heinerat heldu. Zabaltzen da kanpoko eragineri*
- *Oso alor ezberdinetara heldu izana*
- *Poesia batik bat oso ona da, edozein lurraldekin parekatzekoa*
- *Teknikotasuna eta kultismoa*
- *Tradizioa berrasmatzea eta egungo errealitateari egokitu nahi izana*
- *Ugaritasuna eta militantzia*
- *Unibertsalizatzen ari da*
- *Urrats berriak ematea, bide berriak urratzea*
- *Zenbaitetan herri hau bere gatazka eta kontradikzioekin agertzen dela*
- *Zintzotasuna eta konpromisoa justiziarekin*

Literatura modernoaren akatsak


- *Agian bere urritasuna kantitatean*
- *Amateurismo erabatekoa, informazio-eskasia, autarkia*
- *Anbizio gutxitxo askotan*
- *Aniztasun-falta. Erregistro-falta. Estilo landuen eskasia*
- *Argitaletxe batzuek testuak behar bezain ondo ez zaintzea. Hau nabarmenagoa duela 10 bat urte orain baino*
- *Arintasun-falta, seriotasun larregi, idazleen inpermeabilitatea, humore-eskasia, pretentsio larregia*
- *Asko idatzi eta gutxi irakurri*
- *Askotan edozein liburuk aurkitzen du argitaratzeko bidea*
- *Aspergarria, eta "sakonkeriak" jota*
- *Astuna, pisua, handinaia, korapilatsua*
- *Barrikeria asko, sakontasun gitxi. Hainbat herri-bizitzatik etenda*
- *Batzuetan oso txarra dela*
- *Batzutan narratiba nahasiegia, linealagoa beharko genuke dugun irakurlearentzat*
- *Belarririk eza. Hizkuntzarekiko menpekotasuna. Normaldu gabea*
- *Berezikeriaren onarpena*
- *Beste literatura horiek imitatzeko ahalegina nabari zaio sarritan*
- *Besteak beste, filologo gehiegi eta literaturazale dezente gutxiago bildu izana*
- *Bolada batean merezi ez zuen liburu asko publikatu da*
- *Eduki aldetik, eskasa; denborapasakoa izatea gehiena*
- *Erdal ereduen "kopiatzeko" grina*

- *Erdal mimetismoarena, agian*
- *Erdarakadak, erdararen egitura eta joskerak ugari sartzea*
- *Erdarakadei eta baldarkeriei kontrolik ez jartzea kasu askotan. Euskal Herriko parametrodun idazlan gutxiegi*
- *Eredu onak irakurri eta lantzen ez diren ezkero, edozela idazten dalako. Asko irakurri eta idatzita egiten da idazle bikain (beste hizkuntzetan lez)*
- *Errazegi publikatzea. Idazle edo figura gutxi batzuetan polarizatzea propaganda edo*
- *Errazkeria, saldu beharrari amore ematea*
- *Errikoia ez izatea, Euskalerriko zoko bakar batean ere itzegiten ez dan izkera Euskera ez bait da*
- *Estandarizazioa eta modak, idazle klasikoak zokoratzea, itzulpenaren menpe egotea*
- *Etno-zentristegi beharbada?*
- *Euskal idatzia literaturara itsuki batzuetan, gaiztakeriz bestetzutan mugatzea*
- *Euskal idazkintza literatura baino gehiago izan behar da*
- *Euskara gutxi ezagutzea eta lantzea*
- *Euskara hizkera murriztua, klasikorik gabea. Zer kontatu gutxi daukan jende gaztearena*
- *Euskara mordoiloa, ulergaiztasuna, astuntasuna, idazten denaren interes falta*
- *Euskara mordoilo antzekoa*
- *Euskararen berezko eitea, moldeak, hitz-kateak, etab. gehiegi baztertu izana*
- *Euskararen normaltasuna ez dela finkatu*
- *Euskaraz ari den lur puska honetako edozein sorkariren unibertsaltasuna, eta gehiengo akonplejatu batek ez*
- *Euskarazko herri-tradizioa asimilatu gabeko literatura landua*
- *Euskera erdipurdikoa eta sakontasun gitxi*
- *Euskera kaskarra ta tirriña dabillela*
- *Ez beti aski landua*
- *Ez dago euskal kritika tajuzkorik, irakurle gutxi dago, literaturzale gutxi dago, idazle gutxi dago*
- *"Fikzio" gutxi (Formalismo Rusoak eskatua ez da ezagutzen...)*
- *Filologiaren eragin handiegia, garbizaletasuna tirania, umorerik eza...*
- *Formalismo gehiegi, zer esateko gutxi*
- *Formaren mende, gai eta gune berriak ikertzeko zailtasunak, "modak" indar gehiegi*
- *Gai berdinari, "euskal arazoari" ikuspegi guztietatik buelta asko eman zaio, eta horrek, asperdura ekarri du*
- *Gai-urritasuna, handi-usteko astunkeria*



GARZIA, JOXERRA (Legazpi, 1953)

- *Malen laberinto madarikatuan (1986)*
- *Dena dela (Bezperaren kronika) (1988)*
- *Gau bat gauekoen artean (1988)*
- *Zotal egunak (1991)*



GARZIA, JUAN (Legazpi, 1955)

- *Akaso (1987)*
- *Gabonak Gubbio-n (1991)*
- *Itzalen itzal (1993)*
- *Sudur puntan mundua (1994)*
- *Fadoa Coinbran (1995)*

- *Garai batean "esperimentalismo" gehiegitxo. "Elitismoa", irakurle xehearen gustuak kontuan hartu gabe. Kritika sakonik eza*
- *Geure zilborrari begira egina izatea*
- *Gipuzkera batua hartzen da sarritan euskara batutzat. Askotan gainera euskara berde eta gogorra, gordina, ez gozoa*
- *Goian esandako kalitatekoak banakak edo gutxi izatea. Gutxik hartzen dute literatura jarduera garrantzitsutzat eta horrek ondorio txarrak ditu*
- *Gramatika zauritzea, lexiko maiz traketsa, barruko gar (lirismo) eskasa, habel-eza*
- *Gutxi garatua. Euskara normaltzeko asko falta. Irakurlego-eskasia*
- *Heldugabezia, auto-ederrespena, eskematismoa neurri batean, itzultzaileen lanari esker gainditzen ari dena*
- *Hizkuntza bizi eta idatziaren arteko etena. Gizarte zabalarekiko nolabaiteko etena*
- *Hizkuntza ilunegia*
- *Hizkuntzarekiko eta ideologiarekiko morrontza*
- *Hizkuntzaren egoerak gehiegi baldintzatzen du. Idazle profesionalak falta ditugu*
- *Hizkuntzaren erabilcran ardura gutxiegi batzuctan*
- *Hizkuntzaren gordintasuna*
- *Hiztegiarenganako arbuioa*
- *Idazle berrien falta*
- *Idazle gutxiegi izatea. Beste hizkuntzetara itzuli ez izana (salbuespenak salbuespen)*
- *Idazten den guztia argitaratzea*
- *"Intelligentsia" omen delakoa gutxi nahastu da: "Ad majora natus sum" diotelako*
- *Irakaskuntzari lotuegi egotea. Idazle gehienak gipuzkoarrak eta "arrak" izatea. Euskal Herriari buruz ematen den irudia Euskal Herria berdearena da, eta hori gipuzkeratik edaten duen euskara batuan. Bizkaiera edo beste edozein euskalki ez daude nik nahi nukeen bezain present, eta, bestalde, Euskal Herria horiaren eszenatokia apenas ematen den*
- *Irakurle gutxi eskolatik kanpo, kultur promoziorako azpiegiturarik eza, kanpokoekiko komplexua idazleen artean, gizartetik urrundutako literatura egitea*
- *Irakurleaz ahaztea. Irudimen gutxi izatea*
- *Irudimena falta da; argumentuari kasu gehiago egin behar zaio; eduki-alderdiak gehiago zaindu*
- *Izkuntzaren ezaupide gitxi*
- *Kalitate eskasa*
- *Kalitate eta kritika-falta*

- *Kalitate eza (zenbaitetan), nabarmenkeriak, gehiegizko erruralismoa (zorionez gainditu dena)*
- *Kalitate gutisko*
- *Kanpoarekiko imitazioa, aurrekoarekiko ezezagupena*
- *Komertzializazioa, hedapena (beste hizkuntzetara)*
- *Konfiantza-falta*
- *Kritika eskasa maila guztietan*
- *Kritika literariorik eza. Hau kalitatearen kalterako izan da*
- *Kritikarik eza, taldekeria, anbiziorik eza, hizkeraz nahiz literatur tratamenduaz errazkeriara jotzeko joera*
- *Kultura literatura bezala bakarrik ulertzea, beste eremuak landu gabe (Zientzia, Historia, Artea, Fikzioa...)*
- *Lan batzuk esperimentalegiak dira*
- *Literatur prosaren arazoak oraindik orain*
- *Literatura aspergarri asko egin da*
- *Literatura handi batzuen itzal handiegia. Imitazioa*
- *Marjinalismoa, bata bestearenganako mesprezua, txulokeria*
- *Marketing-ak ez du oso ondo funtzionatzen eta badirudi bizpahiru idazle ditugula bakarrik eta idazle horien obra oso ona dela. Dena den, hau erdal literaturan ere gertatzen da, ezta?*
- *Merkatuaren (erosleen) irizpide/kritikarik eza*
- *Monotema politikoa eta obsesio nazionalista noizean behin aparkatuz askoz hobea izango litzateke*
- *Mugatuegia*
- *Mundu erreferentzial hertsia*
- *Nobelagintza urriegia*
- *Nork domeinatzen du literatura? Zein interesekin? Zergatik argitaletxe batzuen liburuen berri ez da zenbait egunkari batzuetan agertzen?*
- *Oraindik ere oso herrikoia dela. Geure nortasuna defendatzeko edo, ez gara behar bezala zabaltzen*
- *Oraindik ere umotasun-falta hizkuntza modernoan eta idazleen gaztetasuna (itxaropentsua)*
- *Oraindik ez da guztiz lortu hizkuntza literariorik*
- *Oreka-falta hizkuntzari dagokionez eta zail izateari izua*
- *Panorama desorekatua*
- *Pasotismoa*
- *Pentsamendu-liburuen gabezia larria da*
- *Probintziakeriak, Baserrikeriak, Autozentsura, Politikakeriak*
- *Sarritan zailtasuna*
- *Serioegia da. Denborapasarako astunegia da, Estefania modukoak (mutur batera eramanda kuestioa) behar ditugu*
- *Serioegia, trinkoa*



GENUA, ENKARNI (Donostia, 1942)

- *Erreka Mari (1979)*
- *Zezena plazan (1981)*
- *Txotxongiloa eskolan (1982)*
- *Printze txikia (1985)*
- *Ipurtargi. Hondarrezko gaztelua (1986)*
- *Ipurtargi. Txori txiki polit bat (1986)*
- *Altxor bat patrikan (1987)*
- *Ipurtargi: Azken eta Putz sagutxoak (1989)*
- *Ipurtargi: Udazkeneko haizea (1989)*
- *Itsasminez (1990)*
- *Dramatizazioa 1-5 (1992-1994)*
- *Euskaraz jolasteko liburua (1994)*
- *Galtzagorriak (1995)*

- *Subentzio-bila idazle gehienak jabeak menpekotasuna ekar dezake*
- *Taldekeria/probintzialkeria*
- *Tradizio eskasa eta alboan literatura handiak*
- *Unibertsal konplexua, erdarara -batez ere espainiara- begira, pedante samarra*
- *Urritasuna eta antimilitantzia. Irakurlerik eza, inkomunikazioa*
- *Zenbaitetan literaturtasun-falta; lan laburregiak; segida eta koherentzia falta*
- *Zer esanik gabe idaztea*
- *Zonbait autorek ez dakite idazten hitz korapilatsutan baizik: irakurleak aspertzen dira eta ez dute irakurtzen bururaino. Behar litzateke lexiko bat, azken kapitulu gisa*
- *Zurruna izatea, lehorra, estereotipo askorekin jokatzea, Paternalismoa*
- *Baserritar kutsua, gizartetik aldendua, mistizismo merkea, espiritualitate faltsua*

Azken 20-25 urteotako 10 euskal obra "hoberenak"

Galdera beretsua egin genuen *Euskal Idazleak gaur* (1977) libururako moldatu genuen inkestan. Eta orain bezala orduan, idazleek beren hautaketa egin zuten.

Baina zein aldea orduko eta oraingo hautaketen artean!

Bi zerrendak elkarren ondoan jarri eta alderatuz ikus daiteke, tesi handiren premiarik gabe, zenbat aldatu den egoera; zehazkiago esan, zenbat aurreratu dugun ordutik hona. Pentsaezina litzateke zerrenda hori bere osoan gaurko idazleek onar zezaketenik. Orduko interesak eta balorazioak eta oraingoak bi mundu dira.

Gogoratzearren dakartzagu hona 1975an egindako inkestan agertu ziren hamar lan hautatuen tituluak: *Harri eta Herri* (Gabriel Aresti); *Mitxelenaren idazlan hautatuak* (Koldo Mitxelena); *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa* (Joxe Azurmendi); *Huntaz eta Hartaz* (Txillardegi); *Elsa Scheelen* (Txillardegi); *Euskal literaturaren historia* (Ibon Sarasola); *Hiru gizon bakarka* (Bitoriano Gandiaga); *Egunero hasten delako* (Ramon Saizarbitoria); *Herriaren lekuko* (Rikardo Arregi); *Axular-en Hiztegia* (Luis Villasante).

Arras bestelako jitea du oraingo lehen hamarren zerrendak. Literatur lanak dira denak: fikziozkoak denak, Joxe Azurmendiren saiakera salbu.

Hona obren izenak eta jaso dituzten botoak:

Obabakoak	99	boto
Otto Pette	69	"
Narrazioak	38	"
Hamaika pauso	33	"
Babilonia	31	"
Espainolak eta Euskaldunak	25	"
Ehun metro	23	"
Gizona bere bakardadean	21	"
Ni ez naiz hemengoa	20	"
Azukrea belazeetan	20	"





GEREÑO, XABIER (Bilbo, 1924)

- *Arantza artean (1969)*
- *Arqi bat iluntasunean (1970)*
- *Nora naramazue (1972)*
- *Andereño (1975)*
- *Espioitza (1977)*
- *Jurgi kapitaina Britainian (1978)*
- *12 nobela labur (1979)*
- *7 teatro lan (1979)*
- *9 nobela labur (1980)*
- *Faro madarikatua (1981)*
- *8 teatro lan (1982)*
- *Jurgi kapitaina Hong Kong-en (1982)*
- *Antonello Euskal Herrian (1983)*
- *Milia eta bere tenientea (1984)*
- *Txisteak, teatroa eta narrazioak (1984)*
- *Ametsetan galduta (1985)*
- *Iheslariak (1985)*
- *Konspiratzaileak (1986)*
- *Simon Goldmayer-en bahiketa (1986)*
- *Gadafi hiltzeko agindua (1987)*
- *Afrika beltzean (1988)*
- *Euskal espioiak nazien aurka (1988)*
- *Kikili, Kokolo eta Rivoltosa (1989)*
- *M-7 ajentea (1989)*
- *Alferrik hilak (1990)*
- *Amazonia-ko misterioa (1990)*
- *Drogen munduan (1991)*
- *Jostailu garestia (1991)*
- *Umorezko teatroa 1 (1993)*
- *Umorezko teatroa 2 (1993)*
- *Teatroa (3-8) (1994)*
- *Tripetako mina (1995)*
- *Zorabioa (1995)*

Boto gehien jaso dituzten hauen ondotik, oso ondotik bat edo beste, beste obra hauek datoz: *Hamaseigarrenean aidanez* (17 boto), *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (14 boto), *Balizko erroten erresuma* (14 boto).

Nahi adina komentario egin liteke zerrenda honen aurrean. Adibidez, merezi du seinalatzea Bernardo Atxagaren hiru lan daudela eta Ramon Saizarbitoriaren bi; fikziozkoa ez den bakarra, Joxe Azurmendiren entsegua dela; lehenengoetatik azkenekoetara boto-alde handia dagoela noski, baina baita ere lehen bosten artean.

"Top" zerrenda hauen balioaz ere nahi dena pentsa liteke. Idazle askok ez dituzte gustuko, eta hori garbi ageri da abstentzioan (% 44,8, txikiagoa 50 urtetik beherakoengan). Gustuak eta disgustuak aparte, daukan balioa dauka, eta ez gehiago. Baina ezta ere gutxiago. Ez du balio azterketa gisa. Baina balio du aukera gisa. Balorazio-mota bat adierazten du, gutxienez. Adibidez, inkestak ez zuen zehazten zein liburu-mota aukeratu, baina ikusia dago denek literaturan pentsatu dutela. Esanguratsua da hori. Aurreko inkestan gertatu zenaren kontrakoa. Eta obraz obrako aukerak ere zerbait esan nahiko du, bada? Niri neuri zerrenda honek sorpresa handirik ez dit ekarri, baina iruditzen zait hemengo bospaseiren tokian beste bospasei egon zitezkeela duintasun berdinez.

Adin-taldeka idazlegoa multzokatu eta ikusi dugu badirela aldeak obren aukeran. Ia beti obra berak dira aukeratuak, baina ordena mantentzen duen bakarra "Obabakoak" da. Edadetuenen artean hamarreko zerrendaz kanpoko tituluak ere ageri dira. Bost obra bitarteko aukerak aztertu ditugu. Egin kontu adin-multzo bakoitzean idazleen kopurua berrogeita hamarretik azpikoa dela.

- 35 urtetik beherakoen artean

Obabakoak	31	boto
Otto Pette	21	"
Narrazioak	17	"
Hamaika pauso	11	"
Ni ez naiz hemengoa	8	"

• 36-45 urte bitartekoen artean

Obabakoak	24	boto
Otto Pette	16	"
Narrazioak	11	"
Ehun metro	10	"
Espainolak eta Euskaldunak	9	"

• 46-50 urte bitartekoen artean

Obabakoak	25	boto
Otto Pette	22	"
Babilonia	14	"
Hamaika pauso	9	"
Espainolak eta euskaldunak	8	"


• 51-60 urte bitartekoan artean

Obabakoak	13	boto
Otto Pette	8	"
Babilonia	5	"
Hamaika pauso	4	"
Gizona bere bakardadean	4	"

• 61 urtetik gorakoen artean

Obabakoak	6	boto
Espainolak eta Euskaldunak	3	"
Hamaseigarrenean aidanez	2	"
Abuztuaren 15eko...	2	"
Otto Pette	2	"

Sexuaren arabera ere badira aldeak idazlanen hobespenean. Hona emakume idazleen lehen hamarrak:



GIL BERA, EDUARDO (Tutera, 1957)

- *Atea bere erroetan bezala (1988)*
- *Hortus Botanicus (1989)*
- *O tempora! O mores! (1989)*
- *Fisikaz honatago (1990)*

Obabakoak	11	boto
Otto Petite	8	"
Narrazioak	7	"
Hamaika pauso	4	"
Gizona bere bakardadean	4	"
Ehun metro	4	"
Egunero hasten delako	4	"
Babilonia	3	"
Hamaseigarrenean aidanez	3	"
Ni ez naiz hemengoa	2	"
Bi anai	2	"
Behi euskaldun baten mem.	2	"
Azukrea belazeetan	2	"



GOENAGA, Patxi (Azpeitia, 1948)

- Gramatika bideetan (1979)

Zerrenda nagusiko ordena bera mantentzen da lehen lauetan. Baina laugarren lekuan datorren "Hamaika pauso"ren kalifikazio bera merezi dute beste hiruk.

Emakumeen hobespenetan ez da zerrendan agertzen Joxe Azurmendiren "Espainolak eta Euskaldunak". Zerrendan, bestalde, hainbanako ugari ageri da: lau botorekin lau; hiru botorekin bi; eta bi botorekin beste lau.

Euskal literatura kanporatzea


Kanpora ateratzea, euskal literaturaren esportazioa premia bezala, posibilitate bezala, aukera eta desafio bezala hitzetik hortzera aipatu ohi da gure artean azkenaldi honetan.

Han-hemenka agertu diren iritziak mieztu ondoren, hiru lehentasun elkarren lehian bezala ikusten ditut. Premiazkoena, batzuentzat, euskaratzea da, jatorrizko ekoizpenak ezin baitie osoki erantzun euskaldungoaren premiei. Xabier Mendiguren Bereziarturen jarrera, kasurako. Premiazkoena, beste batzuentzat, bertoko produktuak kanporatzea da. Txikiegia da euskararen merkatu naturala. Itotzetik ihes, erdaren haizeei esker hegan egin behar du euskal literaturak. Xabier Etxaniz eta beste hainbaten jarrera. "Sinn Fein" sindromea gainditu beharra aipatu du Ibon Sarasolak (1995): "Euskarak gaztelerara, frantserara, ingelesera... irten behar du. Gure lanak beste hizkuntzetara itzultzea superbibentzi arazoa da, bestela suizida da, Sinn Fein sindromea, hots: Gu bakarrik".

Kanpora irten behar hori ez du horren premiazko ikusten Anjel Lertxundik (1995): "Nik ez diot beste munduko garrantzirik ematen atzerriarekiko homologatu behar horri. Alde nago, baina ez da hil ala biziko kontua. Inportanteena egina dago jadanik, hau da, gure literaturaren maila altua hor dago eta ez dago konplexuetarako arrazoirik. Ez dut uste euskal literaturari gaztelerara pasatzeak kalte egingo dionik, baina ez zait gehiegi interesatzen. (...) Geu izatea da literatura unibertsalak eskatzen diguna, gure ahots propioa, identifikagarria anplifikatzea".

Hiru premiazkotasunok, inportazioa, esportazioa, ekoizpen propioa, ez dira nahitaez elkarren etsai, ez ezkontezin. Baina nahikoa lan hiruok batera aurrera eraman nahi izanez gero.

Dena den, ez da hori guk erabakitzekoa. Guk hemen jakin nahi duguna da zein den editore eta idazleen jarrera arazo hauen inguruan.



GOIHENETXE, MANEX (Esterenzubi, 1942)

- Lapurdi historian (1987)

Literatura esportagarria, argitaratzaileen iritziz

"Euskal literatura 'esportagarria' al da gaur egun?" galderaren aurrean honela posizionatu dira editoreak:

Editoreen erantzuna	%
Erantzunik ez	16,7
Bai	55,6
Ez	27,8

Lautik bat pasatxok ezetz uste badu ere, gehiengo absolutuak uste du nahikoa kalitate baduela euskal literaturak eta ez duela lotsarik izan behar kanpora ateratzeko. Era honetara justifikatzen dute beren baietza:

- Beharrezkoa den kalitatea du
- Kanpotik datozenen antzerako kalitatea du
- Europako mendebaldean egiten den literaturarekin homologagarria da
- Bada aspaldi kalitate-maila nahikoa erakutsi duela, batez beste.
- Aberatsa da
- Oro har edozein naziotako literatura bezain kalitatezkoa da

Idazleen iritziak

Baieztapen baten bidez bildu nahi izan dugu idazleen iritzia. Baietza edo ezetza ez baino kanpora ateratzeko euskal liburuak dituen trabak detektatzea interesatzen zitzaigun: "Euskal liburu gutxi itzultzen da beste hizkuntzetara. Zergatik?"

Bertsolariari "puntua" bezala, geuk jarri genien zertaz erantzun, ez nola. Hiru arrazoi-mota eman genien aukeran: kalitaterik eza, edo literatur obrari berari dagokiokeen gaia; politikarik eza, edo itzulpengintzaren antolamenduari dagokiokeena; hizkuntz distantzia, edo euskarak albohizkuntza latinoekin duen arazo objektiboari dagokiokeena.

Erantzuna nork bere ustezko garrantziaren arabera mailakaturik eman zezala eskatu zitzaien. Hona erantzunak:

Idazleen erantzuna	%
Erantzunik ez	45,5
Kalitaterik eza	22,6
Politikarik eza	13,5
Hizkuntz distantzia	12,2
Besterik	6,2



GOIKOETXEA, JUAN LUIS (Mungia, 1947)

- *Sinonimoen hiztegia (1983)**
- *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna (1988)**

Lehenengo eta behin esan behar dena da abstentzioa aukeratu duela askok. Jendeak ez daki zer erantzun, edo ez du erantzun nahi, bietatik egongo da.

Erantzun zehatzik ez da falta, hala ere. Ez dago arrazoi bat, berak bakarrik esplikatuko lukeena zergatik ez den erdaratzen euskal liburua. Nahiko sakabanatuak daude zergatiak, nahiz eta erantzun guztien baturan kalitate-eskasiak % 22,6 eman.

Arrazoi nagusia lehen postuan seinalatu behar zuen idazleak. Horren arabera, liburuak esportatu ahal izateko dagoen arrazoi nagusia hizkuntz distantzia da (% 38,2), gero kalitaterik eza (% 22,3) eta hirugarren lekuan politikarik eza (% 19,1).

Inportantziaz bigarren arrazoitzat ematen zenak, bigarren lekuan joan behar zuen. Hau da, hizkuntz distantziaren traba kenduz gero, zer gainditu beharko litzateke kanporatze-bidean? Hemen bai, hemen kalitaterik eza litzateke trabarik handiena (% 70), gero politikarik eza (% 20,5) eta azkenik hizkuntz distantzia (% 7,8).

Ordena honetan hirugarren mailan dator politikarik ezaren errua (% 45,1), gero kalitaterik eza (% 26,8) eta hizkuntz distantzia (20,4).

Ez esportatzeko arrazoi nagusia adinaren arabera

Euskal literaturako obrak beste hizkuntzetara itzultzeko dauden oztopoetan lehena bakarrik dugu kontuan hemen. Hots, idazleek traba nagusitzat eman dutena.

Adin-multzoz adin-multzo arrazoi nagusi horrek zenbaterainoko pisua duen azalduko da. Oso interesgarria da barne-banaketa. Kasurako: gazteen ia erdientzat lehen kausa hizkuntz distantzia da; eta zaharrenentzat lehen kausa kalitaterik eza da ia proportzio berdinean. Kontuan eduki behar da, oro har, ehun bat idazleren iritziak direla, abstentzioa dela kausa. Abstentzio hori, bestalde, ez da tamaina berekoa gazteenen eta edadetuenen artean (% 40 eta % 58, hurrenez hurren). Zera esan nahi du horrek, gazteek askoz gehiago inplikatu direla erantzunetan.

Arrazoia	>35	36-45	46-50	51-60	<61
Kalitaterik eza	14,3	20,0	18,7	17,6	46,6
Politikarik eza	23,8	12,0	18,7	23,5	20,0
Hizkuntz distantzia	47,6	40,0	43,7	35,3	20,0
Besterik	14,3	28,0	18,7	23,5	13,3
	100	100	100	100	100

Idazleen proposamenak

"Zer egin beharko litzateke", galdetu diegu, hau da, nola lor genezakeen euskal literatur produktuak esportatzea.

Idazleen ehun bat erantzun azalduko ditugu hemen, beraiek lehen arrazoitzat eman duten kontzeptupean sailkaturik. Aurrera dezagun proposamenik gehienak estrategia diseinatzera jotzen dutela, itzulpen-politika markatzera alegia.


Hizkuntz distantzia-ri lehentasuna eman diotenen proposamenak:

- *Bertoko idazleak nonahi promozionatu eta ezagutzera eman*
- *Beste nazioek behar lukete lagundu itzulpena publikatzen, gero liburuak ongi zabaldu, eta sariak eman*



GONZALEZ, EDORTA
(Barakaldo, 1961)

- *Azken belaunaldia (1988)*
- *Irudia: argazkilaritza eta bideogintza (1992)*



GONZALEZ DE TXABARRI, JOXE JOAN (Zarautz, 1956)

- *Jo-ta-ke. 1 (1979)*
- *Jo-ta-ke. 3 (1979)*
- *Ju-lu-ke. 2 (1980)*
- *Ju-lu-ke. 4 (1981)*

- *Euskaratzeko plangintza egin den bezala, euskal liburuak erdaratzeko plangintza*
- *Gehiago promozionatu, beste kanpoko idazleekin harremanak zabaldu*
- *Gure merkatuetatik kanpo dagoen literatur maila ezagutarazi, gero, horretara egokitu gaitezen*
- *Harremanak gehitu kanpoko argitaletxeekin*
- *Herri txikiekiko harremanetatik hasi: Suomi, Estonia, Eslovenia...*
- *Inkesta bat "benetako" irakurleen artean (obrak "benetan" irakurtzen dituztenen artean), zerrenda bat osatu eta gobernuak/ek berorien itzulpena subentziona deza(te)n*
- *Literatur obrak itzuli eta eskaintzeko politika-bideak ireki*
- *Politika aldatu*
- *Politika bat martxan jarri*
- *Politika hori bultzatu, diru-laguntzak eman, agian literatur-sariak*

Kalitaterik eza-ri lehentasuna eman diotenen proposamenak:

- *Atxagak izan duen proiekzioa kalitateari zor zaio dudarik gabe*
- *Atzerrian bulegoak ireki*
- *Gaiak eta bere tratamenduak eduki behar dute lehentasuna, ez hizkuntzak*
- *Hobeto idatzi eta kanporako promozioa bultzatu*
- *Kalitate hobeko lanak egin eta politika egoki batekin lagundu*
- *Kalitatea hobetu, itzulpen-politikarik egin ahal izateko (hizkuntz distantzia ez litzateke arazo)*
- *Merkatuak zabaltzen lagundu. Itzulpenak lagundu. Euskal Kultura errebindikazio abertzale izate hutsetik atera*
- *Ofizioa ikasi, nork bere lanerako*

Politikarik eza-ri lehentasuna eman diotenen proposamenak:

- *Aditzaren irrealtasunaz baliaturik, ausartuko naiz esatera hipokresia gainditu eta gure apuleun harroago jokatu beharko genukeela (serio)*
- *Administrazioak bermaturiko argitaletxe publiko bat sortu, euskal liburuen erdarapen traunkorrari ekiteko*
- *Administrazioak sortu beharko luke (edo babestu) itzulpen-azpiegitura*
- *Administrazioaren aldetik laguntza-lerro etengabean beharko luke; apal hasi, ez baitugu beste Atxaga-fenomenorik lortuko, baina etsi gabe segi epe luzean, komunikazio-kanalak finkatzeko eta. Euskara beste hizkuntzetara itzultzeko jendea trebatu egin behar da*
- *Aginte publikoa, gehi EEE (Euskal Editoreen Elkartea), gehi EIE (Euskal Idazleen Elkartea) erakundeen artean plangintza egin*
- *Ahantzi espainieraz eta frantsesa eta beste hizkuntza batzuetara itzultzen saiatu.*

- *Autoestima errekuperatu eta gure balioa ahalik eta eremu zabalenean azaldu, bigarren mailako arrazoiak baztertuz . Inportanteena sortu eta sortua saltzea da*
- *Bildu argitaldariek gobernuaren laguntzak. Kopernikoren iraultza*
- *Diru-laguntzak eman, instituzioetatik lagundu-bultzatu*
- *Egitasmo bat burutu eta euskal liburuen itzulpengintza bultzatu*
- *Egitasmo sendo bat egituratu*
- *Erakundeek laguntza gehiago eman beharko lukete, eta argitaletxeek ere bultzatu itzulpengintza hori*
- *Erderatatik itzultzen ari direnak erderatara itzultzeko ofizialki lagundu*
- *Erraztasun eta laguntasun gehiago Erakundeengandik*
- *Esportatzen ikasi, merkatuko beste ekoitziekin bezalaxe eta ez Espainiara soilik, mundura baizik*
- *Euskal idazle batzuek ez daukate mentalitate komertzialik*
- *Euskal Idazleen Elkarteak, 4 urtetik behin edo, itzuli gabeko liburu zerrendak proposatzea*
- *Euskal literaturaren zabalpen politika bideratu behar luke Jaurlaritzak*
- *Euskaraz ateratzen den liburua, ona bada, zuzenki erdaraz ateratzeko antolaketa eratu*
- *Ez du konponbiderik erdal argitaletxetan euskaldun so egilerik ez dugun bitartean*
- *Gaztelaniarekiko konplexuak alde batera utzi. Kultura Sailak bultzada eman*
- *Gobernuak urtero 5-10 obra aukeratu eta itzularazi*
- *Gure herri-tematika era erakargarrian egin*
- *Harrokeria gutxiago erakutsi euskarazko testuak irakurtzen*
- *Hizkuntza gutxitua duten beste instituzioek, itzulpenaren % 100 - finantzatzen dute, Jaurlaritzak, % 0a*
- *Hori bultzatuko duen erakunde kultural bat sortu*
- *Instituzioek arduratu beharko lukete gehiago: "Ven y cuéntalo" izan beharrean, "Mira lo que se escribe allí"*
- *Itzulpen-"banku" bat eratu; erakundeek horretarako dirua aurreratu, argitaratuak izan arte*
- *Itzulpen-politika serioa eratu, diru-laguntzak eman euskal literatura erdaratzeko*
- *Itzulpenak onak direnean denak onartu*
- *Itzultzaileak trebatu. Promozionatu: editorialak + erakundeak*
- *Kalitatea igotzen, lantzen jarraitu. Itzulpengintza (euskara-erdara) diruz eta indartu*
- *Kanpoari gehiago ireki!*
- *Kanpoko argitaletxeekin harremanak hasi, ireki, sendotu...*



GONZALEZ, MAITE (DONOSTIA, 1943)

- Bertan ikusia (1983)



GOROSTIZA, JABIER (Gernika, 1963)

- Ipuin arinak (1989)

- *Kanpora irten baina ez Bernardo Atxaga bezala, antzeko egoeran dauden herrikin harremanak estutuz*
- *Laguntza ekonomikoaz gain euskal kulturaren promozio-politika kanpoan*
- *Lehendabizi, euskal liburuak hemen bertan zabaltzea, itzulpenak lagun; hori lortuta, atzerrira begira jarri*
- *Lehenik gure burua irakurri*
- *Literatur produktuak esportatzeko ganbara sortu*
- *Madrileko eta Pariseko ezin-progre-agoen topikoak eta jarrerak txikitzea...*
- *Mentalitatez apur bat aldatu*
- *Merkatuak irekitzea kanpoko euskal komunitateak profitatuz*
- *Modak bazter utzitako aukeratzaile-taldea sortu*
- *Niretzat ez da lehentasuna duen helburu bat*
- *Plangintza egoki bat prestatu. Horretarako gure agintariek sinestu egin behar dute, aurrena, Euskal herrian literatura ona egiten dela, eta euskal idazleak badirela beste herrietakoak adina. Bestela, jarraituko dugu, orain arte bezala, euskal idazleak kanpoan errekonozimendua lortzen duenean, orduan bada idazle on (eta politikarien diskurtso ofizialetan zitatzeko gai), eta ordura arte ez. Euskal Literaturaz esan daiteke harako turismorako ikuresaldi hartaz bezala, baina alderantziz: "Etorri eta konta ezazu", beharrean, "Irten eta konta ezazu..." Azken finean, Iparragirreren harako esaldi hartan (Unibertsitateak beretzat hartu duen hartan) fedea izatea da kontu guztia "Eman ta zabal zazu munduan frutua..."*
- *Plazara orduko itzulpena eragin (merezi duten obrena)*
- *Politika ausartagoa eta baliabide gehiago*
- *Politika editoriala bultzatu, bekak eskaini, prestantzia hobetu*
- *Politika egoki bat definitu eta aurrera eraman*
- *Politika eta bide komertzialak landu (poesiarekiko politika kulturala)*
- *Politika hori aldatu, diru-laguntzak emanez*
- *Politika kultural bat eraiki*
- *Politika on bat sorkuntzan eta zabalkundean*
- *Sektorea dinamizatu, baina sektarioak izan gabe*
- *Urtero gure "klasiko" batzuk eta "gaurko" batzuk itzuli, gurea kanpokoei aditzera emateko*

***Bestelako kausa*-ren bati lehentasuna eman diotenen proposamenak:**

- *Atera eta zabaldu*
- *Erderatzeketengatik ajolik ez zait. Euskera salbatzeko euskera erreza, errikoia, erabiltzeak bai*
- *Euskal Herri independente bat*

- *Gobernuko kultura saileko arduradunak aldatu*
- *Hasteko, kapilismoa hautsi*
- *Itzulpenari begira ez idatzi. Zenbait itzulpen hobeak dira euskal orijinalak baino. Kalitatea eta ideiak!*
- *Itzultzaileak prestatu, idazleei profesionaltzeko aukerak eman eta itzultzaileei beste horrenbeste*
- *Kulturan dirua inbertitu*
- *Liburuen nazioarteko merkatuan lan programatu asko egin*
- *Mirari bat: "politikariak" eta "argitaratzaileak" egiazko politikari eta argitaratzaile bihurtu; aski, ez gehiago*
- *Oro har, kalitatea hobetu eta obren aukera zehaztu*

"Eman ta zabal zazu"

Euskal liburua erdaratzeak zenbateraino lehentasuna duen aparte utzita, komenigarria dela behintzat ez du inork ukatuko.

Eta ez da hori bakarrik. Ibili dabil euskal liburua munduan zehar. 50 bat liburu 150 bat ediziotan zabaldua da Europako hizkuntza txiki eta handitan.

Aurre-plangintzarik gabeko jarduera da. Egon dira saioak, asmoak, baina asmo diraute.

Koedizioen hastapenetan, trukaketa planteatu ohi zen, kanpoko lanak hona ekarri eta hemengoak kanpoan argitaratu. Lehenengo partea egin da, eta bigarrena ez.

Euskal Idazleen Elkarteko artxiboetan ere aurkituko da gauzatu gabeko egitasmorik. Galeuzcako jardunaldirik ez zen pasako gai hau idazleen artean ahotan hartu gabe.

Euskal Editoreen Elkarteak ere badu bere Galeuzca, eta bilera horietan ere editore katalanek, euskaldunek eta gailegoek elkar-trukaketaren komenientzia eta premia aipatu izan dute behin eta berriz. Baina egitasmo serio bakar batek ere ez du aurrera egin, agian idazlanen kalitatean aski konfiantzarik ez zutelako.

Zorionez, aldatzen hasiak dira gauzak. Egingo nuke 2000. urterako baietz antolatua egon euskal obrak erdaratzeko arazoa.

Orain arteko guztian idazleen kontura joan da iniziatiba. Hor dago Mariasun Landaren kasua, edo Bernardo Atxagarena. Kexu eta kexa dira, eta arrazoiz, bertako erakunde profesional eta administratiboen aldetik laguntzarik eta babesik ez dutela eta.



HARANBURU ALTUNA, Luis (Alegia, 1947)

- *Gizartearen eskola (1973)*
- *Itsasoak ez du esperantzarik (1973)*
- *Zera... (1975)*
- *Job (1976)*
- *Gernika. Drama historikoa bi partetan berezia (1977)*
- *Desgizona (1978)*
- *Caritate (1979)*
- *Loyola. Gatazkaren bizia (1986)*
- *Sabino (1986)*
- *Zumalakarregi. Biziaren gatazka (1986)*
- *Karakol presoa (1987)*
- *Lancre (1987)*
- *St. Cyran (1987)*
- *Auskalo, Luk (1995)*

Euskal liburuak apenas duen oihartzunik kanpoan. Zeinen arazoa da hori: idazle bakoitzarena, editorial bakoitzarena, sektorearena, erakundeena?

ALBERDANIA

Arazoa sektorearena da, eta, bekatu honetan, idazlea da errugabe bakarra. Erantzukizun nabarmena dugu editoreok, baina ez bakarra, eta, akaso, ez larriena. Euskal instituzioek ez diote arazo honi usainik hartu ere egin, eta horrek horrela jarraitzen duen bitartean, jai dago (idarokizun xume bat: liburugintzaren ardura duten funtzionarioek zein politikariek Katalunian barrena bueltaxka bat egitea).

ELKAR

Egia handia da hori, eta denen arazoa da, ez ordea maila berean: euskal literatur komunitateak, sistema bezala (idazle, editore, irakurle eta beste agenteak) komenigarri bai baina ez du ezinbestekoa kanporako jauzia; idazleak, berriz, artista den neurrian desiragarri du atzerriko oihartzuna, eta ekonomia aldetik beharrezkoa profesionala izango bada; euskal kulturak, berriz, politikoki mesedegarri du (nahitaezko ere bai, seguru asko) proiekzio bat, agerpena eta prestigioa emango diona; argitaletxeentzat, ordea, aukera bat da, baina bere arriskuak badituena. Erdaraz (espainolez eskuarki) editatzen has gintezke, baina hori egitekotan ezin egin genezake euskal idazleak itzultzeko bakarrik, erdaraz ere lehiakor izateko baizik; hala izatera, ordea, euskal produktuak kuantitatiboki bigarren mailakoak lirateke guretzat eta biharko egunean arriskua genuke kualitatiboki ere bigarren mailan jartzeko.

Euskal liburuak atzerrian (eta ez espainolez bakarrik) itzultzeko, argitaletxeek orain baino ahalegin handiagoa egin behar genuke, idazleek ere bai segurki, baina batik bat administrazioak lagundu behar luke, dirukontua baita hau neurri handi batean. Laguntza-bide bat hasi beharko luke, ez puntualki baizik eta jarraipen batekin, luzera begira. Diru gutxi baldin badago apalki, baina modu etengabean, harremanak eta komunikazio-sareak sortzeko.

Hizkuntz distantziaren arazoa ere ezin da ahaztu. Oso zaila da euskal testu bat beste hizkuntza batera ondo itzultzea, kalitate literarioari eutsiz. Horren soluzioa ez da itzultzeko erraza izango den euskaran idaztea, baizik eta itzultzaile iaioak prestatzea. (Euskaratzaile onak lortzeko urteak behar izan baditugu, erdaratzaile onak ere ez dira perretxikoen modura sortuko).

Erein

Atxagak, M. A. Landak, erakusten digute badagoela potentzialitate bat. Egile horiek ez dira ezerezetik sortu, badago tradizio bat. Beraiek markatu dute heldutasun-maila altuena, baina badatoz beste batzuk atzetik.

Datozen urteetako erronka bat hau izan daiteke: Mendebaldeko mundu editorialarekin berdintasunezko harreman arin eta biziak izatea. Esportatu eta inportatu, gure gauzak saldu eta guretzat ona dena erosi.

Idazlea profesionaltzeko aukera bat merkatu berri horietan saltzea izango litzateke.

Salto hori emateko zein da idazlearen arazoa: lehena eta inportanteena, lan on bat egitea. Ondoren, idazlea jabetu beharko da industria baten barruan dagoela, eta zeintzuk diren horren klabeak merkatu-lege honetan. Bere «produktua» defenditzeko prest egon beharko du inongo lotsarik gabe, bai eta hainbat presio ezliterario jasateko ere: liburuaren promozioak, bere obra defenditu ezezagunen aurrean... Horrek guztiak «profesionaltasuna» hitza ekartzen digu berriro ere gogora.

Erakundearena. Honako gogoeta hau egingo genuke: orain arte, 80ko hamarkadako hazkunde kuantitatibo famatua gogora ekarriz, dirulaguntza guztia euskaraz argitaratzeko izan da. Egin diren hainbat gehiegikeria edo akats kontuan edukirik ere, esan dezakegu instituzioek liburugintzan egin duten inbertsio ekonomikoa positiboa izan dela oro har. Lehen aipatu bezala, homologagarritasun-maila bat lortu dugu, eta bada ordua dirulaguntzaren zati bat, beti ere txikia bestearekin konparatuz, esportaziorako erabiltzeko.

Ibaizabal

Arazo hori euskararena berarena da. Gainera, hori konpontzeko ahalegin gutxi egiten da. Errentagarritasunik ez da ikusten, eta erakunde politikoek ardura gutxi jartzen dute.

Pamiela

Noren arazoa da institutuak eta unibertsitateak erabateko burugabe alaenez beteta egotea? Noren arazoa da «martxa» eta markak bibliotekak edo filme on bat baino garrantzitsuago izatea? Noren arazoa da telebista-zaborraren aurrean hainbeste ergel biltzea? Zein da erakundeak arazoak konpontzeko daudela sinestearen arazoa?

Txalaparta

Euskaldun komunitatea txikia da, eta horrek garrantzi handia du. Horri gehitzen badizkiogu marko politikoak berez dakarzkigun mugak, hizkuntzaren egoera tamalgarria, instituzioen pasibitatea eta baliabide publikoen profitamendu eskasa, egun ezagutzen dugun egoerara garamatza.

Oraintsu arte ez dugu izan agentzia literariorik. 1995. urtearen azaroan sortu du lehena Bilboko Ikeder S. L. enpresak, hasieran Bernardo Atxagarekin. Agentzia literario baten funtzio behinena idazlea bere harreman komertzialetan ordezkatzea da. Gauza asko dira batera: lanen promozioa eta publizitatea, argitaletxeekiko harremanak, asesoramendu fiskala, argitalpenen segimendua, idazlearen agendaren antolaketa, etab.

Euskarazko lanak erdaratzeko argitaletxe bat ere muntatu da: Hiru. Erdal publikoak, bertokoak hasteko, euskal lanei buruz duen ezagumendu-falta hausteko sortu da batik bat. Arrisku bat badu honek hemengo merkatuan, euskal irakurleriarentzat negatiboa izan daitekeena, jatorrizko hizkuntzara barik itzulitakora zuzenean jotzea. Eskertzekoa da horregatik editoreek Durangoko Azokan, bere standean, jarri zuten txartela. Buruz ari naiz, baina honela zioela uste dut: "Euskaraz badakizu ez itzazu liburu hauek eros".

Ez da asko, baina ez dago besterik. Ulergarri dira, hortaz, idazleen arrangura eta salaketak, editore eta idazleen elkarteei zuzenduak eta batez ere euskal erakundeen axolagaberiatzat jotzen den jarreraren aurka. Frantziako eta Espainiako Kultur Ministeritzena, Galiziako Xuntarena, Kataluniako Generalitatearena aipatu ohi dituzte adibide gisa. Neurri batean edo bestean, baina horiek denak jatorrizko obrak beste hizkuntzetara itzultzea ekonomikoki lagundu egiten dute. Hemen ez dago holakorik, berez dagokien lana ez dute bere gain hartu erakundeek.

Zer egin? Makina bat soluzio aipatu dituzte idazleek beraiek. Zerbait antolatu beharra aipatzen dute gehienek.

Plangintza ez da gaur modako hitza, ez behintzat duela hamar-hamabost urteko indarrez. Modako ala ez, plangintza serio bat beharko luke erdarapengintzak. Klasikoak euskaratzeko sortu den antolamenduaren antzeko bat egoki litzateke. Autoreen batek aipatzen du inkestan. Aukeratzaile-talde bat behar da, itzultzaileak prestatu eta trebatu, liburua promozionatu eta, gero, bertako nahiz kanpoko editoreekin editatu. Enpresa berri horretan hiru erakunde-tipo behintzat berezko partaide lirateke: aginte publikoa, Euskal Editoreen Elkartea eta Euskal Idazleen Elkartea.


Merkatu-zirkuitu desberdinak landu beharko liratekeela iruditzen zait. Bat, noski, arrunta, konbentzionala, Europako hizkuntza handiena. Baina ez luke horrek merkatu bakarra izan behar. Bestelako eta era askotako hurbiltasunengatik badugu beste merkatu bat: hizkuntza minorizatuena. Hasteko, zergatik ez hasi Galeuzcatik? Eta hortik hedatu, gero, besteetara. Suomi, Eslovenia, Estonia izendatzen ditu idazle batek, eta ez dira bakarrak.

EUSKAL LIBURUAK ERDARAZ



EGILEA	IZENBURUA	JATORR. ARGITAL.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALETXEA	URTEA	ITZULITAKO HIZKUNTZA
Arrieta, Joxe Austin	Abuztuaren 15eko bazkalondoa	Kutxa-Elkar	1979	Arrieta, Joxe Austin	La sobremesa del 15 de agosto	Hiru	1994	Gaztelera
Arrieta, Joxe Austin	Abuztuaren 15eko bazkalondoa	Kutxa-Elkar	1979	Oliver, Maria Antònia	La Sobretaula del 15 d'agost	Columna	1986	Katalana
Artze	Gizon haundia da mundua, eta mundu ttikia gizona	Elkar	1988	Alegria, Edurne	Le monde est un grand homme, et l'homme un petit monde	Iratze	1994	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Saban, Arantxa	Memorias de una vaca	Círculo de lectores	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991			Alberliner Verlag	1995	Alemana
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Meksi, Mira			1994	Albaniera
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Bakker, Piet de	Memoires van een koe	Lemniscaat	1994	Holandesa
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Gabastou, André	Memories d'une vache	Gallimard Jeunesse	1994	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Perani, Agostino	Memorie di una mucca	Piemme	1993	Italiera
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991			Cruilla	1993	Katalana
Atxaga, Bernardo	Behi euskaldun baten memoriak	Pamiela	1991	Saban, Arantxa	Memorias de una vaca	SM	1992	Gaztelera

EGILEA	IZENBURUA	JATORR. ARGITAL.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALETXEA	URTEA	ITZULITAKO HIZKUNTZA
Atxaga, Bernardo	Bi anai	Erein	1985	Atxaga, Bernardo	Dos hermanos - el cuarto canto-	Seix Barral (México)	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Bi anai	Erein	1985	Gabastou, André		La serpent à plumes; Bourgois	1995; 1996	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Bi anai	Erein	1985	Atxaga, Bernardo	Dos hermanos	Ollero y Ramos (no venal)	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen oso denbora ...	Erein	1984			Giunti	1995	Italiera
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen oso denbora ...	Erein	1984	Garcia Bugarin, Lean.	Duàs letters	Galaxia	1992	Galegoa
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen oso denbora ...	Erein	1984			Ediciones B	1990	Katalana
Atxaga, Bernardo	Bi letter jaso nituen oso denbora ...;							
	Sugeak txoriari	Erein	1984	Saban, Arantxa	Dos letters seguido			
					Cuando una serpiente ...	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Etiopia	Pott; Erein	1978; 1983	Atxaga, Bernardo	Poèmes & Hybrides	Presqu'ile	1995	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Etiopia	Pott; Erein	1978; 1983			Bromera	1994	Katalana
Atxaga, Bernardo	Etiopia	Pott; Erein	1978; 1983	Atxaga, Bernardo	Poemas & Híbridos	Visor- Minist. de Cultura	1990	Gaztelera




Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Hernández, Pau Joan	L'home sol	Ediciones Columna	1995	Valentziera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Hernández, Joan Pau	L'home sol	Círculo de Lectores	1995	Katalana
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Sabán, Arantza; Atxaga, Bernardo	El hombre solo	Círculo de Lectores	1994	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993			Harvill	1995	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993			Mladá Fronta	1995	Txekiera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Roinila, Tarja	Yksinäinen	Tammi	1995	Finlandiera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993			Albert Bonniers	1995	Suediera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993			Unions Verlag	1995	Alemana
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Ioannídes, Stratos	Enas Anthropos Monos	Ekkremes	1995	Grekera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Lorenzi, Giovanni	L'uomo solo	Giunti	1995	Italiera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Gabastou, André	L'homme seul	Christian Bourgois	1995	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Hernández, Pau Joan	L'home sol	Bromera	1995	Katalana
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1993	Sabán, Arantza; Atxaga, Bernardo	El hombre solo	Ediciones B	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Gizona bere bakardadean	Pamiela	1995	Vuyk-Bosdriesz, Johanna	De man alleen	Nijgh Van Ditmar	1995	Holandesa
Atxaga, Bernardo	Nikolasaren abenturak	Elkar	1979		Las aventuras de Nicolasa	Ediciones B	1990	Gaztelera

EGILEA	IZENBURUA	JATORR. ARGITAL.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALETXEA	URTEA	ITZULITAKO HIZKUNTZA
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Jull Costa, Margaret	Obabakoak	Pantheon	1993	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Rodríguez Coalla, Lena	Obabakoak	Editora del Norte	1995	Bable
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Círculo de Lectores	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Meksi, Mira	Me emrin e vajzerise laura sligo	Shtëpia Botuese "Globus R."	1995	Albaniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Covaci, Aurel	Obabakoak	Ed. Eminescu	1995	Errumaniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Roinila, Tarja	Obabakoak	Tammi	1994	Suomiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Worren, Arne	Gjensyn med Obaba	Gydendal	1993	Norvegiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Roseen, Ulla	Obabakoak	Albert Bonniers	1994	Suediera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Ioannídes, Stratos	Obabakóak. O Mythikós kósmos tes Obaba	Ekkremes	1993	Grekera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Sobolewska, Ana eta beste	Obabakoak	Ofizina Literacka	1992	Poloniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Jull Costa, Margaret	Obabakoak	Hutchinson	1992	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Vuyk-Bosdriesz, Johanna	Obabakoak of het ganzenbord	Nijgh-Van Ditmar	1992	Holandesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Gonçalves, Egito	Obabakoak; Um lugar chamado Obaba	Quetzal	1992	Portugesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Giò Waeckerlin Induni	Obabakoak oder Das Gänsespiel	Schömbach	1991	Alemana
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Piloto di Castri, Sonia	Obabakoak	Einaudi	1991	Italiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Gabastou, André	Obabakoak	Christian Bourgois	1991	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Hernández Pibernat, Marta	Obabakoak	Ediciones B	1990	Katalana
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Ediciones B	1989	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Jull Costa, Margaret	Obabakoak	Vintange	1993	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Ramuntxo detektibea	Elkar	1979		Ramuntxo detective	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Siberiako ipuin eta kantak	Erein			Cuentos y cantos de Siberia	SM	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984			Ediciones B	1990	Katalana
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984			Giunti	1995	Italiera
Atxaga, Bernardo	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Erein	1984		Cuando la serpiente mira al pájaro	Ediciones B	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Xolak badu lehoien berri	Erein	1995	Atxaga, Bernardo	Shola y los leones	SM	1995	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Zeru horiek	Erein	1995	Atxaga, Bernardo	Esos cielos	Ediciones B	1996	Gaztelera
Atxaga, B. , eta beste	Bi letter jaso nituen oso denbora ...	Erein	1984	Gabastou, André	Un cheveux sur la langue	La Serpent à Plumes	1995	Frantsesa
Azurmendi, Joxe	Espainolak eta euskaldunak	Elkar	1992	Agirre, Edorta	Los españoles y los euskaldunes	Hiru	1996	Gaztelera
Epaltza, Aingeru	Ur Uherrak	Pamiela	1993	Montorio, Bego	Agua turbia	Hiru	1995	Gaztelera
Ezkiaga, Patxi	Haize hurbila	EHU	1994	Lasa, Martin eta beste	Viento cercano	EHU	1994	Gaztelera
Igerabide, Juan Kruz	Begi-niniaren poemak	Erein	1992	Igerabide, Juan Kruz	Poemas para la pupila	Hiperion	1995	Gaztelera
Irigoien, Joan Mari	Babilonia	Elkar	1990			Bromera	1992	Katalana
Iturralde, Joxemari	Londresen nago aitonarekin	Erein	1987	Fontich, Albert	Amb l'avi a Londres	Ediciones B	1989	Katalana
Izagirre, Koldo	Euzkadi merezi zuten	Hordago	1982			Egin	1994	Gaztelera
Jimenez, Edorta	Azken fusila	Susa	1993	Montorio, Bego	El último fusil	Hiru	1994	Gaztelera
Juaristi, Felipe	Arinago duk haizea, Absalon	Erein	1990	López, Manu; Gómez, Genaro	Más leve es el viento, Absalon	VOSA	1993	Gaztelera
Juaristi, Felipe	Laino artean zelatari	Alberdania	1993	Sunyol, Vitor	Guardia en la boira	Jardins de Samarcanda	1995	Katalana
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Pineiro, Anton	O a vo	Galaxia	1988	Galegoa
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Lluch, Josep	La barca de l'avi	La Galera	1988	Katalana
Landa, Mariasun	Aitonaren txalupan	Elkar	1988	Landa, Mariasun	La barca de mi abuelo	La Galera	1988	Gaztelera
Landa, Mariasun	Alex	Erein	1990	Etxezaharreta, Lucien	Alex	La Joie de Lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Alex	Erein	1990	Meksi, Mira	Alex	Mira Meksiren eskutik	1994	Albaniera
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Zaitani, Karin	Rusika	Alberliner	(1997)	Alemana
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	White, Linda	The dancing flea	University of Nevada Press	1996	Ingelesa
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Landa, Mariasun	Rusika	SM	1993	Gaztelera

EGILEA	IZENBURUA	JATORR. ARGITAL.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALATXEA	URTEA	ITZULITAKO HIZKUNTZA
Landa, Mariasun	Errusika	Elkar	1988	Lienas, Gemma	Russica	Cruilla	1992(1º)	
							1993(2º)	Katalana
Landa, Mariasun	Iholdi	Erein	1988	Etxezaharreta, Lucien	Iholdi	La Joie de Lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Iholdi; Izeba txikia; Alex	Erein	1988; 1990	Landa, Mariasun	Cuadernos secretos	Edebé	1994	Gaztelera
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Rodríguez, Carme	Irma	Galaxia	1990	Galegoa
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Lluch, Josep	Irma	La Galera	1990	Katalana
Landa, Mariasun	Irma	Elkar	1990	Landa, Mariasun	Irma	La Galera	1990	Gaztelera
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Senin, Xavier	A estrela verde	Galaxia	1985	Galegoa
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Torre, Albert de la	L'estrella verda	La Galera	1985	Katalana
Landa, Mariasun	Izar berdea	Elkar	1985	Landa, Mariasun	La estrella verde	La Galera	1985	Gaztelera
Landa, Mariasun	Izeba txikia	Erein	1988	Etxezaharreta, Lucien	La petite tante	La joie de lire	1996	Frantsesa
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Meksi, Mira	Dyqani i Pepes	Mira Meksiren eskutik	1993	Albaniera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Emelianoff, Gwenad	Stal Pepa	An Here	1993	Bretoiera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Vrettou, Angeliki	To magasí tes Pepa	Sincroni Epoxi	1990	Grekera
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Senin, Xavier	A tenda da Pepa	Galaxia	1984	Galegoa
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Serra, Angel	La botiga de la Pepa	La Galera	1984	Katalana
Landa, Mariasun	Joxepi dendaria	Elkar	1984	Landa, Mariasun	La tienda de Pepa	La Galera	1984	Gaztelera
Landa, Mariasun	Julieta, Romeo eta saguak	SM	1994	Landa, Mariasun	Julieta, Romeo y los ratones	SM	1994	Gaztelera
Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Hernandez, Pau Joan	Quaderns secrets	Edebé	1994	Katalana
Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Hernandez, Pau Joan	Una bicicleta en vaga	Grijalbo-Mondadori	1995	Katalana
Landa, Mariasun	Kleta bizikleta	Elkar	1990	Landa, Mariasun	Una bicicleta en huelga	Grijalbo-Mondadori	1995	Gaztelera
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Meksi, Mira	Maria dhe Çadra	Mira Meksiren eskutik	1993	Albaniera
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Gil Sanchis, Oriol	La Maria i el paraigua	La Galera	1990	Katalana
Landa, Mariasun	Maria eta aterkia	Elkar	1988	Landa, Mariasun	María y el paraguas	La Galera	1990	Gaztelera
Landa, Mariasun	Nire eskua zurean	Erein	1995	Hernández, Teresa	A miña man na túa	Xerais	1996	Galegoa
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	White, Linda	Karmentxu and the little ghost	University of Nevada Press	1996?	Ingelesa
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984			Mira Meksiren eskutik		Albaniera
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Vrettou, Angeliki	Txan to fantasma	Sincroni Epoxi	1989	Grekera
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Boada, Francesc	Txan el fantasma	La Galera	1984	Katalana
Landa, Mariasun	Txan fantasma	Elkar	1984	Landa, Mariasun	Chan el fantasma	La Galera	1984	Gaztelera
Lasa, Mikel	Memory dump	EHU	1993			EHU	1993	Gaztelera
Lertxundi, Anjel	Gizon kabalaren piurak	Erein	1982			Alborada	1988	Gaztelera
Lertxundi, Anjel	Tristeak kontsolatzeko makina	Erein	1982			Alborada	1988	Gaztelera
Loidi, Jose Antonio	Amabost egun Urgain'en	Arantzazu	1955			Alberti	1963	Katalana
Mendiguren Eliz., X.	Estitxuk pirata izan nahi du	Elkar	1987	De la Torre, toni	Maite vol ser pirata	Bromera	1993	Katalana
Mendiguren Eliz., X.	Harrika	Elkar	1989	De la Torre, Toni	A pedrades	Bromera	1990	Katalana
Mirande, Jon	Haur besoetakoa	Lur	1970			Pamiela	1991	Gaztelera
Mirande, Jon	Ilhun-argiak	EHU	1992			EHU	1992	Gaztelera
Saizarbitoria, Ramon	100 metro	Lur	1976			Memoranda	1985	Italiera
Saizarbitoria, Ramon	100 metro	Lur	1976			Basque American Foundation	1985	Ingelesa
Saizarbitoria, Ramon	100 metro	Lur	1976			Nuestra Cultura	1979	Gaztelera
Santisteban, Karlos	Anika eta bere klera majikoa	Mensajero	1991	Calleja, Seve	Anika y su tira mágica	La Galera	1991	Gaztelera
Santisteban, Karlos	Eneko okerrakoren akerra	Giltza	1994	Santisteban, Karlos	Abracadabra, cuidado con...	Edebé	1994	Gaztelera
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Lluch, Josep	La revoltade les joguines	La Galera	1991	Katalana
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Rodríguez, Carme	A rebelion des xoguetes	Galaxia	1991	Galegoa
Santisteban, Karlos	Jostailuen altxamendua	Elkar	1991	Mendiguren Elizegi, Xabier	La rebelión de los juguetes	La Galera	1991	Gaztelera
Sarrionandia, Joseba	Narrazioak	Elkar	1983			Portic	1986	Katalana
Sarrionandia, Joseba	Ni ez naiz hemengoa	Pamiela	1985			Libertare Assoziation	1995	Alemana

EGILEA	IZENBURUA	JATORR. ARGITAL.	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULITAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALATXEA	URTEA	ITZULITAKO HIZKUNTZA
Sarrionandia, Joseba	Ni ez naiz hemengoa	Pamiela	1985	Montorio, Bego	No soy de aquí	Hiru	1992	Gaztelera
Txillardegi	Haizeaz bestaldetik	Autoediz.; Elkar	1979; 1988	Alvarez Enparantza, J.L.	Allende el viento	Haranburu	1984	Gaztelera
Txillardegi	Leturiaren egunkari ezkutua	Euskaltzaindia	1957	Alvarez Forcada, Maddi		Basque American Foundation	1986	Ingelesa
Ugalde, Martin	Itzulera baten historia	Elkar	1990	Izagirre, Koldo	Historia de un regreso	Hiru	1995	Gaztelera
Urretabizkaia, Arantxa	Saturno	Erein	1987			Alfaguara	1990	Gaztelera
Urretabizkaia, Arantxa	Zergatik panpox	Hordago	1979			Libres del Mall	1986	Gaztelera
Urretabizkaia, Arantxa	Zergatik panpox	Hordago	1979			Libres del Mall	1982	Katalana
Zabaleta, Pello	Bigarren bizia	EHU	1995			EHU	1995	Gaztelera




euska

2.

idazleak

EUSKAL IDAZLEAK



Baina nor da euskal idazle?

Hasteko, zer da idazle izatea?


"Ofizio bitxia idazlearena" idatzi zuenari ez zitzaion arrazorik falta. Eta izan, ofizioa al da, bada? Zein da idazle orduan, idaztetik bizi dena alegia? Banaka bat, han eta hemen. Idazlea, idazle da bai, baina baita beste zerbait ere: idazle eta irakasle, idazle eta legegizon, idazle eta kalegarbitzaile, berdin dio. Eta bizi, bigarren ofiziotik bizi da gainera. Zer ofizio-mota da orduan? Sarri ez ofizio (ez ofizio, ez benefizio), ez ogibide, ez profesio... Profesioa izatekotan sinesmen-profesioa, zioen batek. Bokazioa omen da idaztea. Izateko modu bat.

Bestalde, zein da idazle? Nola erabaki zein den idazle eta zein ez? Ez dago honetarako diplomarik, ez etsaminarik, ezta epaimahairik. Ez dago, horregatik, irizpide jakinik. Abokatuen azterketa bat egin beharko bagenu, ez legoke problemarik. Erraz erabaki genezake populazio hori, irizpide argi batzuen bidez: Unibertsitate-titulua dutenak, edo abokatuen elkarteko partaide direnak, edo abokatu-lanetan dihardutenak. Irizpide hauetako edozeinek balio du, segun eta zer jakin nahi den.

Idazleen kasuan ez da berdin. Edozein irizpide hartzen delarik ere, ez du ehuneko ehun balio. Har daiteke irizpide ekonomikoa: irabazien % 50 edo gehiago idaztetik jasotzen duena, hori da idazle. Inor gutxi sartzen da kriterio honen barruan, ordea.


Beste irizpide bat ere sarri erabili izan da, ekonomikoa baino gehiago agian: idazle-elkarte profesionaletako bazkidea da idazle eta kitto. Guztiak edo bazkide balira balio lezake agian. Eta kanpoko kriterioa da, gainera.

Liburu bat idazten duena da idazle askorentzat. Liburuak egiten al du bat idazle, ala obrak? Eta artikulutan bere idazlana zabaltzen duena ez al da idazle? Eta liburu bat, besterik gabe, nahikoa al da norbait idazle kontsideratzeko? Bere horretan irizpide mekanikoa da, eta hari asko uzten ditu solte.



HARITSCHELHAR, JEAN "GEHEXAN PONTTO" (Baigorri, 1923)

- *Etxaun Barkoxeko (1983)*
- *Ponttokeriak (1995)*



HARTSUAGA, JOAN INAZIO
(Tolosa, 1957)

- *Euskal mitologia konparatua (1987)*
- *Jentilen akabaera (1987)*

Irizpide absolutu gisa batzuetan, osagarri bezala beste zenbaitetan erabili izan den irizpidea, zehaztasun gutxikoa bada ere, kontsentsuarena da. Hau da, nor jotzen den idazletzat. Publikoaren harrerak definitzen omen du bat idazle, irakurleriak. Eta honekin bateratsu, idazle-kideen onarpenak. Zehatz eta mehatz, eta objektiboki, nola antzeman onarpen hori, ordea?

Zer eta zein den idazle definitzea berez gauza nekeza bada, ez da errazagoa erabakitzea zein den *euskal* idazle. Irizpide zabal batez 300-400 izan omen daitezke. Hertsiago batekin, 150. Eta zentzu hertsian, 50en bat agian. Tamaina honetako zifrak eman izan dira batean edo bestean. Guk, idazle aktiboen azterketa honetan 284ko kopurua hautatu dugu, liburu honen sarreran adierazi ditugun irizpide eta metodoarekin.

Euskal idazlegoaren arazoa mugatzea beste herrietakoa baino zailagoa da alde askotatik: kriterio ekonomikoak ez du balio, noski. Euskal Idazleen Elkartean izena emanda egotea ere ezin da izan erabakigarri: daudenak adina falta dira. Onarpen sozialaren irizpidea ere hala-holakoa da, zaila definitzen. Liburua idatzi izanak balio lezake, baina... Esango nuke irizpide hauetako bakar batek ere ez duela osoan balio, baina denen artean definizio on bat lortzen dutela.

Aro garaikidea aztertzean, gainera, historiaren arragorik ez dago. Denboraren joanak, udazkeneko haizeak hostoak bezala, hainbat eta hainbat "usteczko idazle" bota egiten ditu, ondorioz balio finkoak bakarrik gelditzen direlarik. Euskal literaturaren historian bertan ere ez dago adostasunik: batzuentzat euskaraz zerbait idatzi duen edonor da idazle; beste batzuentzat apenas inor den idazle, daudenak predikariak eta hizkuntzazaleak baitira. Historia finkatzea zaila bada, are gaitzagoa da gaur egungo idazleria zehaztea.

Eta bada besterik, nor den idazle definitzeaz gainera. Nor da *euskal* idazle? Bi aldetatik sortzen zaizkio auziak idazlearen euskalduntasunari.

Gizarte-zarata gehien atera duen eztabaida izan da *euskal* izate hori zentzu geografikoan ala linguistikoan ulertu behar den. Geografiaren arabera, Euskal Herrian euskaraz zein erdaraz idazten duen oro da euskal idazle edo "escritor vasco". Lan honetan, euskaraz idazten duena da euskal idazle, eta kitto. Urtetan ibili gara arazo horren inguruan, batez ere 1980 bueltan. Raúl Guerra Garridoren posizioek aski oihartzun eta erantzun izan zuten.

Euskaraz idazten duena besterik gabe euskal idazle dela ukatzen duen korronterik ere badago. Korronte bat baino gehiago. Hizkuntzaren lekua euskal balioak, euskal pentsakerak, Euskal Herriaren aldeko jarrerak hartu ohi du elementu definitzaile bezala. "Euskaldun gisa" jokatzea da lehena. Gero besteak. Joko handia ematen du definizio mota honek:

ideologia "arrotzak" salatzeko, aukera politiko-ideologiko jakin batzuk soilki onartzeko, euskara bigarren mailan uzteko, besteak beste. Euskal literaturari zuzen-zuzenean egokiturik iritzi gordinena Laura Mintegiri (1994) irakurri diot: "Labur esanda, nire ustez euskal literatura ez da euskaraz edo euskaldunari buruz idatzitakoa, euskaldun gisa idatzitakoa baizik, mundua euskaldun gisa pentsatuz, sentituz eta adieraziz idatzitakoa: euskal literatura, hitz batez esateko, euskal kosmogonia adierazten duena da".

Sexua

Sailtxo honetan bi arretagune ditugu: sexuka nola banatzen den idazle-kopurua eta produkzioa, hori da bat. Eta bestea, emakumeek literaturgintzan dituzten edo ez dituzten baldintzak eta ezaugarriak.

Ia denak, gizonezkoak

Emakundek 1994an publikaturiko txostenean (*Emakumeak Euskadiko Artegintzan*) 20 emakume kontabilizatzen ditu euskal idazle gisa, "Centro de las Letras Españolas" delakoari informazioa eskatuz.

28 emakume agertzen dira gure inkestan, hau da, idazlegoaren % 10,6. Frantzian, eskubide txikiak kobratzen dituztenen artean % 18 dira emakumeak, eta "Who's Who in France"ko idazleen artean % 8. Estatu Batuetan % 30 omen dira. Espainian (1988), 1.437 idazletarik 1.239 gizonezkoak dira eta 198 emakumezkoak, hau da, % 14.


Gutxiegi da, emakumeek gaurko biztanleria aktiboan daukaten proportzioarekin konparaturik. Herri guztietan daude azpi-ordezkaturik emakumeak, idazteari dagokionez % 10,9. Zenbaki absolututan ez dakit zenbat diren baina esango nuke proportzionalki pisu gehiago dutela emakumeek euskal kulturako beste zenbait alorretan. Liburutik ez horren urrutikoetan, gainera. Zer esanik ez irakaskuntzan. Eta horrezaz gain, komunikabideetan, hala nola irratian, telebistan, *Euskaldunon Egunkaria*n bertan. Absolutuki eta proportzionalki emakume gehiago dago (emakumearentzat nahiko berri diren) lanbide hauetan.

Lehendik hona, hala ere, asko aurreratu dugu. Euskal literaturaren historia osoan Nerea Azurmendik (*Emakume idazleak euskal literaturan*, 1987) ehun bat idazleren zerrenda egin du. Horietako gehien-gehienak, gainera, azken aldi honetakoak. Eta ehun horietako asko eta asko zentzu zabalean bakarrik idazle.



HERNANDEZ ABAITUA, MIKEL (Gasteiz, 1959)

- *Panpinen erreinua (1983)*
- *Ispiluak (1985)*
- *Etorriko haiz nirekin? (1991)*
- *Literatura eta Rock Rolla (1994)*
- *Bazko arrautzak (1995)*



IGERABIDE, JUAN KRUZ
(Aduna, 1956)

- *Notre-Dameko oihartzunak (1984)*
- *Bizitzarekin solasean (1989)*
- *Begi-niniaren poemak (1992)*
- *Tilin-Talan (1992)*
- *Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotasuna eta Literatura) (1993)*
- *Egun osorako poemak eta beste (1993)*
- *Egunez parke batean: Grigor eta erlearen ipuinak (1993)*
- *Txokolatea basoan (1993)*
- *Gauez zoo batean (1994)*
- *Sarean leiho (1994)*
- *Denboraldi bat ospitalean: Grigor eta erlearen ipuinak (1995)*
- *Pikoak (1995)*

Lehen emakume idazlearekin topo egiteko historiaren orri ugari pasa behar dira. Etxepare, Leizarraga, Axular, Larramendi, Kardaberaz-en garaietan ez dugu emakumerik aurkitu idazleen artean. Lehena, Bizenta Antonia Mogel (1782) da, Juan Antonio Mogelen iloba. Gazterik, 22 urterekin, idatzi zuen *Ipui onac* itzulpena. Latina ere bazekien. "Rara avis" zen garai hartako gizartean, neskatxa bati ez omen zegozkion lanak baitziren horiek, "besteen bearrak", gizonarenak, inondik ere. Neskatxari gorua eta jostarratza zegozkion. Horren kontzientzia bazuen Bizentak berak: "Badakit entzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxasirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz jantzi nahi duela bela txikiak; au da, besteen bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argitaratu dituzten ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latiñezko izkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzateke jakitea euskera, gaztelera eta latiñezko iru izkuntzak. Zein gauza sinesgaitza neskatxa batengan".

XIX. mendearen azken aldian eta XX.aren lehenean bereziki, emakumeen presentzia aberastuz doa: garaiko euskal jai, lore-joko, lehiaketa eta aldizkarietan aurki daitezke izenak. Hemeretziko zerrenda bat dakar Nerea Azurmendik. Denak ez dira idazle gisa historiara pasako. Hiru dira denetan ezagunenak: Madalena Jauregiberri (1884), Tene Mujika (1888) eta Julene Azpeitia (1888). Hurrengo urtean (1889) Donostian jaioa da Kattalin Elizegi. Urte berekoa da Basilia Bustintza eta gazteagoa Errose Bustintza, Kirikiñoren ilobak.

Gerraren etenaren ondoren, beste belaunalditxo bat 60ko hamarkadan hasten da aldizkarien inguruan: Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia, Lourdes Iriondo, Mari Karmen Garmendia, Begoña Arregi, Miren Jone Azurza, eta beste.

Ugariagoa, segida gehiagokoa, trinkoagoa, da aro garaikideko emakume idazleen presentzia eta lana. Laurogeitik gora kontatu nituen, adibidez, 1986ko liburugintzan parte hartu zutenak. Horietako asko, gehienak, irakaskuntza-liburutan zihardutenak; beste batzuk, berriz, haur, gazte zein heldu literaturgintzan: Eukene Martin, Tere Irastortza, Laura Mintegi, Amaia Iturbe, Laura Uruburu, Itxaro Borda, Maripi Solbes, Gema Lasarte, Maite Gonzalez, Itziar Alkorta, Edurne Urkiola, Mertxe Ezeiza, Ana Arruza, Ane Albisu, eta beste. Hauetako gehienak inkestako zerrendan ageri dira, eta horrek adierazten du beren idazkintza ez dela esporadikoa izan, 60ko hamarkadako dezenterena izan zen bezala.

Produkzio eta oihartzunaren aldetik Mariasun Landa nabarmentzen da. Haur-literaturan bera da idazlerik emankorrenetakoa eta zalantzarik gabe itzulpen gehien izan duena.

Genero aldetik ba al dago emakumeen esparru "berezi" eta propiorik? Azken belaunaldiko emakume idazleen ekarpenaren prozesua honela esplikatzen du Laura Mintegik (1990): "Lehen sarrera honetan, emakumeek tradizionalki hastapenetakoak diren generoetara jo izan zuten, munduko literaturgintza guztietan gertatzen den bezalaxe: poesia aukeratu dute lehen instantzian, eta haur literatura ondoren. Haur literaturak demanda handia ezagutu du gure herrian, hezkuntza sistiman euskararen eta euskarazko irakaskuntzak bultzatuta. Nobelagintza, antzerki idatzia eta saiakera, jakina denez, heldutasunezko generotzat hartuak izan dira beti, eta beraietan emakumeek duten presentzia oso urria da".

Emakundek 1994an publikaturiko txostenaren arabera argitaratutako idazlan-kopurua sexuka emakumeen aldekoa da. Gogora dezagun idazleak % 12 zirela. Hauen produkzioa % 26 da, 58 idazlan, gizonezkoena baino ugariagoa proportzionalki. (Esan dezadan parentesi artean ez dakidala datu hauek oso fidagarriak diren).


Emakume idazleen zenbait ezaugarri

Emakume idazleen egungo unibertsoan 30 bat idazle kontsideratu ditugu. Idazleen populazioa osoaren ia % 11. Ez da kopuru handia —berriz diogu— baina orain arteko handiena da.

Guk hemen aztertu unibertso horren % 60,7 aztertzen dugu. Bidenabar esanda, gizonezkoek erantzun-kuota hobea lortu dute, % 70,5rekin.

Ezaugarri seinalagarrienak aipatuko ditugu:

- Emakume idazleak gizon idazleak baino gazteagoak dira, oro har. Berrogei urtetik behera gizonezkoen % 37,1 dago eta emakumezkoen % 58,8.
- Ikasketetan letretako karrera (filologia barne) egin du gehiengoak (% 64,7). Gizonezkoetan aukera berdina egin dutenak % 47,8 dira.
- Profesionalki ia erdiak irakaskuntzan lan egiten du (% 47). Honetara ere gizonezkoak baino emanagoak daude: % 47 *versus* % 37.
- Ezkongabeen proportzioa handiagoa da emakumeengan (% 41) gizonezkoengan (% 20,9) baino. Idaztera emanak egotearen ondorioz gertatzen ote da hori, ala sinpleagoa da esplikazioa, hau da, unibertso gazteagoa dela emakumezkoena?



INTXAUSTI, JOSEBA (Segura, 1936)

- *Iraultzaren hildotik (1972)*
- *Euskara Nafarroan / Vascuence en Navarra (1989)*
- *Euskararen iraupena Nafarroako gazteleran" erakusketaren inguruan/ En torno a la exposición "Pervivencia del vascuence en el castellano de Navarra" (1989)*
- *Euskara, euskaldunon hizkuntza (1990)*
- *Euskal Eskolaren iraganaz. Historia baten bila. EHIH-ren Proiektua (1990) (1991)*
- *Euskara Araban / El euskera en Alava (1994)*
- *Euskal Herriko lanbide-heziketa: eskualde bateko historiatik, Zarauzko EPO: 1943-1993 (1995)*



IÑARRA, AITXUS (1955)

- Hirustea (1985)

Ezkongabetasuna gaztetasunari lotuta dagoelakoan nago, eta ez idazle-karrerari. Nola esplikatu, bestela, profesional izan nahi ez dutenak % 47,1 izatea, gizonezkoen kasuan baino 11 puntu gehiago?

Bestalde, egile-eskubideak gizonezkoek baino gutxiago kobratzen dituzte. Gizonezkoen % 64,6k baietz dio, kobratzen duela. Emakumezkoen artean, ordea, kobratzen dutenak ez dira erdira iristen (% 47,1).

- Emakume idazleengan euskaldunberriek proportzio hobea dute (% 29,4) gizon idazleengan baino (% 19,7). Ikastolatik paseak ere gehiago dira emakumezkoak (% 17,6) gizonezkoak baino (5,3).
- Gizonezkoek baino gutxiago idazten dute erdaraz emakumezkoek. Artikulurik ez dute idazten gizonezkoen % 46k eta emakumezkoen % 53k. Liburutan dago alde handiena: gizonezkoen % 60,4k ez du idatzi libururik erdaraz; emakumezkoak % 94 dira erdaraz libururik idatzi ez dutenak.
- Idazlearen konpromisoa kezka bezala bizi dute emakume idazleek (% 58,8) eta % 30,5 gizonezkoek; eta ez arazo bezala (% 17,6 *versus* % 34,7). Konpromiso hori % 41,2 da literaturarekin eta % 23,5 hizkuntzarekin eta beste hainbeste politikarekin. Gizonezkoengan baino altuagoak dira proportzioak (hauengan % 31,1, % 15,5 eta % 17,3 dira, hurrenez hurren).
- Literatura modernoaren kalitatcaz gizonezkoek baino balorazio positiboagoa egiten dute emakumeek. Emakume idazleen % 82,4k irizten dio ona edo oso ona. Gizonezkoen artean % 63,4 dira iritzi berekoak.
- Euskal liburuaren osasunaren diagnostikoa, hobea egiten dute emakumezkoek gizonezkoek baino. Osasun hori ona edo oso ona da emakume idazleen iritzian: narratiban, % 76,5 (% 58,6, gizonezkoentzat); olerkian % 41,2 (% 34,7, gizonezkoentzat); haur eta gazte-literaturan, % 64,7 (% 59,8 gizonezkoentzat); eskola-liburuan, % 52,9 (% 45,5, gizonezkoentzat).
- Literatur erakundeen lanari buruzko iritziak ere, normalki positiboagoak dira emakume idazleen artean. Hona adibide bat edo beste.

  Argitaletxeen jokabidea ona edo oso ona da haur eta gazte-literaturan emakumeen % 76,4rentzat eta gizonezkoen % 54,5rentzat; narratiban, emakumezko % 70,6rentzat eta gizonezkoen % 58,6rentzat.

Argitaletxeek idazlea ondo edo oso ondo tratatzen dutela uste dute emakumeen % 41,2k eta gizonezkoen % 32,7k.

Euskal Idazleen Elkartearen lanari txalo egiten dio emakumeen gehiengoak (% 64,7) eta gizonezkoen % 52,7k.

Emakume-literatura

Gai beroa izan da emakume-literatura 80ko hamarkadan. Badagoen ala ez, hori zer ote den. Eta horren aurretik: emakumeen esku-hartze txiki hau zeri dagokion, *iza*-erari ala *ego*-erari?

Ba al dago emakume idazlearen arazo espezifikorik? Eta problemarik baldin bada zein eratakoa, soziala, familiakoa, psikologikoa? Sortzeko, idazteko traba al da emakume izatea? Zaharra, gaztea, pobrea, aberatsa, gizona izatea baino gehiago?

Erantzun-bila, galdera-mota hau da literatur soziologoek egin izan ohi dutena. Aurkeztu ohi diren argumentu edo adierazpen gehien-gehienak emakumearen *egoerari* dagozkionak izan ohi dira.

Etxeko ekonomiaren mailan, ohartarazten du Michèle Vessilier-Ressi aztertzaileak, Mozart-ek ez zuen harrikoa egin behar, ez erosketak, ezta haurren heziketa-ardura. Oraindik, egiteko horiek emakumearen gain daude gehienbat. Bestalde, bikotearen barruan, tradizionalki, errazago "itzali" izan da emakumea gizonaren mesedetan, alderantziz baino. Sortzailearen egoismoa ere gogoratzen du Michèle Vessilier-Ressi-k, kreatzailea obrari osoki emana dagoela alegia eta emakumea askotan (denbora, bihotza, espiritua) besteari, besteei...

Badago beste faktore bat, hau gizonaren aurkakoa. Famili ekonomia oraindik gehienbat gizonaren erantzukizun da. Honek, gizonak, ezingo luke ogibidea utzi, idaztera dedikatzeko. Emakumeak, soldata lagungarria duenean, errazago har dezake erabaki hori.


Izaera-rekin zerikusi duen argumentu bat ere eman ohi da, oso eztabaidatua. Emakumeak bizitza sortzen du, haurra sortzean. Honekin asebetea gelditzen omen da edozein gizakumek sortzeko duen premia. Prokreazioa lehenetsiko luke emakumeak. Eta gizonezkoak kreazioa.

Hori guzti hori horrela izan ala ez, ba al dago emakume-literaturarik, *literatura femeninorik*?

Izena bera eztabaidagarri iruditzen zaio Laura Mintegiri (*Emakume-literatura: zer da eta zertan da*, 1987): "Gaia ukitzean asaldatzen gaituen lehen kontua, izena bera da. Emakumea eta literatura. Ez da, guk dakigunez, liburu, artikulu edo txostenik idatzi, ezta ere hitzaldirik eratu, 'Gizona eta Literatura' gaiaz.

Izenak berak marjinazioaren eremuan kokatzen gaitu, ez-ohizkoaren ereduan.

Bestalde, 'literatura femeninoa' kontzeptuaren jatorriak berak, garaietan egindako manipulazioaren berri ematen digu. Simone de Beauvoir-en *Memorias de una joven formal* obrak izan zuen arrakastari esker, ar-



IPARRAGIRRE, PILAR (Oñati, 1951)

- *Hilerriko jolasak (1989)*
- *Felix Likiniano. Ezina ekinez egina (1994)*


gitaletxeek, aukera komertziala aprobetxatuz, emakumeek idatzitako produkzio zabal bati eman zioten irteera, kalitatea ez izan arren irizpide".

Izena gorabehera, auzia da emakume-literaturarik ba ote dagoen, edota zer ulertzen den horretaz. Aipaturiko artikulu horretan luze ari da Laura Mintegi emakume-literaturaren alderdi konotatiboak argitzen. Ez dago batere argi emakume-literatura zer den. Bi ziurtapen bakarrik: ikuspegi arazoa dela eta berdin diola ikuspegi-emailea zein den, gizona ala emakumea. Emakunderen txostenean honela diote Laura Mintegik eta Maite Esnalek: "Literatura femeninoa (izen ikaragarria) ez da hilerokoaz edo amatasunaz hitz egiten duena izango, edozein gairi emakumearen ikuspegi berezitik, emakumearen kosmogoniatik heltzen diona baizik. Beste kontu bat da kosmogonia hori zein ote den jakitea eta emakume izatea zer ote den jakitea" (L. Mintegi).

"Literatura femeninoa badagoela uste dut, literatura maskulinoa badagoen bezalaxe. Nire iritziz, literatura estiloaren mugatzailea ez da sexua, idazten duenaren borondatea baizik" (M. Esnal).

Adin-piramide honek bi idazle-unibertso islatzen ditu: 1974koa, *Euskal Idazleak Gaur* liburukoa; eta gaurgaurkoa, liburu honetakoa.

30 urtetik 55era biltzen da idazle-kopuru handiena. Normala da. Hortik gora ere grafikoak normaltasunaren itxura ematen du. Kezkatzekoa, 30 urtetik behera agertzen den eskasia da kezkatzekoa.



Euskaraz emakumeek egin duten literaturan "emakume-literatura" zer-nolakoa den jakiteko azterketarik ez dut ezagutzen. Gema Lasartek (1987) "Gizonezkoa emakumezkoen literaturan" aztertu zuen *Jakin*-en.

Jaioturtea

Adinarekin zerikusi duen hainbat informazio ematen dugu hemen: adin-piramideak, belaunaldiak eta labealdiak, idazlearen adinik hoberena, idazlearen bizialdia, idazkintzaren hasiera kronologikoa.

Adin-piramidean belaunaldiak eta labealdiak

Adin-piramidea, azken batean, adinari buruzko taula da.

Belaunaldiek, hazaldiek, labealdiek adinarekin zerikusi zuzena izan ohi dute, baina osagai gehiagoz hornitzen dira. Adinaz gainera kontsideratu behar dira, adibidez, talde-fenomenoak, literatur korronteak edo joerak.

Lanean zehar, liburugintzaren eta literaturaren azterketaz jardutean batez ere, belaunaldiez eta labealdiez mintzatu gara. Hazaldiok hemen dute isla, adin-piramidean.

Adin-piramideari dagokionez, has gaitezen esanez bi piramide ematen ditugula batean. 20-22 urteko aldearekin. *Euskal Idazleak gaur* liburuan ikertu genuena da ezker aldekoa, 1974koa. 142 idazlez osatzen da unibertso hori.

Egungo idazlegoa dezente handiagoa da. Eta batez ere oso desberdina bere adin-taxukera. Bi piramideen formari begiratu besterik ez dago.

Eskuineko adin-piramidea gerri lodikoa da. Hogeita bost urtetan kontzentratzen da idazlegoaren % 70,5: hogeita hamar urtetik berrogeita hamar urte bitartean. Urtealdi honen erdi-erdian dago "Autonomiaren belaunaldia" deitu duguna. Belaunaldi horretan sar genitzake, zaharrenetik gazteenera, J.M. Elexpuru, Bernardo Atxaga, Jimu, Iñaki Zabaleta, Manu Erzilla, Koldo Izagirre, Joxerra Garzia, Xabier Olarra, Edorta Jimenez, Andolin Eguzkitza, R. Etxezarreta, Iñaki Mendiguren, Juan Garzia, Joanes Urkixo, Laura Mintegi, Pello Lizarralde, Pello Añorga, Joxean Sagastizabal, Hasier Etxeberria, Felipe Juaristi, etab.

Hauen aurretik, zaharragoen artean, gutxienez pare bat belaunaldi bereiz genezake. Justu zaharragoak dira "56ko belaunaldikoak": berrogeita hamarretik hirurogeita bost urte bitarteko idazleez osatzen da



IRAOLA, RUFINO (Zaldibia, 1951)

- Dena dago zatitxo baten baitan (1994)



IRAOLAGOITIA, FERMIN
(Etxebarria, 1940)

- *Borz 5 Urteko Umeak (1974)*
- *Urteko Umeak (1974)*
- *Jolasetik (1984)*
- *Argintxo eta Eneko kukuametsen (1985)*
- *Oilanda baltza (1985)*
- *Oilandatxoaren ametsak (1985)*
- *Zoli eta kukubiltxo (1985)*

gehienbat belaunaldi hau. Labealdi bat baino gehiago bereiz genitzake belaunaldi horren barruan.

Lehen bi labealdiak (zaharrenak) apaizgaitegietan hazi eta hezi dira. Lehen ordukoen artean izenda ditzakegu Jose Mari Satrustegi, Mikel Atxaga, Jose Antonio Arana Martija, Salbador Garmendia, Jose Mari Aranalde, Gotzon Garate, Xipri Arbelbide, Julen Kalzada, Xabier Azurmendi. Bigarren labealdiak aldizkarien mundua desarroilatu zuen. Aldizkaririk garrantzizkoena *Jakin* izan zen. Labealdi honetakoak dira Joseba Intxausti, Mikel Lasa, Joxe Azurmendi, Gexan Lantziri, Paulo Iztueta, Xabier Amuriza, Manex Pagola, Jose Angel Irigarai, Pello Zabaleta, Joan Mari Torrealdai, Mikel Azurmendi, Jokin Apalategi, Patxi Ezkiaga. 1956ko belaunaldi honek badu bere fase laiko eta kaletarra, aurreko Txillardegi, Koldo Mitxelena, Aresti, Mirande eta beste batzuen ildoari segida ematen diona: Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Luis Mari Bandres, Joseba Tobar, Baleren Bakaikoa, Xabier Mendiguren Bereziartu, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Patri Urkizu, Daniel Landart, Luis Haranburu Altuna, Patxi Zabaleta, Jon Sudupe, Arantxa Urretabizkaia, Andoni Sagarna, Mario Onaindia, Andu Lertxundi, Mikel Arregi, Amaia Lasa, Joan Mari Irigoien, Joxe Martin Apalategi, Joxean Agirre, Mariasun Landa, Joxeaustin Arrieta.

1956ko belaunaldiaren aurrekoak, 1936koak alegia, badu ordezkaririk adin-piramidean. Belaunaldi honek aukera gutxi eta eskasak izan ditu bere idazlangintza garaiz aurrera eraman ahal izateko. Gerra bizi-bizian ezagutu eta jasan dute, pertsonalki eta/edo familian.

Francoren altxamentuak txikizioa ekarri zuen Euskal Herrira. Babesbila diasporara jo zuen abertzale eta euskaltzaleen multzo batek eta beste batek bertan aurkitu zuen izkutalekua. Kanpokoetatik ordezkari gutxi gelditzen zaigu. Martin Ugalde dugu ezagunena eta eredugarriena. Barruan gelditu zirenak, ezinak, gartzelak, bildurrak gainditu, emeki-emeki hasi ziren lanean erregimenak uzten zituen zirrikituez baliatuz. Zaharrenetik gazteenera bada multzo bat: Jose Basterretxea, Anastasio Arrinda, Balendin Aurren-Apraiz, Basarri, Kaminazpi, Augustin Zubikarai, Mariano Izeta, Jose Antonio Loidi, Jaime Kerexeta, Luis Villasante, Iratzeder, Federiko Krutwig, Piarres Xarritton, Martin Ugalde, Juan San Martin, Gurutz Ansola, Xabier Gereño, Bittor Kapanaga, Jon Etxaide, Antonio Zavala, Bitoriano Gandiaga, Txillardegi.

Belaunaldi honetako batzuk egiazko gidariak izan ziren 50eko eta 60ko hamarkadetan, hala nola, Koldo Mitxelena, Txillardegi, Gabriel Aresti, F. Krutwig, Piarres Xarritton.

Adinez belaunaldi honetakoak izan arren, idaztcari oso berandu ekin dionik ere bada belaunaldi honetan. Nabarmenenak dira, horien artean,

Auspoaren bidetik plazaratu diren batzuk, kasurako, Ataño, Pablo Zubiarrain, Manuel Lasarte. Liburu-mailan berandu plazaratuak dira, baita ere, Kamiñazpi, Bixente Latiegi, Imanol Zaldua, Bitor Kapanaga.

Adin-piramidearen behe-aldera itzuliko gara orain.

"Autonomiaren belaunaldia"ren gazteenekin egiten dugu topo. Berrogei urte bueltan edo azpitik dabilen jendeak seminarioa barik unibertsitatea ezagutu du. Eta bere lehen frogak literatur aldizkarietan egin ditu sarri.


Hilak ziren ordurako "Ustela" eta "Pott", mito bihurturik zeuden. Aldizkari berriak sortzen dira, eta horien artean garrantzi (eta iraupen) handiena *Susa*-k izango du. Literatur aldizkari hauetan plazaratu dira Pablo Sastre, Mikel Hernandez, Itxaro Borda Josu Landa, Tere Irastortza, Jon Mikel Arano, Ander Iturriotz, Xabier Etxaniz, Iñaki Aldekoa, Manu Lopez.

Adinaren eskailaren jaitsiz, talde-aldetik umezurtzago ikusten dugu hurrengo labealdia: Javi Cillero, Joseba Etxarri, Karlos Linazasoro, Jon Arretxe, Luis Berrizbeitia, Joseba Gabilondo, Juan Luis Zabala, Pako Aristi, Inazio Mujika, Aitor Arana, Gerardo Markuleta, Xabier Mendiguren Elizegi, Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano. Ez da ahaztu behar, hala ere, labealdi hau idazten hasten denerako euskal autonomiak egitura propioak indarrean dituela.

Honela, pitinka-pitinka, adin-piramidearen oinetara iritsi gara, zonalderik kezkagarrienera hain zuzen. Hogeita hamar urtetik behera bizpairu idazle besterik ez dago. Hogeita hamairu urtekoekin bukatzen bide da idazleen emankortasuna: adin horren azpitik ez dago hamar idazlerik.

Erreleboak huts egiten digu. Idazleen tradizioa moztu egin dela ematen du. Urte-sail batean, 15-20 urte, euskal idazleen emankortasuna ziurta daitekeela dirudi. Baina leize handi bat gerta daiteke gero. Gaurko idazlegoaren batez besteko adina 49,7 urtekoa da. Idazlea onenean dagoen adina da hau. Gazteagorik badago, eta dezente. Baina batez besteko adina horren altua da, hain zuzen ere gazteenen multzoak huts egiten duelako. Literaturatik barik kazetaritzatik jo dute Imanol Murua Uriak, Jaime Otamendik, Xabier Letonak, Jon Sarasuak, Jon Anduezak, Luis Fernandezek, Hasier Arangurenek, A. Gostinek, Aitor Ugaldek adibidez.

Deskuidatzen bagara, arazo larria datorkio literaturgintzari XXI. mendean. Orain-oraingoz, 10-15 urtetan, oparoa izango da emankortasuna, eta hutsunea gero nabarituko da. Orain da ordua erreleboarena planteatzen hasteko.



IRASTORTZA, TERE (Zaldibia, 1961)

- *Gabeziak (1980)*
- *Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak (1983)*
- *Derrotaren fabulak (1986)*
- *Osinberdeko kantoriak (1986)*
- *Manual devotio gabecoa edo ibilgailuetara erabiltzeco escu-liburua (1994)*
- *Gabeziaren khantoreak: poema bilduma (1995)*

Karrera berantiarra eta laburra

Ikasketa luzerik ez da behar, baina gertakari bat da berandu bilakatzen dela bat idazle, obra baten jabe, alegia.

Le métier d'auteur liburuan Michèle Vessilier-Ressi-k Frantziako idazlegoaren gain egindako ikerketen ondorioz esaten du biztanleria aktiboa baino hamar urte beranduago hasten dela eskubideak kobratzen idazlea. Eta 15 urte geroago lortzen duela izena, ospea, arrakasta, biztanleria aktiboaren erreferentzian berriz ere.

Zergatik atzerapen tipiko hori? Izen bat egiteko lan-urte asko behar dira, zortea aparte. Hemen hitz egiten dugun neurrian ez gara liburu bateko zarataz ari, autore baten obraren (ez liburuaren) ondoko izenaz baizik. Salbuespen gutxi batzuk aparte, 40 urtetik gora lortzen omen da izena.

Urteetako lan isil eta luzeaz gainera, atzerapena dakar karreraren ataskoak ere. Hau da, aurreko belaunaldiak okupatzen duela plaza hori, eta sarrerako atea estua dela oso: hantxe pilatzen dira idazle guztiak plaza noiz libratuko.

Frantzian, ikerketa-garaian, populazio aktiboaren batez besteko adina 38 urte zen. Hamar gehiago idazlearena: 48. Estatu Batuetan, 49.

Euskal Herrian euskal idazleen batez besteko adina 50 urte da.


Idazlearen bizitza ekonomikoaren bukaera ez da hamar-hamabost urte beranduago gertatzen, ordea. 70 urte inguruan gertatzen omen da hori, biztanleria aktiboarena baino bost urte beranduago bakarrik.

Idazlearen bizitza soziala bizitza ekonomikoa baino luzeagoa da. Urtemuga horretan irabaziak gutxitzen dira, baina ez izena, ospea, arrakasta soziala. Izenak irabaziak baino gehiago irauten du.

Irabaziak gutxitzen hasi 55 urte ingururekin hasten omen dira. Bi faktoreren eragina ikusi behar da jaiste horretan. Idazlea bete-betean zegoeneko testuinguru politikoaren aldaketa da bat. Eta bigarren faktore eragilea idazlearen publikoaren zahartzea. Beste giro soziopolitiko eta kultural bat, beste autore batzuk, beste gustu batzuk, beste irakurle batzuk hartzen dute plaza, bizitzako legea den bezala.

Honek guzti honek ondorio bat dakar: berandu hasteaz gainera motza eta laburra dela idazlearen bizialdia: 15 urtekoa, berrogei urtetik berrogeita hamabostera bitartekoa.

Zer esan guzti honetaz? Esan beharrik ez dago ez direla hitzez hitz hartu eta egoera guztietara aplikatzekoak. Azterketa baten ondorioak dira, izan. Baina ez hori bakarrik. Gutxi edo asko horrela gertatzen da besteetan ere.



IRAZABALBEITIA, INAKI
(Donostia, 1957)

- *Prekozenoen sintesibidean. Anetol eta deribatuen eraztun aromatikoaren hidroxilazio eta nitrazioa (1985)*
- *Kimika: materiaren muinean. BBB 3 (1986)*
- *Hautsi ditugu kateak, espaziora goaz (1989)*
- *Arrotza Paradisuan (1991)*
- *Uda guztiak eztituk berdinak, Isi (1995)*

Nahiz eta goiz hasi berandu bihurtzen da bat idazle, benetako idazle. Euskal literaturaren kasuan zaila da kronologi kontu hauek ongi kontrolatzea. Soziologikoki esanguratsu den tamainan orain, oraintxe ari da gertatzen idazle-izena merezi duen multzo sozial honen taularatzea. Publiko bat badago, argitalgintza profesional bat badago, idazle "profesional" andana bat badago. Ikusi egin beharko da guzti honek duen eboluzioa eta indarren arteko oreka nola asentatzen den. Zaila da esplikatzen baina dena dago elkarri lotua: idazleak bere publikoa du (eskolari esker, promozioari esker, komunikabideei esker, etab.), idazlearen estilo eta mundu-ikuskerara egina. Argitaletxeek enpresa gisa funtzionatzen dute (akatsak akats), eta balio ziurrekin jokatzea nahiago dute. Idazle andana batek idaztetik bizitzearen (edo gero eta gehiago bizitzearen) apustua egin du. Guzti horri esker, autonomoago funtzionatuko du liburugintzaren munduak, eta agenteen elkarrekiko dependentzia handiagoan aldi berean.


Ataskoen arazoa ere areagotu egingo da. Gero eta zailago da izen bat egitea. Exijentziak gora egin du. Mailak ere bai. Eta, adin-piramidean ikusten da, 40-55 urte dituztenak 118 dira, idazlegoaren % 41,5. Noiz libratuko dute horiek bidea? Idazle berriei begirako politikarik ez edukitzea salatzen zaie editoreei. Eta arrazoiz. Baina kontu egin behar aurreko alditan baino zailagoa dela objektiboki idazle berri baten arrakasta.

Oraintsu arte idazle berri edo gazteak ez du ataskorik aurkitu. Libre aurkitu du bidea. Eta neke handirik gabe, esanak esan, ezagutzera eman du bere burua. Oso gazterik jubilatu izan baitira idazleak hemen. Langintzari sakonki ekin behar zitzaion unean bertan. Sasoirik hoberena iritsi aurretik, gehien-gehienetan. Onen-onenean egon beharko zukeen momentua iritsi aurretik, 1956ko belaunaldiko idazlea erretiratu egin da, jubilatu, idazteari utzi, edota grinarik gabe, motel-motel jarraitu du.

Data jakinik ez badago ere, 55 urte ingurutik atzera idazleak jasaten duen behetitzea, badirudi gurean ere gertatzen dela. Atzetik jendea indartsu datorren seinale da hori. Euskal kulturan 1956ko belaunaldia da justu hori, ez indarrean datorrena, baizik badoana. 1956ko belaunaldiari, edo 1964koari berdin dio, testuinguru politikoa aldatu zaio, bere publikoa zahartu zaio. Euskal literaturaren plaza, gaur bertan, 1976ko belaunaldiarena da.


Idazle-hasierak: artikulua liburuaren aurretik

Goiz hasi eta goizago amaitu egin duela bere karrera euskal idazleak esan izan da behin eta berriz. Ziklo oso txikia bete izan duela, egia da.



IRAZU GARMENDIA, JOSEBA "BERNARDO ATXAGA" (Asteasu, 1951)

- *Ziutateaz (1976)*
- *Etiopia (1978)*
- *Ramuntxo detektibea (1980)*
- *Antonino Apreta (1982)*
- *Camillo Lizardi Erretore Jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena (1982)*
- *Chuc Aranberri dentista baten etxean (1982)*
- *Jimmy Potxolo (1984)*
- *Asto bat hypodromoan (1984)*
- *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984)*
- *Gauero aterako nintzateke paseatzera (1984)*
- *Sugeak txoriari begiratzen dionean (1984)*
- *Txitoen istorioa (1984)*
- *Bi anai (1985)*
- *Astakiloak Arabian (1987)*
- *Astakiloak Finisterre aldean (1987)*
- *Astakiloen izkutuko taktika (1987)*
- *Italiako zirku batean (1987)*
- *Kitara baten bila gabiltza zoratzen (1987)*
- *Mikelek problema bat dauka (1987)*
- *Neska dun-dun bat (1987)*
- *Nikolasaren abenturak eta kalenturak (1987)*
- *Transatlantiko batean (1987)*
- *Obabakoak (1988)*
- *Antzoki iluna (1990)*
- *Behi euskaldun baten memoriak (1991)*
- *Astakiloak jo eta jo (1993)*
- *Esteban Werfell (1994)*
- *Lezio berri bat ostrukari buruz (1994)*
- *Zeruak (1994)*
- *Xolak badu lehoien berri (1995)*
- *Zeru horiek (1995)*



IRIGARAI, JOSE ANGEL (Iruñea, 1942)

- *Euskera eta Nafarroa (1973)*
- *Kondairaren ihauterian (1978)*
- *Bizi minaren olerkian (1986)*
- *Gauerdiko ele galduak (1986)*
- *Euskara bizitzaren kenkan. Orekaren mintzoa (1988)*
- *Urdinkara (1995)*

Oso azkar burutu duela ibilaldia ere bai. Karrera bukatu gabe erretiratu egin dela alegia.

Ez dakit horren egia den goiz hasia dela idazten jendea. Zeren eta lehen egia bazen, zer izango ote gaur. Gazte-jendearengan aurreratu egin da hasiera, batez ere liburugintzan.

Gazte nahiz besteengan artikuluak datoz aurrena, normala denez. Bost urteko aldea dago bien hasieran. Idazleen erdiak (% 51) 20-30 urte bitartean hasi dira artikulugintzan. Gazteago hasi denik ere bada, baina proportzio handiagoa osatzen dute geroago hasi direnak. Berrogei urterarte luza daiteke hasiera-urtea. Hogeita hamabost urtetik beherakoengan % 68,5 dira 20-30 adin-tarte horretan hasi direnak.

Liburuak idazten hasteko adina, esan bezala, bost urte geroago hasten da, 25 urterekin eta 40-45 urte bete bitartean luzatzen da. Hemen ere gazteenen eta gainerakoen artean handia da aldea. Hogeita hamabost urtetik beherakoak, bistan denez, 35 urte betetzerako idatziak dituzte liburuak. Baina hasi ere besteen aurretik hasiak dira, 20 urterekin. Adina aurrera joan ahala beranduago izan da hasiera. 35 urte bete aurretik idatzi dutenen batez besteko orokorra % 43,5 da.

Liburuak gazterik idazten hasiak direnen adin-marra diferentziatzailea, 45 urtetan dago. Edade horretatik beherakoetan % 78,5 da 35 urte bete orduko libururen bat idazten hasia. Berrogeita sei urtetik gorakoen artean, adin-tarte berean, % 25 bakarrik hasi da liburua idazten.

Liburuen hasiera-urtea adinean gaztetu-ahala aurreratuz joateak aspaldi honetan argitara ematcko idazleak aurkitu dituen erraztasunen aldetik izan lezake esplikazioa. Ezin dira alderatu 1960an zegoen zailtasuna 1990eko erraztasunarekin.

Liburuaren aurretik artikulura jotzea idazleak, munduko gauzarik normalena da hori. Inor idazle jaiotzen ez denez, entrenamendua behar du, edozein kirolarik bezala. Ofizio bat ikasten den bezala ikasten da idazten ere. Zurginak, harginak, nola, gauza bera behin eta mila aldiz egin eta errepikatuz?, horrelaxe idazleak ere.

Liburu bat ez da idaz-jardueraren lehen orduan burutzen. Artikuluxkak, artikuluak, egin ohi dira aurrena. Gero handiagoetara pasatzeko legea bailitzan da hori. Plazara egun argiz irtetea da liburua. Baina horren aurretik isileko lan gaitza, nekeza, luzea egin beharrean dago idazlea, idazlegaia. Edozein artista antzo.

Ofizioa ikasiz joateko biderik egokiena aldizkaria da. Ausartzea errazagoa da; konpromisoa, txikiagoa. Eskolako aldizkaria, elkarteko aldizkaria, taldekoa, auzokoa, herrikoa.

Aldizkaririk ez dagoenean zer gertatzen da? Bietako bat: idazlegaia ez da idazle bilakatzen organo faltaz, edo bestela liburutik hasten da.

Lehen teoria frogatzea ezina da, noski, nor ez den horregatik idazle bihurtu alegia, baina bigarrena egia da. 80ko hamarkadako lehen urteetako gazte askoren lehen fruitu ezaguna, liburua izan da. Zoritubako, heldugabeko fruituaren dasta zuen halako liburuak.

Arazo hori bere unean ikusi dugu, Joxe Azurmendik Susakoei esaten ziena gogoratuz.

Gaur egun aldizkariak ugari dira, baina ez dute funtzio hori. Literatur aldizkariak behar dira. Adin-piramidean 25-30 urte bitartean ageri den idazle-falta horretan ez ote du zerikusirik literatur organo hauen faltak?

Lautik batek hamar liburutik gora

Jon Juaristik idatzi zuen euskal literatura simulakro bat dela, irakurle gabe eta liburu bakarreko idazlez osatua. Egiaren antzik ere ez du iritzi horrek, gaur egun. % 27,7 da hamar liburu edo gehiago idatzi duena. Ehundik gora idatzi duen bat ere badago, Xabier Gereño. Liburu adina idazle zegoen garaia urruti utzi dugu. Idazleko liburu-kopuru horrek idazlearen "profesionaltasuna" agertzen du, dedikazioa, bokazioaz gainera. Horietatik multzo on bat, gainera, gaztea da, 45 urtetik beherakoa (% 31,5). Sasoi betera iristeko dago. Hamar edo hogei urte barru ikusi beharko da hauen produkzioak zer-nolako maila hartzen duen. Lautik bat da, orobat, 2-5 liburu idatzi duena. Eta hazkundea ez da geratu.

Alderantziz, bat bakarra idatzi dutenak % 11,4 dira. Huskeriaren hurrena, horrekin euskal literatura kalifikatu nahi duenarentzat.

Profesionalaren emankortasunik ez dagoela esango nuke, hala ere. Eskas samarra iruditu zait kazetari-lanetan eta saiakeratan lortu den emaitza. Lautik batek bakarrik idatzi du 100 artikuluska baino gehiago. Emaitzik eskasena, dena den, idazlan luzeetakoa da, nire ustetan: 25 idazlan luzetik gora idazleen % 17,6k idatzi du. Ez da asko. Beste hainbeste da 10-25 saio edo gisakoak idatzi dituena.

Jaioterria

Robert Escarpit literatur soziologoak bere *Sociologie de la littérature* (1968) liburuan idazleak sortu eta garatzeko orduan leku-jatorriak eta inguruneak duten eragina ikertzen du. Basamortuan ez da larrosarik sortzen.

Aztertzaile bera da esaten lehena, bestalde, literatur bokazioen gaineko eragin hau ez dela exageratu behar. Edo hobe esan, zuhurtziaz jokatu behar dela eragin hori neurtzeko orduan.



IRIGOIEN, ALFONSO
(Bilbo, 1929-1996)

- *Sorterriaren alde (1976)*
- *Herrian gara bizi (1979)*
- *Orbel eta orri (1980)*
- *De Re Philologica linguae vasconicae (1986)*
- *De Re Philologica linguae vasconicae. II (1987)*
- *Pertsona - izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat) (1994)*
- *Kultura-hitzak euskaraz (1995)*

Historian

Euskal liburuaren historia aztertu dugunean, liburu honen lehen zatian, saiatu gara geografikoki kokatzen unean uneko emaitzak, liburu-produkzioa eta argitaraguneak modu berezi batez. Seinalatu egin ditugu arrazoi hipotetiko batzuk, seinalatu baldintzak, ondorioetara azkarregi pasa gabe.


Produkzioaren azterketarako erabili ditugun aldagaien argitan irakurri behar dira idazleen gorabeherak.

Ikusi dugu han XVII. mendean Lapurdi inguruan egosten zela liburu-saltsa, XVIII. mendean Ipar Euskal Herritik Hegoaldera igarotzen dela liburugintza. Eta behin Hegoaldean, Gipuzkoan eta Bizkaian babesten dela emeki-emeki, batez ere lehenengoan. Literaturaren historia guztietan gauza bera nabarmendu ohi da.

Lurralde bakoitzaren idazle-emankortasuna ere bide beretik doa, nola ez.

- XVI. mendean Lapurdik idazleen % 35,3 du
- XVII. mendean Lapurdiren proportzioa % 50 da

Hiru mende eta erdiko idazleak kontuan izanda, Gipuzkoa da emankorrena. Idazleen % 37 Gipuzkoan jaio da. Bostetik bat pasatxo da Lapurdin *jaioa, eta pitin bat gutxiago Bizkaian.* Nafarroak bere osoan % 13,1 eman du. Zuberoa eta batez ere Araba gelditzen dira bazter eta atzen.



- XVIII. mendean Gipuzkoa dator aurrena (% 36,1) eta parean datoz atzetik Lapurdi eta Bizkaia: % 19,4 bakoitzak
- XIX. mendearen lehen aldian (1800-1850) Gipuzkoak du aurreneko postua (% 34,8) eta hurbil-hurbil du Lapurdi (% 30,4)
- XIX. mendearen bigarren aldian (1850-1900) Gipuzkoak sekulako saltoa ematen du (% 48,9). Bizkaiak berez jauzi handiagoa egiten du, baina txikiagoa da bere indarra (% 22,4)

Oro har, XVIII. mendetik izan duen indarrari esker, Gipuzkoa dator aurreneko postuan (%37).

Azken mende erdian indar asko galdu badu ere Lapurdik lortzen du bigarren lekua idazle-emankortasunean (% 21,1).

Bizkaiak nahikoa hurbildik jarraitzen dio Pizkundean emandako jauziari esker (% 18,8).



IRIGOIEN, GUILLAUME (Hiriburu)

- Zortzi ehun ahari (1984)

Gaur egun

Geroko informaziorik ere badugu. Irizpide ezberdinez moldatuak daude hauek, inkestakoak baitira biak. Inkestarako aukeratu diren idazle bizien jaioterriak ageri dira horietan.


Bi informazio-iturri horietako datuak batean emango ditugu. Lehena, *Euskal Idazleak Gaur* liburukoa da, 1974-76 urteetan bildua. Eta bigarrena, aurten bertan idazleei zuzendutako inkestakoa.

Jaiolekua	1976 %	1996 %
Gipuzkoa	61,0	54,7
Bizkaia	22,5	26,0
Araba	3,0	3,0
Nafarroa	3,2	6,0
Ipar Euskal Herria	9,2	8,0
Besterik	1,1	2,3

Bi belaunalditako argazki gisa balio du taula honek.

Egin kontu portzentaiatan mintzo garela. Idazleen kopurua askoz handiagoa da gaur, 1976an baino.

Lurralde bakoitzaren emankortasuna da lehen begiratu behar dena. Eta gero, azken urteotan izan duen eboluzioa. Hemezortzigarren mende-



IRIGOIEN, IMANOL (Donostia, 1940)
- Argiaren barne distantziak (1989)

an hasi den Gipuzkoaren nagusitasuna areagotuz joan da denbora pasa ahala. Eraginik handiena gerraostean izan zuen. Gaur orekatuxeago dago errealitatea. Gipuzkoak sei puntu galdu ditu. Bizkaiaren indarra handitu egin da, ia lau puntu. Arabak berdin-berdin jarraitzen du bere % 3 horrekin. Bizitu egin da Nafarroa, hiru puntu gehiago ditu. Ipar Euskal Herria, aldiz, azken hogei urteotan euskal kulturak izan duen susperraldi honetan badirudi atzean gelditzen ari zaigula.

Bizilekua

Robert Escarpit-ek berak dio, baita ere, talentuek erdi aldera jotzen dutela, zentro horretan publiko ohartuagoa eta hedakuntza hobea bilatuko dutelakoan.

Gipuzkoa al da erdigune hori?

Egia da XVIII. mendean hasi eta XIX-XX. mendeetan areagotuz joan dela euskal kulturaren kontzentrazio gipuzkoarra. Sorlekuari buruz esan dugun gauza bera esan behar da bizilekuaz. Sorleku emankorrena Gipuzkoa da. Eta Gipuzkoa da literatur ingurune hautatuena.

Hogei urteren buruan

Azken hogei urteotan nola mamitu da bizilekuen banaketa hori? Hau da, idazleen etxebizitzak nola banatzen dira geografikoki? Hogei urte hauetan egon al da aldaketarik?

Eboluzioaren nondik norakoa neurtzeko, *Euskal Idazleak Gaur* liburuko inkestako kokapen geografikoa konparatuko dugu gaurkoarekin.

Bizilekua	Idazle-kopurua (%)	
	1976	1996
Gipuzkoa	62,6	51,7
Bizkaia	19,9	26,4
Araba	2,6	5,6
Nafarroa	3,1	3,4
Ipar Euskal Herria	9,2	9,4
Besterik	2,6	3,4

Gaurko egunean hobeto banatua dago bizilekuen kokapena, proportzio hobean. Gipuzkoak indarra galdu egin du. Bizkaiak dezente irabazi du. Arabak ere puntu batzuk igo ditu: EAEk Gasteiz hiriburu egitearen eragina ikusi behar da igoera honetan. Nafarroa eta Iparraldea balio berdinetan mantentzen dira: idazle gehiagorekin, hori bai, baina beste lurraldeekiko indar-erlazio berean.

Jaio eta bizi

Idazlearen mobilitate geografikoak zer-nolako norabidea duen antzeman nahi genuke taula honen bidez. Idazlea non sortua den eta gaur egun non bizi den ageri du taula honek, lurraldeka eta eskualdeka.

Idazleen dentsitate geografikoa kontuan harturik moldatu ditugu eskualdeak era honetara.


Goazen puntuz puntu azpimarraketa batzuk egitera.

- Egoitza aldetik Gipuzkoa da nagusi, idazle erdiak bertan bizi dira. Lautik bat bizi da Bizkaian, eta gainerako Euskal Herri osoan barreiaturik daude beste % 22ak.
- Gipuzkoa eta Nafarroa idazle-esportatzaile dira. Hau da, bizi direnak baino gehiago sortu direla beraietan.
- Araba eta Ipar Euskal Herria, aldiz, idazle-hartzaile dira. Bertan jaioak baino gehiago bizi dira lurralde horietan. Araban gertatzen denak esplikazio politiko-administratiboa du. Iparraldera, aldiz, lanera baino sarriago bizitzera joan da Hegoaldetik jendea.
- Hiriburu eta inguruek, horiek bai, erakartzen dute jendea. Denak hazi dira: Donostialdea gehien, Bilbo gero, eta Gasteiz. Hegoaldean, Iruñea da salbuespen, ez dakit zergatik. Ipar Euskal Herrian Lapurdik nabarmenki gora egin du. Behenafarroak sortu bai baina ez ditu gordetzen idazleak. Lapurdiren alderantzira: honek ez du askorik ematen berak baina jaso bai, inguruko lurraldeetatik.
- Hegoaldean, lurralde bakoitzaren barruan, hirigunea da lehena, bai sortzen eta bai idazleak gordetzen. Hiribilguneak aparte, non jaiotzen eta gelditzen dira idazleak?

Bizkaian, Gernika-Plentziak sortzen ditu gehien, baina ez ditu bere lurretan mantentzen. Arratia-Durangaldea, berriz, sortzen apalxeago dabil baina gehiago bizi dira bertan.

Gipuzkoan, Goierri, Urola-Kosta eta Debari ihes egiten diete idazleek, proportzio dezentean gainera. Eskualde hartzaile bakarra Oarso-Bidasoa da.

Araba, hobeto esan Gasteiz, idazle-hartzaile da. Gasteizen jaiotakoen hiru halako bizi da gaur egun Gasteizen. Lehen aldiz gertatzen da hori



IRIGOIEN, JOAN MARI
(Donostia, 1948)

- *Oilarraren promesa (1976)*
- *Lope Agirre (1979)*
- *Poliedroaren hostoak (1982)*
- *Bakarneren gaztelua (1986)*
- *Udazkenaren balkoitik (1987)*
- *Babilonia (1989)*
- *Denborak ez zuen nora (1991)*
- *Consummatum est (1993)*
- *Metak eta kometak (1994)*

Araban. Esplikazioa ez da EAEko administrazioaren kokaleku izatetik aparte bilatu behar seguruenik.

Nafarroako kasua da bereziena. Hiriburua ez da idazle gehien sortu ohi duena. Ez da harritzekoa Nafarroa euskalduna izatea idazle-sortzaile, hori ez; baina ihes egiten dute gehienek, Nafarroatik kanpo batzuk. Nafarroaren Hegoaldean jaiotako euskaldunberririk ere bada, baina bat ere ez bertan bizi denik.

Zergatik aldatzen da idazlea erdigunera, hiriburura? Literaturaren soziologoek esan ohi dute ez doala arrakastaren bila, edo ez horretara soilki. Ofizioa praktikatzeak eraman ohi duela hara, bertan baitaude argitaletxeak, irratiak, kazetak, era guztietako kultur ekoizleak.

Gurean ere joera hori gertatzen da, batez ere Donostia aldera. Eta egia da, baita ere, Donostia inguruan biltzen direla disketxeak, argitaletxeak, kazeta euskaldunak, irratiak, telebista.

Baina Donostia ez da Paris txikia. Frantziako idazlegoaren baitan sekulako kontzentrazioa pilatzen da Parisen: Parisaldeak Frantziako biztanleriaren % 18,8 suposatzen omen du eta idazleen % 88 biltzen omen da bertara. Donostialdeak euskal idazlegoaren lautik bat biltzen du, Bizkaia osoak bezalatsu. Asko da, baina ez hainbeste.

Literatur fenomeno gisa esplikatu behar al da kontzentrazio hau, ala bestela? Galdetzekoa da Donostian idazlea zergatik gelditzen den edo zergatik bertaratzen den: bere lanbide normalagatik ala idazle izateagatik?


Lanbideagatik izango da, seguru. Baina ez da ahaztu behar euskararen eta euskal kulturaren esparruetako lanbidea aurkitzea errazago dela Donostian Euskal Herrian beste inon baino.

Idazleak, inkestan ikusten denez, "giro euskalduna" gizartekoa baino askoz altuagoa du bere ingurunean. Idazle gehienek lanean, lagunartean eta familian erdia baino gehiago egiten du euskaraz: lanean % 71,7; lagunartean % 76,6 eta etxean % 82,6. Euskararen dentsitateak badu, hortaz, idazlearengan eraginik.

Famili egoera


"Il s'est marié, il est mort pour la littérature" esan zuen H. de Montherlant idazle famatuak: ezkondu eta literaturarako hil.

Eta C. de Fresnyk zioen: "Un génie marié est un génie stérile. En effet, les productions de l'homme sont bornées. Il faut opter de laisser à la postérité ou des ouvrages d'esprit ou des enfants". Alegia, gizakumearen ahalbideak mugatuak direla eta hautatu egin behar dela geroari zer utzi: haurrak ala espiritu-lanak. Horra.



Sorterriari begira, gaurko idazleen erdia eta gehiago (% 54,7) Gipuzkoan sortu da. Lautik bat pasatxo Bizkaian. Hurrengo guztiak oso urruti datoz.

Bizilekuari begira, idazlegoaren erdia Gipuzkoan bizi da, nahiz eta bertan jaiotakoak baino gutxiago han bizi. Nafarroa da idazleak galtzen dituen beste lurraldea. Bizkaiak eutsi egiten dio bere kopuruari. Gainerako lurraldeak idazle-hartzaile dira emaile baino gehiago.



IRIONDO, LOURDES (Donostia, 1937)

- *Heqo-haizearen ipuinak (1973)*
- *Martin arotza eta Jaun deabrua. Sendagile maltzurra (1973)*
- *Asto baten malura (1975)*
- *Buruntza azpian (1975)*
- *Ipuin zahar eta berriak. Haurrak Euskalduntzen bideoaren bidez II* (1983)*
- *Kontu kontari. Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez. 2. zatia (1985)*

Egia al da sorkuntzarako bikote-bizitza baino hobe dela ezkongabe bizitzea? Egia al da dibortzio-tasa handiagoa dela sortzaileengan (idazle, artista, musikari...) biztanleria orokorrean baino?

Michèle Vessilier-Ressik-en azterketak baietz dio, Frantzian ezkongabeen eta dibortziatuen proportzioa handiagoa dela autoreengan, herriko gehiengoarengan baino.

Gurean egoera zibila lautan banatu dugu: ezkonduak, ezkongabeak, erlijiosoak (apaizak) eta bestelakoak. Azken sail honetan sartzen dira dibortzioak. Hona proportzioak:

Ezkonduak	55,4
Ezkongabeak	22,8
Erlijiosoak	14,7
Besterik	4,9

Apaiz eta erlijiosoen proportzio hau literatura handictan cz da inon ematen. Berezia izan da gure historia horretan. Egoera zibilez erlijioso diren ia denak 50 urtetik gorakoak dira idazleen artean.

Seme-alaben kopurua da bestea.

Idazlearentzat zerk du lehentasuna: kreazioak ala prokreazioak? Horretan ere, azterketa berean agertzen da idazle-jendeak batez besteko nazionalak baino kopuru apalagoa duela. *Aut liberi aut libris* dio latinezko esateko zaharrak.

Eman ohi diren arrazoien artean ekonomiazko ziurtasunik eza izan ohi da lehena. Baina ez da ahaztu behar bigarrena, kreatzailearen giro bereziaren premia, "egoismo" famatua: kreatzailearentzat bere obra da lehen gauza, gero emaztea/senarra eta geroago haurrak. Omen.

Bernardo Atxagari galdetu zioten familia sortzeko asmorik ba ote zuen. Erantzuna: "Creo que este oficio no es compatible con una familia numerosa, porque a mí me trae mucha inestabilidad". Kasu isolatua al da? Egia esan, galdera-mota honek bere zentzu betea idazle profesionalengan bakarrik du, horretatik eta horretarako bizi direnengan. Bi urtez behin liburu bat idazten duenak ez ditu aukera hauek idazle gisa egiten, bestela baizik.

Ezkonduta baina haurrik gabe % 11,4 bizi da. Beste hainbeste da hiru seme-alaba edo gehiago duena. Multzorik handienak (% 41,8) seme-alaba bat edo bi ditu.

Aitaren lanbidea

Jatorri sozioprofesionalak aztertzeak zentzua du idazle-bokazioetarako ba ote dagoen ingurune egoki eta pribilegiaturik ezagutzeko. Garai guztietan eta literatura guztietan ez dira ingurune berak aurkitzen. Askotan burgesia izan da idazleak sortzeko lekune aproposa. Inoiz armada, Frantzian XIX. mendean idazleen % 24 ofizialen semeak omen ziren.

Langileak eta nekazariak azpi-ordezkatuak izan omen dira beti, dio Michèle Vessilier-Ressi-k. Gurean salbu, esango nuke nik. (Nago zenbait kultura minorizatuetan ere gertakari bera ez ote den nagusi).

Bai, jatorri apala du euskal idazleak:

Erantzunik ez	9,2
Nekazaria/Arrantzalea	24,5
Langilea	27,2
Enplegatua	13,0
Profesio liberala	8,7
Autonomoa	2,2
Enpresaria	2,7
Ez-aktiboa	12,5

Bukaeratik hasiz esan dezagun azken erantzunean, ez-aktiboetan, ikasleak sartu ohi direla, langabezian daudenak eta jubilatuak. Hiruak proportzio beretsuan daude hemen.

Burgesia txiki, ertain edo handiko idazle gutxi dago. Lautik hiru jatorri apalekoa da (% 73,4). Gehien-gehien aita edo enplegatu, edo langile edo nekazari zein arrantzale izan da edo da. Lehen eta bigarren sektorekoak dira horietako gehientxoenak: langile eta nekazari dira erdia pasatxo (% 51,7).

Duela hogei urteko idazleen jatorrian, bi sektore hauek are pisu handiagoa zuten: % 68. Eboluzioak hirugarren sektorera jo du gehiago.

Euskal idazlearen kasuan beste mila faktorek bezala, jatorriak ere euskararen dentsitatearekin du zerikusirik. Idazlegoan euskaldunberri dezente badago ere (% 20,7), sekulako garrantzia du jatorrizko euskarak. Horrek baldintzatzen du, seguru, idazlearen jatorri geografikoa bezainbat familiakoa.



ITURBE, ARANTXA (Alegia, 1964)

- *Ezer baino lehen (1992)*
- *Maite, maite, maitea (1-15) (1992)*
- *Lehenago zen berandu (1995)*

Ikasketak

Ikasketa-maila idazleen artean jende arruntarena baino altuagoa izan ohi da. Nahiz eta idazle izateko ez den karrerarik behar. Aztertzaileek askotan esan ohi dute jatorrian dagoela gakoa. Alegia, burgesiak berarekin dakarren hezkuntzaren ondorio izan ohi dela.

Jaiotzak deus gutxi erabaki du gurean, orain artean bederen, idazlearen bokazioa. Gehiengoa jatorriz gizarte-maila apalekoa dela ikusi dugu.

Ez du erantzuten	0,5
Batxilergoa	8,2
Erdi-mailakoak	2,7
Magisteritza	12,0
Eliz ikasketak	13,6
Zientziak	13,6
Filologia	15,2
Filologia eta beste	6,5
Letrak	25,0
Zientziak eta Letrak	2,7



ITURBE, MARTIN (Ikaztegieta, 1932)

- *Bizitzako urratsetan (1973)*
- *Itsasoko muga estuak (1983)*
- *Elorria (1986)*
- *Gizarte nekatua (1986)*
- *Bizitzako qazi-qezak (1987)*
- *Eztigai zulatua (1987)*
- *Gorostiaren abesti orlegia (1987)*
- *Haizeak ekaitza sortuko du (1987)*
- *Itsasoaren itxaropen gazia (1990)*
- *Zelai ezberdiñetan amets-oihu berdinkatuak (1991)*

1976ko inkestako idazlegoan % 53 zen ikasketa unibertsitarioak eginak zituena. Hogei urte beranduago % 60ra iritsi da kopuru hori. Letretako karrera da nagusi: % 25. Lautik batek hori egin du. Askoz gehiago dira, egiaz eta benetan, filologia erantsiz gero. Bost idazletik batek filologia ikasi du; multzorik handienak 35 urtetik behera du.

Karrera seminarioan egin dutenak gutxi dira (% 13,6), oso gutxi aurreko belaunaldiekin alderatuz gero. Oraingo inkestan ia denek 50 urtetik gora dituzte. Hauek gazte zirenean, orduan bai zela inportantea seminariotik igarotako idazleen kopurua. Ibon Sarasolak 1975ean (*Euskal literatura numerotan*) aldi desberdinetako idazleen arteko konparaketa bat argitaratu zuen. Hautaturiko urte horietan libururen bat idatzi zuten idazleetatik zenbat igaro zen unibertsitatetik eta zenbat seminariotik, hori jakitea bilatzen du. 1934-35 urteetako idazleetan, unibertsitatetik % 16,7 igaro zen eta seminariotik % 58,3. Hurrengo urtealdian, 1962-63 urteetan, % 15 pasa ziren unibertsitatetik eta % 65 seminariotik. Eta, azkenik, 1972-73 urteetako idazleen artean unibertsitatetik paseak % 41,3 ziren eta seminariotik igaroak % 33,3. 1976ko inkestan, bestalde, eliz ikasketak egindakoen proportzioa % 20,9 zen. Handik honako eboluzioa oso positibotzat jo eta normalizazioan urrats handitzat hartu behar da.

Lanbidea

Lanbidea, zein izango da idazlearen lanbidea? Idaztea, ezta?

Ezein profesiotakori galdetzen zaio sekula zein den bere "bigarren" ofizioa. Zein da abokatu baten bigarren ogibidea, mediku batena, injineru batena, kazetari batena? Gaizki hartuko lukete galdera.

Bada, idazleari bai, normal-normal galdetzen zaio. Idazletzat hartu eta egiaz lehenengoa den bere "bigarren" ofizioaz galdetu: bai bitxia jokaera, baldin eta idazlea literaturatik bizi balitz! Idaztea, idazle izenari izana ematen diona, idaztea oso gutxirentzat da ogibide, ordea. Gainerako guztiek beste lanbide bat dute, literaturatik urrun zein hurbil egon daitekeena, baina bestelakoa dena beti.

Bigarren ofizioa deitzen den lehen lanbide horren izaerak asko esan nahi du idaztea bera planteatzeko orduan.

	Lanbidea	
	Aurrekoa	Oraingoa
Ez du erantzuten	15,8	-
Ikaslea	2,2	1,6
Langilea	6,5	0,5
Enplegatua	8,2	8,7
Irakaslea (erdi-mailakoa)	38,6	21,2
Kazetaria	4,3	6,0
Itzultzailea	3,8	8,7
Erlijiosoa	6,5	5,4
Idazlea	0,5	9,2
Irakaslea (goi-mailakoa)	8,2	16,8
Profesio liberala	5,4	8,2
Ez-aktiboa	13,6	-

Irakurketa ugari onar ditzake taula bikoitz honek.


Kopuruz altuena ez bada ere lehen unetik nabarmendu beharko genuke "idazleen" kopurua: % 9,2 dira idazleari zuzen-zuzenean dagozkion lanak egiten dituztenak.

Idazle izatea gehiegi bortxatu gabe, beste bi ofizio ere erants dakizkioke idazleari: kazetariaren lana eta itzultzailearena. Hiru lanbide hauetan dihardutenak % 24 dira, ia-ia lautik bat. Hiruetan idaztea da jardue-



ITURBIDE, AMAIA (Bilbo, 1961)

- *Eskaileraren bi aldeetan (1986)*
- *Itzulbidea (1992)*
- *Gelak eta zelaiak (1994)*



ITURRALDE, JOXEMARI "JIMU" (Tolosa, 1951)

- *Dudular (1983)*
- *Nafarroako artizarra (1984)*
- *Pic-nic zuen arbasoekin (1985)*
- *Hamasei urte bete nuenean hiriko argiak iraungi ziren (1986)*
- *Zikoinen kabian sartuko naiz (1986)*
- *Londresen nago aitonarekin (1987)*
- *Ijitoak dauzkat nire etxean (1988)*
- *Izua hemen (1989)*
- *Bederatzi gutun t'erdi (1992)*
- *Filipinetan bizi den idazlearen kontuak (1993)*
- *Lau bizikleta urrutira joateko (1994)*
- *Sute haundi bat ene bihotzean (1994)*

ra printzipala. Beste datu oso inportantea: hiru lanbide horietan gazteak dira nagusi. Idazle gisa definitzen den multzo handienak ez du 45 urte. Are gazteagoa da kazetarien eta itzultzaileen batez besteko adina.

Irakasleen kopuru handia da beste gertakari erabakigarria: % 38 dira irakasle, hauetako asko Unibertsitatean eta beste asko ikastetxe eta ikastoletan. Irakasle-idazleen belaunaldi berri bat jaio da. Unibertsitateko irakasle-idazleen mordo on batek 36-45 urte ditu. Beste irakasleak 60 urte bitartean multzo berdintsutan banatzen dira adin guztietan.

Aurreko inkestan irakasleak % 29 ziren. Hazkunde nabarmen honek normalizazio-maila handia ematen dio idazlegoari, beste kultura batzuetan ere gurearen aurretik kolektibo horixe baitzen nahikoa masiboki presente zegoena. Jarduera honek berez dituen dohainak aparte, badirudi irakasleek idaztera jotzeko arrazoietako bat denboraren disponibilitatea dela. Hainbat inkestatan arrazoi modu hori agertu omen da.

Aurreko eta oraingo lanbidearen konparaketan aldaketa batzuk behintzat garbi ikusten dira. Irakaskuntza ez-unibertsitariotik unibertsitariora egin du idazleak garbi-garbi. Idazle izateko ekimena bera ia ehuneko ehun da berria. Itzultzaileen gorakada ere hor dago. Langile izatetik gora egin den saltoa ere ez da txikia.

Guzti honek erakusten du idazleek lan-mugikortasunik badutela, batetik, eta bestetik gaurko gizarte-kategorietan maila oncan kokatzen direla.

Zertan esanik ez da lanbide guztiak ez direla idazlearentzat berdinak. Giroa, astia eta dirua, hirurak behar ditu idazleak, idaztera dedikatu ahal izateko.

Ofiziorik hoberenetakotzat irakasle izatea jotzen da, batez ere aisialdia uzten duelako. Idaztera erabat dedikatu ahal izatea izango da hoberena. Idazle batzuk, hala ere, nahiago dute bigarren ofizio bat izan, bere dorretxotik irten eta gizartean integratu ahal izateko.

Idaztetik bizitzea, alabaina, ez da literaturatik bizitzea. Andu Lertxundik behin baino gehiagotan esan du bera idaztetik bizi dela baina ez literaturatik. Idaztea ekintza plurala da. Literatura egitea baino askoz anitzagoa. Lanaren ordaina egile-eskubide gisa jasotzen diren jarduketa guztiak dira idazlearen propio-propioak: literatur genero desberdinak idaztea; gidoiak egitea teatro, telebista zein zinemarako; hitzaldiak ematea; itzulpenak egitea; aldizkarietan zein egunkarietan kolaboratzea; irrati eta telebistan parte hartzea. Hori eta gehiago da idazlearen egile-eskubideetan sartu ohi dena.

Idazle batzuk sorkuntzazko literaturatik kanpoko lan guzti horiek gogoz kontra asumitzen dituzte, beste erremedirik ez dagoelako, bizi

nahi bada. Beste batzuek, aldiz, aniztasun eta erregistro-desberdintasun horixe bilatzen dute, bere bokazio pluralari erantzun behar diotelako. Bide beretik, aukera paregabetzat jo ohi du autore honek multimediak irekitzen dituen sorkuntzaren eta komunikazioaren luberri guzti horietan euskal idazleak sartu ahal izatea.

Liburutik bakarrik bizi nahi duen idazlearen arraza hilzorian dago, kulturaren merkatua eta autoreen aukerak biderkatuz doazen heinean.


Euskararen eskolak

Gaurko euskal idazleak non ikasi du euskara: sinpleki bere etxean? ikastolan akaso? euskaltegian beharbada?

Ikastola ez da nonbait idazle-harrobia. Idazlegoaren % 20-25 da ikastolatik pasa zitekeena, eta % 6,5 da pasa dena.

Duela hogei urte, *Euskal Idazleak Gaur* liburuaren garaian, esperantza guztiak ikastolan genituen. Ikasleengan eta irakasleengan. Liburuak non salduko? Ikastolan. Aldizkariak non salduko? Ikastolan. Egunkaria non salduko? Ikastolan. Idazleak nondik aterako? Ikastolatik! Eta ez. Espektatiba haiek ez direla bete konstatatu behar dugu gaur. Auskalo zergatik. Kazetaritzan, adibidez, literaturan baino ikastolakume gehiago dabil, askoz gehiago.

Euskaltegiek ikastolak baino emaitza hobeak eman dituzte, itxura guztien arabera. Euskal idazleen artean euskaldunberriak % 20,7 dira. Euskaldunberrietan gehienak (% 60,6) 45 urtetik beherakoak dira. Esanguratsua eta esperantzagarria deritzogu eboluzio-joera honi.



ITURRIOTZ, ANDER (Ordizia, 1961)

- *Birundak (ele laburrak) (1982)*
- *Goierri. I. Berrogei ta hiru heiagora (1983)*
- *Goierri. II. Odolezko oskaisto denero (1983)*

Atxaga Axular-en aurretik


Tematikan nahiz idazkeran idazleengan eragin gehien izan duten idazleak zeintzuk izan dira? Horrek ez du esan nahi besterik gabe autore horiek direnik maisu, eredu, prototipo. Nola edo hala, dena den, eragiletzat hartu diren idazle hauek aztarnak utziko zituzten gaurko idazlegoan.

Nahas-mahas bat da hautapena. Klasiko zahar bat bakarra dago, idazleen printzea: Axular. Pizkunde garaikotzat har genitzakeenak gehiago dira: Orixe, Lizardi eta Txomin Agirre. 1956ko belaunaldiko lau: Txillardegi eta Aresti, lehen ordukoak; bigarren aldikoa, Saizarbitoria; eta azken labealdikotzat har genezakeen Anjel Lertxundi. Eta 1976ko belaunaldikoak bi bakarrik, bata guztietan aurrena, Bernardo Atxaga; eta bos-

garren datorren Sarrionandia. Olerkari eta narratzaile, biak, dira horietako bost; eta beste bostak narratzaile hutsak.

B. Atxaga	6,7
Axular	4,3
Txillardegi	3,8
Orixe	3,7
J. Sarrionandia	3,6
G. Aresti	3,6
A. Lertxundi	3,5
Lizardi	3,5
Tx. Agirre	3,0
R. Saizarbitoria	3,0

Hauen segidan, ondo-ondoan, datoz Koldo Mitxelena, Koldo Izagirre, Joxe Azurmendi eta Jon Etxaide.



IZAGIRRE, KOLDO (Pasaia, 1953)

- *Itsaso ahantzia. Poemak (1976)*
- *Zergatik bai (1976)*
- *Oinaze zaharrera (1977)*
- *Guardasola ahantzia (1978)*
- *Gauzetan (1979)*
- *Euzkadi merezi zuten (1984)*
  Mendekuak (1987)
- *Balizko erroten erresuma (1989)*
- *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak (1991)*
- *Ez duk erraza, konpai (1995)*

Idazlearen irabaziak

Idazleak ere jan egiten du. Topikoak baino bizitza luzeagoa izan du idazlearen irudi faltsoak. Irudi horren arabera, idazlea erdijainko-erdizoroa da, gizarte-bazterrekoa, bakartia, asaldatua, madarikatua, mozkorra, goseak bizi dena, moral-hauslea. Miseriak talentua piztu egiten duela esan ohi zen.

Gaurko idazlearen eta gure idazlearen irudia ez da hau. Gizartean integratua dago, bere modura bada ere. Gehienetan familia du.

Nondik bizi behar du? Idaztetik? Ikusi dugu literaturatik gutxi bizi dela. Idazteaz gainera bestelako lanen bat egiten dutela. Gehienetan alderantziz da: lan egiteaz gainera idatzi egiten dute.

Robert Escarpit-en eskema baliatuz esan dezakegu idazlea barne-finantzaketaz edo kanpo-finantzaketaz bizi daitekeela.

Barne-finantzaketa egile-eskubideetatik dirua jasoz bizitzea da. Gutxi batzuen kasua.

Kanpo-finantzaketak esan nahi du obratik aparte lortzen dituela diruak. Bi iturburu daude horretarako: mezenasgoa eta autofinantzaketa.

Mezenas diru-emaile hori pertsona bat izan daiteke, edo erakunde bat. Garai batean errege edo printzeek mantentzen zituzten artistak. Gaur egun normalagoa litzateke erakunderen batek finantzatzea artista hori, edo bere obra ordaintzea. Izan ere bi mezenasgo-mota bereizten dira: zuzena, pertsona bera laguntzen duena. Eta ez-zuzena edo esporadikoa: idazlanen bat lagunduz edo sarien bidez praktikatzen dena.

Kanpo-finantzaketaren formularik erabiliena askoz, autofinantzaketa da. Hau da, modu batera edo bestera autoreak berak ordaintzea bere burua. Inoiz norbere ondasunei esker, aspaldiko burgesiaren kasuan, burgesia kultua zenean. Eta maizenik, beti ez esatearren, bigarren lanbideari esker.

Bekek, sariek-eta eskain dezaketen laguntza esporadiko horietaz landa bi dira finantza-bideak: egile-eskubideak, minoritarioa; eta lan profesionala. Euskal idazleen artean osoki idaztetik % 6 bizi da, inkestaren arabera. Gero arakatuko dugu hori. Gainerakoek beste nonbaitetik irabazten dute ogia. Ikusi dugu zer eginez.



IZETA, MARIANO (ELIZONDO, 1915)

- *Dirua galgarri (1962)*
- *Nigarrez sortu nintzat (1982)*

Egile-eskubideak

Editorearen eta autorearen arteko harremana kontratupekoa da. Biek sinatu ohi duten kontratu horretan edizio-baldintzak zehazten dira: obraren erabilera, ordainketaren kopurua eta modua, besteak beste.


Euskal editore komertzial guztiek diote idazlearekin kontratua sinatzen dutela. Oker ez banago 1982 aldera hasi ziren argitaletxeak kontratuak egiten, Euskal Idazleen Elkarteak presio eginez, Eusko Jaurlaritzak behartu egin baitzituen horretara subentzioak jaso ahal izateko.

Idazlanaren jabegoa egilearena da. Bi eskubide-mota ditu jabe horrek, egileak: eskubide moralak eta ekonomikoak.

Lehenak, eskubide moralak, autorearen nortasunaren isla dira, bere izenari atxikiak. Aitatasunari datxezkonak.

Bigarren eskubideak patrimonialak edo ekonomikoak dira: autoreak du obraren erabileraren monopolioa. Eskubide hauek, esplotazioari dagozkionak, kontratatzen dira normalki, negoziazio baten ondoren. Editorearekin kontratua egiten denez, nahi adina baldintza jar daitezke: tiradari buruz, edizioei buruz, urteei buruz, idazlanak beste bertsio batzuetan izan ditzakeen erabilerei buruz.

Printzipioz sistema hau idazlearen aldekoa da, baina aldi baterakoa bakarrik: autorea hil eta handik 70 urtera eskubideak galdu egiten ditu. Titulu horren erabilera edozeinek du libre orduan.



IZTUETA, PAULO (Berastegi, 1941)

- *Herbestean (1979)*
- *Ibiltari (1979)*
- *Kiton Arrebarekin Irakurriz: Orixeren pentsamentu erlijiosoa... (1988)*
- *N. Ormaetxea "Orixe" (1988-1961) (1988)*
- *Orixe V: Orixe eta bere garaia (1991)*

Idazleak idazlanetik jasotzen dituen irabaziak gehien-gehienetan egile-eskubide gisa jasotzen ditu. Hau da, salmenta-prezioaren hainbes teko bat, % 10 bat. Ez du portzentaia hori izan beharrik beti. Ez da beti izaten, gainera.

Frantzian, editoreak eskaturiko obra batean honela jokatzen omen da: hamar mila alerainо % 10; hamar-hamabost mila artean % 12; eta hamabost milatik gora % 13. Gutxitan iristen omen da % 16ra portzentaia hori. Zifra hauek liburuaren bertsio arrunterako balio dute bakarrik. Berrargitarapena irakurle-klub sisteman egiten denean % 3,5 da autore-eskubidea; eta berrargitarapena poltsiko-liburuan denean % 3. Ilustrazio ugariko testuliburuetan, bestalde, % 2-3ko eskubideak ordaintzen omen dira.

Euskal argitalgintzan, orain bertan, egileari ordaindu egiten zaio, kasu bat edo beste salbu. % 11,1ek tratu zuzena egiten du, kopuru altzatuaren bidez, eta kitto. % 5,8k liburuak erregalatuz likidatzen du "zorra". Kasu hauek aparte beste guztiek egile eskubideen ordainketa modu arruntean egin ohi dute. Gutxienek (% 23,5) % 10etik behera ordaintzen dute askotan. Gehiengoak (% 64,7) salmenta-prezioaren ehuneko hamarra itzultzen dio egileari.

Editoreek diotenaz ari naiz.

Ordaintzeko moduetan ere ohitura desberdinak daude. Adibide bat: eman dezagun 2.000ko botaldia eta 1.000 ptako prezioa duela liburuak. Argitara ematearekin batera lehen mila aleen autore-eskubideak aurreratzen zaizkio idazleari, 200.000 pta. Mila aleak saltzen ez badira, ez zaio itzulerazten dirua. Hortik gora saltzen bada, saldutakoaren % 10en likidazioa egingo zaio urtero.

Egile gehienek jasotzen dituzte egile-eskubideak. Idazleen % 63k dio baietz, jasotzen duela, eta % 29,3k ezetz. Jasotzen ez dituzten hauen arrazoiak jakiterik ez dugu. Izan liteke bestelako harreman edo akordioren bat izatea argitaletxearekin; izan liteke autoreak berak kobratzeari uko egin izana; eta izan liteke editoreak ez ordaindu izana besterik gabe.

Egile-eskubideak sistematikoki ordaintzearen ohitura, berria da euskal liburugintzan. Berria da editoreek ordaintzea. Eta berria da idazleek eskatzea.

EIEk, 1968an, gomendatu zien idazleei egile-eskubideak exijitzeko, baina alper-alperrik izan zen, inork ez zion kasurik egin eta. *Euskal Idazleak Gaur* (1976) liburuko inkestan agertzen da lau idazletik bat dela eskubideak eskatzen dituena: % 25 eskatzen dituztenak eta % 69 eskatzen ez dituztenak. Idazleren bat, inkestaren erantzunean, haserretu eta guzti egiten da idazleaen "eskubideak" aipatzeagatik: ea zer eskubide daukan autoreak herriak ez daukanean, dio.

Urte dezente geroago ere idazle guztiek ez dute kobratzen. EIEren lehen borroketako bat horixe izan zen hain zuzen, egile-eskubideen ordainketa normalizatzea. Elkarte horretako lehendakari zelarik, Anjel Lertxundik (1982) honela ematen zuen egoeraren berri: "Badakit argitaletxe batzutan kobratzen dela. Adibidez 'Elkar'ek eta 'Erein'ek badakit ordaintzen dutela, baina horrelakoetan ere ez da ordaintzen ordaindu behar litzatekeen guztia. Hor fluktuazio batzu badaude, idazlearen borondatea nolakoa den, zein binkulazio dituen argitaletxearekin. Roilo handiak dira horiek baina, esate baterako, kontrato formalik egiten duen argitaletxerik ez dago".

Dirutan barik liburutan ordaindu izan da maiz. Urte berean, 1982an, Luis Haranburu editoreak dioena lekuko: "Ni editore bezala hasi nintzenetik bost bat urte egingo du, eta ordutik gaur arte memoriatuz nik uste dut bost idazleri bakarrik ordaindu izan zaiela. Bost kasu nabarmen horiek kenduta, euskal autoreen artean ez zaio inori ordaindu. Eta horiei pagatu izan zaie egoera pertsonal nabarmen batzu zeudelako tartean, dirurik ez zutelako edo. Bestela, ez da inoiz ordaindua izan. Dirutan esan nahi dut, zeren liburutan egileak beti nahi adina eraman izan ditu".

Profesionaltasuna

Ordaindu behar zen ala ez ere ez zegoen batzuentzat garbi. Ez ordaintzea gauza bat da. Eta beste bat ez dela ordaindu behar defendatzea. Biak egiten ditu Susak.


EIEren jarrera hasiera-hasieratik izan da ongi finkatua idazlearen egile-eskubideen aldekoa. Idazlearen profesionaltasuna egile-eskubidetatik igarotzen da.

Posizio honen aurka altxatu zen Susa, 1984an, hamalaugarren zenbakiko editorialean: "Joan den hileetako batetan, irratiren batetan galdera bat egin ziguten eta egia esan nola erantzun ez genekiela geratu ginen hantxe geundenak, elkarri begira eta bestearen begirada galduan balizko babesa aurkitu nahiean bezala. Galdera hori profesionaltzeaz zen, hots, zer pentsatzen genuen idazlearen profesionalizazioaz. Lerro hauek idazten ari garen mementuan ere, horixe da guztiz garbi ikusten ez dugun arazo bat. Hasteko, herri honetan FOPekoa izan ezik, edozein gauza egitea permititua bait dago diruaren truke, eta bestetik, ogiaren asuntoa usadioak heredentzian utzitako tabu bat dugulako. Hala eta guztiz ere, profesionalizatzearen gai horrek burutazio bat egiteko parada ematen digu: gure artean egile-eskubide bezala idazleari % 10 derrigo-



JIMENEZ, EDORTA (Mundaka, 1953)

- *Itsastxorien bindikapena (1984)*
- *Egutegi esperimentala (1986)*
- *Gizaeuropa (1986)**
- *Gaua zulatzen duten ahausietan (1987)*
- *Eragiketa basatiak (1987)*
- *Odoleko eskifaia (1989)*
- *Atoiuntzia (1990)*
- *Speed gauak (1991)*
- *Azken fusila (1993)*
- *Begien indarra (1994)*
- *Manhattan (1994)*
- *Hemen datzana da (1995)*



JUARISTI, FELIPE (Azkoitia, 1957)

- *Denbora. Nostalgia (1985)*
- *Hiriaren melankolia (1987)*
- *Intzensua lurrean bezala (1988)*
- *Arinago duk haizea, Absalon (1990)*
- *Laino artean zelatari (1993)*
- *Tristuraren teoria (1993)*
- *Ilargi lapurra (1994)*
- *Sagitario (1995)*

rrez eman behar izateak kaltea besterik ez dio ekartzen liburugintzari hasteko, eta literaturgintzari ondoren. Izan ere, liburu salgarriak egiten dituzten eskritoreen poltsikorako oso ongi etor daiteke % 10 hori, baina horiek ere ederki asko kobratzen zuten diru hori horren errebindikazio profesionala (eskubide moral ala ekonomikoa ote?) (*sic*). Gainerakoan, beren abenturaren hastapenetan diren idazleei (batez ere poetei) eragozpena besterik ez die erakartzen (eta begiratu, bestela, zenbat eskuizkribu geratzen diren argitaratu ezinean, 'koste ekonomikoak' haundiegiak omen direlako). Geuk, behintzat, *Susa* liburutegian ateratzen ditugun liburuen egileei ez diegu egile-eskubiderik pagatzen. Eta ez dugu uste sindikatu profesional bat izan nahi duen Idazleen Elkarte horrek gu juizioan sartzeko tentaziotan eroriko denik. Badaezbadaere".

Idazle artisauaren figura errebindikatzen du sarrera-lan horrek. Ildo beretik jotzen du hurrengo urtean (1985) Susako Mikel Antzak, eta horiek ere profesionaltasuna egile-eskubideen aldetik plantzeatzeari uko egiten dio: "Niretzat nik egiten dudan lan bategatik ehuneko hamarra pagatzea ez da nire eskubide moral eta etikoa; nik uste dut horren aurretik askoz gauza inportanteagoak badaudela eta gauza inportante horiek izango lirateke alde batetik idazlea bere obraren jabe izatea, behintzat bere lanaren jabe izatea. Hor asuntoa da momentu batetan elkarte batek erabakitzen duela idazleak profesionalki lan egin behar duela eta beraz idazleari zor zaiola diru bat bere lanaren trukean. Nik horren aurrean duda asko egiten dut, lan horren balioa zein den ez dagoelako batere finkatuta, hamar folioren prezioa aldatzen da seguru zein den pagatzailea, hau da Aurrezki Kutxa baldin bada sariketa literario batetan edo editoriale bat baldin bada. Orduan niri benetan eskubidea zein den aklaratzea gustatuko litzaidake. Eskubidea ehuneko hamarra baldin bada, idazleari beti ehuneko hamarra ordaindu beharko litzaioke eta orduan mundu guztia joango litzateke sariketetara, ze merkatu beltza hor dago eta gehiago pagatzen da. Nik uste dut eskubideek askoz gehiago lana kontrolatzearen aldetik jo behar dutela, idazlea ez dadin izan tipo bat editorialez editorial joaten dena, bere lanari buruz inork ezer esaten ez diola, nahiz eta askok eduki halako idazleek osatutako teoriazko aholkularitza batzu; ez dakit zenbatetaraino funtzionatzen duten hoiek, baina bueno joan bere produkto horrekin eta edozein gauzagatik onartzen baldin badiote (gehienetan prosa delako), ba hori, behin entregatuz gero bere lana hor bukatu da, ordaintzen diote ehuneko hamar hori eta bukatu da eta nik uste dut gaur egun Euskal Herrian ba daudela posibilidadeak, oraindik merkatua ez bait dago hain komertzializatua edo behintzat komertzializazio horren barruan zirrikitu batzu ikusten dira eta zirrikitu hoietatik posible dela lan bat egitea hori horrela izan ez dadin, hau da, idazleak bere liburua landu dezan, bere liburua bere sentitu dezan,

prozesu guztian, eta ez dadin eman momentu batetan horrelako dibortzio bat, nire ustez nahiko peligrosoa".

80ko hamarkadaren lehen parteko eztabaida eta polemika gehientxoenek ez dute bide luzerik egin argitalgintzan. 1982ko entrebistan esaten zuen A. Lertxundik inprimatzaileari ondaindu behar zaiola inork auzitan jartzen ez duen bezala planteatuko dela gerora autore-eskubideen arazoa. Idazle gehientxoenak jarrera horretan daude gaur.

Baina bizi ahal liteke, bizi? Jakina baita deretxo horiek dirutan gutxi suposatzen dutela. Gosaritarako ere ez dutela ematen. Eta gainera, irregularrak direla, gaur bai eta bihar ez. J. Steinbeck-ek esaten omen zuen idazle-ofizioarekin konparatuta zaldi-apostularia jarduera egonkor eta ziurra zela.

Berriz gogoratu behar da idaztetik bizitzea ez dela besterik gabe literaturatik bizitzea. Idaztetik bizi ahal izateko, gehienetan, erregistro askotariko idazlea izan behar da, multi-idazlea multimediaren garaian.


Eskubide ekonomikoen ahuldade eta irregulartasuna egile-eskubideen ezaugarri unibertsalak badira, Euskal Herian kokatzen direnean txikiagoak dira. Idazleen % 42,4k kobratu duen azken urtean ehun mila pezetatik behera kobratu duela dio. Milioi-erditik behera kobratu du % 10,3k. Hortik gora kobratu dutenak % 7 dira. Ez da ahaztu behar multzo handi batek (% 29,3) ez duela deus kobratu esan duela.

Idazle gisa profesionalizatzeari buruz egin diren urratsek eman dute fruiturik. Ez naiz ari orain produkzio intelektualaz, baizik ekoizpen horren emaitza ekonomikoez. Hona erantzunak:

Idazle-lanetatik bizi naiz osoki	% 6,0
Idazle eskubideak-eta osagarri inportanteak dira nire ekonomian	% 8,7
Idazle-lanengatik jaso ohi dudana huskeria da	% 69,6


Idazle izatea dela bere bizibidea aitortu du arestian % 9,2k, nahiz eta osoki ofizio horretatik ez bizi horietako % 3,2, ikusten denez. Bere sarreren % 50etik gora autore-eskubide bezala jasotzen duena, idazle profesionala dela edozein herritan, gogoratu behar da berriro.

Gutxiengo kualifikatu honen ondoan gehiengoaren egoera ikusita, bistan da idazleen profesionaltasuna gertakari minoritarioa dela. Minoritarioa bai, baina dagoeneko inportantea eta etorkizunera irekia, argumentu biologikoa alde duelako.



KALTZADA, JULEN
(Busturia, 1935)

- Herriak eta Gizonak (1979)



KAPANAGA, BITTOR
(Otxandio, 1925)

- *Euskara, erro eta gara (1978)*
- *Olentzero, sua hilda (1995)*

Egoerak dagoen horretan jarraituko ote duen ala profesionaltasunaren aldeko jarrerak aurrera segituko duen jakin nahi genuen. Jarreraz ari gara, ez gertakariez. Idazleen borondatea eta gogoa inporta zaigu hemen:

	%
Idazle profesionala izan nahi dut	8,7
Gustatuko litzaidake, baina...	23,4
Ameskeria da idaztetik bizitzea	23,6
Ez dut idazle profesionala izan nahi	37,0
Ez du erantzuten	15,2
Besterik	2,2

Idazle profesional izan nahi ez dutenena eta nahi luketenena kontrajartzen dira hemen. Profesionaltasunaren posibilitatean sinesten ez dutenak daude hor tartean: % 23,6

Nahi ez dutenak asko dira: % 37. Berauetako askok ez dute bere burua idazle ikusten; beste askok badute bere lana eta aisialdiaren mailakoa da idaztea; eta auskalo beste zenbait kasu. Normala da.

Markatzen duen tendentziagatik azpimarratzekoa da bestea, idazle profesional izan nahi duten eta nahiko luketenen multzoaren handia. % 32,1. Idazle profesional izan nahi dutenak gustatuko litzaiekenak baino gutxiago dira, noski; baina gutxienez % 8,7 bai. Gaur osoki idaztetik bizi direnak baino gehixeago, oro har.

Zergatik eta zertarako idatzi?

Idaztean zer bilatzen duen idazleak eta idaztera zerk bultzatzen duen jakin nahi izan dugu.

Norberak bere buruari esplizituki gutxitan galdetzen badio ere, era honetara behintzat, maila kolektiboan badu zentzurik, bai joerak definitzeko eta bai idazlanak definitzeko.

Duela 20 urte galdera berari eman zitzaion erantzunak garbi uzten du kolektibo handi baten jarrera militantea: % 30ak barne-arnasa aipatzen du eta % 70ak cragina, idaztea tresna dela bere ekintza kulturala zein soziopolitikoa aurrera eramateko.

"Zergatik eta zertarako idazten duzu" galdetu diegu oraingoan. Hona erantzunak:

Barruak eskatuta	35,4
Irakurria izatea	21,3
Eragina izatea gizartean	19,3
Literatura ona egitea	13,3
Bizimodu gisa	8,9
Besterik	1,4

Bost aukera geuk formulaturik eman diegu, eta seigarren bat norbere esku utzi dugu. Idazleak baloratu egin behar zituen, eta horixe egin du, bere ustezko hierarkiaren arabera erantzun bakoitzari zenbaki bat eman. Taulan agertzen diren portzentaia hauek, horregatik, ponderatuta daude, ezin baitute izan balio berdina konputu orokorrean idazleak lehen lekuan eman duen erantzunak eta azkenean eman duenak.

Guztira balorazio gehien jaso duena idaztearen *dimentsio pertsonala* da. Ez da hori bakarrik. Horrezaz gain, bera da lehen arrazoi bezala boto gehien jaso duena, diferentzia handiz. Lehen motibotzat ematen duten idazleak % 56 dira.

Bigarren lekuan *irakurria izatea* bilatzen du idazleak, komunikazioa. % 12rentzat da hau lehen helburua edo motibazioa, baina motibazio inportantea da, sarri agertzen baita bigarren eta laugarren tokietan aipatua.

Publikoaren gain eragin nahi du idazleak. Hirugarren helburu bezala agertzen da orokorrean, baina lautik batek bigarren lekua ematen dio eraginari.


Literatura ona egitea laugarren sailean agertzen da, eta aski apal balorazio-aldetik: % 13,3. Ez du, gainera, lehentasun absoluturik % 2,2rentzat ez bada; hirugarren tokian agertzen da indar gehiagoz (% 16,8); hori baino baxuago segitzen du beste ilaratan.

Idaztea bizimodu gisa hartzeak suposatzen duen aukera laboralak ez du lehentasunik. Arrazoi hori minoria batena da. Lehen bi hautapenetan boto gutxi du: ehuneko bina. Bosgarren arrazoi bezala biltzen du boto gehien: % 19,5. Logikoa da maila apal hau, bestalde, idaztearen arrazoi ezin baitaiteke izan profesioa eskuratzea. Profesionaltasuna baldintza edo statusa da, ez helburua.



KAZABON, ANTTON (Oiartzun, 1954)

- *Letrak bertsotan. (1-3) (1987)*
- *Proxpero (1988)*
- *Proxpero Donostian (1991)*
- *Proxperoren lagunak (1991)*
- *Herriko festetan (1992)*
- *Oporretan (1992)*
- *Pottolo pilotaria (1992)*
- *Ortzadarraren azpitik (1994)*
- *Pelu (1994)*
- *Txirri, Mirri eta Txiribiton-Eskolan (1994)*
- *Txirri, Mirri eta Txiribiton-Igeltsero (1994)*
- *Bazen behin, behin bazen (1995)*



KEREXETA, JAIME "ARANTZIBIA" (Elorrio, 1918)


- *Orbelak (1958)*
- *Bitargi (1960)*
- *Jesu-Kristo gure Jaunaren Barri Ona. Lau Ebanjelioetatik itzez-itz atera ta laurak alkartuta (1960)*
- *Apostoluen Egiñak (1961)*
- *Alkartasun Barria. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965)*
- *Alkartasun barriko itzak eta gaiak (1965)*
- *Didaje edo Amabi Apostoluen irakaspena. Apostoluen siniskitza (1965)*
- *Jesukristoren Berri Ona (1966)*
- *Salmutegia. Bizkaieraz (1967)*
- *Gure salbaziño egintza. 2. Alkartasun barria (1972)*
- *Ebanjelio alkartua (1973)*
- *Eliz-guraso apostolikuak (1975)*
- *Euskal Biblia (1976)*
- *Mezako irakurgaiak euskal-biblian (1976)*
- *Asteegunetako meza-otoitzak eta Jainko-erriaren otoitza (1977)*
- *Domeka eta jaiegunetako Ospakisunak Abade Bagarik (1982)*
- *Elizearen Otoitza (1982)*
- *Fededunen otoitza (1988) Lau ebangelioak (1988)*
- *Kristau-gaiak (1995)*

Seigarren aukera bat eskaini genien aurreko bosten aurretik ala atzetik jar zitekeen arrazoia eman zezaten. % 1,4ko balorazio-maila izan du, eta agertzen den gutxian seigarren mailan kokatzen da. Klase eta kolore desberdinetako arrazoiak jarri dituzte. Selekzio bat da ondorengo hau:

- *Militantzia gisa. Erdal uholdean lekukotasuna*
- *Atsegin eta jolasez*
- *Asko gozatzen dut idazten*
- *Barrua lasaitzeko, beldurrak uxatzeko*
- *Bizirauteko (barkatu pedanteria)*
- *"Denbora pasa"*
- *Egin behar dudana delako*
- *Erlejiñoa zabaltzeko*
- *Euskal Herriko beharrak bultzatu ninduen hastera eta behar horrek berak bultzatzen nau jarraitzera*
- *Euskararen promozionatzeagatik*
- *Euskarari emateko euskarak niri eman didana*
- *Gaiak eskatuta*
- *Haurren entretenimenturako*

  Irudimen eta edertasun pittin bat ekartzeagatik, hain arrunt eta hain itsusia den mundu honi
- *Nere aburu eta oldozkera erakustea*
- *Neure barrua arazketako...*
- *Nik irakurri nahiko nituzkeen gauzak neronek egitea*
- *Nire ardura-kezkak, barne-mundua azaltzea*
- *Sormena lantzeko, "oreka mentala" mantentzeko sormenari irteera eman behar zaio, beste lanekin ekilibrioa lortuz*
- *Sortzea oso gratifikantea egiten zaidalako*
- *Terapia gisa*
- *Textugintzaren arloan, behar-beharrezkotzat daukadalako, eta lan hori funtsezkotzat daukadalako*
- *Antropologiak eraginik*
- *Atsegin dudalako*
- *Disfrutatu egiten dudalako*

- *Eskolak emateko liburuak behar nituelako. Zaletasunez. Besteren eskariz*
- *Estiloa lantzeko*
- *Euskaltzaletasunak eta abertzaletasunak eraginda*
- *Euskara bultzatzeko*
- *Euskerea gure berbetea maite dodalako eta ilteko arriskuan egoalako*
- *Guztien gainetik, gure herriaren ezinak gainditzen laguntzeko*
- *Historiak kontatzea. Beste barik*
- *Idaztea gogoko dudalako, atsegin dut idaztea, bestetzuk musa bezalatsu*
- *Ikerlanetan laguntza eta argia emateko*
- *Karguaren eginkizun dudalako*
- *Ni Txotxongilolaria naiz. Txotxongiloa egiteko ipuinak edo testuak behar ditut. Horregatik idazten dut.*
- *Nire izanaren parte garrantzitsua delako*
- *Zertarako bilatuz noa egunero oraino*
- *Euskaraz produzitzeak garrantzi handia duelako*
- *Herri honen "herioa" eta esperantzak paperreratzeko*
- *Euskararen alde nire apurra jartzeagatik*
- *Gure jendeak ere... hitza har dezan toki zabal egokietan euskaraz*
- *Ikasleei gustatzea*
- *Kultura zabaltzeko*
- *Nere azterketak edo ikerketak komunikatzeko, erakusteko, argitara emateko...*
- *Ez aspertzeko*
- *Gehienbat "ofiziokoa" izateagatik (irakaskuntza)*
- *Neurri batean, egiten dudan lanak eskatzen dudalako*
- *Behin sartuta gatxa delako irtetea*
- *Diren lanbideetan, hala ere gehien gustatzen zaidana da hauxe*



KINTANA, XABIER (Bilbo, 1946)

- *Linguistika orain arte (1971)*
- *Behin batean (1972)*
- *Gure piztitxoen artean (1974)*
- *Martin Txilibitu, ehiztari beltza (1976)*
- *Oier Beltzuntzeko (1976)*
- *Kixmi eta azken jentilak (1980)*
- *Lamia eta artzaina (1980)*
- *Marigorringoa eta Harra (1980)*
- *Martin Txiki eta Jentilak. I. (Garia lapurtzen) (1980)*
- *Martin Txiki eta Jentilak. II. (Zerraren asmaketa) (1980)*
- *Nazioarteko ipuinak (1980)*
- *Orreagako burruka (1980)*
- *Tartalo eta artzaina (1980)*
- *Ta Marbuta. Jerusalemen gertatua (1984)*
- *Imanol Berriatua (1990)*
- *Formak (1992)*
- *Berunezko soldadutxoa (1993)*
- *Erpurutxo (1993)*
- *Katu botaduna (1993)*
- *Mari Errauskin (1993)*
- *Natur ibilaldiak. Negua (1993)*
- *Txano Gorritxo (1993)*
- *Altxa eta joan (1994)*
- *Ezustez ezuste (1994)*

Konpromisoa

Ez dugu berpiztu nahi politika eta literaturaren arteko harremanei buruzko iritzien gerra. Zein puntutan aurkitzen garen bakarrik jakin nahi izan dugu arazo honen pentsaera eta sentieran.

Euskal Idazleak Gaur libururako inkesta egin nuenean, ea idazleak konprometitua behar zuen galdetu nuen. Idazleen % 58k baietz zioen. Konpromiso horrek pertsonaren mailakoa behar zuen izan, literaturaren mailakoa, testuaren mailakoa, idazle-mailakoa. Sartre eta Txillardegi eman zituzten eredutzat, idazletako batzuk.


Bolaunaldi berria aurrekoaren aurka altxatzen da eta literaturaren autonomia, dinamika propioa errebindikatu eta aldarrikatzen du gogoz eta gogor. 1975ean Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre bikoteak argitara eman zuten "Ez dezagula konposturarik gal, halare" izan zen abiapuntuko testua. Ideologiaren, politikaren, euskalgintzaren eta gainerako interes guztien morrontzatik libratu nahi zuten literatura. Literaturaren mistika bat hedatu zen urte haietan.

Ez da harritzekoa ondoko urteetako iritzien zaparrada eta eztabaiden uholdea. 80ko hamarkada osoan irauten du idazlearen konpromisoari buruzko polemika-giroak. Gaiak ez ziren falta: literaturaren autonomia nola ulertu, literatura eta politikaren harremana, idazlearen egitekoa, ziren gai-ardatzak. Nire artxiboetaz fidatuz, esango nuke 1985 izen zela urte beroena. Ez dakit. Prentsan artikuluak eta herrietan mahainguruak ez ziren falta. Boxeo-giroa zegoen airean. Bilbon Txillardegik eta Atxagak gai honetaz mintzatu zireneko mahaingurua "Dum-Dum Pacheco Txillardegi" eta "Ray Sugar Atxaga" boxeolarien arteko konbatea bailitzan aurkeztu zen prentsan. Joseba Sarrionandiak *Marginalia* atera zuenean (1988) eta Bernardo Atxagak *Obabakoak*-gatik Espainiako Sari Nazionala (1989) jaso zuenean atzera berpiztu zen sua.

Idazle ugari korapilatu izan da polemika horretan, modu batera edo bestera: Bernardo Atxaga, Txillardegi, Koldo Izagirre, Iñaki Uria, Laura Mintegi, Felipe Juaristi, Luis Daniel Ispizua, Omar Nabarro, Paulo Sastre, besteak beste.

Eta gaur?

Idazleei galdetu diegu gai honen gaurkotasunaz eta garrantziaz: "idazlearen konpromisoa zer da?"



KNÖRR, ENDRIKE (Tarragona, 1947)

- Jose Paulo Ulibarri (1975)
- Gasteiz (1976)

Kontzeptu zaharkitua	3,3
Arazo bizia gaur ere	33,2
Kezka	33,2
Ez nau kezkatzen	12,5
Ez dakit	6,0
Besterik	2,2
Ez du erantzuten	9,8

Kontzeptu zaharkitua, desfasatua, gaurko egunean gainditua, oso gutxirentzat da.

Arazoak pertsonalki kezkatzen ez dituenak, konpromisoa bost axola zaienak, horiek multzo handixeagoa osatzen dute: % 12,5.

Bi multzo handienentzat gaur plazaratzen ez bada ere, arazo hau ez dago hila: batzuek garbi dute gaur-gaurkoa dela idazlearentzat konpromisoaren gaia. Beste multzoak kezka bezala bizi du hori. Gazteentzat kezka gehiago da arazo bizia baino. Hogeita hamabost urtetik gorakoentzat erdibanatsu banatzen dira bi iritziak, gaurkotasunaren alde pittin bat.

Konpromisoa bai, baina zer-nolakoa, zeri lotua nagusiki?

Literaturari	37,1
Hizkuntzari	30,2
Politikari	21,9
Besterik	10,3

Urtetan zehar eztabaidan nagusitu diren joerazko lerroak eman ditugu aukeragai.

Noski, konpromisoaren gaian positiboki posizionatu direnak bakarrik erantzun diote galdera honi. Ehuneko hogeita hamarren bat isilik gelditu da, zer esan ez dakitenak, kezkarik ez dutenak, etab.

Balorazio orokor ponderatuari dagozkio zifra horiek, lau aukeren artean garrantziaren araberako hautapena egin beharra izan baitute idazleek.

Konpromisoa *literaturgintzan* mamitzera jotzen du iritzi hedatuenak. Idazleen % 32rentzat, gainera, literatura da lehen konpromisoa. Ez baka-



KORTADI, EDORTA (Tolosa, 1946)

- *Artegintza. Artista. Gizartea (1974)*
- *Gipuzkoako ohiturak / Tradiciones de Guipúzcoa. Haurrentzat bilduma (1979)*
- *Gipuzkoako pintoreak. 1939-1979. Museo de San Telmo. Diciembre 1979 (1979)*
- *Arantzazu: tradizioa eta abangoardia (1993)*

rra, bai lehena. Ez gutxirentzat, lehena ez bada ere, bigarrena bai bada literatura (% 26).

Idazlcak *hizkuntzaganako* sentitzen duen eginbeharra da bigarren jarrera hedatua: % 30,2. Lehen konpromisoa % 16,3rentzat bakarrik da, baina bigarrena idazle gehiagorentzat: % 35,3.

Konpromiso *politikoa* ere ez du idazleak arbuiatzen: % 21,9 rentzat inportantea da. % 18 dira, gainera, lehen tokian bera ematen dutenak eta % 22,3k hirugarren maila ematen diote.

Gaur egungo emaitza periodistikoak (erreseinak, kritikak, etab.) kontuan hartuta, pentsa zitekeen aukera literarioak diferentzia handiagoa aterako ziela aukera linguistikoari eta batez ere politikoari. Baina ez. Hiruek dute aski presentzia, beti ere literaturaren lehentasuna onartuta.

Aukera bakoitzak zein adin-tartetan du indar gehien? Hiruetako bat lehenetsi dutenen artean begiratu dugu adin-banaketa.

Lehen aukera	>35	36-45	46-50	51-60	61-70	<71	Guztira
Literatura	16,9	28,8	15,3	16,9	8,5	13,6	32,1
Hizkuntza	23,3	10,0	26,7	26,7	10,0	3,3	16,3
Politika	27,3	21,2	12,1	24,2	9,1	6,1	17,9

Berriz diogu lehen konpromisotzat idazleak hartzen duena bakarrik analizatzen dugula hemen.

Literaturaren aldeko konpromisoa lehenesten aurrenak 1970-80 bitartean literaturara jaioak dira, 1976ko belaunaldia gehienbat.

Hizkuntzaren aukerak garrantzi handia du 46-60 urte dituztenen artean. Baina baita ere gazteenengan. "Literatur belaunaldian", aldiz, asko jaisten da preferentzia hori.

Aukera politikoa aurrenekotzat jotzea ez da edade batetik aurrerakoen kontua. 51-60 urte bitartekoentzat badu lehentasunik, baina oso gutxi hortik gorakoentzat. 1956ko belaunaldiarentzat baino ere inportanteagoa dela hogeita hamabost urtetik beherakoentzat, hori da niri harrigarri gertatu zaidana.


Beste modu batera egin dezagun orain aukeren konparaketa. Adin-tarte bakoitzean aukerek zenbateko lehentasuna duten, alegia. Hogeita hamabost urtetik beherakoek, esate baterako, ze aukerari ematen diote botoa?



KORTAZAR, Jon (Mundaka, 1955)

- *Bidean izan zen, Rosapen (1982)*
- *Mikel Zarateren Prosa (1982)*
- *Altxorrak eta Bidaiak. Haur kontabidean azterketak (1985)*
- *Laberintoaren oroimena (1989)*
- *Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1905-1937 (1995)*
- *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza (1995)*
- *Jose Maria Agirre, Xabier Lizardi (1896-1933) (1995)*

- Gazteenen lehentasunak nola banatu diren beren artean ikusiz, literatura da lehena (% 28,5), politika da bigarrena (% 25,7) eta hirugarrena da hizkuntza (% 20).
- 36-45 urtekoen multzoan literaturak du alde handiz lehentasuna (% 38,6), politika dator bigarren baina urruti (% 16) eta huskeria suposatzen du hizkuntzaren aukerak (% 6,7).
- 46-50 urtekoengan literatura eta hizkuntzaren artean banatzen dira aukerak, lehenaren alde (% 26,5 batak eta % 23,5 besteak).
- 51-60 urtekoen botoak hiruen artean banatzen dira diferentzia handirik gabe: literaturak % 28,5 du eta beste biek % 22,8na.
- Eta hirurogei urtetik gorakoengan, berriro sorpresa: literaturaren lehentasuna oso altua da (% 36,0) beste bien ondoan (% 13,8 politikak eta % 11,1 hizkuntzak).



KRUTWIG, FEDERICO (Getxo, 1921)

- *Belatzen Baratza Mikelditarrak. Euskal errankari hamaika irazkietan eta bedaratzi ilbetan (1979-1983)*
- *Ekhaitza (1980)*
- *Otsoaren bidea (1982)*
- *Igibarziaren iphuinak (1982)*
- *Garaziko oihanaren thauma (1983)*
- *Ortziren zaldiak (1983)*

Elebitasuna


Bi galderatan laburbilduko genuke sailtxo honen edukia: euskal idazleak zenbat idazten du erdaraz, eta elebiduntzat al du bere burua?

Duela hogei urte ere arazo bera izan genuen aztergai *Euskal Idazleak Gaur* liburuan. Hango erantzunak honela laburbilduko nituzke: bai, erdaraz idazten du % 54k. Eta ez, % 46k. "Harriturik gelditu naiz —nioen orduan— erdaraz idazten edo idazteko eragozpenik ez dutenen kopurua ikusirik. Baina hurbilagotik begiratuz, ez dela hori egiazko elebitasun baten adierazgarri dakusagu". Hau da, idazle berak ez dituela bi hizkuntzak maila berean eta eginkizun beretarako erabiltzen. Erdaraz asko baliatu ala ez, literatur sorkuntza euskaraz egin ohi du idazle horrek eta funtzionalki erabiltzen du erdara: zientzian, kritikan, informazioan, kazetaritzan, etab. Konstatatzen genuen, halaber, gazteek euskaraz bakarrik idazteko jarrera zutela.

Eta gaur?

Idazlearen jarrera praktikoa (ea erdaraz idazten duen ala ez) eta autoulertzapena (ea bere burua elebiduntzat duen) jakiteko bi galdera egin dizkiogu, horietatik lehenengoa bikoitza. Idatzi bai ala ez, eta baiezkoan zer: artikuluak, liburuak?

	Artikuluak	Liburuak
Bai	45,7	25,5
Ez	47,8	63,6



LANATUA, MANEX (Ahatsa, 1948)

- Kilim. Okabeko gauak (1987)

Lautik batek idatzi ditu erdal liburuak, eta artikuluak askoz ere gehiagok, espero zitekeen bezala.

Erdaraz deus idatzi ez dutenak ez dira gutxi. Liburutako kopurua normaltzat jo daiteke, nahi bada; handia iruditzen zait erdarazko artikulurik publikatu gabekoen multzoa.

Elebakartasun-joera gazteen aldera indartzen da. Proportzionalki erdararen erabilera handiagoa dute 60 urtetik gorakoek 45 urtetik beherakoek baino. Hautapen linguistikoaren ondorioa izan liteke hau, eta kasu askotan halaxe da. Baina ez da inondik ere esplikazio bakarra: idazle gazteak aukera hobea du orain bere idaz-bizitza euskaraz egiteko, 60 urtekoak bere garaian izan zuena baino.

Erdaraz idatzi ala ez, zergatik jokatzen duen horrela jakin nahi izan dugu.

Arrazoiak, justifikazioak, berdintsuak dira artikuluak idatzi zein liburuak idatzi. Argumentu gutxi batzuetan dago aldea: artikulugile asko dira erdararen erabilera ogibidean eta eraginkortasunean oinarritzen dutenak. Zeregin profesionaletan erdararen premia duela idazleak dozena bat aldiz agertzen da. Gutxiagotan bada ere, bigarren arrazoi espezifikoa, artikulugileentzat, zorioneko eraginkortasuna da, ideiak zabaltzeko, mezua transmititzeko eta zernahitarako erabiltzen dela erdara. Gainerako arrazoiak artikulugileengan eta liburugileengan berdinak dira.


Pare bat ohar gehiago erantzunetara pasa aurretik. Nahiz eta galderari baietz erantzun, hamar batek aitortzen du gutxi edo oso gutxi idatzi duela erdaraz, maizenik okasionalki. Erantzun bitxiena zera dateke, "argitaratzaileak presionatzen" duelako idazten omen duenarena. Bakarra izateagatik hain zuzen azpimarratu behar da beste hau: "gure hizkuntzetariko bat delako".

Aipatu ditugun horiez gainera, baietzaren arrazoiak era askotakoak dira: aukera pertsonal soilean funtsatzen direnak (nahi du eta kitto, edo atsegin du, edo barruak eskatzen dio); praktikoak beste batzuk (hobeki moldatzen da erdaraz, enkarguak jasotzen ditu); "politikoak" lirateke dezente (mezua eta ideiak zabaltzeko, azken batean).

Hona, iritzi-sorta txiki batean euskal idazleek berek eman bezala, zuzenean, beren hitz propioak, esplikatuz zergatik idazten dituzten artikuluak edo liburuak erdaraz:

- *Asko gustatzen zaidalako. Nire ikuspegia ez dudalako euskaldungora mugatu nahi*
- *Aukera dudalako eta atsegin ere bai*
- *Bizibidea*

- *Egoerak aginduta eta bide interesgarria delako, zabalkundea delako*
- *Egunkari elebidun batean lan egiten dudalako*
- *Euskal kulturaren berri emateko batez ere*
- *Euskaldunek erdal munduan eragin behar dugulako bizirik iraunen badugu*
- *Euskararik ez dakitenentzat, hala ere euskaldungoaz zerbait jakin dezaten*
- *Euskera maite dodalako ta geure izkuntzea indartzea gura dodalako*
- *Gero eta gutxiago. Zergatik? Gazte jende abertzalea gero eta euskaldunagoa delako; ta ni neu abertzalea naizelako*
- *Gure hizkuntz egoeran, erdarak gailen direlarik, beharrezkoa erdaldunengana iristea*
- *Gure hizkuntzetariko bat delako*
- *Gustatzen zaidalako*
- *Irakurlego haundia bada Iparraldean frantsesa baizik ez dakiena. Haieri ere behar da zabaldu euskal kultura*
- *Iritziak beste esparruetara zabaltzeko asmoz*
- *Kanpotik eskatzen didatelako*
- *Lan-kontuagatik inoiz (oso gutxitan), baita zorioneko eraginkortasunarengatik ere (batez ere euskal gaiez)*
- *Nahi dudalako*
- *Neure espezializazioan batez ere, zientzia-historia arloan*
- *Nire karguari dagokion lanagatik*
- *Nire lanean beharrezkoa dudalako*
- *Norbaitek amorrazioren bat eragin eta erantzuteko*
- *Ogibide gisa*
- *Politika abertzalearen mesedetan*
- *Politikoki nire mezuak zabalera handiagoa izan dezan nahi dudalako*
- *Zenbait iritzi edo aldarrikapen hedabidetan. Mezua jende gehiagori hel dakion*
- *Zeregin profesional/zientifikoa*
- *Bai. Zergatik ez?*
- *Zoritxarrez, gehiago irakurtzen delako*
- *Barruak eskatuta. "Hobby" bezela*



LANDA, JOSU (Altza-Donostia, 1960)

- *Ni eta nitarrak (1979)*
- *Haizearen itzalak (1980)*
- *Gerraondoko poesiaren historia (1983)*



LANDA, MARIASUN (Errenteria, 1949)

- *Amets uhinak (1981)*
- *Kaskarintxo (1982)**
- *Elisabete lehoi domatzailea (1983)*
- *Joxepi dendaria (1984)*
- *Partxela (1984)*
- *Txan fantasma (1984)*
- *Izar berdea (1985)*
- *Aitonaren txalupan (1988)*
- *Errusika (1988)*
- *Izeba txikia (1988)*
- *Maria eta aterkia (1988)*
- *Alex (1990)*
- *Irma (1990)*
- *Kleta bizikleta (1991)*
- *Potx (1992)*
- *Julieta, Romeo eta saguak (1994)*
- *Nire eskua zurean (1995)*


- *Bistako arrazoiez gain (eginkizun horri on eriztea, etab.) Eskaeragatik. Eskaera onak ditudalako*
- *Eskatzen dizkidatelako eta atsegin zaidalako*
- *Gaiaren zabalkundeagatik*
- *Gizartea kezkatzen dualako*
- *Hobekiago moldatzen naizelako*
- *Nahi dudalako*
- *Nere espezializazioan; ikerlanetan, argi egiteko...*
- *Nire jakintza arloan premiazkoa dut*
- *Nire lanean beharrezkoa dudalako*
- *Pastoralgintza*
- *Vaskoak ere sentsibilizatzeko*

Euskaraz bai eta erdaraz ez dutela idazten diote askok. Batzuek ez dutela erdararako erraztasunik edo zaletasunik. Beste batzuek aukerarik ez dutela izan, baina irekita leudekela. Beste batzuek ez dutela premiarik batere sentitu. Eta gehienek euskararen eta euskal kulturaren alde hautua egina dutela. Euskararen aldeko erabakiak mila kolore ditu.

Erdaraz barik euskara hutsez idazteko argumentuen selekziotxo bat da ondoko hau:


- *Aspaldi idatzi izan nuen. Gaur nire ustez, ulertzen ez gaituztenean ulertuko gaituzte*
- *Aukera pertsonala, militantea (salbuespen oso gutxi batzuekin)*
- *Beharrik ez dudalako*
- *Egin dudan apurra, euskeraz egitea "ateratzen" zaidalako. Gaur arte etzait erdaraz egiterik bururatu ere*
- *Erdaraz idazteko beharrik ez dut sentitu, ez dut nahi*
- *Erdarazko produkzioa handia delako eta ez dagoelako erdara desagertzeko inolako arriskurik*
- *Euskeraz bizi nahi dalako*
- *Ez dakit. Hizkuntza bateau ondo idazteu zaila da. Bitan egiteu lana bikoiztea da*
- *Ez didatelako eskatu.*
- *Ez diolako laguntzen euskal kulturari eta euskaldungoari, nire kasuan behintzat*
- *Ez dut ez beharrik ez zaletasunik sumatu*

- *Ez dut interesik*
- *Ez dut menderatzen*
- *Ez dut pentsatu ere egin.*
- *Ez naiz ausartu*
- *Ez nau motibatzen*
- *Hizkuntz-interferentzia sobera ez izateagatik*
- *Idazten ditudan gauzek euskaldun hiztunen esparruan soilik izan dezaketelako interesa, agian, ez dakit*
- *Inoiz burutik pasa ez*
- *Konpromisoagatik, gazteleraz idaztea errazagoa gertatzen bazait ere*
- *Nire estiloa euskaraz garatu dudalako; nahiz asko irakurri gaztelania ez dut literarioki "menderatzen"*
- *Komunitate naturala euskaldunena sentitzen dut, eta horiexei dudala zerbait esateko*
- *Ez dut orain arte erdaraz argitaratu. Ez dut baztertzen aukera, nahiz eta nire jardun nagusia beti ere euskaraz izango den. Liburuak berak (edo barruak) hala eskatuko balit ez nuke arazorik izango*
- *Ez nau motibatzen sormen lana erdaraz garatzea, bai ordea euskaraz sortutakoa erdarara itzultzea*
- *Egin dudan apurra, euskeraz egitea "ateratzen" zaidalako. Gaur arte etzait erdaraz egiterik bururatu ere*
- *Ez. 1981etik, letxe txarrez*
- *Arrazoi ideologiko garbia egotez gain, gai al naiz?*
- *Aspaldi egin nuelako euskararen aldeko apustua (nahiz eta bakarren bat erdaraz idatzi dudan edo idatz dezakedan beti ere gure euskal munduaren funtzioan)*
- *Aukera kontua*
- *Aukerarik ez, aukera edukita ez dakit zer egingo nukeen*
- *Baina gidoiak bai. Literatura euskaraz egiten dut. Idazle lana, ez beti, ez derrigor*
- *Baina nire liburuen itzulpenak, gaztelerara, nik neuk idatzi ditut*
- *Beharrik ez dudalako*
- *Euskal idazlea naizelako*
- *Euskal kultura bultzatu behar delako*
- *Euskal kultura da interesatzen zaidana. Baina behar izanez gero, gazteleraz ere idatziko nuke*



LANDART, DANIEL (Doniztiri, 1946)

- *Hogoi urte (1968)*
- *Noiz (1970)*
- *Hil biziak (1973)*
- *Xori gorriak eta... Antzerkia hiru zati eta bost agertaldi (1973)*
- *Aihen ahula. Haur denborako hixtorio mixterio (1978)*
- *Erranak erran... (1981)*
- *Nola jin, hala joan... (1985)*
- *Batita haundia (1994)*



LANTZIRI, GEXAN (Urepele, 1941)

- *Eusko artzaina (1986)*
- *Otsoño eta xuriko (1986)*
- *Oxpin eta Lapatin (1986)*
- *Piarres baratzezaina eta bi amerikanoak. (I-II) (1986)*

- *Euskalduna eta abertzalea izanik, geure hizkuntzari horrela egokien laguntzen diodala uste dudalako*
- *Euskalduna naizelako*
- *Euskara da nire hizkuntza, eta motibo berezia beharko nuke erdaraz idazteko*
- *Euskara delako nire ama-hizkuntza*
- *Euskara eta Euskal Herriarekiko konpromezua dago batetik; bestetik, literatur hizkuntza bakarra sentitzen dut nigan posible, eta hori euskara da*
- *Euskaraz asetzen naizelako*
- *Euskaraz idaztea jarrera pertsonala da. Erdaraz idatziko nuke horretan lanbiderik balego*
- *Euskaraz idazteko konpromezua hartuta daukat neure buruarekin*
- *Euskaraz sortzen dut. Erraztasun handiagoa izateaz at hobeto adierazten ditut euskaraz sentimenduak*
- *Ez diot zentzurik hartzen erdaraz idazteari*
- *Ez dit barruak eskatzen. Gainera nik horretan ez nuke inolako ekarpenik egingo literaturara*
- *Ez dudalako beharrik izan*
- *Ez dudalako erdara promozionatu nahi*
- *Ez dut aukerarik izan*
- *Ez ez dakigulako, asmatuko genuke, baina erdara da gailen eta egin dezatela beste batzuk*
- *Ez naiz gauza sentitzen*
- *Ez nakike, ez zait interesatzen*
- *Gogoak ematen ez didalako*
- *Ni herri txiki batetakoa naiz, eta nire heldutasuna, sentsazioak, euskararen bidetik etorri izan dira*
- *Nahiago dut euskeraz sortu eta ezagunen batek itzultzea*
- *Itzulpenik egiten dut hartara, lanbideak eskatuta, baina sortze-lanetarako "erosoago" dihardut euskaraz*
- *Lan handia egin beharko nuke. Denbora eta ahalegin handiegia litzateke*
- *Liburuak idaztea ez dut ogibide berez, euskaraz ateratzen zait*
- *Literatur hizkera hizkuntza batean baino gehiagotan garatzea zaila delakoan nagoelako*

- *Neure hizkuntza euskara delako eta premia guztiak berak dituelako*
- *Nik daukadan denboran aportatu dezakedanak garrantzirik ez daukalako, nire iritziz*
- *Nire hizkuntza euskara delako*
- *Nire irakurlego propioari zuzentzen natzaio*
- *Nire lan nagusia euskararen aldekoa delako*
- *Tira, erderaz idaztekotan frantsesez, ingelesez, portugesez, egin nahi nuke*

Zer adierazten du praxi honek, euskal idazleak elebidunak direla? Hori jakin nahi genuen. Jakinmina asetu gabe gelditu beharko, ordea. Bi arrazoigatik: bateko, idazle askok (% 46,7) ez du jakin zer erantzun edo ez du erantzun nahi izan; eta besteko, idazleek erantzun askotan, elebitasuna ez dute bere idazteko ofizioarekin lotu bere buruarekin baizik.

Pertsona gisa barik *idazle gisa* elebiduntzat ote zuen bere burua jakin nahi genuen, baina alperrik. Soziologikoki eta pertsonalki ulertu da elebitasuna eta ez literarioki. Erdaraz sekula idazten ez duen idazle asko dira elebidun gisa erantzun dutenak. Beste batzuk elebidunak omen dira erdaraz idatz dezaketelako, baina ez idazten dutelako.


Batzuek egiten dute diferentzia, pertsona eta idazlearen artean. Adibidez: "Oraindik hartara jarriz gero, erdaraz hobeto idatziko nukeela uste izan arren, euskarekiko nire loturak atzera bueltarik ez du". Edo beste hau: "Pertsona gisa, elebiduna naiz. 'Idazle' gisa, erdaraz ere idatz dezakeen 'idazlea' naiz. Euskaraz idaztearen alde egina dut hautua". Erantzun-mota honek balio du, idazle gisa ari baita, besteek ez.

Euskal literatura modernoaren tradizioan euskaraz zein erdaraz, indiferenteki, idazteak apenas duen tradiziorik. Bere burua elebidun jotzen duen multzo horretan (% 37,5), euskara bezala erdara erabiltzeko bat baino gehiago agertu da prest, hala ere. Bernardo Atxagaren linean.

Bernardo Atxaga behin baino gehiagotan mintzatu da zernahitarako gaztelania eta euskara erabiltzearen alde. Eta jarrera hau ez du oraingoa, Espainiako Sari Nazionalaren ondokoa alegia, Pott-en garaikoa baizik.

Susa 5 zenbakian (1982) Bernardo Atxagaren azterketa egiten du aldizkariko lantaldeak.

Iñaki Uria eta Iñaki Iñurrietak elkarlanean kòmentatzen dituzte Bernardo Atxagak literaturaz eta literaturaren inguruan azaltzen dituenak. Elebitasunari dagokionez *Pott Tropikal*-eko pasarte bat erreskatatzen dute, euskal literaturaren adiera geografikoa aldarrikatzen duena: "Horregatik (lehen deklarapen tropikala): euskal literatura zentzu geografi-



LARREA, JOSE MARI

- *Amonatxo (1980)*
- *Ipurtargia (1980)*
- *Tulipan txikia (1980)*
- *Urriztiko txitoa (1980)*
- *Zuri izan nahi zuen hartza (1980)*
- *Nafarroako euskal idazleak. I (1987)**
- *Euskaldungoa erroizturik (1994)*



LASA, AMAIA (Getaria, 1948)

- *Hitz nahastuak (1977)*
- *Nere paradisuetan (1979)*
- *Malintxearen gerizpean (1988)*

koan hartuko dugu hemendik aurrera... herri honen literatura erdaraz egina izan delako".

Zenbaki berean, Josu Landak Bartzelonan egin zion elkarrizketan (*Atxagarekin hizketan?: Pott banda, neure burua eta gainerakoak*), helduago du Bernardo Atxagak euskal idazlearen hizkuntz aukeraren arazoa. Solaskideak literaturari buruzko fede-artikuluak izkribatzeko eskatu zion. Hiru hauek eman zituen Bernardo Atxagak 1982an:

"Lehena: eskritoreak ahal duen hizkuntza guztietan idatzi behar du, aintzakotzat hartu behar ditu —gure kasurik arruntena aipatzearren— euskara eta gaztelera. Bien arteko aukera, literarioa izan behar du (ez daude kontrajarriak, inondikan ere. Ez da 'ala'ko arazo bat, 'euskaraz ala gazteleraz'; adibide ezaguna —niretzat ezaguna— jartzearren, Nikolasaren abenturak bi hizkuntzetan kontatu nituen, itzulpenik gabe. Hola jokatuz bi testu siames atera zitzaizkidan).

Bigarrena: Zein hizkuntzatan izkribatzen duzu hobetoen? galdera faltsu bat da. Garai batean modan jarri zen 'ea euskaraz pentsatzen al genuen' galdetzea... pitokeria bat, ezen antza denez (arazo honen sakonak erantzun xeheak galerazten dituelako arestiko 'antza denez' hori) pentsatzea eta esatea gauza bera dira. Gure auzokoari euskaraz zerbait esaten badiogu, euskaraz pentsatzen ari gara. Berdin geure buruarekin ari garenean ere. Hizkuntzaren gramatikan daude poetika guztiak, hizkuntza bakoitzak berea duela. Eskritorearen lana da poesia hori agerian jartzea. Erdaraz ari bada, erdararena aterako du, euskaraz ari bada euskararena.

Hirugarrena: Argitaratzea eta izkribatzea oso bestelako arazoak dira. Euskaraz argitaratzea jokaera etikoa (edo komertziala, edo...) da, ez da zehazki literarioa. Den dena esan beharra badago, nik nahiago dut, gehio gustatzen zait, euskaraz kaleratzea".

Idazle-Argitaratzaile bikotea

Edizioan autorearen eta editorearen harremana bikote-harremana da, eta are, ezkontzaren gisakoa, kontratu batez seilatua.

Bikotea esatean arazoak ere adierazten dira; eta ezkontza diogunean dibortzioa, kontratu-etena, beti dira posible. Haserreak, eta etenak, datozenean diruzalekeria, zikoizkeria, errentagarritasuna artearen gainetik baloratzea, aurpegiratzen dizkio idazleak editoreari. Editoreak idazleari, aldiz, egoismoa, bere burua gainbaloratzea, eta batez ere leialtasun-falta ateratzen ditu mahai gainera. Eta gustu txarrez bada ere, esanen dio Gallimard argitaratzaile famatuaren esaldia, orain berarekin egon arren

bere zerbitzuak hurrengo bati eskaintzeko prest dagoen emakumearen parekoa dela.

Nonahi eta beti entzun eta entzungo dira "grazia" hauek. Baina gure inkestatan ez dugu maila horretan jokatu. Editoreei zuzendutakoan zer pentsatzen zuten autoreen eskuizkribuen kalitateaz galdetu diegu.

Idazleen txanda da orain. Idazleek argitaratzailea nola ikusten duten hiru modutara aztertu nahi dugu: lehenengo, zenbat argitaletxerekin lan egin duen eta zergatik; bigarren, editoreek nola tratatu duten; eta hirugarrenez, argitaletxeen liburu-politikaz zer-nolako balorazioa egiten duten.

"Etxeko idazle" gutxi

Euskal idazle gehienek argitaletxe bat baino gehiago probatu dute. Bi etxe edo gehiagotan obraren bat argitara eman duten idazleak % 64 dira. Bi argitaletxe baino gehiagotan ibili da multzorik handiena, gainera: % 41,8.


Etxe bakarrarekin bost idazletik batek lan egin du: % 20,1. Bostetik bat etxeko idazle leiala dela pentsa daiteke, hortaz. Ez da, bada, horrela: etxe bakarrean ibili izanaren arrazoia liburu bakarra egitetik dator, eta ez beste inolako aukerarengatik gehiengo batentzat.

Honela sailkatzen dira erantzunak:

Erantzunik ez	5,4
Batekin	20,1
Birekin	22,3
Gehiagorekin	41,8
Egile-argitaratzaile gisa	9,2
Besterik	1,1


Jokaera honek zer esplikazio du? Zergatik jotzen du idazleak editore batengana edo gehiagorengana? Zergatik argitaletxe bat probatu ondoren, hura utzi eta beste bat aukeratzen du?

Bi gauza diferente ikusi dugu erantzunetan. Nola gertatu den editore bat edo gehiagorekin lan egitea ikusiko dugu. Eta zer baloratzen duten, kasua denean, argitaletxe ezberdinetan.



LASA, J. IÑAKI

- *Alizia eta biok (1982)*
- *Andaluziari ene bilduma (1984)*



LASA, MIKEL (Donostia, 1938)

- *Novela berria Hego-Amerikan (1972)*
- *Poema bilduma (1984)*
- *Memory Dump (1993)*

Erantzun guzti-guztiak emango ez ditugunez (asko eta asko errepika tuak baitira, beste batzuk informazio gutxikoak), aurretiaz esatea komeni da sarri asko ez lehenengo argitaletxea eta ez hurrengoak ez direla hautapen jakin baten ondorio izan, kasualitatea baizik. Hala suertatu delako, eskatu egin didatelako eta suerte honetako erantzunak ugari dira.

Berriz diogu argitaletxe bakarrean publikatu duten idazle horiek nahikoa ugari direla berez, baina ez dela datu hori interpretatu behar etxearekiko leialtasun gisa. Horietako askok obra bakarra argitaratu dute, eta beharko izan argitaletxe bakarrarekin!

Erantzunak idazleak probaturiko argitaletxeen kopuruaren arabera sailkaturik ematen ditugu, kopuruak berak ere zenbait kasutan erantzunari ezaugarri propioak eransten baitizkio.

Ikusiko dugu jokabide eta motibazio asko gurutzatzen direla erantzunetan. Normalean, argitaletxearen jokabide edo ezaugarriekin baino zerikusi zuzenagoa dute bestelako motiboekin. Hori bai, argitaletxeekiko atxikimendua baino gehiagotan agertzen da ugaritasunaren onura.

Autoedizioa hautatu dutenak idazle bezala hitz egiten dute eta aldi berean editore bezala. Aukeran bertan ikusten da zer baloratzen duten idazle hauek: emankortasuna ziurtatzea, liburuaren kontrola eta alderdi ekonomikoak.

"Zergatik lan egin duzu *argitaletxe bakarrarekin*?"

- *Argitaletxe batean lan egiten dudalako*
- *Beste aukerarik izan ez dudalako*
- *Leialtasuna diot neure argitaletxeari*
- *Etxekoa dogulako*
- *Euren seriotasunak eta eskaini izan didaten adiskidetasun eta laguntzak erabat fidelizatu naute*
- *Hala gertatu delako*
- *Lagun garelako*
- *Liburu bakarra idatzi dudalako*
- *Niregana hurbildu zirelako*
- *Ondo tratatu nautelako, gaurdaino*
- *Sari batek ireki zidan bidea eta aprobetxatu egin dut*

"Zergatik lan egin duzu *bi argitaletxerekin?*"

- *Batek eskaintzen zidana besteak eskaintzen ez zidalako, esaterako, edizioaren zainketa*

- *Batekin (Elkar) ia beti. Dena dela, ez da ona beti batekin lotzea*
- *Bi sari ziren eta bakoitza etxe batek argitaratu zidan. Dena den, diru kontu horietarako txarra naiz eta nire maila oso apala*
- *Edili ta Aita Zabala'kaz konpondu naz*
- *Elkar etxeko partzuer naiz, baina olerkirik ez dute nahi, ez delakoan errentagarri. Beraz "Maiatz"-ekin aritu naiz sail honetan*
- *Elkarrekin hasi nintzen eta gero Pamielakoekin gustora nengoenez beraiekin ere argitaratu dut*
- *Eskatu didatelako*
- *Ez naiz, ni neu argitaletxeekin harremanetan ibili. Beti beste norbaitek eskaini dit nire lanak argitaratzea*
- *Gehiena Pamielarekin egin dut. Susarekin liburu bat egin dut Pamielan argitaratu ez zidatelako eta*
- *Gertutasun kontua izan da batarekin edo bestearekin lan egitea*
- *Hala egokitu zaidalako, besterik gabe*
- *Horietan abegi ona aurkitu dudalako*
- *Hurbiltasuna eta adiskidetasuna ditut irizpide eta noiz-nola alde batera edo bertzera jotzen dut*
- *Itzulpenak (enkarguz) Desclée-kin; bestela, Elkar-ekin*
- *Lehiaketa bat medio Elkarrekin hasi nintzen. Gero ipuin bat beraiek ez zutela argitaratuko eta, Ereinera eraman nuen*
- *Merkeenak ziralako*


"Zergatik lan egin duzu *hiru argitaletxe edo gehiagorekin?"*

- *"Por libre" nabilelako*
- *Aberasgarria delako bateko eta bestekoekin aritu eta iritzi eta lanerako modu ezberdinen berri izatea*
- *Adixkide batzuk hatzeman didate editoriala aldi bakoitzean, manuzkritoa irakurtu ondoan. Eta uste dut editorialek ez dituztela saldu liburu guziak. Beraz jo beste baten gana!*
- *Argitaletxe askotatik lanak eskatzen dizkidatelako*
- *Argitaratzea zail egiten delako*
- *Argitaratzeko prest aurkitu ditudalako*
- *Aukerak horrela etorri direlako*
- *Aukera izan dudalako Susak nire produkzioa iresteko gaitasunik ez duelako. Lagunengatik*



LASARTE, MANUEL (Leitza, 1927)

- *Bertso mordoxka (1970)*
- *Gordean neuzkanak (1975)*
- *Beranduko Lanak (Bizitza eta bertsoak) (1992)*
- *Lazkao-Txiki gogoan (1994)*
- *Enbor zarraren ezpalak (1995)*



LATIEGI, BIXENTE (Balentzi, 1919)

- *San Iñazioren denborako eliza (1985)*
- *Mendeetako eliza. XVII-XVIII (1986)*
- *Gure denbora hauetako eliza (1990)*
- *Apostoluen eta Martirien denborako Eliza (1992)*
- *Elizak eta estaduak bat egin zuten denborako eliza (306'garren urtetik 476'garren urtera) (1993)*

- *Bakar baten "menpe" ez egoteagatik, eta aukerak ere hala izan ditudalako*
- *Batean baino gehiagotan argitaratzea lortzeari, idazlearentzako erronka interesgarria deritzot. Bestalde, zilegi iruditzen zait, batean argitaratzea ez lortuz gero, beste batean saiatzea*
- *Batzuetan sariketen kausaz. Bestetan, propio*
- *Beraiek eskatzen didatelako*
- *Gai eta arlo desberdinen arabera*
- *Gauza guztietan bezalaxe hobe delako, argitaratze-mundua ezagutzeko eta barietatea lortzeko*
- *Gauzak ahal bezala dira hor ere... libre bizi ahal izatekotan...*
- *Aukera handirik ez dago, eta guztietan probatu beharra*
- *Halabeharrez, eta irekitasun hori gordetzea egoki delako ere bai*
- *Gustoko jendearen bila*
- *Lagunekin edo eskaintza egokia egiten didanarekin*
- *Lan bakoitzak bere leku egokia zuelako edo argitaletxea bultzatzaile zelako*
- *Liburuaren estetikari begiratzen diot erregular eta argitaletxeetako bildumeei erreparatzen diet (Eranskina)*
- *Monopolioen aurka naizelako*
- *Nolabait esan, idazle-lanetatik bizi naiz, kazetaritza besterik ez baitut egiten. Hortik jaten dut*
- *Osasungarri deritzodalako*
- *Salbuespena salbuespen, haien artean ez dago inongo alderik, ez baldintzei ez liburua "bultzatzen" duten moduari dagokionez*
- *Susan hasi nintzen, lagunak nituelako bertan. Elkarren sartu nintzen lanean eta profesionalki bertan dut aukera onena. Tarteka besteren batekin aritu naiz, proba gisa edo*
- *Tratuera ekonomikoa eta kasu eskasa*

"Zergatik lan egin duzu *egile editore gisa?"*

- *Nire liburuak nola argitaratzen diren hobe kontrolatzeko*
- *Non argitaratuko nituzke nik hamar-bat liburu ia urte bakarrean? Gainera, nire intimitatea gordetzen laguntzen dit argitaratzeko era honek*
- *Egile-eskubideak bermatzeko bide oso egokia delako*

- *Liburuen prezioa kontrolatzeko eta merkeago argitaratzeko*
- *Olan gertatu dalako*

Tratu on samarra

Nola doa bikote-harremana? Idazlearen ikuspegitik, editoreak zernola tratatzen du egilea? Eta beti dagoenez mejoratzerik, zer egin tratu hori hobetzeko?

Argitaletxeek nola tratatzen dute idazlea?

Erantzunik ez	21,7
Oso ondo	2,7
Ondo	31,0
Erdipurdika	33,2
Gaizki	6,0
Oso gaizki	3,3
Besterik	2,2


Oro har, ezin da esan editoreen tratamenduak idazlea entusiasmatzen duenik. Oso nabarmena da non kokatzen diren idazle gehienen balorazioak: tratu on eta erdipurdikoan.

Multzo handienak (% 42,5) erdipurdikoa edo txarra dela tratua esaten du, exageratu gabe baina. Tratu txarra dela ezin da esan besterik gabe. Baina bai erdipurdikotzat ematen den tratu horrek konotazio negatiboak dituela.

Hirutik bat (% 33,7), aldiz, gustura dago editoreen tratuarekin; gutxi batzuk oso gustura, eta gehienak gustura. Adin-aldetik gustu/disgustu kontutan ez dago alde nabarmenik belaunaldietan zehar.


Tratuaren balorazioak bigarren partea du: eta zer egin hori mejoratzeko? Oso interesgarriak dira erantzunak, "cahiers des doléances" bezala gutxienez. Idazleak non duen min islatzen da hor. Errebindikazioak pertsona-mailakoak dira sarri, ekonomikoak ere badira ez gutxitan; eta liburuaren segimenduari dagozkionak askotan (promozioa aipatzen da maiz). Esango nuke printzipioen mailakoen gainetik daudela kexa praktikoak.

Tratuaren balorazioa nola egin duten kontuan hartuta sailkatuko ditugu erantzunak.



LEKUONA, JUAN MARI
(Oiartzun, 1927)

- *Mindura gaur (1966)*
- *Muga beroak (1973)*
- *Ilargiaren eskolan (1979)*
- *Ahozko euskal literatura (1982)*
- *Manuel Lekuona (1894-1987) (1988)*
- *Ikonoak eta mimodramak (1990)*
- *Manuel Lekuona Etxabaguren (1995)*



LERTXUNDI, ANJEL (Orio, 1948)

- *Hunik arrats artean (1970)*
- *Ajea du urturik (1971)*
- *Goiko kale (1973)*
- *Sorgin bat aidean (1979)*
- *Txilibitu danbolin (1979)*
- *Aise eman zenidan eskua (1980)*
- *Negua (1980)*
- *Portzelanazko irudiak (1981)*
- *Tristeak kontsolatzeko makina (1981)*
- *Uda (1981)*
- *Udaberria (1981)*
- *Gizon kabalen piurak (1982)*
- *Hamaseigarrenean, aidanez (1983)*
- *Urtero da aurten (1984)*
- *Artillero dale fuego (1986)*
- *Elegantzia frantzia (1986)*
- *Ipurdian bost letra (1986)*
- *Janda gero, majadero (1986)*
- *Titiritero titirimundi (1986)*
- *Tobacco days (1987)*
- *Carla (1989)*
- *Lurrak berdinduko nau (1990)*
- *Horrela bizi bagina beti. Umore antologia (1991)*
- *Kapitain frakasa (1991)*
- *Peru eta Marixe, mila eta bat komerixe (1993)*
- *Tresak eta kordelak (1993)*
- *Otto Pette. Hilean bizian bezala (1994)*
- *Piztiaren izena (1995)*

Tratuarekin oso konforme daudenen hobekuntza-proposamenak:

- *Produkzio kalitatea eta banaketa-promozio bideak indartu*
- *Protagonismo piska bat eman, erabakitzen eta ideiak ematen utzi. Bestalde, ekonomikoki laguntzen saiatu: egile eskubideak, sarriago ordaindu, lana amaitu aurretik aurrerapenak emateko aukera. Zaila da ordea*


Tratuarekin konforme daudenen proposamenak:

- *Orijinala jasotakoan, baietza ala ezetza arrazonatu b) Prozeduran idazlea kontutan hartu (azala, aurkezpenak, argitarapen datak)*
- *Agente-lana*
- *Argitalpenak laguntza gehiago*
- *Ariñago argitaratu, aktualitaterik galdu barik*
- *Beharbada, gehiago animatu*
- *Beren (idazleen) lanak rigore gehiagoz kritikatu eta juzkatu*
- *Bultzatu, eskatu obra berriak, aholku onak eman (kritika orekatu bat)*
- *Dena egin beharko lukete hobeto: Frantziako argitaletxe batek 3 langilerekin hemengoek 13rekin baino gehiago egiten du*
- *Diru pixka bat eman?*
- *Dirua aurreratu*
- *Eskubide hobeak ordaindu. Aldizkariei lagundu, jendaurreko ekintzetan sartu (promozioa)*
- *Hainbeste gauza...*
- *Idazle gazte eta berriengan sinistea*
- *Idazlea bultzatu pertsonalki beste obra batzu argitaratzera edo liburumotaz aldatzera*
- *Idazleei ideiak eman, bilduma berriak eta idazleen gogokoak sortu, balore berriak aurrera ateratzen saiatu*
- *Promozioa*
- *Salmenta-sareak eta zirkuituak askoz ere prestago eduki. Erdal itsasoko irla galduak baizik ez dira euskal liburuak. Liburudenda gehienetan (EH) bazterreko zerbait*
- *Salmenten berri zehaztua eman*
- *Salmenten portzentaia pixkat haundiagoa eman idazleari*

- *Sistema osoaren oinarrian dagoena idazlea dela onartzea, eta horren ondorioz jokatzea*
- *Uste dut nahikoa pazientzia badutela. Dena den, beti da zer hobeturik*
- *Harreman estuagoa; bere lanak promozionatu; informazio zabala eman; kontutan hartu idazlea berrargitapenetan, aldaketetan, etab.*


Tratua erdipurdikakoa dela diotenen proposamenak:

- *Erremedioa gardentasuna. Eman datuak, eskatu gabe ere*
- *Harremanak gehiago zaindu, gauzak zuzenago eta zorrotzago egin, informazio gehiago eman*
- *Idazle onaren lana ondo preziatu (prezioa jarriz) eta kontratuak sistematikoki eginez eta errespetatuz*
- *Argitaletxe batzuek egileari lan bat argitaratu behar diotenean, telefonoz hots egiten diote horren berri irribarretsu emateko, baina ezezkoa eman behar dutenean eskutitz isil bat bidaltzen dute. Biziki gorrotatzen dut hori!*
- *Egile eskubideak garaiz eta gehiago ordaindu, liburuak gehiago promozionatu eta zabaldu, idazlearekin harrera beroagoa izan*
- *Egile-eskubideak hobeto saritu, promozioa hobeto egin.*
- *Galdera honi erantzuteko arazo "txiki" bat dut. Ni neu naiz argitaletxe bateko arduradun. hala ere, esango dut, gure argitaletxea sortu bazen, neurri handi batean horregatik izan zela, hemengo argitaletxeek ez zutelako behar bezala tratatzen idazlea. Ez dut uste, ordea, guk hutsune hori erabat bete dugunik. Horretan autokritika egin beharko genuke. Hala ere, iruditzen zait hemengo argitaletxe asko (gu geu barne) idazleen moduan gabiltzala, profesionalizatzeko bidean*
- *Harremanak zaindu, profesionalizatu, epe luzeko proiektuak paratu*
- *Harremanetan sartu eta erran garbiki idazleari nora igortzen dituzten liburuak eta zenbat saltzen diren. Horrela idazleak badakike. 1) promozioa ongi egina den ala ez, eta 2) zenbat zor dioten*
- *Idazlearen nahiak zeintzuk diren entzutea era zuzenago batez*
- *Irabazietan partaidetza handiagoa eman*
- *Irabazpide minimo bat bermatu*
- *Kontaketa hurbilak idazleekin mantendu "etxearen" eta "idazlearen" onerako*



LERTXUNDI, JOXE MARI (Aia, 1932)

- *Baso tarteko oiua (1983)*
- *Igaroari begira (1991)*
- *Sorlekuaren kezka (1994)*



LETAMENDIA, JUAN ANTONIO (Donostia, 1940)

- *Euskera. 6 (1975)*
- *Jalgi hadi. Irakaslearen gida-liburua. (1-25) (1977-1981)*
- *Jalgi hadi. Ikaslearen liburua (1-25) (1978-1981)*
- *Bakarka. 1-3 (1984-1987)*

- *Kontratuak!*
- *Kortesia gorde gutxienez... (Seguruenetik, nahiko egiten dute...)*
- *Lankidetza handiagoa autore-editoreen artean edizioko eta promozioko garaian*
- *Liburuaren promozioa landu, kanporatzen ahalegindu, argitaletxe "normalizatu" bihurtu, aholkulari edo irakurketa taldeak sortu...*
- *Liburuen jarraipena*
- *Pagatu behar delarik pagatu, bederen, eta promozioa maneran egin*
- *Promozio gehiago eta kontuak garbi eman*
- *Berarekin batera lan egin*
- *Idazleok ere gehiago egin behar duguna eta oraindik gehiago: herrigintza dirugintzapetik askatu*

Txarra dela tratua diotenen proposamenak:

- *Bere eskubideak defendatu*
- *Den-dena*
- *Euren eskubideak hobeto zaindu*
- *Gehiago ordaindu*
- *Idazleen lanak bultzatzen saiatu*
- *Ondo ordaindu, idaztera animatzeko adina. Idatzi behar denez, saritu beste lanbideak baino gehiago*
- *Eta zenbait idazleren kasuan, euren lan pribatuagatik liburuak saltzeko aukera dutenez, kalitatea barik salmentak bilatzen dituzte. Zenbait idazlek salmentak bermatzen dizkiete eta beste batzuk ez*
- *Harremanak zaindu, hurbilagoko tratua bultzatuz*
- *Idazlearen lana eta esana gogoan hartu*

Oso txarra dela tratua diotenen proposamenak:

- *Dena, enpresario zikin batzuk dira, denak; haundienaz aurrera Elkar, Erein, Txalaparta. Eskerrak Txemari!!*
- *(Maiatz-ek salbu). Kontutan hartu eta lanak eskatu, ez adorea kendu aldez aurretik erranez = olerkirik ez dugu behar, –adibidez–*
- *Idazle gutxi dagoenez, arreta haundiagoz tratatu bera eta bere obra. Eta zintzoagoak izan egilearen eskubideetan*
- *10 liburu idatzi ditut. Behin ere ez dut kontratu bat izenpetu. Idazle deretxoak urte bakar batez hunki ditut. (...) liburu bat idatzi dut. Urte oroz*

gutun bat izan dut zenbat saldu zen, zenbat gelditzen gehi txeke bat, urteko nire partea

- *Militantziari kasu gehiago egin*

Argitaletxeen liburu-politika


Harreman-problemak alde batera utzi eta editorearen funtzio nagusia baloratzen jarri ditugu idazleak. Zera galdetu diegu: editoreek zer moduzko jokabidea duten, ez idazlearekin, baizik eta liburu-produkzioarekin. Interesatzen dena produkzioa baino liburu-mota da gehiago.

Satisfakzio/Insatisfakzio maila oso desberdinak ageri dira erantzunetan: liburu-klase batzuetan egiten denarekin nahikoa pozik daude idazleak. Baina beste batzuetan hutsaren hurrengo kalifikazioa ematen diote editorearen jokabideari, antzerkiari dagokionean, adibidez.

Esan gabe ezin da pasa erantzun gisa abstentzioa aukeratu dutenen multzo handia. % 37,5 da genero batzuei buruz, txikiena. Eta handiena, % 48,4 testuliburuari buruz. Idazle hauek ez dute erantzunik eman, nahiago izan dutelako isildu edo ez dutelako gai ikusi bere burua.

	Haur-lit.	Narratiba	Olerkia	Antzerkia	Saioa	Testul.
Erantzunik ez	37,5	37,5	39,7	44,6	40,8	48,4
Oso ona	20,1	4,9	0,5	-	1,1	9,2
Ona	31,0	41,8	7,1	1,6	5,4	23,9
Erdipurdikoa	6,5	10,9	23,4	13,6	28,8	11,4
Txarra	1,1	1,1	21,2	25,0	15,8	2,7
Oso txarra	1,6	1,6	5,4	12,0	5,4	1,1
Besterik	2,2	2,2	2,7	3,3	2,7	3,3

	Ez erantz.	Oso ona	Ona	Erdip.	Txarra	Oso txarra	Besterik
Haur/gazte lit.	37,5	20,1	31,0	6,5	1,1	1,6	2,2
Narratiba	37,5	4,9	41,8	10,9	1,1	1,6	2,2
Olerkia	39,7	0,5	7,1	23,4	21,2	5,4	2,7
Antzerkia	44,6	0	1,6	13,6	25,0	12,0	3,3
Saioa	40,8	1,1	5,4	28,8	15,8	5,4	2,7
Testuliburua	48,4	9,2	23,9	11,4	2,7	1,1	3,3



LETE, XABIER (Oiartzun, 1944)

- *Egunetik-egunera orduen gurpillean (1968)*
- *Bigarren poema liburua (1974)*
- *Antzerkia deusestik izatera (1977)**
- *Urrats desbideratuak (1981)*
- *Biziaren ikurrak (1992)*
- *Zentzu antzaldatuen poemategia (1992)*

Taula hau benetan argigarria gertatuko zaie editorialei literatur generoekin daramaten politikaz idazleek zer pentsatzen duten ezagutzeko.

Balorazio oso desberdinak egiten dituzte, segun generoa. Gaingiroki bada ere, banan-banan errepasatuko ditugu:

Haur eta gazteentzako literatura da kalifikaziorik altuena jasotzen duena. Erdia pasatxo (% 51,1) dira editoreen lana ona eta oso ona dela uste duena. Eta kontrako muturrean minoria txiki-txiki bat dago (% 2,7) lan txarra edo oso txarra egiten dutela diotenak.

Narratibarekin editoreek nola jokatzen duten ere begi onez ikusten dute askok (% 45,7): hauentzat oso ona edo ona da argitaletxeen gaurko bidea.

Testuliburuetan editoreek nola jokatzen duten ere askok onartzen dute (% 33,1) eta oso gutxik gaitzesten: % 3,8. "Bai, baina" esango luketenak ere badira: % 11,4.

Orain arte, batez beste, nahikoa ondo gelditu da editoreen liburu-politika.

Ez du aurrekoarekin antzik batere argitalgintzako "hiru maria" diren literatur generoez galdetzean jaulki dituzten iritziak. Olerkiarekin, antzerkiarekin eta saioarekin editoreek daramaten jokabideaz apenas inor dagoen konforme.

Olerkiarekiko editoreen lana ez dute askorik goraipatzen idazleek: % 7,6 da bakarrik ondo iruditzen zaiona. Multzo handienak (% 26,6) txartzat edo oso txartzat du jokabide hori; eta ia beste hainbestek erdipurdikotzat.

Are negatiboagoa da teatroari buruzkoa: % 1,6 bakarrik ausartzen da jokabide hori ontzat ematen; % 37k ez du batere zalantzarik txartzat jotzeko orduan.

Saioarekin editoreek nola jokatzen duten ere gutxik onartzen du (% 6,5). Erdipurdikotzat ematen dutenen kopurua da handiena (% 28,8), baina ez doakio oso atzetik lan hori txarra edo oso txarra dela diotenen multzoa (% 21,2).

Zer esango ote lukete editoreek balorazio-maila honen aurrean?

"Hiru maria" horien kasuaz bereziki interesatu gara editoreen inkestan. Ea zergatik argitaratzen duten horren gutxi galdetu zaienean, espero zitekeenez merkatua seinalatu dute behatzez. Baina ez merkatua bakarrik.

Editoreen iritzian zergatik argitaratzen dira, bada, horren gutxi saioa, olerkia eta antzerkia?

	Sorkuntza eskasa	Merkatu urria	Besterik
Saioa	33,3	38,9	11,1
Olerkia	11,1	61,1	11,1
Antzerkia	27,8	44,4	11,1

Hiruetan leku berean aurkitzen dute zailtasun handiena argitaletxeek, merkatuan. Baina zailtasun-maila ez da berdina hiru generoetan. Olerkiaren kasuan % 61 izango litzateke merkatuari dagokiona.


Saiakeran eta antzerkian ere merkatuan dago erresistentziarik handiena. Baina ez da hori bakarrik publikatzeko dagoen zailtasuna. Merkatuaren urritasuna Scila bada, sorkuntza litzateke Caribdis. Hau da, ez da gutxi publikatzen gutxi saltzen delako bakarrik, baizik eta baita ere gutxi produzitzen delako. Beste modu batera esan, idazleek ez dutelako behar dena egiten. Saioaren kasuan bi urritasunak, merkatuarena eta sorkuntzarena, ez daude elkarrengandik oso urruti, editoreen iritzian.

Gatozen berriz idazleengana.

Kalifikazioak aparte utzita, hauen iritziak biltzera gatoz orain. Kritikaren ondoren proposamenak egitea eskaini nahi izan diegu idazleei. % 40k erantzun dio gonbidapenari. Erantzunetan kritikak eta proposamenak nahasian datoz eta sailtxo honen hasieran esan genuena frogatzen da bete-betean: editorea eta egilea elkarrengandik aparte bizi ezin dutenak izan arren, elkarrekin ere ez direla goxo-goxo bizi.

Hauxe da idazleei editoreez egindako galdera: "Zer egin beharko lukete orain egiten ez dutena?". Eta hauetxek erantzunak:

- *Argitaletxe batzuk oligopolio batzuk antolatu dituzte. Eta horren bitartez eta diruaren bitartez mugatzen da liburu ekoizpena. Eta bide batez ia sentitzen ez den zentsura ere egiten da, bai gaiei buruz eta bai euskalkiei buruz*
- *Arrazoi komertzial hutsak alboratuz, kalitatezkoa bultzatu eta argitaratu, batez ere baztertuena (poesia, saioa)*
- *Arriskatu gehiago formatoetan, publizitatean*
- *Askotan, literaturaren osotasunari begiratu ez, baina argitaletxeak euren gustuen dantzan dabiltza eta salduko ez den bildurraren menpeko*
- *Ateratzen den obra bakoitza "promozionatu", literatur aldizkari orokorra sortu*
- *Aukera gehiago eman*



LEZAMIZ, JON (Bilbo, 1954)

- *Bulegari itxura zuen (1982)*
- *Hegoak banitu (1982)*
- *Marrumak (1982)*
- *Sirenotsa (1982)*
- *Zapatarien aukera (1982)*




LINAZASORO, KARLOS (Tolosa, 1962)

- *Besterik gabe, Albina (1991)*
- *Eldarnioak (1991)*
- *Udazkeneko karabana erratua (1991)*
- *Apunte eta ahanzturak (1993)*
- *Ipuin arriskutsuak (1994)*
- *Zer gerta ere (1994)*
- *Euriaren eskuak (1995)*

- *Batez ere idazlea errespetatu eta "lagun-txokoak" alde batera utzi. Batzuetan argitaletxeetan dena ondo omen dago lagunek egina bada*
- *Behingoagatik irakurleak uler dezakeen hizkuntza erabiltzera behartu idazlea, ez bere egoa puztera*
- *Beren burua jantzi. Estatu mailako eta nazioarteko foroetan agertu. Koedizioak bilatu eta bultzatu. Beren lanean sinetsi*
- *Edukinez arduratu, etekina albora utzita. Eta aurrea hartu, eragin*
- *Egileei babes gehiago eman*
- *Egunean eguneko diruketa baino urrunago ikusi. Hortik oso urruti daude batzuk*
- *Erreztasun teknikoak eskaini*
- *Etekinen morroi bihurtu ez. Gauza berriak bultzatu eta babestu*
- *Euskal herritik kanpoko ekintzetan parte hartu, aholkulari taldeak eduki, idazle berriak bilatu, ausartagoak izan, profesionalagoak*
- *Euskararen egoera kontutan hartuz irabazien hainbateko on bat euskara bultzatzeko erabili*
- *Ez da hori arazoa (zuk planteiatzen duzuna). lana egiten ez dakien arotzari, zer esango diozu? Aulkiak mahaiak baino hobeto egiten dituela?*
- *Ez dira filantropoak. Diru egileak baizik, txiki batzu izan ezik*
- *Gaiak zabaldu*
- *Gazteei sarrera eman*
- *Gero ere ziurrenik egingo ez dutena. salmenta hutsari barik, genero ezberdinak kaleratzeari jaramon gehiago egitea*
- *Hainbeste irabazi ematen ez duena ere publikatu, poesia adib., edota herri-literatura*
- *Haur literaturari begira kolorearen erabilpena areagotu; bestela, jeneroarteko liburuak argitaratzeko ausartagoak izan*
- *Hiru "mariak" (olerkia, teatroa eta saioa) gehiago bultzatu*
- *Hizkuntza errazeko narratiba, saiakera eta antzerkia sustatu; baina hizkuntza errazaren izenean berezkotu eta jatortasuna galdu gabe*
- *Horiek dira ezagutzen ditudan arloak. Argitaletxeak: segun eta zein. Batzuengana hobe ez azaltzea. Idazleak badaki zein argitaldari duen konplize. Desastreak ere badira.*
- *Idazlea langiletzat hartu*
- *Idazlearekin harremanak hobetu*


- *Idazlearen sorkuntzatik bizi direla onartu eta beren lanak hobeto saltzen ahalegindu*
- *Idazleoi ordaintzeko sistema aldatu, guri onuragarri samarra behintzat izan dadin liburuak idaztea*
- *Imajinazio gehiagoz jokatzea*
- *Irakurle berriak bilatu, ez da erraza baina; euskal idazlanak kanpora zabaltzeko bideak urratzen gehiago ahalegindu; genero minoritarioarenak, ordea, nire ustez ez du konponbiderik*
- *Irakurlegoa "aztertu"*
- *Irizpide komertzialak nagusi dira eta horrek konponketa kaskarra du*
- *Jadanik errana dut behar dutela liburua zabaldu zentzu gehiagorekin*
- *Jenero baztertuenei ardura gehiago eskaini*
- *Kalitatea gehiago zaindu*
- *Kalitatea gehiago zaindu kasu batzuetan behintzat*
- *Kalitatearen galbahea bermatu. Izpiritu propiala erakutsi*
- *Liburu-motak eta bildumen estiloak zehaztu*
- *Liburuak gehiago promozionatu, eleberrigintza eta saiogintza batez ere*
- *Liburugintza dibertsifikatu eta kalitatea "a tope" zaindu*
- *Merkaturatzen zailagoak diren jeneroei kaso gehiago egin*
- *Narratibaz gainera, beste liburu motak ere saiatu argitaratzen*
- *Oilo urregilea bezala zaindu idazlea*
- *Olerkirik edo antzerkirik saltzen ez bada, nekez egin dezakete gauza handirik. Ondo saltzen denarekin hobeto portatzen dira*
- *Oso diru gutxi gastatuz ere promozioa hobe daitekeela ikasi*
- *Planifikazio bat dauden beharrei erantzunez (eta gosez hil) edo orain arte bezala jarraitu (eta babak jan, baina ez angulak)*
- *Poesia, saiakera eta antzerkia argitaratzeko bideak (laguntzak, edizio ttikiak...)*
- *Profesionalagoak izan; hau da: merkaturako sareak beraiek montatu, beraiek saldu lanak (eta ez idazleek zuzen), beraiek promozionatu obra-idazleak,... eta arriskatu pixka bat etorkizunari begira*
- *Programatu, obeto ordaindu, erlazio obeagoak euki idazlekin*
- *Proiektu kulturalaren barruan kokatu eta landu bakoitzaren liburuetan edizio-programa*



LINAZISORO, ABELIN (Zumaia, 1942)

- *Axun (1995)*

- *Promozioa, promozio profesionala eta banakcta profesionala. Publizitate profesionala. Bestalde, poesi irakurketak, unizeiki emanuldiak, etab. bultzatu*
- *Propaganda hobea egin. Luzapen edo atzerapenak laburtu argitaratzerakoari*
- *Saiakerari ekin*
- *Saioa gehiago bultzatu*
- *Sorkuntza ez-literarioa askoz ere gehiago mimatu eta honi buruz iritzi publikoa egin*
- *Testuen kasuan, liberatu edota gehiago ordaindu*



LIZARRALDE, PELLO
(Zumarraga, 1956)

- *Hilargiaren hotzikarak (1978)*
- *E pericoloso sporgersi. Zuri-beltzean (1984)*
- *Hatza mapa gainean (1988)*
- *Sargori (1994)*

Liburugintzaren akats eta eskasiak

Zehaztuz sei aukera aurkeztu dizkiegu idazleei. Sei ordez beste hainbeste ere izan zitezkeen. Beste batzuk ere izan zitezkeen, eta ez gutxiago egokiak. Hala ere, esango nuke sei hauek direla azken hogei urteotan indar gehienez-edo plazaratu direnak. Horiekin bat ez zetorrenak aukera zuen bere gustuko erantzuna emateko; gutxi erabili den aukera, egia esan. Hirutik batek ez du erantzun. Hori kontuan izanda, erantzun dutenen artean nola banatzen dira iritziak?

Produkzio intelektual eskasa	23,2
Promoziorik eza	19,8
Irakurle-eskasia	17,5
Editoreen jokabidea	14,3
Kritikarik eza	12,3
Beste hizkuntzetara ez itzultzea	10,9
Besterik	1,7

Lehentasun-mailaketa kontuan hartuta buruturiko ponderazio bidez lortu da taula hau. Iritzien maiztasuna eta garrantzia elkar-harturik adierazten ditu taula honek.

Ez dago beste guztiak zapaltzen dituen akats edo eskasia ebidenterik euskal liburugintzan, beti ere idazleen iritzian. Ordena honetan sailkatu dituzte eskasiak: sorkuntza, promozioa, irakurlea, liburu-politika, kritika eta literatur esportazioa. Idazleari dagokio lehen akatsa: sorkuntza intelektuala; egoera sozialari beste bat: irakurleriaren urritasuna; beste pare

bat ez dakit nori: kritika eta beste hizkuntzetara ez itzultzea; eta, azkenik, beste bi editoreari: promoziorik eza eta bere liburu-politika.

Liburuaren produkzio intelektualak bildu ditu balorazio negatiboenak, orokorrean. Edadekoek gazteek baino errazago jotzen dute horretara.

Lehentasunetan ez da aurrena, hala ere, produkzio intelektualaren eskasia, irakurleriaren urritasuna baino. Hobeto esan, lau multzo ia berdinetan banatzen dira idazleak liburugintzaren lehen akatsa seinalatzeko orduan: % 13k eskasia larri hori irakurlegoaren urritasuna dela diote; % 12,5ek dio bere iritzian akats hori idazleen produkzio eskasean aurkitu behar dela; eta % 12k liburugintzaren gaitzak sendatzeko lehen erremedioa euskal literatura beste hizkuntzetara aldatzea dela pentsatzen du. Gazte-jendea da batez ere esportazio-zalea. Eta, azkenik, promozioa: % 11,4k promozioa, sustapena, nabarmendu nahi dituzte, beren ustetan hortxe bilatu behar baita gaurko egoeraren erroa.


Lau ustezko gabezia aipatu ditugu eta laurek dute antzeko onarpen-maila idazleen artean. Sakabanaturik daude idazleak liburugintzaren alderdi negatiboak seinalatzerakoan. Horren sendabideak (hobe esan, sendatzeko proposamenak) kutsu bera izango dute, ondoren ikusiko dugunez. Idazleak akatsak ordenatzerakoan, aurrena jarri duena aipatuz zerrendatuko dugu erantzun-sorta hau. Lehentasuna irakurlearengan jarri dutenak dira, askogatik, iritziak eskaintzen emankorrenak. Euskal liburua kanpora ateratzeko erremedio bat bakarra ez da ematen, eta apenas esaten den ezer argitaletxeak nola jokatu beharko lukeen, edo kritikak zer landu beharko lukeen. Irakurlearengan, promozioan eta produkzio intelektualean zentratzen dira idazleen interesak.

Gauza bitxi bezala seinala genezake diagnostikoaren eta soluzioaren artean ikusi dugun leizea. Eman dezagun, kasurako, batentzat gaitz larriena sorkuntzaren eskasia dela; eta sendabide gisa promozioa proposatzen du. Badago inkoherentzi modu hori hainbat erantzunetan.

Zera galdetu diegu: "Zer egin beharko litzateke hutsune nagusiak gainditzeko?".


Editoreen jokabidea lehenetsi dutenen proposamenak:

- *"Egilea da argitaletxeon arazo larriena" entzun nuen behin argitaletxe batean*
- *Editoreak konbentzitu edo salatu; irakurlegoa zabaldu, euskarazko irakurgaiak ezagutarazi*



LIZUNDIA, JOSE LUIS (Iruñea, 1938)

- Durangaldea (1975)



LOIDI, JOSE ANTONIO
(Errenteria, 1916)


- Amabost egun Urgain'en (1955)

- *Gaur egun, profesionaltasun arazo bat da; horregatik dago euskal literatura dagoen gutxian, profesionalik ez dagoelako (ez argitaletxeak, ...)*
- *Libururik onenak eta ezagunenak, zentsuratuak daudela esanez, ofizialismotik urrundu*

Irakurlegoaren urritasuna lehenetsi dutenen proposamenak:

- *Kalitatezko lanak sortu. Eskolatik hasita literatur zaletasuna piztu. Langintza edo jarduera horri prestijioa eman*
- *"Errezago" idatzi*
- *Gaur eskolako indarraren poderioz irakurtzen da*
- *Akatsik larrienak dira, hain zuzen konpontzen zailenak, aldaketa sozial izugarria beharko bailitzateke; gauzak hobetzeko formula bakarra dago: lana, irudimena, inteligentzia, sentsibilitatea*
- *Alfabetatzearen eta euskalduntzearen arazoa dago funtsean*
- *Arazo larriena, nire ustez, irakurle-eskasia da, eta horren kontra ezin dugu ezer egin*
- *Batez ere irakurlegoa handitu behar da, eskolan bertan hasita literatura bultzatuz eta promozionatuz*
- *Dedikaziorako liberatu edo erdiliberatu. Sosak*
- *Errezetarik eta laburbiderik ez dela jakin, eta lanari serio eta itxurakeriarik gabe ekin*
- *Eskola eta komunikabideetatik irakurzaletasuna bultzatu zintzo*
- *Eskolan ikasleei programako betiko lau liburuez gain gehiago ere badirela esan eta ahal bada irakurtzeko aukera zabalagoak eskaini ikasleei*
- *Euskal irakurlegoa zabaldu, hezitu, saritu... kanporatu hemengoa, promozionatu*
- *Euskalduntze-prozesua serio burutu, orain arteko Gobernuek nahi izan ez dutena*
- *Eusko Jaurlaritzak dirua editorialei emateko partez idazleei eman diezaiela.*
- *Ezin dira idazle berriak "sortu", haien liburu bakarra argitaratu, egile eskubideak ez ordaindu edo gutxi ordaindu, eta gero, "txiripaz" liburu hori "boom" bat ez bada, idazlea baztertuta utzi*
- *Gaia bere osotasunean serioski planteatu, egitasmo berri eta eraginkor bat mahairatu parte guztien iritziak kontutan izanik*
- *Gure biztanleak euskaratu eta alfabetatu, Israelen egin den moduan*

- *Idaz-kalitatean eta irakur-kantitatean irabazi. Nola...? Hor zagok, ba!!!*
- *Idazleek irakurleentzako idatzi, ez idazleentzako; lan miresgarriak idatzi ez baino komunikatzen asmatu*
- *Idazleen eta Argitaletxeen laguntza ofizialak haunditu eta gehiagotu*
- *Irakurketa prestijiatu, eta kritika serioak eta zuhurrak egin, lagunkeriak utziz*
- *Irakurle gehiago, promozio hobea, subentzioak...*
- *Irakurleagoaren azterketatik hasi, promozioa merkatu berrietan egin eta liburua primatu*
- *Irakurlegoa bultzatu, irakurtzaletasunera erakarri eskolatik hasi eta edozein ikaskuntza prozesutan*
- *Irakurlegoa sortu (irakurketaren pedagogia landu)*
- *Irakurlegoa ugaritu. Baina zaila ikusten dut promozio on bat egin gabe*
- *Jendea gehiago motibatu*
- *Kalitateari aldegiten ez utzi eta "marketing" lana*
- *Komunikabideetan (irrati-telebistan) irakur giroa sortu (!) Ikastetxeetako lana oso positiboa da baina "asignatura" usaina dario*
- *Kultur politika zabal bat, egun egiten ez dena*
- *Bide berriak bilatu irakurleak gehitzeko*
- *Liburua behar litzake salgai ezarri herri txikienetan ere, edozein dendetan, eta bereziki idazlea ezagutzen duten herrietan. Merkatu egunetan, atera liburua eta ezar saltokietan*
- *Liburuaren benetako sustapen eta garapen politika. (Frantzia dut adibide)*
- *Literatura ez dago gaizki garen kasu txikirako. Produkzio intelektuala indartu*
- *Literatura hobetu*
- *Promozio-politika egokia (ez da kontu erraza, jakina)*
- *Promozioa eta kritika bultzatu*
- *Puntu guztiak elkarri loturik daude. Alor guztietan gehixeago ahalegindu, eta pazientzia*
- *Sustapenaz arduratu*



LOPEZ ADAN, EMILIO "BELTZA"
(Gasteiz, 1946)

- *Euskadi 1984 (1979)*
- *Bortu goretan lainope (1982)*



LOPEZ GASENI, MANU (Bilbo, 1961)

- *Jokoz kanpo (1987)*
- *Borroka arroka (1991)*
- *Jaun agurgarria (1993)*
- *Andoni eta Maddalenen komediak (1994)*

Kritikarik eza lehenetsi dutenen proposamenak:

- *Beti kanpoko egoerara iristeko irrikian erori gabe, nork bere eginkizunean sinistu, eta horri ekin*
- *Diru gehiago inbertitu eta enpresa indartsuagoa eraiki*
- *Egunkari eta aldizkarietan kritikari toki gehiago egin; euskara-erdarak itzulpengintza sistematizatu*
- *Kritika bizkortu, profesionalizatu*
- *Kritika gehitu eta garatu eta, batez ere, askeago bihurtu. hemengo kritika kaltegarria da*
- *Kritika serioski (agian anonimoki?) egiteko plataforma sendoa eraiki. Kanpoan promozionatu euskal produkzioa (ve y cuéntalo)*
- *Lana profesionaldu, literatur politika berria antolatu. Bakoitzak bere lana eta ekipoan lan egin*

Promoziorik eza lehenetsi dutenen proposamenak:

- *Azpiegitura bat bermatu*
- *Beharrezko dira kanpainak. Herri txikia gara eta gainera euskara zeharo desprestigiaturik dago*
- *Idazleak literaturaz kanpo especializatu eta arlo guztiei buruzko liburuak, artikuluak eta beste egin*
- *Iparraldeko literatura, euskal literatura oso gisa konsideratzen hasi, paternalismoa baztertuz*
- *Komunikabidei, ETB-ri batez ere, euskal liburuen aldeko egintzak egiteko eskatu*
- *Liburu promozio eta kritika sendorik agertzea*
- *Literaturarako zaletasuna eskoletan promozionatu. Liburuen edizioei Gobernutik gehiago lagundu*
- *Obrak hobeto promozionatu, eta ez soilik bi edo hiru idazle "santoiak" bezala*
- *Plangintza orokorra helburu birekin: profesionalizatzea eta beste hizkuntzetara itzultzea*
- *Produktua merketu behar da eta jendearenganatu. Promozionatu. Kultura ez da luxua izan behar*
- *Promozio gehiago, argitaletxeen jokabidea aldatzea, kostuak jetsi Jaurlaritzaren laguntzaz*

- *Telebistan eta hedabideetan liburuak gehiago promozionatu*
- *"Euskal Idazleen Elkartea", adibidez, elkarte efikaz bezala sustatu eta lagundu askoz gehiago*
- *Idazlea komunikabideetako protagonista egin*
- *Lehenik, sinetsi egin behar da literaturaren onura. Gero helburuak finkatu eta segi*
- *Promozioa, komunikabide eta eskolan*


Produkzio intelektual eskasa lehenetsi dutenen proposamenak:

- *Ber-euskalduntzeari ekin, promozionatu gehiago, lehiaketak gehiagotu*
- *Bertsolari-eskolak dauden bezala idazle-eskolak bultzatzea*
- *Euskal liburuaren aldeko Erakunde bakar bat sortu eta indarrak bateratu*
- *Euskara gizartean gehiago bultzatzea eta erabiltzea*
- *Ez dakit irtenbide zabalik baduen. Bestalde, dagoen bestean egoteak ere miresten nau. Norbaitzuek benetan lan ona egin dute orain arte*
- *Marko politiko berri bat heldu arte, zaila da ezer funtsezkorik aldatzea*
- *Formazio aukerak: literatura ikerketa-ikasketak promozionatu; idazlea gizartean promozionatu*
- *Prestijioa fomentatu*
- *Unibertsitatean, ezagutza teorikoei baina garrantzi handiagoa gero idazten irakasteari eta jendeari idazle gisa profesionalizatzeko bidea erraztu*
- *Urrats berriak ematen saiatu. Denborak konponduko ditu gainerakoak*
- *Irakurlegai berriak eskolan ez izorratu. Erdaraz kultu diren euskaldunak euskaraz ere kultu bihurtu. Idazleak inportatu*
- *Kritika behar bezela indartu. Promozio bideak zuzpertu. EHU-n eta besteetan Euskal literaturari tokia egin*
- *Nahi eta desio duenari obrak eskaini. Besterik ezer ez*
- *Partekeria eta formalkeria gabeko kritika herrikoia. Zuzenbidezko promozio eta zabalkundea*
- *Politika on bat*



MADARIAGA, JUAN RAMON (Bilbo, 1962)

- *Imentzioaren pergamuak (1989)*
- *Galera errepikatuak (1992)*



MARKULETA, GERARDO (Oñati, 1963)

- *Larrosak, noizean behin (1990)*
- *Sagarraren hausterrea (1994)*

Idazlea laguntzeko bideak

Finantziazioari gagozkiola, mezenasgo esporadikoa deitu dugunaren modu bat izango lirateke sariak, bekak, lehiaketak.

Sarien inguruan gauza bat da segurua: miresle izan ala egur-emaile, alde ala kontra egon, sarietara norbere burua aurkeztu ala ez, sariek ez dute inor hotz uzten; eta beti da gertakari txiki (edo handi) bat sari-ematea.

Literatur sariketen inguruan literatura ugari dago. Bi modutara uler daitekc hau, eta bietara da egia. Sari literario ugari dago, eta denetara ehundaka obra mugitu dute, publikatuak batzuk.

Bigarren adiera bat ere badu goiko esaldiak. Alegia, asko idatzi dela literatur sariei buruz, edo lehiaketei buruz, berdin dio.

XIX. mendearen bigarren erdialdean prestatu ziren literatur lehiaketek-eta ez dakit garaiko idazlegoaren onarpenik bazuten ala ez. Ez dakit, ezta ere, garaiko idazleek nola ikusten zituzten 1920tik 1936ra bitartean antolatu ziren lehiaketak.

Pentsatzekoa da orduan ere kritikarik ez zela faltako. Zeren eta literatur sariketen aurka egotea unibertsala baita. Frantzian eta Espainian gai horren inguruan idazten dena irakurriz konturatzen da bat leku guztietan kritika-modu bera egin ohi dela, gainera.

Literatur sarien saltsa

Aro Garaikidea literatur sariak gaitzetsiz hasi zen. Honela zioen 1975eko Manifestuak: "Literatura bait da herriaren boza (...) Boza hau ixilerazten duten guztien aurka aurka aurka gaude: Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriaz idazleak ito ta zapuztu egiten dituztelako. Non ditugu presentatuko lanak? Noraino daude epaimahaikoak jantziak lanak juzgatzearren? Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema, bertso ta teatro lanak proposatzen ditugu".

Oh! Euzkadi-ren 0 zenbakian azaltzen denez, "sari literarioek ez dute inungo justifikaziorik". Tradizio horrek Susan jarraitu du gero. Mikel Antzak, Josu Landak eta gaitzizenez beste batzuk gogor salatu dute sistema eta praxia. Koldo Izagirrek jarrera ezaguna du: 1975eko manifestuaren sinatzailea izateaz gainera 1988an beste proklama bat luzatzen dio literaturgoari *Jakin*-en (*Literaturgintzarako politika. Literatur sariketak.* 1988). Bederatzi puntutan banatzen du bere pentsaera.

Batean eta bestean aiputan ibili ohi diren gaiak beti berdintsuak dira. Sari gehiegitxo dagoela, eta ez dagoela koordinaziorik gai-kontuan: genero batzuetan sari asko eta beste batzuetan gutxi, gutxiegi. Argitaratzearen inguruan bi arazo izan dira mintzagai: ez direla argitaratzen, edo promoziorik gabe eta berandu; eta horrez gain edo aparte, argitaratze-eskubideak zeinek eduki beharko lituzkeen. Epaimahaiaren gaiarekin ere makina bat orri bete da: preparazioaz eta jokamoldeaz iritzi negatibo ugari jaulki da urteotan.

Hori guzti hori bai, baina beste hau ere gertatu da aro garaikidean: sariketetara euskal idazleak aurkeztu egiten duela bere burua. Errealitate hori konstatatu eta gero, horregatik dio Karlos Linazasorok (1995): "Beraz, literatur lehiaketen kontra jartzea gezurrezkoa da. Zeren eta hemen mundu guztiak aurkeztu ditu lanak. Gaizki esaka aritzea ez zait bidezkoa iruditzen. Noski, sarien gaiarekin ez da euskal idazleen miseria konpontzen, hori baino gehiago behar da".

Karlos Linazasorok aipatzen duen alderdi ekonomiko hori badute literatur lehiaketek, sariek, bekek eta gisakoek. Hogei urteotan modu honetara idazleari zenbat lagundu izan zaion jakin nahi izan dugu, eta horren balorazio ekonomiko bat egin, baina ez naiz iritsi sari guztien dirukopurua jakitera. Sarien zerrenda ematen dugu, halere.

Literatur lehiaketen onura bitarikoa da: ekonomikoa eta ospea. Bitxia da idazleek zein gutxitan aipatzen duten alderdi ekonomikoa, ezpada txikiegia dela esateko. Aipatuz gain aupatu ospea egiten da. Baina, azken aldi honetan, joera amankomun bat somatzen da izen bat baduten idazle (saritu ohi) guztien artean: sariketak hasiberrientzat direla egokiak, diote. Eta literaturaren aitzinamendurako beste formula batzuk asmatu behar direla. Asmatu edo erabili. Adibidez: literatura kanporatzeko laguntzak, idazle "kontsagratuentzat" bekak.



MARTIN, EUKENE (Bilbo, 1948)

- *Lau sasoitako zipristinak (1985)*
- *Amets bizia (1986)*

Idazleen iritziak

Idazlea zeharka eta esporadikoki laguntzeko formula hauetaz (sari literarioa, literatur lehiaketa, beka) zer pentsatzen duen galdetu diogu idazleari.

Eta bere iritzia eskatzearekin batera bost aukera eskaini dizkiogu, lau zehaztuak eta bosgarrena libre, berak bere gustura ordena ditzan. Ehuneko berrogei batek ez du erantzun.

Hona erantzunak, maiztasuna eta garrantziaren arabera ponderaturik:

LITERATUR SARIAK

NARRATIBA

URTEA	IZENA	ABIZENAK	IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1977	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Oilarraren promesa	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1978	Augustin	ZUBIKARAI	Bale denborak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1980	Juan Jose	IRAZUSTA	Nork bere bidea	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1981	Ramon	SAIZARBITORIA	Ene Jesus	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1982	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Poliedroaren hostoak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1982	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Udaberria	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministeritza
1983	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Hamaseigarrenean aidanez	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1983	Jose Andres	SAGASTIZABAL ERRAZU	Jolasean	Cafe Iruña	Cafe Iruña
1983	Juan Esteban	URKIXO BEITIA	Dragoia eta Laberintoa		Eusko Jaurlaritza
1984	Xabier	KINTANA	Jerusalemen gertatua	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1985	Bernardo	ATXAGA	Bi anai	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1986	Joseba	SARRIONANDIA	Atabala eta euria	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1987	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Udazkenaren balkoitik	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1988	Jose	IRAZU GARMENDIA	Obabakoak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1989	Joan Mari	IRIGOIEN	Babilonia	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1990	Felipe	JUARISTI	Arinago duk haizea, Absalon	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1991	Jose	IRAZU GARMENDIA	Obabakoak	Zilarrezko Euskadi Saria	Central Hispano
1991	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Kapitain Frakasa	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1992	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Hamalau	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1993	Bernardo	ATXAGA	Gizona bere bakardadean	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1994	Jose	IRAZU GARMENDIA	Gizona bere bakardadean	Zilarrezko Euskadi Saria	Central Hispano
1994	Inazio	MUJIKA	Hautsaren kronika	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa

ELEBERRIA

URTEA	IZENA	ABIZENAK	IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1954	Jose Antonio	LOIDI BIZKARRONDO	Amabost egun Urgainen*	Literatur Saria	Euskaltzaindia
1958	Jose Luis	ALVAREZ ENPARANTZA	Peru Leartzako*	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1958	Eusebio	ERKIAGA	Araibar Zalduna	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1958	X.X.	X.X.	Ithurraldea*	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1961	Eusebio	ERKIAGA	Batetik bestera	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1962	Jon	ETXAIDE	Gorrotoa lege	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1964	Txomin	PEILLEN	Gauaz ibiltzen dana	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1966	Txomin	PEILLEN	Itzal herrian	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1968	Jose Luis	ALVAREZ ENPARANTZA	Elsa Scheelen	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1972	Jose Mari	SATRUSTEGI ZUBELDIA	Ekaitza	Iruña	
1972	Mikel	ZARATE	Haurgintza minetan	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1973	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Ajea du urturik	Pluma de Oro	
1975	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Goiko Kale		Euskaltzaindia
1976	Jon	MIRANDE	Haur besoetakoa	Andima Ibiñagabeitia	Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea
1977	Gotzon	GARATE GOIHARTZUN	Esku Leuna	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1977	Gotzon	GARATE GOIHARTZUN	Elizondoko eskutitzak	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1978	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Abuztuaren 15eko bazkalondoa	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1979	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Abuztuaren 15eko bazkalondoa	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1979	Augustin	ZUBIKARAI BEDIALAUNETA	Anton Guzurretxe	Txomin Agirre	Euskaltzaindia

1980	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Poliedroaren hostoak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1981	Gotzon	GARATE GOIHARTZUN	Izurri Berria	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1983	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Hamaseigarrenean aidanez	Jon Mirande	Eusko Jaurlaritza
1983	Mario	ONAINDIA	Gilen Garateako Batxilerra	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Zigarrokin ziztrin baten azken keak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1985	Xabier	LOPEZ DE GUEREÑO ARRARTE	Konspiratzaileak	Irun HiriA	Gipuzkoako Kutxa
1985	Laura	MINTEGI LAKARRA	Bai baina ez	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1986	Joxean	AGIRRE ODRIOZOLA	Lehen triptikoa	Durangoko Lore Jaiak	
1986	Xipri	ARBELBIDE MENDIBURU	Piarres Topet Etxahun	Kafe Iruña	Iruña Kafetegia
1986	Xipri	ARBELBIDE MENDIBURU	Gerlako tresna bizidunak	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1986	Iñaki	BERNAOLA LEJARZA	Bonga	Manuel Iradier	Arabako Foru Aldundia
1986	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Babilonia	Jon Mirande	Eusko Jaurlaritza
1987	Eñaut	ETXAMENDI GEZAINBURU	Gilentegiko Gilen	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1988	Iñaki	BERNAOLA LEJARZA	Zugarramurdiko Kontesa	Kafe Iruña	Iruña Kafetegia
1989	Jose	IRAZU GARMENDIA	Obabakoak	Euskadi Saria	Eusko Jaurlaritza
1989	Joxemari	ITURRALDE URIA	Izua hemen		Bizkaiko Diputazioa
1989	Iñaki	MENDIGUREN	Haltzak badu bihotzik	Kafe Iruña	Iruña Kafetegia
1989	Txomin	PEILLEN	Kristina Bolsward	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1989	Martin	UGALDE	Itzulera baten historia	Jon Mirande	Eusko Jaurlaritza
1990	Joxean	AGIRRE ODRIOZOLA	Gizon bat bilutsik pasiloan barrena*	Kafe Iruña	Care Iruña Bilbokoa
1990	Iñaki	BERNAOLA LEJARZA	Hamabost urteko naufragoa*	Jon Mirande	Eusko Jaurlaritza
1990	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Babilonia	Euskadi Saria	Eusko Jaurlaritza
1991	Juan Mari	ATUTXA EGIRAUN	Hudoak Eguzkiloretzan	Bizkaiko Aldundiaren Liter.r Sarik.	Bizkaiko Foru Aldundia
1991	Aingeru	EPALZA	Ur uherrak	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1991	Jean	IRIGARAI	Amazonen deia: I. Pedro Ursua	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1991	Mikel	MINTEGI	Udazkena (Urtearen lehena eta azkena)		Irun Hiria - Gipuzkoako Kutxa
1992	Luis Mari	MUJIKA URDANGARIN	Loitsu herrian, uda partean	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1993	Daniel	LANDART	Batita haundia	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1993	Martin	UGALDE	Pedrotxo	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1994	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Bekatuaren itzala	Txomin Agirre	Euskaltzaindia
1995	Jose Antonio	AGIRRE ODRIOZOLA	Elgeta	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1995	Luis Mari	MUJIKA	Hiru egun Larburun	Txomin Agirre	Euskaltzaindia

IPUINA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
	Joseba	SARRIONANDIA URIBELARREA	Enperadore Eroa	Bilbo Hiria	Bilboko Aurrezki Kutxa
1967	Anastasio	ALBISU AIERDI	Ez da putza gero, Jauna	Kirikiño Ipui Sariketa	
1968	Sabino	ALONSO ARIÑO	Txominen nekaldiak	Gernika	Euskaltzaindia
1968	Jose Mª	ETXABURU	Maitasunaren arantzak*	Gernika	Euskaltzaindia
1968	Juan Antonio	LETAMENDIA	Joxe Proletario	Kirikiño	Euskaltzaindia
1968	Manuel	ZIARSOLO	Aretxa, ezkurraren semea*	Gernika	Euskaltzaindia
1973	Iñaki./ Fran.	ZUBIZARRETA / SAGARZAZU	Ja zaharra, ja zaharraren semea,...	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1974	Jose Antonio	MUJIKA	Ez du balio	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1975	Fernando	ARTOLA SAGARZAZU	Aitona Tupiki	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1975	Luis	HARANBURU ALTUNA	Gizagai	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1975	Luis	HARANBURU ALTUNA	Sugaar	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1976	Arrate	IBARGUTXI	Kapela	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1976	Jose M.	VELEZ DE MENDIZABAL	Epaia	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1976	Iñaki	ZUBELDIA OTEGI	Unai Agintaria	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1977	Gotzon	GARATE GOIHARTZUN	Oroitzapenetan	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1979	Gotzon	GARATE GOIHARTZUN	Lehortean	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1980	Bernardo	ATXAGA	Drink Dr. Pepper	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1980	Federiko	KRUTWIG	Zurrumud*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1980	Joseba	SARRIONANDIA URIBELARREA	Maggie Indazu kamamila	Ignacio Aldekoa	Diputación Foral de Alava

1980	Angel	ZELAIETA	Ean*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Mikel	HERNANDEZ	Gurutzegramak egiten zituen gizona	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Iñaki	INURRIETA LABAIEN	Hatsaren gainean*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Jose	IRAZU GARMENDIA	Camilo Lizardi erretore jaunaren...	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Iñaki	ZUBELDIA	Zodiakoaren munduan galdua*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Pedro Javier	ALBERDI	Egiaz oso Begi biziak ditut*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Mikel	ALBISU IRIARTE	Susko gezi bat bezala	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Nerea	AZURMENDI	Aitonaren Baratzara noa*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Mendizale Zaharra*	Bizenta Mogel	Azkoitiko Udala
1982	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Arrozalore Zuria*	Bizenta Mogel	Azkoitiko Udala
1982	Josu	LANDA	Tiro bat besterik ez	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Mikel	HERNANDEZ	Trapezioko bi artista*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Jose	IRAZU GARMENDIA	Gauero aterako nintzateke...	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Jose	IRAZU GARMENDIA	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1983	Laura	MINTEGI LAKARRA	Satorzuloa	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Iñaki	UGARTEBURU CASTAÑARES	Ipui egileari pertsonaiak asaldatu	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Iñaki	URIA	Bitan banatuko bagina bezala*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Jokin	ANSORENA	Jeneralak atabala ahaztu*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Iñigo	ARANBERRI	Ikatzezko koadroa*	Tene Mujika	Debako Udala
1984	Xabier	ETXANIZ ERLE	Hiru minutu soilik	Gasteiz Hiria	Gasteizko Udala
1984	Mariasun	LANDA	Nire eskua zurean*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Anjel	LERTXUNDI ESNAL	Lotara joateko ipuinak	Andersen	
1984	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Gutxi falta denean*	Tene Mujika	Debako Udala
1984	Jose Antonio	MUJIKA CASARES	Herabearen ihesa	Kirikiño Saria	Eusko Jaurlaritza
1984	Martín	UGALDE	Mugarri galduen itsumundua	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Ene lagun zaharrari azken gutuna	Tene Mujika	Debako Udala
1985	Pako	ARISTI URTUZAGA	Lusmore*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Mª Carmen	BIDEZABAL ARRUTI	Soldaduskara joan behar eta...*	Tene Mujika	Debako Udala
1985	Seve; Xabier	CALLEJA; MONASTERIO	Dado iratxoa eta nire hatzak	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1985	Jesus Mª	ETXEZARRETA	Amildegiak ez du amairik*	Tene Mujika	Debako Udala
1985	Joxerra	GARZIA	Demetrio edo mendekuaren gozoa	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Joxerra	GARZIA GARMENDIA	Harresia	Tene Mujika	Debako Udala
1985	Jesus Mari	MENDIZABAL IRAOLA	Apextegitik gotti	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Inazio	MUJIKA	Azukre bila*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Martin	UGALDE	Erregeetako izpiritu beltzarana	Ignacio Aldekoa	Arabako Foru Aldundia
1985	Martin	UGALDE	Mantal Urdina	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Iñaki	ZABALETA URKIOLA	Carolyn, dantzaria	Ignacio Aldekoa	Arabako Foru Aldundia
1986	Iñaki	ANTIGUEDAD AUZMENDI	Hara*	Durangoko Saria	
1986	Sergio	BASURKO	Aparra Begietan	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	José Ramón	BELOKI ZAPIRAIN	Baina zein ez zaio esperantzaren...	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	Pio	BERASATEGI	Amona on Maria	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	Iñaki	BERNAOLA	Bakartia*	Tene Mujika	Debako Udala
1986	Juan Martin	ELEXPURU	Karrerista baten hasierak*	Tene Mujika	Debako Udala
1986	Jose Antonio	GEZALAGA "ZALDUBI"	Himatxalan Xaloaren ipuina	Tene Mujika	Debako Udala
1986	Mariasun	LANDA	Etorri behar duena*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	Xabier	MENDIGUREN	Un petit cadeau pour madame*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	Jesus Mari	OLAIZOLA LAZKANO "TXILIKU"	Zazpi gelako hodeietako etxea	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1987	Juan Martin	ELEXPURU ARREGI	Lasai Joan Antonio, lasai	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1987	Juan Martin	ELEXPURU ARREGI	Bi begi eder horiek	Tene Mujika	Debako Udala
1987	Juan	GARZIA GARMENDIA	Pernixio	Ignacio Aldekoa	Diputación Foral de Alava
1987	Miguel A.	MINTEGI	Haritz Zaharra	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1987	Inazio	MUJIKA IRAOLA	Begiak zabalik*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1987	Manuel	UNANUE	Kopina*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1987	Jokin	URAIN	Zure esku hotzak*	Tene Mujika	Debako Udala
1987	Karlos	ZABALA OIARZABAL	Pistolari baten azken eguna*	Tene Mujika	Debako Udala
1988	Karlos	ANTRUEJO	Primahaitu	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1988	Pako	ARISTI URTUZAGA	Chopin Opus 37	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1988	Alvaro	BERMEJO	Egunsentirantz	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa

1988	Koldo	ETXABE IZTUETA	Basurdeak eta babarrunak...*	Tene Mujika	Debako Udala
1988	Txelu	LEKANDA ALKORTA	Hilargi betea*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1988	Karlos	LINAZASORO	Tipo berezi hura afusilatu...*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1988	Karlos	LINAZASORO	Dositeo nire semeorde kuttunari...*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1988	Xabier	OLARRA LIZASO	Asteazkenez amaitu zen astea*	Tene Mujika	Debako Udala
1988	Javier	ONDARTZA	Landakoa*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1988	Juan Antonio	URDANGARIN	...ez al zara zu, tximeleta, ...*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1988	Imanol	ZURUTUZA	Haizeak iparlaino beltzak...	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Iñaki	ALDEKOA BEITIA	Begirada galduen nostalgia	Ignacio Aldekoa	Diputación Foral de Alava
1989	Juan Maria	ATUTXA EGUIRAUN	Hitzez eta irudimenez	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1989	Koldo	BIGURI	Ezpataz hiltzen nauena*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Daniel	CARBALLO	Mugagabeko amodioa	Zumaiarren Saira	Zumaiako Udala
1989	Andoni	EGAÑA MAKAZAGA	Hil kanpaiak	Tene Mujika	Debako Udala
1989	María	GARIKANO	Non da andre alta hura*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Emilio	GUTIERREZ ARENZANA	Erramus, itzalik gabeko mutikoa*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1989	Arantxa	ITURBE MAIZ	Riiiiiiiiiiiiiiiing	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1989	Patxi	ITURREGI	Hobe ez gogoratzea	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Edorta	JIMENEZ ORMAETXEA	Sugaar	Gabriel Aresti	Bilboko Udala
1989	Xabier	MENDIGUREN	Larrutik*	Tene Mujika	Debako Udala
1989	Omar	NABARRO "Edorta Jimenez"	Geu gagoz testigu*	Tene Mujika	Debako Udala
1989	Jose Mª	URTEAGA	Euria hitzak ez du bustitzen*	Tene Mujika	Debako Udala
1989	Xabin	ZABALA ARRIAGA	Zubiaren beste aldean	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Gabon gaua*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1990	Aitor	ARANA LUZURIAGA	Afrikako semea	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1990	Begoña	BILBAO ALBONIGA	Isuritako ura ez da batzen	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1990	Joxe Manuel	BUJANDA ARIZMENDI	Savo edo aintzinako irudimenaren ...*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1990	Jose Manuel	ERZILLA	Arriaga quartettoa*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1990	Pello	ESNAL	Zazpi kolore ditu ostadarrak	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1990	Hasier	ETXEBERRIA CANALES	Lau usoen hiltokian	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1990	Patxi	EZKIAGA	Bularretako haurra	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1990	Luis	FERNANDEZ	Dena oker zebileneko egun haietan*	Tene Mujika	Debako Udala
1990	Txelu	LEKANDA	Terreatzailea	Tene Mujika	Debako Udala
1990	Karlos	LINAZASORO	Izeba irisenda*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1990	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Zopernaren astindua*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1990	Inazio	MUJIKA IRAOLA	Tu Quoque	Ignacio Aldekoa	Arabako Foru Aldundia
1990	Edorta	Jimenez "Omar Navarro"	Marioren begia*	Tene Mujika	Debako Udala
1991	Pedro	ALBERDI	Handitzen naizenean	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Iñigo	ARANBURU	Nathan Dudley-en itsasoak*	Tene Mujika	Debako Udala
1991	Iñigo	ARANBURU	Herri zuria	Tene Mujika	Debako Udala
1991	Jexux	ARTETXE	Jaungoikoak sotana bidali zida*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Juan Mari	ATUTXA EGIRAUN	Oilarretxetarraren Kukurrukua	Ignacio Aldekoa	Arabako Foru Aldundia
1991	Iñaki	BERNAOLA LEJARZA	Goi eta behe eskatologiak...*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1991	Abel	ENBEITA EALO	Zigarrokin gorria	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1991	Juan	GARZIA GARMENDIA	Gabonak Gubbion	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Edorta	JIMENEZ ORMAETXEA	Hemen datzana da	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1991	Felipe	JUARISTI	Fata Morgana*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Hasarrea berbalduna baita	Lasarte-Oria	Lasarte-Oriako Udala
1991	Gonzalo	MARTINEZ AZKUENAGA	Tertangarantz*	Tene Mujika	Debako Udala
1991	Javier	ONDARTZA	Saturraran*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1991	Jose Mª	URTEAGA GARMENDIA	Oroimenez (eta amorruz)*	Tene Mujika	Debako Udala
1992	Jon	ANDUEZA	Kostaldean, Absaloneko harriska...	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1992	Ane Miren	AZKUE	Itsasoan kulunkan	Zumaiarren Saira	Zumaiako Udala
1992	Iñaki	BERNAOLA LERJARZA	Colette Villepreux	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1992	Harkaitz	CANO	Heriotzaren atetik	Gipuzkoako Diputazioko Saria	Gipuzkoako Diputazioa
1992	Hasier	ETXEBERRIA	Aukera profesionala*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1992	Joseba	GABILONDO	Madril, New York, Tokyo	Ignacio Aldekoa	Arabako Foru Aldundia
1992	Joseba	GABILONDO ALBERDI	Ez naiz sekula Abenidan geratu*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1992	Marta	IBAÑEZ MENDIKUTE	Cleopatrak aurpegia Nilo ibaiko...*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa

1992	Patxi	ITURREGI	*Hondarreko distira ahantzi hura*	*Tene Mujika*	Debako Udala
1992	Felipe	JUARISTI GALDOS	Tristuraren teoria	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1992	Inazio	MUJIKA IRAOLA	Itoak ur azalera bezala	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1992	Luis Mari	MUJIKA URDANGARIN	Abuztuaren hamabosteko trena	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1992	Ana	URKIZA	Uztaileko Euritan*	Tene Mujika	Debako Udala
1992	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Begi berrien bila*	Tene Mujika	Debako Udala
1992	Pello Martin	ZABALETA	Pandoraren kutxa hutsik zegoen*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1993	Patxi	AIZPURUA GARAIALDE	Maitasunaren errautsak	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1993	Jon	ANDUEZA	Gringotenango	Gabriel Aresti	Bilboko Udala
1993	Josemari	AZURMENDI	Joseren historia	Tene Mujika	Debako Udala
1993	Joxe	BELMONTE F. DE LARRINOA	Leiho hautsia	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1993	Arantza	DIAZ URBIETA	Karta bat idatziko dut norbaitek...*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1993	Rufino	IRAOLA	Dena dago zatitxo baten baitan	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1993	Eva	LINAZASORO	Boulose espedizioa*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1993	Karlos	LINAZASORO IZAGIRRE	Efren Beraun. Gainbehera baten...*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1993	Agustin	MIGELTORENA	Tximeleta bazina...*	Tene Mujika	Debako Udala
1993	Ana Isabel	MORENO (edo Morales?)	Mesedez, ez pasa larrosa artean	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1993	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Sakoneta*	Tene Mujika	Debako Udala
1993	Patxi	ZUBIZARRETA	Bihar ez diot amari hutsik egingo*	Tene Mujika	Debako Udala
1994	Jon	ALONSO FOURCADE	Zu lehenago	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1994	Harkaitz	CANO	Eskorgak bete Izotz	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Harkaitz	CANO JAUREGI	Hondarraren kontabilidadea*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Peio	ESNAL ORMAETXEA	Larru ikara	Tene Mujika	Debako Udala
1994	Patxi	ITURREGI ESCONDRILLAS	Itsasoetako anaiartea*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1994	Felipe	JUARISTI	Bost bidaiari*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1994	Karlos	LINAZASORO	Cuentos de la Araucaria	Ignacio Aldekoa	Diputación Foral de Alava
1994	Joxeba	OSSA ALTZIBAR	Nora hoa, Kixote Mantxakoa	Zumaiarren Saira	Zumaiako Udala
1994	Jose Enrique	URRUTIA CAPO	Sara-ko eretorgoa baitan	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1994	Jose Mª	URTEAGA GARMENDIA	Barruruntz atera ginen*	Tene Mujika	Debako Udala
1994	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Argazkitik kanpo*	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Patxi	ZUBIZARRETA DORRONSORO	Anodiozko zorabioa*	Tene Mujika	Debako Udala
1995	Imanol	AZKUE IBARBIA	Galdua pena	Zumaiarren Saira	Zumaiako Udala
1995	Edorta	GIMENEZ	Akitaniatik datorren berba berria	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1995	Galder	GUENAGA GARAI	Roberto eta Juana*	Tene Mujika	Debako Udala
1995	Antton	LUKU	Sarez*	Tene Mujika	Debako Udala
1995	Xabier	MENDIGUREN BEREZIARTU	Pepinen itzulera	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1995	Jesus Mari	OLAIZOLA LAZKANO	Etxerako bidea	Tene Mujika	Debako Udala
1995	Mikel	OLANO	Bizkarrik ez dudan emakumea	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1995	Aimar	ORBE MATEO	Kondaira*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1995	Iñaki	PEREZ-ARMENDIA	Lo dago, Mesié*	Julene Azpeitia	Zumaiako Udala
1995	Jose Enrique	URRUTIA CAPO	Izar beltzaren urtea*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1996	Koldo	BIGURI OTXOA DE ERIBE	Eguzkia ezkutatzen denean	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1996	Luis	FERNANDEZ OSTOLAZA	Kontaktua	Tene Mujika	Debako Udala
1996	Mikel	OLANO	Puzzlea*	Tene Mujika	Debako Udala
1996	Iñaki	PEREZ ARMENDIA	Saguaro artean*	Tene Mujika	Debako Udala

OLERKIA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1959	Gabriel	ARESTI	Maldan behera	Loramendi	Euskaltzaindia
1961		ORIXE	Lau urtaroak nere begietan	Lizardi	Euskaltzaindia
1962	Gabriel	ARESTI	Harri eta herri	Orixe	Euskaltzaindia
1962	Antonio	BILBAO	Irribarre ta lore	Lizardi	Euskaltzaindia
1963	J.M.	ARANALDE	Jainko aurpegia gurean*	Orixe zenaren Omenez	
1963	Gabriel	ARESTI	Harri ta Herri	Orixe zenaren Omenez	

1964	Antonio	BILBAO	Loraen zugatza	Lizardi	Euskaltzaindia
1965	Gabriel	ARESTI	Euskal-harria	Lizardi	Euskaltzaindia
1965	Paulo	IZTUETA	Mailuaz		Donostiako Atracción y Turismo
1966	Ibon	SARASOLA	Ez bat, ez bi, ez...	Lizardi	Euskaltzaindia
1969	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Egilearen Egarri	Iruñeko Lore Jokoak	
1970	Ignacio M.	GOICOECHEA	Gauean oihu	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1971	Juan Ignacio	GOICOECHEA OLAONDO	Biziaren erroetan	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1972	Martín	ITURBE BALDA	Bizitzako Urratsetan	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1973	Bitoriano	GANDIAGA	Txakolinaren 2. ospatze	Eusebio Maria Azkue	Euskaltzaindia
1973	Martín	ITURBE BALDA	Asekaitz	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1973	Xabier	AZURMENDI	Maiteño	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1973	Xabier	LETE	Hitz neurtuetan*	Eusebio Mari Azkue	Euskaltzaindia
1973	Arantza	URRETABIZKAIA	Malko baten magalean*	Eusebio Maria Azkue	Euskaltzaindia
1974	Joan Mari	IRIGOIEN ARANBERRI	Hutsatik esperantzara	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1976	Mikel	ZARATE LEJARRAGA	Higidura berdez	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1977	José Angel	IRIGARAY	Kondairaren Ihauterian	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1977	Luis Mari	MUJIKA URDANGARIN	Hitzak ebakitzean	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1978	Manu	ERTZILLA	Hitzik anitz idatzi dut	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1978	Paulo	IZTUETA	Herbestetan	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1979	Bernardo	ATXAGA	Etiopia	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1979	Pello	MARTIN ZABALETA	Zurubi luzea	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1980	Tere	IRASTORZA	Gabeziak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1980	Alfonso	IRIGOIEN	Orbel eta orri	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1980	Xabier	LETE	Urrats desbideratuak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Jean Louis	DAVANT	Denboraren Aroak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1981	Joseba	SARRIONANDIA	Izuen gordelekuetan barrena	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1981	Joseba	SARRIONANDIA URIBELARREA	Izuen gordelekuetan barrena	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1981	Arantxa	URRETABIZKAIA BEJARANO	Maitasunaren magalean	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Jose Ignacio	ANSORENA	Emeki itxaropendutako egunkaria	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1982	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Arrotzarena. Neurtiz neurgabeak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1982	Tere	IRASTORZA	Hostoak. Gaia eta Gau-aldaketak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1982	Martin	ITURBE	Egiaren ezpata	«El Sitio» Elkarteko Literatur Sariak	
1982	Arantxa	URRETABIZKAIA BEJARANO	Maitasunaren magalean	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1983	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Arrotzarena / Neurtitz neurgabeak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1983	Juan Kruz	IGERABIDE SARASOLA	Notre-Dameko oihartzunak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1983	Luis Mari	MUJIKA URDANGARIN	Aire neurtuak	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1983	Patrizio	URKIZU SARASUA	Zeren azken finean	Irun Hiria	Gipuzkoako Saria
1984	Luis	BARAIAZARRA TXERTUDI	Bakardadeko bertso ezpalak	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1984	Jon	CASENAVE	Ordu alferren segida	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1984	Patxi	EZKIAGA LASA	Beldur naiz	Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1984	Patxi	PERURENA LOIARTE	Joanes d'Iraolaren poema bilduma	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Patrizio	URKIZU SARASUA	Zeren azken finean	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1985	Jean Louis	DAVANT	Nahi gabe	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1985	Patxi	EZKIAGA LASA	Aiodi Herriko Kantak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Patxi	EZKIAGA LASA	Armaggedon	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1985	Edorta	JIMENEZ ORMAETXEA	Egutegi esperimentala	Bergamin	Egin
1985	Edorta	JIMENEZ ORMAETXEA	Gauak zulatzen duten ahusietan	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1985	Felipe	JUARISTI	Denbora, nostalgia	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1986	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Bertso-paper printzatuak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1986	Luis	BERRIZBEITIA	Zoperna Jenerala	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1986	Patxi	EZKIAGA LASA	Fadura	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1986	Felix	ZUBIAGA	Zure argi kliskak	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1987	Patxi	EZKIAGA LASA	Ispiluaren isladaketa	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1987	Patxi	EZKIAGA LASA	Keiko eta beste udazkenak	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1987	Edorta	JIMENEZ ORMAETXEA	Odoleko Eskifaia	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1987	Felipe	JUARISTI	Hiriaren melankolia	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1987	Maria Jose	KEREJETA SARRIEGI	Ezezagun baten kuadernoa	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1988	Arantza	ALDALUR AGERRISTA	Hainbat gau izarrik gabe!	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia

1988	Patxi	EZKIAGA	Keiko eta beste udazkenak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1988	Eduardo	GIL BERA	Hortus Botanicus	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1988	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Negar egiteko katilu handia*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1988	Pedro Martin	ZABALETA KORTABERRIA	Seroaren memoria	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1989	Gotzon	EGAÑA MITXELENA	Olatuetan errotuta*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1989	Eduardo	GIL BERA	Strasbourgeko ordularia	R.M. Azkue	Bilboko Aurrezki Kutxa
1989	M. Isabel	GUEZURAGA FULDAIN	Koba erakargarrien bidean	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1989	Imanol	IRIGOIEN ARANBERRI	Argiaren barne distantziak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1989	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Larrosak, noizean behin	Arrasate	
1990	Guillermo	ETXEBERRIA UGALDE	Aire leun bat*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1990	Joserra	GARZIA GARMENDIA	Zotal egunak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1990	Juan Mari	LEKUONA BERASATEGI	Mimodramak eta ikonoak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1990	Karlos	LINAZASORO IZAGIRRE	Desterruko erromes	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1990	Javier	ROJO COBOS	Arrodaren gunea	Poesia Saria	Bizkaiko Foru Aldundia
1991	Arantzazu	ETXEBURUA GARCIA	Hitz, Hits. Pareretzko mihisetan lits	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Joxerra	GARZIA	Zotal egunak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1991	Xabier	LETE	Zentzu antzaldatuen poemategia	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1991	Juan Ramon	MADARIAGA ABAITUA	Elabien ausardia	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1991	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Sagarraren hausterrea	Lasarte-Oria	Lasarte-Oriako Udala
1992	A. Manuel	AHEDO SANTISTEBAN	Belar gaineko abesti bero eta...*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1992	Harkaitz	CANO	Ezerezetik ilargira	Gipuzkoako Diputazioko Saria	Gipuzkoako Diputazioa
1992	Harkaitz	CANO JAUREGI	Bazterrak desloratzen	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1992	Patxi	EZKIAGA LASA	Komediaren jainkoa	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1992	Amaia	ITURBIDE	Itzulbidea	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1992	Karlos	LINAZASORO	Apunte eta ahanzturak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1992	Joseba Andoni	URIZAR IRAZABAL	Girovago*	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1993	Rikardo	ARREGI DIAZ DE HEREDIA	Hari hauskorrak	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1993	Harkaitz	CANO JAUREGI	Denborak aldatzen digu azala, ...*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1993	Luis	DE ISUSI GARCIA	Izenburuaren heriotza	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1993	Juan Carlos	LOPEZ-MUGARTZA	Garraren eta karroiaren margoak	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1993	Karlos	ZABALA OIARZABAL	Mende akabera	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Joakin	BALENTZIA TIRAPU	Amaigabeko zikloa	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Junes	CASENAVE HARIGILE	Oihanealat*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1994	Juan Kruz	IGERABIDE	Sarean leiho	Kritika Saria	Espainiako Kultura Ministerioa
1994	Amaia	ITURBIDE MENDINUETA	Gelak eta Zelaiak	Lizardi	Eusko Jaurlaritza
1994	Iñaki	ODRIOZOLA SUSTAETA	Hausnarketa hezeak	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1995	Joxe Austin	ARRIETA UGARTETXEA	Graffitien ganbara	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1995	Jose Felix	AZKONA GARTZIA	Artius	Felipe Arrese Beitia	Euskaltzaindia
1995	Eduardo	GIL BERA	Fundazioa*	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano
1995	Juanjo	OLASAGARRE MENDINUETA	Bizilegearen legeak	Imajina ezazu Euskadi	Central Hispano

HAUR ETA GAZTE-LITERATURA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1982	Mariasun	LANDA ETXEBESTE	Txan fantasmaren etengabeko...	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1984	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Harriren jaiotze berria	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1984	Patxi	ZUBIZARRETA	Sentipentsalaipenak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1985	Joxerra	GARZIA	Malen laberinto madarikatuan	Baporea	Fundación Santa María
1985	Karlos	LINAZASORO	Joanesen ibilerak*	Baporea	Fundación Santa Maria
1986	Aitor	ARANA LUZURIAGA	Azkonarren laguna	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1986	Joxe	ERZIBENGOA OTAEGI	Hiru erregeen mahaia*	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1986	Xabier	MUJIKA	Lagun bat eta bi lagun*	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1987	Hasier	ETXEBERRIA CANALES	Estatua baten historia*	Bilintx	Bilintx Liburudenda

1987	Joxerra	GARZIA	Martinen ibilera harrigarriak edo...*	Baporea	Fundación Santa María
1987	Mariasun	LANDA ETXEBESTE	Errusika*	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1987	Jesus Mari	MENDIZABAL IRAOLA	Zelina	Bilintx	Bilintx Liburdenda
1987	Xanti	URRUTIA	Lurpeko idoloa	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1988	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Montse Txikiren azio handiak	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1989	Aitor	ARANA LUZURIAGA	Loaren bidez	Baporea	Fundación Santa María
1989	Pello	ESNAL	Malkos	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1989	Xabier	MUJIKA	Haurrak nagusi*	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1989	Amaia	ORMAETXEA	Erinias taberna*	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1990	Pello	ESNAL	Nabukodonosor	Bilintx	Bilintx Liburutegia
1990	Koldo	IZAGIRRE	Metxa esaten dioten agirretar...	Bilintx	Bilintx Liburudenda
1991	Yolanda	ARRIETA MALAXETXEBARRIA	Begigorritarren Erlojua	Baporea	Fundación Santa María
1991	Mariasun	LANDA ETXEBESTE	Alex	Euskadi Saria	Eusko Jaurlaritza
1991	Pello Martin	ZABALETA	Txorimaloarenak*	Baporea	Fundación Santa María
1991	Patxi	ZUBIZARRETA	Matias Ploff-en erabakiak	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1993	Francisco Javier	CILLERO GOIRIASTUENA	Eddy Mercx-en gurpila	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1993	Juan	GARZIA GARMENDIA	Sudur puntan mundua	Antonio Maria Labaien	Tolosako Udala
1993	Patxi	ZUBIZARRETA	1948ko Uda	Bapore	Fundación Santa María
1994	Gerardo	MARKULETA GUTIERREZ	Asier eta egia gurutzatuen liburua	Lizardi Saria	Zarauzko Udala
1994	Patxi	ZUBIZARRETA	Eztia eta ozpina	Antonio Mª Labaien	Tolosako Udala

ANTZERKIA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1954	Anastasio	ALBISU AIERDI	Guztiz garbia	Zarauzko lehiaketa	
1959	Eusebio	ERKIAGA	Kanpaien atzekabez	Loramendi	Euskaltzaindia
1961	Gabriel	ARESTI	Mugaldeko herrian eginikako tobera	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1963	Augustin	ZUBIKARAI	Iru alaba	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1965	Jacinto	CARRASQUEDO	Loratzen sua	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1967	Augustin	ZUBIKARAI	Gizon on eta andre erre	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1969	Augustin	ZUBIKARAI	Mendu zaharrak	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1970	Lourdes	IRIONDO	Martin arotza eta Jaun deabrua	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1970	Estanislao	URRUZOLA	Iñakitxoren altxorra	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1974	Luis	HARANBURU ALTUNA	Gernika	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1976	Xefe	BALERDI	Urrutiko intxaurrak	Bitor Garitaonandia	Euskaltzaindia
1980	Jose Antonio	ARKOTXA MARTIJA	Joxe-maritarrak	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1980	Junes	CASENAVE	Pette basaburu*	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1980	Juan Esteban	URKIXO BEITIA	Eta beharbada ispilu beltz bat*	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1982	Marijane	MINABERRY	Haur antzerki	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1983	Augustin	ZUBIKARAI BEDIALAUNETA	Mendi eta itxaso	Markinako Euskal Jaiak	
1984	Eukene; Xabier	MARTIN; ZORROZA	Andre zuria	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1985	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Idazlearen herioa	Iñaki Begiristain	Alegiako Udala
1986	Jean Louis	DAVANT	Abadia Urrüstoi, trajeria*	Durangoko Euskal Jaiak	
1986	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Urkiola	Durangoko Euskal Festak	
1986	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Publikoari gorroto	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1987	Augustin	ZUBIKARAI BEDIALAUNETA	Arteako Itsua ta beste lau	Bizkai Aldundiko Saria	Bizkaiko Foru Aldundia
1988	Xabier	MENDIGUREN	Pernando, bizirik hago oraindio	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1989	Imanol	ELIAS ODRIOZOLA	Bat, Bi, Hiru	Azpeitiko Euskal Antzerti Topaketak	
1991	Yolanda	ARRIETA MALAXETXEBARRIA	Badago ala ez dago...?	Pedro Ignacio Barrutia	Eusko Jaurlaritza
1991	Luis	HARANBURU	St. Cyran, Jainkoa gorderik	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1992	Junes	CASENAVE	Agota (pastorala)	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1992	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Garai(a) da Euskadi	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Ramon	AGIRRE LASARTE	Errenta	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa

1994	Xabier	MENDIGUREN	Hilerri itxia	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1995	Aitzpea	GOENAGA	Zu(t) gabe	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1995	Juanjo	OLASAGARRE MENDINUETA	Hegazti errariak	Toribio Altzaga	Euskaltzaindia
1996	Antton "Eskola"	LUKU	Tu quoque fili	Donostia Hiria	Gipuzkoako Kutxa

SAIAKERA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1959	Luis	JAUREGI	Loramendi eta bere garaiko...	Loramendi	Euskaltzaindia
1968	Gaizka	BARANDIARAN	Zugaitz gurgarriek Ixrael-en*	Gernika	Euskaltzaindia
1968	Iñigo	URROZ DE HEREDIA	Euskaldun ospetsu batzuen...	Gernika	Euskaltzaindia
1971	Ibon	SARASOLA	Euskal literaturaren historia	Literaturari buruzko Saiakera	Euskaltzaindia
1976	Joxe	AZURMENDI	Espainolak eta euskaldunak	Andima Ibiñagabeitia	Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea
1977	Joxe	AZURMENDI OTAEGI	Mirande eta Kristautasuna	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1980	Juan José	URANGA UNANUE	Nazaret-eko gizasemearen Mintzoa	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1981	Jon	KORTAZAR URIARTE	Mikel Zarateren prosa	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1982	Xipri	ARBELBIDE MENDIBURU	Afrikako Salbaien zuhurtzia	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1983	Jon	SUDUPE MARTIJA	Karl Marx: teoria eta politika	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1983	Jon	SUDUPE MARTIJA	Modernitatearen alde	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1984	Xipri	ARBELBIDE MENDIBURU	Garazi	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1986	Luis Mari	MUJIKA URDANGARIN	Poeta baten narrazio nagiak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1987	Eduardo	GIL BERA	Atea bere erroetan bezala	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1988	Eduardo	GIL BERA	O tempora! O mores!	Axular	Eusko Jaurlaritza
1988	Patri	URKIZU SARASUA	Zuberoako Irri Teatroa	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1989	Eduardo	GIL BERA	Fisikaz Haratago	Xalbador	Iruñeko Aurrezki Kutxa
1989	Koldo	ZUAZO ZELAIETA	Hegoaldeko euskalkia	Koldo Mitxelena	Errenteriako Udala
1990	Jon	SUDUPE MARTIJA	Modernitatearen alde	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1991	Patziku	PERURENA	Berdatea	Koldo Mitxelena	Errenteriako Udala
1991	Patri	URKIZU	Agosti Chahoren bizitza eta idazl.	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1992	Jose Manuel	ODRIOZOLA	Soziolinguistikaren atarian	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1992	Patziku	PERURENA LOIARTE	Euskarak sorginduriko numeroak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1994	Jon	ALONSO FOURCADE	Idiaren eraman handia	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1994	Jesus M.	OLAIZOLA LAZKANO	Lau titiriti, bi tatarata	Koldo Mitxelena	Errenteriako Udala
1994	Jon	SUDUPE MARTIJA	*Ilustrazioaren kriseilupean*	*Euskadi Saria*	*Eusko Jaurlaritza*
1995	Paulo	IZTUETA ARMENDARIZ	Intelligentsia kimatuaren orbelak	Irun Hiria	Gipuzkoako Kutxa
1995	Pako	SUDUPE ELORZA	Nemesio Etxanizen biografia	Mikel Zarate	Euskaltzaindia
1996	Joseba	ARREGI	Europa bakarra, Europa anitzak	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Saiakera)	Andoaingo Udala

KAZETARITZA

URTEA	IZENA		IDAZLANA	SARIA	EMAILEA
1974		Amatiño	[Urteko lana]	Gerediaga Saria	Gerediaga Elkartea
1975	Joxe	LIZARRALDE	[Urteko lana]*	Gerediaga Saria	Gerediaga Elkartea
1975	Joan Mari	TORREALDAI	[Urteko lana]	Gerediaga Saria	Gerediaga Elkartea
1989		...ETA KITTO KOLEKTIBOA	Candido Eguren	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1989	Andoni	EGAÑA	Zimurdurak	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala

1989	Patxi	PERURENA	Ni aldekoen kontrakoa naiz	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1990	Joxean	AGIRRE	Bertsolari txapelketa	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1990	Jon	ANDUEZA ALTUNA	Egun bat Elenaren bizitzan	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1990	Aingeru	EPALZA	Nardagarria	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1990	Pello / Nerea / Martin / Jose F.	ZUBIRIA / AZURMENDI GARITANO; AZURMENDI	Betaurrekorik gabe	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1991	Jon	ANDUEZA ALTUNA	Txomin Pineda, Berea ez den gerran	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1991	Felix	IBARGUTXI	"Jainko" bila	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1991	Antton	OLARIAGA	Zakilixut	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1991	Patziku	PERURENA LOIARTE	Ehiztariaren gaurko erotika	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1992	Pako	ARISTI URTUZAGA	"Klik" baten ondorenak	Rikardo Arregi kazetaritza saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1992	Iñaki	ITURAIN ZAPIROZ	Oriotarrak eta soldaduzka	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1992	Alazne	ITURRIOTZ (Askoren artean)	Eguneko Pertsonaia	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1992	Ramon	SAIZARBITORIA	Kultura	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1993	Mikel; Mikel	ARANO; ALBISU	Pagosa okindegia, eguneroko ogia	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1993	Pako	ARISTI	Selma Husley	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1993	Mikel	ELORTZA	Nire butakatxotik	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1993	Hasier	ETXEBERRIA CANALES	Kristalik gabeko leihoa	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1994	Iñigo	ARREGI	Urbiako fondaren isiltasunen...	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1994	Patxi	HUARTE	Noski Jator (komikia)	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1994	Koldo	IZAGIRRE	Liliput debekatuak	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1994	Juan Luis	ZABALA ARTETXE	Kroazia samina	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1995	Koldo; Jone	ALDABE; LARRAÑAGA	Munduaren Talaian	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Sekzioa)	Andoaingo Udala
1995	Alberto	BARANDIARAN	Quousque Tandem	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala
1995	Jone	LARRANAGA	Colours United of Beterri	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Herrietako aldizkariak)	Andoaingo Udala
1995	Anjel	LERTXUNDI	Barraren erdian	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1996	Andoni	LEKUONA	Rabin, profeta berria*	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1996	Xabier	MENDIGUREN ELIZEGI	Elurraren bertuteak	0Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Baloraziozko kazetaritza)	Andoaingo Udala
1996	Imanol /Roberto	MURUA / UNZUETA	Urtebete elkarrizketaren zain	Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (Erreportaia)	Andoaingo Udala

Beka handi bat edo beste, profesionalizatzeko	28,1
Beka txiki mordoska, laguntza modura	25,3
Lan argitaratuei sari edo laguntzak	21,7
Literatur lehiaketak	17,7
Besterik	6,9

Boto kualifikatu gehien beka-sistemak ditu, diferentzia handiz. Beka-sisteman emaileak aldez aurretik egiten du idazlearekin tratua. Bi beka-mota bereiztu nahi izan ditugu, txikiak eta handiak, filosofian bat izanik ere, funtzio desberdina betetzen baitute idazlearen dedikazioan. Bi beka-modu hauek batean idazleen % 53,4ren preferentziak dituzte.

Beste bi sistemak sorkuntza intelektualaren gibeletik datoz biak. Argitaratu ondoren ematekoa da saria. "Eskuizkribua" saritzen da lehiaketan. Bigarren hau da gaur gehien erabili ohi dena eta ez dakit kasualitatea den, edo hain zuzen horrexegatik den, bera da lau formulatan azkena.

Bide bat bakarra hautatu beharko balitz ez dakit zein litzatekeen guztietan aukeratua. Agian ez goiko taulan agertu den hori. Lehen aukera bezala ez baita azaltzen. Lehen posturako aukeratutakoen ordena bestelakoa da: lehena, saria (% 15,2); bigarrena, lehiaketa (% 13,0); hirugarrena eta laugarrena bi beka-motak (% 9,8na).

Aukeran eman dugun bosgarren puntuak arrakasta izan du oraingoan. Idazle-multzo batek bere kabuz jarri du hor iritzia eta baloratu egin du: % 6,9ko balorazioa du, baina harritzekoa dena, % 6,5entzat "besterik" horixe da idazlea laguntzeko bide egokiena.

Hona idazle batzuk bere kasa proposatu dituzten lehen bideak:

- *Argitaletxeek kaleratu nahi ez dituztenak (saiakerak, batez ere) argitaratzeko laguntzak*
- *Argitaratzeko laguntzak*
- *Argitaratzen laguntzea; publikoari ezagutarazten entseiatzea*
- *Atal hau ez daukat oso argi. Niri, egia esan, bekak —txiki edo handiak— primeran etorri zaizkit honetara dedikatzeko erabakia hartu ahal izateko*
- *Beka txikiak ugari, eta lanak saritu . Biak*
- *Berdintasun oker batekin bukatu: laguntza beharrik ez du erdarak, indar handia du hemen eta munduan*
- *Egile eskubideak miseria hutsa dira, handiagoak izan beharko lirateke*

- *Egungo munduko idazle normalizatuen pentsakeraz autotalde-erakundetu*
- *Euskerazaintza Euskaltzaindia bezain oparo lagundua izatea. Lotsagarri bait da diskriminazioa*
- *Ez dakit. Egoera politiko honetan alperrik da diru publikoa euskalduntzen saiatzea*
- *Ez literatur sariak, ez bekak dira laguntza garrantzutsua. Sektore oso bat dago auziten. Idazlearen ongizalea, eta lagutzaz profesionaltzea, epe jakin baterako, horrek ez du funtsezko ezer konponduko.*
- *Idazleari ez zaio laguntzarik eman behar. Literatur lehiaketak hasi berrientzat, eta kitto*
- *Idazleari merkatuaren eskakizunak laguntzen dio. Erakunde publikoek irakurtzearen promozioari lagundu ahal diote*
- *Ikastaroak antolatu, Idazleak irakaskuntzan txertatu, itzulpen politika zabaldu*
- *Irakurleak gehitzea, irakur-zaletasuna zabalduz*
- *Kalitatearen arabera jokatu*
- *Lanak argitaratzeko bideak eman, zeren ezin bait dira askotan argitaratu lan saridun edo bekadun izan direnak*
- *Lehiaketa eskariak bederen Hegoaldean ez da*
- *Liburuak liburutegi, ikastola eta abarretan zabaldu, azken xedeak irakurtzea izan behar du eta*
- *Literatur edo idazle eskolak*
- *Literaturzaletsuna piztu/zabaldu*
- *Onena da literaturak berak bere burua ordaintzea. Irakurleak izatea. Apalean gordetzeko ez da ezer subentzionatu behar*
- *Projektu ganorazkoei, laguntza ganorazkoa*
- *Promozioa*
- *Tolerantzia eta laguntza teknikoa*
- *Utzi idazleari "izkribatzeko" behar duen libertatea, eta utzi idazleak beren "nortasun literario" propioaren lortzen*
- *Gogoz eta gustoz egindako lan eta langile interesgarriak, lagundu eta promozionatu; ongi egindako lana lagundu: argitaratzen, zabaltzen...*
- *Idazleak irakurlegotik jaso behar du saria. Laguntza promozioa besterik ez da*
- *Lanbide honen duintasuna ez da diruz —bakarrik— erosten*



MARTINEZ LIZARDUIKOA, ALFONTSO (Donostia, 1945)

- *Euskal dinosauruak (1988)*
- *Naturaren enigma kitzikagarriak (1993)*



MEES, LUDGER (Münster, 1957)

- Euskoeuropa (1994)

Goiko proposamen horiek lehentasuna dute beren autoreentzat. "Besterik" sail horretan, ordea, beste proposamen, iruzkin, elementu osagarri asko dago. Idazle askok berek idatzi dutenari ez diote lehentasun printzipala ematen, baina bai hirugarrena, laugarrena edo bosgarrena. (Bigarren lekuan ez dago iritzi propiorik). Hauen proposamenak datoz orain, zein bideri eman dioten lehen botua kontuan edukita.

Bide egokiena *beka handiak* direla uste dutenen iruzkinak:

- *Bekak ondo iruditzen zaizkit, baina ez nuke partitzeko erabakia nire gaina hartu nahi. Literatur lehiaketak bide egokia dira zure izena saltzen hasteko, baina hortik aurrera, gehiegi ez ote dauden... eta epai mahaietan nortzuk diren jaun eta jabe...*
- *Bere euskal lanak erdaratzeko dituen itzultzailea bekatzea*
- *Idazleen erakundeei bidea erraztu, fiskalki, legalki eta abar*
- *Inguruko (literaturen inguruko) lanetarako erraztasuna (TB, irratia, itzulpenak)*
- *Irakurle kopurua hazten saiatu*
- *Kontsumoa eragin komunikabide guztietatik*
- *Oinarrizko soldata bat*
- *Zerbaitengatik oso famatuak diren idazleetatik aparte, beste batzuk ere badirela kontutan hartzea*

Bide egokiena *beka txikiak* direla uste dutenen iruzkinak:

- *Argitaratzeko erraztasuna*
- *Beste hizkuntzatara itzuli ahal izateko laguntzak*
- *Bitarteko literarioak sortaraztea. Itzulpen azpiegitura*
- *Bultza-bideak erabili, artista maiz pasiboa delako, lanak eskatu edo eskaarazi behar zaizkio, asto baten modura... jabetzen zaion jendearen beharretan dago*
- *EITBn obrak sarri komentatzea*
- *Erakunde ofizialek bidali behar lukete liburua Paris-erat, Bordale-rat, Ameriketarat, hango Euskal-Etxeetarat: han badira ainitz euskaldun, beren jaioterria gogoan daukatenak. Liburua laiteke lokarri bat ona, heien eta herriaren artekoa*
- *Irakurle gehiago sortu eta irakur-errazago idatzi*
- *Erdaretarako itzulpenak egiteko dirulaguntzak*

- *Euskalki minorizatuei egin beharrekoak*
- *Euskaraz idazten dena erosi eta irakurtzeko kanpaina ugari egin*
- *Idazketa tailerrak. Idazketari eta literaturari buruzko ikastaro praktikoak*
- *Idazle elkartearekin batera buruturiko eta adosturiko plan bat*
- *Idazleak irakurlea behar du; irakurleak ugaritu behar dira*
- *Idazleen promozio soziala*
- *Komunikabide publikoen ateak zabaltzea*
- *Komunikabideetako ateak itxi ez baino irekitzea, artikuluak ordaintzea, irakurleen sostengua*
- *Liburu guztiak merketzeko eta kopuruak gehitzeko, papera, argitaletxea lagundu, aldizkariak lagundu, errezitaldiak bultzatu... (Behetik gora, ez alderantziz)*
- *Liburuen promozioan eta kanpora zabaltzen saiatu behar lukeela*
- *Media publikoetan bereziki gehiago promozionatu!! Herri liburutegiak gehiago sustatu*
- *Taldeka nahiz bakarka literaturan eta bestelako arloetan idazten dutenak ezagutu eta urteetan lanerako jarrera erakutsi dutenei laguntza eta babesa eman*

Bide egokiena *literatur lehiaketak* direla uste dutenen iruzkinak:

- *Hainbat idazlek, literatur lehiaketen epaile izan direnean, eman gabe utzi sariak. Baina epaile normalekin publizidade dexente lor daiteke*
- *Lehiaketetan ezagunak ez direnei lekua utzi, merkatua "freskatzeko" eta ugaritzeko*
- *Lehiaketak aberrazioak dira. Kreazioa ezin da bekatik bizi. Ikerketak laguntza behar du*
- *Haurrei euskal irakurketarako gustura goiz-goizik eman eskola eta etxean*

Bide egokiena *lan argitaratuentzako sariak* direla uste dutenen iruzkinak:

- *Beka profesionalizatzeko? Ez dakit bi horiek oso ondo uztartzen diren*
- *Beka txiki eta haundiko aukerak ez dute zergatik izan behar bata ala bestea, biak batera ere eman daitezke... eman beharra dago*
- *Herri honek argitarapen politika eskatzen du*



MENDIGUREN BEREZIARTU, IÑAKI (Ezkio, 1954)

- *Haltzak badu bihotzik (1990)*

Literatur Sariak eta Bekak

Zure iritzia gaur egun indarrean dauden literatur sari, beka, boltsa eta bestetaz. Zer dute falta, zer sobera?

ALBERDANIA

Bekak, boltsak eta abarrekoei buruz, gutxi eta, gehienetan, eskasak dira. Irizpide-arazoren bat edo beste ere detektatu izan dugu, baina ez gara hasiko hemen banan-banan aztertzen... Oro har, plangintza bateratu eta epe luzeagorako baten falta somatzen dugu. Alor honetan, sakabanaketak eta irizpide bateratu ezak baliapideak gaizki erabiltzea ekar dezakete. Literatur sariei dagokienez, berriz, kezka nagusi bat dugu: gehienetan —guztietan ez bada— sariketaren antolatzaileak «Sta. Pepis-en editore» izaten setatzen dira, eta, noski, hortxe geratzen dira liburu gehienak, jaio orduko hilik...

ELKAR

Dirua gaizki gastatzen dela esatea ez bedi izan gutxiago gastatzeko aitzakia. Gehiago gastatu beharko litzateke (gure ustez behintzat), baina, batez ere, *hobeto* gastatu. Sariak gehiegi dira, gaizki antolatuak asko, saria emateari begira eta ez obrari berari. Bekak, berriz, askoz interesgarriagoak dira idazlearentzat eta onuragarriak, nahiz eta lustre gutxiago eman antolatzaileari. Beketan, txikiak eta handiak, bietatik beharko litzateke, gehiago sorkuntzaren akuilu etengabe moduan, egile batzuk jainkotzeko baino.

Ibaizabal

Gure ustez, Euskal Herrian euskarak izan behar luke lehentasuna. Horrez gainera, erakunde publikoetako laguntzak bateratzea ere beharrezkoa ikusten dugu.

Pamiela

Orokorrean, (irakurtzen ez duten) politikoek euren «kultura-agendaren» bazter batean jartzen dituzten lorontziak dira literatur sariak. Su artifizialen saio bat antolatzea bezala da. Itxurak bere papera bete dezan beharrezkoa den letra-zarata baino ez dira sariak eta bekak. Batzuetan, kasualitate hutsez (epaimahai inteligente bat eta liburu on bat) sariaren diruak justizia egiten du.

Liburu gehiago saltzeko trikimailua baino ez dira argitaletxeen sariak.

Dena dute falta, Dena sobera.

Txalaparta

Ez gara horrelako errekurtsoetaz sekula baliatu.



MENDIGUREN BEREZIARTU, XABIER (Ezkio, 1945)

- *Europako ezker berria (1972)*
- *Ikus ikas (1974)*
- *Euskal historian zehar (1980)*
- *Iparragirre (1981)*
- *Itzulpen teoriazko ezagupenak. Itzulpen teoria eta praktikarako textuak (1983)*
- *Itzulpengintza: historia eta teoria (1992)*

- *Idazleak sarritan izaten duen bizimodu gogorra zertxobait gozatu, honetarako laguntza bereziak antolatuz*
- *Itzulpena lagundu eta bultzatu*
- *Jende gazteei laguntza emateko bideak egin. Dena den laguntzak ezin dira limosnatxoak izan*
- *Kanpoan promozio serioa*
- *Nik uste dut lan argitaratuei saria emateko modu bat izan daitekeela, urtean argitaratutako narrazio liburu (edo olerki, edo saiakera...) hoberenari itzulpena bideratzea. Eta inork, kanpotik, itzultzeko gogoa azaltzen badu, laguntzak instituzionalizatzea*
- *Nire ustez beti diruluguntzen menpe bizi burik, inkurlegou zubultzen inbertitu behar da*
- *Proiektuak aurkeztu, interesgarrienak hautatu eta haiei lagundu*
- *Promozio bide serioagoak landu beharko lirateke. Komunikabide publikoetan literatura lau zororen kontua da, kontu pintoresko hutsa, ez da ezer serioa...*

Idazle "hoberenak"

Hamar obra "hoberenei" buruz esandakoak berdin-berdin balio lezake hemen.

Hoberenak komatxoen artean jarri izanak garbi adierazten du ez dugula irizpide zehatz eta bakarrik inposatu. Nik uste, azken batean, bi kriterio nagusi gurutzatzen diren puntua markatzen duela horrek: obra eta ospea, biak batera esan nahi du horrek.

"Hit parade"ren gogorik ez dago hemen. Baina bai konkretatzearena. Kalitate garaiaz ari garenean, nazioarteko mailaz ari garenean, zer esan nahi dugu, zeintzuk lirateke (egile eta idazlan) lan kolektibo horren ordezkari duinak? Horrelako zerbait bilatzen du galdera honek.

Zerrenda-mota hauen erlatibotasuna guztiok ezagutzen dugu. Ukaezina da, hala ere, berauen adierazgarritasuna.

Zein desberdinak diren 1976ko eta 1996ko zerrendak, ez bakarrik izenetan, normala denez, baizik eta idazle-tipoan ere.

Aurreko zerrendatik bi bakarrik pasa dira zerrenda berrira: Txillardegi eta Joxe Azurmendi. Hiru hildakoez gain (K. Mitxelena, G. Aresti, P. Lafitte) kanpoan gelditu dira: L. Villasante, X. Kintana, B. Gandiaga, J. M. Satrustegi, J. Etxaide. Egoerak zenbat aldatu diren antzemateko, hona beste datu bat: oraingo idazleek hautatu dituzten lehen hogei idazleen

artean Txillardegi eta J. Azurmendiz gainera B. Gandiaga bakarrik sartzen da duela hogei urteko zerrenda hartatik.

Hona oraingo zerrenda:

Bernardo Atxaga	122	boto
Anjel Lertxundi	103	"
Joseba Sarrionandia	89	"
Ramon Saizarbitoria	76	"
Joan Mari Irigoien	60	"
Koldo Izagirre	55	"
Txillardegi	45	"
Joxe Azurmendi	32	"
Joxe Austin Arrieta	29	"
Juan Mari Lekuona	27	"

Hamar idazle hauetan lehen seiak buru eta bihotz idaztera emanak daudela esan genezake, bokazioa eta dedikazioa dutela alegia. Obra handi baten garantia nahikoa segurua da hamar horietako askorengan. Eta garantia bakarrik ez da daukaguna: eskuartean dauzkagu obrak.

Adinaren arabera egiten al dira preferentziak? Adin-multzo guztietan bataren edo bestearen aldeko portzentaiak mugitzen dira. Horrezaz gain lehen bostak, adibidez, ez dira adin-tarte guztietan berdinak.

Adin guztietan bostetik hiruk bakarrik irauten dute, eta hirurak aurreneko lekuetan: Bernardo Atxagak, Anjel Lertxundik eta Joseba Sarrionandiak.


Saizarbitoriak, aldiz, laugarren postuari ongi eusten dio 60 urtera idazlegoa iritsi artean. Atzean gelditzen da gero.

K. Izagirrek 45 urtera iritsi bitartean mantentzen du bosgarren posizioa. Hortik aurrera beste batzuk aurrea hartzen diote.

Joan Mari Irigoien da adinarekin posizioak irabazten dituena: 46-50 urteko idazleek bosgarren lekua eman diote, eta 51-60 urte-bitartekoek laugarren postua.

Txillardegik gauza bera egiten du baina urte-tarte bat beranduago. Bosgarren dager 51-60koen artean eta 60 urtetik aurrerakoengan laugarrena da bera.

Joxe Austin Arrietak 60 urtetik gorakoengan lortzen du bosgarren lekua.



MENDIGUREN ELIZEGI, XABIER (Donostia, 1964)

- *Kanpotarrak maisu. Kultur ministrariak ez digu errukirik (1986)*
- *Sei ipuin amodiozko (1986)*
- *Estitxuk pirata izan nahi du (1987)*
- *Publikoari gorroto (1987)*
- *Joxemeren ohelikopteroa (1988)*
- *Negu gorriko lagun berriak (1988)*
- *Tangoak ez du amaierarik (1988)*
- *Ezin da ipuinik asmatu ala? (1989)*
- *Harrika (1989)*
- *Joxemeren ohelikopteroa eta kupel atomikoa (1989)*
- *Joxemevski astronauta (1989)*
- *Montse-txikiren azio handiak (1989)*
- *Pernando, bizirik hago oraindio (1989)*
- *Katuen matxinada (1990)*
- *Joxeme eta eroen ohelikopteroa (1991)*
- *Puxkin (1991)*
- *Telejoxeme (1992)*
- *Ametsen kontrabandista (1992)*
- *Hamalau (1992)*
- *Joxeme gerrara daramate (1992)*
- *Patakon (1992)*
- *Ankerki (1993)*
- *Garai (a) da Euskadi (1993)*
- *Bekatuaren itzala (1995)*
- *Hilerri itxia (1995)*
- *Opor ezberdinak (1995)*

10 idazle "hoberenak"




Bernardo Atxaga




Anjel Lertxundi



Joseba Sarrionandia



Ramon Saizarbitoria



Joan Mari Irigoien


10 idazle "hoberenak"




Koldo Izagirre



Txillardegi



Joxe Azurmendi



Joxe Austin Arrieta



Juan Mari Lekuona

Sexuaren arabera badira aldeak gizonezkoek eta emakumezkoek egin dituzten hobespenetan. Zertan esanik ez da lehen hamarren hautaketa honetan gizonezkoek dutela hitza ia % 90ean. Emakumezkoek ez dute arras desberdin baloratzen idazleen lana, baina badira diferentziak.

Lehen bostak ordena berean agertzen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean: B. Atxaga, A. Lertxundi, J. Sarrionandia, R. Saizarbitoria, J.M. Irigoien. Gizonezkoen artean baino boto positiboagoa jasotzen dute lehen lauez gainera Txillardegik eta Juan Mari Lekuonak.

Zerrenda orokorrean (nolabait esan, gizonezkoen zerrendan) agertzen diren Koldo Izagirre, Joxe Azurmendi eta Joxeaustin Arrieta ez dira agertzen emakumeek aukeraturiko lehen hamarretan. Eta hauen lekua hartzera datoz Xabier Lete, Bitoriano Gandiaga eta Inazio Mujika edo Felipe Juaristi.

Erakunde publikoen liburu-politikaz

Liburuarekin zerikusirik sei erakundek daukate Hego Euskal Herrian: Eusko Jaurlaritzan Kultura eta Hezkuntza Sailek, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiek, eta Nafarroako Gobernuak.

Ezin da konparatu Eusko Jaurlaritza beste ezeinerekin, nahiz eta azpimarratu Gipuzkoako Foru Aldundiak urtetan egin duen ahalegina.

Epealdi honen hasieran gutako inork nekez sinets zezakeen aginteak euskalgintzan horrenbeste diru inbertituko zuenik. Ikastoletan, EITBn, adibidez. Mamutzar hauen ondoan liburuak jaso duena huskeria da. Baina bere historia guztian jaso izan duena baino gehiago, askoz gehiago.


Liburu-prozesua laguntzeko programa desberdinak jarri izan dira martxan, Eusko Jaurlaritzaren baitan: Literatura Unibertsala, Literatur Sorkuntzarako Bekak, Liburugintza (liburu-erosketa), Euskal Letretako Merezimenduzko Saria, Euskal Idazle Klasikoak, Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak, Bibliotheca Scriptorum Classicorum Vasconum, EIMA I. Guzti hau, 1982tik honako informazioaren arabera, dirutan neurtuta 1.545.855.000 pta. litzateke (857.000.000 pta. Hezkuntzak emanak; eta 688.675.000 pta. Kultura Sailak). Liburutegi eta Azoketara joan den dirua ere hemen kontabilizatu beharko litzateke.

Nola baloratzen dute euskal idazleek erakundeek euskal liburuaren alde izan duten eta gaur duten jokabidea? Esaterako, idazleaz, liburuaz, promozioaz, irakurleaz?

	Ez du erantzuten	Oso ona	Ona	Erdipurdikoa	Txarra	Oso txarra	Besterik
Idazlea	28,8	0,5	2,7	31,5	23,9	12,0	0,5
Liburua	31,0	0,5	13,6	34,2	15,8	4,3	0,5
Promozioa	31,5	1,1	2,2	22,8	25,0	16,8	0,5
Irakurlea	37,0	0,5	1,6	29,9	19,0	11,4	0,5

Taula honek lehen irakurketa bat bakarra du posible: zein iritzi negatiboa duten euskal idazleek erakundeen liburuarekiko politikaz!

Lau kapituluetatik salbatzen den bakarra, piska bat bada ere, liburugintzari zuzenean egokitzen zaion politika da. Zer gertatzen da? Beste alorretan egin ere ez dutela kasik ezer egin erakundeek, beka eta sari batzuk aparte. "Liburugintza" deitzen den programaren bidez kanalizatu dira diru gehienak: 440.000.000 pta.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal kultura sustatzeko izan dituen aurrekontuen eboluzioa ageri da hemen. Kontzeptu asko daude tartean. Batzuk, kazetaritzakoak: albisteagentzia, aldizkarigintza, kazetagintza; beste batzuk, liburugintzakoak: euskal idazle klasikoak, hiztegi entziklopedikoa (Elhuyar), literatura unibertsala, liburugintza, euskal letretako merezimenduzko saria, literatur sorkuntzarako bekak, besteak beste; eta azkenik, euskalgintzakoak: euskarazko bideogintza ez-didaktikoa, egonaldiak familia euskaldunetan eta batez ere euskalgintza izenekoa, diru gehien mugitu duena.

1990. urtean jo zuten gailurra aurrekontuek. Jaitsiera nabarmena batez ere 1992an eman zen eta geroztik berdintsu jarraitzen dute dirukopuruek.

1992. urtea erabakigarria izan da. Ordukoa da, besteak beste, Guggenheim-aren hasiera.

LITERATUR SORKUNTZARAKO BEKAK

Helburuak

1.- Gaur egungo euskarazko literaturgintzan diharduten idazle profesional zein hasi berrien iharduera bizkortzea.
2.- Literatur generoekiko hutsunerik nabarmenenak betearaztea.
3.- Literatur bide berriak jorraraztea edota esperimentaraztea.

Garapena eta emaitzak

Urtea	Beka-kopurua	Aurrekontua
1984	12	6.000.000
1985	14	7.000.000
1986	20	10.000.000
1987	19	9.500.000
1988	26	11.200.000
1989	33	13.450.000
1990	17	7.850.000
1991	22	13.850.000
	163	78.850.000

Kultura ekintzetarako Instituzioen arteko Batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz, 1991an eman zitzaion bukaera programa honi, aurrerantzean lurraldean lurraldeko Foru Aldundiko Kultura Departamenduak harekiko erantzukizuna hartu duelarik.

EUSKAL LETRETAKO MEREZIMENDUZKO SARIA


Helburua

Urtean urteko ekitaldian bizirik zegoen emakumezko zein gizonezko batek euskal letren arloan garatutako opera ommia errekonozitu eta saritzea.

Garapena eta emaitzak

Urtea	Saridunak	Aurrekontua
1984	Jon Etxaide	1.000.000
1985	Piarres Lartzabal	1.000.000
1986	Koldo Mitxelena	1.000.000
1987	Antonio María Labayen	1.000.000
1988	Eusebio Erkiaga	1.000.000
1989	Aita Lino Akesolo	1.000.000
1990	Augustin Zubikarai	1.200.000
1991	Iñaki Eizmendi "Basarri"	1.200.000
		8.400.000

LIBURUGINTZA. DIRU-LAGUNTZAK



Iturria: Kultura Saila (Eusko Jaurlaritza)

1984tik hona Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal liburugintza laguntzeko eman diluen diru-kopuruak lagundutako liburuekiko zer suposatzen duen urtez urte ageri da hemen.


Diru-kopuruek urte gehienetan gora egiten dute. Laguntza jaso duten liburuen kopurua ere gehitu egin da.

Urte bakoitzean lagundu den liburuko zer suposatu duen diru-kopuruak kalkulatu da.


Zazpi urtetan sekulako gorakada egin dute laguntzek zifra absolututan.

Geroztik, badirudi gerakuntzan gaudela (1990etik hona bi milioiren gorabeherandago estabilizatuta).

LIBURUGINTZA. DIRU-LAGUNTZEN GARAPENA



Iturria: Kultura Saila (Eusko Jaurlaritza)



MENDIZABAL, JEXUX MARI
(Ormaiztegi, 1949)

- *Apextegitik gotti (1986)*
- *Zelina (1988)*
- *Ilargia lekuko (1989)*
- *Leizezulo (1993)*

Lau alorrak (idazlea, liburua, promozioa, irakurketa) batean hartuta, idazleen iritzien batez bestekoak zer pentsaturik eman beharko lieke erakundeetako arduradunei: politika hori ona edo oso ona izan dela % 5,6k pentsatzen du; politika hori erdipurdikoa dela % 29,6k esaten du; eta politika hori txartzat edo oso txartzat % 32,0k dauka. Balorazio oso negatiboa iruditzen zait: arazoa ez da bakarrik kontra edo oso kontra daudela asko, baizik eta alde ez dagoela ia inor. Eta liburu-politika bat erdipurdikotzat jotzen duena ez ote dago kontrako iritzitik hurbilago, aldekotik baino?

Ikus ditzagun jarrerak banan-banan:

- Idazlearekiko politikan, aldekoak % 3,2 dira, eta kontrakoak % 35,9.

- Liburuarekiko politikan, aldekoak % 14,1 dira eta kontrakoak % 20,1. Hemen askok nahiago izan du erdibidean geratu, politika hori erdipurdikotzat joz.

- Promozio-kontuan, aldekoak ez dira asko (% 3,3) eta kontrakoak bai: % 41,8.

- Irakurlearekiko politikak ere aldeko askorik ez du (% 2,1) eta kontrakoak dezente (% 30,4). Beste hainbeste dira erdipurdikotzat jotzen dutenak.

Botoa emateaz gain iritzia zabaltzeko egin diegun eskaintzari % 47,3k erantzun dio. Erantzun bezalaxe jaso eta ematen ditugu iritziok (ez guztiak baina bai gehientxoenak):

- *Handikeriak maite, baina eguneroko lana, oinarrizkoa kontuan hartu ez*
- *Behinola zeuden "beka" motak, idazle guztiak eskuratzeko aukera izan dezatela*
- *Erderak arduratzen ditu*
- *Laguntza hauek eskasak izan dira orain arte eta gehiago murriztu dituzte azken aldian*
- *Arazoa ez datza hainbeste idazleari gehiago laguntzean, idatzita dauden kalitate handiko lan ez-saituen promozioan baizik*
- *Gaizki gastatzen da dirua, irizpiderik gabe, beharrak kontutan izan gabe, bat-bateko errentabilitatea bilatu da (politikoki) eta ez luzera begira plangintza bat*
- *Erakunde publikoari prestijiorako komeni zaiona baizik ez da egiten*
- *Irakaskuntzarako daukagun euskaraz sortutako materiala "tercer mundista" da edo itzulia*
- *Hizkuntza dela-eta badago laguntzeko asmorik, baina benetako promozio literariorik ez*


Literatur zaleak bilatu eta erakundeetan sartu

- *Beste gauza gehienetan bezala, hemen ere morrontzak du lehentasun nabaria*
- *Laburki: katalanei begiratu eta ondorioak atera*
- *Ardura gutxi, orohar; famatu eta gero bereganatu nahi ditu idazleak; interes gutxi*
- *Liburuak eta irakurlegoa mimatu ordez, erakundeen asmoa zera da: idazle on gutxi bultzatu eta esportatu: "Euskal labela"*
- *Erakunde publikoak hotzak dira, pasione eskasa nabaritzen da heien baitan*
- *Errespeto eta ponpa gehiegi dio jendeak liburuari, laguntza publiko asko kenduko nuke*
- *Gure egoeran dena gutxi da*
- *Askoz gehiago lagundu beharko litzateke euskal literatura arlo guztietan*
- *Lan eta produktu-sortzailetzat hartzen ez duelako. Horren ondorioz ez du tratamendu profesionalik: zergak, etab., Promozioa = 0. Denaren berririk ez du ematen*
- *Arduradunek ez dute zaletasunik, ez dute literatura baloratzen, eta ez dakite nola jokatu. Eta ez dute horretan diru asko inbertitzeko asmorik, noski*
- *Irakurlerik eza da arazorik nagusiena, eta horra bideratu beharko litzateke promozio-politika*
- *Mediokritatea da nagusi, literaturan eta, bereziki euskal literaturaren eragina gure Herrian, oso murritza delako*
- *Elikadura bezala irakurtzea nahitaezkoa dela adierazi behar da egunero*
- *Balorazioak balorazio, gero eta okerragora goaz (horren adierazgarria da EIEk ez duela aurten sosik ere jaso)*
- *Gure irrati telebista publikoak askoz gehiago egin lezakete behar bada*
- *Ez dago politikarik. Nahiago da ekintza itxurosoetan gastatu, benetan eraginkor direnetan baino*
- *Irakurleari aukera eskaini behar zaio, baina promozio artifizialik ez da egin behar*
- *Nahasi egiten dituzte liburugintza eta irizpideak*
- *Ez zait gustatzen erakundeei kulpa botatzea. Errazegia da*
- *Nekez saltzen direnak lagundu behar (filosofia, matematika...)*
- *Ez dago gauza osorik; ez dago benetako politikarik*
- *Lotsagarria da oraindik kobratu gabe egotea iazko "Idazleak eskoletara" kanpainan egindako saioak. Ez dago politika tinkorik. Bestalde, lehiaketa politika seriorik ere ez da ikusten eta beka politika txukun baten premia dago*



MINTEGI, LAURA (Lizarra, 1955)

- *Ilusioaren ordaina (1983)*
- *Bai... baina ez (1986)*
- *Julene Azpeitia (1888-1980) (1988)*
- *Legez kanpo (1991)*
- *Nerea eta biok (1994)*



MONASTERIO, Xabier (Bilbo, 1959)

- *San Braulioko eroa (1985)*
- *Ipuin naturalak (1986)*
- *Atzekoz aurrera (1990)*


Liburuaren irakurketa bultzatzeko politikarik ez dago, bertze zenbait alorretan zerbait egin arren

- *Liburuen aldeko kanpainak bultzatu, diru-laguntzak sustatu*
- *Azken buleun euskara bene-benetan hartzen ez dutelako delako politiko hauek*
- *Herri Liburutegiak askoz gehiago kopuruz, hobeto hornituak eta erakargarriagoak behar genituzke*
- *Dudarik gabe, uste dut euskara positiboki diskriminatzera sutsuago jo beharko lukeela*
- *Liburua gehiago baloratu behar da*
- *Iritzi politikoak pisu gehiegia du zenbait kasutan. Liburutegietara baino ez da zabaltzen*

Orokorrean ez dago politikarik

- *Urkiari madari?*
- *Ez dut uste literaturaren etorkizuna administrazioaren esku behar duenik*
- *Genituen "laguntza" apurrak (idazleak eskolara) ere kentzen ari dira*
- *Erakunde publikoek literatura promozionatzeko ustetan, berataz baliatuz, beraien burua promozionatzen dutelakotan nago*
- *Orokorrean euskararekiko epel jokatzen du Jaurlaritzak eta Administrazioak*
- *Propaganda gehiago eta prezioak merkeago irakurleak ugaritzeko*
- *Neure ustez, erakundeek hizkuntz arloko proiektu haundietan gastatzen dute diru gehiena (hiztegiak, entziklopediak...), gainerako guztia ezer gabe geldituz*
- *Nork ezagutzen du hemen euskal idazlea. Beste euskal idazle batek ezik?*
- *Iruditzen zait erakunde publkoek ez dutela batere interesik gai honetan –beste askotan bezala– beraien onerako ez denean. Behin batek bere bidea jorratu, mugak gainditu eta bere burua ezagutarazten duenean, orduantxe hasten dira ageriko interesa azaltzen. Gainontzean ematen dituzten diru laguntzei buruz eta, ezer gutxi dakit. Entzun izan dut, laguntza horiengatik izango ez balitz, askoz ere gutxiago argitaratuko litzatekeela... eta ez dakit. Honetan ere ez dauzkat ba ideia batere garbi (non saltzen dituzte ideia garbiak?). Laguntzak beharrezkoak izango dira, baina egoera ideala, nik idatzi, irakurleari gustatu, honek erosi, eta lagunlzu berezirik ez sortu behar izatea izango litzateke. Idazlea, berez, bere burua ordaintzeko gauza izatea*
- *Kantitateari (pezetatan) kalitateari baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Badakigu Rambo eta Coca-Cola oso ondo saltzen direla baina beste "markak" ere saldu behar dira (sorpresak izan daitezke)*

- *Euskararen iraupenak eta hazkundeak ainitzez ahalegin gehiago eskatzen duelako*
- *Diskriminazio ideologiko nabarmenak eta faboritismo gehiegi dago*
- *Ez dakit. Erakunde publiko hauetan ez dago zereginik. Agian beste marko batean. Orduan ikusiko dugu*
- *Euskal literatura ezagutzen ez duen jende dezente dabil erakundeetan*
- *Ez da aski biblioteka publikoetan liburua ezartzea; gero behar litaike promozio gehiago egin egunkarietan, eta erakundek dute garrantzi nahikoa horrentzat*
- *Erakunde publikoek, behekoek, erdikoek eta goikoek, itxura begiratzen dute larregi, eta ez edukia*
- *Botereei, orohar, ez zaie jende irakurria gustatzen (jende ikasia kontzientziatua...)*
- *Erakunde publikoko jendea, gehien kastellanoz ari dira eta, jakina, bost inporta zaie euskal literatura*
- *Megalomanietan erortzen dira sarritan, oinarrizkoaz ahantziz*
- *Politikoak zeregin "premiatsuagoak" dituzte. Eta hala ere, eskaintzen dutena ere ez dugu aprobetxatzen. Egia esan, liburu-politikaz zehazki ezer gutxi dakit. Ez nuen erantzun behar*
- *Ez dago segidarik urteetan zehar... feria batzu eta kitto*
- *Telebista eta irratia liburuen eta irakurketaren promoziorako*
- *Euskal irakurlegoa da lehen helburua. Euskal liburuen irakurketa behar da lagundu*
- *Ez dago benetako liburu-politikarik. Indarrak sakabanatuta dagoz*
- *Egiten dutena oraindik ere "karitate" kontzeptupean nagusiki egiten dutelako*



MONTOIA, XABIER (Gasteiz)

- *Anfetamiña (1983)*
- *Likantropo (1985)*
- *Narraztien mintzoa (1988)*
- *Non dago Stalin? (1991)*
- *Emakume biboteduna (1992)*

Euskal Idazleen Elkartea

Gaurko Euskal Idazleen Elkarte honek (EIE) badu aurrehistoriarik. 1969ko irailaren 6an, Baionako Euskal Idazkaritzan ospatu zuen lehen biltzarra lehen orduko EIEk. Idazleen interesak defendatzeko baino gehiago euskararen batasuna bultzatzeko sortu zen lehen EIE hura. Eta batasunaren urak baretu-ahala bazirudien elkartea moteldu egin zela.

Idazlearen arazo propioei erantzuteko asmoz geroago heldu zitzaion berriz Elkarteari. 1978an berrabiapuntua planteatuz bildu zen Durangoko Azokakoan zenbait idazle. Baina Elkartea juridikoki eratzerako bost

urte pasako dira. 1983an, otsailaren 23an, lortzen du Elkarteak lege-nortasuna. 1995etik aurrera "irabazi asmorik gabeko" Elkartea da.


Honela zehazten ditu bere helburuak: "Elkarte honen helburuak honako hauek dira: Irabazi xederik gabe Euskal Literatura gizarteko esparru guztietara hedatzea.

Helburu horiek lortzeko honako ekintzak eramango dira aurrera, ezarritako legezko baldintzak bete ondoren: Literatur solasak eskoletan, idazleen arteko ihardunaldi, poesia irakurraldiak eta hitzaldiak, eta literatur aldizkari bat argitaratuko da ere".

173 bazkide ditu gaur egun Euskal Idazleen Elkarteak. EIEko bazkide izateko honako baldintza hauek bete behar dira; hobe esan, hauetako bat gutxienez: a) Euskaraz idatzitako liburu baten egile izatea. Sail honetan literatura sortzaile nahiz zientifikoa erabili dutenak sar daitezke. b) Liburu oso baten euskaratzaile izatea. Edozein literatura mota izango da onartua. d) Berrogei eta hamar artikulu egunkari edo aldizkarietan euskaraz idatzia edukitzea. e) Aurreko baldintza bat ere ez bete arren Elkartearen Batzar Nagusiak, beraren ustez meritu berezirik duen idazlea Ohorezko kide izenda dezake.

Elkarteari buruzko iritzia eskatu diogu idazleari. Hobeto esan, Elkartearen jokabideari buruz balorazio bat egin dezala eta ondoren bere iritzia idatziz adieraz dezala.

Zer-nolako lana egi(te)n du Euskal Idazleen Elkarteak?



MUGURUZA, JABI (Irun, 1960)

- *Sei lagun, sei sekretu (1994)*
- *Gabon Guanito (1995)*

Erantzunik ez	28,3
Oso ona	3,8
Ona	50,0
Erdipurdikoa	13,0
Txarra	1,6
Oso txarra	2,2
Besterik	1,1

Harritu eta guzti egiten da bat idazleek zein positiboki baloratzen duten EIE ikusita. % 53,8 dira diotenak ona edo oso ona dela EIEren lana.

Oso onak, egia esan, ez ditu aldeko asko. Baina txarra eta oso txarra esaten dutenen beste bada bera bakarrik. "On samarra" badela behintzat esateko prest egon litezke gutxienez % 66,8. Ez da konformidade-maila txarra.


Eskari bezala planteatu dugu hurrengo urratsa. Edozein balorazio duzularik ere, zer eskatuko zenioke EIEri. Hau da, zer lan berri egin be-

Euskal Idazleen Elkartea

Euskal Idazleen Elkartea (EIE) 1982ko uztailean sortu zen, Anjel Lertxundi, Xabier Gereño eta Joxe Mari Velez de Mendizabalen iniziatibaz. Anjel Lertxundi izan zen lehenengo lehendakaria. Hurrengo urteko otsailaren 28an, Elkarteak 93 bazkide zituela, onarpen ofiziala eman zion Espainiako Lan Ministerioak. Euskal idazleen arteko harremanak lantzea eta idazleen beharrak asetzen saiatzea da, besteak beste, Elkartearen egitekoa.

Anjel Lertxundi 1985eko maiatzera arte izan zen EIEko lehendakari, eta Joxe Mari Velez de Mendizabalek hartu zuen haren lekukoa 1989ko urtarrilera arte. Patri Urkizu izan zen hurrengo lehendakaria eta honen ondoren, 1993ko urtarrilean, Joxerra Garzia izendatu zuten elkarteko buru.

1996an 170 bazkide ditu EIEk. Elkarteko bazkide izan nahi duenak lau baldintza hauetako bat bete behar du gutxienez: euskaraz idatzitako liburu baten egile izatea; liburu oso baten euskaratzaile izatea; berrogeita hamar artikulu euskaraz argitaratuak izatea; edo Elkarteko Batzar Nagusiak ohorezko kide izendatzea.



EIEk Hegats literatur aldizkaria argitaratzen du 1989. urteko abenduaz geroztik.

1985ean Galeuzca literatur jardunaldiak —Galizia, Euskal Herria eta Kataluniako idazleen arteko bilerak— lehenengoz Bartzelonan egin zirenetik, Euskal Idazleen Elkarteak antolatzen ditu hiru urtez behin Euskal Herrian: 1986an Donostian, 1989an Bilbon, 1992an Iruñean eta 1995ean Gasteizen. Poesia Egunak bi aldiz eratu ditu —1993an Donostian eta 1994an Durangon— eta poesia irakurrialdiak antolatu ditu 1996an herri zenbaitetan.

Beste hainbat ekitaldiren artean, «Idazleak ikastetxeetara» kanpaina bultzatzen du 1989. urtetik. Donostia inguruko ikastetxeetan egin zen lehenengo kanpaina hura, baina Euskal Herri osora hedatu da gero.

Gaur egungo Euskal Idazleen Elkartea sortu aurretik izan zen idazleen bilgunea sortzeko saio bat. 1969an Baionan idazleen elkartea sortzeko asmoz bildu ziren, besteak beste, Gabriel Aresti eta Txillardegi idazleak, eta Joan Mari Torrealdai izendatu zuten idazkari. Euskal Herriko idazleen artean euskararen erabilera bultzatu eta euskara batua sendotzea zen helburua. Hurrengo urteetan moteldu egin zen bere jarduna.



MUJIKA IRAOLA, INAZIO
(Donostia, 1963)

- *Azukrea belazeetan (1987)*
- *Tú, quoque...» (Joanen Ebanjelio gainean) (1990)*
- *Linkon (1991)*
- *Itoak ur azalera bezala (1993)*
- *Hautsaren kronika (1994)*
- *Matriuska (1995)*

harko luke, zer aldatu beharko luke, nola jokatu beharko luke honetan eta hartan. Erantzunetan proposamen zehatzak agertzen dira batzuetan; eta beste batzuetan Elkartearen bizitzari berari zuzenki dagozkionak: ekin eta jarrai, batek; desagertzeko, besteak.

Kalifikazioaren arabera antolatu ditugu erantzunak.

EIEren lana *oso ona* dela diotenak zer eskatzen dute?

- *Ezer ez. Nahiko egiten du*
- *Herri Aginteei sinestaraztea liburu eta kultura politika egokia eramaten*
- *Idazleen arteko kaperatxuak gaindituz jokatzea*
- *"Vae soli!" (Hainbat gaixto bakarrik dagonari!) zioten erromanoek. Nihaur bakarrik nago, ondikoz. Bainan badakit, bestek erranik, Elkarte horrek lan onik daramala. Horrek ere bere promozioa egin dezan idazle guzien artean urtero, aspertu gabe, kide berri batzuen biltzeko*

EIEren lana *ona* dela diotenak zer eskatzen dute?


- *Ona: taldea egiten duelako. Txarra: gai guztietako idazleak ordezkatzen ez dakielako oraindik*
- *Agintedunei zirikatu*
- *Ahal duena hain segur ahal ttipiak ikusten baitzaizkio eta... Ikerketa hau gure agintari orori ongi ezagutaraztea*
- *Ahal izanez gero euskal idazleen lana gehiago ezagutaraztea*
- *Arduratzea euskerazko liburu onak beste erakunde publikoekin batera, beste nazioetan zabaltzen*
- *Argitaratze hutsetik aparteko ekimenei gehiago begiratzea: adibidez: poesia eguna...*
- *Aurrera jarraitzeko zailtasun guztien gainetik*
- *Behinola antolatu zuen "Gidoigintza" bezalako ikastaro labur gehiago antolatzea, idazleontzat*
- *Bere lana gehiago ezagutaraztea*
- *Bertsolari-eskolak dauden bezala idazle-eskolak bultzatzea*

  Debaterako gune gehiago sortzea
- *Egiten duena ongi egiten du, baina gehiegi dabil inertziaz; arlo berriak bilatu behar lituzke, idazlen eskubide moral eta ekonomikoen defentsan*
- *Eragin gehiago*
- *Erakundeekin batera euskal literaturaren promozio handiagoa egitea, nazioartean ere bai*

- *Eskubide profesionalak defenda ditzala*
- *"Euskal idazleak ikastetxeetan" programan soldatarik ez duten eta hala merezi duten idazleei lehentasuna ematea*
- *Ez dadila korporatibismo-jokaeretan eror*
- *Ez etsitzeko eta aurrera egiteko Guggenheim guztien gainetik*
- *Ezin ezer eskatu. Agian lan egiteko prest eta gogor dabilenari esaten zaiona esan: aurrera!*
- *Eztabaidarako eta formaziorako bide gehiago jartzea*
- *Hitzaldiak puntualki ordaintzea*
- *Idazle afariak antolatzeko. Enkontruak*
- *Idazleak elkargandik hurbiltzea = bilera? bazkari?*
- *Idazleak gehiago mugitzea, irakurlegoari hurbiltzea, alegia*
- *Idazleen defentsa*
- *Idazleen eskubideak hobeto defendatu*
- *Idazleen kluba. Kafea edo bilera informalak sortzea*
- *Informazio zehatzagoa eta puntualagoa (liburuen aurkezpenak, lehiaketak etab.)*
- *Irautea eta burua jasotzea*
- *Kanporako proiekzioa (itzulpenak eta) gehiago zaintzea*
- *Literatur genero baztertuak indartu, idazle ezezagunei bideak ireki*
- *Literatur lehiaketa guztietako sariak emateko konpromezua, "eman gabe" utzi barik. Erderaz gertatzen den modu berean*
- *Denok eta sarriago biltzea. Euren burua idazletzat ez dutenak konbentzitu*
- *Partaideen defentsa baino gehiago euskaraz idatzitakoaren defentsa*
- *Profesionalizazio handiagoz aritzea*
- *Bilbon bilerak, ez guztiak Probintzian*


EIEren lana *erdipurdikoa* dela diotenak zer eskatzen dute?

- *Datu-bilketa zehatza, eta dinamizazio handiagoa. Dena den, ondo ezagutzen ditut horretarako dituen zailtasunak*
- *Funtzionaltasuna. Idazlearen obraz gehiago arduratzea. Harreman-bideak zabaltzea*
- *Idazle guztiengana iristen ahalegintzeko, bazkide egin eta gorputz sendoa osatzeko*
- *Pulamentu gehiago*



MUJIKA URDANGARIN, LUIS MARI (Lizartza, 1939)

- *Bide-giroak / Ambientes del camino (1963)*
- *Urdin eta burni / Azul e hierro (1965)*
- *Aintzinako sozio-ekonomikoa. I (1974)*
- *Gizartea eta parasozialismoa (1975)*
- *Hitzak ebakitzean. Poemak. I (1975)*
- *Herria eta bidea. Hitzak eta kezkak (1978)*
- *Zortziko hautsiak. Barren ibarrak (1978)*
- *Arnas gaiztoa. Erromantzeen airera... (1979)*
- *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika (1982)*
- *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran. Euskal lexikoaren azterketa bideetan (1982)*
- *Lizardi-ren lirika bideak (1983)*
- *Aire neurtuak (1984)*
- *Mirande-ren poesigintza (1984)*
- *Euskal lirika tradizionala (I-IV) (1985)*
- *Lirika erdi aroan. (1-4) (1985)*
- *Sistema filosofikoak (1986)*
- *Poeta baten narrazio nagiak (1987)*
- *Toponimia, Lexikoa, Fonetika. (Legazpi eta Bergara-ko toponimi-materialeak) (1987)*
- *Euskal Toponimiazko Materialeak (I-XVIII)-(1989-1991)*
- *Orixe-ren aportazio literarioak (1990)*
- *Loitzu herrian uda-partean (1993)*
- *Asteroko gurpilean (1994)*
- *Udarbe eta Urtuella lekuko (1995)*



MUJIKA, XABIER (Donostia, 1946)

- *Lagun eta bi lagun (1987)*
- *Haurrak nagusi (1990)*
- *Diruaren hotsa (1991)*
- *Berritsu (1992)*

- *Autofinantziaketa lortu*
- *Idazle-kolektiboaren kontzientzia sortu eta kolektibo hori promozionatu Euskal Herrian eta kanpoan*
- *Informazio gehiago*
- *a) Liburugintzaren proiektua. b) Liburuaren promoziorako bideak*
- *Arazo profesionalei adarretatik heltzea*
- *Elkarte profesional bat edo idazleen ofizio-arazoez kezka gehiago*
- *Gutaz hurbilago izatea*
- *Herriari irakurlegoenei, interesatzen zaizkien moduko lanak sustatzea, eta hizkuntzaren aldetik idazle artean berezkotasuna eta jatortasuna eragitea*
- *Idazleekin harreman handiagoa edukitzea. Egia esan, gu, geu ere nahiko anarko ibili ohi gara!!*
- *Idazleen eskubideen alde lan egitea omenaldiak bazter utzi ta*
- *Literaturaz bakarrik ez arduratzea; hola ere ezinezkoa deritxot honi*
- *Literaturaz, kritikaz, kalitateaz hitzegitea*

EIEren lana *txarra* dela diotenak zer eskatzen dute?

- *Arazoak konpontzen gehiago lagundu eta danak bardin tratatu*
- *Hollywood-etik gertu dauden zozokeriak baztertu eta irakurleriaren bila irten*

EIEren lana *oso txarra* diotenak zer eskatzen dute?

- *Desagertzea*
- *Dirua beste kezkarik ez duen gestoria txar bat besterik ez da. 2-3 lanpostu funtzionari. Deus ez, hainbeste boletin, propaganda eta paper zikin bialtzen ez aritzeko, mesedez*
- *Literatura hutsetik harago begiratzeko*
- *Orokortasuna akademia baten mendean egoteke*

Euskal liburuaren demak

Arazo honetaz jardun izan gara liburuaren sektoreaz aritzean. Erreinu batean bizi omen zen liburua eta bera omen zen nagusi bakarra. Erreinu hura demokrazia bilakatu zen, eta nagusi berriak indartu ziren. Bizi nahi badu, beste horiekin (irratia, telebista, multimedia, etab.ekin) batera antolatu beharko du bere etorkizuna.

Hori da liburuaren zoria, patua edo dena delakoa. Iraultza teknologiko horretan liburuaren funtzio eta lekune tradizionalak auzitan jarriak dira aspalditxo. Liburuzalearen (batez ere editorea eta idazlearen) egiteko bat liburuaren etorkizuna diseinatzea da, eszenario desberdinak kontuan harturik. Eta beste egiteko urgentea zera da: multimedia nola integratu argitalgintzan. Horrek edizioa arras alda lezake. Eta ez gutxiago idazlearen ofizioa. Bokazio anitzeko idazlea omen da etorkizuneko idazlea.



MUÑOZ, JOKIN (Castejón, 1963)
- Hausturak (1995)

Aukera, desafioa, arriskua?

Multimedia ez da etorkizuna bakarrik. Presentea da. Ez da urrutiko kontua. Zurrunbiloaren barruan gaude. Horregatik, liburu elektronikoak euskal edizioari zer dakarkiokeen planteatzen dugunean, ez gabiltza teoriaren hodeietan, geure eguneroko errealitatearekin zerikusi duen zerbaitetaz hitz egiten baizik.

Errealitate objektiboa hor dago. Zein da pertzepzioa, ordea? Nola ikusten du hori idazleak?


Editorearen jarrerak garbi daude: euskal edizioarentzat aukera bat da (% 77,8), heldu egin behar zaio (% 66,7), baina ez gaur bertan (% 61,1).

Euskal idazlearentzat aukera baino gehiago da desafioa. Ez du arriskurik ikusten multimedian (% 6,5), gutxiago heriotzarik (% 2,2), baina ezta ere aukera paregaberik (% 4,3). Zuhurtziaz jokatu nahi du, eta desafioan uzten du iritzia, konnotaziorik gabe, ez batera eta ez bestera makurtu gabe.

Erantzunik ez	38,6
Aukera paregabea	4,3
Desafioa	44,0
Arriskua	6,5
Heriotza	2,2
Besterik	4,3

Adinak badu zerikusirik multimediaren aurrean.

Adin guztietakoak datoz bat, gutxi edo asko, multimedia desafiotzat hartzeko momentuan. Arriskuaren ideia solteago dabil 36-50 urte tartean. Aukeraren alde jotzen dutenetan erdiak 35 urtetik beherakoak dira.



MUÑOZ, JOXEAN (Donostia, 1957)
- *Parentesiak etabar (1984)*

Multimedia heriotza izan daitekeela azpimarratzen dutenetan erdiek 60 urtetik gora dute.

Zergatik aukera, desafio, arrisku edo heriotza? Honela argudiatzen dute bere jarrera idazleek:

Liburu elektronikoa aukeratzat daukatenak:


- *"Baserri elektroniko" delakoaren mendean gaude, bada*
- *Gaur egun dituen muga asko gainditzen lagunduko duelako*
- *Hortik dijoaztelako tiroak datozten urtetan*
- *Mugimendu globalagoa edo osotuagoa bihur daiteke ongi erabiliz gero*
- *Zabalkundearen eta irakurleari entretenimendua eta kultura eskaintzearen aldekoa bada, paregabea da*
- *Aurrerakuntzarekin bat eginik dagoelako euskal literaturaren geroa*
- *Beste borroka-zelai bat. Jada euskaldun txar eta idazle erdaldunen inguratik hasi dira euskalgaiez erdarazko CD-ROMak. Garaiz mugituz gero traineru batzuk aurreratzeko bidea izan daiteke. (Ez dago eskubiderik Eusko Jaurlaritza Word 6.0 eta gisakoekin egiten ari dena egiteko. Argazkia atera eta merkatuan ageri cz)*
- *Beste aukera bat (hori duk hori topiko indarra)*

Liburu elektronikoa desafiotzat daukatenak:

- *Desafioa eta oraingoz falazia ere bai. Euskeraren presentzia diluitzeko arriskua dagoelako*
- *Desafio osagarria. Uste dut, liburuari ez diola lekurik harrapatuko: liburuan batek bilatzen duen zera integrala ezin emanen dio liburu elektronikoak, baina bai osatzeko aukera*

  Aldaketa guztiak dakarte beren arriskua
- *Aukera paregabea azterketa literariorako. Irakurketa normalerako, ordea, ia alferrikakoa. Ez da panazea izango*
- *Aurre egin beharko zaio horri ere, zailtasunak izango dituen arren*
- *Aurrerakuntza teknikoak onura dira*
- *Berrikuntza gehientsuenak bezalaxe desafioa, eta horren barne aukera, arriskua, heriotza, eta abar daude*
- *Beste hizkuntzatan eta apurka-apurka (eskoletan batez ere) sartu egingo deluko. Buliagurria izango da irakaskuntzan*
- *Beste hizkuntzetan izango dena: pausoka egin beharreko berrikuntza. Oso geldia, hori bai*

- *Beste jarrera batera oituak gagozelako*
- *Bide arrunta ibili barik, trokabidea izan daitekelako*
- *Bidea egin barik dago, baina derrigorrezkoa dalako*
- *Daitekeeena da. Teknikak ez nau batere bildurtzen, bai ordea xarmatzen, irudimena aniztu dezakeen neurrian*
- *Datorren denboretan ez dagoelako hori baztertzerik*
- *Dema horri ere ekin behar zaio baina beldurrik gabe. Liburua ez da desagertuko. Osagarriak dira.*
- *Desafio "normal" bat. Dena den, ez daukat etorkizunaren aurre-ikuspegi garbirik*
- *Desafioa hor dago; aurre egin beste erremediorik ez da geratzen*
- *Esperientzia ezak, noraeza dakar. Baina, saioren bat egin beharko litzateke*
- *Etorkizuna beti ere delako desafioa*
- *Euskaldun jendearen buru-alferkeriagatik*
- *Euskarri berriei egokitzen jakin beharra dago. Hauek oso aldaketa sakona eragingo dute, agian euskarri tradizionalak (papera) bazterrarazteraino*
- *Euskeraz erabiltzen ere, eta zaintzen, ikasi beharko delako*
- *Ez dakigu oraindik zer ondorio izango duen*
- *Ezinbestekoa da, baina baita ere arriskua suposatzen du*
- *Ezingo da ekidin liburu mota hori. Desafio bezala hartzen bada hobe*
- *Gero eta esparru handiagoa bereganatuko duelako liburu idatziaren kaltetan*
- *Gure produkzioa zabaltzeko beste modu bat delako*
- *Haundiek ia bakarrik egin dezaketelako*
- *Hizkuntza (euskara) normalizazio osora iritsi ez delako oraindik*
- *Hor dago, itsuarena egitea ez litzateke bidezkoa izango*
- *Hor dagoen arrisku itzuriezinari erronka deitzen zaio*
- *Idazleari nahiz irakurleari ohitura eta burueza aldatzea eskatzen dio*
- *Indar gutxi dugu bai; eta selektiboki aukeratu beharko ditugu eremuak, irentsi ez gaitzaten*
- *Liburua gauza bat da. Liburua elektronika beste bat eta masarentzat zailagoa*
- *Liburuak poltxikoan eramateko eran argitaratzera bultzatuko gaitu; liburuak oraindik badu erosotasunik*
- *Liburuaren zabalbide bat baita*
- *Munduan dago, eta gu ere munduan gaude. Nonbait egokitu beharko*



ODRIOZOLA, JOSE MANUEL
(Altzo, 1948)

- *Landu dezagun (1977)*
- *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza (1992)*
- *Soziolinguistikaren atarian (1993)*

- *Oraindik ez, baina laster lehiakide izan daitekeelako*
- *Printzipioz jarrera baikorra izan behar*
- *Teknika berrietara egokitzen asmatuz gero, aukera gehiago. Eta kontrara*
- *Teknologia berriek aurrekontu handiagoak eskatzen dituzte eta esku gutxiagotan kontzentratzen dira, baina hor ere egon behar dugu, Euskal Herria biziko bada*
- *Zuhurtasuna, energia, dedikazioa eta dirua horretan ere inbertitu behar direlako*

Liburu elektronikoa arriskutzat daukatenak:

- *Heriotza ez da izango edozein modutara ere jendea ez baita irakurtzailea*
- *Liburu arruntaren aldeko oreka lortu arte da arriskua*
- *Lilura inozo bat izan litekeelako, euskarria edukia bera baino garrantzizkoago bihur dezakegulako*
- *Medio eta birmoldaketa handia exijitzen duelako*
- *Zer-nork ala zerk nor - hori argi ez dagoenean arriskua sortzen da*

Liburu elektronikoan heriotza ikusten dutenak:

- *Arrisku handi bat delako*
- *Hunkiaren sentsazioaren heriotza begiek ordaintzen ez duena...*
- *"Internet" baduzue gogoan, ba ahal dakizue papera kasatuko dela ordenagailu bat dagon etxetarik*

"Besterik" erantzun dutenak:

- *Ez dakit zer den "liburu elektronikoa", baina susmo txarra hartzen diot. Nik liburu inprimatua maite dut. Dena den, kultura zabaltzeko balio duen edozer da on*
- *Ez diot biderik ikusten oraingoz*
- *Ez dut horretan sinesten*
- *Ez dut uste eragin larregi izango duenik*
- *Ezagutu arte ez dakit*
- *Ideia izpirik ez, hots hobeki erranik interesik ez dut*
- *Liburu elektronikoaz nahikoa eszeptikoa naiz. Nik oraingoz nahiago dut paperezkoaz arduratu... Gero gerokoak*
- *Oraingoz, ez aukera paregabea, ez desafioa, ez arriskua eta ez heriotza*
- *Teknikak ez nau batere izutzen, gizonaren gogoak baino*
- *Zentzugabekeria. Niri neuri ez zait batere gustatzen. Jende gehienak zer uste duen ikusi beharko*

Prestakuntza

Prest al dago euskal kulturako jendea zurrunbilo horretan murgildu eta igari egiteko? Prest, hots, prestaturik al dago?

Hirutik batek ez du deus erantzuten, ez dakielako edo ez duelako nahi. Idazleek konfiantza gehien bere kolektiboan dute, eta gutxien irakurlerian. Idazleak prestaturik daudela diote % 36,4k. Gutxixeago dira editoreei konfiantza bera egiten dietenak (% 30,4) eta irakurlearengan konfiantza dutenak % 23,4 dira bakarrik. Irakurlea ez dagoela prest diotenak, ordea, % 33,2. Idazlearen eta editorearen kasuetan ez daudela prest ziurtasunez diotenak % 17-18 dira, ez gehiago. Editoreen kasuan batez ere, idazle asko dira prestatuta daudela baieztatzera ausartzen ez direnak; ez daudela prestatuta esatera ere ez dira ausartzen, ordea.

Prestaturik al dago etorkizunari buruz?

	Erantzunik ez	Bai	Ez	Besterik
Euskal idazlea	35,9	36,4	17,4	10,3
Euskal editorea	44,0	30,4	17,9	7,6
Euskal irakurlea	34,8	23,4	33,2	8,2


Baiezkoan zein ezezkoan, zer egin?

Kasu bakoitzari bere soluzioa ematen saiatu da idazlea. Aurkez ditzagun ordena berean, beti bezala eman duten erantzunen ardatzean:

1. Euskal idazlea

Prestaturik dagoela diotenenen proposamenak:

- *Anbiziotsuak izan behar dugu, horrek baizik ez gaitu salbatuko*
- *Asko behintzat bai. Elkartu eta produzitu baina denetik, ez literatura bakarrik*
- *Bai, potentzialki, baina eskolak edo taldeak antolatu behar dira frankotiradoretzan ez jarraitzeko*
- *Bere balioaren zama onartu eta kontsekuente izan*
- *Bizitzak berak behartzen zaitu aurrerabideak onartzera*
- *Erdalduna bezainbeste*



OLAIZOLA, JESUS MARI "TXILIKU" (Zarautz, 1951)

- *Zozoa eta biok (1982)*
- *Kaltxaberde, Tturku eta Gotzon (1984)*
- *Papartxuri eta biboteluxe (1985)*
- *Xaxarko (1986)*
- *Zazpi egun ditu asteak (1986)*
- *Zenbakiak ikasi ditut (1986)*
- *Muxi eta Puxi (1987)*
- *Zazpi gelako hodeietako etxea (1987)*
- *Hilabeteen izenak ezagutzen ditut (1988)*
- *Letrak ezagutzen ditut (1988)*
- *Akerra ikusi dugu baratzean jaten (1988)*
- *Mutiko ausarta eta neska panpoxa (1989)*
- *2.061: antzinako kronikak (1990)*
- *Ausarta eta Panpoxa Tartaloen basoan (1991)*
- *Eskuko behatzen izenak (1991)*
- *Ipuinetako izakiak (1991)*
- *Xenpelarren apustua (1991)*
- *Katixa eta Kroko (1992)*
- *Indianoa (1993)*
- *Agure jakagorria (1995)*
- *Hiru lagun (1995)*



OLARIAGA, ANTTON (Usurbil, 1946)

- *Zozo dantza. Egunkaria (1974)*
- *Beleko eta biak (1975)*
- *Eta abar...Egunkaria (1975)*
- *Hormasprayko (1977)*
- *Zakilixut. 1 (1979)*
- *Zakilixut. 2 (1979)*
- *Zakilixut. Aurreak erakusten du dantzatzen atzia (1988)*

- *Esijenteago izan bere buruarekin*
- *Ez dago milagrorik egiterik. Besteek egiten dutena gutxi gorabehera. Ahalik eta ongien idatzi*
- *Ez dakit, baina Euskal Herri zabal eta konplexu baterako idatzi beharko du*
- *Halere, erdal hizkuntzetarako itzulpenak beharrezkoak izango ditu*
- *Horretan segi, eta kontzientzia hartu*
- *Ia denok darabilgu ordenagailua. Bestalde, lehen gai nagusia "garuna" da eta hori ez da aldatuko*
- *Idazten segi. Gehiago kobratzea eskatu*
- *Ikuspegiak batu, hizkuntza zaharberritu*
- *Internet sarean sartzeko telefono fakturak esponsorizatu*
- *Jo aintzina, beti hobeki egiteko xede zinarekin aurrera*
- *Kalitate ona euki eta prestatu azpiegitura bat ordenagailuaren mendean*
- *Lanari gogor eutsi*
- *Literatura (fikzioa), eta edozer*
- *Nork bere buruarekin zintzoki jokatu*
- *Orduak sartu eta orduak sartu*
- *Orohar, mundua zein norabidetara doan hoberen ikusten dutenak geu garelako*
- *Tematika guztietara hedatu behar da euskal idazlegoa*
- *Umetatik hasi bada*
- *Zenbaitek profesionalizatzeko bidea hartu beharko lukete*

Ez dagoela prestaturik diotenen proposamenak:

- *Ez dakit, baina neure ustez, ez*
- *Aldizkariak, guztiek onartu eta libreak falta dira eztabaidarako*
- *Arriskatu*
- *Bere burua jantzi*
- *Bere eskubideen kontzientzia zorroztu behar du*
- *Daraman bidetik jarraitzen ba du. Erriko euskerara jo*
- *Desafioei aurre egin, entsaiatuz*
- *Desanimatuta dago*

- *Elkartean sartu, elkarri aipatu idazteko on diren gaiak edo temak, elkar akuilatu, bakoitzak bere asmoa agertu ondoan*
- *Erakunde publikoen lana da*
- *Etorkizuna, neurri handi batean, audiobisualetan ikusten dut. Gidoilaritzan trebatu beharra dago*
- *Euskal intelektualitatearen txapelketa nagusia jokatzea utzi*
- *Idatzi*
- *Idazlea ez dago inoiz prestatua; bide berri-zaharrak jorratzea da bere ardura. Zer egin? Ardura hartu*
- *Idazleak bildu zonbait gisaz eta gogoeta barnekorrak ibili*
- *Idazten dena (normala) diru-iturri izango dela zihurtatu*
- *Lehen baino askoz prestatuago hala ere. Idazle askok bestetan idazten dena ezagutzen duela sumatzen da. Behar beharrezkoa da hori*
- *Liburu elektronikoa ez da idatzia pantailan ematea; pentsamendua emateko modu berria dakar*
- *Memento historikoa jakin bizitzen, orain eta hemen. Orainari jakin erantzuten*
- *Merkatuan borrokan jarraitu*
- *Pentsio-plan bat egin. Bere burua bota (broma huen)*
- *Planak egiten hasi*

"Besterik" erantzun dutenen proposamenak:

- *Antolatu, lehengoa ezagutuz gaurkoaz jabetuz, etorkizunera begira jarriz*
- *Desafio hori ondo neurtu lagunekin eta gero gainditu*
- *Idazle kontzientzia handiago izan*
- *Nork bere euskara finkatzen bukatu, onartu eta irudimenari jarraitu*
- *Profesional mailan dabilenak ez du, nire ustez, egunera egoteko arazorik. Jolasean gabiltzanok jolasean jarraituko dugu*
- *Suposatzen dut batzuk bai, prestaturik egongo dira/gaude, beste batzuk ordea, ez*
- *Idatz dezagun (baina ondo)*
- *Sobera. Teknikaz kezka gutxiago, eta muñetako zolda garbitzen ikasi beharko luke. Barka zenukete, zenuke: zuk Joanmari*
- *"Euskal Idazlea" ez da existitzen. Bakoitza mundu bat da. Beraz, batzuk badaude, zalantza barik. Beste batzuk ez dute inoiz aldatuko*



OLARRA, XABIER (Tolosa, 1953)

- *Asteazkenez amaitu zen astea (1989)*



OLASAGARRE, JUANJO (Arbizu, 1963)

- Gaupasak (1991)

Ez dakit etorkizunari kontzeptu demagogikoa deritzot, honetan eta denean

- *Ez dakit zer ekarriko digun geroak, etc., hortan, ezta ere prestaturik gauden ala ez, eta, are gutxiago, zer egin behar dugun.*
- *Batzuk oso ondo, beste batzuk oso gaizki*
- *Batzuk oso ondo, beste batzuk oso gaizki*
- *Batzuk prestatuta egongo dira, beste batzuk ez. Baina nire ikuspegitik ez dago prestakuntza handiegiren beharrik ere. Ez gizarteko beste alor batzuetan baino gehiago, behintzat. Idazleak idatzi egin behar du, ideia brillanteak sortzeko ordenagailurik ez dute oraindik atera, nik dakidanez, eta hortik aurrerako prestakuntza guztiak norberarenak dira, eta ez prexixo norbera idazlea den neurrian... gaur egungo pertsona den neurrian baizik*
- *Erantzuna zaila da; intenbidea politikoa dela esango nuke*
- *Segun eta zein. Gainera, idazleak ere ez daki zer dakarkion etorkizunak. Besteok ere ez: bestela ez genioke "etorkizuna" esango zehaztasunik gabe*

2. Euskal editorea

Prestaturik dagoela diotenen proposamenak:

- *Ari dira*
- *Elkartasun gehiago. Elkar lana*
- *Euskal idazlearen interesak hobeto defendatu eta gutxiago ustiatu*
- *Ez denak. Asko txikiegi eta artesanalak dira, baina kontzienteenak etengabe ari dira gaurkotzen, desafioari eusteko*
- *Gehiago arriskatu, aukera onak egin ondoren*
- *Idazleekiko harremana sendotu*

  Indarrak bildu eta irudimena landu
- *Jarrai argitaratzen*
- *Kalitatea zaindu*
- *Kalitatearen bidea. Banaketa zaindu (Porrot ez egiteko)*
- *Kanpotik datorkigun enpresaren aurrean bertokoak sendotu behar dira arlo finantzarioan*
- *Konpetentzia haundia sartu da eta prestatu beharra daukala deritzot*
- *Konpetibitateak berak eta erderen erasoak gaurkotarazi egin dituzte editoreak*

- *Laguntza publikoak gehituz*
- *Liburuak txukun eta zuzen idatzita egoteaz gain, liburuen bilbe, irudimen-maila eta argumentazioari ere kasu gehiago egitea*
- *Promozioa hobetu, teknologia berriei arreta jarri*
- *Zekenkeriak alde batera utzirik, hartu arriskuak lantzean behin*
- *Zentzuzko inbertsioak, teknologia berrietan*
- *Zer datorren ikusteko adi egon eta sasoiz erantzun. Besterik ez*


Ez dagoela prestaturik diotenen proposamenak:

- *Azpiegiturak sortu, lagundu eta sendotu*
- *Bat edo beste dago prest, baina denok beharko dugu desafioaren neurria hartu*
- *Batzuk oso atzeratuta daude, batez ere beren ikus-moldea aldatu behar dute*
- *Editoreak diru ederrik egiten du idazleen bizkar*
- *Enpresa indartsuagoak eratu*
- *Etorriko zaie konpetentzia, orduan izango dira komediak...*
- *Euskarazko irakurgaien alde konbertitu*
- *Ez da merkatu konpetitiboa, erakundeek eta kazetari batzuk baino: merkatua askatu behar da*
- *Gehiago ireki? Autoebaluaketak etengabe egitea. Jenero literario gehiago ukitu*
- *Harremanak, ausardia eta buru argia eskatu*
- *Horiek ere behar lukete elkartu eta elkar lagundu, bereziki erakunde ofizialen aurrean, laguntza gehiagoren eskatzeko*
- *Idazlearen dirurik eza dugu gaitza. Eusko Erakundeetatik bi akademien giroko idazkientzat eraspen eta laguntza berdina lortu*
- *Ikasi*
- *Ikusmira zabalagoa izan beharko luke, desafioei azkarrago erantzuteko*
- *Lehen esan dudan gauza bera, planifikatu*
- *Merkatu berriak sortu*
- *Pentsio-plan bat egin. Bere burua bota (broma huen)*
- *Teknikoki prestatu gabe daude; inertzia mentalak gainditu behar*
- *Uler dezala Euskal Literatura ez dela Argitaletxegintza Historia, beraiek Literaturaren parte bat besterik ez dira-eta*



OLASAGASTI, ENEKO (Donostia)

- Gauzurtz baten izenak asmatzen (1985)



OLEA, INOZENTZIO (Zerain, 1921)

- *Goierriko Lorak (1970)*
- *Otemotxeko arnasa (1984)*

- *Zenbait lanetarako elkartu bertako/kanpoko argitaletxeak. Planifikazio bat uste batzuetarako*

"Besterik" erantzun dutenen proposamenak:

- *"Euskal editorea" ez da existitzen. Bakoitza mundu bat da. Beraz, batzuk badaude, zalantza barik. Beste batzuk ez dute inoiz aldatuko*
- *Gauza berriak probatu*
- *Suposatzen dut batzuk bai, prestaturik egongo dira/gaude, beste batzuk ordea, ez*
- *Gutxi batzuk, bai. Besteentzat ez dakit etorkizunak zer ekar dezakeen*
- *Informatika munduan beharko dute sartu; etorkizuneko liburuak, liburu elektronikoa izango baitira... ala ez da libururik izango*
- *Irakurlegoaren esku dago*
- *Kanpoko editoreen aurka batasun bat hartu beharko lukete, federazio bat-edo, eta Administrazioak indar eman beharko lioke*
- *Sobera. Lasai, ez dira atzera geldituko eta! Lasai, lasai, Joanmari*
- *Zein editore?*

3. Euskal irakurlea

Prestaturik dagoela diotenen proposamenak:

- *Emaitza onak argitaratu. Irakurketaren didaktika zabaldu*
- *Errezkerian ez erori, hizkuntzan trebatu*
- *Euskal irakurlea izan bada, eta zenbaki haundi xamarrean. Ondo da Euskal irakurlea "irakurle" da lehenik, edozein hizkuntzatan, eta bigarren mailan "euskal". Inguruko hizkuntzetan sor litezkeen ohitura berriak*
- *Euskarazko produkzioa hobetuz eta medietan gehiago aipatuz (publizitatea)*
- *Gero eta handiagoa den exijentzi mailari erantzun behar dio liburugintzak*
- *Gozatu*
- *Irakur dezagun*
- *Irakurlea ez dena irakurle bihurtzen saiatu*
- *Irakurleak espero eta nahi duena, horixe eskaini*

- *Komunikabideak erabiliz gauza berriak ezagutzera eman*
- *Ugaritu*


Ez dagoela prestaturik diotenen proposamenak:

- *Argitu, astindu, lehiatu, lagundu ahal oroz*
- *Baietz sinetsi nahi dut, halere*
- *Bere buruari gehiago eskatu, euskal idazleari gehiago ere eskatu ahal izateko*
- *Biblioteka publikoetan behar luke ukan kontseilu edo aholku zerbait, liburuen aukeratzean. Halaber liburudendetan*
- *Bizitzeko behar dituen testuak eskuratzeko posibilitatea eman behar zaio. Orain ikasten duen jendeak bakarrik irakurtzen du*
- *Egarria eman*
- *Eskolan, hedabideetan, bestetan lan handia dago egiteko. Baina beti ere gustora lana eraginez*
- *Eskolatik hasi, kanpainak eraiki, etab., etab.*
- *Eskolatu, informatu, idazlari eta irakurleen arteko kezkak komunikatu*
- *Espainiaren kultura mundu txabakanotik gora jaso behar da, mass media eta liburuen laguntzaz*
- *Estankaturik daude, dinosaurioturik, gazte jende berria gehiago irakurri behar da*
- *Euskal komunikabideen indartzea, euskara hedatu eta indartuko duen arloa bait da*
- *Euskal literaturaren estiloa/gaiak aldatu*
- *Euskaraz gehiago irakurri*
- *Ez da erraza irakurtzeko gogoa suspertzea*
- *Ez du irakurtzen ia*
- *Ez hartu Espainiako eredua, promozioari dagokionean soilik, baizik eta produkzioarenean*
- *Gehiago alfabetatu beharra dago euskaraz. Euskerarekiko gozamen estetikoa garatzea, indartzea*
- *Gustua landu behar da txikitandik*
- *Gutxiengoa bai. Zintzurretik eta bazter guztietan euskarazkoa eskaini jendeari. Promozioa irratian, telebistan, jo ta su oka egin arte*
- *Hezi*



OLMO, KARLOS DEL
(Barakaldo, 1958)

- *Innis Fodhia: amonaren ipuin irlandarrak (1995)*



ONAINDIA, MARIO "JON LARIZ" (Bilbo, 1948)

- *Ez, ez, ez, Konstituzio hori ez. No, no, no, esa Constitución, no (1978)*
- *Gau ipuiak (1983)*
- *Grand Placen aurkituko gara (1983)*
- *Gilen Garateako batxilerra (1984)*
- *Del Rinconen motorra (1985)*
- *Olagarroa (1987)*
- *Gela debekatua (1988)*

- *Idazle-irakurleen arteko amildegia zabaltzen ari dela uste dut. Euskaldunberriei begiratu behar zaie gehiago.*
- *Idazleari irakurlegoa axola ez zaionez gero edo irakurlegotik itxi edo urrundu denez, bizkarra*
- *Ikasi*
- *Irakurkerta bultzatu eskolatik, telebistatik eta gainerako hedabideetatik*
- *Irakurketa lineal edo saltokakotik nabigazioko aldatzeak heziketa eskatzen*
- *Irakurketa-zaletasuna gehitu nunahi ikastetxeetan, batez ere*
- *Irakurle gehiago sortu*
- *Kopuruz eta mailaz hobetu*
- *Liburuzaletasunean hezi eskolatik, etxetik...*
- *Literatur itzulpenak irakurri*
- *Nik uste liburuak editatu egiten direla, baina ez jakin zer, zenbat... irakurten den, zer diren irakurleak...*
- *Prozesu honetan gutxien garatutakoa irakurlegoa da. Irakurzaletasuna bultzatzea ezinbestekoa da*
- *Trebatu*
- *Ugaritzen ez den heinean gorria dugu*

"Besterik" crantzun dutenen proposamenak:

- *Arazoa euskalduna izan eta irakurlea ez den horrekin daukagu*
- *Burua zabaldu*
- *Irakurle kopurua haunditu*
- *Erdalduna bezainbeste*
- *"Euskal irakurlea" ez da existitzen. Bakoitza mundu bat da. Beraz, batzuk badaude, zalantza barik. Beste batzuk ez dute inoiz aldatuko*
- *Ez dakit zer ekarriko digun geroak, etc., hortan, ezta ere prestaturik gauden ala ez, eta, are gutxiago, zer egin behar dugun.*
- *Gazteak prestatuagoak daude*
- *Gustuko hiru lau gauza hartu, eta teknikarik erosoenean, patxadan gozatu*
- *Irakurlea prestaturik egongo da, irakurlearen egiazko beharrak betetzeko idazle-editoreak prestaturik badaude*

- *Irakurlegoa handitu eta zabaldu. Hortxe dugu koska, nagiak astindu eta euskaraz irakurtzera bultzatu*
- *Irrati eta telebistan soilki gipuzkera ta bizkaiera erabiliz, agian zaletu egingo litzake euskeraz irakurtzera*
- *Sinistu zertan ari garen norbera bere arloan*
- *Unibersitate euskaldunak, benetan ordea, ez formalki bakarrik*

XXI. mendeko erronkak

Gai librean doa saio hau. Galdera irekia egin genien, nahi zuenak nahi zuen adarretik hel ziezaion.

Hona galdera: "XXI. mendean zeintzuk dira euskal liburuaren desafio nagusiak?".


Eta hona erantzunak, alfabetikoki ordenatuak:

- *a) Komunikazioaren mundu berriari egokitzea; b) Kultur alor guztiak hartzea*
- *Antzerkia, saioa*
- *Arlo berri guztietan sartzea, irakurlegoa bereganatzea eta bere inguruen ezagutaraztea*
- *Atzokotasuna eta gaurkotasuna bat egitea*
- *Batez ere, liburu mota berrietara egokitzea, zuek goian "liburu elektronikoa" deitu duzuen horretara, alegia*
- *Bere lekua aurkitzea ingurune eleanitzean*
- *Beste edozein hizkuntzatako liburuarenak berak*
- *Beste hizkuntzetako liburuen konpetentzia. Euskaldunen hizkuntz-menderatze eskasa*
- *Beste hizkuntzetako produkzioaren maila lortzea*
- *Betikoak: idazle asko eta irakurle gehiago izatea. Teknologia berriek ezin dute ohikoa zapuztu*
- *Betikoak: zentzua, zentzua, zentzua, burua, gogoa, bihotza, grina, sena...*
- *Datorren mendean ere, euskal liburua gure hizkuntzaren normalizazioari lotuta egongo da*
- *Denak*



ORMAZABAL, JOXANTONIO (Zegama, 1948)

- *Esaera zaharrak eta txiste berriak (1981)*
- *Pernando Amezketarra (1981)*
- *Kaskarintxo (1982)**
- *Margolin (1983)*
- *Kotti (1984)*
- *Patxibusa (1985)*
- *Maripertxenta (1986)*
- *Auto, asto, tren... (1987)*
- *Honela bizi naiz ni (1987)*
- *Kaiolatik mendira (1987)*
- *Kittano (1988)*
- *Igarkizunak (1990)*
- *Txisteak (1990)*
- *Saturna (1992)*
- *Hitzak jostailu (1994)*
- *Lazkao Txiki (1995)*




OTAMENDI, JOSE LUIS
(Azpeitia, 1959)

- *Egunsenti biluzia (1980)*
- *Azken undinaren kaira (1983)*
- *Zainetan murrailak (1987)*
- *Poza eta gero (1990)*
- *Lur bat zure minari (1995)*


- *Ekoiztutakoa erraz etxeratzea. "Círculo de Lectores" antzerakoa behar da*
- *Esparru mugatua, irakurlego falta. Jende asko oinarrizko alfabetakuntza gabe...*
- *Etorkizuna lotuta dago irakurleen kopuru eta kulturarekin*
- *Europar liburu, mundutar liburu... izatea, liburu on azken finean, ranking horretan euskaldunok aurreneko postuetan geure burua ikusiz*
- *Europatartasunaren izenean, sasi-unibertsaltasun antzuan erortzea, eta gure artean batuago ez jokatzea*
- *Euskal Herriaren independentziarekin lotuta dago bere etorkizuna*
- *Euskal literaturaz gainera beste arlo batzuetara ere zabaltzea*
- *Euskal obrak eta irakurleak areagotzea*
- *Euskaldunberriak euskal irakurzale bihurtzea*
- *Euskara bera bezala bizirik irautea*
- *Euskara erraza eta lijerra asmatzea*
- *Euskara literarioa normalizatzeko adina aberasteko politika*
- *Euskarak berak dituenak (irakurle/hiztun-kopurua, kalitatea etab.)*
- *Euskarak gizartean hartzen duen indarrak baldintzatua izango da*
- *Euskararen beraren desafioarekin lotuta ikusten dut nik euskal liburuarena, eta euskararen desafioa guztiongana lehenbailehen zabaltzea da.*
- *Euskararen menpetasuna hizkuntza nagusien aurrean*
- *Euskararen normalizazioa*
- *Funtzionala izatea; elektronikaren eta "on line" sistematan presente egotea*
- *Gai batzutan gehiago argitaratzea*
- *Gaur egungoak: nazioarteko merkatua eta ideien gatazkan sartu*
- *Gaiak zabaltzea; normaltasuna eskuratzea*
- *Gutxienez orain arte bezala jarraitzea eta zaharkituta ez geratzea*
- *Hemen ezezik nazioartean ere konkurrentea izateko ahalmena lortzea*
- *Herriaren alde segitzea, libertate osoan. "Pentsamendu Bakunaren" aurka.*
- *Hizkuntza gauza gorenak adierazteko tresna, eta ez helburu, dela sinestea*
- *Hizkuntza orotan indartzea*
- Hizkuntzaren bizitzari dagozkionak berak; gainerako guztia, bigarren mailakoa da

- Hizkuntzaren kalitatea
- *Hiztun gutxientzako literatura ONA eta produkzio intelektual indartsua burutu daitekeela onartu*
- *Idazle- eta irakurle-kopuruak handitzea, kalitatea hobetzea, tematika zabaltzea*
- *Idaztea eta argitaratzea*
- *Informazio-sare eta elektronika-baliabide berriak erabiltzen jakitea*
- *Inguratzen duten hizkuntza handien aurrean, ez amore ematea*
- *Inguruko literatura "handietara" aldatu (itzuli) eta maila emateko adinako kalitatea sendotzea*
- *Irakaskuntzan nabarituko direla uste dut aldaketa nagusienak, ordenadoreen bidez sartuko diren aldaketak nagusiki. Dena den, atrebentzia berarengan duen idazle-sortzaile orok izango du aukera hitzak irudi biziz adornatu eta CD-ROM baten presentatzeko aukera berria*
- *Irakurlerik eza*
- *Irakurgarriak izatea: elhaire gogarrian idatziak gai dibertigarrizkoaz mamituak, gogo eta bihotz pilpiragarriak*
- *Irakurle eta itzulpen kopuruaren hedapena*
- *Irakurle gehiagoren biltzea, telebistaren eta informatikaren erronkari buru emaiteko*
- *Irakurle gehiagorengana iritsi eta irakurle horien interesari eustea. Literatura bizia izatea azken batean*
- *Irakurleak bilatzea; diru-iturri normal izan dadin lortzea*
- *Irakurleak ugaritzea, kalitatea hobetzea eta kanpo proiekzioa (itzulpenak)*
- *Irakurlearen aldetik telebistaren eragin guztizkoa, irakurketaren guraria ezabatuz*
- *Irakurleari eustea eta irakurleak zabaltzea*
- *Irakurlego propioa izatea; arloren baten jakintsu den idazlea izatea; kalitate/prezioan konpetitibo izatea*
- *Irakurlego zabalagoari iristea*
- *Irakurlegoa bereganatzea, irakurle heldua batik bat, merkatu autonomia lortzea*
- *Irakurlegoa egarritu. Euskera bera sendotu eta tinkotu*
- *Irakurlegoa lortzea (ez apoio politikoak, ideologikoak)*
- *Irakurlegoari eustea, beste hizkuntzetara zabaltzea*



OTEGI, KARLOS (Donostia, 1940)

- Pertsonaia euskal nobelagintzan (1977)



PAGOLA, MANEX (Landibarren, 1941)

- *Biba turisma! (1978)*
- *Biziaren altzotik... (80 kantuen bilduma) (1987)*

- *Irakurleria zabaldu eta idazlearen bizimodua dignifikatu*
- *Irakurlezaletasuna sustatzea*
- *Irautea*
- *Jakintzaren alor guztietara zabaldu, gaiei dagokienez. Euskal Herriko bazterretara hedatu, irakurlegoa gizenduz*
- *Jenero arinetan, aldizkarietan dugu erronka nagusia alde batetik era bestetik liburu unibertsitarioan*
- *Jenero literario gehiago ukitzea: Entsaioa, antzerkia, denborapasak...*
- *Kalitate-Sorkuntza*
- *Kalitatea eta irakurlegoaren hazitzea eta hezitzea*
- *Kalitatea, zabalkundea, prezioak*

  Kalitatea. Irakurlearengana iristea. Telebista eta ordenagailuen mundua bezain interesgarri azaltzea
- *Kalitatea: Idazleena eta obrena*
- *Kalitatean irabaztea. Ikusentzunezkoetarako zubiak aurkitzea. Itzulpena...*
- *Kalitateari eustea eta itzulpenak lanerako nahiz kanporako egitea*
- *Kalitatezko produkzio orekatua lortzea, irakurle kopurua handituz era berean*
- *Liburuaren, idazlea denaren kalitatea hobetzea, irakurle gehiago lortzea*
- *Literatur-prosa: eleberrigintza eta saiogintza*
- *Literaturaren ikuspegitik kalitatea. Formato aldetik, informatikatik etorriko diren berrikuntzetara moldatzea*
- *Mamiz liburu onak produzitzea*
- *Mass Medien presio aurrean superbizitzea*
- *Media berrien zaparrada ikaragarrian beren burua ohartarazteko gauza izatea*
- *Mende horretako munduko liburugintza normalizatuko partaide osoa izatea*
- *Merkatua izatea, honetarako gai interesgarriak jorratuz*
- *Merkatua zabaltzea. Instituzioek proiektu nazionala burutzea*
- *Merkatua. EHko elebidunok aukera dugu erdararen baterako eta aukerak galtzen gaitu. Ikusentzunezkoak*
- *Multimediak eta nagusiki irudia erabiliko duten komunikabideak. Giro erdalduna*

- *Mundu honek itzulinguruka jarraitzea*
- *Mundu-literaturaren maila berean jartzea*
- *Munduko kulturan buruz buru sartzea*
- *Nahikoa lan izango du orain artekoari eusten*
- *Narrazioa eta bulgarizazioko liburua eta erdarara itzulpenak egitea*
- *Orain arte izan den antzera, merkatu txikia, irakurle gutxi; laguntza publikoetatik zintzilik egon gabe, bere buruz aurrera irten beharra*
- *Oraindik ere, euskaldungoa gehitzea, eta produktua merketzea*
- *Oraingo berdintsuak. Beti izango da ameskeria eder bat lau katuk erabiltzen duten hizkuntza batean idaztea*
- *Orohar liburuari dagozkionak, batik bat CD-ROM eta ondorengo formatoen aurrean gainbizitzeko erronka*
- *Perfekzionamenduak*
- *Presa, modak, konpetentzia... Horien morroi hutsak ez izatea*
- *Publikoa (euskarri teknikoak edozein izanda ere)*
- *Sail guztiak landu. Finantzabideak esleitu*
- *Teknologia berrietara egokitu eta bestez ere, saltzea, errentagarri den produktu bihurtzea*
- *Teknologiekin baino lotuago dago gure arazo zaharrekin: herri-kontzientzia garatu, hizkuntza prestatu, gure maila intelektuala goratu, gizartearekin hobeto lotu, irakurtzeko ohiturak bultzatu...*
- *Telebistaren garrantzi haundiegia. Erdaraz sobera egitea. Egunero orduerdi bat behar genuke hartu euskaraz irakurtzeko eta bi ordu hobe*
- *Txikitasunaren ondorioak*
- *XX. mendekoaz ahaztu -lar ahaztu barik bada ere- eta ingurura begiratzea*



PAGOLA, ROSA MIREN (Iruñea, 1948)

- *Euskalkiz euskalki (1984)*
- *Euskal atlas linguistikorako ekarria (1990)*
- *Dialektologiaren Atarian (1991)*
- *Euskal fonetika Nafarroan. (1-2) (1993)*
- *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak. (1-6) (1994)*

Euskaltzaindiari eskariak

Duela hogei urteko inkestan, kultur saltsa guztietan egon behar zuen presente Euskaltzaindiak, idazleen iritzira.

Oraingo inkestan, idazle gisa Euskaltzaindiari eskatzen dioten guztiak hizkuntz normalizazioarekin du zerikusia. Bitartean, erakunde politiko-administratiboak plazaratu dira, euskal kulturgintzan hainbat talde



PEILLEN, TXOMIN (Paris, 1932)

- *Gauaz ibiltzen dana (1967)*
  Itzal gorria (1972)
  Gatu beltza (1973)
- *Buffalo Bill-en abentura (1979)*
- *Errotaria errege (1979)*
- *Mirko Printzea (1979)*
- *Aldejezairia askatuta (1982)*
- *Altxorra eta altximia (1982)*
- *Animismua Zuberoan (1985)*
- *Aintza txerriari! (1986)*
- *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak (1986)*
- *Paristar euskaldun bat (ni... neu) (1987)*
- *Zuberoako itzal-argiak (euskarazko jakilegoak) (1988)*

eta egitura autonomizatu egin da. Hitz batean, euskalgintza ere normalizatu egin da, eta Euskaltzaindia bere lan propioan bakarrik hartzen da aintzat.


Kolore guztietako erantzunak irakur daitezke erantzunetan: bat Euskaltzaindiaren lanari txaloka eta aldamenean beste bat honen desagerpena eskatuz. Beste batzuk bere hizkuntz eredua auzitan jartzen dute: euskara batua, noski; baina baita ere beste puntu bat, eta da euskara garaikideari kasurik ez egitea.

Kexa gehienak prozedurari dagozkio. Hizkuntz erabakiak hartzeko modua eta zabaltzeko modua kritikatu ohi dira behin eta berriz.

Hona erantzunen selekzio bat. Zertan esanik ez da iritzi-sorta honek ez duela balio estatistikorik, hain zuzen ere errepikapenak kendu egin baititugu bertatik, ñabardurak errespetatu baditugu ere.

- *10 urtez arau aldaketarik ez egitea*
- *15 urteko gaztek iritsi ditzakete hartu erabaki berriak oro. Baina klaseak utzi dituztenetan zenbatek?*
- *a) Aintza handiagotan hartzea, arauak ematean, azken 25 urteotako autore hauen "tradizioa"*
- *Aldaketa gutxiago; arau zuhurrak; idazten dutenak kontutan hartu*
- *Arau bitxiez ez itotzea idazlea, behar den askatasuna errespetatuz*
- *Arau guztien bilduma. Baina honetarako ere pazientzia behar*
- *Arau tuntun gutxiago, arau garrantzitsu gehiago (hitz-elkarketan etab. aukera gutxiago utzi) eta emandakoak mantendu 30 bat urtean aldatu gabe*
- *Arauak behingoz finka ditzala eta filologoen txanda amaituz, literatuak eta egin ditzala euskaltzain*
- *Arauak eman baino lehenago ondorioak neurtu, behin eman eta gero, ahalik eta ongien eta zabalen jokatu arintasuna ahaztu gabe*
- *Arauak eman eta betetzea*
- *Arauak ematerakoan, aintzakotzago har gaitzala..., idazle klasikoak ez bagara ere, gure arbasoek baino dexente gehiago idatzi baitugu*
- *Arauak "funtsezkoak" ematea eta gehienez ere hiru urtean behin (beti aldatzen ibili gabe)*
- *Arauak lehenbailehen eta ahalik eta modu ziurrenez ematea. Badakit, dena den, ez da batere lan erraza*
- *Arauak, argiak eta garbiak*

- *Arauak, asko izan gabe, oso argiak eman ditzala*
- *Arauen dantza amaitzeko*
- *Argitaletxeetan lagun bana testuak beraiek zuzentzeko*
- *Ari den horretan jarraitzeko*
- *Arinagoa izatea. Eta "taldetxo"en presiotik kanpo egotea*
- *Arindu eta biziagotu ditzala bere lanak arauak tantoka datozkigu eta*
- *Askatasun gehiago. "Diezadakezue" bezalako aditzak aldatzea; Literatur idazle "zentzudun"en bat kide egitea*
- *Askoz lan gehiago. Bilera gutxiago eta lan zehatz gehiago*
- *Aspaldi honetan hobeto dabil. Dena den: erabakiak hartzen segitzea, koherentzian jokatzea (ez bilin-bolan) idazleei entzutea (ez bakarrik agindu); hizkuntz corpus-az gain, estatusaz ere arduratzea*
- *Aspalditik ez diot kasurik ez jaramonik egiten. Aspertua nago, hizkuntzalariez*
- *Azkar eta ondo erabakitzea eta erabakia txukun, bizkor eta argi zabaltzea*
- *Azkarrago jokatzea ahal duen neurrian. Behin hartutako erabakiak ez berriro aldatzea, irnoki jokatzea*
- *Azkatasuna. Gaur mugak ipintzea euskeraren kalterako da. Gogoratu irakurle zar asko dagola, gaurko joerarik onartzen ez dabenak*
- *Azken urteotako tradizioari (ikastola, UZEI, Elhuyar, idazleak...) begirune handiagoa. finkatuta dauden gauzak ez aldatzea: Erkidego, hogeita hamar...*
- *Barne-borrokatxoak utzi eta, gizarte-errealitatearekin lotuago, aurrerapauso handiagoak bizkorrago ematea normalizazio bidetik*
- *Batasun arauak betiko finkatzea*
- *Batasunean aurrera jarraitzea. Euskara errezagoa egitea*
- *Batasunean koherentzia eta ez noiznahiko aldaketak, gaur era bateko erabakia eta bihar alderantzikoa*
- *Batasunerako zintzilik daudenak lehenbailehen burutzea (hiztegia/gramatika). Hizkuntz corpusa bideratzea*
- *Batu gabeko hitz arrunt askoren hiztegia lehenbailehen argitaratzea ("zócalo", "piscolabis", "arma arrojadiza", "todo-terreno", e.a.)*
- *Bearrezkoak ez diran erdal itzak euskeratik kentzen saiatzeko*
- *Behin betiko finka ditzala arauak*
- *Behin betiko idatz-arau guztiak finkatzea*



PELOT, MAYI (Talence, 1947)

- *Biharko oroitzapenak (1985)*
- *Teleamarauna (1987)*

Euskaltzaindia

Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko diputatuen proposamenez, Eusko Ikaskuntzaren eraginez eta Hego Euskal Herriko lau diputazioen babespean, 1918. urtean jaio zen Euskaltzaindia. Urte horretako irailean izendatu ziren lehenengo lau euskaltzainak (R.M. Azkue, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio Urkijo) eta, Euskaltzaindia hamabi lagunek osatuko zutela finkatzen zuen arautegia onartu ondoren, 1919an izendatu ziren gainerako zortziak: Txomin Agirre, Pierre Broussain, J. Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande. Azkue izan zen lehenengo euskaltzainburua. Euskera agerkari ofiziala 1919an berean plazaratu zen.

Euskaltzaindiaren helburuak, euskara ikertu, arautu eta hiztegia biltzeaz gain, euskara idatziaren batasuna lortzea, euskararen erabilera mintzatua eta idatzia sustatzea eta euskaldunen hizkuntz eskubideak zaintzea dira. Lehen urteetako zereginen artean izan zituen, besteak beste, neologismoak onartzeko arauak ezartzea, euskararen fonetismoa aztertzea eta, euskararen erabilera sustatzeko helburuz, literatur lehiaketak eta bertsolari-txapelketak antolatzea, euskarazko irakaskuntza bultzatzea eta euskararen ezagutza neurtzeko azterketak egitea.

Gerra zibilaren ondoko urteetan Euskaltzaindiaren jarduna moteldu egin zen neurri handi batean, 1950etik aurrera, Federiko Krutwig euskaltzainaren eraginez bereziki, berriro suspertzen hasi zen arte. 1949an Krutwigek berak proposatuta euskaltzainen kopurua 16ra igo zen eta handik bost urtera Euskaltzaindia 24 kidek osatzea erabaki zen.

Euskera aldizkaria berriro argitaratzen hasi zen 1954an eta 1956tik aurrera biltzar irekiak egin zituen Euskaltzaindiak, hala nola Arantzazun (1956), Bilbon (1958), Lizarran (1959) eta Donostian (1961). Garrantzitsuena 1968an Arantzazun egindako biltzarra izan zen, euskara idatziaren batasunerako ildo nagusiak ezarri eta lehenengo arauak erabaki zirelako. Arantzazuko biltzarrean ezarritako oinarrien ondorioz arautuz joan zen, hurrengo urteetan, euskara batuaren hainbat alderdi: ortografia, deklinabidea eta aditza batez ere.

Urteak iraungo zituen eztabaida bizia ekarri zuten Arantzazuko erabakiek, Euskaltzaindiak markatutako bidearen aurka agertu baitziren asko. 1978. urtean sortutako Euskerazaintzan —«Euskeraren erri akademia»— bildu ziren Arantzazun hartutako bidearekin ados ez zeudenak. Lino Akesolo, euskaltzain oso aukeratua izanik aulkiari uko egina, izan zen Euskerazaintzako lehenengo burua.

Arantzazuko biltzarra egin eta hamar urtera beste biltzar bat egin zen Bergaran, ordura arteko bidearen balantzea egin eta batasunari begira beste hainbat erabaki hartzeko. Hurrengo biltzar nagusia 1994an egin zen Leioan: euskara idatziaren batasunaren aurrerabidea aztertzeaz gain euskara mintzatuaren batasunerako oinarriak landu ziren bertan.

Batasunerako irizpideak finkatzeaz gain, euskararen sustapenean ere jardun du Euskaltzaindiak: besteak beste, 1960. hamarkadan alfabetatze-ikastaldiak —AEKren sorrerari bide egingo ziotenak— eratu zituen, 1982 bitarteko Bertsolari Txapelketa-Nagusiak antolatu zituen, 1978. urtean Bai Euskarari oihartzun handiko kanpaina bultzatu zuen eta euskararen gaitasuna neurtze-


ko titulu akademikoak eman ditu —D eta B irakasle-tituluak aurrena eta Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) 1981etik aurrera—.

Euskaltzaindia euskararen akademia ofiziala da gaur egun eta Hego Euskal Herriko, Espainiako nahiz Frantziako administrazioek legez onetsia dute. 1976an, Espainiako erregetzaren babesean, Euskararen Erret Akademia izena hartu zuen, EAEko Autonomi Estatutuak ofizialtasuna eman zion (1980) eta 1995ean onura publikoko erakundetzat onartu zuen Frantziako Gobernuak.

Bileretan hitza eta boza duten 24 euskaltzain osoak ezezik, hitzerako eskubidea baino ez duten euskaltzain ohorezkoak eta euskaltzain urgazleak ere Akademiako kide dira. Arautegiek ez du zehazten ohorezkoen eta urgazleen kopururik; 1996an euskaltzain ohorezkoak 15 dira eta urgazleak 148.

1996. urtera arte sei euskaltzainburu izan dilu euskararen akademiak: Resurrección Maria Azkue (1919-1951), Ignacio Maria Etxaide (1952-1962), Jose Maria Lojendio (1963-1966), Manuel Lekuona (1966-1970), Luis Villasante (1970-1988) eta Jean Haritschelhar (1988tik aurrera).

24 euskaltzain osoak honako hauek dira 1996ko urrian: Jean Haristchelhar, Juan Mari Lekuona, Ibon Sarasola, Jose Maria Satrustegi, Luis Villasante, Txomin Peillen, Jose Antonio Arana Martija, Piarres Xarritton, Iratzeder, Patxi Zabaleta, Xabier Kintana, Pello Salaburu, Jean Louis Davant, Federiko Krutwig, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Patxi Altuna, Endrike Knorr, Juan San Martin, Alfontso Irigoien, Patxi Goenaga, Antonio Zabala, Miron Azkarate eta Frantzisko Ondarra.





PERURENA, PATZIKU (Goizueta, 1959)

- *Ioanes D'Iraolaren poema bilduma (1985)*
- *Emily (1987)*
- *Irainqo apez qaztearen Kantuteqi zaharra (1988)*
- *Harripilatan ezkutatzen zeneko apo tipiaren burutazioak (1990)*
- *Koloreak euskal usarioan (1992)*
- *Euskarak sorgindutako numeroak (1993)*
- *Isileko kantak (1993)*
- *Marasmus Femeninus (1993)*
- *Zurian zirika (1995)*

- *Behin-betiko erabakien asmoak utzi, eta hainbat urtetarako balio izanen luketen bideak laster irekitzea*
- *Behingoz finkatu ditzala buruhauste ugari ematen dizkiguten "txikikeria" guzti horiek*
- *Bera dela hizkuntza benetan finkatu behar duena, beraz hagina gogoz jartzeko, guztion onerako izango baita*
- *Beraien artean ados ipintzea batetik; bestetik ez bihurtzea hizkuntza literaturaren helburu tresna baino*
- *Beraien artean aklaratu bitartean isilik egiteko. Erabaki zaharrak bere horretan uzteko gizartean sustraitu direnean. Soziolinguistikari gehiago begiratzeko. Iraganari hainbat garrantzia emateko orainari...*
- *Beraien liburutegia gaurregun behar den bezala antolatzea, arren! Eta arauak finkatzea behin betikoz*
- *Bere erabakiak urinago eta argiago hur ditzala*
- *Bere ereduak/erabakiak idazleei aldiro helaraztea*
- *Bere lanen gehiago ezagutaraztea. Asko egiten du, agian ez aski komunikatzen*
- *Bere literatur lehiaketak sekula ez lagatzea "eman gabe"*
- *Bideari jarrai dakiola*
- *Bizkaiera gehiago kontuan izatea*
- *Bizkaierea alde batera itxita ez daitekela egin euskerearen bateratasun onik ez zuzenik*
- *Bizkortasun gehiago*
- *Deskantsa dezala arren, 10 bat urtez edo. Hipertrofiak egin du bere funtzioa*
- *Deus ez, lege extu, buruzale, ergel gutxiago eta euskaldunak; ez espainolak*
- *Ebazpenak al diren garbienak izatea eta al den modurik samurrenean hel araztea*
- *Egiten ari den lan bikainean jarraitzeko, baina arau-aldaketak hain maiz ez egiteko*
- *Eguneroko bizitza erreala ardazten duen terminologiarako proposamen zehatzak eskaini ditzala*
- *Egungo literaturan egiten denari gehiago erreparatzeko. Hizkuntza ez dute gramatikek apailatzen eta*

- *Elbatua utzita Erri-euskerara itzultzea. Ontzat artu duan ortografi ero, baldar, kaltegarria utzita, lengo Euskaltzaindiarena ontzat artzea.*
- *Eman beharreko oinarrizko arau nagusiak lehenbailehen emateko eta gainerakoetan askatasuna uzteko, hizkuntza zer bizia baita*
- *Erabaki gramatikaletan azkartasun eta malgutasun handiagoa*
- *Erabaki tinkoak eta arin ibiltzea*
- *Erabakiak hartzeko lehenbailehen. Behin hartuta, hain erraz ez aldatzeko*
- *Erabakiak hartzekotan problemak egiazkoak (sozialki) diren alorretan hartzeko, ez filologoen jolastokietan*
- *Euskal Herriko testu guztiak kontutan hartzea erabakiak hartzeko orduan*
- *Euskal hiztegi orokor eta modernoa, gramatika deskribatzailea zabaldu*
- *Euskal hiztunen eskubideak hobeki zaindu ditzan eta jada egiten duenean jarrai dezan*
- *Euskaltzainen artean behingoz! gai guztietako euskal idazleak izatea*
- *Euskararen erabiltzaileari begirune handixeagoa. Aldaketa txiki etengabeak barik behar direnean eta denak batean egitea*
- *Euskera monokordea barik, sinfonikoa bultza dagiala*
- *Ez diezagula buruhausterik sor atzo hala zena, gaur honela eta bihar horrela izango dela esanez*
- *Ezer gutxi*
- *Faltan botatzen dudana bere presentzia da (edo bere kideena) euskal munduan, egiten duena egiten duela ere..*
- *Gaurko literatura irakurtzen/jarraitzen duen norbait sartzeko etxe honetan*
- *Gomendioak ondo daude, baina inposizioak ez. Arauak ematean komentzitu egin behar gaituzte*
- *Hartutako erabakiak bide gehiagotik zabaltzea, batzutan idazle "profesionalak" ez garenak ez baitugu helbide errezik*
- *Hedabideekin harreman eta konexio estuagoa*
- *Hitanoa definitzeko*
- *Hitzak behin betikoz finka ditzala, literaturari hizkuntzari ematen dion garrantzi bera eman diezaiola*
- *Hizkuntz kontsentsua gehiago lantzea zeren autoritarismo linguistikoa nabarmena da oso azken bolada honetan*



PUJANA, BASILIO (Zeanuri, 1913)

- *Egi batzuek aixetaratzen (1986)*
- *Deabruak ostutako urteak (1991)*




PUJANA, Bibiñe (Zeanuri, 1951)

- *Amamaren aberetxoak (1983)*
- *Maintxon eta Praisku (1983)*
- *Txitxiburruntzi eta Aratoste (1983)*
- *Mixina (Batueraz) (1994)*
- *Mixina (Bizkaieraz) (1994)*

- *Hizkuntz normalizazioa burutzea, bai gramatika aldetik bai hiztegi aldetik*
- *Hizkuntza bai, baina politikarik ez*
- *Hizkuntza-arauak ematen segitzea eta euskaldun bakoitzaren hizkuntza-jatortasuna errespetatzea*
- *Hizkuntzarekiko jarrera modernoago eta operatiboagoa. Atzera begiratu barik aurrera begiratzea*
- *Hizkuntzaren auzi prioritarioez arduratzeko, arlo dekoratiboetan denbora eta dirua galdu gabe*
- *Hizkuntzaren sortzezkotasunarekin zerikusia duten gauzak ez arautzeko, batzuetan egin izan den bezala*
- *Hiztegi arrunta; gramatika arauemailea; hizkuntz langileen (idazle, esatari, kazetari...) lanari itzala*
- *Hiztegi batua kaleratzeko estrategia aldatzea, emaitzak lasterrago izan ditzagun*
- *Horrek ere promozioa behar luke akuilatu; ez ditu agertzen diren liburuak aipatzen ere. Ez dira aski XVI.eko liburuen azterketak. Eta oraikoak, zer? Utziko ditu lau menderen buruan aipatzeko? Fosil batzu bilakatuko direnean? (liburua)*
- *Idazkera arauak, behigoz finkatzean, fraileak denak bidaltzea*
- *Idazle on bat bere aurrean aukeratzeko balio literarioengatik*
- *Idazle zenbait ere bere kide egin ditzan*
- *Idazleak bere burua hobeki prestatzeko gai leukezan hizkuntzari buruzko ikerlan onak argitaratzea. (Alperrak gara geu hori egiteko ta)*
- *Idazleak egin behar du euskara literarioa, ez Euskaltzaindiak*

  Idazleak gai ez badira hutsunea ezin konpon dezake inongo Akademiak, hizkuntza ez baita Akademien patrimonioa komunitate linguistikoarena baizik
- *Idazleari bere gisa aritzeko eremuak uztea gehiegizko arauzalekeria baztertuz, eta arau eta kontra-arauekin bazterrak ez nahastea*
- *Idazleei begira jartzea; eta linguistika alorra Unibertsitarien esku uztea*
- *Idazleen presentzia sendoagoa erakundean*
- *Idazleoi, zuzenean, aldaketen berri emateko*
- *Idazleria ez hainbeste mareatzeko*
- *Ingelesek ez dute akademiarik*

- *Itzulpengintzari esker euskarak izan dituen ekarpenak bildu eta sistematizatzea, idazleen onerako*
- *Ixilik egoteko*
- *Jarraitzeko batez ere arazo gabeko puntuetan, gomendioak egiten. Arau korapilatsuetan (hitz elkartuak, adibidez), estuegi ez izateko*
- *Kalitateari gehiago erreparatu eta errepararaztea*
- *Karguak biziartekoak ez izatea. Lehiaketetan epai-mahaian ez agertzea*
- *Koherentzia eta apaltasuna*
- *Koherentzia, arau errazak tontoentzat eginak (salbuespenak ebitatu), aldaketa diakronikorik ez (lehen, eritzi; gaur; iritzi; bihar; x.)*
- *Lanean segi dezala, serio, tinko; eta euskaltzainek arauak bete ditzatela*
- *Lasaitasuna*
- *Lastertasun pixka bat. Sentsibilitatea egunero ordenadore baten aurrean jartzen denarekiko. (Bide batez, beraiek ere noiz edo noiz ordenadorearen aurrean jartzea... Ikusteko gaude hainbat euskaltzainen bi folioz gorako testurik; eredutzat hartzeko besterik ez bada...)*
- *Lehenbailehen normalizatzeko gramatika, eta testu-idazkera*
- *Marketing aldetik ahalegin bat erabakiak kaleratzeko orduan*
- *Martxa*
- *Mesedez ez hainbeste nekarazteko ortografi aldaketa ez beti oso justifikatu baina bai oparoekin*
- *Modu erraz eta laburrean araudiak ezagutaraztea*
- *Mokokan (gatazkan) denbora gutxiago gal dezatela*
- *Nire kasuan, gauza bat bakarra: mendebaldeko euskarari jaramon gehiago egitea*
- *Norma gutxiago*
- *Norma gutxiago ateratzeko*
- *Normak osatu eta behin-betiko finkatzea*
- *Orain arteko bidetik segitzea*
- *Orain erakusten ez duen azkartasuna, premia larrienei erantzuteko behintzat. Eta argitasuna eta zehaztasuna arau berrietan*
- *Ortografian eta morfosintaxian, duda-mudako kasuetan, arau zehatz eta argiak ematea; gainerakoan askatasuna behar du idazleak*
- *Presa pixka bat hartzeko funtsezko gauzak erabakitzeko orduan*



PUJANA, PEDRO (Oleta, 1915)

- *Oletako euskal aditza (1959)*
- *Euskal aditza. Bizkaiera (1970)*

- *Proposamenetatik erabakietara pasatzeko beldurrik gabe. Gramatika on bat*
- *Pulamentua*
- *Purismoan ez jausteko; azken aldian zabaldu eta erabiltzen ditugun hitzak ia dagonetan uztea*
- *Segi dezala aitzina arau berriak seinalatuz*
- *Seriotasun gehiago; presa gehiago; konturatu ez dela bera euskararen zilborra, zerbitzari prestua baino*
- *"Sokasalto" gutxiago arauetan. "Gipuzkoar erasoa" erauetara ez eramatea*
- *Urtean behin-edo, hartzen dituen erabakien berri guziak etxera bidaltzea*
- *Utzi ditzan idazlariak euskara "batu" baten inguruan euskalkien lora-arazterat ere*
- *Zabaltasun handiagoa*

Hizkuntz normalizazioa

Hizkuntzaren normalizazioa ez da bakarrik normalizazio akademikoa, arautegi ortografikoa. Askoz gehiago da, eta horrelaxe ulertu dute idazleek.


Hizkuntz normalizazioak urrats erabakiorrenak aro garaikidean egin ditu: 1964-68an hasi bai baina erabakirik garrantzizkoenak gerokoak dira, eta gehienak aztertzen ari garen epealdikoak. Gogoratzea komeni da, bestalde, literaturaren eta hizkuntzalaritzaren artean horren maiz azaldu ziren liskarrak, hika-mikak. Gaur giroa bareago dago, baina erantzunetan ikus daiteke literatura-zalearen eta hizkuntza-zalearen (esnezalea esan ohi den adieran) artean gaur bertan ere badela tirabirarik. Zehazkiago esanda, badela kexu eta kexarik idazlearen aldetik.

Bi zatitan eskatu eta bitan bildu ditugu erantzunak. Domina beraren aurpegia eta atze-aldea dira galderak: hizkuntz normalizazioaren prozesu luze honetan zeri irizten dion eskas eta zeri sobera.

Jaso bezala bitan emango ditugu iritziak. Guztiak ematea luzeegi dela eta, hautapen bat aurkezten dugu. Saiatu gara aldi berean bi gauza egiten: errepikapenak ezabatu eta elementu bereizgarri guztiak gordetzen.

Zer dago eskas hizkuntz normalizazioaren prozesuan?

- *Aho-hizkuntzarekiko urruntasuna, erdal kalkoa onestea*
- *Arauak betetzeko disziplina; tolerantzia, oro har; konfidantza; apaltasuna...*
- *Asko ez dela konturatzen euskara bultzatzea ez dela bere euskara ezartzea, guztiena errespetatzea baino*
- *Ausardia, umorea eta malgutasuna. Eta batik bat, edonork hanka sartu bezala zerbait aporta dezakeela onartzeko umildadea*
- *Azken urteotako hizkuntz kontzientziaren moteltze larria (errebindikazioetan eta batez ere eguneroko praktikan)*
- *Bateratasuna eta adostasuna idazleen artean*
- *Bazterreko euskalkien onarpena*
- *Bizkortasuna*
- *Borondate ona*
- *Borondate politikoa epe-mugetako helburuak serioski lortzeko*
- *Borondate politikoa. Haundikien eredu ona. Planifikazioa. Batasuna. Errespetoa euskararentzat*
- *Dena. (Filosofia hau gauza orotarako eta baikor-baikor aurrera)*
- *Denbora*
- *Denborarekin ez kontatzea*
- *Dialektoen aztertze eta errekuperatzea*
- *Diru laguntzak, instituzioen laguntza, hizkuntz-politika erdipurdikoa*
- *Dirua eta borondate politikoa*
- *Diziplina, lana, kemena. Estandarra finkatu samar dugu baina hizkuntz kalitatea asko ari da jaisten kalean, eta euskara arlo guztietan zabaltzen ere lan handia dago oraindik*
- *Emaitzak; plangintza eraginkorragoak*
- *Erabilpenaren urritasuna maila askotan: administrazioan, kalean, lanean...*
- *Erakundeen gogoa, dirua eta baliabideak eta gizartearen beraren moteltzea*
- *Erakundeen laguntza. Benetako euskaltzaletasuna*
- *Erdaldunen aldetik euskararen beharra ez sentitzea. Euskaldun epelen aldetik erabilera hain kaxkarra izatea*



RETOLAZA, JOSE ANTONIO
(Bilbo, 1927)

- *Iparragirre. Bizitza. 1820-1881 (1967)*
- *Arrotz ipuinak 2 (1987)*
- *Arrotz Ipuinak 3 (1988)*
- *Dante (1988)*
- *Oporretan 1a Kili-txorta 16 (1990)*
- *Oporretan 1a Kili-txorta 17 (1990)*
- *Euskal Historia-2 Kili (1991)*



RODRIGEZ BORNAETXEA, FITO
(Gasteiz, 1955)

- *Hezkuntzaren teoria. Textu eta textuinguruak (1985)*
- *Bertsolaritza eta eskola (1991)*


- *Eskaintzen dena*
- *Esparru ugaritan sartzea*
- *Estatugabeko nazioa osatzen duen euskal kultura bere erakundeek soberanoki kudeatzea, barnean zein atzerri guztietan*
- *Etxe barruko eta kaleko laguntza eskasa*
- *Euskal gogoa / Euskal sena*
- *Euskal Herri euskaldunaren esperantzaren lanketa benetakoa*
- *Euskal identitatea eta bide integratzaileak*
- *Euskal irakurle normalak*
- *Euskal kulturari dagokion garapena*
- *Euskal mundua erakargarriago bihurtu, tentagarriagoa, euskal konzientzia landu euskara gehiago erabiltzeko*
- *"Euskal" politikarien borondatea*
- *Euskaldun ugarik beren burua alfabetzeko premiarik ez ikustea (lehendakari izanik ere!)*
- *Euskaldunak oso-oso gutxi irakurtzen du. Ez du bere burua "alfabetatzen"*
- *Euskaldungoan, literatura idatziarekiko gogoa*
- *Euskaldunon Egunkariak duen instituzio-laguntza*
- *Euskalki ezberdinen parte sendoa hartzea*
- *Euskalkiekiko begiramena*
- *Euskaltzaindiak ducn laguntza, bere proiektuak azkarrago eraman ahal izateko*
- *Euskaltzaindiaren nagitasuna erabakiak hartzeko*
- *Euskara batua ez da aski zabaltzen. Astekarietan behar litzake erakatsi (zonbait hitz astero)*
- *Euskara edozein egoeratan erabili nahi duten hiztunen kopurua*
- *Euskararen erabilera*
- *Euskararen erabilera publikoa*
- *Euskararen hastapena batuarekin gertatzen dela uste izatea eta historia eta euskalkietako aberastasunari ez begiratzea*
- *Euskararen presentzia gizartean*
- *Euskaraz gehiago hitz egitea eta irakurtzea, dakitenek ere guti egiten baitute*
- *Euskaraz hitzegitea*

- *Euskera batua batzetik datorrela eta ez bereiztetik, jakitea*
- *Euskera bera egiteko oitura falta*
- *Euskeraren erabilera eta jakintza*
- *Euskeraz egin eta bizi izatea*
- *Ezer ez. Denborarik gabe, ezin da ezer egin*
- *Fraude handia dago. Euskara batuaren izenean batzuek edozer gauza egiten dute*
- *Gaur egun euskara baino gogokoagoak ditut euskaldunak*
- *Gauza arruntak, bistakoak, kalean agerian egoten direnak, gai sinpleak*
- *Gazteria euskal hiztun aktibo eta ilusionatu bilakatzeko egin den planifikazioa*
- *Gero eta jende gehiagok dakiela euskaraz eta gero eta gutxiagok hitzegiten duela*
- *Gizarteak, oro har, kulturari eta letrei eskaintzen dien arreta*
- *Gobernuaren apustu epela*
- *Gramatika onik ez dago. Hiztegi bat tajuzkoa (Elhuyar). Normalizazio-politika ofizialik batere ez*
- *Gure gustoekin bat ez datorren jendearengana iristeko ahalegina. Eta bi gauza: batasuna eta dirua*
- *Gure hizkuntzaren erabilera arlo guztietan*
- *Guztia. Urteak aurrera doazen heinean euskeraren erabilera gero eta murritzagoa da. Hortaz, hitzetan denbora eta dirua galdu barik ekintzetara jo behar da*
- *Hainbat alorretan normalizatzeko diru-inbertsio urria*
- *Harreman hurbilak, jendetasuna, eta kritika*
- *Hartu beharreko hainbat neurri politiko ez dira hartzen*
- *Hartu direnen berri zabaldu egin behar da, ikastoletan, eta idazleen artean*
- *Hedabideetan eragitea*
- *Herri-ekimenen kontsiderazioa instituzioen aldetik. Etengabeko inzestoa da euskalgintza*
- *Herriaren hatsa bera, eta gobernu guztien laguntza*
- *Herriaren kontzientziazio maila*
- *Hizkera ezberdinak, gai teknikoak*
- *Hizkuntz eta literatur baliabide jatorren thesaurus balia-erraza*



SAGARNA, ANDONI (Donostia, 1947)

- *Soziologiaren hastapenak (1970)*
- *Elektrika eta elektronika hiztegia (1989)*



SAGASTIZABAL, JOXEAN (Eibar, 1956)

- *Jolasean (1983)*
- *Zerura igotzeko (1986)*
- *Paixibo (1987)*
- *Inguratuta gatxeuden (1989)*
- *Kutsidazu bidea, Ixabel (1994)*


- *Hizkuntz plangintza*
- *Hizkuntz politika eraginkorragoa*
- *Hizkuntz politika orokor erabakiorra*
- *Hizkuntz politika. Hizkuntzaren presentzia kontsumogaietan, politikoengan, hedabideetan...*
- *Hizkuntza erabili behar dutenen borondatea*
- *Hizkuntza mintzatua, urrun*
- *Hizkuntzaren barne problemak Madrilen edo faktore sozialen erru ez direnak. Konpontzeko geldotasuna eta hipokresia*
- *Hiztun, irakurle, euskara maite duen jendea*
- *Idazle bizien protestak*
- *Idazlearen libertadea*
- *Ikerlana eta arauak emateko prozesu arinagoa*
- *Ikuspuntua zabaltzea, arazoari Zangotza edo Lapuebla-tik nola begiratzen zaion imajinatzen saiatzea*

  Imanol Berriatuak proposatzen zuen hizkuntz moderno erabilkor erraza egitea. Hizkuntza mailak zehaztu beharra
- *Inbertsio serioak hizkuntz alorrean egitea*
- *Informazioa edo hedabidea*
- *Iparraldeko aspaldiko normalizazioa kontutan hartzea, normalizazio orokorrean sartzea*
- *Irakurgai errazak, baina gutxieneko kalitatea dutenak*
- *Irakurleak lortu duen alfabetatze maila kaxkarra*
- *Iraupen politikoa*
- *Irizpide garbiak*
- *Irmotasun-eza, sasi-askatasuna elebakarren aitzinean. Bi hizkuntzetan inplikatu behar da hemen bizi den oro*
- *Itz jatorrak*
- *Jende helduarentzat gehiago*
- *Jendea –ez idazlea– komentzitzea*
- *Jendearengana, irakaslegora hedatzeko, ailegatzeko ahalmena*
- *Kaleko hizkera dialektala indartu; literaturak matiza irabazi behar du*
- *Kalitatearekiko kontzientzia*
- *Kantitatea kalitatea baino gehiago zaindu dala*
- *Kasi dena*

- *Kultura*
- *Lexikogintzari buruzko sakon-lana, aditz etikoren erabakia falta*
- *Literatura modernoan egin ditugun hautuak eta gaur egungo maiztasunak (lexikalak, sintaktikoak) ez dira gehiegi errespetatzen. Eta Hiztegiak!! (euskara-frantsesa, euskara-alemana, euskara-ingelesa, etab.)*
- *Luzea izatea prezeski luzeegia polikaren kulpagatik*
- *Maria Garikanoren "Altxorraren Uhartea" bezalako itzulpen bikainak / Liburu beroak sortzea*
- *Normatiba erraztea*
- *Nortasuna, gogoa, grina, ilusioa...*
- *Patxara*
- *Pazientzia*
- *Pertsona askoren borondaterik eza. Hizkuntzarekiko jarrera hipokritak*
- *Plangintza eta helburuak; zer dugun eta nora goaz*
- *Politikarien borondatea*
- *Pulamentua*
- *Soziolinguistika eta azken 20 urteotako produkzioa kontutan ez hartzea*
- *Tradizioan oinarrituriko joera zabala*
- *Urrats batzuetan ez da sakondu, ezta zehaztu ere*
- *Zaletasuna*
- *Zenbait arauren inposizioa*

Zer dago sobera hizkuntz normalizazioaren prozesuan?

- *Agian, xehetasun gehiegia*
- *Akademikeriak*
- *"Akademizitisa" (filologo gehiegi dago batzuetan)*
- *Aldaketa gehiegi; zailtasun gehiegi*
- *Arau asko*
- *Arau korapilatsuak, itzulpen kontrolgabe arraroak, inprimategietako langile erdaldunak eta euskaldun txarrak*
- *Arau-emaile (sasi); soziolinguista (sasi); sermoilari (ikus Esnal-Zubimendi)*
- *Azken tontakeria arautu nahia, erkidego modukoak*



SAIZARBITORIA, RAMON (Donostia, 1944)

- *Egunero hasten delako (1969)*
- *100 metro (1976)*
- *Ene Jesus (1976)*
- *Hamaika pauso (1995)*




SALABURU, PELLO (Arizkun, 1952)

- *Baztango Euskalkiaz. 1. Bruno Echenique-k egindako itzulpenak Bonaparteren eskakizunez (1980)*
- *Irakaslearen Esku-Gramatika (1981)*
- *Arau fonologikoak. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia (II) (1984)*
- *Hizkuntzaren soinu egitura. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia (I) (1984)*
- *Sintaxi teoria eta euskera (1989)*


- *Bakoitzaren setakeria*
- *Batukeria; araukeria*
- *Behin aurrera eginda atzera egiten hastea, orain gertatzen ari den bezala hainbat erabakirekin*
- *Behin hartutako araua aldatzea*
- *Bitxikeria ("arrazoizkoa" litzatekeen kasuan ere) eta (idazten ez duten) filologo-milologoen azken orduko "aurkikunde" nahasgarriak*
- *Boluntarismoa; protagonismo ustela eta "pionero" izatearen arropuztasun mediatikoa*
- *Burokrazia linguistikoa*
- *Dana da beharrezko*
- *Datu faltsuez baliatu baikortasuna bizteko*
- *Dena agindupera lerratu nahia*
- *Deus ez. Euskerak diren eta ez diren laguntza oro jaso behar luke*
- *Diru lar gastatzen da, eta hori primerako "arma" da euskararen arerioentzat*
- *Eginahal oro gutxi da*
- *EITBn erdal kateak areagotzea kuantitatiboki zein kualitatiboaki*
- *Elbatua sartu nai izatea, eta ori indarkeriz egin nai izateko arriskua*
- *Erabilgarritasunik ez duen euskara*
- *Erakunde publikoetan, euskeraren inguruan dauden aprobetxategiak*
- *Erakundeen laguntzagatiko bahitura. Etxekokeria*
- *Erdal gogoa / Erdal gogoa baztertu ta benetako euskal gogoz geure burubiotzak betetan ez ba-doguz, egundo be ezin berpiztu izango du gure hizkuntza, tamalez*
- *Erdara*
- *Erdera (gaztelera)rena*
- *Erdipurdikeria, alderdikeria, funtzionarismoa, nork bere zilborrari begiratzea, koldarkeria, erosokeria, alferkeria, sektarismoa...*
- *Erri euskerari begirapenik eza*
- *Esamesak*
- *Eskatzen dena*
- *Español -fruntses hizkuntzen haritik hitzegitea eta idaztea gehiegi*
- *Euskal hiztunen erdal monokultura*

- *Euskalki baten jokaera harroa, dogmatismoa*
- *Euskaltzaindia*
- *Euskaltzaindiakoak ez direnen hiperkorrekzioaren eskaera. Hizkuntzarekiko atxekimendu gramatikalista*
- *Euskaltzaindiaren efikaziarik eza*
- *Euskaltzaindiaren ganora eza, hiritarren kontzientzia eta nahikunderik eza*
- *Euskara orthopedikoa*
- *Euskara sobra dutenekiko politikakeria*
- *Euskara testimoniala eta irakurtzen ez den liburu elebidunetako euskara*
- *Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika*
- *Ez dakit. Hain gaude gauza askoren faltan! Gaizki egina sobera badago, hamaika gauza badago sobera*
- *Ez dakitenen mespretxu autista, euskaldunen herabea*
- *Ezer ez. (Filosofia hau gauza orotarako eta baikor-baikor aurrera)*
- *Ezer ez; egiten ari den guztia gutxi da*
- *Ezjakintasuna, fanatismoa eta arau-mota batzuk. Hizkuntz normalizazio bidea ez da luzea. Gogoratu Europako beste hizkuntza batzuen prozesua. Gainera besteek eman dituzten zenbait urrats guk ez ditugu eman. Adibidez ahozkoaren balio eta ezaguera, etabar.*
- *Eztabaida gabe berez-berez sortu den makinaria erraldoia elikatzeko gastatu den hainbat diru, eta herri-ekimenetak mesfidantza*
- *Folklorismoa*
- *Funtzionarien euskalduntze prozesuan askotan diru gehiegi eta kontrol handirik gabe gertatzen dela iruditzen zait*
- *Funtzionarioak egitea sortzailearen lana*
- *Garbizalekeria*
- *Gehiegizko normatibak. Idatzi eta kitto!*
- *Geldotasuna. Txokokeria (=norberekoikeria) Hizkuntza-eredu desberdinak (euskal administrazio mailan, batez ere)*
- *Geure zilborrari begiratzea*
- *Gipuzkeria sobera. Iparraldeko gauzak "jasanak" dira, ez onartuak*
- *Gipuzkoako euskalkia ez litzake hartu behar euskara batutzat. Ez dut ezagutzen hiztegirik Iparralde euskalkia/Euskara batua*
- *Gizarteak, oro har, teknikari eta zientziari erakusten dien adorazioa*



SAN MARTIN, JUAN (Eibar, 1922)

- *Juan Antonio Moguel ta Urkitza. Bere Bizitza ta lanak (1959)*
- *Zirikadak. Ipuin barregarridun liburua (1960)*
- *Eztenkadak. Gertaera baregarridun liburua (1965)*
- *Gogoz. Gure herriko gauzak (1978)*
- *Bidez. Gure herriko Gauzak / Cosas de nuestro País (1980)*
- *Erromanikoa Euskal Herrian (1983)*
- *Landuz. Gure herriko gauzak / Cosas de nuestro País (1984)*
- *Antzinako Eibar (1993)*
- *Dichos y hechos / Esanak eta eginak (1994)*




SANTISTEBAN, KARLOS (KARRANTZA, 1960)

- *Egun batez (1983)*
- *Hitzak (1983)*
- *Izan bainintzen soldadu (1983)*
- *Amodioz eta gorrotoz (1986)*
- *Denboraren zimikoak (1986)*
- *Mikel Zabalza edo Izuaren tunela (1986)*
- *Terrorista (1986)*
- *Uda baten amodio zoroa (1986)*
- *Bizi aparra (1987)*
- *Anika eta bere klera magikoa (1991)*
- *Jostailuen altxamendua (1991)*
- *Kometa bidaizalea (1991)*
- *Taupaka barrenetik (1991)*
- *Enekoxki, Hasieder eta Ibabe (1992)*
- *Olerki durundioak (1992)*
- *Eneko okerrekoren akerra (1994)*
- *Ilargiaren Eztula (1994)*
- *7 Zorrionak (1995)*
- *Kutuna tuntuna (1995)*

- *Goizegi hizkuntza "batu" bat inposatu nahi izaitea*
- *Gramatikako kasuistika*
- *Hainbat eztabaida txoro*
- *Hainbeste aldiz ahotan erabiltzea*
- *Hainbeste itzultzaile eta hain gutti sortzaile Instituzioetan. AMEN!*
- *Harrokeria eta etena*
- *Hegoaldeko normalizazioaren indar itogarria guretako (noski)*
- *Hizkuntza-mailan orojakitun gehiegi izatea*
- *Hizkuntzaren inguruan gertatzen diren mota askotako manipulazioak*
- *Hizkuntzaren sexuari buruzko eztabaida antzu eta aspergarriak*
- *Ikasi nahi ez izatea eta harropuzkeria*
- *Indarrak bidegabeki galtzea eta euskarak hainbat arlotan oraindik pairatzen duen egoera lotsagarria*
- *Inkestak*
- *Intolerantzia bizkaiera bezalako euskalki minorizatuekin*
- *Inurritegia isilik (baina euskaraz), antolatu beharrean, euskaldungoa (?), gazteria batez ere, kaleko mobidetan distraitzea eta erretzea. Euskararen mundua horrekin identifikatzea suizidioa da (litzateke)*
- *Itxurakeria. Albokoaren bizkarrean zama uztea*
- *Jakintsu gehiegi dagoela eta normalizazioaren aldeko gutxiegi*
- *Jarrera dogmatikoak*
- *Lanik egin barik euskeraren kontura bizi diranak*
- *Letra sobera, hitza gainbehera*
- *Liburu batzuk*
- *Liburu zurrun gehiegi dago*
- *Liskar, ika-mika eta abarrak*
- *Modernismo faltsuaren izenean sintaxia hankaz gora sartzea*
- *"Nire herrian ez da horrela esaten" eta horrelakoak*
- *Norberaren dotrina patetikoak*
- *Norma gehiegi*
- *Normalizazio obsesioa bera, irakur mesedez: "O tempora O Mores!"*
- *Normalizazioarekin hainbeste turrada ematea*
- *Optimismoa. Eztabaida linguistiko nimiñoak*
- *Paternalismoa eta hipokresia*

- *"Petite histoire" eta gainerako "mareazioak", Peneloperen ehuna goizez josi eta gauez desjosiz*
- *Politikarien ez-jakintasuna*
- *Politikeria*
- *Presa*
- *Rebisionismo azkenbakoa, arauen argitaratze serial gisako desesperagarria, segurtasun galgarria*
- *Sarritan hitzak, esanak*
- *Sub-kultura*
- *Taldekeria*
- *Tentsioa*
- *Tituluak lortzeko azterketen zailtasuna*
- *Txupatintas, lameculosak, diru-maiteak*
- *Urduritasuna*
- *Zenbait arauren inposizioa*
- *Zuzentasunarekiko hipersentsibilitatea*



SARASOLA, IBON (Donostia, 1946)

- *Poemagintza (1969)*
- *Euskal literaturaren historia (1971)*
- *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964 (1973)*
- *Euskal literatura numerotan (1975)*
- *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (irakurlearentzat gidaria) (1975)*
- *Euskal hiztegi arauemailea. Lehen prestaera (1977)*
- *Euskal Literaturaren gidaliburua (1977)*
- *Joan eta Ane zigarro bat erretzen (1977)*
- *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia. I-III (1982)*
- *Hauta-lanerako euskal hiztegia 1-8 (1984-1995)*


argi

3.

algintza

ARGITALGINTZA



NAZIOARTEKO ARGITALGINTZA

Euskal argitalgintza aztertzera etorri aurretik komeni da arazoa bere orokorrean zertan den ikustea, gaingiroki bederen. Bibliografia ugaria dago horretaz. Frantsesa ezagutzen dut bereziki. Marko orokorra esplikatzeko aurkitu dudan egokiena *Les stratégies des grands groupes d'édition*, 1991n, Bernard Guillou eta Laurent Maruani aztertzaileek burututrikoa da. Hauxe hartu dut itsumutil gisa.


80ko hamarkadatik aurrera bi ezaugarri nagusi ditu Europa eta Ipar Ameriketako edizioak: nazioartekotasuna eta kontzentrazioa.

Urte horietan, komunikazioaren industrien azterketa gehienak ikus-entzunezkoetan zentratu dira. Telebistaren aldaketak azpimarratu dira. Kate berriak sortu dira nonahi, jabegoa orain komunikazio-talde handien eskuetara pasa da, eta finantziazio-iturri nagusia publizitatea da. Interesgune estrategiko eta kulturala ikus-entzunezkoetan zentratu da, hortaz. Teoriazki ere justifikatua bide zegoen, M. MacLuhan-en aurreikuspenen arabera kultura idatzia hiltzera kondenatua baitzegoen.

Egin diren aurreikuspenek huts egin dute eta azterketak herren gelditu dira. Egunkariek, aldizkariek eta liburuek bizi-bizirik segitzen baitute. Eta ez batere geldi. Bitartean, idatzizko komunikabideak sekulako aldaketa eta berregituraketetan murgildu dira. Eta gaur egun, komunikazio-industrien parte on bat osatzen du edizioak.


Goitik behera aldatu da argitalgintza. Askorentzat, oraindik, "artisautzaren" pareko jarduera litzateke edizioa. Irudi erromantikoa da, azken 10-15 urteotako berregituraketa kontuan hartuta. Ondoren deskribatuko dugun hau ez da argitalpengintzaren ehuneko ehun, baina bai gehiena.

Berriz diogu: talde handiek merkatu irekian jokatzen dute, muga administratiboen gainetik, muga linguistikoen gainetik. Handiak txikia irentsiz ("opa" bidez), elkarrekin fusionatuz, kapitalean parte hartuz, koediziotara joz, mila modutara. Eta gutxien uste dugunean jakiten dugu ustez betidanik ezagutu dugun argitaletxe independente hori talde han-



SARRIEGI, ANDONI (Beasain, 1946)

- *Belartzelaiko mutikoteak (1977)*
- *Kabri (1983)*



SARRIEGI, Mikel (Beasain, 1965)

- Purtzil halakoa, zenbat? (1986)

diago baten marka bat besterik ez dela. 70eko hamarkadan Paris aldean ikasle ginenontzat, harrigarri gertatzen da jakitea, kasurako, Fayard, Grasset, Marabout, Stock "Hachette Livre" taldearen markak besterik ez direla. Edo Dalloz, Dunod, Robert Laffont, Plon, Le Robert, Nathan, Larousse "Groupe de la Cité"koak direla. Egin kontu, Frantzian, 121 marka edo argitaletxe 8 etxeren kontrolpean daude.

Euskal edizioan, aldiz, editorial bat laster identifikatzen da bere jabeekin, bere helburuekin. Elkar Elkar da; Erein Erein da, eta kitto. Ez dira ez dakit nongo ze etxeren marka. Badira salbuespenak, hala ere: Santillanarena da Zubia, Giltza Edeberena da, esaterako. Dena den, euskal edizioa irla bat da. Baina urez inguratua dago, eta ur-korronte horiek nondik nora dabiltzan jakitea komeni zaio.

Itsumutiltzat hartu dugun liburu hori Frantziako Kultura eta Komunikazioko Ministerioaren liburu eta irakurketa Zuzendaritzak eskaturiko ikerketa bat da. Munduko panorama argitze-aldera, bi arazo azalduko ditugu: batetik, edizio-mota desberdinen klasifikazio bat; eta bestetik, berauen estrategien deskribapen bat. Argazkia eta pelikula, alegia.

Nazioarteko edizioaren zenbait ezaugarri

Tipologia hirukoitz bat egin genezake, eta hor kokatu talde guzti hauek: 1) espezializazio-mailaren arabera; 2) argitalgintza-motaren arabera; eta 3) jardueraren nazioartekotasunaren arabera.

Espezializazio-mailaren arabera

Espezializazio-maila kontuan edukita, hau da, edizioari zer parte eskaintzen dioten produkzioaren barruan kontuan edukita, hiru azpitalde bereiz genitzake: editore hutsak; "liburu-prentsa"ko talde mistoak; eta hirugarren, talde multimediak.

Jo dezagun hauetako bakoitza identifikatzera.

Argitaratzaile hutsak

Argitalpengintzara, liburu-produkziora soilki emanak daude.

Azterketaren arabera, tamaina ertainekoak dira hauek, ez handi eta ez txiki, baina tamaina horiek ez dute gureekin zer ikusirik. Tamaina ertaineko bezala hemen agertzen den Gallimard batek, kasurako, euskal editore guztiek batera adina ia-ia publikatzen du urtero. "Groupe de la Cité" delakoak 3.621 titulu atera zituen 1995ean. Tamainak eta tamainak daude, hortaz, eta hemengo ezaugarriak euskal ediziora ezin dira aldatu, tentuz ez bada.

Argitaratzaile hutsen kategoria honetan sar daitezke Holandako Elsevier eta Wolter-Kluwer; Frantziako Gallimard, Masson, Flammarion; Alemaniako Suhrkamp, J. Springer; Estatu Batuetako MacMillan, Holder & Stoughton, Houghton-Mifflin; eta Espainiako Planeta eta Anaya.



SARRIONANDIA, JOSEBA
(Durango, 1958)

- *Izuen gordelekuetan barrena (1981)*
- *Narrazioak (1983)*
- *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak (1985)*
- *Atabala eta euria (1986)*
- *Ni ez naiz hemengoa (1986)*
- *Marinel zaharrak (1987)*
- *Marginalia (1988)*
- *Ez gara geure baitakoak (1989)*
- *Izeba Mariasunen ipuinak (1989)*
- *Ainhoari gutunak (1990)*
- *Ifar aldeko orduak (1990)*
- *Gartzelako Poemak (1992)*
- *Han izanik hona naiz (1992)*
- *Ez gara geure baitakoak (1993)*
- *Hnuy illa nyha majah yahoo (Poemak 1985-1995) (1995)*



SASTRE, Pablo (Madrid, 1958)

- *Mugarria (1982)*
- *Hotel majikoa (1984)*
- *Petritegin aurkitutako zinta (1984)*
- *Joxemi (1986)*
- *Kontuak (1986)*
- *Aldeginak (1988)*
- *Lur (1988)*
- *Kristalezko bularrak (1990)*
- *Mariaren mendea (1992)*
- *Kontratua (1995)*

"Liburu-prentsa"ko talde mistoak

Talde hauek iritzien hedapenean garrantzi handia dute. Bi mugimenduren ondorio dira.

- 60ko hamarkadan hasi eta 70eko hamarkadan indartu zen lehen mugimenduan prentsa-taldeak jo zuen ediziora. Adibidez, Frantzian Ouest-France-k, Espainian Prisa taldeak Timon-en bidez, eta Britainia Handian Reed-ek.

  Prisa edo Timun taldea da 1991n Espainiako lehen multimedia-taldea: prentsan "El País", ikasentzunezkoetan "Canal +"; irratian "SER"; edizioan Timun, Santillana eta honen azpian Altea, Taurus, Alfaguara, Aturi, Itaca, Mangold; banaketan, "Crisol", etab.

- Bigarren mugimendua 80ko hamarkadakoa da, eta eraginkorragoa. Kasu honetan, edizioak jotzen du prentsaren bila, sinergia komertzialak gehitu nahian. Britainia Handian Pearson-ek Financial Times eta The Economist-ekin egin zuen operazioa. Italian, Mondadorik La Repubblica eta L'Espresso dominatzen ditu. Holtzbrick alemana Handelsblatt ekonomiazko prentsa-taldeko burua da. Kategoria honetan sar daitezke, baita ere, Eskandinavian Rizzolli eta Bonnier; Estatu Batuetan Random/Newhouse eta Hearst/William Morrow.

Multimedia-taldeak

Hauetan jarduera editoriala inportantea da bai, baina taldearen barruan bertan lehiakide ugari ditu. Mass medien esparru guztietan presente daude hauek, hala nola, liburuan, zineman, telebistan, prentsan, eta zenbait baita ere diskoan, irratian, bideoan.

Oso izen ezagunak daude hemen: Bertelsmann, Time-Warner, Paramount, News Corporation, Hachette.

Argitalgintza-motaren arabera

Irizpide honen arabera kontuan hartzen da zein neurritan lantzen duen enpresa bakoitzak edizio-tipo bat, liburu-mota batzuk edo genero guztiak eta ezagutzapen-premia guztiak lantzera jotzen duen. Segun eta zein den joera bere posizioa merkatuan oso desberdina da, talde handiagoen estrategien aurrean.

Bi editore klase bereizten dira hemen: 1) argitaratzaile berezituak eta 2) argitaratzaile multiberezituak.

Argitaratzaile berezituak

Produktu eta merkatu oso identifikatuak dituzte hauek. Hona kasu batzuk: J. Springer da nagusi Alemanian medikuntzako edizioan; Houghton-Mifflin eta Harcourt/Brace etxeek eskola-liburuak eta unibertsitarioak lantzen dituzte; Thomson indartsu da gestio eta teknikaren edizioan; Frantzian, Ampère-k agintzen du haur eta gazteentzako literatura eta komikietan.

Editorialgintza laguntzeko aldizkari espezializatuez baliatzen dira etxe hauek. Aldizkarien bidez lantzen dituzte autoreekiko harremanak, liburuak promozionatzen dituzte eta harpidetzen bidez aurrefinantzatzen dituzte produktuak.

Argitaratzaile multiberezituak

Argitaratzaile hauek ere espezializatuak dira, baina liburu-mota askotan. Frantzian "etxe handiak" deitzen diren horietako gehienak sail honetakoak dira. Marka desberdinekin jokatzen dute merkatuan. Etxe nagusiaren sailak izan daitezke, hala nola, Hachette Littérature, Gallimard Jeunesse; edo independenteak, hala nola, Grasset Hachette-n barruan, New American Library Penguin-en barruan edo Delacorte Bertelsmann-en barruan.

Nazioartekotasun-mailaren arabera

Talde honetan sartzen dira Penguin, Elsevier, Bertelsmann eta Hachette. Guzti hauek beren jatorrizko herritik kanpo dituzte bere negozio handienak.

Sailkapen hirukoitz bat egin daiteke hemen, bereiztuz euro-europearrak, anglo-saxoiak eta mundu-mailako taldeak.

Euro-europearrak

Talde hauek Europan dute jatorria eta Europan bere posizioa indartzera jotzen dute. Horretarako metodo desberdinez baliatzen dira: filialak jarriz, bi edo gehiagoren arteko koedizioak eginez, erdi-mailako etxeak erosiz.



SATRUSTEGI, Jose Mari (Arruazu, 1930)

- *Bordel bertsularia (1965)*
- *Luzaide'ko kantak (1967)*
- *Euskal izendegia / Nomenclator onomástico vasco (1972)*
- *Assis-ko Frantzes santua. Iruzkiaren abestia (1973)*
- *Ekaitza (1973)*
- *Euskaldunen seksu bideak (1975)*
- *Ipui miresgarriak (1980)*
- *Lapur zuriak (1981)*
- *Axelko eta Otsoko. Abereen ipuinak (1983)*
- *Euskal testu zaharrak. I (1987)*
- *Ekaitza (1992)*



SESTORAIN, GOTZONE (Leitza, 1964)

- Basamortuan oasiaren bila (1986)

Kategoria honetan koka daitezke, adibidez, Frantzian erdi tamaina ko etxeak, Gallimard, Le Seuil, Flammarion, Le Groupe de la Cité; Italiako gehientsuenak, Mondadori, Fabbri; Alemanian, Holtzbrinck; eta Espainian, Planeta, Anaya, Timon

Anglo-Saxoiak

Nazioarteko estrategia ardatz anglo-saxoira zuzentzen dute hauek batez ere. Ingelesentzat Commonwealth-ek barne-merkatu gisa funtzionatzen du. Ingeles hizkuntzaren oraingo gorakadari esker, informazio espezializatuan indar handia dute.

Hauetakoak dira Pearson, Reed, Random, Mac Graw Hill, Maxwll edota Simon & Schuster, Elsevier, J. Springer.

Mundu-mailako taldeak

Talde hauentzat ez dago mugarik, ez linguistikorik, ez gaien alorrekorik, ez bezeriaren aldetikorik. Mundu-bokazioa dute.

Les stratégies des grands groupes d'édition idatzi zenean, duela bost urte, bi talde bakarrik zeuden tamaina honetakoak: Bertelsmann eta Hachette. Autoreek espero zutenez, 90eko hamarkadaren erdialderako, beste talde batzuk ere tamaina honetara iritsiak beharko zuten, beren estrategia mugatuak gainditzeko bokazioa adierazia baitzuten. Adibidez, beste sailean ikusi ditugun Pearson, Reed, Simon & Schuster. Kostako omen zaie, hala ere, aurreko bien posizioak dardaraztea. Bertelsmann oso indartsua da liburu-banaketan eta Hachettek, Salvat erosiz, Ameriketako gaztelaniaren merkatuaren apostua egin du, eta tinko kokatu da hor.

Edizio-talde handien estrategiak

Definitu berri diren irizpide horiek elkarrekin gurutzatuz, bost batasun homogeneo lortzen dituzte autoreek: nazio-mailako argitaratzaile hutsak, nazioarteko argitaratzaile berezituak, multiespezialista europearrak, multiespezialista anglosaxoiak eta multimedia multinazionalak. Irizpide editorialak eta geografikoak gurutzatzen dira hemen.

Talde hauetako bakoitzak bere alderdi indartsuak ditu, bere alderdi ahulak, bere helburu estrategikoak, bere garapen-modu pribilegiatuak.

Eta baldintza guzti horien arabera desberdina da beren posizioa kontzentrazioaren eta nazioartekotasunaren testuinguru honetan. Aukerak, abantailak, arriskuak ez daude denen artean berdin banatuak. Indarrak, estrategiak ere ez dira denetan berdinak.

Nazio-mailako argitaratzaile hutsak

Talde hauek ediziotik kanpo ez dute apenas lanik egiten, eta gainera bere esparru geografiko edo linguistiko propioa dute: Frantzian Gallimard, Flammarion, Le Seuil, Masson; Espainian Planeta; Estatu Batuetan Harcourt/Brace/Jovanovitch, Houghton/Mifflin; Britainia Handian Blackwell; Italian Laterza.

Bakoitza bere esparruan indartsua bada ere, mamutzar haien atzaparretatik ez daude oso babestuta. Markaren irudian dute indar nagusia, eta ezin dute hori galdu inolaz ere. Garapen internazionalaren bidean bi bide erabili ohi dute: komertzializazio filialak sortzea da bat eta bestea koedizio-hitzarmenak egitea. Hauetakoak dira Le Seuil frantsesak Critica espainiarrekin egina edo De Agostini italiarrak Planetarekin sinatua.

Nazioarteko argitaratzaile berezituak

Merkatu-zati bati begira produktu oso espezializatuak produzitzen dituzte hauek, batez ere hezkuntza eta premia profesionaletan. Liburu eta aldizkariekin lan egiten dute. Elsevier etxeak 600 aldizkari diferente ditu. Produktu horiez gain badituzte datu-bankuak, produktu bideografikoak, etab.

Bakoitzak bere alorrean jaun eta jabe izatea du helburu. Hauek irenstea oso zaila da. Sektore honetako taldeen hazkundea erosketaz egin ohi da, horizontalki. Talde erosleak dira. Helburu estrategikoetan Europa kontinentalera eta Asiara hedatzea da lehena eta honekin batera media elektroniko berrietara dibertsifikatzea.

Talde anglosaxoiak dira nagusi alor honetan: Elsevier, zientziaren eta medikuntzaren argitalpenetan; Wolter-Kluwer edizio juridikoan; Thomson Publishing negozio, informatika eta gestioko argitalpenetan; Dun & Bradstreet ekonomia eta finantzetan; John Wiley gestioan; Sage gizarte-zientzietan.



STURTZE, Alicia (Donostia, 1948)

- Agotak juduak eta ijitoak Euskal Herrian (1990)



SUDUPE, Jon (Azkoitia, 1947)

- *Marx (1818-1883). Teoria eta Politika (1984)*
- *Modernitatearen alde (1991)*
- *Ilustrazioaren kriseilupean - Argi berri bila Frankfurten (1994)*

Multiespezialista europearrak

Tamaina handiko taldeak dira. Europan kokatzen dute lan handiena. Horien artean daude: Mondadori, Rizzoli eta Fabbri Italian; Le Groupe de la Cité Frantzian; Planeta eta Anaya Espainian; Holtzbrinck Alemanian.

Hego Europakoak dira gehienak, indartsuak beren lurraldeetan, eta liburugintza dute ekintza nagusia. Homogeneo diren aldetik ez daude oso ondo babestuta, baina sektore batzuetan (eskola-liburuak, entziklopediak, adibidez) ondo kokatuta daude. Eta bestalde, bertikalki integratuta daudenez, indartsu dira liburu-banaketan (kluba barne). Elkarren lehiakide dira sarri. Talde multimediekin ere topo egin ohi dute.

Bi anbizio nagusi dituzte: Europako merkatua garatzea eta beste medietara dibertsifikatzea, bereziki ikus-entzunezkoetara, baina baita ere prentsa arrunt edo berezitura. Merkatu britainiarrak eta espainiarrak zubiburu dira batzuentzat, Ameriketara iristeko. Akordioak eginak dituzte, Mondadorik Grijalbo eta Montena Iberica-rekin, Fabbrik Orbis-ekin eta Larousserekin.

Konkurrentziaren aurrean babes gutxikoak direnez, jarduerak dibertsifikatzera jo dute. Telebistak tentatu ditu gehien. 1983an Mondadorik Rete 4 montatu zuen, eta porrot egin. 1984tik aurrera Holtzbrinck Sat-1 kateko akzionista da, Springer eta Beta Taurus taldearekin batera. Rizzolik ere Télé Monte-Carlon esku hartzea pentsatu zuen. 1989an, Anayak, Berlusconirekin batera telebista pribatu bat muntatzeko baimena jaso zuen, baina gero saldu egin zituen bere akzioak Berlusconirekiko haserreak tarteko.

Multiespezialista anglosaxoiak

Jatorri britainiarrekoak dira batzuk (Pearson, Reed, Maxwell, Collins) eta jatorri amerikarra dute beste batzuk (Harper & Row, Random House, Times-Mirror). Idatziaren esparru guztietan lan egiten dute (liburuak, magazineak, egunkariak, berripaperak) eta edizioaren kategoria nagusi guztietan (orokorra, eskolakoa, berezitua, entziklopedikoa). Ikus-entzunezkoetan gutxi sartu ohi dira. Badirudi nahiago dutela programak ekoiztea, banatzea baino.

Argitaletxe tradizionalaren ereduarekin ez dute zerikusirik etxetzar hauek. "Idatziaren konglomeratutzat" har daitezke, eredu teknoburokratikoz antolatuak, marketing eta gestio-kontrolaren irizpideak nagusi direlarik.

Multimedia multinazionalak


Tamaina oso handiko talde hauentzat beren jatorrizko herria, are Europako bezalako kontinentea ere, kasu partikularrak dira, mundumailako estrategia baitute. Mundu osorako produktuak egitea lortzen dute, eta aldi berean merkatu jakin batzuen joerak usaindu ahal izateko erabakiguneak deszentralizatu egin ohi dituzte.

Batasun estrategiko hau osatzen duten taldeak jada ezagutzen ditugu: Bertelsmann, Hachette eta New Corporation. Eta atzerago datoz, Paramount/Simon & Schuster eta Time-Warner.

Zeresan handia dute edizioan: Bertelsmann edo Hachette, adibidez, kate osoan daude presente, fabrikazio, edizioan noski, difusioan, banaketan.

Ordezkatzen zailak dira hauek komunikazio mass-mediatiko guztietan daudelako. Sarrerako listoia oso altu dago. Bertelsmann RTL Pluseko partaide nagusia da, telebista ordainduan ere badago; Hachette ere La 5 delakoan sartu zen. Nork ez du ezagutzen, bestalde, Paramount, Warner eta Home Box Office (Time-ren filiala) taldeek zer indar duten zineman eta telebistan?

Itxura guztien arabera talde handi hauek haziz jarraituko dute. Badirudi, gainera, multiespezialista multinazionalak ere gero eta gehiago multimedia-eredura datozela. Aztertzaileen ustetan datorren multimedia-ereduan ikus-entzunezkoak gaur prentsak eta liburuak daukan leku bera hartuko luke. 2000. urteko komunikazio-talde idealean negozio-zifraren % 10-20 izango luke liburuak.



TOBAR-ARBULU, Joseba (Santurtzi, 1945)

- *Mekanika kuantikoaren zenbait berezitasun (1993)*

Etorkizuna

1991n egindako azterketa da hau. Urte batzuk pasa dira geroztik, eta ez dakit zehazki zein izan den eboluzioa. Han eta hemen irakurri izan dudanetik bide beretik jarraitzen du aurrera.

Gogoratu behar da, bestalde, aldagai endogenoak bakarrik ez direla kontuan hartu behar. Demografiaren eta bizimoduen eboluzioek eragin handia dute etorkizunean. Populazioa ez doala gora zertan frogaturik ez da. Jendearen gustuetan, aldiz, ezaguna da ikus-entzunezkoek eta informatikak duten tira eta erakarmena. Liburuaren heriotza mantsoa aurreikusten duten diagnostiko pesimistak ez dira falta. Baina guzti hori utz dezagun aparte oraingoz.

Zenbait joera

Azken 10-15 urteotan argitalgintzak hartu duen dimentsioak, merkatu aldetik (nazioartekotasuna) eta tamaina aldetik (kontzentrazioa) oso altu jarri du listoia. Zailagoa da orain arrakasta izatea, nor izatea, inbertsio askoz handiagoak egin behar baitira kapitalean, merkatuan funtzionatu ahal izateko asko gastatu behar baita promozioan. Sarrera-ticketaren prezioa garestiagoa da orain.

Industrializatu egin da edizioa, eta aldaketa asko suposatzen ditu honek. Erabakiguneak aldatu dira, askoz gorago eta urrutiago daude orain. Autonomizatu egin dira erabaki-mailak eta, beraz, elkarrengandik urrundu. Errentagarritasuna da lehen hitza, ez bada azkena. Printzipio honen argitan hartu ohi dira erabaki guztiak. Arrisku editorialari ihes egin behar zaio.

Arriskurik ez hartunahiak zer esan nahi duen? Sorkuntza, berrikuntza bigarren mailan uztea eta nahiago izatea balio ziurrekin, kontsakratuekin funtzionatzea. Zailagoa dute autore berriek, obra berriek eta berritzaileek. Eta azken batean eskaintzaren estandarizazioa, uniformizazioa. Liburu batek, ahal dela, balio behar du Europan saltzeko eta aldi berean Ipar Amerikan gutxienez. Edo alderantziz. Eta ez hor bakarrik, mundua zabalagoa baita.

Etxetzar hauek, etekinik izango badute, obligatuta daude teknika komertzial guztiak erabiltzera, komertzializazio-forma berriak asmatzera, merkatu guztictarako produzitzera. Eta horretarako beren produkzioa dibertsifikatu egin behar dute ahalik eta gehien: literatura, eskola-liburua eta lagungarriak, gazteentzakoa, liburu merkeak, liburu dotoreak, hiztegiak, entziklopediak, erreferentzi liburuak, gida turistikoak, komikiak, besteak beste. Eta horretaz gain, inprimaketa eta banaketa ere kontrolatu ohi dute.

Baina ez hori bakarrik. Euskarrien dibertsifikazioa bilatzen dute. Liburugintzatik prentsa idatzira, eta prentsatik ikus-entzunezkoetara eta edizio elektronikora: horra bidea. Testu bat aukeratzeko orduan zerikusi handia du orain obra horrek beste euskarrietan emateko eduki dezakeen egokitasunak. Ahalik eta etekin edo zuku gehien ateratzea da kontua, euskarri guztick elkarri lagunduz.

Fabrice Piault-ek (*Le livre: la fin d'un règne*, 1995) zentzu honetan interpreta daitezkeen datu batzuk ematen ditu: 1993an Frantziako zinematokietan eman ziren 75 filme liburuen egokitzapenak ziren. Eta alderantziz ere: 1994an Frantziako zinematokietan emandako 21 filme nobela gisa agertu ziren ondoren. "Pocahontas" bat euskarri-modu guztietan aurki genezake: filme, liburu, jantzi, jostailu eta auskalo zenbat




TOLOSA, ANDONI (Hernani, 1963)
- Satorrak (1990)

gehiagotan. "Babar", "Tintin", "Lucky Luke" eta beste, liburuetatik pasa dira marrazki bizidunetara. Disney guztia honelaxe muntatua dago. "Pocahontas"-ekin Disneyk 2,4 milioi aleko tirada egin du hizkuntza desberdinetan.

Kontzentrazioa ez da berdin mamitzen liburugintzaren esparru guztietan. Argitaratzaile nazionalek abantaila dute bereziki literaturan eta eskola-liburuetan. Eta handiagoa da kontzentrazioa inbertsio handiko liburuetan. Indar handia dute editore multinazionalek edizio zientifikoan eta entziklopedietan.

Kontzentrazioan ere mailak eta mailak daude. Kontzentrazio-koefizienteak ez dira herri guztietan berdinak. "Stratégies dans l'édition" titulupean 1990eko Liburu-Saloian egin zen mahainguruan Bernard Guillouk emandako datuen arabera Frantzian da handiena kontzentrazioa: lehen bosten artean negozio-zifraren %60 egiten dute, Espainian %50, Estatu Batuetan %35 eta Bretainia Handian %30.

Frantziako kontzentrazioari superkontzentrazioa deitzen diote batzuk, eta bi nagusiena batez ere kontuan edukita, beste batzuk "duopolioa". Ohargarria da, izan ere, Groupe de la Cité batek 40 etxe edo marka kontrolatzen dituela (horien artean Dalloz, Dunod, Julliard, Larousse, Nathan, Bordas, Plon, Le Robert, Armand Colin) eta Hachette Livre delakoak 29 marka dituela (adibidez, Calmann-Lévy, Grasset, Lattès, Marabout, Stock). Eta ez da hemen bukatzen katea: Media Participations-ek 15 ditu, Flammarion-ek 11, Gallimard-ek 10, Albin Michel-ek 8, Hatierek lau, Glenat-ek 4. Beste galaxia bat dirudi.




TORREALDAI, JOAN MARI
(Forua, 1942)

- *Iraultzaz (1973)*
- *Euskal idazleak, gaur / Historia social de la lengua y literatura vascas (1977)*
- *Euskal telebista eta euskara (1985)*
- *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa I (1900-1992) (1993)*
- *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa II (1993-1994) (1995)*

Kontzentrazioaren tamaina egokia

Zein da kontzentrazioaren tamaina egokia? Erantzun zuzenik gabeko galdera da hau. Beste modu batera erantzun izan zaio honi gehienetan, hots, aniztasuna eta dibertsitatea arriskutan jartzen ez duena, hori da tamaina egokia. Aniztasun eta dibertsitate horiek enpresa independente eta normalki tamaina txikiagokoen laguntzaz bakarrik lor daitezke.

Arazoa da eszenatoki horretan bigarren mailako pertsonaia hauentzat lekurik ba ote dagoen. Hamabost urteotako historiak erakusten duenez, bai. Kontzentrazioak ez ditu enpresa guztiak bereganatu. Alderantziz baizik. Ematen du zirikatu egin duela editore independentea. Frantzian, esate baterako, 121 marka 8 etxetzarren menpeko badira ere, 180 dira urtean 30 liburutik gora ateratzen dutenak. Eta are harrigarriagoa:



UBEDA, Garbiñe (Ibarra, 1967)

- *Negu gorriak: ideia zabaldu Tour 95 (1995)*

1990ean bizirik zeuden enpresetatik %60 1970 ondoren sortuak dira, hau da, kontzentrazio-prozesuaren garaian.

Editore berrien loraldia esplikatzeko hiru arrazoi ematen ditu *Pratiques et métiers de l'édition* (1991) liburuan Jean-Marie Bouvaist-ek:

- neurri batean "eskuizkribu espontaneo" gutxiago onartzen dituztelako editore handiek.
- bor-bor intelektualik badagoelako, eta hortik autore berrien eskuizkribu "ez-perfektoak" perfektoak baino maizago atera ohi direlako.
- kapital handirik gabe eta ezaguera tekniko gehiegirik gabe beti delako posible editorialgintzan sartzea, eta bulego arruntean baino sari sinboliko eta sozial gehiago izaki, beti erakartzen duelako ofizio honek.

Editore berri hauek edizio industrialak egindako kalteak erremediatzeko asmoz heltzen diote lanari. Argitalgintza industrialari egozten diotena da:

- banaketan iraupen gutxiko produktu bezala tratatzea liburua.
- urtero liburu bat edo bi idaztera kondenatzea idazlea (bere obra heltzeko edo borobiltzeko astirik eman gabe) eta idazlea promoziorako erabiltzea (idazteko astia lapurtuz).
- editorea harreman publikoetan eta errentagarritasun-helburuetan gehiegi murgiltzea, eta astirik ez izatea autorea eta testua zaintzeko.
- lan-banaketak askotan dakarren kalifikazioaren jaistea, eta grafista eta teknikoei inposatzen zaien produktibitatearen erruz liburuaren eite tipografikoa gehiago ez lantzea.

Kontzentrazioaren aurrean bi modutara planteatu ohi da arazoa: independente izatea eta txiki izatea. Gehienetan batera doaz. Txiki independenteak badirudi ez dutela irentsiak izateko halako arriskurik. Bai, ostera, ertain independenteak. Sektore jakin batean ondo finkaturik ez badaude, lekuz aise alda ditzakete enpresatzar horiek.

Estrategia-mailan barik printzipio-mailan planteatu ohi dira sarri handien eta txikien arteko liskarrak.

Zer esan? Ez dira denak abantailak batean eta desabantailak bestean.

Enpresa handiak alde ditu ahalmena, baliabide ekonomikoak, promozioa, liburu-dendetarako bide zuzena; alde du kudeaketa eta enpresa-izpiritua ere.

Enpresa txikiaren abantailak bi eratakoak dira: egitura eta gastu finkoen arintasuna; eta autoreen harremanetako kalitatea eta ondoriozko proiektuak.

Teoria mailan hori. *De facto* gauzak nola diren, kasuan-kasuan ikusi behar.

C. MacGregor liburu-kontseilaria, (*The Bookseller*, 1988) kontzentrazioaren aldeko eta kontrakoen argumentu guztiak analizatu ondoren, konklusio batera iritsi zen, ebaluzio hori autoreari, liburu-dendari eta irakurleari eskaintzen zaion zerbitzu-kalitatearen arabera neurtu behar dela eta diferentzia ez dagoela enpresaren tamainan baizik eta enpresakulturan. Ez dago korrelazio automatikorik enpresaren tamaina eta kalitatearen mailaren artean. Enpresa handiak ez du kalitate hobea lortzen, nahitaez. Enpresa txikiak ez du autorea hobeto zaintzen, nahitaez.

Eta euskal argitalgintza guzti honetan?

Arranoak baino altuago hegan egin dugula pentsatuko du norbaitek eta guzti honek zerikusi gutxi duela euskal edizioarekin.


Euskal edizioaren tamaina erreala neurtzeko balio lezake, hasteko. Horiekin alderatuz, ahuldadea da gure argitalgintzaren lehen ezaugarria. Txikia da euskal industria editoriala, egitura ahula du. Produkzioaren tamainan, adibidez, euskal argitalgintzako enpresa nagusia, Elkar, hogeita seigarrena litzateke Frantzian. Eta Espainiako edizioan, 1955ean, hogeita zortzigarrena izan da. Hachette batek euskal editorial guztiek batera egiten dutena bikoiztu egiten du.

Mimetismorik mimetikoenarekin bakarrik aplika dakizkioke talde eta enpresatzar handi-mandi horien kontzeptuak eta jokamoldeak euskal argitalgintzari. Oso desberdin planteatzen da hemen argitalgintza, nahiz eta, enpresa diren aldetik, funtzionamendu-mailan haien antzekotasunik izan.

Gure merkatua irla baten gisakoa dela esan dugu arestian. Irla txikia tamainaz eta gutxi dibertsifikatua, segmentatu gabea. Eta esango nuke berezko muga horixe izan dela gure salbazioa. Esan nahi baita, interes gutxiko merkatua dela enpresa handi horientzat.


Baina ez da segurua, batere segurua, gero eta gehiago interesatuko ez direnik. Merkatuak hazkuntzarik badu, seguru baietz. Etekin komertzial hutsen mailan jarri behar da haien interesa. Kalkuladorak agintzen du, kontuak egitea da kontua: kostuak/irabaziak. Ez ahaztu produktu amortizatuekin datozela hona, eta tiradak (ohituta daudenerako txikiak izan arren) etekinak uzteko modukoak izan daitezkeela.

Enpresa handi hauek merkatu berrien bila dabiltza buru-belarri. Esan bezala, euskal merkatua txikia da, baina emankortasunik ikusten badiote, gainean ditugu berehala. Nola egin aurre horri?



UGALDE, MARTIN (Andoain, 1921)

- *Iltzaileak (1961)*
- *Ama gaxo dago (1964)*
- *Umeentzako kontuak. Sorgiñaren urrea (1966)*
- *Itsasoa ur-bazter luzea da (1973)*
- *Euskal kondairaren sintesia / Síntesis de la historia del País Vasco (1978)*
- *Mantal urdina (1984)*
- *Hiltzaileak (1985)*
- *Mugarri galduen itsumundua (1985)*
- *Batasun eta zatiketen artean (1989)*
- *Bihotza golkoan (1990)*
- *Itzulera baten historia (1990)*
- *Lezo Urreiztieta (1907-1981) Biografia (1990)*
- *Erroetatik mintzo (1993)*
- *Pedrotxo (1994)*



UGARTEBURU, Iñaki (Bergara, 1954)

- Ipui egileari pertsonaiak asaldatu egin zitzaizkionekoa (1984)

Ez gara jardun hipotetiko batean ari. Haur eta gazte-literaturan aspaldi sartu ziren. Eskola-liburuetara egin dute saltoa hamarkada honetan Eta, aurten, salto kualitatibotzat eman genezakeena Planetarena da, Hiztegi entziklopedikoarekin. Entziklopedigintza serio eta sendo hemen bertan abiatu den momentuan hain zuzen. Kasualitatea.

Kanpoko eta bertoko enpresen indar-korrelazioa ezagututa, kanpokoen sarrerari badiot nik beldurra. Ezagutzen ditut hori txalotzen dutenak. Ezagutzen ditut horri beldurrik ez diotenak, gertatuko ez delakoan. Bertako industria editoriala benetan indartsua balitz, lasai nengoke ni ere.

Bertako industriaren defentsak ez dakit zergatik duen batzuen buruan konnotazio negatiboa. Ez da progresista edo demokrata nonbait. Baina nonahi ikus daiteke ikuspegi hori dela nagusi. Europak Amerikako kultur inbasioari dio beldur. Frantziako editorialgintza aztertzen denean, Hachette eta Groupe de la Cité-ren "duopolioa" kritikatzen dute barrura begira, baina abantaila handi bat ikusten diote horri: kanpokoei aurre egiteko gauza direla, eta eskerrak. Espainian berdin gertatzen da, gremioa, aztertzaileak eta Kultur Ministerioa kezkaturik daude ari direlako ari kanpokoak sartzen, erraldoi horiei aurre egiteko kapazitaterik ez dagoelako eta gainera Hegoameriketara esportatzeko ez dutelako bertokoek bategiten. Zergatik da negatiboa Euskal Herrian gauza bera planteatzea? Zergatik da negatiboa Euskal Herrian Frantzian edo Espainian positibotzat jotzen den jarrera bera?

Jean-Manuel Bourgois ez da edozein. Bordas edizio-taldearen zuzendari nagusia *zen testu hau idatzi zuenean* (1982), eta bere garaian edizioaren Sindikatu nazionaleko lehendakari izana da. Bada, honek argi eta garbi lotzen ditu nortasun kulturala eta independentzia finantzaria: "Il ne faudrait pas que l'affaiblissement des moyens financiers des entreprises françaises les rendent plus facilement pénétrables par les transnationales de la communication. Surtout si ces transnationales disposent des moyens télématiques et de relais informatiques pour venir chercher les informations en France et les emporter ailleurs ou pour apporter en France de façon intensive, avec des coûts faibles, des informations venues de l'étranger. De même qu'un feuilleton télévisé créé en France coûte dix fois plus cher qu'un feuilleton acheté aux Etats-Unis, il ne faudrait pas qu'un jour nos livres scolaires, ou nos encyclopédies puissent etre influencés à ce niveau par la production étrangère. Notre situation est encore saine, mais elle est surement vulnérable".

Liburuaren etorkizuna

Fabrice Piault-ek liburu oso interesgarri bat idatzi du: *Le livre: la fin d'un règne* (1995). Ongi azaltzen du tituluak autorearen pentsaera: liburuaren erreinua bukatu da, edo bukatzen ari da. Baina kasu, ez dio liburua hil denik edo hilko denik. Baizik eta jaun eta nagusi izan den erreinutik demokraziara pasa behar duela. Alegia, beste komunikabideekin batera bizitzen ikasi behar duela orain eta multimedia-gizartean integratzea dela bere salbabide bakarra.


Esatea erraza da, egitea ez hainbeste. Sekulako iraultza baten zurrunbiloan murgildua dago liburua. Definizioa bera ere auzitan dago, ez baitakigu zeri deitu behar zaion liburu. Zer esan nahi du "liburu elektronikoak"? Eta batez ere ikusteko dago zein izango den euskarri bakoitzaren lekua eta egitekoa. Zein neurritan bai eta zein neurritan ez du ordezkatuko multimediak liburua? Alor batzuk paper euskarritan eta beste batzuk bestelakoetan emango al dira? Zer produktu-mota bideratuko da "on line" eta zein "off line"? Ez dakigu. Orain artean egin denaren berri badugu eta ikusten da joerak eta saioak nondik doazen, baina, diotenez, horren garapena zein izan daitekeen usaitu ere ez omen dugu egiten.

Arazo hauek gogoan, euskal liburuari begira lehen gogoeta bat egiteko 1995eko martxoan mahain baten inguruan bildu ziren Koldo Mitxelena Kulturunean Joseba Jaka zena, Andoni Sagarna, Gorka Arrese, Joxerra Garzia eta Joan Mari Torrealdai. Mahainguru horren berri ematean, Juan Luis Zabalak Egunkaria-n honela titulatu zuen: "Euskarazko liburua ez da hilko". Hala biz.

Ez da hilko, baldin eta aro berri honetan ongi kokatzen asmatzen badu, erantsi genezake. Bilera hartan bertan aro berri horren zertzeladak Andoni Sagarnak azaldu zituen. Industri arotik informazioaren arora igarotzen ari garela eta aldaketa hori Gutenbergek inprimategiarekin ekarritakoa baino handiagoa dela, esan zuen. Idazketak berak ekarritakoaren parekotzat jo zuen, hau da, aurrehistoriatik historiara iragatearen maila berekotzat.


Aro berri honetan kultur produktuek bost ezaugarri nagusi izango dituzte, Andoni Sagarnaren iritzira:

- *linealtasunaren haustura*: hartzaileak aukera du bere interesen arabera bide batera edo bestera jotzeko.
- *interaktibotasuna*: hartzaileak produktuaren sorketan parte hartu ahal izango du.
- *multimediatasuna*: jatorri eta mota desberdinetako adierazpide eta elementuez osatuko da produktu kulturala.



UNZUETA, LURDES (Durango, 1956)

- Argilunak begietan (1991)



URKIXO, JOANES (Bilbo, 1955)

- *Elur gainean (1984)*
- *Patxi Trumoik letrak ikasi nahi ditu (1985)*
- *Patxi eta txoriaren bahiketa (1986)*
- *Berbak legezko aiztoak (1990)*
- *Lurra deika (1991)*
- *Shangai Tom espazioko zaindaria (1992)*

- *produktu/zerbitzu dikotomiaren haustura*: sare telematikoen bidez obraz gain obra horren bertsioak, egokitzapenak, erabilera-moduak jasoko ditu hartzaileak, euskarri materialik gabe jaso ere.
- *dibertsifikazioa*: informatika, zinema, telebista, liburua eta beste izango dira aukeran.

Kultur produktuaren ezaugarri hauetan liburuak badu lekurik, noski. Baina ez al du senitarteko pobrearen itxura piska bat?

Baina zer da liburua?

Liburua definitzea oso erraza da eta aldi berean ia-ia ezina gaur egun.

Bi elementu bereizgarri ditu liburuaren definizioak: papera eta orrialde-kopurua. Hiztegi eta araudi gehienetan bi ezaugarri hauetan oinarritzen da kontzeptua. Elementu aldagarria orrialde-kopurua izan da. UNESCOk 1964an definizio estatistiko unibertsala gomendatu du: "49 orrialde edo gehiago duen argitalpen ez aldizkakoa". Azalak aparte, noski. Kanada, Finlandia eta Norvegiako legeak 49 orrialde horiek onartzen ditu. Libanon, Hego Afrikan eta Espainian orrialde bat gehiago behar da. Danimarkak 60 orrialde eskatzen ditu; Hungariak 64; Irlandak, Italiak eta Monakok 100 orrialde. Gutxiagokorik ere bada: Belgikak 40 orrialde eskatzen ditu, Txekoeslobakiak 32 eta Islandiak 17. Hortik behera, bost orrialde bitartean, UNESCOren arabera beti, liburuxkak dira.

Papera da beste elementu bereizgarria, definizio horretan. Hor sortzen dira orain auziak. Hori bakarrik al da liburua? Paperezko produktua?

Papera idatziaren euskarri gisa XIII. mendean zabaldu zen. Eta Gutenbergen inprimategiak, XV. mendean, liburuaren euskarri banaezin bezala kontsakratu zuen. Baina industrialki papera produzitzen 1799an Louis Robert-ek papera fabrikatzeko makina asmatu ondoren hasi zen. Harrezkero liburua eta papera bat eginda egon dira, nahiz eta lehenago metaletan, ehunetan, larrutan, arbola-azaletan, buztinetan, papirotan eta bestetan idatzi izan.

Gaur egun kuestioa da paperak zein neurritan definitzen duen liburua. Edo beste modu batera esan, euskarriak definitu behar ote duen liburua ala edukiak, mezuak, egitekoak.

Fiskalki ere ez da berdin liburuaren definizioa hertsia ala zabala izan, jakina baita liburuak gaurko legerietan tratamendu berezia duela, kultur produktua den aldetik. Produktu elektronikoetaraino zabaldu

behar al da tratamendu berezi hori? Ezezkoan, zer esan nahiko luke, orrialde inprimatu multzo bati ematen zaiola eta ez kultur produktu gisako bere funtzioari? Eta funtzio hori bera beste euskarri batzuen bidez betetzen bada, zergatik ez orduan?

Joera nagusia, aztertzaileen aldetik bederen, kontzeptua zabaltzearen aldekoa da. Euskarriaren gainetik jartzen da edukia, eduki kulturala. Baina auziak ez dira agortzen honekin. Zeintzu produktu elektroniko dira liburu eta zeintzuk ez? Non jartzen da marra bereizlea, adibidez, bideo-joku baten eta liburu interaktibo baten artean? Eta, baldin ezaugarria edukia bada eta ez euskarria, beste arazo bat: ez al da marrarik jarri behar liburutan? Zeren-eta dudagarri izan baitaiteke liburu askoren funtzio kulturala.

Mugak nonbait jarri behar eta, proposamen bat edo beste ere azaldu dira. José M. Boixareu, Marcomboko editoreak, elementu hauek ikusten ditu beharrezko edozein produktu liburutzat hartu ahal izateko: sortzailetasuna, euskarri materiala, difusioa eta irakurleak. CEGALeko idazkari nagusi den Alberto Rodríguez de Riverarentzat zera izango litzateke ezinbestekoa, "irakurketa/idazketa" izatea mezuaren intepretaziorako kodea.

Bistan da egungo problematikari erantzungo dion liburuaren definizio gaurkotu bat behar-beharrezkoa dela.


Liburua eta multimedia

Definizioan ez, bizitzan ditu zailtasun handienak liburuak, hala ere. Posizio hegemonikotik bat gehiago izatera pasa da. Baina ez da protagonismoa galtzea bakarrik. Askotan lekua ere galdu egin du. Multimedia liburua ordezkatzen ari da. Noraino?

Seinala dezagun zenbait puntu:


- Multimediak urte batzuk baditu. Gaurko nobedadea CD-ROMa da. Eta honek izan ditu beste batzuk aurretik: disketea, compact disc, bideoa, kasetea. Elkarrekin bizi dira denak gaur bertan ere. Diferentzia nagusi bat dago haren eta hauen artean: CD-ROMa bera berez dela liburua edo obra, eta besteak obra laguntzen edo osatzen zuten euskarriak direla.

  Lur gozoa aurkitu du bertsio elektronikoak erreferentzi liburutan. Abantaila guztiak ditu hor: informazioa gordetzeko ahalmen handia, sarrera anitz eta bat-bateko bilaketa dira azpimarragarrienak. Normalean, datu-base edo informazio-banku handia duten proiektu guztiek eta eguneratuak behar dituztenek zer irabazi handia dute. Etxe handi gehienek inbertsio handiak egin dituzte entzi-



URIA, Iñaki (Zarautz, 1960)

*- Beteluko Balnearioko mirakuilua (1985)**



URIBARREN, Patxi (Aramaio, 1942)

- *Euskarazko Hiztegia (1986)**
- *Eskola Hiztegia. Irudiduna (1991)**
- *Europa Hiztegia (1993)**

klopedia eta hiztegietan, eta kasuren bat salbu denek jo dute multimediatik. Ezaguna da Aranzadi etxeak legegintzaren diskoarekin izan duen arrakasta. Artegintzako liburuari ere joko handia ematen dio euskarri magnetikoak. Natur zientzietan, liburu praktikoetan eta beste askotan sekulako erreminta da, liburuari mila buelta ematen diona zalantzarik gabe. Irakaskuntzan ere etorkizunean garapen azkarra izango du.

Momentuz, merkatuan du gainditu beharreko arazoa. Tresnabidezko irakurketa du. Ez dago erabat zabaldua, baina urte gutxi barru edozeinen eskura egongo da, abiada azkarrean ari baita hazten.

Disketea, compact disc, bideo eta kasetea, testuen lagungarri gisakoak dira, eta arrakasta handia dute kioskoko salmentan, bildumagarrietan. Kiosko bidezko produktu editorial gutxi da gaur paper euskarri bakarrean kaleratzen dena. Kaseteak bide du arrakasta gutxien.

Euskal edizioan kioskoko salmenta autonomorik ez dago. Produktu multimedia hauek orain arte batez ere irakaskuntzan izan dute lekua. 1994ko EIMAko datuetan, liburuen laguntzaile bezala erabilitako euskarri hauek atera ziren: disketeak: 89; CD-ROMak: 5; kaseteak: 106; Compact disc-ak: 4; bideoak: 140; diapositibak: 2.

CD-ROMek ere agertu dute burua: euskararen datu historiko eta soziolinguistikoak, aldizkarien edukiak, hiztegiak eta entziklopediak, herri eta eskualdetako informazioa, etab. bildu eta eskainiz. Hasiera besterik ez da.

CDak berak ere oraindik ez du urte asko. 1980koa da CDa (Compact Disc) eta 1982koa CD-ROMa (Compact Disc Read Only Memory edo Memoria bakarrik irakurtzen duen disko konpaktoa). CDI (CD interactif) are berriagoa da, Philips-ek 1992an aterea. Urte berean Kodak-ek Photo-CD atera zuen. Argitalgintzan egin duten bidea jadanik handia bada ere, hemen ere hasieran omen gaude. Etorkizunak erakutsiko omen du zer produktu-mota bideratuko den "on line" eta zer "off line". Zeren eta hor daude, eta hemen, Informazioaren autopistak edo infobide ahaltsuak.

- Multimedia ez da liburua bestelako euskarritan egitea soilki. Liburua, eta liburuaren mundua, ordezkatu bakarrik ez, aldatu egiten ditu multimediak.

Liburuaren linealtasuna mila zatitan puskatzen du. Arrazonaketa landuaren ordez pentsamendu atomizatua proposatzen du, sinkretismo kulturala. Dokumentu eta informazio tipo desberdinen konbinazioz unibertso kreatibo berri bat sortzen duela dio Fabrice

Piault-ek (*Le livre: la fin d'un règne*, 1995). Liburuaren kontzeptua bera da aldatzen dena, produktu integrala baita liburu elektronikoa.

"Zapping" gisako irakurketa da nagusituko dena, liburuak tradizionalki eskatu duen irakurketa lineal eta jarraituaren ordez. Baliabide teknologikoek irakurleari protagonismo eta aktibotasun gehiago emango diote, liburuaren itsaso horretan berak bere itsasontzia gida dezan.

Idazlearen lana ere ez da berdina izango. Generoen arteko mestizajeaz gain unibertso kreatibo berriak asmatu egin beharko ditu idazleak teknologia berriez baliatuz: eskura ditu testua, irudi finkoa eta biziduna, hotsa, soinua eta beste. Testuak ez daude orain bere euskarri materialean preso. Nola sortu behar da euskarri desberdinetan materializatuko den obra bat?


Editoreak ezin du izan idatziaren editorea. Multieuskarritan pentsatu behar du produktua. Euskarri batean baino gehiagotan produktu bat kaleratzea orain arte ere gertatu izan da. Adibide tipikoak izan dira eleberritik filmea edo gazte-literaturatik marrazki bizidunak egitea. Baina ez omen da berdin izango hemendik aurrera: euskarri guztietan batera pentsatuko da, unibertsoak sortuko dira, kontzeptuak. Kasu batzuetan, gainera, multieuskarriak eta multiproduktuak antolatuko dira, dio Fabrice Piault-ek. Eta Disney edo Spielberg-en kasua aipatzen du. Hauek ez dute filmeak edo liburuak egiten, proiektu osoa ekintza editorial eta finantzario bezala planteatzen dute hasieratik, "Pocahontas"-en kasuan ikusi den modura. Aldi berean filmeak, liburuak, bideo-jokoak, jostailuak, jantziak, opariak, etxetresnak. Bakoitza bere erritmoan baina guztiek elkarri lotuta.

Urrutiegiko hotsak direla horiek? Produkzio aldetik bai, nahiz eta produktuak etxeraino sartu zaizkigun.

Posibilitate teknologikoen aldetik horren urrutiko ez diren beste adibide batzuk badira, liburugintzaren esparrutik atera gabe.


Aurtengo Pariseko Liburu Azokan ikusia dut Rank Xerox-en "Docutech" superfotokopiatzailea. Bada, ordenagailuko diskete batetik berehalako batean, eta merke, moldatzen du liburua, inprimaketa tradizionalaren kalitate berekoa. Tirada txikietarako aproposa, olerkirako adibidez.

Estatu Batuetan, argitaratzaile berezitu batek, John Wileyk, irakasleei zera proposatzen die: ikasleentzako behar dituzten testuekin liburu bana egitea. Ozta-ozta behar direnak, eta merke.



URIZAR, Joseba Andoni
(Elorrio, 1964)

- *Gizaeuropa (1986)**
- *Girovago (1992)*



URKIOLA, EDURNE (Ziortza,1956)

- *Ibanentzako argi apur bat (1983)*
- *Inortxok ezer baleki... (1992)*

Beste esperientzia bat, hau Frantzian. 1994ko udaberrian hamabi bat editore bildu zen "Le livre à la carte" edo liburua eskura proposatzeko. Ehun bat liburu-denda aukeratu eta hauen bidez beren fondoetako liburu agortuak, banaka izanda ere, eskaintzen dituzte.

Liburua ere aldatu egin da

Liburua objektu gisa erruz aldatu da teknologia berriei esker. Haur-literaturako bilduma batzuk liburutik itxura edo formatuoa bakarrik dute. Aldera ditzagun duela 50 urte edo gutxiagokoekin.

Teknologia berriak integratzeko abildadea izan du liburuak. Hitz egitea eta berezko mugimendua bakarrik falta bide zaie batzuei: testua, ilustrazioa, eranskailuak eta objektuak integraturik eskaintzen dituzte inoiz. "Pop up" liburuak ireki eta kartoizko eraikuntzak aurkitzen dira. "Liburu-puzzleak" ere badira. "Liburu-diskoak" ere bai.

Edukin aldetik ere alor guztietara zabaldu da liburua. Literatura eta pentsamenduaren habia da liburua, baina baita ere sukaldeko eta lorezaintzako sekretuen transmisorea. Azterketa sakonak bezala kabitzen dira liburuan politikari baten hautes-kunde-ekitaldiko ibilaldia, mistiko handiaren olerkia eta pornografiarik gordinena. Hitz batean, orohartzailea da liburua.

Argitalgintza industrialarekin areagotu egin da dibertsifikazioa. Eta, aldi berean, uniformizazioa. Errentagarri diren alor guztiak erabiltzera jo dute editoreek, "filoi" guztiak lantzera. Hori bai, baina elkarri kopiatuz. "Panurgismoa" deitzen dio fenomeno honi Fabrice Piault-ek. Argitaratzaile guztiek gauza berdinak egitea ekarri du honek ondoriotzat. Liburu-tipo batean editore batek arrakasta badu, hara doaz gainerakoak. Bilduma batek ongi funtzionatzen badu, pare bat sortzen zaizkio parean, elkarren lehian.

Garai bateko argitaratzaile artisauak liburuari zion maitasunak zerikusi gutxi du oraingoak erakusten duen jarrerarekin.

Irakurlearen jarrerak ez dira gutxiago aldatu. Liburuarekiko harremana desakralizatu egin da, banalizatu. Liburuaren "balioa" aldatu egin zaio. Aztertzaileek liburuA aipatzen dute, baina berak ezagutu liburuak ezagutzen ditu, eta ez beti gustukoak. Eskolan liburua hasieratik bukaeraraino irakurtzen irakatsi zaio, baina nola irakurri liburu guztiak osorik? Ez dago astirik. "Zapping" egin beste erremediorik ez du. Eta gainera gehienak hiztegi, entziklopedia eta sukalde-liburuak dira, eta horiek ere goitik behera irakurri behar ote dira?

Liburuak, bestalde, ez du lehengo baliorik. Edozein tokitan uzten dira, etxeko komunean ere bai; edozein tokitan irakurtzen dira, metroan eta autobusean ere berdin. Liburuarekiko harremana funtzionala da soilki: norberari balio dion neurrian bakarrik balio du.

Eta zer gertatzen da balio funtzional hori beste modu batera eskaintzen bazaio? Disko batean, adibidez? Objektua bera al da inportantea ala edukia, zerbitzua?

Liburuzaleak erabilgarritasuna aipatzen du liburuaren alde. Hau da, liburua autonomoa da (ez du tresnarik behar irakurtzeko), manejagarria da (edozein une edo lekutan irakur daiteke). Ez dakigu, ordea, zer eskainiko zaigun multimedietan. Geuk ezagutu dugu zinematik telebistara pasatzen eta hemendik bideora. Zinemalekura joan egin behar zen. Telebistak etxera ekarri zuen irudia. Bideoak biderkatu egiten ditu aukerak eta norberari komeni zaionera egokitu.

Erabilgarritasuna, malgutasuna, al da liburuaren aldeko argumentu bakarra? Ez da gutxi, baina hori besterik ez?

Dena den, liburuzaleari ez dio horrenbeste axola hiztegiak eta entziklopediak CD-ROMean egon ala ez. Baina pentsamendua eta literatura? Literatura ere diskoan? Nola bizi, orduan, liburua eskutan hartu eta maitekiro orriak pasatzearen plazerra?

Euskarri batzuk eduki batzuetarako besteak baino egokiagoak dira. Pentsamendua eta literaturarentzat lekurik egokiena izan liteke liburua. Baina auskalo. Ez da ahaztu behar multimedia orohartzailea dela, eta interesatua.

Saio batzuk egin dira hemen eta han. Kaliforniako "The Voyager Company" multimedia-elkarteak eleberriekin egin du froga. "Ilias" izeneko argitaletxe independente frantsesak idazle klasikoak jarri zituen disketean, 1994an, eta urtero 40 bat egiteko asmoa azaldu zuen. Euskaraz ere Lavin-ek Axular-en Gero eta beste autore klasiko batzuen lanak eman ditu euskarri elektronikoan.


Edozein modutan ere, nekez imajina dezaket Durangoko Azoka libururik gabe.

Ez dago bildurrik hori gertatzeko. Oraingoz behintzat. Ez dakit multimediaren merkatua zein den Euskal Herrian. 1994ko estimazioen arabera, Estatu mailan 60.000 unitate erabiltzaile zeuden; Frantzian, 200.000; Britainia Handian, 450.000; Alemanian, 1.000.000. Beste ikerketa batek erakutsi zuenez, 1994an, Mendebaleko Europan 2,74 milioi ordenagailu zeuden CD-ROM irakurgailua zutenak eta Estatu Batuetan 13,43 milioi. Hazkundea, baina, oso bizia da, eta kalkulatzen denez 1998an, Europan, 35,96 milioi ordenagailu leudeke CD-ROM eta guzti.



URKIZA, JULEN (Ondarroa, 1944)

- *S. Onaindiaren Euskal Idazlanen Bibliografia (1989)*
- *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak (1992)*



URKIZU, Patri (Lezo, 1946)

- *Literatura eta kritika (1970)*
- *Euskal teatroaren historia (1975)*
- *Sekulorun sekulotan (1975)*
- *Dorrejilko kanta (1977)*
- *Zeren azken finean (1984)*
- *Astolasterrak (1984)*
- *Etsipenez. Jon Chaoren memorioizunak (1984)*
- *Euskal antzerkia (1984)*
- *Nola Kursaal berria suntsitu zen (1984)*
- *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798) (1987)*
- *Zuberoako irri teatroa (1989)*
- *Donostiako euskal iztundearen 75. urteurrena (1915-1990) (1990)*
- *Bertsolaritzaren Historia I (1991)*
- *Bertsolaritzaren Historia II (1991)*
- *Agosti Chaoren bizitza eta idazlanak (1811-1858) (1992)*
- *Exiliatuok ez gara inongoak (1995)*
- *Zoazte hemendik: 1936ko Santakrutzak (1995)*

Epe motzera eta ertainera liburuak ez du zertan bildurrik izan. Alde batetik, edizioan baino gehiago garatu da oraingoz beste alor batzuetan, hala nola, Hezkuntza eta Formazioan, Aisialdiko informazioan, Marketing-ean, eta Turismoan. Eta bestetik, edizioaren barruan, 2000. urtean, % 20ko salmenta kalkulatzen zaie Alemanian eta Estatu Batuetan. Horrek esan nahi du titulutan % 10en bat izan daitezkeela eite horretako produktuak.



EUSKAL ARGITARATZAILEAK

Euskarazko argitalgintzaren sektorera hurbilketa bat egiteko asmoz galdeketa bat luzatu diegu euskaraz sistematikoki argitara ematen duten argitaletxeei, urte honen hasieran. Hogeita bost galdeketa bidali ditugu postaz, eta 19 erantzun jaso.

Inkesta bat egiteko orduan, aurrena erabaki behar dena unibertsoa bera da, hau da, zeini zuzendu behar zaion galdeketa. Kasu honetan, zein den editore. Erraza ematen du, baina ez da. Zenbaki editoriala izatea nahikoa al da editore izateko? Hori horrela balitz besterik gabe, ISBNko zerrendak hartu eta 200 bat "euskal editore" aurkituko genituzke. Bizpahiru urtez behin libururen bat argitara ematen dutenak ere hor daude. Gehien-gehiena erdaraz publikatzen dutenak ere bai. Horrekin nekez antzemango dugu euskal argitalgintzaren fenomenoa zertan den. Mieztuz-mieztuz 50 ingurura iristen gara. Baina hemen ere "noizbehinkariak" dira batzuk, eta erakunde-mota guztiak eta taldeak barnean daude.

Ekoizpenaren aldetik pisu gehien daukatenak hartzea egokiagoa da noski. Hortik jo dugu. Baina irizpide hau ere ez da muturreraino eramatekoa. Zeren eta Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Foru Aldundiei, Eustati, Unibertsitateari, eta Aurrezki-Kutxei ere galdetu behar al zaie zer pentsatzen duten?

Irizpide bakar batekin ezin da jokatu holakoetan. Guk kontuan izan dugun lehen irizpidea munduko errazena da: Euskal Editoreen Elkarteko partaideak. Hemen daude produkzio gehiena ziurtatzen dutenak. Ez dira denak, ordea. Kanpoko hamabiri ere bidali diegu galdeketa, kulturalki nahiz ekonomikoki garrantzi berezia dutelako. Horra bi irizpideak, elkarren osagarri.

Berariaz kanpoan utzi dugu edizio instituzionala. Ez azterketatik. Bai galdeketatik.

Lautik hiruk erantzun du. Erantzun-kopuruan ez dago akatsik, baina behin baino gehiagoţan bai erantzun-mailan. Batzuk galdera-mota ba-

tzuei paso egin die. Abstentzioa aukeratu dute. Oro har esan daiteke iritzia emateko ez dutela trabarik, eta gehiago kostatu zaiela informazioa eskaintzea, nahiz eta sekretu handirik ez galdetu.

Samurra ez beste guztia da euskal argitalgintza aztertzea.



Edizioaren sarrera-hesia gainditzea erraza denez, sartu-irtenak ugari dira. Argitaletxe bat sortzea oso erraza da, "mantentzea" ere bai, nahi bada. Maila eta tamaina dira zailak. Sakabanaketa handia dago.

Ez da batere ebidentea zein den argitaratzaile eta zein ez. José Manuel Galán-ek (*Análisis estructural del sector editorial español*, 1986) hiru irizpide aukeran ematen ditu: urteroko titulu-kopurua kontuan edukitzea (urteko 5-10 titulu gutxienez beharko lirateke); fondo editorial bizia kontuan hartzea (60-100 titulu beharko lirateke); jarduera editorialeko etengabeko iraupena kontuan hartzea (5-7 urte beharko lirateke). Sektorearen dimentsioaz jabetzeko proposamen bat da, eta interesgarria.

Analisietarako eragozpen gehien dakarrena zera da batez ere, dentsitate gutxiko sektorea dela. Nahiz eta aski ugari izan zenbaki editorialak, segmentazio gutxiegi dago eta horregatik oso nekeza gertatzen da ezaugarri berdineko multzoak eratzea, elkarrengandik argi eta garbi bereiztea, bata besteari kontrajartzea. Tipologia bat egiten hasi, eta gehienez bizpahiru argitaratzailez osaturiko taldearekin aurkitzen da bat. Eta deskuidatuz gero, horietako batek puntu batzuetan beste muturreko taldearekin zerikusi gehiago du. Diferentziazio gutxiegi dago, dentsitatea delako txikia.

Eta bukatzeko, hitz erdi bat sektorearen garrantziaz.

Garrantzia zertan azpimarraturik ez dugu. Inportantea da kulturalki, berau baita neurri batean produkzio intelektualaren zutabeetako bat. Eta inportantea da ekonomikoki. Datu bat: 1993ko euskal liburuen balio-estimazioa ISBN agentziaren zifretan 6.137.694.430 pezetakoa izan zen. Alderdi hau, ekonomikoa, askotan ez dugu aintzat hartu ere egiten, kulturaz ari garenean. Eta alderantziz. Ekonomia eta industria alde batetik doaz, torniloetarako balio dute. Eta kultura (eta euskara) bestetik, espirituaren bidetik edo. Eta edizioan, hain zuzen, ekonomiak eta kulturak elkarrekin topo egiten ez badute, ez dago aurrerapenik, ez dago ediziorik.

Bi alderdiok kontuan edukita heldu nahi izan diogu gaiari.

Kromosoma editoriala

1936ko gerrak eten zuen tradizioa. Gerrateaurreko argitaletxe emankorrenak ikusi ditugu bere lekuan: Lopez-Mendizabal Tolosan, Jaungoiko-Zale Zornotzan, Martin y Mena Donostian, Elosu Durangon, eta abar. Orduko bakar bat ere ez da bizi gaur.


Gerrateostean Isaak Lopez Mendizabalek segida eman zion bere etxeko tradizio luzeari, eta Buenos Airesen Ekin sortu zuen 1942an. Edizioaren tradizio familiarra zer den baldin norbaitek badaki Mendizabal da hori, bere aurrekoen ofizioa horixe izan baita. Itxaropenak eta Auñamendik badute honen antza, urrutikoa bada ere.

Bi hauek hain zuzen eta etxe erlijiosoak izan dira gerraostean zubilana egin dutenak, harik eta 1960ko hamarkadaren bukaera-aldera edizioaren belaunaldi berri bat etorri zen arte. Garai berri honetakoak dira Lur, Jakin, Gordailu, Irakur Sail, Etor, Gero, Elkar eta beste. Hauetako batzuek ez dute luze iraun. Eta azken orduko batzuk birmoldatu egin dira.

Gaur egungo argitaletxe guztiak berriak dira. Tradizio zaharra, aitonarengandik gurasoengana eta hauetatik seme-alabetara isurtzen den hori ez da mamitu, neurri on batean, arestian aipatu bezala, 1936ko gerraren erruz.

Tradizio horretan Isaak Lopez Mendizabal gailendu da. Francisco La Lama inprimatzailea zuen birraitona. Honen alaba Mendizabal inprimatzailearekin ezkondu zen. Honen alaba (Mendizabal La Lama) Eusebio Lopez inprimatzailearekin ezkontzen da, eta hauen semea da Isaak. Bai, kromosoma editorialak zituen Isaak-ek.

Bokazioa, ofizioa, zaletasuna, liburua odolean eraman behar da horrenbeste urte eta gertakariren artean bizirik irauteko: La Lamaren inprimategia Napoleondarrek desegin zuten; Mendizabalena, karlistek; E. Lopezena, liberalek. Eta, jakina denez, Lopez Mendizabalena, Isaak-ena, frankistek.



Jorge Gimenez
ALBERDANIA ARGITALETXEA

Lau belaunaldi gerraostean

1936ko gerraren etenaren ondotik, lau argitaletxe-belaunaldi bereiz ditzakegu: 1) 1936-67 bitartekoak; 2) 1968-75 bitartekoak; 3) 1976-86 bitartekoak; eta 4) 1986tik gaur artekoak.

Belaunaldia	Urteak	Argitaratzailea
Lehena	1936-67	% 16,5
Bigarrena	1968-75	% 29,0
Hirugarrena	1976-86	% 25,5
Laugarrena	1987-96	% 29,0



Lehen bi aldiek frankismoaldia osatzen dute. Hor sortu ziren argitaratzaileetatik gutxi gelditzen dira bizirik: Auspoa, Auñamendi, Txertoa, Luis Haranburu, Kriselu, Gero, ezagunenen artean. Gehien-gehienak aspalditxo hil ziren: Ekin, Kuliska Sorta, Aintzina, Cinsa, Gordailu, Irakur Sail, Lur, Goiztiri, Ediciones Vascas, Iker, Leopoldo Zugaza, etab., eta ez horren aspaldi Etor.

Hurrengo bi belaunaldiekin hasten da edizio modernoaren historia. Abiapuntua honela seinalatu nuen *Euskal Idazleak, Gaur* liburuan: "Orain bizpahiru urte, 1974 inguruan, hasitako bide berria esanguratsua da: politizazioa ez da hain nabarmena liburuetan, epelduz bezala doa, eta editorialeen arteko aspaldiko burrukak isiltzera bide doaz. Honekin batean saio liburua krisitan sartzen da. Argitaletxeek kultur politika hori oinarriagotik hasi nahi dute, behar den lekutik, alegia, kulturaren eta hizkuntzaren moldaketan. Ikastola liburutara, irakurgaitara, hiztegi eta oinarrizko liburutara jotzen da gogotsuago gaur".

Batabestearen ondoren etorri ziren gero beste hainbat, eremu berezituak lantzera batzuk eta joera orohartzailearekin beste batzuk. Katea ez da eten zeren eta orain bertan ere sortuz baitoaz.

1976 ondoren editorialgintzan bete-betean ikusten ditugun batzuk aurreko urtealdian dituzte zainak. Hori da, adibidez, bi nagusien kasua. Erein da bat eta Elkar bestea.


"Erein" marka 1976an agertzen da lehen aldiz, baina Ereineko lagunak Etor-en zebiltzan 1970etik 1972ko krisi bitartean eta geroztik Mensajeroren Gero-n.

Elkar argitaletxea ere sortu 1972an sortu zen Iparraldean, baina oraingo lanean hasi 1977an hasten da Hegoaldean, eta bereziki Jose Mari Sors-ek zuzendaritza hartzen duenean.

Hirugarren belaunaldi honetatik zutik gelditzen diren ezagunenak, aipaturiko Elkar eta Erein-ez gain, Labayru, Pamiela, Susa eta Sendoa dira. Hildakoen kapituluan ez dago izen askorik; Hordago eta La Primitiva Casa Baroja ezagunenen artean.

Laugarren belaunaldia, azkenik, azken hamar urteotan sorturiko argitaletxeek osatzen dute. Ibaizabal-ez aparte, eremu berezietara jo dute hauetako gehienek edo denek. Garai honetakoak dira Txalaparta, Alberdania, Gaiak, UEU, Troka, Tinkoketa, Bermingham, besteak beste. Garai honetantxe gertatzen da, baita ere, erdal edizioaren osagarritzat euskarazkoa hartu eta sistematikoki gazte-literaturan edo ikasmaterialgintzan lan egiten hastea. Giltza, Zubia, Desclée de Brouwer dira diogunaren adibiderik hoberenak.

Luze jardun beharrik ez dago egungo argitalgintzaren gaztetasuna frogatu nahita. Gaurko argitaletxe gehienak fundatzaileen esku daude. Bigarren belaunaldiaren eskuetara pasatzen direnean, zer gertatuko den inork ez daki. Bat edo beste krisitik pasea ere bada jada, lehen belaunaldian bertan, eta dakigunez krisi hauek areagotu egin ohi dira erreleboaren garaian, ez badira ondo lotuta uzten behintzat. Gertatzen da, gainera, argitaletxe "zaharrenak" talde-erabakiz eratu zirela eta forma juridiko eta formalistei jaramon gutxitxo egin zitzaiela lehen eta gero. Argitaletxe batzuetan, horregatik, ez da bigarren belaunaldiaren zain egon behar izan krisia eta tirabirak sortzeko. Kultur militantziaren urre-garaian sorturiko editorial eta aldizkariek orduko espiritu hari gorputz juridiko egokia eman beharrean aurkitzen dira orain, krisi latzagoetan erori aurretik.



Aurelio Erdozain
DESCLÉE DE BROWER ARGITALETXEA

Erraz jaio eta erraz hil

Edozein modutan ere, bi faktore kontrajarrik jokatzen dute argitaletxeak gaur martxan jartzerakoan, bata alde eta bestea kontra. Batetik, sekula baino errazagoa da orain edizioa, autoedizioa, aurrerapen teknologikoei esker. Edozein gizakume edo taldetxoren eskura dago teknologia. Ez prestakuntza ikaragarririk eskatzen du, ez diru-inbertsio gehiegirik. Hortaz, sarrerako tiketa merke dago.

Sartzen erraza da, baina agian ez hainbeste lekua aurkitzen. Berriak kontra daukan faktorea hori da, lehen baino zailagoa dela orain izen bat egitea, arrakasta izatea, nahikoa egituratua dagoelako euskal edizioa. Dena den, seinalatu beharra dago, azkar asko aurkitu dutela lekutxo bat baino zerbait gehiago Ibaizabal batek, Txalaparta batek, Alberdania batek. Esparru berriak badira lantzeko, horixe baietz, baina komertzializazioa da orduan arazoa.

90eko hamarkadaren hastapenetan sortu diren argitaletxe batzuek lortu duten arrakastak zera adieraz dezake, alegia, leku teoriko zail hori ez dela agian horren eskuragaitza. Erraztasun honen esplikazioetako bat argitaletxe "zaharren" inertzia izan daiteke. Ematen du urtetan lanean diharduten argitaletxeen iritzira balizko merkaturik ez dagoela, dauka-

ten merkatu-kuotarekin konformatzen direla, promozioa alperrik dela; hitz batean, sabaia jo duela bai produkzioak eta bai kontsumoak.

Jatorri ezberdinak



Argitaletxe guztiek ez dute jatorri berdina, ezta gutxiago ere. Editore izatera iristeko bi bide izan dira tradizionalki erabilienak: liburu-denda eta inprimategia. Liburua saltzetik liburua produzitzera iristea oso bide normala izan da. Hainbat kasu dago Europako editore handien artean, liburu-denda batetik edo liburuak banatzetik gora egin eta produzitzera jo dutenak.

Inkestarako aukeraturiko populazioan % 11,1 dira liburuaren salmentatik datozenak. Askoz gehiago dira, izan. Sendoa izan daiteke kasurik argiena. Ediciones Vascas-ek ere La Gran Enciclopedia Vasca-ren banaketa-taldea zuen jatorrian. San Miguel banaketariak sortu zuen Geu argitaletxea Bilbon. Estu-estuan ez bada ere, Elkar bera ere hemen koka daiteke: Iparraldean Zabal, eta Hegoaldean Bilintx eta Zabaltzen indartzen dira aurretik. Liburu-dendatik sortutzat eman ditzakegu Txertoa (Easo liburu-denda baitzuen familiak Donostiako Gipuzkoa plazan) eta Leopoldo Zugaza editoriala, Itz liburu-denda baitzuen jabe berak Durangon.

Euskal tradizio zaharrean bide normalagoa izan da inprimategitik ediziora pasatzea. Gure lehen argitaletxeek inprentan dute jatorria gehienek. Gaur ez dugu holakorik. Kuliska Sorta izango zen azkena.

Argitaletxea ere izan liteke jatorria, edo puskatu egin delako, edo haserretu egin direlako, edo nork bere kasa jartzea erabaki duelako. Edo fusionatu egin direlako. Inkestako argitaratzaileen erantzunetan % 16,7 sartzen da kasu honetan. Baina egiazki dezente gehiago dira horrela sortuak, modu batera edo bestera. Haranburu Altunak Lur zenetik Kriselu atera zuen. Lur-en zenbaki editoriala erabili zuen Hordagok. Oraingo Lur-eko ekipo bera zebilen Hordagon. Ostoak Etor du aurretik: Etor desegitean sortzaileetako bat, Enrike Aierbe, aurkitzen dugu Ostoaren buruzagitzan. Etor-ek berak ere "Eliz Atarian" liburugintzari jarraipen eraberritua eman nahi izan zion. Erein-ek Etor eta Gero ditu aurretik: Erein sortu aurretik Etor-en buruzagitzan eta ondoren Gero-renean ibilia da Julen Lizundia. Alberdaniako buruzagitza nagusiak Erein-eko literatur ekipoa osatzen zuen aurretik. Beste neurri batean bada ere, oraingo Txalapartak, Susak eta Ttarttalok izen bereko beste esperientzia editorial bat izan dute lehenago.

Beste formula bat ere badago, eta da euskal argitaraketa erdarazkoaren adar edo atala izatea. Juridikoki soluzio desberdinak eman zaizkio: Santillanak enpresa berri bat sortu du (Zubia), Edebek talde bat eratu du euskal ediziorako (Giltza). Autonomia gutxiagoko taldeak dituzte Desclée de Brouwer-ek, Bruñok, SMk eta Anayak. Eta bada beste esperientzia bat: Mensajerok Gero marka desarroilatu du euskal ediziorako.

Editorialaren jatorrian aldizkariko eskarmentua dago hainbat kasutan. Normalki aldizkariaren izen berarekin jartzen da martxan aldamenean editoriala. Adibidez, Jakin, Susa, Maiatz, Pamiela, eta izen desberdinez, Literatur Gazetaren ondoan La Primitiva Casa Baroja. Leopoldo Zugazak ere liburuen aurretik zuen Gaiak aldizkaria.

Ez dira gutxi elkarte edo erakundea atzean daukaten editorialak: Donostiako Gotzaitegiarena da Idatz; Elhuyar Kultur Elkartearena, Elhuyar; Labayru Elkarte kanonikoarena, Labayru; Gipuzkoa-Donostia Kutxarena, Kutxa edo Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones (SGEP); Ikastolen Elkartearena, GIE.

Nola ez, ekintza pertsonalean oinarritu liteke argitaldari bat. % 16,7k jatorri hori aipatzen dute gaurkoen artean.

Baina estatistikoki taldean hartu ohi da erabakia: % 50. Izan liteke editoriala sortzeko taldea biltzea, eta izan liteke ediziora pasatzea erabakitzen duela talde edo elkarte eratu batek. Bietatik lehena da nagusi. Oraingo argitaletxeen aitzindariek ere jatorri bera zuten. 1970 inguruan sortu zirenak, haiek denak ziren tankera honetakoak: plan eta egitarau baten inguruan bildu ohi zen lagun-taldea. Helburuak desberdinak dira orain. Baina ez hori bakarrik, egitura ere bai, askoz profesionalagoa. Berdina dute, hala ere, jatorrizko erabakia.



Inaki Irazabalbeitia
ELHUYAR ARGITALETXEA

Sorrera-helburuak

Aro garaikidean sorrera-helburuak desberdinduz eta zehaztuz joan dira aldi berean. Orain baino lehen diferentziak ideologian markatzen ziren liburugintza-motan baino gehiago. Argitaletxearen jarduera nagusia planteatzen da orain diferente, produktu-tipo batzuetan zentratuago.

Multzo batzuk eratzea posible da orain.

Euskal kultura bere orokorrean hartzen dutenak dira batzuk: "Euskal kulturaren garapena" du sorrera-helburuan Elkar-ek; Erein-ek: "Gure kulturan eta bereziki liburugintzan lan egitea"; Ibaizabal-ek: "Euskal kultura", besterik gabe.

Literatura lantzeko sortu dira beste batzuk. Susa, adibidez, "helduentzako euskal literatura argitaratzeko"; Igela, "literatur liburuak argitaratzeko"; Alberdania, "literatur sorkuntza bultzatzeko".

Zenbait arlo espezifikori zuzenean erantzuteko jaio dira beste batzuk. Ttarttalok "hemengo gaiez gain material suntsigarria haurrentzat" publikatu nahi du; Elhuyar-ek "zientzia eta teknikaz euskaraz aritzea" du helburu; Ihardun-ek ikasmaterialak euskaraz produzitu nahi ditu; Gaiak-ek "pentsamentu garaikidea euskal kulturarekin uztartu" nahi du; UEUren helburuetan dago "hutsune bibliografikoa betetzea unibertsitateari dagokionez"; Giltzaren helburua da "zerbitzua eskaintzea euskal eskolari".

Jarduera nagusia edo bigarrengo helburua, erlijiosoa daukatela hiruk adierazten dute. Labayruren helburuak dira "euskal kulturaren balioak bultzatzea eta alderdi guztiak aintzat hartzea gure herrian Ebanjelioa zabaltzeko"; Mensajerorenak: "Giza jakintza eta erlijioaren zabalkundea"; eta Idatz-ena: "Elizbarrutiko Pastoraltzarako liburuak sortzea".

% 50 argitaletxe Gipuzkoan

Azken urteotako ekoizpena ziurtatzen duten etxe guztietan erdiak kokatzen dira Gipuzkoako lurretan. Inkestatik aparte utzi ditugun txikitxikiak kontuan hartuz gero, gipuzkoartu egingo luke horrek panorama. Gipuzkozentrismoaren bertsio editorialtzat har dezakegu . Easozentrismoaz ere hitz egin daiteke Gipuzkoako argitaletxe erdiek baino gehiagok baitute egoitza Donostian.

Bizkaiko lurretan, Bilbo Handian gehienak, % 35,7 kokatzen da gaur egun. Bizkaia aukeratu dute, gainera, hemen inplantazioa bilatzen duten kanpoko editorialek: Giltza-Edebe, Zubia-Santillana, SM, Anaya.

Nafarroak % 10,7ko partaidetza du lurralde-banaketan. Produkzioz handienak ez badira ere, izena eta izana ongi merezia dute Pamiela batek, Igelak eta Txalaparta batek.

Araban, EAEko hiriburua denetik, argitalgintza instituzionala biltzen da. Baina argitalgintza pribatuan txiro dago oso.

Ipar Euskal Herriak ere ez du bizitasun handirik erakusten editorialgintzan, % 3,6rekin. Orain baino gehiago beti izan da.

Tipologia baten atzetik


Bere txikian ugari dira liburu-argitaratzaileak. Tipo askotakoak. Baina ez pentsa nazioarteko edizioa deskribatzeko egin dugun tipologiarik egin daitekeenik hemen. Argitaratzaileen izaera juridikoa kontuan hartuta, sailkapen ezberdinak egin daitezke.

Beti egin ohi den lehen sailkapena argitalgintza publikoaren eta pribatuaren artekoa da. Era guztietako erakunde publikoen emaitzari deitzen zaio publikoa, direla erakunde politiko-administratiboak, direla Unibertsitate publikoak, besteak beste.

Euskarazko edizioan erakunde publikoek edizio-mailako presentzia dezentea dute, Eusko Jaurlaritzatik azken udaleraino. Beren produkzioa urtero % 15-20 bitartekoa izan liteke. Ez da gutxi. Hauen liburu asko eta asko zerbitzu gisa ulertu behar dira: elkorra gaia, mugatua bezeria. Badira, ordea, irteera komertzial polita izan dezaketenak. Hauetan sortzen da problema, batez ere hauetan.

Ekimen pribatuaren eta erakundeek berek egiten duten edizioaren artean beti izan dira tirabirak. Editoreen elkarteek konpetentzia desleiala salatzen die erakundeei, ez dagokien lur batean sartzen direla, abantaila guztiekin eta ekimen pribatuko argitaletxeen kalterako dela hori. Etengabe errepikatzen den gaia da.

Ekimen pribatukoen artean beste marra bereizlea enpresen eta bestelakoen artean jarri ohi da. % 60 izaera juridikoz enpresa gisa definitzen dira eta % 40k bestelako izaeraren bat dute, elkarte, asoziazio eta beste.



Urtebete hartu da lagin gisa.

Argitaletxe pribatuaren pisua (bertokoa zein kanpokoa) % 69,6 da produzitzaile gisa, baina % 85 produkzio gisa.

Argitaratzailearekiko emaitzaren proportzioa asko jaisten da argitalpen publikoan. Argitalpen publikoan Eusko Jaurlaritza da nagusi, alde handiz; hurrenez hurren datoz Foru Aldundiak, Udalak eta Nafar Gobernua.

Izaera juridikoaren araberako tipologia honek ez du joku handirik ematen azterketarako orduan. Kultura handietako aztertzaileek alderdi ekonomiko eta kuantitatiboetara jotzen dute zuzenean, enpresaren tamainara bereziki. Eta tamaina hori neurtzeko batik bat negozio-zifra da irizpidea. Eta horrekin batera, langile-kopurua, eta fondo editorialaren kopurua eta/edo liburu-ekoizpena.



Azterketetan gero eta gehiago jotzen da, orobat, enpresako kapitalaren konposizioa aztertzera, bi norabidetan: etxearen edo markaren independentzia definitzea da bat; eta beste norabidea, nazioz kanpoko kapitalaren jabegoa zehaztea.

Euskal Herriko argitaratzaileen zein tipologia asmatu?

Mila froga egin ondoren, inkestaren erantzunak aztertzeko hautatu dudan tipologiaren lehen marra bereizlea hizkuntza da, elebitasuna. Euskarazkotzat hartzen ditugu % 75 gutxienez euskaraz egiten dutenak. Eta elebiduntzat, ekoizpenaren % 25 baino gehiago euskaraz egiten dutenak.

Elebidunen barruan euskal produkzioaren lekua eta bokazioa kontuan hartuta, euskarazko edizioa erdarazkoaren "ataltzat" har daiteke batzuetan. Eta beste batzuetan, argitaletxearen sorrera-helburuetan euskarazkoak erdarazkoaren kategoria bera du (nahiz eta ez titulu-mailan).

Hori bateko. Eta besteko, euskarazko argitaratzaileen barruan enpresa eta ez-enpresa bereiztu ditugu.

Enpresa guztiak ere ez dira tamaina berekoak, noski. Zeren arabera erabaki tamainak, ordea? Irizpiderik jatorrena, negozio-zifra da. Nola jakin, baina? Fondo editoriala ere erabil liteke neurgailutzat. Bai, baina nola konpara hogei urte lanean daramana eta duela bospasei urte hasi dena? Enpresa bakoitzeko langile-kopurua ere har nezakeen kontuan, baina erantzunak ez zaizkit erabat fidagarriak iruditu.

Tamaina erabakitzeko hautatu dudan irizpide nagusia, azkenik, urteko titulu-produkzio ponderatua izan da. Azken hiru urteotako produkzio jarraituaren batez bestekoaren arabera egin dut ponderazioa.

ARGITALETXE ELEBIDUNAK

Euskal edizioa, erdarazkoaren "atala"

Giltza (Edebe)
Gero (Mensajero)
Desclée de Brouwer
Zubia (Santillana)
Bruño
Anaya
SM

Elebidun gisa sortuak

Sendoa
Idatz
Txalaparta
Lur (Hordago)
Haranburu Editor
Ostoa
Pamiela
Auñamendi
Bermingham
Txertoa

EUSKARAZKO ARGITALETXEAK

Enpresa handiak *(urtean 100 liburutik gora)*

Elkar
Ibaizabal

Enpresa ertainak *(urtean 50-100 liburu bitartean)*


Erein
Ttarttalo

Enpresa txikiak *(urtean 50 liburutik behera)*

Susa
Igela
Gaiak
Alberdania

Elkarte edo erakunde pribatuak

Labayru
Elhuyar
UEU
Ihardun



Jose Mari Sors
ELKAR ARGITALETXEA


Tipologia honen arabera arakatu ditut inkestaren emaitzak. Gaurgaurko agente editorialen produkzioaz gain hogei urteotakoa aztertzeko, aldiz, egokiagoa iruditu zait beste era batez moldatzea sailkapena. Berrehun bat argitaratzaileen emaitza ematen dut hor. Korapilo nahasiagoa da hori eta askatzeko begi gehiago sortu ditut. Zazpiko sailkapen hau, bere azpisail eta guzti, iruditu zait egokia: 1) enpresak; 2) elkarteak; 3) erakunde politiko-administratiboak; 4) irakaskuntza-agenteak; 5) kanpoko argitaratzaileak; 6) argitaletxe erlijiosoak; 7) etxe finantzarioak. "Liburu-produkzioa argitaratzaileen lege-izaeraren arabera, 1976-94" titulua duen infografian aurkitzen da zazpi sailotan banaturik berrehun agente editorialen lana: 12.595 titulu.

Liburugintza garaikidea bere osoan azaltzen da hemen.

Zazpitan banatu dira argitaratzaileak irizpide desberdinen arabera: pribatu/publiko; enpresa/ez-enpresa; bertoko/kanpoko, besteak beste.

Bertoko enpresa editorialek produzitzen dute % 45,6. Horri erantsi behar zaizkio bestelako produkzioagenteen emaitzak, hala nola, elkarteak, erakunde publikoak, etab.

Kanpoko argitaletxeen indarra % 10 bat da aldi osoan. Gaur, gehiago.



Tamaina zifratan

Arestian aipatu dugun bezala, modu askotara iritsi gaitezke argitaletxe baten dimentsioa neurtzera. Ziurrena, berriz diogu, negozio-zifra ezagutzea da, baina tira.

Inkestan bizpahiru modutara hurbildu gatzaizkio arazoari. Lanpostuez interesatu gara, hau da, zenbat lankide dituen argitaletxeak barruan eta kanpoan. Produkzioaz ere interesatu gara, bi modutara gutxienez: alde batetik katalogoaren berri galdetuz eta bestetik, de facto-ko produkzioaz gain zein litzatekeen gogokoa edo desio lukeena. Batek esfortzuaren eta ahaleginaren berri ematen du. Eta besteak, ametsaren edo hazkunde posiblearena.

500 lagun

Bi zifra-iturri erabiliko ditugu hemen. Lehenik eta behin editoreen inkestatik atereak. Hamalau argitaletxek erantzun diote puntu honi. Eta bestetik, Sayma-ko azterketak (inkestaz gain elkarrizketaz osatuak) ematen dituenak. Azterketa honek hamazazpi etxeren informazioa landu du.

Hona gure inkestako emaitzak:

Lan-modua	Enpresa-barruan	Kanpoan	Guztira
Gestioa/Aministrazioa	32	6	38
Produkzioa	69	100	169
Banaketa	32	11	43
Guztira	133	117	250

Barruan eta kanpoan argitaratzaileak erabiltzen duen langileen % 15,2 da gestio edo administrazio-lanetan diharduena. Kopuru berdintsua dabil banaketa-lanetan ere: % 17,2. Eta kopururik handiena, bidezkoa denez, produkzioaz arduratzen da: % 67,6. Enpresa-teknikoa ez naizenez, ez dakit produkzioaren, administrazioaren eta komertzializazioaren arteko proportzioak modu egokian mamitzen diren ala ez.

Edozein modutan ere, enpresa txiki askotan lan-banaketa ez dago aski egituratua. "Estructura celular y no dividida en compartimentos estancos", aurkitu dute Saymakoek. Eta normala da. Ez dago aski jende funtzio edo eginkizun bakoitza banan-banan ziurtatzeko.

Goraxeago esan duguna azpimarratuz, zera esan dezakegu atzera, kultura garatuetako enpresa editorial handi batek, berak bakarrik, daukala 133 baino langile gehiago plantilan. Euskal edizioak 14 etxe behar ditu kopuru horretara iristeko. Enpresako 9,5 langile suposatzen du horrek. Duela urte batzuk, 1978an, 4,5 langile enpresa bakoitzeko atera ohi zen, Euskaltzaindiarentzat egin genuen azterketako informazioaz fidatuz. Bi konparaketa hauek ongi deskribatzen dute euskal edizio-enpresaren errealitatea: txikia da, baina ez geldia.

1993an Sayma-k egindako azterketaren arabera, euskal edizioak 500 bat lagun mantentzen du zuzenki eta zeharka.

udako
euskal
unibertsitatea

Modu batera edo bestera (staff-ean, free-lance edo lagun moduan, berdin dio) zenbat lagun zaudete lanean?

ALBERDANIA

Bost.

ELKAR

Gure argitaletxea ez da literaturakoa bakarrik, eta langile askok arlo ugaritarako egiten dute lana. Adibidez, administrazioa daramanak helduen literaturarekin batera egingo du haur-literaturarena, eskolako liburuena, edizio bereziena (argazkiekiko liburu handiak) eta diskoena (gure etxearen berezitasuna da musika ere plazaratzea).

Hori kontuan izanda, pertsona bat dago erabat literaturaren ediziora emana (ni neu), eta badugu jendea beste alor hauetan: fotokonposizioa, diseinua, promozioa, administrazioa, harrera (telefonoa-eta).

EREIN

Literatur arduradun baten inguruan (zuzendari literarioa), administrazioa alde batera utziz, 8/10 lagun mugitzen dira zuzenean produkzioaren fase desberdinetan, arlo literario, tekniko eta komertzialean. Pertsona horiek aldi berean haur literatura, testugintza edo dibulgaziozko liburuen produkzioan parte hartzen dute.

Ibaizabal

Hasteko esan beharko genuke Ibaizabal argitaletxea oraindik gaztea dela eta gehienbat irakaskuntzari lotua dagoela. Halarik ere, poliki-poliki literaturgintzan pauso garrantzitsuak ematen ari gara, gehienbat haur-literaturan, baina baita gazte eta helduen literaturan ere. Horrela, bada, lan-kopurua gora joan den heinean arlo honetan dihardutenen kopurua ere gehituz joan da. Une honetan, esaterako, argitaletxean bertan zazpi lagun dabiltza egunero buru-belarri lanean, eta horrez gain argitaletxearen inguruan hainbat laguntzaile eta aholkulari ere baditugu.

Pamiela

Modu jarraian hiru lagunek egiten dute lan, nahiz eta bakarra den soldatapekoa (biltegiaren arduraduna), eta hamabost laguneko kolaboratzaile-talde iraunkorra dugu.

Susa

Susa literatura-argitaletxeak egitura berria dauka iazko ekainetik aurrera, enpresa-egitura ere berritu egin baitzuen orduan. Argitaletxearen enpresa berrogei inguru bazkidek osatzen dute: idazle, itzultzaile, kazetari, argazkilari, zinegile, musikari... eta oro har literaturzalez osatua.

Asteroko lan-dinamikan, batezbeste, zortzi lagunek parte hartzen dute —horietarik bat eguneroko jardunean—, eta langintza berezi eta ez-ohikoetarako babesa izaten dugu gainerako bazkide eta (bazkideez gainerako) lagunengandik.

Txalaparta

Plantilan bost lagun gaude. Horretaz gain bi diseinatzaile eta bi laguntzaile, free-lancers direnak. Oro har hamaika lagun.

Lan-banaketa

Nola banatzen duzue lana: adibidez, gestio eta harremanak, irakurketa eta kontsulta, erabakigunea, rewriting, maketazioa, etab.?

ALBERDANIA

Hiru atal nagusitan: gestioa eta administrazio-alorra; literatur arloa (irakurketa, hautaketa, zuzenketa, egilearekiko harremanak...); eta liburugintza-arloa (diseinua, maketazioa, zerbitzu periferikoekiko harremanak...). Hiru jarduera-alor horiez gain, lantalde osoak hartzen ditu erabaki estrategikoak, bai enpresaren bilakaerari dagokionez, bai eta literatur irizpide nagusiei dagokienez ere. Azken alor honetan, argitaletxez kanpoko aholkularien laguntza ere bilatzen da.

ELKAR

Nire lana da originalak irakurri eta erabakitzea, rewriting deritzana, idazlearekiko harremanak (proiektuak trukatu, eztabaidatu edo proposatzeko elkarri, originalen berridazketak edo balizko aldaketak aztertzeko ere bai), maketazio eta inprenta—probak zuzentzea, eta edizioaren xehetasunak idazlearekin hitzartzea (liburuaren itxura, irudiak, aurkezpenak...). Beste batzuen lanak dira fotokonposizioa, diseinua, publizitateko aleak zabaltzea, diruekikoak egitea (kontratuak, txekeak, likidazioak...). Originalak jende gehiagoren artean irakurtzea komeni izaten da askotan eta horretarako baditut hainbat lankide, baita kanpoko kolaboratzaileak ere.

EREIN

Lanaren banaketa, aurreratu den bezala, hiru arlo nagusitan banatzen da: literarioa, teknikoa eta komertziala. Arduradun hauek hasierako momentutik liburuaren ibilbide osoaren jarraipena egiten dute, hamabost aldiz bilduz. Lehen aipaturiko lan orokor horiek badituzte pauso txiki batzuk, eta pauso horietan sartzen dira puntualki lehen esandako pertsona horiek. Zerbait gehiago zehaztuz, hau izango litzateke ibilbidea:

- Arlo literarioa: irakurketa; erabakia; kontratoa; estilo/ortografi zuzenketa.
- Arlo teknikoa: liburuaren konposizioa; azken zuzenketak; azala; fotolitoak; inprimaketa.
- Arlo komertziala: prentsarako agiria; komunikabideei eta kritikoei bidali; aurkezpenak.

IBAIZABAL

Egile batek bere lana argitaletxean aurkeztu eta liburua argitaratzen den arte bide luzea dago eta, jakina, bide hori urratsez urrats egiten da. Lehendabizi lan hori aztertu egiten da. Eginkizun horretan bizpahiru lagunek parte hartzen dute. Gainera, kasu bakoitzean liburua nori zuzenduta dagoen

kontuan izanik bati edo besteari kontsulta egiten zaio. Ondoren, eta lana argitara ematea onartzen bada liburuaren berezitasunak kontuan hartuz liburu hori sail batean kokatzen da eta ondorioz sail horren koordinatzailea arduratuko da liburu hori sail horretara egokitzeaz. Honek gehienetan lan dexente ematen du. Jarraian, liburuaren orrazketa, diseinua, maketa, ilustrazioa, fotomekanika eta inprenta-lanak datoz.

Pamiela

- Plangintza editorialaren programazioa: originalen irakurketa eta aukeraketa, bildumetan zein liburu argitaratuko diren zehaztea.
- Liburuen edizioa: egilearekin harremanak, zuzenketak, liburuaren diseinua eta montaketa, erabili beharreko materialak, ilustrazioak, fotolitoak-fotomekanika, inprimategiari jarraipena enkuadernazioa egin arte, eta aleak egileari bidali.
- Sustapena: aurkezpenak, aleen sinatzea, komunikabideetara bidali, lortutako emaitzen jarraipena eta dosierrak bidali egileei, komunikabideei, liburudendariei, norbanakoei, eta abar.
- Banaketa eta salmenta: liburudendetarako banatzaileen esku. Salmenten agiriak bidaltzen dituzte hilero, eta guk hirugarren eta laugarren hilabeteen artean kobratzen dugu beti.
- Administrazioa.
- Biltegia.

Susa

Bi erabakigune dauzka Susa literatura-argitaletxeak: administrazio-kontseilu lanak egiten dituena bata, eta kontseilu editoriala bestea.

Administrazio-kontseilua —sei lagunek osatzen dutena— arduratzen da gestioaz eta liburuen produkzio-kateaz. Ekoizpen eta ekonomi erabakiak hartzen dituen taldea da azken batean.

Kontseilu editoriala da liburu-proiektuez arduratzen dena —ez da talde finkoa kideen kopuruari dagokionez, ez eta ere iraunkorra—. Originalak irakurtzea eta baloratzea, titulu berriak bilatzea, enkarguzko liburuen proposamenak egitea da bere zeregina.

Kontseilu editorialaren balorazio eta proposamen literarioak beti dira aholkuak, eta administrazio-kontseilua da azken erabakiak hartzen dituena.

Txalaparta

Gestio eta harremanak bi pertsonaren artean eramaten dira, editore moduan aritzen direnak. Horretaz gain badira bi lagun rewriting, zuzenketa eta abarretaz arduratzen direnak. Erabakigunea erredakzio-kontseilua da. Maketazioa eta fotomekanika kanpoan egiten dira, nahiz eta hasi berriak garen zenbait lan gure aldetik maketatu eta poliesterrean egiten fotolitoen ordez.

Argitaletxearen tamaina, gaur

Iraunkorra al da gaurko tamaina: enpresa gisa, produkzio-tamainan, etab.?

ALBERDANIA

Ez, noski. Minimotzat jotzen dugu gure gaurko neurria, bai enpresa-diseinuaren aldetik, bai eta produkzio-tamainarenean ere. Behar bezala neurtutako hazkunde baterako prestatzen ari gara geure egitura.

EREIN

Esan dezakegu argitaletxearen arkitektura nahiko definitua dagoela. Lan-taldeak, ardurak etab. finkaturik daude. Joera beti ere hazkundearena da, bainan hazkunde moderatu bat bai enpresaren aldetik bai produkzioaren aldetik.

ELKAR

Elkar haziz joan da pixkanaka. Ni sartu arte (88ko urtarrila) ez zegoen esklusiboki literaturaz arduratzeko inor. Norbait sustapen eta komunikabideekiko harremanetarako jartzea ere ez da betidanikoa, ezta telefonoa hartzeko norbait edukitzea ere. Produkzioa handitu ahala egokitu dugu beti egitura (ez alderantziz). Enpresa gisa hobetzeko dinamikak batetik eta euskal kulturari zerbitzu handiagoa eman nahiak bestetik, haztera eraman gaituzte.

IBAIZABAL

Plangintza hau iraunkorra izateko asmoz egina dago. Hala ere tamainan haztea ez da erraza izango. Gainera, gehienetan merkatuak berak jartzen ditu produkzioaren neurriak.

Pamiela

Artisautza- eta familia-enpresari hurbilagoak zaizkion ezaugarriak ditu Pamiela argitaletxeak, bai lanaren kontzepzioan, bai egileekiko harremanetan eta bai liburuen tratamenduaren kontzeptuan.

Garrantzitsua da «argitaletxe txiki» kontzeptuaren inguruko nahastea argitzea, argitaletxea ez baita «txikia» tamainaren edo botere ekonomikoaren arabera, baizik eta lan-bolumena zein lan egiteko modua kontrolatzeko borondatearen arabera, beti ere edozein libururen edizioa ez dadin egon errentagarritasun edo ez-errentagarritasun posibleen menpe, ez eta merkatuaren gora-beheren edota inposatutako moden menpe ere. Horretarako, soldata on bat kobratzeak dena justifikatzen duen «funtzionari»-praktika eta -mentalitatea saihestu behar dira. «Argitaletxe txikiak» ez du esan nahi ez marjinala eta ez minoritarioa, baizik eta mentalitate autonomoduna, Merkatuko legeen gatibu ez dena. Lanean asmatzen bada, liburuen «errentagarritasuna» onena bezain ona izan daiteke. Azken finean hori da kontua: liburu on bat errentagarria izan dadila bere egilearentzat eta bere irakurle posible guztientzat, inoiz izango ez direnak barne.

Susa

Argitaletxearen enpresa-egitura —epe laburrera begira— iraunkorra eta finkoa da, hala bazkideei (eta langile eta laguntzaileei) dagokionean nola azpiegiturari dagokionean (bulegoa, biltegia...).

Besterik da produkzio-tamainaren iraunkortasunaz ari garelarik: urteko liburu-plangintzak aldakorrak izaten baitira, ahalbidearen arabera edo komenientziaren arabera edo literatur interes eta premien arabera.

Txalaparta

Enpresaren gaurko tamaina ez da batere definitiboa. Argi daukagu ez dugula enpresa erraldoia izan nahi, ez da gure helburua behintzat. Dena den, Txalaparta proiektuaren martxa ikusita baikorrak gara oso etorkizunaren aurrean eta hori da eztabaidatzen ari garen gauzetako bat: titulu aldetik produkzioa handitzera jo behar ote dugun ala egun gauden kopuruan (30) mantendu.

Argitaletxearen tamaina, bihar

Bost urte barru nola izan nahiko zenukete, enpresa-aldetik, produkzio-tamaina aldetik, produktu-mota aldetik?

ALBERDANIA

Era duin batean bizitzeak eta lan egiteak eta kalitatezko produktuak plazaratzen segitzeak eskatzen diguten araberako enpresa eta produkzioa nahi dugu, bai orain, bai eta bost urte barru ere. (Eta, honetara ezkero, inork esango al liguke nolako literatura eta merkatua izango dugun bost urte barru? Biziki eskertuko genioke argibidea).

ELKAR

Etorkizuna asmatzerik ez badugu ere, geroari begira bi ardatz ditugu kontuan. Batetik, aski handiak gara azpiegitura aldetik eta askoz gehiago hazteak arazoak ekar liezazkiguke, erraldoitzeak beti dakarren moteltzearekin batera; bestetik, euskal kulturak erronka handiak ditu oraindik irabazteko, alor asko jorratu beharrekoak, eta guk, euskalgintzarekiko gure konpromezutik, ez diogu erantzukizunari bizkar ematen. Beraz, oso litekeena da geroan produkzio handiagoa izatea (beti ere kalitatea zainduz). Bestetik produktuak dibertsifikatu egin nahi genituzke, eta horri dena egiteko kolaboratzaile—sare egoki bat antolatu, dena argitaletxetik kontrolatu gabe.

Erein

Profesionaltasunean sakontzea da datozen bost urteetako gure lehen helburua. Enpresa orekatu, konpetitiboa eta errentagarria izatea. Errentagarria ekonomikoki noski, eta baita kulturalki ere. Ez da ahaztu behar, jasotzen ditugun subentzioak direla eta, herritarren diruarekin lanean ari garela hein handi batean, eta horrek zuhurtasunez jokatzera behartzen gaituela. Produkzio-tamainan erdi-mailan kokaturik ikusten dugu gure burua. Eta produktu-mota aldetik gure produkzioaren zutabea liburua izanik, urratu nahi genituzke, ahal bada elkarlanean, teknologia berriak ere (CD-ROM etab.).

Ibaizabal

Bost urte barru gure bezeroei beren beharrizanetan erantzuten jarraitzea litzateke gure erronka. Produktu mota batzuk aldatuko dira, baina gaur oinarrizko direnak orduan ere, seguru asko, izango dira.

Horietatik 126 plantilan. Gehiago, 230 lagun, lan deribatuetan: idazle, itzultzaile, marrazkilari, diseinatzaile, argazkilari, etab. Banaketa-lanetan, 30 bat. Paperaren sektorean 10 bat eta arte grafikoetan 30 lagun. Liburu-denda eta kioskoetako langileei dagokien partea ere erantsi beharko litzaioke honi. Honela iristen da euskarazko edizioa 500 lagunetara.

Editoreekin izan ditudan elkarrizketei jaramon eginez gero, kopuru hori dezente gehiago igo beharko genuke. Euskarazko liburugintzak 800-1.000 bat lagun mantenduko luke. Liburu-dendatan adibidez, 250 bat lagunek lan egin dezakete. Inprimategian ere 60 batek. Eta horrela. Egin kontu Sayma-ren azterketak ez duela edizioaren ehuneko ehun besarkatzen.

Katalogoa eta ekoizpena

Enpresaren egitura-tamainaz gain produkzio-tamainaz ere interesatu gara. Lotura estua dago egituraren eta produkzioaren artean.

Enpresa asko txikiak eta gazteak direlako, bi arrazoiengatik, denetara jota ere, liburu gutxi atera dute gehienek. Bere bizitza osoan 250 liburu ateratzera ez da iritsi argitaratzaileen gehiengoa: % 66,6. Portzentaietan kopuru bera osatzen dute (% 27,8) bere bizitza osoan 50 liburu atera ez dutenak eta, beste muturrean, beste hainbeste (% 27,8), 300 titulutik gora aterata dauzkatenak.

Ezin aberatsagoa izan katalogo bizia, nolabait esan, argitaratzaile bakoitzak zirkulazioan mantentzen duen liburu-kopurua: % 66,8k ez du berrehun titulu bizirik katalogoan. Hona datuak:

Argitaratzailea (%)	Liburu-kopurua
33,4	0-100
33,4	100-200
11,2	200-400
16,7	400 edo gehiago

Urteko liburu-kopuruaz ere interesatu gara. Produkzio historikoa gauza bat da. Eta gaur-gaurko ekoizpen-erritmoa diferentea izan liteke. Baina batez ere hor interesatzen zitzaiguna da, ea editoreak berak produkzio-maila hori askitzat ematen ote zuen, edota hazkuntzara jo nahi

ote zuen. Ekoizpenaren hazkundean, azken batean merkatuak agintzen duela jakin badakigu, baina norbere gogoak ere asko esan nahi du.

Erantzunetan ikusi duguna da argitaletxe handiek ez dutela pentsatzen ekoizpena gehitzea. Daukaten tamainarekin aski bide dute. Txikiek, berriz, hazi egin nahi dute, heren bat batzuk, eta gehienek bikoiztu, ahal balute.

Tamaina txikia. Txikiegia?

Argitaratzaile handi, ertain eta txikiez mintzatu gara lerro batzuk gorago: zer da, baina, handi eta zer txiki?

Zerikusi gutxi du gure tamainak gorago deskribatu ditugun erraldoi haiekin. Hitzak dira berdinak. Hortik kanpo, deus ez. Gure handiena ere haietako baten ataltxo bat da gehienez.

Ez dago horren urruti joan beharrik. Edizio espainiarrean erabiltzen diren kategoriekin alderatuz, non kokatu gure edizioa?

Espainiako edizioan 1992an egindako azterketa bat daukat esku artean. 647 argitaletxe ikertzen dira bertan, handi eta txiki. Bost enpresa-tamaina bereizten ditu azterketak: handia; ertain-handia; ertain-ertaina; ertain-txikia; eta txikia. Gure tamaina ezin da Espainiakoarekin alderatu edukietan. Hango handiak 19 enpresa dira, eta 250 langile eta 1.384 titulu bizi dituzte, batez besteko. Hango ertain-handiak 35 dira batez besteko hauekin: 54 langile eta 623 titulu bizi. Batez besteko hauek dituzte 61 enpresa ertain-ertainek: 27 langile eta 524 titulu bizi. Ertain-txikiak 121 dira, 11 langile eta 395 titulu bizi dituztenak. Eta, azkenik, enpresa txikiak 411 dira: 3,5 langile eta 104 titulu bizirekin funtzionatzen dutenak batez beste.

Euskal edizioan handienak Espainiakoen ertainen mailan daude. Bizpahiru bakarrik. Gainerako guztiak mailarik txikienean.

Horra gure dimentsio erreala.

Ondoren zehatz eta mehatz ikusiko badugu ere, ukaezina da euskal argitaletxea txikia dela; txikiegia, nire ustetan. 1993ko liburugintza komentatuz idatzi nuena errepikatuko dut orain: "Euskal editorialgintzak buztinezko zangoak ditu. Euskal editorialak txikiak dira; enpresa gisa, ez ote txikiegiak? Merkatuaren esklabu ez izateko, kultur politika bat markatzeko eta ziurtatzeko gerora, kanpokoen erasoei aurre egin ahal izateko bertoko enpresak indartu behar badira, egitura txikiegiekin gabiltza".

Sayma-ko azterketak sektorearen alderdi ahulen lehen puntu gisa dakar enpresa argitaratzailearen tamaina txikia.



Julen Lizundia
EREIN ARGITALETXEA

Tamaina, argitaratzaile baten kasuan, ez da neurri kontua (bakarrik), gestioa egiteko modu bat da, baliabiade propioen falta da, hornitzaileekin negoziatzeko baldintza bat da, merkatuan egoteko modu bat; Administrazioarekiko dependentzia dakar. Liburu-motak eta ekoizpen-kopuruak ere badu zerikusirik.



Azterketa honen ondoren egindako adierazpenetan, EEEko buru zela, Fermin Iraolagoitiaren kezkarik nagusiena ere hori bera zen (1993): "Gehien nabaritzen den hutsunea da argitaldariek enpresa itxura txikia dutela. Enpresa gestioa ez dute gehientsuenek behar bezala egiten. Beti aritu gara kulturaren asmo kutsu horrekin, enpresa bigarren mailan utziz, eta etorkizunari begira, alderantziz izan behar duela uste dut; bestea ahaztu gabe, noski".

Plusbalioak auzitan

Klasikoa da irizpide komertzial eta kulturazkoen arteko diferentzia egin eta editore handienek komertzialki soilki jokatzen dutela salatzea. Klasikoa da editorea diruzaletzat hartzea, autore pobrearen pentzura aberasten ari dela salatzea. Errentagarritasunak prentsa txarra du kulturan orokorki eta editorialari dagokionean, bereziki.

Nonahi aurki daitezke gogoeta modu hauek. Gurean ere bai. Orain baino gehiago duela dozena bat urte.

Hordago argitaletxean zegoela, honela erantzun zien salakuntza horiei Josu Zabaletak *Oh! Euzkadi*-tik (*Euskal liburua auzitan*): "Esan daiteke, hasera haseratik, textu liburuaz eta euskara ikastekoaz aparte, euskal liburua, konparatiboki, ez dela esistitzen, edo ez dela errentagarri bederen (lujozkoa ez dena, eta irakaskuntzari loturiko banaketa kanaletatik zabaltzen ez dena). Irakurria dut euskal argitaletxeek erizpide komertzialak erabiltzen dituztela azkenaldi honetan; jakin nahi nuke nik aipatu arloez kanpoko liburugintzan non diren errentak; ez baita baldintza objetiborik existitzen".

Ondoko laukian ikus dezakegu literatur (sailaren) arduradunek eta editoreek nola planteatzen duten eurek errentagarritasunaren lehentasun sonatu horren auzia.

Susa aldizkaria oso mesfidatia izan da 80ko hamarkadan zehar urte horietan euskal argitalgintzak hartu edo areagotu zuen bidearekin: handitzearekin, profesionalizatzearekin, literatur sariekin, autore-eskubideekin. Arazo hauetan zorrotzenak Mikel Antza eta Josu Landa izan direla esango nuke.

Idazleen edizio-autogestioa edo "editorial politika idazleen esku" egon behar duela aldarrikatu du behin eta berriz Susak. Hori lortzeko asmotan jarri zuten martxan izen bereko editoriala ere.

1984ko uztailean, Susa 12.aren editorialak argi dio ez direla orduko argitaletxeekin fio, interes literarioa baino gehiago ere badelako hauetan: "Nehork ez luke sinetsiko ume baten kontu guztiak jaiotzarekin amaitzen direnik. Hezitzeak eta hazteak bide luzea eskatzen bait du. Eta guraso batek bere seme-alabak edozein ikastetxetara bidaltzen ez dituen bezala, geuri ere ez zaigu berdin geure idazlanak edozein modutan eta edozein tokitan argitaratzea. Geuretzat literaturgintza ez bait da bukatzen eskuizkribua amaitutakoan. Lan hori nork erabiliko duen eta noiz eta nola kaleratuko den jakiteari eta erabili ahal izateari ere hil ala bizikoa deritzogu geure praktika literarioan. Eta esan dezagun behingoz: ez gara fio gaur egun dabiltzan editorialekin, idaztea zer den ez dakiten kritikoak unibertsitatera ditugun legez. Izan ere, argitaletxe nagusiak ez daude idazleen asmoen esku gaur egungo editoreei okurritu ere ez zaie egiten akaso idazleak bere liburuaren nondik norakoa (eta areago liburugintzaren ikuspegi orokorrarena) segitzeko gogoa eduki dezaketela. Idazleak, idazteko eta saldutakoaren ehundik hamarra kobratzeko besterik ez daude eta (askoren ustez behintzat). Geure aburuz, argitaletxe bat interes literarioen zerbitzura egoteko garantia onena hauxe da: argitaletxea literaturgileek berek kontrolatzea. Bestela, eta kasurik onenean, interes literarioekin batera literaturarekin zer ikusirik ez daukaten beste hainbat interes bilduko dira editoriala horretan. Kasurik okerrenean, diruari besterik ez diote begiratuko. Eta horrela explikatzen dira liburuekin (eta liburugaiekin) egiten diren abortoak eta harakiriak. Ez bait ginen alperrik gu ere hasi geure liburuak (eta beste edonorenak, ondorioz) argitaratzen. Arrisku horiek ez dizkio inork bere buruari kapritxoz bizkarreratzen.



Alfontso Martinez Lizarduikoa
GAIAK ARGITALETXEA

Alde horretatik, idazle artesauaren figura erreibindikatzen dugu gaurko giro instituzionalizatu eta komertzialduaren erdian, eta literaturaren artesautzaz mintzatzen garenean (honetan ere) bere zentzu erromantikoena baina baita modernoena ere gureganatu nahi dugu. Hau da, idazlea literaturgintzaren prozesuan ahalik eta bitartekorik gehienen jabe izatea. Intermediarioak betiko erretira bitez. Modu horretan, idazlea eta irakurlearen arteko tartea ahalik eta ttipiena izan ahal izango da. Modu horretan, idazle batek artikulua edo liburua irakurleari zein itxuraz aurkeztuko zaion ere erabaki ahal izango du. Idatzi duenaren jabe izango da, hitz batez".

Bi urte beranduago, 1986an, Josu Landak, Susako arduradun gisa mintzo delarik, euskal argitarapen politika enpresa-gizonen esku egoteari egozten dizkio liburugintzaren hainbat eta hainbat kalte: "Euskal argitarapen politika enpresa gizonen esku dagoen bitartean, kriterio ekonomi-

Kalitatea, errentagarritasuna: tirabira?

Zeintzu dira editorialaren literatur helburuak? Nola erabakitzen da zuenean kalitatearen eta errentagarritasunaren arteko tirabira famatu hori?

ALBERDANIA

Literaturgintzari zerbait (eta ez «liburu berri bat» soil-soilik) aportatzen dioten produktuak plazaratzea da helburu nagusia. Errentagarritasuna, gurean, ez da liburu bakoitzaren baitan jartzen den exigentzia bat, plangintza orokorrarekin batera baloratzen den parametro bat baizik. Horrek, praktikan, oreka zuhur bat eskatzen du, baina ez digu apustu ausartetarako bidea ixten. Bestela esanda, gurean ez da original bat errefusatu irizpide ekonomikoen arabera, eta, alderantziz, ez da argitaratu etekin ekonomiko oparoaz gain beste zerbait eskaintzen ez duen libururik.

ELKAR

Zinez esan dezaket lanean egin ditudan zortzi urteotan inoiz ez dugula atzera bota kalitatezkoa iruditu zaigun euskal literaturako original bakar bat ere, nahiz eta aurretik sumatu salmenta eskasekoa izango zela. Are gehiago: inoiz ez dut presiorik izan lan minoritarioak baztertzeko. Beraz, askatasun oso-osoz jokatu ohi dut, kalitatea irizpide bakartzat harturik euskal literaturazko originalekin.

Horrek ez du esan nahi berdin zaigunik saldu edo ez: zorakeria litzateke hori, eta liburu guztiekin dirua galduz gero aurki itxi egin beharko genuke. Gainera, salmenta egokiak idazlearentzako oihartzun handiagoa eta diru-sarrera gehiago dakartza.

EREIN

Kalitatea beti da errentagarria.

IBAIZABAL

Modu askotako lanak argitaratzen dira: egile ezagun eta ezezagunenak, istorio laburrak eta luzeak, euskaraz idatziak eta itzuliak —gazteleratik, ingelesetik nahiz frantsesetik—, irakurlego zabal bati eskainiak eta gutxiengo batzuentzako interesa izan dezaketenak... Beraz, kasu bakoitzean argitaletxeak baloratu eta erabakitzen du arrazoi batengatik edo bestengatik argitara eman ala ez. Baina beti ere lehenengo mailan kalitatea jarri nahi dugu, nahiz eta beti ez den hori lortzen.

PAMIELA

Helburu berezirik ez dugu, edozein liburu onek argitaratua izateko dituen arrazoiekin zerikusirik ez duenik.

Liburu on batean sinesten bada, ez dago merezi duen dilemarik; bere aldeko apostua egin, arriskatu eta ahalik eta gehien zabaltzeko ahalegina egiten da. Dilema horiek aintzat hartzen dituztenek gerenteen eta marketing-eko adituen aginpideei jarraitzen bukatzen dute.

Aintzat hartzea merezi duen dilema bakarra argitaletxe batek bete dezakeen paperari buruzkoa da (ahalegin kultural kolektibo zabalaren barruan), bere buruarekin lotsatu beharrik izango ez duen Herria eraikitzeko.

Susa

1983an Susak lehen liburua kaleratu zuenetik gaurdaino 107 liburu berri argitaratu ditu. Eta 34 idazleren lehen liburua plazaratu. Susari aitortutako ezaugarria da, dagoeneko, idazle gazte eta berriekin egin izan dugun ahalegin berezia. Idazle horietarik asko egun aski ezagunak dira euskal literaturgintzan, heldutasunerako bidean den obra baten jabe. Poesiagintzan esfortzu handia egindako argitaletxea izan da beti eta azken lau-bost urteotan narratibagintzan indarra hartzen ari dena.

Ahalbide ekonomikoek baldintzatzen dute editorial baten urteko ekoizpen-plangintza. Eta horrek ez du derrigorrez esan nahi, ahalbide ekonomikoa (eta errentagarritasun ekonomikoa) bakarrik dela liburu baten argitalpenean irizpide erabakiorra.

Badira liburu batzuk —gehienetan generoak zerikusi handia izan ohi du, beste batzuetan bolumenak— batere errentagarritasun ekonomikorik ematen ez dutenak, aitzitik, galera ekonomikoak erakartzen dituztenak. Ordea, beste errentagarritasun mota bat ekar dezaketenak izan litezke beren kalitateagatik edo interesgarritasunagatik (eta berdin, alderantziz, jakina).

Urtean zeharreko ekoizpenean oreka bilatzean datza edozein argitaletxeren helburua, errentagarritasunaren tirabiraren aurrean.

Txalaparta

Galdera horri ongi erantzuten jakitea negozio honen gakoa aurkitzea litzateke. Badira liburu asko berez errentagarriak ez direnak, eta horiek sortzen dizkiguten galerak ongi saltzen direnen etekinekin orekatzen saiatzen gara. Orokorrean, kalitatea ikurtzat daukagu. Ez dugu erreparorik ezetz esateko lanak kalitate minimorik eskaintzen ez badu. Bestetik badira lanak nahiz eta onak izan, *a priori* salmenta eskasa izan dezaketenak. Kasu horietan badira beste bide batzuk. Guk oso argi dugu lan batek hiru baldintza bildu behar dituela Txalapartak argitaratzeko: argitaletxearen ildoaren baitan egokia izatea, kalitatezko lana izatea eta sare komertzialean salgarria izatea. Ezaugarri hauetako baten bat ez duen liburuak bestelako aportazio berezia egin behar du Txalapartak argitara dezan (momentu politikoa, testigantza garrantzitsua, epe luzerako inbertsioa, eta abar).

koak dira inposatzen direnak, idazleak bazterturik geratzen direlarik, hauen lan asko argitaratu gabe geratzen bait da, batez ere, idazleak, kontsagratuak ez direnean edo narratiba generotik kanpokoak direnean.(...) Gaur narratiba generoan, hiru milatik gora ale saltzen denez, argitaletxe haundiek argitaratzen dituzte lanak, poesian edo antzerkian adibidez gutxitan gainditzen da larehungo kopurua, eta ondorioz ez dituzte poesia lanak argitaratu nahi izaten, ez bait da komertzialki errentablea, eta gainera poesiak eta antzerkiak adibidez ez dute narratibaren prestijio bera.

Bestalde, 400 milioi pezeta mugitzen dituen argitaletxe batean 20 milioiko gastoa duen atal bat, beti marginala bihurtzen da, literatur produkzioaren kaltean nere ustez. Argitaletxe haundiek beraz, nere ustez, bi kriterio erabiltzen dituzte zer argitaratu behar duten erabakitzerakoan; bata komertziala, eta bestea subjetiboa. Bigarren kriterio honen arabera, argitaletxeko arduradunak berak egiten du aukera bere gusto literarioen arabera. Idazleak ez du parterik hartzen erabakian. Argitaletxe batzuk idazle batzorde bat antolatu izan dute aholkurik jasotzeko edo, baina sistema horrek porrot egin du, azken hitza enpresa gizonari utziz".

Azken aldi honetan tonu honetako hitz gutxi irakurri dut, egia esan. Harrigarriago gertatu zitzaidan, horrexegatik, iaz Felix Marañak esandako hitz potoloak, Bermingham bere argitaletxearen aurkezpena dela eta. Argia-ko kazetariak bere argitaletxeak zeren alde egiten zuen apustu galdetzean, honela erantzun zion: "Ohizko argitaletxeek interes eta diruaren alde. Guk, ordea, ez dugu plusbaliak sortzerik nahi. Ohizko argitaletxeak dirua irabazteko daude, baina dramatikoa da beste gauza batzuei ez begiratzea".

Azkar asko jarri zituen bere lekuan hitz hauek Xabier Mendiguren Elizegik (1995): "Espezializazioaren bidea jorratuko dute gainera argitaletxe berrikoek, ez baitute administrazioaren idazlan sarituak publikatu beste lanik hartuko, ohizko editorialak ez bezala. Argitaletxe komertzialek —Bermingham-ekoen hitzetan— dirua irabazi nahi dute, eta haiek ordea ez. Polita kontua! Haiek administrazioaren enkargua hartu, bitartekari-lana egin, komisioren bat edo lanaren ordaina-edo kobratu, liburuak administrazioari eman gero, inongo arriskurik hartu gabe, eta artearen maitasun hutsez ari dira. Eta inprentako gastuak, fotokonposiziokoak, fotomekanikakoak eta abar luzea —utz ditzagun langile gaixoon soldatak alde batera oraingoz—, bere poltsikotik ordaintzen dituen argitaletxe komertziala diruzale zekena omen da, inbertitutako diru hori —etekinen batekin, ahal bada— berreskuratu nahi duelako. Ederki".

Ohizko editorialei buruz dioena egia eta egokia den ala ez aparte utzita orain, Bermingham-en formula ez da alternatiboa. Frantzian "édition à compte d'auteur" deitu ohi zaio horri. Liburuaren prezioaren kostu-parte bat, zatitxo bat, soilki asumitzen baita hor, kostuaren egitura aztertzean ikusiko dugunez.

Argitaletxearen egitekoa, editoreen iritzira

Eztabaida guzti honetan sektoreak berak nola somatzen ditu lehentasunak?

Aspalditxo honetan profesionaltasunaren eta enpresaren apustua egina du sektoreak.

Profesionaltasuna: bide bakarra

1985. urtean "Euskal liburuaren argitarapena" izena duen txosten bat prestatu zuen Euskal Editoreen Elkarteak, sortu eta hurrengo urtean hain zuzen. Liburuaren funtzio kulturala defendatzen da bertan, liburu-produkzioaren zailtasunak deskribatzen dira eta liburugintzak premiazko duen tratamendu berezia, neurri konkretu eta guzti, aldarrikatzen da erakundeen aurrean.



Josu Legina
GERO ARGITALETXEA

Euskal argitaratzaileen kultur langintzaren sustapena profesionaltasunaren aldetik planteatzen du txostenak: "Sinetsirik dago Elkarte hau, profesionaltasunean eta enpresa bezala funtzionatzean dagoela etorkizuna. Erresistentzi eta militantzi izpirituari uko egin gabe ere, profesionaltasunean eta enpresa gisa ikusten dugu geure desafioa. Gaur egun, euskal argitaratzailea enpresa txikia da, oso txikia askotan, ia artesaua inoiz. Euskal Herriko argitaratzaile handiena Frantziako ertainaren parera iristen da, urtean 100-150 titulu argitaratzera. Gure herriko enpresekin konparatuta ere, oso txikia da argitaratzailea.

Profesionaltasunaren aldetik ikusten ditugu hobekuntzak: liburugintzaren programazioa, promozioa, kalitatea. Hitz batez, kultur eragile eta herriaren kultur premien zerbitzari izateko bide bakarra profesionaltzea da".

Profesionalizazioak ezaugarri minimo hauek ditu: nahikoa baliabide duen enpresa; plangintza ekonomiko zehatza; aseguru sozialak-eta ordaintzea; autoreak, kolaboratzaileak-eta ordaintzea; urte-bukaeran balantzea egitea.

Editorea: % 60 enpresari?

Argitaletxeetako arduradunek nola ulertzen duten beren burua, beren egitekoa?

Honela zuzendu diegu galdera: "Norbaitek esan du editore modernoak % 60 enpresari eta % 40 kulturgile izan behar duela. Zein dira zure proportzioak?"

Bi muturretan ordezkari bana dago: batek dio ehuneko ehun kulturgile izan behar duela editoreak eta besteak ehuneko ehun enpresari izan behar duela.

Hirutik batentzat proportzio egokiena erdia enpresari, erdia kulturgile da. Erantzun hori ematen dutenen artean aurkitzen ditugu bai kanpoko editorialak eta batez ere bertoko enpresa txiki eta kultur elkarteak. Azken hauetako batzuek, enpresa txiki eta kultur elkarteek, % 40ra jaisten dute enpresari izatearen dimentsioa.

% 16,6 bat dator galderan proposaturiko proportzioarekin, % 60 enpresari eta % 40 kulturgile. Beste hainbestek % 70era igotzen du enpresari izatearen premia. Euskarazko enpresa handi eta ertainak bi aukera hauetan aurkitzen dira denak.

Aukeren artean marra bereizlea garbi dago: argitaletxe elebidun eta euskarazko enpresa handi eta ertainek % 60-70 bitartean kokatzen dute alderdi enpresariala. Aldiz, enpresa txiki eta elkarteek % 40-50era jaisten dute enpresa-dimentsioa.

Egile-argitaratzaile formula

Egile-argitaratzaile formula ez da magikoa baina bai tentagarria. Norberak bere liburuak argitaratu, editoreari dagokiona bere poltsikora, eta kitto. Urrezko arrautzen oiloarena gertatzen da askotan.

Gerraosteko edizioan bide aski erabilia izan zen. Errazagoa zen orain baino: kalitate-exijentzia gutxiago zegoen, argitaletxe profesionalik ere ez, komertzializazio-kanalak are gutxiago.

Gaur egun bide aski marginala da, salbuespenak salbuespen. Bi abantaila aitortzen zaizkio hasiera-hasieratik: liburuaren kontrola eta prezioarena. Baldin liburuak arrakasta badu, ekonomikoki ere interesgarri dateke.

Desabantailak ere baditu, noski, eta ez gutxi. Produkzio-tamaina batetik gora norbera bere buruaren enpresari bihurtzen da. Liburu-tipo batzuetarako balio lezake. Euskal liburuak gaur objektu bezala hartua duen mailari eutsi behar dio, stocka gorde egin behar du, promozioa eta komertzializazioa norbere esku doa, etab.

Salbuespenak badaudela aipatu dugu oraintxe. Xabier Gereño da horietako bat. Urteak daramatza bide hau landuz, meritu ez gutxirekin.

Ohizko editorialetan zortzi liburu atera eta gero 1978an heldu zion bide berriari, neurri on batean idazle gisa duen emankortasunari irteera bat emateko, berak 1983an Argia-ri esplikatu zionez: "Nik nire idazle-historian bi etapa izan ditut nire liburuen argitarazioari buruz. Lehenengo aldian zortzi liburu argitaratu nituen beste editorialetan. Lehena Itxaropenak argitaratu zidan, 'Arantza artean' izenekoa, eta gero Kriseluk, eta Haranburu Altunak... baina badakizu zer gertatzen den, orijinal bat idazten duzu, bidaltzen diozu editore bati eta hortik aurrera ez dakizu noiz argitaratuko duten, zure orijinalaren martxa galdu egiten duzu editorialera eramaten duzunean. Gero ere gerta daiteke zuk orijinal bat bidaltzea eta editoreak esatea 'ez, hori ez zait komeni argitaratzea' eta beste bat eskatzea. Hau da, zuk ez daukazu zure obraren kontrola.

Gero ere badago prezioaren asuntoa. Zenbat eta intermediario gehiago, liburua disparatu egiten da eta nik argitaletxearen bitartekoa kentzen badut askoz merkeago jar ditzaket liburuak merkatuan, eta hori guztia ikusita izan zen apur bat ausartu nintzela nere liburuak argitaratzen hastea. (...) Noski, nik ulertzen dut idazle berri bati kosta egingo zaiola bere liburuak argitaratzea, idazle hori ezezaguna bait da. Baina ni dagoeneko ezaguna nintzen, zortzi liburu argitaratuak bait nituen, eta izen bat banuelaz aparte banekien nire liburuak dezente saltzen zirela. (...) Nik gauza bat esango dizuet. Nik literatur liburuekin galdu egiten dut dirua. Gero konpentsazioa Eusko Gobernuaren subentzioekin dator, baina hori gauza berria da, orain dela gutxi arte literatur liburuekin dirua galdu izan dut. (...) Dena dela, hor gertatzen da literaturarekin galtzen dudana textu-liburuekin eta hiztegiekin ateratzen dudanarekin irabazten da, eta hor bai lortzen da oreka bat, eta metodoekin eta hiztegiekin dirua irabazi dudanean ateratzen dut nire artxibotik orijinal bat eta argitara ematen dut. Zeren idazteko kapazitatea argitaratzekoa baino askoz handiagoa bait daukat eta nire potentzia ekonomikoa oso mugatua denez, ezin ditut liburu guztiak argitaratu. (...) Beno, ni ez naiz kasu bakarra bere liburuak argitaratzen dituena. Hor daude erdaraz Ramiro Pinilla eta Rapha Bilbao eta horiek, 'Libropueblo'koak, eta heuron liburuak argitaratzen dituzte baina oraindik merkeago zeren distribuitzaile bati eman beharrean kalean heurek saltzen bait dituzte. (...) Lehen bederatzi urtetan zortzi liburu argitaratu zizkidaten. Eta orain, nire aldetik bost edo sei urtetan hogeitahamabi lan argitaratu ditut. Bada aldea, ezta?".



Fermin Iraolagoitia
IBAIZABAL ARGITALETXEA

Xabier Galarretak hasiberri du (1995) autoedizioaren beste esperientzia bat, "Marjinalia" bildumarekin. Bi liburu atera ditu dagoeneko, saio gisa bere hitzetan: "Saio bat dira. Liburu hauek ez ditut liburu banatzaile ohikoen bidez zabaldu. Oraingoz, propaganda eta posta bidez egin nahi dut banaketa eta ondoren, bakoitzetik 300 ale inguru zabaldu nahi ditut. Oraindik proba modukoak dira, 100 ale kaleratu ditut bakoitzetik,

ezin direnak ohiko liburutegietan topatu. Egile-argitalpenak dira, eta ikuspuntu berezi batetik begiratu behar zaie".

Obraren kontrola eta satisfakzioa dira Galarretarentzat formula honen abantailak: "Ia-ia kapritxo hutsa direla ere esan liteke. Eta gainera liburuaren erabateko kontrola neure esku dago. Horrela, esate baterako, igoal ez ditut mila ale atera behar, baizik eta gutxiago ere atera ditzaket, nire nahiaren arabera jokatuz. Egia esan, ekonomikoki gauzak nik egiten ditudan eran eginda gastua ez da handiegia, eta satisfakzioa, ordea, bai. Horrekin jasoa da ordaina. Gainera nik uste dut gauzak pixka bat aztertuz gero posible dela ekonomikoki ere aurrera egitea. Funtzionatuko duela uste dut. Ea behintzat kafe bat hartzeko ateratzen dudan...".

idatz

Bada beste formula bat, Frantzian-eta erruz erabilia eta gurean ezezaguna, horrela kontsideratzen ez bada behintzat autore batzuk zenbait inprentarekin egin ohi dutena. Egile-argitaratzaile eta argitaletxearen tartekotzat har genezake. "Edizioa autorearen kontura" esan ohi zaio. Argitaraketa-mota horretan argitaratzaileak eskuizkribua liburu bihurtzerainoko prozesua osorik egiten du berak. Eta hortik gerokoa autorearen kontura doa: promozioa, banaketa eta salmenta. Argitaratzaileak ez du liburuaren gain eskubiderik batere. Hainbesteko bat jaso du lan horren truke, eta kitto. Zentzu hertsian, argitarapen-zerbitzugune bat da hau eta ez argitaletxea.

Editorearen irabaziak

Diruak eta liburuak ez dute ezkontza ona egiten. Eta, hala ere, uste da editoreak dirutan daudela. Ez dela egia frogatzeko aski da ikustea negozio-zifrek zer suposatzen duten.

Kapituluska honetan liburu-argitaraketaren inguruan egin ohi diren kontsiderazio ekonomiko batzuen berri emango dugu.

Euskal liburua, defizitarioa

Hasteko, egoki etor dakiguke Euskal Editoreen Elkarteko txostenean (1985) editoreek berek egiten duten planteamentua. "Euskal argitaraketaren diru-galera" titulua zuen paragrafo batek euskal liburua berenez defizitario dela defendatzen ez zaigu harrigarri gertatuko. Honela justifikatzen dute argudiaketa: "Merkatu murritz horretan kokatzeak berekin dakar edozein publikazioren, liburu zein aldizkariren, argitaraldi-kopuru txikia.

Euskal liburu baten ale-kopururik altuenak nekez gainditzen du 5.000 aleko muga. Botaldi ertaina 3.000 alekoa da, eta horietatik titulu bakoitzeko urtean 600 bat saldu ohi da, batez beste.

Urritasun honek biziki garestitzen du produktu editoriala.

Ez da ulertzen zaila: argitaraketaren kostu orokorrak (hala nola, autore-eskubideak, fotokonposizioa, marrazkilariak, argazkiak, diseinu-maketapenak, muntaia, etab.) ale gutxitan banatu beharrak liburuki bakoitzeko kostuak neurrigabeki gehitzen ditu.

Bestalde, euskal liburuaren irakurlea/eroslea gaztelaniazko publikazioen salmenta-prezioetara ohitua dago, eta ez du onartzen euskal liburuak erdarazkoak baino garestiago gerta dakizkion.

Salmenta-prezioa berdina izanagatik, bistan da ez dela bera kostu-prezioaren eta salmenta-prezioaren erlazioa euskal eta erdal liburuen artean. Konparazio bidez argi dezakegu atzera diferentzia hori: kostu/salmenta prezio-erlazioa ez da inoiz 4 X 1 baino txikiagoa gaztelaniazko liburuetan, eta normalki hortik gorakoa da. Euskarazkoetan, aldiz, nekez gainditzen da 2,5 x 1eko erlazioa.

Aipatu ditugun faktore guztiok batean bilduta (alegia, tiraden urritasuna, liburu bakoitzeko kostuaren handia, kostuen araberako salmenta-prezio apala, salmenta-eskasia), neke handirik gabe ondoriozta dezakegu euskal liburua defizitarioa dela berenez. Merkatu-baldintza hauek, oker ez bagaude, ezin alda daitezke bapatean, eta horrexegatik uste dugu luzaro iraungo duela euskal argitaraketak diru-galera izaten".


Parentesi artean eta gaurkotze-aldera esan dezagun kostu/salmenta prezio-erlazioa gaur, batez beste, 3-3,5 dela euskal liburuan.

Planteamendua eginda dago honekin, eta bertan agertu dira elkarren ondoan geroxeago banan-banan ikusiko ditugun arazo guztiak.

Ordutik hona zenbait gauza aldatu da, baina planteamenduak zutik dirau ehuneko ehun. Esplikatu behar da, dena den, liburu-mota guztiak ez dutela defizitariotasun-maila bera. Eta arrazoi berberagatik ezta ere kostu edo salmenta-maila bera.

Kalkulu arrunt hauetatik aparte kontsideratu behar dira inbertsio handia eskatzen duten entziklopedia eta hiztegiak, esate baterako. Kostuak askoz handiagoak dira, eta irabaziak ere halaxe izan daitezke. Bestelako tratamendua izan ohi dute, baita ere, luxuzko liburuak, "liburu ederren" sailean sartzen diren horiek. Testuliburuen eta ikasmaterialen alorrak ere lege propioak ditu. Badago besterik ere.

Literaturako edo gisako liburuen gain egin ohi dira maizenik kalkuluak eta komentarioak. Liburu-mota honi buruz ari gara diogunean euskal liburua ez dela errentagarria, arrakasta eta porrotak kontuan edukita.



Joxe Goia
IDATZ ARGITALETXEA

Hizkuntza handietako liburugintzetan irabaziak, irabazi garbiak (autorearekin banatuta, noski) eskubide deribatuetatik datoz. Horietan ere ez dugu guk korritu handirik. Eskubide deribatuen artean sailkatzen dira, erreprodukzio-, interpretazio-, moldapen- eta itzulpen-eskubideak, poltsiko-libururako edo kluberako eskubideak, telebista edo filmetarako eskubideak, besteak beste.



Kostua eta irabaziak

Kostu aldetik erdarazkoaren parean dago berenez euskarazko liburua. Oroitzapen historiko bezala gelditu da gaur garai batean euskaraz inprimatzeari aplikatzen zioten plus edo gehigarri hura: atzerriko hizkuntza gisa hartzen zuten euskara eta erdarazkoa baino garestiago zen euskarazkoaren konposaketa-lana.

Ze gastu sartzen da liburuaren kostu-egituran?

Hona kontzeptu nagusiak:

1) *Fabrikazio-gastuak*: fotokonposaketa, papera, inprimaketa, azala;
2) *Gastu komertzialak*: publizitatea, promozioa;
3) *Edizioaren gastu orokorrak*: pertsonala, gastu finkoak, finantza-gastuak;
4) *Autore-eskubideak*: autorea, itzultzailea, ilustratzailea;
5) *Banakuntza*: banaketaria, liburudenda.

Liburuaren kostu eta irabazien banaketa hurbilagotik ezagutzeak badu interesa, horretxek erabakitzen baitu liburugintzaren prozesu ekonomikoa.

Taula bakarrarekin ezin dugu adierazi jokua bere osoan. Liburuaren kostu finkoak euskaraz eta erdaraz berdintsuak dira. Merkatuaren mugak direla eta, botaldiak askoz txikiagoak dira euskaraz, eta irabaziak ere bai. Botaldi mugatuen erruz, liburuki bakoitzari kostuaren zati handiagoa legokioke. Hala da izan, baina euskal editoreek bestela jokatzen dute, koefiziente biderkatzaile txikiagoa ezarriz 3-3,5 izango litzateke euskarazko liburuaren koefiziente biderkatzailea eta ez 5-6 erdarazko arlotan bezala. Zer esan nahi du honek? Irabazi-tarteak erdarazko edizioan baino estuagoak direla.

Alderdi guzti hauek hurrengo orrialdeetan sakontzen ditugu. Baina esan beharrekoak ziren orain ere, ondoko bi hipotesien zergatia ulertzeko.


Abiapuntu berdinetik abiatzen gara bietan: 600 pezetako kostua duen 2.000 aleko eleberria. Salmenta-prezioa jartzeko bi koefiziente erabiliko ditugu, 3a eta 4a. Koefiziente biderkatzailea 3 baldin bada, 1.800

pezetatan salduko da. Baldin koefiziente biderkatzailea 4 bada, 2.400 pezeta balioko du liburu-dendan. Nola banatzen dira salmenta-prezioko diru horiek?

Lehen hipotesia

Lehen hipotesian koefiziente biderkatzailea hiru da. Salmenta prezioa, hortaz 1.800 pta.

Kontzeptua	%	Aleko (ptak)	Lehen edizioan (ptak)
Banaketa	**50,0**	**900**	**1.800.000**
- Banaketaria	20,0	360	720.000
- Liburu-denda	30,0	540	1.080.000
Argitaletxea	**50,0**	**900**	**1.800.000**
- Autorea	10,0	180	360.000
- Kostua	33,3	600	1.200.000
- Irabaziak	6,6	120	240.000
	100,0	**1.800**	**3.600.000**



Xabier Olarra
IGELA ARGITALETXEA

Bigarren hipotesia

Koefiziente biderkatzailea, orain, lau da. Salmenta-prezioa, 2.400 pta. Eta kostua aurreko bera: 600 pta.

Kontzeptua	%	Aleko (ptak)	Lehen edizioan (ptak)
Banaketa	**50,0**	**1.200**	**2.400.000**
- Banaketaria	20,0	480	960.000
- Liburu-denda	30,0	720	1.440.000
Argitaletxea	**50,0**	**1.200**	**2.400.000**
- Autorea	10,0	240	480.000
- Kostua	25,0	600	1.200.000
- Irabaziak	15,0	360	720.000
	100	**2.400**	**4.800.000**



"Editorearen irabaziak" izeneko sailean gaudenez, argitaletxeari dagozkion irabazietara zuzendu ditzakegu begiak. Diruzalearen fama du editoreak eta erraz suposatzen da urretan gainezka dagoela. Liburu arruntari dagozkion kasuetan bestelakoa da egoera. Aleko 250 pta. irabazten badu, pozik. Ez dirudi izugarri, egia esan. Segun eta salmenta nola joan den, dirua galtzea ere gerta dakioke. Hobe esan, sarri gertatzen zaio dirua galtzea.

Nola bizi da, orduan?

Zorionez, liburu guztiek ez dakarte diru-galera. Akabo bestela. Editorearen eginkizuna da batzuk eta besteak konbinatzea, galera dakartenak eta etekina utz dezaketenak. Joseba Jakaren errezeta ezaguna da: "Osotasunean bilatu behar da errentagarritasuna (...). Proportzioa izan daiteke, lau zati izanez gero, bat etekin argia ematen duena, beste bat epe laburrera etekinen bat emango duena, hirugarren bat oso epe luzera akaso errekupera dezakeguna, eta laugarren bat badago, ziur galera emango dizuna".

Konbinatu behar dira autore kontsakratuak eta autore berriak, konbinatu behar dira tiroia duten autoreak eta gutxi saltzen dutenak. Noski. Baina ez da errezeta bakarra. Beste formula liburu-motan dago. Goraxeago Xabier Gereñori irakurri diogu, literaturarekin galdu egiten duena hiztegi eta metodoekin konpentsatzen duela.

Arazo honen inguruan dihardutenean, frantses aztertzaileek "Loi Diderot" aipatzen dute beti, liburugintzaren berezitasunak azpimarratuz. Bestelako negozioen legeek ez dutela balio ediziorako, zioen Diderot entziklopedistak 1767an. Hona Diderot-en proportzioak: batekin arrakasta; laurekin gastuak berreskuratu; eta bostekin dirua galdu. Eta gainera, sobratzen den liburukiak piperrik balio ez. Hona bere esaldia osoan: "Une bévue que je vois commettre sans cesse à ceux qui se laissent mener par des maximes générales, c'est d'appliquer les principes d'une manufacture d'étoffes à l'édition d'un livre. Ils raisonnent comme si le libraire ne pouvait fabriquer qu'à proportion de son débit et qu'il n'eût des risques à courir que la bizarrerie du goût et le caprice de la mode: ils oublient ou ignorent, ce qui pourrait bien être au moins, qu'il serait impossible de débiter un ouvrage à prix raisonnable sans le tirer à un certain nombre. Ce qui reste d'une étoffe surannée dans les magasins de soiries a quelque valeur. Ce qui reste d'un mauvais ouvrage dans un magasin de librairie n'en a nulle. Ajoutez que, de compte fait, sur dix entreprises il y en a une, et c'est beaucoup, qui réussit, quatre dont on recouvre les frais et cinq où l'on reste en perte".

Prezioa eta salmenta

Nola kalkulatzen da liburuaren salmenta-prezioa? Kostuari hainbesteko koezifiziente biderkatzaile bat aplikatuz. Salmenta-prezioaren arabera ordaintzen dira gero autoreari dagokiona, komertzializazioari dagokiona, portzentaia bat gehienetan.

Koefiziente biderkatzailea ez da beti eta nonahi berdina. Liburumota guztiei ez zaie berdina ezartzen, argitaletxe guztiek ere ez dute berdina aplikatzen, eta hizkuntza guztietan ere ez daude ohitura berdinak.

Koefiziente hori 4-6 bitartean dabil leku gehienetan. Frantzian 6 da, Estatu Batuetan 5-6 eta Espainian 4. Eta gurean? Beheragotik dabil euskal liburuan.



Luis Haranburu
KRISELU ARGITALETXEA

Inkestaren arabera editorialen erdiek (% 50) 2-3ko koefizientez biderkatzen dute kostua. Horietatik gehien-gehienek hiru aldiz biderkatzen dute. Beste datu hau ere interesgarria izan daiteke: Bertoko editorialak, euskaraz bakarrik ari direnak, bi baldintza hauek betetzen dituztenak, % 70 dira 2-3 aldiz biderkatzen dutenak. Eredu espainiarrera errazago jotzen dute besteek. Esan beharra dago, azkenik, lauko faktore biderkatzailea dela altuena, hortik gorakorik bat ere ez dela inkestan ageri.

Azken batean, euskal liburuarena "prezio politikoa" dela esan daiteke. Logika merkantilistaren aurkako jokabidea da hau berez. Justu kontrako jokamoldeak izan beharko luke nagusia, hau da, euskal liburuak ale gutxi saltzen dituenez bakoitzaren prezioak handiagoa beharko luke. Inguruko hizkuntza nagusiekin alderaturik, askoz handiagoa. Zortzi mila aleko edizioak baino askoz garestiago izan beharko luke bi milakoak. Zer bada, orduan? Euskal editorialek ez al dute dirurik irabazi nahi? Ez da hori.

Gertatzen da merkatuak agintzen duela, eta ez logika enpresarialak. Eta merkatuan erdal liburua dago. Horrekin lehiatu behar du euskarazkoak. Baina joku-arauak jarri erdal liburuak jartzen ditu: ohiturak, promozioa, prezioa, eta beste.

Errentagarritasun-maila apalagoarekin konformatzera behartzen du merkatuak euskal editorea.

Liburukiko edo aleko erdal editoreak baino gutxiago irabazten du euskarazkoak. Hori bateko. Eta besteko, tituluko askoz ere gutxiago. Zergatik? Saltzen den ale-kopurua askoz ere txikiagoa delako. Saldutako ale-kopuruak, horrek bai biderkatzen dituela irabaziak, nola editorearentzat, hala autorearentzat.

Titulu bakoitza zenbat saltzen den jakin ez dakigu. Hortaz, egiazko irabazien informazio zehatzik gabe jarraitu beharko dugu. Baina hurbilpen aski fidagarria da tirada bera, eta gainera honen arabera kalkulatzen da prezioa.

LABAYRU IKASTEGIA

Tiradari buruz ere esan behar da informazio asebetekorik ez dudala lortu inkestan, editore dezentek abstentziora jo baitu. Arrazoiz esan ohi zuen halako hark liburuen tiradak ezagutzea mendiko artzaien ardi-kopurua ezagutzea bezain zaila dela.

Jakina da tiradak murriztuz doazela azken urteotan. Zenbat, ordea? Jakina da, bestalde, liburu-mota guztietan ez dela ale-kopuru bera botatzen. Bi aldagai hauekin alderaketa bat egin nahi izan dut inkestaren bidez. Editoreen datu-izkutatzea gorabehera, hona emaitzak (ez dakit zein neurritan fidagarriak, berriz diot):

Liburu-mota	Ale-kopurua		
	1985	1995	1995/1985
Haur eta gazte-literatura	2.600	1.700	-900
Testuliburua	3.300	2.400	-900
Helduen literatura	2.000	1.600	-400
Gainerakoak	2.000	1.500	-500

Zifra hauen aurrean esan daitekeena da, gutxi edo asko, titulutan irabazi dena aletan galdu dela. Adiskide editore baten hipotesian, lehenean dago euskal edizioa, titulutan irabazi dugunari aletan galdu dugu-na kentzen badiogu parrean gelditzen gara, dio hark. Hipotesi hau konfirmatzen bada, asko erlatibizatzen du horrek azken urteotako liburugintzaren gorakada.

Tituluak ugaltzea da oraingo joera edizioan, "best seller"aren bila nonbait. Tirada edo botaldia emeki-emeki beherantz doa, eta badirudi titulu gehiago ateraz konpentsatu nahi dela atzerakada hori. Joera orokorra izanik ere, badira aldeak toki batetik bestera. 1990eko datuak eskutan, Espainiak Frantziak baino titulu gehiago eman du argitara. Frantziak, aldiz, batez besteko tirada hagitz handiagoa du: 10.000 ale 5.104ren aurka. Hau da, Frantziak titulu-kopurua urriagoa du bai, baina tirada handiagoari esker biztanleekiko liburu gehiago du.

Euskal argitalpengintzari eredu frantziarra gehiago komeni zaiola esango nuke.

Garestia al da euskal liburua?

Segun zein liburu eta segun zeinentzat.

Euskal editorearentzat, ikusi dugu, euskal liburuaren salneurria merkea da izan, eta gainera beharko lukeena baino askoz merkeagoa.

Irakurlearentzat garestia da liburua, garestiegia. Liburu-denda batean hitzetik hortzera esango dizu nornahik hori. Baina baita ere jantoki batean, edo edozein dendatan. Hortik gora, aukera da dagoena, lehentasun-mailaketa. Aurretiaz garesti dela esanda ere, afari batean bost edo sei mila pezeta xahutzeko prest dagoena, prest al dago bost edo sei mila pezeta liburuan inbertitzeko?

Egoki planteatu zuen Anjel Lertxundik arazoa duela 12 urte (1984). Ez du gaurkotasunik galdu batere: "Liburuek garesti fama dute, ondutako ardoek, angulek eta Rabanneren diseinuek bezalatsu. Sarritan entzun dugu irakurketarako zaletasun eza liburuen salneurriengan oinarritzen eta biak parekatzen.

Baina arazo honetan ere xehetasun bat baino gehiago eman behar da.

Eta lehena, produzio mailari dagokionez eta lan maila askok hartzen dutela parte liburugintzan kontutan hartuz —idazlea, argitaldaria, inprimaria, banatzailea, liburudenda...— liburua kalean dagoen produktorik merkeenetakotzat jo daiteke.(...)


Baina gure ustetan arazoa ez da produktu berarena, produktu horietara jotzen duenarena baizik, heziketa kulturalarena. Gin tonic baten salneurri berdinean milaka eta milaka liburu interesgarri dago gaur egun merkatuan. Gin tonic-aren itzal soziala, ordea, hedatuagoa da liburuarena baino. Liburua noiz behinka erosten den eta hala beharrez erosten den produktutzat hartzen badugu —erregali gisa, irakaslearen agindu bezala edo sukaldeko errezetak ikasteko modu bezala— liburua beti izango da garesti, luxozko artikulu bait da eta ez gure osasun mentalerako eta heziketarako tresna. Eta luxoa beti iruditzen zaigu garesti.

Eta liburu asko erostea dagokion honek esan beharra dauka argi eta garbi gin tonic-ak garestiak iruditzen zaizkiola. Eta angulak. Eta Getarian ordaintzen dugun afaria. Ez, ordea, liburua".

Bai, garesti fama du liburuak. Are garestiagoarena euskal liburuak. 1984an Eroski aldizkariak egin zuen erreportaje batean zioen gaztelaniazko liburua 2,80 pta. kostatzen zela orrialdeko eta euskarazkoa 3,15 pta. Egia al da hau gaur egun? Nola daude proportzioak?

Azterketa horren garai beretsuan gisa bereko konparaketa egin nuen, eta oso oker ez banago, euskarazko liburua erdarazkoa baino merkeago saltzen zela uste dut.

Edozein modutan ere, gaur euskarazko liburua erdarazkoa baino merkeagoa da. Har dezagun narratiba, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Batez beste, euskal narratibako orrialdeak 6,27 pta. balio du; eta erdarazkoak 6,62. Har dezagun, orain, testuliburua. Erdarazko testuliburuaren orrialdeak 8,86 balio duen bitartean, euskarazkoarenak 8,79 balio du.



Asier Astigarraga
LABAYRU ARGITALETXEA

Zinezko eta balizko irakurlegoa

Merkatuari so: Zein da zuen merkatua? Irakurle berririk ba al dago? Balizko irakurle berri horrengana iristeko ba al duzue produkturik, ba al duzue kanalik?

ALBERDANIA

Tautologia pixka bat egitea izango da, akaso, baina gure merkatu potentziala, euskarazko produkzioari buruz ari garela, euskaldun alfabetatuen multzoak osaturikoa dela esan beharko genuke. Gaztelerazko produkzioari dagokionez (oraingoz, saiakera alorrera mugatua), akademikoki kualifikatu samarra litzateke gure liburuen eroslea. Irakurle berririk ba ote dagoen erantzuteko, berriz, ez gara gu, seguru asko, egokienak izango. Hala ere, zera esan daiteke (irakurketa ez behartuaz ari garela, beti ere): zenbait tituluk merkatua zabaltzen dute (horrelakoak oso bakanak izan arren) eta irakurlego berri bat antzeman liteke horren atzean. Berez, euskarazko tituluen irakurle berria, inon egotekotan, euskaldundu / alfabetatu berriengan, batetik, eta eskolaren munduan bilatu beharko litzateke. Galderaren azken atalari dagokionez, baditugu «irakurle berri» horientzako produktuak; kanaleena, berriz, askoz ere arazo korapilotsuagoa da, denok dakizkigun sarbide-arazoak direla medio.

ELKAR

Gure merkatua jakina da, euskarazko beste argitaletxe guztiek daukaten bera: euskaldun alfabetatuak. Hala ere, bereizketa handi bat egin behar da irakaskuntzako irakurketa eta hortik kanpokoaren artean. Jendeak asko irakurtzen du eskolan dagoen bitartean, derrigorturik askotan baina nahiko gustora oro har; eskola utzi orduko, ordea, utzi egiten diote irakurketari. Gure erronka handi bat, behartu gabeko irakurleen kopurua handitzea da, asko baitira, alfabetatuen artean ere, ia inoiz irakurtzen ez dutenak. Hau, noski, zaila da oso, baina ahalegina egin beharra dago; gu behintzat saiatzen gara: «Enbido txikira», liburu merke eta laburren bilduma, horretarako sortu dugu, besteak beste; besterik da lortuko ote dugun. Kanal bereziena, ordea, askoz gai korapilotsuagoa da. Liburudendak motz geratzen dira, egia da, asko eta asko sartzen ez direlako; etxez etxeko salmentan ez dugu ibili nahi, ordea, teknika agresibo horiek beste batzuentzat utzita. Zer egin? Gizarteko ohitura berriak behar lirateke, euskal kulturarekiko bestelako kontzientzia eta komunikabideen oihartzun biderkatzailea. Hala ere, guk ezin dugu publizitate handira jo, inbertsio garestiegia litzatekeelako.

EREIN

Esan dezakegu euskal irakurlego osoa dela gure irakurlego potentziala. Zein da irakurlego hori:

- Bere kabuz liburuak erosten dituena.
- Eskolakoa.
- «Milabidai» bezalako sailak urratu nahiko lituzkeena.

Ibaizabal

Gure merkatua gehienbat euskaraz eta Euskal Herrian kokatua dago. Irakurle berriak ere ugaritu ditugu eta beraiengana hurbiltzeko kanalak geuk ditugu. Orain Euskal Herritik kanpo ateratzeko urratsak ematen dihardugu.

Pamiela

Fondoa banatzaileei ematea eta hauek liburuak liburudenden bitartez saltzea da lan-sistema ohikoena. Egoera honetan oso zaila da liburuen hartzaileei buruzko informazioa izatea. Banatzaileak ez daude halako begiruneetarako, eta liburu-dendariak... jada kasik egon ere ez daude. Beraz, Durangoren gisako aukeretan baino ez dugu posible gure irakurleen zati bat ezagutzea.

Denborak aurrera egin ahala ere irakurketak iraun egiten duen kalitateko liburuen fondo garrantzitsua dagoenean, Pamielari gertatzen zaion bezala, posible da edozein irakurle posibleren aurrean aurkeztea, baina liburuaren gaur egungo komertzializatze-sistemari ez zaio alderdi hau ajola, baizik eta sektoreko indartsuenen aginteari jarraituz edozer gauza saldu ta merkatuaren maila altuenera iristea. Hots, autonomia handiagoa berreskuratu behar da, gure lanari duintasuna eman eta liburuaren Sistemari beste alternatiba batzuekin erantzun. Eta horretan dihardugu.

Susa

Literaturaren irakurzaletasuna (eta liburu-irakurzaletasuna oro har) etengabe indartu eta mimatu behar da, areago ikus-entzunezko medioek mende honetan hartu duten boterearen aurrean.

Idazle amerikarrak duela 50 urte oso kezkaturik agertu ziren analfabetismo era berri baten sorrera zela-eta, hots, ikus—entzunezko medioek eragindako analfabetismoa. Jendea bizkor eta arin alfabetatzen da ikus-entzunezko medioaren kodigoan, eta gero eta motelago liburuaren kodigoan. Eta onurak bezainbat kalte —edo gehiago— eragin ditu horrek intelektoaren ariketa eta gimnasian, eta bide batez sentsibilitatean.

Irakurzaletasunaren inportantzia indartzeko eta promozionatzeko ardura denoi dagokigu: argitaletxeei, idazleei, liburu-banatzaileei eta dendariei, hezkuntzako agente guztiei, komunikabideei, erakunde publikoei (eta pribatuei).

Txalaparta

Inkesta gehienek esaten dute euskarazko literatura erosten duen bezeroaren profila ezkerrekoa eta abertzalea dela gehienbat. Hori edozein euskal argitaletxeren kasuan egia baldin bada, eta guk hala uste dugu, are garbiagoa da gure kasuan, argitaletxeak ildo editoriala garbia baitu, ez dugu zertan ezkutatu behar, aldiz harro gaude horretaz. Beraz, ideologikoki arlo horretan koka daiteke gure bezeroen arlo zabala. Bestetik, nahiko irakurlego zabala dugula esan beharra dago, orokorrean ikasia eta euskara eta euskal kulturarekiko atxikimendu sakona erakusten duena. Zentzu horretan, bezero exigenteak dira bai lanaren kalitate zein itxura aldetik, eta gure uste apalean, honek erakusten du nahiko liburuzaleak direla, badela ere «kultozko» bezero mota bat.

Eta hala ere, euskarazko liburuak erdarazkoaren ondoan garesti fama du. Gertatzen da, liburu merkeagoen aukera askoz aberatsagoa dela erdaraz.

Tirada kontuan edukita dezente garestiago beharko luke euskarazko liburuak, hala ere.



Eskuizkribuen kantitatea eta kalitatea

Liburuaren jatorria hirukoitza da. Bat: autoreak bere lana editoreari eskaintzen dio eta honek publikoari proposatzen. Bi: editoreak premiaren bat somatu du eta liburu baten enkargua egiten dio autore bati, behar horri erantzuteko hain zuzen. Hiru: Editore batek bere kabuz lantalde bat biltzen du entziklopedia edo hiztegia edo lantzeko. Kasu honetan editorea autore ere bada zentzu juridikoan.

Lehen bidea, klasikoa, bera da hoberena berrikuntzarako, kulturaren esparruan. Beste biek zerbitzu hobea eskaini ohi dute informazioaren eta hezkuntzaren esparruan.

Hirugarren bide hau azterketatik landa gelditzen da bi galdera hauetan.

Izan ere, bi galdera zuzendu dizkiegu argitaletxeei eskuizkribuen joan-etorriez interesaturik. Zenbat eta nolako originalak izan ohi dituzten eskuartean jakin nahi dugu. Eta horren aurretik, horietako zenbat diren motu proprio idazleak bidaliak eta zenbatetan daukan iniziatiba editoreak berak.

Jaso ditugun datuen arabera argitaletxeetako eskuizkribuetatik % 61 da jasoa eta % 39 eskatua. Argitaletxeen % 50ak dio 1-20 bitartean jaso duela eta 1-10 bitartean eskatu egin duela berak.

Eta horietatik zenbatek pasa du onarpenaren bahea? % 45 onartu omen da eta % 55 ukatu eta berriz idazleari igorri. Egia bada, ukapen-maila altua iruditzen zait. Material asko batetik bestera dabilela esan nahiko luke horrek.

Hurrengo galdera logika-hari beretik tiraka dator: zer moduzkoa da eskuizkribu horien kalitatea? Onartu eta atzera bota direnena, biena. Kalitatea hiru dimentsiotan: mamiaren aldetik, hizkuntzaren aldetik eta idazkeraren aldetik.

	Mamia	Hizkuntza	Idazkera
Erantzunik ez	22,2	22,2	22,2
Oso ona	-	-	-
Ona	61,1	38,9	27,8
Erdipurdikoa	16,7	38,9	50,0
Txarra	-	-	-
Oso txarra	-	-	-

Aukeren erdialdera biltzen dira erantzunak oro. Egin kontu batez besteko baloreekin gabiltzala. Ez du esan nahi, hortaz, original oso onik iritsi ez zaienik, oso txarrik jaso ez dutenik esan nahi ez duen bezala. Batez beste "oso onik" ez dago, baina ezta ere "txarrik" edo "oso txarrik". Batez besteko kalitatea erditik gora kokatu ohi da.

Aitzakia gutxien mamian dago: jaso den % 61 bat ontzat eman liteke.

Hizkuntzaren erabilera bitan banatua dago onaren eta erdipurdikoaren artean. Dezente jaisten bide da hor idazlanen maila.

Maila apala erakusten duena, editoreen arabera, idazkera da. Idazlanen erdiak erdipurdikoak omen dira.

Pentsatzekoa da, taula honen arabera, ukapenaren arrazoi nagusia idazkeran bilatu behar dela, gero hizkuntzan eta hirugarren mamiaren aldetik. Esan nahiko du, baita ere, onartzen diren idazlanak "ontzen" lanik gehien berridazketan dagoela.

Obra baten kalitatea asmatzea ez da samurra, eta honen arrakasta aurreikustea are zailagoa. Hainbat eta hainbat kasu aipa daitezke editore batek atzera bota eta gero sekulako arrakasta izan dutenak. Beckett sei editorek errefusatu zuten, Minuit-ek hartu aurretik. Gide-k Proust ez editatzeko gomendatu zion Gallimard-i. Gide-k eta Montherlant-ek argitaletxerik aurkitu ez eta bere kontura atera behar izan zituzten lanak.

Beste batzuetan, bere lanak argitara eman eta handik luzarora egiten dira famatu, Stendhal, Rimbaud, Lautréamont bezala. Beckett-en "En attendant Godot" lanaren 125 ale saldu omen ziren lehen urtean; eta bederatzigarren urterako 10.000. Buzzatti-ren "Le Désert des Tartares" obraren 27.000 ale saldu omen ziren lehen 25 urteetan; eta 20 urte beranduago 400.000.

Ez dago aurretiaz jakiterik. Ezta gurean ere. Txema Aranazek kontatzen du "Recetas para la desobediencia Civil" lanaren bost mila atera zituela derrepente agortuko zelakoan, eta hiru mila bakarrik saldu omen ditu. Joxe Azurmendiren "Espainolak eta Euskaldunak" urtetan egon zen



Josu Zabaleta
LUR ARGITALETXEA

atera gabe bizpahiru argitaletxetan; Elkar-en argitara eman eta sei argitaraldi izan ditu dagoeneko. "Kutsidazu bidea, Ixabel"en arrakastak ustekabean hartu zituen Alberdaniako arduradunak; bederatzi argitaralditan 14.000 ale saldu ditu dagoeneko.

"Best seller"a ez bide dago aurreikusterik. Eta porrota ere ez.

maiatz.

Liburuaren promozioa, azpigaratua

Aprobatu gabeko asignatura da liburuaren promozioa. Horren garrantziaren eta premiaren kontzientzia badago, baina ondorio gutxi. Zerbait egin egiten da, baina irudimen eta gastu gutxikoa. Proposamenak eta saioak izan dira urtetan zehar. Segida izan dute eskas. Negatiboegi ez bada, horrelaxe deskribatuko genuke egoera.

Garrantzia eta premia

Diktadura garaian liburu batek orain hamarrek baino protagonismo gehiago zuen. Euskal produktuek ez dute lortu oihartzunik gizartean, neurri on batean hilda jaiotzen direlako, bultzadarik gabe; promoziorik gabe, hitz batean.

Inoren errua ez da, eta agian guztiona. Egia esan, euskal liburugintzan (premiak hala eskatuta, noski) ekoizpenak garrantzi monopolizatzailea izan du. Gaur egun, zorionez, merkatuan, kontsumoan, aisialdian, irakurlegoan ere jartzen ditugu begiak. Azterketak ez doaz oraindik hortik, baina etorriko dira.

Norabide horretan urrats gehiegi eman ez bada ere, garrantziaren eta premiaren kontzientzia ez da falta izan. EEEk 1985ean egindako txostena bera har genezake lekuko. Liburuak merkatuan erdal ingurugiroaren aldetik aurkitzen dituen zailtasunak aipatzean, promozioarena azpimarratzen du hirugarren lekuan: "Erdarazko liburua promozio handiz kaleratzen da. Erdarazko liburuaren eskaintza nonnahi aurki daiteke: TVEn, irratietan, egunkarietan, publizitate-lekuetan, eskaparateetan. Gaztelaniazko autorea ere komunikabideetan agertu ohi da, mitifikatu egiten da, modako pertsonaia bihurtzen da. Gaztelaniazko liburu-nobedadeak eskuraerrazak dira oso.

Euskalduna, euskal irakurlea, egina dago ingurugiroaren presio horretara, etengabeko bonbardaketa horretara. Liburuaren erosketa, neurri on batean, sakada horren eragina da. Erostea erabakitzeko, oharkabean ere, presio hori behar du.

Euskarazko liburuak, ordea, ez du presiorik egiten. Eskaintza urriagoa du, bateko; baina, besteko, ez da ateratzen merkatura erdarazkoaren indar berarekin.

Euskal liburuaren berri jakitea bera ere ez da gehienetan gauza erraza. Informazio-biderik ez dago. Bitartekoak falta dira, bai nobedadeak ezagutarazteko, bai liburuak komentatzeko, bai autoreak ezagutarazteko. Euskal liburuaren publizitaterik apenas dagoen. Liburuaren aldeko promozio-ekinaldiak hutsaren hurrengo dira: informatzeko, erostera bultzatzeko, euskalduna bere literaturarekin eta bere autoreekin identifika dadin behar-beharrezkoak izan arren.

Liburua eskuratzea ere ez da beti erraza. Liburua ez zaio erosleari bidera ateratzen. Bila joan behar du, eta, gainera, ez du aurkituko edozein dendatan, edozein herritan. Hiriburuetako zenbait dendatan aurki badaiteke ere euskal liburua, zahar eta berri, ezin gauza bera esan herrietako liburu-dendei buruz. Ezta liburutegiei buruz ere".

Diagnostikoa, gaur ere, oro har, orduko bera dela esan genezake.

Argitaletxeen ohiturak

Liburuaren promozioa, zuzenki argitaletxeei dagokien zeregina da. Eta, izatekotan ere, beste maila batean idazleari, banatzaileari, liburudendari.

Argitalgintzaren sektorearen analisian Sayma-k garbi zioen: "insuficientes medios dedicados a la publicidad y promoción de novedades".

Promozioaren hori zertan den argitaletxe bakoitzaren aldetik jakin nahi izan dugu inkestan, baina alperrik. Promozio ordaindua eta bestelakoa bereizten nituen galderan. Ez batak eta ez besteak izan dute erantzunik. Eta erantzuna eman duten gehienek ez dute zehaztu. Irakurri dudanez, Espainian, fakturazioaren % 5,1 izaten omen da promozioari dagokiona, eta txikietan % 3. Frantzian % 10eko zifra ere irakurri dut, baina ez dakit liburu-tipo batzuetan den ala oro har.

Euskal liburuarekin hiru promozio-mota egin ohi dira maizenik eta nagusiki: bat, leku jakin batzuetara nobedadeak bidali; bi, prentsa-oharrak komunikabideetara igorri; eta hiru, prentsaurrekoak egin, aurkezpen gisa. Publizitate ordaindua ere egiten da, neurri apalagoan bada ere. Publizitaterako irrati eta komunikabideez baliatu izan dira editoreak, eta puntualki bakarrik telebistaz. ETBn egin den liburu-promoziorik sendoena eta garestiena iaz Eusenor-en "Euskal Hiztegi Entziklopedikoa"rena izango da ziur asko.



Luzien Etxezaharreta
MAIATZ ARGITALETXEA

Originalak nola eskuratu?

Originalak nola eskuratzen dituzue: editorialak aurretiaz eraturik, eskatuaz, idazleak proposaturik?

ALBERDANIA

Orain artekoan, editorialaren enkargu zuzenez sortutako liburuak %20a baino ez dira. Gainerakoei dagokienez, denetarik dago (idazle guretzat ezezagunek bidalitako originalak, idazleek proposatutakoak...) eta zail dira, batzuetan, bide horiek elkarrengandik bereizten. Esan dezakeguna, berriz, zera da: idazle baten literatur proiektu baten berri izanez gero, hartan parte hartzen dugu (aholkuak, kritika, etab.), idazleak hala nahi balu, noski, eta gurean argitaratzeko konpromezu finkorik gabe.

EREIN

Helduen literaturako lanak guk eskatuta edo idazleak proposaturik jasotzen ditugu. Helduen literaturan nekez egin daiteke «enkarguz». Gazte-literaturan bestela ere jokatu izan dugu.

ELKAR

Helduen literatura alor gozagaitza da: egileari neke handia eskatzen dio eta saria (ekonomikoa bederen) eskasa da. Hori dela eta, ezin gara jendeari originalak enkargatzen ibili. Batzuetan jendea idazlan bukatuarekin etortzen zaigu; beste batzuetan, berriz, aurretiaz dakigunean norbait halako lanetan dabilela, berarekin komentatu ohi dugu zer moduz ari den, aholkurik behar duen eta sortze-prozesuan oro har parte hartuz, neurri handiago edo txikiagoan. Aurretik eginda-edo dauden lanen bildumetan bai, hor guk geuk har dezakegu aurrea eta egileari egin eskaera edo proposamena.

IBAIZABAL

Gehienbat argitaletxeak aurretiaz eraturik argitaratzen dira, % 80 bat. Beste batzuetan idazleek bidalitakoak izaten dira, beraiek jartzen dira argitaletxearekin harremanetan eta lanak aurkezten dizkigute, hau % 20 batean ematen dela esan genezake.

Pamiela

Nire ustez argitaletxe gutxi izango dira libre uneren batean original-pila jasotzetik, idazteak derrigor argitaratzea eta kamara aurrean arrakasta izatea dakarrela uste duten eta, gainera, norberaren liburua urre bitxia dela seguru dauden egileen original-pila jasotzetik alegia.

Idaztea, funtsean, solidaritate-ekintza pribatua dela ahazteak, eta argitaratzea irakurlearekiko errespetu-ekintza dela ahazteak, ISBN hispanoak urtero eskaintzen dizkigun aberrazioak bezalakoak sortarazten ditu, 1994ean ia 55.000 titulu argitaratu baitzituen (guk ere jasan behar ditugunak), irakurtze-ohiturek Europako sailkapenaren atzealdean segitzen duten bitartean.

Hots, heltzen den guztia irakurri behar da, baina gehienetan, argitaletxeak hurbil dituen kanalen bitartez bilatutako edo lortutako originalak argitaratzen dira.

Susa

Normalean editorialak gertu samarretik jarraitzen ditu idazleen idazketa-asmoak, eta liburu horiek ziurtatzeko idazlearen hitz ematea lortzea izaten du argitaletxeak helburu. Eta idazleek eurek, argitaletxeekin sortu dituzten harreman konplizeengatik, berdin egiten dizkiote Susari liburu-proposamenak.

Beste liburu sail handi bat, idazle berriek postaz igorririk iristen dira gure eskuetara.

Eta, azkenik, bada hirugarren bide bat, urtetik urtera usuago eta garrantzitsuago bihurtzen ari dena: liburuak enkarguz eskatzen zaizkie idazleei, editorialak aurretiaz programatu dituelako gaiaren interesagatik. Honelako bizpahiru liburu urtero egiteko xedea izango du Susak.

Txalaparta

Bide ezberdin askotatik datoz originalak. Batzuetan «enkarguz» egiten dira (% 15), bestetan egileei eskatzen zaie (% 50) eta beste batzuetan argitaletxera zuzenean igorriak izaten dira (% 35).

Originalen onarpen-maila

Zuen eskuetara iristen diren materialetatik zenbat onartzen da, zenbat birmoldatu eta zenbat baztertu? (%). Eta zergatik?

ALBERDANIA

Zaila da galdera honi zuzen erantzutea. Hala ere, ausartuko ginateke esaten guregana iristen diren originalen % 40a baztertu egiten dela (akaso % 50). Birmoldatze-kasuak gutxiago dira. Neurri batean guztiek daukate birmoldatze-puntu bat. Alde batetik zuzenketa ortografiko, estilistiko eta adierazpidekoak egiten direlako. Literatur edukinei dagokienez, aholkuak ere egin dira (zati hau kendu, zati hau erantsi, beste hori birmoldatu) baina puntualak dira oro har. Erabat birmoldatzeko aholkua bizpahirutan egin da. Baztertzeko irizpideak nahikoa garbiak dira: kalitate eskasa edota gure sailetan enkaje falta bilatzen delako. Nekez uzten da liburu bat kanpoan kalitatezkoa bada, baina gaizki idatzita dagoelako. Halakoetan, zuzenketa-zerbitzu bat eskaintzen zaio idazleari.

ELKAR

Zaila da batezbestekoak ematea, ez baitugu honen kontaduriarik egiten. Oso gutxi gora-behera esan genezake etortzen zaigunetatik herena-edo onartzen dugula eta beste bi herenak atzera bota. Onartzen direnetan, berriz, ia guztiak ukitzen dira, gutxiago edo gehiago. Batzuek nahikoa dute orrazkera arin bat, Euskaltzaindiaren azken erabakiren bat eta; beste batzuk goitik behera zuzendu behar izaten ditugu, hiztegi, joskera, morfologia eta estilistikan. Zenbaitetan hizkuntza eta estilotik haratago, aldaketa sakonagoak proposatzen dizkiogu egileari, baina bere onespen eta partehartzea behar izaten da berregite horietarako. Arrazoia, berriz, hizkuntz kalitatea izaten da askotan, eta bestetik literatur kalitatea ere bai, aldaketa sakonago horietan adibidez.

EREIN

Gure eskuetara iristen diren materialetatik % 60a baztertzen da. Erabiltzen diren irizpideak: literarioak.

Ibaizabal

Argitaletxera heltzen diren liburuetatik, gutxi gora-behera % 40-50 bat ez dira onartzen (istorioen erritmoa eta bizitasun faltagatik, estilo aldetik pobreak direlako, ipuinen garapena sinplea delako, gaia gustokoa ez delako, aspergarriak direlako...). Gero onartzen direnen artean askotan birmoldaketa egin beharrean aurkitzen gara, laburregiak edo luzeegiak direlako, euskararen erabilera txukuna ez dutelako, ideia polita izan bai baina garapena egokia ez dutelako eta abar. Egia esan, ez da oso erraza izaten euskaraz txukun eta ondo idatzitako liburu biziak eskuratzea.

Susa

Argitaletxe ororen zeregin nagusietarik da liburu originalak ontzen laguntzea. Susako kontseilu editorialaren funtsezko lanetako bat da horixe, eta baztertuak izaten ez diren ia liburu guztien egileek jasotzen dituzte aholkuak liburu originala hobetze aldera.

Liburu onartu eta baztertuen arteko proportzioak oso-oso aldakorrak izaten dira urterik urte, eta %tan bereiztea ezinezkoa.

Txalaparta

Zaila litzateke kopuru hauek zenbatzea. Hala ere, hilabetean bi original edo jasotzen dugula esan daiteke. Urtean jasotakoari buruz, % 10 edo onartu egiten dugu, beste % 10 birmoldatu eta gainontzekoa errefusatu. Arrazoiak denetarikoak izaten dira: kalitatea, lanaren ezaugarrien egokiera gure bildumetan, ildo editorialarekiko zerikusia, merkatu aldeko egokiera, eta abar.



1986an Elkar-ek aproba bat egin zuen pertsona bat promoziorako esklusiboki hartuz. ETBtik luberri bat lantzera etorri zen Xabier Zaldua. Hasierako adierazpenetan garbi agertu zuen alor honen berritasuna eta esperientziaren nobedadea: "Egia esan, lehendabiziko hastapenak ematen besterik ez gabiltza arlo honetan... Kulturaren marketinga Euskal Herrian eta euskaraz nik uste jorratu beharreko kontua dela, ez bait daukagu metodu zehatzik... Erizpide jakinak finkatu behar dira, merkatua ezagutu, irakurlea baita oraindik ezagutzen ez dugun fantasmatxoa. Tiroak ezin dira hutsean eman gero eta liburu gehiago ateratzen delako, atera bai baina nork irakurriko? Hor zegok koxka".

Ezin da esan ezer egin eta egiten ez denik. Baina zergatik ez ote da gehiago egiten? Garestia delako izan liteke, eta bada garestia daukagun enpresa modurako. Baina hor ere badira mailak. Euskal Herriko komunikabideek erraztasun gehiegi eman ez dutelako ere seguru badela. ETBren kasua da larriena.

Besterik ere badagoelakoan nago. Zehazki hau: iruditzen zait editoreek ez dutela euskal liburuaren promozioaren etekinetan gehiegi sinesten. Arrazoiz ala ez, merkatua ezagutzen dutela uste bide dute eta uzkur dira bide horri serio heltzeko. Inertziatik ere egon liteke piska bat baino gehiago. Ez promoziorik egiten dute, ez merkatuaren azterketarik.

Proposamenak eta saioak

Proposamen eta saio gehienak Euskal Telebistara begira eginak dira. Eginak izan direla esan beharko genuke, esperantza galduta ikusten baita orain jendea. Iaz EEEko buruzagitzan Susako Gorka Arresek aurkeztuaz landa, ez dut azken aldi honetan beste proposamenik ezagutzen.

Proposamen guztiei entzungor egin die ETBk. Hiru proposamenen berri zuzena badut neuk, EIErena, Hasier Etxeberriarena, eta EEErena. Eta jakin dudanez, Jon Anduezak ere egina behar du beste bat.

1985ean, Durangoko Azokan, Euskal Idazleen Elkarteak, Patri Urkizu lehendakari zela, Frantziako Telebistako "Apostrophe"ren antzeko programa bat egitea eskatu zion ETBri. "Apostrophe" horren inbiditan izan gara denok urte askotan.

Ondoren, hilean behingo programa baten eskaera egin zuen Hasier Etxeberriak. Nire paper galduetan aurkitu ditut Hasierrekin izandako elkarrizketak eta programazio egingarri baten egitura ere. Hasierrek berak kontatu duenez, "erantzuna, mementoz ezinezkoa zela izan zen". Hasierrek, hala ere, oker ez banago Arkupe izeneko programan, euskal liburuari presentzia duin bat ematea lortu zuen. Geroztik ere berari zor zaiz-

kio euskal liburuaren eta bereziki literaturaren inguruan telebistak egin dituen saiorik lortuenak.

EEEk ofizialki 1986ko apirilaren 25ean entregatu zion "Lumaz" egitasmoa Jose Maria Gorordo ETBko Zuzendariari. Hamaika orrialdeko txosten honetan egitasmoaren filosofia, edukia eta programazio-proposamena lantzen dira. Ez da eskatzen programa berezi bat bakarrik, ETB euskal liburugintzarekin batean integratu nahi da euskal kulturgintzan. Eskakizunak sei puntutan laburbiltzen dira: "1. Euskal liburuaz informatu; 2. Argitaratu diren liburu berriak aurkeztu; 3. Irakurlegoa ugaltzeko kanpaina instituzionala burutu; 4. Euskal idazleak ezagutzera eman; 5. Tarifa publizitario egokitu bat; 6. Programa berri baten antolaketa".

Hasier Etxeberriak bere kasa "Lumaz" proposamena puntuz puntu landu eta findu zuen, etxea eta ofizioa barrutik ezagutzen zuenez. Azterketaren atarian agertzen du, hala ere, egingarritasunaren benetako zioa non zegoen: "Ez dakit neri dagokidan, baina ezertan hasi aurretik erreflexio bat egin beharra dago, eta begiak itxiz programa hau geure parrilan kokatu, ikusi edo irudikatu.


Eta bat da lehendabizi datorren pentsamendua burura: ETB honetan eta 1986garren urte honetan, Zuzendaritza Nagusiak behin eta berriro adierazi duen moduan *audientzia kriterioak* dira nagusi.

Eta erizpide hori aldatzen ez bada behintzat, tankera honetako programa bat ezin eginezkoa da, betiere audientzia oso mugatuko programa izango dugu berau, gure Herriaren egoera soziolinguistikoari (zenbat irakurle potentzial garen, azken finean) begiratzen badiogu. 10 edo 15.000 pertsonatako irakurlego potentzial batetik erakar ditzakegunak izan daitezke programa honen ikusle, baldin eta edukiak zabalduz beste ikuslego bati ere ateak zabaltzen ez bazaizkio, behintzat.

Beraz, konklusio bat doa aurretik: Telebista honetako zuzendaritzak erabaki beharko du, nahiz eta audientzia handirik gabeko programa bat izan, aurrera ateratzeak merezi duen ala ez, kontutan izanik telebista publiko batek zenbait betebehar ere badituela, halanola bertako kultura eta liburugintza (literatura batik bat) bultzatu".

Promozioaren beharraz kezkaturik, Gorka Arresek EEErako sorkuntzazko literaturaren edizioak behar duen tratamendu bereziaz aurreproiektu bat landu zuen iaz. Bi zati ditu: ETBri zuzendua bat eta liburuaren alorrean mugitzen diren agenteen integrazioa planteatzen duena, bigarrena. Sorkuntzazko literaturaz ari da Gorka, baina liburugintza osoari aplika dakioke berdin.

"A.- *ETBko zuzendaritza eta produkzio sailak* beti egon dira Literatura gaiaren aurrean uzkur eta borondate oso kaskarraz. Aurkeztu diren programa proiektu guztiak gutxietsi egin izan dira. (...)



Enrike Aierbe
OSTOA ARGITALETXEA



Erakunde Publikoak jabetu arazi behar dira Sorkuntzazko Literaturak duen garrantziaz eta behar duen tratamendu bereziaz. Eta Erakunde Publikoek hartu behar lukete iniziatiba, besterik ez bada erabaki politikoz behartu dezaten ETB jarreraz aldatzera.

Europako telebista publikoetan sorkuntzazko liburuak beti izan du bere tokia, batez ere Frantzian eta Alemanian eta Britainia Handian, baina ez hainbeste Espainian. Ez ditut ezagutzen Islandia, Suedia, Suomi, Norvegia, Errusia, Holanda, Italiako esperientziak, baina ziur naiz ez dutela alor honetan basamorturik.

Eta hala ere, *Sorkuntzazko Euskal Literaturari Buruzko Telebista Programa* ez da ETBk beregain hartu behar lukeen konpromezu bakarra. ETBk sorkuntzazko *literatur liburuak doan publizitatzeko konpromezua* hartu behar zuen aspaldi, eta ez da sekula halakorik egin —garai batean euskal aldizkariek aukera horiek izan zituzten, aldizkari enpresek egindako presio positiboari esker—.

B.- Sorkuntzazko literatura liburuen *promozioaren* ardura, gaur egun, idazleen gainean dago ia-ia osorik. Editoreak izan ohi dira promozioaren premia aurrikusten duten lehenak, baina horretarako idazleez baliatzen dira ia soilik: aurkezpenak, hitzaldiak, idazleak ikastetxeetan...

Editoreek oraindik ere iniziatiba handiagoa hartu behar dute: publizitatea komunikabideetan, promozio afitxak liburudendetan eta abar.

Banatzaileek eta Dendek ere promozio langintza honetan inplikatu behar dute, zinemagintzaren munduan gertatzen den bezalaxe (produktorak, distribuidorak eta zinema aretoak guztiz inplikatzen dira promozioaren alorrean).

Editoreek esfortzu bereziak egiten hasi behar duten neurrian, *banatzaileak eta dendak inplikatu* behar dira promozio langintza honetan".

Multimedia, baliatu beharreko aukera

Multimediaren aurrean erraz topa genitzake euskaltzaleen artean defendatzaile sutsuak eta deitoratzaile ez hotzagoak.

Argitaletxeen jarrera zuzenean jakin nahirik, bi galdera bikoitz zuzendu diegu. Zer uste dute editoreek, gurekin zerikusirik ez duen arazo bat dela ala guk ere baliatu behar duguna? Are: moda hutsa al da ala apustuak merezi ote du; eta zeintzuk dira abantailak eta arriskuak? Zehatzagoak ziren bigarren parteko galderak: hots, noiz heldu behar dio gaiari eta zein liburu-motatan?

Euskal edizioak multimediari heldu egin behar diola uste du gehiengoak (% 66,7). Zergatik? Erantzun gehienek de facto-ko egoera seinalatzen dute: bertan buru-belarri sartuta gaudelako, edo sartzear; behingoz behintzat trena hartzeko moduan gaudelako, dio batek.


Multimediarekiko uzkurtasuna ere ageri da, dena den. Enpresa txikien aldetik bereziki. % 22,2k urrutiko arazotzat dauka, norberarentzat behintzat: aurreragoko lanik badela edo bere liburu-mota ez duela afektatzen, uste dute batzuk.

Multimedia zer da, arriskua, aukera, hitz hutsa?: hori da lehen galderaren bigarren alderdia. Aukeraren aldeko apustua are handiagoa da hemen: % 77,8. Badira zer erantzun ez dakitenak ere, baina arriskua edo hitz hutsa dela uste dutenak bana dira.

Garbi agertzen da, hortaz, argitaletxeen jarrera positiboa. Jakin behar dena da noiz eta nola mamituko den egiaz eta benetan.

Erantzunei jaramon eginez gero, ez du ematen gaur bertan multimedia trumilka sartuko denik.

	%
Erantzunik ez	16,7
Berehala	16,7
Epe ertainean	33,3
Presarik gabe	27,8
Auskalo	5,6



Txema Aranaz
PAMIELA ARGITALETXEA

Proiektu zehatz eta burutu-samartu gutxi dagoela esan nahiko luke honek. Asmoa egon badagoela baina proiektu gisa moldatzea eta egokiera bilatzea falta dela esan nahiko luke hirutik batek. Eta beste hainbestek uste du geroko gaia dela hori, ez duela lehentasunik berarentzat.

Bidezkoa denez, ohizko liburu-motatan indartuko da gurean ere multimedia: % 59rentzat eskola-liburuetan, entziklopedia eta hiztegietan eta zientzia eta arte-ataleko argitalpenetan.

Euskal edizioaren arazo larrienak

Mila eta bat problema ditu euskal edizioak. Bai, baina zeintzuk dira gordinenak, bizienak, erabakigarriak, larrienak? Argitaletxeen iritziaren

araberako lehentasun-maila erabakitzeko, bost aukera zehatz proposatu dizkiegu eta seigarrena libre, beraiek lehentasun-ordena jar dezaten.

Erantzun-proposamenak aski irekiak dira. Ikus ditzagun banan-banan:



- **Ekonomia**. Maila desberdinetako diru-arazoak sar daitezke hemen, hala nola, irakurlegoaren eros-ahalmena, krisi ekonomikoa orokorrean, argitalgintzak sektore ekonomiko gisa beharko lukeen tratamendua, besteak beste.
- **Merkatu urria**. Egoera soziolinguistikoaren ondorio da euskarazko irakurlegoa kopuru txikikoa izatea eta gainera diglosikoa.
- **Sorkuntza gutxiegi**. Behin eta berriz aipatu izan da geure ahalmen propioetatik gora gabiltzala, sorkuntzan dugula Akiles-en orpoa, eta antzekoak.
- **Liburu-politika**. Erakunde publikoek liburuaz duten jokabidea da hemen gaia, hauen esku-hartzeak, hanka-sartzeak, demasiak eta hutsuneak.
- **Argitalgintza**. Argitaletxeen beraien jokabidea sektore gisa.
- Besterik. Bestelako kausarik ikusiz gero, hemen du aukera. Bat bakarra baliatu da aukeraz.

Inkestaren emaitzak

Lehentasun-ordena	Arazoa	Boto-kopurua (%)
Lehena	Merkatua	88,2
Bigarrena	Ekonomia	52,9
Hirugarrena	Liburu-politika	41,1
Laugarrena	Sorkuntza gutxiegi	29,4
Bosgarrena	Argitalgintza	58,8

Nola ulertu behar da hau guzti hau?

Editore gehien-gehienentzat merkatuaren urritasunean datza euskal edizioaren arazo larriena. Lehen postuan kausa hori jarri dute eta indar horrekintxe gainera. Lehen maila hori % 17,6k ekonomiari eman dio, eta ez merkatuari.

Arrazoi ekonomikoak bigarren lekuan kokatu dituzte erdiek baino gehiagok. Beste 17,6rentzat bigarren kausa liburu-politika da.

Editore-multzo handi batek (% 41,1) hirugarren arrazoi bezala liburu-politika jotzen du, erakunde publikoen jokabidea, alegia. Ikusten dugu lehen bi arazoek (merkatuak eta ekonomiak) kontsentsu dezente handiagoa bildu dutela. Zeren eta hemen liburu-politikaren ondoan hirugarren arazo gisa % 23,5ek sorkuntzaren eskasia planteatzen baitu nahikoa indartsu.

Egia esan, sorkuntzaren eskasiak editore-multzo handiena laugarren tokian biltzen du (% 29,4), nahiz eta ia beste hainbesterentzat (% 23,5) laugarren leku hori liburu-politikari dagokion. Esan duguna: fluktuazio dezente ikusten da hirugarren eta laugarren kausak banatzeko orduan.

Bosgarren arazoa da gehiengoarentzat (% 58,8) argitalgintzari dagokiona. Norbere buruari errurik ez botatzea normala dela pentsatuko du norbaitek.



Joakin Berasategi
SENDOA ARGITALETXEA

Merkatuaren baldintza objektiboak

EEEk 1985ean moldatu zuen txostenean ere, euskal liburugintzaren bizi-kondizioak aztertzeko orduan, marra lodiz azpimarratzen ditu euskararen demografi oinarri ahula eta diglosi egoera, hau da, merkatu urriaren bi ezaugarriak. Hori frogatzen saiatzen da ondoren: "Hedadura txikiko hizkuntza izateak eta diglosia jasateak liburugintzari ezartzen dion lehen baldintza, horixe da: irakurlegoaren urritasuna. Irakurlegoaren datu bat edo beste eman dezagun orain, diogunaren froga gisa.

Hizkuntz egoeraren azken azterketek diotenez, milioi-erdi inguru da euskaraz normalki mintzo dena, hots, biztanleriaren % 16 bat.

Euskal hiztun horien erditik gora da irakurtzen badakiena eta inoiz edo behin libururen bat euskaraz irakurri ere egin omen duena. Baina, zinez, horietako % 15 bat har dezakegu, ez besterik, euskal liburu baten irakurle potentzialtzat. Hau da, kopuru absolututan, 70.000 bat lagun.

Eta hauetatik gehiengo bat, gazte-jendea da: % 60 dira hemezortzi urtez behekoak.

Oro har, euskarazko liburu baten ahalezko haur- eta gazte-irakurleen kopurua, 40.000 ingurukoa da. Eta larriena, 30.000 ingurukoa, goitik jota.

Egin kontu, ahalezko irakurlegoaz ari garela eta ez zinezkoaz. Zertan esanik ez da, handia dela, maizenik edo beti, irakurle potentzialaren eta errealaren arteko aldea.

Adigarriago egiteko, gaztelaniarekin konpara dezakegu. Gaztelaniazko irakurlegoa baino ehun aldiz txikiagoa da euskarazkoa. Eta hori, Estatu espainoleko irakurlegoa soilik kontutan harturik erdararen kasuan".



1976ko zailtasunak

Merkatuaren baldintza objektiboetatik datorkiola argitalgintzari muga nagusia, ebidentziaren hurrengo ziurtasuntzat hartuko dute askok. Baina ez da beti berdin izan. Badirudi 1976ko talaiatik ere ez zela horrela ikusten, esaterako. Berriak aldizkariak "Euskal Liburuak" izeneko erreportaia landu zuen. Horren barruan zenbait argitaletxeri lau galdera zuzendu zitzaizkien. Horietako bigarrena da hau: "Zuen editorialgintzan zein zailtasun aurkitu dituzue?". Luis Haranbururentzat ekonomia eta zentsura dira lehen trabak. Paulo Agirrebaltzatcgik politika ekonomikoa seinalatzen du. Geroko arduradunak merkatuko analfabetismoan aurkitzen du eragozpen nagusia. Eta Enrike Aierbek beste nonbait aurkitu ditu traba handienak: hizkuntz borrokan eta liburu-ekoizpen desegokian.

Hauek dira beraien erantzunak hitzez hitz:

Kriselu *(Luis Haranburu Altuna)*: "Zailtasunak ugariak dira. Printzipalenak ekonomia mailakoak dira, zeren gauza jakina da, nola euskal liburuak argitaratzea negozio txarra den. Gure liburuak oso tirada laburrak dituzte eta nekez finantziatu daiteke liburu bat 3.000 aleko tiradatik behera, eta gu oso urruti gabiltza horretatik.


Ekonomiaz aparte beste zailtasunak daude, zensurarena; adibidez aurten guri R. Saizarbitoriaren 100 metro izeneko nobela bahitu digute... Oraindik ez daiteke libreki idatzi eta honek oztopo bat suposatzen du gure lanean".

Jakin *(Paulo Agirrebaltzategi)*: "Jakin-ek bere liburugintzaren bidez Euskal Unibertsitatera jo nahi du: baina Euskal Unibertsitatea oraindik gogo eta asmo besterik ez da, hein handi batetan behintzat. Eta, bestetik, egia da, ez dugula Unibertsitaterik izango euskal biblioteka bat prestatzen ez baldin badugu. Horregatik gure liburugintzak neurri handi batetan landu gabeko alor batetan jokatu behar du.

Gaurko liburugintzaren zailtasunik handiena, bestalde, gure lanetik begiratuaz, euskal kulturaren alde ekonomia zuzenduko duen politikarik ez edukitzea da: euskal politikaren arazoa dugu, neurri handi batetan, euskal liburugintzarena".

Etor *(Enrike Aierbe)*: "Ez dut uste oztoporik aundienak, ekonomikoak —edo zentsurakoak— edo izan direnik. Sendo uste dut, ez bakarrikan Etor, gu argitaratzaile danok ere, geien mugatu gaituan arazoa, hizkuntza-inguruan eman den borroka eta oraindiokan ere diarduan borroka ori izan dela. Eta esateko nago, Euskadi'ko desarrollo kultural osoa bandintzapetu egin duala, alde asko bai-ditu arazo honek. Hizkuntza-borroka honek kinka estuetan jarri ditu idazle, editore eta edozein sortzaile. (...) Euskadi'ko editorial-produziñoak gaur ez du zuzen adierazten gure egoera kulturala. Argitaratzen denari begiraturik, uste, hutsaren urrena falta zaigula goia jotzeko kultura gaietan. Irakurlerik gabeko liburuak dira, ordea. Herriak ez daduka zer irakurririk. Bai mamiz eta bai formaz, irakurri ezinezko liburuak sortu ditugu".

Gero: "Aurkitu dugun eragozpenik haundiena gure erriaren alfabetatze eza izan da. Urte asko da ofizialki euskal kulturaren desarroiloa etetzen eta oztopatzen ahalegintzen hasi zirenetik. Euskal editorialen prolematika euskara berberaren prolematika da. Marginatze, diskriminatze eta lagatze erraz baten eskutan aurkitzen den euskararen prolematika. Ondorenak aski ezagunak dira: batetik erriko zati haundienak ez du euskara ezagutzen, eta bestetik ezagutzen dutenen gehienek ez dakite euskaraz idazten eta irakurtzen".



Gorka Arrese
SUSA ARGITALETXEA

Erakunde publikoen liburu-politika

Euskal Herriko erakundeek aro garaikidean modu askotara esku hartu dute liburugintzan. Denak ez ditugu hemen aipatuko: batzuk bere lekuan aipatu ditugu, EIMA adibidez; beste batzuen informazio zehatza ezin izan dugu eskuratu, burugogor saiatuta ere; beste batzuek maila apalagoa dute.

Batez ere Eusko Jaurlaritzako liburu-politika aipatuko dugu. Arrazoi askogatik, bere pisu espezifikoarengatik eta bereziki berau izan delako kuantitatiboki eta kualitatiboki nabarmendu dena.

Eusko Jaurlaritzaren ondotik Gipuzkoako Foru Aldundiak behar du aipamen berezia. Makina bat laguntza luzatu du honek ere, idazleentzat, argitaletxeentzat, aldizkarientzat, etab.

Nafarroako Gobernuaren laguntzak ere aintzat hartzekoak dira, eta aipatuko ditugu. Hegoaldearekin alderatuz, hutsaren hurrengoa da Ipar Euskal Herrian lortu dena.


Euskal Editoreen Elkartea

Euskal Editoreen Elkartea (EEE) Erein, Elkar, Sendoa eta Haranburu argitaletxeek sortu zuten 1984. urtean. Euskarazko liburuak argitaratzen dituzten argitaletxeak biltzen dituen erakundea da. Erakunde publikoen aurrean merkatal eta enpresa-interesak defendatzearekin batera, euskarazko liburugintza babestea, sustatzea eta zabaltzea du helburu.

1996. urtean hogeita bat argitaletxek osatzen dute elkartea. Honako hauek: Elkar, Erein, Kriselu, Ibaizabal, Idatz, Labayru Ikastegia, Lur, Mensajero, Sendoa, Elhuyar, UEU, Ihardun, Susa, Gaiak, Fundación Social y Cultural Kutxa, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, Ttarttalo, Ostoa, Alberdania, Pamiela eta Txalaparta.

1987tik aurrera euskal idazle klasikoen lanak argitaratzeko proiektuan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzarekin batera eta, EIZIE eta Jaurlaritzarekin batera, Literaturaren Ondare Unibertsalaren itzulpen lanen argitaratzea bultzatu zuen 1989an; argitaletxe baten esku dago orain lan horien argitaratzea.

Euskal Editoreen Elkarteko lehenengo lehendakaria Julen Lizundia izan zen, eta haren ondotik, 1996 bitartean, Luis Haranburu, Jose Mari Sors, Fermin Iraolagoitia eta Luis Haranburu berriro.



Laguntza-motak

Eusko Jaurlaritzak Kultura Sailetik eta honen barruan "Euskara Sustatzeko Zuzendaritza"tik bideratu ditu laguntzak (berriz diogu: Hezkuntzatik EIMA programaren bidez zabaldu dituenak ahaztu gabe). Programa nagusiak hauek izan dira:

Programa	Urteak	Diru-kopurua
Liburugintza	1984-95	440.000.000
"Euskal Idazle Klasikoak" Bilduma	1986-95	63.000.000
Literatur sorkuntzarako bekak	1984-91	78.850.000
Euskal Letretako Merezimenduzko Saria	1984-91	8.400.000
"Literatura Unibertsala" Bilduma	1989-95	63.675.000
"Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak" Ikerlana	1991-95	34.750.000



Liburuaren sektoreari emandako laguntza guztiak ez ditugu bildu lauki horretan, baina bai handitxoenak eta iraunkorrenak. Ikerlanak eta bildumak aparte uzten baditugu, bitan banatzen dira laguntzak. Autoreari ematen zaizkionak, sari eta beken bidez. 1991n eman zitzaien bukaera programa horiei.

Gogoan har hurrengo urtean abiatu zen kultur politikaren aldaketa. Ordukoak dira Guggenheim, eta ondorioz eratu zen Kultur Kezka.

Liburuari berari eman zaion laguntza zuzena "Liburugintza" programaren bidez eraman da aurrera. Hiru aldi izan ditu programa horrek: 1987 arte laguntza-mota bakarra eman ohi zen, argitalpen-kostuak arintzearen aldera; 1987-88 urteetan bi laguntza-mota jaso zituen liburuak: edizio-kostuetan lagundu eta liburu-erosketa. Eta 1989tik aurrera liburu-erosketa izan da irizpide bakarra.

Editoreen gogokoa da azken formula hau. EEEk berak eskatu zion Eusko Jaurlaritzari subentzio zuzena izan beharrean, liburu-erosketa gisa ematea laguntza.

Honen aplikazioan sortu dira arazoak, ez printzipio-mailan. Urtetan % 25-30eko kenketarekin jaso izan ditu liburuak Eusko Jaurlaritzak, nahiz eta Madrileko Kultura Ministerioak 1988an indarrean jarri zuen prezioen legeak erakundeei egin beharreko kenketak % 15ean egin behar direla zehaztu. Azken kalapita, ordea, 1995ean gertatu zen. Kultura Sailak liburuko % 68ko kenketa eskatu baitzien. EEEko kideek liburu-

rik ez zerbitzea erabaki zuten. Akordiora iritsi ziren, azkenekoz, erosketa-kopurua jaitsiz (280 aletik 220ra) eta deskontua ere % 50era jaitsiz. Laguntza jaso beharrean dirua eskaini egiten diotela Eusko Jaurlaritzari salatu zuten editoreek.



Formularekin bat etorrita ere ez dela hori benetako laguntza azpimarratzen dute editoreek. Laguntza izatekotan, bi baldintza beharko lituzke formula horrek: deskontu txikiagoa eta ale-kopurua 400dik gorakoa.

Liburu-erosketa honek beste prezio-mota bat ere badu. Deialdi horretan sartzen diren guztiek honako hau jarri behar dute: "Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du". Paternalismo-kutsua hartzen diogu eta uste dugu editoreentzat umilgarria eta lotsagarria dela.

Nafarroako Gobernuak ez du ale-erosketaren sistema aukeratu. Edizio-kostuen % 20 estaltzen du Nafarroan Administrazioak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren subentzio-politika honek kritika ugari izan ditu, aipatu berri ditugun horiez gainera. Euskal editoreen ikuspegitik aintzat hartzekoak izan daitezke. Batez ere hiru hauek, joerazko arrisku bezala gutxienez: bat, nobedade-ugalketa bultzatuz puztutako eskaintza batera eraman gaitzake; bi, kanpoko argitaletxeen sarrera errazten du; hiru, egile-argitaratzaileen ugalketa dakarke.

Formula honen akatsik larriena hain zuzen zera da, ez duela ezertarako kontuan hartzen euskal argitaletxea. Berdin dio argitaletxea izan ala ez. Berdin dio Euskal Herrikoa eta/edo euskarazkoa izan ala ez.

Editoreen balorazioa

Erakunde publikoen liburu-politikaz zer pentsatzen duten galdetu diegu editoreei. Erakunde publiko guztiak nahasian eta denak batean. Hona erantzunak:

Liburu-politika	%
Oso ona	-
Ona	5,9
Erdipurdikoa	41,2
Txarra	35,3
Oso txarra	11,7
Erantzunik ez	5,9

Liburu-politika ontzat ematen duena % 5,9 besterik ez da, eta horietatik inork ere ez oso ontzat. Oso txartzat ematen dutenak ere gutxi dira.

Politika hori erdipurdikoa edo txarra dela esanez gaitzesten dute gehien-gehienek. % 76,5 dira posizio horretan daudenak. Kanpoko zein bertoko, enpresa handi zein txiki, ez dago alderik irizkera honetan.

Eman duen iritzia arrazonatzeko eskatu diogunean, % 65ek erantzun du zerbait. Politika-eza salatzean etorri da bat multzo handiena: % 41,2. Ez dagoela irizpiderik, ez dagoela proiektu nazionalik, diote. Dirulaguntza gutxi ematen dela esatean kointziditu dute beste batzuek: % 35,3.

Liburutik argitaletxera

Sektorera hurbiltzen denerako konturatzen da bat, editoreen planteamenduek aise gainditzen dituztela gaurko laguntza-motak.


Jada 1985eko txostenean planteatzen zituzten bi bide.

Bata legearen aldetik egin beharrezkoa. Liburuaren lege gaurkotu bat eskatzen zuten orduan.

Bero-bero zegoen asmoa orduan Komunitate Autonomoan. Jose Mari Velez de Mendizabalek, Euskal Idazleen Elkarteko Buru zelarik, aurreproiektua ere aurkeztu zuen han eta hemen.

Lege berri eta propio horrek euskarazko liburua ehuneko ehun babestu behar zuela proposatzen zuten editoreek bere txostenean. Geroztik premiak areagotu egin dira. Eskuratu gabe dauzkagu oraindik ISBN, "Sociedad General de Autores" delakoa, Cedro, besteak beste. Garrantzizkoa da, bai politikoki eta bai ekonomikoki, horiek geure esku izatea.

Bigarren proposamena ekonomiaren aldetik lantzekoa zen. Egin den bidea hauxe izan da, baina subentzioen bidezidorretik joan da. Bide nagusia beste bat da, finantzaketarena, kredituena. Liburuaren bidez laguntzen da gaur editorea. Besterik da, ordea, argitaletxea bera egitura bezala laguntzea. Produktu zehatzaz gainera enpresa editoriala, sektorea, aintzat hartzea eskatzen du horrek, argitaletxeak enpresa mailan tratatzea. Joku-zelai honetan erakunde publikoen esku-hartzea eskatzen dute editoreek. Zertarako? Euskal argitaletxeak finkatzeko, kontsolidatzeko, berauen lehiakortasuna areagotzeko. Nola? Kreditu eta finantzaketak lortzen lagunduz. Editorialak, bere gain hartu behar dituen kargak direla eta, finantzaketa merkea behar du, kreditu bigunak, subentzizonatuak, eta luzarorakoak. Laguntza finantzarioak behar ditu, berebat, teknologia berrietarako, birmoldaketarako. Apustu berriei eusteko. Era honetako



Jose Mari Esparza
TXALAPARTA ARGITALETXEA

formulak badaude merkatuan. Falta den gauza bakarra da arduradunek konbentzi daitezela euskal kulturako sektoreetan politika hau indarrean jartzea dela kultur politikarik jatorrena. Enpresak ez dira gutxiago enpresa kulturalak direlako.

Euskal Liburuaren Institutu, Erakunde edo Zentroaren gaia ere aspalditik dago airean. Euskal liburuari dagokion guztia bildu, landu eta bateratuko duen zerbait behar dela itsuenak ere ikusten du. Informaziorik, azterketarik, ikerketarik ez dago. Sorkuntzatik hasi, ediziotik segi, komertzializaziotik eta salmentatik pasa eta irakurketaraino iritsiko den informazioaz ari gara. Bestalde, liburugintzaren diruen iturburuak Administrazio desberdinetan barreiatuak daude. Hegoaldean sei solaskidekin hitz egin behar da liburuaz: Eusko Jaurlaritzan Kultura eta Hezkuntzarekin, hiru Foru Aldundiekin eta Nafarroako Gobernuarekin. Irizpideak ere, diferenteak izateaz gain, aldakorrak dira agintealditik agintealdira. Irizpide eta solaskideen bateratzea behar-beharrezkoa da.

Ikusten da, bada, subentzioetako diruek ez dituztela betetzen euskal argitalgintzak dituen premiak eta gurariak. Eta subentzioekin ez dela agortzen liburu-politika.

Argitaletxe nazionala

Editora nazionalaren gaiak ez du egun batere gaurkotasunik. Arazoa orain ateratzea, hildakoak bezpiztea dirudi.

80ko hamarkadaren hasieran batek baino gehiagok premiazkotzat jotzen zuen. Ez da kasualitatea. Bi gertakari nagusiren itzalean aztertu behar da arazoaren egokitasuna edo desegokitasuna.

Batetik, urte horietan euskal editorialgintza berria indartuz doa, profesionalduz, enpresa bilakatuz. Irakaskuntzarako premiei erantzutera jotzen dute, gainera. Aldi berean (zer kausa, zer ondorio?) liburu-mota bat are minoritarioago bilakatzen da, saiakera, olerkia, dibulgazio-liburua, besteak beste.

Bestetik, Eusko Jaurlaritza sortu berria da. Posible da, hortaz, kultur politika bat planteatzea, liburu-politika bat bideratzea.

Hirugarren gertakari (edo inpresio?) bat erantsi behar zaio honi. Sorkuntza intelektuala edo literarioa handiagoa bide da hori kaleratzeko dagoen ahalmena baino. Argitaldaria gertatuko litzateke "botila-zintzurra". Batzuetan, diogun bezala, produkzio horri ezin diolako abastorik eman, ezin duelako kanalizatu. Eta beste batzutan, ziotenez, errentagarritasuna bilatzen zutelako gauza guztien gainetik.

Non irtenbidea? Etekin ekonomikoen logikatik aparte funtzionatuko zuen egitura batean. Horixe zen batzuentzat editora nazionala. Ez denentzat, hala ere.

Ikus ditzagun gaingiroki arazo honen inguruan izan diren zenbait planteamendu.


1980ko apirilean honela zioen Koldo Izagirrek: "Uste dut euskal literaturaren problema ez dela editorial bat subentzionatuz edo liburua promozionatuz lortzen, baizik eta literatoa promozionatuz. Nik proposatuko nuke —eta ni erreformistena jartzen nauk hortara joanez gero— EKNk (Eusko Kontseilu Nagusiak) egin dezala editora nazional bat eta argitara eman ditzala plusbalia ematen ez duten liburu guztiak".

1982ko urtarrilean Susan publikaturiko entrebista batean Joxe Azurmendik aitortzen du amets egin duela inoiz editora nazional batekin, hain zuzen ere publikatzen dena baino gehiago idazten delako eta lan horiei irteera bat eman behar zaielako: "Nire ustez, gaur egun idazten dena ez da publikatzen. Hori egia da. Eta idazten duenak ez daki non atera. Sarritan esaten da ez dela idazten. Baina nik uste dut beldurgarriena ez dela hori; beldurgarriena da urteak direla ez direla ateratzen. Eta ateratzen ez dena idazteko borondate handi bat eta heroismo handi bat behar da. Azken bi urteetan, zenbat literatur liburu akumulatu den argitaletxeetan argitaratu gabe, jakin nahi nuke nik. Eta nobela, eta poesia, denetatik. Beraz, irtenbiderik ezak probokatzen du lehenik krisisa. (...)

Ni neu ez naiz batere negozio gizona, eta beraz ez dakit negozio eta ekonomi aldetik eta merkatuaren estruktura liberal batetatik zer soluzio daukan guzti honek. Baina nik lehenago amets egin izan dut —gaur egun hori ere ez dut amets egiten— estatismo batetara jo behar dugula herri minoritario honetan. Eman dezagun, beraz, estatuak sortzen duela editoriale nazional bat, justu oraindik beren kasa bizitzeko gauza ez diren sekzio horiek aurrera ateratzeko. Baina nik ez dut holako projekturik entzun, eta horretan ere nik ez dut amets gehiago egiten".

1982ko apirilean, editora nazional baten egitekoaren alde agertzen da Josu Landa. Euskal liburugintzarako plangintza da honen artikuluaren gaia. Zer liburu-mota onartu beharko lituzke edizio-etxe nazionalak? Irizpide ekonomikoari irizpide ideologikoa eransten dio Josu Landak. Hiru tratamendu aurkezten ditu: "Defizit sortzen ez duten liburuei dagokienez garbi dago laguntza ekonomikoa minimoa behar duela izan, hots, beste edozein herrialdetan ematen den laguntza. Besterik gabe. Konparazio batetara, euskara ikasteko metodoak lirateke adibiderik garbiena.

Bestaldetik, badira defizitario izanik karga ideologikoa eraman ahal izanagatik, estatuaren kontrol ideologikopean inola ere geratu ezin



Xabier Gereño
X. GEREÑO ARGITARATZAILEA

Erakunde publikoen laguntza-sistemari zer deritzazu? Zer aldatu beharko lukete?

ALBERDANIA

Literaturgintzaren alorrean, ez genuke «laguntza-sistemaz» hitz egingo, «liburu-erosketa publikoaz» baizik. Alor horretan, filosofiarekin bat bagatoz ere, zera esan beharra dago: Eusko Jaurlaritzak era arriskutsu batean murriztu du, 1995ean behintzat, erosketa publiko hori. Ez dakigu, oraingoz, murrizketa horrek zer adierazten duen. Liburugintzarekiko interes falta baldin bada, gaizki goaz. Arazo kointurala bada, aldiz, gaitzerdi, baina Jaurlaritzak bere lehentasun-parametroak berraztertu beharko lituzkeelakoan gaude, ez baitugu uste kulturgintzaren sektore oinarrizkoenetako hau besterik gabe kalteturik atera daitekeenik, zeren eta gauza bat da inbertsio publikoa ez areagotzea (eta, berez, hori ere ez da batere seinale ona), eta oso bestelakoa da praktikan diru-kopuruak murriztea. Sektoreak gero eta titulu gehiago plazaratzeko dinamismoa erakusten baldin badu, administrazioak ezin du atzean geratu, ez baldin badira merkatu-legeak era faltsu batean baldintzatu nahi.

Bestalde, ez zaigu bidezkoa iruditzen gaur egungo baliapide-sakabanaketa (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Diputazioak...). Ez gara horretarako egon daitezkeen arrazoi politikoak (are gutxiago haien zilegitasuna) eztabaidatzen hasiko, baina liburugintzan inplikaturiko administrazio publikoei eskatuko genieke koordinazio-ahalegin bat, eta, horrekin batera, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako duten asmoen berri ekitaldiaren hasieran (legealdi bakoitzaren hasieran ezinezkoa balitz) eta era bateratu batean ematea, azken orduko «sorpresarik» gerta ez dadin.

Azkenik (ez, alabaina, garrantziaren arabera), liburuaren eta irakurketaren sustapen publikoaren falta somatzen dugu, eta ez gara ari, hainbeste, kanpaina eta antzeko ekintza puntualez. Komunikabide publikoetan ez zaio, salbuespenak salbuespen, literaturari leku duinik eskaintzen, eta, publizitate-tarifei dagokienez, beste edozein produkturen tratamendua du liburuak. Ez du ematen hori denik kultur-zabalkunderako biderik egokiena...

◆

ELKAR

Egungo laguntza-mota liburu-kopuru bat erostea da, liburutegiei banatzeko. Hori ondo dago, baina administrazioak kostuprezioan egiten du, ia-ia. Hori, legez kanpokoa izateaz gainera, ez da batere zuzena. Bestalde, errentagarri izan gabe komenigarri diren zenbait libururentzako tratamendu berezia beharko litzateke (goi-mailako liburuak batetik, kolorezko irudiekin sortuak bestetik...), testuliburuekin egiten den antzera.

Idazleei laguntzeko, berriz, lehen esan dugun bezala hobe litzateke bekak edo/eta argitaratutako lanei laguntzak ematea, egungo sarien kaosa gizendu ordez; era berean, luze gabe hasi beharko lukete euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko laguntzek.

◆

EREIN

Berriro diogu, Euskal literatura beste hizkuntzetan argitaratzeko laguntzak eratu beharko dira.

IBAIZABAL

Kalitateari eta sorkuntzari eman behar litzaioke lehentasuna eta dirulaguntza. Baina benetako laguntza ez ematekotan hobe litzateke ez ematea. Esate baterako, erakundeek burutzen duten liburu erosketa % 50 deskontuarekin egitekotan hobe batere ez egitea.



PAMIELA

Ondo barneratutako Ertaroko mentalitatearen emaitza da «Erakundea-Laguntza» binomioa. Herritarrak ordezkatzen dituen edozein Erakunde ez dago «laguntzeko», guztionak diren baliabideak justiziaz antolatzeko baizik, baina Markes-konplexudun idiotez inguratuta gaude. Bere buruaren beste kontzeptu moral eta intelektuala lukeen herriak beste «Erakunde» batzuk eta beste bitarteko batzuk baliatuko lituzke horrela izan zedin.

Funtzionariaren esku dagoen «laguntzaren» kontzeptua ez da (barkatu) zotzaren gaineko gorotzaren erdian dagoen krabelina baizik.



SUSA

Adibide bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak badu EULI izeneko egitasmo bat, argitaletxeei liburuak erosi eta Gipuzkoako ikastetxeetako liburutegietara banatzeko. 1995eko EULI egitasmoaren liburu-erosketak (dirutan) honako hauek izan ziren (*Jakin* aldizkariko dosier honetako argitaletxeei dagokienean):

- Alberdania: 1.049.400 pezeta (bederatzi liburu aurkeztuta).
- Elkar: 2.389.690 pezeta (hogei liburu aurkeztuta).
- Erein: 1.905.300 pezeta (hemezortzi liburu aurkeztuta).
- Ibaizabal: 1.022.575 pezeta (bederatzi liburu aurkeztuta).
- Pamiela: 973.300 pezeta (bederatzi liburu aurkeztuta)
- Susa: 30.500 pezeta (bost liburu aurkeztuta).

Susa argitaletxeak hogeita hamar mila eta bostehun pezeta besterik ez zituen jaso erosketa moduan, eta (besteak beste) honako liburu hauek aurkeztu zituen: Juan Luis Zabala idazlearen *Sakoneta* ipuin liburua, Harkaitz Canoren *Kea behelainopean bezala* poema liburua, Iñigo Aranbarriren *Emon biar yako* nobela eta Itxaro Bordaren *Bakean utzi arte* nobela.

Galdera honek ez du beste komentariorik behar.



TXALAPARTA

Txalaparta nafar argitaletxea izanik, dirulaguntzak jasotzen ditu bai Eusko Jaurlaritzatik zein Nafar Gobernutik. Aitortu beharra daukat hasiera batean uste nuela Jaurlaritzaren sistema Gobernuarena baino bidezkoagoa zela, laguntza liburu—erosketa baten bidez egiten baita. Praktikak teoriaren ukazioa ekarri digu, Jaurlaritzak egiten duen ale-erosketa (eta gainera «dirulaguntza» deitzen diote!) batzuetan edizio-kostoen azpitik baitago (aurtengo kasua). Horri gehitu behar zaio irizpide falta handia dagoela (berdin zaie zenbat liburu aurkezten den orokorrean eta diru-kopuru berdina mantentzen da ehun zein hirurehun libururen artean banatzeko, deskontu berdinak aplikatzen dizkiete liburu «txiki» zein luxuzkoei, eta abar). Nafarroako Gobernuak ez du ale-erosketaren metodoa aukeratu (nire uste apalean eta egoki aplikatuz gero, teorian behintzat bidezkoena) eta justifikatutako edizio-kostoen % 20 estaltzen du. Irizpide hau eztabaidagarri eta hobegarria izan daitekeen arren, irizpide garbia da eta editoreak badaki behintzat non kokatu bere burua. Praktikan, Nafar Gobernuarenak dira benetan «laguntzak» eta ez besteak. Asko eta asko dago hobetzeko, erabat aldatu eta sustraitu behar ez bada behintzat.

duten liburukiak. Kasurik nabarmena eskoletako testuliburuak lirateke. Iniziatiba pribatuetara utzi behar lirateke, beraz, era honetako publikapenak. Hori bai, defizitarioak izanik eta kultur zerbitzua betetzen dutenen aldetik, diru publikoa jaso behar luketenak.

Azkenik, beste atala geratuko litzateke, defizitarioak izanik, estatuaren kontrol ideologikoak hainbeste uki ez ditzakeen liburuena alegia. Era horretakoen aurrean, bi aukera izan zitzakeen gobernu batek, gure ustez onargarri liratekeenak. Bata, editoriale nazional bat montatu, estatuak finantziatu eta jestionatuko lukeena, errentable ez direnen arteko moeta horretakoak publikatuak izan daitezen. Era honetako moetarik garbiena literatura nagusia litzateke. Dena dela, administrazioa horretarako prest ez balego, iniziatiba pribatuen aukera litzateke, baina beti ere subentzionaturik".

Hurrengo urtean (1983), Xabier Gereñok dio editora nazionala Eusko Jaurlaritzari eske eta eske ari dela. Hau litzateke argitaletxe horren zeregina: "Editora horren zeregina izango litzateke editora pribatuek presupostuetatik at geratzen direlako argitaratu nahi ez dituzten orijinalak, heurek aztertu eta pena merezi badute, kalitate minimo bat baldin badaukate, argitara ditzatela. Eta orduan argitaratuko litzateke euskaraz askoz ere liburu gehiago orain baino".

Neuk ere posibilitate hori apuntatu nuen, liburu minoritarioaren krisiaren aurrean (Euskal liburua gaur, 1983): "Argitaletxe handiek liburu minoritarioaren arazoa aintzat hartzen ez badute, non irtenbiderik? Txikiagoak antolatu behar. Eskasagoak datezke, baina atera egingo dute liburua, nahiz eta ez 'profesionalaren' duintasunarekin, zabalkundearekin eta promozioarekin. Talde txiki independente-militante hauek apenas duten gasturik. Edota —beste bide bat— egile editore formula erabili behar. Garai batean gure artean maiz erabilia. Edota —hirugarren bidea— editora nazional bat eraiki, liburu defizitario hauek argitara emateko".

Bi urtetan galtzeko zeuzkan administrazioarekiko esperantza guztiak galdu ditu Josu Landak. Editora nazional hitza ez du entzun ere egin nahi orain. Ez da batere fio Administrazioarekin, politikoekin: "Basamortutik dabilenak oasis baten aparizioa desio duen bezalaxe, autonomia estatutario batek ekarriko zituen ongarriak espero zituen jende askok, eta editora nazionalaren (?) eskaria esperantza horrexen barruan baino ezin daiteke uler. Halere, Gasteizko Gobernua sortu zenetik edota hiru probintzietako diputazioak esku abertzaleen menpe daudenetik euskal liburua laguntzeko dirua nola banatu den ikustea aski da konturatzeko zein gutxi espero daitekeen bide horretatik.(...) Eta instituzio horiek orain arte ez badute jakin hutsune horiek (poesia, antzerkia, saioa)

bete erazten nekez ametituko dute editorial nazional baten sortzea, trukean errentabilitate politiko eta elektoralista bat ateratzen ez badiote behintzat. Horrezaz gain, kulturaren dinamikan zer edo zer egin nahian gabiltzanontzat kaltegarria izan daiteke horrelako editora nazional bat. Hasteko, oinarri-oinarriko jendeak ezik, kultura ofizialeko patriarkek kontrolatuko luketelako editora hori. Azkenean, hor egingo litzatekeen baheketa edo garbiketa badakigu noren onerako eta noren kalterako izango litzatekeen. Bestetik, herri-iniziatiba bat instituziopean ezartzeak beti bizitasun-falta ekarri ohi du, herriari protagonismo bat ematen dioten instituzioak ez datozen bitartean, behintzat. Azken finean, liburuen argitaratzean dauden hutsuneak planifikazio falta baten ondorio garbiak dira. Herri honetan sekula ez dira bildu mahai baten inguruan editoreak, eskritoreak eta kritiko-irakurleak zer komeni den eta zer ez erabakitzeko. Eta horrelakorik egiten ez den bitartean, jai dago, editora nazionalarekin edo gabe. Guk egin behar genukeena liburugintzaren planifikazio bat eskatzea da, eta ez horren faltak sortutako zuloei partxea jarri (horixe bait litzateke editora nazional bat egitea)".

Urte berean bi posizionamendu gehiago egon ziren gai honen inguruan.

Salamancan ospaturiko kongresu batean Mario Onaindiak eta Jon Juaristik esan zuten argitaletxe pribatuak subentzionatu beharrean editora nazional bat eraiki beharko litzatekeela Euskadin: "En nuestro país, Euskadi, ha habido un tutelaje y un apyo descarado al cine. Por un lado, esto está muy bien, porque parece que se está creando un cine vasco, pero en otros campos, como es el literario, donde la rentabilidad política es menor, sufrimos un olvido total. Allí, en lugar de crear una editora nacional semejante a la que existe para las obras en castellano, el Partido Nacionalista Vasco prefiere subvencionar editoriales privadas, y esto perjudica mucho a los escritores que escribimos en euskera".

Derrepente erantzun zien Luis Maria Jimenez de Aberasturik, Gipuzkoako Liburu-dendarien Gremioko Lehendakariak. Konpetentzia desleiala izateaz gainera editora horren aniztasuna eta irekitasuna auzitan jartzen ditu erantzunak: "Tal y como se encuentran los 'negocios editoriales', esa Editora Nacional Vasca, serviría para competir con un dinero público con las empresas particulares, que tienen que pagar todos los meses, vendan o no vendan, sus impuestos y nóminas; en síntesis, y a los hechos me remito, sumaría a un sector permanentemente en crisis, un poco más de desesperación. Por otro lado, y teniendo en cuenta los resultados, en materia de publicaciones, que aportan algunas entidades de crédito y oficiales, dudo que nadie se atreva a garantizar que el comité de publicaciones de esa hipotética Editora Nacional fuese pluralista y abierto a todos los pensamientos y planteamientos".



Miren Agur Meabe
GILTZA ARGITALETXEA

Euskal Editoreen Elkartea (EEE)



Galeuzcakoetan azken jaioa da Euskal Editoreen Elkartea. Katalanek eta gailegoek aurrea hartu zioten. Ez da hori bakarrik. Elkarte katalanak bultzatuta animatu ziren euskaldunak behingoz elkarte moduan antolatzera. "Associació d'Editors en llengua catalana" delakoak deiturik joan ziren Barcelonan ospatu zen bilera batera Elkar eta Erein, 1984ko martxoan, eta han animatu zituzten. Urte bereko abuztuan sinatu zuten Konstituzio-Agiria Julen Lizundiak (Lehendakari), Joseba Jakak (Lehendakariorde) eta Joakin Berasategi eta Luis Haranburuk bokal bezala eta irailaren 3an eratu zen legalki elkartea.

Batzar sortzailea abenduan ospatu zuten, Durangoko Azokaren kariaz. Urte beterako Batzorde hau izendatu zen: Lehendakari: Julen Lizundia; Lehendakariorde: Jose Mari Sors; eta bokalak: Luis Haranburu, Joakin Berasategi, Fermin Iraolagoitia, Enrike Aierbe.

Batzarre honetan bertan markatu ziren helburuak hauek ziren:

- "Euskal kultura euskarazko produkzioaren bidez potentziatu eta bultzatu.
- Erakunde publikoen aurrean interlokutore bat edukitzea, argitaletxeen problematika guzia aztertzeko eta hauen helburuak eta ekintzak aurrera eramateko.
- Euskal kulturak bideak izan ditzala ez Euskal-Herrian bakarrik baizik Estatu mailan eta Nazioarteko Herrialdetan ere bai".

Estatutuen arabera EEEko partaide osoa izateko argitaletxearen katalogoaren % 25 behar da euskaraz. Edo hamar urte aurretik nahiz hasieratik euskaraz liburuak publikatu baditu, eta azken hiru urtetan gutxienez hamabost titulu argitara eman baditu. Sar daitezke, baita ere, euskaraz editatu eta urtero gutxienez prezioaren edo kopuruaren % 25a euskaraz bada.

Hogeita bat partaidez osatzen da gaur Elkartea: Alberdania, Elhuyar, Elkar, Erein, Gaiak, Gero, GIE, Ibaizabal, Idatz, Ihardun, Kriselu, Kutxa, Labayru, Lur, Ostoa, Pamiela, Sendoa, Susa, Ttarttalo, Txalaparta, UEU.

Inkestako gehienak ere elkartekide dira. Partaide izan ala ez, sektorearen ordezkaritza berak duenez, EEEk egiten duen lanari buruzko iritzi edo balorazioa, eskatu diegu argitaletxeei. Honela erantzun dute editoreek:

EEEren lana	
Erantzunik ez	17,6
Oso ona	-
Ona	29,4
Erdipurdikoa	41,1
Txarra	11,7
Oso txarra	-


Hasteko, oso onik eta oso txarrik ez dago. Gero, onak txarrari erraz irabazten dio: Elkartearen lana "on" bezala kalifikatzen dutenak % 29,4 dira eta "txar" bezala jotzen dutenak % 11,7 bakarrik.

Multzorik handienak, ordea, (% 41,1) erdipurdikotzat dauka lan hori, ez du entusiasmo handirik erakusten.

Lan hori ontzat jo dutenek Elkartearen ahalegina eta lorpenak azpimarratzen dituzte: "informazio-gune interesgarria da"; "argitaletxe guztiak elkartu ditu"; "elkarturiko planteamenduak egiten saiatzen da".

Erdipurdikoa dela Elkartearen lana esan dutenek mugak, hutsuneak eta akatsak seinalatu ohi dituzte: "pertsonalkeriak albora utzi behar"; "euskal argitaletxeen arteko tentsioak ez ditu konpontzen"; "interes kontrajarriak direla bide ezinezkoa da politika amankomun bat bideratzea"; "ez du jakin editoreak bateratzen"; "izaera oso desberdinetako editorialak gaude bertan, eta interesak eta helburuak ere desberdinak dira, eta hortaz, denontzako ildoan barik, gutxi batzurentzat onuragarri izango direnak segitzen dira batzutan"; "diru-laguntza gutxi eta tramite gehiegi"; "eremu urriko kultura eta hizkuntzei buruzko politika berezia falta du".


Elkarteak zer (besterik) egin beharko lukeen ere galdetu diegu editoreei. Erantzun gutxi batzuk soilki jaso ditugu. Gutxiegi, iritzi-sorta bat ordezkatzeko.



Xabier Monasterio
ZUBIA ARGITALETXEA


liburua


4.
LIBURUA MERKATUAN



KOMERTZIALIZAZIOA

Imajina al dezakegu euskal kultura banaketa-sarerik gabe, eta euskal liburua liburu-dendetan agertzen ez dela?

Nekez. Baina batzuk ez dugu irudimen beharrik horretarako. Aski dugu memoria erabiltzea, eta gogoratzea ia frankismo osoan euskal liburuak ez zuela izan lekurik liburu-dendatan. Donostian bertan zer, gehienez ere pare bat dendatan aurki zitezkeen euskarazko liburuak.

Erosleak abonamenduz jaso ohi zituen liburuak, orain aldizkariak hartzen dituen modura.

Gaur egun liburu-dendarako bidea zeharo normalizatua dago euskal liburugintzan. Bide hori batez ere banaketarien bidez egin ohi da, ondo eta azkar, itxura guztien arabera.

Euskal liburuaren irakurleak ez du aitzakiarik. Liburu-dendan aurki dezake liburua, nobedadea bada; eta fondokoa bada, pare bat egunetan eskura dezake.

Baina euskal liburuak baditu gutxi (edo oso gutxi, edo batere ez) erabiltzen dituen kanalak. Adibidez, posta bidezko salmenta, irakurle-kluba, eremu handietakoa, kioskoa. Salmentagune guzti horietan euskal liburua falta da ia, lehen urratsik eman bada ere.


1995ean IKEIk euskal liburuaren sektoreaz antolatu zuen mahainguruan esan nuen agian banaketaren arazoa zela sektore guztian gehien aurreratu zuena eta normalizazio-maila handiena lortua zuena. Erantsi behar zaio horri, urrats horiek justu oraintxe aztertzen dugun garaiarekin kointziditzen dutela, 20 urte hauetantxe eman baita aldaketa hori.

Eboluzio horren aztarna batzuk jarraituko ditugu, hasteko. Eta gero, egungo panorama deskribatuko dugu.



URRETABIZKAIA, ARANTXA (Donostia, 1947)

- *Zergatik, panpox (1979)*
- *Maitasunaren magalean (1982)*
- *Albaniaren konkista (1983)*
- *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik (1983)*
- *Zergatik panpox (1985)*
- *Saturno (1987)*
- *Aurten aldatuko da nire bizitza (1992)*



URRUJULEGI, Jon (Zegama, 1940)

- Bizia eta bizitzaren eboluzioa (1987)

Harpidetzatik liburu-dendara

Argitaletxe gutxi batzuek erabiltzen dute gaur egun harpidetzaren sistema. Kasuren bat salbu, ez da gainera bere oinarrizko sistema.

Azterketa honen abiapuntuko urteetan, aspalditik datorren abonamenduaren sistemak du oraindik ere zatirik handiena. Frankismoaren aldi osoan euskal liburuak ez du presentzia sozialik izan. Argitaletxetik zuzen-zuzen joan ohi zen eroslearen eskuetara, liburu-dendatik pasa gabe.

1978an egin genuen inkesta baten emaitzek erakusten dute liburuen erdiak pasatxo (% 51) abonamenduaren bidez iristen zitzaizkiola erosle irakurleari. Argitaletxe batzuentzat sistema hori ia ehuneko ehun izana zen urte batzuk lehenago. 1978an bertan ere argitaletxe batzuk proportzio handitan erabili ohi dute harpidetza: Kriseluk % 80; Gerok % 70 eskuliburuetan; Jakin-ek % 59; eta Etor-ek % 50.

Abonamenduaren bidez gainera, liburu-denda da hurrena (% 31) 1978an. Baina ez ahaztu frankismoaren gaudela jada! Bestelako bide batzuk ere seinalatzen dituzte inkestan: azokak, bertso-saioak eta jaialdiak.

Une egokian iritsi zen liburu-dendetarako bidea irekitzea, krisian bete-bete sartuta baitzegoen abonamendu-sistema.

Harpidetzak abantaila handia zuen editorearentzat, aurretiaz baitzeukan produkzioa kalkulatzerik eta dirua ziurtatzerik. Bazuen abantailarik irakurlearentzat ere: etxeraino etortzen zitzaiola liburua eta merkeago jasotzen zuela.

Baina sistemak porrot egin zuen. Zergatik? Garai hartako abonamenduak zera esan nahi zuen, hartzaileak argitaletxearen liburu guztiak jaso behar zituela. Zer gertatu da, ordea? Produkzioa handitu egin dela dezente, bai orokorra eta bai abonamenduzkoa. Nahiago du orduan erosleak berak egin aukera merkatuan: horrela bere erosketa berak mugatzen du eta ez editoreak eta gainera bere gustuko liburuak erosten ditu eta ez editoreak inposatuak.

Abonamendutik liburu-dendarako trantsizioa naturalki bezala egin du euskal liburuak, une berean ari zirelako egiturak muntatzen: Etor, Txertoa, Iker, eta batez ere geroko bidea markatu dutenak, denda aldetik Bilintx (1976) Donostian, eta banaketa aldetik Zabaltzen (1976). Bi ziren apustuak: euskal liburuari leku duin bat eskaintzea, baina premia handiena batez ere banaketa zen, gehituz zihoan produkzioa Euskal Herriko txoko guztietan jendearen eskura uztea.

Etor-ek epekako salmenta desarroilatu zuen gero (orain Ostoak); San Miguel eta Manterolak urtetan iraun zuten. Ediciones Vascas-ek ere jorratu zuen bide hori, Retanaren eskolakoak ziren eta. Hordago saiatu zen, baina porrot egin zuen. Erein-ek froga bat egin zuen bere fondoko testuliburuekin. Bertan behera utzi zuen honek ere.

1980ko hamarkadaren lehen urteetan Zabaltzen da nagusi eta ia bakarra. Berak banatzen du Ikastoletako materiala, eta argitaletxe garrantzizkoenak ere bai: Elkar, Erein, Hordago, Ediciones Vascas. Donostiakoaz gain delegazioak sortzen ditu Bilbon eta Iruñean.

1985-1986 aldera hasten da egoera aldatzen. 1985ean Yoar sortu da Nafarroan. Yoar Hauzolanetik dator eta talde bereko Pamiela banatzen du. Bizkaian, 1986an "Baietz" metodoa zabaltzen hasi da Ikuska. ZYX-ZERO argitaletxekoak eta produktu alternatiboak banatzetik dator Ikuska banaketaria. Hemendik sortzen da "Sortalde" 1991n barne-zatiketa baten ondorioz.

Egoeraren aldaketan faktore erabakigarria, diotenez, Erein-ek bere liburuak Yoar eta Ikuskari ematean gertatu da, 1986-88 aldera.

Zabaltzen-ek urte horietatik aurrera ez du "monopoliorik". Dimentsioa handituz doa, baina erdal liburuaren banaketa eginez. 1984-85 aldera, ikastolari zerbitzu emanez, erdarazko testuak banatzeari ere ekin zion; geroxeago, hiztegi eta irakurgaiak eta gazte-literatura ere banatzen hasi zen. Baina jauzirik handiena 1992 urtean eman du. Ez da Igarara pasatzea bakarrik. Zertan den jauzia?: informatika sartzea, garraioa enpresaz kanpoko talde bati azpikontratatzea, almazena zentralizatuz stocka kontrolatzea, almazen zaharretan "cash" zerbitzuak muntatzea, komertzialen sarea indartzea.

Yoar eta Sortaldek 1993ko Durangoko Azokakoan hartu zuten elkartzeko erabakia. Marka gisa sortu zuten "Bitarte" liburu zerbitzuetarako elkarte mugatua. Baina hiru urte beranduago, aurtengo udazken-neguan enpresa bakar bilakatuko dira: Bitarte, S. L.


Gorabehera guzti hauen ondoren, zein da gaur egungo egoera?

Eboluzio honetan protagonista nagusienetakoa izan den Joseba Jakak, euskal liburuaren komertzializazioa normalizatutzat jo zuen 1995ean:

"Azken 20-25 urte hauetan izugarrizko pausoak eman dira euskal liburuaren komertzializazioa normalizatzeko. Produkzioaren arabera nahiko ona da euskal liburuaren komertzializazioa.

(...)

Garbi esan daiteke inguruko hizkuntzetan bezain ona edo azkarragoa behintzat dela euskal liburuaren banaketa. Beste hizkuntzetan hiri



URRUTIA, ANDRES (Bilbo, 1954)

- Euskara legebidean (1991)



VELEZ DE MENDIZABAL, JOSEMARI "MENDIAGA" (Aramaio, 1949)

- *Sebero Altube (1979)*
- *Iokin Zaitegi (1981)*
- *Lainopean Kantari (1984)*
- *Zeu zara, Carmen (1984)*
- *Euskal Idazleen Katalogoa (1986)*
- *Amuarrantza (1988)*
- *Sixties (1990)*
- *Yehuda (1992)*

handiekin bezain azkar iristen dira Euskal Herriko herri guztietara: 24 ordutan helarazten dirclarik, Frantzia eta Espainian zenbait egun behar duten bitartean, beti ere hiri handiak salbu".


Etorkizunari begira ez dira ahaztekoak Joseba Jaka zenak markatzen dituen bideak:

"... Euskal liburuak komertzializazio aldetik duen arazo nagusienetakoa promozio eskasarena da, nahiz eta hau batez ere editoreei dagokien. Hemen oso atzera gaude eta urrats handiak eman beharra dago.

Bukatzeko esango nuke euskal liburuak, erdal liburu eta hurbileko beste zenbait produkturekin (musika, bideo, etab.) batera joan behar duela komertzializazio aldetik, eta estruktura komertzialak ere elkartzebidetik jo beharko dutela; liburu-dendak katetan elkartuz edo liburudendak banatzaileekin edo liburu-denda/banatzaile/editoreak batera bilduz. Puntan egoteko indartu beharra dago".


Liburuaren bideak gaur

EUSKAL LIBURUAREN MERKATU-BANAKETA



% 50	Gizabanakoak	% 3	% 20	% 7
% 4	Liburutegiak	-	-	% 5
% 6	Kolektiboak	% 2	-	% 3
% 60	**Guztira**	**% 5**	**% 20**	**% 15**

Estimazioa: Xanti Jaka



VILLASANTE, Luis (Gernika, 1920)

- *Euskal Gramatika llabur eta idazleen pusketa autatuak (1956)*
- *Nere izena zan Plorentxi. Angeles Sorazuren bizitza (1961)*
- *Kristau Fedearen Sustraiak. I. Jainkoa (1962)*
- *Kristau Fedearen Sustraiak. II. Jesukristo (1969)*
- *Axular. Mendea, gizona, liburua (1972)*
- *Axular-en hiztegia. Euskara-Español-Français. Español-Euskara. Français-Euskara (1973)*
- *Euskara (1976)*
- *Kristau Fedearen Sustraiak. III. Eliza (1984)*
- *Kristau fedea (Teologi-saileko azalpena) (1986)*
- *Euskararen auziaz (1988)*
- *Angeles Sorazu: bizia eta mezua (1990)*

Editorearengandik bi bide nagusi abiatzen dira: banaketa eta salmenta zuzena. Banaketak bereziki liburu-dendara zuzentzen du liburua. Salmenta zuzena deitzen zaio besteari, bitarteko egiturarik gabe doalako liburua editorearengandik eroslearengana.

Filosofia eta mekanismoa, arras ezberdinak dira bietan.

Salmenta zuzena

Euskal liburuan salmenta zuzeneko formula bakarra erabili ohi da, atez atekoa edo kreditu-sistemakoa. Epekako salmenta izan ohi da hau.

Irakurle-klub-eko sistema ez da martxan jarri euskal liburuarekin. Nahiko arrakasta eduki dezakeelakoan nago. Harpidetzaren abantailak ditu (etxean jasotzen da, eta merkeago) eta gainera norberak aukera ditzake liburuak katalogoaren barruan. Frantzian sekulako arrakasta du: posta bidezkoarekin batean liburu-salmenta guztiaren % 21 suposatu du 1990ean. Espainian, kontzeptu berean, % 11 saldu da. Eta gurean, deus ez. Espainian ezagunena "Círculo de lectores" da, 1.200.000 bazkiderekin.

Epekako salmentak, atez atekoa esan ohi zaionak, horrek bai izan duela arrakastarik. Europa-mailan, Espainian eta Italian erabiltzen da gehien formula hau (% 28 eta % 26 hurrenez hurren).

Liburu asko ez badira ere diru asko mugitzen du horrek. Liburu handia da, garestia, bildumakoa. Zahar eta berri, Hegosa, Sendoa, Auñamendi, La Gran Enciclopedia Vasca, Ediciones Vascas, Lur, Ostoa dira ezagunenetakoak. Atez ate ez dabil inor euskara hutsezko liburuarekin bakarrik; euskal gaia izanda ere, euskarazkoa eta erdarazkoa nahasian saltzen dira.

Merkatu errea omen da hau. Izen txarra du. Sektorea bera dago oso kezkatua, etika-falta dela, jokabide desleialak direla: auziak argitu eta garbitzeko gogoa behin baino gehiagotan erakutsi badute ere, nekez konpon daiteke ezer, batetik bestera dabiltzan saltzaileak beti berak direnean eta enpresa batzuk etekin hutsari begiratzen diotenean. Epe motzera jokatzen duen gehiegi bide dago sektore horretan.

Formularen barruan, baina salmenta-moduak aldatuz joan dira. Atez atekoa zaila dago askotan, atera txirrin-joka datorrenaz mesfidati baita jendea. Modu errazago eta garbiagotzat jo izan da "kartera-salmenta", hau da bezero jakin batzuk lantokietan bisitatu eta ingurukoak ere horrela inplikatu. Lantokiek ateak istean, beste bide bat asmatu da: bileratara deitu jendea, eta erreklamo bezala oparitxoren bat eskaini. Formula garestia suertatu da hau: bileragunea alkilatzeagatik eta batez ere opariak

gero eta garrantzi handiagoa hartu duelako. Boligrafo batetik hasi zen, altzari eta telefono mugikorretara pasatu da. Badirudi, orain, opariarekin batera libururen bat eskaintzen dela. Opariak liburuari gaina hartu dio.

Zuzeneko salmenta esan ohi zaie, baita ere, erantzun-kupoien bidez, mailing, telefonoz, gutunez, katalogoz egin ohi diren salerosketei.

Banaketa

Liburua bere azken portura eramateko sistema erabiliena gurean banaketa da. Argitaletxeen % 61k ehuneko laurogeian erabili ohi du liburu-denda, eta beraz banaketaria.

Banaketa, hasieran, editoreak berak egin ohi zuen. Hiruzpalau liburu-dendatan kokatzea den bitartean, gaitz erdi. Derrepente hasten dira problemak sortzen, ordea, produkzioa handitzean eta salmentaguneak gehitzean. Mila bat puntutan kokatzen da gaur euskal liburua.


Argitaletxearen departamentu bat izan daiteke banaketa, edo banaketa-egitura propio bat munta dezake edota dagoen bati kontratatu zerbitzua. Denetik izan da azken hogei urteotan. Baina gaur zutik gelditzen den handiena hirugarren bidea da, liburuaren banaketa editoreak enpresa bati kontratatzea alegia.

Banaketa propioa minoritarioa da. Epekako salmenta egiten dutenak, horiek bai, propioa dute, hala nola, Sendoa, Lur, Ostoak. Etxe nagusia kanpoan duten batzuk ere jokamolde bera dute: Giltzak Edebe eta Zubia-Santillanak Itaca, noski. Ibaizabalek ere propioa du Kukuma. Elkar-ek esklusiban ematen dizkio bereak Euskal Kulturgintzari. Erein-ek ere esklusiban ematen dizkio bereak Bitarteri. Euskal argitaletxe txikiek nahiz ertainek enpresa banatzailearekin kontratupeko harremana daukate.

Talde argitaratzaileek normalena da bere banaketaria edukitzea. Horrela dute bakoitzak berea Hachette-k (CDL eta CRDL) eta Presses de la Cité-k (MDL). Hachette hasi zen aurrena, 1971an eta Frantziako merkatuaren % 70 hartzeko asmoa zuen.

Espainian ere talde argitaratzaile handiek bere banaketari propioak dituzte. Talde propioa esaten zaio bere-berea denean, eta beste inorenik banatzen ez duenean. Hauek dira bost handienak: Itaca (Santillana); Grupo Distribuidor (Anaya); Plaza y Janés; Planeta; eta Grupo Zeta (Ediciones B eta aldizkariak). Talde argitaratzaile hauek, zuzenean eta bere banatzaileen bidez zabaltzen dute merkatuko gehiena: % 79.

Euskal liburuaren banaketan bi enpresa handienak Bitarte eta Zabaltzen dira.



XARRITTON, Piarres "Xabier Gasteiz" (Hazparne, 1921)

- *Eskualdunak (1943)*
- *Alfabetatzearen historia Iparraldean (1990)*
  Euskal Literaturaren oinarrizko gidaliburua (1990)
- *J.M. Moulier «Oxobi» (1888-1958) (1990)*
- *J. Mendiague-n bizia eta kantuak (1992)*
- *Xabier Diharce "Iratzeder" (1994)*

"Bitarte liburu zerbitzuak" enpresan bi daude: Yoar (Araba eta Nafarroarako) eta Sortalde (Bizkaia eta Gipuzkoarako). Euskal argitaletxe hauen argitalpenak banatzen dituzte esklusiban: Erein, Alberdania, Izar, Igela, Didaktiker, Desclée de Brouwer, (Tinkoketa), Gaiak, Elkarlan (Bilbo).

"Zabaltzen" enpresak Euskal Herri osoa hartzen du (Iparraldean Zabal-en bidez) eta argitaletxe hauetako produktuak banatzen ditu esklusiban: Elkar, Kriselu, R&B, Ttarttalo, Susa, Elhuyar, UEU, Ihardun, Txalaparta, Eusko Jaurlaritza, Auspoa.

Gainerako guztiak konpartituak dira, biren eta gehiagoren artean: Pamiela, EIE, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Mensajero, Gereño, Euskaltzaindia.

Baina ez dira bakarrak. Esperientzia mistoa da Edelvives-Ibaizabalena. Almazen erregulatzaile bat dute Bizkaian eta banaketari gisa Kukuma dute.

Erdal liburuarekin ia osoki dabiltza gainerakoak: Herrok Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpenak ere zabaltzen ditu. Itaca-k Zubiakoak ere bai. Edebekoek zabaltzen dituzte Giltzakoak. Han eta hemen jaso ditudan informazioekin estimazio bat egin beharko banu, honela partituko nuke banaketarien indarra euskal liburuan:

Banaketaria	**Euskal liburua (%)**	**Irakaskuntza (%)**
Zabaltzen	45	60
Bitarte	35	13
Besteak	20	27
- Umbe		
- Herro		
- Kukuma (Ibaizabal)		
- Edelvives-Ibaizabal		
- Itaca (Zubia)		
- Giltza-Edebe		

Banaketarien egitekoak

Banatzailearen egitekoa ez da garraioa (bakarrik). Ez da logista hutsa, nahiz eta logistika izan.

Banaketa intendentzia da, baina ez hori bakarrik. Bere kargu doa, noski, garraioa, biltegia, produktuak hartzea eta bidaltzea, fakturatzea, eskariak zerbitzea, itzulitakoen kontrola, eta bezeroekiko arazoak oro. Baina hori baino gehiago ere badago bere ardurapean. Liburuak promozionatu egin behar ditu, ezagutarazi, kanpainen bidez zirkularazi, bizirik mantendu liburu-dendatan ahalik eta gehien. Alde batetik doaz lan materialak, zirkulazio fisikoari eta fluxu finantzarioei lotuak; eta bestetik, promozioari dagozkionak.

Frantzian eta Alemanian editoreak egin ohi du liburuaren promozioa bezeriaren aurrean. "Korredore", "saltzaile", "bidaiari", "ordezkari" edo dena delakoak editorea ordezkatzen du, eta honen liburuak abonatzen ditu liburu-dendariaren aurrean. Eta honen eskariak jaso ondoren banatzaileari pasa.


Espainian, aldiz, "difusio" lan hori banatzailearen kargu doa. "Saltzaileak" banaketariaren ordezkoak izan ohi dira eta "eskaintza-kartera" handia erabili ohi dute. Banaketa propioa duten kasuetan ongi funtzionatzen omen du honek (editorea eta banatzailea bat dira, azken batean), baina bestetan ez hainbeste.

Egiten den neurrian, Espainiako eredua segitzen dela euskal liburuan, esango nuke. Nahikoa deskuidatua ez ote dagoen nago, bestalde. Madrileko editorial batean komertzial bezala lan egiten duen lagun batek kontatzen zidan hain zuzen, beraiek birplanteatzen ari direla funtzio hori berreskuratzea. Hau da, dendaz dendako eta bezeroz bezeroko promozio hori editorialak berak kontrolatzea. Lekuan lekuko komisionisten bidez ari zen bera hori muntatzen. Prozesu honen buruan, gainera, ez luke banaketaririk beharko editorialak, "logista" baizik, editorialak berak kontrolatuko bailuke eskari bakoitza eta logistak bidaliko. Oraingoz ez da merkeagoa. Gerora baietz espero du.

Baina gatozen banaketariarengana.


Bi ezaugarri desberdineko lana izan ohi du banaketariak: nobedadeekin eta fondoarekin.

Titulu berriak lantzamendua behar du. Promozio-aldetik egiten dena (edo ez dena) aparte, titulu berria "nobedade-zerbitzu" gisa banatzen da. Ahalik eta salmentagune gehienetara aldi berean. Bi edo hiru hilabetetan liburu-dendak eduki dezake liburua eta gero atzera itzuli, inolako konpromisorik gabe. Erraztasun guztiak ditu dendariak liburu berria ezagutzera emateko. Gero astiroago ikusiko duguna aurreratuz,



ZABALA, Juan Luis (Azkoitia, 1963)

- *Zigarrokin ziztrin baten azken keak (1985)*
- *Ahanzturaren artxipelagoa (1987)*
- *Gertaerei begira (1988)*
- *Kaka esplikatzen (1989)*
- *Sakoneta (1994)*



ZABALA, KARLOS (Irun, 1963)

- Mende akabera (1994)

sistema honek bi lehergune ditu: titulu berrien inflazioa eta dendarien leku-falta. Hortik sortzen dira itzulketak, banaketariaren eta editorearen buruhausterako.

Nobedadeekin bakarrik ezin du banaketariak lan egin. Editorialen fondoa mugitu behar du, ezin du utzi liburua bertan hiltzen, bildumak sartu behar ditu liburudendatan. Etengabeko borroka du hor liburu-dendariarekin, honek dioenean, ez duela lekurik hainbeste titulurentzat, ez duela etekinik ateratzen, deskontu txikiegiak direla, gutxi irakurtzen dela. Fondoa ondo bizirik mantentzean datza banaketariaren arrakasta.

Banaketaren kostuak eta irabaziak

Liburugintzaren katean maila bakoitzak bere egitekoak eta arriskuak ditu. Titulu bakoitzaren gain editoreak egiten du inbertsioa, agian berreskuratuko ez duena. Joseba Jakak hirutan banatzen zuen editorearena (eta zabaltzailearena): batekin galdu, beste batekin parra, eta hirugarrenarekin irabazi.

Banatzailearen kontura doa estrategia, manipulazioa, garraioa eta biltegia.

Liburu-dendariak bere negozioak sortzen dituen gastuak asumitzen ditu. Honek arriskatzen du gutxien.

Kostu handikoa da komertzializazioa: liburuak biltzeko eta banatzeko lekune handiak, saldutakoen eta itzulitakoen albaranak (liburuan operazio guztiek dute bere papera), banaketa-gastuak, salmenta-pertsonala, administrazio eta kontuemaileen lantaldea, aseguru sozialak, soldatak, banku-kostuak, kobraketa-arazoak, atzeratuenak, etab.

Banaketariek diotenez, saldutako pezeta bakoitzeko etekin txikiena beraiei omen dagokie. Operazio bakoitzak irabazi txikia uzten du. Asko egin behar, hortaz. Horrexegatik ez da batere erraza egitura komertzial hau eraikitzea, tamaina kritiko bat behar duelako. Tamaina dezentea behar omen da errentagarri bihurtzeko. Inbertsioak handiak dira, eta irabazia kolpe bakoitzean eskasa. Horrek esplika dezake hainbat proiekturen porrota.

Liburu-prezioaren zer portzentaia jasotzen du banaketariak?

Ez dago aurretiaz erabakitako portzentaia bat, liburu-mota guztietarako balio duenik. Ez dago arau finko eta jakin bat. Banaketari bakoitzak, gainera, bere aldetik editorearekin negoziatu ohi du; gero dendariarekin egingo duen bezala.

Hori guzti hori kontuan edukita irakurri bchar dira ondoko zifrak.

Testuliburua % 25eko deskontuz jasotzen du, argitaletxearentzat oso garestia izan delako elaborazioa. Narratibak, jakina da, ez du halako kosturik egilearen kapituluan. Hemen % 45-50ekoa izan ohi da portzentaia.

Banatzaileak eskaintzen dituen zerbitzuak ere aintzat hartu ohi dira: zerbitzu logistiko hutsak badira % 34 izan ohi da portzentaia; baina zerbitzu osoak badira, % 45-55 bitartean.

Portzentaia hauetatik deskontatu behar ditu liburu-dendariari egitekoak: % 30-35 tartean ibili ohi da. Deskontu horiek handiagoak dira eremu handietan, salmenta handiagoen izenean.

Banaketariarentzat, batez beste, liburuko % 17-18 gelditzen omen da. Horrekin aurre egin behar die egiturari eta kostu guztiei: garraioei, paketegintzari, postari, biltegiari eta ordaindubakoei.

Arazo larriena: itzulketak

Erdian dagoenez, editorearen eta liburudendariaren jarreren ondorioak berak jasaten ditu gehien.

Itzulketen arazoa jotzen da gaur, bai Frantzian eta bai Espainian, komertzializazioaren arazo nagusitzat.

Abiapuntuan editorea dago. Tituluak ugaltzera jotzen du honek, titulu berriak titulu berrien atzetik. Bitartekariak, bere lana betez, bideratzen ditu liburu-dendetara. Liburu-dendariak ez daki non sartu, pare bat egun lehenago beste hainbeste iritsi baitzitzaion, eta ez baitu lekurik. Pakete batzuk ez ditu ireki ere egingo. Beste liburu batzuk hilabetegarrenean bueltan doaz. Ale batekin gelditzen bada, pozik.


Banaketariaren almazenera doaz itzulitakoak. Espainian, nobedade eta bestelakoa, % 37 itzultzen omen da. Hau da, 100 pezetatik 37 dira saldugabeak.

Ondorio komertzialak, ekonomikoak eta kulturalak ditu itzulketak.

Liburuek ez dute aski presentziarik liburu-dendatan eta liburuaren salmenta-aukerak galdu egiten dira horrela. Titulu batek sei bat hilabete egon behar omen luke liburudendan, eta ez hiru aste. Kontsumitzaileak ezin du liburua erosi, katalogotik edo ISBNko zerrendatik ez bada.

Botaldiak egokitzera eraman ohi du editorea itzulketak. Eta orduan gertatzen omen da botaldi mugatu horiekin liburuak ezin duela presente egon, egon beharko lukeen salmentagune guztietan. Liburua ez dela behar bezala zabaltzen esaten omen dute orduan autoreak eta editoreak.

Editoreak "jan" behar ditu itzulketak, hori ere ezin da ahaztu.



ZABALETA, Iñaki (Leitza, 1952)

- *Bertsoaren ezpata (1979)*
- *Eskuaren fereka (1982)*
- *110. Street-eko geltokia (1986)*
- *Carolyn Meyer Dantzaria (1986)*



ZABALETA, Josu (Legazpi, 1948)

- *Ahatea, antzara, txerria eta otsoa (1980)*
- *Hiru txerrikoak eta otsoa (1980)*
- *Jon zikinaren anaia (1980)*
- *Ratapon urtxintxa (1980)*
- *Txorimaloa (1980)*
- *Euskal itzulpenaren antologia. 1. Itzulpen teoria eta praktikarako textuak (1984)*
- *Baltikoko ipuinak (1988)*
- *Txina zaharreko kontu zaharrak (1989)*

Izugarri astuntzen du banaketariaren zerbitzu-lana itzulketak. Bidalketa baino garestiago zaio banaketariari liburuaren itzulketa: berriz sarrera eman, etiketa kendu eta bere lekuan jarri behar du. Bost-zazpi aldiz garestiago omen da. Abantaila bakarra garraiozaleak du.

Ezker-eskuin erruak banatzen hasten da banaketaria. Errealitateari bizkar emanda editatzea salatzen dio editoreari. Irakurlearengan barik gastu orokorretan eta etekinetan pentsatuz argitaratzea. Liburuen inflazioaren errua editorearen gain botatzen du.

Liburu-dendariari, aldiz, salatzen dio errazegi eta azkarregi itzultzea liburuak. Saltzaileak ez omen du behar beste arriskurik hartzen. Hiruzpalau egunetan mugitzen ez den liburua, bueltan itzuli eta kitto.

Euskal liburuaren kasura mugatzen bagara, zer? Gehiegizko eskaintzarik ba al dago banaketariarentzat? Itzulketak erdarazkoen tamaina berean gertatzen al dira? Zenbait irauten du liburuak liburu-dendan?

Euskal idazleen artean azaldu diren joera berak aurkitzen ditugu banaketarien artean ere arazo hauei buruz. Batentzat, saltzen dena kontuan edukita titulu gehiegi produzitzen da. Bestearentzat, irakurlego-sabaia da zulatu behar dena, ekoizpena murriztu-ordez.

Nolanahi ere, badirudi euskal liburuak erdarazkoak baino mogimendu barexeagoak dituela: bizialdi luzexeagoa du (sei bat hilabete) eta itzulketak ez dira horren masiboak. Bidalketak ere ez dira hain masiboak, ordea; eta liburua bera ere ez da punta-puntakoa aktualitatearen aldetik.

Dena den, arrazoi endogenoengatik parte bat eta beste zati handi bat erdal liburuarekin konpartitzen duelako bai espazio fisikoa (liburudendan) eta bai irakurlea, euskal liburuak ere komertzializazioaren abiada bizi hau bete-betean jasan ohi du. Azken batean erdarazko liburuaren konportamendu berdin samarra du euskarazko liburuak, berariaz edo erantsita.

Korapilatsua da arazoaren soluzioa, eta inork ez daki nondik heldu behar zaion. Sektore osoak bizi du kezka. Liburuak liburu-dendan oso denbora gutxi egiten du, bai, baina zer egin?

Arrazoi du editoreak egin dituen inbertsioak gogoratzen dituenean (autore-eskubideen zati bat aurreratu du, papera erosi du, inprimatu egin du, koadernatu eta banatzaileari entregatu). Hori guztia egin eta aste gutxitara konturatzen da bere liburua ez dagoela liburu-dendatan.

Ez du arrazoi gutxiago liburu-dendariak: ezin ditu erakutsi batean 30.000 nobedade eta 10.000 berredizio, gehi fondoa. Ez dakit zeini irakurri nion Espainian urtero produzitzen den guzti guztia Madrileko libu-

ru-dendari batek erakutsi nahiko balu, liburuak bizkarrez jarrita, 17 kilometroko apalategi bat beharko lukeela.

Gai honen inguruan egin ohi diren gogoeta guztiak hitz baten inguruan bukatzen dira: elkarrizketa. Sentsazio bitxia du batek, segun eta zeini entzun: beti du arrazoi solaskideak. Bai, baina, arrazoi du batek, eta arrazoi du kontrakoak. Arrazoi du editoreak, arrazoi liburu-dendariak. Eta errua beti besteak. Elkarrizketa behar-beharrezkotzat jotzen dute adituek, baldin eta nahi bada liburuaren, liburu-dendaren, banatzailearen eta editorearen superbibentzia. Superbibentzia hori juridikoki ere ziurtatu behar da, noski.

Itzulketen ondorioak, nahiz eta ez izan horren masiboak (nobedadeen % 50eraino iristen omen da gaztelaniazko liburuan), larriagoak izan daitezke euskal liburugintzan beste arrazoi batengatik. Euskal liburuak, izan ere, ez du bertsio bat besterik, ez du irteera alternatiborik. Hau da, nola erreziklatu liburu-dendatik itzulita etorri den liburua? Poltsiko-liburu gisa? Irakurle-klubean sartuz? Eta batez ere, zer egin liburu "saldatuekin"? Bide alternatiboak aurkitu beharraren kezkaz ikusi ditut banaketariak.



ZABALETA, Patxi
"Gorka Trintxerpe" (Leitza, 1947)

- *Ezten gorriak (1975)*
- *Gorriak (1975)*
- *Euskomunia ala Zoroastroren artalde (1977)*
- *Julian Gaiarre (1983)*
- *Nafarroako azken mariskala (1991)*
- *Ukoreka (1994)*
- *Badena dena da (1995)*

Banaketariaren garrantzia

Liburuaren sektoreko anaia pobretzat hartu zuten banaketaria hasieran, bai editoreak eta bai liburu-dendariak. Etorri berria zen, eta ez zuen beraien "pedigreerik". Editoreak onartu zuen halako batean, sekulako zerbitzua eskaintzen ziola eta. Eta gauza bera liburu-dendariak.

Prozesu honen buruan, katearen hiru mailak autonomizaturik aurkitzen ditugu: editorea, banaketaria eta liburu-dendaria. Aspaldi nor baziren editore eta dendariari banaketaria sartu zaie tartean. Editoreak dendariarekin harremana galdu egin du, eta ondorioz liburuaren kontrola galtzen du. Banaketaren industrializazioak eta modernizazioak editorea eta liburu-dendaria elkarrengandik apartatuz gain isolatu egin ditu.

Telebista eta zinemako ekoizkinekin gertatzen dena gerta omen daiteke ediziogintzan ere. Benetan inportanteak banatzaileak izatea. Zergatik? Berauek daukatelako informazioa, "jendearen ahotsa" dira, jendearen interesak, gustuak, gogoa inork baino hobeto ezagutzen dute. Eta berauek baldintzatzea politika editoriala.

Bitartekari izatetik editorialgintzako kontseilari bihurtuz omen doaz talde editorialetan. Talde handi-mandi horietan zerbitzu komertzialen alde galtzen omen du indarra editoreak. Banatzaileek markatzen baitituzte lehentasunak eta errentagarritasuna. Editorea hornitzaile izatera

DIAGNOSIA ETA APUSTUAK (1995)

Joseba Jaka

Euskal liburuaren presentzia ohizko salmenta-bideetan:

1.- Liburudendak: Liburu-salmenten kanal nagusia hau da (% 50-55). Bertan euskal liburuak nahiko ongi sartuak daude.

2.- Eremu handiak edo hiperrak: Azken urtetan ugaltzen ari dira eta hauetan ere presentzia dezentea lortu da, nahiz eta zenbait editoreen fondoak oraindik sartu ez. Salmenten % 5-10 suposatzen badu ere goraka joango da.

3.- Kioskoa/Paperdenda/Auzo-liburudenda: Hauetan ere bere mailan nahiko toki egokia hartu du. Bakoitzean asko saltzen ez bada ere puntu asko direnez salmenten portzentaia nahiko handia hartzen dute, % 25-30. Hemen huts egiten duena faszikulo kolekzionableen produkzioa da.

4.- Kredito-salmenta edo etxez etxekoa: Nahiz eta arlo honetan Euskal Herrian izugarrizko salmenta-zifrak egin diren, ez dira euskarazko liburutan izan, baizik euskal gaietako erdarazkoetan. Azken bizpahiru urteetan hasi da lantzen bertsolaritza- eta entziklopedia-gaiekin batez ere. Salmenten % 10-15 artean dago.

5.- Irakurle-klubak: Arlo hau da euskal liburuak ukitu ere egin gabe duena, orain 20 urte Iker-ek egin zuen ahaleginak huts egin ondoren ez dio inork heldu. Beste hizkuntzetan, geroz eta zalbalkunde handiago izaten ari diren bitartean, gu ez gara hasi ere egin.

Laburbilduz esan daiteke euskal liburuaren komertzializazioa beste hizkuntzekin homologatua dagoela arlo nagusietan, kanal bakoitzaren salmenta-portzentaiak ere antzerakoak direlarik.

Aurrera begira nondik jo:

Nik garbi ikusten dut, gure inguruko beste hizkuntza indartsuagoek lantzen dituzten bideak jorratzetik egin behar dugula apostua. Aurrerago doazenengandik ikasi eta daramakiguten abantaila mozten saiatu behar dugu.

1. Liburu-dendak: Hau izanik ere bide nagusia, aitzindaritasuna galtzen hasia dago inguruko hizkuntzetan, megastore-megadenda estiloak aurrea hartzen hasi zaizkiolarik. Oraindik zifratan ez bada ere, bai erakargarritasunean. Liburuarekin batera, musika, bideo, aldizkari, e.a. eskaintzeak teknologia puntakoekin hornitutako denda ireki hauek arrakasta askoz handiagoa izaten ari dira. Hor ditugu Europan Virgin, Fnac, Espainian ere sartzen hasi direnak eta Crisol Espainian sartu eta hedatzen ari dena. Fnac-ek Frantzian salmenten % 20 pasa hartua du jadanik.

Euskal Herrian lehen saioa Bilintx megadendarena izan da eta oso arrakasta handia izaten ari da, baita ere. Etorkizuna hortik datorrenez, kanpoko kate handi hauek etorri aurretik hemen geuk horrelakoak jarri behar ditugu, euskal liburuaren presentzia on bat ziurtatuz beraietan, kanpokoak salgarrienak jartzearekin geldituko baitira. Aurrea hartzen badiegu beranduago sartuko dira eta orduan ere konpetitu ahal izango dugu. Liburu-denda klasikoak beheraka joango dira ez badira eraberritzen, informatizatuz, eroslearen bila atereaz eta giro erakargarriago bat sortuz. Etorkizuneko bide bat hauentzat espezializazioa izango da. Tamaina txikiagoarekin gai bat ongi landuz, gero eta gehiago dira ondo doazenak.




2.- Eremu handiak: Nahiz eta fondo mugatuak izaten dituzten garrantzizkoa da presentzia egoki bat lortzea, hauetan erosten dutenak ez baitira normalean liburudendetara joaten. Hau ere goraka joango den arloa da. Frantzian adibidez, salmenta-zifretan lehen mailan dira, nahiz eta Frantzia den hauen zabalkunde handiena izan duena.

3.- Kioskoa/Paperdenda/Auzo-liburudenda: Hemen ere liburu salduenak bakarrik izaten badira ere, horrelako puntu asko daudenez nahiko liburu saldu daiteke, batez ere haurren mundukoak. Faszikulo-kolekzionableetan aposturen batzuk egin beharko lirateke, egunkariekin bada ere.

4.- Kreditu-salmenta edo etxez etxekoa: Euskarazko liburua kanal honetara berandu iritsi da, merkatua kiskaldua baitago egin diren eskrupulo gabeko astakeriengatik. Horregatik epe motzera arlo honetan ezingo da lortu behar litzatekeen hedadurarik.

Hala ere landu beharko da, euskarazko entziklopediagintzak batez ere beharko baitu, desarroilatuko bada.

5.- Irakurle-klubak: Ez ohizko irakurlego bat ukitzeko, eta batez ere eroslego berri bat lortzeko bide oso egokia izanik, heldu beharra dago beste hizkuntzetan ere goraka doan arloa baita nahiz eta bazkide-kopuru minimo bat lortu arte oso inbertsio defizitarioa izan".



ZABALETA, Pello (Legazpi, 1942)

- *Zurubi luzea (1980)*
- *Sekula Betiko (1985)*
- *Bi poema t'erdi (1990)*
- *Lastozko zubia (1990)*
- *Txorimaloarenak (1992)*
- *Bigarren bizia / La vida paralela (1995)*

muga daiteke. Honek ez du editorearen figura edo egitekoa bakarrik ukitzen, baizik eta produktua ere bai, liburu-mota.

Argitaletxea eta banaketako enpresa talde berekoak direnean gauzatzen da arrisku hau, alegia, komertzialak editorea gainditzea. Ez da hori, ordea, euskal ediziogintzako arrisku nagusia. Banaketa autonomoak isolatzen duen editorea ez da "bere editorea", nolabait esan. Zerbitzu batzuk eskaintzen dizkio horri, eta kitto. Editore horrek, banaketariak informatzen ez badu, liburua salmenta-kopuruz bakarrik kontrolatzen du. Hau da argitaletxe gehienen kasua.

Salmentaguneak

Euskarazko liburuaren autopista banaketaria eta liburu-denda dira. Euskarazko liburu gehien-gehienak liburu-dendetan saltzen dira. Hortik aparte ere saltzen da, baina gutxi. Kioskoan eta eremu handietan nahikoa estrainatu berria da.

Liburu-dendak urtetan uste izan du bera zela kanal (bakarra eta) pribilegiatua. Euskarazko liburuan oraindik bada. Baina lehiakideak sortu zaizkio parean, eta ez txikiak: eremu handiak, espezializatuak eta ez.

Liburu-denda ez da bide bakarra


Gipuzkoan ba omen dira 1.250 liburu-denda. Gehiago Bizkaian eta ez dakit zenbat gainerako lurraldeetan. Guztira, 2.000tik gora.

Hauetako zenbat dira egiaz eta benetan liburu-denda, nahikoa lekurekin, arduradunaren profesionaltasunarekin?

Eta hauetako zenbatetan dago euskarazko liburua? Euskal Herri osoan 1.000 bat salmenta-puntu zerbitzen omen ditu Zabaltzen-ek. 700-800 bat Bitartek. Horietatik fijo samarrak 300-400 bat izan daitezke. Paper-denda eta holakoak dira hauek. Badira gero ehun bat denda, liburu-denda: 50 bat benetakoak eta beste hainbeste dezenteak.

Ez da salmenta-puntu guztietan liburu-mota bera kokatzen. Ezta ere kopuru bera. Biak, kopurua eta liburu-mota, biak dira problema, selekzio handia suposatzen dutelako. Honek ez du espezializazioarekin zerikusirik, espazio-mugekin baizik. Liburu gutxi kabitzen diren lekuan, salmenta handiko liburuak bakarrik sartzen dira.

Liburu-denden tamainaren arazoa ez da auzunetako liburu-denda edo paper-dendatakoa bakarrik. Orokorragoa da, eta nahikoa orokorra. Gaur egun liburu-ekoizpenak daukan tamainari ezin dio inolaz ere irtee-



ZALBIDE, Mikel (Donostia, 1951)

- *Matematika. Hiztegia, hizkera, irakurbidea (1978)*
- *Hitz elkartuen osaera eta idazkera (1992)*



ZALDUA, IMANOL
(Donostia, 1925-1996)

- Donostiarrok txantxetan (1982)
- Nafarroa zutik (1983)
- Urgull mendiko zuloa (1983)
- Kriskitin-kraskitin (1984)
- Herrimina (1985)
- Urola ibaian (1985)
- Bizidunen Eboluzioa (1987)
- Kazetari bat iheska (1987)
- Barrezka (1988)
- Donostiako Zurriolan (1989)
- Noiz arte iraungo du euskarak? (1995)

rarik eman egungo liburu-dendak. Soluzioa? Liburu-denden aldetik, itzulketa.

Liburu-denda ez da liburuen irtenbide bakarra. Euskarazko liburuan % 50-55 kanalizatzen da liburu-dendatik, Joseba Jakaren arabera. Eremu handietan % 5-10 salduko litzateke, eta paper-dendatan % 25-30.

Esan dugun bezala, salmentagune batetik bestera liburu-mota ere aldatzen da. Euskal liburua bere osoan (literatura, saioa, kulturazkoa, etab.) proprioki liburu-denda direnetan saltzen da. Paper-dendatan batez ere haur eta gazteentzakoak du arrakasta. Eremu handietan haur eta gazte-literaturarekin batera narratibako autore kontsakratuak ondo saltzen dira, eta baita ere, aisia, natura, gidak, mendiari buruzkoak eta opari gisa erabiltzekoak.

Eremu handien garrantzia gora doa urtetik urtera, Frantziaren eredura. Gaur egun euskal liburuak badu (hobetu behar den) presentziarik eremu hauetan:

Bizkaian: Corte Inglés, Pryca, Eroski (Max Center, Bilbondo, Leioa), Maxi-Eroski (Durango, Berango, Gernika).

Gipuzkoan: Mamut, Pryca, Eroski (Donostia, Arrasate), Maxi-Eroski (Ordizia, Zarautz, Arrasate, Tolosa).

Araban: Eroski (Gasteiz).

Nafarroan: Eroski, Leclerc.

Espainian, azken datuen arabera, salmenta guztien % 36-40 bitartean saltzen dute liburu-dendek; eremu handiek % 11-7 bitartean; eta kioskoek % 10 6 bitartean.

Interesgarri gerta dakiguke ezagutzea hiru salmentagune hauek zenbat liburu kanalizatzen duten Europako lurralde desberdinetan. 1990eko datuak dira:

	Alemania	Britainia Haundia	Frantzia	Espainia	Italia
Liburu-denda	60,2	57	39	39	47,6
Eremu handiak	4,9	4	29	11	2,8
Kioskoa	-	4	-	5	6,6
Atez ate	13,8	-	-	28	26,0
Posta/Kluba	11,8	9	21	11	10,2

Eredu ezberdinak ageri dira bista-bistan.

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azoka

1965. urteko urriaren 30ean, Domu Santu egunez, zabaldu zen Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren lehenengo Azoka. Gerediaga Elkarteak antolatua, Andre Mari elizpean egin zen aurreneko azoka hura. Elkarteko kide zen Leopoldo Zugazaren ideia batetik sortua izan zen; 1936an Gasteizen egindako Euskal Liburu Azokari jarraipena ematea zen Zugazaren ideia.


Hemezortzi saltoki izan zituen lehenengo azokak, horietako bi disketxeek jarriak. Handik hogeita hamar urtera, 1995ean, 183 saltoki izan ziren, besteak beste 86 argitaletxek, 28 kultur taldek, 13 aldizkari eta egunkarik, 8 disketxek eta 7 banatzailek jarriak.


Lehenengo urtetik beretik kultur ekitaldien egitarau bat antolatu izan da azokarekin batera. 1965eko edizioarekin dantza, musika, kantu eta bertsolari-jaialdiak izan ziren azoka zabalik izan zen egunetan, eta geroztik ere kultur ekitaldiak antolatu ohi dira azokaren inguruan. Idazleen nahiz editoreen elkarteen eta beste hainbat talderen biltokia eta kultur iniziatiba berrien aurkezpen-lekua ere izan ohi da Durangoko Azoka.

1965az geroztik urtero egin da azoka, 1966. urtean salbu. Lehenengo urteetan azaroaren hasieran egin zen, baina abenduaren hasieran egiten da gaur egun. Leku-aldaketa ere egin zen, Andre Mari Elizaren arkupeak txiki gertatu baitziren azoka handitzearekin batera: 1974. urtetik aurrera merkatu-aretoan egin da.

1986. urteko udaberrian euskara hutsezko liburu eta diskoen azoka egin zen lehenengo aldikotz. Hiru urtez jarraian antolatu zen, baina 1988koa izan zen azkena: euskara hutsezko argitarapenen azokak ez zuen, publiko aldetik behintzat, antolatzaileek espero zuten harrerarik izan, eta abenduko azoka nagusia baino ez da egiten ordutik.

Gerediaga euskal kultur elkartea, Durangoko Azokaren antolatzailea, Azokaren urte berean jaio zen, 1965ean. Durangaldeko eta Euskal Herri osoko kultura suspertzea du helburu. *Gerediaga* aldizkari elebiduna sortu zuen 1966ko maiatzean. Liburu eta Diskoaren Azokaz gain, Merindadeko dantzari eguna ere antolatzen du urtero.





ZAMORA, Auxtin (Senpere, 1943)

- *Ezin errana (1987)*
- *Hatsaren bustia (1988)*

Bestetara pasa aurretik bi hitz salmenta zuzenari buruz. Oro har, Espainian eta Italian du garrantzirik handiena salmenta zuzenak (% 39 eta % 36,2 hurrenez hurren).

Bi formula oso desberdin (eta harreman pertsonalei dagokienez kontrajarriak, esango genuke) dira biak. Atez atekoan ere Espainia eta Italia datoz aurren. Maila intelektuala maila soziala baino baxuagoa denean izaten duela arrakasta sistema honek, esan ohi dute batzuek. Ez dakit horrekin zerikusirik izango duen kasu honetan. Irakurle-klub-aren formula Frantziak garatu du gehien. Azken datuetan, irakurle-kluba % 4 da Espainian eta postazko salmenta % 5.

Gatozen salmentagunetara.

Alemanian eta Britainia Haundian liburu-denda da liburubide nagusia. Italian ere garrantzi gehiago du Espainian eta Frantzian baino. Euskal Herriko salmentak anglosaxoien eredua jarraitzen du.

Eremu handietan Frantzia da txapeldun. FNAC ere barne dago zifra horietan: % 5 du berak bakarrik. Badirudi Espainiak Frantziaren bidea segituko duela. Gaur egun Corte Inglés da dendarik handiena. Euskal liburuak aurkitu du txokotxoa "eremu latz" horretan. Salmentatan % 5-10 kalkula liteke.

Gure inguruan duela gutxi hartu da seriotan kioskoa, 90eko hamarkadan, esateko. Kioskoa western-ekin, eleberri arrosa, espioien ixtorioak eta gisa honetako liburuekin bizi zen hasieran. Jakina zen: liburu-dendan literatura saltzen zen eta kioskoan azpiliteratura.

Izan direnari uko egin gabe ere, kioskoak ez dira izan direnak. Jada 1950-60 urteetan hasi ziren Bruguera eta Plaza y Janés espresuki kioskorako liburua ekoizten, publiko bidaiariari egokitzen zaion literatura. Eta azken bospasei urte hauetan sekulako arrakasta lortu du kioskoak. Obra serioak bideratzen dira kioskoetatik, batez ere faszikuluak eta bildumagarriak. Kioskoaren sarea zabala (22.000 kiosko dago Espainian), azkarra eta dinamikoa da (banaketa-sarea ere berezia du). Erosketa-modua "bulkadaz" egin ohi den horietakoa da. Publizitatean sekulako inbertsioa eskatzen du kioskoak, eta produktu "ikusgarriak" dira egokienak. Ikusentzunezko euskarriz laguntzen dira gero eta gehiago produktu inprimatuak.

Euskarazko produktuek gutxi erabiltzen dute kioskoa. Egunkari eta aldizkarietatik aparte, hauen babesean edo hauei laguntzeko ez bada, autonomoki ez du leku bat hartu euskal liburuak kioskoan.

Saturatua dagoela, diote batzuek. Baina kioskorako produktua lantzen duten editoreek ez dute zalantzarik kioskoa indartu behar dela esaten dutenean. Lau argitaletxek sekulako negozio-bolumena dute kiosko-

an: 1993an Planeta Agostinik 23.000 milioiko fakturazio-bolumena zuen; Salvat-ek 7.000 milioikoa; Orbis Fabrik 6.000 milioikoa eta RBA Editores-ek 5.000 milioi pezetako fakturazioa.

Pozik ez dauden bakarrak liburu-dendariak dira. Salmenta handiko produktuak ematen omen dizkio editoreak kioskoari eta zailenak liburu-dendari. Izan, bi publikorentzat pentsaturiko bi kanale desberdin dira. Liburu-dendak tituluak saltzen ditu. Kioskoak, aldiz, bildumak.

Liburu-dendaren etorkizuna

Liburu-denda etengabeko krisian dagoela esan, eta denok konforme. Sektore minorista guztia dago krisian, alde batetik. Eta zehazki liburu-denda, liburuaren produkzioari eta kontsumoari dagozkien arrazoiengatik, gainera.

Ezaugarri hauek seinalatzen dira, liburu-dendak enpresa aldetik jasaten dituen problema handientxoen gisa: nobedadeen itomena; espazio-falta; stock-en mogimendu eskasa; stock gehiegi zerbitzu ona eman ahal izateko; langileen heziketa-falta; atomizazioa; baliabide ekonomiko eta finantziarioen falta; deskapitalizazioa; itzulketak; beste bidetik doazen salmentak; lehiakortasun desleiala.


Etokizuneko liburu-denda batek zer-nolakoa izan beharko lukeen?

Enpresa aldetik modernizatu eta profesionaldu beharra, ezinbestekoa du; modernizatzea ez da, ordea, ordenagailu bat sartzea, azken batean itzulketak azkarrago egiteko. Liburu-dendaren sektorearen modernizatzeak profesionaltasuna esan nahi du; eta liburu-denda kultur enpresa gisa ulertzea eta gestionatzea; marketing-irizpideez baliatzea eta bezeroak ongi informatzea; ongi zerbitzea eta bere ingurunean erakarmenfokoa izatea; eta noski, baliabide ekonomiko eta gizatiarretan inbertitzea.

Enpresaren modernizatzearen aldetik hori.


Irakurle-eroslearen ikuspegitik begiratuta, Virginio Nuñez Canok, Crisol liburudenda-katearen Zuzendaritzakoak, jarrera hauek azpimarratzen ditu:

- Askatasun osoz liburua begiratu, ikusi, aztertzeko aukera
- Bilatzen dena aurkitzeko garantia
- Eskaintza ona
- Ez sentitzea bijilatua, kontrolatua edo galdetua
- Behar izanez gero kontseilua eta gida izatea



ZAPIRAIN, SALBADOR "ATAÑO" (Errenteri, 1912)

- *Txantxangorri kantaria (1979)*
- *Txori (1981)*
- *Espetxeko negarrak (1984)*
- *Eltzaorra (1985)*
- *Zigorpean (1985)*
- *Odol-kutsua (1986)*
- *Etorkizuna (1988)*
- *Maitasunaren lanak (1988)*
- *Maite itzazute etsaiak (1989)*
- *Aztia usnari (1990)*
- *Azkeneko saskigillea (1991)*
- *Nora goaz? (1994)*
- *Lotsaren iges (1995)*



ZAVALA, ANTONIO (Tolosa, 1928)

- *Txirrita. Bizitza eta bat bateko bertsoak (1962)*
- *Pernando Amezketarra bertsolaria (1966)*
- *Zarautz'ko Zaldubi Bertsolaria (1967)*
- *Errenteria'ko Bertsolari Zaarrak (1968)*
- *Xenpelar bertsolaria (1969)*
- *Alkain aita-semeak (1970)*
- *Txirritaren Bertsoak (I) (1971)*
- *Txirritaren Bertsoak (II) (1971)*
- *Oiartzungo bost bertsolari (1973)*
- *Mendaro Txirristaka bertsolaria (1974)*
- *Zapirain anaiak. Juan Krutz (1867-1934), Joxe (1873-1957) (1975)*
- *Amodiozko penak bertso berrietan (1976)*
- *Afrika'ko gerra. 1859-1860 (1977)*
- *Bilintx. Indalecio Bizkarrondo. 1831-1876. Bizitza eta bertsoak / Vida y Poesías (1978)*
- *Jaioak bizi nai (1979)*
- *Berridi eta Kuxkullu bertsolariak (1980)*
- *Jan-edanaren bertsoak. I-II (1982)*
- *Kuba'ko gerra (1983)*
- *Ameriketako bertsoak (1984)*
- *Esaera zaarren bilduma berria. I-II (1985)*
- *Ezkondu bearreko bertsoak (1986)*
- *Frantziako iraultza eta konbentzioko gerra bertsotan (1989)*
- *Frantzesteko bertsoa-I-II (1991)*
- *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919) (1992)*
- *Bilintx: bizitza eta bertsoak (1993)*
- *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua I-II (1993)*
- *Xenpelar eta bere ingurua (1993)*

- Nobedadeak erraz aurkitzea
- Liburu merkeen sail bat edukitzea ("saldatuak" edo poltsiko-liburuak).

Edozein modutan ere, liburu-dendak eta liburu-dendak bereiztu behar dira. Tipologia oso diferentea dute liburu-dendek. Jatorria ere hala izan dute, gainera.

60ko hamarkadan liburu-denda orokorra zen nagusi. Eta hazi zitzaizkion ondoan (hazi baino gehiago hasi, egia esan) liburu-denda ideologiko progresista batzuk. Garai honetan hasten da, baita ere, paper-denda, eskola-materialekin batez ere.

Hurrengo hamarkadan, 70ekoan, liburu-denda orokorrak berritu egiten dira. Liburu-denda kontrakulturalak gehienak hil (% 60) eta besteak birmoldatu egiten dira. Eta paper-dendek aurrera segitzen dute, hazkunde handirik gabe. Bitartean eremu handiak hasten dira liburua saltzen

80ko hamarkadan, liburu-denda orokorrak fondoko bilakatzen dira. Hiri handietan liburu-salmentari aisiako gaiak, ikusentzunezkoak, prentsa eta aldizkariak eransten zaizkio liburu-denda batzuetan. Erdi-tamainako liburu-dendak espezializatu egiten dira: zuzenbidea; ekonomia eta enpresa; psikologia eta hezkuntza-zientziak; historia. Paper-dendak bere bidea jarraitzen du. Almazen handiak, adibidez Corte Inglés, beste eremu batzuk (Vip's, adibidez) eta hipermerkatuen kateak liburua balio ekonomiko bezala baloratzen hasten dira.

Eboluzio honek zerbait erakusten baldin badu, zera da, azken 20-25 urteotan liburu-dendari lehiakideak biderkatu egin zaizkiola. Eta lehen koherentea zen ofizio bat, arras barreiatua dagoela gaur. Lehen, dimentsioz eta orientazioz bereizten ziren liburu-dendak: liburu-denda handia, ertaina, txikia, eskolarakoa, unibertsitaterakoa, literaturakoa, erlijiosoa. Gaur egun, Frantzian esaterako, 850 hipermerkatutan eta 5.000 supermerkatutan saltzen da liburua. Ez gaude egoera berdinean hegoaldean, baina itxura guztien arabera salmentaguneak gero eta ugariagoak eta desberdinagoak izango dira.

Hitz batean, 20 urtetan desplazamendu izugarria gertatu da liburuen salmentan, komertzio espezializatuetatik gune multiproduktuetara igaro baikara. Fabrice Piault-ek (Le livre: la fin d'un règne, 1995), gune tradizionalari bi irteera ikusten dizkio: ingurunean babestea, gero eta ahulago; eta bestea, kontra-ofentsibara jotzea, eta liburu-denda-mota berri batzuk antolatzea, tamaina handiagoakoak, mila metro bueltan.

Lehenengoen kasuan nik uste dut formula batek baino gehiagok duela etorkizuna, Fabrice Piault-ek oso beltz ikusten badu ere. Adibidez,

fondoko liburu-dendak iraun lezakeela iruditzen zait; liburu-denda espezializatuak ere bai, asmatzen badu; bietan, auzi nagusia "balio erantsian" dagoke, hots, zer berezirik eskaintzen diote bezeroari? Auzoko edo herri txikietako paper-dendak badakigu bere biziraupena, bere balio erantsia, zertan oinarritzen duen, hurbiltasunean.

Ez du honek esan nahi liburu-denda konbentzionalak edo espezializatuak iraupena seguru daukanik, ezta gutxiago ere. Mamutzar handien aurrean badirudi independenteen etorkizuna katean edo elkarturik jokatzean dagoela.


Baina arrazoi osoa du Fabrice Piault-ek dioenean eboluzio-lerroak beste bide bat markatzen duela, liburu-dendaren etorkizun gisa. Alperrik da (are, kaltegarri da) duela 25 urteko liburu-dendaren profila defendatzea orain. Liburua bera da 25 urteotan aldatu dena, edo gutxienez liburuari buruzko kontsiderazioa: produktu kultural izatetik kontsumo-produktu izatera etorri da. Bestalde, liburu-salmentaren monopolioa aspaldi galdua du liburu-dendak. Zer egin, irentsi ez dezaten? Beste testuinguru batean sartu liburua, aisia-ekoizkinekin batera. Aspaldi inauguratua dute bide hori FNACek eta Virgin-ek, egundoko arrakastaz.

Gure artean, megadenden formula honek ez du jarraitzaile askorik izan. Megabilintx izan da aurrena (1994), Donostian; ondoren, Urretxindorra ere megadenda bihurtu da Bilbon (1995); eta berrikitan, Xalbador Iruñean (1996). Hiruak dira Euskal Kulturgintzakoak.

1994ko uztailaren 5ean inauguratu zen Megabilintx Donostiako Parte Zaharrean. Bilintx Zaharra, 1981etik bitan zatitua zegoena (euskarazko denda eta erdarazkoa), hortxe hiltzen da eta fase berri bati ematen zaiola hasiera iruditzen zait. Fase zaharra 1976an ireki zen, eta euskal kulturaren, euskal liburuaren bide komertzialak estrainatu zituen. Euskal kulturara osoki emandako lehen liburu-denda zen, euskal liburua, giro euskalduna, saltsa kulturala; guzti hori zen Bilintx zaharra.


Bilintx liburu-denda zaharraren inaugurazioa gertakari txiki bat izan zen bere garaian. Donostiako Herri Irratiak zuzenean eskaini zuen inaugurazioa, Joxe Ramon Belokiren bidez. Anaitasuna aldizkariak, bere aldetik, sekula ez bezala, kazetari bat bidali zuen bertara. Bi argazki eta guzti dakar aldizkariak berria, Alex kazetariaren balorazio honekin: "Benetako hutsunea betetzera etorri zaigu Bilintx Liburudenda, eta hemendik aurrera ba dakigu euskal gaietarako nora jo, bai gure buruak politika-ekonomiaz jazteko, bai aldizkari, bai ikastolako gai eta bide batez, euskaldun guztiontzat serbitzu bizi eta mardula izanen da".

Megabilintxek, orain, etorkizunari egiten dio aurre, liburu-dendamota berri bat estrainatuz, eta euskarari ohorezko leku bat eskainiz hor, Juantxo Aranburu arduradunak zioen bezala. Europan punta-puntan da-



ZELAIETA, ANJEL (Mallabia, 1940)

- *Gabriel Aresti. I (1976)*
- *Gabriel Aresti. II (1977)*
- *Peru Abarcaren berrirakurtzea (1978)*
- *Euskarazko hastapenak latin ikasteko (1985)*



ZINKUNEGI, AGUSTIN
(Andoain, 1914)

- *Bizi naiak lege zorrotzak (1995)*

bilen formula honekin bideak itxi nahi dizkie kanpotik sartu nahi duten batzuei. Hori bateko. Eta besteko, eta batez ere, medioaren, bitartekoaren, lanabesaren, duintasuna eman nahi zaio euskarari berari (gogoratu Mac Luhan-en "the medium is the message" hura), hau da, dendarik modernoenean ere euskal liburuak baduela lekurik.

Euskarari eskaintzen zitzaion "ohore" hori ez zuten horrela ulertu, ordea, euskaltzale batzuk. Eta polemika txiki bat sortu zen.

Polemikak ez du berez garrantzirik, anekdota den aldetik. Baina iruditzen zait liburu-dendaren eboluzioan (eta agian euskaltzaletasunarenean ere) bi belaunaldiren aldea markatzen duela: bat da, liburu-denda goxo, tertulia-txokoa; eta bestea da liburu-denda irekia, euskal eta erdal produktuak elkarren ondoan eta konpetitzen. Bata, lehena, liburudenda "santutegi" eta bestea liburu-denda "self-service".

Horregatik gogoratzen dugu hain zuzen anekdota baino gehiago den polemikatxo hura:

1944ko uztailaren 22ko Irutxuloko zenbakian D. Gozategi delakoak "Bilintx, megadesilusioa" artikuluska idatzi zuen: "Haundinahia ez da sekula kultura gutxituen zale izan eta horren muestra bat eman berria digute etxeko batzuek. Etxekoak izanik mingarria. Euskara saila kale pareko denda esklusibo izatetik behe solairuko azken txokora eraman digute eta errotulo berri apainek gure herriko politikariek adina egiten digute euskaraz. Gauza haunditan hasten garenean txikiagotasun konplexua ageri zaigu. Jar ditzagun gauzak bere lekuan, meganahiak ez biezaigu burua nahasi.

Gora euskara! Lehen solairura!

Euskara, Jalgi hadi errotuloetara!"

Abuztuaren 5eko zenbakian erantzuten dio Bilintx liburudendak. Merezi du erantzunak, garbi agertzen baitira bertan puntako liburudenda honen xedeak: "Irutxulo aldizkariaren 15. zenbakian, 'karteroarenak' sailean, Bilintx berria kritikatzen du G. Gozategik, euskal perspektibatik bere ustez, 'behe solairuko azken txokora' eraman omen dugu euskara saila eta errotulo gehiegi omen dago erdaraz.

D. Gozategiri (zein zara jaun/andere hori?) gogoratu behar diogu 'kultura gutxituen zale' ez dela kultura hori ghetoan, ahuldadean, gorde nahi duena. Bada ordua, eta aski indar badu euskal kulturak, kultura unibertsalaren plazan bere leku propioa izan dezan.


Horixe da Bilintx Megadendak egin duena, euskal liburu berriak, haur literatura, bideo eta musika, goiko solairuan kokatu, bakoitza bere sailean erdarazkoen parean eta fondoko euskal liburuak beheko solai-

ruan lehen baino toki haundiago, duinago eta lasaiago batean erdarazko sail guztiak dauden bezalaxe.

Bilintx Megadenda ez da liburu denda arrunta, gaur egun Europan punta puntan dagoen eredukoa baizik. Denda mota horrek bere estilo propioa du, bere egitura. Hor euskarazko guztiak egoteak besterik gabe kalifikatzen du euskal kultura, balio erantsia emanez.


Errotuloei dagokienez, berriz, aurkezpenean esan bezala, nahigabeko atzerapen bat izan dugu baina hau kaleratzerako espero dugu behar bezala jarriak izanen direla.

Zarena zarela, D. Gozategi hori, zuk egiten duzuna ez da kritika, iraina da. Zure tonuak salatzen zaitu, mina egitea bilatzen duzu. Erregu bat bakarrik: nahi duzuna pentsa eta esan dezakezu baina ez uste, mesedez, euskaltzalea zeu bakarrik zarenik!"



ZUBELDIA, Iñaki (Ikaztegieta, 1945)

- *Euskaldun bat Marten (1982)*
- *Josu Azalaren harribenturak (1986)*
- *Sirimiri. Irakurgaiak . OHO 5 (1990)*
- *Tximu bat klinikan (1991)*
- *Ipuin eroa (1994)*
- *Sirimiri - irakurgaiak 5 (1994)*
- *Txerrama errudun (1994)*
- *Maddi oporretan (1995)*



IRAKURKETA

Irakurlegoaz bi hitz

Informaziorik ez

Gutxienez idazleei eskainitako adina orrialde beharko lukeen gai honek, irakurlearen azterketak (edo irakurketarenak), orrialde gutxi batzuk izango ditu. Zergatik?

Irakurketari buruz ez dakigu ezer. *Sayma*-ko aztertzaileek (1993) harrituta gelditu ziren edizioaren sektorea aztertzean, zera ikusiz, editoreek beren merkatua ez zutela analizatua, intuizioz zebiltzala. Nola da posible merkatu hain txikia izan eta aldenik alde zulatu gabe edukitzea? pentsatzen zuten *Sayma*-koek.


Ez dakigu euskal liburuaren balizko irakurlegoa zenbatekoa den. Apenas dakigun ziur euskaldunok zenbat garen.

Ez dakigu benetako irakurlegoa zenbatekoa den. Hau da, ez dakigu jakin zenbatek irakurtzen duten euskaraz, berdin dio egunkaria, literatura edo *Jakin*-eko dossierra. Liburu eta aldizkarien tiradak zehatz-mehatz zenbatekoak diren ere ez dakigu, eta are gutxiago *de facto* zenbat saltzen diren.

Informazio kuantitatiborik ez dagoenean, nola bada izan azterketa kualitatiborik, hau da, zer irakurtzen den, zergatik, noiz eta nola. Salbuespena Mari Jose Olaziregik 1990ean irakaskuntza ertaineko D eredu-ko ikastetxeetako neska-mutilen gustu literarioak ezagutzeko egin zuena da. Eta oraintxe bertan Siadeco-k *Euskaldunon Egunkaria*-rentzat egin duena, 20-39 urte bitartekoena.

Kontzientzia bai

Esango nuke geroz eta handiagoa dela euskal produktuen kontsumoa aztertzeko premiaren kontzientzia.



ZUBIAGA, Felix (Errigoiti, 1932)

- *Babilandia (1977)*
- *Aintziñako euskaldunak. 1. 2-3 maillak (1978)*
- *Pinto (1978)*
- *Pinto. 1-2. mailletarako irakurgaia (1978)*
- *Pinto. 2-3. mailletarako irakurgaia (1980)*
- *Pinto. 2. 7-8 urtekoentzako ipuina (1980)*
- *Halabeharrez mediku (1983)*
- *Karramarroen aurreskua (1983)*
- *Kuku pasota (1983)*
- *Espedientea (1987)*
- *Zure argi kliskak (1987)*
- *Kalean Andre (1988)*
- *Uraren ohikuna (1989)*
- *Deslilluraren parabolak (1990)*
- *Harri eta oihartzun (1990)*
- *Lekuan lekuan maloa (1990)*
- *Oi, Emmanuel! (1992)*
- *Don Bildur (1994)*
- *Pasio kantategia (1995)*



ZUBIARRAIN, Pablo "Ernani Txiki"
(Hernani, 1912)

- Ia kantatuz bezela (1985)
- Gaziak eta gozoak (1988)

Susmoa dago irakurlegoak ez duela idazlegoak edo edizioaren sektoreak adina aurreratu. Produkzioaren eta kontsumoaren artean leizea handitu egin dela, handiagoa dela desfasea lehen baino.

Egunkariak, instituzio bezala, behin eta berriz proposatu du sustapena. Esan nahi baita, euskal produktuak egiten jakin badakigula, gauza ere bagarela, baina ez dugula indarrik erosle, hartzaile, irakurle potentzialarengana iristeko. Hori bateko. Eta besteko, irakurle hori ezagutu egin behar dugula. Beste batzuekin batera, *Egunkaria*-k berak egin berri du analisi bat, irakurle horren profilaren bila.

Orain baino lehen, 1989an, Iñaki Uriak kezka hori honela formulatzen zuen: "Promozionatu. Iragarri. Irakurle potentzialarengana iritsi. Piskana piskana argitaletxe eta komunikabideetan sartzen ari den kezka. Instituzioetatik gehiago zaindu beharko litzatekeen arloa. Arrazoia garbia. Irakurlegoa. (...) Ez da bada gehiegirik aurreratu irakurlegoa gehitze edo hobetzearen arloan. Titulo gehiago edo gutxiago argitaratzeak eskaintza ugaritu edo murrizten du. Ez besterik. Irakurlegoa eta irakurzaletasuna bestela landu beharra dago, ez bakarrik eskaintza areagotuz".

Kike Amonarriz-ek (1995) kezka bera agertzen du *Jakin*-en: "Euskarazko liburuen ekoizpena, ajeak aje, handitzen, sendotzen eta zabaltzen joan da azken urteotan. Ez dira horrenbeste urte, euskaraz argitaratzen zen guztia irakurtzeko aukera zegoena. Gaur egun horrelakorik pentsaezina da. Kantitatean eta kalitatean hobetu da gure ekoizpena.

Progresio horretan handitu ez dena ordea, irakurlegoa da.

Kontuan izanik azken hamarkada honetan zenbat ikasle atera den D ereduko eskoletatik eta ikastoletatik, eta zenbat jende euskaldundu edo alfabetatu den eta EGA edo hizkuntz eskakizunen bat atera duen, euskaraz idatziriko ekoizpenaren kontsumoa (*Euskaldunon Egunkaria,* era guztietako aldizkariak, liburuak...) handitu egingo zela espero genezakeen, baina sektorean dabiltzanen iritzi orokorrari kasu eginez, badirudi hori ez dela horrela izan. (...). Ondorio bezala, beraz, esango nuke, azken urte hauetan sektore honetako kezka nagusia ekoizpena izan den bezala (eta hau normala da, ekoizten ez bada ezin baita kontsumitu), hurrengo urteetan ekoizpenean baino indar gehiago jarri beharko genukeela kontsumitzailearengan: ekoizpenaren marketing-a hobetuz, irakurzaletasuna bultzatuz, dauden medio eta ekoizle desberdinen artean sinergiak lortuz eta euskarazko ekoizpen idatziaren inguruan komunikazio-plangintza egokiak bideratuz, besteak beste".

Kontzientzia berri honek bestelako fruiturik emango ahal du! Ekarri beharko lukeen lehen emaitza kontsumitzailearen ezagutzapena bera da. Kontsumitzailearengana nola iritsi, problema da. Soluzio gabekoa da problema hori, ordea, kontsumitzailea ezagutzen ez badugu. Zein da

gure irakurlego potentziala? Zein da erreala? Zer-nolakoa da honen irakurzaletasuna?

Irakurzaletasunik bai?

Euskara eta irakurzaletasuna ez dira nonbat elkarren lagun. Ahozko literaturaren lehentasuna, literatura idatziari kontrajarria, jatorrizko bekatua bailitzan da, ezabaezina.

Topikoak

Bada axioma bat, katuak bezala zazpi bizitza dituena: euskaraz ez da irakurtzen. Deus publikatzen ez denean, ez dago arazorik, frogatua gelditzen da frogatu beharrik ez duena.

Euskaraz publikatzen denean ere ez dago arazorik, ordea, beti baitago esplikazioren bat *ad casum*. Frankismo-garaian liburuak eta aldizkariak publikatzen ziren, saldu ere bai. Baina erostuna ez zen irakurlea. Mezenas txiki bat zen: laguntzeko erosten zuen, ez irakurtzeko.

Urteak joan-ahala, euskarazko ekoizpenek gora egin dute nabarmen. Baina irakurri ez da irakurtzen. Opari gisa erabiltzen da liburua, edo gurasoek haurrei erosten diete. Baina beraiek ez dute irakurtzen. Gainera, irakurtzen dena ere ez da gozamenez irakurtzen, beharturik baizik. Irakurzalerik ez dago, irakurle derrigortuak bai.

Dirudienez, batzuentzat sekula ez da ezer euskaraz behar bezala irakurtzen: ez literaturarik gustura, ez egunkari edo aldizkaririk informatzeko eta formatzeko.

Erdaraz egunkari bat (adibidez) suposatu egiten da irakurri egiten dela, erosten denean behintzat. Euskaraz, ez: erosi, eskuartean zimurzimur eginda ere, artikulu guztiak banan-banan buruz ikasi ez badituzu ezin duzu frogatu irakurri duzunik. Euskaraz frogatu egin behar da irakurketa. Erdaraz, suposatu.


Topikoak bizia luzea omen du. Euskararen kasuan, gutxiesteko direnean, betirako direla ematen du.

Esandakoa: irakurketaz analisi orokor fidagarririk ez dut ezagutzen. Baina iritzi orokorrak ez dira falta. Gogora dezagun bat edo beste.



ZUBIKARAI, AUGUSTIN (Ondarrua, 1914)

- *Iru alaba (1958)*
- *Jaunaren Bidetan (1959)*
- *Bizi garratza. Mendu zaharra (1970)*
- *Boga ta Zixe. Ondarrutarkeriak / Rema y Cía. Temas de Ondarroa (1976)*
- *Kardala / Rompiente. Ondarruko gauzak /*
- *Bale denborak (1978)*
- *Anton Guzurretxe (1979)*
- *Esan eta esango (1979)*
- *Laiñoak Mundaka'n (1980)*
- *Bizitzako urratsak. Gure giroetako eleberria (1981)*
- *Ira usaiña (1981)*
- *Mon-duku (1981)*
- *Gure inguruak. Euskalerriko erri batzuen ikuspegi laburra (1982)*
- *Makillen egunak. Guda baten kerizpe eta autsetan (1983)*
- *Mendi ta itxaso (1983)*
- *Bizkaiko bidetan. Bizkai'ko erri batzuen ikuspegi laburra (1984)*
- *Itxastarrak (1986)*
- *Peru eta Mari, gureak (1986)*
- *Artea'ko itsua eta beste lau antzerki (1987)*
- *Amoroto eta Gizaburuaga (1988)*
- *Balentin Berrio-Otxoa: bizitza, eskutitzak, gorespenak (1988)*
- *Ea, Natxitua-Bedarona (1989)*
- *Etxebarria (1989)*
- *Augustin Zubikarai eta euskal antzertia (1991)*
- *Ondarroa: kondaira 1900 arte (1993)*
- *333 Oroipen eta ikuspegi (1994)*
- *Zeregiñak/95 (1994)*
- *Sits eta bits, gure gaiak (1995)*



ZUBIRI, Iñaki (Bilbo,1913)

- *Oroitzak (1975)*
- *Galdu. Txakur baten gora-beerak (1979)*
- *Bidetik amesetan (1984)*
- *Izadiko Pitxiak (1989)*
- *Morroia (1989)*
- *Amesen ildotik (1992)*
- *Mendekua (1992)*
- *Patxi (Umezurtz baten gora-beerak) (1993)*
- *Errotazar (1994)*
- *Basamortuko semea (1995)*

Susmoak

Kopuru oso txikiak aipatu ohi dira sarri. Gerra-aurrean, Aitzoli segituz Ibar eta Orixe batek 300eko zifra onartzen dute irakurlegoaren kopurutzat. Literatur irakurleak dira hauek, edozein modutan ere. Eta inolaz ere ez euskarazko irakurleak zentzu orokorrean, Ibar-ek espresuki azpimarratzen duen bezala (1936).

Zifra honen jatorrian Aitzolen konklusio ezaguna dago (1934): "Aun los libros literarios más valiosos, con las poesías seleccionadas anualmente, apenas llegan a ser vendidos en el mercado unos trescientos ejemplares. No pasan de ese número, si es que llegan, los que espontáneamente, sin ser coaccionados, adquieren un libro en euskera. A esa conclusión nos ha llevado un atento estudio de varios años".

Gure egunetatik askoz hurbilago, 1981ean, Luis Haranburu Altunak 500 irakurleko kopurua eman zuenean eskandalu txiki bat sortu zen. Deia egunkariak zioenez "cuskara oso maite eta gogoko ez duten baten batzuek gustora erabili zuten hau". Honela esplikatzen zuen gero Luis Haranburuk zifra horren testuingurua eta esanahia: "Nik esan nuen euskal irakurlegoa bostehunekoa zela, baina beste kontestu batean. Badakit Euskal Herriak egun 500.000 irakurle potentzial badituela, beste horrenbeste garelako euskaraz mintzo garenak. Hortik helduta, 500 irakurle izatea, hots milatik bat, ez dago batere gaizki. Espainian, 300.000 beharko lituzkete proportzio berau gordetzeko, eta hori 'ni por el forro' ez dute lortzen. Gainera literatur irakurleaz ari nintzen orduan: nobedadeak jarraitzen dituena, gogo bat baduena eta literaturaz arduraturik dagoena batipat. Hiru ezaugarri hauekin, 500 irakurle izatea ez dago inolaz ere gaizki. Are gehiago, Euskadin bada zenbait nobela, 15.000 aletako tirada egitera iristen dena eta konparazioarekin jarraituz, Espainian, nobela batek 9.000.000ko tirada izan beharko luke. Beraz, ez nintzen 500 'txalau'z ari, bostehun *irakurlez* baizik. Zifra hori ez da inolaz ere txarra, herri txiki bat garela oharteraziz eta egoera guztiz diglosiko bat bizi dugula kontutan hartuz. Bestalde bada irakurle gehiago, gauza arinak irakur ditzakeena, baina 'la crème' bostehun dira".

Euskal irakurzaleaz barik sinpleki irakurleaz ari da Euskal Editoreen Elkartea 1985ean (*Euskal liburuaren argitarapena)*. Demografia irakurlearen ahulezia frogatu nahita dabil, eta datu batzuk ekartzen ditu: Milioierdi inguru omen da euskaraz normalki mintzo dena, hau da, biztanleriaren % 16, azken azterketen arabera. Nahiz eta horien erdiak-edo izan euskaraz irakurtzen badakitenak, EEEren ustez populazio horren % 15 bat izango litzateke irakurle potentziala. Zenbaki absolututan esanda, 70.000 lirateke balizko irakurleak. Horietatik 40.000 gazte-jendea eta

30.000 helduak. Gaztelaniaren merkatu espainiarrarekin konparatzen badugu, ehun aldiz handiagoa da haiena gurea baino.

Datuak

1980ko hamarkadaren azken aldera, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz, egunkariari begira, merkatuaren ikerketa egin zuen CIES soziologi etxeak.


Euskarazko egunkari baten irakurlego potentziala 88.000tzat jo zuen CIES-ek. Honela banatu zuten adinez eta herrialdez:

Adina	Kopurua	%
18-25	32.000	36,4
26-35	27.000	30,7
36-50	21.000	23,8
51-64	7.000	8,4

Herrialdea	Kopurua	%
Gipuzkoa	38.000	42,7
Bizkaia	21.000	23,5
Ipar Euskal Herria	14.000	15,7
Nafarroa	13.000	14,6
Araba	3.000	3,3


"Egunkaria Sortzen" taldeak eskutan izan zituen datu hauek. CIESen lagina auzitan jarri zuen eta Siadecoren ikerketekin alderatuz zuzenketa batzuk egin zizkien zifra hauei. Unibertsoaren marko berean (18 urtetik 65 urtera) "Egunkaria Sortzen" taldearen ustez, euskaraz ongi irakurtzeko gaitasuna duten euskaldunak 40.000-60.000 dira eta ez 88.000.

Siadecok *Euskaldunon Egunkaria*-rentzat azterketa bat egin berria du (1996). Azterketa horren unibertsoa 20-39 urteko euskaldunak osatzen dute, guztira 211.630 lagun.



ZUBIZARRETA, Itziar (Ordizia, 1952)

- *Tipitaki. 4 (1986)*
- *Aztiak zurrin, zurrinka (1990)*
- *Itsasoan galdurik (1990)*
- *Saltoka nahi dut ibili (1992)*



ZUBIZARRETA, PATXI (Ordizia, 1964)

- *Jesus, Marie ta Joxe (1989)*
- *Ametsetako mutila (1991)*
- *Gabrielle (1991)*
- *Gutun harrigarri bat (1992)*
- *Matias Ploff-en erabakiak (1992)*
- *Emakume sugearen misterioa (1993)*
- *Jentzi (1993)*
- *1948ko Uda (1994)*
- *Ipuinkaria (1994)*
- *Marigorringoak hegan (1994)*
- *Bihotzerre (1995)*

Euskaldun horiei galdetu die Siadecok ea zenbat liburu edo komiki irakurri duten eskolako lanekin zerikusirik ez dutenak. Taularen erantzunetan ikusten da erdaraz euskaraz baino gehiago irakurtzen dutela. Hori bateko. Eta besteko, % 63,8k euskaraz ere irakurtzen duela, nahiz eta horietako gehienek ez duten bost liburu ere urtean zehar irakurtzen. Benetako gune irakurlea, egia esan, % 18,2 horretan aurkitu beharko genuke.

Hona taula:

	Batere ez	5 baino gutxiago	5 edo gehiago
Euskaraz	36,2	45,6	18,2
Erdaraz	17,6	40,3	42,2

Gauza bat da euskal irakurlegoa kuantitatiboki definitzea. Beste gauza bat da populazio horren ohiturak, gustuak eta jarduerak ezagutzea. Bide honetatik Siadecoren inkestan badago galdera bat, irakurketa-motari dagokiona, hau da, "zein da gustukoen duzun irakurketa-mota?".

Gustuen aldetik behintzat irakurlego normalizatuaren profila ematen du taulak:

Zein da gustukoen duzun irakurketa-mota	%
Eleberria, nobela tradizionala	46,6
Komikiak	9,4
Naturarekin erlazionatutako gaiak	8,9
Poliziakoa, nobela beltza	8,7
Literatura historikoa	5,8
Fikzio zientzia	5,1
Olerkiak	2,4
Besterik - ED/EE	13,2
Guztira	**100,0**

Azterketa guztia kontuan edukita, interesgarria da Siadecok berak egiten duen irakurlego gazte-heldu honen diagnosia (*Euskaldunak eta euskarazko kultur kontsumoa*, Jakin 96, 1996). Diagnosi honetan datu kuantitatiboak agertzen dira bai, baina baita ere hutsuneak eta etorkizunean indartu beharreko lerroak: "20-39 urte bitarteko euskaldunek euskaraz irakurtzeko duten gaitasuna eta alfabetatua altua da.

- Hala ere, erdaraz hobeto moldatzen dira.
- Euskaraz irakurtzeko erosotasun falta nabari zaie.
- Ahalmen hori ez dute erabiltzen: gutxi irakurtzen dute euskaraz.
- Erdararako inertziak, euskaraz irakurtzeko ahalmena ito egiten du.
  - "Beste egunkari bat irakurtzen ohituta dago".
  - "Euskara mailako zailtasunak aipatzen dira".

Populazioaren segmento honen gehiengoak, eta batez ere irakaskuntza euskaraz jaso dutenek, ez dute arazo larririk euskarazko ekoizpen idatzia irakurtzeko: hainbat arrazoiren ondorioz ordea, erdarara jotzen dute.

Euskal ekoizpen idatziaren kontsumitzaile finkoen gunea txikia da (liburuak, aldizkariak eta 'Euskaldunon Egunkaria' irakurtzen dutenak): aztertzen ari garen populazioaren % 4.

Euskarazko ekoizpen idatziaren kontsumo altu samarra egiten duen gune periferikoa eransten badiogu, euskarazko produktu desberdinen ohiko irakurleak 20-39 urte bitarteko euskaldunen % 14ra igoko lirateke. Aztertzen ari garen unibertsoan 30.000 irakurle fidel samarrak.

Adin hauetako euskaldunen artean, laurdena pasatxok (% 28) ez du inongo harremanik euskarazko ekoizpenarekin: ez du ezertxo ere irakurtzen euskaraz. Beste % 37 batek berriz oso harreman txikia du edo produktu jakin batzuetara mugatutakoa.


Heldu-gazte euskaldun gehienek badute harremanen bat euskarazko ekoizpen idatziarekin, baina gehiengo batentzat harreman hori ahula da: noizbehinkakoa.

Irakurketa-maila aldetik Egunkaria, liburuak baino gehiago irakurtzen da eta liburuak, aldizkari orokorrak baino gehiago (dena den, zehaztu beharra dago, 'aldizkari'tzat jo ohi diren hainbat produktu hainbat jendek liburutzat jotzen dituela).

Multzorik gazteena ez da behar bezala txertatu euskarazko ekoizpen idatziaren kontsumora.

Euskarazko ekoizpen idatziaren inguruko sustapen indartsu eta ongi zuzenduaren hutsunea somatzen da. Indartze honek euskarazko produkzio osoa indartuko luke: izan ere, gehien irakurtzen duen guneak, denetik kontsumitzen baitu.

Bestalde, produktuen edukin eta formatoen dibertsifikazioaren eta egokitzapenaren beharra ere somatzen da, gaur egun harrapatzen ez diren publikoak erakartzeko.



ZULAIKA, Joseba (Itziar, 1948)

- *Adanen poema amaigabea (1975)*
- *Zu zara... (1982)*
- *Bertsolariaren jokoa eta jolasa (1985)*
- *Ehiztariaren erotika (1990)*

Azken batean euskarazko ekoizpen idatzia gizarteratzeko mekanismoak indartu behar dira, eta eskaintzaren eta eskariaren arteko egokitasuna berraztertu.

Datu hauek, datu kuantitatiboak dira batez ere, baina agerian uzten dute, azaldu diren hutsuneen inguruko irakurketa kualitatibo baten beharra".

Honaino Siadeco. Gogoratu behar al dugu atzera ez garela ari hemen irakurlego osoaz? Hogei urtetik beherakoak falta dira, eta 40 urtetik gorakoak. Jakina da 20 urtetik beherakoen artean badela merkatu diferentziatu bat, eskolari lotua. Badakigu ikasmaterialak zenbat ateratzen diren urtero: 29.000 (1992an) eta 21.000 (1995ean).

Irakurlegoaren kokapen geografikoaz neke handirik gabe lor litezke datu ziurrak, salmentak eta abonamenduak kontrolatuz.

Eskura dauzkadan datuak hauek dira:

Argitalpena	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Nafarroa	Ipar E. H.	Best.
Jakin	32	55	4,6	4,4	2	2
Egunkaria	33,3	48,7	5,7	7,5	4,6	0,2
Argia (1979)	25,6	59,8	5,7	6,2	2,6	0,1

Xanti Jakaren estimazioetan euskal literatur liburuaren banaketa geografiko hau egin liteke salmentaren aldetik:

	%
Gipuzkoa	51
Bizkaia	30
Araba	7
Nafarroa	8
Ipar Euskal Herria	4

Baina proportzio hauek literaturarako bakarrik balio dute, zeren eta irakaskuntzako liburuan, hiztegietan eta haur eta gazteentzako liburuan bestelakoak bait dira proportzioak. Hauetan oso gora egiten du Bizkaiak.

Oso bestelakoa da, zertan esanik, testuliburuen salmentaren araberako banaketa geografikoa ere.

1978ko inkestan editoreek emandako datuetan honela osatzen da salmentaren banaketa geografikoa: Gipuzkoa, % 60,5; Bizkaia, % 25,5; Nafarroa, % 6,5; Araba, % 4; Ipar Euskal Herria, % 3.

Gogoratu beharko litzateke, gainera, irakurketa-mota asko dagoela. Literaturzalearen irakurketa pausatua edo korritua da bat: liburu bat hasi eta buka egiten duena. Eta honekin zerikusi gabeko mila irakurketa-klase dago. Praktikatuena kontsulta-irakurketa da, irakurketa literarioaren antz gutxi duena. Eta are aldenduagoa da Fabrice Piault-ek dioen zapping-irakurketa. Presaka bizi garelako omen da, ez omen dugu astirik. Eta, gainera, gogoratzen du autoreak, astean liburu bat irakurrita ere bizitza osoan ezingo genituzke hiru mila irakurri eta!



ZURUTUZA, IMANOL (Usurbil, 1961)

- *Behin bitan (1985)*
- *Haizeak Iparlaino beltzak dakartzanean (1989)*


kr

5.

KRONOLOGIA

1976

Otsaila	02	Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialean euskarazko titulu ofiziala ateratzeko ikastaroak ematen hasi dira, Madrilgo Hezkuntza Ministerioaren ardurapean.
	20	Espainiako Ministro-Kontseiluak hiru akordio hauek hartu ditu: Euskaltzaindia ofizialki onartzea; lehen mailako irakaskuntzan herri-hizkuntzak sustatzea; Erregistro Zibilean izenak edozein hizkuntzatan inskribatzeko baimena ematea.
Martxoa	27	Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak «24 ordu euskaraz» saioa eman du. Emanaldi osoa euskal kulturari buruzkoa izan da.
	29	Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Ikaskuntza berritzea erabaki du osoko bilkuran.
Apirila	15	*Punto y Hora* informazio-aldizkaria sortu da.
Maiatza	15	*Erria* izeneko egunkari bat ateratzeko eskaria egin du Aritz S.A. enpresak. Santiago Aizarna litzateke zuzendaria.
	28	Bilbon Euskal Liburuaren Eguna egin eta Miguel Unamunori omenaldia egin zaio.
Uztaila	17	Antonio Arrue euskaltzaina hil da Donostian.
	21	*Garaia* aldizkaria sortu da.
Abuztua	13	Bilintx liburudenda zabaldu da Donostian.
Urria	15	Gipuzkoako Liburuaren eta Diskoaren I. Azoka egin da.
	29	Euskarazko Hiztegi Arauemaile Entziklopedikoaren proiektua aurkeztu da Euskaltzaindiaren bileran.
		Erein argitaletxea sortu da. Hurrengo urteko maiatzean erregistratuko da.
Azaroa	04	Bergarako UNED (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatea) zabaldu da.
	07	Fernando Aire *Xalbador* bertsolaria hil da, bere omenaldi-egunean hain zuzen ere.
Abendua	12	*Euskalerria*, euskarazko aurreneko telebista-saioa, emititzen hasi da TVE. Orduerdi irauten du eta astero emitituko da.
Urtean zehar		Geu argitaletxea sortu da.
		Zabaltzen enpresa banatzailea sortu da.
		«Euskal Prentsaren Urtea» izendatu da 1976a. *Goiz-Argi*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* eraberritu egin dira.
		Idazle hauek hil dira urtean zehar: Jose Etxeandia bizkaitarra eta Louis Dassance lapurtarra.
		Aldizkari hauek sortu dira urtean zehar: *Berriak* informazio-aldizkaria; *Gaiak* kultur-aldizkaria; *Nondik* Ataungo herri-aldizkaria; EAJren *Euzkadi*; ESBren *Ezkerra*. Eta besteok desagertu: *Zabal*, *Gure Herria* eta *Hitz*.
		Ikastoletako irakasle talde batek Gordailu elkartea sortu du, pedagogia-alorrean lan egin eta euskarazko irakaskuntza-materiala lantzeko helburuz.

1977

Urtarrila	10	Edozein herritarrek espainierazko izena herri-hizkuntzan transkibatzeko eskubidea aitortu du Espainiako Buletin Ofizialean argitaratutako legeak.
	22	Euskararen koofizialtasuna eskatuz sinadurak bildu dira Gipuzkoa osoan. Donostian horren aldeko manifestazioa egin da, debekatu egin duten arren.
		Mirentxu Purroy *Punto y Hora* aldizkariko zuzendaria kartzeleratu egin dute irakurle batek bidalitako gutuna argitaratzeagatik. *Punto y Hora*-n argitaratutako beste artikulu batzuengatik zazpi sumario ireki dituzte.
		Jakin aldizkaria berriro kaleratu da, Administrazioak beharturiko zazpi urteko isilunearen ondoren.
Otsaila		Galdakaoko Udalak hartutako erabakiaren kontra, Burgosko Lurralde-Entzutegiak erabaki du hilobietako hilartitzak euskaraz idatz daitezkeela.
		Arabako Foru Aldundiak euskararen koofizialtasuna aitortu du.
Martxoa	24	Euskaldunen eta katalanen arteko kultur jardunaldiak egin dira Donostian.
		Ikurrina legeztatu egin da.
		Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak Gaur* liburua plazaratu du Lan Kide Aurrezkiak. 45.000 ale banatu dira.
Apirila	25-26	Gernika bonbardatu zeneko XI. urtemuga dela eta, zenbait ekintza egin dira Gernikan bertan. Aipagarrienak: mahainguru bat atzerriko eta Espainiako historiagileen artean egina, herri-kontzentrazioa eta bonbardaketan hildakoen aldeko hileta.
Maiatza	12-13	Bizkaiko Kontserbatorioko ikasleek antolaturik, Bilbon 24 orduko musika-emanaldi etengabekoa egin da.
	23	Euskal Herri osoko 182 ikastoleko ordezkariak bildu dira, arazoak batera aztertu eta ikastolen federazioa sortzeko helburuarekin. Arabako 12 ikastolak, Bizkaiko 54k, Gipuzkoako 80k, Nafarroako 20k eta Ipar Euskal Herriko 16k izan dituzte ordezkariak bilera honetan.
	25	Andrés Urdanetaren INGEBA (Euskal Geografia-Institutua) aurkeztu da.
Ekaina	08	*Deia* egunkaria plazaratu du Iparragirre enpresa argitaldariak.
Uztaila	04	*Saioak* kultur aldizkaria sortu da.
	11	Goizaldi dantzari-taldeak urrezko domina irabazi du Sholen-go (Flandes) Nazioarteko XIX. Folklore-Jaialdian.
	15	Orreagako batailaren 1.200. urtemuga dela eta, kultur ekintzak egin dira Nafarroan.
Abuztua	04	Donostiako San Telmo museoan arte iberoamerikarraren gaineko erakusketa zabaldu da.
	11	Espainiako Hezkuntza Ministerioak Euskal Herriko irakaskuntzako eta kulturako zenbait jenderekin hitz egin du, euskal unibertsitatea sortzeko helburuarekin.

Iraila	23	Espainiako Ministro Kontseiluak Bilboko Unibertsitate Barrutia onartu du, hor barruan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia sartzen direlarik.
		Hego Euskal Herriko lau herrialdeak batuko lituzkeen unibertsitate-barrutia sortzea eskatu du Euskal Parlamentarioen Asanbleak.
	29	*Egin* egunkariaren lehenengo zenbakia kaleratu du Orain enpresak.
	29	Zakilixut jaio da, *Egin* egunkariaren plazaratzearekin batera, «lurra emea denik dudarik ez» esanez.
Urria	16	Kilometroak, ikastolen aldeko jaia, ospatu da lehenengoz, Beasainen eta Lazkaoren artean.
	26-27	Tafallan Nazioarteko Haur Zinemaldia egin da.
Azaroa		Euskal Herriko lehen atlas elebiduna kaleratu da.
Abendua	07	Madrilen *Zurezko olerkia* musika-obra estreinatu da, txalapartaz joa izateko Luis de Pablok egina.
		Ipurbeltz haurrentzako aldizkaria plazaratu du Erein argitaletxeak.
Urtean zehar		Labayru Ikastegia sortu da Bilboko Elizbarrutiaren babesean, Euskal Herriaren kultur baloreak zabaldu eta gaurkotzeko helburuz.
		Euskal Herriko Txistularien Elkartea sortuda. *Txistulari* aldizkaria argitaratzen du sorreratik.
		Udako Euskal Unibertsitateko ekitaldi nagusia Iruñean egin da lehenengo aldiz. 1973an sortu zenetik Lapurdin —Donibane Lohizunen aurrena eta Uztaritzen gero— izan ziren ikastaroak.
		Idazle hauek hil dira urtean zehar: Madeleine Jauregiberri zuberotarra eta Ixaka Lopez Mendizabal gipuzkoarra.
		Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra (EATB), Euskal Herri osoko taldeak biltzen dituena, sortu da.
		Kurpil literatur aldizkaria, 1975ean jaioa, desagertu egin da, eta *Kantil* izenarekin agertu berriro.
		Txillidaren *Haizearen Orrazia* eskultura, autoreak Donostia hiriari emana, Kontxako badian jarri da.
		Aldizkari hauek sortu dira urtean zehar: *Zehatz* eta *Bilduma* pentsamendu-aldizkariak; EIAren *Arnasa* eta *Bultzara*; HASIren *Hertzale*.
		IPES (Gizarte Ikasketetarako Talde Eragilea) sortu da.Lauburu, zientzia- eta pedagogia-elkartea, sortu du Ipar Euskal Herriko ikerle talde batek.
		Lauburu, zientzia- eta pedagogia-elkartea, sortu du Ipar Euskal Herriko ikerle talde batek.

1978

Urtarrila	09	Iruñeko udal-ikastola inauguratu da, Euskal Herrian OHOko lehen ikastetxe elebiduna.
	18	Gasteizen Txillidari plaza bat eskaintzea eskatuz, 7.000 sinadura bildu dira.
	2-15	Zestoan Euskal Zinemaldia egin da. Euskal Herriko autoreek egindako hogei bat filme eskaini dira.
	21	Iruñean «Etxepare» asmoa sortu da, euskal kulturako lanak eta ekintzak bideratzeko eta koordinatzeko helburuarekin.
Otsaila	09	Gernikari buruzko Ikerketa Historikoaren Batzordea bildu da Espainiako Kultura ministroarekin, artxibo ofizialerako sarbidea gestionatzeko. Lortuko da baimena.
	25	Zinema-kluben Gipuzkoako Elkartea eratu da Arrasaten.
		Anton Larrauri konpositoreak Urrezko Harpa saria irabazi du. Lehiaketa Aurrezki Kutxen Konfederazioak eratua da.
		Jacinto Olabe pintorearen erakusketa antologikoa egin da bera jaio zeneko mendeurrena ospatzeko.
Martxoa		Bergarako UNEDen Euskadiko Kartelen Erakusketa egin da. 1920tik 1950era bitarteko kartelak erakutsi dira.
Apirila	15	Euskal Herriko Unibertsitateak *Doctor Honoris Causa* izendatu ditu Julian Ajuriagerra eta Joxemiel Barandiaran.
		Erriberrin XIII. mendeko pergamino hebraikoa aurkitu dute.
Maiatza	01	Euskadiko Filmategia sortu da kultur elkarte gisa, Euskal Herriari buruzko edo Euskal Herriko errealizatzaileek egindako dokumentu zinematografikoak berreskuratu, artxibatu eta ikertzeko helburuarekin.
	11	*Herria 2000 Eliza* kristau konprometituen euskal aldizkari berria sortu da.
	11	Nestor Basterretxeak erakusketa zabaldu du Bilbon.
	14	Euskaltzaindiak antolatuta, «Bai euskarari» kanpaina hasi da.
Ekaina	17	«Bai euskarari» jaialdia egin da Bilboko San Mames futbol zelaian, 40.000 lagunen partaidetzarekin.
	23	Eduardo Txillidak Memorial Juan XXIII saria jaso du, Euskal Herriaren eskubideen alde egindako lanagatik.
	23	Espainiako Hezkuntza Ministerioak ikastolei subentziorik ematen ez dielako, 15.000 lagunek manifestazioa egin dute. Estatuak 800 milioi pezeta zor dizkie ikastolei.
	28	ETAk José María Portell, *Hoja del Lunes*-eko zuzendaria, hil du Portugaleten.
Uztaila	02	Iruñeko zezen-plazan Dantzari-Eguna ospatu da, 95 talderen partaidetzarekin.

		EUTGko Filosofi Letretako sekzioak Historian lizentziatutakoen lehen promozioa eman du. Filologiakoekin batera, ordurako 48 ziren lizentziatuak.
Abuztua	02	Karlos Santamariak, Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza kontselariak, elebitasunari buruzko dekretu-zirriborroa aurkeztu dio Iñigo Cavero ministro espainiarrari.
	06	UZEI kultur elkartea era ofizialean onartu da. Elkarte berriaren helburua euskara unibertsitate-gaietarako eta hizkuntza tekniko-zientifikorako prestatzea da.
	26	Espainiako Ministro Kontseiluak OHOko ikastolei 350 milioi pezetako dirulaguntza ematea erabaki du.
Iraila	22	«Euzkadi de Plata» saria Angel Amigori eman zaio *Pertur ETA 71-76* lanarengatik.
	26	Espainiako Senatuak ez du onartu euskal ordezkariek Konstituzio Proiektuko 3. artikuluari egindako zuzenketa. Atzera botatako zuzenketan Estatuko beste hizkuntzen ofizialtasuna eskatzen zen.
Urria	01	Lehenengoz ospatu da Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen jaia, Erandio eta Berango artean.
	21	Euskal irratiaren aldeko manifestazioa egin da, EAJ, EIA, ANV, ESB, ESEI, PTE, ORT, LAIA, LKI, LAB, LSB, USO eta CSUT erakundeek deiturik.
		Gipuzkoako campusa, orain arte Ibaetan, Zorroagara zabaldu da, Filosofia eta Hezkuntza-Zientzien Fakultatearen sorrerarekin.
Azaroa	17	Ramon Rubial aurre-autonomiako Eusko Kontseilu Nagusiko lehendakari izendatu dute.
Abendua	13	*Bilintx*-en heriotzaren mendeurrena ospatzeko kultur ekitaldi bereziak egin dira.
	23	Euskerazaintza eratu da.
		Euskadiko Antzerkiaren I. Agerraldia egin da Gasteizen.
		Euskal lekuen izenek euskarazko grafia eraman dezaten eskatuz gutuna bidali dio Deba Garaiko Mankomunitateak Gipuzkoako Errepideetako Buruzagitza Probintzialari.
Urtean zehar		Hordago argitaletxea sortu da, Euskal Herriarekin lotutako euskal nahiz erdal liburuak argitaratzeko helburuz.
		Pott Banda sortu dute Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi, Joxemari Iturralde eta Manu Ertzillak. *Pott* aldizkaria argitaratzen hasi dira.
		Urte honetan hil dira: Rodolfo Bozas kazetari, musikari eta itzultzaile gipuzkoarra eta Jose Antonio Oar-Arteta idazle bizkaitarra.
		Urte honetan hasi dira argitaratzen *Erein* eta *Kili Kili* aldizkariak.
		Antzerki Ibiltariaren I. Agerraldia egin da, honako taldeen partaidetzarekin: Txirunlun, Cómicos de la Legua, Geroa, Bihar, Antzerki, Eskola, Basaurikoa, Akelarre, La Farandula, Denok, Eterno Paraíso eta Cobruza.
		Aziliense eta Magdaleniense garaietako aztarnak aurkitu dira Errailako aitzuloetan. Jesus Altunaren zuzendaritzapean egin dira indusketak.

1979

Urtarrila		1923an argitaratutako *Xabiertxo* liburua saritu du «Instituto Nacional del Libro Español» erakundeak.
Otsaila		Aranzadi elkartearen egoitza izango diren Torres de Arbide eraikuntzak zabaldu dira Donostiako Miramón-en.
Martxoa	09	Beltran Pagolaren *Arraunketa* poema epiko-musikala estreinatu da Donostiako Victoria Eugenia antzokian.
		Zurgai, «Euskal Herriko olerkiaren aldizkaria», sortu da Bilbon. Euskaraz nahiz gazteleraz argitaratzen du poesia.
Apirila	21	Nafarroako Foru Diputazioak Madrileko Gobernuarekin zuzenean negoziatuko du «bere» elebitasun-dekretua, Jaime Ignacio del Burgo Diputazioko lehendakariak jakinarazi duenez.
	25	Bilbon Euskoiker sortu da, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bilboko Merkataritza Ganbarak sustaturik, ikerketa teknologikoa indartzeko helburuarekin.
	20	Madrileko Ministro Kontseiluak elebitasunari buruzko dekretua onartu du. Honek euskara Euskal Herriko hezkuntza-sisteman sartzea suposatu du.
		Donostiako Zinemaldiko batzorde zuzendariak, kanpoko nahiz barruko zailtasunen aurrean, Udalari pasa dio lehiaketaren antolakuntzaren ardura.
Maiatza	23	Euskaltzaindia Nafarroako Foru Diputazioko egoitzatik bota dute. Kontuetarako Ganbara Euskaltzaindiaren bileretarako leku egokia ez dela erabaki du Diputazioak.
		Gasteizen Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofi Letretako Fakultateko I. Ikasturtea bukatu da.
Ekaina	04	*Muga* aldizkaria aurkeztu du Iparragirre enpresa argitaldariak.
	06-07	Donostian Pio Barojaren eta Julio Caro Barojaren *Gipuzkoa* dokumentua estreinatu da.
	09	Carlos Garaikoetxea Euskal Kontseilu Nagusiko lehendakari hautatu dute.
	14	Estatuko Buletin Ofizialak argitaratu duenez, espainiera «nahitaezkoa» izango da Estatu-agintariei egindako komunikazioetan, epaitegietan eta auzitegietan; udaletan, ordea, herri-hizkuntza erabili ahal izango da.
	30	Jon Oñatibia idazle gipuzkoarra hil da.
Uztaila		INGEBAk *Geografia de Euskal Herria* argitaratu du.
		Eusko Kontseilu Nagusiko Kultura Kontseilaritzak ez du onartu elebitasun-dekretua.
Abuztua	16	Euskadiren eta Irlandaren arteko futbol-partiduarekin bukatu da «Bai euskarari» kanpaina.
	29	Javier Sanchez Eraunskin, *Punto y Hora*-ko zuzendaria, Goikoetxea eta Apaolazaren arrebei egindako elkarrizketagatik auzipetu egin dute.

Iraila	07	Picasso-ren *Gernika* Madrileko Pradoko Museora joango dela esan du artistaren alargunak, Jacqueline Picassok.
	14	Donostiako Zinemaldian arrakasta lortu du Imanol Uriberen *El proceso de Burgos* filmeak.
	20	ESTE fakultatetzat onartzen dela esan du José A. Obieta EUTGko zuzendari berriak kargu hartzeko hitzaldian.
		Donostian *Euskadi Sioux* eta Leioako Campusean *Sagar* aldizkaria sortu dira.
Urria	25	Gernikako Autonomi Estatutua onartu egin da erreferendumean.
	26	Aralarko San Migel elizako erretaula lapurtu dute.
	27	Xorroxin Irratia emititzen hasi da Baztanen.
	28	Durangon *Euskal Udalen izendegia* aurkeztu da.
		Francisco Escuderoren *Fantasia Geosinfónica* estreinatu da.
		Batzorde misto bat sortu da Euskal Herrian elebitasunaren aplikazioa zehazteko.
		Leioako Zientzi Fakultatean eskolak euskaraz ematen hasi dira.
Azaroa	21	Deustuko Unibertsitatean Euskal Ikaskuntzen Institutua aurkeztu da. Patxi Altuna da zuzendaria.
	24	Sabino Arana Fundazioa sortu da Bilbon.
		Euskal Herrian Euskaraz elkartea jaio da. Durangoko Azokan egingo du jendaurreko lehen agerpena.
Abendua	17	Donostian «Gipuzkoako pintoreak 1939-1979» erakusketa zabaldu da. 80 artistaren lanak daude erakusgai.
	27	UZEIk *Fisika Hiztegia*-ren aurkezpena egin du Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan.
		Susa literatur aldizkaria jaio da.
Urtean zehar		*Biga*, Pariseko gazte euskaldunek euskaraz nahiz frantsesez argitaratzen zuten aldizkaria, desagertu egin da.
		Lehenengoetako irrati libreak jaio dira: JMC Radio Areetan, Osina Irratia Donostian eta Radio Paraiso Iruñean.
		Ere informazio-astekaria sortu da.
		Urte honetan hil dira: Jose Maria Lojendio idazle eta abokatu gipuzkoarra, euskaltzainburu izana (1964-66), Mikel Zarate idazle bizkaitarra eta Jokin Zaitegi *Euzko Gogoa* aldizkariaren sortzailea.
		Nestor Basterretxeak erakusketa egin du Bartzelonako Miró fundazioan eta Gaspar aretoan, urtearen hasieran.
		Hamazazpi irakaslek osatutako Oihenart taldeak Historiari buruzko euskarazko lehenengo irakaskuntza-materialak landu ditu.
		Lehenengo «Ikuskak» (euskarazko dokumentalak) filmatu dira urte honetan: Jose Luis Egearen *Ikastolak*, Pedro Olearen *Gernika* eta A. Merikaetxeberriaren *Bilbo*.

1980

Urtarrila	02	Francisco Letamendia *Ortzi*-ren *El no vasco a la reforma* liburua bahitu dute.
	06	Xabier Amurizak Euskal Herriko Bertsolaritza Txapelketa Nagusia irabazi du Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan. 1967. urtetik ez zen txapelketa nagusirik egin.
	29	Unibertsitate-ikasleek grebara jo dute, unibertsitate-erreformarako lege-proiektua zela eta.
Otsaila	17	*La Voz de España* eta *Unidad* egunkari gipuzkoarrek, bata goizekoa eta bestea arratsaldekoa, itxi egin dute.
	20	*Saski-Naski* aldizkaria aurkeztu da.
	25	Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako unibertsitate-barrutiak Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) izena hartu du.
Martxoa	15	Idazleen eta argitaletxeen adierazpen-askatasunaren aldeko kanpaina hasi da.
	19	«Euskara Nafar Hizkuntza» lemarekin hamabost mila lagun bildu dira manifestazioan Iruñean, EAJk, EEk eta HBk deiturik, euskararen ofizialtasuna eskatzeko.
	22	Txillidak erakusketa egin du New York-eko Guggenheim museoan.
Apirila	09	Frankismo ondoko lehenengo Eusko Jaurlaritza osatu da, Carlos Garaikoetxea lehendakari dela.
	19	Euskararen aldeko manifestazioan hamahiru mila lagun bildu dira Donostian.
	24	Ramon Labaien izendatu dute Eusko Jaurlaritzako aurreneko Kultura sailburu.
	26	*El libro rojo del cole* argitaratzeagatik, *Egin* bahitu egin dute.
		Euskal Unibertsitateen autonomiari buruz bat etorri dira Eusko Kontseilu Nagusia eta Madrileko Gobernua.
Maiatza	28	Urtebeterako espetxe zigorra ezarri diote Javier Sanchez Erauskin *Punto y Hora* aldizkariaren zuzendariari, Madrilen egindako epaiketan.
		Donostiako Nazioarteko Zinemaldia aurten ez dela egingo jakinarazi du batzorde zuzendariak. Arrazoiak: baliabide ekonomikorik eza eta PIAPFen deskalifikazioa.
Ekaina		Pott Bandak bere aldizkariaren azken zenbakia plazaratu du: *Pott tropikala*.
Uztaila	28	Michel Labegerie idazle, kantari eta politikari lapurtarra hil da.
		Zeruko Argia astekariak *Argia* izena hartu du.
Abuztua	06	Nicanor Zabaletak emanaldia eskaini du Ziburun ikastolen alde.
	22	ETAk Javier Uranga, *Diario de Navarra* egunkariaren zuzendaria, zauritu du.
	23	Rugbyko euskal selekzioak eta Wolhounds-ek ikastolen alde jokatu dute Baionan.
	25	Gernikan «Euskalarien nazioarteko jardunaldiak» hasi dira.
		Euskara eta euskal literaturako lehen hamar katedratikoak izendatu dira. Katedratiko berriak Bizkaiko eta Gipuzkoako Institutuetan emango dituzte eskolak.

Urria	01	Xabier Peña, *Euskal irakasbide laburra* gramatika-liburuaren egilea, hil da.
		Itzultzaileen Eskola sortu da Donostian Euskaltzaindiaren babesean.
Azaroa	03	Nahiz UCDk eta UPNk kontra bozkatu, euskara Nafarroan hizkuntza ofiziala dela aitortu du Foru Parlamentuak.
	27	Zaragozako alkate sozialistak Agustin Ibarrolaren erakusketa itxi du militar baten aurkako atentatua dela eta.
	29	Korrika-ren lehen edizioa antolatu du AEK-k. Oñatitik abiatu da milaka lagunen partaidetzarekin. Abenduaren 7an bukatuko da Bilbon.
Abendua	15	Torrontegi Institutua, goi-ikerketa industrialerako zentrua, bere gain hartu du Eusko Jaurlaritzak.
	15	Joseba Sarrionandia euskal presoak irabazi du «Resurreccion Maria Azkue» literatura saria.
Urtean zehar		Araba Euskaraz jaia ospatu da lehenengo aldiz.
		Xaguxarra literatur aldizkariak lehenengo zenbakia kaleratu du. Hurrengo urtean desagertuko da.
		Eguzki Irratia emititzen hasi da Iruñean.
		Oh! Euzkadi literatur aldizkaria plazaratu dute Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoria idazleek.
		Urte honetan hil dira: Polikarpo Iraizotz idazle eta hizkuntzalari nafarra, Julene Azpeitia idazle gipuzkoarra eta Manuel Sota idazle eta kultur eragile bizkaitarra.
		Herriz herri euskal astekaria sortu da Donibane Garazin.
		«Ikuskak» dokumental-sortaren barruan, honako hauek ekoiztu dira urte honetan: *Euskal Telebista* (Xabier Elorriaga zuzendari), *Elebitasuna* (Koldo Izagirre), *Euskara galdutako Nafarroa* (Juanba Berasategi), *Barandiaran* (elkarlanean), *Araba* (Koldo Larrinaga) eta *Artistak* (Bakedano).

1981

Urtarrila	01	Manuel Irujo politikari nafarra hil da.
	01	Irakaskuntza Euskal Autonomi Elkartearen esku uzten duen Erret Dekretua indarrean jarri da.
	13	*El Pensamiento Navarro* egunkaria desagertu da.
	29	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea sortu da.
Otsaila-Martxoa	12-12	Bilboko Arte Ederretako Museoan Txillidaren lehen erakusketa egin da; leku eta aldi berean Joan Miró-ren 600 lan jarri dira erakusgai.
Martxoa	09	Telesforo Monzon idazle eta politikari gipuzkoarra hil da.
	12	*Chapitel* aldizkari nafarraren lehenengo alea argitaratu da.

	23	Gregorio Monrealek Euskal Herriko Unibertsitateko errektore-kargua hartu du.
		Irakasle Tituluaren ordez Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) ematen hasi da Euskaltzaindia.
		UZEIren hiztegiei «Zilarrezko Lauburua» eman zaie Bilboko Liburu Erakusketan.
Apirila	21	Donostiako Herri Irratia sei ordu euskaraz emititzen hasi da, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.
	23	Nafarroako Diputazioak Eusko Ikaskuntza utzi eta «Sociedad Navarra de Estudios Vascos» sortu du.
		Hegalez Hegal literatur eta arte-aldizkaria sortu da.
Apirila-Maiatza	25-03	«Arteder» erakusketa egin da Bilbon 103 artisten lanekin.
Maiatza	01	Legazpian René Zugarramurdiren *Gernika* obra koral-sinfonikoa estreinatu da.
	23	Euskal Eskolen jaia ospatu da Hazparnen AEK-k antolaturik.
Ekaina	02	Nafarroako Foru Parlamentuak erabaki du euskara ez dela kontuan hartuko udal-egitekoak betetzeko orduan.
	22	«Villa Bilbao» ipuin-sariketa irabazi duen obra erretzeko agindua eman du Bilboko alkateak. Arrazoia: «idazkera likitsa».
Uztaila	01	Euskal Filologiako lehen 20 lizentziatuek errebalida-azterketa egin dute Deustuan; horietatik 11 Bilboko Deustuan ikasitakoak dira eta 9 Donostiako EUTGen ikasitakoak.
	02	Euskerazaintzak euskalkien aldeko kanpaina hasi du Bizkaiko udaletan.
	22	Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ikastola-federazioek eta ELA sindikatuak ikastolen lehenengo konbenioa izenpetu dute.
Iraila	01	IRALE, irakasleak euskalduntzeko eta alfabetatzeko erakundea, sortu da.
	26	Imanol Uribek *La fuga de Segovia* filmea aurkezten du Donostiako XXIX. Nazioarteko Zinemaldian.
Urria		Nafarroako liturgian euskara hizkuntza ofiziala izango dela esan du Jose Maria Zirarda Iruñeko artzapezpikuak.
Azaroa	06	Zaldiko Maldiko euskal elkartea eratu da Iruñean.
	13	Francisco Escuderoren *Euzko Salmoa* estreinatu da Bilbon.
Abendua	21	Koldo Mitxelenak *Muga* aldizkarian «Nuestra irresistible ascensión de la poesia a la ciencia» artikulua argitaratu du, UZEIri eta hizkuntz normalizazioari eraso eginez. Sekulako artikulu-zaparrada eragingo du, 112 bat artikulu.
		Gure Irratia eta Irulegi Irratia jaio dira.
		HABE euskara-ikasleei zuzendutako aldizkaria argitaratzen hasi da.
Urtean zehar		Gramola irrati librea sortu da Bilboko San Inazio auzoan.
		HABE sortu du Eusko Jaurlaritzak, Ramon Labaien Kultura sailburu eta Amatiño Euskara Arazoetarako arduradun direla. Bi urte geroago legeztatuko da erakundea.
		Nafarroa Oinez ikastolen aldeko festak lehenengo edizioa egin du Altsasun.

Urte honetan hil dira idazle hauek: Imanol Berriatua, Agustin Anabitarte, Philip Aranart, Agustin Zumalabe, Robustiana Mujika eta Etienne Salaberri.

Pizkundea, Ipar Euskal Herriko kultur erakundeen bilgunea, sortu da.

Agustin Anabitarte idazle gipuzkoarra hil da.

Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Irratia erosi du.

Hitz irakaskuntza-aldizkaria sortu du Euskadiko Ezkerrak.

Kantil literatur aldizkaria desagertu egin da.

Euskal ikasketen saila zabaldu da Bordeleko Unibertsitatean, Jean Haritxelharren zuzendaritzapean.

Euskarazko dokumental hauek egin dira urte honetan, «Ikuskak» sailaren barruan: Iñaki Eizmendiren *Kontrasteak*, Mirentxu Loiarteren *Emakumeak* eta Montxo Armendarizen *Erribera*.

1982

Urtarrila	27	Nemesio Etxaniz idazle eta kultur eragile gipuzkoarra hil da.
Otsaila	04	Julio Caro Baroja «Ateneo Guipuzcoano»ko lehendakari izendatu dute.
	13	Seaskaren martxa egin da Baionan mila partaide baino gehiagorekin.
		Stultifera Navis literatur aldizkaria argitaratu da Gasteizen.
		Maiatz literatur aldizkaria sortu da Baionan.
		Aizu! euskara-ikasleei zuzendutako aldizkariak lehen zenbakia kaleratu du. 16. zenbakitik aurrera AEKren ardurapean argitaratuko da.
Martxoa	02	Eloko Higako Telenavarra emisorea inauguratu da.
	04	Donostiako HABEko ikasleek ez dute onartu lau poliziak beraiekin batera ikastea. Handik hilabetera poliziek klaseetara joateari utziko diote.
	09	PSOEren joerako jendeak sortua, *Tribuna Vasca* egunkariak lehenengo zenbakia kaleratu du.
	01	Mitterrandekiko negoziaketek porrot egin dutelako gose-greba egitea erabaki dute Seaskako lau kidek.
Maiatza	06	Julio Caro Baroja, Sánchez Mazas eta Blanco Aguinaga EHUko katedratiko apartekoak izendatu dituzte.
	06	*Norte Express* Arabako arratsaldeko egunkaria desagertu da.
	12	STEE-EILAS eta ELAk deiturik ikastoletan irakasleen % 70ek greba egin dute.
	20	Euskal Irrati Telebistaren (EITB) legea onartu du Eusko Legebiltzarrak.
	23	EAJen babesean, *Navarra hoy* egunkaria argitaratu da.

	25	Ikastoletako irakaslegoak asteartero eta asteazkenero greba eginez segitzea erabaki du.
	27	Manuel Irujo zena, José Maria Lakarra, Eugene Goienetxe eta Piarres Lafitte *doctor honoris causa* izendatu ditu EHUk Leioan.
Uztaila	04	Nazioarteko I. Dantza eta Musika Lehiaketa inauguratu da Bilboko Campos Eliseos Antzokian.
	30	Euskal Idazleen Elkartea sortu da, Anjel Lertxundi, Joxe Mari Velez de Mendizabal eta Xabier Gereño idazleek bultzatuta. Anjel Lertxundi izendatu dute lehendakari.
Abuztua	05	Xiberuko Boza emititzen hasi da.
	24	Euskadiko Pedagogi Jardunaldiak hasi dira Lizarran.
	28	Plazido Mujika idazle eta hiztegigile gipuzkoarra hil da Loiolan.
Urria	10	1522. urtean Gaztelako Erresumaren aurka Nafarroaren independentzia defendatu zutenei egindako monumentua inauguratu da Amaiurren, Baztan udalerrian.
	14	Eskola publikoetan euskara irakasteko baimena ukatu dio Bilboko Udalak AEKri.
		Galea aldizkaria plazaratu da.
Azaroa	01	Euskadi Irratia emititzen hasi da.
	10	AEK kalera irten da protesta-giroan eta eserlekuetan nahiz espaloietan eskolak ematen hasi. Gatazka Bilbotik Donostiara hedatuko da.
	24	Eusko Jaurlaritzak «Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizko legea» argitaratu du.
		Isilik pedagogi aldizkariaren lehenengo zenbakia plazaratu da.
Abendua	15	«Euskara greban» eguna antolatu dute euskararen inguruko herri mugimendu, irakaskuntza-erakunde, komunikabide eta bestelako hainbat elkartek, sindikatuen eta alderdien babesarekin. «Euskara berreskuratzeko Plangintza Orokorra» aldarrikatu da egunean zehar egindako ekitaldi ezberdinetan.
	30	Arrate Irratia berriro emititzen hasi da, 1964ko itxiera ministerialaz geroztik isilik egon ondoren.
	5	«Euskaraz mintza, euskaraz irakur» kanpaina abiatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.
Urtean zehar		*Susa*, ordura arte literatur aldizkari, liburuak ere argitaratzen hasi da.
		Xabier Amurizak bigarren aldiz irabazi du Bertsolari Txapelketa Nagusia.
		Urte honetan hasi dira argitaratzen: Labayru Ikastegiaren *Idatz & Mintz*, HABEren *Habeko mik* eta Bortzirietako *Ttipi Ttapa* aldizkariak.
		Eguzki Irratia Iruñean, Kakaflash Irratia Azkoitian eta Ganbara Irratia Amurrion emititzen hasi dira.
		Nikolas Alzola idazle eta pintore bizkaitarra hil da.
		Argia Eguna ospatu da lehenengo aldiz udazkenean.
		Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.
		«Ikuskak» saileko dokumental hauek ekoiztu dira urte honetan: Imanol Uriberen *Abeslariak*, Antxon Ezeizaren *Artzainak* eta J.M. Gutierrezen *Euskaldunberriak*.

1983

Urtarrila	01	Euskal Telebistak bere lehenengo emanaldia eskaini du Urte Zahar eta Urte Berriaren arteko gauean.
	06	Joan Inazio Goikoetxea *Gaztelu* olerkari eta erlijioso gipuzkoarra hil da Donostian.
	30	AEK-k deiturik, Gasteizen euskararen aldeko manifestazioa egin da. 15.000 lagun inguru bildu dira.
Otsaila	02	Fernando Artola *Bordari* idazle gipuzkoarra hil da Hondarribian.
	14	*Hierro* arratsaldeko egunkari bizkaitarrak itxi egin du.
	28	Madrileko Entzutegi Nazionalean *Egin*-eko zuzendari Jose Félix Azurmendi epaitu dute, terrorismoaren apologia egin omen duelako.
	28	Euskal Idazleen Elkartea ofizialki onartu du Madrilgo Lan Ministerioak.
Martxoa	10	Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Normalizaziorako Legearen hainbat artikulu inpugnatu egin ditu Espainiako Ministro Kontseiluak, Konstituzioaren aurkakoak direla argudiatuz.
	12	EKB (Euskarazko Kulturaren Batzarrea) aurkeztu da Bergaran, kultur talde eta sektore desberdinak koordinatzeko helburuarekin.
	15	Pelayo Olaortua margolaria hil da Bilbon.
	16	Eusko Legebiltzarreko egoitzan sartutako AEK-ko hainbat kide indarrez kanporatu ditu Ertzaintzak.
		Eskola irakaskuntza-aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu da.
Apirila	06	Euskarazko testuliburuentzako dirulaguntzak aratu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza) egitasmoaren bitartez.
	15	Javier Sánchez Erauskin kazetaria Langraizko espetxean sartu dute.
	27	*Ttarttalo* argitaletxea sortu da.
		Antzerti, Euskadiko Arte Dramatikoaren zerbitzua, sortu da.
		Radio Euskadi emititzen hasi da Bilbotik.
		Pedro Migel Etxenike Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak Kultura Saila ere bere gain hartu du, Ramon Labaienek utzitako lekua hartuz.
		Stultifera Navis literatur aldizkaria desagertu da.
Maiatza	25	*La Voz de Euskadi* egunkaria sortu da.
Ekaina	02	AEKanpada antolatu du Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak Urkiolan.
	08	Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolaria hil da.
	26	Ikastolen Eguna ospatu da Hendaian.
		Pamiela literatur aldizkaria plazaratu da.
		Donostiako *Hoja del Lunes* argitarapena desagertu da.

Uztaila	03	Bi urte lehenago Eusko Ikaskuntzari kendutako babesa berriro ematea erabaki du Nafarroako Diputazioak.
	15	*Tribuna Vasca* egunkariak argitaratzeari utzi dio.
	15	Euskal Autonomi Elkartean irakaskuntzan euskara nahitaezko ikasgai izango dela erabaki du Eusko Jaurlaritzak dekretu baten bidez.
	25	*La Voz de Euskadi* egunkaria «Orria» euskarazko gehigarria argitaratzen hasi da astero.
Abuztua	01	EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautu du Eusko Jaurlaritzak, A, B eta D ereduak sortuz.
	19	Unibertsitate-Erreformarako Legea onartu da.
	28	Jose Bergamin idazlea hil da Donostian.
		Eusko Legebiltzarrak EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) onetsi du. EIKEren bidearen aurka zeuden zenbait ikastolek EEPA (Euskal Eskola Publikoaren Alde) elkartea sortuko dute.
Iraila	04	Anizeto Zugasti idazle eta euskaltzale gipuzkoarra hil da.
	22	Xabier Zubiri filosofoa hil da.
		RIEV aldizkaria berriro argitaratzen hasi da Eusko Ikaskuntza, 48 urteko etenaren ondoren.
Urria	01	Euskal Idazleen Elkarteak *Idatz* barne-buletinaren lehen zenbakia argitaratu du.
	03	Koldo Mitxelena Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko *doctor honoris causa* izendatu dute.
	20	Euskaltzaindiak Atlas Linguistikoaren proiektua aurkeztu du.
	28	Eusko Jaurlaritzak *Euskararen borroka* euskararen ikerketa soziologikoa argitaratu du.
	28	Joxe Martin Lasa Apalategi idazle eta Bilboko Hizkuntza Eskolako irakaslea hil da.
Azaroa	02	Eusko Jaurlaritzaren EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) Konstituzioaren aurkakoa delakoan errekurtsoa jarri du Madrileko Gobernuak.
	28	Lehenengo Txotxongilo Jaialdia antolatu dute Tolosan.
	28	Aingeru Irigarai idazle eta euskaltzain nafarra hil da Iruñean.
	29	Jose Antonio Zaldua, euskarazko irakaskuntzaren eta ikastolen aldeko lanea aritua, auto-istripuz hil da.
Abendua	02	Eusko Legebiltzarrak HABE legea onetsi du.
		Gasteizko *Kandela* literatur aldizkaria kaleratu da.
Urtean zehar		Arrasate Euskadundu Dezagun (AED) elkartea sortu da, herrian euskararen erabilera bultzatu eta euskal kultura suspertzeko helburuz.
		Zutabe aldizkaria, helduen euskara-irakasleei zuzendua, argitaratzen hasi da HABE.
		Azken zenbakia plazaratu du *Bilduma* aldizkariak.

Txomin Barullo Irratia Bilbon, Zintzilik Irratia Errenterian, Pottoka Irratia Eibarren eta Hala Bedi Irratia Gasteizen sortu dira, beste zenbait irrati librerekin batera.

Urte honetan hil dira idazle hauek: Iñaki Olabeaga, Mayi Elizgarai eta Norberto Tauer.

Oh! Euzkadi aldizkariak azken zenbakia kaleratu eta desagertu egin da.

«Ikuskak» saileko dokumental hauek ekoiztu dira urte honetan: Antxon Ezeizaren *Donibane Lohitzun* eta Pedro Sotaren *Matxitxakoko Itxasguda*.

1984

Urtarrila	05	Jose Salaberria bertsolaritzaren eta euskal ohituren suspertzaile gipuzkoarra hil da.
	06	*Korrok* literatur aldizkaria plazaratu da Iruñean.
		Pamiela, ordura arte literatur aldizkari, liburuak argitaratzen hasi da.
		Argia astekariak 1.000. zenbakia plazaratu du.
		Bilboko *Hoja del Lunes*-ek itxi egin du.
Otsaila	12	Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoa hil da.
		Euskarazko egunkaria egiteko proiektu bana aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzan Orain eta Iparragirre enpresek, horretarako dirulaguntzak eskatuz. Arratsaldeko egunkaria egiteko proiektua du *Egin*-en enpresak, eta goizekoa argitaratzekoa *Deia*-renak.
Martxoa		Nafarroako 68 udal, kontzeju eta bailara ETB Nafarroan ikustearen alde agertu dira.
Apirila	14	Donostiako Anoeta Belodromoa bete egin da AEKren aldeko *AEKAnoeta* festan. Jaurlaritzaren jokabidea salatzeko kanpainaren bukaera izan da.
	16	Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izendatu dute.
	18	*Egin* egunkariaren zuzendaria, José Félix Azurmendi, laugarrenekoz absolbitu egin du Entzutegi Nazionalak.
	23	Euskal Idazleen Lehen Biltzarra egin da Saran.
	29	Manex Erdozaintzi-Etxart idazle behenafarra hil da.
		Galarrotsak antzerki topaketen lehen edizioa egin da Hazparnen.
Maiatza	06	Bizkaiko egunkari zaharrena, *La Gaceta del Norte*, desagertu egin da, jaio eta 83 urtera.
	13	Herri Urrats, Iparraldeko ikastolen aldeko festa, lehenengo aldiz ospatu da. Senpereko lakuaren inguruan egin da jaia.
	16	Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Diputazioek eta Euskaltzaindiak Euskal Hiztegi Orokorraren proiektuaren hitzarmena izenpetu dute.
	25	Euskal Hiztegi Arauemalearen lehen entrega aurkeztu du Ibon Sarasolak Donostian.
	28	Euskara oposizio ofizialetan ezin dela «gainbaloratu» erabaki du Espainiako Auzitegi Gorenak.
Ekaina	13	Iñaki Begiristain Albisu antzerkigile gipuzkoarra hil da.

Ekaina	18	Antzertiko lehen promozioak ikasketak bukatu ditu.
		Selektibitate-probak euskaraz egin ahal izan dira lehendabiziko aldiz.
Uztaila		Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Luis Iriondoren ordez, ETBko zuzendari izendatu dute.
Abuztua	16	Pierre Pascal Narbaitz idazle eta historialari nafarra hil da.
Iraila	03	Euskal Editoreen Elkartea sortu dute Elkar, Erein, Haranburu eta Sendoa argitaletxeek.
	13	*La Tarde de Euskal-Herria* arratsaldeko egunkaria argitaratzen hasi da Imposa, *La Voz de Euskadi*-ren enpresa argitaldaria.
Urria	01	Hizkuntza minorizatuei buruzko soziologi biltzarra egin da bost egunez Getxon.
	27	*La Tarde de Euskal-Herria* arratsaldeko egunkariak azken zenbakia argitaratu du.
Azaroa	10	Pamiela argitaletxeak eta Soñua disketxeak bat egin dute.
		Argia-k *Euskal Kulturaren Urtekaria* argitaratu du lehenengoz.
Abendua		Nafarroako Bertsolarien Elkartea eratu da.
Urtean zehar		*UNESCOren albistaria* euskaraz argitaratzeari ekin dio HABEk.
		Cuadernos de Alzate kultur eta pentsamendu-aldizkaria sortu du Colectivo Unamuno elkarteak. Elebiduna izateko jaio da baina gazteleraz argitaratuko da ia osorik.
		Urte honetan hasi dira argitaratzen literatur aldizkariok: *Txistu y Tamboliñ* Durangon, *Txortan* Azkoitian eta *Ttu-Ttua* Bilbon. *Senez* itzulpenaren eta terminologiaren alorreko aldizkaria ere urte honetan sortu da.
		Irrati libre hauek sortu dira: Iluna Irratia Bilboko Santutxu auzoan, Zirika Irratia Barakaldon, Karibe Irratia Sestaon, Zazpiki Irratia Elgoibarren eta Betekada Irratia Gernikan, besteak beste.
		Manuel Maria Apalategi idazle gipuzkoarra hil da.
		Erreporteroak luzemetraia ekoiztu da, Iñaki Aizpururen zuzendaritzapean, euskaraz.

1985

Urtarrila	15	Clemente Ezkurdia *Gorriti* bertsolari nafarra hil da Elizondon.
		Luis Mari Bandres Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izendatu dute.
Otsaila	19	Eder Track bikoizketa enpresa sortu da. Bilbon jarri ditu estudioak.
	23	Pierre Lafitte idazle eta euskaltzain lapurtarra hil da, Baionako ospitalean.
Martxoa	02	IZ disketxeak IZBI bikoizketarako enpresa sortu du.
	07	*La Voz de Euskadi* egunkari gipuzkoarrak argitaratzeari utzi egin dio.
	15	Lankide Aurrezki Kutxako buruek eta Joseba Intxaustik *Euskal Herria. Historia eta gizartea* lanaren lehen liburukia aurkeztu dute Arrasaten.
Maiatza	09	ETBko langileek grebari ekin diote. Irailaren erdira arte iraungo du lan-gatazkak.
Ekaina	28	Euskaltzaindiak *Euskal Gramatika* liburuaren lehen zatia aurkeztu du.

EZ ADIORIK

Aire, Fernando "Xalbador" (1920-1976)
Akesolo, Lino (1911-1991)
Alzola, Nikolas (1922-1982)
Anabitarte Irazu, Agustin (1891-1981)
Apalategi, Manuel Maria (1901-1984)
Aranart, Philipe (1901-1981)
Aranbarri, Simon (-1993)
Aresti, Gabriel (1933-1975)
Arrue Zarauz, Antonio (1903-1976)
Artola Sagarzazu, Fernando (1910-1983)
Azpeitia Gomez, Julene (1888-1980)
Barandiaran, Joxemiel (1889-1991)
Barrenetxea Uribasterra, Nikolas (1898-1988)
Begiristain Albizu, Iñaki (1922-1984)
Berriatua Ibieta, Imanol (1914-1981)
Bozas Urrutia, Rodolfo (1913-1978)
Caro Baroja, Julio (1914-1995)
Dassance, Louis (1888-1976)
Diez de Ulzurrun, Pedro (1924-1994)
Diez de Ulzurrun Ezkurdia, Pedro (1907-1977)
Elizgaray, Mayi (1894-1983)
Elosegi Irazusta, Jesus (1907-1979)
Enbeita, Balendin (1906-1986)
Epherre, Guillermo (1911-1975)
Erdozainzi-Etxart, Manex (1934-1984)
Erkiaga, Eusebio (1912-1993)
Estornes Lasa, Jose (1913 -1987)
Etxahun-Iruri (1908-1979)
Etxaniz, Nemesio (1899-1982)
Etxebarria, Joan Angel (1934-1995)
Etxeberria Tolosa, Patxi (1900-1989)
Garate Arriola, Justo (1900-1994)
Garde, Marcelino (1925-1990)
Garmendia Kortadi, Juan (1898-1989)
Gaztañaga, Jesus (1932-1992)
Goikoetxea, Juan Ignacio "Gaztelu" (1908-1983)
Goyheneche, Eugène (1915-1989)
Gorostiaga Bilbao, Joan (1905-1988)
Guilsou, Paul (1920-1993)
Hernandorena, Teodoro (1898-1994)
Hiriart-Urruti, Jean (1927-1990)
Inza, Damaso (1886-1986)
Iraizoz, Polikarpo (1897-1980)
Iratchet, Jean Pierre (1921-1991)
Irigarai, Anjel (1899-1983)
Irizar, Sabin (1923-1995)
Jakakortaxarena, Txomin (1906-1993)
Jauregiberri, Madeleine (1885-1977)
Karraskedo, Jazinto (1895-1988)
Labayen, Antonio Maria (1898-1994)
Labégerie, Michel (-1980)
Lafitte Ithurralde, Piarres (1901-1985)
Larrakoetxea, Bedita (1894-1990)
Larzabal, Piarres (1915-1988)
Lasa Apalategi, Jose (1925-1983)
Leizaola Sanchez, Jesus Maria (1896-1989)
Lekuona, Manuel (1894-1987)
Loidi Peña, Fabian (1909-1985)
Lojendio Irure, Jose Maria (1910-1979)
Lopez-Mendizabal, Isaac (1879-1977)
Lopez de Guereñu Galarraga, Gerardo (1904-1992)
Manterola Urigoitia, Gabriel (1890-1977)
Minaberri, Marijane (1926)
Mitxelena, Koldo (1915-1987)
Mokoroa, Justo (1901-1990)
Monzon, Telesforo (1904-1981)
Mujika Berrondo, Plazido (1906-1982)
Mujika Egaña, Robustiana (1888-1981)
Muniategi, Sabin (1912-1990)
Narbaitz, Piarres (1910-1984)
Oar-Arteta, Jose Antonio (1900-1978)
Olabeaga, Iñaki (1901-1983)
Olaizola Manuel, "Uztapide" (1909-1983)
Onaindia, Santi (1909-1996)
Oñatibia, Jon (1911-1979)
Oregi, Josu (1919-1995)
Omaetxebarria Martitegi, Ignacio (1909-1995)
Osa, Eusebio(1936-1993)
Riezu, Jorge (1894-1992)
Salaberri, Etienne (1903-1981)
Salaberria, Jose (1913-19840
Sota Aburto, Manuel (1897-1980)
Tauer, Norberto (1898-1983)
Urrestarazu, Andoni (1902-1993)
Urruzola, Estanislao (1909-1986)
Zaitegi, Jokin (1906-1979)
Zarate, Mikel(1933-1979)
Ziarsoro, Manuel (1902-1987)
Zugasti, Anizeto (1904-1983)
Zumalabe, Agustin (1914-1981)
Zumalabe Mendiburu, Jose Migel (1907-1992)
Zumalabe Goenaga, Joxemi (1950-1993)

Uztaila	07	Joseba Sarrionandia idazleak eta Iñaki Pikabeak ihes egin dute Martuteneko espetxetik.
		Literatur Gazeta aldizkariak lehen zenbakia argitaratu du.
		Sustrai aldizkaria sortu da.
Iraila	24	Jose Maria Gorordo EITBko zuzendari nagusi izendatzearekin batera —Andoni Areizagaren ordez— bukatu da maiatzean hasitako greba. Amatiñok, ETBko zuzendari orain arte, dimititu egin du.
		Josu Legarreta Eusko Jaurlaritzako Euskara Arazoetarako buru izendatu dute, Martin Ugalderen ordez.
Urria	15	*Larrun* aldizkariak lehen zenbakia kaleratu du.
	24	Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia hasi da. Bertsolariek euren kabuz antolatutako lehen txapelketa da. Orain arteko txapelketak Euskaltzaindiak antolatu zituen baina, hainbat eztabaidaren ondoren, Euskal Herriko Bertsolari Elkartea sortuz bide berria zabaltzea erabaki dute bertsolariek.
Azaroa	20	Donostiako Bilintx liburudendari eraso egin diote lehergailuz.
Abendua	04	*Elhuyar* zientzia eta teknikari buruzko aldizkaria argitaratzen hasi da izen bereko kultur elkartea.
	12	Juanba Berasategiren eta Koldo Izagirreren *Kalabaza Tripontzia* marrazki bizidunetako filmea estreinatu da.
	2	Irrati libreek Lehen Topaketa Nazionala egin dute Orion.
Urtean zehar		Urte honetan hasi dira argitaratzen: *Porrot* literatur aldizkaria, EHEren *Aurrera* aldizkaria eta *Theoria* filosofi aldizkaria.
		Irrati libreen loraldiaren barruan, Bilboko Otxarkoaga auzoko Otxasko Irratia, Errioxa Arabarreko Basterra Irratia, Bergarako Txapa Irratia, Astigarragako Irrintzi Irratia eta Donostiako Resistentzia Amara irratiak jaio dira.
		Fabian Loidi idazle gipuzkoarra hil da.

1986

Urtarrila	02	Ikas Bi, irakaskuntza elebidunerako erakundea, sortu da Ipar Euskal Herrian.
	22	Egunkari formatoko euskarazko astekariak sortzeko deialdia plazaratu du Eusko Jaurlaritzak.
		Euskal Idazleen Elkarteak euskal literatur lanak hizkuntza handi nahiz txikietara itzultzeko proiektua aurkeztu du.
Martxoa	15	Bizkaieraz idazten duten idazleek elkartea sortu dute.
	23	Sebastian Lizaso nagusitu da Donostiako Belodromoan jokatutako Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean.
Apirila		Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiak *Enseiukarrean* aldizkariaren lehenengo zenbakia plazaratu du.

Maiatza	29	Euskara hutsezko Liburu eta Disko Azoka antolatu du Durangon, lehenengo aldiz, Gerediaga Elkarteak. Ekainaren lehenean amaituko da.
	31	ETBko 2. kateak frogazko emisoak hasi ditu.
		Ekaitza astekaria jaio da.
		Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Mikrofilmategi bat zabaldu du Bergaran dokumentuak eta bibliografia babesteko.
Ekaina	06	ETBk koproduzitutako lehen hiru filmeak —Anjel Lertxundik zuzendutako *Hamaseigarrenean aidanez*, Alfonso Ungriaren *Ehun metro* eta Xabier Elorriagaren *Zergatik Panpox?*— aurkeztu dira ofizialki Bilbon, Gasteizen eta Donostian.
		Idazle eta ikerle talde batek, Federiko Krutwig eta Alfontso Hirigoien horien artean, *Jakintza Baitha* erakundea sortu du.
		Jaizkibel argitaletxeak *Telesforo Monzon. Hitzak eta idatziak* lana aurkeztu du.
Uztaila	14	Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Nagusiak eta Izan batasunak euskara erakusteko ikus-entzunezko metodo baten egiteko akordioa sinatu dute.
		Euskal Letren Saria jaso du Piarres Larzabalek.
Iraila	02	Europako Idazle Elkarteen I. Jardunaldiak hasi dira Donostian.
	26	*Hemen* astekariaren (egunkari formatokoa) lehen zenbakia plazaratu du Orain enpresa argitaldariak.
		Eusko Jaurlaritzak euskarazko albiste-agentzia ez sortzea erabaki du, Luis Mari Bandres Kultura Sailburuak adierazi duenez.
Urria	01	*Irakurri Euskaraz* kanpaina hasi da Euskal Autonomi Elkartean.
	05	*Eguna* astekariaren lehen zenbakia kaleratu du Iparragirre enpresak.
	13	*Bai Horixe!* euskara irakasteko saioa emititzen hasi da ETB.
	25	Gipuzkoako banketxe eta aurrezki kutxetako langileek euskararen aldeko kanpaina bati ekin diote udalen laguntzaz: *Kontuak euskaraz*.
		AEK-k lehen barnetegia zabaldu du Gaztelun.
		Damaso Intza idazle nafarra, *Zeruko Argia* aldizkariaren sortzailea, hil da.
Azaroa	20	Balendin Enbeita bertsolari bizkaitarra hil da.
		Kike Amonarrizek eta Joxe Ramon Galarragak txiste-kaseta plazaratu dute.
Abendua	26	Nafarroako Gobernuak Unibertsitate Publikorako proiektua aurkeztu du.
		Bostak Bat taldeak *Euskarazko Hiztegia* plazaratu du.
		Emilio Barbera EHUko errektore hautatu dute.
		Gabriel Arestiren literatur lan guztiak plazaratu ditu Susa argitaletxeak.
Urtean zehar		*Ele* hizkuntzari eta euskararen didaktikari buruzko euskal aldizkari seihilabetekaria argitaratzen hasi da AEK.

		Irrati libre hauek emititzen hasi dira: Basurto Irratia Bilbon, Itsuki Irratia Bermeon, Aldaba Irratia Durangon, Azur Irratia Karrantzan, Radixu Irratia Ondarroan, Zarata Irratia Iruñean eta Txantxangorri Irratia Donostian.
		Hondarribia herri-aldizkaria sortu da.
		Estanislao Urruzola *Uxola* idazle gipuzkoarra hil da.
		Goiz-Argi aldizkaria desagertu da.

1987

Urtarrila		*Ardatza* aldizkaria sortu du Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak.
		Vasco Press albiste-agentzia euskarazko zerbitzua eskaintzen hasi da.
Otsaila	21	Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak deiturik Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestaldia egin da Bilbon.
	22	Eusko Jaurlaritzak eta Editoreen Elkarteak euskal idazle klasikoei buruzko sail berria aurkeztu dute.
		Gaurko euskal narratibaren antologia argitarapena aurkeztu du Euskal Idazleen Elkarteak.
		Auzoka eskola-aldizkaria plazaratu du Donostiako Udalak.
Martxoa	26	Miramoneko produkzio-zentrua zabaldu du ETBk.
		Euskarazko lehen kazetaritza-argitarapena, *Eskualduna* astekaria, sortu zela ehun urte bete direla eta, Baionan erakusketa antolatu dute. 111 argitarapen izan dira ikusgai.
Apirila	02	EKBren eskutik Hizkuntza Minorizatuen Nazioarteko Topaketak hasi dira.
	16	Josu Ortuondo EITBko zuzendari nagusi izendatu dute.
		Kultur ekitaldi bereziak egin dira Gernikan hamabost egunez herriaren bonbaketaren 50. urteurrenean «Gernika 37-87» batzordeak antolatuta.
Maiatza	20	Anjel Lertxundiren *Kareletik* filmea estreinatu da Donostian.
	21	Arteleku zabaldu da Donostian.
Ekaina	03	Baionan Zabal liburudenda berria zabaldu dute.
	18	Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen lehen batzar nagusia egin da Donostian.
	20	Euskal Kantu Txapelketaren finala jokatu da Eiheralarren. Aurreko urtean Nafarroako Txapelketak izandako arrakastak bultzatu zuen lehia Euskal Herri osora zabaltzera.
		Urrats aldizkarak 0. zenbakia plazaratu du.
Uztaila	30	Manuel Lekuona idazle eta bertsozale gipuzkoarra, euskaltzainburu izana, hil da.
		Bernardo Atxagak *Obabakoak* plazaratu du.
Abuztua		Munduko II. Eusko Biltzarra hasi da eta urte bukaera arte iraungo du. 35 mintegi egingo dira Donostian, Gasteizen eta Bilbon.

Iraila	26	Eusko Jaurlaritzak antolatutako *Euskal Hitz* erakusketa zabaldu da, euskararen lehen erakusketa.
		Euskalterm, euskal terminologia-bankua, martxan jarri du UZEIk.
Urria	11	Tolosako I. Bideoaldia antolatu du Bosgarren Kolektiboak.
	11	Jose Estornes Lasa idazle nafarra hil da.
	12	Koldo Mitxelena hizkuntzalaria hil da.
	24	Inaki Irazabalbeitiak hartu du UEUko zuzendaritza, Baleren Bakaikoari lekua hartuz.
	29	Eduardo Txillidak *Príncipe de Asturias* saria jaso du.
Azaroa	22	Xalbador ikastegia zabaldu dute Kanbon.
		Orotariko Euskal Hiztegia-ren lehen liburukia plazaratu da.
Abendua		Heda prentsa-agentzia sortu da Iparraldean.
		Euskarazko liburuak argitaratzen hasi da Desclée de Brouwer argitaletxea.
		Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailean euskara-zerbitzu berria sortu du.
		Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea (EIZIE) sortu da.
Urtean zehar		Irrati libre hauek jaio dira: Bost Axola Irratia Algortan, Molotoff Irratia Hernanin eta Pititako Irratia Santurtzin.
		Urte honetan herri-aldizkariok sortu dira: *Eta Kitto!* Eibarren, *Kantilape* Itsasondon, *Kontzejupetik* Oñatin eta *Azpeitian zer?*.
		Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) sortu da.
		Urte honetan hil dira: Jesus Ramon Elosegi *Zimitz* eta Manuel Ziarsoro *Abeletxe* idazleak.

1988

Urtarrila	01	Galdakaoko Telebista emititzen hasi da.
		Piarres Larzabal idazle eta antzerkigile lapurtarra hil da.
		PEN klubak euskal idazleak onartzea erabaki du Puerto Ricon egindako kongresuan.
		EKBk Prentsa Dokumentazio Zerbitzua abiatu du.
Otsaila	16	Baionan Antxieta argitaletxea sortu da, helduentzat euskal komikiak egiteko asmoz.
		HAEEk (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) funtzionarioak euskalduntzeko barnetegia zabaldu du Oñatin.
Martxoa	12	Bateginik kanpaina hasi da, EKBk eta Ikastolen Elkarteak antolatuta. Maiatzaren 15era arte iraungo du.
	16	Telebista lokalek lehenengo biltzarra egin dute Plentzian.
		Nikolas Barrenetxea idazle bizkaitarra hil da.
		Euskara suspertzeko helburuarekin Bagare taldea sortu da Gasteizen.

Apirila	26	Txillidaren *Gure Aitaren Etxea* obra inauguratu da Gernikan, bonbaketaren 51. urteurrenean.
Maiatza	01	Euskal Aktoreen Batasuna sortu dute 60 bat antzeslek Donostian egindako batzarrean.
Ekaina		Euskadi Irratia Uhin Ertainean emititzen hasi da. Orain arte FMn baino ez du emititu.
Iraila	18	Eleuterio Tapia trikitilari gipuzkoarra hil da.
Urria	26	Euskal Herrian Euskaraz (EHE) erakundeak udalerri elebakarren kanpaina aurkeztu du.
Azaroa	07	Euskalerria Irratia emititzen hasi da Iruñerrian.
Abendua	03	Jose Joakin Mitxelena bertsolari gipuzkoarra hil da, 64 urte zituela.
	25	ETB *Hitzetik Hortzera* emititzen hasi da, Bertsolari Elkartearekin elkarlanean. Joxerra Garzia da saioaren zuzendari eta aurkezle.
	26	Pablo Sorozabal konpositore eta orkestra-zuzendaria hil da.
	30	Euskaltzaindiak Jean Haritxelhar hautatu du euskaltzainburu, Luis Villasanteren ordez.
		Hamar udalek, EHEk aurkeztutako mozioa onartuz, euskara hutsez bizitzea erabaki dute.
		Naparheid komiki-aldizkaria plazaratu da Iruñean lehenengo aldiz.
Urtean zehar		Hordago argitaletxea desagertu egin da.
		Urte honetan zehar herri-aldizkari hauek plazaratu dira: *Arrasate Press*, *Aretxagazeta* Aretxabaletan, *Irinmodo* Antzuolan, *Dzanga* Lekeition eta *Zerain*.
		Eskola irakaskuntza-aldizkaria desagertu egin da.
		Urte honetan hil dira: Jazinto Karraskedo eta Joan Gorostiaga idazleak.

1989

Urtarrila	11	Eugène Goienetxe historiagile lapurtarra hil da Baionan.
Otsaila	11	Gaiak argitaletxea sortu da.
		Elhuyar aldizkaria, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioa medio, hilabetekari bilakatu da.
Martxoa		Eusko Jaurlaritzak, Itzultzaileen Elkarteak eta Argitaletxeen Elkarteak ehun literatur obra unibertsal euskaratzeko plangintza aurkeztu dute.
		Emititzeko baimen legalik gabeko irrati guztiei ixteko agindua bidali diete gobernu zibilek.
Apirila	04	Lino Akesoloren gidaritzapean egindako *Diccionario de Autoridades del Euskara*-ren azken tomoak aurkeztu dituzte Bilbon.
		Gaur Express egunkaria plazaratu da.
Maiatza	01	Deiadar erakundea sortu da hiru erakunderen partaidetzarekin: AEK, Pizkundea eta Seaska.
	03	Txalaparta argitaletxea sortu da.

	08	Egin Irratiak emanaldiak hasi ditu.
		Euskaltzaindiaren I. Herri Literaturaren jardunaldiak egin dira Billabonan.
Ekaina		Ikas eta Ari (IKA) helduak euskalduntzeko euskaltegien koordinakundea sortu dute AEKtik kanporatutako Nafarroako eta Arabako zenbait euskaltegik.
		Bernardo Atxagak Espainiako Literatur Sari Nazionala eskuratu du *Obabakoak* liburuarekin.
Uztaila	15	Rikardo Arregi Andoaingo seme kutun izendatu eta haren izeneko kazetaritza sariak banatu dira lehenengo aldiz.
Iraila	11	«Euskara denona» leloarekin, Nafarroako euskarari buruzko lehen erakusketa aurkeztu du Iruñean Nafarroako Gobernuak.
	20	*Ke arteko egunak*, euskaraz errodatutako filmea, Donostiako Zinemaldian estreinatu da. Antxon Ezeiza da zuzendaria.
		Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) lehenengo ikasturtea hasi da.
		Ama begira zazu antzerki-obra estreinatu du izen bereko taldeak.
		Euskofilm proiektua aurkeztu du Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak.
Urria		*Nosferatu* zine-aldizkariak lehenengo zenbakia kaleratu du.
Azaroa		EKB-k *Bat* soziolinguistika-aldizkariaren lehenengo zenbakia plazaratu du.
	01	Egunkaria Sortzen taldea eratu da Donostiako Barandiaran Lizeoan egindako bileran.
	25	Argia Sariak banatu dira lehenengo aldiz: *Eguna* euskal egunkariko egileek, Luzien Etxezaharretak, Mikel Olazabalek, Euskalerria Irratiak eta Josu Muguruzak jaso dituzte sariak.
	27	Tomas Garbizu musikari gipuzkoarra hil da Donostian, 88 urte zituela.
		Imanol Larzabal kantariaren kontrako pintadak agertu dira Donostiako Intxaurrondo auzoan. Pintaden aurka oihartzun zabaleko kanpaina antolatu da eta horren inguruan polemika handia piztu.
Abendua	17	Jon Lopategik jantzi du txapela Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean. Donostiako Belodromoan jokatu da hamar mila ikusleren aurrean.
		Hegats literatur aldizkariaren lehenengo zenbakia kaleratu du Euskal Idazleen Elkarteak.
		Egunkaria Sortzen taldeak euskarazko egunkariaren «hamaika ezaugarri» nagusiak zehaztu ditu, Durangoko Azokan egindako bileran.
Urtean zehar		Herri-aldizkari hauek urte honetan argitaratu dira lehenengo aldiz: *Ene Bada* Legazpin, *Goierritarra* Goierri eskualdean, *Karkara* Orion, *Drogeten Itturi* Ermuan, *Arranondo* Ondarroan eta *Durango Swing*.
		Urte honetan hil dira Joan Garmendia Kortadi eta Patxi Etxeberria Tolosa idazleak.
		Urte honetan argitaratu dira lehenengo aldiz: *Tantak* pedagogi eta didaktika-aldizkaria Gipuzkoako Irakasle Eskolaren eskutik eta *Emakunde* izen bereko erakundearen eskutik.

1990

Urtarrila		Hiru argitaletxea sortu da, euskarazko literatur lanak gaztelerara itzulita argitaratzeko asmoarekin.
		Igela argitaletxea sortu da.
		Bilboko Alhondiga kultur zentru bihurtu eta kristalezko kubo erraldoi bat bilakatzeko proiektuaren inguruan eztabaida piztu da.
Otsaila	13	Eskoriatza Telebista (Telesko) emititzen hasi da.
	25	Negu Gorriak taldearen sorrera iragarri du Fermin Muguruzak.
		Pierre Betelu dantzari lapurtarra hil da.
		Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak literatur ondare unibertsalaren itzulpen-plangintza hartu du bere gain.
		Arrasate Telebista (ATB) emititzen hasi da.
Martxoa	02	Arrasateko berrogeiren bat elkartek beren harremanak euskaraz izan daitezen akordioa sinatu dute.
	21	Euskadi Gaztea irratia martxan jarri dute, euskaraz Donostian eta gazteleraz Bilbon.
	24	Euskal Herriko Ikastolen I. Biltzar Nazionala egin da.
Apirila	03	Remigio Mendiburu eskultorea hil da.
	04	Euskarazko egunkariaren bideragarritasuna aztertuko duen taldea aurkeztu du Jaurlaritzak. Jose Ramon Beloki izendatu dute taldeko arduradun.
	07	Euskal Kultur Erakundea (EKE) sortu da Baionan egindako bileran. Pizkundeako ordezkariak eta Ipar Euskal Herriko hautetsiak bertan izan direlarik. Erakundea diru publikoz hornituko dela erabaki da.
		EHEk *Aurrera* aldizkariaren lehen zenbakia plazaratu du.
		Porrot literatur aldizkariko kideek, 4. zenbakia argitaratzearekin batera, besterik ez dutela plazaratuko iragarri dute.
		Poliziak Gasteizko Hala Bedi irrati librea itxi du.
Maiatza	24	*Hemen* eta *Eguna*-ri dirulaguntzarik ez ematea erabaki du Jaurlaritzak. Diru hori egunkari publikoaren lehen gastuak ordaintzeko erabiliko dela jakinarazi da.
	25	Egunkaria Sortzen taldeak egunkari-proiektua erakusteko eta dirua biltzeko kanpainari ekin dio.
	28	Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak antolaturiko Euskal Kazetarien Jardunaldiak hasi dira Donostian.
		Euskal Kazetarien Elkartea sortu da.
		Martzelino Garde idazle nafarra hil da.
Ekaina	18	Sabin Muniategi poeta bizkaitarra hil da.

Ekaina		Lehen Haur Kantu Txapelketa jokatu da. Donibane-Lohizunen jokatutako finalean Xabier Elgart bakarlariak, Dani eta Ainara bikoteak eta Gipuzkoako Txorrotxio taldeak irabazi dute.
Uztaila	14	Egunkaria Sortzen-ek euskarazko egunkariaren zero zenbaki berezi bat plazaratu du eta festa erraldoia antolatu Donostiako Belodromoan.
	18	Euskaltzaindiak babestu eta UNESCOk bultzaturiko Letrakit kanpaina aurkeztu dute Bilbon.
	28	Egunkariari buruz Jose Ramon Belokik aurkeztutako txostena egunkari publikoaren proiektu gisa onartu du Eusko Jaurlaritzak.
Iraila	05	Nevadako Unibertsitateak euskal narratibaren antologia argitaratu du ingelesez.
	17	Bizkaia Irratia emititzen hasi da.
	29	*Hemen* eta *Eguna*-k azken zenbakiak plazaratu dituzte aste honetan.
		Nafarroako Gobernuak eta AEK-k akordioa izenpetu dute.
Urria	03	Espainiako hezkuntza-sistemaren erreformarako lege berria —LOGSE (Hezkuntza--Sistemaren Antolaketa Orokorrerako Lege Organikoa)— indarrean jarri da.
	04	EKBk *Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideak* liburua plazaratu du.
	25	Nafarroako Gobernuak Euskalerria eta Xorroxin irratiei lizentzia ukatu die.
		Bizia aldizkaria argitaratu da lehenengo aldiz.
Azaroa	07	Justo Mokoroa idazle gipuzkoarra hil da.
	13	Ibaizabal argitaletxea jaio da.
	18	Leon Bilbao albokari arratiarra hil da 73 urterekin.
	22	Lan kontratuak agortu ondoren kontratu administratiboak sinatzea ez onartzeagatik EHUk kaleratutako 96 irakasleek demanda jarri diote Errektoregoari.
Abendua	06	*Euskaldunon Egunkaria*-k lehen zenbakia plazaratu du.
		Durangoko Liburu eta Disko Azokak zilarrezko eztaiak ospatu ditu.
Urtean zehar		Urte honetan plazaratu dira aldizkariok: *Uztaro* UEUren eskutik, *Hika* Zutik alderdiaren eskutik eta *Ekaia* zientzi eta dibulgazio aldizkaria EHUren eskutik.
		Urte honetan jaio dira herri-aldizkariok: *Berrigara* Bergaran, *Akatz* Bermeon, *Deiadar* Gernikan, *Laisterkan* Sakanan eta *Mailope* Betelun.
		Bedita Larrakoetxea idazle bizkaitarra hil da.

1991

Urtarrila	07	*Bi eta bat* euskarazko lehen telekomedia emititzen hasi da ETB.
	11	*Jakin* aldizkariak Karlos Santamaria omendu du.

	17	Euskaltzaindiak *Nafarroako herri izendegia* aurkeztu du.
	30	*Herriz Herri* aldizkariak itxi egin du arazo ekonomikoak direla medio.
Otsaila	12	Fidela Bernat uztarroztarra, erronkarieraz mintzatzen zen azken euskalduna, hil da.
	12	Arrasateko Udalak eta Lagun Aro aseguru-etxeak euskara hutsez prestatutako lehen udal aseguru-poliza izenpetu dute.
	26	*Ikastola* aldizkariaren zero zenbakia kaleratu du Ikastolen Elkarteak.
	28	Gorka Aulestiak *Euskara-Ingelesa* hiztegia aurkeztu du.
Martxoa	14	«Euskaraz bizi» egitasmoa aurkeztu du Ikastolen Elkarteak.
	22	Zuzendaritza berria aurkeztu du EITBk: Iñaki Zarraoa EITBko zuzendari nagusi, Luis Alberto Aranberri *Amatiño* ETBko zuzendari eta Baltasar Marin ETBko gerente.
Apirila	24	Nafarroako zazpi alderdik bat egin dute «Euskararen aldeko oinarriak» izeneko agiria sinatuz.
	26	Hizkuntza Minorizatuetako Prentsari buruzko Topaketak egin dira bi egunez Donostian, *Egunkaria*-k antolatuta.
Maiatza	05	Udal Elebakarren Mugimendua sortu da Lizartzan.
	10	EAEko Administrazioak gaztelera hutsez argitaratutako agiriek balio legala dutela baina euskara hutsezkoek ez dutela ebatzi du EAEko Auzitegi Gorenak.
Ekaina	04	*Bertsolari* aldizkaria jaio da.
	12	Euskal poesiaren antologia argitaratu da georgieraz. Etxeparerekin hasi eta Sarrionandiaraino, 27 poetaren lanak bildu dituzte.
	16	Eusko Jaurlaritzak Araban duen hizkuntz politika berrikusi egingo dutela iragarri dute EAJk eta PSOEk.
	27	*Munduko leku-izenak euskaraz emateko irizpideak eta izendegia* aurkeztu du Elhuyarrek.
Uztaila	05	Euskara hutsez lan egin eta bizitzea erabakia zuten 28 udalek Udal Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) sortu dute Aizarnazabalen, Udalerri Euskaldunen Egunean.
Abuztua		Koldo Izagirre zuzendari dela, *Off-eko maitasuna* errodatzen hasi dira, euskaraz.
Iraila	17	Lino Akesolo hizkuntzalari eta idazle bizkaitarra hil da.
	17	Sabin Gaztañaga AEK-ko Bizkaiko arduraduna hil da.
	29	Idazlan klasikoak euskaratzeko Klasikoak elkarte anonimoa sortu da.Azaroa 06 Eusko Jaurlaritzaren Euskal Letretako Merezimendu saria jaso du Iñaki Eizmendi *Basarri*-k.
		Fernando Buesa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak irakaskuntza-sistemaren erreforma iragarri du. Sare publikoaren eta sare pribatuaren artean aukeratu beharko dute ikastolek.
Azaroa	17	*Mazantini* literatur aldizkari berria plazaratu dute Pamiela argitaletxearen inguruko zenbait idazlek.
	22	AEDk antolatuta Prentsa Lokalari buruzko jardunaldiak hasi dira Arrasaten.

	29	Publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuen arteko harremanak aztertu dira Hizgabe, EKB eta UEUk antolatutako «Publizkuntza» nazioarteko biltzarrean.
Abendua	18	Euskarazko lehen hiztegi entziklopedikoaren aurreneko zenbakia kaleratu du Lur argitaletxeak.
	21	Joxemiel Barandiaran hil da, 101urte zituela.
	28	Hala Bedi Gasteizko irrati librea berriro martxan jarri dute.
Urtean zehar		*Cuadernos de Alzate* aldizkariak argitaratzeari utzi dio.
		Sortalde liburu-banatzailea sortu da, Ikuskatik bereiziz.
		Urte honetan zehar sortu dira herri-aldizkariok: *Galtzaundi* Tolosan, *Lokotxa* Zubietan (Gipuzkoa), *Ze Barri* Eskoriatzan eta *Nontzebarri* Mungian.
		Jean Hiriart Urruti euskaltzain eta idazle lapurtarra hil da.
		Kantuz aldizkaria kaleratu du lehenengoz Euskalerriko Abesbatzen Elkarteak.
		Kimu hezkuntza-aldizkaria argitaratzen hasi da Bizkaian.

1992

Urtarrila	25	Euskal Herriko hainbat kulturgile «Kultur Kezka» taldean bildu dira Jaurlaritzaren kultur aurrekontuen murrizketari erantzun bateratua emateko.
	05	*Troka* haur-literatur argitaldaria sortu da.
	08	Vasco Press berri-agentziak bertan behera utzi du euskarazko albisteen zerbitzua, Jaurlaritzak dirulaguntza gehiago ez ematea erabaki duelako.
	12	Euskal Kultur Bidean zentro kulturala zabaldu dute Parisen. Jarduera nagusia euskal artisten lanen erakusleku izatea izango da.
	14	«Idazleak ikastetxeetara» kanpainari ekin dio Euskal Idazleen Elkarteak.
	29	Eusko Legebiltzarrak *Egunkaria*-ri dirulaguntzarik ez ematea erabaki du, EAk 150 milioi pezetako laguntza ematea proposatu eta gero.
		Bernardo Estornes Lasak *Gaztelania-erronkariera* hiztegia plazaratu du.
Otsaila	01	Jorge Oteizak Nafarroako Foru Komunitateari eman dizkio bere artelan guztiak.
	05	Karlos Santamaria humanista eta euskaltzalea EHUko *doctor honoris causa* izendatu dute Donostian.
	07	*Haritza* literatur aldizkaria kaleratzeari ekin diote Gasteizen.
	07	Iruñeko kaleen izenak euskaraz ere agertzeko erabakia hartu dute Udalak eta Nafarroako Gobernuak.
	12	Joxe Migel Zumalabe Mendiburu euskaltzain urgazlea hil da.
	15	Euskal Herriko Ikastolen II. Kongresua egin da.

	22	Guggenheim museoaren proiektua onartu da Eusko Legebiltzarrean.
Martxoa	25	UZEI, Elhuyar, Elkar eta Ikastolen Elkarteak Eusenor enpresa sortu dute, 15 urteren buruan Euskal Entziklopedia Nagusia osatzeko helburuarekin.
		Euskal Kultur Erakundeak *Xirrista* izeneko aldizkaria sortu du haurrentzat.
Apirila	05	Miren Azkarate euskaltzain oso izendatu dute Joxemiel Barandiaranek utzitako aulkia betetzeko. Euskaltzain oso izendatutako historiako lehen emakumezkoa da.
	12	*Egunkaria*-k erakunde publikoen publizitate-boikota salatu du.
	18	Maurizio Elizalde txistulari eta folklore biltzaile nafarra hil da.
	18	EHUko zortzi irakaslek uko egin diote kontratu administratiboa sinatzeari. Lanpostua galdu dute, ondorioz.
Maiatza	15	Euskalerria eta Xorroxin irratiak legeztatzea eskatu dio Euskaltzaindiak Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuko lehendakariari.
Ekaina	06	Gregorio Monreal Eusko Ikaskuntzako lehendakari izendatu dute.
	26	*Egunkaria*-k dirulaguntza publikoa jaso du lehenengo aldiz, Gipuzkoako Batzar Nagusietako oposizioaren —HB, EA eta EUE— ekimenez: 50 milioi pezeta.
	28	ARKOk (Arrasateko Komunikabideak) bultzatuta, Euskal Herriko herri aldizkariek *Herri.KO* aldizkari berria plazaratu dute.
		Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia *Euskararen Berripapera* argitaratzen hasi da, euskarari buruzko berriak zabaltzeko helburuz, euskarazko eta gaztelerazko bertsioak hilero eta ingelesezko berripapera urtean bi aldiz.
Uztaila	09	*Euskal Haziak* aldizkaria kaleratu dute Iparraldeko kristau-eskola elebidunek.
	10	Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak *UEMA* hilabetekaria aurkeztu du.
Urria	03	Euskal Kultur Erakundeak antolatuta Ondarearen Eguna egin da Irisarrin.
	06	1993-94 ikasturterako ikastolen konfluentzia bideratuko duten bi lege onartu ditu Eusko Jaurlaritzak: Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Irakaslego Ez Unibertsitarioaren Legea.
	13	Tokioko argitaletxe batek Hiromi Yoshidak egindako *Euskara-Japoniera* hiztegia kaleratu du.
	15	Lapurdi Irratiak emititzeari ekin dio, euskaraz nahiz erdaraz. Mikel Erramuzpe izan da giristinoen irrati honen bultzagile nagusia.
	15	Arabako Foru Aldundiak euskalduntzearen prozesua leuntzea erabaki du. Erabaki hori hartzeko argudio nagusia, ordurarte funtzionarioen % 78k exigituriko maila eskuratu ez izana izan da.
	24	PSOEk EAEko funtzionarigoa euskalduntzeko plangintza berriz aztertzea exigitu du, emaitzak kezkagarriak iruditu zaizkiolako. PSOEk exigentzia maila baretu eta epeak luzatzea eskatu du. PP eta UA proposamenaren alde agertu dira.
Azaroa	16	Maite Ruiz de Alegriaren *Ipar haizearen erronka* marrazki bizidunen filmea estreinatu dute. Juanba Berasategik plagio-salaketak egingo dizkio.

Abendua	03	Jorge Oteizak Nafarroako Urrezko Domina jaso du Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eskutik.
Abendua	04	Eman Bakia Baita literatur taldea aurkeztu da.
	11	Jorge Oteizak 1958an Nafarroako Agiña mendian ezarria zuen Aita Donostiaren omenezko hilarria puskatu du norbaitek.
	12	Jean Lahargou *Herria* astekariaren berpizle eta bultzagilea hil da.
	13	Irungo Udaleko Euskara Batzordeak *Plazara* literatur aldizkaria kaleratzeari utzi egin dio, zortzi urteko lanaren ondoren.
	24	*Geu Gasteiz* hilabetekaria sortu da.
		Garziarena literatur aldizkaria jaio da. Hurrengo urtean hilko da, 11 zenbaki atera eta gero.
Urtean zehar		Urte honetan argitaratu dira lehenengoz herri-aldizkariok: *Elgoibarren*, *Santamariñe* Sopelan, *Eraz* Durangaldean, *Gauziok au* Markinan, *Pulunpe* Ulzaman, *Murugarren* Garesen eta *Aiaupenanik* Lakuntzan.
		Urte honetan hil dira Jesus Gaztañaga idazle gipuzkoarra eta Jorge Riezu musikologo nafarra.
		Asmoz ta jakitez berripapera argitaratzen hasi da Eusko Ikaskuntza.

1993

Urtarrila	02	HEDAk *Irati* kultur aldizkari nafar elebiduna plazaratu du.
	12	Joxemi Zumalabe, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kontseilari ordezkaria sorreratik, hil egin da.
	21	Pariseko *Expolangues* erakusketan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak mahai bat osatu dute elkarrekin.
	28	Tolosako Galtzaundi Foruma zabaldu da, Xabier Arzalluzen hitzaldiarekin.
	28	Algel Aldaz bertsolari nafarra hil da.
	29	Euskaltzaindiak 75. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia egin du Bilbon, akademia sortzeko proposamena egin zuten Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu omenduz.
		Har Hitza! aldizkari politikoa plazaratu da, Herriaren Alde (HA) alderdiaren joerako pertsonen eskutik.
Otsaila	21	Eusebio Osa Unamuno idazlea hil da Gasteizen.
	23	EAJk eta PSOEk akordioa lortu dute funtzionarioen euskalduntze planaz. Funtsezko aldaketa hizkuntz eskakizunei dagozkien epeak luzatzea izan da.
	24	Estitxu Robles Arangiz kantaria hil da Basurton.
Martxoa	26	Txomin Jaka-Kortajarena idazle gipuzkoarra hil da Berastegin.
	30	Nicanor Zabaleta musikari donostiarra hil da.

Apirila	02	Euskararen aldeko Geu taldea sortu da Gasteizen, 300 bazkide ingururen partaidetzarekin.
	03	Joxe Miguel Iztueta *Lazkao Txiki* bertsolaria hil da Donostian, 66 urte zituela.
	07	Ainhoa Arteta soprano tolosarrak *National Council Audition* lehiaketa irabazi du New Yorken.
	13	Joxemiel Barandiaranek 1946 urtean sortutako *Ikuska* aldizkaria berriro plazaratzeari ekin diote Saran.
	21	Nafarroako Gobernuak euskara darabilten komunikabideei dirulaguntzak emango dizkiela jakinarazi du.
Maiatza	03	Bertsolari Elkarteak antolaturik «Bertsolamintza» jardunaldiak hasi dira.
	07	Arabako Errioxan *Ttiki-Ttaka* aldizkaria sortu dute.
	11	EHUko Gobernu Batzordeak atzera bota du Juan Jose Goiriena errektoreak irakasle kaleratuekin adostatutako akordio-proposamena.
	25	Alberdania literatur argitaletxea sortu da.
	26	Ikastolen Elkarteak EAEko ikastolek hartutako erabakiak ezagutarazi ditu: 63 ikastola (% 56) sare pribatuan gelditu dira, 42 (% 36) sare publikora pasatu dira eta beste bederatzik (% 8) erabakia hartzeke dute.
	31	Eusebio Erkiaga idazle bizkaitarra hil da.
Ekaina	02	Gipuzkoako Foru Aldundiak Arteszena ekoizpen eszenikoetarako zentroa sortu du.
	16	Arantxa Lazkanoren lehen filmea, *Urte ilunak*, estreinatu da.
	30	Nafarroako Parlamentuak baiezkoa eman dio Euskal Telebista Nafarroan ikusi ahal izateari.
Uztaila		*Txintxarri* herri-aldizkaria argitaratzen hasi da Lasarte-Orian.
Abuztua		*Urlatik* herri-aldizkaria sortu da Gatzagan.
Iraila	17	Eusko Ikaskuntzak 75. urteurrena ospatu du Oñatin. Juan Cruz Alli eta Jose Antonio Ardanza bertan izan dira, beste hainbat agintarirekin batera.
	18	Bertsolari Elkarteak sustatuta, Siadecok bertsozaletasunaren inguruan egindako lanaren berri eman du. Besteak beste, euskaldunen % 78 bertsozalea dela dio azterketak.
Urria	01	Andres Irujo Ollo lizarrarra hil da Buenos Airesen. Ekin argitaletxearen sortzaile, hainbat libururen egile eta euskal kulturaren bultzagile izan zen Ameriketan.
	09	Donostiako Trinitate Enparantzan ospatu da Euskal Herriko I. Poesia Eguna, Euskal Idazleen Elkarteak antolatuta eta 35 poetaren parte hartzearekin.
	22	Guggenheim Museoko lehen harria jarri da.
	30	Ipar Euskal Herriko berrogeita hamar dantza taldek Euskal Dantzarien Federakuntza eratu dute.
Azaroa	05	Koldo Mitxelena Kulturunea zabaldu da Donostian.

	18	EHUko Gobernu Batzarrak irakasle kaleratuei Leioako kanpusera sartzea eragoztea erabaki du, hauek euren ordezkoen klaseak boikotatu zituztelako.
	19	Andoni Egañak irabazi du Bertsolari Txapelketa Nagusia, Donostiako Belodromoan jokatutako finalean.
	21	Andoni Urrestarazu *Umandi* hizkuntzalari arabarra hil da Gasteizen.
	25	Liburuki bakarreko lehen hiztegi entziklopedikoa kaleratu eta aurkeztu du Elhuyar kultur elkarteak. 1.800 orrialdetik gora, 75.000 artikulu jasotzen ditu.
	26	«Joxemiel Barandiaran Murkondo Elkartea», Barandiaranen pertsona eta lana bizirik mantentzeko «museo irekia», aurkeztu da Ataunen.
	30	Lubaki Banda aurkeztu da Donostian, Susa aldizkariaren ale berezi batekin. 17 eta 20 urte bitarteko idazleek osatu dute taldea.
Abendua	23	Seaskak eta Frantziako Gobernuko Hezkuntza Ministerioak ituna sinatu dute.
	30	Zuberoan Euskal Telebistako seinalea jasotzen hasi dira.
Urtean zehar		Urte honetan hil dira Simon Aranbarri eta Paul Guilsou idazleak.

1994

Urtarrila	12	Gipuzkoako Batzar Nagusiek komunikabideetarako publizitate instituzionala arautzeko foru araua onartu dute.
	15	*Bitarte* aldizkaria sortu dute Donostian hainbat pentsalari eta idazlek.
	26	Nestor Basterretxearen *Urbide* (60 metro oinarrian, 23 altueran) jarri dute Arriarango urtegian.
Otsaila	09	Hizkuntza gutxituen defentsarako neurriak proposatzen dituen «Killilea txostena» onartu du Europako Legebiltzarrak.
	21	*Navarra Hoy* egunkariak azken zenbakia plazaratu du. Zero Multimedia enpresak bere gain hartu du egunkaria, proiektu berri bat gauzatzeko asmoz.
Martxoa	03	AEK-ko eta Jaurlaritzako ordezkariek akordiorako testua adostu dute.
	12	J.A. Urbeltzek zuzentzen duen taldeak *Alakiketan* ikuskaria erakutsi du Pariseko Champs Elysees aretoan.
	25	*Irutxulo* aldizkariaren 0. alea kaleratu du Donostiako Bagera Elkarteak.
	29	Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak HABEko euskaltegiak ixtea erabaki du eta oniritzia eman dio AEKrekin lorturiko akordioari.
Apirila	04	Victor Azkona, Euskal Herrian egindako zinemaren aitzindaria, hil egin da.
	05	Donostian hasi da filmatzen *Maité*, Carlos Zabala eta Eneko Olasagastik zuzenduriko euskal-kubatar produkzioa. Habanan bukatuko dute errodaia, abuztuaren 6an.
	14	Gutxiengo nazionalen literaturei buruzko «Herrien Kultur Europa» nazioarteko kongresua hasi da Gasteizen, Euskal Herria, Gales, Eskozia eta Irlandako ordezkarien partaidetzarekin.

	21	ETBko arduradunek *Hitzetik Hortzera* saioa zuzeneko emisioaren erdian moztu dute, zenbait bertsolari gazteren bertsoen eduki politikoa dela eta.
	29	Elhuyarrek *Ezagutu Gipuzkoa* euskaraz eginiko lehen CD-ROMa aurkeztu du Donostian.
Maiatza	05	Frantziako Asanbleak «Toubon legea» onartu du RPR eta UDFren aldeko botoez. Frantsesaren defentsarako egindako legea, hizkuntza gutxituen aurkako erasotzat hartu dute euskaltzaleek.
	13	Frantziak hizkuntzen karta «lehenbailehen» izenpetu beharko lukeela adierazi du François Bayrou Hezkuntza ministroak Paben eginiko Erregio Hizkuntzen jardunaldietan.
	16	Jose Mari Goikoetxea Elkar argitaletxeko musika arduraduna hil da.
	23	Eusko Bibliographiaren aita izandako Jon Bilbao bibliografo eta irakaslea hil da Bilbon.
	25	Anjel Lertxundik *Otto Pette* eleberria argitaratu du.
Apirila	08	*Diario de Noticias* egunkari nafarra jaio da, Zero Multimedia enpresaren eskutik.
Ekaina	02	Pausoka ekoiztetxea eta ETB *Goenkale* telesaila filmatzen hasi dira.
	03	Eusko Ikaskuntzak egoitza zabaldu du Baionan.
	04	*Elizen arteko Biblia* argitaratu da, Jose Maria Rementeria eta Dionisio Amundarainek zuzendutako lan-taldeak itzulita.
	16	EHUko Filosofia eta Psikologia Fakultateko irakasle zein ikertzaileek Iralka argitaletxe berria aurkeztu dute.
	16	EAEko Ararteko izateko hautagai nagusiak, Xabier Markiegik, euskararik ez dakielako eztabaida piztu da.
	25	Deiadar kolektiboak deituta (Pizkundea, Seaska, AEK eta EHE) Baionako Fakultatean Euskararen Jardunaldiak egin dira.
	28	«Eremuak» Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldiaren lehenengo edizioa hasi da Zarautzen.
	29	*Euskaldunon Egunkaria*-ko ordezkariek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Donostian.
Uztaila	02	Justo Garate Arriola mediku bergararra, erbesteko euskal kulturaren bultzagilea, Argentinako Mendozan hil da.
	05	Bilintx megadenda inauguratu da Donostian. Lehenengo aldiz aisia eta kulturako punta-puntako denda sortu da horrela euskal kulturan.
	05	Seaskako Ikastolen Kontseiluak onartu egin du François Bayrou Frantziako Hezkuntza Nazionaleko ministroak agindutako «Elkargo-kontratua».
	19	Sare pribatuko ikastolen finantzabideari buruzko akordioa lortu dute Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailak eta Hezkuntza Sailak, hots, EAJ eta PSE-EEk. Ikastolen Elkarteak ere ontzat jo du akordioa.
Abuztua	04	HPINek egindako ikerketa baten arabera, euskara hutsez argitaratzen diren herri aldizkariek 300.000 irakurle dituzte.

Iraila	30	«Xuxen» euskarazko lehen zuzentzaile informatikoa aurkeztu dute UZEI, Hizkia eta Informatika Fakultateko irakasle talde batek.
Urria	03	Euskaltzaindiak XIII. Biltzarra egin du Leioan laurehun lagunen partaidetzarekin, euskararen batasun-prozesua aztertzeko.
	26	Pariseko Euskal Kultur Bidean elkartea desagertu egin da diru-arazoek itota.
Azaroa	10	Teodoro Hernandorena bertso-jartzaile eta euskaltzale zizurkildarra hil da.
	11	Arabako hizkuntz politika berrikusteko ponentzia osatzea erabaki dute Batzar Nagusiek.
	15	EAEko administrazio publikoko 646 funtzionariren lekualdatzea iragarri da, zegokien hizkuntz eskakizuna gainditu ez dutelako.
Abendua	14	Xorroxin eta Euskalerria irratien helegiteari buruzko epaian euskarazko irratiek «diskriminatu» egiten dutela adierazi du Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Gobernuak emisio-baimena ukatu zielako jarri zuten errekurtsoa bi irratiek. Polemika handia piztuko du epaiak.
Urtean zehar		Bitarte liburu-banatzailea sortu da, Sortalde eta Yoar enpresek bat eginda.
		Elkarri aldizkaria sortu du izen bereko gizarte-mugimenduak.
		Antonio Maria Labaien antzerkigile gipuzkoarra hil da.

1995

Urtarrila	14	«Euskararen aurkako erasoak» salatzeko manifestazioa egin da Gasteizen EHEk antolatuta. PSE-EEk, PPk eta UAk Araban euskararen aurkako frontea osatu dutela ohartarazi du EHEk.
	16	Ipar Euskal Herriko Ikasleen Elkarteak (IEHIE) bi hilabeteko kanpaina hasi du Iparralderako unibertsitatea eskatzeko.
	18	Nafarroako Gobernuak euskalduntze-alfabetatzerako partidak murriztu izana salatu dute AEK-k eta IKA-k.
	21	ETBk emandako datuen arabera, 500.000 lagunek ikusten dute *Goenkale* saioa.
	25	Eusenor proiektuak dirulaguntza publiko gehiegi jaso zituela salatu dute IUk eta PPk.
	26	Lur Hiztegi Entziklopedikoa aurkeztu dute.
	28	Manifestazio jendetsua egin da Gasteizen «Euskal Herria nora, euskara hara» lemarekin, HBk antolatuta.
	28	Klaudio Harluxet Fundazioa aurkeztu da, datu-banku entziklopediko multimedia lantzeko helburuarekin.
	4	Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izendatu dute. Hizkuntz Politikarako idazkari nagusi izan da Garmendia orain arte.
	5	Frantziak Europako Hizkuntza Minoritarioen Ituna ez duela sinatuko jakinarazi dio ofizialki Toubon Kultura ministroak Europako Bulegoari.

	7	Lazkao Txiki zenari Lazkaon egindako omenaldian ez dute parte hartu bertsolariek, ETBk eta Bertsolari Elkarteak *Hitzetik Hortzera* telebista-saioari buruz duten eztabaidaren ondorioz.
Otsaila	10	Arabako egoera soziolinguistikoari buruzko ikerketa egitea Amando de Miguelen Tavula V enpresari eskatu diote Batzar Nagusiek. Aurkako iritzi ugari eragingo ditu erabakiak. «Araba eta euskara» agiria sinatuko dute ikerketaren aurka 60 bat elkarte eta pertsona ezagunek.
	11	Bermingham argitaletxea sortu dute Felix Maraña, Felipe Juaristi, Carlos Aurtenetxe eta Jorge Arangurenek.
	13	Espainiako Arte Kritikariek kritika saria eman diote Eduardo Txillidari Arco azokan. EEBBetako Arte Akademiako kide egingo dute Txillida hurrengo egunean.
	14	Tolerantzia eta Elebitasunaren Aldeko Agiria aurkeztu dute Kultura eta Unibertsitateko laurehun pertsona ezagunek.
	24	Euskal Fundazioa jaio da. Euskara, unibertsitate eta enpresa munduko hainbat jendek osatua, euskal kulturako ekimenak sustatzea du helburu.
	28	Frantziak Euskaltzaindia ondare publiko gisa onartu du, akademiari ofizialtasuna aitortuz horrela.
Martxoa	01	Zinemagintzari buruzko euskarazko aldizkari berria aurkeztu dute Donostiako Euskara eta Kultura patronatuek: *Zazpiki*.
	15	Leizarragaren *Testamendu Berria* erosi du Nafarroako Aurrezki Kutxak 343 milioi pezetaren truke, Londresen egindako enkantean.
	17	Bi lagun atxilotu dituzte Zarautzen Oteizaren lau eskultura faltsifikatu dituztelakoan.
	20	Donostiako Kursaalen eraikuntzarako obrak esleitzeko bileran Eusko Jaurlaritzako ordezkariek botorik eman ez eta lanak esleitu gabe geratu dira. Jaurlaritzako ordezkarien jokaerak Donostiako Udalaren haserrea piztu du.
	27	Faustino Salegi *Sakabi* trikitilaria hil da Azpeitian, 78 urte zituela.
	31	*Larrun* aldizkaria argitaratzeari utzi diola jakinarazi du Zeruko Argia elkarteak, 23. zenbakia kaleratzearekin batera.
Apirila	12	Diru arazo larriak dituela jakinarazi du Euskaltzaindiak eta, konponbiderik aurkitu ezean, zenbait lan gelditu egingo direla. Hainbat erakunde publikoekin elkarrizketan aritu ondoren lanekin jarraitzeko adina diru biltzea lortuko du.
	22	Leioako Gobela ikastolako auzia bukatutzat jo da. Tira-bira eta negoziaketa luzeen ondoren akordioa lortu eta publikoaren aldekoek ikastolatik alde egin dute.
	25	NUPek eta EHUk elkarlanerako akordioa sinatu dute. Unibertsitate-barruti bakarra osatzea aipatu dute etorkizuneko helburuen artean.
	26	ETBk *Bertsoz bertso* saioa emititzea salatu du Bertsolari Elkarteak. Bertsolarien oniritzirik gabe lehendik grabatutako materialarekin osatu du saioa ETBk.
	26	Kursaaleko eraikuntzarako obren lehen fasea esleitu du Kursaaleko Elkargoak, bileran Jaurlaritzako ordezkaririk ez den arren.

	27	Donostiako Entzutegian epaiketa euskaraz egin da bat-bateko itzulpena erabiliz. Gipuzkoan lehenengo aldia da.
	07	1995-96 ikasturterako aurrematrikulazioetan D eredua nagusitu da EAEn, Inazio Oliveri Hezkuntza sailburuak jakinarazi duenez.
Maiatza	04	*Euskaltzaindiaren Arauak* argitarapena aurkeztu du Euskaltzaindiak.
	04	Tolosako Epaitegiaren epaia aldatuz Beasaingo ikastolaren publifikazio-erabakia legezkotzat jo du Donostiako Entzutegiak.
	10	«Guggenheim-eko Maisulanak» erakusketa zabaldu da Bilbon.
	10	EHUko Gobernu Batzordeak Irakaslego finko ez-funtzionarioaren figura sortzeko eskatu dio Eusko Legebiltzarrari.
	14	ETBk antolatuta Donostian egin da Input-95, nazioarteko telebista publikoen bilera. Mila profesionaletik gora bildu dira bertan.
	15	Euskalduntze eta alfabetatze alorreko 18.000tik gora liburu jasotzen dituen liburutegi berria zabaldu du HABEk.
	2	Karlos Santamariaren lanen bilduma aurkeztu dute Joan Mari Torrealdaik eta Joxe Azurmendik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatuarekin batera.
Ekaina	29	Euskal Autonomi Elkarterako Eskola Mapa berria aurkeztu du Inazio Oliveri Hezkuntza sailburuak.
Uztaila	10	Windows-erako Word 6.0 informatika-programaren euskarazko bertsioa aurkeztu dute UZEIk eta Elhuyarrek, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien babesarekin.
	13	Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimena eman du Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako Izarraizpe ikastola banatzeko, pribatuaren aldekoek ikastetxe berria osa dezaten.
	27	Euskal Konfederakundea jaio da Kanbon, Pizkundea eta Deiadar elkarteen ekimenez. Jean Louis Laka hautatu dute lehendakari.
	28	Beasaingo ikastolaren publifikazio-prozesua etenda mantentzea erabaki du Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak.
Abuztua	12	Sabin Irizar idazlea hil da Donostian, 72 urterekin.
	9	Gabriel Ramos Uranga pintore eta grabatugile bilbotarra hil da, 55 urte zituela.
	08	Julio Caro Baroja hil da.
Iraila	11	EAEko ikasturte hasieran D ereduan ikasle gehiago dira A ereduan baino, historian lehenengo aldiz: 82.809 ikasle D ereduan (% 36,8), 75.117 (% 33,4) ikasle A ereduan eta 64.730 (% 28,8) B ereduan.
	11	Lubaki Bandak agur esan du Euskal Idazleen Elkartearentzat egindako Literatur Egutegiarekin. Hiru aldizkari, maketa bat eta berrogei errezitaldi egin ditu guztira idazle gazteen talde honek.
	15	Betiko ikastola sortu da Leioan Gobela ikastolaren zatiketatik.
	16	Juan Jose Alkain *Udarregi* bertsolaria omendu dute Usurbilen bere heriotzaren mendeurrenean.

	18	Atzerriko filme bat —*Alargunen Gailurra*— lehenengoz euskaraz pantailaratu da zinema areto komertzialetan.
	20	Euskarazko azpitituluekin eman dira lehenengo aldiz bi filme Donostiako Zinemaldian: *Desesperado* eta *La Haine*.
	26	Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberoko Boza irratiei sostengua adierazi diete Ipar Euskal Herriko 102 auzapezek, behar duten laguntza lehenbailehen eskura dezaten eskatuz.
Urria	04	*Hik Hasi* euskal heziketarako aldizkariaren lehenengo zenbakia plazaratu da.
	19	Hamabost musika-talde bildu dira Oiartzunen «Hitz Egin» jaialdian, Negu Gorriak taldeari elkartasuna adierazteko, «Ustelkeria» abestia zela-eta Rodriguez Galindo goardia zibilari 15 milioi pezeta ordaintzera zigortu baitzituzten Negu Gorriak taldea eta Esan Ozenki disketxea.
	21	*Egunkaria* «azalez eta mamiz» berritua kaleratu da. Besteak beste, kolorea sartu du lehenengo eta azkenengo orrialdeetan eta zortzi orrialde gehiago argitaratuko ditu egunero (gutxienez 32 lehen, gutxienez 40 orain).
	21	Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionala sortu da Bilbon.
	24	Publifikatutako 21 ikastolek Ikasbatuaz kultur elkartea sortu dute.
	27	Tramiteak euskaraz egiteagatik lagabezi saria kendu dio INEMek Fredi Martin arabarrari.
	27	Eusko Jaurlaritzarekin, EAEko hiru diputazioekin eta Nafarroako Gobernuarekin bost urterako hitzarmena sinatu du Euskaltzaindiak.
	31	ETBren eta Frantziako Administrazioaren arteko akordioari esker urtea amaitu baino lehen euskarazko telebista-katea Ipar Euskal Herri osoan ikusiko dela jakinarazi da.
Azaroa	09	Nafarroako Legebiltzarrak ETB herrialde osoan ikusteko hitzarmena onartu du.
	23	*Hamaika Pauso* eleberria argitaratu du Ramon Saizarbitoriak.
	27	*Euskara, atzo eta gaur* CD-ROMa aurkeztu du Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ihardun Multimediak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.
Abendua	09	Klaudio Harluxet Fundazioaren *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*-ren lehenengo faszikulua banatu du *Egunkaria*-k. Entziklopedia osatu arte astean bi faszikulu banatuko ditu euskarazko egunerokoak.
	15	Euskarak espazio berria irabazi du Bilbon: Kafe Antzokia zabaldu da, Zenbat Gara elkartearen eskutik.
	19	Gaztelerazko bi liburu plazaratuz aurkeztu da Besatari argitaletxea. Aurrerantzean euskarazko liburuak ere kaleratzeko asmoa dutela adierazi dute arduradunek.
	20	Bergarako UNEDeko Euskara Saila desagertu egin da lau irakasleen kaleratzearekin. Tere Irastorza eta Juan Martin Elexpuru idazleak daude kaleratuen artean.
	21	Marrazki biziduneko luzemetraia bat euskarara itzulita eman dute lehenengo aldiz: Richard Williams-en *Bagdadeko lapurra* Bilbon eta Donostian da ikusgai.
	25	Juan Mari Mendizabal EKBko lehendakari izendatu dute, Paulo Agirrebaltzategiren ordez.

	07	*Enbata* eta *Ekaitza* astekarien aurkako epaiketa egin da, Joel Cathala poliziak GALekin zerikusi zuzena zuela argitaratzeagatik.
	20	Pello Salaburu euskaltzaina Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izendatu dute.
	29	Eusko Jaurlaritzak eta Ikas eta Ari (IKA) erakundeak hitzarmena sinatu dute.
	30	Elkarrizketa prozesu luzearen ondoren, Eusko Jaurlaritzak eta AEK-k hitzarmena izenpetu dute.
		Ostiela! literatur aldizkariak lehenengo zenbakia kaleratu du.
Urtean zehar		Joan Angel Etxebarria idazle bizkaitarra hil da.

BIBLIOGRAFIA

Helburu apala du bibliografia honek, eta da, aro garaikideko liburugintzaren azterketan izan dugun ikuspegia aberasteko eta osatzeko baliagarri izan daitezkeen zenbait libururen berri ematea.

Hortaz, liburuan zehar erabili ditugun gai guztien erreferentzia bibliografikorik ez dugu hemen bildu. Kulturaren eta literaturaren historia guztiak zerrendatu beharko genituzkeen, bestela. Laburtze-aldera, liburuan zehar hainbat aldiz aipatu ditugun artikuluen zerrendarik ere ez dugu ematen.

ASKOREN ARTEAN: *Ecrire... Pour quoi? Pour qui?,* Presses Universitaires de Grenoble, Grenoble, 1974

ASKOREN ARTEAN: *Le livre en France. La recherche et l'enseignement,* Editions Retz, Paris, 1984

BOUADJIO, Victor (Edit.): *Scriptor 1995. Le monde de l'écrit et de l'édition,* Ecrire aujourdhui, Nantes, 1995

BOUVAIST, Jean-Marie: *Pratiques et métiers de l'édition,* Editions du Cercle de la Librairie, Paris, 1991

BOUVAIST, Jean-Marie; BOIN, Jean-Guy: *Du printemps des éditeurs à lâge de raison. Les nouveaux éditeurs en France (1974-1988),* La documentation française/Sofedis, Paris, 1989

BUSTAMANTE, Enrique; ZALLO, Ramon (Edit.): *Las industrias culturales en España (Grupos multimedia y transnacionales. Prensa, radio, TV, libro, cine, disco, publicidad,* Akal, Madrid, 1988

CAHART, Patrice: *Le livre français a-t-il un avenir?,* La Documentation Française, Paris, 1988

CENDAN PAZOS, Fernando: Edición y *Comercio del libro español (1900-1972),* Editora Nacional, Madrid, 1972

DIAZ-PLAJA, Guillermo: El oficio de escribir, Alianza Editorial, Madrid, 1969

ESCARPIT, Robert (Edit.): *Le littéraire et le social. Elements pour une sociologie de la littérature,* Flammarion, Paris, 1970

ESCARPIT, Robert: *La revolución del libro,* Alianza Editorial, Madrid, 1968

ESCARPIT, Robert: *Sociologie de la littérature,* PUF, Paris, 1968

ESTIVALS, Robert: *Le livre dans le monde (1971-1981),* Editions Retz, Paris,1983

EZINE, Jean-Louis: *Les écrivains sur la sellette,* Editions du Seuil, Paris, 1981

FAULTRIER-TRAVERS, Sandra de: *Le droit d'auteur dans l'édition,* Imprimérie Nationale, Paris, 1993

FUINCA: *El sector del libro en España. Situación actual y líneas de futuro,* Fundesco Madrid, 1993

GALAN PEREZ, José Manuel: *Análisis estructural del sector editorial español,* Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1986

GASTON, Enrique: *Sociología del consumo literario,* Los libros de la Frontera, Barcelona, 1974

GUILLOU, Bernard; MARUANI, Laurent: *Les stratégies des grands groupes d'édition. Analyses et perspectives,* Editions du Cercle de la Librairie, Paris, 1991

IZTUETA, Paulo: *Intelligentsia kimatuaren orbelak,* Kutxa, Donostia,1996

JOHANNOT, Yvonne: *Quand le livre devient poche,* Presses Universitaires de Grenoble, Grenoble, 1978

LANDA, Josu: *Gerraondoko poesiaren historia,* Elkar, Donostia, 1983

LAZARO CARRETER, Fernando (Edit.): *La Cultura del Libro,* Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1983

LILLET, Rémy: *Pour une Europe du livre,* La Documentation Française, Paris, 1989

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier: Euskal itzulpengintzaren historia, Elkar, Donostia, 1995

MIGNARD, Annie (Edit.): *Ecrire aujourd'hui, Autrement,* Paris, 1985

MINON, Marc: *Chaines & groupements de librairies en Europe,* Editions du Cercle de la Librairie, Paris, 1992

MONDELO, J.M.: *L'auteur multimedia,* M Patriques, Paris, 1991

OLAECHEA, Juan B.: *El libro en el ecosistema de la comunicación cultural,* Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1986

PIAULT, Fabrice: *La livre: la fin d'un règne,* Stoc, Paris, 1995

PINGAUD, B; BARREAU, J.-C.: *Pour une politique nouvelle du livre et de la lecture*, Ministère de la Culture, Paris, 1982

RAMBURES, Jean-Louis de: *Comment travaillent les écrivains*, Flammarion, Paris, 1978

ROUET, François: *Le livre. Mutations d'une industrie culturelle*, La Documentation Ftrançaise, Paris, 1992

ROUET, François; DUPIN, Xavier: *Le soutien public aux industries culturelles*, Ministère de la Culture et de la Comunication, Paris, 1991

SYNDICAT NATIONAL DE L'EDITION: *L'éditeur pourquoi?*, Cercle de la Librairie, Paris, 1977

TORREALDAI, Joan Mari: *Euskal Idazleak Gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Jakin, Oñati, 1977

VESSILLIER-RESSI, Michèle: *Le métier d'auteur. Comment vivent-ils?*, Dunod, Paris, 1982

AURKIBIDE BEREZITUAK

Aurkibide analitikoa

Abonamendua
29, 150, 537, 631, 632, 666
Adin-piramidea
396, 397, 398, 399, 401, 403
Administrazioa
104, 123, 124, 125, 164, 170, 211, 218, 222, 223, 272, 274, 289, 296, 297, 307, 348, 374, 378, 408, 486, 502, 512, 519, 525, 570, 584, 616, 618, 620, 622, 672, 696, 703, 706
Aisia-liburua
56, 117, 178, 198, 204, 211, 299
Alfabetatzea
47, 137, 167, 168, 169, 346, 349, 452, 512, 522, 613, 680, 703, 705
Aldizkako argitalpena
Ikus Aldizkaria
Aldizkaria
46, 47, 48, 94, 100, 101, 102, 105, 106, 112, 124, 125, 127, 129, 132, 133, 136, 140, 144, 147, 162, 163, 168, 170, 171, 222, 223, 229, 271, 275, 289, 291, 305, 308, 309, 317, 339, 341, 342, 343, 346, 349, 354, 356, 392, 398, 414, 415, 429, 435, 442, 454, 456, 466, 467, 471, 481, 498, 508, 512, 533, 537, 539, 550, 561, 563, 580, 588, 595, 608, 612, 613, 621, 631, 637, 644, 649, 650, 652, 653, 654, 659, 660, 661, 665, 674, 675, 676, 678, 680, 689, 701, 703, 704, 705, 706
— Didaktika eta pedagogi aldizkaria
166, 169, 682, 693
— Eskola-aldizkaria
277, 402, 690
— Haurrentzako aldizkaria
673
— Herri-aldizkaria
47, 671, 690, 691, 692, 693, 695, 697, 698, 699, 700, 702
— Hezkuntza-aldizkaria
697
— Irakaskuntza-aldizkaria
681, 683, 692
— Kultur aldizkaria
166, 672, 699
— Literatur aldizkaria
166, 330, 331, 350, 351, 352, 399, 403, 447, 488, 489, 673, 677, 679, 681, 682, 683, 684, 685, 686, 688, 693, 694, 696, 697, 699, 707
— Pentsamendu-aldizkaria
130, 673, 686
Alemania
210, 217, 535, 537, 538, 540, 553, 554, 608, 639, 648, 650
Antzerkia
24, 45, 56, 82, 101, 119, 120,128, 136, 138, 152, 153, 154, 160, 180, 249, 250, 251, 320, 322, 323, 339, 340, 342, 354, 393, 414, 445, 446, 447, 448, 449, 450, 456, 465, 505, 508, 584, 622, 673, 675, 683, 685, 693
Antzerkigilea
128, 685, 691, 703
Antzerkigintza
Ikus Antzerkia
Argitaldaria
Ikus Argitaletxea
Argitaletxe nazionala
43, 374, 543, 565, 618, 619, 622, 623
Argitaletxea
38, 43, 44, 46, 48, 124, 127, 129, 133, 137, 139, 148, 149, 150, 152, 180, 182, 183, 184, 187, 198, 199, 208, 209, 215, 216, 226, 231, 236, 237, 238, 239, 245, 246, 247, 248, 249, 259, 260, 262, 265, 266, 267, 268, 269, 272, 274, 276, 278, 280, 281, 301, 316, 317, 338, 347, 352, 353, 355, 362, 374, 375, 378, 380, 394, 401, 408, 417, 419, 437, 438, 439, 440, 441, 442, 443, 444, 445, 446, 447, 448, 451, 452, 453, 454, 463, 468, 472, 501, 502, 511, 533, 534, 557, 558, 559, 560, 561, 562, 563, 564, 565, 566, 567, 568, 569, 570, 571, 572, 574, 575, 576, 579, 580, 581, 582, 583, 584, 585, 586, 588, 591, 592, 593, 595, 596, 597, 598, 599, 600, 601, 602, 603, 605, 609, 610, 612, 613, 614, 616, 617, 618, 619, 621, 622, 623, 624, 625, 632, 633, 637, 638, 641, 646, 649, 650, 660, 672, 676, 678, 686, 689, 692, 697
Argitalgintza
43, 44, 124, 148, 163, 231, 245, 254, 401, 418, 421, 446, 533, 535, 536, 542, 544, 545, 550, 552, 557, 558, 564, 565, 580, 594, 601, 610, 611
Argitalpengintza
Ikus Argitalgintza
Argitaraguneak
47, 69, 77, 112, 139, 339, 404
Argitaraketa
177, 563, 588, 589
Argitaraldia
55, 57, 68, 77, 85, 90, 92, 96, 115, 116, 195, 198, 231, 588, 600
Argitaratzaile berezituak
536, 537, 538, 539, 551
Argitaratzaile instituzionala
302
Argitaratzaile multiberezituak
536, 537, 538, 540, 541
Argitaratzailea
44, 47, 48, 95, 107, 109, 111, 139, 141, 143, 145, 147, 154, 170, 184, 278, 302, 308, 333, 339, 358, 371, 377, 430, 436, 437, 535, 536, 537, 538, 539, 543, 551, 552, 558, 560, 562, 565, 566, 567, 568, 569, 578, 579, 580, 585, 586, 588, 613, 616, 635, 637
Astekaria
95, 103, 105, 106, 107, 108, 109, 110, 111, 140, 141, 144, 163, 520,

677, 678, 679, 685, 688, 689, 690, 699, 707
Atzerria
67, 77, 113, 138, 139, 209, 371, 374, 376, 378, 520, 590, 672, 706
Audiobisuala
Ikus Ikus-entzunezkoa
Autoedizioa
438, 561, 587
Autofinantzaketa
416, 417
Autore-eskubideak
258, 279, 416, 418, 421, 490, 491, 492, 580, 589, 590
Autozentsura
124, 365
Auzo-eskola
103, 104, 118, 230, 690
Banaketa
44, 538, 540, 544, 573, 633, 635, 637, 639, 643, 647, 666
Banaketaria
Ikus Banatzailea
Banatzailea
44, 317, 349, 562, 573, 587, 590, 591, 595, 601, 608, 631, 633, 634, 635, 637, 638, 639, 640, 641, 642, 643, 646, 647, 649, 671, 697, 703
Beka
376, 456, 457, 468, 469, 470, 471, 472, 480, 481, 482, 484, 485, 615, 620
Belaunaldia
38, 39, 75, 80, 100, 128, 129, 130, 132, 133, 138, 151, 152, 194, 242, 267, 275, 297, 321, 329, 330, 331, 333, 336, 344, 345, 346, 347, 349, 350, 351, 352, 353, 392, 393, 397, 398, 399, 400, 401, 405, 412, 414, 415, 426, 428, 441, 559, 560, 561, 564
Berrargitalpena
38, 39, 40, 53, 54, 55, 57, 65, 68, 91, 92, 93, 96, 115, 136, 149, 150, 177, 190, 191, 193, 194, 195, 196, 197, 198, 199, 205, 216, 231, 232, 234, 260, 261, 262, 264, 286, 298, 307, 318, 320, 322, 323, 326, 327, 328, 332, 333, 339, 443, 597, 642
Berredizioa
Ikus Berrargitalpena
Berreuskalduntzea
168, 169
Berrinprimaketa
90, 92, 195, 199
Bezeria
360, 538, 565, 639
Bezeroa
577, 636, 639, 651, 653
Biblioteka
Ikus Liburutegia
Bideoa
29, 40, 170, 277, 295, 481, 536, 539, 549, 550, 551, 553, 634, 644, 654, 691
Bildumagarria
Ikus Faszikulua
Bizibidea (idazlearena)
Ikus Idazlearen ofizioa
Bizilekua (idazlearena)
406, 407, 409
Botaldia
Ikus Tirada
Catalunya
Ikus Katalunia
CD-ROM
30, 31, 294, 309, 494, 507, 509, 549, 550, 553, 576, 702, 706
Cedro
617
Compromiso
Ikus Konpromisoa
Debozio-liburua
115, 118, 194
Diglosia
83, 85, 187, 296, 297, 298, 610, 611, 662
Diktadura
102, 154, 194, 600
Diru-laguntza
46, 102, 131, 160, 164, 165, 170, 209, 216, 246, 248, 275, 277, 291, 374, 375, 376, 379, 470, 474, 486, 519, 617, 616, 620, 621, 625, 675, 683, 685, 694, 697, 698, 700, 703
Disketea
549, 550, 551, 553
Diskoa
47, 170, 277, 536, 550, 552, 553, 570, 649, 671, 689, 695
Distribuidora
Ikus Banatzailea
Durangoko Azoka
597, 606, 624, 633, 649, 677, 689, 693, 695
EAE
131, 226, 270, 271, 272, 274, 310, 407, 408, 512, 564, 684, 696, 698, 700, 702, 703, 705, 706
Easozentrismoa
564
Editora nazionala
Ikus Argitaletxe nazionala
Editore
26, 27, 37, 43, 44, 46, 47, 69, 124, 125, 129, 149, 175, 185, 214, 223, 225, 226, 230, 233, 234, 245, 247, 248, 260, 278, 299, 315, 316, 317, 318, 333, 339, 340, 371, 374, 377, 378, 380, 401, 417, 418, 419, 436, 437, 438, 440, 441, 445, 446, 447, 450, 451, 472, 493, 497, 500, 501, 502, 504, 535, 536, 543, 549, 551, 552, 557, 562, 565, 569, 573, 578, 580, 581, 585, 586, 587, 588, 590, 592, 593, 594, 598, 599, 601, 606, 608, 610, 611, 613, 614, 616, 617, 621, 622, 623, 624, 625, 632, 634, 636, 637, 639, 640, 641, 642, 643, 644, 646, 649, 650, 651, 659, 662, 667, 686, 690
Editore-ofizioa
139, 148, 544, 559
Editorialgintza
137, 139, 148, 246, 259, 304, 349, 537, 544, 546, 560, 564, 579, 612, 618, 643
Egile-argitaratzailea
437, 504, 586, 588, 616
Egokitzapena
214, 262, 267, 273, 360, 542, 548
Ekoizlea
186, 264, 299, 302, 408, 660
Ekoizpen idatzia
42, 186, 660, 665, 666
Ekoizpenaren sabaia
186, 326, 562
Eleberria
24, 29, 45, 47, 125, 126, 128, 138, 153, 220, 249, 251, 285, 305, 324, 325, 326, 329, 331, 332, 342, 360, 361, 365, 393, 449, 458, 508, 542, 551, 553, 590, 612, 619, 650, 662, 664, 702, 706
Eleberrigintza
Ikus Eleberria
Elebiduna
40, 46, 67, 90, 101, 104, 105, 162, 163, 166, 222, 280, 297, 298, 299, 310, 316, 349, 429, 431, 435, 508, 525, 566, 567, 586, 649, 673, 674, 686, 688, 698, 699
Elebitasuna
85, 163, 218, 429, 435, 566, 675, 676, 677, 704
Elektronikoa (liburua)
493, 494, 496, 499, 502, 542, 547, 549, 551
Emakume idazlea
369, 392, 393, 394, 395
Enpresa editoriala
125, 139, 148, 264, 568, 569, 617
Entsegua
Ikus Saioa
Entseiua
Ikus Saioa
Entziklopedia
37, 45, 150, 285, 287, 291, 292, 293, 294, 295, 296, 297, 302, 481, 486, 540, 542, 543, 546, 550, 552, 553, 589, 598, 609, 644, 645, 671, 697, 698, 701, 703, 706,
Entziklopedigintza
Ikus Entziklopedia
Erbestea
127, 148, 153, 702
Erdarapengintza
Ikus Esportazioa
Erdaratu (liburua, literatura)
Ikus Esportazioa

Erdaratzailea
226, 378, 380, 470
Eremu handiak
34, 631 635, 641, 644, 645, 647, 648, 650, 652
Erlijio-liburua
75, 92, 126, l50, 250, 652
Erlijioa/Teologia. Zifrak
93, 117, 178, 204, 211
Erosketa
395, 600, 615, 616, 620, 621, 632, 650
Erosle
27, 29, 30, 44, 149, 150, 365, 539, 589, 601, 632, 636, 644, 645, 660
Errentagarritasuna
379, 574, 575, 580, 582, 583, 618
Eskola
30, 100, 103, 104, 131, 133, 169, 183, 185, 229 230, 242, 243, 247, 264, 265, 268, 273, 274, 275, 277, 278, 280, 296, 309, 310, 311, 321, 337, 364, 394, 401, 402, 415, 425, 452, 453, 455, 471, 486, 497, 503, 504, 537, 540, 542, 543, 546, 552, 564, 570, 596, 609, 652, 664, 666, 677, 678, 682, 684, 690, 698, 705
Eskola-liburua
265, 321, 394, 537, 540, 542, 543, 546, 552, 570, 609
Eskritorea
420, 436, 623
Esku-liburua
104, 118, 632
Eskuizkribua
88, 420, 437, 468, 480, 544, 581, 588, 598
Espainia
78, 81, 82, 100, 102, 119, 123, 129, 130, 139, 152, 159, 181, 195, 210, 217, 247, 266, 267, 270, 271, 274, 306, 310, 375, 380, 391, 426, 435, 456, 458, 463, 464, 489, 503, 512, 535, 536, 538, 539, 540, 543, 545, 546, 548, 579, 593, 594, 601, 608, 634, 636, 637, 639, 641, 642, 644, 648, 650, 662, 671, 672, 673, 674, 675, 683, 685, 693, 695, 704
España
Ikus Espainia
Esportazioa
46, 169, 239, 251, 346, 370, 371, 372, 373, 375, 376, 377, 378, 379, 380, 433, 444, 450, 451, 452, 454, 457, 470, 474, 481, 498, 507, 508, 509, 546, 693
Estandar
63, 130, 345, 363, 519, 542
Estatu Batuak
391, 400, 535, 536, 539, 543, 551, 553, 554, 593
Estatua
70, 90, 100, 112, 125, 139, 170, 188, 195, 236, 269, 270, 273, 274, 279, 307, 350, 448, 520, 553, 612, 619, 622, 674, 675, 676
Estatutu Autonomia
102, 159, 163, 512, 677
Euskadi
271, 391, 459, 460, 613, 623, 662, 674, 683
Euskal Herria
45, 64, 66, 69, 77, 82, 86, 100, 101, 102, 103, 105, 112, 113, 118, 124, 127, 128, 129, 130, 143, 145, 147, 163, 171, 175, 184, 186, 195, 210, 217, 221, 247, 266, 268, 269, 270, 271, 272, 273, 274, 275, 296, 297, 299, 306, 316, 325, 338, 364, 368, 390, 400, 405, 406, 407, 408, 420, 472, 480, 489, 492, 506, 525, 539, 546, 553, 564, 606, 613, 624, 644, 662, 663, 666, 667, 673, 674, 675, 676, 677, 686, 688, 692, 701, 703
Euskal liburugintza
46, 139, 148, 151, 174, 184, 186, 248, 249, 258, 277, 278, 418, 450, 483, 578, 600, 607, 611, 612, 614, 619, 631, 643
Euskal literatura
41, 116, 119, 160, 211, 215, 216, 219, 220, 221, 225, 238, 300, 303, 306, 317, 327, 328, 334, 341, 342, 343, 345, 346, 347, 350, 352, 356, 357, 358, 359, 360, 361, 362, 366, 370, 371, 373, 375, 376, 378, 390, 391, 401, 403, 412, 435, 441, 451, 452, 454, 455, 466, 485, 487, 488, 490, 494, 501, 503, 506, 516, 520, 527, 564, 582, 583, 608, 619, 620, 637, 666, 678, 688, 694
— Ahozko literatura
254, 661
— Literatura garaikidea
322, 329, 343
— Literatura modernoa
81, 250, 343, 358, 359, 362, 394, 435, 523
— Literaturaren autonomia
329, 343, 426
— Literaturaren kalitatea
357, 358, 604
— Literaturtasuna
251, 346, 361, 366
Euskalduntzea
47, 133, 167, 168, 169, 452, 455, 469, 525, 680, 691, 693, 698, 699, 703, 705
Euskaltegia
30, 167, 168, 169, 415, 693, 701
Euskaratu
Ikus Itzulpena
Euskaratzaile
Ikus Itzultzailea
Euskarazko ekoizpena
186, 660, 661, 665, 666
Euskarri elektronikoa
40, 294, 496, 509, 542, 550, 553, 650
Faszikulua
294, 644, 645, 650, 706
Fikziozko literatura
32, 42, 321, 323, 365, 366, 368, 498, 664
Foiletoa
Ikus Liburuxka
Fondoko liburua
40, 245, 653
Fotokopia
278, 279
Frankismoa
38, 39, 47, 102, 105, 123, 124, 125, 126, 127, 129, 131, 132, 136, 139, 148, 149, 153, 174, 175, 177, 178, 191, 193, 194, 195, 202, 231, 232, 246, 259, 260, 296, 306, 315, 322, 340, 560, 631, 632, 66l, 678
Frantzia
69, 78, 81, 82, 93, 99, 112, 131, 138, 139, 163, 170, 181, 195, 196, 210, 217, 270, 271, 306, 338, 339, 380, 391, 400, 408, 410, 411, 418, 442, 453, 456, 512, 534, 535, 536, 537, 538, 539, 540, 542, 543, 545, 546, 552, 553, 584, 585, 588, 593, 594, 601, 606, 608, 634, 636, 637, 639, 641, 644, 645, 648, 650, 652, 701, 702, 703, 704, 706
Gailegoa (liburua, edizioa)
186, 188, 196, 203, 210, 218, 258, 311, 377, 624
Galeuzca
239, 377, 380, 489, 624
Galizia
196, 210, 211, 217, 380, 489
Gau-eskola
169, 452
Generazioa
Ikus Belaunaldia
Giza/gizarte liburua
56, 93, 96, 117, 118, 151, 178, 191, 194, 197, 204, 205, 211, 285, 296, 299, 302, 306, 315
Gramatika
40, 83, 85, 93, 101, 126, 195, 238, 257, 264, 364, 370, 436, 514, 515, 516, 517, 518, 521, 524, 525, 526, 636, 679, 686
Harpidetza
Ikus Abonamendua
Haur eta gazte-literatura
45, 47, 55, 149, 150, 151, 152, 178, 181, 182, 191, 194, 198, 204, 205, 207, 211, 214, 216, 229, 230, 231, 233, 234, 235, 236, 237, 238, 239, 240, 242, 243, 244, 245, 246, 247, 249, 250, 251, 254, 260, 315, 393, 394, 445, 446, 448, 464, 537, 546, 552, 570, 579, 594, 596, 648, 654, 666, 697

Hazaldia
Ikus Belaunaldia
Hedabidea
219, 431, 455, 503, 504, 515, 521, 522
Hegoaldeko idazleak
76, 85, 86, 92, 206, 230
Helduen literatura
56, 151, 192, 194, 198, 216, 237, 238, 392, 570, 594, 602
Herri-literatura
119, 152, 154, 322, 323, 340, 376, 448, 693
Hezkuntz sistema
83, 159, 259, 264, 274, 275, 676, 695
Hezkuntza
40, 93, 133, 160, 166, 181, 225, 247, 257, 264, 266, 268, 269, 274, 275, 277, 279, 280, 298, 309, 310, 393, 412, 480, 520, 539, 554, 598, 615, 618, 652, 675, 697, 702
Hezkuntza/Irakaskuntza. Zifrak
117, 178, 204, 211
Hezkuntza Ministerioa
131, 671, 672, 674, 701, 702
Hezkuntza Saila
46, 47, 131, 161, 167, 259, 272, 273, 275, 278, 279, 480, 683, 691, 696, 702, 705
Hipermerkatua
Ikus Eremu handiak
Hizkuntz politika
47, 64, 126, 160, 161, 290, 519, 522, 525, 694, 696, 698, 703
Hizkuntza minorizatua
126, 171, 188, 195, 196, 380, 411, 686, 690, 696
Hizkuntzalaritza
197, 285, 287, 298, 346, 350, 495, 518
Hiztegia
40, 64, 93, 116, 126, 167, 172, 257, 259, 264, 285, 286, 287, 288, 289, 290, 291, 292, 293, 294, 295, 296, 297, 300, 309, 345, 349, 364, 366, 481, 486, 511, 512, 515, 516, 521, 523, 525, 542, 546, 548, 550, 552, 553, 560, 587, 589, 592, 598, 601, 604, 609, 633, 666, 671, 677, 680, 682, 685, 689, 691, 696, 697, 698, 701, 703, 706
Hiztegigintza
Ikus Hiztegia
Homologagarritasuna
126, 168, 346, 357, 360, 361, 371, 379, 644
Homologazioa
Ikus Homologagarritasuna
Idazle-eskola
352, 455, 469, 490
Idazle-kopurua
Ikus Idazlegoa
Idazleak
— Idazle berria
43, 149, 317, 325, 347, 351, 364, 401, 448, 452, 587, 603
— Idazle-bokazioa
411, 412
— Idazle gaztea
344, 345, 354, 365, 430, 442, 583, 705
— Idazle klasikoak
225, 363, 480, 481, 510, 553, 614, 615, 690, 696
— Idazle kontsakratua
237, 457, 584
— Idazle profesionala
364, 377, 378, 401, 410, 419, 420, 421, 422
— Idazteko motibazioa
324, 423, 434, 438
— Literatur idazlea
209, 226, 349, 511
Idazleak Ikastetxeetan
244, 485, 486, 489, 491, 608, 697
Idazlearen jaioterria
43, 403, 405, 406, 409
Idazlearen ofizioa
139, 148, 224, 301, 305, 374, 389, 395, 402, 408, 413, 414, 417, 421, 423, 425, 430, 431, 434, 435, 469, 492, 493, 544, 559, 607, 652
Idazlegoa
42, 43, 225, 303, 327, 338, 343, 357, 368, 390, 391, 393, 397, 399, 400, 401, 405, 406, 408, 409, 411, 412, 413, 414, 415, 419, 456, 475, 498, 516, 660
Idazleria
Ikus Idazlegoa
Ikasliburua
24, 169, 230, 231, 276, 277
Ikasmateriala
42 56, 257, 266, 269, 270, 272, 273, 275, 276, 277, 278, 285, 349, 561, 564, 589, 666, 683
Ikastola
38, 131, 133, 137, 231, 242, 243, 250, 259, 278, 279, 280, 336, 394, 415, 469, 511, 560, 633, 653, 672, 674, 680, 700, 704, 705
Ikus-entzunezkoa
277, 499, 508, 533, 540, 541, 542, 650, 652, 689
Ilustratzailea
43, 249, 251, 252, 254, 267, 590, 683
Ilustrazioa
249, 254, 258, 269, 272, 295, 418, 552, 573
Inprenta
Ikus Inprimategia
Inprimategia
38, 69, 70, 76, 77, 78, 92, 523, 547, 548, 559, 562, 572, 573, 578, 584, 588
Inprimatzailea
88, 148, 421, 559, 595
Interpretaritza
222, 224
Iparraldeko idazleak
66, 76, 85, 86, 87, 92, 206, 230
Ipuina
24, 38, 45, 47, 125, 237, 247, 249, 250, 251, 257, 324, 325, 326, 329, 330, 331, 332, 354, 362, 425, 439, 459, 604, 621, 680,
Irakaskuntza-liburua
151, 187, 191, 194, 198, 205, 214, 246, 257, 258, 259, 260, 261, 262, 278, 285, 392, 666
Irakurketa
38, 44, 243, 257, 350, 355, 413, 444, 450, 453, 471, 481, 484, 486, 487, 494, 502, 504, 507, 534, 549, 550, 551, 572, 573, 595, 618, 620, 659, 661, 664, 665, 666, 667
Irakurle-kluba
418, 491, 540, 590, 636, 643, 644, 645, 648, 650, 674
Irakurlegoa
79, 87, 149, 150, 179, 180, 181, 185, 186, 187, 194, 195, 222, 300, 316, 325, 333, 338, 347, 364, 366, 380, 390, 431, 435, 449, 450, 451, 452, 453, 469, 474, 485, 487, 491, 492, 497, 502, 504, 505, 506, 507, 508, 582, 600, 607, 610, 611, 612, 613, 642, 645, 659, 660, 661, 662, 663, 664, 666
Irakurleria
Ikus Irakurlegoa
Irakurtzaletasuna
183, 184, 186, 229, 452, 453, 469,596, 660, 661
Irratia
126, 162, 163, 218, 353, 391, 408, 414, 419, 453, 470, 485, 487, 492, 503, 536, 600, 601, 653, 671, 675, 677, 679, 680, 681, 682, 685, 686, 688, 690, 691, 692, 693, 694, 695, 697, 698, 703, 706
ISBN
40, 257, 311, 557, 558, 603, 617, 641
Italia
195, 210, 217, 401, 536, 538, 539, 540, 548, 608, 636, 648, 650
Itzulitako liburua
Ikus Itzulpena
Itzulketa
640, 641, 642, 643, 648, 651
Itzulpen-erdarapena
Ikus Esportazioa
Itzulpena
25, 27, 33, 38, 39, 40, 46, 53, 54, 63, 66, 67, 68, 81, 82, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 114, 115, 126, 136, 137, 149, 150, 152, 153, 177, 182, 199,

203, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 214, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 226, 230, 231, 232, 233, 234, 235, 236, 238, 239, 240, 242, 243, 245, 249, 251, 254, 260, 261, 262, 263, 264, 268, 269, 272, 293, 297, 298, 302, 307, 309, 318, 319, 320, 325, 326, 327, 328, 330, 332, 333, 339, 360, 361, 363, 364, 370, 372, 373, 374, 375, 376, 377, 380, 381, 382, 384, 385, 392, 393, 414, 434, 436, 439, 469, 470, 484, 504, 507, 517, 523, 582, 590, 596, 614, 686, 692, 694, 696, 702, 705, 706
Itzulpengintza
206, 207, 208, 209, 217, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 235, 236, 251, 327, 361, 372, 375, 454, 474, 517
Itzultzailea
25, 26, 27, 29, 42, 43, 44, 46, 89, 206, 208, 209, 211, 212, 216, 217, 218, 220, 221, 222, 223, 224, 226, 233, 240, 245, 247, 262, 289, 311, 364, 375, 377, 378, 380, 381, 382, 383, 384, 385, 413, 414, 448, 470, 488, 489, 526, 571, 578, 590, 675, 679, 691, 692, 694
Jakintza
102, 117, 140, 147, 180, 280, 287, 288, 292, 298, 299, 304, 305, 344, 432, 521, 564, 689
Jatorrizko hizkuntza
216, 370, 411
Jatorrizko liburua
39, 40, 46, 53, 54, 68, 115, 136, 149, 177, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 210, 221, 232, 235, 238, 245, 254, 260, 261, 262, 263, 318, 319, 326, 328, 332, 333, 339, 340, 380
Jaurlaritza
44, 46, 47, 48, 123, 131, 133, 141, 143, 159, 161, 162, 164, 165, 167, 168, 169, 172, 175, 222, 223, 226, 259, 261, 268, 271, 272, 273, 274, 275, 276, 278, 279, 289, 290, 291, 299, 309, 375, 417, 452, 458, 459, 460, 463, 464, 465, 466, 480, 481, 483, 486, 494, 525, 557, 565, 613, 614, 615, 616, 618, 620, 621, 622, 638, 663, 678, 679, 680, 681, 682, 683, 684, 685, 686, 688, 689, 690, 691, 692, 693, 694, 695, 696, 697, 698, 699, 701, 702, 703, 704, 705, 706, 707
Jenerazioa
Ikus Belaunaldia
Kanporatu (liburua, literatura)
Ikus Esportazioa
Kanpotiarra
152, 246, 247, 248, 249
Kantagintza
115, 117, 136, 153, 170, 349, 649, 678, 690, 693, 695, 699
Kant(u)a
Ikus Kantagintza
Kasetea
40, 277, 549, 550, 689
Katalana (liburua, edizioa)
46, 186, 188, 190, 196, 203, 209, 210, 217, 218, 258, 273, 311, 350, 377, 485, 624, 672
Katalunia
119, 139, 190, 210, 217, 273, 274, 350, 378, 380, 489
Katixima
65, 66, 67, 89, 90, 115, 118, 194
Kazeta
164, 408
Kazetaria
32, 42, 128, 164, 166, 278, 349, 403, 413, 414, 501, 516, 571, 584, 653, 675, 683, 694
Kazetaritza
45, 105, 163, 302, 348, 349, 399, 415, 429, 440, 466, 481, 690, 693
Kioskoa
29, 34, 316, 550, 578, 631, 644, 645, 647, 648, 650, 651
Koedizioa
236, 239, 245, 377, 533, 537, 539
Koefiziente biderkatzailea
590, 591, 593
Kolonizazioa
100, 187, 233, 236, 248, 350
Komertzializazioa
44, 317, 365, 420, 539, 561, 569, 586, 593, 618, 633, 634, 640, 641, 642, 644
Komikia
168, 249, 537, 542, 664, 691
Komunikabidea
89, 100, 160, 185, 211, 218, 222, 223, 287, 296, 297, 316, 325, 342, 391, 401, 452, 453, 454, 455, 470, 471, 474, 503, 508, 533, 547, 572, 573, 574, 600, 601, 606, 608, 620, 660, 682, 698, 700, 701
Konpromisoa
34, 138, 247, 291, 305, 345, 347, 352, 362, 394, 402, 426, 427, 428, 433, 434, 491, 576, 602, 608, 639
Kontzentrazio editoriala
496, 533, 539, 542, 543, 544, 545
Kontzentrazio geografikoa
78, 113, 406, 408
Koproduzioa
689
Kostua
— Edizioarena
267, 268, 285, 454, 545, 589, 590, 615, 616
— Komertzializazioarena
589, 593, 640, 641
— Liburuarena
245, 267, 285, 584, 589, 590, 591, 641
Kreditu-salmenta
644, 645
Krisia (literaturakoa)
100, 129, 136, 153, 224, 235, 321, 346, 347, 348, 350, 354, 560, 561, 619, 622, 632, 651
Kristau dotrina
66, 93, 103, 125
Kritika (literaturakoa)
238, 289, 290, 302, 303, 304, 305, 316, 317, 324, 347, 353, 356, 358, 365, 442, 447, 464
Kultur politika
111, 175, 453, 490, 560, 579, 615, 618
Kultura Saila
31, 46, 47, 48, 160, 161, 164, 165, 167, 168, 225, 226, 375, 377, 48O, 48l, 483, 615, 616, 678, 680, 682, 683, 685, 686, 689, 693, 702, 703
Labealdi
350, 397, 398, 399, 415
Laguntza-politika
Ikus Subentzioa
Lanbidea (idazlearena)
Ikus Idazlearen ofizioa
Lehen argitalpena
Ikus Lehen argitaraldia
Lehen argitaraldia
39, 53, 54, 55, 56, 57, 68, 90, 91, 92, 96, 105, 114, 115, 117, 119, 136, 148, 149, 177, 183, 190, 191, 192, 195, 196, 197, 199, 202, 203, 207, 229, 231, 232, 234, 235, 259, 260, 261, 262, 263, 298, 307, 315, 318, 319, 320, 321, 322, 326, 327, 328, 333, 339, 340, 438, 511, 591, 597, 600, 601, 616, 631, 639, 640, 641, 642, 643, 651, 652, 662, 680, 702
Lehen edizioa
Ikus Lehen argitaraldia
Lehiaketa (literaturakoa)
Ikus Literatur saria
Liburu-denda
30, 32, 46, 150, 184, 238, 259, 316, 317, 318, 349, 442, 503, 544, 545, 552, 562, 573, 578, 590, 591, 595, 601, 608, 631, 632, 634, 635, 636, 637, 639, 640, 641, 642, 643, 644, 645, 647, 648, 650, 651, 652, 653, 654, 655
Liburu-politika
44, 137, 150, 187, 189, 376, 437, 445, 446, 450, 451, 471, 480, 481, 484, 487, 581, 610, 611, 613, 616, 617, 618, 643
Liburu-produkzioa
41, 101, 184, 187, 190, 205, 229, 320, 373, 376, 404, 445, 535, 567, 570, 573, 584, 651
Liburutegia
46, 175, 379, 420, 469, 480, 486,

487, 503, 514, 588, 601, 612, 620, 621, 635, 705
Liburuxka
40, 53, 55, 76, 104, 150, 238, 331, 548
Linguistika
152, 222, 299, 516
Lirika
153, 220, 329, 333
Literatur saria
45, 46, 104, 170, 233, 238, 250, 330, 342, 343, 354, 374, 420, 456, 457, 458, 459, 468, 469, 470, 471, 472, 481, 491, 512, 514, 679, 680
Literatur-generoa
45, 119, 138, 153, 243, 251, 300, 319, 321, 322, 323, 324, 327, 329, 330, 331, 332, 339, 360, 361, 393, 414, 445, 446, 447, 448, 449, 457, 491, 501, 536, 551, 583, 584
Literatura
— Literatur liburuaren berrargitalpena 198, 199, 216, 318, 326
— Literatur liburuaren itzulpena 138, 208, 211, 214, 215, 216, 219, 220
— Literatur produkzioaren eboluzioa 41, 55, 56, 93, 96, 117, 118, 119, 138, 139, 149, 151, 153, 178, 181, 182, 187, 192, 194, 205, 315, 320, 322, 323, 594
Literaturzalea
347, 358, 363, 469, 571, 667
Lubaki Banda
353, 354, 701, 705
Marketing
186, 216, 267, 365, 453, 517, 540, 554, 582, 606, 651, 660
Merkatua
44, 56, 87, 99, 118, 137, 139, 149, I50, 177, 180, 182, 184, 185, 186, 187, 191, 195, 198, 205, 208, 234, 235, 245, 247, 248, 251, 259, 260, 262, 264, 266, 268, 269, 278, 291, 295, 298, 299, 312, 316, 317, 318, 333, 340, 352, 360, 365, 370, 374, 375, 376, 377, 378, 380, 415, 420, 446, 447, 449, 453, 469, 471, 494, 499, 501, 506, 507, 508, 509, 533, 536, 537, 538, 539, 540, 541, 542, 545, 550, 553, 561, 562, 574, 575, 576, 579, 580, 587, 588, 589, 590, 593, 595, 596, 600, 601, 605, 606, 610, 611, 612, 618, 619, 620, 632, 635, 636, 637, 645, 649, 659, 663, 666
— Merkatuaren sabaia 185, 562, 642
— Merkatuaren saturazioa 137, 182, 234, 596, 650
Metodo
85, 231, 264, 289, 390, 537, 587, 592, 606, 619, 621, 633, 689
Metodologia
257, 258, 292, 337
Mezenas
76, 133, 150, 416, 417, 456, 661
Militantea
132, 164, 352, 422, 432, 622
Militantzia
34, 247, 345, 362, 424, 445, 561, 585
Multimedia
31, 40, 159, 294, 295, 296, 415, 421, 492, 493, 494, 508, 535, 536, 538, 540, 541, 547, 549, 550, 553, 608, 609, 703
Musika
117, 170, 277, 287, 299, 410, 570, 571, 634, 644, 649, 654, 672, 673, 682, 702, 706
Narratiba
45, 119, 120, 152, 153, 209, 220, 244, 251, 318, 319, 322, 323, 325, 326, 328, 329, 331, 332, 335, 338, 340, 346, 347, 357, 360, 362, 394, 445, 446, 448, 449, 458, 583, 584, 595, 641, 648, 695
Narrazioa
236, 238, 249, 322, 474
Nazioarteko argitaratzaileak
43, 538, 539
Nobedadea
Ikus Lehen argitaraldia
Nobela
Ikus Eleberria
Nobelagilea
324, 325, 361
Nobelagintza
Ikus Eleberria
Ogibidea (idazlearena)
Ikus Idazlearen ofizioa
Olerkaria
153, 336, 416
Olerkia
45, 47, 76, 96, 119, 120, 125, 126, 138, 152, 153, 249, 320, 322, 323, 324, 332, 333, 334, 336, 338, 339, 340, 362, 394, 439, 444, 445, 446, 447, 448, 449, 462, 474, 551, 552, 618, 664
Olerkigintza
Ikus Olerkia
Ordenagailua
25, 26, 30, 496, 498, 500, 508, 517, 551, 553, 651
Paper-denda
644, 645, 647, 648, 652, 659
Pedagogia (liburua)
166, 167, 187, 243, 244, 262, 303, 671
Pentsamendua (liburua)
130, 132, 181, 302, 303, 304, 305, 365, 552, 673, 686
Pizkundea
39, 47, 55, 101, 113, 114, 116, 118, 119, 153, 170, 174, 175, 202, 230, 259, 322, 339, 405, 415, 681, 692, 694, 702, 705
Plusbalioa
580, 584, 619
Poema
23, 24, 29, 35, 249, 250, 306, 334, 335, 336, 342, 354, 355, 456
Poesi(a)gintza
Ikus Poesia
Poesia
24, 29, 30, 31, 180, 209, 220, 251, 305, 306, 322, 330, 332, 333, 334, 335, 336, 338, 339, 342, 343, 355, 362, 376, 393, 436, 447, 448, 449, 450, 488, 489, 583, 584, 619, 622, 676, 680, 696, 700
Poeta
303, 304, 324, 334, 335, 336, 343, 696, 700
Politika editoriala
44, 137, 150, 376, 643
Prentsa
42, 128, 163, 166, 171, 186, 218, 305, 331, 353, 357, 426, 536, 540, 541, 542, 572, 601, 652, 671, 691, 696
Produkzio intelektuala
68, 85, 124, 125, 421, 450, 451, 453 455, 507, 558
Produkzioa (liburuarena)
38, 39, 41, 66, 68, 69, 85, 90, 91, 92, 93, 96, 101, 114, 116, 118, 124, 125, 136, 137, 138, 139, 148, 149, 150, 151, 154, 175, 179, 180, 181, 184, 185, 186, 187, 190, 191, 192, 193, 195, 196, 197, 202, 205, 206, 208, 214, 229, 232, 233, 235, 247, 248, 249, 250, 251, 258, 259, 260, 268, 269, 278, 291, 297, 298, 299, 302, 303, 305, 307, 319, 320, 322, 326, 329, 330, 332, 339, 347, 350, 360, 391, 393, 396, 403, 404, 421, 432, 439, 445, 450, 451, 453, 454, 455, 495, 502, 503, 505, 507, 508, 523, 535, 542, 545, 551, 447, 558, 562, 565, 566, 567, 570, 573, 574, 575, 576, 578, 684, 586, 618, 624, 632, 637, 644, 651
Profesionaltasuna
— Editorea 137, 139, 148, 183, 379, 401, 419, 452, 563, 576, 580, 585, 586, 597, 618, 622
— Idazlea 316, 364, 377, 378, 394, 401, 403, 410, 417, 419, 420, 421, 422, 423, 430, 443, 448, 449, 452, 454, 455, 468, 469, 471, 491, 498
— Komertzializazioa 450, 647, 651

Promozioa (liburuarena)
69, 89, I50, 184, 236, 259, 267, 302, 316, 349, 364, 373, 374, 375, 376, 379, 380, 424, 441, 442, 443, 444, 447, 449, 450, 451, 452, 453, 454, 455, 457, 469, 471, 474, 480, 481, 484, 485, 486, 487, 490, 492, 501, 503, 516, 537, 542, 544, 562, 570, 585, 586, 588, 590, 593, 600, 601, 606, 608, 619, 634, 639, 660
Prosa
76, 96, 128, 209, 226, 300, 305, 336, 365, 420
Publiko irakurlea
297, 390, 400, 401, 406, 468, 598, 650, 651, 665
Saiakera
Ikus Saioa
Saioa
27, 47, 63, 67, 81, 82, 86, 99, 118, 125, 126, 137, 152, 167, 180, 187, 209, 230, 231, 244, 254, 297, 298, 300, 301, 303, 304, 305, 321, 340, 342, 343, 344, 354, 366, 368, 377, 393, 403, 445, 446, 447, 448, 449, 450, 466, 468, 472, 474, 485, 489, 495, 505, 508, 547, 553, 560, 587, 600, 606, 607, 618, 622, 632, 644, 648, 671, 689, 692, 702, 704
Saiogintza
Ikus Saioa
Salmenta
29, 30, 44, 185, 195, 209, 247, 258, 259, 272, 278, 285, 312, 316, 317, 442, 444, 448, 550, 554, 562, 573, 582, 583, 588, 589, 592, 593, 618, 631, 633, 635, 636, 637, 640, 641, 644, 645, 646, 647, 648, 650, 651, 652, 653, 666
Salmenta-prezioa
276, 278, 418, 441, 486, 507, 586, 589, 590, 591, 593, 624, 640kopro
Salmentagunea
631, 637, 639, 641, 647, 648, 650, 652
Sariketa (literaturakoa)
Ikus Literatur saria
Sorkuntza
43, 48, 180, 187, 207, 209, 210, 216, 218, 232, 233, 235, 251, 267, 297, 305, 326, 333, 340, 376, 410, 414, 415, 429, 447, 450, 451, 468, 472, 480, 481, 482, 542, 564, 607, 608, 610, 611, 615, 618, 620
Sormena
235, 269, 424, 433
Soziolinguistika
65, 166, 171, 221, 297, 299, 514, 523, 550, 607, 610, 693, 704
Subentzioa
46, 164, 246, 294, 366, 374, 417, 453, 469, 576, 587, 615, 616, 617, 618, 619, 622, 623, 674
Supermerkatua
Ikus Eremu handiak
Sustapena (liburuarena, literaturarena)
316, 317, 448, 451, 453, 471, 481, 486, 492, 508, 573, 574, 614, 620, 660, 665
Teatroa
Ikus Antzerkia
Telebista
162, 163, 183, 216, 237, 277, 299, 337, 353, 379, 391, 408, 414, 453, 455, 485, 487, 492, 503, 504, 505, 507, 508, 536, 540, 541, 548, 553, 590, 596, 601, 606, 607, 608, 643, 671, 681, 683, 691, 694, 700, 701, 704, 705, 706
Telematikoa
288, 295, 310, 548
Testu-hiztegia
285, 286, 287, 291, 297
Testu-liburua
181, 278
Testugintza
83, 104, 118, 167, 221, 424, 570, 580, 587
Testuliburua
104, 211, 247, 254, 257, 258, 259, 264, 269, 270, 272, 273, 274, 275, 278, 279, 280, 281, 288, 309, 418, 445, 589, 594, 595, 620, 622, 633, 641, 666, 683
Tirada
38, 76, 89, 92, 114, 118, 150, 165, 182, 183, 184, 186, 199, 230, 234, 245, 262, 264, 267, 278, 279, 280, 281, 285, 323, 333, 339, 417, 418, 543, 545, 551, 589, 590, 593, 594, 596, 597, 598, 612, 641, 659, 662
Titulu berria
93, 117, 149, 150, 184, 191, 232, 234, 235, 279, 322, 573, 639, 640, 641
Unibertsitatea
44, 65, 79, 86, 100, 102, 103, 132, 133, 137, 166, 185, 197, 222, 223, 225, 226, 238, 264, 265, 278, 279, 287, 288, 289, 296, 299, 300, 301, 302, 308, 310, 321, 345, 348, 352, 376, 379, 389, 399, 412, 414, 557, 564, 565, 569, 581, 612, 638, 652, 671, 672, 673, 674, 675, 676, 677, 678, 680, 681, 684, 688, 689, 691, 693, 695, 703, 704, 707
Zabalkundea
81, 82, 102, 248, 296, 360, 376, 431, 432, 455, 494, 508, 564, 622, 645
Zentsura
47, 70, 88, 119, 123, 124, 125, 126, 127, 136, 148, 154, 231, 349, 447, 452, 612, 613
Zinea
Ikus Zinema
Zinema
24, 29, 37, 40, 215, 246, 299, 306, 334, 335, 344, 414, 536, 541, 548, 553, 571, 582, 608, 611, 643, 673, 674, 676, 677, 678, 680, 693, 701, 702, 704, 706
Zinemagintza
Ikus Zinema
Zuzentzailea
26, 29, 223, 250, 26, 29, 691, 694, 703

Aurkibide onomastikoa

Abásolo Mendibil, José
145, 147
Abeletxe
111, 141, 459, 691
Adema
76
Adema, J. Blaise
512
Agerre, Jose
512
Agirre Lasarte, Ramon
465
Agirre, Edorta
383
Agirre, Jabier
49
Agirre, Jose Antonio
130
Agirre, Jose Maria
Ikus Lizardi
Agirre, Joxean
159, 330, 398, 459, 467
Agirre, Juan Bautista
75, 118, 303
Agirre, Tomas
120
Agirre, Txomin
120, 415, 416, 512
Agirre, Xabier
275
Agirreazaldegi, Alberto
288
Agirreazkuenaga, Joseba
163
Agirrebaltzategi, Paulo
166, 171, 287, 292, 294, 295, 296, 612, 706
Agirretxe, Eugenio
141, 167
Agostino, Perani
381
Agud, M.
141
Aguerre, José
111
Ahamendaburu, Jakes
172
Ahedo Santisteban, A. Manuel
464
Aierbe, Enrike
562, 607, 612, 613, 624
Aintziart, Piarres
175
Aire, Fernando
Ikus Xalbador
Aire, Henriette
178
Aitzol
101, 111, 132, 138, 305, 306, 662
Aizarna, Santiago
671
Aizpuru, Iñaki
686
Aizpuru, Mikel
308
Aizpurua Garaialde, Patxi
462
Aizpurua, Jose Ramon
49, 295
Aizpurua, Xabier
46
Ajuriagerra, Julian
674
Akesolo, Lino
286, 512, 687, 692, 696
Alberdi, Pedro
179, 460, 461
Albisu Aierdi, Anastasio
459, 465
Albisu Iriarte, Mikel
Ikus Antza, Mikel
Albisu, Ane
392
Albreteko, Joana
64
Aldabe, Koldo
467
Aldai, Xabier
181, 334
Aldalur Agerrista, Arantza
184, 463
Aldalur Agerrista, Arantza
463
Aldaz, Algel
699
Aldekoa Beitia, Iñaki
47, 185, 301, 334, 399, 461
Aldekoa-Otalora, A.M.
649
Alegria, Edurne
381
Alkain Udarregi, Juan Jose
705
Alkain, Iñaki
687
Alkain, Periko
186
Alkorta, Itziar
187, 392
Alli, Juan Cruz
698, 699, 700
Alonso Fourcade, Jon
462, 466
Altonaga, Kepa
308
Altube, Seber
141
Altuna, Jesus
152, 675
Altuna, Joseba
104, 230
Altuna, Patxi
190, 225, 513, 677
Altzaga, Toribio
107, 120
Altzo'ko Olano'tar, M.
111
Alvarez Enparantza, Jose Luis
Ikus Txillardegi
Alvarez Forcada, Maddi
385
Alzola, Nikolas
682, 687
Ameztoi, Koldo
198
Amonarriz, Kike
186, 660, 689
Amundarain, Dionisio
205, 702
Amundarain, Markos
143
Amuriza, Xabier
210, 337, 398, 678, 682
Amutxastegi, Raimundo
46
Anabitarte Irazu, Agustin
120, 681, 687
Anasagasti, Iñaki
142
Anasagasti, Koldo
162
Anasagasti, Pedro
383
Andueza Altuna, Jon
399, 461, 462, 467, 606
Añibarro, Pedro Antonio
75
Añorga, Pello
220, 397
Anselmi, Luigi
335
Ansola, Gurutz
211, 398
Ansorena, Jokin
46, 460
Ansorena, Jose Ignacio
463
Antia
116
Antiguedad Auzmendi, Iñaki
216, 460
Antza, Mikel
180, 330, 350, 420, 456, 460, 467, 580
Apalategi, Jokin
152, 221, 398
Apalategi, Joxemartin
222, 303, 398

Apalategi, Manuel Maria
686, 687
Apalategi, Patxi
221
Apeztegia, Joxean
48, 49
Apraiz, Anjel
102
Apraiz, J.
101
Apraiz, Odon
685
Aramburu, J.
145
Arana Goiri, Sabino
80, 101, 103, 104, 107, 126
Arana Luzuriaga, Aitor
224, 399, 461, 464, 465
Arana Martija, Jose Antonio
71, 226, 398, 513
Aranalde, Jose Mari
230, 398, 462
Aranart, Philip
681
Aranart, Philipe
687
Aranaz, Txema
599, 609
Aranbarri, Iñigo
231, 330, 334, 460, 621
Aranbarri, Simon
687, 701
Aranberri "Amatiño", Luis Alberto
161, 162, 168, 466, 680, 686, 688, 696
Aranbillaga
67, 70
Aranburu, Iñigo
461
Aranburu, Juantxo
653
Aranburu, Pello Joxe
233
Aranguren, Hasier
399
Aranguren, Jorge
704
Arano, Jon Mikel
236, 299, 467
Arantzibia
398, 424
Arbelbide
76
Arbelbide Mendiburu, Xipri
237, 398, 459, 466
Ardanza, Jose Antonio
161, 700
Areizaga, Andoni
162, 688
Arejita, Adolfo
238
Aresti, Gabriel
31, 35, 81, 124, 153, 336, 341, 343, 366, 398, 415, 416, 462, 463, 465, 474, 489, 687, 689
Argaignaratz
64, 70
Argote, Juan
109
Aristi Urtuzaga, Pako
239, 330, 331, 356, 399, 460, 467
Ariztimuño, Jose
Ikus Aitzol
Ariztondo, Josune
161, 168
Arkotxa
153
Arkotxa Martija, Jose Antonio
465
Arkotxa, Aurelia
242
Armendariz, Montxo
681
Arozamena
141
Arozamena, J.Mª
145
Arozena, A.
141
Arozena, Eugenio
243
Arregi Diaz de Heredia, Rikardo
245, 464
Arregi, Begoña
392
Arregi, Iñigo
467
Arregi, Joseba
161, 164, 165, 466, 685, 693
Arregi, Mikel
46, 244, 398
Arregi, Natxo
231
Arregi, Rikardo
136, 137, 138, 169, 335, 366, 693
Arrese Beitia, Felipe
120
Arrese, Emeterio
120, 153
Arrese, Gorka
216, 226, 547, 606, 607, 613
Arretxe, Jon
247, 331, 399
Arrieta
143
Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda
249, 465
Arrieta Ugartetxea, Joxe Austin
220, 248, 324, 330, 335, 381, 398, 458, 463, 464, 475, 479, 480
Arrieta, Jesus Mari
246
Arrinda, Anastasio
254
Arriolabengoa, Julen
257
Arrue Zarauz, Antonio
141, 671, 687
Arteta, Ainhoa
700
Artetxe, Jexux
461
Artiagoitia, Xabier
259
Artiñano, Aristides
101
Artola Sagarzazu, Fernando
Ikus Bordari
Artola, Jose
119
Artxu, J.B.
85, 93
Artze, Joxean
Ikus Hartzabal
Arzac, A.
107
Arzadun
92
Arzalluz, Xabier
143, 699
Arzelus, Xabier
262
Arzubiaga, Zirilo
109, 141
Asiain
70
Astarloa, Pedro
75, 86
Astete, Gaspar
90, 92, 116
Astigarraga, Asier
595
Astigarraga, Luis
85
Astiz, Miguel A.
143
Astola, Mª Concepción
143
Astrain, L.
252
Ataño
399, 651
Atutxa Egiraun, Juan Mari
264, 459, 461
Atxaga, Bernardo
43, 46, 184, 199, 210, 240, 243, 250, 306, 324, 325, 330, 332, 334, 341, 343, 345, 347, 368, 374, 376, 377, 378, 380, 381, 382, 383, 397, 401, 410, 415, 416, 426, 435, 436, 458, 459, 460, 463, 475, 476, 480, 675, 690, 693
Atxaga, Mikel
265, 398
Aulestia, Gorka
266, 287, 696
Aurraitz
267, 398
Aurre-Apraiz, Balendin
Ikus Aurraitz

Aurtenetxe, Carlos
704
Axular
63, 64, 65, 67, 79, 132, 152, 305, 347, 392, 415, 416, 553
Ayalde
75, 78
Azkarate, Miren
513, 698
Azkona Gartzia, Jose Felix
464
Azkona, Victor
701
Azkue Ibarbia, Imanol
462
Azkue, Ane Miren
461
Azkue, Jokin
168
Azkue, Resurrección Mª
101, 103, 105, 107, 118, 120, 132, 254, 286, 290, 297, 330, 512, 513, 679
Azkune, Iñaki
268
Azpeitia Gomez, Julene
687
Azpiazu, Iñaki
141
Azpilikueta, Martin
86
Azpiroz, Juan
70
Azurmendi, José Félix
467, 683, 685
Azurmendi, Josemari
462
Azurmendi, Joxe
49, 153, 220, 269, 289, 290, 300, 336, 346, 347, 348, 350, 351, 352, 353, 366, 368, 383, 398, 416, 466, 474, 475, 479, 480, 599, 619, 705
Azurmendi, Mikel
270, 398
Azurmendi, Nerea
391, 392, 403, 460, 467
Azurmendi, Xabier
153, 271, 398
Azurza, Miren Jone
392
Bakaikoa, Baleren
272, 308, 398, 691
Bakedano
679
Balentzia Tirapu, Joakin
273, 464
Balerdi, Xefe
465
Balzola, Asun
252
Bandres, Luis Mari
147, 161, 274, 309, 398, 686, 689
Baraiazarra Txertudi, Luis
275, 463
Baraibar, Federico
101
Barandiaran, Alberto
467
Barandiaran, Bixente
278
Barandiaran, Gaizka
466
Barandiaran, Iñigo
48
Barandiaran, Joxemiel
101, 102, 109, 118, 129, 141, 143, 254, 297, 330, 674, 679, 687, 697, 698, 700, 701
Baratziart
76
Barbera, Emilio
310, 689
Barbier, Jean
120
Baroja, Pio
676
Baroja, Serafín
107
Barrenetxea Uribasterra, Nikolas
687, 691
Barriola, L.A.
120
Barrueta, Luis
109
Barthes, R.
303
Bartolome, Frai
75, 87
Basarri
304, 398, 681, 696
Basterretxea Mantoni, Jose
Ikus Oskillaso
Basterretxea, Nestor
674, 677, 701
Baxok, Erramun
170
Bayo, Aitor
48, 49
Bayrou, François
702
Baztarrika, Patxi
46
Beazkoetxea, Arsenio
109
Becerro de Bengoa, Ricardo
101
Beckett, Samuel
23, 599
Begiristain, Arantxa
49
Begiristain, Iñaki
685, 687
Beitia, Luis
278
Beizama, Bonifacio
143
Belmonte Fdez. de Larrinoa, Joxe
280, 462
Belmonte, J.
252
Beloki Zapirain, José Ramón
460, 694, 695
Beloki, Joxe Ramon
164, 653
Beltza
453
Beltzunegi, Fabiola
252
Benet
209
Bera-Mendizabal
286
Berasategi, Joakin
611, 624
Berasategi, Juanba
679, 688, 698
Berasategi, Pio
281, 460
Bergamin, Jose
684
Beriain, Juan
66, 70
Berlusconi
540
Bermejo, Alvaro
460
Bernaola Lejarza, Iñaki
459, 461
Berriatua Ibieta, Imanol
687
Berrizbeitia, Luis
48, 334, 399, 463
Betolaza
66, 70
Bidegarai, Domingo
64
Bidezabal Arruti, Mª Carmen
460
Biguri Otxoa de Eribe, Koldo
221, 286, 461, 462
Bilbao, Antonio
462, 463
Bilbao, Begoña
287, 461
Bilbao, Bernardino
145
Bilbao, Jon
39, 702
Bilbao, Leon
695
Bilbao, Rapha
587
Bilintx
675
Blanco Aguinaga
681
Bonada, Lluis
190
Bonaparte, Luis Luciano
76, 80, 93, 206, 480
Borda, Itxaro
289, 334, 392, 399, 621

Bordari
153, 459, 683, 687
Bouvaist, Jean-Marie
544
Bozas Urrutia, Rodolfo
675, 687
Braque
300
Broussain, Pierre
512
Buesa, Fernando
131, 273, 696
Bujanda Arizmendi, Joxe Manuel
461
Burgo, Jaime Ignacio del
102, 676
Burillo, Pedro
160
Bustintza, Basilia
392
Bustintza, Ebaristo
Ikus Kirikiño
Bustintza, Errose
392
Calleja, Seve
241, 384, 460
Camblong, Ramuntxo
170
Campion, Arturo
100, 102, 107
Campos, Antonio
131
Candau, J.
107
Cano Jauregi, Harkaitz
23, 38, 290, 334, 353, 399, 461, 462, 464, 621
Carballo, Daniel
461
Caro Baroja, Julio
676, 681, 687, 705
Carrasquedo, Jacinto
465
Casenave Harigile, Junes
292, 464, 465
Casenave, Jon
291, 330, 336, 463
Cathala, Joel
707
Cavero, Iñigo
675
Cervantes
328
Cillero Goiriastuena, Francisco Javier
294, 399, 465
Claret
116
Cole de Ibarra, Pedro
70
D'Abbadie, Antoine
76, 206
Dargaignaratz, P.
141
Daskonaguerre
76, 89
Dassance, Louis
109, 111, 141, 671, 687
Davant, Jean Louis
125, 296, 463, 465, 513
De Isusi Garcia, Luis
464
Detcheverry, Piarres
66
Diaz Noci, Javier
47
Diaz Urbieta, Arantza
462
Diderot
592
Diego, Fr.
86
Diez de Ulzurrun Ezkurdia, Pedro
687
Diez de Ulzurrun, Pedro
687
Diharce, Jean-Marie
Ikus Iratzeder
Dirassar, Janbattit
298
Dominguez, A.
252
Doñabeitia, S.
111
Duny-Petre, E.
147
Duvoisin, Jean
76, 107
Egaña Makazaga, Andoni
299, 331, 337, 461, 466, 701
Egaña Mitxelena, Gotzon
464
Egaña, X.
252
Egieder
153
Egiguren, Rafael
302
Eguillor, Juan Carlos
252
Eguren, Juan María
85
Eguskitza, Juan Bautista
118, 512
Eguzkitza, Andolin
303, 397
Eizmendi, Iñaki
Ikus Basarri
Eleizalde, Luis
104, 107. 109, 138, 512
Elexpuru Arregi, Juan Martin
305, 331, 397, 460, 706
Elgezabal, Kosme
512, 699
Elias Odriozola, Imanol
306, 460, 463, 465
Elizalde, Maurizio
698
Elizanburu, Jean Baptiste
76, 170
Elizegi, Katalina
120, 392
Elizgarai, Mayi
685, 687
Elorriaga, Xabier
679, 689
Elorriaga, Yolanda
307
Elortza, Mikel
467
Elortza, Tomas
250
Elorza, Julian
102
Elosegi Irazusta, Jesus
687
Elosegi Zimitz, Jesus Ramon
691
Elso, Santxo
67, 70
Eltzaburu, Pello
279
Enbeita Ealo, Abel
461
Enbeita, Balendin
687, 689
Enbeita, Jon
312
Ensunza, Martxel
315
Epaltza, Aingeru
318, 324, 331, 383, 459, 467
Erdozain, Aurelio
561
Erdozaintzi-Etxart, Manex
685, 687
Erkiaga, Eusebio
324, 458, 465, 687, 700
Erkizia, Joseba
223
Erkizia, Tasio
274
Ernani Txiki
399, 660
Erramuzpe, Mikel
698
Errazti, Karmele
230
Erriondo, Lore
280
Ertzilla, Manu
328, 343, 397, 463, 675
Erzibengoa Otaegi, Joxe
321, 464
Erzilla, Jose Manuel
461
Escarpit, Robert
403, 406, 416
Escudero, Francisco
677, 680
Esnal Ormaetxea, Pello
329, 461, 462, 465

Esnal, Maite
396
Esnal-Zubimendi
523
Esparza, Jose Mari
617
Estornes Lasa, Bernardo
100, 139, 141, 697
Estornes Lasa, Jose
687, 691
Etcheberry, J.B.
95
Etchepare Anaiak
95
Etchepare, Jean
120
Etxabe
66, 86
Etxabe Iztueta, Koldo
461
Etxaburu, Jose Mari
Ikus Kamiñazpi
Etxahun-Iruri
687
Etxaide, Ignacio Maria
513
Etxaide, Jon
128, 152, 153, 324, 333, 398, 416, 458, 474
Etxamendi Gezainburu, Eñaut
336, 459
Etxaniz Erle, Xabier
47, 184, 235, 238, 249, 250, 338, 370, 399, 460
Etxaniz, K.
252
Etxaniz, Maite
46
Etxaniz, Nemesio
681, 687
Etxarren, Jean-Baptiste
339
Etxarri, Joseba
340, 399
Etxeandia, Jose
671, 687
Etxebarria, Igone
341
Etxebarria, Jon Gotzon
42, 687, 707
Etxebarria, Jose Maria
345
Etxebarria, Jose Ramon
307, 344
Etxebarria, Juan Manuel
343
Etxeberri Ziburukoa
64, 68, 86
Etxeberri, Joanes
64, 76
Etxeberria Canales, Hasier
330, 346, 397, 461, 464, 467, 606, 607
Etxeberria Tolosa, Patxi
687, 693
Etxeberria Ugalde, Guillermo
464
Etxeberria, Martin
168
Etxeburua Garcia, Arantzazu
464
Etxeita, Jose Manuel
120
Etxenike, Pedro Migel
131, 161, 683
Etxepare, Bernart
63, 66, 67, 79, 392, 696
Etxezaharreta, Luzien
240, 383, 384, 601, 693
Etxezarraga, Jesus
347
Etxezarreta, Jesus Mª
Ikus Izazpi
Etxezarreta, Ramon
349, 353, 356, 397
Ezkiaga Lasa, Patxi
335, 350, 383, 398, 461, 463, 464
Ezkurdia Gorriti, Clemente
686
Faulkner
325, 360
Felones, Roman
160
Fernandez Etxebarria
143
Fernandez Ostolaza, Luis
351, 399, 461, 462
Fernández Etxebarria, Manuel
145
Fernandez, J.C.
252
Franco, Francisco
38, 39, 82, 123, 124, 128, 129, 130, 335, 136, 148, 159, 341, 348, 398
Freinet
242
Fresny, C. de
408
Fritz
348
Fructuoso
252
Gabastou, André
240, 381, 382, 383
Gabilondo Alberdi, Joseba
352, 399, 461
Galarraga, Joxe Ramon
689
Galarreta, Xabier
353, 587
Gandiaga, Bitoriano
125, 153, 335, 336, 356, 366, 383, 398, 463, 474, 475, 480
Garaikoetxea, Carlos
161, 676, 678
Garate Arriola, Justo
687, 702
Garate Goihartzun, Gotzon
152, 324. 325, 330, 357, 398, 458, 459
Garate, Roman
358
Garbizu, Daniel
336
Garbizu, Tomas
693
Garcia Bugarin, Leandro
240, 382
Garcia de Cortazar, Mirari
359
Garcia Marquez
209
Garde, Martzelino
687, 694
Garibai
66, 86
Garijo, Salvador
109
Garikano, Maria
461, 523
Garitano, Martin
467
Garitaonaindia, Bitor
109, 111, 120, 230
Garmendia Kortadi, Juan
687, 693
Garmendia Larrañaga, Juan
360
Garmendia, Iñaki
48
Garmendia, Mari Karmen
161, 392, 703
Garmendia, Pako
161
Garmendia, Txomin
361
Garmendia, Xalbador
362, 398
Garzia Garmendia, Joxerra
335, 356, 363, 397, 460, 464, 465, 489, 547, 692
Garzia Garmendia, Juan
223, 330, 364, 397, 460, 461, 465
Gastañaga
104
Gaztañaga Olabarri, Jesus
109, 687, 699
Gaztañaga, Sabin
696
Gaztelu
463, 683, 687
Gentz del Valle
252
Genua, Enkarni
365
Gereño, Xabier
287, 324, 330, 368, 398, 403, 459, 489, 586, 592, 622, 682
Gerriko, Jose Ignacio
75, 88

Gezalaga, Jose Antonio
Ikus Zaldubi
Gide
599
Gil Bera, Eduardo
369, 464, 466
Gil Sanchis, Oriol
241, 384
Gillentena
64
Gimenez, Edorta
462
Gimenez, Jorge
559
Godoy, Manuel
82
Goenaga, Aitzpea
466
Goenaga, Patxi
370, 513
Goicoechea, Ignacio M.
463
Goienetxe, Eugène
682, 687, 692
Goihenetxe, Manex
308, 371
Goikoetxea Olaondo, Joan Inazio
Ikus Gaztelu
Goikoetxea, Jose Mari
702
Goikoetxea, Juan Luis
372
Goiria, Jose Antonio
687
Goiriena, Juan Jose
310, 700
Gómez, Genaro
383
Gonzalez de Txabarri, Joxe Joan
168, 374
Gonzalez, Edorta
373
Gonzalez, Maite
375, 392
Gorordo, Jose Maria
162, 688
Gorosabel, Jose
95
Gorostiaga Bilbao, Joan
687, 692
Gorostiza, Jabier
376
Gorrindo, Karlos
48
Gorrotxategi, Sabin
278, 279
Goscinny
236
Gostin, A.
399
Goyenetche, Iñaki
147
Gozategi, D.
654, 655
Grégoire, Abbé
81, 82
Guenaga Garai, Galder
462
Guerra Garrido, Raul
390
Guezuraga Fuldain, M. Isabel
464
Guiard Larrauri, Teófilo
107
Guibert, Edmond
89
Guillou, Bernard
533, 543
Guilsou, Paul
687, 701
Gurruchaga, Pedro
95
Gurrutxaga
78
Gutenberg
547
Gutierrez Arenzana, Emilio
461
Gutierrez, J.M.
682
Haranburu (frantziskotarra)
64
Haranburu Altuna, Luis
199, 324, 377, 398, 419, 459, 465, 560, 562, 587, 593, 612, 614, 624, 662
Haraneder
76
Haritschelhar, Jean
308, 389, 513, 681, 692
Harizmendi
64
Harriet
76, 93
Hartsuaga, Joan Inazio
390
Hartzabal
124, 153, 260, 381
Hernandez Abaitua, Mikel
330, 347, 349, 353, 356, 391, 399, 460
Hernández Pibernat, Marta
383
Hernandez, Pau Joan
240, 382, 384
Hernández, Teresa
241, 384
Hernandorena, Teodoro
687, 703
Hiriart-Urruty, Jean
107, 109, 112, 687, 697
Hiribarren
76
Hirigoiti
64
Hoyarzabal, Martin de
66
Huarte (Donibanekoa)
152
Huarte, Patxi
467
Huarte, Pedro
70
Huxley
328
Ibañez Mendikute, Marta
461
Ibargutxi, Arrate
459
Ibargutxi, Felix
467
Ibargutxi, G.
152
Ibarrola, Agustin
679
Ibiñagabeitia, Andima
145
Idiéder, R.
141
Igerabide Sarasola, Juan Kruz
251, 335, 383, 392, 463, 464
Illarramendi, Ramon
119
Intxauspe
76
Intxausti, Joseba
45, 48, 66, 288, 393, 398, 686
Intza, Damaso
109, 689
Intzagarai, Ramon
512
Iñurrieta Labaien, Iñaki
435, 460
Ioannídes, Stratos
382, 383
Iparragirre (enpresa)
672, 676, 685, 689
Iparragirre
376
Iparragirre, Pilar
395
Iraizotz, Polikarpo
679, 687
Iraola, Rufino
397, 462
Iraolagoitia, Fermin
398, 580, 587, 614, 624
Irastortza, Tere
335, 392, 399, 463, 706
Iratchet, Jean Pierre
687
Iratzeder
143, 153, 297, 398, 513
Irazabalbeitia, Inaki
308, 309, 400, 563, 691
Irazu Garmendia, Joseba
Ikus Atxaga, Bernardo
Irazusta
92, 116, 153
Irazusta, Juan Jose
458

Iribarne
107
Iribarne, J.B.
252
Irigarai, Aingeru
141, 684, 687
Irigarai, Jean
459
Irigarai, Jose Angel
398, 402, 463
Irigoien Aranberri, Imanol
335, 406, 464
Irigoien Aranberri, Joan Mari
199, 324, 383, 398, 407, 458, 459, 463, 475, 480
Irigoien, Alfonso
403, 463, 513, 689
Irigoien, Guillaume
405
Iriondo, Jose Mari
162
Iriondo, Lourdes
250, 392, 410, 465
Iriondo, Luis
162, 686
Irizar, Sabin
687, 705
Irujo, Andrés María
129, 700
Irujo, Manuel
679, 682
Isasi, Xabier
280
Ispizua, Luis Daniel
48, 426
Iturain Zapiroz, Iñaki
467
Iturbe Balda, Martin
153, 412, 463
Iturbe, Arantxa
23, 38, 43, 331, 399, 411, 461
Iturbide Mendinueta, Amaia
335, 336, 392, 413, 464
Iturralde, Joxemari
Ikus Jimu
Iturralde, Juan
100
Iturregi Escondrillas, Patxi
331, 461, 462
Iturriaga, Agustin Pascual
85, 230
Iturriotz, Alazne
467
Iturriotz, Ander
330, 399, 415
Izagirre, Koldo
330, 331, 333, 334, 336, 341, 343, 383, 385, 397, 416, 426, 456, 465, 467, 475, 478, 480, 619, 679, 688, 696
Izazpi
348, 460
Izeta, Mariano
398, 417
Iztueta
75, 152
Iztueta Armendariz, Paulo
41, 152, 297, 303, 304, 305, 398, 418, 463, 466
Iztueta, Joxe Miguel
Ikus Lazkao Txiki
Jaka, Joseba
547, 592, 624, 633, 634, 640, 644, 645, 648
Jaka, Txomin
699
Jaka, Xanti
666
Jakakortaxarena, Txomin
687
Jauregi, Luis
Ikus Jautarkol
Jauregiberri, Madalena (Madeleine)
392, 673, 687
Jaureguy
93
Jautarkol
120, 153, 466
Jemein
104
Jimenez de Aberasturi, Luis Maria
623
Jimenez, Edorta
Ikus Nabarro, Omar
Jimu
240, 330, 343, 383, 397, 414, 459, 675
Joannategi
76
Joannateguy
107
Juaristi Galdos, Felipe
383, 397, 420, 426, 458, 461, 462, 463, 480, 704
Juaristi, Jon
343, 675
Kaltzada, Julen
398, 421
Kamiñazpi
332, 398, 399, 459
Kapanaga, Bittor
398, 399, 422
Kardaberaz, Agustin
75, 79, 87, 92, 93, 116, 392
Karrantza, Antso
86
Karrantza, Bartolome
86
Karraskedo, Jazinto
120, 687, 692
Kazabon, Antton
423
Kerejeta Sarriegi, Mari Jose
335, 463
Kerexeta, Jaime
Ikus Arantzibia
Kintana, Xabier
213, 286, 349, 398, 425, 458, 474, 513
Kirikiño
105, 107, 120, 392
Klaberia
66, 86
Knörr, Endrike
426, 513
Korta, Gabriel
48, 336
Kortadi, Edorta
427
Kortazar Uriarte, Jon
356, 428, 466
Krutwig, Federiko
324, 398, 429, 459, 512, 513, 689
Labaien, Antonio Maria
111, 120, 153, 687, 703
Labaien, Ramon
161, 168, 678, 680, 683
Labayen, Carlos
70
Labegerie, Michel
136, 678
Lafitte
78
Lafitte Ithurralde, Piarres
107, 111, 141, 474, 682, 686, 687
Lafontaine
230
Laka, Jean Louis
705
Lakarra, José Maria
682
Lakarra, Joseba
225
Lanatua, Manex
430
Landa Etxebeste, Mariasun
46, 236, 237, 238, 239, 240, 241, 242, 244, 249, 250, 377, 378, 383, 384, 393, 398, 432, 460, 464, 465
Landa, Josu
185, 343, 348, 352, 353, 356, 399, 431,436, 456, 460, 580, 581, 619, 622
Landaburu, Felix
512, 699
Landaburu, Javier
111
Landaburu, Pierre
141
Landart, Daniel
153, 398, 433, 459
Landerreche, Ander
107
Landerretche, Martin
95, 107, 109
Lantziri, Gexan
398, 434
Lapeyre
76

Lapitz
76
Lardizabal, Francisco Ignacio
76, 85, 96
Lariz, Jon
330, 398, 459, 504, 623
Larrakoetxea, Bedita
230, 687, 695
Larramendi, Manuel
75, 79, 80, 86, 96, 206, 286, 392
Larrañaga, A.
109
Larrañaga, Jone
467
Larrarte, Juan Mari
169
Larrauri, Anton
674
Larre, Emile
513
Larrea, Jose Mari
435
Larregi
76
Larreguy
89
Larrinaga, Koldo
679
Larzabal, Imanol
693
Larzabal, Mattin
147
Larzabal, Piarres
153, 687, 689, 691
Lasa Apalategi, Joxe Martin
684, 687
Lasa, Amaia
392, 398, 436
Lasa, J. Iñaki
437
Lasa, Martin
383
Lasa, Mikel
153, 335, 384, 398, 438
Lasagabaster, Jesus Mari
221, 303, 304, 318, 356, 357
Lasarte, Gema
392
Lasarte, Manuel
399, 439
Laskibar, Ramon
109
Latiegi, Bixente
399, 440
Lauaxeta
116, 120, 132, 141, 153, 305, 324
Lautréamont
599
Lavin
553
Lazkano, Arantxa
700
Lazkano, Imanol
337
Lazkano, Maite
330
Lazkao Txiki
700
Legarralde
111
Legarreta, Josu
164, 688
Legasse, Marc
141
Leizaola Sanchez, Jesus Maria
687
Leizaola, Ricardo
111, 141
Leizarraga, Joanes
63, 65, 66, 67, 79, 80, 206, 287, 392, 704
Lejarza, Sebastian
48
Lekanda Alkorta, Txelu
461
Lekuona Berasategi, Juan Mari
153, 223, 297, 335, 336, 441, 464, 475, 480, 513
Lekuona, Andoni
467
Lekuona, Manuel
101, 254, 513, 687, 690
Lertxundi Esnal, Anjel
43, 47, 189, 219, 221, 241, 243, 246, 247, 250, 300, 324, 327, 329, 330, 332, 371, 384, 398, 414, 415, 416, 419, 421, 442, 458, 459, 460, 467, 475, 476, 480, 489, 595, 682, 689, 690, 702
Lertxundi, Gabriel
687
Lertxundi, Joxe Mari
443
Letamendia, Francisco "Ortzi"
678
Letamendia, Juan Antonio
444, 459
Lete, Xabier
153, 335, 347, 398, 446, 463, 464, 480
Letona, Xabier
278, 399
Lezamiz, Jon
447
Lhande, Pierre
109, 512
Linazasoro Izagirre, Karlos
331, 335, 399, 448, 457, 462, 464
Linazasoro, Eva
462
Linazisoro, Abelin
449
Lizardi, Xabier
81, 116, 120, 132, 153, 336, 415, 416
Lizarralde, Daniel
107
Lizarralde, Joxe
466
Lizarralde, Pello
331, 397, 450
Lizaso, Sebastian
337, 688
Lizundia, Jose Luis
451
Lizundia, Julen
562, 579, 614, 624
Loiarte, Mirentxu
681
Loidi Bizkarrondo, Jose Antonio
384, 398, 452, 458
Loidi Peña, Fabian
687, 688
Lojendio Irure, Jose Maria
513, 677, 687
Lopategi, Jon
337, 693
Lopez Adan, Emilio
Ikus Beltza
Lopez Gaseni, Manu
356, 399, 454
Lopez Mendizabal, Isaak
111, 114, 129, 230, 286, 673, 687
Lopez, E.
114, 559
Lopez-Mugartza, Juan Carlos
464
Loramendi, I.
153
MacLuhan, M.
533
Madariaga Abaitua, Juan Ramon
335, 455, 464
Madariaga, Isidro
100, 111
Maisonnave, Basilio
107
Makazaga, Juan Jose
111
Manterola Urigoitia, Gabriel
104, 111, 230, 687
Manterola, Jose
101, 107, 118
Manterola, Vicente
89
Markiegi, Xabier
702
Markotegi, Jesus Javier
160
Markuleta Gutierrez, Gerardo
215, 219, 335, 399, 456, 461, 464, 465
Martinez
70
Martinez Azkuenaga, Gonzalo
461
Martinez Lizarduikoa, Alfontso
469, 581
Materre, Estebe
64, 67, 68

Maupassant
330
Meabe, Miren Agur
623
Mees, Ludger
470
Meillet, Antoine
189
Meksi, Mira
240, 241, 381, 383, 384
Melville
208, 325, 327, 360
Mendiaga
339, 459, 489, 617, 634, 682
Mendiburu, Remigio
694
Mendiburu, Sebastian
75
Mendiguren Bereziartu, Iñaki
212, 397, 459, 471
Mendiguren Bereziartu, Xabier
187, 206, 207, 212, 218, 222, 223, 226, 370, 398, 462, 474
Mendiguren Elizegi, Xabier
47, 185, 226, 230, 233, 239, 241, 247, 249, 330, 336, 343, 384, 399, 458, 459, 460, 461, 465, 466, 467, 475, 584
Mendizabal Iraola, Jesus Mari
331, 460, 465, 484
Mendizabal, Arantxa
310
Mendizabal, Juan Mari
171, 786
Merikaetxeberria, A.
677
Mielgo, Roberto
48
Migeltorena, Agustin
462
Minaberri, Marijane
465, 687
Minaberry, J.
250
Mintegi Lakarra, Laura
330, 356, 391, 392, 393, 395, 396, 397, 426, 459, 460, 485
Mintegi, Mikel
459, 460
Mirande, Jon
143, 153, 336, 384, 398, 458
Mitxelena, J.
252
Mitxelena, Jose Joakin
692
Mitxelena, Koldo
39, 116, 211, 141, 167, 286, 289, 290, 291, 297, 300, 353, 366, 398, 416, 474, 547, 680, 684, 687, 691, 700
Mitxelena, Salbatore
153, 300, 336
Mogel, Bizenta
230, 254, 392
Mogel, Juan Antonio
75, 79, 80, 83, 87, 88, 92, 116, 152, 392
Mokoroa, Justo
687, 695
Mokoroa, Valeriano
119
Monasterio, Xabier
460, 486
Monreal, Gregorio
102, 310, 680, 698
Montoia, Xabier
331, 334, 487
Montorio, Bego
383, 385
Monzon, Telesforo
153, 349, 679, 687, 689
Moreno
462
Muguruza, Fermin
694
Muguruza, Jabi
488
Muguruza, Josu
693
Mujika Berrondo, Plazido
286, 682, 687
Mujika Casares, Jose Antonio
199,330, 459, 460
Mujika Egaña, Robustiana
681, 687
Mujika Iraola, Inazio
47, 324, 330, 331, 399, 458, 460, 461, 462, 480, 490
Mujika Urdangarin, Luis Mari
153, 286, 349, 356, 459, 462, 463, 466, 491
Mujika, Gregorio
109, 120
Mujika, Tene
45, 392
Mujika, Xabier
464, 465, 492
Muniategi, Sabin
687, 694
Munibe e Idiaquez, Javier María
78
Muñoa
111
Muñoz, Jokin
220, 331, 493
Muñoz, Joxean
494
Murieta, Felipe
143
Murua Uria, Imanol
45, 47, 49, 269, 270, 271, 273, 399, 467
Murugarren
699
Nabarro, Omar
331, 334, 383, 397, 419, 426, 461, 463
Napoleon
89, 90
Narbaitz, Pierre Pascal (Piarres)
686, 687
Nebrija, A.
64
Nuñez Arimendi, Ignacio
107
Nuñez Cano, Virginio
651
Oar-Arteta, Jose Antonio
675, 687
Obieta, José A.
677
Odriozola Sustaeta, Iñaki
464
Odriozola, Jose Manuel
466, 495
Oihartzabal, Beñat
513
Olabarria, Josune
46
Olabe, Jacinto
674
Olabeaga, Iñaki
685, 687
Olabide, Raimundo
512
Olaetxea
92
Olaizola Lazkano, Jesus Mari
Ikus Txiliku
Olaizola, M. Mª
145
Olaizola, Manuel
Ikus Uztapide
Olano, Mikel
462
Olaortua, Pelayo
683
Olariaga, Antton
253, 467, 498
Olarra Lizaso, Xabier
221, 397, 461, 499, 591
Olasagarre Mendinueta, Juanjo
334, 464, 466, 500
Olasagasti, Eneko
501, 701
Olaskoaga, Fermin
49
Olazabal, Mikel
693
Olaziregi, Mari Jose
216, 242, 659
Olea, Inozentzio
502
Olea, Pedro
677
Olivares Larrondo, José
111, 143
Oliveri, Inazio
161, 705
Olmo, Karlos del
503

Oloriz, Hermilio
100
Omaetxebarria Martitegi, Ignazio
687
Onaindia, Mario
Ikus Lariz, Jon
Onaindia, Santi
39, 42, 143, 153, 687
Oñatibia, Jon
141, 676, 687
Ondartza, Javier
461
Orbe Mateo, Aimar
462
Orbe, Martin
308
Orbegozo, Bernabe
141
Oregi, Josu
687
Orixe
116, 120, 130, 132, 152, 153, 297, 305, 347, 415, 416, 462, 662
Ormaetxea, Amaia
465
Ormaetxea, Kepa Andoni
104
Ormaetxea, Nikolas
Ikus Orixe
Ormazabal, Joseba
143
Ormazabal, Joxantonio
199, 213, 505
Ortega y Gasset
100
Osa Unamuno, Eusebio
687, 699
Osa, Erramun
169
Oskillaso
279, 398
Ospital, A.
141
Ossa Altzibar, Joxeba
462
Otaegi, Claudio
76
Otaegi, Jokin
48
Otaegi, Lurdes
301
Otamendi, Jaime
399
Otamendi, Jose Luis
334, 336, 506
Otamendi, Martxelo
165, 185
Otegi, Karlos
507
Oteiza
70
Oteiza, Jorge
697, 699, 704
Otermin, Ander
199
Otsalar (Juan San Martin)
153
Otxoa Kapanaga, Martin
66, 70
Oxobi
230
Oyeregi, Bonabentura
143
Oyharzabal, G.
147
Ozerin, Luciano
111
Pagola, Beltran
676
Pagola, Manex
398, 508
Pagola, Rosa Miren
509
Pavese, Cesare
221
Peillen, Txomin
143, 458, 459, 510, 513
Pelot, Mayi
330, 511
Perez Armendia, Iñaki
462
Perez de Viñaspre, Fernando
160
Pertur
675
Perurena Loiarte, Patziku
335, 463, 466, 467, 514
Petrizan, Estebe
160
Piault, Fabrice
542, 547, 551, 552, 652, 653, 667
Pineiro, Anton
240, 383
Pinilla, Ramiro
587
Pochelou, Arnaud
107
Pontto, Gehexan
Ikus Haritschelhar, Jean
Portell, José Maria
674
Proust
599
Pujana, Basilio
515
Pujana, Bibiñe
516
Pujana, Pedro
517
Purroy, Mirentxu
672
Quevedo
209
Ramírez de Olano, Pantaleón
109
Ramos Uranga, Gabriel
705
Recalde, Jose Ramon
278
Redondo, D.
252
Reixach, Modest
190
Rementeria, Jose Maria
702
Retolaza, Jose Antonio
519
Rezola, Luis
687
Riezu, Jorge
687, 699
Rimbaud
334, 599
Rivera Aguirrezabala, Ignacio
143
Robles Arangiz, Estitxu
699
Robles Aranguiz, M.
109
Rocca-Serra, Paul de
Ikus Legarralde
Rodari
236, 237
Rodoreda
330
Rodrigez Bornaetxea, Fito
520
Rodriguez Otxoa, Jose Maria
160
Rodríguez Coalla, Lena
383
Rodríguez de Rivera, Alberto
549
Rodriguez, Carme
240, 241, 384
Rojo Cobos, Javier
48, 464
Romanones
104
Rubial, Ramon
675
Ruiz de Alegria, Maite
698
Ruiz de Gauna, Adolfo
47
Ruiz de Oyaga, Julio
111
Saban, Arantxa
240, 381, 382
Sagarna, Andoni
49, 290, 296, 309, 398, 521, 547
Sagarzazu, Francisco
459
Sagastizabal, Joxean
397, 458, 522
Saizarbitoria, Ramon
43, 153, 220, 324, 343, 366, 368, 384, 398, 415, 416, 458, 467, 475, 477, 480, 523, 612, 679, 706

Salaberri, Etienne
681, 687
Salaberria, Jose
685, 687
Salaburu, Pello
310, 513, 524, 707
Salazar, José Luis
147
Salegi, Faustino
704
Salgari
236
Salvat Monho
76
Samaniego
230
Sanchez Erauskin, Javier
676, 678, 683
Sanchez, R.
252
Santamaria, Karlos
308, 675, 695, 697, 705
Santisteban, Karlos
241, 384, 526
Sanz, Miguel
160
Sarasola, Ibon
41, 167, 225, 286, 289, 294, 330, 349, 356, 366, 370, 398, 412, 463, 466, 513, 527, 685
Sarasola, Jose Antonio
213
Sarasua, Jon
399
Sarasua, Juan
141
Sarriegi, Andoni
533
Sarriegi, Mikel
534
Sarrionandia Uribelarrea, Joseba
334, 343, 348, 384, 385, 416, 426, 458, 459, 463, 475, 477, 480, 535, 675, 679, 688, 696
Sastre, Pablo
331, 399, 426, 536
Satrustegi Zubeldia, Jose Mari
254, 398, 458, 474, 513, 537
Sestorain, Gotzone
538
Setien, Gorka
48
Shakespeare
35
Solbes, Maripi
392
Sollube
152
Sorarrain, G.
39
Sors, Jose Mari
247, 278, 560, 567, 614, 624
Sota Aburto, Manuel
679, 687
Sota, Pedro
685
Sota, Ramon de la
103
Steinbeck, J.
421
Stendhal
327, 599
Stevenson
208, 236, 325, 360
Sturtze, Alicia
539
Suarez, Adolfo
159, 307
Sudupe Elorza, Pako
466
Sudupe Martija, Jon
398, 466, 540
Tajadura, Federico
160
Tapia, Eleuterio
692
Tauer, Norberto
685, 687
Telleria, Joxe Mari
252
Telletxea, Josu
109
Tobar-Arbulu, Joseba
541
Tolosa, Andoni
542
Topet Etxahun, Pierre
76
Torre, Albert de la
240, 384
Torre, Toni de la
241, 384
Torrealdai, Joan Mari
37, 164, 165, 344, 466, 489, 543, 547, 672, 705
Trintxerpe, Gorka
183, 513, 597, 643
Trueba, Antonio
101
Txepetx
220
Txiliku
460, 462, 466, 497
Txillardegi
132, 153, 195, 305, 324, 345, 366, 385, 398, 416, 426, 458, 474, 475, 478, 480, 489
Txillida, Eduardo
673, 674, 678, 679, 691, 692, 704
Ubeda, Garbiñe
544
Ugalde, Aitor
399
Ugalde, Iñaki
46
Ugalde, Juan Jose
109
Ugalde, Martin
127, 128, 141, 161, 164, 165, 324, 330, 332, 385, 398, 459, 460, 545, 688
Ugarteburu Castañares, Iñaki
460, 546
Umandi
687, 701
Unamuno, Miguel
100, 189, 671
Unanue, Manuel
460
Unzueta, Josu
331
Unzueta, Lurdes
547
Unzueta, Roberto
467
Urain, Jokin
460
Uranga Unanue, Juan José
466
Uranga, Javier
678
Uranga, Juan Ignacio
119
Urbeltz, J.A.
701
Urcola, Felipe
141
Urdangarin, Juan Antonio
461
Uria, Edorta
288
Uria, Iñaki
165, 426, 435, 460, 549, 660
Uriarte, Jose Antonio
75
Uribarren, Patxi
550
Urizar Irazabal, Joseba Andoni
464, 551
Urkiaga, Esteban
Ikus Lauaxeta
Urkijo, Julio
92, 101, 109, 512
Urkiola, Edurne
392, 552
Urkixo, Joanes
330, 397, 458, 465, 548
Urkiza, Ana
462
Urkiza, Julen
553
Urkizu Sarasua, Patri
324, 398, 463, 466, 489, 554, 606
Urquijo, Luis de
88
Urrestarazu, Andoni
Ikus Umandi
Urretabizkaia Bejarano, Arantxa
356, 385, 392, 398, 463, 631
Urroz de Heredia, Iñigo
466

Urroz, Eugenio
104
Urrujulegi, Jon
632
Urrutia Capo, Jose Enrique
462
Urrutia, Andrés
633
Urrutia, Xanti
465
Urruzola, Estanislao
Ikus Uxola
Urruzuno, Pedro Miguel
120
Urteaga Garmendia, Jose Mª
461, 462
Urtubia, Karmel
145
Uxola
153, 465, 687, 690
Uztapide
683, 687
Vadillo, A.
252
Valverde, Antonio
Ikus Ayalde
Velez de Mendizabal, Josemari
Ikus Mendiaga
Vessilier-Ressi, Michèle
395, 400, 410, 411
Villasante, Luis
39, 75, 80, 87, 152, 366, 398, 474, 513, 636, 692
Vinson, Julien
39
Xalbador
671, 687
Xarritton, Piarres
398, 637
Yañez de Arrieta, Martin
64
Zabala
70
Zabala Arriaga, Xabin
461
Zabala Artetxe, Juan Luis
46, 330, 331, 399, 459, 460, 461, 462, 464, 467, 547, 621, 639
Zabala Oiarzabal, Karlos
460, 464, 640, 701
Zabala, Federiko
152
Zabala, Juan Mateo
75, 96
Zabaleta Kortaberria, Josu
244, 293, 580, 599, 642
Zabaleta Kortaberria, Pello
335, 385, 398, 462, 463, 464, 465, 646
Zabaleta Urkiola, Iñaki
199, 397, 460, 641
Zabaleta, Nicanor
678, 699
Zabaleta, Patxi
Ikus Trintxerpe, Gorka
Zabaleta, Yon
253
Zaitegi, Jokin
129, 141, 153, 297, 677, 687
Zalbide, Mikel
291, 647
Zaldua, Imanol
42, 399, 648
Zaldua, Jose Antonio
684
Zaldua, Xabier
606
Zaldubi
460
Zamarripa, Pablo
120
Zamora, Auxtin
650
Zapirain, Salbador
Ikus Ataño
Zaragüeta, V.
145
Zarate Lejarraga, Mikel
463
Zarate, Mikel
458, 677, 687
Zarraoa, Iñaki
162, 696
Zavala, Antonio
154, 398, 439, 513, 652
Zeberio, Jose Mari
161
Zelaieta, Anjel
460, 653
Zenarruzabeitia, Aitor
48
Ziarsolo, Manuel
Ikus Abeletxe
Zinkunegi, Agustin
654
Zipitria, Elbira
131
Zorroza, Maria Jose
237
Zorroza, Xabier
465
Zuazo Zelaieta, Koldo
466
Zubeldia Otegi, Iñaki
236, 244, 249, 459, 460, 655
Zubia, Nikolas
66, 70
Zubiaga, Felix
463, 659
Zubiaga, Miguel Mari
687
Zubiarrain, Pablo
Ikus Ernani Txiki
Zubiaur, Javier
160
Zubiaur, Josu
162
Zubikarai Bedialauneta, Augustin
153, 330, 398, 458, 465, 661
Zubiri, Iñaki
662
Zubiri, Xabier
684
Zubiria, Pello
164, 165, 467
Zubizarreta Dorronsoro, Patxi
462, 464, 465, 664
Zubizarreta, Iñaki
223, 459
Zubizarreta, Itziar
663
Zugasti, Anizeto
684, 687
Zugaza, Alejandro
46
Zugaza, Leopoldo
560, 562, 563, 649
Zulaika, Joseba
335, 336, 665
Zuloaga, Jabi
231
Zumalabe Goenaga, Joxemi
164, 165, 687, 699
Zumalabe Mendiburu, Jose Migel
687, 697
Zumalabe, Agustin
681, 687
Zurutuza, Imanol
330, 461, 666

Produkzio-agenteak

AED
684, 696
AEK
47, 166, 167, 168, 169, 170, 171, 512, 679, 680, 681, 682, 683, 685, 689, 692, 693, 695, 696, 701, 702, 703, 707
ALAIE
222
Alberdania
48, 182, 208, 316, 378, 383, 472, 558, 559, 561, 562, 564, 567, 570, 572, 574, 576, 582, 596, 600, 602, 604, 614, 620, 621, 624, 638, 700
Albertliner
240, 381, 383
Albert Bonniers
382, 383
Alberti
384
Albin Michel
543
Alborada
241, 384
Alfabetatze eta Euskalduntzea
47, 133, 136, 171, 683, 705
Alfaguara
385, 536
Altea
536
Ampère
537
Amundsen
24
An Here
240, 384
Anaya
280, 281, 535, 538, 540, 563, 564, 567, 637
Antxieta
691
Aranzadi
143, 289, 550, 676
Armand Colin
543
Armendariz
70
Arteleku
690
Asiain
70
Aturi
536
Auñamendi
137, 139, 559, 560, 567, 624, 636
Auspoa
136, 560, 638
Azpiroz
70
B. Boschen
70
Baraona
70
Baroja
114, 139, 560, 563
Barojatarrak
78
Basque American Foundation
384, 385
Basque Studies Center
147
Baula
272
Berdala
70
Berdoly
107
Berdun
70
Bermingham
89, 561, 567, 584, 704
Bertelsmann
536, 537, 538, 541
Beta Taurus
540
Bilintx
238, 562, 632, 644, 653, 654, 655, 671, 688, 702
Biscailuz, Martin V.
107
Bitarte
647
Blackwell
539
Boixareu, José M.
549
Bonnier
536
Bordas
543, 546
Bosc
70
Bourdot
70
Brocar
69
Bromera
241, 382, 383, 384
Bruguera
650
Bruño
266, 269, 270, 271, 279, 280, 281, 563, 567
Calmann-Lévy
543
Castilla
78
CDL
637
Cedro
617
CEGAL
549
Christian Bourgois
382, 383
Círculo de Lectores
381, 382, 383, 506, 636
Cluzeau
77
Cole Ibarra
70
Columna
381, 382
Collins
540
CRDL
637
Crisol
536, 644, 651
Critica
539
Cruilla
240, 381, 384
Dalloz
534, 543
Darracq
141
De Agostini
539
Delacorte
537
Delmas
78
Desbaratz
70
Desclée de Brouwer
439, 560, 561, 563, 567, 638, 691
Disney
543, 551
Dubosq, Jean
111
Dugas
82
Dun & Bradstreet
539
Dunod
534, 543
EATB
673
Ed. Eminescu
383
Edebe
240, 266, 273, 281, 384, 534, 563, 567, 637, 638
Edelvives
266, 273
Edelvives-Ibaizabal
636

Eder Track
686
Ediciones B
240, 382, 383, 637
Edili
439
Editora del Norte
383
EEE
374, 580, 600, 606, 607, 611, 614, 615, 624, 625, 662
EFA
383
Egin
383, 678, 685
EHBE
337
EHE
170, 171, 688, 692, 694, 702, 703
EHU
223, 280, 307, 310, 383, 384, 385, 455, 678, 681, 682, 689, 695, 697, 698, 700, 701, 702, 704, 705
EIE
42, 244, 374, 418, 419, 485, 487, 488, 489, 490, 491, 492, 606, 638
Einaudi
383
EITB
47, 162, 163, 470, 480, 524, 681, 688, 690, 696
EIZIE
47, 222, 223, 226, 614, 691
EKB
47, 166, 171, 683, 690, 691, 693, 695, 697, 706
EKE
47, 170, 694
Ekin
129, 132, 559, 560, 700
Ekkremes
382, 383
EKM
349
EKT
34
Elhuyar
47, 147, 172, 264, 286, 287, 288, 289, 294, 307, 309, 311, 481, 511, 521, 562, 563, 564, 567, 614, 624, 638, 696, 698, 701, 702, 705
Elkar
48, 137, 153, 171, 182, 199, 208, 231, 240, 241, 247, 250, 266, 278, 280, 281, 287, 288, 294, 316, 378, 381, 382, 383, 384, 385, 419, 439, 444, 472, 534, 545, 559, 560, 562, 563, 566, 567, 570, 572, 574, 576, 582, 596, 600, 602, 604, 606, 614, 620, 621, 624, 633, 637, 638, 686, 698, 702
Elkar-GIE
266, 269, 270, 271, 272, 279
Elkarlan
638
Elorza
70
Elosu
114, 139, 559
Elsevier
535, 537, 538, 539
Emakunde
391, 393, 396, 693
Erein
48, 182, 199, 208, 231, 240, 241, 246, 250, 266, 267, 269, 270, 271, 272, 279, 280, 281, 316, 352, 378, 382, 383, 384, 385, 419, 439, 444, 534, 560, 562, 563, 567, 570, 572, 574, 576, 578, 579, 582, 596, 602, 604, 614, 620, 621, 624, 633, 637, 638, 671, 673, 675, 686
Eusebio Lopez
559
Eusenor
288, 292, 294, 295, 296, 601, 698, 703
Euskal-Esnalea
109
Euskal-Esnalea Elkargoa
109
Euskaltzaindia
46, 47, 102, 103, 109, 130, 133, 136, 137, 141, 167, 169, 222, 289, 290, 291, 330, 337, 385, 469, 509, 510, 512, 515, 516, 520, 525, 569, 604, 638, 671, 674, 676, 679, 680, 684, 685, 686, 688, 692, 693, 695, 696, 698, 699, 703, 704, 705, 706
Euskerazaintza
469, 512, 675, 680
Fabbri
538, 540
Fauvet
70, 78
Fayard
534
Financial Times
536
Flammarion
535, 538, 539, 543
FNAC
644, 650, 653
Gaiak
561, 564, 567, 580, 581, 614, 624, 638, 692
Galaxia
240, 241, 382, 383, 384
Galeuzca
239, 377, 380, 489, 624
Gallimard
535, 538, 539, 543, 599
Gallimard Jeunesse
381, 537
Galtzaundi
697, 699
Gerediaga Elkartea
47, 143, 649, 689
Gereño
618, 619, 622, 638
Gero
137, 559, 560, 562, 563, 567, 613, 624, 632
GIE
44, 563, 624
Giltza-Edebe
262, 266, 269, 270, 271, 279, 280, 534, 564, 567, 637
Giunti
240, 382, 383
Glenat
543
Goiztiri
560
Gordailu
137, 231, 559, 560, 671
Goytino, Jean-Pierre
107
Grasset
534, 537, 543
Grasset Hachette
537
Grijalbo
540
Grijalbo-Mondadori
240, 241, 384
Grijelmo
114
Groupe de la Cité
534, 535, 538, 540, 543, 546
Grupo Zeta
637
Gurrutxaga
78
Gydendal
383
Hachette
534, 536, 537, 538, 541, 543, 545, 546, 637
HAEE
222, 691
Handelsblatt
536
Haranburu
385, 419, 560, 567, 614, 686
Harcourt/Brace
537, 539
Harper & Row
540
Harvill
382
Hatier
543
Hautin
70
Hauzolan
633
Hearst/William Morrow
536

Heda
691
Herro
638
Hiperion
383
Hiru
381, 383, 385, 694
Hiromi Yoshida
698
Holder & Stoughton
535
Holtzbrinck
538, 540
Home Box Office
541
Hordago
153, 231, 330, 383, 385, 560, 562, 567, 580, 633, 675, 692
Houghton-Mifflin
535, 537, 539
House
540
Huarte
70
Huidobro
70
Hutchinson
383
Ibaizabal
48, 103, 105, 183, 208, 260, 262, 266, 269, 270, 271, 278, 279, 280, 281, 317, 379, 472, 561, 563, 567, 570, 572, 574, 577, 582, 586, 587, 596, 602, 604, 614, 620, 621, 624, 636, 637, 638, 695
Idatz
563, 564, 567, 614, 624, 684
Idatz & Mintz
351, 682
Igela
209, 226, 564, 567, 590, 591, 638, 694
Ikeder
380
IKEI
631
Iker
137, 231, 560, 632, 644
Ikuska
633, 700
Iñaki Deuna
114
IPES
673
IRALE
167, 680
Iralka
702
Iratze
381
Itaca
536, 637, 638
Itxaropena
127, 136, 139, 148, 559, 587
IZ
686
Izarraizpe
131, 705
IZBI
686
J. Springer
535, 537, 538, 540
Jardins de Samarcanda
383
Jaungoiko-Zale
108, 109, 111, 114, 559
Jean Lahargou
699
John Wiley
539, 551
Jovanovitch
539
Julliard
543
Kardaberaz
147, 615
Kipling
236
Klasikoak
226, 480, 696
Klaudio Harluxet Fundazioa
296, 703, 706
Kriselu
560, 562, 587, 592, 593, 612, 614, 624, 632, 638
Kuliska Sorta
127, 129, 136, 139, 560, 562
La Galera
240, 241, 383, 384
La Joie de Lire
240, 383, 384
La Lama
77, 559
La Primitiva Casa Baroja
560, 563
La Serpent à Plumes
240, 382, 383
Labaiendarrak
70
Labayru
147, 224, 560, 563, 564, 567, 594, 595, 614, 624, 673, 682
Lamaignère
78, 107
Larousse
534, 540, 543
Lasserre
114
Lasserretarrak
78
Laterza
539
Lattès
543
Laurent Maruani
533
Le Robert
534, 543
Le Seuil
538, 539
Leclerc
648
Lemniscaat
381
Lespes
107
Libertare Assoziation
384
Libres del Mall
385
Libropueblo
587
Lopez, Eusebio
114, 559
Lopez Mendizabal
77, 104, 111, 114, 139, 559
Lubaki Banda
353, 354, 701, 705
Lur
137, 148, 199, 293, 294, 384, 559, 560, 562, 567, 614, 624, 636, 637, 697, 703
Mac Graw Hill
538
MacGregor
545
MacMillan
535
Mangold
536
Manterola
633
Marabout
534, 543
Mares
70
Marjinalia
587
Martin y Mena
114, 139, 559
Martinez
70
Masson
535, 539
Max Center
648
Maxwell
540
Maxwll
538
MC
145
MDB
143
MDL
637
Media Participations
543
Megabilintx
653

Memoranda
384
Mendizabal
77, 139, 559
Mensajero
241, 384, 560, 563, 564, 567, 614, 638
Merlet
70
Micon
70
Milanges
70
Minuit
599
Mladá Fronta
382
Mondadori
536, 538, 540
Montena Iberica
540
Morove
70
Nathan
534, 543
New American Library
537
Newhouse
536
News Corporation
536, 541
Neyra
70
Nijgh Van Ditmar
382, 383
Nuestra Cultura
384
NUP
310, 691, 693, 704
Ofizina Literacka
383
Ollero y Ramos
382
Orbis
540, 651
Osta
70
Ostoa
562, 567, 606, 607, 614, 624, 633, 636, 637
Oteiza
70
Ouest-France
536
Pamiela
48, 183, 199, 209, 317, 351, 379, 381, 382, 383, 384, 385, 439, 472, 560, 563, 564, 567, 570, 573, 574, 582, 597, 602, 608, 609, 614, 621, 624, 633, 638, 683, 685, 686, 696
Pantheon
383
Paramount
536, 541
Pearson
536, 538, 540
PEN
691
Penguin
537
Piemme
381
Planeta Agostini
651
Plon
534, 543
Porralis, T.
70
Portic
384
Presqu'ile
382
Presses de la Cité
637
Prisa
536
Pryca
648
Quetzal
383
Random
538
Random House
540
Random/Newhouse
536
RBA Editores
651
Reed
536, 538, 540
Retana
633
Rete
540
Rico
70
Rizzoli
540
Robert Laffont
534
RSVAP
145
RTL Plus
541
Sage
539
Santillana
266, 273, 280, 281, 534, 536, 563, 567, 637
Schömbach
383
Seix Barral
382
Sendoa
560, 562, 567, 610, 611, 614, 624, 636, 637, 686
Shtëpia Botuese "Globus R."
383
Siadeco
659, 663, 664, 700
Simon & Schuster
538, 541
Sincroni Epoxi
240, 241, 384
SM
240, 281, 381, 383, 384, 563, 564, 567
Sortalde
633, 638, 697
Spielberg
551
Stock
534, 543
Suhrkamp
535
Susa
48, 183, 209, 317, 344, 352, 383, 403, 419, 420, 439, 440, 456, 560, 562, 563, 564, 567, 571, 573, 575, 581, 583, 597, 603, 605, 606, 614, 619, 621, 624, 638, 689
Swift
236
Tammi
382, 383
Taurus
536, 540
Tavula
704
Telenavarra
681
The Economist
536
The Voyager Company
553
Thomson
537
Thomson Publishing
539
Time-Warner
536, 541
Times-Mirror
540
Timon
536, 538
Timun
536
Tinkoketa
561, 638
Ttarttalo
562, 564, 567, 614, 624, 638, 683
Txalaparta
48, 183, 209, 379, 444, 473, 561, 562, 564, 567, 571, 573, 575, 583, 597, 603, 605, 614, 616, 617, 621, 624, 638, 692
Txertoa
137, 560, 562, 567, 625, 632
UEMA
171, 696, 698
UEU
47, 166, 171, 172, 264, 289, 307,

308, 561, 564, 567, 569, 614, 624, 638, 673, 691, 695, 697
Umbe
638
UNED
671, 674, 706
Unions Verlag
382
University of Nevada Press
383, 384
Urretxindorra
653
Ustela
330, 399
UZEI
47, 172, 286, 287, 288, 289, 290, 291, 292, 294, 297, 307, 348, 353, 511, 675, 677, 680, 691, 698, 703, 705
Verdes Atxirika
114, 139
Vintange
383
Vip's
652
Virgin
644, 653
Visor
382
Vives
280, 281
Vosa
383
William Morrow
536
Wolter-Kluwer
535, 539
Xerais
241, 384
Ximenez
70
Xirristazaleak
170
Yoar
638
Yoar eta Sortalde
633, 703
Zabala
70
Zabalegi
311
Zabaltzen
316, 562, 632, 633, 637, 638, 647, 671
Zalgizekoa
107
Zero Multimedia
701, 702
Zubia-Santillana
260, 262, 266, 269, 270, 271, 279, 280, 534, 561, 563, 564, 567, 637, 638
Zyx-Zero
633

Infogramak eta azalpen monografikoak

Infogramak

Liburu-produkzioa historian
54
Liburuak eta liburuskak
55
Liburu-produkzioa 1515-1699
68
Liburu-produkzioa 1700-1875
91
Liburu-produkzioa 1876-1935
115
Liburu-produkzioa, 1936-1975
134-135
Urteko titulu-kopurua urtealdika
174
Liburu-produkzioa 1976-1994
176
Liburugintza Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian (1976-1994)
188
1994ko produkzio argitaletxeen lege-izaeraren arabera
565
Liburu-produkzioa argitaletxeen lege-izaeraren arabera, 1976-94
568
Gaiak historian
55
Gaiak urtealdika. Lehen edizioa
56
Gaiak urtealdika. Edizioak oro
57
Gaiak, 1545 1875
96
Gaiak, 1700-1875
93
Gaiak, 1876-1935
117
Gaiak, 1936-1975
151
Gaien eboluzioa (1936-1994)
193
Gaiak, 1976-1994
194
Gaiak, 1976-1994
204
Gaiak, 1976-1994
214
Gai nagusiak (gaztelania, katalana, gailegoa, euskara)
258
Edizioak, 1545-1875
96
Edizioak, 1936-1975
149
Nobedadeak historian
191
Nobedadeak, 1976-1994
192
Berrargitaraldiak historian
194
Berrargitalpenak, 1994
196
Berrargitaraldiak, 1976-1994
197
Nobedadeak literaturan, 1976-1994
319
Argitaraguneak lurraldeka. 1545-1699
69
Argitaraguneak lurraldeka, 1700-1875
77
Argitaraguneak lurraldeka. 1876-1935
113
Argitaraguneak lurraldeka, 1936-1975
138
Jatorrizko liburuak historian
202
Nobedadeetan jatorrizkoa, 1976-1994
203
Jatorrizko liburua eta itzulitakoa (1976-1994)
207
Itzulitako liburuak historian
206
Nobedadeetan itzulpena, 1976-1994
215
Liburu itzuliak, 1994
217
Itzulpenen jatorrizko hizkuntza. 1991-1994
218
Euskal itzulpenaren jatorrizko hizkuntza
219
Literaturgintza, 1876-1935
119
Literaturgintza, 1936-1975
152
Literatura, 1976-1994
320
Literatur generoak, 1976-1994
322
Literatur generoen eboluzioa, 1976-1994
323
Nobedadeak narratiban, 1976-1994
326
Narratiba, 1976-1994
327
Haur eta gazteentzako liburua historian
229
Haur eta gazteentzako liburugintzaren hazkundea, 1936-1975/1976-1994
232
Haur eta gazte-liburuaren eboluzioa, 1976-1994. Edizioak oro
234
Haur eta gazte liburuaren eboluzioa, 1976-1994. Lehen edizioa
235
Irakaskuntz liburuaren eboluzioa, 1976-1994
261
Nobedadeak irakaskuntzan. 1976-1994
263
EIMAren bilakaera
276
EIMAren bilakaera
277
Katalogo bizia, 1995
311
Adin-piramidea
396
Euskal idazleen jaiolekua (XVI-XIX)
404
Euskal idazleen jaioterria eta bizilekua
409
Euskara sustatzeko dirulaguntzak
481
Liburugintza. Diru-laguntzak
483
Liburugintzako diru-laguntzen garapena
483

Argitaletxeetako literatur arduradunen iritziak

Tituluak eta tiradak
182-183
Gehiegi itzultzen al dugu?
208-209
Literaturgintzaren arazoak
316-317
Literaturaren oihartzuna
378-379
Literatur sariak eta bekak
472-473
Argitaletxeko langileak
570-571
Lan-banaketa
572-573
Argitaletxearen tamaina, gaur
574-575
Argitaletxearen tamaina, bihar
576-577
Kalitatea, errentagarritasuna: tirabira?
582-583
Zinezko eta balizko irakurlegoa
596-597
Originalak nola eskuratu?
602-603
Originalen onarpen-maila
604-605
Erakunde publikoen laguntza-sistemari zer deritzazu? Zer aldatu beharko lukete?
620-621

Aldizkariak

Aldizkariak. 1700-1875
94-95
Aldizkariak 1875-1936
106-111
Aldizkariak 1936-1975
140-147

Kultur fitxak: erakundeak, elkarteak, taldeak

Eusko Ikaskuntza
102
Ikastolen Elkartea
131
Kultura eta Hizkuntz Politika Nafarroako Gobernuan
160
Kultura eta Hizkuntz Politika Eusko Jaurlaritzan
161
EITB
162
Euskaldunon Egunkaria
164-165
HABE
168
AEK
169
Euskal Kultur Erakundea
170
EKB
171
EIZIE
223
UZEI
288
UEU
308
Elhuyar
309
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
310
Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea
337
Euskal Idazleen Elkartea
489
Euskaltzaindia
512-513
Euskal Editoreen Elkartea
614
Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azoka
649

Literatur Sariak

Narratiba
458
Eleberria
458-459
Ipuina
459-462
Olerkia
462-464
Haur eta gazte-literatura
464-465
Antzerkia
465-466
Saiakera
466
Kazetaritza
466-467

Euskal liburuaren esportazioa

Haur eta gazte-literatura erdaraz
240-241
Euskal liburuak erdaraz
381-385

Laburpen balioztatzaileak

Haur eta gazte-literatura: "Gorakada nabarmenak"
250-251
Saiakera: "Munduaz pentsatu mundua pentsatzeko"
300-301
Eleberria: "Bidea ispiluz"
324-325
Ipuina: "Aniztasuna eta kalitatea
330-331
Olerkia: "Modernitatearen harrobia etxean dugu"
334-335

Besterik

Inprentaren historia Euskal Herrian
71
"Euskal idazle klasikoak" bilduma
225
"Literatura Unibertsala" bilduma
225
EIMA Programa
276
EIMAren edukiak
277
1975eko Manifestua
342
Lubaki Bandaren lehen manifestua
354-355
Literatur sorkuntzarako bekak
482
Euskal letretako merezimenduzko saria
482
Euskal liburuaren merkatu-banaketa
635
Joseba Jakaren diagnosia eta apustuak (1995)
644-645
Hildakoak: Ez adiorik
687